Debarroko oasi liberala

Gotzon Iparragirre Burgoa



Udako Euskal Unibertsitatea

EIBARKO UDALA

Debarroko Oasi Liberala. Aitzindarien bila. Eibar, 1766-1876

Gotzon Iparragirre Burgoa

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2008

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Gotzon Iparragirre Burgoa

ISBN: 978-84-8438-171-6
Lege-gordailua: BI-2850-08

Inprimategia: RGM, Urduliz
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

EIBARKO ALKATEAREN AGURRA 9

UEU-KO ZUZENDARIAREN AGURRA 11

ESKER ONAK 13

SARRERA GISA 15

1. KAPITULUA. EIBAR LEGE ZAHARRAREN GERIZPEAN 21
SARRERA 21
EIBARKO HERRIA XVIII. MENDEAREN ERDIALDEAN 22
JARDUERA EKONOMIKOAK 26
ANTOLAKETA POLITIKOA 33
GIPUZKOAKO BATZAR OROKORRAK 47
ANTOLAKUNTZA MILITARRA 50
LABURPEN GISA 53

2. KAPITULUA. 1766KO MATXINADA EIBARREN 63
SARRERA 63
FUNTSEZKO ELIKAGAIAK ETA BIZIRAUPEN-KRISIALDIAK 63
MATXINOEN LEGEA 67
1766KO MATXINADA EIBARREN 73
MATXINADAREN ONDORIOAK 82
HERRI-ORDEZKARIEN ERAGINA EIBARKO UDALEAN 85
KONKLUSIOAK 90

3. KAPITULUA. FRANTZIAKO IRAULTZAREN ZAPLADA (1789-1795) 97
IRAULTZA BURGESEN EZTANDA 97
IRAULTZAREN LEHEN UHINAK EIBARREN 99
PRESTAKIZUN MILITARRAK 100
GIPUZKOAREN TRAIZIOA? 105
EIBARTARRAK KONBENTZIOAREN AURREAN 111
LASKURAIN AITA-SEMEAK, AUZIAN 118

EIBAR SUTAN 126
LASKURAIN NAGUSIAREN AURKAKO AUZIA 129
JOSEFA ANTONIA LEZETAREN
—LASKURAINEN ALARGUNAREN— HELEGITEA 131
KONKLUSIOAK 137

4. KAPITULUA. HAUTSETATIK BIRSORTU BEHARRA (1795-1808) 143
SUNTSIPENAREN ONDORIOAK 143
ARMAGINTZAREN ETORKIZUNA ZALANTZAN 147
KRISIALDI SOZIOEKONOMIKOA: ZORPETZEA,
TXIROTZEA, GAIZTOTZEA.... 151
GERRAOSTEKO UDALGINTZA EIBARREN 159
KONKLUSIOAK 169

**5. KAPITULUA. BONAPARTETIARREN INBASIOA
ETA GERRAOSTEA (1808-1820) 175**
SAN ILDEFONTSOKO TRATATUTIK (1796) MAIATZAREN
2KO ALTXAMENDURA (1808) 175
IGNACIO MARIA IBARZABAL HIL ZEN URTEAN... 177
NORTZUEK BORROKATU ZUTEN NAPOLEONEN AURKA? 184
ZORRETAN ITOTA 192
HERRI-LURREN DESAMORTIZAZIOA 199
UDALA ETA UDALKIDEAK ALDAKETA INSTITUZIONALEN
ZURRUNBILOAN 208
GERRAOSTEKO EGOERA EKONOMIKOA 222
KONKLUSIOAK 231

**6. KAPITULUA. OASIS LIBERALA TRADIZIOAREN ERRESUMAN
(1820-1833) 239**
IRAULTZA LIBERALAREN EZTANDA 239
SARRERA 239
RIEGOREN ALTXAMENDUA 240
1820KO APIRILEKO UDALA 242
1821EKO UDALA 245
1822KO UDALAREN HAUTAKETA 257
ARMAGINTZAREN BILAKAERA HIRURTEKOAN ZEHAR 263
TAMALEZKO HAMARKADA 267
1823-1825 BITARTEKO UDALA 268
HIRUKOTEEN UDALAK ETA LIBERALEN ERREAKZIOA (1826-1831) 280
KONKLUSIOAK 308

7. KAPITULUA. I. KARLISTALDIA EIBARREN (1833-1839)..... 317
GERRA DINASTIKOA ALA LEHIA POLITIKOA?..... 317
EIBAR, LIBERALEN UHARTEA 321
ARMAGINTZA I. KARLISTALDIAN..... 330
EIBAR, KARLISTEN ESKUETAN 334
"BAKEA ETA FORUAK": EUSKAL AKORDIOA 347
KONKLUSIOAK..... 349

8. KAPITULUA. KONSTITUZIOA ETA FORUAK, AURREZ AURRE (1839-1868) 357
MODERATUEN ETA AURRERAKOIEN ARTEKO TIRABIREN PEAN . 357
ARMAGINTZAREN EGOERA GERRAOSTE LABURREAN 379
UDALAREN ETA ELIZAREN ARTEKO HARREMANAK 386
1845EKO "LEY DE AYUNTAMIENTOS" INDARREAN..... 392
EGOERA EKONOMIKOA 1850ETIK AURRERA..... 401
UDAL ITXIAREN EBOLUZIOA..... 411
KONKLUSIOAK..... 421

9. KAPITULUA. IRAULTZA LORIATSUA ETA BIGARREN KARLISTALDIA (1868-1876) 425
ISABEL II.AREN ERREGIMENAREN GAINBEHERA 425
ALTXAMENDUAREN AURREKARI HURBILAK..... 428
IRAULTZA LORIATSUAREN EZTANDA..... 432
ERLIJIOAREN AUZIA..... 439
ERREGE BATEN BILA... 444
… ERREPUBLIKAREKIN TOPO 451
BEHIN-BEHINEKO UDAL KARLISTAK 465
1874KO MAIATZAREN 1EKO UDALA: ANTONIO GARAGARTZA ALKATE 468
FORU-UDALAK KARLISTEN GARAIAN (1875-1876) 477
GERRAREN BUKAERA ETA GERRAOSTEA 481
ZERRENDA BELTZAK 485
KONKLUSIOAK..... 493

EPILOGOA..... 499

BIBLIOGRAFIA 521

ITURRIAK 527

Eibarko alkatearen agurra

Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzan Juanito San Martinek bere bizitzan gogotsu landutako esparruak jorratzeko aukera eman nahi izan die Juan San Martin bekaren bitartez, bai ikertzaile gazteei, bai adituei.

Oraingo honetan eskuartean duzuen lana bekaren II. deialdiaren emaitza da.

Lan honen argitalpenak luze jo badu ere, zorionak eman nahi dizkiot hain zabal eta sakon gure herriaren historiaren zati bat aztertu duen Gotzon Iparragirreri. Luze jo du, hain zuzen ere, egilearen jakin-minak beti ur sakonagoetara eraman duelako, eta benetako historiazale denari zail egiten zaiolako esatea hemen itxiko dut historia atal honen atea. Baina beka batek eta liburu batek mugak ezartzen ditu denboran eta neurrian.

Eibartarrok badaukagu hemendik aurrera gure herriaren eta herritarren gainean gehiago jakiteko aukera ederra, gure ez hain urrutiko senideek garai haietan nola eta zeren arabera jokatu zuten jakiteko aukera paregabea. Orduko kontuak ezagutzeak gaurkoak hobeto ulertzera eramango gaituelakoan, ea laguntzen digun etorkizuna patxadaz eta pentsamolde zabalez eraikitzen.

Zorionak berriro ere egindako lanagatik eta eskerrik asko gure hiriaren historia zati bati artxiboetako hautsak kendu eta gure begien aurrean hain txukun jartzeagatik.

Miguel de los Toyos Nazabal
Eibarko alkatea

UEUko zuzendariaren agurra

Urte batzuk badira dagoeneko Eibarko Udalarekin lankidetzan ***Juan San Martin*** beka dela medio, ikerkuntza sustatzen gabiltzala. Estimatzekoa da hitzetik hortzera ikerkuntza hitza erabili bai baina bera gauzatzeko sosik apenas esleitzen ez den gizarte eta garai honetan Eibarko Udalaren ahalegina. Bere txikitasunean handia, oso handia!

Oraingo honetan beste urrats bat eman dugu, Gotzon Iparragirrek egindako Eibarko historiari buruzko ikerkuntza-lana argitaratzea hain zuzen ere. Izan ere, ikerkuntzan jardutea ez da lan erraza, baina zailtasun guztien gainetik lanok burutu ostean gehienetan bazter batera zokoratzen dira hautsak jan ditzan. Ezin dugu etorkizunik izan ikerkuntzarik gabe eta ikerkuntzaren zabalkunderik gabe.

Izan dadila, beraz, ahalegintxo hau urratu beharreko bide luze horretako urrats bat, eta batak bestea ekar dezala. Zorionak Gotzon egindako lanagatik, jakin-mina elikatzeagatik eta amore ez emateagatik.

Lore Erriondo Korostola
UEUko zuzendaria

Esker onak

Itsas bidaia baten antzera, ikerketa honek fase bat baino gehiago izan ditu: gogotsu eta itxaropentsu hasi arren, nabigatzen hasi orduko konturatu nintzen ez neukala bidaia errazik muturren aurrean; milak nekez egiten nituen, eta batzuetan alperrik, zerbait aurkitzea espero nuen uharte hartara heldu eta ezer ez topatzean. Haizea alde izan denean, plazera izan da lemari eustea; korronteari segi eta altxor ezkutuak ere topatu ditut, ustekabean! Baina ah, Eolo greban jarri denean, txalupa penagarria eta biok, indargabe eta olatu korronte arriskutsuen menpe gelditu gara. Zalantzarik handienak bidaiaren erdialdera hasi dira, nekearekin batera: uste nuen lekura helduko ote naiz, edo beste batera? Norabide egokia daramat nahi dudan lekura ailegatzeko? Probisioek, eutsiko dute? Egunak joan, egunak etorri, ez dago itzultzerik, eta aurrera jarraitzea da aukera bakarra. Halako batean, txori aldra bat ababorretik. Eta egun batzuetara, halako batean, lurra. Urruti dago oraindik, egunak, beharbada asteak falta dira ailegatzeko. Hasieran uhartedi txiki bat da; gero irla handiagoak eta azkenean, kontinentea. Ez da uste nuen lekua, baina azkenean lurra zapaltzen ari naiz, aspaldidanik inork zapaldu ez duen lurra, aztarna argigarri eta misterio berriez beteriko eremua, eta paisaia berri hau ikuste hutsak merezi izan ditu bidaian zehar igarotako zalantza, esfortzu eta neke guztiak .

Debarroko oasi liberalera ekarri nauen bidaia honetan, Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzutik jasotako laguntza aipatu nahi dut lehenik eta behin, eta bereziki Fernando Muniozguren defuntuaren irudia daukat gogoan, udaletxeko liburubiltegira eraman eta hautsez betetako kutxetatik hiruzpalau liburu estraperloan ematen zizkidalarik. Bere ostean, Junkalek hartu du Euskara Zerbitzuaren ardura eta berari ere badaukat eskertu beharra, egindako bitartekari-lana, eta nirekin izan duen konfiantza eta pazientzia. Udal-arduradunen artean, Nerea Alustizak laguntza estimagarria eskaini dit, baita ikerketa arloan ere. Juan San Martin ere ezin aipatu gabe utzi, elkarrekin egon ginen une laburretan hitzik gabeko aholkuak oparitu baitzizkidan, begirada hutsarekin.

Ikerketaren eremuan, Yolanda Ruiz Eibarko artxibozaina da ostera gehien egin duena nik eskatutako agiriak ekartzen eta eramaten, zehatz eta bizkor beti. Eibarko artxibategiko bulegotxoan ezagututako langileak ere ezin aipatu gabe utzi: Josék aholku eraginkorrak eskaini zizkidan datu-baseko zenbait funtzio sistematizatzeko orduan; Itziar, ikerketa-fasean sortzen zitzaidan edozein zalantzari erantzuteko prest beti; eta Marina, nik eskatutako liburutzarrek mahai gainean ematen

zuten danbaden pairatzailea, bera diseinatzen ari zen arma-museoaren maketatxoa mahai berean zegoen-eta...

Tolosako artxibategian, Gabriela Vivesek emandako laguntza erabakigarria izan da, nire interesaren nondik norakoez jabetuta Eibarri dagozkion agiri ezin interesgarriagoak eskaini baitzizkidan, oraindik katalogatu gabe zeudenak. Era berean, GAOko langile diren Ana Mari eta Josuneren laguntza jaso dut: bilaketak egiteko moduari buruzko informazio zehatzaz gain, beti eskertzen dira kalitatezko fotokopiak. Bergarako Udal Artxiboan Arantzazu Otegi izan da nire gida, egin ditudan ostera gutxi, baina aberasgarrietan.

Oro har, bisitatutako gainerako artxibo guztietan harrera ona jaso dut bertako langile eta arduradunen aldetik: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibategian, Mitxelenako Fondo Gordeen Gelan, Madrileko "Real Academia de la Historia"ren artxibategian eta Madrileko "Archivo Histórico Nacional"ean. Langile guztientzat nire esker onak. Artxiboetatik at, ezin aipatu gabe utzi Txema Uriarterengandik jasotako laguntza erabakigarria. Uriartek Debarroari buruzko doktore-tesia egin zuen, eta argitaratu gabeko tesi horretan oinarritu naiz neure ikerlanaren zenbait ikuspegi jorratzeko orduan.

Bukatzeko, nola ez, nire emazteari eskertu behar diot artxiboetan eta ordenagailuaren aurrean igaro ditudan ordu guztietan, etxeko lanez eta gure alaba bietaz arduratu izana. Baita nire amari ere, ilobekin txanda bat baino gehiago egitea egokitu baitzaio. Familiaren sostengurik gabe, ikerlan hau ez nuen inoiz bukatuko.

Ondarroan, 2008ko apirilaren 6an

Sarrera gisa

Debarroko Oasi Liberala. Aitzindarien bila. Eibar, 1766-1876 izenburuko ikerlan honetan, 1756-1876 epea aztertzen da, bederatzi kapitulutan banatuta. 120 urte horietan zehar Eibarko armagintzak Soraluzeko Erret Fabrikarekiko mendekotasuna gainditu, eta Arroko industriagunerik garrantzitsuena bihurtu zen. Gremioen egitura gainditu zituzten, Eibarko armaginek ekoizpen moduen aldaketa eta teknologia berriak ezagutu zituzten. Arlo politikoan, ekimen konstituzionalistak foruen eskuduntzak murrizten joan ziren, guztiz ezabatu zituzten arte. Pentsamolde-aldaketa neurtzea zailagoa den arren, tradizionalista sutsuenak ere aurrerakoiak ziren norberaren ongizatea hobetzen zuten asmakuntzak onartzeko orduan, lurrun-makina, besteak beste. Oso interesgarri deritzogu epe horretan zehar Eibarko liberalismoak izan zuen bilakaera aztertzeari, are gehiago XIX. mendearen azken herenean aldaketa politiko eta ekonomikoen abangoardian zeudela dakigunean. Nondik zetorkien tradizio sozialista eta errepublikazalea Akilino Amuategiri, Toribio Etxeberriari edo beste hainbat iraultzaile ospetsuri? Sustrai horiek bilatu nahian XVIII. mendeko bigarren erdialdera arte joan gara, Ilustrazioa deituriko mugimendua gorpuzten ari zen garaira, hain zuzen.

Abiapuntu legez 1755. urtea hartuta, lehen kapituluan Antzinako Erregimenaren munduan murgilduko gara, armagintzak eta armaginek bizi zuten egoera ezagutzeaz gain, Lege Zaharraren arabera udal-boterea nola antolatzen zen ikusteko. Bigarren kapituluan ikusiko dugu nola astindu zuen botere-eredu hori 1766ko matxinadak, bere arrakasta Eibarren eta matxinoen aurkako errepresioa. Hirugarrenean, Konbentzio Gerra izango dugu mintzagai eta, udalerriaren erreketaz gain, konbentzionalek Eibarren izan zituzten ustezko laguntzaileen jokabidea aztertuko dugu. Hiru kapitulu hauek lehen blokea osatzen dute, Lege Zaharraren egituraketa politiko, ekonomiko eta sozialak planteatzen zituen abantaila eta kontraesanei buruzkoa.

Laugarren kapituluan, hirigunearen berreraikitzea eta Konbentzio Gerrak utzitako ondorioak ezagutuko ditugu. Bosgarrenean, Napoleonen inbasioak eta Cádizko Gorteek udalaren antolaketa politikoan utzitako arrastoari jarraituko diogu, baita ondoren Fernando VII.aren eskutik etorritako berrezartzeari ere. Seigarrenak antzeko eskemari jarraituko dio; izan ere, Hirurteko Liberalak Eibarren izan zuen bilakaera arrakastatsuaren ostean, bigarren berrezartzeak utzitako ondorioetara joko baitugu. Bigarren bloke honetan, boterea oraindik tradizionalisten

esku zegoela, lehen saiakera liberalen berri izango dugu. Hementxe kokatzen da ikerlanaren muina, ez soilik ikuspegi politikotik, baita ekonomikotik ere.

Zazpigarren kapituluarekin bloke berri bat hasiko dugu. I. Karlistaldiak beste fase bat ireki zuen, tradizionalismoaren gainbeheraren hasierarena, hain zuzen. Absolutismotik bereizi eta foru-erregimena babesteko moduren bat egon zitekeelakoan foruzaleek Bergarako Besarkada onartu zuten. Zortzigarren kapituluan, Eibarko Udalaren bilakaera ikusiko dugu, foru-erregimenetik konstituzio-erregimenera. Eta bederatzigarrenean Iraultza Loriatsuaren eztanda eta II. Karlistaldia. Azken kapituluan aurkituko ditugu Eibarko errepublikazaleei buruzko lehen aipamenak.

Irakurlea aspertu baino lehen, esan dezagun zeregin honetarako erabiliko ditugun metodologiak mikrohistoria eta prosopografia izango direla. Mikrohistoriaren ezaugarri nagusia eskalaren txikitzean datza[1]. Eskalaren murrizketa horri esker, mikrohistorialaria, ikerketa makrohistorikoek ordura arte nabarmendu ez dituzten fenomenoez ohar daiteke. Ez hori bakarrik. Ikuspegi ideologikotik erabili izan diren hipotesiak kontrastatzeko balio digu, eta guztiontzat baliagarritzat jotzen den jokamolde edo batez besteko hori, gune konkretu batean zein puntutaraino betetzen den neurtzeko. Zentzu horretan, ikerlan mikrohistorikoek ñabardura interesgarriak eskaini diezazkiokete[2] arau orokorrari. Tokiko historiaren ikerketa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da gaur egun, eta ikerlan honek beste ekarpen bat izan nahi du mundu horretan.

Prosopografiari dagokionez, haren helburu nagusia banakako gizakiaren ikerketara bueltatzea da. 1990eko hamarkadara arte, historiografia, neurri handi batean historia estruktruralistaren menpe egon da, "iraupen luzeko mugimendua" atzeman nahian[3]: historia soziala demografian zentratu zen, eta milioika lagunek mendeetan zehar osatutako emigrazio-uholdeak zenbatu ditu; historia kuantitatibistari esker,

1. Korronte honen aitzindarietariko batek dioenez: «La microhistoria en cuanto práctica se vasa en esencia en la reducción de la escala de observación, en un análisis microscópico y en un estudio intensivo del material documental (…) Para la microhistoria la reducción de escala es el procedimiento análitico aplicable en cualquier lugar, con independencia de las dimensiones del objeto analizado» (Levi, 1993: 4). Zenon Davis ere iritzi berdinekoa da: «La ventaja de la microhistoria es la misma que la microbiología: el historiador puede ver y hurgar con su pluma las pequeñas interacciones y estructuras, a menudo invisibles, y averiguar cual es su funcionamiento» (Zenon, 1991: 178).

2. «La historia local permite la comprobación de afirmaciones generales y al mismo tiempo la comparación con casos similares. De los análisis, particularizados, sean de instituciones locales, comportamientos, vivencias religiosas, niveles de alfabetización, etc. Pueden extraerse resultados importantes para la fundamentación de teorías o tesis» (Vazques de Prada, 1987: 11).

3. «Desde la perspectiva de la larga duración (…) es difícil comprender los problemas cotidianos de supervivencia. Se razona a partir de medias decenales, medias móviles, transcritas en papel semilogarítmico. Lo vivido (una expresión que contiene indudablemente elementos de ambigüedad) queda ampliamente al margen» (Ginzburg eta Poni, 1991: 64).

berriz, altzairu tonatan neurtzen den industria-iraultzaren garrantzia ulertu dugu; historia politikoak, azkenik, errege eta agintarien erabakiez gain, alderdi politiko eta sindikatuen indar eta estrategiak agerrarazi dizkigu… Baina, marko orokorraren eraikitze horretan, ez al du koadroaren protagonista nagusia zertxobait baztertuta utzi?[4]

Historia estrukturalak bete du bere helburuaren zati handi bat, eta orain bere emaitzak osatzeko, kontrastatzeko eta balioesteko unea da. Prosopografia, historia protagonizatu zuten gizaki guztien bila dabil, baina era kolektiboan: herri bateko biztanleak, bailara bateko artzainak, gatazka bateko errepresaliatuak… Pertsonaia horien biografia kolektiboaren bidez, haien denborako galdera nagusiak (eta erantzunak) islatzean datza prosopografiaren metodoa. Horretarako, pertsonaia guztiak iragazki batetik igarotzen ditu. Iragazki horretan galderak berdinak izango dira pertsonaia guztientzat, eta, galdera horiei emandako erantzunen azterketak, euren jokamolde politikoen, jatorri sozialen edota interes ekonomikoen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ezagutzeko balioko digu. Biografia horiek gizabanakoaren eta komunitatearen arteko tentsioan kokatuko dira, eta kasu honetan gainera, gero eta nahasiago ageri den testuinguru batean. Bakoitzak egingo duen aukeraketa ulertzeko bere familia- eta gizarte-harremanak ezagutzen saiatuko gara, baliabide ekonomikoak, lehentasun politikoak…

Zeregin horretarako 2.213 eibartarrek osatutako datu-base bat eratu dugu. Datu-base horretan agertzen dira 1755-1876 bitarteko udalkide guztiak (377 guztira), bakoitzak bete zituen kargu guztien aipamenarekin; hortxe daude 1762ko 168 eta 1835eko 238 maisu eta ofizial armaginen zerrendak, bakoitza zein gremiotakoa zen zehaztuz; 1766ko matxinadako batzarretan parte hartu zuten 213 auzokideak; 1835eko 478 miliziano liberalak eta abar, eta abar. Pentsa daitekeenaren kontra, datu-basean horrenbeste pertsonaia biltzearen alderik gogorrena ez da orduak eta egunak pasatzea eskuz idatzitako dozenaka zerrendari formatu informatikoa ematen. Lan aspergarria iruditu arren, emaitza pozgarrien iturri ere bada, ondo identifikatu gabe dagoen pertsonaia interesgarri bati buruz argibide aberasgarriak eskaintzen dituenean. Zalantzarik gabe, buruhauste nagusiak datu-baseko erregistroen zerrenda hazten denean hasten dira. Kontuan hartu behar dugu gehienetan zerrendek datu bakar bat eskaintzen digutela pertsonaia bakoitzari buruz; eta sasoiko eskribauak ez zirela oso zehatzak izaten pertsona bakoitzaren izenabizenak jasotzeko orduan. Beraz, adibide bat jartzeagatik, 1835eko armaginen zerrenda datu-basera sartzen ari garela Francisco Echeverria aurkitzen dugu, ofizial kanoigina bera. Honezkero, datu-basean honako kandidatu hauek dauzkagu:

4. José Antonio Piqueras bereziki kritiko azaltzen da historia estrukturalarekin: «La historia individual, por último, aparece como reacción a la historia estructural que sepultó a los hombres entre largas duraciones y magnitudes seriadas que, en su pretensión científica, paradójicamente se iba haciendo menos histórica» (Piqueras, 1994: 57).

– Francisco Echeverria, 1780-1802 bitartean udalean zenbait kargu betetakoa. Udal-karguak betetzeko 1780an gutxienez 25 urte izan behar zituela kontuan hartzen badugu, 1835ean gutxienez 80 urte izan behar zituen; eta printzipioz behintzat albo batera utziko dugu.
– Francisco Echeverria, 1831ko udal-hauteskundeetan herri-sindikoa izatekotan egon zena, eta 1842an 150 errealeko zerga ordaindu zuena. Honek, nahiko aukera ditu.
– Francisco Antonio Echeverria. Honek ez zuen udal-kargurik bete, baina 1842ko zergaren zerrendan agertzen da 200 errealeko kopuruarekin. Beno, behintzat badakigu Francisco eta Jose Francisco 1842 aldera bizi ziren bi pertsona ezberdin izan zirela.
– José Francisco Echeverria, 1835ean sindiko izendatu zutena. 1831ko herri-sindikoa pertsona bera ote dira? Horrela balitz, Jose Franciscok 150 erreal ordaindu zituela ondorioztatuko genuke, eta Francisco Antoniok 200 erreal. Baina, bietatik zein da 1835ko Francisco kanoigina?
– Francisco Echeverria "menor". Hau errejidorea izan zen 1842an. "Menor" esaten duen lekuan "gazteagoa" esan nahiko zuela ondorioztatuta ere, nor ote zen gazteagoa, Francisco Antonio ala Jose Francisco? Edo beharbada, biok baino gazteagoa zen hirugarren Francisco Echeverria bat zegoen?

Eta bi gehiago. Konturako zaretenez, edozein erotzeko kontu bihur daiteke datu bakar bat sartzea horrenbeste aukera dituzunean. Eta zentzu horretan askoz erosoagoa da zalantza handia sortzen denean erregistro berria sortzea, datu xume horrekin bada ere. Erregistro horiek "Clon" eremuak bereizten dituzte, jada datu-basean dugun beste pertsonaia bati buruzko datua izan daitekeela ohartarazteko.

Erabilitako idazkerari buruzko zenbait azalpen eman beharrean aurkitzen naiz. Aztertu ditudan agirien % 99,99 baino gehiago gaztelaniaz daudenez idatzita, beti ez da erraza izaten narrazioan zehar agiriaren hitz testualak erabiltzea. Horrelakoetan, gehienetan aipuak erabili baditugu ere, posible izan denean batak edo besteak esandako hitz zehatzok testura gehitu ditut, eta batzuetan ez da "collage" erraza bihurtu bi hizkuntzok ganoraz lotzea. Gaztelaniari dagokionez, ikerlan honek aztertzen duen epe historikoa nahiko luzea denez, grafia aldatzen joan zen. Agiri baten idazkerak garai historiko baten berri ematen digun neurrian, grafia errespetatzen saiatu naiz. Hortik, tilderik gabeko hitzak, "h"aren erabilera berezia, "b"aren eta "v"aren erabilera nahasia, hizki larrien eta hizki xeheen erabilera arbitrarioa… Hitz horiek pertsonen nortasunak azaltzen dituztenean, datu-basera jatorrizko grafiarekin bildu ditugu, baina kapituluetan grafia euskalduna erabili dut abizen euskaldunentzat, eta gaztelaniakoa izen propioentzat.

Terminologiari dagokionez, arazoak izan ditugu gaztelaniazko zenbait arkaismo itzultzeko: "*regidor*", "*capittular*", "*vecinos concejantes de voz pasiva*",

"*abogado de ciencia y conciencia*", "*sindico procurador del comun*", "*urbanos armados*", "*gracioso donativo del vino*"… Horrelakoetan itzulpen literala egitea erraza da, baina gehienetan ez da aukerarik zuzenena izaten; egokiago iruditu zaigu, hitz horrek gaztelaniaz zuen esanahia ulertu eta euskaraz antzekoa duen beste bat erabiltzea. Nork bere kasa egindako itzulpen hauetan jatorrizko esapidea gehitu dugu, komatxoen artean. Adibidez, auzokide hautagai —"*vecino concejante de voz pasiva*"—, botoa emateko eskubidea edukitzeaz gain, udal-karguetarako hautagaiak zirela zehazteko. Zenbait neologismo ere asmatu ditut, usterik hoberenean: "*alfonsino*"ak alfontsotarrak badira, "*isabelino*"ak isabeldarrak eta "*napoleonico*"ak bonapartetiarrak. Eta hitz komodinak: adibidez, *udalkideak*, edozein kategoriatakoa izanda ere, udaleko karguak bete zituzten pertsonaia guztiei buruz hitz egiteko, kapitular eta herri-ordezkariak aipatzen ibili beharra arintzeko.

Besterik gabe, murgildu gaitezen Antzinako Erregimeneko Eibarren.

1. kapitulua
Eibar Lege Zaharraren gerizpean

SARRERA

Historian zehar, pertsonen bizimoduak eta pentsaerak egonkor mantendu diren epe luzeekin batera, aldakuntza-une garrantzitsuak bizi izan dira. Une horietan, elurbola baten antzera, txikia eta geldoa zirudien mugimendua handitu eta bizkortu egiten da, indarrean dauden arau nagusiak hautsiz eta inertzia berriak sortuz. Batzuetan, asmakizun garrantzitsu bat izan da historiaren norabidea aldatu duena: sua, hizkuntza, nekazaritza edo eskritura, adibidez; beste batzuetan, ideologia berri baten sorkuntza izan da pentsamolde zaharrak gainditu, eta gizakiei norabide berriak gauzatzeko aukera eman diena (monoteismoa, materialismo historikoa…); eta aldakuntza-prozesu horien atzean beti, gizakiak eta giza talde zehatzak aurkitzen ditugu: batzuetan elkarlanean, beste batzuetan elkarren aurka, betiere, aldakuntza-dinamikak indartzen edo oztopatzen.

Ikerlan honetan 1766-1876 epea aztertuko dugu nagusiki, baina gidoiaren premien arabera, batzuetan muga kronologiko horiek gainditu beharrean aurkituko gara. Ehun eta piku urte horietan zehar mundua zeharo aldatu zen. Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerikako Estatu Batuak epizentrotzat hartuta, industria-iraultza eta iraultza liberala barreiatu ziren mundu osoan zehar; ez beti elkarren parean, baina bai elkarren eskutik. Zer esanik ez, aldakuntza horiek mugatuak izan ziren, partzialak… Eta gaur egun bezalaxe, orduan ere, letra xeheekin idatzi beharreko hitza zen "iraultza", iraultza bere osotasunean, hau da, botere-harremanak "azpikoz gora" jartzea, ez dugulako oraindik ikusi. Bai, ordea, agintea giza talde batzuetatik beste batzuetara iragaten joan dela, eta bakoitzaren helburu eta indarren arabera, aurrera eta atzera eman direla pausoak. Zentzu horretan, euskaraz darabilgun "iraultza" hitza ez zait egokiena iruditzen "Re-Evolution" hitzak adierazi nahi duen prozesu baten bat-bateko bizkortzea definitzeko. Baina berba egokiagorik ezean, Industria Iraultza, Frantziako Iraultza eta Errusiako Iraultzari buruz hitz egiten jarraitu beharko dugu.

Eibarren kasuan, errebolta-iraultzarik ospetsuena 1931ko apirilaren 14ko egunsentikoa bihurtu bada ere, badago beste iraultza ezkutu bat, ez duguna ia ezagutzen, ez zelako egun bakar batean burutu. XX. mendean errepublikazaletasunak

Eibarren eduki zuen indarra ulertzeko, ezinbestekoa da haren hastapenak ezagutzea, hau da, XIX. mendeko liberalismoak Eibarren izan zuen eboluzioari begiratzea. Eta liberalismoa diogunean, bi arloz ari gara: bata politikoa, konstituzionalismoari lotutakoa; bestea ekonomikoa, librekanbismoak aldarrikatzen zuen "*Laissez faire, laissez passer*" lemari atxikitakoa. Biak ere, Ilustrazioaren magalean hasi eta garatutako korronteak.

EIBARKO HERRIA XVIII. MENDEAREN ERDIALDEAN

Deskribapen fisikoa

1785eko otsailean, Gipuzkoako Diputazioaren bidez, *Real Academia de la Historia*k igorritako galdetegi bat ailegatu zen Eibarko Udaletxera, eta galdetegi horren erantzuna dugu XVIII. mendearen bukaeran herri armaginari buruzko deskribapenik fidagarriena. Txosten hori *Real Academia de la Historia*ko artxibategian gordetzen da[5], eta ez dago sinatuta. Amaieran, 1804an datatutako gutun pertsonal bat aurkitzen dugu[6], Francisco Antonio Arrazainek —hain zuzen ere, 1785eko alkateak— Vargas Ponceri idatzitakoa —"*Diccionario*"aren arduradunetariko bat—. Horren arabera, F. A. Arrazain izan zen galdetegiari erantzutearen arduraduna, ida-

5. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199, 38.-57. or. Txosten hau Gregorio Mugicak ere aipatzen du bere monografian (Mugica, 1990: 106). Baina ematen duen signatura, beste hau da: "Coleccion Vargas Ponce", Est. 20; gr. 3ª; nº 26. RAHn gordetzen den txostena 1862an Gorosabelek egindako deskribapenarekin konparatuz, ez dugu aldaketa handirik aurkitzen. Are gehiago, Gorosabelen idatziak Arrazainek egindakoaren kalko bat ematen du, idazkera aldetik eguneratuagoa, eta zehaztasun batzuk gehituta. Baina funtsean, herria fisikoki ez zen asko aldatu.

6. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199, 81.-82. or. "Carta de Francisco Antonio Arrazain a Don. Joseph Vargas y Ponce, dandole informacion sobre cantidades de trigo, maiz y castaña recogidas en Eibar y Elgoibar". Gutunaren bigarren zatiak tonu pertsonala hartzen du, eta interesgarria da, Arrazainen estuasun ekonomikoez gain, Eibarko jauntxoekin mantentzen zuen harreman pertsonalen berri ematen digulako.

«Sr. Don. Joseph Vargas y Ponce, Eybar Enº 3 de 1804. Agradezco a Vmd mui mucho su consejo de recurrir a mi Excmo. Pariente con repetidas suplicas, clamandole por tantas nezesidades en que me hallo, (…) por lo que haora un año recivi dados de su bolsillo 600 R. Vn. Si Vmd. como instruido de mi decadencia por las causas y motibos, se dignasse en tomar el trabajo de poner mis mas reverentes suplicas avorandose a Su Excª, fundare la esperanza de conseguir de su benevolencia algun socorro para alivio de mi dilatada familia (…) Participe sus expressiones a los Sres. D. Felix Antonio y su sobrino Buztindui, quienes estimaron muchisimo y es regular (¿) rindiendose a Vmd. muchas gracias por el afecto que nos profesa, se le escriva por los quatro primeros los mas sacrificados que a pesar de nuestras diligencias nos hallamos sin el menor socorro de S.M. (que Dios le guarde): al Indiano nada le he dicho por que haze algunos años que falto la confianza, y me mira de esquina, porque le dije algunas verdades y … Sea Dios con nosotros, y al mismo le pido le guarde y le conceda los merecidos ascensos que le dessea su mas favdo. inttimo seguro servidor QSMB. Fco. Antº. Arrazain». Arrazainek aipatzen duen "indianoa" Sebastian Zumaran zen, aurrerago ikusiko dugun moduan. Azpimarratuak nireak dira.

tzian aurkitzen ditugun akatsek RAHn gordetzen dena jatorrizkoaren transkribapen bat dela pentsarazten badigute ere.

1785ean, harresiak inguratzen zuen hiriguneaz gain, Eibarrek lau auzo zituen hirigunetik hurbil: mendebaldetik ekialdera Isasi, Ardanza, Musetadi (gaurko Muzategi) eta Arragueta. Harresia handia omen zen, etxeak baino altuagoa, —«un Murallon que atraviesa todo el pueblo en medio de El muy Elevado sobre las casas»—, sartzeko hiru ate nagusirekin. Horietatik bi, kaleetan zeudela dio txostenak, zein kale ziren zehaztu gabe, eta hirugarrena Elgetatik zetorren bidean. Harresiaren taxuketari buruz zehaztasun gehiago eskaintzen dizkigu Juan San Martinek, gutxi gorabehera Barrenkaletik (gaurko Ifar-kale?) Untzagara eta Portaletik (Elgetakalen) Ego ibairaino[7]. Sei kale zituen: hiru aldapatsuak —Barrenkale, Elgetakale eta Txiriokale— eta hiru lauak —Arrabal, Plazaberri eta "Ulsaga", gaurko Fermin Calbeton—, seiak hareharrizko espaloiekin. Bi enparantza ere ba zituen: nagusia, «de corridas de toros y nobilladas»[8], eta txikia «para bailes de tamboril en los dias Festivos»; eta bi ostatu.

Hiribilduan, XVI. eta XVII. mendeetan zehar Eibarko handikiek eraikitako jauregi eta palazioen aipamenarekin jarraitzen du idatziak: Urkizu, Unzueta eta Iñarrako dorretxeak, Indianokua eta Kontadorekua eraikinak… eibartarrek eta Eibarrek sasoi batean izan zuten ospe eta garrantziaren ezaugarri. Eta erdian, San Andres, sei kanpaidun eliza, koru zabal batekin, bere organo eta guzti. Toledoko elizak oparitutako liburu baten arabera abestu ohi zuten Eibarko eliztarrek. Eta altxorrik bitxiena, «… un viril un copon llamado pabellon y un Insensario los tres uniformes alhajas que fueron de Francisco Primero Rey de Francia y vendidas en Millan y compradas por D. Pedro de Inarza»[9].

7. Zelaiaren liburutik jaso dut Juan San Martinen iritzia: «… la limitación del recinto amurallado antiguo debió de partir desde Barren-kale hasta Unzaga y desde Portale (en Elgueta-kale) hasta los bordes el río Ego. Las tres calles en cuesta eran: Ipar-kale, Elgueta-kale y Txirio-kale. Las llanas: Arraine-kale, Unzaga (hoy Calbetón) y tal vez Bilbo-zar. Las tres plazas: ¿Plaza Nueva o de los Mártires, la de Arraine-kale y la tercera la de Unzaga, frente a la torre renacentista? Es seguro que, poco más o menos, era esa la villa amurallada» (Celaya, 1970: 10).

8. 1844an zezenketak Untzaga plazan egiten ziren, eta beharbada, baita 1785ean ere. Zezenketa horiek San Joanetan egiten ziren, eta badirudi ez zirela urtean zehar gehiago erabiltzen. I. Karlistaldiaren gerraosteko testuinguru gordinean, etxebizitza premia zela-eta, zenbait herritarren eskakizunak ailegatu ziren Eibarko Udalera, eraikin xume horiek etxebizitza moduan erabiltzeko. Une batean gainera, oso kotizatuta egon ziren: Jose Ramona Sustaetak urteko 100 dukat eskaini zituen «por el probadero que esta detras de los toriles de la Plaza de Unzaga» EiUA, A, 1,1,13, 1844-9-23.

9. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.



***El Eibar antiguo* grabatua. Iturria: CELAYA OLABARRI, Pedro: *Eibar. Síntesis de monografía histórica,* 7. or.**



Eibarko hiribilduaren planoa XVIII. mendean. Iturria: SAN MARTIN, Juan: *Antzinako Eibar, Etnografia gaiak,* 67. or.

Eraikinen edertasunak hiribilduko handikien nagusitasun ekonomikoa adierazten bazuen ere, XVIII. mendearen erdialdean auzoetan oraindik hirigunean baino jende gehiago bizi zen. Auzoak diogunean, nekazari-auzoez ari gara, ez jada aipatu ditugun Isasi, Arrabal, Muzategi eta Arragueta hiriguneko auzoez. Udalerria bost nekazari-auzotan zegoen banatuta: Mandiola, Otaola, Gorosta, Arrate eta Aginaga, azken hau gainera, eliza eta guzti[10]. Manriquek dioenez, 1747an, Eibarko auzo

10. «tiene en su dicha jurisdicion una Iglesia Parroquial intitulada de San Andres Apostol que es de Real Patronato y el actual agraciado Patrono d. Babil de Airezaga con el nº de ocho Beneficiados de los quales dos sirven de Parrocos y la Aneja de San Miguel de Aguinaga se sirve con el noveno Beneficiado que hace de Patrono en ella», RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

batzuek hiribilduak berak baino biztanle gehiago zituzten. Eta Arrateko ospakizunetan 4.000 pertsonatik gora biltzen omen ziren, inguruan zazpi-zortzi legoatik etorrita. Harresitik at, iturriak, errekak, errotak… Toponimia aberatsa eta bitxia eskaintzen digu Arrazainek, eta uraren bideak deskribatzean noizbait irudikatu izan dugun iragan bukoliko hartara eramaten gaitu:

> El nº asibien de fuentes que tiene en su Jurisdicion pasara de mas de ciento las que hay al Redor y cercania del Pueblo son seis de Aguas muy delicadas y Abundantes (…) Tiene Diez y seis aroios (sic) los cinco de ellos son molinos y Barc? que son el macharia, el de Aritain (sic), el de Zaturio, el de Urquizu y el de ybur y once menores que son el de Arrazola Sarasuy SansaBuru ulsaga chalchagua otaola arteguieta Anbeña Ardanza Asua y Sagarteguieta tiene un Rio llamado Egoque jun con el Rio deeva (sic) alqual se le agrega en Malzaga distante media legua del Pueblo desagua en el Puerto de Mar de deva se crian en dicho Rio anguilas de gusto muy delicado algunas truchas Barbos Loinas y Bermejuelas que son unos Pecesillos de gusto y olor de lenguados[11].

Eibarko biztanleria

1785erako, nekazari-auzoak eta hirigunea parekatuta zeuden biztanleen kopuruari dagokionez. Arrazainek eskaintzen dituen datuek hiribilduan bizi izandako gorakada demografikoa egiaztatzen dute «… con el nº de siete Personas de familia en cada una, una con otra asciende a ciento y setenta, y el de las caserias con las ciento quarenta y una de la Parroquia y las veinte y quatro de la aneja a ciento y sesenta y cinco»[12]. Datu horien arabera, 1.190 biztanle bizi ziren hirigunean, eta 1.135 baserrietan: 2.325 biztanle guztira. XVIII. mendearen bigarren erdialdean hiriguneak izan zuen hazkuntza demografikoa armagintzak eskualde osoan izan zuen gorakadari egozten dio Garcia Manriquek (1961: 56, 57), Caracaseko Konpainia Gipuzkoarra Soraluzeko Erret Arma Fabrikaren arduradun izendatzearen ondorioz. Ikerlan honetan aztertuko dugun epean zehar, Eibarko udalerriak bizi izan zuen eboluzio demografikoari buruzko ikuspegi orokor bat edukitzeko, komeni da kontuan hartzea 1794ko erreketaren ondorioz atzerakada bat egon zela, baina 1803rako Eibarrek 1785eko kopuru berdintsua zuela (2.282 biztanle), eta 308 etxe (1785ean baino 27 gutxiago). Zalantzarik gabe, XIX. mendeko guduek hazkunde demografikoa eten egin zuten, baina, oro har, populazioak hazten jarraitu zuen, eta 1860an Eibar 3.815 biztanle izatera iritsi zen.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, Eibarko biztanleria bitan banatzen zen:

> El vecindario se ocupa la mitad del por entero quasi que son los caseros en labrar las tierras de Pan senbrar recoger alechos Argoma y oja para formar de ello abono para abonar dichas tierras, en el acarreto de vena desde el Puerto de Alzoba a las

11. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.
12. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

> Ferreryas Carvones leña etc. cozer dichos carvones y caleras criar viveros de arvoles su plantacion esquilmo etc. la maior Parte de la otra mitad en dicha Real Fabrica de Armas de fuego y Blancas de S. M. y marchanteria de Escopetas muy finas y Pistolas de forma que las que se trabajan en esta dicha Billa igualan, e imitan en su finura a quantas muestras de maior primor han benido de toda Europa y otros instrumentos de Achas Azadas Palas picos Porras etc[13].

Bi munduok —baserritarrena eta armaginena— uste duguna baino hurbilago bizi ziren elkarrengandik, eta itxura denez Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen baino hurbilago. Floridablancaren erroldak ematen dizkigun datuen arabera —1787an argitaratu zen—, Eibarko hirigunean bizi ziren hiru biztanletik bi nekazariak ziren; hau da, armagintzan aritu arren, nekazaritza-munduarekiko loturak mantentzen zituzten. Elgoibarren, hiriguneko biztanleak gutxiago izateaz gain, bitik bat baino ez zen nekazaria. Soraluzen, alderantziz, baserrietan bizi ziren armaginak, baina nekazaritzan jardun gabe. Uriartek eskaintzen digun taulan ezberdintasun horiek nahiko argi atzematen dira (Uriarte, 1998: 35).

	Biztanleria 1787an	Hiribilduan	Ez nekazaria
Elgoibar	2899	37,5	20
Eibar	2461	61,6	22
Soraluze	2043	76	77,5

JARDUERA EKONOMIKOAK

Eibarko baserritarrak

Interesgarria iruditzen zaigu Arrazainek "*caseros*" deitzen dituen horien jardueraren bikoiztasuna. Izan ere, XVII. mendean hasitako nekazari-zabalkundea —artoari esker— bukatuta zegoen XVIII. mendearen erdialdean, eta bazterreko lurren errendimenduak urriagoak izaten hasi ziren. Eibarko udalerria bihitan defizitarioa zen; ez zuen ekoizten kontsumitzen zuen beste: «Esta dicha villa en que son muy limitadas y a costa de mucha Fatiga las Cosechas de trigo y maiz de castaña manzana nuez abichuela se surte comunmente todos los años de dicho trigo y maiz en la mitad del año de los mercados de las Plazas de Vitoria y Vergara y de los inmediatos Pueblos del Señorio de Viscaya». Abelazkuntzari dagokionez, Eibar sortu zenean paper garrantzitsua jokatu zuen arren[14], XVIII. menderako jarduera hori zeharo ahulduta zegoen, zeren 1785ko txostenak zioenez «se surte igualmente

13. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

14. «Parece cierto que dominaba —en los orígenes de Eibar— el pastoreo. Las propiedades particulares eran mínimas. Casi todo era comunal. Cada caserío tenía algo de tierra. Algo más —por concesión real— los señores mayures o aundikis. Dominaban la ganadería y el pastoreo» (Celaya, 1970: 11).

asi en todo el año de Carnes de Baca y carnero de varios Pueblos de dicho señorio y Castilla por el poco Ganado lanar que se cria en su dictrito (sic) en que ninguno se cria caballar». Baserriko labore guztiak egiten bazituzten ere, nekazari-ustiapena ez zen nahikoa bizirauteko, eta baserritarrek lan osagarriak egin behar zituzten.

XVIII. mendean, bizirauteko baliabide-iturri nagusia nekazaritza zen. Euskal Herri ozeanikoan nekazaritza-errendimenduak urriak zirenez, ohikoa zen biztanleen eta baliabideen arteko oreka haustea. Maiorazkoaren erakundeak, XV. mendetik aurrera hedatuz zihoan eran, familiaren ondasuna seme-alaben artean zatitu gabe, oso-osorik mantentzea ahalbidetu zuen. Baina XVII. mendeko krisialdi orokorraren ondorioz, lurra merkataritza-zirkuituan sartzen hasi zen eta prozesu horrek oinarrizko aldaketak bultzatu zituen garaiko euskal gizartean (Etxeberria *et al.*, 1984: 12, 13). Eibarri dagokionez, 1803an betetako galdetegiaren arabera, 43 nekazari lur-jabeak ziren, 150 maizterrak eta 20ren bat "*criados de labranza*"[15]. Hots, bost nekazaritik bat baino ez zen landatzen zuen lurraren edo bizi zen baserriaren jabe. Kontuan hartzeko datua dugu hau zeren euskal foruen arabera —teorian behintzat— eskubide politikoak gozatu ahal izateko lur-eremu edo etxe baten jabe izan behar baitzen.

Lurren eta baserrien jabeek aletan jasotzen zuten alokairuaren zatirik handiena, «… pues el régimen de arrendamientos vigente por entonces era una especie de aparceria o enfiteusis, en razón de la cual el propietario percibía una buena parte de su renta en fanegas de trigo y maiz» (Otazu y Llana, 1982: 18). Bernabé Antonio Egañak 1787an adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako edozein nekazari-familiaren gari gehiena jabeari errenta ordaintzeko erabiltzen zen. Are gehiago: nekazari-familia baten dietak ez zuen garia barne hartzen, eta ogia baino gehiago taloa jaten zen. Arrazainen idatziak, ostera, beste hainbat barazki eta fruitu landatzen zirela adierazten digu: azaloreak, brokolia, azak, espinakak, zerbak, urazak, azafraia, perrexila, porruak, tipulak, berakatzak, babak, indabak, tomateak, piper handiak, meloiak, kalabazak, mailukiak eta «… esparagos (sic) de el tamaño mas estraodinario y gusto mas delicado que se han bisto en España»[16].

Basoaren ustiaketa nekazaritza-ekonomiaren euskarri garrantzitsua zen, eta udal-araudietan basoa zaintzeari arreta berezia eskaintzen zitzaion, epez edo lekuz kanpo egindako egur-mozketak zigortuz edota moztu ahala landaketa berriak suspertzeko neurriak bermatuz.

Armagintza Eibarren

Deba bailarako herri gehienak bezala, Eibar ere burdinaren eraldaketa-prozesuaren inguruan sortutako udalerria da. Izan ere, bailara aproposa zen zeregin

15. EiUA, B,2,1, "Interrogatorio Dep. Fomento y Censo de Poblacion. 1803".
16. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

horretarako, burdinaren industria garatzeko beharrezkoak ziren baldintza guztiak betetzen baitzituen. Beharbada, burdin meategi nagusia itsasotik pixka bat urrutiegi zegoen, Arrasate inguruan. Baina Deba ibaia lagungarria zen haren garraioan, bailarako herriak lotuz gainera. Inguruko basoetan egur ugari zegoen, bai erregai gisa erabiltzeko, baita armen egurrezko piezak egiteko ere, eta errekak nonahi zeudenez, burdina lantzeko beharrezkoa zen indar hidraulikoa eskura zeukaten. Beste irtenbiderik ez zegoen, bailararen egitura estuak ezinezkoa egiten zuelako nekazaritza-ustiaketa hutsean oinarritutako ekonomia: lana nekeza zen eta emaitzak urriak[17]. XV. eta XVI. mendeetan zehar, burdingintza, eta zehatzago, armagintzan espezializatzen hasi zen bailara, Arrasate, Bergara eta Eibar zirelarik ardatz nagusiak. Udalerri ezberdinen arteko elkarlanari esker, armak, oso-osorik —muntatuta— irteten ziren Deba bailaratik, eta abantaila horri esker Gaztelako erregeen armaeskaria bertara bideratu zen. Austriarrek hasitako guduek espezializazio-prozesu hau areagotu egin zuten, eta XVI. menderako armagin eibartarren lehen aipamena aurkitzen dugu[18].

Eibar, betiere, Soraluzeko Erret Arma Fabrikako (SEAF) partaide legez agertzen zen, eta hasiera batean arma zurietan espezializatu zen (pikak, lantzak, ezpatak, ezkutuak, dardoak, geziak…); geroago hasi zen, arma zurien fabrikazioa utzi gabe, suzko armak egiten. Soraluzekoa, fabrika bat baino gehiago, armen probalekua eta biltokia zen. Bertara eramaten ziren SEAF osatzen zuten lau herrietako tailerretan egindako armak, eta bertan aztertzen zituzten erregearen ofizialek, ontzat hartzeko edo errefusatzeko. Azterketa teknikoaz gain, SEAFek armen kontrola zeraman, hauek zenbatuz eta zainduz, harik eta erregearen esku jartzen ziren arte.

Erregeen babesak ondorio bikoitzak zituen. Lana ematen zuen[19] baina ekoizpena mugatzen zuen, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, armaginek ez

17. «Además, las laderas de los montes son demasiado abruptas en el curso medio del Deva para servir de base a una agricultura próspera. Sin caminos carreteros que, hasta el siglo XVIII, no llegaron al valle medio del Deva, sin grandes posibilidades agrícolas, estas villas de Placencia, Ermua, Eibar, Elgoibar fueron especializándose cada vez más en las armas, hasta que todo culminó bajo el favor de Karlos V con el reconocimiento oficial como núcleo o fábrica armera a todo lo que primeramente se había organciado con esfuerzo propio, y, más tarde, con el nombramiento de "Fabrica Real de Armas de Placencia" bajo Filipe II, en 1573. La constituían estos cuatro pueblos juntos y tenían como centro a Placencia» (Garcia Manrique, 1961: 23-24). Manriquek Karlos V idazten duen lekuan, Joana "Eroa"ren eta Filipe "Ederra"ren semea, Alemaniakoa V.a, baina Espainiakoa I.a. Mugicak ere, kokapen geografikoa eta ingurugune fisikoa aipatzen ditu, Deba bailarako udalerrien sorkuntza azaltzeko: «Estos pueblos desviados de todo centro y construidos en parajes tan accidentados y estériles, acaso deban su formación a los primitivos armeros, y si no fueron ellos la causa de su fundación, fueron indudablemente el germen de todos sus progresos…» (Mugica, 1990: 79).

18. «La primera noticia concreta que demuestra la existencia de la industria armera en Eibar, nos la proporciona, bien escuetamente, Arantegi al escribir que en 1538 se encargaron quince mil arcabuces a Juan Orbea y Juan Ermua, de Eibar» (Mugica, 1990: 78).

19. «Vivirían unos ocupados en plantar árboles, otros en esquilmar montazgos y preparar leña, otros tendrían a su cuidado la fabricación del carbón, algunos se encargarían de conducirlo a las

zeukatelako erregea ez zen beste inorentzat lan egiteko askatasunik. Egoera horrek armaginen ekimenak murrizten zituen, eta nolabait, espainiar monarkiaren ibilbide militarraren menpe uzten zuen haien etorkizuna. Horrela, XVI. mendeko oparotasuna krisialdi bihurtu zen XVII. mendeko bigarren erdialdean, austriarren dinastiaren erabateko gainbeheraren ondorioz. Borboitarrak izan ziren, 1700etik aurrera, SEAF bere krisialditik aterako zutenak[20].

1762an Eibarko Udalak zerrenda bat zuen, zeinean armagintzaren gremio ezberdinetan zenbat maisu eta ofizial zeuden zehazten zen. 170 armaginek osatzen zuten zerrenda horretan ez dira nortasunak azaltzen, gremio bakoitzean zebilen maisu eta ofizial kopurua baizik. Guztira zortzi gremio bereizten zituen: «forjadores, cajeros, chisperos, aparejeros, limadores, barrenadores, martilleros, rementeros». Ikusi dezagun zein eratara:

Forjariak	9
Kaxaginak	35
Txispalariak	13
Aparejuginak	35
Limariak	19
Barrenariak	7
Mailukariak	11
Errementariak	3
Guztira	132

Ez du zehazten ezkongabe zeuden 38 armaginek zein gremiotan lan egiten zuten, baina guztira 170 maisu eta ofizial zeuden. 1747an kopurua 113koa zela kontuan hartzen badugu, gorakada nabarmena izan zen hamabost urte horietan. Errementariak —"*rementeros*"—, barrenariak —"*barrenadores*"—, mailukariak —"*martilladores*"— eta limariak —"*limadores*"— gremio ezberdinetako kidetzat jotzen baditu ere, berez, kanoiginen gremioko kideak ziren guztiak ere.

herrerías y fraguas, no pocos hallarían el sustento agenciando fresnos para picas o nogales para cureñas de fusil (…) Hasta los ancianos y los niños ganarían su pan en los continuos recados enviados de unos talleres a otros» (Mugica, 1990: 78).

20. «Al decaimiento general de España en la segunda mitad del siglo XVII, va paralelo el decaimiento en la industria armera del Deva. Son los Borbones quienes sacarán de su estancamiento a la Fábrica de Armas de Placencia. En 1728 se funda la Compañía Guipuzcoana de Caracas, que controlaba la fabricación de armas de las villas armeras del Deva. Desde entonces hubo un comercio muy activo de armas de fuego hacia América, impulsado por dicha Compañía hasta 1748 y después por la Compañía de Filipinas, que se fusionó con ella. Miles de fusiles, carabinas, escopetas, sables, bayonetas, salían anualmente de la Fábrica de Armas de Placencia para ser enviadas a América» (Garcia Manrique, 1961: 24).

Kanoiginez gain, SEAF beste hiru gremiotan zegoen sailkatuta, txispalariak, kaxaginak eta aparejuginak. Bakoitzak armaren zati bat fabrikatzen zuen: kanoiginek, kanoiak; txispalariek edo txispaginek —"*llaveros*"—, armek tiro egiteko hainbat sistema egiten zituzten[21]; kaxaginek —"*cajeros*"— armen egurrezko piezak egiten zituzten, kulatak, gehienbat; eta aparejuginen —"*aparejeros*"— lana zen, armak muntatzeko behar ziren pieza txikiak egiteaz gain, beste gremioek fabrikatutako atalak batu eta muntatzea. Behin armak muntatuta, Soraluzeko Errege Etxera[22] bidaltzen ziren, eta erregearen maisu aztertzaileek ikuskatzen zituzten.

Herri bakoitzean gremio bakoitzak zuen indarra neurtzeko, bi iturri erabili ditut. Alde batetik, Uriartek eskaintzen dizkigu 1748ko kontrata edo "*asiento*"ari buruzko datuak. Kontrata horiek herri bakoitzak zuen ekoizpenerako ahalmenaren arabera banatzen ziren, eta datuok diotenez Soraluzek zuen nagusitasun osoa:

	Soraluze	Eibar	Elgoibar
Ekoizpena, errealetan	30.906.000	10.817.000	1.854.100

Ikusten denez, Soraluzek hirukoiztu egiten zuen Eibarko ekoizpena. 1790erako gauzak pixkatxo bat aldatuta zeuden. Ramiro Larrañagak ematen dizkigun datuen arabera, Eibar eta Soraluzeren arteko ahalmen produktiboak orekatuago agertzen dira, gremio bakoitzean lan egiten zuten langile kopuruari begiratzen badiogu behintzat (Larrañaga, 1970: 50). Soraluzen 385 armagin bizi ziren, eta Eibarren 267. Parekatze erlatibo hori ez zen Soraluzeko geldialdiaren ondorioa izan, ezpada Eibarren armagintzak izandako hazkuntzarena: 1762an 170 maisu eta ofizial baziren ere, 1790ean 267 langile ziren, oraingo honetan ikasle eta guzti.

	Soraluze	Eibar	Elgoibar	Ermua	Arrasate	Durango	Bergara	Guztira
Kanoig.	99	81	117	0	45	0	0	342
Txispa.	198	21	6	43	3	9	6	186
Apareju.	40	88	0	2	0	0	0	130
Kaxag.	43	78	1	2	1	0	0	125
Guztira	385	268	124	52	49	9	6	781

Gremio bakoitzeko langile kopurua, herriz herri.

21. «El gremio de los "llaveros" (…) abarcaba a los que construían los distintos sistemas de disparo de las armas de fuego: mecha, rueda, chispa, piston, etc., que se sucedieron hasta llegar a la percusión central, actualmente en uso. Como desde los últimos tiempos del s. XVI hasta el primer tercio del s. XIX los del gremio de llaveros construían preferentemente la "llave de chispa", he optado por aplicarles la calificación de "chisperos" porque, además, con esa denominación se les citaba a los componentes en el aludido gremio» (Larrañaga, 2001: 22, 23).

22. Horrela deitzen zioten eta deituko diogu armak aztertzeko Soraluzen zegoen eraikin fisikoari. Baina SEAF erabiliko dugu lau herriek osatzen zuten ekoizpen-egiturari deitzeko.

Ikusten denez, 1790ean Eibarren eta Soraluzen lau gremioetako langileak zeuden, baina badago zer azpimarratu: Eibarren txispaginen arloan nabarmentzen den gabezia da aipagarriena, gainerako hiru gremioak nahiko orekatuta baitzeuden; Soraluzen, ordea, txispaginen gremioak gainerako hirurek baino langile gehiago biltzen ditu. Edonola ere, bi herrion nagusitasuna aparejuginen kopuruak bermatzen du, berauek baitziren armako pieza guztiak batzen zituztenak. Aparejuginik ez edukitzeak esan nahi zuen herritik inoiz ez zela arma bat muntatuta irtengo, eta beti piezak egitearekin konformatu beharko zela. Elgoibarrek bide hori hartu zuen, kanoigintzan espezializatuz; eta Ermuan txispaginak nagusitu ziren. Hurrengo grafikoan, herriz herri gremio bakoitzak zuen pisua islatzen da.



Gremio bakoitzeko langile kopurua, herriz herri —1790—.

Hurrengo bi grafikoek adieraziko digute nolakoa zen Eibarren eta Soraluzen zeuden gremioen arteko barne-oreka. Soraluzeren kasuan kaxagin eta aparejugin gutxi zeuden proportzioan, eta txispaginen gremioa oso zabala zen.



Eibarren, txispaginen urritasuna da aipagarriena. Gainerako hiru gremioetako langile kopurua nahiko orekatuta dago.



Ekoizpena bideratzeko armaginen gremio bakoitzak diputatu bat izendatzen zuen, eta lau diputatuek asentistekin lotzen zituzten espainiar monarkiarentzat egin beharreko kontratak. Soraluzeko Erret Arma Fabrikako zuzendaritzak honenbeste arma egiteko eskakizuna jasotzen zuenean, asentistekin biltzen zen, eta armok egitearen ardura baldintza ekonomiko hoberenak eskaintzen zizkion asentistaren esku uzten zuen. Asentistek gremioetako diputatuekin adosten zuten ordaindu beharreko prezioa, betiere SEAFeko zuzendaritzak eskaintzen zuena baino merkeagoa, eta hortik zetozkion mozkinak. Asentistek dirua aurreratu behar zuten, eta finantzaketa erarik arruntena, ekoitzi beharreko produkzioaren arabera lortutako krediituetan oinarritzen zen. Baina dirudienez, sistema horrek iskanbila etengabeak sorrarazten zituen, batez ere, asentisten eta gremioetako diputatuen artean. Eta liskar horien onuradun nagusia Caracaseko Konpainia izan zen[23], bere esku utzi baitzituen Filipe V.ak "*asiento*" edo kontrata guztiak. 1728an kakaoaren inguruan sortutako monopolio-sistema benetan errentagarria gertatzen ari zitzaion Caracaseko Konpainia Gipuzkoarrari, eta operazio horren bitartez, SEAFeko arma-ekoizpena gehitu zuen monopolio bidez ustiatutako produktuen zerrendara.

Caracaseko Konpainiaren ekimenak (biltegi berriak eraiki, SEAFeko zuzendaritza berriztatu…) arma-ekoizpena suspertu zuen: bere esku-hartzearen aurretik SEAFek 8.000 fusil egiten zituen urtean, eta Liejatik ekarri behar izaten ziren txisparik gehienak. Hamairu urte geroago 18.000 fusil fabrikatzen zituen, eta guztiak SEAFeko armaginek egindako txispekin. Horrez gain, Caracaseko Konpainiak

23. «Los pleitos que este sistema originaba eran constantes, sobre todo entro los asentistas y los gremios, pero la situación mejoró cuando hacia 1734 Filipe V nombró asentista exclusivo de las Reales Fábricas de Placencia a la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de las Indias, que ampliaba así sus negocios centrados desde el año 1728 en el negocio del cacao» (Calvó, 1997: 54).

armak jaso eta berehala ordaintzen zituen, eta hori aurrerapen handia zen Errege Ogasunaren ordainketen atzerapenetara ohituta zeuden armaginentzat. Baina, era berean, Caracaseko Konpainiak armaginen gaineko kontrola estutu zuen, eta monopolioak saltzaileei zein erosleei prezioak inposatzeko gaitasuna ematen ziola aprobetxatuz, inoren izerditik aberastu zen[24]. Caracaseko Konpainia 1785ean deuseztu bazen ere, Filipinetako Konpainiaren esku gelditu zen monopolioa, harik eta 1794an Konbentzio Gerrak herrialdeko ekonomia guztia hankaz gora jarri zuen arte. Eta hementxe etengo dugu, momentuz, Eibarko armagintzaren historia, XIX. mendeko aldaketak gerorako utziz.

ANTOLAKETA POLITIKOA

Auzokideen monopolioa

Lege Zaharrean udal-partaideak auzokide kategoria zeukaten biztanleen ordezkariak ziren, ez herriko biztanle guztienak. Auzokidea izateko bi baldintza bete behar ziren: kaparetasuna frogatzea eta gutxieneko jabetza bat izatea[25]. Bi mekanismo horiekin, auzokideak bi eratako etsaiengandik babesten ziren. Kanpora begira, euskal lurraldeetan jaioak ez zirenen partaidetza zeharo mugatzen zen, odol-garbitasuna frogatzeak prozesu luzea eta edozeinen poltsikoak kudeatu ezinezko gastua suposatzen baitzuen. Barrura begira, auzokide izateko exijitzen zen gutxieneko jabetzak udal-gobernutik kanpo uzten zituen biztanle gehienak, hain zuzen ere (1766ko matxinadarekin gertatu zen bezala) jauntxoen boterea zalantzan jar zezaketen herritarrak. Jabetza horiek gainera higiezinak izan behar ziren, udalkideek beren ondasunekin erantzuten zutelako udal-kudeaketan izandako iruzurren aurrean[26]. 1754an Cano Mucientes korrejidoreak udal-hauteskundeetarako emandako eta euskaratutako araudi edo ordenantzek udalkideei buruz ziotenez, «… eta onec

24. «Si la Compañía trajo la actividad y riqueza al valle del Deva por sus crecientes pedidos, este monopolio tenía su parte negativa. La Compañía determinaba el precio, que era bajo, y más tarde ella misma colocaba el arma en el mercado. Por esta acción de intermediaria se quedaba con gran parte del beneficio. Esto degeneró en una situación tirante, como ocurría al otro lado del Océano, en Venezuela, con respecto a los productos agrícolas. Al mismo tiempo que daba trabajo y revalorizaba el producto irritaba con su control a los pueblos». Ramiro Larrañagak ere aipatzen ditu esku-hartze horren ondorio negatiboak: «… su ingerencia supuso un mayor control sobre los armeros fabricantes y se lucró la compañía con unas comisiones sobre los precios de las armas construidas» (Larrañaga, 2001: 25).

25. «En Guipúzcoa y Vizcaya esta calidad (de vecino concejante) requería ser hidalgo y millarista. Para lo primero bastaba con probar la oriundez vasca (..), aquellas personas que no habiendo nacido en el país aspiraban a disfrutar de la cualidad de vecino concejante, tenían que acreditar su hidalguía mediante un costoso pleito seguido contra el concejo del pueblo en que desearan avecindarse (…). Pero para figurar como vecino concejante no bastaba con ser hidalgo, había que ser también millarista. El nivel de renta exigido variaba en cada concejo» (Rubio Pobes, 1997: 85).

26. Hara Larramendik zioena Gipuzkoako udalkideei buruz: «Aunque todos sean nobles no pueden entrar en los cargos honoríficos de la república; para eso, ademas son menester los millares que llaman, esto es, tanta hacienda, que sirva de seguridad a la república para sanearse de los daños que puede causarle un mal cargo-habiente» (Larramendi: *Corografía de Guipúzcoa*, 155. or.).

izatten badabe quiebraric, edo Jatten baditube errico errenttac, Electtoriac, eurac izan biaco dabe la aren faltta gustichac Zergaitterren, Errichac esttabela biar perjuicioric es quiebraric da esttabela Pagauco, electtoriaren Culparic, berac baiño da Conttuban egon ditiala»[27]. Neurri profilaktiko bikoitz hori erabiliz (kaparetasuna eta ondasun higiezinen jabetza), jauntxoek euren boterea bermatzea lortu zuten luzaroan.

Gipuzkoako agintarien ikuspegiaren arabera herrialdeko biztanleria bost kategoriatan zegoen banatuta, bakoitzaren jatorri eta ondasunen arabera. 1773an, galdetegi zehatz bat bidali zitzaien Gipuzkoako alkate guztiei, bakoitzaren udalerriko populazioa honako parametro hauen arabera sailkatzeko eskatuz: lehenengo zutabean, jatorriz gipuzkoarrak zirenak —"*originarios de Guipuzcoa y de sus casas solares*"—; bigarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak izan arren —"*advenedizos nacionales*"—, kaparetasuna frogatuta edukitzeagatik udalean eskubide politikoak gozatzen zituztenak; hirugarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak, baina —ahal izan arren— kaparetasuna frogatu gabe zeukatenak; laugarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak, nahi izanda ere kaparetasuna frogatzerik ez zeukatenak; bosgarrenean, "*advenedizos extranjeros*", hau da, estatu espainiarretik kanpokoak. Tamaina horretako esfortzua hartu izanak adierazten du zer-nolako beldurra eta kontrolerako grina piztu zen 1766ko matxinadaren ostean herrialdeko agintariengan. Eta kasu honetan gehiago interesatzen zaiguna, iturri paregabea bihurtzen da Eibarko biztanleen erradiografia kolektiboa egiteko orduan, Eibarko zerrenda Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko zuzendariaren eskutik jasotzeko zortea izan bainuen[28].

Zerrenda hori 1786an berriztatu zen, gipuzkoarren taldean, jatorriz eibartarrak zirenak —hau da, "egiazko eibartarrak"— bereiziz[29]. 1786ko zerrendari esker

27. Gregorio Mugicak araudi guztia dauka transkribatuta (Mugica, 1990: 464-467).

28. GAO, SS 13.

29. GAO, SS 12. Lehen zutabeko izenburuak zera dio: «Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honorificos de ella, los que entre ellos poseen *millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa* sin que tengan formalizadas sus Ydalguias». Letra etzana neurea da. Gipuzkoar jatorriko kapareek bigarren taldea osatu zuten: «Originarios de esta Provincia de Guipuzcoa y descendientes de sus casas y solares que se hallan en posesion de sus Ydalguias, admitidos a la vecindad y oficios honorificos»; hirugarrenean, gipuzkoar ez kapareak agertzen dira: «Los que se hallan conceptuados por originarios de esta misma Provincia de Guipuzcoa, pero no tienen hechas sus Ydalguias ni se hallan recibidos por vecinos, con distincion de los que de ellos se consideran con medios para costear su formal prueba (3a) y de los que al parecer carecen de medios para ello (3b)»; laugarrenean, «Advenedizos Nacionales que se hallan en posesion de su Nobleza e Ydalguia admitidos a la vecindad y al goze de los empleos y cargos honorificos, los que entre ellos poseen millares», gehienak bizkaitarrak; bosgarrenean, «Advenedizos Nacionales que no tienen acreditada su nobleza; con distincion tambien de los que entre ellos se consideran con medios para su formal prueba (5a), y de los que al parecer carecen de dichos medios (5b)»; eta seigarrenean, «Advenedizos extranjeros con igual distincion de los que entre ellos se hallan en posesion de su nobleza y de los que se consideran sin medios para poderla justificar». Beraz, auzokideak lehen, bigarren eta laugarren taldekoak ziren.

jakin dezakegu ezen Areta, Arizmendi, Egiguren, Gisasola, Pagaegi edo Suinagatarrak —besteak beste— zirela benetako eibartarrak, eta XVIII. menderako udal-boterea galtzen ari zirela Gipuzkoatik etorritako Ibarzabal, Larrañaga edota Laskuraindarren aurrean, baita herrialdetik kanpo ailegatutako Bustindui, Olabe edo Baskarandarren aurrean ere. Sailkapen horrek abiapuntu bat eskaintzen digu. Hasteko eta behin, 1786an Eibarko auzokide gisa onartuta zeudenen kopurua 318koa zela zehazteko balio digu: 144 jatorriz eibartarrak, 127 Eibartik kanpoko gipuzkoarrak eta 47 Gipuzkoatik kanpokoak, gehienak bizkaitarrak. Beste alde batetik, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar Eibarko Udaleko partaideen nortasunarekin alderatzen badugu, sasoi desberdinetan biztanle multzo bakoitzak udalean eduki zuen eragina jakin dezakegu. Adibidez, 1755-1766 epean zehar aritutako 39 udalkideei dagokienez, 22 jatorriz eibartarrak ziren, bost gipuzkoarrak eta 10 Gipuzkoatik kanpokoak, bizkaitarrak ziur asko. Gainerako bien abizena ez da 1786ko zerrendan agertzen, baina dakigunez Juan Antonio Soroetari 1742an onartu zioten kaparetasuna (Mugica, 1990: 285-286)[30], eta Andrés Espila korrejidoreak izendatutako diruzain agertzen da 1762an. Beraz, ondoriozta dezakegu kaparetasuna frogatzea ezinbesteko baldintza zela auzokide hautagaien taldean onartuak izatea eskatzen zuten biztanleentzat.

Zerrenda osoa 464 lagunek osatzen dute, baina oraingo honetan jada datubasean sartuta nituen pertsonaiei buruzko datuak baino ez ditut jaso. Guztira, 246 pertsonaiaren erregistroak osatu ditut kaparetasunari buruzko informazio honekin, eta ekarpen interesgarria izan daitekeelakoan, kapituluaren bukaeran eskaintzen dut eranskin gisa.

Errejimentuaren egitura

Antzinako Erregimeneko udalaren egitura aztertzerakoan, badago lehenbailehen argitzea komeni den gauza bat, anakronismoetan erortzeko arriskua saihestu nahi badugu behintzat. Gaur egun udala, alkateak eta zinegotziek osatzen dute. Zinegotzi guztiek kategoria bera dute eta eginkizun berdinak bete ditzakete; alkatea bera, zinegotzi bat da, zinegotzien gehiengoak alkatetzara eraman duena. Gaur egun gehiengoa ordezkatzen duen alderdiak edo alderdiek hartzen dute udala zuzentzearen ardura eta, gehienetan, gutxiengo direnak gobernu-ardurarik gabe gelditzen dira. Lege Zaharrean[31], ordea, udal-partaide guztiek parte hartzen zuten udal-gobernuan, baina bakoitzak bere izaera, gaitasun eta eginkizun bereziekin. Udalari deitzeko erabiltzen zen hitzak berak ("*Regimiento*") gaur egungo udalarekin zegoen ezberdintasunaren berri ematen digu, haren eginkizuna herriaren etorkizuna gidatzea edota bideratzea zela adieraziz, eta ez horrenbeste herri horretako auzoen ordezkaritza-lana betetzea. Auzoen ordezkariak baino gehiago, herriaren

30. 1759an Juan Carlos Areizagaren —San Andres elizako patroia— ordezkaria zen, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1759-3-4.

31. Lege Zaharra eta Antzinako Erregimena sinonimotzat erabiliko ditut ikerlan honetan.

buruan jartzen diren auzoak dira, "*capittulares*" hitzak aditzera ematen duen modura. Kapitularrak dira alkatea, errejidoreak eta sindiko prokuradorea, haiek direlako urte horretan herriaren buruan jarriko direnak, baina bakoitza bere gaitasun eta izaera bereziarekin.

Eibarko Errejimentua lau partaidek osatzen zuten 1755ean. Haren buruan alkatea, bere Erret Makilarekin, udalerri mailako aginte politiko gorena eta eskuduntza judizialaren[32] ikurra. Izan ere, alkatearen eginkizuna zen eibartarren artean sortzen ziren auziei buruzko lehen epaia ematea[33], baita kanpotik etorritako beste botere judizial batzuetatik herritarrak babestea ere[34]. Elgoibarko udal-ordenantzek diotenez, ahozko epaiketetan alkateak alde biak deitzen zituen eta bat-bateko erantzuna ematen zuen. Alkate izateko baldintza hauek bete behar ziren: «… persona onrauba, Idalgua Aberaza, da Erraizak daucasana, da gizon Abonauba da oficio Charric esttaucana, baita bere estteila izan oficialic edo oficialeric soldau danic, Erregue maggesttatiaren errejimentuban serbicen dabenic estta bere Idacortten da escribicen eztaquichanic eta bardin Iotten badau, alacoric, izangodabela, vimilla marabidiren multia, da Iaquinda egondella» (Mugica, 1990: 464-467).

Alkatearen ostean, sindiko prokuradore orokorra genuen kargurik garrantzitsuena. Bere eginkizun nagusiak hauek ziren: udalerriaren izenean auziak aurrera eramatea; kalean salduko ziren kanpoko jan eta edateko horniduren prezioa eta tasa ematea; udaletxeaz, kartzelaz, alondegiaz eta kaleen garbitasunaz arduratzea; auzokideen zerrendan sartzea eskatzen zutenen agiriak aztertzea edo ikerketak burutzea…[35] Sindikoak ez zeukan idazten jakin beharrik[36], eta agintaldiaren hasieran

32. Soria Seséren ustez, arlo judizialean betetzen zuen eginkizun hau zen alkate karguari nortasuna ematen zion ezaugarri nagusia: «La función de juez ordinario es precisamente lo que da carácter al oficio de alcalde, situándolo en una esfera, la jurisdiccional, distinta a la de los otros oficciales del concejo que, en cuanto órganos unipersonales, se mueven exclusivamente en la gubernativa» (Soria, 1984: 60).

33. Alkateak emandako sententziarekin ados ez zegoenak korrejidorearengana jo behar zuen, hau da, erregearen ordezkaria Gipuzkoan. Eta korrejidoreak emandakoa ere ez bazuen onartzen, helegitea Valladolideko Chancilleriara bideratzeko aukera gelditzen zitzaion. Baina noski, horretarako behar zen dirutza ez zegoen edozeinen eskura.

34. «Baita bere errico alcatiac esttaichala permitidu eguittia execucinoric bere flogedades Dattozanian Juezac Campoetatic, inor arzera bere Jurisdiccinuan, o pezquisa eguitera edocein bere persona, ya Cedulequin, ó probisinuequin segatic lelengo biardabe izan insttrumenttubones exhaminaubas, Juntan o Dipputtaconuan, da emonbiar Jaquiela, uso correspondizen dan legues». Beraz, Foru-baimena edo "Pase Foral"aren filosofia ez zen mugatzen herrialde mailako auzietara; baita udalerrietakoetara ere.

35. Sindikoaren beste eginkizun eta gaitasunen artean honako hauek: «… que en nombre y representacion de esta insinuada villa su concejo y otorgantes pueda defender y defienda a ella en quantto se le ocurriese en este presentte año, Cibil o criminalmente ante quales quiera jueces, Justicias y tribunales que combenga, asi demandando como defendiendo en quales quiera asumptos que sean (…) para hacer permuttas de tierras…» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784),* 1781-1-14. 1844ko akta batek zehazten digunez, «…confirio a D. Ignacio Areta de Mendigoitia sindico

udalak 50 peso aurreratzen zizkion sortzen ziren gastuei aurre egiteko[37]. Eta azkenez, bi errejidoreak zeuden. Horien betebehar nagusia herri-lur eta propioen gestioa kontrolatzea zen. Gaur egungo udaleko partaideekin alderatuta, Lege Zaharreko udalekoek beren ardurak zuzenean betetzen zituztela konturatzen gara. Alde batetik, udal-langile kopurua askoz urriagoa zelako; eta bestetik, boterea pertsona konkretuengan gauzatzen zelako kontzientzia askoz indartsuagoa zelako, eta autoritatearen ordezkarien presentzia fisikoa ezinbestekoa zela zenbait arazo edota istilu konpontzeko orduan.

Udala edo errejimentuaren egitura, antzekoa izan arren, aldatu egiten zen herri batetik bestera bai udalkideen kopuruan, baita osatzen zuten karguen izaeran ere. Elgoibarren, adibidez, alkateak eta bi sindiko piel errejidorek osatzen zuten errejimentua 1755ean (Uriarte, 1998: 205); hau da, Eibarren baino partaide bat gutxiago izateaz gain, sindikoaren eta errejidoreen eginkizunak nahastuta edo pilatuta agertzen zaizkigu; Irungo Udalean, zazpi kapitular aurkitzen ditugu 1788an (Iparragirre, 2001: 49): alkatea, sindiko orokorra, hiru errejidore eta bi juratu. Juratuen zeregina alkateari laguntzea zen, horrek epaile-lana betetzen zuenean. Eibarren "*jurados ejecutores*" deituriko karguen aipamena aurkitzen dugu, 1600eko udal-hauteskundeetan. Baina akta horretan ez denez errejidoreen aipamenik egiten, "*jurados ejecutores*" haiek geroago errejidore deituko zirenen eginkizun berdinak izango zituztela uste dut. Juratuen aipamena, 1768ko udal-hautaketan aurkitzen dugu berriz[38], oraingoan errejidoreengandik bereizita, eta ustez behintzat, arlo judizialera mugatutako eskuduntzekin. Baina Eibarren juratuak sekula ere ez ziren errejimentuko kideak izan. Adibide hauetatik ondoriozta dezakegunez, Antzinako Erregimeneko udalen osaketan aniztasuna zen nagusi, bai kargu bakoitzaren eskuduntzan, bai deituran; eta aniztasun hori erakunde hauen sortze-prozesuan indar autoktonoek izandako esku-hartze zuzenaren seinalea da.

Udalkideen hautaketa modua

Lege Zaharrean udal-karguen iraupena urtebetekoa zen. Eibarren, ohituraz, Done Mikel egunean (irailaren 29an) gauzatzen zen udalkideen izendatzea, baina

---

procurador el poder acostumbrado para que pueda sacar a su debido tiempo a remate los abastos públicos de esta Villa; para seguir los pleitos de Idalguias y demas que ocurran en ella durante el presente año, siendo testigos Esteban de Acha, D. Martin Ibarzabal y Ramon Urriola; del mismo modo se confirió al indicado Mendigoitia amplia comision y facultad como lo han tenido sus antecesores para otorgar las Es-crituras pertenecientes a esta Villa, haciendo permutas y demas actos que redunden en beneficio de ella segun lo disponen las leyes y reglamentos» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),*1844-4-1.

36. 1759ko martxoan Francisco Antonio Bustindui sindikoak ez zuen akta sinatu, idazten ez zekielako, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768),*1759-3-4. 1827ko maiatzaren 20an, Bascaran errejidoreak eginiko protestari erantzunez, Mallagarai lizentziatuak sindikoak ez zeukala irakurtzen eta idazten zertan jakin erantzun zuen. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1824-1828).*

37. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768*), 1767-1-11.

38. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768rako udal-karguen hautaketa.

1761ean hautaketa Urteberri-egunera iragatea erabaki zuten[39], herrialdeko udalerri gehienetan egiten zen bezalaxe, bide batez esanda. Kapitularrak aukeratzeko prozedura nahiko aldatzen zen herri batetik bestera[40]. Eibarren, XVII. mendera arte, udal-karguak izendatzeko orduan arreta berezia eskaintzen zitzaion auzoen eta hirigunearen arteko orekari. Urte batean auzoetako auzokideek hiriguneko auzokideen artetik hiru hautagai proposatzen zituzten kargu bakoitzerako, eta zozketaren bidez irteten zen kargu bakoitza bete beharko zuenaren nortasuna. Hurrengo urtean, alderantziz: hiriguneko auzokideek proposatuta, auzoetakoak sartzen ziren udal-karguetarako zozketan[41]. Edonola ere, sistema horrek aldaketa garrantzitsuak jasan zituen XVII. mendean zehar, eta 1651. urtean, auzoetako eta hiriguneko auzokideen arteko bereizketa bukatutzat joz, XIX. mendera arte iraungo zuen hautaketa-sistemaren oinarri nagusiak ezarri ziren.

Agintaldia bukatzen zuen sindiko orokorrak hiru hautesle —"*electores*"— izendatzen zituen, eta aparteko gela batean bilduta, hiruren artean adostutako zazpi auzokideren izenak idazten zituzten, bakoitza txartel batean. Ondoren, zazpi txartelak lurrera botata, zozketa egiten zen: lehenengo ateratzen zena, alkate izendatzen zuten; bigarrena, alkatearen ordezko; hirugarrena sindiko; laugarrena, sindikoaren ordezko; bosgarrena eta seigarrena errejidore, eta zazpigarrena, horien ordezko, bakarra. Beraz errejimentua lau partaidek osatu arren, hiru ordezko ere izendatzen ziren. Horrez gain, komeni da ohartzea Lege Zaharrean kargu publikoak aukeratzeko orduan sistema misto bat erabiltzen zela, alegia, izendatzea (hautesleena), bozketa (karguen proposamena) eta zozketa[42] (karguen kategoria) nahasten zituen sistema.

39. «Dicho día acordo la villa que de aqui adelante baia a Aguinaga por Alcalde el primer rejidor que saliere como hasta aqui sin embargo de la mudanza de elecziones de San Miguel a Navidades» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1761-9-27.

40. «Cada ayuntamiento vizcaíno, alavés o guipuzcoano se regía por sus propias ordenanzas, siendo diferentes en cada uno de ellos los requisitos exigidos para formar parte del mismo, el sistema electoral utilizado e incluso su composición» (Rubio Pobes, 1997: 85). Lourdes Soria Sese harantzago doa baieztatzen duenean herri bakoitzean erabiltzen zen hautaketa moduak interes konkretu batzuekin zerikusi zuzena zuela, eta interes horien arabera, herri berean ere, hautaketa modu desberdinak erabiltzen zirela, oligarkiari komeni zitzaionaren arabera (Soria, 1984: 166).

41. «… por que en esta tanda se ha de elegir conforme a la ordenanza alcalde que sea de dentro el cuerpo de la dicha villa es a saber de la puente de Barrencalea hasta los tres portales de Ulsaga calle de Elgueta y calle de Chirio o calle Somera por haberlo sido en la tanda pasada de fuera del cuerpo de la dicha villa y por que conforme a la misma ordenanza los electores que han de elegir han de ser de fuera de la dicha villa es a saber cofradías e valles de su jurisdicción los cuales se han entendido siempre y ahora se entiende en esta manera» (Mugica, 1990: 191). Hautaketa-prozesu osoa hemen azaldutakoa baino konplexuagoa zen, auzoetako edo hiriguneko hautesleak, kargua utzi behar zuen alkateak izendatzen zituelako. Gai honen inguruan informazio zehatza eskaintzen du Mugicak bere monografian (Mugica, 1990: 190-200).

42. Zozketari "*insaculación*" deitzen zaio, Eibarren txartelak lurrera botatzen baziren ere, beste leku batzuetan txartelak pitxer edota saku batetik ateratzen zirelako. Soria Sesék dioenez «la insaculación ofrecía la ventaja de ser más difícil de manipular, y por consiguiente menos apta a que las elecciones obedecieran a estrictos intereses particulares, al garantizar a un mayor número de vecinos

1768rako sistema hau zertxobait aldatuta zegoen[43], baina, oro har, udalkideen hautaketa-prozesua aipaturiko hiru zutabeetan oinarritzen zen. Kasu honetan, hiruren ordez, 10 hautesle izendatzen ziren, baina ez da azaltzen nork eta nola[44]. Lehenengo hirurek alkateen proposamenak egiten zituzten; hurrengo hirurek sindikoena; eta azken laurek errejidoreena. Eta ondoren, «… haviendo pasado a esta dicha sala en ella y sobre la mesa del Aiunttamientos se hallava una jarra de platta y en ella puso dicho sr. Alcalde los suios y por lo consiguientte los demas, y haviendolos rebuelto en el y derribado al suelo alternatibe los lebanto un tierno muchacho y dezian asi: Señores Alcaldes. El primer charttel decia…». Lehenen ateratzen zen txartelak hurrengo urterako alkatearen nortasuna adierazten zuen, eta hurrengo biek alkateordeena. Horien ostean, proposatutako sindikoen arteko zozketa egiten zen (titular bat eta bi ordezko), eta azkenez errejidoreena (bi titular eta bi ordezko). Ordezkoek ez zuten errejimentuan parte hartzen, titularrak faltatu ezik.

1813. urterako informazio zehatzagoa lortu dugu. Badirudi hautesleak zozketaz irteten zirela, eta horietariko bakoitzak pertsona baten proposamena egiten zuela kargu bakoitzerako. Ondoren proposatuen arteko bozketa egiten zen, eta boto gehien lortzen zuena alkate izendatzen zuten, eta hurrengo biak 2. eta 3. alkate. Prozedura berdina erabiltzen zuten kargu guztietarako[45].

Aipagarria iruditzen zait, proposamenak egiteko orduan hautesleei ezarritako baldintzak oso zorrotzak izan arren[46], ohikoa zela nork bere familiako kideak aurkeztea udal-karguetarako. Horrela gertatu zen 1768an, Domingo Olabek bere

---

la posibilidad real de acceder a los cargos públicos, lo que por otra parte se acordaba mejor con el originario espíritu democrático municipal» (Soria, 1984: 172). Hori egia zen, Irunen bezala, hautesleak izendatzeko zozketa auzokide guztien artean egiten zenean. Baina ikusten ari garen bezala, Eibarren, zozketa hautesleek proposatutakoen artean burutzen zen, titular eta ordezkoen artean bereizteko helburu bakarrarekin. Argi dago beraz, hitz beraren atzean —"insaculación", kasu honetan— errealitate ezberdinak ezkutatu ahal direla, eta terminologia bateratu bat erabiltzeak dakartzan arriskuak ekiditeko, ezinbestekoak direla udal-iturrietan oinarritutako ikerketak.

43. Eibarko Udaleko Akta Liburuek ez digute zehazten udal-karguen hautaketa-prozesua nola egiten zen. Informazio hori eskuratzeko, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)* erabili dugu: EiUA, A,2,5.

44. Honen inguruan aurkitu dugun erreferentzia bakarra 1769rako udalkideen hautaketaren aktan jasotzen dena da: «Inconttinentti los dichos señores alcalde y sindico con mi el escribano pasaron a un aposentto separado de la sala; y fueron llamados los Electtores por Barrios» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768-12-31. Dirudienez, 1797rako alkateak izendatzen zituen hautesleak, sindikoaren parte-hartzerik gabe, Bergarako Udala Artxiboa (BUA), C-127, 94.

45. EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-7-7.

46. «… los dichos señores Alcalde, Sindico e io el escribano pasamos a un quarto separado que ay de esta dicha sala a un lado de ella, y haviendo hecho llamar a los Electores, uno en uno, y conforme iban biniendo su mzd. dicho sr. Alcalde les fue rezibiendo juramento en forma de derecho y sobre la Santa Cruz que trae en su real vara para que so cargo de el hiziesen eleccion de sujetos capazes para la justizia y rejimientto segun les dictase respectibamente su conciencia sin pasion alguna, y que de anttes no estan hablados ni sobornados para la dicha Eleccion…» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768rako udal-karguen hautaketa.

semea proposatu zuenean —Domingo, berau ere— alkate kargurako. Akta berean, Andres Atxa Iriondok Andres Atxa Gisasola proposatu zuen sindiko orokorra izateko, eta Manuel Joaquin Arizmendik Francisco Antonio Arizmendi errejidore kargurako. Abizen berak eduki arren, ezin izan dut ziurtatu familia berekoak ziren ala ez. Baina Olabe aita-semeen kasua ezagututa, ez litzaidake batere harrigarria irudituko. Beraz, juramentuak juramentu, badirudi hautesleek ez zeukatela oztopo handirik beren tankerako udalkideak aukeratzeko orduan[47]. Hautesleen esku gelditzen zen boterearen tamaina ikusita, hautaketa-sistema honen zabaltasuna neurtzeko orduan argitu beharreko lehen inkognita hautesleak nola izendatzen ziren jakitea dugu.

Udalkideak izateari uzten ziotenek hiru urteko tartea —"*hueco*"— gorde behar izaten zuten berriz izendatuak izateko. Udalkide ohiak alde batera uzte horren helburua karguen aldaketa bermatzea zen, luzaroan pertsona berberak boterean mantentzeak suposatzen zituen ustelkeria-arriskuak ekiditeko. Hiru urteko tartea errespetatu ez izana aurpegiratu zioten, hain zuzen ere, Ignacio Maria Ibarzabalek[48] eta Pedro Antonio Ezenarrok Juan Andres Lascuraini 1777ko abenduaren 31ko udal-hautaketan: «… digeron devia ser nula la Eleccion hecha en el citado Lascurain; lo uno por que desde que anteriormente fue Alcalde de esta villa hasta el presente dia no havian pasado los tres años de hueco que eran de ordenanza y costumbre y lo otro porque la Eleccion segun estava dispuesto no se devia egecuttar en el dia de oy sino en el de mañana primero de Enero, y por nula la protextaban y pedian Testimonio»[49].

Lekuz kanpoko protesta hori atzera bota zuten, udalbatzak lehenengo, eta diputazioak gero, Laskurain, 1774an alkate izana 1778ko urtarrilaren 1ean jabetu behar zelako alkatearen makilaz, apo-apoan bazen ere, hiru urteko tartea beteta. Aurkezten zuten bigarren arrazoiak —lehenengoarekin kontraesanean egoteaz gain— ez zuen indarrik, udal-hauteskundeak maiz egiten zirelako abenduaren 31n. Beraz, nire ustez, pertsonaia haien arteko iskanbilaren benetako arrazoia beste

47. Zentzu horretan oso interesgarria izango litzateke hautesleen eta proposatuen arteko harremanari buruzko ikerketa sistematiko bat egitea, hots, urteak joan urteak etorri, hautesle karguak zein familiak edo pertsonak monopolizatu zuten jakitea; eta era berean, zelako loturak sortzen ziren auzokideen artean, urte batean urlia hautesle delarik sendia proposatu bazuen, ea sendia hautesle suertatzen zenean urlia proposatzen zuen. Zoritxarrez, ikerlan honetan ez dugu bide hori sistematikoki jorratu, baina bai aurkikuntza bitxiak egin. Adibidez, hautesleek elkar proposatu zezaketela: 1760ko inozente egunean 3. alkatea zaharregia zela-eta, Pedro Pagaegi eta Juan Andres Laskurain hautesleen esku gelditu zen haren ordezkoa proposatzea. Pagaegiren txartela atera zen zozketan, eta Laskurainen izena zegoen idatzita. Auskalo zein izen idatzi zuen Laskurainek bere txartelean… Pedro Pagaegi, beharbada?

48. Ignacio Maria Ibarzabal XIX. mendean Eibarko liberalen aitzindari izango zen Gabriel Benito Ibarzabalen aita zen. Juan Andres Lascurainen arrastoa ere hurbiletik zaintzea komeni zaigu, ikusiko dugun moduan Konbentzio Guduan zehar funtsezko papera jokatzea egokituko baitzitzaion.

49. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1777-12-31.

nonbait aurkitu behar dugu. Edonola ere, Ibarzabal eta Ezenarroren protestak zenbait auzokideren arteko ezinikusien berri ematen digu.

Bazegoen hiru urteko tartea saihesteko aukera ematen zuen hautaketa era bat: aho biziz izendatzea —"*por aclamacion*"—. Sistema hori abagune berezietan erabiltzen zen, udalerriari mesede handiak egindako jauntxoren bat eskertzeko, gehienetan[50]. Halakoetan, auzokideetariko batek jauntxoren bat proposatzen zuen herriko alkatea izateko, eta beste guztien oniritzia jaso behar zuen, aho biziz. Era horretara izendatuak ez zeukan hiru urteko tartea bete beharrik, eta adibidez, 1786an eta 1787an jarraian Sebastian Zumaran alkate izendatzeko prozedura hau erabili zuten Eibarko auzokideek[51].

Edonola ere, ez genuke pentsatu beharko auzokide guztiek udal-karguetarako izendatuak suertatzea gutiziatzen zutenik: errejimentuko partaide izatea onuragarria izan zitekeen arren, zama astuna ere bihur zitekeen abagune larrietan. Eibarko kasuan, arrazoi zehatzak ezagutzen ez ditugun arren, badirudi 1773. urte aldera zenbait auzokidek uko egiten ziotela udalkide izateari. Horretarako erabiltzen zuten trikimailua legeak berak eskaintzen zien. Foruen arabera, herriaren horniketaren arduradunak eta hauen fidatzaileak ezin ziren udal-karguetarako izendatuak izan, prebarikazio-aukerak areagotzen zirelako. Hori aprobetxatuz, udaleko kide izateari uko egiten zioten zenbait auzokide horniketa eta erremateak eskuratzen zituztenen

50. «Y en su consecuencia a una todo el congreso conformemente dijeron que por los muchos beneficios que havia recivido estta dicha villa de Don Sevastian de Zumaran y esttaba reciviendo assi por el coratteral nuebo que por su quentta havia hecho en la Iglesia Parroquial de San Andres Aposttol de esta dicha villa, y los tres mil pesos que havia dado a estta dicha villa a fin de que con ellos haga la fundacion de un Agonizantte para el bien y socorro tan necesario de las Almas de los morimundos (sic) de estta republica, y tambien tenia ofrecido el Dorar dicho Coratteral luego que esttuviesen concluidos los santos de el, y fuera de eso manifesttava servir en los sucesivo a estta villa, y esta no tener con que obsequiarle a ttanttas dadibas para corresponderle de agradecido ttodos los del congreso se sacaron por su Alcalde Electto a voz y votto nomine discrepantte como a hixo noble vecino Arraigado concejante de ella aunque en el dia ausentte en la ciudad de Cádiz, y con animo de benir a estta su Pattria; y del dicho Señor se esperaban mas uttilidades en beneficio de estta noble villa tantto en la administracion de Justicia quantto en todo lo demas que ocurriese, y siendo tan benemeritta devian de nombrar y nombraron por ttal su Alcalde primitivo y Electto de esta dicha villa para el cittado proximo año de mil settezientos settenta y cinco» hautaketa. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1775erako udalkideen hautaketa. Mende-laurdena geroago beste hau jasotzen da: «Y en su vista a propuesta el Señor Alcalde todos los concurrentes unanimes y conformes nombaron y elegieron por primer Alcalde al Exmo. Sr. Conde de Oñate, Grande de España de primera clase, vecino de la villa de Madrid y de esta de Eybar, en atencion a los grandes favores que ella ha merecido en todos tiempos se Su Excelencia» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1802rako udalkideen hautaketa.

51. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1787rako udalkideen hautaketa. Soria Sesék ere helburu hau aipatzen du: «Así, la designación de cargos no por sufragio, ni por cooptación, ni por sorteo, sino por aclamación de los vecinos asistentes al consejo convocado para elecciones. Suele emplearse (…) *también con el objeto de eximir a los regidores del preceptivo intervalo para poder ser reelegidos al mismo oficio*, designándolos de viva voz, sin pasar por el método ordinario» (Soria, 1984: 178). Letra etzana nirea da.

fidatzaile bihurtu ziren. Udalak diputazioari aholkua eskatu bazion ere, ez zuen erantzun garbirik jaso[52].

Udalbatzar Orokorra: "Aiuntamiento General"

Orain arte azaldutakoa herren gelditukо litzateke ñabardura garrantzitsu bat egingo ez bagenu. Gaur egun ez bezala, Lege Zaharrean errejimentuko partaideak ez izan arren, auzokideek ahalmen erabakigarria zuten udaleko gorabeheretan. Izan ere, udalkideen eskuduntzak Auzokideen Batzar Orokorrak[53] mugatzen zituen, eta errejimentuak ezin zuen 200 dukatetik[54] gorako gasturik erabaki auzokideen onirizirik gabe. Beraz, udalak soldata handidun langile bat kontratatu behar zuenean (idazkaria, osagilea…), herri-lan potoloak egin behar zirenean, edota mailegu bat eskatzerakoan, alkateak auzokideen batzarrera deitzeko obligazioa zuen erabakia hartu baino lehen[55]. Egia esan, diru-kontuak eztabaidatu ala ez, Eibarko Udala auzokideen batzarrean oinarritu zen XVIII. mende osoan zehar, eta XIX.aren lehen

52. 1773ko abenduaren 29an, Fco. Antonio Arizmendi Eibarko alkateak galdera bat luzatu zion diputazioari:

«… viendo esta noble villa que sus primeros o mejores vecinos arraigados por ebadirse de las cargas conzejiles de ella, entraban en todo genero de fianzas, assi de provisiones, y otras cosas, como son de las sisas, Donativos, derechos deel peso Real de la Alondiga, Juego de Bolos (…) En el dia 31 de Diziembre de el año proximo pasado, al tiempo de las Elecciones de los capitulares, delibero y acordo, que entrasen en suerte siendo nombrados para ello, todos aquellos que se constituieron y que se constituiesen por fiadores (…) ecepto los rematantes principales de las provisiones de esta referida villa, y sus fiadores. En este supuesto corrio la eleccion espresada». Eta diputatu nagusiaren erantzuna: «… los Rematantes de Abasttos, Sissas, Donattivo, Peso Real, Juego de Bolos, y ottras renttas de esta villa y sus Fiadores, ni el Tesorero de propios no pueden ser capitulares. Pero si remattan esttos derechos por eximirse de las cargas de la Republica, como Vm. me havisa en su cartta, y por estta razon falttan personas en quienes puedan recaer los empleos, pudiera la villa hacer un recurso al Supremo Consejo para que se digne acordar el remedio combenientte» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1774rako udalkideen hautaketa.

53. Auzokideen batzar orokorrak oso jendetsuak izaten ziren. Adibide gisa, 1756ko bat: «Aiunttamiento General en 1º de Agosto de 1756. En las casas de Conzejo de esta noble y leal villa de Heibar, a primero de Agosto de mil settezientos y Zinquenta y Seis años, en testimonio de mi, Sebastian de Eguiguren, Essº de su Magestad numerario y de Aiunttamientos de ella, y testigos, que al final se diran precedida publicata de la Iglesia y a son de Campana tañida como lo tienen de uso y costumbre para semejanttes casos se junttaron a Conzejo los Cavalleros nobles hijos dalgo de esta dicha villa especial, y señaladamentte los Sres. Andres de Sarasqueta Alcalde y Juez ordinario de ella, Martin de Guisasola Garagarza (SPG), Francisco de Olave y Francisco de Iregui rejidores Francisco de Aguirre…» eta beste 40 lagunen izenak biltzen ditu «… y otros muchos vezinos, que por proligidad no se Asienttan todos Cavalleros nobles hijos Dalgo de esta dicha villa» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1756-8-1.

54. Dukat bat, 11 erreal ziren. Beraz, 200 dukat 2.200 erreal.

55. Elgoibarren, 1755eko Udal Araudiaren ("Ordenanzas Municipales") arabera: «Que habiendo árboles bravos para materiales solamente la villa en su ayuntamiento general a de determinar su venta con las solemnidades y circunstancias que le parecieren convenir y no el regimiento so la nulidad y que se incurran en la pena dea 10000 maravedíes el alcalde y los regidores y además en los daños y costas que en su averiguación se causasen» (Uriarte, 1998: 78).

herenean[56]. Eta batzar horrek errejimentuko partaideen nahiak oztopatzeko gaitasuna zuen, gehiengoa lortzen zuenean. Ikus dezagun adibide bat.

1760ko apirilean Francisco Olabek sutegi handi bat eraiki zuen Barrenkalean, eta eraikinak su hartuz gero inguru guztiak kiskaliko ziren beldurrez, eliz kabildoak Olaberen sutegia suntsitzea eskatu zion korrejidoreari. Auzia 1750. urtetik omen zetorren, baina urte hartan ezin izan zen erabakirik hartu «… por la injusta oposizion de algunos vezinos interesados en la causa, que no dieron lugar a que se votase». Hamar urte geroago auzia pil-pilean jarri zen berriz, eliz kabildoko partaideek parte hartzea eskatu baitzioten udalari Olaberen aurkako auzian «… considerando que nuestra parte con justos fundamenttos que la causa que siguen con dicho Olave sobre denunziazion de nueba lavor de fragua maior es publica y que su prosecuzion toca y corresponde a la villa hasta conseguir la Extinczion absoluta de dicha fragua». Azken batean, auzian parte hartzeak gastu judizialak udalak bere gain hartzea eskatzen zuen. Auzokideek luze —eta beharbada sutsu— eztabaidatu bazuten ere, ez ziren ados jarri: alkateak eta gainerako kapitularrek udalak Olaberen aurkako auzian parte hartu behar zuela zioten, eta prozesuaren gastuak ordaindu; baina auzokideen gehiengoa ez zen iritzi berekoa. Azkenean botaziora jo eta auzian ez sartzearen alde zegoen taldeak irabazi zuen —«que no se de aiuda, ni voz corta por la referida villa en poco, ni mucho prottestando lo Conttrario»—[57], 28 boto 21en aurka. Beste 9 auzokidek konpromisozko formula baten alde bozkatu zuten, ordura arte izandako gastuak elizak, eta ordutik aurrerakoak udalak ordaintzea proposatuz; beste 5ek zuri bozkatu zuten; eta auzokideen batzarrean zeuden gainerako 31 auzokideek ez zuten botorik eman.

Ikusten dugunez, auzokideen batzarrak errejimentuaren erabakiak atzera botatzeko gaitasuna zuen, eta zentzu horretan, kontrapisu baten erara funtzionatzen zuen[58], urte bakoitzean udalkide taldea osatzen zutenen aurrean. Beraz, ondorioztatzen da Lege Zaharreko udalkideek, gaur egungoekin alderatuta, ez zeukatela horrenbeste autonomiarik. Edo alderantziz nahiago bada: gaur egun, herritar arruntek ez daukatela udalkideen erabakiak oztopatu edo atzera botatzeko mekanismorik. Garai hauetan, boto-eskubidea daukan biztanleria askoz handiagoa bada ere, behin

56. Eibarren udalaren batzar guztiak orokorrak ziren. Elgoibarren, ordea, 1766an udal partikularra —errejimentu hutsa— 3 aldiz bildu zen eta orokorra —auzokideen batzar orokorra— 4 aldiz; 1793an, 5 aldiz partikularra eta 10 orokorra. Elgoibarko udal-ordenantzek auzokideen batzar orokorrak zuen garrantzia adierazten digute, non udalkideentzat isunak iragartzen ziren funtsezko arrazoirik gabe udal orokorrera deitzen bazuten (Uriarte, 1998: 203).

57. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1760-4-19.

58. Elgoibarko udal-araudiak ere argi eta garbi uzten zuen auzokideen batzarraren lehentasuna errejimentuaren aurrean, isunak ezarriz beren kabuz erabakitzen zuten udalkideentzat. Basoen ustiaketaren inguruan, adibidez, hauxe zioen: «Que habiendo árboles bravos para materiales *solamente* la villa en *su ayuntamiento general* a de determinar su venta con las solemnidades y circunstancias que le parecieren convenir *y no el regimiento* so la nulidad y que incurran en la pena de a 10000 maravedíes el alcalde y los regidores…» (Uriarte, 1998: 78). Letra etzana neuk jarria da.

botoa emanda ez du hurrengo lau urteetan arituko diren udalkideen erabakietan esku hartzeko gaitasunik, botere-delegazioa erabatekoa baita. Foru-erregimenean, ordea, boterearen delegazioa partziala zen, eta auzokideek ahalmen erabakigarria berreskuratzen zuten Batzar Orokorretan. Batzar okorretan parte hartzea, gainera, eskubidea baino gehiago betebeharra zen, zeren gai garrantzitsuak eztabaidatu behar zirenean, batzarrera deitu eta agertzen ez zen auzokidea zigortzeko gaitasuna baitzuen alkateak[59].

1760ko botazioan parte hartu zuten auzokideak

NORTASUNA	Udal-karguak1760-B		NORTASUNA	Udal-karguak1760-B	
ACHA ORBEA Andrés	A2 1758	Udalak	ARETA Francisco	A1 1763	Udalak
ARETA ZUBIAURRE Domingo	ER 1762	Udalak	ARGUIANO Lorenzo Ignacio	ER 1765	Udalak
ARIZMENDI Agustin	ER 1756	Udalak	AZPIRI AGUINAGA Miguel		Udalak
ERVITI Joseph	ER 1758	Udalak	ESPILLA Andrés	ER 1759	Udalak
GUISASOLA AMURUTEGUI Juan		Udalak	IRAEGUI Francisco	ER 1755	Udalak
IRIONDO Andres		Udalak	LASCURAIN Juan Andrés	ER 1763	Udalak
LECETA Andrés	ER 1760	Udalak	LOIOLA Domingo	ER 1759	Udalak
MALLEA ALDAZABAL Joaquín	A2 1759	Udalak	MENDIZABAL Juan Bauptitista	A1 1756	Udalak
ORVEA Juan		Udalak	ORVEA SORAEN Miguel		Udalak
SARASQUETA Domingo		Udalak	SUINAGA Juan		Udalak
UNZETTA ARIZMENDI Pedro	ER 1777	Udalak	ACHA GOROSTIETA Andrés	SPG 1771	Elizak
ACHA Martín		Elizak	AGUIRRE ARGUIANO Martín	TER 1828	Elizak
AGUIRRE Juan Joseph	SPG 1756	Elizak	ARANGUREN Geronimo		Elizak
ARGUIANO AZPIRI Joseph	ER 1772	Elizak	ARREGUI Domingo		Elizak
AZPIRI AZALDEGUI Lucas	ER 1771	Elizak	BURGOA Francisco Ignacio	A1 1765	Elizak
BUSTINDUI Francisco Antonio	SPG 1759	Elizak	BUSTINDUI RUIZ de BERNEDO	ER 1757	Elizak
GOROSTIETA Joachin		Elizak	GUISASOLA ESCAREGUI Diego	ER 1765	Elizak
GUISASOLA ESCAREGUI Joseph		Elizak	IBARZAVAL Fernando		Elizak
IBARZAVAL Pedro	SPG 1774	Elizak	ITURRAO Lucas "maior"		Elizak
LUZAR Joseph		Elizak	MANDIOLA Agustin		Elizak
OTAUE Domingo		Elizak	PAGAEGUI Pedro	ER 1757	Elizak
PAGOAGA Domingo	SPG 1773	Elizak	UBERUAGA Andrés	SPG 1785	Elizak
UNAMUNO Nicolás		Elizak	UNCETA BARRENECHEA Martin	ER 1773	Elizak
URIZAR Antonio		Elizak	VERGARA Alberto	SPG 1770	Elizak
VERGARA Andrés		Elizak	ABANZABALEGUI Pedro	A1 1757	Biek
ARIZMENDI Francisco Antonio	A1 1773	Biek	GUISASOLA AREJITA Martín	ER 1767	Biek
GUISASOLA GARAGARZA Martín	SPG 1755	Biek	GUISASOLA Joseph Bruno		Biek
GUISASOLA Joseph Joaquín	SPG 1760	Biek	INARRA IREGUI Joseph		Biek
LECETA Matias		Biek	VERGARA GALLAIZTEGUI Andrés	SPG 1757	Biek

Taula honetan, 1760ko martxoaren 18ko bozketan parte hartu zuten auzokideen nortasuna, eta bakoitzak eman zuen botoa ageri dira. "Udal-karguak" zutabean, 1755etik aurrera udalkidea izan zen lehen aldia aipatzen da, bete zuen karguarekin. Erabilitako laburdurak honako hauek dira: A1 = Alkate titularra; A2 = Ordezko alkatea; ER = Errejidorea; SPG = Sindikoa ("Sindico Procurador General"). Taulan agertzen den Martin Agirre Argianoren kasuan, beharbada "klon" [60] baten aurrean gaude.

59. «… que los vecinos que havian faltado a este Aiuntameinto ezepto los indispuestos y Ausentes todos los demas estando y que estaban en el Cazco de ella por no haver Concurrido a el de este dia pagasen por cada uno ocho reales de vellon» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-5-22. Hamabi urte geroago, isuna lau errealekoa zen.

60. Hitz hau erabiliko dut izen eta abizen berdinei dagozkien bi erreferentzia aurkitu arren, errealitatean bi pertsona ezberdin direlako susmoa sortzen zaidanean. Kasu honetan, nahiko zaila iruditzen zait 1760an gutxienez 25 urte eduki behar zituen Martin Aguirre Arguiano, 1828an oraindik bizirik egotea, 93 urterekin!

Aipagarria iruditzen zait, bozkatu zuten 63 auzokideetatik 37 udalkideak izandakoak edo izatekoak zirela. Gainerako 26ek udal-kargurik bete ez izanaren inguruan, zorte txarra baino gehiago (gogora dezagun udal-karguen hautaketan zorteak ere bazuela zerikusirik), ez zutela ondasun nahikorik edukiko bururatzen zaigu. Izan ere, Eibarren zehaztasun hau aurkitu ez dudan arren, beste udal batzuetan auzokideak bi kategoriatan banatuta agertzen dira: "*vecinos de voz activa*", hau da, bozkatzeko eskubidea zutenak; eta "*vecinos de voz pasiva*", bozkatzeaz gain, bozkatuak izateko eskubidea zeukatenak. Azken hauek aurkeztu behar zuten "*millar*" edo ondasun kopurua zertxobait handiagoa zen[61]. Talde horri deitzeko, *auzokide hautagaiak*[62] hitza erabiliko dut, auzokideak izan arren udal-kargurik betetzeko adina ondasun ez zeukatenengandik bereizteko.

Olaberen sutegiarekin zer egin erabakitzeko bozketan zer gertatu zen pixka bat gehiago aztertzeko, begira diezaiegun taula honen emaitzei.

	Auzokide hautagaiak	Auzokide ez-hautagaiak	Auzokideak guztira
Elizak	**13**	15	**28**
Udalak	**14**	7	**21**
Biek	6	3	9
Zuriz	2	3	5
Ez	3	28	31
Guztira	38	56	94

Erabakitzeko ahalmena auzokide hautagaiei mugatuta egon izan balitz, udalak Olaberen aurkako auzian parte hartuko zuen, eta gastuak ordainduko. Baina hautagaiak ez ziren auzokideek hankaz gora jarri zuten bozketa; edo hobeto esanda, horietariko taldetxo batek, 56 lagunetik 15ek baino ez baitzioten aurre egin udalkideen nahiari. Edonola ere, auzokide hautagaien taldea zatituta agertzen zenean (13/14) ez-hautagaien botoa erabakigarri bihurtzen zen. Beraz, talde bakoitzak ahalegin handiak egingo zituen hautagaiak ez izan arren, boto-eskubidea zeukaten

61. Irunen, adibidez, bozkatzeko hiru goldeko ondasunen jabe izatea nahikoa zen (6.510 metro karratu); bozkatzeaz gain bozkatua izateko, lau golde ziren beharrezkoak (8.680 metro karratu) (Iparragirre, 2001: 27).

62. Iban Zalduak zuzenduriko taldeak Emiliano Fernandez de Pinedoren *Crecimiento económico y cambio social en el País Vasco (1100-1850)* liburuaren itzulpenean *auzokide hautagai* hitza erabili du, "*vecino concejante*" hitza euskaratzeko. Nire ustez egokiagoa da "*vecino concejante*"rentzat "*auzokide*" hitza erabiltzea, "auzokide hautagai" terminoa "*vecino concejante de voz pasiva*"ren ordez erabiltzeko gordez, eta besterik ezean, "*vecinos concejantes de voz activa*" itzultzeko, "auzokide hautesle" terminoa asmatu dut. Bereizketa hau egitea komenigarria iruditu zait, are gehiago hutsala dirudien terminologia honen atzean, biztanleen kategorizazio juridiko-politiko bat dagoela dakigunean, herriko biztanleak eskubide maila ezberdineko multzoetan sailkatzen dituena.

auzokideen borondateak erakartzeko. Izan ere, haiek ziren gehiengoa batzar orokorrean. Beste alde batetik, udalak auzian parte hartzearen aldeko iritzia indartsuago agertu zen jatorriz eibartarrak ziren auzokideen artean; kanpotik ailegatutako familietako auzokideen artean, ordea, elizari laguntzarik ez emateko jarrera nagusitu zen. Eta bozketaren emaitza azken horien aldekoa izan zen.

Aipagarria iruditzen zait 31 auzokidek bozkatu ez izana. Udaleko gaien inguruan euren iritzia ematera ausartuko ez balira bezala, abstenitu egin ziren. Ziur asko botazioa ahoz burutu bazen ere, bazeukaten —Gisasola sindikoak egin zuen bezalaxe— auziaren gastuak bi erakundeen artean ordaintzearen alde bozkatzeko aukerarik; edo zuriz bozkatzekoa, bost lagunek egin zuten bezala. Presioak direla medio —beharbada—, nahiago izan zuten iritzia beraien golkorako gorde. Alkatea bera ere ez dugu aurkitzen bozkatu zutenen artean, udal-aktak «consta que veinte y un vezinos en que son inclusos el Sr. Alcalde y rejidores son de senttir el que se siga el dicho dicttamen costeandose el referido pleitto de los efectto de esta dicha villa en todo y por ttodo» badio ere[63].

Batzar Orokorrean egon arren, bozkatu ez zuten auzokideen nortasunak eta perfil politikoa zehaztea interesgarria da. 31 laguneko taldea osatzen dute, eta horietatik 3 baino ez dira auzokide hautagaiak. Beheko zerrendan beste lau auzokide (HD eta HS laburdurekin) udaleko partaide gisa agertzen badira ere, horiek ez ziren auzokide hautagaiak. Horren arrazoiak hurrengo kapituluan azalduko ditugu. Beharbada, gehiegi luzatu naiz botazio xume baten inguruan, baina ez dugu botazio ugariren berri aurkituko Eibarko Udaleko akta-liburuetan, are gutxiago, honetan bezala, auzokide bakoitzak egindako aukera zehazten digunik.

NORTASUNA	Udal-karguak	1760-B	NORTASUNA	Udal-karguak	1760-B
ACHA ORBEA Juan	ER 1770	Ez	AGUIRRE Francisco		Ez
ALBERDI Andrés		Ez	ALBERDI EGURZA Bauptista		Ez
ARETA Domingo "menor"	ER 1773	Ez	ARETTA Atanasio	HS 1776	Ez
ARGUIANO GARAGARZA Joseph	HS 1779	Ez	ASCARSUA Domingo		Ez
BARRUTIA Martín		Ez	BUSTINDUI RUIZ Domingo		Ez
ECHABARRIA Joseph	HD 1769	Ez	ESCAREGUI Diego		Ez
ESCAREGUI Joseph		Ez	GALLAIZTEGUI Francisco		Ez
GUISASOLA AGUINAGA Martín		Ez	GUISASOLA Thomás		Ez
IBARRA Miguel	HS 1773	Ez	IBARZAVAL Celedón		Ez
IBARZAVAL Juan		Ez	IRIONDO Matías		Ez
LUZAR Agustín		Ez	OLAÑETA Agustín		Ez
OLAÑETTA Joseph		Ez	OLAÑETTA Luis		Ez
OLAÑETTA Pedro		Ez	OLAVE Francisco	ER 1755	Ez
ORVEA SORAEN Andrés		Ez	OTAUE Andrés		Ez
SAN MARTIN Gregorio		Ez	TREVIÑO Diego		Ez
VERGARA Francisco		Ez			

63. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1760-4-19.

Atal honi bukaera emateko, 1777. urtean gertaturiko beste botazio bat jasoko dugu. Kasu honetan, bideak konpontzeko Abandoko mojen komentuak mailegatutako 1.000 dukaten eta Zaragozako gotzainak mailegatutako 180.000 errealen gordetzailea ("*depositario*") lehenbailehen izendatzeko agindu zuen korrejidoreak, aurreko bileran izendapena bertan behera gelditu zen-eta. 1760an bezala, luze eztabaidatu arren, ez zen auzokideen arteko adostasunik lortu eta botaziora jo zuten. Oraingoan, sekretua izan zen eta emaitzak baino ez dakizkigu: Pedro Abanzabalegik 13 boto lortu zituen eta Juan Jose Agirrek 14, «incluso el suyo, que se aplico asi mismo, y el de Jose de Egocheaga, Escribano del numero de estta villa, que tambien se hallo presentte y confirio a dicho Juan Jose»[64]. Ikusten dugunez, oraingoan ere oso orekatuta agertzen da udalkideen iritzia, boto bakar batengatik irabazi baitzuten Agirreren aldekoek; eta tamalgarria da botazio hau sekretupean burutu izana, zeren Agirre eta Egotxeagaren inguruan sortutako taldeak 1760ko botazioan bereizi ziren bi taldeekin alderatzeko aukera galtzen baitugu.

Auzia ez zen hemen amaitu. Auzokideetariko batek —Domingo Olabek— korrejidorearen aurrean hel egin zuen, eta botazioa indargabetzea lortu zuen. Zer zela-eta? Batetik, Egotxeagak, eskribaua izanda, ez zeukalako botazioan parte hartzeko eskubiderik; bestetik Agirrek bere buruaren alde bozkatu zuen, eta hori ezinezkoa zen. Indargabetutako bi boto horien ondorioz, gordetzailearen kargua Abanzabalegiren eskuetara bildu behar zen, baina udalak berriro auzokideen batzarrera deitu eta botazioa berriz egitea agindu zuen, oraingoan ere sekretuan. Bigarren botazio honetan ere Agirre atera zen garaile, 50 botorekin; Abanzabalegik gainerakoak eskuratu zituen, eta kopuru zehatzik ez badakigu ere, Agirrek lortutako emaitzetatik urruti xamar gelditu zela esango nuke.

GIPUZKOAKO BATZAR OROKORRAK

Eibarko herriak Gipuzkoako Batzar Orokorretan —"*Juntas Generales*"— parte hartzen zuen. Batzar horiek urtean behin biltzen ziren gutxienez, uztailaren hasieran hamar egunetan zehar. Udalerri bakoitzak ordezkari bat edo bi bidaltzen zituen, premiaren edo ahalmen ekonomikoaren arabera, ordezkariei ordaindu egiten baitzitzaien[65]. Batzarretan Gipuzkoako herrialdeari zegozkion kontuak erabiltzen ziren, arlo administratibo, ekonomiko eta politikoan: bideen eraikuntza eta konponketak; herrien arteko istiluak; monarkiak eskaturiko soldaduak edota zergak… Baina zalantzarik gabe Gipuzkoako Batzar Orokorren eskuduntza nagusia (gainerako foru-herrialdeena bezalaxe), Foru Baimena zen ("*Pase Foral*"). «Se obedece pero no se cumple» formularen bidez, Batzar Orokorrek foru-erregimenaren aurka zihoazen Erret Agindu, Dekretu edota Zedulei uko egin, edo etengabe atzeratzeko

64. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1777-2-21.

65. 1777an 20 peso ordaintzen zizkion Eibarko Udalak Batza Orokorretara bidaltzen zuen ordezkari bakarrari, EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1777-7-20.

eskubidea zeukaten. Izan ere, erregeak Gipuzkoako foruak[66] errespetatuko zituela sinatzeko obligazioa zuen, gipuzkoarrek erregetzat onartzea nahi baldin bazuen. Sistema honen arabera, erregeak ezin zion inolako aldaketarik inposatu herrialdeari (Foru Baimenak edo "*Pase Foral*"ak bermatzen zuen eskubide hori), eta alderantziz, herrialdeak ezin zuen sistema hau aldatu erregearen oniritzirik gabe. Beraz, komeni da ohartaraztea ezen Gaztelan erregearen aginte-ahalmenak erabatekoa bazirudien ere[67] (errege absolutua), foru-lurraldeetan bere aginpidea mugatuta zegoela. Sasoi hartan, gainera, botere-zentrotik urruti zeuden guneak kontrolatzeko aukerak ez ziren gaur egungoak. Euskal lurraldeek gozatzen zuten status juridiko hau ezagututa, autore batzuek baieztatu zuten[68] absolutismoaren garaian euskal lurraldeetan sasidemokrazia bat bizi zela.

Korrejidorea erregearen ordezkaria zen Gipuzkoako lurraldean, eta ondorioz, Batzar Orokorren burua. Horrez gain, eskuduntza judizial garrantzitsuak zituen[69]. Ustekabeko arazoak sortzen zirenean Batzar Bereziak ("*Juntas Particulares*") egiten baziren ere, sistema hau ez zen batere egokia, hain sarri bildu beharrak herrien gastuak areagotzen zituelako. Hasiera batean, Batzar Orokorretan harturiko

66. Foruei buruz hitz egiten dugunean, komeni da bereiztea hiribilduen sorkuntzan Nafarroako, Gaztelako edo Aragoiko erregeek emandako forua edo "carta puebla", eta herrialde osoari zegozkion foruak. Ezberdintasunaren gakoa argi eta garbi azaltzen du Solozabalek: «De otro lado es preciso distinguir entre los Fueros Vascongados, propiamente dichos, que se refieren al derecho territorial privativo de toda o la mayor parte de las provincias, de los Fueros Municipales, que otorgados por el Señor o Monarca, tuvieron vigor exclusivamente en las villas de la Region vasca (…) Los fueros generales vascongados, que son los que a nosotros nos interesan, tuvieron reconocimiento, que no origen real» (Solozabal, 1979: 214-215).

67. «Estatu absolutistak, izenak besterik adierazi arren, ez du esan nahi erregea eta bere kontseiluak guztia erabakitzen zutenik. Nahia eta borondatea hori izan arren, oztopoak nabarmenak ziren. Lege Zaharraren garaian, botereen konkurrentzia jurisdikzionala zen bereizkuntza nabarmena eta komunitate bakoitzak tokian tokikoa edo hirikoa edo lanbidezkoa bere status jurisdikzional propioa irabazteko ahaleginetan ziharduen; azken batean, komunitatearen autonomia zaintzeko bidea baitzen (…) Erresuma absolutistaren barruan, ez zen erraza lurralde-boterea kontserbatzea eta, beraz, tirabiran nortasuna irabazten ari ziren. Erresumaren baitan, lurralde bakoitzak beren kabuz aukeraturiko ordezkarien bidez gobernatzen ziren; beste batzuk, aldiz, zuzen-zuzen monarkiaren funtzionari edo intendenteen bidez, hau da, monarkiaren administrazioaz zuzen-zuzenean» (Agirreazkuenaga, 1993a: 51-53).

68. «Figura por ejemplo en 1787 dentro del panorama constitucional comparado que ofreciera, como Defence of the Constitution of Government of the Unites States of America, quien fuera luego presidente de los mismos, John Adams. Vizcaya comparecía como república democrática junto a San Marino, algún cantón suizo y las Provincias Unidas de los Países Bajos por delante de la misma Inglaterra, al ser ésta república monárquica, pasándose por repúblicas aristocráticas de cantones helvéticos» (Clavero, 2000: 31).

69. «Aunque el corregidor en Gipuzkoa fue siempre un órgano eminentemente judicial, cuya jurisdicción complementaba la ejercida por los alcaldes municipales en la vía civil y criminal, no por ello dejó de tener encomendadas importantes funciones político-administrativas. De hecho, el corregidor viene a ser el elemento tutelar de la actuación individual del municipio, en lo judicial, y el instrumento de control, cooperación y auxilio del gobierno general de la Provincia, en el campo administrativo» (Ruiz Hospital, 1997: 88-89).

erabakiak gauzatzeko ez zenez erakunde edo pertsona berezirik izendatzen, korrejidorea arduratzen zen horretaz, herrialdeak beretzat zituen eskuduntzak bereganatuz. Beste gauza batzuen artean, hori saihesteko sortu zen Diputatu Nagusiaren figura XVI. mende aldera[70], eta diputazioa bera, urte batzuk geroago.

Bizkaiko Batzar Orokorrak beti herri berean biltzen baziren ere (lehenengo Larrabetzun, gero Gernikan), Gipuzkoan hemezortzi herrik banatzen zuten ohore hori[71], txandaka. Diputazioaren egoitza ere urtero-urtero aldatzen zen, lau herriren artean: Donostia, Tolosa, Azkoitia eta Azpeitia. Diputazioaren egoitza izatea, ohore hutsa baino gehiago, sekulako pribilegioa zen, diputazioaren partaideak udalerri horretako biztanleen artetik aukeratu behar izaten zirelako. Hau da, mendeetan zehar, Gipuzkoako Diputazioko partaide guztiak donostiarrak, tolosarrak, azkoitiarrak eta azpeitiarrak izan ziren, harik eta 1799ko Batzar Orokorretan Diputatu Nagusia txandako herriko biztanlea izatearen baldintza kendu zen arte. Botazio hura ozta-ozta irabazi zuten aldaketaren aldekoek, 1.143 "su"rekin ("*fogueras*" edo "*fuegos*") 1.110en aurka, berauen artean Eibarkoa[72]. Edonola ere, Batzar Orokorrek harturiko erabaki hura ez zen gauzatu 1817ra arte (Uriarte, 1998: 47).

Suak —"*fogueras*"— Lege Zaharreko unitate demografikoak ziren. Gipuzkoan, udalerri bakoitzak bere biztanleriaren araberako boto edo su kopurua zeukan Batzar Orokorretan. Botoez gain, herri bakoitzak ordaindu beharreko zerga edota soldadu kopurua suen arabera neurtzen zen. Beraz, eskubideak eta betebeharrak nahiko orekatuta zeudela esan dezakegu. Bizkaiko Batzar Orokorretan, ordea, udalerririk txikienak eta Bilbok, pisu berdina zeukaten: udalerri bat, boto bat. Zer esanik ez, gaur egungo ikuspegitik justuagoa dirudi Gipuzkoako Batzar Orokorretan erabiltzen zen sistemak. Baina kontuan hartzen badugu, bai Gipuzkoan bai Bizkaian, Batzar Orokorretara zihoan ordezkariak herri guztiaren izenean, edo hobeto esanda, herriko su guztien izenean bozkatzen zuela, bizkaitarren prebentzioneurriak ez zaizkigu hain atzerakoiak iruditukо. Zeren, herri bateko biztanleen iritzia gai baten inguruan erdibituta egon arren, Batzar Orokorretara zihoan ordezkariak ezin zituen bere udalerriari zegozkion suak erdibitu bozketa baten aurrean, udalerri bezala bozkatu behar zuen, batera edo bestera. Horren ondorioz, Gipuzkoan, populazio gehien zeukaten 6-8 udalerrietako ordezkariek ahalmena zuten beren iritzia gainerakoei inposatzeko, aurretik elkarrekin ados jartzea lortzen bazuten, noski. Zentzu horretan Bizkaian, populazio gutxiko udalerriak askoz babestuago zeuden.

70. Ruiz Hospital, 1997: 180-184.

71. Hasierako hamazortzi herriei, Oñati bildu zitzaien 1845ean, Irun eta Oiartzun 1860an, Eibar 1865ean eta Zumarraga 1867an. Baina azken bietan inoiz ez ziren bildu Batzar Orokorrak, txanda heldu baino lehen espainiar parlamentuak foruak ezabatu zituelako (1876).

72. Ruiz Hospital, 1997: 258.

ANTOLAKUNTZA MILITARRA

Agerraldien zergatia

Foru-lurraldeetako biztanleak soldadutza-zerbitzutik salbuetsita zeudela sarritan entzun dugun arren, badago ñabardurarik baieztapen horretan. Alde batetik, salbuespen horrek ez zituelako Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldeko herriak barne hartzen; izan ere, herri horiek behartuta zeuden itsas armada zerbitzurako deialdiak gertatzen zirenean marinelak ematera. Bestetik, espainiar monarkiak behin baino gehiagotan exijitu zituen soldaduak lehorreko zerbitzurako, eta eskakizun horiek saihesteko era bakarra dirua eskaintzea izaten zen soldaduen truke. Eta dirua lortzeko, diputazioek zerga bereziekin zamatzen zuten biztanleria. Beraz, lehorreko zerbitzua ez betetzearren, foru-herrialdeotako biztanleek gainerako lurraldeetan ezagutzen ez zen *zerga militar berezia* ordaintzen zutela esan dezakegu. Agerraldiek —alardeek— beste eginkizun garrantzitsu bat betetzen zuten: biztanleen artean zeuden kategoriak islatzea, hain zuzen. Elgoibarko udal-ordenantzek diotenez, hauen helburua zen «… no solo (…) la defensa de la patria, si no tambien para que cada uno sepa quienes son los vecinos nobles hijosdalgo admitidos a los honores que les pertenecen en paz y en guerra» (Uriarte, 1998: 227). Beraz, sinbolismoz beteriko ekitaldiak zirela ondorioztatu dezakegu, gizartearen estratifikazioan oinarritutako eszenografia militarrak, azken finean.

Horrez gain, soldadutzarik ez bazegoen ere, gerra-mehatxuaren ondorioz forulurraldeak inbaditzeko arriskua sortzen zenean, mobilizazio orokorrera deitzen zuten diputazioek, eta herrialdean sartzen baziren, familia bakoitzak gizon bat eman beharra zuen herrialdea defendatzeko. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu agerraldiak, zeren etsaiak erasotzen zuen egunean «… jendeak ez bazekien zer egin, nora jo, norekin bildu eta abar, alferrikakoa bihurtzen zen ahalegin guztia. Horretarako prestatzen ziren alardeak: egun seinalatuetan entseiuak eginez, borrokatzeko momentua ailegatzen zenerako biztanleen borondateak bildu, obedientziak lotu, gorputzak prestatu eta izpirituak indartzeko. Berehala erantzun behar zen, noski. Ziztu bizian jantzi, etxean armarik bazeneukan hartu, eta besteekin bildu behar zinen leku jakin batean, defentsa prestatzen hasteko. Jokoan zegoena norbere etxea eta familia zela dakigunean, irudikatzekoa da kanpaia jotzeko modu berezi hark sortarazi behar zuen zirrara, beldurra eta amorrua» (Iparragirre, 2001: 162). Prestakuntza horiek muga ondoan zeuden herrietan indar berezia izaten zuten, eta hain zuzen ere, hori izan daiteke alardeen ohitura Irunen eta Hondarribian soilik mantendu izanaren arrazoia. Baina kostaldeko herrietan ere arrisku berdina bizi izaten zen, batez ere Ingalaterraren aurkako gerrateetan edozein lekutan lehorreratu ahal zirelako haien txalupak. Horrelako abaguneetan, barnealdeko herriek ere kostaldea defendatzen lagundu behar zuten[73].

73. Eibarko herriari dagokionez, orain dela gutxi aurkitutako dokumentu batek Ingalaterrarekin hasitako gerraren ondorioz hartu ziren neurriak azaltzen dizkigu: «Y consiguientemente acordaron el

Foru-erregimenaren arabera, gisa honetako prestaketa militarrek eragiten zituzten gastuak, «herrialdearen defentsarako atzerritik zetozen erasotik libratzeko zenez gero, probintziak ordaindu beharko zituen gastu guztiak» (Agirreazkuenaga, 1993a: 69). Hauxe zen, nolabait esateagatik, soldadutzatik salbuetsita egotearen truke euskal lurraldeek ordaintzen zuten prezioa. Beste lurralde batzuetan, ordea, erregeak berak ordaintzen zituen gerren ondorioz sortutako zorrak. Beraz, abagune baketsuetan sistema hau onuragarria bazen ere, zama latza bihurtzen zen gerragaraietan, zeren, foru-herrialdeak lehen lerroan kokatzen zirenez, Espainiako eta Frantziako erregeen artean nahi baino maizago gertatzen ziren guduen lehen pairatzaileak Gipuzkoa eta Nafarroa izaten baitziren. Alde bateko zein besteko gudarosteen horniketak eta zerbitzuak, eta herritarren artean eta beraien ondasunetan eragindako kalteek (hilketak, atxiloketak, bortxaketak, erbesteratzeak, erreketak, zerga bereziak, ondasunen bahiketak…) foru-erakundeen zorpetze zikliko bat eragiten zuten, eta herrialde mailako ogasuna oraindik garatu gabe zegoenez, udalerriak izaten ziren defizitari aurre egitearen arduradunak.

Beraz, salbuetsita baino egokiagoa iruditzen zait esatea foru-herrialdeek modu berezia zutela zerbitzu militarra betetzeko[74]. Une zehatz batzuetan, nahitaezko soldadutza ezartzeko ahaleginak egin zirenean, herritarrak matxinatu arren (Zamakoladaren arrazoietariko bat hau izan zen, adibidez), foru-herrialdeek, luzaroan, funtsezko lana bete zuten espainiar monarkiaren defentsa militarrean. Hala ere, zentralistek uste zuten foru-lurraldeek iruzurra egiten ziotela estatuari, zeren espainiar izatearen abantaila guztiak gozatzeko prest baitzeuden, baina betebeharren aurrean entzungor (zergak eta soldadutza). Ikuspegi horren defendatzaileek foru-herrialdeek —batez ere Gipuzkoak eta Nafarroak— espainiar monarkiaren egitura militarrean betetzen zuten paper estrategikoa ahazten zuten.

---

que en el dia de mañana Domingo por la tarde y en los demas que dispusieren y ordenasen los referidos señores oficiales se hagan practtiquen por dicha Compañia los ejercicios conducentes para que este mejor instruida, dandosele el refresco acostumbrado, y que este prevenida para marchar y presenttarse en la primera orden de la Diputtacion de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa, a donde llamase la necesidad». EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-10-2. Eta azaroaren 17an: «He quedado de acuerdo con el Exmo. señor Comandante General en que devera marchar la Compania de Naturales de V.M. (con otras) a la villa de Motrico o Deva, al primer Disparo de Cañon de aquella villa, en caso de percibirse, y en defecto al puntto mismo que recibiere VMd. orden mia, o havisso de alguno de los citados dos Pueblos» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-11-17. Ez ziren entzumen makalekoak, Mutrikun jotako kanoikada Eibarren entzuteko.

74. «En líneas generales, cabría decir que los originarios de los territorios forales vascos mantuvieron un sistema peculiar y privilegiado para la prestación del servicio militar, pero la existencia de estos condicionantes no les eximió del cumplimiento de aquel deber (…) quedaron obligados a la prestación del servicio militar, regulándose éste mediante la normativa establecida por la legislación foral» (Mugartegui Eguia, 1990: 40).

Eibarko tertzioen konpainiak XVIII. mendearen bigarren erdialdean

Gregorio Mugicak XVIII. mendean zehar Eibarren agindutako mobilizazio militarren berri ematen digu: 1740an, 1742an, 1747an eta 1762an burutu ziren, azken hau Ingalaterraren aurkako gerra zela-eta (Mugica, 1990: 29, 30). Eratutako konpainien buruan udalkideak jartzen ziren normalean. 1779an, Ingalaterrarekin gerra hasi berri zela, Baionako portuan zeuden zazpi itsasontzi espainiarretako marinelek alde egin zuten, eta Gipuzkoako Diputazioak gutun bat idatzi zion estatuko ministroari, euskal marinelen jokabidea nolakoa izan zen jakiteko. Haren erantzunean adierazten denez, «no haver sido Indibiduos de Vizcaia los que equipaban aquellos Buques». Errege Armadaren utzikeria ikusita, Donostiako Kontsulatuak ontzi kortsarioak prestatzea erabaki zuen, bere merkataritza babesteko[75]. Gerra-egoerak eraginda, 1762ko deialdian Aratusteetan astean zehar lau egunetan haragia jateko baimena eman zuen erregeak, eta 1779koan ere, haragia jateko debekua kendu zela dirudi[76].

3. eranskinean 1740-1779 bitartean burutu ziren mobilizazioetan parte hartu zutenen nortasunak azaltzen dira. 1779koan izan ezik, gainerakoetan konpainietako ofizialenak baino ez ditugu ezagutzen. Begirada zorrozten badugu, laster konturatuko gara zenbait familia eginkizun militarretan espezializatuta zeudela, belaunaldiz belaunaldi kanpaina guztietan parte hartu zuten-eta. Arizmenditarrek 1740, 1747 eta 1779ko kanpainetan parte hartu zuten; aretarrek eta sarasketarrek, 1762koan eta 1779koan… Baina, zalantzarik gabe, arlo honetan gehien bereizi zen familia laskuraindarrena izan zen: Pedro Laskurain sarjentua izan zen 1740ko kanpainan, eta tenientea 1747koan; Juan Andres 1762an eratu zen konpainiako kapitaina izan zen; eta bere semea —Juan Andres Laskurain "*menor*"—, sarjentua 1779an. Laskuraindarrei buruz hitz egiteko edukiko dugu parada hoberik. 1779ko soldadu-deialdiari dagokionez, aipatu behar da behartuta joan behar zutenen (23 lagun) eta zozketaz irtendakoen artean (20 lagun) egin zen bereizketa, horren arrazoi zehatzik ezagutzen ez dugun arren.

3. eranskineko taulan, lekurik ezean, ez dut islatu soldadu horiek udal-kargurik bete zuten ala ez, baina interesgarria iruditu zait datu-baseak ematen dituen aukerak erabiltzea kalkulu batzuk egiteko. 76 lagun horietatik 22 auzokide hautagaiak ziren, eta 4 auzokide hautesleak. Gainerako 50ak biztanle hutsak ziren, eskubide politikorik gabeko biztanleak, alegia. Giza talde horren egoera oso kezkagarria

75. «Trata seriamente del aprompto de una Nave Corsaria que conteniendo el orgullo enemigo proteja el Comercio deviendo prometerse el mas bentajoso desempeño de la actibidad de tan Ilustre Cuerpo» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-9-26.

76. Pablo Salazar, haragiaren probisioaren errematatzaileak ("*obligado de la provision de carnes*") zioenez: «Que mediante el mucho consumo que ha havido en la Cuaresma», haragiaren prezioa igo egin zen eta udalak libra 8 laurdenetan barik, 9 laurdenetan saltzeko baimena eman zion, EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-9-26. 1762ko erreferentzia, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1762-1-17.

zen, zeren herri mailako erabakitze-prozesutik baztertuta bazeuden ere, zerga edota soldadu-kontuetan besteek beste —edo gehiago— betebehar baitzituztelako[77]. Egoera hori ez zen Eibarko bitxitasuna, foru-herrialde guztietan bizi zen errealitatea baizik, Europa guztian ez esateagatik. Ikusiko dugun moduan obligazioen eta eskubideen arteko desoreka horrek istilu larriak eragin zituen XVIII. mendearen azken herenean.

LABURPEN GISA

Lehen kapitulu honetan asko luzatu naiz beharbada. Edozein modutara, gertakizunen ildoari kolpe egin baino lehen, beharrezkoa ikusi dut gertakizunok kokatzen eta baldintzatzen duten testuinguruaren zirriborro bat egitea. Asfaltokume garenoi nahiko kostatzen zaigu basaz eta hondakinez betetako kaleak irudikatzea; gizakiaren berdintasunean hezita, zaila egiten zaigu odol-garbitasunean oinarritutako gizarte-sailkapena ulertzea; eta konstituzionalismo zentralistaren magalean hazita, ez dugu usaindu ere egiten Gaztelako erregeen eta foru-herrialdeen arteko itunaren zentzua…

Pinuaren berde ilunera ohituegi dauzkagu begiak, sasoi batean pago, haritz eta gaztainondoen orlegi distiratsuak nagusitzen zirela sinesteko; bizkorregi nekatzen zaizkigu zangoak, sasoi batean herritar xeheek oinez bidaiatzen zutela pentsatzeko… Neroni ere, zaila egiten zait irakurri ditudan dokumenturik gehienak lumaz idatzi zirela sinestea; eta orrialdeak pasatu ahala tinta nola argitzen den ikusita ere, urteak behar izan ditut konturatzeko tinta urarekin nahastea eskribauek dirua aurrezteko erabiltzen zuten trikimailurik arruntena zela. Gaurkotasunean harrapatuta bizi gara eta, normala den moduan, gaurkotasunaren betaurrekoek aurreiritziz estaltzen dute gure begirada, baita historialariena ere[78].

Gertakizunen zurrunbiloan murgilduta, historiaren protagonistek ez daukate, ezin dute eduki, fidagarritasunez beraien denboraren ezaugarri nagusiak atzemateko aukerarik. Zentzu horretan, Berlingo Harresia erori aurreko hamarkadan, zenbait estaturen zerbitzu sekretuek agian bai, baina historialari gutxi ausartuko zatekeen Sobietar Batasunaren desagerpena iragartzera. Gaur egun, ordea, besterik gabe

77. Eskubide politikorik gabeko biztanle multzo honen kopurua zehaztea oso zaila bada ere, esku artean ditudan datuekin hipotesi bat egitera ausartu naiz. Auzokideek osatuta aurkitu dudan zerrendarik luzeena 1766koa da, eta 159 lagun agertzen dira; eta 1785eko txostenak dioenez 335 familia zeuden Eibarren. Datu hauen arabera familia erdiek baino gehiagok (% 52,5) ez zeukaten udal-gobernuan parte hartzeko aukerarik. Horrez gain, familia baten barruan pertsona bakar batek (familia-buruak) zeukan bozkatzeko eskubidea.

78. Foucaultek zorroztasunez salatu zituen gaurkotasunaren ikuspegiak ezkutatzen dituen arriskuak: «Historiadores con la ingenua creencia de que justamente su tiempo posee la razón en todas las opiniones corrientes, y que escribir conforme a dicho tiempo significa lo mismo que ser justo», Foucault, 1978, 88.

onartzen dugun fenomenoa da hau: ekoizpen-sistemaren zaharkitzea zela, burokraziaren ustelkeria zela, kontsumo-gizartearekiko grina… Horiek guztiak eta gehiago, sistema komunistaren iragarritako suntsipenaren arrazoi gisa aurkezten zaizkigu![79].

Horregatik da hain garrantzitsua ikuspegia iragana aztertzeko orduan. Ikuspegi kronologikoari buruz ari naiz, noski. Gaztelaniaz esaten den bezala, «*Después de visto, todo el mundo listo*». Baina betiere, ikuspegi subjektiboa dela kontuan hartuta, geure bizimoduen, geure balioen arabera sortutako ikuspuntua. Subjektibotasun hori existitzen dela onartuta, gainditzen saiatzean datza historialariaren erronka nagusia.

79. «Qué es la historia sino la forma en la que el espíritu del hombre se mide con los acontecimientos que le son incomprensibles, une elementos que sólo Dios sabe si guardan relación entre sí, sustituye lo incomprensible por algo comprensible (…) y finalmente supone la mano del azar donde seguramente actuaron miles de pequeñas causas? Todo hombre tiene su necesidad particular, de modo que millones de direcciones corren paralelamente, se entrecruzan en líneas rectas y curvas, se desafían, se frenan…», Foucault, 1978, 89.

1. ERANSKINA

1755-1766 agintaldietan aritu ziren udalkideen taula

NORTASUNA	1755	1756	1757	1758	1759	1760	1761	1762	1763	1764	1765	1766	1766=>
ABANZABALEGUI Pedro			A1										Bai
ACHA AZPIRI Juan						A1							
ACHA ORBEA Andrés				A2		ER							Bai
AGUIRRE Andrés												ER	Bai
AGUIRRE Juan Joseph		SPG											Bai
ARETA Francisco									A1				Bai
ARETA ZUBIAURRE Domingo								ER					Bai
ARGUIANO Lorenzo Ignacio											ER		Bai
ARITIO Andrés				ER									Bai
ARIZMENDI Agustin		ER										ER	
BERGARA ASUA Bartolomé		ER											
BURGOA Francisco Ignacio											A1		Bai
BUSTINDUI Agustín			ER										
BUSTINDUI Francisco Antonio					SPG					ER			Bai
EGUIGUREN Sevastian												SPG	
ERVITI Joseph				ER									
ESPILLA Andrés					ER			SPG	SPG				Bai
GUISASOLA ESCAREGUI Diego											ER		
GUISASOLA GARAGARZA Martín	SPG												
GUISASOLA Joseph Joaquín						SPG							Bai
IR(A)EGUI Francisco	ER									ER			Bai
LASCURAIN Juan Andrés									ER				Bai
LECETA Andrés						ER							Bai
LOIOLA Domingo					ER								
LOIOLA Juan									ER				
MALLEA ALDAZABAL Joaquín					A2								
MENDIZABAL Juan Bauptista		A1											
OLAVE Francisco	ER												
OLAVE Pedro		A2		A1									
PAGAEGUI Christobal												SPG	Bai
PAGAEGUI Pedro			ER										
SARASQUETA Andrés	A1							ER					Bai
SOROETA Juan Antonio					A1			A1					
SUINAGA ITURRAO Lucas										A1			
UNZETA BARRENECHEA Pedro				SPG									
URQUIOLA Joseph				ER									
VERGARA Felipe										SPG			
VERGARA GALLAIZTEGUI Andrés			SPG										Bai
ZUMARAN Sebastian												A1	Bai

“1755”etik “1766”ra doazen eremuak, udal-agintaldiei dagozkie. Eremu horietan agertzen diren laburdurak ezagutzen ditugu. “1766 =>” eremuari dagokionez, esan nahi du 1766tik aurrera udal-karguak betetzen jarraitu zuela.

2. ERANSKINA

Datu-baseko pertsonaietatik, 1786ko zerrendan agertzen direnak

NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786	NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786
ABANZABALEGUI Francisco	A2 1802	1 X	AZPIRI AGUINAGA Pedro		1 X
ABANZABALEGUI Pedro	A1 1757	1 X	AZPIRI Andrés		1 X
ACHA ALBIZURI Antonio		1 X	AZPIRI Domingo "menor, el de		1 X
ACHA ALBIZURI Domingo		1 X	AZPIRI MANDIOLA? Domingo		1 X
ACHA ALBIZURI Joseph		1 X	AZPIRI Miguel		1 X
ACHA Fernando		1 X	AZPIRI Pedro Antonio		1 X
ACHA Francisco Antonio		1 X	BARRUNDIA Andrés		1 X
ACHA GOROSTIETA Andrés	SPG 1771	1 X	EGUIGUREN ELZCUAGA Pedro		1 X
ACHA GOROSTIETA Joseph		1 X	EGUIGUREN Sevastian	SPG 1766	1 X
ACHA IRIONDO Andrés		1 X	GUISASOLA AMURUTEGUI Juan		1 X
ACHA José Andrés		1 X	GUISASOLA Antonio		1 X
ACHA Manuel		1 X	GUISASOLA Domingo		1 X
ACHA Miguel		1 X	GUISASOLA EGUIGUREN Antonio	HS 1786	1 X
ACHA ORBEA Andrés	A2 1758	1 X	GUISASOLA ESCAREGUI Diego	ER 1765	1 X
ACHA ORBEA Sevastián		1 X	GUISASOLA ESCAREGUI	TER 1829	1 X
AGUIRRE Andrés	ER 1766	1 X	GUISASOLA ESCAREGUI Martín	SPG 1775	1 X
AGUIRRE AZALDEGUI Domingo		1 X	GUISASOLA ESCAREGUI		1 X
AGUIRRE AZALDEGUI Juan	ER 1785	1 X	GUISASOLA Francisco Antonio		1 X
AGUIRRE Domingo		1 X	GUISASOLA Gabriel	SPG 1776	1 X
AGUIRRE Domingo		1 X	GUISASOLA GARAGARZA Martín	SPG 1755	1 X
AGUIRRE Francisco		1 X	GUISASOLA GARAGARZA Miguel		1 X
AGUIRRE Joseph		1 X	GUISASOLA Joseph Joaquín	SPG 1760	1 X
AGUIRRE Juan Joseph	SPG 1756	1 X	GUISASOLA Juan		1 X
AGUIRRE Nicolás		1 X	GUISASOLA Lucas		1 X
AGUIRRE Pedro		1 X	GUISASOLA Manuel		1 X
ARETA Domingo "menor"	ER 1773	1 X	GUISASOLA Martín	TER 1831	1 X
ARETA Francisco	A1 1763	1 X	GUISASOLA OREGUI Domingo	SPG 1815	1 X
ARETA Juan Andrés		1 X	GUISASOLA Pedro		1 X
ARETA MANDIOLA Andrés	A1 1797	1 X	IBARRA Francisco		1 X
ARGUIANO AZPIRI Gregorio	HS 1796	1 X	IBARRA Martín Antonio	ER 1772	1 X
ARGUIANO AZPIRI Joseph	ER 1772	1 X	IBARRA Miguel Antonio	SPG 1788	1 X
ARGUIANO GARAGARZA Joseph	HS 1779	1 X	IÑARRA IRAEGUI Joaquin	ER 1792	1 X
ARGUIANO Lorenzo Ignacio	ER 1765	1 X	LECETA Agustín		1 X
ARISMENDI ARRIETA Andrés		1 X	LECETA Andrés	ER 1760	1 X
ARISMENDI ARRIETA Domingo		1 X	LECETA Joseph Francisco		1 X
ARISMENDI ARRIETA Domingo		1 X	LECETA Juan	A2 1789	1 X
ARISMENDI ARRIETA José		1 X	LOIOLA Domingo	ER 1759	1 X
ARIZMENDI Agustin	ER 1756	1 X	LOYOLA Agustin	ER 1797	1 X
ARIZMENDI ARRIETA Domingo "el		1 X	LOYOLA Domingo		1 X
ARIZMENDI ARRIETA Felix		1 X	LOYOLA Gabriel		1 X
ARIZMENDI ARRIETA Joseph		1 X	LOYOLA Juan Bautista		1 X
ARIZMENDI Francisco Antonio	A1 1773	1 X	MANDIOLA Domingo	ER 1780	1 X
ARIZMENDI Manuel Joachin		1 X	MANDIOLA Ignacio		1 X
AZPIRI AGUINAGA Miguel		1 X	ORBEA Francisco		1 X

NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786	NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786
ORVEA Pedro	HS 1800	1 X	ECHEVERRIA Andrés		2 X
PAGAEGUI Christobal	SPG 1765	1 X	ECHEVERRIA Francisco		2 X
PAGOAGA Domingo	SPG 1773	1 X	ECHEVERRIA Francisco	THS 1831	2 X
PAGOAGA Pedro		1 X	ECHEVERRIA José		2 X
SUINAGA ITURRAO Diego	ER 1794	1 X	ECHEVERRIA José		2 X
SUINAGA ITURRAO Lucas	A1 1764	1 X	ECHEVERRIA Manuel		2 X
SUINAGA José		1 X	ECHEVERRIA Pedro		2 X
SUINAGA Juan		1 X	ECHEVERRIA Pedro		2 X
UNCETA BARRENECHEA		1 X	ECHEVERRIA Ventura		2 X
UNCETA BARRENECHEA Martín		1 X	EGOCHEAGA Manuel	HD 1791	2 X
UNCETA BARRENECHEA Martin	ER 1773	1 X	GALLAIZTEGUI Francisco		2 X
UNCETA BARRENECHEA Rafael	HS 1775	1 X	GALLAIZTEGUI Gabriel		2 X
UNZETA BARRENECHEA		1 X	GALLAZTEGUI Agustín		2 X
UNZETA BARRENECHEA	HD 1771	1 X	GANCHEGUI Antonio	ER 1787	2 X
UNZETA BARRENECHEA Pedro	SPG 1758	1 X	IBARZABAL Fernando		2 X
UNZETA BARRENECHEA Rafael	TER 1830	1 X	IBARZABAL Martín		2 X
ZUMARAN Andres		1 X	IBARZAVAL Ignacio María	ER 1777	2 X
ZUMARAN José		1 X	IRIONDO Francisco "el de Arrate".		2 X
ZUMARAN Sebastián		1 X	IRIONDO Gregorio		2 X
ZUMARAN Sebastian	A1 1766	1 X	IRIONDO Pedro		2 X
AGUIRRE ARGUIANO Gregorio	ER 1800	2 X	IRIONDO ZEZEIL Diego		2 X
AGUIRRE ARGUIANO Martín	TER 1828	2 X	LARRAÑAGA Diego		2 X
AGUIRREBEÑA Domingo		2 X	LARRAÑAGA José		2 X
ALBERDI Francisco Ignacio	HD 1797	2 X	LARRAÑAGA Juan Antonio	HD 1776	2 X
ALBERDI Matheo		2 X	LASCURAIN Juan Andrés	ER 1763	2 X
ALBERDI Pedro Andrés	HD 1805	2 X	LASCURAIN Juan Andrés "menor"	ER 1784	2 X
ALBERDI Pedro Antonio	HS 1802	2 X	MENDIZABAL Juan Andrés	HD 1783	2 X
ALDAZABAL Andrés		2 X	MENDIZABAL Juan Baupttista	A1 1756	2 X
ARAMBURU Felix	ER 1781	2 X	MUGUERZA Felix	ER 1783	2 X
ARAMBURU Marcos	SPG 1804	2 X	MUGUERZA Pedro	HS 1771	2 X
ARANA Andrés		2 X	OLAÑETA Joseph		2 X
ARANA Francisco		2 X	OLAÑETA Pedro		2 X
ARANA Joaquín		2 X	SARASQUETA Andrés	A1 1755	2 X
ARANA Pedro		2 X	SARASQUETA Francisco		2 X
ARIZAGA Francisco "el de Urquizu"		2 X	SARASQUETA Francisco		2 X
ARRAZAIN Francisco Antonio	HD 1775	2 X	SARASQUETA Francisco Antonio	HD 1781	2 X
BARRUTIA Andrés		2 X	SARASQUETA Joaquín	A2 1779	2 X
BARRUTIA Diego		2 X	SARASQUETA Joseph	SPG 1793	2 X
BARRUTIA Domingo		2 X	SARASQUETA Juan		2 X
BARRUTIA Joaquín		2 X	SARASQUETA Lorenzo		2 X
BARRUTIA Sevastián		2 X	SARASQUETA Pedro		2 X
DOISTUA Antonio	HS 1784	2 X	TELLERIA Andrés		2 X
ECENARRO Pedro Antonio	HD 1773	2 X	UBERA Domingo		2 X
ECHEVERRIA Andrés		2 X	UNAMUNO Agustín		2 X

NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786
UNAMUNO ARIZAGA Domingo		2 X
UNAMUNO Francisco		2 X
URQUIOLA Juan Bautista		2 X
ZELAA Francisco Ignacio		2 X
ZELAA Juan Ignacio		2 X
ZELAA Mateo	HD 1804	2 X
ZULOAGA Marcos	SPG 1772	2 X
ZULOAGA Simón		2 X
ZULOETA Ignacio	HS 1769	2 X
ZULUETA Pedro	HD 1772	2 X
ARIZAGA Domingo		3a X
AZCUE Francisco Antonio	HS 1781	3a X
BENGOA Joaquín	HS 1804	3a X
BERRAONDO Joseph Antonio	HD 1768	3a X
BERRAONDO Joseph Manuel	HS 1792	3a X
IRARRAGA Francisco "el de		3a X
ALDASORO Ignacio		3b X
EGUREN Pedro		3b X
GALPARSORO Esteban		3b X
MUGUERZA Jose		3b X
MUGUERZA Manuel Andrés		3b X
MURUA Andrés	HS 1774	3b X
APELLANIZ Diego "el de Isasi"		4 X
ARISPE Adrián		4 X
ARITIO Juan Bauptista	ER 1779	4 X
ARITIO Manuel Joaquin	SPG 1784	4 X
ARREGUI Pedro Ignacio	HD 1794	4 X
ARRIAGA Francisco		4 X
ARTAECHEVERRIA Francisco	HD 1786	4 X
BASCARAN Agustín	SPG 1791	4 X
BASCARAN Antonio		4 X
BASCARAN Domingo		4 X
BASCARAN Fernando		4 X
BASCARAN Isidro	HS 1799	4 X
BASCARAN Juan Bautista	ER 1794	4 X
BERGARA Alberto		4 X
BERGARA Andrés		4 X
BERGARA ASUA Bartolomé	ER 1756	4 X
BERGARA BIZCARTEGUI Ignacio		4 X
BERGARA Blas		4 X
BETOLAZA Francisco	A1 1821	4 X
BURGOA Francisco Ignacio	A1 1765	4 X
BUSTINDUI Francisco Antonio	SPG 1759	4 X
BUSTINDUI Juan Esteban	HD 1784	4 X
BUSTINDUI RUIZ Agustín	ER 1757	4 X
BUSTINDUI RUIZ? Domingo		4 X
ERBITI Sebastián	ER 1790	4 X
GABIOLA Juan Andrés	HS 1783	4 X
GARRO Andrés		4 X
MENDECUTE Joseph	ER 1778	4 X
OLABE Juan		4 X
OLAVE Andrés	ER 1771	4 X
OLAVE Domingo	A2 1777	4 X
OLAVE Fernando	SPG 1779	4 X
OLAVE Pedro	A2 1756	4 X
UBERUAGA Andrés	SPG 1785	4 X
UGALDE Ascensio		4 X
URTEAGA Francisco	HD 1770	4 X
VERGARA Felipe	SPG 1764	4 X
VERGARA Francisco		4 X
VERGARA Ignacio		4 X
VERGARA Joseph	SPG 1787	4 X
ZUMARAN UBERUAGA Andrés	SPG 1785	4 X
RUIZ Joseph	HS 1789	5b X
LIBORNA Manuel Joaquín	HS 1803	5a X
ALBIZU Gabriel	HS 1835-1	5b X
ITURRIOZ Agustín	HS 1791	5b X
MAIZTEGUI José		5b X
URBINA Manuel		5b X
USATORRE Andrés		5b X

"Kapare 1786" eremuan erabilitako laburduren esanahia argitzeko, dokumentuak eskaintzen dituen azalpenak jaso ditut, beren-beregi.

1: «Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honorificos de ella, los que entre ellos poseen millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa sin que tengan formalizadas sus Ydalguias».

2: «Originarios de esta Provincia de Guipuzcoa y descendientes de sus casas y solares que se hallan en posesion de sus Ydalguias, admitidos a la vecindad y oficios honorificos».
3: «Los que se hallan conceptuados por originarios de esta misma Provincia de Guipuzcoa, pero no tienen hechas sus Ydalguias ni se hallan recibidos por vecinos, con distincion de los que de ellos se consideran con medios para costear su formal prueba (3a) y de los que al parecer carecen de medios para ello (3b)».
4: «Advenedizos Nacionales que se hallan en posesion de su Nobleza e Ydalguia admitidos a la vecindad y al goze de los empleos y cargos honorificos, los que entre ellos poseen millares».
5: «Advenedizos Nacionales que no tienen acreditada su nobleza; con distincion tambien de los que entre ellos se consideran con medios para su formal prueba (5a), y de los que al parecer carecen de dichos medios (5b)».
6: «Advenedizos extranjeros con igual distincion de los que entre ellos se hallan en posesion de su nobleza (6a) y de los que se consideran sin medios para poderla justificar (6b)».

3. ERANSKINA

1740-1779 bitarteko kanpaina militarretan parte hartutakoak

NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.	NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.
ACHA ALBIZURI Domingo		Sold-D	ACHA Alfonso	Alf. 1742	
ACHA GOROSTIETA Joseph		Sold-D	AGUIRRE ARGUIANO Gregorio		Sold-Z
AGUIRRE AZALDEGUI Domingo		Sold-Z	AGUIRRE Francisco Ignacio		Sold-D
AGUIRREBEÑA Domingo		Sarj-2	ALBERDI Francisco, "el de Gorosta"		Sold-O
APELLANIZ Diego "el de Isasi"		Sold-Z	ARETA Francisco	Tte. 1762	
ARETA Juan Andrés		Sold-D	ARETA MANDIOLA Andrés		Sold-D
ARETA ZUBIAURRE Domingo	Sarj. 1762		ARITIO Juan Bauptista		Sarj-1
ARIZAGA Francisco "el de Urquizu"		Sold-Z	ARIZMENDI Agustin	Tte. 1740 Kap. 1747	
ARIZMENDI ARRIETA Domingo "el de Aiaga"		Sold-O	ARIZMENDI ARRIETA Ramón		Sold-D
AZPIRI AGUINAGA Pedro		Sold-D	AZPIRI AZALDEGUI Domingo		Sold-Z
AZPIRI AZALDEGUI Joseph		Sold-D	AZPIRI Domingo "menor, el de Elzarraga"		Sold-O
BARINAGA Pedro Antonio		Sold-Z	BARRUNDIA Francisco Ignacio	Dan.1740	
BERGARA ASUA Andrés		Sold-D	BERGARA BIZCARTEGUI Ignacio		Sold-Z
BERGARA Joseph "el de Zelaia"		Sold-Z	BUSTINDUI RUIZ Agustín	Sarj. 1747	
CUTUNEGUIETA Matias "el de Cutuneguieta".		Sold-O	ECHABARRIA Joseph		Kap.
ECHAVARRIA Andrés		Sold-Z	ECHAVARRIA Martin Antonio		Sold-Z
EGUIGUREN EIZCUAGA Pedro		Sold-Z	ERMITI Joseph	Alf. 1740 Sarj. 1747	
ESPILLA Andrés	Alf. 1762		GALLAIZTEGUI Gabriel		Sold-Z
GANCHEGUI Pedro Antonio		Sold-Z	GUISASOLA ESCAREGUI Francisco "el de Escaregui".		Sold-O
GUISASOLA Felipe		Sold-D	GUISASOLA Francisco Antonio		Sold-D
GUISASOLA Francisco "el de Elorreta"		Sold-Z	GUISASOLA GARAGARZA Miguel		Sold-D
GUISASOLA Lucas		Sold-D	GUISASOLA Pedro "el de Zozola"		Sold-Z
IBARRA Domingo		Sold-D	IRAEGUI Pedro		Sold-D
IRARRAGA Francisco "el de urquruegui"		Sold-Z	IRIONDO Francisco "el de Arrate".		Sold-O
IRIONDO ZEZEIL Diego	Kap. 1740		LASCURAIN Juan Andrés	Kap. 1762	
LASCURAIN Juan Andrés "menor"		Sarj-2	LASCURAIN Pedro	Sarj. 1740 Tte. 1747	
LECETA Andrés	Tte. 1742		LECETA Joseph Francisco		Sold-D
LETURIONDO Joseph		Sold-Z	LOYOLA Agustin		Sold-D
LOYOLA Domingo	Sarj. 1742		MENDECUTE Andrés		Sold-D
MENDIZABAL Francisco		Sold-D	MENDIZABAL Hilario	Kap. 1742	

NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.	NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.
MONASTERIOBIDE Francisco "el de Caminocoa"		Sold-O	OLAVE Fernando		Alf.
SARASQUETA Andrés	Sarj. 1762		SARASQUETA Andrés "el de Azpiri"		Sold-O
SARASQUETA Joaquin		Tte.	SARASQUETA Joseph "el de Isasi"		Sold-Z
SARASQUETA Pedro "el de Iregui"		Sold-Z	SUSTAETA Juan	Alf. 1747	
UBERA Domingo		Sold-D	UBEROAGA Martin "el de Mandiola"		Sold-Z
UBEROAGA ZUMARAN Joseph		Sold-D	UNAMUNO Miguel		Sold-D
UNZETA Rafael	Sarj. 1740		URTEAGA Francisco		Sarj-2
ZELAA Joseph		Sold-D	ZUMARAN José	Sarj. 1742	

"1740-1762 K.B." eremuan erabilitako laburduren esanahia honako hau da: Kap. = Kapitaina; Tte. = Tenientea; Sarj.= Sarjentua; Alf. = Alfereza.
"1779-10 Guardak." eremuko laburduren esanahia aurrekoen berdina da, berriak diren beste hiru hauekin: Sold-D = Soldadua derrigorrez; Sold-Z = Soldadua zozketaz; Sold-O = Ordezko soldadua.

2. kapitulua
1766ko matxinada Eibarren

SARRERA

1766ko matxinada ezin da ulertu —foru-herrialdeetan behintzat— arrazoi ekonomikoak kontuan hartu gabe. Madrilen, mutinaren txinparta Esquilachek —"*motin de Esquilache*" legez ezagutzen dena— emandako kapa luzeak erabiltzeko debekua izan bazen ere, Azkoitiako zapatari eta errementariek askoz aldarrikapen hurbilagoak zituzten herrialde osoan zabaldu zen herri-erreboltari hasiera eman ziotenean. Egun bereko gauean, Donostiako hainbat txokotan eta enparantzetan itsatsita agertu zen idatzi anonimoaren hasierak argi eta garbi adierazten zuen Gipuzkoako eta Madrileko matxinaden arteko ezberdintasuna:

> O señores hermanos de mi alma, con desterrar a Esquilache no se acavan todos los males, solo aquí en San Sebastian se permiten varios Esquilaches y si a estos no se remedian ya, se condenarán ellos y viviremos nosotros mortificados: Pues que maiores enemigos o Demonios que los mismos Capitulares de esta Ciudad que *en lugar de prober en cinco cuartos el pan nos proben en diez* y esto se remedia con traer muchos polvos en las pelucas y galones, y con acudir a la tertulia de Jacinta. O pobreza de Espania, adonde se an arrastrado tus intereses y onores… (Otazu y Llana, 1982: 266, 267).

FUNTSEZKO ELIKAGAIAK ETA BIZIRAUPEN-KRISIALDIAK

Aduana-politika Lege Zaharrean

Jakina da aduanak Ebro ibaiaren lerroan zeudela harik eta 1841eko urriaren 20ko dekretuaren 9. artikuluaren bidez Esparterok gaur egun dauden lekuan ezarri zituen arte. Aurretik, foru-herrialdeek librekanbioko gune bat bezala funtzionatu zuten, eta atzerritik ailegatzen ziren gaiek ez zuten inolako zergarik ordaindu behar. Muga-zergarik ezaren ondorioz, garia, ehunak, tabakoa eta hainbat produktu askoz merkeagoak ziren lurralde hauetan, atzerriko gaiak Ebro ibaian zamatzen zituztelako, hainbeste non lurralde hauetan tabakoa Gaztelan baino hamar aldiz merkeagoa zen. Zergen gehiegikeriak berak areagotzen zuen, nolabait, kontrabando-jarduera, eta aduanak lekuz aldatzearen aldekoek estraperloaren kontua izan zuten arrazoirik edo aitzakiarik erabilienetariko bat. Aduanak Ebron egotea kontsumitzaileentzat onuragarria bazen ere, industria-jarduerarentzat kaltegarria omen zen, zeren foru-

lurraldeetan ekoitziriko produktuak atzerritartzat hartzen baitziren Ebrotik hegoaldera[80].

Foru-erregimenak sustatutako aduana-politikaren arabera, funtsezko elikagaiak kanporatzea debekatuta zegoen. Beraz, gaiak sartzeko orduan politika librekanbista bultzatzen zuen, baina gaiak ateratzeko orduan, ikuspegia protekzionista zen. Aletan defizitarioa zen lurraldearentzat ezinbestekoa zen inportatzeko erraztasuna edukitzea, eta hortik aduanak Ebron egotearen garrantzia; baina sistema horren bigarren zutabea, bertan ekoitzitako alea bertan kontsumitzea zen. Nekazari-gizarteetan *biziraupen-krisialdiak* sarri gertatzen ziren: uzta txarren ondorioz, aleen prezioak gora egiten zuen, eta gosearekin batera, giza esparru ahulenen haserrea —nekazariak eta artisauak— eta protestak pizten ziren, aleak pilatzen zituztenen aurka[81]. Ez zen hiriaren eta landaren arteko lehia bat, gari-*kontsumitzaile*en eta gari-*ekoizle* edota *pilatzaile*en artekoa baizik. Zeren nekazariak izan arren, 1787. urtean Gipuzkoako edozein baserritan ekoizten zen ia ale guztia jabeari errenta ordaintzeko erabiltzen zen, eta baserrian bertan taloa ogi zuria baino maizago jaten zen, jauntxoek, merkatariek eta klerikoek beren bihitegiak alez gainezka zituzten bitartean. Espekulazioari mugak ezartzeko, aleak kanporatzea espresuki debekatzen zuten foruek, herrialde guztietakoek gainera. Debekuak debeku, pilatzaileek negozio biribila aurreikusten zuten biziraupen-krisialdietan, eta abagune horietan bihien kanporaketak gelditu beharrean, areagotu egiten ziren. Eibarren, matxinadaren eztanda baino ia hamar urte lehenago —1757an— gogor salatu zen aleen inguruan sortzen ari zen espekulazioa[82]. Aleez gain sagardoa, txakolina, behikiak edo funtsezkoa jo-

80. «Ya se comprende que, desde el punto de vista del consumidor, la franquicia –que alcanzó casi siempre al tabaco, al café y a los artículos coloniales— era una ganga. Pero, en cambio, desde el punto de vista productor era desastrosa. No se podían establecer nuevas industrias porque la competencia extranjera, con fronteras abiertas, las mataba en flor. Las industrias ya existentes, como las famosas ferrerías del país, morían. En primer lugar, porque ya no exportaban apenas. No exportaban porque en los otros países se estaba ya produciendo más barato, y porque la sublevación de las colonias americanas les había privado de su principal mercado. Tampoco podían vender en el resto de España porque casi siempre, al salir los productos de Guipúzcoa e introducirse en otras regiones, les cobraban los derechos de aduana en éstas, lo cual les hacía no poder competir con las ferrerías del interior» (Mugica, 1950: 74).

81. «Lo que ocurría, además, es que estas prácticas especulativas provocaban periodos de escasez, y los periodos de escasez, el hambre; y el hambre encendía los ánimos de los consumidores (campesinos y gentes de oficio) y la revuelta quedaba planteada en cosa de pocas horas. Sobre todo, porque los acaparadores de grano, diezmeros (terratenientes y aristócratas) y comerciantes, no se contentaban con guardar el trigo en sus graneros, esperando la coyuntura favorable para ellos; sino que procuraban que esa coyuntura se presentara, a base de extraer fuera el poco trigo que el País producía» (Otazu y Llana, 1982, 19).

82. Auzokideen batzarrean Andres Eizaga Etxebarriak Bizkaian artoa erosi eta Donostiarantz bideratzen zuela salatu zen, Galiziara eramateko. «Que de esto en quanto havia empezado a la compra y rebenta de dichos maizes conducion y extraczion havia resultado el encarezerse con mas de quatro reales en cada fanega y de permitirle en adelante maior y maior seria el perxuicio que se le causaria a esta villa y a otras republicas y que con el valor de dichos maizes havia empezado el dicho

tzen zen beste edozein elikagai kanporatzea debekatuta zegoen: Bermeon eta Ondarroan, adibidez, udalerritik bertatik gaztainak kanporatzea debekatuta egon zen[83].

Behikien kanporaketen aurkako ordenantza (1755)

Foru-legedia argi eta garbi mintzatzen zen biziraupeneko elikagaiak kanporatzearen aurka, eta horren adibiderik garbiena dugu 1755. urtean Gipuzkoako Diputazioak Debagoieneko abeltzainen aurka hasitako auzia, dirudienez Arabara eraman eta han saltzen zituztelako Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako udalerrietan hazitako ganaduak. Urtebete lehenago Hernanin buruturiko Batzar Orokorrek agindu zehatzak eman zituzten «… para la prohivición general de extracción de Ganado vacuno, por su falta, como es público, y lo persuade lo caro de las carnes, que ha llegado con perjuicio del público, a el más subido precio que jamás se ha experimentado» (Otazu y Llana, 1982: 260).

Lehen begiratuan, behikiekin espekulatzen ari ziren jauntxoen aurkako ezinbesteko neurria zen, aleen kanporatzaileen aurka hartzen zirenen parekoa; eta hori izan zen Otazu y Llanak gertakizunoi eman zien interpretazioa *El mito del igualitarismo vasco* ikerlan ezagunean. Ziur aski, beste iritzi batekoa izango zen, Debagoienean atxiloturiko abeltzainen abokatuaren testigantza hau ezagutu izan balu: «Y es así que sin animo de contravenir la ordenes de Vmd. y sólo por haber visto a unos vecinos de la villa de Azcoitia y Vergara que pasavan mucha porción de bueyes cebones a dicha ciudad de Vitoria, hicieron juicio de que no había embarazo en pasar y extraer dichos cebones. Y respecto de que mis partes hicieron sus diligencias en dichas villas de Mondragón y Escoriaza con los proveedores de ellas, se escusaron estos diciendo que ya tenían hecha provisión de cebón…»[84]. Beraz, Debagoieneko abeltzainek, Araba aldera eraman baino lehen, eskualdeko azoketan eskaintzen zituzten beren ganaduak, eta hori ezberdintasun garrantzitsu bat da aleak ezkutuan kanporatzen zituztenekin konparatzen badugu.

Echevarria a traer y conduzir sidras desde la villa de Renteria a esta de Eibar y bender en ellas por maior y menor lo qual era en Beneficio del comun de esta referida villa por la suma carestia y mala calidad de vinos que este presente año se experimentaba pero que era en total perjuicio de los Arrendadores de Sisas y impuestos». Eta Areizagaren jokabidea aztertzea erabaki zuten, bi arlo hauek ikertuz. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768*), 1757-7-31

83. Rubio Perez, 1986: 47. Eibarren bertan, Miguel Mallea Aldazabalek, San Andreseko parrokiako benefiziatuak, hauxe zioen gaztaina-bilketaren erematetzaileei buruz: «… omision al diezmar, que hasta aora ha havido en los rematanttes, compradores, usufructuarios de los castañales conzejiles sin que se haia podido saver la causa de ella, quando esta es una de las espezies que segun costumbre deve, y esta pagando su respecttibo Diezmo», biziraupen-krisialdien ondorioz ordura arte ustiatu gabeko baliabideen gainean ezarritako presioaren seinale. Udalak, ohiturari muzin eginez, gaztaina-biltzaileek ere hamarrena ordaindu behar zutela erabaki zuen. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768*), 1756-8-29.

84. Iñurrategui, 1997: 32.

Baina, badago beste ezberdintasunik behikien eta aleen kanporatzaileen artean. Zeren abeltzainek «… no tenían con que mantener sus cebones a causa de haber habido escasez de nabo y grano, y que de tenerles en casa tendrían mucho perjuicio… Y respecto de que dichas mis partes no son revendedores ni han sido jamas, sino unos pobres labradores e inquilinos que para pagar las rentas a sus amos suelen en el modo posible, y a costa de mucho travajo, engordar en algunos años, algunas juntas de Bueies, se ben precisados, no teniendo quien las compre, a ser molestados por sus amos y demas acreedores por justicia…». Abeltzainen helburua ez zen inoren izerditik aberastea, beraien zorrei eta errentei aurre egitea baizik; eta ez ziren Gipuzkoako oligarkiako partaideak Otazuk suposatu zuen bezalaxe, txirotutako maizterrak baizik. Biak funtsezko elikagaien kanporatzaileak baziren ere, alde handia zegoen ganadua eta aleak kanporatzeko, batzuek eta besteek erabiltzen zuten prozedura (azoka/ezkutuan) eta motibazioetan (bizirautea/aberastea).

Dikotomia paradoxiko horren islarik argiena, 1755eko apirilaren 8ko egunsentian Bergarako Done Petri elizaren atarian agertu zen izenpetu gabeko idatzia dugu. Iñurrategik bildu du bere osotasunean, eta interesgarria iruditu zait zati batzuk transkribatzea:

> Señores Nobles vecinos labradores de Vergara; tenemos noticia entera, que está entre Vmdrs. algunos presos por causa y motivo de que los bueyes han llevado a Vitoria. Y lo mismo estamos nosotros de Mondragón y Arechavaleta y Escoriaza y Salinas (…) Y *los señores mandantes hacen los decretos sin pensar* (…) y *quieren usurpar la sangre de los pobres*. Consideren Vms. la razón y Juntesen todos los vezinos y congregesen todos estar promptos con sus armas, y los que no tienen escopeta sacaran otras armas (…) El ganado que ai en esta nobilísima Provincia de Guipúzcoa no se puede gastar el diezmo y por eso quedan perdidos los pobres labradores. y si no tienen con que valer con que puede pagar las deudas? No consideran eso los caballeros. Y ellos los mismos estarán perdidos *quieren comer la carne varata y las rentas añadidas y el trigo dar caro*. Valer con todas sus cosas caro no se puede, ha menester andar como manda Dios. Y no tenemos que decir más. Y agur. Vergareses ánimo[85].

Abeltzainentzat —eta abeltzainen arrazoibideak barne har zitzaketen giza talde xeheentzat—, foruak liburu batean idatzita zeuden legeen multzo zurruna baino gehiago, testuinguru eta abagunearen arabera irakurtzen jakin behar zen araudi bat zen; eta irakurketa horrek betiere komunitatearen onura bilatu behar zuen. Gipuzkoako jauntxoek foruei euren interesetara moldatutako interpretazio bat ema-

85. Iñurrategui, J. M.: *op. cit.*, 27.-28. or. Letra etzana neuk jarri dut.

86. Iñurrategik maisutasunez azaltzen du 1755eko auziaren esanahia: «El episodio globalmente ilustra como en las coordenadas del proceso de progresiva consolidación de las estructuras provinciales, anclado en la foralidad, particulares piezas legislativas activadas al acuñarse un modelo provincial posían ser impugnadas por determinados sectores del ámbito comunitario cuyas formulaciones arraigan en una economía moral del Fuero, en una interiorización, interpretación y valoración del espíritu de los códigos forales. Nuevas manifestaciones de la pervivencia y vitalidad

ten zietela salatzen zuten bitartean[86], harreman ekonomikoen etika komunitario bat aldarrikatzen zuten, biztanleriaren premia eta ohituretan oinarritutako etika bat, "*Laissez faire, laissez passer*" lemaren jarraitzaileek zerabilten etekinaren logikaren aurrean. Otazuk dioen bezala: «El campesino vasco del siglo XVIII —como sus coetáneos ingleses o castellanos— tiene su propia noción moral de la economía; y en esta economía es muy probable que la noción de consumo prime todavía sobre la de beneficio, que es la que acabará por imponerse. El campesino es por tanto un consumidor con derechos; y estos derechos se basan en criterios de alta moralidad. Por eso se llega a la amenaza con los transgresores, porque la violencia está justificada.: "Si no nos dais lo que en justicia nos pertenece, lo tomaremos con nuestras manos"— vienen a decir» (Otazu y Llana, 1982: 23, 24)[87].

Beraz, XVIII. mendearen bigarren erdialdean baserritarren bizi-baldintzak zeharo kaskartuta egon arren, beraien txirotzearen arrazoiak zeintzuk ziren argi eta garbi zituztela dakusagu, eta burua makurtu beharrean, beraien eskubidetzat zituztenak defendatzeko prest zeudela. Ez hori bakarrik: 1755eko Batzar Orokorrek herrialdetik ganadua ateratzea baimentzea lortu zuten (Otazu y Llana, 1982: 262), Debagoieneko abeltzainek aurkezturiko arrazoiak bidezkoak ziren seinale.

MATXINOEN LEGEA

1718ko matxinada

Argitu dezagun "matxinada" hitzaren jatorria: «Matxino hitzak burdinoletako langilea (olagizona) adierazten zuen eta, dakigunez, garai hartan nekazarien gehiengoak hartzen zuen parte, hola edo hala, burdinaren produkzio prozesuan. Bestaldetik baita, burdinolek beren gainbehera hasita zutenez, matxino delakoen protestak ugaldu egin ziren urte haietan. Hori zela eta, matxinada izena herri xumearen erreboltak adierazteko sortu zen» (Etxeberria *et al.*, 1984: 49)[88].

---

de semejante clave de lectura no tardarán en llegar, especialmente con la machinada de 1766, e incluso con anterioridad a esa fecha. Pero los acontecimientos de 1755 ya rinden buena cuenta de la manera en que una conflictividad interior podía responder fundamentalmente a la propia configuración del entramado comunitario vasco y al tiempo resultar característica de todo un universo de relaciones comunitarias cuyo punto de referencia gira en torno a concepciones e interpretaciones diversas de la foralidad», Iñurrategui, J. M.: *op. cit.*, 50. or.

87. Liburuska hau benetan interesgarria da, ehun eta piku orrialdetan 1766ko matxinadan eta 1793-1795eko Konbentzio Gerran euskal burgesiak jokatu zuen papera ulertzeko klabe nagusiak eskaintzen dituelako.

88. Otazuk ere dio matxinoak burdinoletako langile xumeak zirela: «El nombre de estas revueltas se halla íntimamente ligado al que comúnmente servía para designar a los obreros metalúrgicos en el País ("matxines" por su patrono San Martín)» (Otazu y Llana, 1982: 226). Eta aurrerago beste hau gehitzen du: «Se distinguieron mucho por su carácter revoltoso (su trabajo estaba mal pagado y la industria del hierro en decadencia) y por su número, pues la gente que se hallaba de algún modo vinculada a las ferrerías era por entonces, muy numerosa. La "crisis del hierro —escribe Gurruchaga—

Merezi du Malores Etxebarriak egiten duen analisia hitzez hitz jasotzea: «Mutin hauek ez ziren iraultzaileak izan. Beren helburua ez zen sistemaren aldaketa, lehengo egoera "idealera" bihurtzea baino. Zer jotzen zuten egoera idealtzat? Foruek eskaintzen zieten babesa eta laguntza, hau da, janariak erraz eta merke lortzeko aukera (aduanak barnealdean egotearekin, tasarekin…), erabakietan, neurri batean, parte hartzea (demokrazia zuzenaren bidez). Orain, ordea, merkataritzaren indartzearekin, jangaiak esportagai bilakatuko dira, urrituz eta garestituz. Merkatariek etekin handiak erdietsiko dituzte eta interesatzen zaien neurrian foruen aurka joango dira. Horregatik kontsumitzaileek, (olagizon, erementari, arotz, ikazkin, askotan nekazaritzari lotuak, eta nekazariak), egoera berri honetan gaizkituenak, gogor erasoko diete lege berriei, foruen defentsa aldarrikatuz. Batez ere, beraz, kontsumitzaileen erreboltak dira XVIII. mendeko hauek» (Etxeberria *et al.*, 1984: 42)[89].

Ozta-ozta bizitze hori gehiago nabaritzen zen, Eibarren bezala, nekazaritzan jarduten ez zuten biztanle kopurua handitzen zihoan herrietan. Eibarrek, 1747an, honela zioen: «… se coge un poco de trigo, maiz, castaña y manzana, y no siendo bastante para su consumo, se proveen en mucha parte de trigo de los lugares circunvecinos y de Alava y Castilla, y tambien de maiz de Vizcaya»; defizit horren arrazoi nagusietako bat biztanle gehienak armagintzan aritzea zen «y emplearse tambien en el carboneo de ella y fraguas muchos vecinos, experimentándose en todas las demás cosechas mucha carestía» (Mugica, 1990: 214, 215).

Matxinada izenarekin ezagutzen dugun lehen herri-errebolta 1718koa izan zen. Ondorengotza Gerrak Filipe V.aren buruan jarri zuen espainiar erresumako koroa, eta kataluniarren foruak ezabatu ondoren, bere planteamendu zentralistaren hurrengo urratsa Ebron kokatzen ziren aduanak, kostalde eta mugara iragatea izan zen. Aldaketa horrek atzerritik ekarritako produktuen garestitzea eragiten zuenez[90], istilu

afectaba muy directamente a los labradores, pues la extensión de la tierra laborable de los caseríos era menor que en la actualidad, por la gran superficie de los montes concejiles, y muchos caseros se dedicaban a trabajos supletorios, de bueyerizos en los transportes, al brazaje de las ferrerías en ciertas épocas del año y al carboneo de los montes". En suma, que "machinos" hacía referencia a los labradores en general», 253. or.

89. Aleen prezioaren gorakada matxinoek erabilitako aitzakia hutsa izan zela esan duenik ere badago. Gastaminzak, adibidez, Esquilacheren aurkako erreboltaren testuinguruan kokatzen du Gipuzkoako matxinada, «… donde los operarios, forasteros casi en su totalidad, que a la sazón llevaban a efecto las obras de construcción del monasterio de Loyola y a quienes se unieron algunos turbulentos azcoitianos amigos del barullo y el desorden, pretextando la carestía de víveres, iniciaron el alboroto que tuvo lugar la primera manifestación en la villa de Azpeitia» (Gastaminza, 1913: 173-176).

90. «Con la orden del traslado de las Aduanas del interior hacia la costa, se iban a gravar los artículos de consumo, especialmente aquellos de los que el País carecía habitualmente, como ocurría con los cereales que todos los años se importaban del extranjero (Bayona o Nantes) en mayor o menor cantidad. con las Aduanas en la costa el precio de estos artículos importados se iba a ver aumentado con la aplicación del correspondiente arancel. Y de esto protestaban los campesinos-consumidores que acusaban a los notables del Señorío —al Orden constituido— de no haver sabido oponerse con la energía debida a una medida tan contraria a los intereses del campesinado» (Otazu y Llana, 1982: 236).

latzak sortu ziren foru-herrialdeetan, eta latzenak, Bilbo aldean. Irailaren 4an Begoñako elizaurreko 120 gizon Bilbora jaitsi, eta Erret Aginduari erresistentziarik kontrajarri ez izanagatik foru-agintarien aurkako erasoak hasi zituzten, beraiek jotzen baitzituzten errudun nagusitzat. Korrejidorea haien eskakizunak sinatzera behartu ondoren, Bizkaiko Diputatu Nagusiaren etxera abiatu ziren. Horrek —Enrique Aranak— hari-haritik ihes egitea lortu bazuen ere, biharamunean harrapatu zuten; eta matxinoen eskakizunak biltzen zituen dekretua sinatzera behartu ondoren «… diole uno un golpe que le abrió media cabeza; a éste le siguieron tantos con espadas, chuzos y lanzas que es orror el decirlo; por fin murió a las 11 de la mañana; y quantos aldeanos pasavan a verle todos le metían las espadas» (Otazu y Llana, 1982: 230). Ordurako Bilboko handikien etxeak eta biltegiak sutan zeuden, beraien altxor, bitxi, dokumentu eta salkinekin batera (ikatza, tabakoa, txokolatea…).

Bilboko jauntxoak, merkatariak gehienak, klerikoen eraikinetan babestu ziren. Baina matxinoek komentuak eta elizak miatu zituzten, eta han aurkitutako handi-mandiez gain, berauei babesa eman zien elizgizonen bat edo beste ere hil egin zuten. Matxinoen oldarrak eragin zuen izuaren seinalea izan daiteke, zenbait handiki hilobietan ezkutatu behar izan zirela, eta beraien emazteak moja mozorrotu. Ondoren, aduana-zaindariengana jo zuten. «Antza denez, goarda haiek ziren kontrabandoaren aurkako neurri guztien beterazleak eta balio gutxiko tabako-estraperloa egiten zutenen atzetik ibiltzen zirenak (ezikusia eginez, agian, sail handiagoei). Hala bada, goarda haien ostatua sutan jarri zuten mutinatuek eta aduanen buruetako bat hilaraziz gero "ahoa tabakoz bete zioten eta azkenik gorpua erre". Istiluak hasi zirenetik hirugarren egunerako jada oligarkiak kontrola berreskuratu zuen. Ordurarte korregidoreak eta alkateak lortzerik izan ez zutena, alegia, "Bilboko jendea armatzea" (beren kontua ez zelakoan beharbada), irailaren 6an erdietsi egin zuten eta "Bilbotarrek beren etxe eta biziak defendatzeko armak hartu zituzten" (…) Azaroan 3 mila soldaduko zigor-espedizioa sartu zen jaurerrian, eta errepresioak gogor eraso zituen elizaurreak: 16 gizonezko urkaberara kondenatuak gertatu ziren» (Etxeberria *et al.*, 1984: 57, 58).

Gipuzkoan, istiluak ez ziren Bizkaian bezain larriak izan. Baina bai handiki bat baino gehiago beldurtu, eta ihes egitera behartzeko modukoak: Mutrikun, Peñafloridako kondea izan zen herri xehearen irainak eta mehatxuak jasan zituena; Eskoriatzan, Enrique-Antonio Atarrabe lur-jabe aberatsa ia-ia udaletxeko leihotik bota zuten; eta Rocaverdeko markesak Bergaratik Bizkaira alde egin behar izan zuen, bere etxeari su eman ziotela ikusi eta gero. Bergarako matxinatuak gainera, Soraluzerantz abiatzeko asmotan ibili omen ziren, armak eta bolbora eskuratzeko asmoz. Baina Bizkaikoarekin alderatuta, Gipuzkoako matxinada ez zen hain oldarkorra izan handikien aurka, eta errepresioa bera ere ez zen hain gogorra izan, oligarkiak kontrako eragina eduki zezakeela uste zuelako. Zentzu horretan, diputazioak debekatu egin zien jauntxo kaltetuei pertsona zehatzen aurkako salaketak bideratzea. Hori bai, herri-lurretan kobratu zituzten beraien ondasunetan jasandako kalteak.

1718ko matxinada zanpatua izan bazen ere, aduanak lehengo lekura itzuli ziren 1724an.

1766ko matxinada

1750eko hamarkadan nahiko uzta onak bildu baziren ere, hurrengoan, eta batez ere 1764tik aurrera, uzta txar eta ale-pilatzaileen espekulazioaren ondorioz bihiak etengabe garestitzen hasi ziren. Horrez gain, garaiko politika ekonomikoaren arabera, funtsezko elikagaien prezioa kontrolatzeko ezarrita zegoen gehiengo finkoa ("*tasa*") indargabetuta gelditu zen, 1765eko uztailaren 11ko Erret Pragmatika zela medio, eta garia kanporatzeko baimena eman zen. «Egia esan, aspaldidanik tasa ez zen kontutan hartzen, eta froga hortxe dago, prezioak oso altu zeudela azken urteetan. Baina lege berri honekin egin zutena zera izan zen: praktika hori, egoera hori zilegiztatu» (Etxeberria *et al.*, 1984: 67)[91].

Arto anega 30 errealera igo zen, eta gariarena 40ra «de manera que los pobres Oficiales de todas clases apenas alcanzaban con su trabajo para poder comer un poco de pan o maiz»[92]. Baina hori ez zen okerrena, «sino que yendo a comprar con el dicho precio una fanega de trigo o maíz, los que tenían los granos reservados con deseo de hacer que valiesen más respondían que no los tenían y al mismo tiempo estaban despachando granos para la marítima»[93]. Testuinguru horretan, 1766ko apirilaren 13an, Azkoitiko errementari eta zapatari batzuek lur-jabe handi baten gurdia "*in fraganti*" harrapatu zuten, alez beteta, herritik irtetera zihoala. Berehala gurdia gelditu, alea bahitu eta herriko plazara eraman zuten, biztanleen artean "*bidezko prezioan*" banatzeko, hau da, 16 errealetan arto anega eta 26 errealetan gariarena. Horrez gain, neurri eta pisu berriak apurtu —ekintzak zuen karga sinbolikoarekin— eta aurretik zeudenak ezartzea —handiagoak— eskatu zuten, udalerriko lurrak ongarritzeko behar zen otea ebakitzeko askatasuna, zuhaitz-

91. Iñurrategik hauxe dio 1765eko Erret Pragmatikari buruz: «Poco importaba el que la norma hubiese sido dictada por el Consejo de Castilla o por los órganos provinciales, ni que su carácter fuera librecambista o proteccionista (…). Lo realmente sentido era la introducción de modificaciones que hacían peligrar su cotidiana subsistencia. Esta era, sustantivamente, la fuerza motriz que les llevaba a ensalzar el entramado socio-jurídico que consideraban consagrado en los Fueros como esencial e intangible para su supervivencia. Culpar a los rectores municipales y provinciales de la ruptura de un orden tradicional en el que todos estaban inmersos, bien al excederse en beneficio propio en el cumplimiento de sus funciones, o bien por no haber agotado todas las posibilidades de salvaguarda, no era, en este sentido, sino un jalón más de esa figuración del Fuero como sistema históricamente trascendente en el que el pasado y presente constituían conjuntamente un ordo indisponible e inalterable por actos positivos de voluntad», Iñurrategui, 1997: 17.

92. «Relación de las cosas que pasaron el año de 1766 en el Pleito de Immundad del Atrio de este Real Colegio de Loyola» Jesusen Lagundiak egindako txostena. Pinedok aipatzen du (Fernandez de Pinedo, 1999: 407).

93 Archivo General de Simancas, Gracia y Justicia, lg. 777, "Relación de las cosas que pasaron el año de 1766 en el Pleito de Immundad del Atrio de este Real Colegio de Loyola". Iñurrategui, 1997: 70.

mozketen kontrola areagotzea udalaren aldetik, etab.[94]. Beraz, aleen garestitzearen aurkako protesta hutsean gelditu beharrean, Azkoitiko matxinatuek testuinguru batean kokatzen zuten beren ekintza, foruen ikuspegi herrikoia aldarrikatuz, handikiek ematen zieten interpretazio murriztu eta interesatuaren aurrean.

Elizako kanpaiak joz, udaleko partaideak bildu (gari-pilaketan nahasita zeuden jauntxoak, gehienak) eta beraien eskakizunak —edo kapitulazioak— sinatzera behartu zituzten, mugimenduari zilegitasuna emateko[95]. Ordurako Azpeitiko jauntxoak alboko herrian gertatzen zenaren jakitun ziren, eta Azkoitiko matxinoengandik babesteko beren maizterrak bildu eta armatu egin zituzten, hauei inolako arrazoirik eskaini gabe. Baina berandu baino lehen, Azpeitiko herritarrek ere Azkoitian gertatutakoaren berri eduki zuten, eta orduan, Azkoitian baretzeko bidean zegoen matxinadak (matxinoek euren eskakizunak onartzea lortu baitzuten), indar berriak hartu zituen. Azkoitikoak baino jite eskasagokoak ez zirela esanez —«no eran de peor condición que los de Azcoitia»—, Loiolako Santutegian lanean zebiltzan harginekin eta Urrestilako matxinoekin bildu eta Azkoitirantz abiatu ziren.

Iturri guztiak bat datoz aipatzean emakumeek jokatu zuten papera oso garrantzitsua izan zela herri-altxamenduaren lehen une hauetan. Eguneroko erosketen arduradunak izanda, haiek ziren ogiaren kalitatearen eskastea edo pisuaren gutxitzea lehenen detektatzen zutenak; zer esan prezio-igoerei buruz… Begiratu besterik ez dago Frantziako Iraultzan ogia merketzeko eskakizunarekin Versalleseko palazioraino gidatu zuten mobilizazio erabakigarriari. Emakumeak, gizonak zirikatzeaz gain, protesten buruan aurkitzen ditugu sarri, eta Arrasaten adibidez, klerikoen aurka bideratu zituzten irainik gogorrenak (Otazu y Llana, 1973: 271). Errepresioaren arduradunetariko batek —Larizek— zioenez «… las mujeres eran tan insolentes en el hablar a favor de los amotinados, que fue preciso meter a una de ellas en el calabozo, y echar bando separado para ellas amenazándolas con 50 ducados de multa y 2 años de destierro si se les oyese hablar más del asunto»[96]. Gipuzkoako Diputazioko arduradunek, zeharka bazen ere, emakumeen eragina onartzen zuten, matxinada zapaldu ostean zabaldutako zirkularrean hauxe agintzen baitzuen: «… quedasen abolidas las vergonzosas capitulaciones de los insurgentes /y/ que las Justicias prendiesen a cualquier mujer que hablase mal de estas providencias»

94. Iñurrategui, 1997: 82.

95. «Y el punto central, el cumplimiento de estas disposiciones siempre pendientes de la economia moral del Fuero, se garantizaba con la obligada implicación de las autoridades locales y provinciales, con la firma de la ley machina por parte de sus principales figuras y su pública lectura, en castellano por el corregidor y euskera por el parroco de la villa, a continuación», Iñurrategui, 1997: 83. or.

96. Iñurrategui, 1997: 96.

(Otazu y Llana, 1982: 67). Beste hainbat erbesteratuak izan ziren (Otazu y Llana, 1982: 81)[97].

Emakumeak Versalleserantz, ogi eske. Iturria: RIBECHINI, Celina: *De la Guerra de la Convención a la Zamacolada...,* 15. or.

Matxinoen mugimendua katean gauzatu zen: herri batean helburuak lortu ahala, beste herrietara pasatzen zen: Azkoitia, Elgoibar, Zestoa, Deba… Oro har, kanpotik etorritako matxinoak ziren erreboltari hasiera ematen ziotenak, eta ondoren matxinatu berriak hurrengo herrietara joaten ziren. Horrela, matxinada maiatzaren 16an ailegatu zen Elgoibarrera, eta hurrengo egunean elgoibartarrek debarrak matxinarazi zituzten… Herrialdeko muga igaroz, mutina Ondarroa eta Markinara zabaldu zen[98]. Leku guztietan, udal-agintarien konpromisoa exigitu zuten, mugimenduari zilegitasuna emateko. Gainera, matxinadari biltzen zitzaizkion herriek puntu berriak

97. 1766koaz gain, emakumeen parte-hartzearen garrantzia ukaezina da matxinada guztietan. Otazuk 1718koari buruz jasotako testigantzaren arabera: «… puesto en el campo le dieron más de 500 estocadas y por más de tres horas los hombres y mugeres de las aldeas descargando palos sobre el cadáver» (Otazu y Llana, 1973: 233). Beste idatzi batean esaten zenez: «Leku guztietan haserrea pizten ibiltzen ziren ematxarrak» (Etxeberria *et al.*, 1984: 53). Begoñako elizaurrean 1804ko Zamakoladari hasiera eman ziotenen artean emakume asko zeuden; baita zigortuen artean ere: «Diecisiete fueron penadas, unas al pago de multas, otras a destierro e incluso a prisión como en el caso de Maria Manuela de Zarraga, recluida por seis años en la Galera de Zaragoza» (Ribechini, 1996: 115).

98. Matxinada zanpatzearen arduradun nagusiak –Arriola del Corral– zioenez «… finalmente se ha podido recoger una lista de los principales Gefes de la sublevación, juntamente con dos cartas escritas por el alcalde y síndico de la villa de Marquina a Francisco Eguren, Bartolomé de Echaburu y el escribano de Ondárroa, al parecer todos vecinos de ella» (Otazu y Llana, 1982: 63).

gehitzen zituzten kapitulazioetan, esate baterako Mutrikun apaizen gehiegikerien aurka onartu zena[99]. Matxinada hasi eta astebetera, haren oihartzuna herrialde guztian barreiatuta zegoen, Donostialdean, Tolosan eta kostako zenbait herritan izan ezik. Bergararrek ere ederki eutsi zioten Elgoibar eta Soraluzeko matxinoen erasoari, eta ez zieten hirigunean sartzen utzi. Donostiarrak izan ziren —edo hobe esanda, Donostiako merkatariak— matxinada zanpatzeko ardura nagusia hartu zutenak, ordurako Gipuzkoako Diputazioa eta korrejidorea bera —Azpeitian zegoen urte hartan— matxinoen esku baitzeuden. Helburu hori lortzeko bi taktika erabili zituzten nagusiki: alde batetik, Donostian bertan, aleak matxinoek eskatzen zituzten prezioetan ezarri zituzten, altxamendua bertara hedatu ez zedin[100]; bestetik, herritarrek osatutako indar armatua prestatu zuten, *status quo*a lehenbailehen berrezartzeko.



1766ko matxinoen mugimendu nagusiak. Iturria: OTAZU Y LLANA, Alfonso: *La burguesía revolucionaria vasca...,* 268. or.

1766KO MATXINADA EIBARREN

Ikusi dugunez, eibartarrek ez zuten 1718ko matxinadan parte hartu; nik behintzat ez dut horri buruzko aipamen bibliografikorik aurkitu. Eta 1766koa ere,

99. Bi herri hauetan gaztaina, txerriki eta sagarrari ezartzen zitzaien hamarrena —"*diezmo*"— ezabatzea eskatu zuten, klerikuek bi kapilautza baino gehiago ez edukitzea, etab. Aldarrikapenok kutsu antiklerikalagoa hartu zuten Deban: «Que si algún clérigo cayese en pecado de fragilidad le capen a la tercera ocasión publicamente», Iñurrategui, 1997: 85.

100. Ez zen gutxiagorako, 1764. urteaz geroztik txakolin eta sagardoaren merkaturatzea zela-eta auzi latza zegoelako hasita Donostiako sagardo-ekoizleen eta kontsumitzaileen artean. Kontsumitzaileek sagardo-ekoizleek burutzen zituzten kanporatzeen aurka protestatzen zuten. Iñurrategui, 1997: 56.-67.

gain-gainetik baino ez dela ikertu esango nuke[101]. Zorionez, gertakizun garrantzitsu horri buruz, aztertu gabeko dokumentazioa aurkitu dut Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean eta Madrileko *Archivo Historico Nacional*ean, urria izan arren, orain arte argitu gabeko zenbait ikuspegi lantzeko balioko diguna. Horiez gain, Eibarko Udaleko akta-liburuak erabiliko ditugu.

Udaletxea jendez gainezka

Matxinadari buruz aurkitzen dugun lehen aipamena apirilaren 20koa da. Izugarrizko jendetza bildu zen udaletxean, bilerak egiteko erabiltzen zen gelaz gain, eskailerak eta ataria ere jendez gainezka zeudelarik. Hori zela-eta, alkateak han zeudenen nortasunak biltzeko eginkizunetik dispentsatu egin zuen eskribaua[102]. Bilera nondik hasiko eta, Domingo Iraegi kapilauaren idatzi bat irakurri zuen eskribauak, San Andres parrokiako abade baten heriotzaren ondorioz, haren lanpostua eskatzeko. Han bilduta zeuden herritarren aurpegiak ikustekoak izango ziren, batez ere irakurri zen eskakizuna sei orrialde beteko idatzia zela kontuan hartzen badugu. Onartu zen, halako batean, Iraegiren eskakizuna, eta ondoren, zeharka, beste honako hau adierazi zen: «Dicho dia se recibio una carta de la N. y L. villa de Eibar, digo Elgoibar con la pretension de que si havia en esta villa falta de Granos, pasase un deputado a ella y ajustar anbas villas, para sus abastos lo necesario con el capitan D. Miguel Antonio de Deustua vecino de Lecaytio, y para ello fueron nombrados Juan de Acha y Andres de Aritio con poder de esta villa». Eta beste bi gairekin jarraitu zuen bilerak: gramatikako irakasleak eskaturiko soldata gehitzeko eskakizuna eta bigarren harategia zabaltzeko baldintzak zehaztu behar zituen batzordea osatzea; bilera bukatu baino lehen, Azpeitian zegoen diputazioaren gutuna ailegatu zen. Izan ere, udaletxean zegoen gizaldra erantzun horren zain zegoen, ez horrenbeste harategiak edo gramatikako irakaslearen gorabeherek kezkatzen zutelako.

Aktak adierazten duenez «… se leio una Carta respuesta y el metodo que se avia de tomar en esta villa para apaziguar la jente es el thenor siguiente = En vista de la cartta de Vs. que acavan de entregar los portadores, incluio copia de la resoluzion tomada, por esta villa con asistencia del señor correxidor, y diferentes señores eclesiasticos, que me alegrare sirva de alibio para la devida quietud, ratifico a

101. Artikulurik ezagunena G. de Bionarena dugu: Biona, 1911: 118-121. G. de Biona Gregorio Mugicaren ezizen bat dela esango nuke.

102. «… otros muchos Caballeros becindarios que todos concurrieron a dicho Aiuntamiento de manera que haviendose llenado el conzejo, y su antesala, escaleras, y portales de dicha casa conzejil de un tumulto de jentes, que se levantaron por la carestia de trigo y maiz no pudiendo hacer hasiento de dichos Vecinos mando su merced por el gran numero de jentes no importaba el que se hiciese dicho hasiento expresando se abrebiara y que yo el escribano diese fee como se hallava todo el becindario en dicho Conzejo siendo esto cierto y la berdad de que doi fee» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1766-4-20.

Vs. mi verdadero afecto, y pido a Dios la guarde m.a. Azpeitia 16 de Abril de 1766= Nicolas Ignacio de Altuna, fiel de la villa, por la N. y L. villa de Azpeitia». Beraz, argi dakusagu matxinada hasi orduko Eibarko Udaleko buruek diputazioko agintariei aholkua eskatu zietela —hilaren 15ean, ziur aski—, erantzuna apirilaren 16koa da-eta. Baina ordurako diputazioa eta korrejidorea bera matxinoen menpe zeuden, eta haren aholkua matxinoen eskakizunak onartzea izan zen, Azpeitian sinatutako kapitulazioak eredutzat eskainiz.

Lehen puntuan, gari anegaren prezioa 26 errealetan ezarri zen, eta artoarena 16 errealetan; bigarrenean, saltzeko orduan neurri berriak kendu eta zaharrak erabili behar zirela zehazten zen (horiek handiagoak ziren). Hirugarrenak, pattar eta mistelaren salmenta baimentzen zuen «… en cualquier parte como en lo antiguo asi en esta villa como en su poblacion de Urrestilla». Laugarrenak, udalerritik uztak ateratzea debekatzen zuen; harrapatutakoaren erdia salatariari eman behar zitzaion, eta beste erdia, herri-alondegiari adostutako prezioetan saltzeko. Bosgarrenean, otea libreki mozteko eskubidea onartzen zen. Beraz, Eibarko Udalak eta eliz kabildoak Azpeitiko kapitulazioak onartu zituzten, inolako eranskinik egin gabe[103]. Akta Sebastian Zumaran, Sebastian Egiguren, Agustin Arizmendi eta Andres Agirre udalkideek sinatu zuten.

Baina udalak alea matxinoek ezarritako prezioan saltzeko konpromisoa hartu arren, herriaren horniketa bermatzeko garestiago erosi behar zuen kanpoan. Beraz, dirua galtzen ari zen. Diputazioak emandako aginduen arabera, aleen erosketaren eta salmenta-prezioen artean sortzen zen defizita herriko propioek ematen zituzten diru-sarrerekin kitatu behar zen. Hilaren 24an diputazioari bidalitako gutun sekretuan Eibarko udalkideek egoeraren larritasuna onartzen zuten[104], baina era berean, matxinada indarrez zapaltzeko grina adierazten zuten, honakoa azalduz: «me allo prevenida de Armas, y municiones, para repeler hasta el ultimo extremo a qualesquiera que pretendan atropellarme a seguir sus mostruosas y abominables hideas»[105]. Hitz horietan argi eta garbi nabari da zein zen Eibarko udalkideen benetako helburua.

---

103. «En estos mismos capitulos se conformaron los señores, Justicia y rejimiento, a una con los señores alcaldes, digo eclesiasticos curas, y demas Cabildo Eclesiastico de esta noble Vª de Eibar, aprovando en todo, y por todo en dro. nezesario, y firmaron en ella a diez y siete dias del mes de Abril de mil setecientos sesenta y seis» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1766-4-20.

104. «… hubo alguna comocion entre mis vecinos horijinada del subido precio de Granos, que es inebitable en el continente de V.S., mientras las Provincias Confinantes no lo proporcionan con su abundancia; Desde luego que se rebajaron a los mencionados precios los extraidos de las Casas en que los havia, se aquietaron y estan tranquilos zin haber havido extorsion alguna, aun en la misma turbazion», Gipuzkoako Artxibategi Orokorra (GAO), JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos con motivo de las carestia de los granos y el tumulto*, 1766-4-24an udalak diputazioari bidalitako gutuna.

105. GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos con motivo de las carestia de los granos y el tumulto*, 1766-4-24an udalak diputazioari bidalitako gutuna.

Hilaren 27an Zumaran alkateak herriko bihitegietan bildutako gari eta artoa bukatzear zegoela adierazi zion diputazioari, eta inguruko herrietan ez zegoenez gehiago, Deba, Mutriku eta Ondarroako portuetara bidali zituen zenbait ordezkari «… para comprar, y conduzirlos quando los hubiese de Venta en Bajeles Estranjeros, y ni aun de esta manera puedo esperar socorro, por quanto no se han hallado». Ondorioz, arrenka eskatzen zion diputazioari Donostiako merkatariekin kontaktuan jarrita, beharrezkoa zen alea eskuratu eta Eibarrera bidaltzea.

Matxinadaren errepresioa

Lur-jabeen utzikeria edota ezintasunaren aurrean, merkatari-burgesiak[106] ale kopuru handiak bidali zituen matxinadaren bihotzera, matxinoek ezarritako prezioan saltzeko. Eta egoera baretu zenean, hau da, matxino gehienak haien herrietara itzultzen hasi zirenean, 1.200 boluntariok ("*paisanos*") osatutako zutabe militarra bidali zuten Urola ibarrerantz, Antonio Arriola del Corral[107] komandantearen gidaritzapean. Horiekin batera Irlandako Errejimentua zihoan, 300 soldaduk osatua. Bidean aurkitu zituzten Peñafloridako kondea edo Narroseko markesa[108] matxinadatik ihesi mendietan ezkutatuta, eta berauekin batera sartu ziren Azpeitian apirilaren 24an. Bertan 75 pertsona atxilotu zituzten, eta beste 25 Azkoitian; hala ere, ez zituzten matxinoen kapitulazioak indargabetu, eta aleak matxinoek ezarritako prezioetan saltzen jarraitu zuten.

---

106. «Pero, entonces, los comerciantes de San Sebastián, que dominaban el ayuntamiento de la ciudad, se agrupaban en el consulado y vivían estrechamente ligados a una asociación mercantil de la envergadura de la Compañía Guipuzcoana de Caracas, sorprendieron a todos, incluidas las autoridades militares, que se limitan solamente a secundarlos, con el despliegue de una actividad y la improvisación de una fuerza de intervención inmediata, que no cabe considerar más que como el mejor exponente de la vitalidad burguesa» (Otazu y Llana, 1982: 11).

107. Otazuk Antonio Arriola del Corral nor zen argitzen digu: Donostiako alkatea izateaz gain: «Su abuela paterna, Josefa de Arana, era hermana de aquel Enrique de Arana, Diputado general del Señorío en 1718, cuando fue asesinado por los matxinos de Erandio en el Arenal de Bilbao (…) ¿Peso el recuerdo de su tío-abuelo asesinado (…) cincuenta años antes, en el ánimo del hombre que se iba a enargar de reprimir la matxinada de 1766?» (Otazu y Llana, 1982: 70).

108. «Como era de esperar, la oligarquía terrateniente, que se ha visto señalada con sus nombres y los de sus testaferros –las autoridades locales— como culpable de todo y que ha asistido atónita al espectáculo del saqueo de sus graneros, no tarda en cabalgar al lado de la milicia hortera que la Providencia, siempre tan sabia, les envía desde San Sebastián. Así que, cuando el comandante de esa milicia se encuentre entre los montes a acongojados caballeros del estilo del conde de Peñaflorida o el marqués de Narros, la cabalgata que inician en amigable compañía no muestra tan sólo las siluetas de elegantes jinetes que hollan los tiernos tallos de yerba que crecen en los margenes del camino, en aquella soleada primavera de 1766, sino que son el vivo exponente de una alianza de clases que se enfrentan a otra, con propósitos y métodos no del todo coincidentes en cambio. Porque la burguesía de San Sebastián se ha mostrado más activa y más capacitada para organizar y dirigir la represión. Ha demostrado un vitalidad coercitiva donde los terratenientes no han mostrado más que amarga resignación» (Otazu y Llana, 1982: 12, 13).

Badirudi lehen une horietan zuhurtasunez jokatzea erabaki zuela Antonio Arriolak. Horren seinalea dugu, apirilaren 24rako Azpeitira helduta egon arren, maiatzaren 1era arte ez zela Elgoibarrera hurbiltzen ausartu. Izan ere, matxinoak ez ziren ganorarik gabeko lau txoriburu: bi mila pertsonatik gora bildu ziren Azpeitiko enparantzan korrejidoreak eta diputatu nagusiak kapitulazioak nola sinatzen zituzten ikusteko; eta 800 laguneko zutabea izan zen Mutrikun sartu zena, egun batzuk lehenago. Ziur aski, Arriolaren lehen helburua informazioa jasotzea izan zen, herri bakoitzean matxinoek zeukaten indarra ezagutzeko. Ez zuen asko ibili beharrik izango oraindik matxinoen menpe zeuden herrietan, zeren oligarkiaren partaideak Azpeitira hurbiltzen baitzitzaizkion bakoitzak bere herriko matxinoen buruzagien nortasunen berri ematera. Hori gertatu zen Eibarkoekin ere, Zuaznabar komandanteak Eibarrerantz abiatu aurretik ere —maiatzaren 2an[109]— ondo baino hobeto zekielako herri horretan zeintzuk atxilotu behar zituen, eibartar batzuek egindako zerrendari esker[110]. Nortzuk ote ziren salatariak? Eta nortzuk salatuak?

Salatariak

Hurrengo erreferentzia kronologikoa udal-aktak eskaintzen diguna da, maiatzaren 4ko Batzar Orokorrarena, hain zuzen. 159 auzokide bildu ziren udaletxean, eta sekulako iskanbila sortu zen. Zumaran alkateak amua ezpainean izango zuen beharbada, badaezpada ez zelako bilerara agertu. Bere ordez, Andres Aritio bigarren alkatea aritu zen. Pedro Olabek Donostiatik garia ekartzeko eginiko gestioen berri eman ondoren, bake eta lasaitasunerako deialdia egin zuen Aritiok, «… y que biniesen los sujetos, que estaban fujitivos de esta juridicion por quanto los havian, zitado, y haviendose lebantado una bulla grande de la numerosidad de jentes que en el havia, y mucha parte de ellas en pie por falta de hasientos empezaron a gritar que fuesen al Alcalde principal unos sujetos a asaver quienes eran los dichos citadores, en cuio supuesto —eta lerro gainean— le forzaron y obligaron a su mrd. algunos con suplicas, y otros expresando que fuesen a saberlo, con tantos gritos, que no se podia conprehender aun lo que querian de manera que unos decian que si, y otros que no, y sin embargo para apasiguar dicha jente nombro el dicho señor

109. Datu hau Otazuk eskaintzen digu, Arriolaren gutun baten transkribapenean: «Mañana a las siete de la madrugada saldré para Eybar y Placencia con ánimo de regresar a esta Villa para la noche, si no se ofreciere motivo justo que me detenga, y continuar el viaje a la costa, dando a V. S. los avisos de quanto ocurra (…) Elgoybar, y maio 1º de 1766» (Otazu y Llana, 1973: 445).

110. «Asegurada estta gloria se rettiraron mis compañias, las agregadas y aliadas a sus casas y negocios, conduziendo a mis Carzeles settentta y dos reos que settienen con el devido resguardo, y quedo para el mismo fin en Azpeittia y Azcoyttia ottro desttacamenttto con los oficiales correspondientes; bien que aun esttos con su desttacamentto se emplearon en varias fattigas, y enttre ellas en la prompta, execcuttiva, y bien lograda expedicion ala villa de Eybar distantte quattro leguas ala qual fueron de noche con el coronel d. Vicente Kindelan, algunos oficiales y Parte de Tropa del Reximiento de Hirlanda, y cercado el Lugar, hicieron al raiar del Alba las prisiones de varios sujettos deque llebaban listta, y los condujeron ala Carcel de Azcoittia», Archivo Histórico Nacional, 12559. dok.

alcalde Andres Aritio para que fuesen a saber del citado Señor, don Sevastian de Zumaran, Alcalde electo de ella, al Sindico Procurador General Sevastian de Eguiguren, Andres de Aguirre, y Francisco Antonio de Bustindui, y de alla un rato hizo relacion dicho señor sindico como havian estado, y respondido el dicho señor dandoles una carta de D. Manuel Antonio de Arriola cuio Contenido es este que se sigue= Mui Señor mio. El Portador de esta sera D. Juan Jph. de Zuaznavar, que en calidad de capitan Comandante, va destacado con parte de la tropa de mi mando a dar el auxilio necesario a Vm. e instruido de lo que deve ejecutar en cumplimiento de las facultades con que me hallo havilitado; En este supuesto, espero del celo de Vm. al real servicio, y amor ansia Madre la Provincia coadyubara al logro de los importantes fines a que destino a D Juan Jph. informandole de los principales motores del motin procurando su aprension, y entrega para que los conduzca a mi disposicion, y quedo a la de Vs. rogando a Dios le guarde, m.a., Elgoibar, 2 de Maio de 1766»[111].

Beraz, Aritio behartu egin zuten Zumaranen testigantza ezagutzeko norbait bere bila bidaltzera. Eta hara zer azaldu zuen Zumaranek bere jokabidea zuritzeko: «… que el no havía hecho declaracion por razon de no conocer a muchas jentes de esta dicha Vª. sino a los principales, y esto sucedía por haver estado diez y seis años en Lima, y haverse hido de tierna hedad, y al presente hallarse en esta Zinco meses, y que quienes declararon fueron al Señor D. Juan Jph. de Zuaznavar como a comandante de la tropa, Andres de Espilla, Juan de Acha, y Juan Andres de Lascurain, vecinos de esta nominada villa. Esto fue la respuesta que la trujo y relasiono dicho señor sindico en publico Aiuntamiento, y de resulta huvo bastante alboroto, y dijeron que merecian hecharlos por la bentana entre la builla, lo que yo el escribano no pude comprehender quien era el que lo dijo por mas que lo pregunte con lo que suabisaron todos».

Argigarria benetan Zumaranen testigantza. Zeintzuk ziren Juan Atxa, Andrés Espila eta Juan Andrés Laskurain? Juan Atxa Azpiri Eibarko alkatea izan zen 1760. urtean, eta sindikoa 1767an[112]. Andrés Espilak errejidore kargua bete zuen 1759an, sindikoarena 1762 eta 1763an, eta alkate izendatu zuten 1767an, beharbada aurreko urtean matxinoen aurka jokaturiko paperaren sari gisa. Sindikoaren kargua bi urtetan jarraian bete izanak —hutsunea gorde gabe—, eta 1762ko urtean korrejidoreak alkate izendaturiko Juan Bautista Soroetaren ondoan diruzain lanetan agertzeak

111. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1766-5-4.

112. Itxura guztien arabera, Juan Atxa Azpiri eta Juan Bautista Atxa Albizuri pertsona berdina dira, nahiz eta eskribauaren eta sasoien arabera era batera edo bestera idatzi. Berez, Azpiri zuen bigarren abizena, baina beste kasu batzuetan frogatu ahal izan dudan bezala, baserriaren toponimikoak lekua kendu zion amaren leinuko abizenari. Juan Bautista Albizuri bezala agertzen da 1767. urteko agintaldian, sindiko orokorraren kargua betetzen. Horrela ulertzen da, 1766ko sindiko orokorrarekin batera agertzea udalak 1768an eskatu zuen kontu-argiketan, nahiz eta oraingo honetan eskribauak bere egiazko bigarren abizena erabili zuen: Azpiri.

herrialde mailako agintarien begirunea zuela adierazten digute. Eta Juan Andrés Laskurain, beste kargu batzuen artean, errejidorea izan zen 1763an, eta alkatea 1769., 1774. eta 1778. urteetan. Espilak eta Atxak ez dakigu, baina ikusiko dugunez, Laskurainek behintzat, larrutik ordainduko zuen 1766ko matxinoen ustezko buruzagiak salatu izana.

Atxa, Espila eta Laskurain maiatzaren 4ko batzar orokorrean egon ziren. Eta ziur aski, beraiei buruz zebilen «que merecian hecharlos por la bentana» oihukatu zuen ahots anonimoa. Zumaran indianoaren esperientzia-gabeziak —edo beldurrak— salatari gisa utzi zuen hirukotea erkideen aurrean. Eta egun hartako atezalditik onik ateratzea lortu bazuten ere, badaezpada ez ziren hurbildu sei egun geroago egin zen batzarrera. Zumaran alkatea ere falta izan zen, eta batzarra Andres Aritioren gidaritzapean burutu zen; berak deitu zituen «… a este Congreso general para dar a entender la ignorancia que se havia padecido en el Aiuntamiento antecedente, (…) y havia sido su harrojo mal intelijenciados, y porque no conprehendieron el decreto que fijaron en los soportales del Conzejo, por mandado del señor D. Juan Joseph de Zuasnavar vecino de la Ciudad de San Sevastian, y que aunque dicho decreto el día quatro de este presente mes que se celebro Aiuntamiento general por fidelidad del presente escrivano le presentaron en la mesa no se les hizo saver su contenido a dichos vecinos, por lo mismo que no dieron lugar con la bulla de todos, por lo que no se podia conprender lo que decian, y querían, y disputaron sobre que havían hecho mal las citaciones en algunos sujetos, y dieron a entender que havia otros mas acredores, en cuia bista haviendose hecho cargo de todo lo mal obrado, y hablado por si alguno estubiese o huviese ofendido en este dicho congreso pidieron todos un animes, y conformes especial y señaladamente al Señor, y demas justicia de ella como asi bien unos a otros reciprocamente en que acordaron estar en paz y quietud en favor de su Magestad y de nuestra Madre la Provincia, y defensa de esta citada Villa. Este dia acordo dicha Villa, y decreto, que las ducientas fanegas de trigo que han benido de San Sevastian que se liquide el coste, y porte arreglandose de la medida antigua, y no a la que a benido de la Provincia».

Azken finean, garia eta artoa matxinadaren aurretiko neurriekin eta prezioetan salduko zirela berriro ere. Ordurako 730 anega zeuden salduta herritarren artean. Horietatik 500 udalerrian bertan ekoitzitakoak ziren, hau da, bertako pilatzaileei bahitutakoak; beste 30 anega gari Bizkaitik ekarritakoak ziren, anegako 38 erreal ordainduta; eta azken 200ak, Donostiatik heldu ziren. Diputazioari igorritako gutunak zioenez «en los vendidos hallo la quiebra de quinze reales de vellon poco mas o menos en cada fanega con la diferenzia de la medida menor a la maior, y considerando, que de esta suertte no se puede aguantar tantta quiebra por no tener quasi fondos, suplico a V.S. me diga si las restanttes fanegas puedo vender al precio tottal de costte y porte y demas gastos, osi conttinuare con la ventta a los precios de 26 reales el trigo y 16 el Maiz establecidos con el motivo de los tumultuarios».

Anega bakoitzeko udalak 15 erreal galtzen zituenez, maiazaren 8rako 10.950 errealeko defizita zegoen[113].

Gogora dezagun, matxinadaren lehen momentuan aleen erosketaren eta salmenta-prezioen arteko aldea udal-propioetatik ordaintzea erabaki zela, biztanleriari zerga berezirik ezarri gabe. Momentuak eskatzen zuen erabaki zuhurra izan zen, baina maiatzaren 10erako Eibarrera heldu berria zen Iberniako Errejimentuak beste ziurtasun bat eskaintzen zien Eibarko udalkideei. Matxinadan gehien nabarmendu zirenak herriratu gabe zeuden oraindik, eta alkateak haien espetxeratzea eskatu zuen[114]. Eta udal-aktan zeharka baino ez bada aipatzen ere[115], diputazioari bidalitako gutunean argiago adierazten zen ordura arte eta ordutik aurrera eskuratutako aleak erositako prezioan saldu beharko zirela, garraio-gastuak gehituta[116]. Beraz, jauntxoek 1766ko matxinadaren eskakizun eta lorpen nagusia indargabetzea lortu zuten. Eibarko Udalaren propio eta arielen errentak hain omen ziren urriak, urteroko gastu arruntak ordaintzeko ere ozta-ozta biltzen zela azaldu ondoren, aleen erosketak eragiten zuen defizita udal-propioetatik ordaintzeak nortzuk kaltetzen zituen argitzen zuen udalaren gutunak «con acrehedores que justamente reclaman sus haberes prozedidos de una numerosa plantacion de Arboles que sea echo en mi Jurisdizion»[117]. Baina badaezpada, ale gehiago bidaltzea eskatuz amaitzen zen Andres Aritio, Sebastian Egiguren eta Andres Agirrek sinatutako idatzia. Edonola ere, Arriola del Corralek matxinoak zanpatzea lortu zuen, eta neurri gogorrak iragarri zituen bere probidentzien aurka hitz egiten zutenen kontra. Elgoibarren gainera, salatariak saritzeko puntu berezi bat onartu zuen: «Que cualquiera que denunciase a alguno en razón de los dos últimos capítulos con prueba suficiente se le guardara secreto y se le dara el premio de mil reales de vellón» (Uriarte, 1998: 235).

113. GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos…*, 1766-5-8an udalak diputazioari bidalitako gutuna.

114. «En consequencia pues de los que refiero pesquiza y solicita el Sr. mi Alcalde la prision de algunos que sean ausentado cuia nomina esta en sus manos», GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos…*, 1766-5-10ean udalak diputazioari bidalitako gutuna.

115. «Este dia acordo dicha Villa, y decreto, que las ducientas fanegas de trigo que han benido de San Sevastian que se liquide el coste, y porte arreglandose de la medida antigua, y no a la que a benido de la Provincia» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1766-5-10.

116. «Hoy he celebrado mi Aiuntamiento General, y en el an quedado advertidos mis Vecinos de que segun la mente de V.S. *deben distribuirse los granos que se haian conducido y condujeren para su abasto al precio que sumaren su compra, y transporte*, sin que en manera alguna deba ser yo ni mis rentas esten sujetas a suplemento el menor», GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos…*, 1766-5-10ean udalak diputazioari bidalitako gutuna.

117. GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos…*, 1766-5-10ean udalak diputazioari bidalitako gutuna.

Salatuak

Maiatzaren 19an auzia hasi zen Azpeitian «conttra los sublebados en diferenttes Pueblos de estta referida M.N. Provincia, y egecucion de sus senttencias siendo conformes aunque sean de penas capittales, oiendo a los reos con la brebedad de terminos que el caso requiere (…) y provisionalmente puedan desttinar alas armas, y Servicio de Marina, Presidio, e imponer multas pecuniarias a los reos de menor consideracion». Eibarko matxinoak, zorionez, bigarren talde horretan sartzen ziren. Baina, zeintzuk ziren auzipetuak? Hara zer dioskun sententziak:

> Haviendo vistto los auttos formados sobre lo ocurrido en Ayuntamiento general celebrado en la villa de Eybar en quattro de Mayo ulttimo Digeron que por lo que de ellos resulta condenaban, y condenaron a Agustin Olañetta, Jose Bruno de Guisasola, Francisco Ignacio de Burgoa, Francisco Antonio de Buztindui, Juan Baupttistta de Urquiola, Andres de Acha Orbea, y Jose de Arguiano Azpiri vecinos concejantes de dicha villa presos en la Carcel publica dela villa de Azcoitia en cada cinquentta ducados de vellon de multta, mancomunados para su paga, y a todos los demas vecinos de ambas voces que asisttieron a dicho Ayuntamiento hasta el numero delos cientto settentta y cinco, que espresa el testtimonio fol. 1º delos auttos, eceptto a Juan de Acha Azpiri, Andres de Espilla, y Juan Andres de Lascurain en cada quattro ducados de vellon mancomunados para su paga aplicadas todas las dicha multtas la mittad a penas de Camara y gasttos de Justticia, y la ottra mittad a estta M.N. y M.L. Provincia por razon de los gasttos sobrebenidos con motibo de las sublebaciones experimenttadas (…); y pagando estas, y los trescientos cinquentta ducados delas primeras multas, sean suelttos dela Prision en que se hallan los mencionados Olañeta, Guisasola, Burgoa, Buzttindui, Urquiola, Achaorbea y Arguiano Azpiri. Y se les apercibe a todos que en adelantte hablen, y traten con la devida templanza, respecto, y moderacion en los Ayunttamienttos, y fuera de ellos, y conserben la buena union, sosiego, y quietud correspondiente en el Pueblo; pena de que seran casttigados por todo rigor de derecho[118].

Atxilotuen nortasuna ezagututa, alproja batzuk zirenik ezin dugu esan behintzat: Andrés Atxa Orbea 2. alkatea izan zen 1758an, errejidorea 1760an eta 1768an errejidore izendatuko zuten berriz; Francisco Antonio Bustindui sindikoa izan zen 1759an, errejidorea 1764an, alkatea 1783an eta errejidorea 1796an; Francisco Ignacio Burgoa, alkatea izan zen 1765ean, eta 2. errejidore izendatuko zuten 1782an… Eibarko matxinoak, beraz, bete-betean sartzen dira Iñurrategiren matxinoen prototipoan: «Articularon ser cristianos viejos, limpios de mala sangre, hijosdalgo notorios originarios de aquella provincia de Guipúzcoa»[119]. Eibarko matxinadaren ustezko buruzagiei dagokienez behintzat, deskribapen hau askoz gehiago

118. Madrileko Archivo Histórico Nacional, leg. 6327 / Exp. S.N. «Autos formados y remitidos al consejo extraordinario sobre sospechas de infidencia contra su patria y adhesión y comunicación con los franceses. El comandante general de las tropas del señorio de Vizcaya contra Juan Andrés de Lascurain, natural de Eibar, Labrador y perito agrimensor», 1797. urtea.

119. Iñurrategui, 1997: 135.

egokitzen da, matxinadaren zanpatzaileek eginikoa baino: «gentualla», «plebe tumultuosa», «tropel confuso de rebeldes», «partidas de vagos insurgentes», «ínfima plebe»… Deskalifikazio horien helburua, errepresioari zilegitasuna ematea zen noski.

Baina zazpi "buruzagiez" gain, uztailaren 18an Barreda eta Arriolak emandako epaiak maiatzaren 4ko batzarrean parte hartu zuten 175 auzokideak zigortzen zituen «para que en el preciso termino de los primeros ocho dias, sattisfagan mancomunados las referidas multas de a quatro ducados con las costtas que en los haber y cobrar se causaren, y no lo haiendo seles embarguen, y bendan sus vienes, y efecttos en publica Almoneda, o fuera de ella hastta la concurrente cantidad de todo el devitto». Iñurrategik dioenez, matxinoek ez zituzten egindakoak ukatu, ez zen bakoitza bere burua zuritzera mugatu eta ez zuten norbanako defentsa bat prestatu, defentsa kolektiboa baizik[120]. Sententzian bertan adierazten zenez, lau dukaten isuna auzokide bakoitzari ezartzen bazitzaion ere, ordainketa bateratura behartzen zituen; hau da, isuna kitatzeko dirurik ez zeukatenen kopurua gainerakoen artean ordaindu beharko zuten, hortik "*mancomunados*" hitzaren erabilera. Zentzu horretan, matxinoen aurkako sententzia 1766ko matxinada komunitatean oinarritutako errebolta bat izan zelako aitorpenik garbiena bihurtzen da.

MATXINADAREN ONDORIOAK

30.000 errealen mailegua

1766ko irailean Zumaran alkateak zioen matxinadak eragindako zorrak ordaintzeko dirurik ez zegoela, eta 30.000 errealeko mailegu bat lortzeko ahaleginek ez zutela emaitza onik lortu. Beraz, batzar orokorrak arrenka eskatu zion Zumaran alkateari berak mailegatzea diru hori, zeren «nadie mejor que su merzed podia dar a censo alguna cantidad para alibio de dicha villa». Beraz, badirudi Zumaran ez genuela Ameriketatik esku hutsik itzulitako indianoa. Zumaranek «respondio, que todos los vecinos entrasen en la mancomunidad hipotecando sus haciendas y daria lo que pidiesen», % 3ko korrituarekin. Zeregin horiek aurrera eramateko Egiguren sindikoa izendatu zuten.

Mailegu horren helburu nagusia matxinadak eragindako gastuak ordaintzea zen. Alde batetik, aleen erosketaren eta salmenta-prezioen artean diferentziak eragindako defizita kitatu behar zen; bestetik, aurretik ere zenbait sartu-irten egindako Iberniako Errejimentuko konpainia batek Eibarren ostatu hartu zuen

120. «Ante sus jueces comisionados aquellos 439 encausados quizás por esta razón no optaban "por una defensa respectiva a desvanecer los cargos que particularmente resultan contra cada reo, sino por una defensa general de todos". Inmersos en un ámbito que les resultaba completamente ajeno los caballeros machinos hablaban como cuerpo» (Iñurrategui, 1997: 135).

maiatzaren 23tik abenduaren 17ra arte (Mugica, 1990: 33)[121], eta konpainia osatzen zuten 35 soldaduen mantenua eta ostatua udalaren diru-kutxatik ordaindu behar izan zen[122]; bukatzeko, ez genituzke ahaztu behar matxinoek egindako apurketak Eibarko zenbait eraikinetan, horien artean San Andres elizako beiratean[123].

Zumaranek utzitako dirua ez zen nahikoa izan betebehar horiei guztiei erantzuteko, eta urrian udala zerga berri bat ezarri beharrean aurkitu zen «para continuar con el pagamento del prest, y pan, con los demas utensilios del Piquete, que se manttiene en esta villa»[124]. 1768an, indianoaren maileguaren itzulketari aurre egin ezinean, udalak diputaziora jo zuen «para la Consecucion de la Sisa o venta de las tierras para la redempcion de los treinta mil rr. que tomo la villa de don Sevastian de Zumaran, en Censo a tres por ciento en la Urgencia, que tubo en la sublebacion que hubo el año de mil setezientos sesenta y seis…»[125].

1766ko maiatzaren 5eko Erret Dekretua

Epe luzera begiratuta, 1766ko matxinadak eduki zuen ondoriorik garrantzitsuena, *Diputados del Común* eta *Sindico Personero del Común* udal-karguen sorkuntza izan zen. Erreboltarien *modus operandi*a gaitzetsi eta barkamenerako aukera guztiak ezabatu ondoren[126], 1766ko maiatzaren 5eko Erret Dekretuak matxinadaren arrazoi nagusia aleen inguruan egiten zen espekulazioa izan zela onartzen zuen. Eta praktika horri mugak ezartzeko neurririk egokiena auzokideak ez ziren herritarrei udalean ordezkaritza bat edukitzeko eskubidea onartzea zela kontuan hartuz, guk herri-diputatu (*Diputado del Comun*) eta herri-sindiko (*Sindico Personero del Comun*) deituko ditugun udal-karguak sortu ziren, eskuduntza

121. GAOn aurkitutako dokumentu batek dioskunez, hilaren 20rako hasiak ziren konpainia honen ostatua eta janari-horniketa ziurtatzeko lehen neurriak: «Con sus camas, y para que quando parezca no la falte los víberes, que nezesitare sin excasez, pagandolos a los precios corrientes, y distribuiendola el pan con voletas», GAO, JD IM 1/6/24, 1766, *Correspondencia de los pueblos…*, 1766-5-23an udalak diputazioari bidalitako gutuna.

122. Otazuk dioenez, Kindelan koronelak bere konpainiak herriz herri banatzerakoan arreta berezia eskaini zien Eibar eta Elgoibarri: «Obsérvese que las villas más pobladas se ocupan con 2 Compañías, pero que por el contrario, de donde se aguarda una respuesta más violenta a la ocupación e de Elgoibar y Eibar (donde se envía a las dos compañías más experimentadas» (Otazu y Llana, 1973: 277).

123. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1778-8-3.

124. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1766-10-22.

125. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-1-24.

126. «… tteniendo presente (…) la necesidad de desengañar a la Plebe para que no caiga en excesos tan sediciosos fiada en indulttos y perdones, que nada le aprobechan Declararon por nulas e imbalidas las Bajas echas o que se hicieren por los Magistrados y Ayuntamientos de los Pueblos Compelidos por fuerza y violencia por carecer de potestad para permitir que los Abastos se vendan a menos precio que el de su coste y Cortas. Igualmente declararon por ineficazes los indulttos, o Perdones Concedidos o que se concedan por los mismos Magistrados Ayunttamientos, o otros qualesquier a los perpetradores ausiliadores, y motores de esttas asonadas y violencias» EiUA, A,2,5, *Libro de Elecciones de Diputados y Parsoneros de la villa de Eibar*.

hauekin: «Trattar y conferir en punto de abastos; examinar los Pliegos o propuestas que se hicieren, y establecer las demas reglas economicas ttocanttes a estos puntos que pida el bien comun»[127]. Eibarri dagokionez, hala ere, matxinadaren protagonistak auzokideak izan zirela ikusi dugu, ez herritar xeheak. Beraz, Erret Dekretuak kausa-efektutzat lotzen duen binomioaren inguruan (ordezkaritza eza → matxinada), neure zalantzak ditut.

Pinedok dioenez, Gipuzkoako gorenek oztopo ugari jarri zituzten herriak aukeratutako pertsonaia berri hauek onartzeko. Probintziak neurri hori foruen kontrakoa zela uste zuen, baina Kontseiluak «1767ko maiatzaren 16an hartutako ebazpenaren bidez aurreko erabakia berretsi zuen…» eta Gipuzkoako urte bereko batzarrek «Gipuzkoako herri guztietan obeditu eta bete behar zela erabaki zuten». Horrek guztiak hornigaien inguruan iruzurrak gertatu zirela onartzea zekarren, «por mala administración o régimen de los concejales». Egia da euren eginkizunak kontsumo-arazoetarako zirela bakarrik, baina dagoeneko ikusita dugu aberasteko modu bat hautaketen manipulazioa eta hornigaien errematea zela (Fernandez de Pinedo, 1999: 419, 420). Ikusiko dugun moduan, Eibarko errealitateak erabat baieztatuko du Pinedoren hipotesia.

Herri-diputatuak eta herri-sindikoa ez ziren zuzenean izendatuko, zeharka baizik. Lehenik eta behin 24 hautesle izendatu behar ziren. Biztanle xumeek eskubide politikoak zituztela onartzen zen lehen aldia zen, 24 hautesleen artean auzokideak egon bazitezkeen ere: «No necesita disttincion de estados ninguno de estos encargos por que pueden recaer promiscuamente en los Nobles y Plebeios». Aukeraketa hori bozketaz egiten zen —kargu bakoitza banan-banan— eta 24 hautesleen bilerak autonomia osoa zeukan bere ordezkariak izendatzeko: «Ni el Aiuntamiento por si solo, ni ningun cuerpo de Gremios, podra entrometterse en esta Eleccion que se ha de hacer por el vecindario y Electores gradualmente en el modo y forma que queda propuesto». Herri-sindikoa urtebeterako izendatzen zen eta bi urteko hutsunea gorde behar zuen; herri-diputatuak, ordea, bi urtetarako izendatzen ziren, eta urtero bat berriztatzen zen, bi urte betetzen zituenak kargua utziz.

Horrez gain, beste hau ere aipatu behar da: herri-diputatua eta herri-sindikoa izateko aukera galtzen zutela kapitularren senideek laugarren gradura arte. Hori saihesteko, herritar xumeen ordezkariak kapitularrak baino lehenago izendatzen ziren. Baina era horretara, senidetasun-arrazoiengatik kapitularren izendatzea suertatzen zenez baldintzatuta, Karlos III.ak beste agindu bat eman zuen, herri-diputatuaren eta herri-sindikoaren izendatzea, kapitularren ostean egiteko[128].

127. EiUA, A,2,5, *Libro de Elecciones de Diputados y Parsoneros de la villa de Eibar*.

128. Eibarren, normalean, urtarrilaren 6an egiten zen herri-diputatu eta herri-sindikoaren hautaketa, nahiz eta 1768an, otsailaren hasieran egiteko agindu: «Que los Diputtados del Comun, y su eleccion se haga el dia tres de febrero proximo venidero como asi bien el sindico personero, y que el dia de la Candelaria al tiempo de la Misa Combentual se de a entender al Pueblo el dia que hara esta dicha eleccion» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-1-31.

Edonola ere, Eibarren behintzat, badirudi agindu hori ez zela betetzen, zeren 1784. urtean Juan Andrés Laskurain herri-sindikotzan agertzen baitzaigu, bere semeak —hau ere, Juan Andrés— errejidore-kargua betetzen zuen agintaldian, hain zuzen.

HERRI-ORDEZKARIEN ERAGINA EIBARKO UDALEAN

Nicolas Joseph Jusue Hurtado de la Puente herri-diputatua

Beharbada, 1766ko maiatzaren 5eko legeak barne hartzen zuen punturik garrantzitsuena errejidoreen eta herri-diputatuen artean adostasunik lortzen ez zenean beste auzitegi edo "*chancilleri*"etara helegiteko aukera zen, helegileentzat inolako gasturik gabe «gubernatibamente escusando costas y dilapidaciones a los Interesados». Erabaki horren garrantzia 1767. urtean nabarituko zen Eibarko Udalean; izan ere, herri-diputatuen lehen aipamenak korrejidorearen aurrean eginiko helegite batekin baitzeukan zerikusia. Ardo gorriaren errematea zeramaten Sebastian Buruagak eta Andres Larreak udalari ordura arte bezala jarraitzea proposatu zioten, "*cantara*" bost erreal eta erditan saltzekotan. Kapitularrek proposamena onartu zuten, baina estreinatu berria zen herri-diputatuak protestatu egin zuen, ardo gorriaren salmenta errematera edo enkantera atera behar zela adieraziz. Baina kapitularrek dekretuz onartu zuten, «… y aun dado caso que se sacasen a candela fuesen en el tanto preferidos, y que esta determinazion y la prottesta de dicho sr. Diputtado de Comun se consultten con el Sr. Correjidor…»[129].

Herri-diputatuaren —Nicolas Joseph Jusue Hurtado de la Puenteren— protestak ardoaren horniketa eta salmentaren inguruan burutzen ziren praktika irregularren berri ematen digu. Izan ere, Antzinako Erregimeneko eredu ekonomikoaren arabera salmenta-askatasunik ez zegoenez, funtsezkotzat jotzen ziren zenbait elikagairen salmenta-eskubideak subastatu edo errematatu egiten ziren. Udalak gai bakoitzaren kalitatea bermatu eta gehienezko salmenta-prezioa ezartzen zuen, eta horren arabera, urte horretan gai hori prezio horretan saltzeko prest zeudenek proposamenak egiten zituzten, aho biziz, kandelak piztuta irauten zuen bitartean[130]. Errematatzaileek, udalarekin adostutako epean zehar —urtebete, normalean— beren ardurapean hartutako gaiaren horniketa bermatu behar zuten, isuna ordaindu nahi ez bazuten[131]. Udalari diru gehien eskaintzen ziotenek eskuratzen zituzten gai jakin horien salmenta-eskubideak: ardoa, haragia, olioa, xaboia, patta-

129. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1767-11-8.

130. Hortik, gai baten salmenta errematera edo enkantera ateratzeari "*poner en candela*" deitzearena. Enkante hitzak berak, "*En candela*" lokuzioarekin zerikusia daukala esango nuke.

131. 1802-1803ko negu gogorra zela-eta, ardo gorriaren errematatzaileek ezin izan zuten horniketa bermatu, eta ondorioz, udalak 360 errealeko isuna ordaintzera zigortu zituen, EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808),* 1802-12-19.

rra…[132]. Baina ikusten dugunez, elikagai guztiak ere ez ziren erematera ateratzen, eta badirudi udalkideek horniketa-eskubideak pertsona jakin batzuen alde luzatzearen aldeko ohitura zeukatela.

Herri-diputatuaren abizenek adierazten digutenez, Jusue ez genuen Eibarren sustraitutako familia bateko partaidea. Beharbada horrexegatik, askatasun gehiago izango zuen Eibarko handikiak bere salaketaren ikusmiran jartzeko orduan. Edonola ere, Nicolas Jusue y Hurtado de la Puente benetako buruhauste bat bihurtu zen Eibarko udalkideentzat, eta bereziki 1766ko matxinadaren zapaltzaileentzat. 1768an, jada kargua utzia zuela, beste protesta bat burutu zuen, 1767ko elizkizunetan bere lekua ez ziotelako gorde. Bere salaketan kapitularrak eta eskribaua jotzen zituen erruduntzat, zeren bere izendapenaren agirian «se me dio Posesion pacifica por su Justticia con preferencia en el Asiento a el de el sindico de ella ante Sebastian de Eguiguren escribano de sus Aiunttamientos, y esperimentado que en las funciones de Iglesia, y demas actos Publicos a que concurria estte Aiunttamiento dicho sindico Juan Bauptista de Albizuri, se antteponia y preferia en el suio al mio repeti muchos paso atenttos; para que se me amparase en dicha Posesion y propiedad (segun real instruccion antte el Alcalde de ella Andres de Espilla, quien haciendo poco aprecio me obligo a presenttarle varios escrittos antte dicho Eguiguren, escribano instandole executar el senttido de dicha real instruccion mandando a dicho sindico postergarse a mi Asiento, pidiendo de lo conttrario testimonio de lo obrado al dicho escribano para la Apelacion, que intterpuse a V.M., y finalmente Despues de haberseme tranpeado (sic) Mucho tiempo se me dio por dicho escribano que aunque algo deminuto Acredittan estos verdaderos pasajes siguiendose, y Conttinuandose en mis subcesores estte atropellamiento en dichos Asientos postergandose en el asumpto dicho sindico»[133].

Andrés Espila, Juan Bautista Albizuri, Sebastian Egiguren… Beraz, 1766ko matxinoen salatariak ziren herri-diputatuaren aurkako benetako gutxieste- eta konspirazio-kanpainaren antolatzaileak, hain zuzen ere, figura hau sortu berria zenean. Eta Jusuen protestaren jatorria elizkizunetan jasandako irain eta mespretxuetan badago ere, inozoak izango ginateke bere salaketaren karga sinbolikoa ez bagenu atzemango, eta gaur egungo balorazioez itsututa, bere protestan ultrakatolikoen arteko istilua besterik ikusiko ez bagenu. Zeren Jusuen hitzetatik nabaritzen denez —«Conttinuandose en mis subcesores estte atropellamiento…» zioen— bere buruaren ohoreak baino, betetzen zuen karguarenak kezkatzen zuen gehiago, bere

132. Beste zenbait eskubide ere erematera ateratzen ziren: gaztainen bilketa, udal-basoetako egurren garraioa… Berez, erematearena orain azaldutakoa baino sistema konplexuagoa zen. Udalak eskaini behar zituen zerbitzuak erematera ateratzen zirenean —bideen edo eraikinen konponketa, gehienetan—, udalak kobratu beharrean ordaindu egin behar izaten zuen, eta horrelakoetan diru gutxien eskatzen zuen harginaren proposamena onartzen zen, betiere udalak ezarritako baldintzak betetzen bazituen. Tamalez, ez dago erematearen mekanismoak aztertu dituen ikerlan askorik.

133. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-10-9.

ondorengoek jasaten zuten bazterketa salatuz eta merezi zuten errespetua aldarrikatuz[134].

Inolako zalantzarik balego, elizkizunen gaia protestaren hasiera baino ez zen, eta bere testigantzak ardo gorriaren erematean buruturiko irregulartasunekin jarraitzen zuen, ez baitzen deialdi publikorik egin, eta aurreko urtean bezalaxe udalak Manuel Larreari adjudikatu ziolako. Baina hori ez zen larriena, Jusuek erabakiaren kopia bat eskatu zuenean ukatu izana baizik «… y finalmente despues de largos dias, que presumo por inteligencias se me dieron dichos testtimonios retardado por dicho Eguiguren». Behin agiria eskuratuta Valladolideko Chancillerian helegitea aurkeztu zuen. Baina ardo gorriaz gain, pattarraren erematearen inguruan ere bazegoen zer salatu: «Sin prebia citacion a mi celebro dicha Justicia y Gobierno el rematte acostumbrado de la Probicion de Aguardientte con mil y tanttos reales de Adeala a fabor de dicha villa, y quedo el, en Manuel de Muguerza en quarentta quarttos por Azumbre, siendo assi que Juan Ignacio de Zela vecino de ella quiso que en Cabeza suia se sacase a publica subasttacion sin dicha Adeala sobre el ventajoso precio en pro del Comun de treinta y dos quarttos por Azumbre quien aunque pidio testimonio parece no se le dieron, en cuia virttud recurrio a mi pidiendo le Ausiliase»[135].

Protesta honetan, argi dakusagu zein zen herri-diputatu eta herri-sindikoen eginkizun nagusia: herriaren horniketarako gaiak ahal zenik eta merkeen eskuratze prozesua kontrolatzea. Kasu honetan, udalari gehiago interesatzen zitzaion 1.000 eta piku erreal eskuratzea, kontsumitzaileei gaiak merke eskaintzea baino. Zelaren proposamenarekin pattar litro bakoitzeko erreal bat aurrezten zuen kontsumitzaileak; baina udalak osagilearen soldata ordaintzeko beharrezkoak ziren mila eta piku errealen "*adeala*" galtzen zuen. Oro har, herritarrek irabazten zuten urtean mila litro pattar baino gehiago kontsumitzen zirelako, eta kontsumitzaileek aurrezten zutena udalak galtzen zuena baino gehiago zelako. Gainera udalak beste aukera batzuk zituen diru hori lortzeko, Valladolideko Chancilleriatik Jusuen aldeko sententzia ailegatu zenean ikusi zen bezalaxe: lau errealeko zerga ezarri zien auzokide ("*vecinos Arraigados*") bakoitzari, bina beste etxebizitza guztiei eta bana alargun txiroei.

134. Esanguratsua da hilabete batzuk lehenago Joseph Antonio Berraondo herri-diputatuak Arginao baserrirantz zihoan zubia konpondu egin behar zela adierazi zuenean, gainerako udalkideek eman zioten erantzuna: «Acordaron que el mismo Joseph Antonio lo hiziese a su Costa, y que la noble villa le satisfaria su Coste y Costas» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-5-22. Proposamen horrekin kapitularrek Berraondori langile xume bat baino ez zela gogoratzen zioten; eta era berean, udaleko pribilegio eta mesedeen sarean sartzen zuten, herri-diputatua herriarengatik barik bere buruaren onuragatik zebilela aditzera emanez. Testuinguru horretan, Jusueren protestak herri-diputatuaren karguak zeukan garrantzia eta erantzukizuna jakinarazi nahi zien herritar xumeei.

135. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-10-9.

Jusuek buruturiko protestetatik ondoriozta dezakegunez, herritar guztiak ziren erremateetan erabiltzen ziren trikimailuen jakitun, nahiz eta kargu berriak sortu arte horren aipamenik ez aurkitu udal-aktetan. Jusuek berak, makinatxo bat esfortzu egin behar izan zuen bere protestak aktan jaso zitezen, are gehiago akten kopiak lortzeko. Akten kopiarik gabe, helegitea aurkezteko aukerarik ez zegoenez, kapitularren jukutriarik erabiliena hau genuen. Kargu berriak agertzea, kapitularren amarruei mugak ezartzera zetorren. Eta zentzu horretan, ez da oharkabean pasatzekoa 1766ko matxinadaren zanpatzaileak izan zirela Jusueren etsai nagusiak, bai arlo sinbolikoan (elizkizunetan), bai praktikoan (akten kopiak ukatuz). Benetan tamalgarria da, 1769-1776 epeari buruzko akta-liburuak desagertuta egotea, ez baitugu polemika honen jarraipena ezagutzeko betarik. Zeren, ziur aski, 1768ko hau, herri-diputatuak udalean sartzearen ondorioz sortuko zen epe liskartiaren lehen kapitulua baino ez baitzen izan. 1777-1784koa dugu hurrengo akta-liburua, eta ikusiko dugun bezala, herri-diputatu eta herri-sindikoen protestak etengabe errepikatuko ziren.

Herri-ordezkarien erronkak Eibarko Udalean

Bideen eraikuntza edota konponketa kontrolatzea herri-ordezkarien zereginetariko bat zen. 1779an, korrejidorearen aurrean aurkeztutako protestaren erantzuna ailegatu zitzaien, Eibarko hirigunetik Maltzagarantz egin behar zen bidea zela-eta. Herri-ordezkariek salatzen zutenez «… los rematantes deviendo arreglarse a la demarcacion y condiciones del rematte, y respectivas Escripturas, han mudado las Estacas a su arbitrio y antojo, y causado con esta variacion algunas mas obras sin haver dado cuenta a este tribunal ni a dicha villa». Aurrekontutik kanpo egindako lanen ordainketa onartzeko, auzokideen batzar orokorrera deitzea eskatu zioten alkateari. Baina herri-ordezkariek deialdia atzeratzea eskatu zioten alkateari, korrejidoreari luzaturiko galderaren erantzuna ailegatzen zen bitartean. Herri-ordezkariek ziotenez, bidearen eraikuntzaren errematatzaileei gehiago ordaintzea ezinezkoa zen, zeren «la villa no tiene facultades para condescender a las prettensiones de las Asentistas y grabar al fondo publico», eta hauen iritziari jarraituz, auzokideen batzarrak uko egin zion aurrekontuan sartuta ez zeuden konponketa guztiak ordaintzeari, eta bai ordea «si se hallase haver mejoras siendo estas utiles y necesarias y no de otra forma se les satisfaga a su tiempo lo que fuese justo por ellas»[136]. Ikusten dugunez, urte hauetarako herri-ordezkariek udalean zeukaten pisua eta eragina sendotuta zegoen, batzarra atzeratzea lortzeaz gain, auzokideen borondatea irabaztea lortu baitzuten.

Herri-ordezkarien zeregina ez zen bideen konponketa kontrolatzera mugatzen. Hurrengo urtean, herri-diputatuak zenbait lur-jabe udal-lurrak okupatzen ari

136. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-11-7.

zirela salatu, eta mugarriak ezartzea eskatu zioten udalari[137]. Eta 1781ean, 1766ko matxinadaren mamua piztu zuten berriz, zenbait lur-jabe «cuios nombres y apellidos omiten expresarlos», udalerrian ekoitzitako garia eta artoa pilatzen ari zirela azalduz, eta erostera joaten zirenei ere ukatu egiten zietela: «Ni a los que hiban a pedirles con dinero de contado (…) sin duda con la mira de rettenerlos hastta que por estte medio suban de precio, o con la de extraerlos afuera partte por cuio mottibo se ha esperimenttado, y experimentta mucha faltta en el abasto publico de pan como es nottorio en esta villa, de modo que no sea hallado ninguno en las tiendas publicas y que tienen obligacion de tenerlo»[138]. Auzokideen batzarrak herri-diputatuaren eskakizuna onartu zuen. Erabakiaren aurka protestatu zuen bakarra Andres Aritio izan zen, Zumaran alkatearen ordezkoa 1766ko matxinadan!

Herri-ordezkarien jarduerari buruzko hurrengo erreferentzia 1784koa da. Maltzagarantz zihoan bide berriaren eraikuntza ordaintzeko mailegu bat eskatu behar izan zuen udalak, eta zorra ordaintzeko ardo gorriari sisa[139] bat ezarri zitzaion. Juan Andres Mendizabalek —herri-diputatuak— eta Antonio Doistuak —herri-sindikoak— salatzen zutenez «… hallandose mandado en la misma real faculttad que con el productto de la referida sisa se rediman los censos segun alcanze el caudal a fin de que cese el grabamen del redittuado proporcionadamente; subcede que debiendo en su consecuencia prozeder sin demora al empleo del caudal sobrante en el año ulttimo en la redempcion de censo astta la concurrentte canttidad no sea (sic) hecho asi; ni se ttratta de probidenciar en el asuntto, esttando muertto el Dinero»[140]. Badirudi ardo gorriaren sisak bereziki kezkatzen zuela Mendizabal, aurreko urtean ere eliz kabildoak eta mojen komentu biek sisarik ordaintzen ez zutela-eta, bere kexua entzun baitzen udalean[141].

Ikusten denez, herri-ordezkarien presentziak aldaketa nabarmenak eragin zituen Eibarko Udalaren funtzionamenduan: bideen konponketa eskatzen, erremateetan buruturiko ustelkeriak azaleratzen, herri-zorrari aurre harturiko erabakiak zaintzen, bihi-pilaketak salatzen… Beraien eginkizun nagusia herritarren horniketa ahal zenik eta baldintza hoberenetan bermatzea izanik, suspertu zituzten ekimenek

137. Herri-diputatuak zioenez «… los terrenos concejiles de aquella villa se demarcaron en el año pasado de mil setecientos veinte y dos, y desde entonces no se ha practicado la necesaria y combeniente diligencia de reconozer la demarcacion y amojonamiento, y de esta omision puede resulttar agravio a la villa en sus Terrenos Concejiles si algunos dueños de los confinantes se han intternado, y aplicado algunas porciones, que pueden hacer falta a dicha villa, y para remedio de estte descuido, y de los perjuicios, que puede tener la expresada villa en sus terrenos concegiles» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1780-10-22.

138. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1781-11-11.

139. *Sisa* kontsumo-gai bati ezartzen zitzaion zerga berezia zen, eta gehienetan herri-lan garestiak finantzatzeko erabiltzen ziren. Behin ordainduta, sisa kendu egiten zen berriz. Era horretako zerga bereziak ezartzeko erregearen baimena beharrezkoa zen.

140. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1784-4-11.

141. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1783-8-20.

bizitza ekonomikoaren arlo gehienak ukitu zituzten. Izan ere, sasoi hartan udalaren finantzaketa-iturria zeharkako zergan oinarrituta zegoenez, inbertsioak egiteak kontsumo-gaiak zamatzea suposatzen zuen, eta eztabaida horren bidez sartzen ziren herri-ordezkariak udalaren dinamika politikoan. Eta Jusueren garaia latza izan bazen ere, badirudi hamarkada bat beranduago herri-ordezkariak ezinbesteko erreferentzia bihurtu zirela.

Prozesu honetan, Jusuen ondorengoek auzokideen konfiantza eta elkartasuna irabaztea lortu zuten, berez, herri-diputatuak eta herri-sindikoa bakarrik auzokide ez ziren herritarren ordezkariak baziren ere. Beharbada egongo ziren, dirudunak izanda ere, udal-gobernutik baztertuta zeuden herritarrak, kaparetasuna ezin zutelako frogatu. Baina, herri-ordezkarien ekimena ez zen horiengan oinarritu, milarrik ez zutelako udaletik kanpo egoteaz gain, biziraupen-egoeran bizi ziren herritar xeheengan baizik. Hau jakinda, auzokide gehienekin sortutako konplizitateari beste irakurketa bi gehitu ahal dizkiogu: bata, auzokide gehienak, bozkatzeko eskubidea eduki arren, udal-gobernutik zeharo baztertuta zeudela; eta bestea, XVIII. mendeko azken herenean areagotu zen krisialdiaren ondorioz, lur-jabe txikiak ere txirotze-prozesu bortitzean sartuta zeudela. Hortik, herri-ordezkarien eskakizunak norberarenak —auzokide txirotuenak— balira bezala onartu izana.

KONKLUSIOAK

1766ko matxinadaren arrazoi nagusia lur-jabe handiek —merkatarien laguntzarekin— egiten zuten bihien pilaketa eta espekulazioa izan zen. Baina, esan denez, aleen prezioaren gorakadaren aurka hasitako protesta horren inguruan, herritar xumeen eskubideekin zerikusia zeukaten eskakizun piloa bildu zen: neurri zaharrak berrezartzea, udal-lurrak dohain erabiltzeko askatasuna, hamarrena desagertzea… Esparru ezinduenen aldarrikapen desberdinak biltzeko erakutsi zuen gaitasunak adierazten digu 1766koa ez zela ale-espekulatzaileen aurkako funtsik gabeko errebolta izan. Oinarri sakonak zituzten arazoak eta disfuntzioak azaleratu ziren egun haietan, eta matxinoek, “agrabio” horiek guztiak bildu eta egoeraren erruduntzat jotzen zituzten foru-agintarien aurka jotzeko kemena erakutsi zuten. Eta bai lortu ere. Gaur egungo ikuspegitik harrigarriena hau da: egun gutxitan diputazioa eta korrejidorea beraien nahietara makurraraztea lortu zutela.

Baina mugimendu matxinoa, hori zen, mugimendu bat. Naturaltasun osoz, herri batzuetatik besteetara iragan zen, aldarrikapenak berdintsuak baitziren leku guztietan. Baina zuzendaritza finko eta orokor baten gabeziak porrotera eraman zuen. Ekimenari jarraipena eman beharrean, matxinoak beren etxeetara itzuli ziren, helburuak lortu ahala. Utzikeria horrek, arinago edo beranduago, mugimenduaren heriotza suposatuko zuen, ikusi dugun bezalaxe. Ziur aski, Azkoiti, Azpeiti, Elgoibar, Eibar, Deba eta beste herrietako matxinoek ez zeukaten indar militar finkorik osatzeko asmorik, ezta gaitasunik ere… Horrela jokatu izan balute, eta

indar guztiekin herrialdeko garien gordeleku nagusira —Donostiara— abiatu, Antonio Arriola eta bere laguntzaileek ere beste era batera jokatu behar izango zuketen. Baina matxinoak beraien herrietako eta diputazioko buruek egindako juramenduaz fidatu ziren. Akats larria, historiak frogatu duen bezalaxe, handimandiek ez dutelako inolako eskrupulurik izaten emandako hitza apurtzeko orduan, horrek galdutako boterea berreskuratzea ahalbidetzen badie.

Gertakizun haietan, badirudi Eibarrek orain arte uste izan dena baino paper garrantzitsuagoa jokatu zuela. Udaletxean sortu ziren istilu latzek horrela adierazten digute; gertakizunongatik Eibarko 175 auzokide zigortu zituztela jakiteak —esate baterako, auzokide guztiak— matxinoen aldarrikapenek zeukaten oihartzunaren berri ematen digu, gero eta populazio handiagoa zuen udalerri honetan bihien gabezia inon baino larriago nabaritzen baitzen. Kindelan koronelak Eibarrera bere konpainiarik trebatuena bidali izanak, bertako matxinoak bereziki oldarkorrak zirela adierazten digu. Bestaldean, Zumaran indianoa, Juan Atxa, Andrés Espila eta Juan Andrés Laskurain, lau katuk osatutako talde gisa agertzen dira. Eta horien salaketei esker, Kindelanek Eibarko mugimendu matxinoa errotik moztea lortu bazuen ere, eibartarrek ez zuten erraz ahaztu lau salatariek jokaturiko papera. Guk Laskuraini buruzko datuak baino ez ditugu ezagutzen, baina nahiko esanguratsuak dira: Laskurain eraso baten beldur izan zen bere bizitza osoan; iluntzen zuenean morroi baten laguntzarekin abiatzen zen Irarragorri bere baserrira; eta hamabost urte beranduago —hamabost!—, norbaitek bere abeletxeari su eman zion[142]. Ikusiko dugun moduan, 30 urte beranduago ere bazegoen Laskurainek 1766ko matxinoen aurka jokatutako papera gogoratzen zuenik.

Zer dira ba 30 urte, 1766ko agintariek 1718ko gertakizunak bizi-bizi zituztela dakigunean? Ez ditugu Arriola del Corralen ahaidetasun-harremanak berriz gogoratuko. Gipuzkoako Diputazioak Gaztelako Kontseiluari bidalitako memorialean, 1718ko matxinada behar bezala ez erreprimitu izana jartzen zuen arazoaren sustraian; eta matxinoak ere, neurri batean, 1718koen ondorengoak sentitzen ziren[143], Joaquin Hurtado handikia Azkoitiko matxinoak baretzera hurbildu zenean, matxinoen erantzuna honako hau izan baitzen: «Que se abuelo compuso a la gente de la otra machinada». Kasu honetan, memoria historikoa gordetzeaz gain, bidegabekerien aurka altxatzeko eskubidea aldarrikatzen zuten matxinoek, mugimendua baretu nahian zebilen handikiari bere arbasoak ere matxinoak izan zirela aurpegiratuz.

Neurri berean, 1766ko matxinada, merkataritza-harremanak arautzeko erabili beharreko sistemari buruzko eztabaidaren ardatzean kokatzen da. Pierre Vilarrek

142. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1781-1-28.

143. «Especial mención merece la referencia que se realiza a los sucesos de 1718 por cuanto puede rendir buena cuenta de lo presente que estaba en el entramado comunitario la imagen de la anterior machinada, recordándose además todos los extremos relativos a la responsabilidad, propósito y participación» (Iñurrategui, 1997: 81).

dioenez, matxinoen eskakizun nagusia aleen merkaturatze askea lortzea izan zen. Eta Iñurrategik, ildo beretik, dio hau nahi zutela: «La libre circulación con las compras que recíprocamente se hacen, y prohibiendo que los bretones lo traigan como en otro tiempo de su cuenta. La protesta por tanto lo era, en principio, contra aquellos comportamientos que neutralizaban la libre y franca circulación, un dato que desde luego conviene retener»[144]. Nire ustez, baieztapen horrek merezi du ñabardurarik. Merkataritza-askatasuna bai, baina askatasun osoa. Hau da, herrialdean bertan ekoizten eta pilatzen zen alea bihitegietatik atera eta zuzenean merkaturatu ahal izateko askatasuna, ez interesen arabera gorde eta etekin gehien ematen zuen lekuan saltzeko askatasuna.

Horrez gain, Vilarren ustez 1766ko matxinada Frantziako Iraultzaren hasieran bizi izandako Irinen Gerra eta Izu Handiaren aurrekaritzat har dezakegu. Fernandez de Pinedok, ordea, zalantzan jartzen du ikuspegi hori bere eraginaren "ratio"a askoz txikiagoa izan zela azalduz: «Matxinadaren gunetik urrunen zeuden lekuetaraino 25 kilometro baino ez zeuden zuzen joanda, 40 bat kilometro errepidetik. Eskualde batzuetan bakarrik jazotako gertakaria izan zen. Matxinatuek ia ez zuten beste altxamendu batzuei buruzko aipamenik egiten, Madrilgo eta Zaragozakoari buruz esaterako» (Fernandez de Pinedo, 1999: 416, 417). Hori zehaztu beharra dago, Donostiako txokoetan itsatsita agertu zen idatzi anonimoan Esquilacheri buruzko erreferentzia egiten zela ikusi baitugu. Matxinadaren eragina Gipuzkoako herrialdera mugatu zela onartuta ere, horren arrazoien bila hasi beharko ginateke. Nire ustez, matxinoen aldarrikapenak foru-erregimenaren espirituan oinarritzen zirenez, beraien ekimenak ez zuen zentzurik Gipuzkoatik kanpo, lurralde horietan beste errealitate politiko-juridikoa, ekonomikoa eta kulturala bizi zutelako, baita Bizkaian ere.

Bukatzeko, 1766ko maiatzaren 5eko Erret Aginduaren ondorioz sortutako udal-kargu berrien garrantzia aipatu behar da. Herri-diputatua eta herri-sindikoak agertzeak udal-politika suspertu zuen. Eibarren bertan ikusi dugunez, kargu horiek izan ziren herri mailako handikien gobernu despotikoari aurre egin ziotenak, eta prozesu horretan auzokide txirotuenen elkartasuna irabazi zuten. Hurrengo hamarkadetan ere protagonismo izugarria hartuko zuten, kaparetasuna eta milarrak zirela medio, biztanle xumeek herri mailako erabakietan parte hartzeko zuten aukera bakarra bihurtu baitziren.

144. Iñurrategui, 1997: 75.

1. ERANSKINA

1767-1773 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1767	1767	1768	1769	1770	1771	1772	1773	1773=>
ACHA ALBIZURI Juan Bautista		SPG							
JUSUE y HURTADO Nicolas Joseph		HD							
GUISASOLA AREJITA Martín		ER							
AGUIRRE Juan Joseph	Bai	ER							
OLAVE Domingo "menor"		A1	A1						
ESPILLA Andrés	Bai	A1							
GORBEA ANGULO, Juan Francisco			HS						
ARITIO Andrés	Bai		HD			A1			Bai
BERRAONDO Joseph Antonio			HD						
ARETA Francisco	Bai		ER						
ACHA ORBEA Andrés	Bai		ER						
AZPIRI AZALDEGUI Domingo				SPG					
ZULOETA Ignacio				HS					
ECHABARRIA Joseph				HD	HD				Bai
ZUFRIATEGUI Joaquín				HD					Bai
IRAEGUI Francisco	Bai			ER					
ARGUIANO Lorenzo Ignacio	Bai			ER					Bai
LASCURAIN Juan Andrés	Bai			A1					Bai
VERGARA Alberto					SPG				
URCAREGUI Marcos					HS				
URTEAGA Francisco					HD	HD			Bai
SARASQUETA Andrés	Bai				ER				Bai
ACHA ORBEA Juan					ER				
ABANZABALEGUI Pedro	Bai				A1				Bai
ACHA GOROSTIETA Andrés						SPG			Bai
MUGUERZA Pedro						HS			Bai
UNZETA BARRENECHEA Bartolomé						HD	HD		
OLAVE Andrés						ER			
AZPIRI AZALDEGUI Lucas						ER			
ZULOAGA Marcos							SPG		
APELLANIZ Gregorio							HS		
ZULUETA Pedro							HD	HD	
IBARRA Martín Antonio							ER	ER	Bai
ARGUIANO AZPIRI Joseph							ER		Bai
PAGAEGUI Christobal	Bai						A1		Bai
PAGOAGA Domingo								SPG	
IBARRA Miguel								HS	
ECENARRO Pedro Antonio								HD	Bai
UNCETA BARRENECHEA Martin								ER	Bai
ARETA Domingo "menor"								ER	
ARIZMENDI Francisco Antonio								A1	

Laburduren esanahaia, aurreko kapituluaren eranskinetan begiratu.

2. ERANSKINA

1774-1781 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1774	1774	1775	1776	1777	1778	1779	1780	1781	1781=>
IBARZAVAL Pedro		SPG								
MURUA Andrés		HS								
IRUSTA Gaspar		HD	HD							Bai
ECENARRO Pedro Antonio	Bai	HD				HS				Bai
ECHABARRIA Joseph	Bai	ER					A1			Bai
UNCETA BARRENECHEA Martin	Bai	ER							ER	
LASCURAIN Juan Andrés	Bai	A1				A1				Bai
GUISASOLA ESCAREGUI Martín			SPG							
UNCETA BARRENECHEA Rafael			HS							
ARRAZAIN Francisco Antonio			HD	HD				SPG		Bai
AGUIRRE Andrés	Bai		ER							
URTEAGA Francisco	Bai		ER							Bai
ARGUIANO Lorenzo Ignacio	Bai		A2							
ZUMARAN Sebastian	Bai		A1							Bai
GUISASOLA Gabriel				SPG			HD	HD		Bai
ARETTA Atanasio				HS						
LARRAÑAGA Juan Antonio				HD	HD					Bai
VERGARA GALLAIZTEGUI Andrés	Bai			ER						
ZUFRIATEGUI Joaquín	Bai			ER						
PAGAEGUI Christobal	Bai			A1						
MENDIZABAL Juan Bauptista	Bai				SPG			HD	HD	Bai
ORMAECHEA Francisco					HD	HD				
IBARZAVAL Ignacio María					ER				SPG	Bai
UNZETTA ARIZMENDI Pedro					ER					
OLAVE Domingo					A2	HD	HD			Bai
SARASQUETA Andrés	Bai				A1					Bai
IBARRA Martín Antonio	Bai					SPG				Bai
ARETA ZUBIAURRE Domingo	Bai					ER				Bai
MENDECUTE Joseph						ER				
OLAVE Fernando							SPG			Bai
ARGUIANO GARAGARZA Joseph							HS			
ACHA GOROSTIETA Andrés	Bai						ER			
ARITIO Juan Bauptista							ER			
SARASQUETA Joaquín							A2	ER		Bai
ECHEVARRIA Francisco								HS		Bai
MANDIOLA Domingo								ER		Bai
ARITIO Andrés	Bai							A2		
AZCUE Francisco Antonio									HS	Bai
SARASQUETA Francisco Antonio									HD	Bai
ARAMBURU Felix									ER	Bai
ABANZABALEGUI Pedro	Bai								A1	Bai

3. ERANSKINA

1782-1788 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1782	1782	1783	1784	1785	1786	1787	1788	1788=>
BURGOA Francisco Ignacio	Bai	SPG2							
LASCURAIN Juan Andrés	Bai	SPG		HS					
ARGUIANO AZPIRI Joseph	Bai	HS			ER				
ARTAECHEVARRIA Domingo		HD	HD						
SARASQUETA Francisco Antonio	Bai	HD							
SARASQUETA Andrés	Bai	ER			HS				
ARETA ZUBIAURRE Domingo	Bai	ER							
OLAVE Domingo	Bai	A1				SPG			Bai
LARRAÑAGA Juan Antonio	Bai		SPG						Bai
GABIOLA Juan Andrés			HS						Bai
MENDIZABAL Juan Andrés			HD	HD				HD	Bai
LECETA Andrés	Bai		ER						
MUGUERZA Felix			ER						Bai
BUSTINDUI Francisco Antonio	Bai		A1						Bai
ARITIO Manuel Joaquin				SPG					
DOISTUA Antonio				HS					Bai
BUSTINDUI Juan Esteban				HD	HD				Bai
URTEAGA Francisco	Bai			ER				ER	
LASCURAIN Juan Andrés "menor"				ER					Bai
ECHABARRIA Joseph	Bai			A1					Bai
UBERUAGA Andrés					SPG				
ZUMARAN UBERUAGA Andrés					SPG				
ECENARRO Pedro Antonio	Bai				HD	HD			
AGUIRRE AZALDEGUI Juan Andrés					ER				Bai
ARRAZAIN Francisco Antonio	Bai				A1				
GUISASOLA EGUIGUREN Antonio						HS			
ARTAECHEVERRIA Francisco						HD	HD		Bai
IBARZAVAL Ignacio María	Bai					ER			Bai
BERGARA BIZTEGUI Andres						ER			
ZUMARAN Sebastian	Bai					A1	A1		Bai
VERGARA Joseph							SPG		Bai
ECHEVARRIA Francisco	Bai						HD	HD	Bai
SARASQUETA Joaquín	Bai						ER		Bai
GANCHEGUI Antonio							ER		
IBARRA Miguel Antonio								SPG	Bai
EGOCHEAGA Blas Antonio								HS	
UNZETA Pedro								ER	
MENDIZABAL Juan Baupttista	Bai							A1	Bai

3. kapitulua
Frantziako Iraultzaren zaplada (1789-1795)

IRAULTZA BURGESEN EZTANDA

Ilustrazioaren eragina

XVIII. mendearen erditik aurrera, Ilustrazioaren eta mugimendu entziklopedistaren hedapenarekin batera, monarkia absolutuaren oinarri ideologikoak gero eta ahulagoak ziren. Ilustratuek, jarduera ekonomikoak suspertzeko buruturiko ikerketa eta ekimenekin batera, filosofia-kontzeptuak eta gobernu politikoaren formak aztertu zituzten. Zentzu horretan, Montesquieuk 1748rako idatzita zeukan *L'esprit des lois* saio famatua, botere legegilearen, judizialaren eta betearazlearen arteko banaketa proposatzen zuena; Rousseauren *Contrat social* 1764an argitaratu zen; 1765an Voltaireren *Ideés republicaines*… Ilustratuen kritiken jasotzaile nagusia eliza katolikoa zen, erakunde hau zelako pentsamendu-askatasunaren mugatzaile nagusia; ilustratuek jatorri jainkotiarreko monarkiaren teoriari eraso zioten, eta bide horretatik, erregeen babesa eta laguntza lortu, horiek ere itota sentitzen zirelako, kleroak erabaki politikoetan zituen esku-hartzeen ondorioz. Baina jatorri jainkotiarreko teoriaren porrotak, agian oharkabe, erregetza absolutua bera jarri zuen zalantzan, teoria berriaren arabera, herria eta herritarrak zirelako boterearen jatorria, nahiz eta horiek gero, zintzo-zintzo, erregearen esku utzi beraien subiranotasuna[145]. Erregeen eta ilustratuen arteko aliantza hau oso eraginkorra suertatu bazen ere, apurka-apurka usteltzen joan zen, batez ere, mugimendu ilustratuaren magalera hurbildutako pentsalari gazteak, monarkiarenganako obedientzia itsua aldarrikatzeari uko egiten hasi zirenean.

Hamairu Kolonien Independentzia

1776an Ipar Amerikako Hamairu Koloniek independentzia lortu zuten Ingalaterratik, eta independentziarekin batera herriaren subiranotasuna aldarrikatu zuten, monarkia absolutistaren ereduari errepublika federal demokratikoa kontrajarriz. Gatazka horretan Frantziako borboitarrek amerikar independentista iraultzaileei

145. «Los reyes ilustrados creyeron servirse de una doctrina que apoyaba sus derechos sin ninguna reserva, y a cambio de ello se consideraron obligados a otorgar plena libertad a sus teóricos. Estos, afirmando siempre el poder absoluto de los monarcas que los protegían, no tardaron mucho en llegar a determinar la doctrina de la soberania popular» (Artola, 1989: 17).

lagundu zieten —Ingalaterra ahultzeko, noski—, eta emandako laguntzaren truke zenbait lurralde eskuratu bazituzten ere, gerrate horrek eragindako zorrari aurre egiteko, Luis XVI.ari Estatu Jeneraletara deitzea baino beste irtenbiderik ez zitzaion gelditu. Hori ez zen okerrena izan; izan ere, amerikar iraultzaileekin kontaktuan egondako zenbait militar ideia iraultzaileez kutsatuta bueltatu ziren: Lafayette jenerala, besteak beste.

Frontoiko juramentua

1789ko ekainaren 20an, Estatu Jeneraletan —"*États Generaux*"— parte hartzen zuten ordezkariek zarratuta aurkitu zuten batzarretarako erabiltzen zuten gela handiko sarrera eta soldadu talde batek babestuta. Aurreko bileran istiluak izan zirenez, eztabaidarekin jarraitzea oso arriskutsua bihur zitekeela ikusirik, momentuz behintzat, batzarrak bertan behera uztea agindu zuen Luis XVI.ak, batzargelan konponketa batzuk egin behar zirela argudiatuz. Kanpoan bildutako ordezkariak atea zeharkatzen saiatu baziren ere, aurrera jarraituz gero su egiteko agindua zeukatela adierazi zien soldaduen buruak, eta egun haizetsu hartan, bilerekin jarraitzeko topaleku berri baten bila hasi ziren ate aurrean bildutako ehunka diputatuak.

Batzuek, patioan bertan, erregearen leiho azpian biltzea proposatu zuten; besteek, Pariseko bidea hartzea, bilerak bertan jarraitzeko; azkenean, Guillotin diputatuak, errege-familiak pilotan jokatzeko erabiltzen zuen frontoia handik hurbil zegoela ohartarazi zuen, eta diputatuak harantz abiatu ziren. Upelen gainean asmatutako oholtza baten gainetik aritu ziren hizlariak, eta gainerakoak, jarlekurik ezean zutik, haien inguruan bildu ziren. Harrezkero bilerak egiteko beste kokagune bat aurkitu bazen ere, frontoi hartan hartutakoa da lehen aipatutako juramentua, "*le Jurament du Jeu de Paume*"; eta hantxe sortu zen, handik 24 egunera piztuko zen matxinada herrikoia gidatu eta iraultza bihurtu zuen taldea. Aurreko kapituluan ikusi dugunez, zuzendaritzarik gabe, antolakuntza iraunkorrik gabe, herri-erreboltak zanpatuak izaten ziren. Frontoiarena, beraz, euskaldunon artean kontatzeko anekdota polit bat izateaz gain, baliagarria da Frantziako borboitarren tragediaren lehen agerraldiaren eszenografia islatzeko; azken agerraldian ere, lau urte geroago beste euskaldun bat aurkituko dugu, Joseph Garat, diputatua eta Justizia ministroa, heriotza-zigorra irakurri ziona errege-familiari (Agirreazkuenaga, 1993a: 61).

Iraultzaren garaipena

Frantziako Iraultza, ez zen goizetik gauera sortutako errebolta izan. Aitzitik, oinarri sakonak zituen: frantziar estatuaren gainbehera ekonomikoa, despotismoaren eta ilustrazioaren arteko lehia ideologikoa, Ipar Amerikako kolonien independentziak eskaintzen zuen eredu politikoa, eta, horren guztiaren katalizatzaile, 1788-1789ko uzta txarrek nekazari xumeengan eragin zuten haserrea. Baina oraingo honetan sektore matxinatuek gidaritza alternatibo bat zeukaten, eta garrantzitsuagoa dena, etorkizunari begira planteaturiko proiektu berriztatzaile bat.

1789ko uztailaren 14an frantziar iraultzaileek Pariseko "*La Bastille*" deituriko gotorlekua hartu zuten. Matxinatuek eskuratutako gaztelua, Luis XVI.aren presondegia eta arma-biltegia izatez gain, monarkia absolutistaren eraikinik gorrotatuenetariko bat zen; hartaz jabetzeak aurrerapauso garrantzitsu bat suposatu zuen despotismoaren aurka borrokatzen zutenentzat; eta ez soilik sinbolikoki.

Ondoren etorri zena ere ezaguna da: iraultza, errege-hilketa, Konbentzio Gerra, desamortizazioa… Egia esan, hexagonotik kanpo, Frantziako Iraultzak ez zuen epe motzera sistema politikoaren aldakuntzarik eragin. Alderantziz, bere inguruan kokatzen ziren potentzia absolutistek mugak zarratu zituzten ideia iraultzaileen sarrera ekiditeko eta, ministro frantsestuen bazterketaren ondorioz, kleroa galdutako botere eta eragin politikoa berreskuratzen hasi zen, are gehiago, frantziar monarkia errepublika bihurtu zenean, errege-familiaren buru-mozketa zela-eta. Zentzu horretan, lehen une horretan, behintzat, Frantziako Iraultzak politika erreakzionarioak indartu zituen inguruko estatuetan, eta bere benetako eragina lau urte beranduago hasitako Konbentzio Gerraren bidez baino ez zen nozituko, eta soilik gerrak zapaldutako lurraldeetan.

IRAULTZAREN LEHEN UHINAK EIBARREN

Espainiar agintariak Frantziako Iraultzaren oihartzuna isiltzen saiatu baziren ere, Pariseko gertakizunak Europa osoan zehar barreiatu ziren. Euskal Herrian, Inkisizioaren ahaleginak alferrekoak bihurtu ziren, aurretik entziklopedisten liburu debekatuak sartzen ziren bide berdintsuetatik sartu baitziren ondoren ere iraultzaile frantziarren argitalpenak. Hainbat isilpeko paper eta dokumentu, 400etik gora, konfiskatu ziren Euskal Herrian, bi urteren buruan. Donostian, gertaera guztien berri izaten zen eta iraultzaren aldekoak bildu eta, Konstituzioaren adiskideen elkartea sortu zen (Agirreazkuenaga, 1993a: 61). Bilbon, Paueko merkatari batek Bastillaren hartzea islatzen zuten irudiak zeuzkaten abanikoak saltzen zituen; beste batzuetan, Lafayette jenerala "askatasunaren berrezartzaile" legez agertzen zen; eta ez ziren falta kultu-askatasuna aldarrikatzen zuten olerkiak[146]. Itsasoa, muga baino gehiago, lurralde ezberdinen arteko zubia izaten da sarri, eta euskal kostaldea ideia berrien lehorreratze-leku bihurtu zen.

1789ko uztak eskas-eskasak izan ziren, eta 1766ko matxinadaren itzala hurbilegi zegoen oraindik, aleen gabeziak sorraraz zitzakeen istiluez ez ohartzeko[147]. Gipuzkoako udalerri gehienak bezalaxe, Eibar ere aleak eskuratzen saiatu zen. Langileen soldatek ez zutenez jateko lain ematen, 1789ko martxoaren 29ko udalbatzarrean «… después de detenida deliberación encaminada a buscar alivio para la clase obrera», Gasteizen garia eta artoa erostea erabaki zuten, gero herrian mer-

146. Herr, 1988: 200.

147. «Matxinadaren mehatxua erabili zuen 1789an Eibarko udalak "Paneo-ogi kutxa" sor zezan. 1808 urtera arte Eibarko herrian, gestore berezia aurkituko dugu oinarrizko produktuen prezioak igo ez zitezen ardurarekin, batez ere, garia eta artoa» (Uriarte, 1998: 56).

keago saltzekotan. Horrela, 116 errealetan erositako gari anega —garraioa barne—, 80 errealetan saldu zuten herritarren artean. Bihien erosketak eragindako defizita orekatzeko edari alkoholikoak zamatu zituzten: ardoa, mistela eta pattarra (Mugica, 1990: 215, 216).

Irailean, uztak bildu berriak zirela, bihiak eskuratzeko mailegu bat eskatzea proposatu zuten udalgizonek, komenigarria baitzen orduantxe egitea «… ahora que es tiempo oportuno un acopio de granos (…) sin aguardar a que suban más de precio»[148]. Hurrengo urtean udalerrian ekoitzitako aleak herritarren artean banatzea agindu zuten. 1791ko banaketan azaltzen denez, badirudi egoera bere onera bueltatzen ari zela, zeren aleok 40 errealetan banatu zirela argitzen baitigu akta-liburuak[149]. Edonola ere, aleen espekulazioa ekiditeko udalak abian jarritako ekimenak ez dira oharkabean pasatzekoak, beharbada, hortxe bertan zegoen iraultzaren mehatxuak suspertuak.

Auzoko erreinuan gertatzen ari zena, ordea, ez da inondik inora islatzen Eibarko udal-akta liburuan. Hau ez da salbuespen bat. Muga ondoko Irunen, adibidez, 1792ko martxokoa dugu lehen aipamena, militarki presta zitezen «… en caso de que las turbaciones del Reyno de Francia llegaren, o intentaren ocasionar algún daño en este País»[150]. Eibarren, 1793ko urtarrilean aurkitzen dugu lehen erreferentzia.

PRESTAKIZUN MILITARRAK

"Padre por hijo" mobilizazioa

Gipuzkoako Diputazioaren aginduei jarraiki, auzokideen batzarrak, beharrezkoa gertatuz gero, mugara joan behar zuten soldaduen zerrenda egin zuen. Herrialdean 4.600 soldaduk osaturiko indarra sortu behar zen, eta Eibarri hiru konpainia prestatzea egokitu zitzaion, teorian behintzat, bi hilabeterik behin txandakatu beharko zirenak muga ondoko zerbitzuan. Diputazioak ohartarazten zuenez, tertzioetako kideak entrenamendu militarrak egin behar zituzten, aste birik behin gutxienez.

Eibarren, 566 biztanle zeuden tertzioetan parte hartzeko sasoian, 18-60 urte bitartekoak. Baina ezinduta, ezkonduta eta armagina izateagatik, 320 eibartar zerbitzutik salbuetsita zeuden. Beraz, 246 baino ez ziren gelditzen joateko moduan, eta horren laurdena 61 soldadu ziren, ez diputazioak eskatzen zituen 140ak (566ren laurdena)[151]. Baina auzi hori ez zen hurrengo urtera arte konpondu, eta bien bitartean, udalak diputazioaren aginduak bete behar izan zituen. Horrela, maiatzaren 12an eibartarren lehen konpainia Urnietan zegoen, Juan Antonio Larrañaga kapitainaren agindupean. Tertzioek gainera, lau egunetarako ogia, koltxoiak, estalkiak, kazolak

148. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1789-9-21.
149. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1791-3-21.
150. (Iparragirre, 2001: 36).
151. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-4-25.

eta jantziak eraman behar zituzten muga-lerroko lubakietara (Areta, 2003: 356)[152]. Horrek adierazten digu zein puntutaraino egon zitekeen zaharkitua "*padre por hijo*" deialdian oinarritutako defentsa-sistema.

Arazo bakarra ez zen logistikoa. Espainiar armadaren agintari gorena zen Caro Ventura jeneralari tertzio haiek ez zitzaizkion egokienak iruditzen gerra egiteko orduan, gipuzkoarrek beren herrialdetik kanpo borrokatzeari uko egiten ziotelako. Izan ere, 1793ko apiriletik 1794ko ekainera, frantziarrek muga-lerroan eusteari ekin zioten gehienbat, haien gudarosteak beste fronte batzuetan baitzeuden. Haien helburua, hasiera batean, espainiar erregea bakea sinatzera behartzera mugatzen zen[153]. Caro Venturak abagune hori aprobetxatu nahi izan zuen, Bidasoaren bestaldeko herriak eraso eta kokagune estrategikoak eskuratzeko[154]. Baina, menpean zituen tertzio gipuzkoarrek uko egiten zioten Gipuzkoatik kanpo borrokatzeari. Izan ere, foruek bermatzen zituzten eskubideen artean, nor bere herrialdetik kanpo ez borrokatzearena zegoen[155]. Eta ez zen eskubide teoriko bat. Konbentzio Gerran zehar Caro Ventura jenerala behin baino gehiagotan kexatu zen diputazioaren aurrean, gipuzkoarrak ez zeudelako Lapurdiko lurrak inbaditzeko prest[156]. Kexa horren oihartzuna Eibarko Udalera ere ailegatu zen[157].

---

152. Horrez gain, beste bi konpainiak trebatzeko entseguak egitea agindu zuen diputazioak. Beharbada, prestakizun militar hauen testuinguruan kokatu behar dugu handik egun batzuetara elizako kanpaiak konpontzeko hartu zen erabakia, sakabanatuta zeudenei berehala biltzera deitzeko sistemarik eraginkorrena baitzen, EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-5-9 eta 1793-10-27.

153. «El enorme despliegue del ejército francés en la línea fronteriza con Guipúzcoa y Navarra no parece que tuviera intenciones ofensivas o invasoras, sino obligar a España a pedir la paz para atender más desahogadamente otros frentes y guerras como la de Italia, etc.; por ello a lo largo de 1793 y primera mitad de 1794 sólo se produjeron ligeras escaramuzas» (Zavala, 1989: 54).

154. «… el general Caro emprendió su campaña, el 23 de abril, bombardeando Hendaya y obligando al enemigo a replegar sus líneas al río Nivelle y organizar la defensa de Bayona, continuando con operaciones de acoso pero sin ninguna penetración seria en suelo francés (…) Los españoles no supieron o pudieron aprovechar un momento en el que la debilidad de los franceses era notoria. Las tropas de la Convención vieron asaltadas todas sus fronteras…» (Ribechini, 1996: 25).

155. Eskubide horrek hauxe adierazten du: gipuzkoarrak beren lurraldea defendatzera behartuta bazeuden ere, foru-agintarien boterea estuki mugatuta zegoela, foru-herrialdeetako biztanleak gerra ofentsibo batean erabiltzeko orduan. Hona hemen, beharbada, euskal inperiorik inoiz sortu ez izanaren arrazoi bat.

156. Gipuzkoako Diputazioak zioenez: «Deseaba nuestro general que la gente del Tercio de Guipuzcoa siguiese a la tropa arreglada en las entradas que ésta hacía en el campo enemigo. Se escusaba la Provincia representando que su oferta, que fue aprovada por la Corte, no se extendia a tanto y que los tercios debían guarnecer la frontera y permanecer en defensa de ella. El general, resentido de ello, mandó retirar el socorro del pan y prest que daba a los tercios, y, diciendo que estos eran de ningún servicio, dispuso no fueran empleados en las operaciones de campaña» (Cruz, 1993: 77).

157. Miguel Joaquin Lardizabal Amezqueta diputatuak Caro Venturaren haserrea jakinarazi zion udalari, tertzioek —eibartarrak tartean— ez zutelako Bidasoaren beste aldean borrokatu nahi, «… hasta los Puestos que conservan sus Tropas a la derecha del Rio Vidasoa, y es del mayor interes su conservacion; y por consiguiente el no concurrir los Guipuzcoanos a la defensa y seguridad de los indicados Puestos, seria dejar de contribuir a la de su propia Frontera» EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-1-9.

Caro Venturak 4.600 sasisoldadu izan baino nahiago zuen diputazioak ordaindutako soldadu profesionalez osaturiko talde militar bat egin. Eta Venturaren eskakizuna kontuan hartuta "*Batallon de Voluntarios*" deiturikoa sortzea adostu zuten Oreretako Batzar Orokorrek (1793ko uztaila), 750 soldaduk osatua. Akordio horren arabera, Eibarri zazpi soldadu ematea egokitu zitzaion, eta bai laster bidali ere[158]. Dirudienez, beste herri batzuek ez zuten hain arin erantzun, irailaren 29an 360 boluntario baino ez zeuden-eta; eta bildu behar ziren 100.000 pesotik, 20.000 besterik ez (Uriarte, 1998: 248).

Edonola ere, 1793ko maiatzean bidalitako tertzioen lehen konpainiak muga-lerroan jarraitu zuen azarora arte. Eta hil beraren 30ean bigarren konpainiak irten zuen Irunerantz, ustez behintzat Pedro Antonio Arrazainen aginduetara. Ordurako Larrañaga kapitainaren eskakizuna udalean erabilita zegoen, zerbitzua betetzen ari zirenen soldatak zehazteko. Batzar hartan harturiko erabakiaren arabera, eguneko 25 erreal ordainduko zizkieten kapitainei, 16 tenienteei, 8 sarjentuei, kaporalei zehaztu gabe eta soldaduei ezer ez[159]. Hurrengo urtean, soldadu xumeei erreal bana ordaintzen hasi baziren ere, soldaten arteko ezberdintasun nabarmenak ulergarriago bihurtzen du handik hilabete batzuetara sortuko zen desertzioa. Gastu horiei aurre egiteko, 1793ko abuztuan, udalak 11.000 errealeko mailegua eskatzeko baimena lortu zuen diputaziotik, edari alkoholikoei ezarritako zerga berriarekin eta hainbat herrilur hipotekatuz lortutako bermearekin[160]. 1794ko azaroan lurjabegoaren gaineko % 5eko kontribuzioa ezartzeko eskubidea jaso zuen[161].

Arrazainen konpainiak, Gabonak lubakietan igarota, etxeko banda hartu zuen 1794ko otsailaren 4an. Hirugarren konpainia ez zen Eibartik atera apirilaren 1era arte, Juan Bautista Mendizabal kapitainaren agindupean. Mendizabal, gainera, Eibarko alkatea zen. Maiatzean, alkatea kanpoan zegoela, armaginen aldeko epaia ailegatu zen. 1703ko Erret Agindua aintzat hartuz, Karlos IV.ak Soraluzeko Erret Arma Fabrikan lan egiten zuten armaginak zerbitzu militarretik salbuetsita zeudela berretsi zuen. Izan ere, armatu gabeko soldaduak edukitzea alferrekoa zen, eta ziur aski, armaginak eraginkorragoak ziren armak egiten muga-lerroa zaintzen baino. Itxura denez, erabaki horrek ez zituen baserritarrak kaltetzen, salbuetsitakoen kopuruaren arabera Eibarri eskatutako soldadu kopurua ere murriztu egiten zelako.

158. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-7-11.

159. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-11-3.

160. «Se hipotecaron no sólo los mencionados impuestos, sino también la Casa Concejil y la vieja que se hallaba en el término de Hospitalecua, la casería nueva fabricada en Bascaranburu, el monte del partido de Urco, el de Abaurtua, Arrasola, Urquidi, y las novalías de los términos de Alzaga, Urrizaran, Pagola, Errecalde, Acarteguieta, Otun, Muquiza, Berrechinaga, Murguía, Ercano, Arranomendi, Andirao, Urdanaga, y San Miguel de Aguinaga, que eran propios de la villa, los cuales, aunque estaban hipotecados antes, podían responder de esta nueva cantidad» (Mugica, 1990: 224).

161. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-11-2.

Boluntarioen Batailoiaren sorkuntza

Boluntarioen Batailoiaren —"*Batallón de Voluntarios*"— sorkuntzak tertzioetarako ordezkoen inguruan zegoen arazoa azaleratu zuen, Sebastian Erbitik bere ordez aritzeko izendatutako Juan Antonio Madariagak batailoi horretan izena eman baitzuen. Madariagaren ordezkoa zela-eta, sekulako iskanbila sortu zen udalean, batzuen ustez Erbitiren ardura zelako beste ordezko bat aurkitzea, eta besteen ustez zozketa berri bat egin behar zelako Madariagaren postua betetzeko. Azkenean, «… no se resolvio cosa alguna. Y con tanto salieron del congreso, y en voz y nombre de todos segun costumbre firmaron»[162], 1794ko udaberrian bizi zen tentsioaren seinale. Eztabaidak apirilaren 13an jarraitu zuen, eta Erbitik Isidro Gisasolari tokatzen zitzaiola argudiatu bazuen ere, hori ezin zen teniente izandako konpainia berean soldadu xehea izan, «con lo que enteramente se hiere su honor»[163], eta Erbitik beste ordezko bat aurkitu behar izan zuen.

Aginte-bikoiztasuna herrialdean

Herrialdeko erakunde gorenetik zetozen berriak ez ziren batere lasaigarriak. 1793ko azaroan Gipuzkoako udalerriek Batzar Bereziak burutu zituzten gerra egoerari nola aurre egin eztabaidatzeko. Batzar horietan diputazioaren egoitza Azkoititik Donostiara iragatea erabaki zen, Donostia, mugatik hurbilago egotean, eraginkorragoa izango zelakoan fronte militarrean sortzen ziren arazoei aurre egiteko orduan. Ikusi dugun moduan, diputazioaren egoitza aldatzean partaideak ere aldatu egiten ziren; azkoitiarrek osatzen zutena indargabetu eta donostiarrek osaturiko beste bat sortu zen. Berez, Batzar Bereziek ez zeukaten horrelako erabaki bat hartzeko gaitasunik, are gutxiago, foru-erregimenaren arabera Gerrako Diputazioa sortzeko aukera zegoenean, gai militarretara mugatzen ziren eskuduntzekin (Mutiloa, 1978: 49, 50). Horren ordez, Batzar Bereziek diputazioaren gaitasun guztiak Donostiako Diputazioaren esku jartzea erabaki zuten, eta horrek Azkoitiko Diputazioaren protesta sutsua eragin zuen.

Erret Kontseiluak Azkoitiko Diputazioari eman zion arrazoia, Donostiako Diputazioaren eskuduntzak gai militarretara mugatuz, eta beste eginkizun guztiak Azkoitikoari onartuz. Baina bien bitartean, bi diputazioek beraien jarrera azaltzeko eta sostenguak irabazteko idatziak bidali zituzten Gipuzkoako udaletara, eta horrela, ekainaren 8an, hau da, Juan Bautista Mendizabal alkatearen konpainia itzuli eta biharamunean, bi diputazioen idatziak irakurri ziren Eibarko Udalean. Auzokideen batzar orokorra noraezean gelditu zen, antza, zeren aktak dioenez «… sin embargo de haberse leido dichos oficios, y entterados, no resolbieron, ni decretaron en su razon cosa alguna»[164]. Ekainaren 24ko batzarrean, Erret Kontseiluak arrazoia

162. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-3-30.
163. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-4-13.
164. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-6-8.

Azkoitiko Diputazioari eman ziola jakin bazen ere —«A pesar de la increible resistencia hecha por la Diputacion a Guerra de la Ciudad de San Sebastian al cumplimiento de mis Fueros» zioen Azkoitiko Diputazioak— ez zuten ezer erabaki. Frantziar konbentzionalen presioa handitzen zen momentu berean herrialdeko erakunde gorena zatituta zegoen[165]. Edonola ere, Donostiakoak Gerra Diputazio legez jarraitu zuen, eta ekainaren 29an bere eskakizun bat ailegatu zen Eibarrera, zeinak muga-lerrora bidalitako hiru tertzioak frantziarren oldarrari aurre egiteko nahikoak ez zirela azaldu ondoren "padre por hijo" deituriko mobilizazio orokorrera deitzen zuen[166].

Eibarko tertzioen ofizialak

Atal honekin bukatzeko, tertzioetako ofizialen nortasunak eta ibilbide politikoak aztertuko ditugu.

	1. konpainia	**2. konpainia**	**3. konpainia**
Kapitaina	Juan Antonio Larrañaga	Fco. Antº. Arrazain	Juan Bta. Mendizabal
Tenientea	Isidro Gisasola Eskaregi	Andres Areta	Sebastian Argiano
Alfereza	Jose Maria Orbea	Juan Andres Aguirre Az.	Jose Antº. Zabala

Juan Antonio Larrañaga herri-diputatua izan zen 1776 eta 1777 urteetan, sindikoa 1782an eta alkate-kargua eskuratu zuen 1792an; Francisco Antonio Arrazain maisuak (Uriarte, 1998: 298) antzeko ibilbideari jarraitu zion, 1775 eta 1776 urteetan herri-diputatua izan ondoren, 1780an sindiko-kargua bete zuen eta alkatea izan zen 1785ean (RAHri bidalitako txostenaren egilea zen, gogoratuko dugunez); Juan Bautista Mendizabali dagokionez, alkatea izan zen 1756an, sindikoa 1777an, herri-diputatua 1780an eta 1781ean, eta alkatea 1788an eta 1794an[167]. Bigarren maila batean Juan Andres Agirre Azaldegi errejidorea izan zen 1785ean eta 1789an, eta Jose Maria Orbea Urkizu errejidorea 1792an; Sebastian Argiano Eibarko idazkaria zen 1794an eta tertzioetara ez joatea eskatu zuen bere burua erdibitzea ezinezkoa zela argudiatuta —"… *no puedo partirme*" zioen[168]—; udalak, Jose Antonio Zabala alfereza teniente izendatu zuen haren ordez. Gainerakoak —Gisasola, Areta

165. Donostiako Diputazioaren partaideak honako hauek ziren: Miguel Joaquin Lardizabal Amezketa, Joaquín Mitxelena, Francisco Xabier Leizaur eta Juan Antonio Zuaznabar (Mutiloa, 1978: 49, 50-51).

166. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-6-8.

167. Pertsonaia honen ibilbidea ezagututa, litekeena da bat barik bi pertsona ezberdin izatea, aita-semeak ziur aski. Konklusio horretara ailegatzeko kalkulu txiki batzuk egin ditut: 1756an alkatea izateko gutxienez 25 urte izan behar zituen. Ondorioz, 1794an 63 urte eduki behar zituen gutxienez, eta horrek tertzioetatik kanpo uzten zuen, tertzioetan 18-60 urte bitarteko gizonek parte hartzen baitzuten. Horrez gain, 1756-1777 bitartean inolako udal-kargurik bete ez izanak pertsona bakar bat edo aita-semeak direlako zalantzak areagotzen ditu.

168. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-1-24.

eta Zabala— ordura arte udal-kargurik bete gabekoak ziren, eta Aretaren kasuan ofizial izendatu izana bere esperientziaren ondoriotzat hartu ahal bada ere —1779ko kanpainan parte hartu zuen—, Gisasola Eskaregi eta Zabalaren izendatzeak joera bat hausten du, alegia, kargu militarretarako udalkideak izendatzearena.

GIPUZKOAREN TRAIZIOA?

Getariako Batzar Orokorrak eta Moncey jeneralaren ofentsiba

Getariako Batzar Orokorrak frantziarren presio militarra momenturik indartsuenean zegoela burutu ziren. Ordurako, Konbentzioaren gudarosteak mugaz bestaldean pilatuta zeuden. Edozein momentutan defentsak gainditu eta frantziarrak foru-lurraldeetan sartuko ziren susmoa zegoen. Egoera horretan aukeratu zituzten diputazio berriko zortzi partaideak Getariako Batzar Orokorrek. Horien artean José Fernando Etxabe Romero eta Joaquin María Barroeta Aldamar koinatuak zeuden, aurreko Gerra Diputazioan aritutakoak. Ziurtasun-premietan oinarrituta, Getariako Batzarrek Frantziako Iraultzatik ihesi ailegatutako kleriko frantziarrak[169] Gipuzkoatik kanporatzeko erabakia hartu zuten «… con inclusión de los de la sexta Merindad de Navarra»[170].

1794ko uztailaren bukaeran frantziarrek eraso orokorra hasi zuten. Lehenbizi Hondarribia bonbardatu zuten, lerroa handik apurtzen saiatuko zirela pentsarazteko; baina errealitatean, abuztuaren lehen egunean, behe-lainoa aprobetxatuz, Baztanetik zehar egin zuten sarrera, gudaroste espainiarrei gibeletik egin eta erantzuteko aukerarik eman gabe. Konbentzioaren gudarosteek San Martzial menditik barrena, erretagoardia guztiaz jabetzen ari zirela ikusirik, Colomera jeneralak —Ventura Caroren ordezkoak— atzera-egite orokorra agindu zuen, Tolosako lerroraino. Irunetik irten baino lehen, bolbora-gordailuak eztandarazi zituen.

Abuztuaren 1ean Hondarribia errenditu zen, astebeteko bonbardaketaren ostean, jada Konbentzioaren gudarosteek setiatuta, eta amore ematen ez bazuten soldadu eta biztanle guztiak "*a cuchillo*" pasatuko zituztelako mehatxupean (Mutiloa, 1978: 64); abuztuaren 2an Donostia inguratu zuten, eta abuztuaren 4an Juan Jose Vicente Mitxelena alkateak agintari frantziarren eskuetan jarri zituen hiriko giltzak. Ordurako, Donostiako auzokideen batzar orokorrak errendizioaren baldintzak aztertuak zituen, eta onartu beharrean aurkitu zen… Gerra Diputazioak Donostiatik Getariarantz ihes egin zuen itsasoz, Jose Ranger korrejidorearekin batera.

---

169. Eibarren bertan estatu frantziarretik alde egindako 14 abade bizi ziren 1793ko urritik, eta haientzat limosna biltzen zen "*para alivio de oblacion y cera que ellos consumen*", EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-11-3.

170. Getariako Batzar Orokorren Aktak, 12. batzarra, uztailak 12, 61. orrialdea.

Konbentzioaren gudarosteak mendi-martxan. Iturria: AGIRREAZKUENAGA, 1993b: 49.

Bien bitartean, desertzioak areagotzen ari ziren armada erregularrean eta Gipuzkoako tertzioetan. Eibarkoak ez ziren asko bereizi zentzu horretan, diputazioak zioenez haiek ere desertatzen ari baitziren. Auzokideen batzarrak 10 urtetik (!) 40 urtera bitarteko gizonen izen-emate orokorra agindu zuen. Jende nagusia herriak zaintzen gelditu zen «… con el fin de que (…) cuide de la seguridad de los Pueblos y de los campos y de contener los insultos, excesos y desordenes que se esperimentan de parte de los soldados extraviados de nuestro Exercito que andan en el Pays»[171]. Zentzu horretan aipagarria da biztanleria zibilak, frantziar soldaduen indarkeria jasateaz gain, espainiar gudarosteko desertoreek beren ihesean burututako sarraski eta bortxakeriak ere jasan behar izan zituela[172]. Horrez gain, herrietan agintarien aurkako protestak areagotzen ari ziren, beharbada gerra-egoeraren aurrean buruturiko arduragabekeriengatik. Eibarren ere, istilu latzak sortu ziren, eta udalkideek

171. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-8-2.

172. «Los tercios guipuzcoanos habían sido destrozados en la acción del día 1, y la soldadesca desalmada y los excesos de los facinerosos, sembraban la confusión en la población civil» (Mutiloa, 1978: 81). Cruz Mundetek, garaiko testu baten transkribapenean, honako hau gaineratzen du: «Los mas de la tropa arreglada, a pelotones, corrian por los caminos de Oyarzun acia Hernani. Algunos se detubieron y fueron retirandose haciendo frente al enemigo. Otros, aprovechandose de la ocasión, allanaban casas, robaban quanto encontraban en ellas, despedazando arcas, baules, armarios y qualquiera otra caja. No perdonaban a sexo ni calidad, quitando aun en los caminos lo que en su cuerpo llevaban los fugitivos de los lugares. Todo era una calamidad, una tragedia. Quien avia de creher que estos españoles nos avian de tratar con tanta fiereza, y que luego llega el frances y nos mira con agrado, sin hacer insulto ni agravio, a lo menos en publico» (Cruz, 1993: 85).

neurri zorrotzak hartu zituzten bertoko gizon eta emakumeen protestak baretu zitezen[173].

Desertzioa kontrolatu nahian, diputazioak herrietako agintariak beraien herriko tertzioen buruan jartzera deitu zituen, eta Mendizabal alkateak mugara joateko agindua jaso zuen. Beranduegi, ordea, ordurako anabasa izugarria bizi zelako herrialdean. Egia esan, ondo hornitu eta prestatutako 57.000 soldadu frantziarren aurrean, ezer gutxi egin zezaketen beraien artean konpondu ezinean zebiltzan buruzagi militarren menpe zeuden 20.000 soldaduek. Colomera jeneralak indar militar guztiak Tolosan biltzea agindu zuen (tertzioak barne), eta inolako oztoporik aurkitu gabe Konbentzioaren gudarosteak Oria ibaiaren lerrora ailegatu ziren. Gerra Diputazioa, tamaina hartako erasoari aurre egiteak biztanleria zibilari eragingo zizkion kalteak eta arriskuak kontuan hartuta, militar frantziarrekin negoziazioetan sartu zen, su-etena lortzeko helburu nagusiarekin.

Getariako Batzar Bereziak

Abuztuaren 9an frantziar agintariek hamar eguneko su-etena eman zuten, Gipuzkoako herriak Batzar Berezietara deitu eta errendizioaren baldintzak adosteko. Batzar horietan 43 herritako ordezkariek parte hartu zuten, eta eskaturiko baldintzen artean; erlijio katolikoa ez erasotzea eta foru-erregimena errespetatzea, herrialdea burujabea izatea 1200. urtera arte izan zen modura, gipuzkoarrak gerra horretan armak hartzera ez behartzea (Lasala, 1895: 138)… Ikusten denez kinka larri hartan, Gipuzkoako ordezkariek herrialde neutral eta independentea gura zuten errepublika frantses berriaren orbitan edo protektoratutzan.

Cavaignac jeneral frantziarrak ez zituen baldintzak onartu, eta abuztuaren 20an Gipuzkoa frantziar errepublikari gehitzea proposatu zuen. Berri hori ez zen batere atsegina izan gipuzkoar ordezkarientzat, eta Getariako Batzar Bereziek independentziaren leloari eutsi zioten. Abuztuaren 24an, Konbentzioak, Gipuzkoa menderatutako herri gisa tratatzea erabaki zuen[174]. Bi egun geroago Batzar Berezietako ordezkariek eta Diputazio Arrunteko partaideek beren eginkizunei uko egin, eta betetzen zituzten ardurak bertan behera utzi zituzten. Egoera horretan,

173. «Que mediante se observan en esta villa considerables ynsubordinaciones con la gente joven acordó el Aiuntamiento que de aqui en adelante a qualquiera persona de qualquiera sexo y calidad que sea se le encuentre en la calle despues del toque de Animas sin motivo legitimo se le declare por vago y sin remisión se le destine a la Frontera siendo varon, y siendo embra sea desterrada del Pueblo. Y para que llegue a noticia de todos se publique por el pulpito» EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-8-2.

174. Erabaki hau, neurri handi batean, Pariseko agintea jakobinoen eskuetan egotearen ondorio izan zen. Gerraren azken fasean, Robespierrek boterea galdua zuelarik, Konbentzioko ordezkari berriak —Chaudron-Rousseauk— aurreko urtean Cavaignacek aurkezturiko jokabidea kritikatu zuen, eta Etxabek eta Romerok proposatutakoaren ildotik honako hitz hauek esan zituzten: «El pueblo guipuzcoano es digno de asociarse a la brillante suerte de la República y al acercarse vuestras falanges victoriosos proclamando de nuevo su independencia, que durante quinientos años supo defender

Romerok eta Barroetak hartu zuten frantziar agintariekin hitz egiten jarraitzeko ardura. Egia esan, berauek bihurtu ziren frantziarrek Gipuzkoan eduki zituzten kolaboratzaile nagusiak.

Bi pertsonaion ekimena zein neurritan izan zen zilegia ala ez, horra hor gaur arte luzatzen den eztabaidaren jatorria… Konbentzioaren helburuetariko bat bere menpe leudekeen errepublika txikiak sortzea izan zen, errepublika frantziar sortu berriaren eta bera inguratzen zuten monarkia zaharren artean kokatutako estatu tapoiak, hain zuzen. Horrela sortu zen Errepublika Zisalpinoa, besteak beste. Abagune horretan, Gipuzkoako jauntxo talde batek, beharbada Gipuzkoan ere, errepublika burujabe bat sortzea posible zela pentsatu zuen. Eta monarkia espainiarraren utzikeria militarra aitzakiatzat hartuta, bide sezesionista bultzatu zuten. Barnealdeko gipuzkoarrek, ordea, ez zetozen Getarian adostutakoarekin bat eta Karlos IV.ari leialtasuna berretsi ostean, Arrasaten Batzar Berezietara deitu eta erresistentziarako prestatzen hasi ziren, eibartarrak tartean. Beraz, Gipuzkoako herrialdea bera agertu zen zatituta Frantziako Iraultzak abian jarri zuen prozesuaren aurrean[175]. Baina Madrileko Gortean, Godoy, Zamora eta konpainia, ez ziren ñabardura hauek ikusteko gai izan, edo gai baziren, nahiago izan zuten ezikusiarena egin. Gipuzkoar oligarkiaren sektore baten[176] jokabidearen erantzukizuna herrialde osoari leporatuta, buruan aspalditik zeukaten asmoa jarri zuten martxan: euskal foruak ezabatzea[177], hain zuzen.

---

contra las insidiosas pretensiones de un astuto gobierno… Las bayonetas de los republicanos franceses sabrán ayudar los deseos de los republicanos guipuzcoanos para la independencia y defender su territorio de la invasion de nuestros enemigos comunes» (Agirreazkuenaga, 1993a: 64).

175. «¿Cómo explicarse una Guipúzcoa adicta y fiel a los reyes hasta la guerra de la Convención y su ruptura en 1794? ¿La quiebra proviene de los reyes, del estado monárquico de Karlos IV (dígase Godoy), o de la misma Guipúzcoa? (…) Guipúzcoa vive ya en la última década del XVIII, ese desgarro, la crisis, la división. ¿La vive frente al rey, frente al resto de España o frente a sí misma? La vive primero en sí misma (aristocracia y burguesía, la Guipúzcoa interior y la marítima) luego se va a enfrentar con el rey y con España: con la unidad nacional. La guerra de la Convención es la ocasión en que se destapa y salta a la palestra este doble conflicto. Sus dimensiones son imprevisibles: gerra realista, guerras carlistas, nacionalismo, separatismo» (Mutiloa, 1982: 63).

176. Godoyk bere memorietan idatzita utzi zuen: «La ocupación de San Sebastián no fue un hecho de armas. El convencional Pinet consiguió seducir a ciertos habitantes de Guipúzcoa, prometiendoles convertir la provincia en República independiente. Estos crédulos hombres entregaron la ciudad, a pesar de la buena voluntad de la guarnición, que había deseado defenderla, para lo cual disponía de todos los medios, por lo menos durante algún tiempo. El alcalde Michelena, de infame memoria y algunos notables de San Sebastián fascinados por el deseo de una libertad quimérica, bien diferente a la que disfrutaban bajo la protección de sus antiguas leyes y privilegios, fueron infieles a la patria», GARCIA VENERO, 101. or.

177. «No siéndole viable a Godoy continuar sus diatribas contra su propio ejército del que era su generalísimo arremete como niño indefenso contra la provincia más débil, desacreditándola y tratándola de infiel. Su enemiga se centra en una campaña de contrafueros y estudios históricos forales, que, iniciados por Zamora con su artera propuesta al Príncipe de la Paz: “Si a esta siguiera la unión de las provincias y el resto de la Navarra sin las trabas forales que las separan y hacen casi un

Merkatari-burgesiaren jokabidea

Getariako Batzarren jokaera traiziotzat hartu ahal bada, zalantzarik gabe, traizio horren arduradun nagusia Gipuzkoako merkatari-burgesia izan zen, eta inondik inora ere ez, herrialde osoa. Merkatarion jokabidearen zergatia ulertzeko ezinbesteko deritzot XVIII. mendearen azken herenean burutu ziren aldaketa batzuen nondik norakoak aztertzeari. Jose Ramon Cruz Mundetek dioenez: «Nekazaritzak herrialdean behar adina elikagai ematen ez zituenez, itsasotik ekartzeko askatasunez baliatzen zen Gipuzkoa behar zituen janariak eskuratzeko, ez baitzuen arielik ordaindu behar. Aduanak Ebro ibaian jarrita zeuden eta, beraz, Gipuzkoa zona zergagabea zen itsasotik zetozen salgaietarako. Estatuaren erreforma eta eratzen ari zen merkatu nazionala, ordea, ez zetozen bat egoera horrekin, eta horregatik aduanen sistema ere aldatzen saiatu zen Estatua mendearen hasieratik bertatik. Hartutako neurrietan ausartena beharbada Ameriketako koloniekiko merkataritza liberalizatzea izan zen, 1778an erabakitakoa. Merkataritza librean aritu nahi zuten portuek Estatuko aduana agintarien menean jarri behar baitzuten. Hori, jakina, foruekin kontraesan nabarmenean zegoen» (Cruz, 1993: 18).

Bilbo eta Donostiako merkatariek ere biziki gutiziatzen zuten zabaldu berria zen merkatu horretan parte hartzea, batez ere, Ingalaterraren aurkako gerraren ondorioz, luzaroan hain emankorra izandako Caracaseko Konpainiaren etekinak, zeharo murriztuta zeudenean, eta krisialdian[178]. Horrez gain, 1778ko dekretuek foru-herrialdeetan ekoitziriko edozein produktu atzerritartzat hartzea agintzen zuten, behin Ebroko muga igarotzen zuenean. Beraz kaltetu bakarrak ez ziren merkatariak, euskal industrialariek fabrikatzen zituzten gaiak zamatuak izango zirelako Gaztelan sartzean, frantziarrak edo errusiarrak balira bezala[179]. Egoerak okerrera egin zuen 1784an, frantziar erregeak Baionako portuari merkataritza-askatasuna onartu zionean, ordura arte Donostiatik bideratutako gaiek Lapurdiko hiriburuan aurkitu baitzuten sarbidea. Bi urte geroago, beste Erret Agindu batek

---

miembro muerto del Reino, habría V.E. hecho una de aquellas obras que no hemos visto desde el cardenal Cisneros o el gran Filipe V. Estas son las épocas que se deben aprovechar para aumentar los fondos y fuerza de la Monarquía» (Mutiloa, 1982: 83).

178. «Para el comercio de San Sebastián, por otra parte, los años cincuenta marcaron una serie de cambios estructurales que evidenciaron, por un lado la imposibilidad total de recuperar la posición de gran puerto lanero que antaño había ocupado San Sebastián, y, por otro, estos años señalaron sobre todo el fin del planteamiento mercantilista-proteccionista en el que se había vendio desenvolviendo la Compañía de Caracas, y colocaron a ésta en una estrecha dependencia en relación a los intereses del Estado (…) De ahí también que antes las dificultades que presentaba momentaneamente el mercado europeo, los comerciantes tuviesen un vivo interés en participar en el recién concedido decreto» (Fernandez Albadalejo, 1976: 231).

179. 1778ko araudiaren arabera «se preveía que los géneros que se exportasen desde el PV por la Aduana de Vitoria, Valmaseda y Orduña —fueren o no vascos— se gravarían como extranjeros. Pues, a buen seguro, los gravámenes incidirían peligrosamente sobre la precaria balanza de pagos vasca» (Otazu y Llana, 1982: 116).

Venezuelatik zetorren kakao eta azukrea Nafarroara eta Aragoira kanporatzea debekatu zien. Donostiako merkataritzaren gainbehera bistakoa zen, eta zerbait egin beharra zegoen larrialdi hartatik irteteko.

Merkataritza askearen jokoan sartzea ez zen hain erraza. Izan ere, konpainien monopolioa hautsita, erregeak aduana-agenteen bidez kontrolatu nahi zituen baimendutako portuen merkataritza-mugimenduak. Baina Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Orokorrak kontrolatzen zituen lur-jabeen oligarkiak ez zuen begi onez ikusten erregearen funtzionario horien sarrera, haien presentziak foru-erregimenak bermatzen zituen eskuduntzak mehatxatzen zituelako. «Horregatik, merkataritza interesei begira foruen pribilegioari —gai horretan behinik-behin— uko egitea komeni zen arren, hiru probintziek —Arrasaten 1780ko urrian egindako batzarrean— proiektu hura gaitzestea erabaki zuten» (Cruz, 1993: 18). Kontrajarritako interesen lehia hori, leundu beharrean, zabaltzen eta beste faktore batzuekin nahasten joan zen, ika-mika horien bidez ikuspegi bakoitzaren ortodoxia finkatuz joan zelarik[180].

Merkataritza askean sartzearen truke, aduanak ezartzea ezinbesteko baldintzatzat aurkeztean, 1778ko dekretuek desadostasun-elementu bat sartu zuten foru-herrialdeetan. Lehia horretan Bilbok eta Donostiak —merkataritza-guneak izateagatik— ziri-lana bete zuten, eta epe luzera oso eraginkorra suertatuko zen gatazka-kortasun-faktore berri bat sorrarazi zen foru-herrialdeetan[181]. 1778ko dekretuekin, aldaketa inposatu beharrean, aukeran uzten zen: aduanarik gabe ez zegoen merkataritza askerik[182]. Donostiar Kontsulatuaren inguruan biltzen ziren merkatarien zoritxarrerako, erabakia herrialde mailan hartu behar zen, eta Gipuzkoako oligarkia lur-jabea ez zegoen foruak ukitzeko prest, are gutxiago berak aldaketa horretatik ez zuenean inolako etekinik ateratzen, eta bai, ordea, kaltea, zeren erabaki horrek biztanle xeheengan eragingo zuen haserrea jasan beharko baitzuen.

Beraz, donostiar merkatariak estu hartuta zeuden. Alde batetik, 1778ko dekretuek Ameriketako merkatutik kanpo uzten zituzten, aduanak lekuz aldatzen ez ziren bitartean; bestetik, aduanak kostara iragatearen erabakia Gipuzkoako

180. «No obstante el decreto hizo que el centro de las discusiones se localizase en torno al aspecto aduanero, que no era sino una sola de las caras del problema. Con ello, lo que podía haber sido una polémica sobre el "modelo de crecimiento" a seguir, se convirtió en una disputa esencialmente foral, a cuya ortodoxia hubieron de supeditarse la mayor parte de las propuestas emitidas» (Fernandez Albadalejo, 1976: 235).

181. «Los enfrentamientos surgidos entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Hermandad en sus Juntas Generales, particulares y Diputación foral, no resultarán fáciles de restañar. Los vaivenes de la política derrocarán y restaurarán los fueros, pero las diferencias de mentalidad y de intereses enfrentarán de nuevo a los dos contrincantes en una constante y reiterada sucesión de incidentes, que se prolongarán durante años» (Mutiloa, 1982: 343).

182. «… si bien el Estado no manifestaría nunca de manera explícita este punto hasta la llegada de Godoy al poder, resultaba evidente cuál era el sentido de la maniobra: los vascos no entrarían en el libre comercio hasta que las aduanas no estuviesen en la costa» (Fernandez Albadalejo, 1976: 229).

Batzar Orokorretan hartu behar zen, eta horietan nagusi ziren lur-jabeak ez zeuden aldaketa txikiena egiteko prest. Testuinguru horretan frantziar Konbentzioarekin bat egiteko erabakia ulergarriagoa egiten da, espainiar monarkiaren xantaiaren eta foru-erakundeen zurruntasunaren artean, Frantziako Iraultza eredu gisa agertzen zelako, askatasun politikoekin batera askatasun ekonomikoak aldarrikatzean. Otazu y Llanak argiro azaldu duen modura, azpimarragarriena hauxe da: XVIII. mendearen bukaerako krisialdi orokorrean Donostiako merkatari-burgesiak aurkeztu zuen zirt edo zart egiteko ahalmena[183]. 1766ko matxinada zanpatzeko ardura bere gain hartu bazuen ere, 30 urte geroago espainiar monarkiarengandik banatu eta bide separatistari ekiteko ausardia aurkeztu zuen, herrialdearen izateari uko egin gabe, garai berriek exijitzen zituzten erronkei aurre egiteko zuen kemenaren seinale[184].

EIBARTARRAK KONBENTZIOAREN AURREAN

"… para defender la causa de Dios, del Rey y de la Patria"

Donostiaren errendizioa izugarrizko kolpea izan zen frantziar gudarosteei aurre egiteko prestatzen ari zirenentzat. Bergarako Udal Artxibategian aurkitutako dokumentu anonimo batek dioenez, abuztuaren 2rako Eibarko udalkideek bazekiten Gerra Diputazioa frantziarrekin akordio batera ailegatu nahian zebilela[185]. Baina, eibartarrak ez zeuden hain erraz amore emateko prest, eta Donostia errenditu zen egun berean defentsa prestatzeko 200 fusil eskatu zizkioten Soraluzeko Erret Arma Fabrikako zuzendaria zen Rodriguez Zapatari, eta Filipinetako Konpainiako zuzendari Jose Maria Lardizabali, «… ademas al primero cien libras de polvora, y respectivas Balas y piedras vajo de responsavilidad y reintegro»[186]. Helburu berdina-

183. Otazuk dioenez 1766ko matxinadaren zanpaketa eta 1794ko saiakera sezesionista izan ziren: «Actos diferentes de una misma pieza teatral, contradicciones cada vez más agudizadas en el entendimiento de una misma realidad, o si se prefiere, fases preparatorias de una contienda civil que estalla sesenta o treinta años después de que estos acontecimientos tengan lugar. Lo que, tal vez, convenga retener de todo ello es el papel predominante de las burguesías urbanas de la costa del Pais Vasco; tanto cuando son victoriosas sobre el campesinado con la ayuda eficaz de los terratenientes del interior, como cuando son derrotadas, tras un intento quizás excesivamente prematuro, de convertir el País Vasco en una especie de república jacobina del estilo de la Cisalpina o de la Partenopea» (Otazu y Llana, 1982: 13).

184. Agirreazkuenaga bat dator hipotesi honekin, donostiar merkatarien jokabidea arrazoitzean: «Horregaitik pentsa daiteke, kinka larrian, legitimitate historizistan oinarrituz, alternatibak proposatzeko abagadunea sortu zenean, buruzagi batzuek ezbairik gabe iraultzarekiko zaletasuna zutenez gero, aipatu dugun ondaru kultural politikotik abiatuz, Frantziako Iraultzarekiko bidea zabaldu zutela, baina hori bai, probintziaren nortasun independientea gordez» (Agirreazkuenaga, 1993a: 72).

185. Bergarako Udal Artxibategia (BUA), Eibar, C-104 dokumentua. Dokumentu honen egileak bere nortasuna argitu ez bazuen ere, idatziaren lehen zatia Arrazainek (ziur aski, Pedro Antoniok) egindakoa dela aipatzen du. Bergarako artxibategian Eibarri buruz dagoen dokumentazioa orain dela gutxi inbentariatu eta datu-base batean sartu da. Laster, dokumentazio hori Eibarko Udal Artxiboaren esku ipiniko da.

186. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-8-2.

rekin, kutxaginek eginda baina Soraluzera bidali gabe zituzten armak eskuratzea agindu zuen udalak abuztuaren 21ean. Horrez gain, udala garia eskuratzen saiatu zen, eta herriko pilatzaile nagusiei eskatuta, gurdikada batzuez jabetzea lortu zuen.

Eibarko Akta Liburuan inolako erreferentziarik aurkitu ez dudan arren, badirudi abuztuaren 8an auzokideen batzarra burutu zela Eibarren «… de resulta de la entrega de la Ciudad y Castillo de San Sebastian sin haver echo defensa alguna sus Gobernadores del Castillo y de la Plaza que se hallavan con dos o tres mil hombres de tropa arreglada y el Paysanaje»[187]. Konbentzioaren gudarostea gero eta hurbilago zegoen, eta hain egoera kezkagarrian, espainiar armadaren agintari nagusiari —Colomerari— eta Getarian zegoen Gerra Diputazioari idatzi bana bidali zieten «poniendoles presente que sus naturales se hallavan impacientes interin que…dassen salir de Padres a Hijos al punto que se estava señalado y se les señalase para defender la causa de Dios, del Rey y de la Patria asta derramar su ultima gota de sangre». Baina Getariako Diputazioaren aldetik ez zuten erantzun egokirik jaso —«no le dieron más respuesta, por más que instó, sino la misma cubierta de la carta que llevo»—[188], nahiz eta oraindik ez zeuden frantziarren eskuetan. Colomera jenerala Tolosan babestu zen bere atzera-egitean, eta hara bidalitako mezularia Pedro Azpiri izan zen; baina hara ailegatu orduko Colomera atzerantz zihoan, hain zuzen ere Nafarroako lurretarantz ihesi, eta bidean aurkitutako soldaduek gehiago ez aurreratzea aholkatu zioten Azpiriri, frantziarren esku erori nahi ez bazuen.

Bergaran aurkitutako idatzi anonimoa oso interesgarria dugu, akta-liburuan inondik inora aipatzen ez diren ñabardurak eskaintzen dituelako. Idazle ezezagunak, Arrazainek eskainitako bertsioarekin jarraitzen du. Zioenez, abuztuaren 17an edo 19an (igandean, behintzat) jakin zuten Getariako Diputazioak amore eman zuela Konbentzioaren aurrean, «… a mas no poder, por que ya se hallava apoderada de la maior parte el Enemigo; y por que al mismo tiempo se havia apoderado tambien de las Provisiones de Armas, Municiones y viveres que tenian acopiados esta dicha Provincia y sus naturales». Eztabaida luze baten ondoren, kapitulazioa inondik inora ez onartzea erabaki zuen auzokideen batzarrak, Gazetan argitaratu bezala, espainiar ejertzitoa iristear zegoelako itxaropenari eutsiz. Badaezpada, indar berriak ez baziren denboraz ailegatzen, Bizkaiko Jaurerriari biltzea erabaki zuten

187. BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

188. BUA, Eibar, C-104 dokumentua. Bergarako artxibategian aurkituriko beste dokumentu batek zehaztasun gehiago eskaintzen dizkigu: «Comisionaron para escribir las cartas a los Concexantes D. Pedro Joseph de Olave, D. Pedro Antonio de Ecenarro y d. Francisco Antonio de Arrasain quienes salieron de la Junta con el Escribano del Aiuntamiento Sevastian de Arguiano. Aprovó la villa las cartas y a las 9 de la noche destacaron Propios con ellas. El Diputado Aldamar no contexto a la carta, y se le repitio 2ª pidiendo la contextacion, y la respuesta fue de bolver el sobrescripto en señal de haberla recivido, y nada mas, dejando a la villa en la obscuridad y confusion que se deja entender», BUA, C/127-94, «Declaración de Felix de Olabe, cura y beneficiado de la iglesia parroquial de San Andrés de la villa de Eibar, en la causa criminal que le ha puesto Juan Andrés de Lascurain, vecino de la misma, por injurias».

«… porque ya beia a sus amados Hermanos Provincianos bajo el Dominio Frances, y sin que pudiesen socorrerse y aiudarse».

Abuztuaren 18an elizako sakristian bildu ziren, azken udal-bilkuran izendatutako sakristauari —Josef Joaquin Betolazari— San Andres elizan gordetzen ziren zilarrezko ontziak eta bitxiak jaso, gorde eta zaintzeko ardurarekin. Altxor txiki hori Gasteizerantz zeramatela Rubiko markesarekin egin zuten topo Bergaran, eta hark aginduta, bere ardurapean utzi behar izan zuten, «… alegando que en ninguna parte estarían mejor defendidas que allá» (Mugica, 1990: 132). Baina azaroaren 28an frantziar soldaduak Bergaran sartu ziren eta San Andres elizako zilar eta bitxiez jabetu ziren. Gerraostean egindako ahaleginak alferrikoak izan ziren, bitxiok ez baitziren sekula Eibarrera itzuli. Arratekoak hobeto gorde zituen Pedro Olabe maiordomoak[189].

Horrez gain, Elgoibarko Udalak eginiko eskakizunari jarraituz, eibartarrek 80 gizon bidali zituzten Loiolako santutegian gordetzen zen zilarra bildu eta leku seguru batera eramaten laguntzera, «… en cuio tiempo hicieron tambien Prisionero los auxiliares de esta de Eybar a un Frances en Sasiola, y lo condujeron igualmente al comandante de Ermua»[190]. Beste iturri batek argitzen duenez, atxiloketa hori abuztuaren 27an gertatu zen[191]; eta beharbada —gehituko nuke— uste zena baino ondorio larriagoak ekarri zituen.

Bizkaiko Jaurrerira biltzeko ahaleginak

Eliz agintariekin bildu ostean, Eibarko udalkideek Bizkaiko Jaurerriari biltzea erabaki zuten[192]. Zeregin horretarako, Gisasola alkateordea, Baskaran errejidorea, Artaetxe sindikoa eta beste zenbait eibartar, Ermura hurbildu eta beren nahien berri eman zioten Valdespinako markesari. Baina markesak eskakizun hori biztanleek sinatuta agertzea eskatu zuenez, hurrengo egunean auzokideen batzarrak udalkideek

189. «… en sesión de 9 de Noviembre de 1794 hizo presente que había tenido las alhajas de la ermita guardadas en cuatro sitios distintos y que entonces las tenía a siete leguas de la villa» (Mugica, 1990: 161, 162). Uriartek, 1794ko abenduaren 14ko aktatik jaso ditu Olaberen azalpenak (Uriarte, 1998: 133).

190. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-28.

191. BUA, C/127-94.

192. «… dijo su mrd. el dicho señor Alcalde –Mendizabal— les habia congregado para efecto de tratar, y resolver cosas tocantes al servicio de Dios, defensa de la Religion, del Rey, y de la Patria, en vista de las actuales y criticas circunstancias que ocurren entre la Diputacion de esta Provincia, y la Republica Francesa sobre la capitulacion que tratan para la union entre si con titulo de probisional. Y enterados dichos señores vecinos concurrentes, y despues de una larga conferencia entre sí, resolvieron todos de un acuerdo y conformidad, segregarse de la union de esta Provincia, y unirse al N. Señorio de Vizcaya, ofreciendose hazer el servicio con sus naturales … a exemplo de algunas otras que tambien han discrepado de la subyugacion a que se someten muchos de los Pueblos de la Provincia, y pensando de diverso modo que estos se animan a una segregacion de la mezcla del govierno de Franceses y Guipuzcoanos» EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-8-21.

eta elizgizonek harturiko erabakia berretsi behar izan zuen. Erabaki hori, hala ere, isilpean gorde zuten «… porque segun recelos fundados no combenia se manifestase asta su tiempo»[193]. Eibartarren eskaria onartua izan zen —«… echas las devidas Diligencias fue admitida y recivida por el Señorio en todas sus partes la dicha pretension en 22 de mismo Mes de Agosto»—[194].

Eibarko udalkideak erregearen eta erlijioaren alde zeudela argi eta garbi zegoen[195]. Gerra Diputazioak frantziarrekin bat egin ostean, bere indar bakarrekin eustea ezinezkoa izango zela ikusirik, udalerriari babes militarra eskaintzeko biderik zuhurrena Bizkaian sartzea zen, bakarra ez esateagatik[196]. Gogora dezagun, foru-erregimenaren arabera herrialde bakoitzeko tertzioek beren lurraldea defendatu behar zutela, eta agintariek ezin zituztela behartu beren herrialdea ez zena defendatzera. Bizkaian sartzearen helburu zuzena, beraz, Jaurerriko egitura militarrean txertatu eta Ermuko lerroan zeuden Bizkaiko tertzioen batailoiak Eibarrera aurreratzea zen, horren truke Bizkaiko herrialdeko biztanleen betebehar guztiak onartzen zituztelarik[197]. Jaurerriak «… dio sus ordenes al Comandante de Campanzar para que con sus gentes ocuparan la jurisdiccion de Eybar»[198]; baina bizkaitarren laguntza ez zen inoiz ailegatu. Gudaroste frantziarrak Eibarko ateetan zeudela, beren eskakizuna berretsi zioten Ermuko komandanteari «… para que

193. BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

194. BFAAn aurkitutako agiria abuztuaren 23an dago datatuta. Hala dio: «Se admite la union en los terminos señalados que solicita la noble villa de Eibar con calidad de por ahora y sin perjuicio de dar quenta a la superioridad y a la Junta general de esta Sº. para lo sucesivo», BFAA, Administración, AJO 1263/011, «Representación de la villa de Eybar y Elgueta de la Provincia de Guipúzcoa hechas a este Señorio, solicitando la unión a él, y sus leyes forales», 1794-8-23.

195. «Los naturales de esta villa han distado tantto de aquellos momentáneos temores que siempre constantes en la Religión, obediencia al Monarca y agradecimiento a sus beneficios no han consentido ni en los siette artículos propuestos por los representantes del Pueblo Frances ni en los ocho del Convenio Provisional que los Diputados de algunos pueblos de la Provincia han dictado a aquellos…», BFAA, Administración, AJO 1263/011, «Representación de la villa de Eybar y Elgueta…», 1794-8-21.

196. Dirudienez eibartarrek nahiko konfiantza zeukaten Bizkaiko tertzioengan, herriko artxiboa Ermura eramanda bere ziurtasuna bermatutzat jo baitzuten: «Si hemos de creer a Gorosabel, aquellos papeles, buscando su mayor seguridad, fueron trasladados a Ermua; esta población sufrió catástrofe semejante a la que experimentó Eibar, y en ella desaparecieron los papeles del archivo y de las escribanías» (Mugica, 1990: 42).

197. Bizkaiko Foru-diputazioari bidalitako gutunean Eibarko Udalak zioenez, «… teniendo consideración a la situación de ella confin con el territorio de VSI para en union poderse defender de los Enemigos desde luego para este fin y demas ulteriores desean con la maior ansia estrechar una fraternidad consttantte uniendose al govierno y Leyes de VSI ofreciendo gusttosos a hacer el serbicio conttodos los capaces en la misma conformidad que los naturales de VSI entrando en comunion en su volsa comun y partticipando de las mismas contribuciones; pues con estta reunion segun la situacion de la Jurisdiccion de esta villa ocupando por todos unidos sus altturas se podra hacer una defensa mas vigorosa y rechazar al Enemigo de sus imbaciones desde tierra mas remota que distrito de VSI», BFAA, Administración, AJO 1263/011, «Representación de la villa de Eybar y Elgueta…», 1794-8-21.

198. BUA, C/127-94 dokumentua.

acelerasen su venida, pues al confin de la Jurisdiccion en el paraje llamado Aizesate se presentava un paraje ventajosissimo en donde roto nuevo camino y guardando los Altos de los montaña quasi inacesible por su naturaleza y cuasi todo peñas podrian disponer los Injinieros buenas trincheras»[199].



Bizkaiko Jaurerriaren defentsa-lerroa. Iturria: RIBECHINI, 1997, 31.

Bezperan Konbentzioaren zutabe militarrak Deba, Azpeiti eta Zestoara jaitsi zirela jakitun, eibartarrek 200-300 bat pertsona jarri zuten zaintza-lanetan abuztuaren 28an. Bizkaiko tertziorik ez zen inondik agertzen, eta biharamunean eibartarrak, itxura denez goseak eraginda[200], hirigunera itzuli ziren. Ordurako frantziarrak Maltzaga parean zeuden. Eta inork ez zekienez tertzioen buru ziren

199. BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

200. «Las Jentes de esta villa que havian perdido la noche y estavan en ayunas quasi los mas como los demas que se havian juntado como quinientos pedian socorro o desayuno, mediante no havia en el Pueblo vino, ni Aguardiente, se penso (….) suministrarles alimento, pues dijo D. Felix (apaiza) tenia cocidos de prevencion algunas tres fanegas de pan, y que ademas traeria una puesta de Tocino, y que se trujesen ademas unas 80 o 100 libras de carne y se le comisiono a Arrazain para que dispusiese la comida y diese quanto antes de comer pues eran las 10 de la mañana; y el Rexidor Bascaran paso a Hermua a solicitar unas dos cargas de Bino; Arrazain dispuso baliendose de la mujer e hijas del

Mendizabal alkatea eta alkateordea non zeuden, Felix Olabe[201] apaizak hartu behar izan zuen bere gain erresistentziaren buruzagitza. Bere testigantza benetan argigarria da, orain arte zabalduriko zenbait mito —eibartarren defentsa heroikoarena, batik bat— lurretik botatzen dituelako. Hona zer dioskun:

> El 29 bajo D. Pedro Joseph la tropa del Señorio hasta su jurisdiccion y alli hizo alto —la tropa— pidiendo al Comandante avozes los destinase alli a sus puntos, por que no querian salir de la xurisdiccion y entonces el Comandante Larrañaga gritó que le siguiesen los que voluntariamente le quisiesen seguir y de facto bajó con algunos que le siguieron con el Marques de Valdespina, y se les agrego el Vizconde de Santo Domingo. El alcalde y teniente de Eybar que hacian de Capitanes no parecian, y suplicaron a nuestro d. Felix que supliese sus faltas, y se ofrecio a ello, diciendo que en semexante genero de Guerra no lo reusaria y grito si todos le querian reconozer por Capitan, y todos contextaron que si, y como tal con su sotana y habito de sacerdote, salio a recivir e incorporarse con los vizcainos que bajaron con quienes se mantubo hasta que por no parecer el auxilio que se esperaba de Mondragon y la circunferenzia de Elgueta, ni bajasen de la jurisdizion los vizcainos que quedaron alli se bolvieron tambien los demas vizcainos en el mismo momento en que entraba el frances en Eibar y viendose D. Felix solo con poca gente, y que no podia retirarse por el Camino Real se retiró a la derecha a un Monte sin hacer fuego ni contextar a el enemigo hasta que vio arder la villa y que le hiban a cortar el monte que esta sobre Olariaga. El dia 30 paso D. Felix por municiones y a buscar algun dinero prestado a la villa de Durango para mantener la poca gente armada que quedo con el[202].

Testigantza horretatik hauxe azpimarratuko nuke: Bizkaiko Diputazioak Eibar herrialdean onartu bazuen ere, Bizkaiko tertzioek Eibar defendatzeari uko egin ziotela, erakundeen erabakiek herritar xumeengan zeukaten eragin makalaren seinale[203].

Alguacil la comida en las ollas grandes de cobre estañadas que tenia para Zera, y traiendo ademas dos calderas grandes y otras, las 100 libras de Baca y entre ellas 25 libras de Tozino, con la porcion correspondiente de berzas, por fin despues de muchos pasos en Hermua consiguio algunos tres pellejos de clarete y llego con ellos a la una dadas del medio dia, ya luego en las Mesas que estavan puestas en las sala consistorial acomodando a las Jentes se repartio el pan (…) y suministro la comida con a cada dos o tres escudillas de caldo a muchos porque se hallavan fatigados de necesidad. Hasta aqui es literal la relacion o apuntes de Arrazain», eta hemendik aurrera «sigue la instruccion con echos ciertos y probables», argitzen digu autore anonimoak, BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

201. Felix Olabe Pedro Olaberen semea zen, alkate izandakoa 1758an, eta Fernando Olaberen anaia (sindikoa 1779an, errejidorea 1797, 1806 eta 1817an, eta alkatea 1828an). Olabetarrak, familia boteretsua izateaz gain, senidetasun-harreman estuak zituzten beste handiki batzuekin: bere arreba Maria, Juan Jose Agirrerekin ezkonduta zegoen, eta arreba Maria Teresa, Juan Esteban Bustindui ospetsuarekin. Horien seme-alabak, berriz, Orbea eta Mendizabaldarrekin zeuden ezkonduta.

202. BUA, C/127-94 dokumentua.

203. Hau ez zen Bizkaiko tertzioek herrialdetik kanpo borrokatzearen aurka protestatzen zuten lehen aldia. Celina Ribechinik Sopuertako eta Getxoko udaletan sortu ziren istiluei buruz hitz egiten digu: «Los vecinos se dirigieron con insultos y amenazas a las autoridades, acompañados de “palos, navajas y cuchillos” diciendo que no saldrían a servir fuera de Vizcaya “aunque lo mandase S. M. (que Dios guarde), el Señorío, ni los Señores de su Gobierno” … No era ajena en las protestas la participación activa de las mujeres madres y esposas de los alborotadores. Ellas y ellos coincidían en

Larrañagak —Juan Antonio izango da, 1. konpainiako kapitaina— borondatez jarraitu zioten bizkaitarren laguntza baino ez zuen eduki. Beraz, Bizkaiari biltzearen taktikarekin eibartarrek ez zuten lortu espero zutena, edozelan ere euren kabuz antolatu behar izan baitzuten herriaren defentsa, Ermuako mugan pilatzen ziren tertzio bizkaitarren laguntza handirik gabe.

Irailaren 18an Jaurerritik heldutako bi gutun irakurri ziren Eibarko eskribauaren etxean. Udaletxea erreta zegoenez, bertan bildu ziren Eibarko auzokideak. Lehen gutunak —abuztuaren 23an datatuak— Bizkaian sartzeko eginiko proposamena onartzen zuen; bigarrenak —irailaren 13koak— Gipuzkoako zenbait udalerri Getariako Batzarretatik aldendu eta beste diputazio bat eratzen ari zirela jakinik, ea proposamenak indarrean jarraitzen zuen galdetzen zien eibartarrei. Izan ere, abuztuaren 28an, gaueko 9ak aldera, Arrasateko alkatearen —Anjel Etxabarriren— gutuna jaso zuen Mendizabal alkateak, Getariako Batzarrak aintzat hartu ez eta diputazio berri bat egiteko proposamenarekin «… por la causa de Dios, el Rey y la Patria». Batzar horiek Arrasaten egin ziren, irailaren 1ean, baina eibartarrek ezin izan zuten parterik hartu, «… con motivo de haberse ausentado la Justicia, Regimiento y vecinos (como indefensos por falta de gente)) y todavia no han regresado los más de ellos por no tener casas donde retirarse»[204]. Edonola ere, harrigarria iruditzen zait abuztuaren 23an Bilbotik igorritako gutunak astebeteko epea behar izana Eibarrera ailegatzeko. Jaurerrian onartu eta laguntza militarrik bidali ez izana justifikatzen bezala, hauxe zioen Jaurerriak irailaren 13ko gutunean: «… aunque estime la union que solicito en los terminos que le comunique con el mismo comisionado, sin embargo como posteriormente han formado cuerpo de Comunidad varios Pueblos de esa Provincia y han nombrado Diputados Generales a voz de Provincia, ignoro si concurrio a la Junta, y si se tiene por parte integrante de ella»[205].

Eibartarrek erresuminik gabe eta esker onez jaso zituzten Jaurerriaren azalpenak, «… bien entendido que ni el haberse formado cuerpo de comunidad por los pueblos fieles de esta Provincia, ni el haber concurrido a sus Juntas la representación de esta villa, borrará jamas en ella el agradecimiento, y buena correspondencia para con dicho M.N. y M.L. Señorio»[206]. Hurrengo taulan Jaurerriari biltzeko eskakizuna sinatu zuten biztanleen nortasunak eskaintzen dizkizuegu. Hauei Valdespinako markesa eta Francisco Unzaga gehitu behar dizkiegu.

---

que sus quejas eran producidas por la obligación del servicio militar fuera de Vizcaya, no dentro del Señorío» (Ribechini, 1996: 36, 37).

204. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-2.

205. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-18.

206. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-18.

NORTASUNA	Jaurerria 1794		Jaurerria 1794
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente	Bai	GUISASOLA Gabriel	Bai
ARETA MANDIOLA Andrés	Bai	GUISASOLA Joseph Joaquín	Bai
ARRAZAIN Francisco Antonio	Bai	IBARZAVAL Ignacio María	Bai
ARTAECHEVERRIA Francisco	Bai	LARRAÑAGA Juan Antonio	Bai
AZPIRI Francisco	Bai	LECETA Joseph Francisco	Bai
BASCARAN Juan Bautista	Bai	LECETA Juan	Bai
BUSTINDUI Juan Esteban	Bai	MUGUERZA Felix	Bai
ECENARRO Pedro Antonio	Bai	OLAVE Domingo	Bai
ECHEVARRIA Francisco	Bai	OLAVE Pedro	Bai
ECHEVERRIA Josef	Bai	OLAVE Pedro Francisco	Bai

LASKURAIN AITA-SEMEAK, AUZIAN

Eibarko Udalak Konbentzioaren gudarosteen inbasioaren aurrean gauzatu zituen ekimenen artean, traizioari buruzko aipamen labur bat aurkitzen dugu «… formando guardias y centinelas, prendiendo diferentes espías y demás personas sospechosas de alguna traición»[207], baina aktak —hau da, eskribauak— ez zuen bat ere zehaztu zeinek edota nola egin zuen traizioa. Zorionez, Bergarako Udal Artxibategian ia-ia kasualitatez aurkitutako dokumentu oso baliagarriak izan ditut ikerketaren ildo hau jorratzeko orduan.

Lehen dokumentua arestian aipatu dugun izenpetu gabeko idatzia da. Arrazainen testigantza bildu ostean, autore ezezagunak «… sigue la instruccion con echos ciertos y probables» gaineratzen zuen, betiere bere nortasuna ezkutatuz, eta ordura arte inon aurkitu gabeko datuak eskainiz: «Desde el dia 2 de Agosto se tenia noticia de que Lascurain menor, Aldamar, Romero y otros varios corrian de acuerdo con los Franceses (…) El mismo dia 26 se tubo noticia o soplo de que de la casa de Lascurain maior mandavan recadistas diariamente a la casa de su hijo que por entonces estava en Deva; con esta noticia y recelos anteriores, el 27 se pusieron centinelas y la misma noche cojieron estos a la criada de Lascurain que yba con carta para dicho su hijo»[208]. Gogoratuko dugunez, Juan Andres Laskurain "*maior*" 1766ko matxinoen salatarietako bat izan zen, eta izen bereko seme bat zuen —Juan Andres "*menor*"—. Semea errejidorea izan zen 1784an[209], baina Eibartik kanpo bizi zen 1786tik[210], Mutrikun, hain zuzen.

Laskurain nagusiaren ibilbidea pixka bat zehaztea merezi du. 1721 aldera jaioa, Irarragorri baserrian bizi zen, Eibarko hirigunetik kanpo. Udalerriko konpainiako kapitaina izan zen 1762ko gudaldian, errejidorea 1763an, alkatea 1769, 1774

207. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-28.

208. BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

209. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1784-1-1. Agintaldi berean, Laskurain nagusiak herri-sindikoaren kargua bete zuen.

210. Gipuzkoako Artxibategi Orokorra (GAO), SS12, 1786.

eta 1779an, sindikoa 1782an eta herri-sindikoa 1784an. Konbentzio Gerra hasita ere, eginkizun garrantzitsuak bete zituen, horien artean armaginen salbuespena lortzeko gestioak egitea. Baina, beharbada, Eibartik kanpo zeuden handikien ordezkaria izatea zen gehien bereizten zuena: 1778an behintzat, Santa Kruzeko markesak Eibarren zeukan ordezkaria izan zen, eta hura falta zenean bere ordez aritzen zen alkatetzan[211]. Aztertzen ari garen sasoian Barroeta Aldamarrek Bizkaian zituen jabetzen administratzailea zen[212], eta Barroeta konbentzionalen kolaboratzaile nagusietariko bat zela kontuan hartuta, ziurrenik hauxe izan zen bere aurkako susmoak piztu zituen faktore nagusia[213].

Bere semea peritu agrimentsorea zen, aita bezalaxe. Bergarako idatzi anonimoaren egileak adierazten zuenez, semea bai, zalantzarik gabe, frantziarrekin bat eginda zebilela: «El dia 28 tuvo noticia de que los dias anteriores Lascurain, Romero, Aldamar y un Injiniero Franzes, havian handado reconociendo algunos montes que median desde esta villa a la de Ondarroa»[214]. Norbera ondarrutarra izanda, datu argigarria iruditu zitzaidan honako hau, izan ere, Konbentzioaren gudarosteak Mu-

211. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1778-9-6.

212. Bere aurkako auzian deklaratu zuenez «… ha tenido a su cargo la administracion de la hacienda de Ibarra que radica en Zornoza propia de don Joaquín Aldamar haviendo servido a su madre primeramente por espacio de cerca diez y ocho años poco mas o menos, y a su hijo ultimamente por el tiempo de quatro o cinco, aunque hace un año que no corre con el sin embargo de que resulta alcance en sus cuentas a favor del que declara por cuio motivo le ha escrito varias veces sin que haya recibido contextacion», Madrileko Archivo Histórico Nacional (MAHN), Leg. 6327 / Exp. S.N., «Autos formados y remitidos al consejo extraordinario sobre sospechas de infidencia contra su patria y adhesión y comunicación con los franceses. El comandante general de las tropas del señorio de Vizcaya contra Juan Andrés de Lascurain, natural de Eibar, Labrador y perito agrimensor», Juan Andres Laskurainen testigantza, 1794-9-1. Bizkaiko Foru Aldundiko artxibategian aurkitutako dokumentazioak hitz hauek egiaztatzen ditu, Barroeta Aldamar familiak Zornotza aldean zituen jabetzen administraria baitzen 1770etik: «Traslado de la escritura de poder otorgada por Juan Andrés Lascurain, vecino de la villa de Eibar, como apoderado de los bienes de Juan Matías de Barrueta Aldamar, vecino de la de Guetaria, dueño y poseedor de varios bienes del mayorazgo de Ibarra —Zornotzan— sobre tala de distintos árboles en el citado mayorazgo», 1770-1-29, Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibategia (BFAA), sign. JCR 4016/020. 1774an, Juan Matías Barroetaren heriotza gertatuta ere, bere alargunak —Josefa Ignacia Alzolarasek— administrari-karguan mantendu zuen (vide BFAA, sign. JCR 0126/010), eta hurrengo urteetan ere (1778, 1779 eta 1788an) Barroeta familiaren interesak defendatu zituen Ibarruriko elizatearen eta Zornotza, Bedia eta Lemoako herritar batzuen aurka. BFAA, JCR 1719/005, Judicial Corregimiento (JCR) 2203/005 eta JCR 1061/138 signaturak.

213. Pedro Joseph de Olabek zioenez «… que lo unico que puede asegurar el deponente sobre la conducta de Juan Andres de Lazcurain en las presentes circunstancias, es que por recelo que tenian de el en atencion a que publicamente se sabe que dicho Lazcurain era Administrador de Aldamar o Romero, y que aun hace un mes concluio una media barrena de dicho Romero la que trabajaron dos oficiales a quenta de rentas», MAHN, Pedro Joseph Olaberen testigantza, 1794-9-6.

214. BUA, Eibar, C-104 dokumentua. Laskurain gazteak frantziarrekin izan zezakeen loturaz, Felix Olabek datu gehiago eskaintzen zituen: «Durante toda la Guerra siempre se ha mantenido Lascurain con los franceses, y con facultades absolutas como provedor de Leña del Ejercito frances en Zumaya y demas Pueblos de su immediazion», BUA, C/127-94 dokumentua.

triku aldetik eraso beharrean, Gorozikatik zehar jaitsi zirelako Berriatura, Ondarroa inguratuz[215]. Taktika horrek alferrekoak bihurtu zituen Bizkaiko Diputazioak Ondarroan —Gipuzkoako mugan, oraingoan ere— pilatu zituen batailoiak, eta Ondarroa frantziarren eskutan gelditu zen, erresistentzia labur baten ostean. Frantziarrek ez zituzten ezagutzen Ondarroa inguruak, eta beraien jokabide taktikoak Laskurain gazteak mugimendu horietan izandako esku-hartze zuzenaren hipotesia indartzen du.

Laskurain gaztea, beraz, Romero eta Barroeta Aldamarrekin bat eginda zebilen. Romeroren aita gainera, Getariako matxinoak zapaltzeko arduradunetariko bat izan zen 1766an (Otazu y Llana, 1973: 280), Laskurain gaztearena bezalaxe Eibarren. Azken horrek, Debara bidali zion gutunean —abuztuaren 26an—, herrian traidorea zelako zurrumurrua zabaltzen hasia zela jakinarazi zion, eta Gerra Diputazioaren agintari ohiengandik urruntzeko aholkatu. Eta semeak erantzunean aitortzen zuenez «… estaba en la casa de Aldamar por que se le pagaba su jornal diario sin mucha fatiga, y lo necesitaba y no era de perder por dicharachos una casa como aquella que ya confesaba era infumada de traicion, por que dice que ya Romero y Aldamar havian dado satisfaccion en corte de su mala fama»[216].

Aita-semeen arteko gutuneria

Abuztuaren 18an eta 23an, Debatik heldutako informazioen arabera, Laskurain gazteak bertan jasotzen zituen bere aitak bidaltzen zizkion gutunak. Deba jada frantziar indarren esku zegoenez gutun-trukaketa hau oso susmagarria bihurtzen zen. Gau batean Ignacio Maria Ibarzabal eta Vicente Aldekoa eibartarrak Irarragorri baserriaren inguruetan ezkutatu ziren, eta bertako neskamea baserritik irtenda Maltzagarantz abiatzen zela ikusirik, geldiarazi eta «… la registraron hallandola una carta en el bolsillo con direccion al hijo de Lazcurain y en vista de esto la conduxeron a la casa consistorial en donde estaba el que depone como uno de sus vecinos, y entre el Alcalde, el y otros la abrieron y leyeron la que decia en substancia que Eybar se agregaba al Señorio, y que el citado Eybar, y Elgoibar se querian defender, y que asi viniese a su casa que alli tenia el fusil, que luego la registraron todo el cuerpo por si la encontraban algun otro papel, pero no la hallaron, que despues la preguntaron bajo de juramento si llevaba algun otro recado verbal

215. «Al amanecer del día 28 se hallaban las tropas francesas en el alto de Iciar y evitando la costa llegaron hasta Santa Cruz, desde donde continuaron hacia Gorozika y Berriatua. Era una maniobra envolvente de nuestra villa, que al dominar las alturas, quedaba a merced de los invasores. Receloso de la maniobra el Comandante de las tropas del Señorío llegadas a la zona ordenó a las mismas la urgente retirada hacia las alturas del camino de Lekeitio, que entonces pasaba por Arteta, Zezermendi y Mendeja. En un principio el enemigo paró en Berriatua y se ocultó en esta anteiglesia. Se enfrentó con las tropas vizcainas en Kalamendi, donde se pudo mantener cierta lucha hasta que se acabaron las municiones, que quedaron en Ondarroa sin opción a sacarlas», Zubikarai, A. (1986): "Visitas amargas", *Ondarroa*, 45. or., apud LABAYRU.

216. BUA, C/127-94 dokumentua.

reservadamente, y respondio que no, en seguida de esto la dixeron si habia ido alguna otra vez con cartas para el hijo del insinuado Lazcurain, y contexto que una o dos veces, y que trajo respuestas para su Padre, tambien la hicieron la pregunta relativa al paradero del hijo, y aseguro que se hallaba en Deba en la casa de Aldamar»[217].

Ikusten dugunez, aitak herrira itzultzeko eskatu zion bere semeari, bere fusila hartu eta bere erkideekin batera frantziarrei aurre egiteko[218]. Zintzoa ote zen bere eskakizuna? Edo eibartarrak defentsarako prestatzen ari zirela ohartarazteko modu bat? Laskurain gaztea behintzat, ez zen bere jaioterria defendatzera itzuli, ezta Mutriku defendatzera ere, azken urteetan bertan bizi arren. Felix Olabek Mutrikuko alkatea zen Julian Txurrukarengandik jasotako informazioaren arabera, abuztuaren 25ean Laskurain gaztea izan zen herrialdea defendatzeko mobilizatu ez zen herritar bakarra, «… y le añade que corrio por publico desde entonces que Lascurain se unio a los franceses y asistio con ellos a los Ataques y expediziones que hicieron, y que se halló en el Saqueo de Vergara, y se dio buena mano, y travajo mucho en recoger Alajas como lo acredita la Carta del mismo Churruca»[219]. Txurrukaren testigantza egia bada behintzat, aitak ez zuen semea ezagutzen, edo ondo baino hobeto ezagutzen zuten elkar.

Baina neskameari aurkitutako gutunetik ez zegoen Laskurain nagusia traidorea zela ondorioztatzerik, eta orduan, ikerketaren ildoa bere semeak Debatik bidalitako gutunek zer zioten jakitera bideratu zen. Egia esan, susmoren bat edo beste bazeukaten; izan ere, abuztuaren 21eko auzokideen batzarrean Bizkaiari biltzea eztabaidatu zenean, Bordeletik Donostia bitartean 80 mila soldadu baino gehiago zeudela azaldu baitzuen Laskurainek, alferrik izango zela Bizkaiari biltzea, laster Jaurerria ere frantziarren esku egongo zelako, «… y en caso de resistencia lo incendiarian todo, y exivio la carta a barios vezinos y miembros del Aiuntamiento y que solicitaba la francia que la Guipuzcoa fuese republica. A que se le opuso Juan Antonio de Larrañaga, diciendo que de tiempo inmemorial havia sido del Rey catolico la Guipuzcoa como consta de sus fueros. Y sacando Larrañaga mui malas consecuencias… dijo que para que al Rey no se le perjudicase, se le hiciese cargo

217. Madrileko Archivo Histórico Nacional (MAHN), 6327 dokumentua, S.N.

218. Pedro de Basabilbasok —Ermuko eskribauak— bertsio hau baieztatzen du. Neskameari aurkitutako gutuna aztertzera bidali zuen Valdespina markesak «la que leyeron, y su contexto se reducia … a decir el nominado difunto Lascurain a dicho su hijo Juan Andres (que le parece vivia en Deva) que la gente de esta villa hiva armandose para hacer defensa contra el enemigo y pedian sus naturales que todos lo de estta villa que se hallaban ausentes viniesen a ella para igual efecto de armarse contra el enemigo, y que asi dicho Juan Andres su hijo viniese al propio efecto a esta villa, cuio consejo le daba en dicha carta el referido su Padre: Vista pues esta carta, el testigo y dicho su compañero volvieron a su punto citado de Ermua, sin haber hecho novedad con dicha Criada, por no contener la referida Carta delito para su prision», MAHN, 6327 dokumentua, S.N., 1996-2-24.

219. BUA, C/127-94 dokumentua.

de donde se le havian revelado estas noticias»[220]. Harrigarria bada ere, abuztuaren 21eko aktan ez da eztabaida horri buruz ezertxo ere aipatzen. Are gehiago, Laskurain ez da eskribauak jaso zuen auzokideen zerrendan agertzen.

Beste batzuen esanetan, ordurako Laskurain nagusia hasia zen Konbentzioaren aldeko proselitismoa egiten. Francisco Bergarak zioenez[221], abuztuaren 19an «… estaba frente de la tienda del Sastre, vertiendo expresiones con que queria persuadir a todos que bivirian mejor en la Dominacion francesa». Orduan, Vicente Aldekoak ea zertatik biziko ziren galdetu zion, frantziarrekin bat eginda espainiar erregearentzat fabrikatzen zituzten arma-eskaririk gabe, «Y respondio el querellante que los franceses les pagarian en Papel, y que reducido este a dinero en San Sevastian se les proporcionaria dinero efectivo del importe de todas las armas que pudiesen travajar»[222].

Dena dela, Laskurain gazteak bidalitako gutunak aurkitzea lehenbiziko eginkizuna bihurtu zen Felix Olabe apaizarentzat. Abuztuaren 29an —frantziarrek Eibar erre zuten egunean— Laskurainek, Juan Arizmendi Arrietaren laguntzarekin, frantziarrek bidalitako diruz betetako kutxa bat bere baserrian lurperatu zuela jakin zen[223]. Biharamuneko gauerdian, Olabe Irarragorri baserrira hurbildu zen, gidatzen zuen gudu-taldetxoaren buruan. Eta aipaturiko kutxan ez zutenez dirurik aurkitu, «… pregunto que habian traido en aquel cajon, y le respondieron que abadejo; A que contexto d. Felix que no olia el cajon a Pescado y luego paso a reconozer unas cartas entre las que halló una reservada que hasta aora a nadie la ha manifestado y la guarda en su poder para presentarla en el tribunal»[224]. Argi dago, beraz, aita-semeen arteko gutuneria eskuratzea lehenbiziko helburu bihurtu zela Olaberentzat, eta horren seinalea dugu bizpahiru egun geroago bigarren miaketa bat burutu izana

220. BUA, C/127-94 dokumentua. Pedro Abanzabalegi lekukoak bertsio hau baieztatu zuen Laskurain nagusiaren aurkako epaiketan. Abanzabalegik zioenez, frantziarrei nola aurre egin eztabaidatzen ari zirela Laskurainek «dixo que para que andaremos en essas cosas, si ha de tomar el frances toda la Provincia dentro de seis dias y tambien Vizcaya dentro de doce dias, y despues le respondio un vecino que por donde le consta, y contexto el mismo Lazcurain, yo lo se, y despues de esto se revolvio una bulla entre todos y assi se quedo sin que el deponente pueda decir otra cosa sobre las circunstancias del referido Lazcurain (…) sino que desde entonces esto es desde aquel pasage del ayuntamiento segun ha oido en esta villa todos tienen recelo de el», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Pedro Abanzabalegiren testigantza, 1794-9-7.

221. Francisco Bergara konbentzionalek erahil zuten Eibarren sartu zirenean (Sarasketa, 1909: 34).

222. BUA, C/127-94 dokumentua.

223. «La misma noche, con soplo de que en la Caseria de Irarragorri, o casa de Lascurain habian enterrado el dinero que contenia un cajon grande correspondiente a los franceses, o bien a su director Aldamar, partio D. Felix de Durango, y a medianoche llegó a dicha caseria en la que aunque hallo entre otros a uno que segun el soplo aiudo en esta maniobra, como tambien un cajon de las dimensiones que se le havian entregado, no dio con el dinero», BUA, C/127-94 dokumentua.

224. BUA, C/127-94 dokumentua.

Irarragorri baserrian: oraingo honetan ere, dirurik ezean, aurkitu zituzten paper eta gutunak eskuratu zituzten miatzaileek[225].

Saturioko zubia eta Laskurain nagusiaren atxiloketa

Abuztuaren 21eko udal-aktan ezertxo aipatzen ez bada ere, Saturioko zubiaren suntsiketaren inguruan sortu zen eztabaidak Laskurain nagusiaren aurkako susmoak areagotu zituen. Frantziarren aurreratzea oztopatzeko, Maltzaga parean dagoen zubitxo hori apurtzea erabaki zuen auzokideen batzarrak, eta Laskurain aurka agertu zen, apurketak Konbentzioaren gudarosteen erasoaldia gelditu beharrean, «tomarian mas saña contra esta villa»[226] argudiatuz.

Abuztuaren 29ko goizaldean, frantziarrak Elgoibarren zeudela jakin zuenean, Juan Bautista Mendizabal alkateak eibartar talde bat bidali zuen Maltzaga parera, Saturioko zubitxoa suntsitzeko helburuarekin. Inguruetan Laskurain nagusia aurkitu zuten, eta Mendizabalek zioenez, agindua betetzea galarazi zien, «… pretextando que la cavalleria nuestra bajaba de Mondragon a defenderlos»[227]. Horren jakitun, Mendizabal bera hurbildu zen Saturioko zubira. Bidean Laskurain aurkitu zuen, eta honek «… hablando con el, le apoio por de pronto su pensamiento, llegaron al puente de Saturio y le dijo al Alcalde que volbiese a su Casa y diese las demas providencias y que dejara a su cuidado la cortadura del puente, y le creio… y lo que sucedio fue que luego que el Alcalde bolbio a la villa, les dijo a los nombrados para cortar el puente el dicho Juan Andres de Lascurain, que el frances no hacia mal a nadie y que bolbiesen con el a su casa y echarian un trago, y de este modo volbieron los hombres a casa de Lascurain dejando el puente en su ser»[228].

Hortik aurrera gertakizunek abiada izugarria hartu zuten. Goizeko 9ak aldera, Laskurain nagusia herrirantz bueltatzen ari zela, Urkizuko zubia zaintzen zegoen Bizkaiko gudarosteen komandanteak atxilotzea agindu zuen, «… porque un muchacho de ella le dijo que de aquel hombre habia sospecha de que trataba con los Franceses»[229]. Berriatuko sei tertzioren artean lotuta Ermura eraman zuten, eta Joaquin Larrinaga komandante bizkaitarraren aginduz kartzelara zeramatela, Ermuko alkateak «… advirtio que varios de Eybar que se hallaban en dicho Hermua levantaron la voz, sin que sepa quienes fueron expresando que el referido Andres era un picaro que debian ahorcarle pero sin embargo de esto le conduxo a la

225. «A los dos o tres dias despues llamo a d. Felix la Justicia y le suplico que le ayudase al reconozimiento del Abeleche, y en el mismo parage que enterraron el dinero segun el soplo, hallaron algunas Cartas y papeles que tenian en una Arca quando D. Felix hizo el primer reconozimiento», BUA, C/127-94 dokumentua.

226. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Baskaranen testigantza, 1796-1-26.

227. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Mendizabalen testigantza, 1794-9-26.

228. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Mendizabalen testigantza, 1794-9-26.

229. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Francisco Azpiriren testigantza, 1796-1-25.

prision»[230]. Miaketan, koronila zahar bi, zilarrezko 14 erreal, bolbora-gordailutxo bat —beteta—, 14 bala, betaurrekoak, tabako apur bat, arrosarioak, tintero bat eta zenbait paper eta gutun aurkitu zizkioten[231]. Goizeko 11k aldera, Larrinaga komandanteak Laskurain Durangora bidaltzea erabaki zuen. Goiz berean bizkaitarrek bere suhia —Andrés Areta— atxilotu zuten, bi egun lehenago Sasiolako ostatuan ikusi zutelako «… por la que acavaba de pasar el Exercito Franzes»[232]. Sare horretan guztian Sasiolako ostatuak zein paper jokatu zuen argitzerik ez dut izan, baina litekeena da Konbentzioaren aldeko konspiratzaile eibartarren topagune bat izatea. Ez dugu ahaztu behar Eibarko tertzioek bertan atxilotu zutela soldadu frantziar bakarra (!) Loiolako zilarra garraiatu ostean bueltan zetozela. Eta Felix Olabek zioenez «… el mismo recadista dijo que Romero en su presencia habia preguntado al ventero de Sasiola, si Lascurain estaba cerca y que le respondio que si»[233].

Bizkaiko soldaduek Laskurain nagusia eta Andres Areta atxilotu bazituzten, beste aldean ere ez zeuden geldirik. Alderantziz, badirudi Elgoibarren zeuden konbentzionalek atxiloketa horien berri eduki bezain laster, ziztu bizian abiatu zirela Eibarrerantz[234]. Puntu honetan, zalantza nagusia da jakitea non aurkitzen zen Laskurain gaztea. Elgoibarren bazegoen, ulergarria da bere aita atxilotu zutela jakitean, berehala abiatu izana Eibarrerantz, hura askatu nahian; eta Eibarren aurkitu ez zuenean Ermurantz jotzea, bertako kartzelara eraman zutela jakitean. Maria Andres Aldasolok —Isidro Baskaranen neskameak— zioenez, Eibar gurutzatu zuten zutabe frantziarren buruan gaztelaniaz mintzatzen zen zaldun bat zebilen, Laskurain gaztearen trazakoa[235]. Felix Olabek zioenez, abuztuaren 29ko goizal-

230. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Joseph Egia, Ermuko alkatearen testigantza, 1794-9-4.

231. Felix Olabek zioenez, gutun horien artean Barroeta Aldamarrek bidalitako bat zegoen: «En que por las muchas noticias que le havia comunicado le daba gracias con otras advertencias, cuia carta se quedo en casa de Joseph de Eguia Alcalde que era de Ermua, que si no la recogieron los mismos franzeses se quemo en el Inzendio de aquella tarde».

232. BUA, Eibar, C-104 dokumentua.

233. BUA, C/127-94 dokumentua.

234. «El mismo dia 29 a las onze y media se tubo noticia de que desde la casa de Lascurain havian embiado aquella mañana tres recadistas a los Franceses que se hallavan en Elgoybar y al llegar el tercero havian mandado tocar la Generala y que a la Tropa ni havian dado lugar de tomar Bocado y que venian a toda priesa (sic) contra esta villa», BUA, Eibar, C-104 dokumentua. Felix Olaberen bertsioa idazle ezezagunarekin bat dator gudaroste frantziarrak ziztu bizian abiatu zirela baieztatzean: «A las 11 y media de la mañana llego un Propio desde Elgoybar con la noticia de que havian hido tres Propios desde Eybar, y que sin dar lugar a la tropa francesa para tomar un vocado, benian a toda presa a Eybar; y añadio el recadista que uno de los propios que fue aquella mañana a los franceses era un muchacho de corta edad, y que segun habia oydo, los tres dimanaban de la casa sospechosa», BUA, C/127-94 dokumentua. Izan ere, bi idatzietan "Bocado" terminoa erabili dela ikusteak pentsarazten dit beharbada Felix Olabe eta idazle anonimoa pertsona bera dela.

235. Maria Andres, 18 urtekoa, Isasi komentuaren parean zegoen, beste neska batzuekin batera. Berak zioenez «el viernes en que sucedio el incendio de Eybar y Hermua, estubo la deponente sentada con otras dos compañeras a la entrada de aquella villa por la entrada de esta, y a esso delas dos de la tarde poco mas o menos, paso la tropa francesa, y entre ellos algunos de a caballo, y por uno de

dean oraindik Ondarroan zegoen[236], bezperan, armada frantziarrarekin batera udalerri bizkaitarrean sartu ondoren. Bi herrion artean zaldiz bi orduko bidea zegoela kontuan hartuta, Ondarroan egon arren, ez genuke baztertu behar aitaren atxiloketa jakin bezain laster Eibarrerantz abiatu izanaren hipotesia.

Leku batean zein bestean egonda ere, ez genuke pentsatu behar Ermua eta Eibar erre izana, Laskurainen atxiloketaren aurrean konbentzionalek harturiko mendeku hutsa izan zenik. Abuztuaren erdialdetik aurrera Jaurerritik irtendako gudu-taldeek, frantziarrek oraindik okupatu gabeko herriak erasotzen zituzten, haiek ailegatu baino lehen bertako baliabideak eskuratzeko. Abuztuaren 17an Debako alkateak inbasio bat espero zuela jakinarazi zion Gipuzkoako Diputazioari. Hurrengo egunean bizkaitarrek Deba lurrez eta itsasoz eraso zuten, eta frantziarrak sartu aurretik, su eman zioten. Bertako biztanleek mendiko sasitzetan ezkutatu behar izan zuten. Abuztuaren 22an, goizeko hirurak aldera, bizkaitarrez osatutako gudutalde bat Elgoibarren sartu eta bertan gordetzen ziren arma apurrak eraman zituen (Mutiloa, 1978: 96, 97). Zentzu horretan, Ondarroaren erreketa zigor bat bezala interpreta dezakegu, ondarrutarrek abuztuaren 18an Debako herriaren erasoan parte hartu baitzuten[237]. Eta era berean, Bizkaiko Jaurreriari abisu bat bezala, erresistentziarekin jarraituz gero pairatu beharko zituen ondorioez.

---

estos dixeron las compañeras, no es este el hijo de Iragorri? que asi se llama el sitio donde tiene su casa Juan Andres de Lascurain, a lo que contexto yo no se, y ninguna de las otras dos aseguro de cierto, ni tampoco puede decir con evidencia cosa alguna de esto porque era mucha la confusion de la Tropa, pues desde la plaza de dicho Eybar hasta los mojones de Vizcaya ocupaban todo el camino de modo que no cabia uno; que en los expresados mojones pararon todos excepto uno a caballo que marcho adelante, el que volvio al instante, y les dijo vamos de aqui corriendo que no hay cuidado, esto en lengua castellana, y al instante marcharon todos con mucha aceleracion, en terminos que el polvo que levantaban no se veia a ninguno», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Maria Andres Aldasoloren testigantza, 1794-9-11.

236. «El 29 a las dos de la mañana vino un Espia desde Ondarrua con las noticias de que Suasnabar, Romero, Lascurain, Aldaz, y otro de Deba estaban con los franzeses en Ondarrua», BUA, C/127-94 dokumentua.

237. «Esta invasión francesa sirvió para que aumentaran en nuestra costa las embarcaciones corsarias. Este año de 1794 fue muy pródigo en capturas. Bacalao, grasas, aguardientes, licores, azúcar (…) Según Teófilo Guiard, la causa de la ocupación misma francesa de Ondárroa radica en una incursion sobre los puertos de Motrico y Deba ocupados por los franceses, apoderándose en la primera de material de guerra y trigo., y en Deba de dos bergantines. Lo que influyó en la quema de la villa ondarresa» (Zubikarai, 1986: 46). BFAn gordetzen den txosten baten arabera, ondarrutarrek Barroeta Aldamarren bi itsasontzi bahitu zituzten 1794an, burdinaz beteta. Vide BFA, AJO 1263/014 (1794-1801). Frégeville jeneral frantziarraren proklamak argi eta garbi adierazten zuen Ermua eta Ondarroa erretzearen arrazoia zein zen: «Los Bizcainos se han atrevido a quemar Deva, robar a mano armada Almacenes que la República había conquistado en este puerto, a desarmar los habitantes de Vergara, así como de otras aldeas de Guipúzcoa que están bajo la proteccion de la República francesa. Para vengar el insulto hecho a la magestad del Pueblo francés por los habitantes de Ondarroa y de Ermua, culpables de estos delitos, se ordena a los Comandantes de las tropas francesas que hagan quemar esas dos aldeas. –El general de division, Henry Frégeville» (Lasala, 1895: 162). Lasala bera oso kritiko agertu zen bizkaitarren jokabidearekin: “Los vizcainos que primero no

EIBAR SUTAN

Defentsa-ahaleginak

Eibarko herriaren erresistentziari buruzko bertsiorik ezagunena Gregorio Mugicak idatzitakoa da[238]. Mugica, neurri handi batean, akta-liburuak eskaintzen duen bertsio epikoan oinarritu zen deskribapen hau egiteko orduan. Haren arabera «… se prepararon con la mayor presteza siguiendo las ordenes y providencias de el expresado señor alcalde Don Juan Bautista Mendizabal coadyuvados por su teniente Don Gabriel de Guisasola adelantándose ambos con el ejemplo como Capitanes experimentados en la frontera, y distribuidas las gentes dentro y fuera de la población en los sitios y parajes mas adecuados para ofender al enemigo le hizieron la mas esforzada resistencia con vivísimo fuego causándole muchas muertes y heridos en todo el distrito de esta jurisdicción desde el primer confín y estrecho de el término de Malzaga hasta la raya y cumbres de la villa de Ermua en el Señorío de Vizcaya, procurando siempre ganarle la delantera especialmente en la ocupación de las alturas»[239].

Bertsio horri guztiz kontrajarrita dago, Francisco Antonio Arrazainek eskaini zuena. Abuztuaren 31n Arrazainek Berrizen idatzitakoaren arabera, abuztuaren 29ko goizaldeko lauretarako frantziar batailoiek Eibarko gainak kontrolpean zituzten; kanpaiak "*arrebato*" jo arren jendea bildu zenerako konbentzionalak Ermuan zeuden jada, baina ez du azaltzen nondik igaro ziren. Bi bertsioen arteko erdibidean, Felix Olabe apaizak deskribaturiko anabasa iruditzen zait sinesgarriena: buruzagien faltan kapitain berriak izendatu beharrean, bizkaitarren eta Arrasatekoen laguntza ailegatuko zen jakin gabe, arma eta munizio gutxi, janaririk ez… Nahaste-borraste horren erdian, adin nagusiko jendea hirigunean gelditu zela esango nuke, eta borrokatzeko sasoian zeudenak inguruko mendietan ezkutatu zirela, zelatan, zer gertatuko zain… Arrazainek deskribatutakoaren arabera, elizako santuak apurtu eta forma sakratuak profanatu ostean, frantziarrek «… han cometido todos los más horrorosos sacrilegios y ultrages matando a los viejos y viejas y llevándose a las mozas que pudieron coger, habiendo forzado públicamente a

---

defendieron la España bajo el pretexto ridículo de que el Fuero no les permitía salir del Señorío, no tuvieron este reparo para salir a apoderarse de mis dos navios y de los efectos que contenían pertenecientes al Rey y de varias partidas de trigo que habia en los almacenes de S. M.» (Lasala, 1895: 163).

238. «En las calles de la villa se oyó el grito de guerra, y los eibarreses se dispusieron para luchar. Al frente de todos figuraron el Alcalde Juan Bautista Mendizabal como Capitán, y Gabriel de Guisasola como Teniente. Se rompió el fuego. Los valientes eibarreses guerrearon contra los franceses que recorrían el trayecto de Málzaga a Ermua, y acometieron a los que entraban a saco en las calles de la villa. Lucharon con denuedo; el entusiasmo eibarrés hizo proezas, pero aquel puñado de valientes hubo de sucumbir ante el empuje de los innumerables franceses que sobre la villa cayeron» (Mugica, 1990: 40).

239. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-28.

casadas y solteras» (Mugica, 1990: 441, 442)[240]. Eibarren bertan, gutxienez[241] zazpi lagun erail zituzten, horien artean haurdun zegoen Joaquina Bustindui, 39 urtekoa (Sarasqueta, 1909: 34)[242].

Ermutik itzuleran, Eibarri ere su eman zioten, konbentzionalek Gipuzkoan erre zuten herri bakarra bihurtuz[243]. Kasu honetan ez zuten Ermuan eta Ondarroan bezala herri guztia erre, baina kiskalitako etxebizitza kopuru altuena Eibarren izan zen: sugarrek 116 etxebizitza irentsi zituzten[244] Eibarren, 102 Ondarroan, 76 Ermuan eta 12 Berriatuan. Eibarren errespetatu zituzten etxebizitzen artean, Romero gerra-diputatu ohiak zuena. Ospa egin aurretik bederatzi lagun atxilotu eta beraiekin eraman zituzten; eta Arrazainek zioenez ez zuten edozein atxilotu, herrian sartu aurretik zeukaten zerrenda batean ageri zirenak baizik[245]. Nork egindako zerrenda, ordea? Ustez behintzat, eibartarrak ezagutzeaz gain, azken hilabeteko gertakizunen jakitun zegoen norbait izan behar zen. Baina atxilotuek herritar xumeak diruditenez, beharbada zerrendarena Arrazainen asmakuntza bat izan zen, edo existitu bazen, ez zen batere zehatza. Atxilotutako bederatzi lagunetatik bost Deskargako gainean fusilatu zituzten, eta beste lau libre utzi zituzten, horien artean Pedro Antonio Ezenarro botikaria[246], bere emaztea eta bere alaba.

240. «Extracto de la carta escrita por Francisco Antonio de Arransain desde Berriz el 31 de Agosto de 1794».

241. Bertsio gehienen arabera, frantziarren erasoak 12 hildako eragin zituela badiote ere, hildakoak gehiago izan zirela esango nuke. 1795eko apirilean Lorenzo Gisasolaren alargunak diru-laguntza bat eskatu zion udaletxeari, bere senarra frantziarren eskuetan hil zelako. Eibarko Udalak 40 errealeko laguntza eman zion. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-4-7. Lorenzo Gisasola ez da agertzen Sarasquetak eta Mugicak eskaintzen duten 12 hildakoen zerrendan.

242. Frantziarrek buruturiko basatikerien deskribapen osoa ezagutu nahi duenarentzat, EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-28 edo Mugica, 1990: 450.

243. Akta-liburuak dioenez, «fue la unica de toda esta citada Provincia de Guipuzcoa contra quien descargo dicho Enemigo la maior venganza, incendiando y abrasando sus Casas consistoriales, el Santo Ospital y otros muchos edificios» EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1795-10-18.

244. «Era berean udaletxea, hospitala, umeen eskola eta elizaren alderdi bat ere erreta geratu ziren. Berdintsu gertatu zitzaien industria eta tailer askori. Behargin askok, euren Eibar maitea laga, eta Bizkaian eta Oviedoko arma fabrikan lanean hasi ziren. Eta horrelaxe ia 40 urtean lurperatuta egon ginen» (Zelaia, 1994: 23).

245. «Los franceses traian lista de todos los que se habían distinguido más en defender la Religión, el Rey y la Patria para prenderlos y llevarlos consigo» (Mugica, 1990: 441, 442), «Extracto de la carta escrita por Francisco Antonio de Arransain desde Berriz el 31 de Agosto de 1794».

246. Ezenarro hain zuzen, lekukoetariko bat izan zen Laskurainen aurkako epaiketan. Berak zioenez abuztuaren 22ko auzokideen batzarrean «… hablo el dicho Lazcurain a favor de la Convencion, en estos terminos, que dentro de seis dias vendria el frances a Vizcaya, a lo que le reconvinieron varios del Ayuntamiento, pues como sabe vmd esso? luego vmd tiene comunicacion con los franceses? a los que no sabe el deponente si contexto o no contexto, por que no hace recuerdo de haver oido esta especie». Eta oroimena galdu izana justifikatzeko, atxiloketan bizi izandako estualdia

Lau egun iraun zuen zigor-espedizio horren ostean —abuztuaren 26tik 30era— gudaroste frantziarrak Tolosaldera itzuli ziren. Esan denez, beraien helburua ez zen herrialde osoa okupatzea, Bizkaiko lerroan aurkitzen ziren herri batzuk zigortzea eta Gipuzkoako armagintza-gune garrantzitsuena deuseztatzea baizik.

Armaginen exodoa

Lorenzo Aranburu eibartarrak Soraluze eta Eibarko hainbat armagin Asturias aldera joateko konbentzitu zituen, «… con halagüeñas promesas»[247]. Aranbururen ekimenaren ondorioz armagin horiek Gasteizen bildu eta Asturiaserantz abiatu ziren 1794ko azaroan; bigarren espedizioa 1795eko urtarrilean irten zen, Durangotik: «Estampa trágica digna de ser considerada bajo visicitudes materiales y morales que originaría aquella evidencia, al transitar por fragosos caminos, entre riscos y montañas, bajo las inclemencias del tiempo en período invernal». Bidaiak iraun zuen egun bakoitzeko armagin bakoitzak 12 erreal kobratzen zituen, eta beste launa berarekin zihoan senide bakoitzeko.

Irailaren 2an 18 auzokide bildu ziren Sebastian Argiano eskribauaren etxean, udaletxea erreta baitzegoen. Biztanle gehienak Eibartik kanpo zeuden oraindik, eta bezperan Arrasaten hasitako Batza Orokorretan parte hartzeko ordezkariak izendatu zituzten: Mendizabal alkatea eta Ignacio Maria Ibarzabal. Hortik aurrera, frantziarren bigarren erasoaldira bitartean (azaroaren bukaeran), Arrasateko Diputazioaren eginkizun nagusiak bi izan ziren: bata, erregearen aurrean Romero eta Aldamarrek "zikindutako" Gipuzkoaren izena garbitzea, herrialdearen leialtasuna adieraziz; bestea, konbentzionalen oldarrari aurre egiteko erresistentzia eraginkorra antolatzea (Mutiloa, 1978: 107). Bizkaitarrek, euren kabuz, ziurtasun neurri bereziak ezarri zituzten Deba bailaran: Eibarren, adibidez, euren burua eibartartzat

aipatzen zuen: «… y aunque la huviera oido, no es extraño que se le huviese olvidado con tantas desgracias como le han sucedido, de ver incendiada su casa con todo el omenage (sic), dejandole porr puertas, y aun haver sido llevado prisionero con toda su familia, y conducido a empujones precipitadamente hasta la jurisdiccion de Zumarraga en donde se libro con toda ella por altisima providencia de Dios a quien atribuye esta maravilla, pues los franceses en virtud de cierto expreso que recivieron, partieron a marcha doble para Tolosa dexando al deponente y su familia, por olvido y sin aprecio en dicho Zumarraga, y viendose de este modo, ya libres sin esperarlo, subieron a una caseria inmediata, en donde haciendo noche regresaron de monte en monte hasta llegar a esta referida villa en donde se halla dando gracias a Dios», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Pedro Antonio Ezenarroren testigantza, 1794-9-7.

247. «Aunque Aramburu había manifestado que tenía fundadas razones para prometerles, entre otras concesiones, que estarían libres de impuestos estatales —no se olvide que entonces estaba en toda su plenitud el régimen foral— una vez que aquellas personas arraigadas a sus seculares costumbres consiguieron afincarse en tierras astures, se vieron contrariadas por la decisión que adoptó el Consejo de Estado en 17 de marzo de 1795, al rechazar aquella concesión, aunque aprobó las restantes» (Larrañaga, 1981: 97-98).

aurkezten zuten susmagarri guztiak Mendizabal alkatearengana eramatea erabaki zuen Ordoñez Barraikua komandanteak[248].

19 herriren artean izendatutako diputazio tradizionalista[249] 1795eko martxoaren 13ra arte mantendu zen Arrasaten, eta konbentzionalak Bergaratik botatzeko ahalmena agertu zuen 1794ko abenduaren 2an. Baina 1795eko udaberriko erasoaldi erraldoiaren aurrean Gasteizera eraman zuen bere egoitza, eta geroago, Briviescara. Hantxe egon zen uztailaren 22an Basileako Bakea sinatu zen arte. Bake horren bidez espainiar erregeak frantziar errepublikak okupatutako lurralde guztiak berreskuratu zituen, horren trukean Santo Domingo uharteko alderdi espainiarra emanez.

Baina bien bitartean, zer gertatu zen Laskurain nagusiarekin?

LASKURAIN NAGUSIAREN AURKAKO AUZIA

Laskurain nagusia Durangoko bidean utzi dugu azkeneko. Astolako kartzelatik igaro ondoren, Durangora ailegatu zen egun bereko iluntzean. Sasoi hartan 73 urte zituela kontuan hartuta, 15 kilometro inguruko osteratxoak ez zion mesede handirik egingo. Bost egun geroago, irailaren 3an, Laskurainen galdeketa hasi zuen Joseph Nicolas Torresek, "*Abogado de los Reales Consejos vecino de la villa de Bilbao*". Barroeta Aldamarrekin lotzen zuen harremana haren jabetzak administratzera mugatzen zela argitu ondoren, bera ez zela inoiz frantziarrekin bat egitearen alde agertu, «… antes bien ha sido siempre el primero de seguir el sistema para negarse de que Eybar se entregue al Frances». Eta Saturioko zubiaren suntsiketari zegokionez, atxilotu zuten egunean alkatearen agindu hori betetzekotan ibili zela azaldu zuen, «… pero como el Alcalde volvio atras los hombres no quisieron seguirle adelante, aunque el declarante les pedia, por que decian que no iban sin el Alcalde a caher en manos del Frances, y con este motivo como el declarante se vio solo sin que le siguiesen dichos hombres no pudo poner en execucion»[250].

Irailaren 12rako Bilboko kartzelan zegoen Laskurain, eta korrejidoreak berak egin zion galdeketa. Oraingo honetan, Durangon eman zuen testigantza entzun

248. Ordoñez Barraikuak 1794ko irailaren 18an Arrasateko Diputazioari bidalitako gutunean hauxe zioen: «Es verdad que varios sujetos de la villa de Placencia han sido detenidos por las tropas de mi mando ateniéndome a las precisas órdenes con que me hallo, de cortar la comunicación a la provincia de Guipúzcoa para evitarme sin duda cuanto por este motivo pueda ser perjudicial al país, al rey, a Vd. misma, pero como ninguno hace ver la fidelidad de esa villa que hasta ahora ignoraba, en adelante me portaré con ella particularmente como lo hago con la de Eibar, haciendo se presenten a su alcalde cuantos me digan ser sus naturales para que éste bajo un escrupuloso examen, corte en lo posible todo fraude…», GAO, JD IM, 3/4/76.

249. Arrasateko Batzar Orokorretan parte hartu zuten udalerriak honako hauek izan ziren: Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta, Antzuola, Urretxu, Zumarraga, Elgoibar, Ezkioga, Itxaso, Gabiria, Oñati, Bergara, Legazpi, Zegama, Ormaiztegi, Segura, Arrasate eta Eibar.

250. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Andres Laskurainen testigantza, 1794-9-3.

ostean, ñabardura batzuk gehitu zituen. Alde batetik, frantziarrei nola aurre egin eztabaidatu zen bilkuretan lau anega gari eta dirua eskaini zuela adierazi zuen, eta Bizkaiko tertzioak Eibarko udalerrian sartzen baziren, haiei biltzearen alde agertu zela, konbentzionalei aurre egiteko. Korrejidoreak galdetu zion ea nola zekien sei egunen buruan frantziarrek Gipuzkoa osoa hartuko zutela; eta Laskurainek «… lo que unicamente Dijo fue que en deba declararon las familias que benian huiendo de San Sebastian que dentro de seis dias bendrian los franceses a toda la provincia, pero no imbento en cosa alguna, a Vizcaia»[251]. Korrejidoreak estutu egin zuen, bi lekukok hori adierazi zutela azalduz, baina agureak bere bostean jarraitu zuen.

Bi egun geroago Laskurainen aurkako behin-behineko sententzia jakin zen. Jaurerriko sindikoak zioenez, txostena aztertu ondoren Laskurain frantziarrekin harremanetan zegoela frogatzerik ez zegoen arren, argi zegoen beraien alde zegoela, gipuzkoarrak beldurtzen eta kikiltzen saiatu zelako (sei egunetan herrialdea hartuko zutela azalduz) eta inbasioa geldiarazteko neurriak hartzeari uko egin ziolako (Saturioko zubia suntsitu gabe utziz). Horrez gain, konbentzionalek Eibar kiskali zutenean ez zuten bere etxea erre, eta hori Laskurainen aurkako beste froga bat izan zen. Ondorioz, erregearen galeretan zerbitzera zigortu zuten. Epaia Aranguren y Sobrado lizentziatuak sinatu zuen. Baina Laskurainen adina kontuan hartuta galeretako zerbitzurako ezindua zegoenez, horren ordez beste zigor bat ezartzea eskatu zuen Jaurerriko sindikoak. Erantzuna abenduaren 4an ailegatu zen, Erregearen Kontseilu Bereziko fiskalen eskakizunarekin: «… destinarlo por quattro años o a voluntad de S.M. a que sirva en uno de los Presidios de Cartagena o Ferrol»[252].

Baina Juan Andres Laskurain nagusiak ez zuen zigor hori inoiz beteko, ez Cartagenan, ez Ferrolen, ez inon, Bilboko kartzelara ailegatu eta denbora gutxira, osasuna kaskartu eta bertako ziega batean hil baitzen 1794ko azaroaren 22an[253]. Hileta-elizkizunak 1795eko maiatzaren 2 eta 3an ospatu ziren, sei hilabete geroago. Ez dut lortu atzerapen horren arrazoia jakiterik, baina bai behintzat elizkizunak ofiziatu zituen apaiza Martin Rementeria izan zela, Laskurainen aspal-

251. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Andres Laskurainen testigantza, 1794-9-12.

252. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Erregearen Kontseilu Bereziko fiskalen eskakizuna, 1794-12-4.

253. Ziur asko kartzelako bizi-baldintzek eragin zuzena eduki zuten bere osasunaren kaskartzean. Sasoi hartan Bilboko kartzelako ziegak nolakoak ziren ez jakin arren, Hernaniko medikuak, honela deskribatzen zuen herriko kartzelaren egoera 1800. urtean idatzitako txostenean: «… un calabozo pribado de luz y ventilacion y reducido, y por esta razon infecto de un aire mephiticco a causa de las exhalaciones que emanan del mismo preso, las que por no poderse disipar quedan suspensas en la atmosphera, la que progresivamente adquiere mayor grado de putrefaccion, y virulencia , con lo demuestra el fedor que se percibe al entrar en el insinuado calabozo (…) siendo tales prisiones un suplicio lento para los que estan experimentandolas». Baldintzak hain ziren gogorrak ezen 10 urtetik gorako kartzela zigorrik ez baitzen ematen normalean, ordurako presoa hilda egongo zela suposatzen baitzen (Alberdi, 2000: 66).

diko laguna[254]. Laskurainen senide eta hurbilekoak meza ospatzen ari zirela, beste batzuek hilda ere ez zioten bakerik opa nahi Laskurain nagusiari, txekor batzuk atera eta sokamuturra prestatu baitzuten elizaren aurreko plazan eta aterpean bertan. Batzuentzat mingarria zena, beste batzuentzat ospatzeko gai bihurtu zen, eta beraien festa Irarragorri baserriraino eramateko prest omen zeuden[255].

JOSEFA ANTONIA LEZETAREN —LASKURAINEN ALARGUNAREN— HELEGITEA

Helegitearen testuingurua

1795eko abuztuan, hau da, Basileako Bakea sinatu eta hilabetera, Josefa Antonia Lezetak helegite bat aurkeztu zuen Errege Kontseilu Berezian, bere senarraren ohorea garbitzeko. Bere esanetan, Juan Andresek ez zuen inolako harremanik eduki konbentzionalekin, «… y que fue un fiel y onrrado Vasallo de S.M. y de la Patria». Gaur egungo ikuspegitik, agian, hildako baten ohorea berreskuratzeko auzietan sartzea ulergaitza egiten bazaigu ere, XVIII. mendearen bukaeran familiaren ohorea garbi mantentzeak hori eta gehiago exijitzen zuen. Edonola ere, Laskurainen alargunaren helegiteak bere senarra zigortzeko erabili ziren frogak berraztertzea eragin zuen, lekuko gehiagori deklarazioa hartzea eskatuz. Errege Kontseilu Bereziak bere eskakizuna onartu, eta Miguel Mendinueta Muskiz —«Caballero de la Orden de Santiago, de los Supremos Consejos de Castilla e Inquisicion y Delegado regio cerca de la Diputacion de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipuzcoa»— izendatu zuen prozesua begiztatzeko.

1795ean Eibarko alkatea Juan Bautista Mendizabal zen, aurreko urtean bezalaxe. Udal-karguek berriz hautatuak izateko hiru urteko hutsunea bete behar bazuten ere, 1795ean alkate izendatutako Santa Kruzeko markesa —"*Grande de España de primera clase*"— lanpetuegi zebilen Eibarko kontuez arduratzeko, eta

254. Martin Rementeria apaiza 1766ko matxinoen haserrea pairatu zutenetariko bat izan zen, sententzia jakin eta egun gutxira elizako beirategiaz gain bere etxeko lehioak harrika apurtu baitzizkioten.

255. Hileta-elizkizunak ospatu zituen Martin Rementeria apaizak zioenez «… le consta que en dichos dos dias se corrio Nobillo con cuerda en esta villa, y hallandose cantando el testigo con su cabildo en el coro de dicha Parroquia en los referidos oficios funebres, obserbaron el grande ruido y griteria del Novillo y gente que se arrimó a ella, lo que les causó mucha novedad, por causa de ser semejante festejo ajeno de aquellos dias, impropio y repugnante al capitulo de buen Gobierno de esta villa, en cuya virtud no se practica durante iguales oficios funebres y Divinos; y aunque se persuade que sacarian dicho Nobillo algunas personas del Pueblo y oió que intentaron llebarlo a las Puertas de la casa del difunto Lascurain, no puede exponerlo positibamente», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Martín Rementeriaren testigantza, 1796-1-22. Ibarra apaizak beste hau gaineratu zuen: «Les causó mucha novedad por no haberse acostumbrado semejante festejo en casos iguales, y estar prohibido por capitulos u ordenanzas de villa para durante los oficios Divinos, y aun por Orden Real el correr Nobillos por calles», Josef Francisco Ibarraren testigantza, 1796-1-22.

markesaren ordez, Mendizabalek zeraman alkatearen makila, eta ondorioz, testigantzak jasotzeko ardura. Baina ikusi denez, Mendizabal bera lekukoa zen Laskurainen aurkako auzian, eta ez aldekoa gainera. Beharbada horregatik, deklaraziohartzeak ez ziren hasi 1796ko urtarrila arte, hain zuzen ere, Sebastian Zumaran "*indianoa*" zegoelarik alkatetzan. Aurreko kapituluan ikusi denez, Zumaran 1766ko matxinada zanpatzearen arduradunetariko bat izan zen, eta eginkizun horretarako Laskurain nagusiaren kolaborazio eskergaitza izan zuen. 30 urte beranduago, 1766an laskuraindarrengandik jasotako mesedea itzultzeko aukera paregabea zuen.

Lezetaren galdetegia

Laskurainen alargunak ez zuen laguntza handirik behar bere senarraren errugabetasuna frogatzeko. 20 itaunez osaturiko galdetegi bat egin zuen, beste gauza batzuen artean Laskurain nagusiaren merituak gogorarazteko (ingelesen aurkako gerratean parte hartzea, 1766ko matxinadaren zanpaketan jokaturiko paper garrantzitsua, horrek eragin zizkion etsaiak…), 1794ko abuztuan jokatu zuen papera argitzeko, eta bere hileta-elizkizunetan gertaturiko bidegabekeriaren arduradunak identifikatzeko. Guztira 17 lekuko deitu zituen deklaratzera. Lekukoei deitzearen arduraduna udaleko sindikoa izaten zen, eta 1796an Vicente Aldekoa genuen Eibarko sindikoa, Laskurain nagusiaren neskamearen atxiloketan parte hartu zuenetariko bat, hain zuzen. Urtarrilaren 20an bere emazteak —Manuel Atxa Albizurik— zioenez Aldekoa Soraluzera joana zen, bi egunetarako. Ordezko sindikoa —Pedro Josef Agirre— Durangon bizi zenez, Miguel Azpiri izan zen lekukoei deitzearen arduraduna «que usa del empleo de tal sindico de esta villa, en ausencia de los otros»[256].

Testigantza horietatik ondoriozta dezakegunez, Laskurain nagusia kristau zintzoa zen. Rementeria apaizak zioenez, hilero-hilero konfesatzen zen eta komulgatzen zuen, ohitura bitxia San Andres parrokiako santuak lurrera bota eta apurtu zituzten fedegabekoen kolaboratzaile batentzat. Aberriari zegokionez, «… fue oficial de una Compañia de naturales en tiempo de la Guerra de nuestro Católico Monarca con los Yngleses»[257]. Hirugarren lekukoak zioenez —Josef Francisco Ibarra apaizak— 1766ko matxinadan «… fue uno de los primeros que con exposicion de su vida hizo diligencias de buscar tropas pasando en persona a la villa de Azpeitia y Diputacion de esta Provincia de Guipuzcoa para refrenar a los sublevados y aquietar los animos de aquellos que inconsiderados a lo que en efecto binieron dichas tropas mediante sus oficios a esta villa, en lo qual es cierto que contrajo un particular merito para con su soberano y de la Patria»[258]. Beste lekuko guztiek ma-

256. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, 1796-1-20.
257. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Baskarenen testigantza, 1796-1-21.
258. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Josef Francisco Ibarraren testigantza, 1796-1-22.

txinoen zanpaketan izan zuen parte-hartze erabakigarria egiaztatu zuten[259], jokabide horren ondorioz herritar askoren gorroto eta etsaigoa irabazi zuela azpimarratuz, eta bizitza osoan zehar ziurtasun-neurri bereziak hartu behar izan zituela, batez ere iluntzean etxeratzen zenean[260]. Bere abeletxearen erreketa —1781ean— testuinguru horretan kokatu zuen Rementeria apaizak[261].

Laskurainen "*curriculum*"a alde batera utzita, ikus dezagun orain zer zioten lekukoek 1794ko abuztuko gertakizunetan izan zuen parte-hartzeari buruz. Josef Etxeberriaren esanetan, auzokideen batzarretan Laskurainek Bizkaiari biltzearen egokitasuna eztabaidatu zenean «… opinó que no Convenia por que decia que pensaba se apoderarian los Franceses dentro de brebes dias de la Provincia, y Vizcaya; cuya espresion tiene el testigo para si por cierto, que no la dixo por mala voluntad, ni dañada intencion»[262]. Diego Suinagak, ñabardura bat eskaintzen dio baieztapen horri, Laskurainen ustez, Bizkaiari biltzeaz gain beste neurri batzuk hartzen ez baziren, frantziarren aurreratzea oztopatzea ezinezkoa izango zela azalduz[263]. Beraz, badirudi Laskurainek batzar guztietan defendatu zuen jarrera izan dela Jaurreriarekin bat eginez gero Eibarren defentsa ziurtatuta zegoela uste zutenen ametsa

259. Josef Etxeberriaren testigantzak datu gehiago eskaini zituen: «Que entonces se ausento Lascurain con otros dos vecinos de esta villa que no eran de la parcialidad de ellos, y le consta esto por ser publico y notorio». MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Josef Etxeberriaren testigantza, 1796-1-23. 1796-1-25: Francisco Azpirik zioenez «sabe por haber oido a barios en esta villa y señaladamente a sus Padres, que (…) fue quien con esposicion de su vida busco y trajo una Compañia de soldados a esta villa», Francisco Azpiriren testigantza, 1796-1-25. Beraz, Eibarren zabalduta zegoen Laskurain nagusiak 1766ko matxinadaren zanpaketan izan zuen esku-hartze zuzena.

260. «… fue mal visto desde entonces el mencionado Lascurain por barias personas y familias compreendidas en aquella novedad, en tanto grado que vibia siempre receloso de ellas, e iba quando se retiraba de noche a su Caseria de Irarragorri (…) con Farol encendido y escoltado de su criado, siendo como es esto publico y notorio en esta villa», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Martín Rementeriaren testigantza, 1796-1-22.

261. Auzoko zuen Baskaranek deklaratu zuenez: «Dixo sabe que le quemaron a dicho Lascurain en tiempo del testigo una casa suya propia destinada a la guarda de su ganado y cercana a la principal suya de Irarragorri, y oió decir que tambien le quemaron barios ganados menores, y que todo este lance le ocurrio como hecho de los que no le querian ver, y tenian mala voluntad hacia su persona, y le parece al testigo que fue probenido del rencor que le profesaban de resultas de dicho Motin», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Baskarenen testigantza, 1796-1-21. Rementeria apaiza bat zetorren ikuspegi horrekin: «… le quemaron una casilla de ganados propia, y que en esta villa se susurro o corrio la voz de que este acaecimiento le resulto por la mala voluntad e intencion de algunas personas que no podian soportar su celo y rectitud en la Administracion de Justicia, y se persuade el testigo que este seria el motivo de este su infortunio», Martín Rementeriaren testigantza, 1796-1-22.

262. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Josef Etxeberriaren testigantza, 1796-1-23.

263. «… que en él expreso que sino se tomaban para la defensa otros medios, de los que se habian tomado por esta villa, prontamente pasaria el Frances por ella», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Diego Suinaga Iturraoren testigantza, 1796-1-29.

zalantzan jartzea, besterik gabe. Bere errealismoak gainerako auzokideak aztoratzen zituen, eta beharbada horregatik ez zuten gonbidatu abuztuaren 22ko batzarrera[264], Bizkaiari biltzea erabaki zen batzarrera, hain zuzen ere[265].

Juan Andres Guruzeta eta Martin Alberdi, Mendizabal alkateak Saturioko zubia botatzera bidalitako langileetariko bi ziren. Beraien eginkizuna betetzen ari zirela, Miguel Unamuno, Diego Apellaniz eta beste zenbait eibartar hurbildu omen zitzaizkien alkateak suntsiketa geldiaraztea agindu zuela jakinaraztera. Eibarrerantz zetozela, beste herritar multzo batekin topo egin zuten, erremintak hartuta zubia apurtzera zihoazenak, «… pero no vio en dicho Puente al nominado Lascurain»[266]. Beste lekuko baten arabera, konbentzionalak ailegatu baino bizpahiru egun lehenago, Saturion bertan buruturiko batzarrean, zubia ez botatzea erabaki zuten, edozelan ere frantziarrak Arizmendi eta Arrate auzoetatik zehar igaroko zirelako. Mendizabal alkatea bertan zegoen, Laskurain ez, ordea[267]. Beraz, Saturioko zubia ez botatzeko erabakia ez zuen Laskurainek hartu; eta agintariak ere zalantzati agertu ziren zubia botatzeak izango zuen eraginkortasunaren inguruan. Izan ere, bergararrek suntsitu zuten zubitxoa 1794ko neguan, baina horrek ez zuen konbentzionalen aurreratzea ekidin hurrengo urteko udaberrian[268]. Eta gainera Eibarko agintariak suntsiketaren

264. «Que tiene presente haber tambien asistido a ellos el referido Lascurain como vecino concejante de voz y boto que era de ella a ecepcion el ultimo que a su parecer no asistio por no haberle dado aviso el Alguacil, por causa de que se celebró el dia de labor y bibia en dicha su caseria, o acaso por omision de dicho Alguacil, pero no tiene presente espresiones que hubiere proferido, si que mediaron algunas razones entre él y otros concurrentes, pero no las puede puntualizar fixamente», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Bautista Baskarenen testigantza, 1796-1-21.

265. Datu honek beste zerbaiti buruz ohartzen gaitu. Abuztuaren 2an, 4an eta 17an burutu ziren auzokideen batzarren aktetan, Bizkaiari biltzearen gaia aipatu ere ez da egiten. Baina itxura denez eztabaidatu, eztabaidatu zen. Zer esan nahi du horrek? Aktak jasotzean desadostasunak isildu eta akordio hutsak islatzeko joera zegoela? Hori da behintzat nire susmoa.

266. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Andres Guruzetaren testigantza, 1796-1-28. Martin Alberdik azaldu zuenez «… empezaron a demoler sus Petriles, y estando en esto, les llego aviso (segun se les dijo) de parte del Alcalde que a la sazon era Juan Bauptista de Mendizabal, de que no derribasen dicho Puente, y de echo cesaron, y se apartaron de dicho sitio», Martin Alberdiren testigantza, 1796-1-29.

267. Pedro Unzeta Barrenetxeak zioenez «… dos o tres dias antes que los Franceses entrasen en esta villa la primera vez, se juntaron en el Puente de Zaturio divisero de las Jurisdiciones de esta villa y la de Elgoibar, D. Juan Bauptista de Mendizabal Alcalde que a la sazon era de esta villa, el testigo y otros vecinos de ella, y trataron entre si sobre si se habia de derribar o no dicho Puente, y acordaron no derribarlo por no considerar conveniente, y parecerles que aunque se derribase pasarian los Franceses por arriba, y destruirian todo el valle de Arizmendi y Arrate de esta villa, y en efecto no derribaron, a lo que no se hallo presente D. Juan Andres de Lascurain ya difunto vecino de esta villa. Que entonces empezaron a cortar el camino de Aisezate que esta mas hallá en Jurisdizion de Elgoybar, y por dicho Mendizabal se aviso a aquella villa prestase su consentimiento para el efecto, pero se respondió por ella que no consentia el cortar dicho camino, y de echo no se cortó», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Pedro Unzeta Barrenetxearen testigantza, 1796-1-26.

aurka agertu ziren[269].

Josefa Antonia Lezetak hasitako helegiteak bistan utzi zuen bere senarra salatzeko eta kartzelaratzeko erabili ziren sasifrogak zein ahulak ziren, eta horrela onartu zuten Errege Kontseilu Bereziko partaideek 1796ko urrian: «… en la sumaria formada contra Lascurain, no solo no estan justificados los delitos de Infidencia a su Patria i comunicacion con los Franceses que se le imputan sino que vien reflexionada la materia son tan leves los indicios de ellos que apenas pueden reputarse por tales». Bere ebazpena, beste pare bat puntu argitzera zetorren: «Que las casas quemadas por los Franceses fueron las de la Poblacion, y no los caserios lejanos como era el de Lascurain el qual fue saqueado por los enemigos como los demas; y que la correspondencia con Aldamar era relatiba a sus intereses i no a los Franceses. Y otras cosas que propiamente comprueban su inocencia pues desbanecen todas las sospechas de la Sumaria aun quando tuviessen la justificacion de que carecen»[270].

Laskuraindarren aurkako konplota?

Bere senarraren errugabetasunaz gain, bazegoen Josefa Antonia Lezetak argitu nahi zuen beste kontu bat. Nor edo nortzuk izan ziren heriotzara eraman zuen amarruaren arduradunak? Galdera horri erantzuna bilatzeko zegoen prestatuta galdetegiaren hogeigarren eta azken itauna. Eta irakurleak honezkero sumatuko zuen legez, galdera horren erantzunak zerikusi zuzena zuen hileta-elizkizunetan egin zen sokamuturraren antolatzaileen nortasunarekin. Juan Bautista Baskaranek —errejidorea 1795ean— zioenez, espresuki debekatu zion Pablo Salazar haragi-hornitzaileari egun horretan sokamuturrik egitea, errege-aginduaren aurka zihoalako. Azken horren azalpenak askoz argigarriagoak dira:

> Que a cosa de dos y media a tres horas de la tarde de dicho Domingo d. Juan Bauptista de Mendizabal Alcalde y Juez ordinario que a la sazon era de esta villa le mando al testigo como a Proveedor y Cortador de carnes que era de ella sacase a la Plaza de Unsaga de esta villa el Buey que tenia para la matanza y su Provision con maroma para que le viese; a lo que este testigo le dixo a dicho Alcalde aguardase hasta que se acabasen en dicha tarde las funciones de dicha Parroquia, pues que se

268. Guruzetak «Dixo que entonces no se derribó dicho Puente, y si en otra ocasion posteriormente, pero le consta que sin embargo pasaron por el, y su regata los Franceses la segunda vez que se internaron en esta villa, y la de Elgoibar, no obstante que para entonces se defendio su punto con mucha tropa, y gente, hallandose a la sazon dicho Puente derribado, transitable con Maderos y tabla que pusieron antes las tropas del Rey», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Juan Andres Guruzetaren testigantza, 1796-1-28.

269. 1800. urteko alkateak —Andres Mandiolak— zioenez 1794ko azaroaren 5ean suntsitu zen Saturioko zubia, Mendañako markesaren aginduz, «… con cuia novedad recurrio su Alcalde al mismo comandante a fin de que mandase suspender aquella operacion infructuosa al objeto a que se dirijia, pero mientras se hacia el recurso y se consiguio la contraorden, derribaron ia el Puente de Zaturio» EiUA, A,2,2, “Guerra. Varios documentos referentes a asuntos militares. 1808-1810”, 1800-7-3.

270. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, 1796-10-5.

> estaban celebrando; y sin embargo de esta exposicion le mando de nuebo que luego al punto sacase dicho Buey a la citada Plaza con maroma pues que le queria ver; En cuya virtud y en obedecimiento del precepto de dicho Alcalde este testigo ordeno a barios mozos de esta villa sacasen dicho Buey, y en efecto lo sacaron y corrieron de orden de dicho Alcalde con la maroma en la citada Plaza en dicha tarde y tiempo de las expresadas funciones de Iglesia[271].

Biharamunean Salazar Elgetara joan zen eta iluntzean, Eibarrera bueltatu zenean, egun hartan ere sokamuturra egon zela jakin zuen. Eta Mendizabalek horretarako agindurik ez zuela eman azaldu zionean, Josef Arederren aurka kexatu zen, «… a causa del daño que esperimentaba el testigo en el Buey y la maroma, y por otra parte no se imputase la novedad de correr dicho Buey durante los citados oficios por la familia o gente de dicho Lascurain», bera baitzen inoren agindurik gabe astelehen hartan txekorra kalera atera zuena. Mendizabalek, agian bere burua zuritu nahian, Areder atxilotzea agindu zuen.

Hona hemen Josefa Antonia Lezetak prestaturiko helegitearen emaitzak. Bere senarraren izena garbitzeaz gain, Juan Bautista Mendizabalenganantz bideratu zituen susmo guztiak[272]. San Esteban Protomartir baselizako sakristauren testigantzak aditzera ematen zuenez, Laskurain errugabea zela uste izanda ere, Mendizabal alkateak ez zuen zirkinik egin atxilotuta zeramatela ikusi zuenean. Eta sokamuturraren gorabehera guztia, entzuterik ere ez zuen nahi[273].

Laskurain nagusiaren aurkako konplotean Mendizabalek jokatu zuen papera nahiko argi gelditu da. Baina, berarekin batera ez genituzke Vicente Aldekoa eta Ignacio Maria Ibarzabal ahaztu behar, haren neskamearen atxiloketaren eragile zuzenak. Ezta auzokideen batzarrean frantziarrekin bat eginda egotea leporatu zion Juan Antonio Larrañaga, 1. konpainiako tertzioen kapitaina[274]. Felix Olabe apaizak jokaturiko paper garrantzitsua ahaztu gabe… Bazuen bai Laskurainek gorrotatzen zuten nahiko arerio. Eta lagunak gutxi, 1766ko matxinadan zanpatzaile-lanak bete izanaren ondorio. Erregearen Kontseilu Bereziko fiskalek ere horrela balioetsi

271. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Pablo Salazarren testigantza, 1796-1-26.

272. Beste lekuko baten testigantzak Mendizabalen jitea eman zuen aditzera.

273. Abuztuaren 29an Andres Argiano sakristaua San Esteban baselizako zilarrarekin zer egin behar zuen galdetzera joan zitzaionean, «expreso dicho Alcalde que al citado Lascurain le llebaban Preso sin culpa alguna, y le perderian sin motivo justo a cuya expresion se halló presente el testigo (…) y aunque el testigo le expreso dicho Domingo al citado Alcalde que don Francisco de Ibarra cura de esta villa se habia esplicado que era una Picardia el haberse corrido dicho Buey en aquella estacion, le respondió el citado Alcalde, que a dicho Cura no le incumbia tal cosa, y que el mismo sabia lo que se hacia», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Andres Argianoren testigantza, 1796-1-28.

274. Eibarko Udalak auzi bat zeukan Juan Antonio Larrañagarekin «a resultas de ciertos Maderos que se les quitó de su presa del Arrabal». Udalak, Juan Andres Laskurain eta Juan Esteban Bustindui izendatu zituen bere izenean Larrañagarekin konponketa batera ailegatzeko, baina ez zuten lortu. Beharbada, Ibarbeako errotaren kontu honek Larrañagaren eta Laskurainen arteko harremanak gaiztotu zituen. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1793-9-1 eta 1794-1-6.

zuten 1797ko apirilean emandako ebazpenean, bere burua defendatzeko aukera gutxi eduki zituela gaineratuz[275]. Eta horrela jakinarazi zion Karlos IV.ak bere alargunari, bi aste beranduago: «… conformadose el Rey con el dictamen del Consejo Extraordinario se ha servido declarar que Juan Andres Lascurain no tuvo intervencion ni correspondencia alguna con los franceses, y que fue un honrado y fiel vasallo de S.M. y de la Patria, mandando que de esta declarazion se de a su viuda Dª. Josefa Antonia de Leceta la certificacion correspondiente para que pueda acreditarlo donde le convenga»[276].

KONKLUSIOAK

Konbentzio Gerrak eragindako zorpetzeak aldaketa-prozesua azkartu zuen, gerraren finantzaketak udaleko eta herrialdeko ogasuna erabat hutsik eta hondaturik utzi baitzuen. Udalek beren ondasun propioak eta lurrak saldu behar izan zituzten zorrei aurre egiteko, eta horrek tokian tokiko erakundeak eta oinarri ekonomikoak astindu zituen.

Ondorio politikoak bi multzotan bana ditzakegu. Alde batetik, espainiar estatuaren lurralde-konfigurazioaren inguruko eztabaida suspertu zuen, Getarian bildutako Gipuzkoako Batzar Orokorrek espainiar erresumatik banatu eta frantziar iraultzaileei ateak zabaltzearen ondorioz, gipuzkoarrak traidoretzat jo[277] eta foru-erregimenaren aurkako eraso ideologikoa hasiko zelako. Bestetik, Gipuzkoako barnealdeko herriek ez zuten Getariako Batzarren zilegitasunik onartu, Konbentzioaren armadaren aurkako erresistentzia antolatu zuten eta errege espainiarrari leialtasunean oinarritutako batzar paraleloak antolatu zituzten Arrasaten. Agi-

275. Bere kartzelaratzea agindu zela «sin que se hubiesen oido las defensas que pudiese hacer Lascurain que hasta entonces no habia echo, ni mostrado por que se le admitiesen, tal vez (sic) por la debilidad que para todo tiene la edad en que se hallaba (…) Que su ?? al Real servicio, y orden publico le habia podido causar enemigos que buscasen ocasion de vengarse: que las voces, y especies que para ordaz y argumentos se habian ponderado en la causa para acriminar su conducta se habian desvanecido, y quedado de consiguiente sin fuerza legal los indicios de el Sumario; y por fin que habia muerto en una edad decrepita», MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Errege Kontseilu Bereziko fiskalen ebazpena, 1797-4-14.

276. MAHN, 6327 dokumentua, S.N, Errege Kontseilu Bereziko fiskalen ebazpenari Karlos IV.ak emandako onespena, 1797-4-28.

277. «La guerra de la Convención es el primer brochazo negro, el primer borrón desgarbado que rompió el bello contorno que ofrecía la provincia siempre fiel y sumisa a la monarquía. La "traición de Guipúzcoa", según Godoy, y la infamia con que la cubrió, señalan para nosotros el comienzo de la modernidad guipuzcoana, la crisis del foralismo y el desprestigio de una tierra que mereció en su escudo el lema de muy noble y muy leal provincia…» (Mutiloa, 1978: 11). Beste aurtore batzuek baieztatu dutenaren arabera, Konbentzio Gerrak lehenbiziko garrantzia izan zuen Madrileko gobernuek eta foru-herrialdeek aurrerantzean izango zuten harremanetan. Jose Antonio Zavalaren ustez, Konbentzio Gerrak «marca la iniciación de un proceso de división ideológica cuyas consecuencias todavía subsisten.Tenía razón Cánovas al afirmar que "la guerra de la Convención fue clave y decisoria para las modernas relaciones de las provincias vascas con el resto de la Nación» (Zavala, 1989: 53).

rreazkuenagaren esanetan, Getaria eta Arrasateko Diputazioen arteko enfrentamendua, XIX. mendeko liberal eta karlisten arteko borroken hasieratzat jo dezakegu: «Gipuzkoako buruzagien baitan zatiketa ideologiko eta politiko sakona gertatu zen. Lehenbizikoz, liberal eta tradizionalisten arteko amildegia zabaltzen hasi zen euskal herritarren baitan. Eta hauxe dugu, gure ustez, gerra honetan bereizkuntzarik sakonena. Kanpotik eragina izan arren, barruan, euskal gizartean, banakuntza sakona sortu zuen» (Agirreazkuenaga, 1993a: 68).

Eibarko udalerria gogotik saiatu zen Konbentzioaren gudarosteei aurre egiten. Aipatu dugun legez, Eibarko Udala Getariako batzarretatik aldendu, eta oraindik Arrasateko Diputazioa eratu gabe zegola, Jainkoaren, Aberriaren eta Erregearen eskubideen aldeko apostua egin zuen. "*Dios, Patria, Rey*" lemapean, eibartarrek beren kabuz antolatu zuten herriaren defentsa, eta leialtasun hori garesti ordaindu zuten, konbentzionalek Gipuzkoan erre zuten herri bakarra izan baitzen. Tradizioarekiko atxekimendu itsu hau harrigarria egiten da gaur egungo ikuspegitik begiratuta, jakina denez, XIX. mende osoan zehar Eibar bere liberalismoagatik izan baitzen ezaguna, ez bere tradizionalismoarengatik. Are harrigarriagoa, ikusmolde tradizionalaren defendatzaile nagusien artean Ignacio Maria Ibarzabal ikusten dugunean, gerora Eibarko liberalismoaren aitzindaria izango zen Gabriel Benitoren aita. Errealitate horrek 1794-1820 urteen artean zabaltzen den epea arreta bereziarekin aztertzea eskatzen digu. Izan ere, zer gertatu zen 25 urte horietan zehar eibartarrak absolutismo sutsuenetik liberalismo aurrerakoienera iragateko? Hurrengo kapituluan galdera horri erantzuna aurkitzen saiatuko gara.

Azter dezagun orain Laskurain-Lezeta familiaren jokabidea. Konbentzionalen alde lan egin zuten benetan, edo beraien aurkako salaketa, aurretik zetozen ezinikusien ondorio hutsa izan zen? Nire ustez bi hipotesi horietatik ez genuke bat ere baztertu behar. Alde batetik, nahiko argi gelditu da 1794 aldera oraindik ahaztu gabe zegoela Laskurain nagusiak jokatu zuen papera 1766ko matxinadaren errepresioan. Errugabe deklaratu zuen sententziaren txostenaren bukaeran, eranskin gisara, Eibarko matxinoen aurkako sententziaren transkripzioa aurkitzea, bi gertakizunon arteko loturaren frogarik garbiena bihurtzen da. Zentzu horretan, Laskurain nagusiak Otazuk Donostiako merkatari-burgesiarentzat tajuturiko ibilbide berdinari jarraitzen dio, eta bete-betean sartzen da "matxinoen zanpatzaile / Konbentzioaren laguntzaile" prototipoan. Desberdintasun batekin: Laskurain nagusia ez zen merkataria, peritu agrimentsorea eta handikien jabetzen administraria baizik. Orduan, aduanen eztabaidan interes zuzenik ez bazuen, zer zela-eta zegoen —gutxienez— Konbentzioa onartzeko prest?

Beste daturik ezean, ezagutzen dugunari kolpe egin beharko diogu hipotesi bat lantzeko orduan. Nire ustez, bistatik galdu ezinezko kontua da Laskurain Barroeta-Aldamar familiaren jabetzen administraria zela 1770etik. Gipuzkoako familia boteretsuenetariko batentzat lan egiteak sorrarazi ahal zituen mendekotasun-

harremanez gain, kontuan hartzekoa da era berean, haien bidez garaiko eztabaida eta polemika nagusiak ezagutzeko aukera izango zuela. Beharbada, bere familiaren formakuntza tekniko-kulturalak[278] iragazkorragoa bihurtzen zuen Frantzia aldetik zetozen dotrina ilustratuak barneratzeko orduan. Edonola ere, Laskurain bere erkideak baino informatuago zegoen 1794ko uda hartan, eta informazio hori nonbaitetik jaso behar izan zuen: Donostian txanpon bihurtu ahal ziren paperei buruzko informazioa behintzat, ez zegoen edonoren eskura, eta bere alargunak prestaturiko helegitean ez zuen inolako galderarik prestatu jostunaren etxearen aurrean esandako hitzok ukatzeko. Ziur aski galdera hauen erantzunak aita-semeen arteko gutunerian aurkituko genituzke, nonbait gorde badira.

Laskurainen aurkako auziaren inguruan badago argitu gabe gelditu den beste punturik. Adibidez, zein paper jokatu zuen bere suhiak —Andres Aretak— «dirijiendose a los Franceses saviendo el rumor general que corria contra la casa de su cuñado y suegro»? Atxilotua izan ostean aske gelditu bazen ere, zergaitik ez zuten deklaratzera deitu, ez salatzaileek, ezta amaginarrebak? Eta Irarragorriko neskamea, ez ote zen lekuko garrantzitsuenetarikoa? Bada horri ere ez zion inork deklaraziorik hartu. Beste alde batetik, Bizkaiko tropak Felix Olabek gidatzen bazituen eta Laskurain nagusia bizkaitar tertzioek atxilotu bazuten, nola dio Olabek bera ez zela konturatu Laskurain atxilotu zutenik? Erantzunik gabeko galdera gehiegi sortzen dira, alde biak ere, zerbait ezkutatu nahian zebiltzala ez pentsatzeko.

Laskurain gaztearen jokabidea, bere aitarena baino askoz susmagarriagoa da. Testigantza guztien arabera, semeak frantziarrekin kolaboratu zuen, eta zuzenean, gainera. Felix Olabe apaizak 1798an zioenez «… si su padre logró que se le declarase por vasallo fiel no savemos si lo ha conseguido o lo podrá lograr el hijo. Lo cierto es que del hijo al Padre es enorme la distancia»[279]. Bere jokabidea aztertzeko edukiko dugu parada hoberik hurrengo kapituluan. Edonola ere, konbentzionalekin kolaboratu zuten gipuzkoarren kopurua uste dena baino handiagoa da. Ohiko Romero eta Aldamarrez gain, baziren, izen eta abizen ezezagunekoak izan arren, frantziarrei lagundu zieten herritarrak: gogora dezagun Laskurain nagusiarekin batera, lau ermuar eta soraluzetar bat atxilotu zituztela Bizkaiko tertzioek; eta San Andres elizako profanatzaileen artean, azkoitiar eta azpeitiarrak ere bazirela.

Beste arlo batean, Konbentzio Gerrak udalean bizi ziren liskarrak azaleratu eta arazo berriak sortu zituen: tertzioetarako ordezkoen eztabaida, horien soldatak, desertzioa, herri-mailan sortu ziren protesten errepresioa… Zoritxarrez, udal-partaidetzan eduki zuen eragina aztertzeko aukerarik ez daukagu. Abuztuaren 29ko erreketaren ostean frantziarrak beren koarteletara itzuli ziren, eta hurrengo era-

278. Bera eta bere semea bezala, badirudi bere aita ere perito agrimentsorea izan zela. Gregorio Mugicak behintzat 1761ean Markina-Xemeingo mugak aztertzeko izendatutako Juan Antonio Laskurain deituriko peritoari buruz hitz egiten du (Mugica, 1990: 8).

279. BUA, C-127, 94.

soaldia ez zen hasi 1795eko udara arte. Bakea uztailean sinatu zenez, Eibar denbora gutxi egon zen konbentzionalen esku. Ustez behintzat, udal berri bat izendatuko zuten, udalkide berriekin, beste leku batzuetan egin zuten bezalaxe. Horrela izan bazen ere, udal-aktetan ez da presentzia horri buruzko aipamen txikienik egiten, eta zentzu horretan beraiekin kolaboratu zuten beste herritar batzuen nortasuna ezagutzeko aukera galdu dugu. Argi dago, behintzat, gerra horretan udalkide batzuek zeukaten ospea galdu egin zutela: hau da Juan Bautista Mendizabalen kasua, 1756-1795 bitartean zazpi aldiz udaleko partaidea izan ondoren, betiko kanpoan geldituko zena. Laskurainen aldekoak ez izan arren, eibartarrek ez zioten hain erraz barkatuko zezenketa sakrilegoaren antolatzaileetariko bat izana.

1778ko dekretuen ostean aduanen inguruan sortu zen eztabaidak zuen garrantzi estrategikoa azpimarratzea gustatuko litzaidake. Izan ere, protekzionismoaren eta merkataritza askearen artean aukeratzea erabakigarria izan zen gaur egungo Europa osatzen duten nazio-estatuen egituratze politiko-ekonomikoan. Zentzu horretan, ikusi besterik ez dago *Zollwerein* edo Aduanen Batasunak zer-nolako papera jokatu zuen alemaniar estatuaren sorkuntzan. Hainbat autorek diotenez, aduanak lekuz aldatzea foru-herrialdeen industrializazio-prozesuan ezinbesteko baldintza bihurtuko bazen ere (merkatu espainiarra bermatzen zien bertoko gaiei, atzerritik zetozenak zamatuz), gehiegizko protekzionismoaren kalteak ere aspalditik ezagutzen ziren, eta ondorio latzak izango zituen aurrerantzean (produktibitatearen jaitsiera[280], industria-sarearen zaharkitzea…). Izan ere, protekzionismoarekin espainiar estatuak ez zuen lortu bere ekoizpen-egitura babesterik, XIX. mendearen erdialdera ekoizpen-sektore garrantzitsuenak (trenbideak, meategiak, zerbitzu publikoak…) kapital atzerritarraren menpe gelditu baitziren[281].

280. 1866an, euskal lurraldeetako bi industria siderurgiko nagusiek hauxe salatzen zuten: «… la falta de consumo y estrechez del mercado español (…) El atraso técnico y el abuso de la protección arancelaria comenzaban a estar en la base de los problemas de nuestra siderurgia» (Solozabal, 1979: 79-80). Eta 85. orrialdean: «Su incapacidad para competir con productos exteriores incitó al capitalismo vasco a pedir protección aduanera, coaligándose y apoyando a los sectores dirigentes de la Restauración. De este modo, la burguesía vasca no acabo con la oligarquía agrario-financiera en el Poder, sino que pactó con ella».

281. Fontana, 1973: 137.

1. ERANSKINA

1789-1795 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1789	1789	1790	1791	1792	1793	1794	1795	1795=>	Kapare 1786
AGUIRRE AZALDEGUI Juan Andrés	Bai	SPG							Bai	1 X
RUIZ Joseph		HS								5 X
GABIOLA Juan Andrés	Bai	HD	HD						Bai	4 X
MENDIZABAL Juan Andrés	Bai	HD				HD	HD			2 X
SUINAGA ITURRAO Lucas	Bai	ER								1 X
IBARRA Martín Antonio	Bai	ER								1 X
LECETA Juan		A2							Bai	1 X
ARETA MENDIGOITIA Andrés			SPG							1
ZULUETA Juan Domingo			HS	HS						2
DOISTUA Antonio	Bai		HD	HD						2 X
ECHABARRIA Joseph	Bai		ER							
ERBITI Sebastián			ER						Bai	4 X
IBARZAVAL Ignacio María	Bai		A1						Bai	2 X
BASCARAN Agustín				SPG					Bai	4 X
ITURRIOZ Agustín	Bai			HS					Bai	5b X
EGOCHEAGA Manuel				HD	HD					2 X
MUGUERZA Pedro	Bai			ER						2 X
UNCETA ARIZMENDI Rafael				ER						1
ABANZABALEGUI Pedro	Bai			A1						1 X
ORVEA URQUIZU Joseph Maria					SPG				Bai	1
BERRAONDO Joseph Manuel					HS					3a X
ARAMBURU Lorenzo					HD	HD				2
SARASQUETA Joaquín	Bai				ER					2 X
IÑARRA IRAEGUI Joaquin					ER					1 X
LARRAÑAGA Juan Antonio	Bai				A1				Bai	2 X
SARASQUETA Joseph						SPG				2 X
ALDECOA Vicente						HS			Bai	
OLAVE Domingo	Bai					ER				4 X
VERGARA Joseph	Bai					ER				4 X
BUSTINDUI Juan Esteban	Bai					A1				4 X
ARAMBURU Felix	Bai						SPG			2 X
ALBIZURI Joseph Antonio							HS			3
ARREGUI Pedro Ignacio							HD			4 X
BASCARAN Juan Bautista							ER	ER	Bai	4 X
SUINAGA ITURRAO Diego							ER	ER		1 X
GUISASOLA Gabriel	Bai						A2	A3	Bai	1 X
MENDIZABAL Juan Baupttista	Bai						A1	A2		2 X
ARTAECHEVERRIA Francisco	Bai							SPG	Bai	4 X
AZCUE Francisco Antonio	Bai							HS	Bai	3a X
ZABALA Joseph Antonio								HD		3
GABIOLA Francisco								HD	Bai	4
SANTA CRUZeko markesa								A1		

4. kapitulua
Hautsetatik birsortu beharra (1795-1808)

SUNTSIPENAREN ONDORIOAK

Armaginen exodoa

Ziur asko, Gipuzkoan Eibar izan zen Konbentzio Gerraren ondorioz kalte gehien jasan zuen herria. Erreketak eragindako gastuak 816.000 errealetan balioetsi ziren[282]: 200.000 ondasun higiezinetan, 600.000 ondasun higigarrietan eta 16.000 San Andres elizan. Hori ez zen okerrena, Konbentzioko soldaduek alde egin ondoren eibartarrak itzuli zirenean, ez zeukatelako beraien bizimodua aurrera ateratzeko modurik, suteak, etxebizitzez gain, tailerrak ere kiskali egin zituen-eta. Basileako Bakearen ostean ere armaginetariko askok herritik alde egitea erabaki zuten. Ez bakarrik langile xumeak, baita ofizial eta maisu trebeak ere. Antonio Doistua, Errege Fabrikako maisu aztertzailea Oviedo aldera abiatu zen, hango arma-fabrikak altxatu eta antolatzera (Areta, 2003: 367)[283]; Juan Esteban Bustinduik[284], maisu

282. Kopuru hau ez zait altuegia iruditzen. Irungo udalerriak frantziar gudarosteek eragindako kalte-galeren balorazio zehatza egin zuen 1797an: 1.138.570 erreal etxebizitza eta eraikuntzei zegokien arloan, eta 1.551.613 ondasun higigarrietan. Guztira, 2.690.183 erreal, hau da, Eibarko kopurua hirukoiztu egiten zuen (Iparragirre, 2001: 49). Iturririk aipatu gabe, beste autore batzuek diotenez, Eibarren jasandako kalte-galerak 4.140.000 errealetara igo ziren, (Mora eta Zapirain, 1995: 67). Kopuru hori 816.000 errealena baino egokiagoa iruditzen zait, batez ere erreketarik jasan ez zuten herrienekin alderatzen badugu.

283. Jatorriz bere familia Eibarkoa ez izan arren, Antonio Doistuak kargu garrantzitsuak bete zituen bere garaian. SEAFeko maisu aztertzailea izateaz gain, herri-sindikoa izan zen 1784an eta herri-diputatua 1790 eta 1791 urteetan. 1786ko zerrendan 2. zutabean agertzen da, beraz, bere kaparetasuna frogatuta zeukan gipuzkoarra zen. Mutrikuko Mijoa auzoan badago "Doistu" deituriko baserri bat.

284. Juan Esteban Bustindui herri-diputatua izana zen 1784 eta 1785 urteetan, eta Eibarko alkatea 1793an. Jose Maria Uriartek dioenez Bustinduik «… lur jabetzarik ez zeukanez bigarren alkatea zela pentsa dezakegu» (Uriarte, 1998: 137). Jovellanosek Eibartik egin zuen osteratxoan ezagutzeko aukera eduki zuen, eta honako deskribapena utzi zigun bere diarioan: «Pasé a casa de D. Juan Esteban Bustindui, con carta de su cuñado Aranguren, médico de Bilbao; es mozo de buena figura y aseado y atento, casado con hija del país, y con tres hijos, dos varones. Mostróme sus oficinas, donde trabajaba un bello cañón de dos tiros, sin embargo del día, (era domingo) por ser encargo que requería priesa». Ondoren, haren etxe eta tailerraren deskribapena egin zuen. Ikusi Mugica, 1990: 83, 84. Konbentzio Gerraren ondorioz Asturiasera joan bazen ere, 1808rako udalerrian zegoen berriz, EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-5-30. 1814an, Gipuzkoako Diputazioaren aginduz

kanoigin ospetsuak, bide berdina hartu zuen, Legution errefuxiatuta bizitzen egon ostean. Bere semea, Pedro Ramon, bertan jaio zen 1795eko urtarrilean.

Hirigunearen berreraikuntza

Eibarren gelditu zirenek herria berreraikitzeko ardura hartu zuten. Pedro Zelaiaren esanetan «… triskantza izugarria pasatu eta handik hogeita hamar egunera batu ziren Kontadoreko etxean, Errebal kalean zuloagatarrek zeukaten jauregian, orduko alkatea Juan Bautista Mendizabal, bi kontzejal eta laurogeitalau herritar, eta denak batera zin edo juramentu egin zuten Eibar berriz gora jasotzeko asmo kementsuarekin» (Zelaia, 1994: 31). 1794ko irailaren 18ko batzar horretan 29 auzokide bildu ziren, eta lehentasunen artean elizak jasandako kalteak konpontzea izan zen. Zeregin horretarako Eibarko ermitetako diruzainei zeuzkaten sos guztiak eskatzeaz gain, Babil Areizagari —San Andres elizako patroiari— gutun batean adierazi zioten, konponketa-lanetan lagundu ezean, eurek ere ez zizkiotela hamarrenen errentak ordainduko.

Kontadorekua Etxe Jauregia. Iturria: SARASKETA, 1909: 32.

Asmoak asmo, gerrak aurrera jarraitzen zuen eta badirudi etxebizitzen eraikuntza-lanak ez zirela berehala hasi; etxeak berriz altxatzeko beharrezkoak ziren zuhaitzak behintzat, 1798ra arte ez ziren banatu (Areta, 2003: 367). Beraz, ez da batere harrigarria hainbat eta hainbat eibartar beste herri batzuetan babestu izana, 1794ko negu gordinari aurre egiteko. Suposatzen denez, Eibarren gelditzea erabaki zutenek auzoetako baserrietan bilatuko zuten aterpea. Baina aukera hori ez zegoen

Fernando VII.arentzat eskopeta bat eta pare bat pistola egiteko aukeratu zuten, eta enkarguaren arduradunak — Manuel Silvestre Mendiolak— zioenez «no hay otro maestro igual en la Europa, y yo tomare la molestia de hacerle, cuando me parezca oportuno unas visitas para avivarlo porque es algo perezoso y además suele tener muchos encargos» (Mugica, 1990: 96).

herritar guztien eskura (ezta herritik alde egitearena ere), eta hurrengo urtean ere, etxebizitzarik gabe gelditu zirenentzat aterpea bilatzea benetako arazo bihurtu zen udalarentzat. Itxura denez, gaixoek ere kalean lo egiten zuten[285].

Udaletxea, ospitalea, eskolak… Guztia zegoen hondatuta[286]. Eta eraikin horiek altxatzeko baliabiderik ez! Ate ugari jo zituzten Eibarko ordezkariek laguntza eske: lehenik eta behin, Espainiako erregearengana jo zuten[287]; ondoren Gipuzkoako Batzar Orokorretara; eta azkenik, herritik kanpo bizi ziren eibartar aberatsengana bideratu zituzten beraien eskariak. Oro har, eskakizunek ez zuten erantzun egokirik aurkitu. 1795ean Zestoako batzarretan eibartarren eskakizuna erabili zuten arren, hurrengo urtera arte ez zuten erabakirik hartu, eta orduan ere, herrialdeko ogasunetik zuzenean erantzun beharrean, udalerri bakoitzari ahal zuen neurrian laguntzeko askatasuna eman zioten[288]. Guztira 2.747 erreal bildu ziren[289], baina kopuru hori zorraren korrituen laurdena ordaintzeko lain ere ez zen. Zelaiaren esanetan: «Eta beti legez, zorretan sartu ginen gerra madarikatuaren erruz. 1796an, gerrako gastuak 540.178 errealera heltzen ziren. Eta gastu horiei aurpegia emateko, urtero, erredituak ordaintzeko, 15.230 erreal behar genituen» (Zelaia, 1994: 31). Gerrako gastuak, berez, askoz altuagoak izan ziren —816.000 erreal—. Zelaiak aipatzen duen kopuru hori, ordura arte maileguan eskatutako diruari dagokio. Gainera

285. «En 1799, Eibar hizo presente en las Juntas de Villafranca la necesidad de establecer una casa que sirviera de albergue, por lo menos en casos de enfermedad, a varias familias que a causa del incendio sufrido por la villa, no tenían otro remedio que dedicarse a la mendicidad» (San Martin, 1979: 255).

286. 1797an datatutako idatzi batek zioenez, herriaren itxura hau zen: «Un esqueleto de lo que fue» EiUA, A,2,1, "Documentos referentes a la fabricación de armas de la villa de Eibar (1731-1879)", 1797-7-13.

287. Erregearen eskubideen defentsan eginiko meritu eta sakrifizioen zerrenda zehatz bat egin ondoren, honela bukatzen zuen udalaren eskakizunak: «… se digne mirarla con aquella compasión de que se contempla acreedora, proporcionándola en tiempo oportuno alguna parte de sus regias liberalidades y gracias, para alivio de tantas calamidades» EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1794-9-28. Eskakizun honen erantzunaren aipamenik ez dut inon aurkitu.

288. «Buscando alivio a sus estrecheces, Eibar acudió en demanda de socorros no sólo a los eibarreses pudientes que moraban en España y en las Indias, sino también al rey, por medio del Príncipe de la Paz. Todos prometían socorros, pero al ver que no llegaban, Eibar pidió en las Juntas de Cestona de 1795 que la provincia le secundase en sus gestiones, como en efecto lo hizo, dejando encargo para ello a la Diputación. En la Junta novena de las celebradas en Segura en 1796, se hizo eco de las mismas quejas y pidió a la provincia que tomase las providencias convenientes a su alivio. "Compadecidos todos los vocales de la triste suerte que ha padecido la villa de Eibar" acordaron que cada pueblo diese con el indicado fin de aliviar la situación de aquella villa la cantidad que le pareciese conveniente… No debió ser muy eficaz el apoyo prestado, puesto que en las Juntas de Zarauz de 1798 se solicitó de nuevo…» (San Martin, 1979: 254).

289. Lagundu zuten bederatzi udalerriak honako hauek izan ziren: Zestoa (600 erreal), Deba (547 erreal), Legazpi (500 erreal), Berastegi (330 erreal), Zumaia (300 erreal), Alegia (150 erreal), Orendain (150 erreal), Altzo (90 erreal), Zumarraga (50 erreal) eta Ikaztegieta (30 erreal) (Mugica, 1990: 45). Kopuruez gain, GAOn Gipuzkoako udalerrietako ordezkariek bidalitako idatziak gordetzen dira. Badirudi diruok bideratzeko orduan nahasteren bat edo beste sortu zela. Legazpiko alkateak zioenez

mailegu horiek interes altu-altuekin hartu ziren. Gerra-garaian inork ez zuenez % 3an dirurik lagatzen, % 6an onartu behar izan zuen udalak[290]. 1802an, Konbentzio Gerraren garaian Aranguren jaunak % 5 eta 6an utzitako 68.250 errealen korrituak, % 4ra jaisten saiatu zen udala[291]. Zorra kitatzea, beraz, lehenbiziko erronka bihurtu zen udalarentzat, zeren «… Espainia mailan zor hau estatuak onartu zuen baina Gipuzkoko kasuan, Probintzia Exentoetan bezalaxe, Probintziak eskuratu behar izan zuen. Probintziak ez zeukan ahalmenik ordainarazteko (…) Espainian ez bezala, zerga ez zen kontsolidatu, herri bakoitzak bere gain hartu behar izan zuen» (Uriarte, 1998: 80).

Kanpoan bizi ziren eibartarren laguntzak

Zalantzarik gabe, gehien lagundu zutenak Espainian eta Ameriketan bizi ziren eibartarrak izan ziren. 1803an Caracasen bizi zen Francisco Atxa Albizurik kaliz bat oparitu zion Arrateko baselizari, bere batena, koilara, txilin eta guzti; ospitalea ere, Argentinako La Platan bizi zen Francisco Areta apaizak bidalitako 4.000 errealekin berreraiki zen (Zelaia, 1994: 82)[292]. Eta 1804an, José Javier Amenabar eibartarrak 4.000 erreal bidali zituen Buenos Airesetik, gerra-garaian armak hartu zituzten soldadu eibartarrei laguntzeko. Eskola altxatzeko, ordea, udalak Sevillan zeukan etxe bat saldu behar izan zuen[293]; eta udaletxea egiteko,

---

«… debo decirla que inmediatamente de que se concluyeran las Juntas Generales del corriente año en la villa de Segura, escribi al Señor Diputado general de esta partido, dandole partte de la cantidad con que acorde conttribuir para la redifivacion de las casas quemadas en Eybar, de que no he tenido respuesta, ni he sabido a quien acudir con los quinientos reales que destine para dicho efecto». Debakoek, gutunean azaltzen zutena baino diru gehiago bidali zuten: «… debo decirla que immediatamente de que se concluyeran las Juntas Generales del corriente año en la villa de Segura, escribi al Señor Diputado general de esta partido, dandole partte de la cantidad con que acorde conttribuir para la redifivacion de las casas quemadas en Eybar, de que no he tenido respuesta, ni e sabido a quien acudir con los quinientos reales que destine para dicho efecto». Beste udaletxe batzuek aitortzen zutenez ez zeukaten inolako baliabiderik eibartarrak laguntzeko. Hala, Azpeitikoak —«devo decir que aunque considero muy benemerita su solicitud, me hallo sin advitrio para atenderla, mediante que S.M. por Real Orden de 12 de Diciembre de 1793 tiene mandado se apliquen a favor de la casa de Niños Expositos de Calahorra, todos los productos de la gracia del Indulto en su diocesis, y ser comprendidos en ella tanto la villa de Eybar, como la de Oñate y Pueblos de esa Provincia»—, edo Usurbilgoak —«Tambien he recivido el registro de las ultimas Juntas Generales de VS, y respondiendo a uno de sus decretos devo poner en consideracion de V.S que la atrasada constitucion de mis fondos no me permite destinar socorro para alivio de las necesidades de la villa de Eibar»—, GAO, JD IM 1/22/8, 1794, «Espediente relativo al incendio de la villa de Eibar en la invasion francesa del año 1794 y ayuda dada por los pueblos a su reedificación en virtud del acuerdo de la Junta de Segura de 1796».

290. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1796-1-17.

291. EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1802-12-19.

292. Zelaiaz gain, ikusi EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1805-4-28.

293. Sevillan saldu zen etxe honen kontura, 1795eko urtarrilaren 11ko aktan adierazten denez, erdia Eibarko Udalarena zen, eta beste erdia Iruñeko eliz kabildoarena edo komentuarena. Saldu zenean argitu zenez, erdia barik, seigarren zatia zen udalarena. Salmentari esker udalak 6.018 erreal eskuratu zituen, eta eskolako lanen kostua 9.513 errealekoa izan zenez, udalak gainerakoa beste iturri

50.000 errealen balioko herri-lurrak saltzeko baimena lortu zen. Kontzeju zaharra gaur egun Plaza Berriko 1. ataria dagoen lekuan kokatu zen, eta proiektua 1796rako egina zegoen arren, obrak 1800. urtean bukatu ziren. Esate baterako, dena berreraiki behar izan zenez, alde zaharra zabaltzeko aprobetxatu zen, Untzaga kalea —gaur egun Calbeton— hiriguneari gehitu eta harresitik kanpo zegoen izen bereko plazaraino luzatuz (San Martin, 1979: 187).

1802ko irailean, Eibarren ezagutzen dugun lehen iturria —Ardantza kalean kokatuta zegoena— konpontzea erabaki zuten. Eta 1804an, hildakoak elizatik kanpo lurperatzeko Erret Agindua ailegatu zen. Hasiera batean hilerria moja agustinen komentuko ortu zaharrean egitea pentsatu bazuten ere, 1809an Ibarreko Kruz ermitaren inguruan eraiki zen, leku egokiagoa zelakoan. Garai hartako gizarteak hilotzak leku sakratuetan lurperatzeko joera zuen, eta ikusten denez, hilerri berria eraikitzeko ere komentu edota ermita inguruak aukeratu ziren. Aginagan gainera, hildakoak bertako baselizan ehorzten jarraitu zuten.

ARMAGINTZAREN ETORKIZUNA ZALANTZAN

"Asentista" karguaren desagerpena

Konbentzio Gerrak fisikoki suntsitu zituen arma-tailer eta burdinolez gain, frantziarren presentziak eta mehatxuak SEAFen ekoizpena eten egin zuen: Debarroko 756 armagin lanik gabe gelditu ziren (Mugica, 1990: 88, 89). Frantziarren inbasioak, estrategikoki, estatu espainiarreko armagintza-gunerik garrantzitsuena mugatik hain hurbil kokatzearen arriskuak azaleratu zituen[294]. Asturiasen sortutako erret arma-fabriketan erdibideko sistema erabili zen: ekoizpena gremioen sistemaren arabera antolatu zen, baina "*asentisten*" figura desagertu eta ordutik aurrera Erret Ogasunak zuzenean kontrolatu zuen finantzaketa eta gremioen kontratazioa. Asturias aldean sorturiko arma-fabriken konpetentziak SEAFen

batzuen bidez ordaindu behar izan zuen. Horrez gain, baimena lortzeko erabilitako prozedura ez zela oso zehatza izan esango nuke. Madrileko AHNean aurkituriko txosten baten izenburuak dioenez «La villa de Eibar y Juan Antonio Larrañaga solicitan, la primera permiso para vender las tres sextas partes de unas casas de la calle Vizcainos de Sevilla y con su importe reedificar la casa consistorial incendiada por los franceses, y el segundo perteneciendole una parte de las citadas casas tambien quiere su venta para poder reedificar la casa solar de Ibarra, perteneciente a su vinculo de Eibar», MAHN, Consejos Suprimidos, leg. 5165 /exp SN eta leg. 4262 / exp. 410. Beraz, etxe bat baino gehiago ziren eta salmenta-baimena udala berreraikitzeagatik lortu zen, ez eskola.

294. «Un importante defecto de las Reales Fábricas de armas del País Vasco y Cataluña era su cercanía a la frontera. La guerra con la República Francesa (1793-1795), puso esto en evidencia y originó la fundación de la Fábrica de Oviedo al observarse en Asturias condiciones para la instalación de una industria de este tipo, a pesar de no existir allí tradición armera. Se imponía pues atender a una instalación nueva, pero el traslado de artesanos procedentes de la zona armera vasca sí se veía facilitado por el hecho de que muchos de ellos se encontraban en situación de refugiados, huídos ante el avance de los franceses» (Calvó, 1997: 26).

gainbehera areagotu zuen[295]: 1795-1797 urteetan bailarako armaginen jarioa etengabea izan zen Asturiaserantz[296], eta beraiekin batera, jakituriaz gain, salbatzea lortu zuten tresneria zeramaten[297].

Eibarko armaginak krisialdi honi etekina ateratzen saiatu ziren: «1795eko udaberrian Herri Armagileetako egoera ez zen lehengoa bezain gatazkatsua zeren alde batetik tropak arrotik gora joanak baitziren Gatzaga eta Gasteizerantz eta beste aldetik Robespierren terrore garaia bukatua baizuen eta frantziar militarrek lehengo garaian gertatutakoa gaitzesten baitzuten. Hobekuntza koiuntural honetan Eibarko udalgileek agudo ekin zieten euren aldeko interesei. Urte bereko apirilaren 7ko udal orokorrean Soraluzeko Erret Fabrika Eibarrera ekar zezaten eskatzen zien Fabrikako nagusi eta Espainiako gobernuari» (Uriarte, 1998: 132)[298]. Baina, Arrasatek ere armak frogatzeko eta aztertzeko tokia bertara eramatea eskatu zuela ikusirik, eibartarrek —urriaren 17an— arma-fabrika berriz Soraluzen ezartzea eskatu zuten. Erregearekin elkarrizketatzeko Ignacio María Ibarzabal izendatu zuten, Eibarko armaginen gremio guztien ordezkari.

Ibarzabalen ibilbidea ezagutzen dugu pixka bat: berau izan zen Laskurainen neskamearen atxiloketa prestatu zuenetariko bat, eta Juan Bautista Mendizabalekin batera Eibarko ordezkaria 1794ko irailean Arrasateko Batzar Orokorretan. Hurrengo urteetan ere pertsonaia hau funtsezkoa izango dugu Eibarko armagintzak eta politikagintzak jarraitu zuen ibilbidea aztertzeko orduan[299]. Ibarzabalekin elkarrizketatu ondoren, Karlos IV.ak Soraluzeko Erret Arma Fabrika berriz martxan jartzea onartu zuen, baina "*asentista*" kargua kenduta, Asturiaseko sistema bera ezarri zuen

295. Garcia Manrique, 1961: 26.

296. «Mieres eta Gradon kanoigileak kokatu ziren, txisperoak aldas, Puerto eta Barco de Soton, Oviedon bertan kutxagileak eta oinarrizko olak Oviedoko Jesuitek zeukaten ikastetxean. Hasierako une hauetan Printzipadoko ekoizpena Debakoa baino garestiagoa zen azpiegiturek behar bezain ondo ez baitzerabilten» (Uriarte, 1998: 125).

297. 1794an, frantziarrak sartu aurretik armak salbatu nahian, Eibarko armagin batzuek SEAFera eraman zituzten beraien ardurapean zeuden montatutako armak eta pieza guztiak, baina zuzendariak ez zien jaramonik egin «… por que los Directores y demas dependientes de ella y de la Compañia, absortos de la novedad, y preocupados con su fuga, se reusaron a su recivo, precisando a los exponentes a volverlos llebar a sus casas en donde les cupo la desgracia de quemarse». Horrez gain, SEAFeko zuzendariak berak aginduta, hainbat kureña erre zituzten, eta hamar urte geroago indemnizazioa kobratzeko zeukaten, EiUA, A,2,1, "Documentos referentes a la fabricación de armas de la villa de Eibar (1731-1879)", 1804-1-26.

298. Mugicak dioenez «… fundándose en que el estado de las Reales Fábricas de armas de fuego era deplorable y en que Eibar poseía parajes y condiciones inmejorables para su establecimiento, el Ayuntamiento de esta villa acordó (…) se solicitara de S.M. el establecimiento en Eibar de las Fabricas mencionada», arma-frogatokia Isasin edo "Ulsaga"n kokatuta (Mugica, 1990: 86).

299. 1777an eta 1786an errejidore eta 1781ean sindikoa izan ostean, Ignacio María Ibarzabal Eibarko alkatea izan zen 1790, 1799 eta 1808. urteetan.

Debarroan[300]. Errealitatean, nominalki desagertuta egon arren, ordutik aurrera Ibarzabal familiako kideek (lehenengo Ignacio Mariak, ondoren Gabriel Benitok, azkenez Ignaciok) bete zituzten "*asentista*"ren eginkizunak. Eibarko armaginen eta Madrileko agintarien artean jokatutako bitartekaritzari esker, hasiera batean arma zurien fabrikaziora dedikatzen zen familia bat izatetik[301], suzko armen pieza ezberdinak fabrikatzen zituzten gremioen kontratazioan espezializatutako familia bihurtu zen[302]. Armaginen eta monarkiaren arteko zubi-lana bete zuten bakarrak ez izan arren, badirudi ibarzabaldarrak izan zirela sistema berriaren ondorioz eskuratutako pribilejiozko posizioari etekin gehien atera ziotenak. 1803an, espainiar armadako zalditeriaren horniketen monopolioa zuen[303], eta hurrengo urtean Manuel Godoyk —Bakearen Printzeak!— Madrilera eraman zuen, beste batzuekin batera, Artilleria Museoa sortzera (Areta, 2003: 378). Ikusten denez, Ignacio María Ibarzabalek goi-mailako harremanak zituen espainiar Gortean. Uriarteren esanetan «XVIII. mendearen bukaeran eta hurrengoaren hasieran armagilegiaren ahalduna izateagatik Ibarzabal familiak arroko armen merkatua astintzea eta armaginentzat egoera hobea eskatzeaz gain, bere familiako produktuen komertzializazioa bultzatu zuten» (Uriarte, 1998: 132).

Soraluzeko Erret Arma Fabrikaren etenaldia

Konbentzio Gerraren osteko abagunean eibartarrek arma-fabrika berriz Soraluzen kokatzea eskatu zuten, baina 1801. urteko maiatzaren 19 eta 20an izandako uholdeen ondorioz, egoera arriskutsua sortu zen herri horretan, Errege Etxearen

300. «Finalizada la guerra con Francia en 1795, la Real Compañía de Filipinas y el eibarrés Pedro de Olave compitieron para hacerse con el cargo de asentista exclusivo de las Reales Fábricas de Placencia, pero Carlos IV no aceptó regresar a la situación anterior y optó por una organización idéntica a la nueva establecida en Asturias. El cargo de asentista desapareció y la Real Hacienda asumió la financiación, la Dirección de las Reales Fábricas pasó a contratar directamente con los gremios a través de un diputado general» (Calvó, 1997: 55).

301. 1784 aldera: «Se trataba de una fábrica dependiente de las Reales Fábricas de Placencia, con una actividad entrada inialmente en la producción de los elementos metálicos de las monturas de caballería y cartucheras, que pasó luego a producir armas blancas y a suministrar a la Real Fábrica de Toledo las guarniciones y vainas de los sables y espadas que allí se montaban con las hojas toledanas» (Calvó, 1997: 27).

302. «La fábrica de Ibarzabal adquirió entidad propia hacia el año 1816, al contratar directamente sus suministros con la Fábrica de Toledo y también con la Guardia Real, a la que proveía de sus modelos singulares de pistolas y tercerolas. No obstante, para esta última Ibarzábal actuaba en función similar a la de los antiguos asentistas, contratando con los gremios la producción de los distintos elementos de estas armas» (Calvó, 1997: 27).

303. «Ibarzabal suministraría directamente al Ejército a juzgar del texto que en el Reglamento para Caballería del año 1803, indica "a cada uno de los Regimientos, así de Línea como de Ligera se le enviará una silla, para que sirva de modelo a las demás que en los sucesivo se construyan (…) con sus precios prefijados por el fabricante de la Villa de Eybar en las Provincias, Don Ignacio Maria de Ibarzábal, con quien se entenderán los gefes siempre que necesiten acopios de estos efectos para sus respectivos regimientos"» (Calvó, 1997: 227).

ondoan zegoen mendiko lurrak eta haitzak askatzen hasi zirelako «… de donde han descendido, aunque sin daño algunos pedazos, quedando otros muchos, y mucho maiores (…) tan proximos a desunirse de su centro y rodar por la montaña acia la Real Casa (…) los Individuos de la Real Casa, recelosos de havitar en adelante en ella, han hecho presente a SM el gravisimo peligro, en que están; y por tanto le suplican se digne sacarlos del riesgo, haciendo, o permitiendo se traslade dicha Real Casa a otro Pueblo»[304]. Sinatu gabeko idatzi horren egileek Isasiko dorretxea proposatu zuten Errege Etxearen kokapen berritzat. Eibar gainera, Soraluze, Ermua eta Elgoibarren tartean egoteak, eskualdeko armagin guztientzat suposatuko zuen onura argudiatzen zuten, eta SEAFen egoitza Bergarara eramateko zurrumurruei, honela erantzun zien Bustinduik: «Dicen algunos que los de Vergara desean llevar allá, pero seria destruir a todos los demas Pueblos de los fabricantes por que esta mui lejos dicho Vergara. Eybar esta en el centro, y mas soleado que todos, como VE lo sabe»[305]. Abagunea egoki-egokia zen, eta zentzu horretan Eibarko Udalak eta armaginek Gortean zeuzkaten kontaktu guztiak erabili zituzten gerra-ministroaren interesa pizteko (Mugica, 1990: 86). Beharbada gestio horiek eragindako gastuez kexatzen ziren armaginak hilabete beranduago[306].

Baina Madrilen ez zuten erabakirik hartzen, eta pare bat urte geroago Eibarko armaginek beren eskakizuna berretsi zuten, eta Santa Kruzeko markesaren bitartekaritza lortzeko gestioak Francisco Ignacio Abanzabalegiren ardurapean utzi[307]. Egun batzuk lehenago, Soraluzeko auzokideen batzarrak bertako alkatea —Francisco Martín Aranguren— eta Miguel Joaristi izendatu zituen, Madrileko agintarien aurrean eibartarrekin sostengatzen zuen lehian Gipuzkoako Diputazioko arduradunen elkartasuna lortzeko. Soraluzetarrek ziotenez, Soraluze Eibar baino as-

304. EiUA, A,2,1, "Documentos referentes a la fabricación de armas de la villa de Eibar (1731-1879)", 1801-5-29.

305. EiUA, A,2,1, "Documentos referentes a la fabricación de armas de la villa de Eibar (1731-1879)", 1801-5-29.

306. Uztailean armagin xumeek gremioetako diputatuen aurka protestatu zuten: «hacen los Diputados muchas jestiones voluntarias, ya su mero capricho originando crecidos gastos…» EiUA, A,2,1, "Documentos referentes a la fabricación de armas de la villa de Eibar (1731-1879)", 1801-7-10.

307. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1803-3-25. Francisco Ignacio Abanzabalegiren ibilbide politikoa nahiko laburra izan zela azaldu behar da. Udalean bete zuen kargu bakarra 2. alkatearena izan zen, 1802an. 1786ko zerrendan 1. zutabean agertzen da, baina "*ausente*" zegoen. Abanzabalegitarrena, XVIII. mendearen bigarren erdialdean zehar Eibarko familia boteretsuenetariko bat izan ondoren, zeharo ahulduta agertzen da XIX. mendearen hasieran. Pedro Abanzabalegi Eibarko alkatea izan zen 1757, 1770, 1781 eta 1791. urteetan, "fuera de ser uno de los vecinos mas acendados y condecorados" EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1777-2-24. 1802tik aurrera inolako udal-kargurik ez betetzeaz gain, badirudi 1842. urterako baserria bera salduta zeukatela: Pedro eta Diego Abanzabalegi behintzat, maizter bezala agertzen dira Abanzabalegi baserrian, EiUA, C,1,1: "Año de 1842. Estado de la propiedad Rural y estraccion del 7 por 100".

koz leku egokiagoa izateaz gain, egoitza lekuz aldatzea iraintzat hartuko zuten[308]. Hilabete batzuk geroago jakin zenez, diputazioaren laguntza erabakigarria izan zen Soraluzeko armaginen interesak aurrera ateratzeko orduan[309]. Eibartarrak hurrengo aukeraren zain gelditu beharko ziren.

Uriartek, Agirre Kerexetari jarraituz, urte horietan kokatu du, hain zuzen ere, Debarroko armagintzaren bilakaeraren inflexio-puntua. Bere esanetan: «… Konbentzio guda ostean oso garai irregularra sortu zen Herri Armagileetan zeren herri hauetako bizkar hezurra zen armagintza birmoldaketa batean sarturik baitzegoen. Orokorrean, herri hauetako armagintzak bi joera nagusi sortarazi zuen seguruenean uneko gertakizunek behartuta: berezitasuna, arma laburraren inguruan, eta aurrerakuntza teknologikoa. Urte hauetan hasten diren bi joera hauek errotuko ziren herri hauetan XIX. mendean zehar XX. mendeko oinarria izanik. Hurrengo ehunka piko urtetan egiturak eta bizimoduak aldatu ziren oinarrizko bi joera horiek mantenduz» (Uriarte, 1998: 126).

KRISIALDI SOZIOEKONOMIKOA: ZORPETZEA, TXIROTZEA, GAIZTOTZEA…

Herri-lurren salmenta

Konbentzio Gerraren ostean herri armaginetako ekonomia lur jota gelditu zen. Armagintzaren gainbeherak gainerako sektore ekonomiko guztietan eragin zuen. Horrela, nekazariak kaltetu zituen, beraien produktuen kontsumitzaile nagusiek —armaginek, alegia— erosteko ahalmena galdu zutelako. Baina oro har, Konbentzio Gerrak udalean sortu zuen zorra izan zen krisialdiaren katalizatzailea. Espainia mailan zor hori estatuak onartu zuen baina Gipuzkoan, salbuetsitako gainerako herrialdeetan bezalaxe, zorra ez zen kontsolidatu, hau da, herri bakoitzak bere gain hartu behar izan zuen. Bistatik galdu behar ez den kontua dugu hori; izan ere, foru-erregimenaren araberako antolakuntza militarrari buruz hitz egiten denean, soldadutzaren salbuespenea aipatzen baita sarri, eta oso gutxitan "*padre por hijo*"

308. GAO, JD IM 2/21/97, "Correspondencia relativa a la pretensión de la villa de Eibar de que se trasladase a ella, la fábrica de armas de Placencia", 1803-3-15.

309. Gipuzkoako Diputazioari bere alde jarri izana eskertuz, Soraluzeko udalkideek hauxe zioten: «… nos apresuramos a elebar al alto conocimiento de VS que por el correo ultimo nos hemos hallado con la gustosa noticia de que en vista de nuestras exposiciones ha adoptado la Real Superioridad nuestra solicitud con total exclusion de las pretensiones de la villa de Eybar, y limitando la construcion del nuevo edificio oblacionado a una casa de Examenenes (sic), y Almacenes, facilitando aun para esto el Real Erario cinquenta, y ocho mil reales, que para iguales obras projetadas S.M. por cuia razon hallandonos con el pleno logro de nuestros deseos, y reconocidos de lo mucho que ha contribuido para tan feliz exito el influxo poderoso, y gran representacion de tan benefica Madre, le tributamos a VS las mas gozosas, y sumisas filiales gracias», GAO, JD IM 2/21/97, "Correspondencia relativa a la pretensión de la villa de Eibar de que se trasladase a ella, la fábrica de armas de Placencia", 1803-6-6.

deituriko mobilizazio militarraren finantzaketa herrialdearen lepotik ordaintzen zela. Zentzu horretan, Konbentzio Gerrak eragindako zorrei aurre egiteko, udalak herri-sailak saldu behar izan zituen, eta aurrekontuak orekatzeko, alde batetik, zeharkako zergak areagotu zituen, eta, bestetik, bere zerbitzuak gutxitu[310].

Lege Zaharrean udaleko ogasuna propio eta arieletan oinarritzen zen. Propioak udalari zuzenean errenta bat ematen zioten ondasunak ziren[311]. Arielak, berriz, zeharkako zergak, hau da, kontsumo-gaiei ezarritako zergak ziren. Propioen eta arielen arteko oreka mantentzea oso garrantzitsua zen Antzinako Erregimeneko ogasunetan, propioak gutxitzen ziren neurrian arielak igo behar zirelako. Zentzu horretan, egoera hoberena euren diru-sarrerak propioetan oinarritzen zuten udalena zen, kontsumogaiak gehiegi zamatu beharrik ez zeukatelako. Arantza Otaeguik eskaintzen dituen datuen arabera 1809. urte aldera, eskualde mailan Eibar zen propioetatik eta, oro har, diru-sarrera gutxien eskuratzen zuen udala; horrez gain, ehunekotan propioetatik lortutakoa eskualdetik bigarren baxuena zen, Bergararen ostean (Otaegui, 1991: 101-103). 1797-1802 bitartean, urteroko diru-sarrerak 18.171 errealekoak izan ziren batez beste[312], 13.682 arieletatik zetozenak eta 4.488 propioetatik; azken horiek diru-sarrera guztien % 24,4 suposatu zutelarik. Datu horietatik ondoriozta dezakegunez, oro har, diru-sarreren murrizte nabarmen bat gertatu zen 1797-1809 bitartean (% 31,5), baina propioen gutxitzea (% 49,5) arielena baino nabarmenagoa izan zen (% 25,3).

310. «1808ko gudan maisu eta medikuen soldatak guda ekonomia baten azpian gelditu ziren (…) Errestaurazio garaian, zentsoetan oinarritzen ziren soldatak sisa eta arbitrioei egotzi zitzaizkien. Izan ere, 1818an Eibarko maisuaren soldata ardoaren lepotik ordaintzen zen 2 marabedi eta erdi azunbre bakoitzeko» (Uriarte, 1998: 263).

311. Arantza Otaeguik, teorian bi eratako udal-ondasunak bereizten zirela argitzen digu, praktikan batzuen eta besteen arteko muga nahiko nahasita egon arren: «En términos generales se consideran como bienes propios el conjunto de fincas (molinos, hornos, carnicerías…) cuyo arrendamiento produce unos ingresos a las haciendas locales. Los bienes comunales, por su parte, se reducen principalmente a montes, bosques y pastizales que, por su carácter de aprovechamiento colectivo y gratuito, no generan renta alguna a las tesorerías municipales (…) Aunque la diferenciación conceptual entre bienes comunales y de propios es clara, en la práctica resulta con frecuencia difícil establecer unos límites para la identificación de ambos tipos de bienes, al menos a comienzos del siglo XIX. Así, a menudo los ayuntamientos cedían en arriendo temporalmente los arriendos comunales como si fuesen bienes propios , mediante el pago de un canon que revertía sobre las tesorerias (…) Uno de los rasgos característicos de estos bienes era, y sigue siendo, el de su condición de propiedades amortizadas por lo que, en principio, no se podían enajenar, al menos teóricamente, sino en circunstancias excepcionales y siempre con autorización real» (Otaegui, 1991: 1-2).

312. 1797-1802 epeari buruzko datuak Mugicak eskaintzen ditu (Mugica, 1990: 224). Kalkuluak neuk egindakoak dira.

	Propioak (er.)	Arielak (er.)	Propioak DS %	DS guztira
Arrasate	21.066	20.000	51	41.066
Bergara	10.920	77.120	12	88.040
Deba	58.446	14.184	80	72.630
Eibar	2.265	10.234	18	12.499
Elgeta	6.085	9.855	38	15.940
Elgoibar	24.776	54.000	31	78.776
Zestoa	60.974	450	99	61.424

Debarroko udalen diru-sarrerak 1809an, propio eta arielen artean bereizita.
Propioak DS%: Propioek diru-sarrera orokorretan suposatzen zuten ehunekoa.
DS guztira: Diru-sarrerak guztira.

1814ko maiatzaren 4ko Erret Aginduari jarraituz, udaletxe gipuzkoarrek 1764-1814 bitartean egindako herri-ondasunen salmentari buruzko txostenak egin zituzten 1817an, eta diputazioak txosten mardul batean bildu zituen jasotako guztiak. Zoritxarrez, bederatzi herriri buruzko txostenak falta dira, eta horien artean, Eibarkoa. Beraz, Konbentzio Gerrak udal-ondasunetan eduki zuen eragina aztertzeko, iturri garrantzitsu bat falta dugu, eta aipamen partzialekin konformatu beharko gara. Edonola ere frogatuta dago, gerraren ondorio ekonomikoak gehien pairatu zituzten bailarak Debakoa eta Urolakoa izan zirela[313]: Deba, Elgoibar eta Bergarako udalerrietan saldu ziren ondasunen balioa 560.000 errealetik gorakoa zen. Eibarko kopurua barne hartu gabe, Gipuzkoa osoan saldutakoaren % 19,8 suposatzen zuen. Ikusi denez, Eibarren bertan gutxienez 50.000 errealen balioko lursailak saldu behar izan ziren udaletxea berreraikitzeko[314], eta kopuru hori Deba, Elgoibar eta Bergarakoa baino askoz txikiagoa izan arren, Eibarko udalerriaren azalera ere txikiagoa dela hartu behar dugu kontuan, ordura arte herritarrek erabilitako lurren pribatizazioak, beste leku batzuekin alderatuz, eduki zuen eragin erlatiboa balioesteko. Eibarko kasuan, lurron erosleen nortasunak ezagutzen ez baditugu ere, badirudi gerran zehar udalari dirua mailegatu ziotenak izan zirela onuradun nagusiak[315].

313. «En concreto, no fueron las localidades próximas a la frontera francesa (valles del Bidasoa y del Urumea) las más perjudicadas por la guerra, sino los municipios situados en la parte occidental de Guipúzcoa: los valles de Urola y del Deva y, en particular, la villa de Eibar, que fue la localidad más devastada, como se refleja en un memorial presentado por los procuradores de dicha villa a las Juntas Generales de Guipúzcoa en 1795» (Otaegui, 1991: 19).

314. 1796an korrejimenduak 49.723 errealen balioko herri-lurrak saltzeko baimena eman zuen, EiUA, A,1,1,7, *Akta Liburuak (1788-1797)*, 1796-12-4.

315. 1804ko abenduan Eibarko Udalak 7.300 errealeko herrisaila hipotekatu behar izan zuen donatiboa ordaintzeko. Hurrengo urtean, Godoyk Gipuzkoari eskatutako 300 marinel eta 2 milioi errealetatik tokatzen zitzaion zatia ordaintzeko, Ignacio María Ibarzabalek eta Sebastián Zumaranek mailegatu behar izan zioten dirua udalari (Uriarte, 1998: 256).

Zeharkako zergen gehiegikeria

Propioak gutxitzean, udal-ekonomia zeharkako zergen bidez orekatzen saiatu ziren, ordura arte zamatu gabeko kontsumo-gaiei edota jada zamatuta zeudenei zerga berriak ezarriz. Mugicak dioenez, 1802. urtean ardo pitxer edo "*azumbre*"ko —bi litro— sei "*cuarto*"ko zergak ordaintzen ziren: bi gastu normaletarako, beste bi, errege-bidearen eraikuntzarako; beste bat, erosi behar ziren garau edo aleak ordaintzeko; eta azkena erregeari ordaintzen zitzaion "*alcabala fogueral*"a biltzeko (Mugica, 1990: 224). Ez dut uste "*cuarto*" horiek erreal laurdenak zirenik, zeren horrek ardo litro bakoitzeko zerga hutsetan errealaren hiru laurden ordaintzen zirela esan nahiko luke, osagileak berak eguneko hiru erreal baino ez zituenean irabazten. Beharbada marau laurdena, edo ziurrago, lau marau izango zen "*cuarto*" bakoitza[316], eta ez erreal laurdena. Edonola ere, ukaezina da arielen gehitzeak gehienbat klase ezinduenak kaltetu zituela[317].

Zeharkako zergen gehiegikeriak, kontsumitzaileez gain, kontsumo-gaien errematatzaileak kaltetzen zituen. Prezioak garestitzean, kontsumoa gutxitu egiten zen, eta negozio garbirik eskaini ezean, erremateak ez zituen inork hartzen. Egoera trakets horretan, mandazainek ere ez zuten garraiorik egin nahi, zeren herri bakoitza igarotzeko ordainsari bat ordaindu behar zuten, eta horniketa ez bazuten bermatzen isun gogorrak jasan. Ondorioz, 1805. urtean udalak berak eskuratu behar izan zuen zenbait produkturen horniketa bermatzeko ardura (Uriarte, 1998: 264).

1797an, aleen garestitzea zela-eta, biztanle batzuk gaztaina kanporatzen ari zirela ikusirik, diputazioak kanporaketa horiek galarazteko arreta berezia eskatu zien Eibar eta Elgoibarko udalei, gaztaina zelako «… un fruto que suple en parte la falta del Maiz»[318]. Aleen gabeziari aurre egiteko, elgoibartar batzuek Gasteizetik ekarri eta eskualdean saltzen zuten, baita Bizkaian ere. Herrialdetik alea ateratzea debekatuta zegoenez elgoibartar merkatarien jokabidea salatua izan zen, baina azkenean diputazioak jarduera hori baimendu egin zuen, eskualdea garirik gabe uzteko arriskua ekiditeko[319]. Urte batzuk beranduago Eibarko Udalak neurri zorrotzak

316. Ondarroan jende nagusiak oraindik gogoratzen du "txori-txiki" (pezetaren 5 zentimo) eta "txori-handi"ak (pezetaren 10 zentimo) baino lehen zegoen txanponaren izena: "lamaiku". Berba honen jatorria "lau marauku" hitz-elkartean egon daiteke. Erreal batek 34 marau zituenez, "lamaiko" bat errealaren 2,9 zentimo izango zen, gutxi gorabehera.

317. «Al recurrir a estos impuestos indirectos se está poniendo en manos de los más humildes la responsabilidad de hacer frente a las deudas a través de aumentar los precios de los productos básicos. Sin embargo, estas economías, que son las menos pudientes, no pueden hacer frente a esas subidas, con lo que el consumo desciende, baja lo recaudado y nunca se cumplen los precisos y exactos cálculos de los dirigentes provinciales» (Mora eta Zapirain, 1995: 68).

318. GAO, Copiador de Oficios (CO) 55, 1797-12-9.

319. Soraluze, Eibar, Deba eta Mutrikuko udalerriek zuten gari-premia ahal zenik eta preziorik hoberenetan bermatu nahian diputazioak hauxe galdetzen zien: «… me conviene saber si los naturales de esa jurisdicción se surten de trigo desde Elgoibar y a que precios de un mes a esta parte, sobre cuyo particular espero me informe vm. a la mayor brevedad con intervención de sus Diputados del

hartu behar izan zituen aleen espekulazioari mugak ezartzeko[320]. Alde batetik, herriaren izenean garia erosteko 4.000 erreal inbertitu zituen 1803an; bestetik, irinaren salmenta publikoa debekatu zuen, zuzenean okinen eskuetan jarriz. «Urte honetan ere alhondigan egiten ziren pisaketak salatuak izan ziren auzokideengatik. Herriko azokari eta orden publikoari kalte handia egiten zien salaketa honek. Beraz, Udal Orokorrak, goizeko pisaketan udaleko idazkaria present egon zedin erabaki zuen. Lan hori egiteagatik erreal bat eguneko kobratu behar zuen idazkariak» (Uriarte, 1998: 166). Hurrengo urtean, uzta bildu baino lehen, gari anegak 200 erreal baino gehiago balio zituen, eta horren errudunak ziren «… los que no tienen limite en su codicia acaparadora»[321]. Udalak, hurrengo uztara arte gariaren prezioa mugatzea erabaki zuen eta gainera, nekazariak, salbuespenik gabe, lortutako labore kopurua zin egitera behartu zituen. Uneko krisia gainditzeko atzerrian laboreak erostea erabaki zuen Eibarko Udal orokorrak. Gariarenaz gain, haragiaren prezioak ere gora egin zuen, urte batean 48 marautik 68ra igo baitzen haragi libera. Garestitze horrek ordena publikoko arazoak sorrarazi bazituen ere, udalak gorakada horri mugak jarri beharrean, haragiaren prezioa liberalizatzea erabaki zuen, 1806tik aurrerako enkanteetan harakinak berak ipini baitzuen salmenta-prezioa (Uriarte, 1998: 168, 169). Hori bai, abereen kontrabandoa egiten zutenei isunak ezartzea zeukan erabakita 1804. urtetik[322].

---

comun exponiendo al mismo tiempo su parecer en orden a si prohibida la saca de este grano desde Elgoibar para Vizcaya hay peligro de que cese o se disminuia la trageneria y conducción de este grano que parece se verifica en abundancia desde Vitoria para aquella villa y si impidiéndose y frustrándose esta abundancia por motivo de la insinuada prohivicion puede temerse que resulte escasez y perjuicio a los naturales de vm. Y demas Pueblos circunvecinos a Elgoibar». 1798-5-12an diputazioak Bizkairantz garia ateratzeko debekua bertan behera utzi zuen, bere harridura azaltzen zuen neurri berean Elgoibarko alkateak Pedro Martín Larrumbide ale "*traginero*"en zerrendan sartu zuelako «cuando consta del expediente que ese caballero lejos de egercitarse en sacar interes ni ganancia en semejante trafico antes bien ha hecho sentir los efectos de su beneficiencia a muchos Labradores de esa Jurisdicción constituidos en el mas lamentable estado a causa de haverseles malogrado la cosecha del Maiz», GAO, Copiador de Oficios (CO) 55, 1798-4-8.

320. «… atendiendo a remediar la escasez aparente que se experimenta, causada por la codicia de los tenedores del trigo, que le reservan con la esperanza de que se aumente el precio (…) que no puedan negarse a vender el que les sobre a precios corrientes a todos los que lo soliciten; entendiendose por trigo sobrante todo aquel que no necesiten sus dueños para el mantenimiento de sus casas y familias, ni para hacer sus siembras» EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1803-2-20. Matxinadaren beldur luzaroan izan ziren Eibarko handikiak. 1847an Eibartik 400 anega arto atera ziren, Deban itsasoratu eta Bilborantz eramateko «… por cuyo motibo parece haber subido este articulo de 26 a 35 reales la fanega y el trigo de 42 a 56 rs. tanto pues porque pudiera ocurrir una conmocion en el Pueblo que acarreara consecuencias desagradables a las autoridades cuanto porque (…) esta prohivida absolutamente toda estraccion de aquel articulo» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1847-2-9.

321. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1804-6-4.

322. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1804-6-3.

Gerraren pairatzaileak

Gerraosteko gainbehera ekonomikoak giza sektore guztiak kaltetu zituen, baina, zalantzarik gabe, krisialdiaren ondorioak batez ere pairatu zituztenak klase gutxituak izan ziren: txiroak, umezurtzak, alargunak, ezinduak… 1805ean, herrialdeak onartutako Umezurtzen Araudiak umezurtzen eskubideak eta amaordeen soldatak zehaztu zituen. Kontuan hartzekoa da umezurtzen erdiak baino gehiago hamabi urte bete baino lehen hiltzen zirela. Aurreko urtean, Eibarko Udalak umezurztegi bat bertan eraikitzea erabaki zuen, baina proiektua bertan behera gelditu zen, ez baitzen diru nahikorik lortu. Eibartarren egoeraz errukitu ziren ongileen artean, Jose Antonio Campos aipatu behar dugu. Campos Eibarko alkate izendatu zuten 1807an, baina Madrilen bizi zenez Pedro Francisco Olabe aritu zen bere ordez. Edonola ere, almirante kargurako izendatu zutela ospatzeko, Camposek ordaindu zituen San Joan jaietako zezenketak —"*con toreros del País*"!—, baita herriko 18 txiroren bazkaria ere. Udalari igorritako gutunean azaltzen zuenez, «… es mi voluntad se de a comer a diez y ocho pobres del Pueblo, eligidos por usted, en la sala consistorial el mismo dia de San Juan a las doze, y que sean servidos con amor y edificacion a mi nombre por el Alcalde y Regidores…»[323], aukeratutako txiroen erdiak emakumeak izan behar zirela zehaztuz. Bazkariak halako platerrak izan zituen: barazkiak, giarra, haragia, libra bateko ogi bat eta litro erdi ardo, eta bazkalostean erreal bana edo bina banatu zitzaion txiro bakoitzari. Ez dakigu bazkari berezi horren zerbitzari-lanetan aritu zirenak udalkideak izan ziren ala ez, baina Camposen eskakizunak zeukan esanahi sinbolikoa ez zaigu oharkabean pasatzekoa iruditzen.

Hain bizi-baldintza gogorretan, gaisotasunak eta izurriteak agertu izanak ez gaitu harrituko. 1804ko apirilean sukar berezi bat azaldu zen Eibarren. Gaisotasunaren jatorri zehatza ez zen ezagutzen, eta herri osoan hedatu zen denbora laburrean; gainera, ospitalea oraindik eraiki gabe zegoen (1806ko apirilean erosi zituzten lurrak). Testuinguru horretan, Martín Barrenetxea osagileak soldata igotzea eskatu zion udalari, lana gehitzeaz gain pobreek ez ziotelako ordaintzen. Soldata 110 dukatetik 300 dukatera igo zioten, eta horrez gain bisitak ere kobratzen zituen: erreal erdia kaleko bisiten truke eta bi erreal baserrietara joan behar zuenean (Uriarte, 1998: 260, 261). Azaroan, Malagan izurrite bortitza azaldu zela jakin zen Eibarren. Ordurako frantziarrek osasun-hesi bat ezarrita zeukaten mugaren lerroan, pertsona eta produktu guztiei sarrera galaraziz. Hori ez zen okerrena, Bidasoaz haraindi igaro ezinean, herrialdetik kanpoko hainbat lagun muga-inguruetan pilatzen hasi zirelako, horietatik gehienak, gaisorik egon gabe izurritearen aitzakiaz Gipuzkoan sartzen ziren, txiroak, iturrien esanetan[324]. Diputazioak baimenik —"*salvo-*

323. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1807-5-17 eta 1807-9-20.

324. «Ademas se observa tambien que desde las castillas se van introduciendo muchos mendigos enfermos que adolezen de las fiebres (…) Es, pues, tanto mas perjudicial la introducion de estas Jentes asi a los Pueblos, porque se ven inundados de ellas, como a la salud de mis naturales» EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1804-11-1.

conducto"rik— ez zeukatenei sarrera debekatzea erabaki zuen, eta zeukatenei ere, muga zarratuta zegoela ohartaraztea Gipuzkoan sartu baino lehen. Horrez gain, zaintza bereziak ezartzea agindu zuen, Eibar bezala, beste probintzia batzuekin muga egiten zuten herrietan. Eibarren Pedro Areder izendatu zuten eginkizun horretarako, eta hain zehatza omen zen bere lanean, ezen hilabete batzuk geroago udalak bere jokabidea leuntzeko agindu behar izan zion «… para que cese su comision de espolear a los pobres forasteros por quanto no cumple como deve su obligacion»[325].

Bidelapurren jarduera

Gerraosteko txirotzeak legez kanpoko jardueretara bultzatu zuen bat baino gehiago. 1797ko uztailean, adibidez, uzta bildu berria zela, Eibarko nekazariek aleen lapurretak salatu zituzten. Udalak, lapurren aurkako zigor gogorrak iragartzeaz gain, diru-sariak ere eskaini zituen salatarien anonimatoa bermatuz. Diru-sariak eskaintzeak mentalitatearen aldaketa bat islatzen zuen, ordura arte nekazariak behartuta zeudelako lapurretak salatzera, inolako saririk jaso gabe. Gaizkileen aurkako kolaborazioa nolabait suspertu beharra zegoen, Konbentzio Gerraren ostean legez kanpo aritzen ziren talde armatuak ugaritu egin zirelako[326], hain zuzen ere herri xehearen aldetik agintarien aurkako mesfidantzak areagotzen ziren momentuan.

Ordena publikoa bermatzeko, Gipuzkoako Diputazioak mikeleteen erakundea sortu zuen 1796ko irailean. Taldea 22 gizonek osatu zuten, arestian Gipuzkoako Batailoiaren buru izandako Juan Carlos de Areyzagaren agindupean eta mikeleteak, normala denez, batailoi horren boluntario ohiak izan ziren, tartean garaiko bidelapurrik entzutetsuena: Joan Joseph Ibargoien, "*Giñi*" (Alberdi, 2000: 48, 49)[327]. Beraz, gaizkileen eta mikeleteen arteko muga ez zen oso argia[328]. Hona nola deskribatzen digun Mikel Alberdik talde horien jokabidea: «Lapurreta motari

325. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1805-3-10.

326. Egia esan, Konbentzio Gerra aurretik ere ezagutzen ziren lapurretak eta hilketak Eibarko udalerrian. 1756. urtean, adibidez, hauxe irakur dezakegu akta-liburuan: «… la desgraciada infeliz muerte, sucedida por las inmediaciones de Pasqua, en el monte Iturrioz (…) despues de la crueldad que denotan sus repetidas heridas de arma de fuego, y blanca son las mas convincentes, de que padecio esta violencia por ser robado». Hori dela-eta, lanbiderik gabe dirua gastatzen zuten guztiak, susmagarriak zirela zioen korrejidoreak: «… no se puede sufrir con Justa toleranzia en una Poblazion un Hombre forastero o natural que viste come bebe pasea y Juega y no se le conozca empleo Ofizio ni rentas para su subsistencia…» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768),* 1756-12-28.

327. Artikulu horretan Zumalakarregi Museoko dokumentazio-zerbitzuko zuzendariak Joan Joseph Ibargoien Etxauz "Giñi" bandolero irundarraren bizitza aztertzen du. "Giñi"k, Konbentzio Gerran parte hartu ondoren, mikeletea izan zen, eta bota zutenean Iparraldeko itsasontzi kortsario batean itsasoratu zen. Hegoaldera itzuli eta lapurreta entzutetsuak egin zituen. Zenbait urtez ihesi ibili ondoren, 1804. urtean hil zuten, garrotez.

328. Adibide gisa Gipuzkoako Diputazioak mikeleten buruari —Francisco de Tornacueri— bidalitako gutunetariko bat erabil dezakegu, informazioa eskatzen «… acerca de la conducta del indibiduo de esa Partida Miguel de Eraso la que me ha pasado últimamente la Justicia de Hernani

dagokionez gehien aurkitu duguna bide lapurreta izan da. Esan dezakegu lapurreta klasikoa bidaiariei —gehien bat garraiolariei edo merkatariei— herrietatik urrun egiten zitzaien erasoa izaten zena. Talde txikitan, hiruzpalau lapur nahikoa izaten zen, eta bortizkeri gehiegi erabili gabe. Armak eramaten zituzten baina gutxitan erabili. Batzutan aurpegiak estali edo mozorrotzen ziren. Beraien artean aurrez adostutako zeinuak ere erabiltzen zituzten. Beste ezaugarrietako bat aurrez jasotako informazioa izaten zen, hau da, ostalariek edo ostatuetan mugitzen zen jendeak, dirua zeraman bidaiarien berri askotan eskaintzen zieten lapurrei. Honela lapurretaren gutxieneko emaitza ziurtatzen zen. Bai informazioa jasotzeko, bai lapur taldeak biltzeko, herrietatik urrun zeuden ostatuak oso paper garrantzitsua betetzen dute bandoleroen bizitzan» (Alberdi, 2000: 62, 63).

Debarroak ere bazuen bere bidelapur ezaguna: Joaquín Iturbe ermuarra[329], ezizenez "*Santua*". Beste lapurreta batzuen artean, 1796ko uztailaren 5ean Eibarko Pagaegi baserrian burututakoan parte hartu omen zuen[330]. Hamar gizon baserrian sartu, eta biztanleak koltxoiekin estali ondoren, 600 dukat eraman zituzten dirutan eta 400 ondasunetan, horien artean baserriko jabeak Konbentzio Gerran erabilitako bi eskopeta. Hiru egun beranduago Astigarrabian Domingo Elberdin mandazainari bidera irten zitzaion trabuko batekin, baina ihes egitea lortu zuen. Gainera, harrapatu egin zuten, eta Mutrikuko kartzelan sartu. Baina ihes egitea lortu zuen «… haciendo desquiciarse el cepo que los tenía trabados por los pies» (Arocena, 1960: 305). Garaiko kartzelak ez bide ziren oso ziurrak, Tolosakotik ere ihes egin baitzuen Iturbek, eta berriz Mutrikukotik, oraingoan horman zulo bat eginda[331]. Mallabian harrapatu zuten azkenean, eta oraingo honetan Motako Gazteluan sartu zuten, Donostian, hamar urteko kartzela-zigorra betetzeko Filipinetara noiz bidaliko zain. Horixe dugu bandolero ermuarrari buruzko azken aztarna.

Pagaegi baserriko lapurretatik hiru hilabete eskasera ermuarrekin iskanbila zalapartatsu bat sortu zen: Agustín eta Juan Jose Ibarzabal anaiek, Diego del Horno Unsaga eta beste batzuekin batera istilu batean parte hartu zuten Ermuan,

---

sobre haverse propasado el mismo Eraso a registrar y reconocer a una moza de aquella villa en el Camino Real de su jurisdicción en terminos no los mas regulares y metiendose a tomar oficio que no le incumbe», GAO, CO55, 1798-4-24. Eraso aurretik ere komandanteari ez obeditzeagatik zigortu izan zen GAO, CO55, 1797-12-5.

329. "Giñi"ren kolaboratzaileen artean beste ermuar bat aurkitzen dugu: Micaela Izagirre (Alberdi, 2000: 64).

330. 1796ko daturik ez badugu ere, 1807an Pagaegi baserrian Agustín Atxa bizi zela badakigu, 1000 haritz eta pago txiki birlandatzeko baimena eskatu baitzuen, EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1807-12-7.

331. «De los autos se deduce que los reos habían conseguido practicar un agujero en la pared que luego se cuidaban de tapar colocando "las piedras que hacian cara por la parte interior en tal disposición, que nadie pudiese conocer que se hubiera hecho novedad en ella, pues que así colocadas las piedras, las revocaban con mortero que hacían con la cal que estrayan de la misma pared, y aguas menores, echado sobre dicho mortero un poco de polvo de escombros» (Arocena, 1960: 306).

eta atxilotuak izan ziren «… de resultas de cierta quimera, y un tiro de Escopeta en la Proximidad de la Casa Taberna de dicha villa»[332], 1796ko urriaren 16an. Ez dakit zalaparta horrek "Santua"k Pagaegi baserrian buruturiko lapurretarekin zerikusirik zeukan ala ez, baina bai ibarzabaldarrak eta pagaegitarrak familia berekoak zirela, Ignacio Mariaren eta Agustinaren arteko ezkontzaren bidez. Mendekua edo kasualitatea, eibartarrak Ermuan zeuden preso, eta Eibarko alkateak udalerrira eramatea eskatu zuen, bertan epaitzeko. Baina Bizkaiko Jaurerriak ez zuen eskakizuna onartu. Ondorioz auzi bat hasi zen, eta beste batzuekin nahastu, Bergarako etxe batean ustez lapurretan egiteagatik atxilotu zuten Juana Aretxabaletak kartzelatik ihes egin eta Bizkaian babestu baitzen. Ikusten denez, biak foru-herrialdeak izan arren, oraingoan ere Bizkaiak eta Gipuzkoak zorrotz babestu zituzten bakoitzak bere eskuduntzak.

GERRAOSTEKO UDALGINTZA EIBARREN

Laskurain semearen itzulera

Laskurain nagusia Bilboko kartzelan hil zen, ikusi dugun bezala. Baina zer gertatu zen bere semearekin? Basileako Bakearen ostean Gipuzkoako zenbait lekutan liskarrak sortu ziren, herrietan gelditu zirenen eta bueltan zetozenen artean. Bueltan zetozenek frantsesekin kolaboratu izana leporatzen zieten herrian gelditutakoei, eta hauek zigortu nahi zituzten[333]. Giroa lasaitzeko, Gipuzkoako Diputazioak zirkular bat zabaldu zuen, biztanleriari bakez eta adiskidetasunez jokatzeko eskatzen[334].

Eibarren, ez da joandakoen eta gelditutakoen arteko lehia horren aztarnarik nabaritzen. Beharbada, guztiek ere patu bera jasan izanak beraien arteko elkartasuna sendotu zuen, eta herria berriz altxatu beharrak exijitzen zuen elkarlanak eztabaida

332. GAO, JD IM 3/8/137.

333. «Sus intenciones eran de aprisionar a todo hombre visible de la patria y mortificarle encerrandole en castillos, en mazmorras. Assi lo decian sin rebozo y assi lo execcutaban con hombres decentes que a sus negocios y a los del servicio del Rey pasaban alguna vez acia Vitoria» (Cruz, 1993: 104), «… los ediles fugitivos del Ayuntamiento bilbaíno quisieron reincorporarse en sus antiguos puestos, encontrando la oposición de quienes en los momentos críticos habían asumido el mando (…) para alcanzar niveles de carácter social; el formado por los integrantes de quienes habían huído, poderosos, adinerados y señorees de la tierra, y los que habían permanecido, componentes en su mayor parte de la clase media, pequeños burgueses, que veían su sueño cumplido de poder encauzar la vida municipal de acuerdo con sus ideas e intereses» (Ribechini, 1996: 51).

334. Irungo Udal Artxiboa (IUA), A,1,41, 1796-3-2: «Ha sido sumo el sentimiento, que me ha causado la noticia, que he tenido, de que en varios de mis Pueblos se ha originado una especie de División entre sus Naturales, que permanecieron en el País, y los que emigraron de el en la ultima Guerra, a causa de haverse apoderado el Egercito Frances de la mayor parte de la Provincia; y que de esta División, nacen entre ellos continuas reyertas, de si procedieron mal, tanto los que se quedaron, como los que emigraron», Irungo Udal Artxiboa (IUA), A,1,41, 1796-3-2.

horiek alboratu zituen. Horren seinaletzat hartu dezakegu, frantziarren kolaboratzailea zelakoan 1794ko abuztuan atxilotu zuten Andres Areta Mandiola —Laskurain nagusiaren suhia eta gaztearen koinatua—, 1797ko alkatea izango zena. Inork ez zuena ahaztuko, ordea, Laskurain gaztearen jokabidea izan zen[335]. Gogora dezagun Maria Josefa Lezetaren helegiteak bere senarraren errugabetasuna frogatzea lortu zuela 1797ko apirilean. Abagune hori aprobetxatu nahian beharbada, haien semea —Laskurain gaztea— 1798ko udal-hauteskundeetara aurkeztu zen, eta arrakastaz, alkate izendatu zuten-eta. Baina hautaketa hori indargabetu, eta berriz egitea erabaki zuen auzokideen batzarrak, oraingo honetan alkatearen makila Sebastian Erbitiren eskuetan jarriz.

Felix Olabe apaiza versus Laskurain gaztea

Udal-karguen izendatzeak jasotzen dituen liburu berezian[336] inolako aipamenik aurkitu ez dugun arren, Felix Olabe aipazaren testigantzak pilo bat datu eskaintzen digu gertakizun horri buruz. Izan ere, Laskurainek bere aurkako salaketa bat ezarri zuen, Olabek botazioa errepikatzea erabaki zela jakin zuenean esandako hitzengatik. 1797ko Gabon zahar eguneko arratsaldean, Martin Rementeria eta Andres Ignacio Urkiola apaizak San Andres elizako atarian zeuden beste elizgizon batzuekin batera, Felix Olabe haiengana hurbildu eta «… dijo aludiendo a Lascurain, si la suerte habia cahido en el sugeto que yo me presumo, ha hecho mui bien el Ayuntamiento en prozeder a segunda eleccion (…) por que si hubiera sido Alcalde Lascurain hubieran tenido en Eybar a los 15 dias un ahorcado que sirviera de espectaculo triste y funesto para con el Pueblo (…) por que habia sido Incendario ppco. con la tropa francesa en Ondarroa»[337].

Olabek esandako hitzok izan ziren Laskurain gazteak bere aurka hasitako salaketaren arrazoia. Auzi horren inguruan Olabek egindako testigantzak —partzialtasunez kutsatuta egon zitekeela onartuta ere— hainbat datu eskaintzen dizkigu, ez soilik Laskurain gazteak gerratean zehar izan zuen jokabideari buruz, baita normalean azaleratzen ez diren beste hamaika konturi buruz ere. Haren esanetan, Laskurainek buruturiko delitua hain zen itzela, ezen justizia bera ere ez zen ausartzen haren aurka egiten[338].

Lehenik eta behin, bere aurka deklaratu zuten 12 lekukotik zazpi, Laskurainen lagunak edo bere etsaiak zirela argudiatu zuen, eta ondorioz, hauen testigantza

335. Felix Olabe apaizak zioenez «…hay ciertas cosas que no se deben ovidar, ni se olbidara jamas en Eybar, pues nadie lo ignora que Lascurain el Querellante estubo con los franceses en toda la Guerra», BUA, C-127, 94.

336. EiUA, A,2,5, “Libro de elecciones de oficios 1660-1805”.

337. BUA, C-127, 94.

338. «… recombenido Olabe, que si esto fuera cierto, tiempo havian tenido las Justicias para indagar la verdad, contesto que como era un delito tan enorme, nadie queria que se perdiese una familia», BUA, C-127, 94.

ez zela kontuan hartu behar[339]. Laskurainek gorrotatu egiten zuen, Olabek bere aitaren atxiloketan parte hartu zuela uste zuelako[340]. Edonola ere, defentsarik hoberena erasoa delakoan, Felix Olabek Laskurain gazteak gerratean zehar jarraituriko ibilbidea deskribatzeari ekin zion, Ondarroako erreketan izan zuen partehartze nabarmena azpimarratuz:

> El 29 a las dos de la mañana vino un Espia desde Ondarrua con las noticias de que Suasnabar, Romero, Lascurain, Aldaz, y otro de Deba estaban con los franzeses en Ondarrua y que los dos primeros Posaban con el General frances en casa de Ana Maria de Echeverria alias Aspilza o Uleluze. Que en esta casa entraba Lascurain quando el Espia se escapó de Ondarrua. Que el de Deba destruio una votica. Que la Iglesia estaba llena de prisioneros y el estubo en ella como tal. Que entre otros Prisioneros havian separado de los demas a Francisco de Galarza residente en ella con otros dos compañeros; y aunque este hizo muchas suplicas a Lascurain para que le librase le respondio que no podia; y que sonriendose le bolvio la espalda. Que Romero estaba de espaldas al Sagrario dando ordenes de los que debian hir Prisioneros, y dirijiendo al General frances que estaba sentado en la silla del Alcalde. Que Romero gritaba: No hay por ay siquiera un Sacerdote para hacer de el unos chorizos? y que de Zumaya, Guetaria y Deba, habian benido muchas chalupas para conducir los efectos saqueados, con la circunstancia de que el practico que trahian

339. «… de 12 testigos que tiene la sumaria, los 7 son de tacha, y referidas se colije con claridad que esta causa prozede de conjuracion y liga que han hecho los enemigos de mi pte.», BUA, C-127, 94. Joseph Fco. de Ibarra apaiza, testamentuen manipulatzailea izateaz gain, Laskurainek beldurtuta omen zeukan, hauxe aurpegiratu ziolako «… que obró mui mal con la Plata de la Iglesia que se perdio en Vergara en la intrusion de los franceses y la abandono y dejó sin resguardo entregandosela a un carretero»; Andres Ignacio Urkiolari zegokionez —"amigo intimo del querellante"— haserre zegoen Olaberekin, korrejidoreak emandako agindu batek Arrateko santutegiko giltza Urkiolari ematea agindu bazion ere, agindu hori indargabetzea lortu zuelako. Ventura Orbeari buruz, «… trataba Orbea reparablemente con su criada y por la notoria amistad que Profesa con Lascurain» zioen. Antzeko zerbait gertatzen zen Agustin Alberdi organistarekin, Olabek bere emazteari eliza ondo garbitzeko agindu ziolako, eta «… por que le ha reprendido seriamente por tres vezes viendole separado de su muger, y ha procurado unirlos amenazandoles que para en el caso de que no abandonase las comunicaciones sospechosas que ponían en tanto cuidado a su muger, y ocasionaban tantos escandalos en el Pueblo»; Agustin Vicente Lasarte «… es apasionado de Lascurain y su Parentela, en tal grado que dicho Lascurain ha ospedado y mantenido en su casa durante todo el tiempo de su Alcaldia a Andres Areta cuñado de Lascurain, a quien ha tenido tambien por combidado en los tiempos en que los sensatos hacian de el como de qualquiera trahidor»; eta bukatzeko Manuel Berraondo zirujaua bere aurka zegoen, Pedro Joseph Olabek (Felixen anaiak) alkatea zenean ez ziolako soldata igo, eta Felixek berak nahiago zuelako Soraluzeko zirujaua. Hona hemen Eibarko gizartearen intrahistoria 1798an, Felix Olabe apaizaren arabera.

340. «Supone el Querellante que D. Felix tubo parte en la Prision de Juan Andres de Lascurain su Padre y que fue armado a ejecutar la Prision (…) Tambien es falso que d. Felix influiese ni aconsejase saqueo, ni Incendio, ni hubo tal Incendio ni saqueo en la casa de Lascurain (…) creiendo la Madre de Lascurain que la hiban a matar y pidiendo la absolucion, la consolo mi pte. —poderdante— y no permitio que se la hiciese daño alguno; Desde entonces y particularmente a mediados del año de 96 ya se decia publicamente en Eybar que Lascurain havia de poner Pleito a d. Felix por el registro de la casa de su Padre, siendo asi que lo hizo por mandato de la Xusticia», BUA, C-127, 94.

> estas chalupas era de Guetaria y que uno de los que mandaban era Lascurain. El dia anterior se tubo noticia tambien en Ondarrua de que Aldamar, Romero y un Ingeniero frances havian andado con Lascurain por los montes, y que este le informaba de las alturas de Vizcaya y sus fortalezas (…)Y aunque todos dicen haver oydo que se hallo en todos los ataques auxiliando a los franceses, se le justificara de positibo haverse hallado en los Ataques de Ondarrua y Vergara. Con la carta que tambien presento y juro consta que en los navios de Aldamar en Deba, hacia de Contra Maestre el dicho Lascurain[341].

Hori guztia egia bazen, behintzat, Laskurainek bazeukan ondarrutarren beldur izateko motiburik. Edonola ere, udal-hautaketa ez zuten ondarrutarrek indargabetu, ezta Felix Olabek ere, auzokideen batzarrak baizik. Zein arrazoirekin? Lehen kapituluan azaldu denez, udal-karguak aukeratzeko sistemak izendatzea, bozketa eta zozketa elkarganatzen zituen. XVIII. mendearen bukaeran erabiltzen zen sistemaren arabera, agintaldia bukatzen zuen alkateak hiru hautesle izendatzen zituen, eta hiru hautesle horiek, aparteko gela batean bilduta, hurrengo urterako proposamenak txartel banatan idatzita, pitxer batean sartzen zituzten. Hautesle izateko, udal-kargu izateko bezala, baldintza zehatzak bete behar ziren, horien artean udaleko horniketen errematatzaile ez izatea, ezta errematatzaileen fidatzailea ere. Kontua da 1797ko alkateak, hau da, Laskurainen koinatuak —Andres Aretak— izendaturiko hiru hautesleen artean Felix Mugertza zegoela, hau ere «Pariente proximo de Lascurain». Zirudienez, Mugertzak Laskurainen izena sartu zuen alkategaien artean, baina akatsa ez zegoen hor, beste hautesle batek Mugertza bera errejidoretzat proposatu zuenean «… se dibulgó que este se havia delatado diciendo que no podia ser Rexidor por estar metido en la fianza de una deuda a favor de la Villa, y que entonces le recombinieron, que sino podia ser Rexidor, tampoco podia ser elector de Alcalde y lo protextaron y se hizo nueba eleccion de electores y de Alcalde, y asi quedo ahogado Lascurain»[342].

Olaberen testigantza, berriro ere, iturri aberatsa bihurtzen da, udal-karguen hautaketa zer-nolako baldintzen menpe egiten zen ulertzeko. Hurrengo urteko udal-karguak proposatu behar zituzten hautesleak izendatzea irteten zen alkatearen eskuduntza izateak, ustelkeriari bidea zabaltzeaz gain, garai hartan boterearen inguruan nagusitzen zen ikuspegi endogamikoaren adibidetzat har dezakegu. Testuinguru horretan, urte batean alkatetza eskuratzeak hurrengo urteetan ere boterean mantentzeko aukerak zabaltzen zituen, betiere norberaren leinu edo taldeko hautesleak proposatuz. Konturatzen bagara, aurreko urteko alkatea Sebastian Zumaran izan zen[343], laskuraindarren aspaldiko aliatua, haren ondoren Andres Areta

341. BUA, C-127, 94.

342. BUA, C-127, 94.

343. Zumaranen hautaketa aho biziz egin zen: «… todos los concurrentes un animes y conformes, conceferaremente (sic) a voz y voto eligieron y nombraron por primer Alcalde a D. Sebastian de Zumaran» EiUA, A,2,5, “Libro de elecciones de oficios 1660-1805”.

—Laskurainen koinatua— eta 1798rako Laskurain beraren txanda heldu zen, eta lortu ere lortuko zuen, Mugertzak ez balu bere burua salatu izan errematatzaile baten fidatzailea zela azalduz. Mugertza errejidoretzat izendatu zuen hauteslearen papera erabakigarria izan zen zentzu horretan.

Foru-legediaren arabera elizgizonak udal-gobernuko erabakietatik baztertuta egoteko, Olabek asko zekiela aitortu behar da. Laskurain gaztearen salaketak ikuspegi hori ere barne hartzen zuen, apaizek udaleko kontuetan nahastea espresuki debekatuta zeukatela argudiatuz. Baina Olabek, egia esan, ez zuen hautaketan parte hartu, eta bai, ordea, udalean harturiko erabakiari buruz bere iritzia eman. Bere abokatuak zioenez «… el hacer conversazion de lo que pasa en los Ayuntamientos, y decir cada uno su parecer, no es mezclarse en los negozios de la republica sino ejercitar el entendimiento, y no incurrir en la amenaza de la Sagrada Escritura a los que a lo malo le llaman bueno, y a lo bueno malo. Mezclarse en los negozios es tomar parte en ellos, dirigirlos, governarlos y contribuir a su exito con el Consejo, o con el dinero. Pregunto yo aora a Lascurain; qué intervenzion tubo mi pte. en que le hiciesen o no le hiciesen Alcalde? o que influxo tubo en la 2ª eleccion?»[344]. Horrez gain, arlo publikoaren eta pribatuaren artean bereizi beharra azpimarratzen zuen, Olaberen adierazpenen benetako eragina neurtu ahal izateko[345].

Juan Andres Laskurainen bigarren ezkontza

Olaberen idazkiak argitzen digunez, Juan Andres Laskurainen emaztea Konbentzio Gerran zehar hil zen, Getarian, hain zuzen. Laskurain berriz ezkontzeko asmotan itzuli zen Eibarrera, eta laster aurkitu zuen emaztegaia: Bibiana Ibarzabal, Francisco Antonio Kortesenaren alarguna, eta urteak beranduago, Eibarko liberalen artean ospetsu bihurtuko zen Julian Antonio Kortesenaren ama. Kontua da Felix Olabe zela Juan Andres eta Bibiana ezkondu aurretik gauzatu beharreko "*monicionès*" egiteko arduraduna, eta horrek, Laskurainen aurreko emaztearen heriotzaren ziurtasunik ez zegoela argudiatuz, etengabe atzeratzen zuela tramitea, alargunen ezkontzaren kalterako. Izan ere, Felix Olabek, Eibar erre eta egun gutxitara —irailaren 11n—, Real Sitio de San Ildefonsora alde egin zuen, bere esanetan «… a solicitar algun auxilio dela Piedad del Rey para sus desgraciados feligreses y viendo que hiva para largo pidio testimoniales»[346], eta 1796ko ekainera arte ez zen

344. BUA, C-127, 94.

345. «Ni es delito el que mi pte. (poderdante) en la Plaza, en el Portico, o en la Cozina refiera a los que lo oyen, no imbentando, ni suplantando, que Lascurain en 27 de Agosto estubo con el Exercito frances, con Romero, Aldaz, y Aldamar contra Ondarrua, y lo demas que llebo expuesto. Ni hay que arguirle con que en otro tiempo dijo mi pte. en el Pulpito que nada sabia contra la casa de Lascurain (…) Una cosa es hablar en publico, y otra en conversazion pribada. En publico no quiso D. Felix manifestar los delitos de Lascurain, tomando ejemplo lo que Christo hizo con el traidor (…) En el Pulpito con gran Caridad para con la familia Lascurain. En el Portico con gran Caridad a favor del Pueblo por que hay ciertas cosas que no se deben olvidar…», BUA, C-127, 94.

346. BUA, C-127, 94.

bueltatu. Laskurainen lehen emaztea —mutrikuarra— tarte horretan hil zen Getarian, baina Olaberen utzikeriaren ondorioz alargunen arteko ezkontza etengabe luzatzen zihoan[347]. Olaberen jokabideak zeresan ugari sortuko zuen Eibarren, egun batean eskribaua bera —Felix Aranburu— garrasika hurbildu baitzitzaion meza ematen hasi baino pixka bat lehenago[348]. Errieta horren ondorioz, Mutrikura hurbildu eta, bere susmoak okerrak zirela egiaztatu ondoren, monizioak egin zituen.

Laskurainek zioenez, Felix Olabek haien arteko ezkontza atzeratu nahi izanaren arrazoi nagusia beste leku batean bilatu behar zen. Izan ere, Bibianaren ahizpa —Agustina Ibarzabal— Fernando Olaberekin zegoen ezkonduta, Felixen anaiarekin, alegia. Maria Francisca Izagirre Bilbon hil zen, 1794ko abenduan —88 urtekin!—, eta herentzia bere seme-alaben artean banatu behar zen: Bibianak 42 urte zituen garai hartan, Agustinak 39 eta Juan Estebanek —nebak— 34[349]. Eta itxura denez, Felixek Madrileko egonaldian eragindako gastu ugariak, ibarzabaldarren herentziaren kontura ordaindu nahi zituen, bere abokatuak gastu horiek ukatzen bazituen ere: «Que d. Felix hubiese consumido en la corte mas de 4.000 pesos contra la casa de la muger de Lascurain es tan falso (…) La Suegra de Lascurain aunque Heredera del Conde de Santa Ana de Izaguirre se veia en mucha necesidad

347. Gainerako apaizek ez zuten Olabe ondo ikusten, San Ildefontsotik ez zela bueltatzen ikusirik soldata kendu baitzioten. Zioenez, «…sin embargo de haver estado con (¿…?) hasta 1º de Septiembre del año de 95 le pribaron sus compañeros de todos lo frutos correspondienttes a su Beneficio y curato, aun el dicho año de 95». Eibarrera itzuli zenean, meza ematen hasi bai, baina laster utzi zion «… por haber tenido novedad en su salud agravandosele sus indisposiciones que con facilidad le causaban vomitos de sangre con retencion de orina (…) y todos le tienen aconsejado que se abstenga de todo lo que pueda acalorarle la caveza y el cuerpo (…) y le ordenaron que no tomase sino caldo y algunos vegetales cozidos y le pribaron el vino y aun el agua natural». Hala ere, bere gaisotasuna ez zen oztopo bihurtu Laskurainen jokabideari buruz informazioa jasotzeko Deba, Mutriku eta Ondarroara hurbiltzeko orduan: «… mi Pte. ha salido de Eybar a los Pueblos Maritimos de Guipuzcoa y Vizcaya, para examinar la conducta de Lascurain. Si esto fuera cierto no es delito por que un cura Parroco, de todos modos y a toda Costa debe inquirir la vida de sus feligreses». BUA, C-127, 94.

348. «… en la tarde del primer viernes de Quaresma de este año allandose D. Felix con otras personas en los asientos de la Puerta de la Iglesia, al tiempo que se lebanto para entrar en ella al Miserere, se le arrimo el Escribano Felix de Aramburu haciendoles requerimiento en vozes altas y descompuestas para que leyese las moniciones (…) al dia inmediato, hallandose mi pte. en la Sacristia a tiempo que hiba a salir para el Pulpito a leer otras Proclamas, se le presento otra vez dicho Escribano haciendole igual requerimiento llego a rezelar alguna cosa en orden a la certeza de la defunzion de dicha mujer de Lascurain; y asi para averiguar lo que hubiese en este particular paso a Motrico (…) cuyos certificados no se le entregaron a mi Pte. hasta el dia 5 de dicho mes de Marzo como lo asento y formó a continuacion de cada uno de ellos. Y en 23 de febrero se le hizo a mi Pte. aquel extrepitoso requerimiento», BUA, C-127, 94.

349. 88 urterekin hiltzea baino askoz harrigarriagoa iruditzen zait bere hiru seme-alabak 46 urtetik 54ra bitartean eduki izanak. Euskal herri ozeanikoan ezkontzeko eta umeak ekartzeko adina beste leku batzuetan baino altuagoa izaten zela aspaldi frogatu zuen Jose Urrutikoetxeak, baina Maria Francisca Izagirreren kasuak, Urrutikoetxearen aurreikuspen guztiak apurtzen dituela esango nuke (Urrutikoetxea, 1992: 219-225).

con tres hijos…»[350]. Beharbada jokoan zeudenak ziren Bibianaren amak Kortesenaren amari utzitako 30.000 errealak, baina kontu hori azaltzeko urte batzuk egin behar ditugu atzerantz.

Kortesenatarrak, jatorriz mungiarrak[351], Bilbon bizi ziren 1780ko hamarkadan, eta Bibiana bertara ezkondu zen. Julian 1781ean jaio zen, eta hurrengo urtean Bibianaren amak —Maria Francisca Izagirrek[352]— 30.000 erreal mailegatu zizkion Kortesenaren amari —Maria Ereñori—. Senideen arteko mailegu bat izan arren, % 3ko korritua adostu zuten. 1787. urtean Maria Ereñoren merkataritza-enpresak porrot egin zuenez, bere ondasunen banaketan Maria Francisca Izagirrek bere zorra eskuratzeko lehentasuna aldarrikatu zuen[353]. Ordurako, Bibianaren senarra Ameriketan bizi zela esango nuke. Maria Ereñok Izagirrerekin zuen zorra onartu arren, ordaindu behar zion dirutik gastu batzuk deskontatu behar zirela azaldu zuen. Besteak beste, Izagirreri eta bere semeari Bilbon —Ereñoren etxean— egindako egonaldietan emandako ostatua, janaria, jantziak «… y demas, que se la ha ofrezido, de manera que aun quando aquella canttidad la sea legitimamente debida, debera tambien ella abonar el importte y monttamientto de su manuttencion y demas gasttos. Y asi mismo la de su hijo, o hijos, que en la propia forma se ha manttenido en la misma casa por años, o temporadas»[354].

Eibarren, Juan Antonio Larrañaga 2. alkateak gidatu zuen galdeketan Mª. Fca. Izagirrek onartzen zuenez bi urtetan egon zen Ereñoren etxean, urtarriletik ekainera, eta hirugarren aldiz bi urte oso-osorik, zeintzuk urte izan ziren zehaztu gabe[355]. Bere semea ere zenbait alditan egona zen, unibertsitate-ikasketak zirela-

350. BUA, C-127, 94. Olaberen abokatuak beste hau ere aipatzen zuen: «Que d. Felix haya contribuido a que la muger de Lascurain diese dinero alguno a su hermano d. Ignacio es falso, como todo lo demas, y era mui superflua esta mediacion, supuesto que la tal muger de Lascurain, corria con dicho d. Ignacio con mas intimidad que el d. Felix, pues ella entraba, y salia en su casa con toda franqueza, ella recogia a su casa los diezmos y hasta el Pan de la Iglesia».

351. BFA, Judicial Madariaga (JM), 0472/010, "Julian de Cortesena, información sobre nobleza y oriundez", 1814-10-03.

352. Txosten batzuetan Eizagirre abizenarekin agertzen da (vide BFA, JM, 0936/003, 1787-5-5), baina bere benetako abizena Izagirre zen. Olabek zehazten zuenez «heredera del Conde de Santa Ana de Izaguirre», BUA, C-127, 94.

353. «… mediante haber dado punto a sus negocios dicha Dª. Maria de Ereño, y de seguirse causa de concurso y quiebra a sus bienes me opongo a ella. Suplicando a Vmds. se sirvan mandar que de lo mejor, y mas vien parado de los vienes del concurso y con antelazion a otro pretenso acredor como credicto privilegiado se haga pago a mi parte», BFA, JM, 0936/003, 1787-5-5.

354. BFA, JM, 0936/003, 1787-8-14.

355. Jantziei zegokionez, «… la hicieron dos basquiñas, la una de caro de oro negra y la ottra de Estameña (…) dos mantillas, un capotillo de paño (…) y cinco varas de cotonia blanca para dos ajustadores», BFA, JM, 0936/003, 1788-11-18.

eta, baina guztira ere, urtebete baino gutxiago[356]. Baina horren truke ordaindutakoa ere ez zen hutsalkeria bat. Bide batez, Izagirreren testigantzak Santa Anako kondearen ondorengoek zeuzkaten inbertsio eta errenta-iturrien aniztasunaren berri ematen digu[357]. Ez zekienez ez irakurtzen ez idazten, «… no puede asegurar si en su casa y poder, se hallan, o no algunas razones, o papeles concernienttes a los partticulares referidos». Bizkaiko Jaurerriko sindikoak auzia alderdi ezberdinetan banatzeko harturiko erabakiak auzia luzatu zuen. Hurrengo dilijentziak 1796koak dira, Laskurain Eibarrera itzuli zen sasoikoak, gutxi gorabehera. Mª. Fca. Izagirre bi urte lehenago hil zen, eta Bibiana Ibarzabalek azken ahalegina egin zuen amak amaginarrebari utzitako dirua berreskuratzeko, bere ahizparen eta Panamara alde eginda zegoen Juan Estebanen izenean, auziarekin aurrera egiten saiatuz. Baina Ereñoren abokatuak ez zuen haren eskakizuna onartu, eta Perura idatzi beharrean aurkitu zen bere nebaren iritzia jakiteko. Ez dakigu auzia zertan bukatu zen, baina txosten horretatik ondoriozta dezakegunez Laskurainen eta Olaberen artean sorturiko lehian, motibazio ekonomikoak ez ziren txikienak izan, Izagirre familiaren herentzia tarteko.

1798ko otsailaren 11ko bozketa

Itzuli gaitezen harira. Laskurainek, Olabe salatzeaz gain, korrejidorearengana jo zuen, auzokideen batzarrak indargabeturiko hautaketa onartu, eta alkate kargua eskuratzeko. Korrejidoreak, Domingo Iturri Pelayoren bidez —Elgetako eskribaua— bidali zuen bere ebazpena Eibarko udaletxera «… por el qual se manda que a dho. Lascurain se le ponga en posesion de la Alcaldia (…) y si causas tuviere esta Noble villa para lo contrario, las deduzca en el tribunal de dicho Señor Corregidor, dentro de seis dias». Ordurako, sindikoak bi lizentziaturen aholkua eskatuta zuen, eta haiek udalari ematen ziotenez arrazoia Laskurainen bazterketarekin jarraitzea erabaki zuten, «… combencida del vicio de nulidad con que se procedio a la primera, se declare aquella por buena, y firme y valedera, mediante que los defectos palpables de dicha primera e irregular eleccion obligaron a hazer la segunda,

356. Juan Esteban Ibarzabalen ibilbide unibertsitarioari buruz, Iruñean egon zen bi urtetan gramatika ikasten, beste bi Plagaron, eta urtebete Zaragozan filosofia ikasten, eta denbora horretan «… corrieron con las asistencias y pagas de mesadas del susodicho, como tambien de los vestidos que en aquellos tiempos hubo menester, a ecepcion de la ropa blanca y calcettas con la qual le surtio su hermana dª. Agustina de Ibarzabal, muger lexitima de d. Fernando de Olave», BFA, JM, 0936/003, 1788-11-18.

357. «… contribuyo la que declara por una partte con once vales reales de trescienttos pesos cada uno, percividos como partte de herencia de su hermano el conde de Santta Ana en el año de mil setecienttos ochentta y uno; por ottra, con diez doblones de a ocho segun hace memoria, percividos por otra razon en la villa de Lequeitio de la viuda de d. Ramón de Ochandattegui; por ottra con dos mil, o mas reales que segun tienen enttendido cobraron dicha viuda de Cortesena y su hijo por la que declara; y por ottra las renttas que la caseria de Elexpuru aplicada a la declarante, han percivido igualmente dichos Madre e hijo, por tiempo de siette años cumplidos», BFA, JM, 0936/003, 1788-11-18.

que esta fue sin vicio de nulidad aprovada por todos los concurrentes sin reclamacion ninguna». Gabriel Gisasola sindikoak hartu zuen Laskurainek egindako salaketari aurre egitearen ardura. Erabaki horren aurka hamaika auzokidek protestatu zuten, «… que dixeron no entraban en este Poder»[358]. Harrigarria bada ere, horien artean ez zeuden, ez Andres Areta —Laskurainen koinatua—, ez Sebastian Zumaran.

1798-2-11ko bozketa

NORTASUNA	Lasku. 1798-2	NORTASUNA	Lasku. 1798-2
ARAMBURU Felix	Bai	BUSTINDUI Francisco Antonio	Ez
AZPIRI AGUINAGA Miguel	Bai	ECENARRO Pedro Antonio	Ez
GANCHEGUI Pedro Antonio	Bai	ECHEVARRIA Francisco	Ez
GUISASOLA BARRUTIA Martín	Bai	ECHEVERRIA Josef	Ez
GUISASOLA Joseph Joaquín	Bai	ERBITI Sebastián	Ez
GUISASOLA ORBEA Miguel	Bai	GUISASOLA ESCAREGUI Martín	Ez
IBARRA Martín Antonio	Bai	GUISASOLA Gabriel	Ez
IBARRA Miguel Antonio	Bai	GUISASOLA OREGUI Domingo	Ez
LARRAÑAGA Josef	Bai	IBARZAVAL Ignacio María	Ez
LECETA Joseph Francisco	Bai	IRIONDO Francisco "el de Arrate".	Ez
MUGUERZA Felix	Bai	LARRAÑAGA Juan Antonio	Ez
ACHA ALBIZURI Domingo	Ez	LECETA Juan	Ez
ACHA ALBIZURI Juan Bautista	Ez	LOYOLA Agustin	Ez
ACHA Fernando	Ez	MANDIOLA Domingo	Ez
AGUIRRE ARGUIANO Martín	Ez	MARTINEZ Manuel Joseph	Ez
AGUIRRE Juan Bauptista	Ez	ORBEALZUA Sebastián	Ez
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente	Ez	ORVEA URQUIZU Joseph Maria	Ez
ARETA MANDIOLA Andrés	Ez	PAGAEGUI Christobal	Ez
ARETIO Juan Bauptista	Ez	SUINAGA ITURRAO Diego	Ez
ARRAZAIN Francisco Antonio	Ez	SUINAGA Joseph	Ez
ARTAECHEVERRIA Francisco	Ez	SUSTAETA Juan Antonio	Ez
AZPIRI AZALDEGUI Domingo	Ez	UBERUAGA Andrés	Ez
BASCARAN Agustín	Ez	UNCETA BARRENECHEA Rafael	Ez
BASCARAN Emeterio	Ez	UNZETA Pedro	Ez
BERGARA Joseph "el de Zelaia"	Ez	ZUMARAN Sebastian	Ez

Bai: Laskurainen onartzearen alde; Ez: Laskurainen onartzearen aurka.

Valladolideko Chancilleriaren aginduaren atzerapena

Pare bat urtera Valladolideko Chancilleriaren agindua heldu zen, eta sei eguneko epea ematen zion udalari Laskurainen txostena bidaltzeko, «… y se le pagen a Lascurain las costas de dicha Provision». Auziarekin jarraitzeak ondorio kaltegarriak eta garestiak ekarriko zituela ikusirik, Laskurain batzarrera deitu eta «… acordaron juntamente con este en comprometer y comprometieron sus diferencias en el Lizdo. Issasi»[359]; hau da, Laskurainekin akordio batera ailegatu ziren. Hiru hilabete

358. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1798-2-11.
359. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1800-8-21.

geroago Claudio Gomez de la Vega, Eibarrek Valladoliden zeukan negozioen agenteak, udalaren botere-agiria eskatu zuen, Juan Andres Lascurainekin adostutako «escriptura de compromiso» aurrera eramateko. Bere idatzia, irakurri egin zen, baina ez zen erabaki eskatzen zuen boterea ematerik ala ez.

Behin betiko ebazpena sei urte geroago heldu zen. Francisco Xabier Isasi lizentziatuak zioenez, Laskurainen izendatzea bidezkoa izan zenez, «… teniendo presentes sus recomendables prendas, asi de Noble distinguido Nazimiento como de arreglada conducta en sus costumbres; devio ponersele sin dilacion en su posesion, segun lo prescripto en la Real Orden de su particular; y por no haverse hecho asi, y pasadose a hacer segunda eleccion con precipitazion, sin Audiencia, ni citacion del mismo D. Juan Andres, se le causo notorio agrabio; y para desagraviarle en lo posible corresponde (…) para su desagravio, se manda que una copia testimoniada de esta Determinacion se ponga en el Libro de Elecciones de la misma N. villa de Eybar; afin de que conste siempre, en el su contexto y se tenga presente en la eleccion de oficios Honorificos del año primero, y de los venideros siguientes, para que los Electores propongan a dicho Juan Andres de Lascurain para el empleo de Alcalde Juez ordinario, y de mas honorificos de dicha villa, a que es acreedor por sus prendas, y distinguido Nazimiento»[360].

Bitxia suertatzen da 1806ko ebazpen hau 1660-1805 bitarteko hautaketak biltzen zituen akta-liburuan idatzi izana. 40 urte lehenago Jusué herri-diputatuaren kasuan bezala, lehenbiziko garrantzia hartu zuen korrejidoreak edota Valladolideko Chancilleriak harturiko erabakia udaleko akta-liburuan ere jasotzea —"*a fin de que conste siempre*", zioen idatziak—. Beroni esker dakigu, beste inork ez baitu orain arte argitu, Laskurain ez zutela bigarren hautaketara deitu, hau da, auzokideen batzarra isilka-misilka bildu zela[361]. Harrigarriena beharbada, Laskuraini eragindako kaltea konpentsatzeko modua izan zen, 1807. urterako alkate proposatu behar zutela baitzioen Valladolideko Chancilleriak. Baina ikusi denez 1807an Jose Antonio Campos izendatu zuten alkate, eta Madrilen bizi zenez, Pedro Francisco Olabe aritu zen bere ordez. Camposen hautaketa nola burutu zen ez da inon argitzen, baina nire ustez aho biziz —"*por aclamación*"— izendatu zuten, Laskurainen izendatzea oztopatzeko era bakarra baitzen. Auzokideen batzarrak, beraz, bereari eutsi zion, korrejidorearen eta Chancilleriaren gainetik, Laskurainen bazterketa mantenduz. Urrian Napoleonen gudarosteak penintsulan sartuko zirela jakin izanda, poztu eta dena egingo zen beharbada. Ordurako, Laskurainek Eibarko handikiekin zuen

360. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios*, (1660-1805), 1806-6-14.

361. Arestian aipaturiko idatzian azaltzen denez, auziaren txostenak 347 orrialde zituen, baina inon ez dut aurkitu bere aztarnarik. Noizbait agertzen bada, ziur nago oso baliagarria izango dela Laskurain familiak jokatu zuen paperaren inguruan sortu zaizkidan zalantza eta galderei erantzuteko.

harreman ona gaiztotzen hasia zegoen, Santa Kruzeko markesak Laskurainen ordez Esteban Arrazola gasteiztarra izendatu baitzuen bere jabetzen administrari[362].

KONKLUSIOAK

Konbentzio Gerrak eduki zituen ondorioen artean hiru aipatuko genituzke nagusiki: herri-lurren desamortizazio-prozesuaren hasiera, armaginen exodoa eta "*asentista*" karguaren desagerpena.

Desamortizazio-prozesuaren inguruan, burutu ziren salmentei buruz datu zehatzik ez dugun arren, 1797an udalak zituen diru-sarreretatik propioei zegokiena % 12koa izatea adierazgarria da, saldutako lurren kopurua benetan esanguratsua izan zela ondorioztatzeko orduan. Propioen sarreren gutxitzea, kontsumo-gaiei ezarritako zergarekin bete behar izan zen, eta zentzu horretan klase ezinduenak izan ziren pairatzaileak.

Armaginen exodoak, bere aldetik, efektu bikoitza eduki zuen herri-ekonomian. Alde batetik, arma-ekoizpena mugatu zuen, kualifikatutako langileen gutxitzeaz gain, kasurik gehienetan armaginek euren tresneria guztiarekin alde egin zutelako. Bestetik, armagin horiek euren esperientzia eraman zuten gobernuak bultzatuta Asturias aldean sortzen ari ziren armagintza-guneetara. Era horretara, armagin horietarik gehienak herrira itzuli baziren ere, bertan sortutako fabrikek martxan jarraitu zutenez, ordutik aurrera Deba bailarako armagintzak Konbentzio Gerraren aurretik ez zuen konpententziari aurre egin behar izan zion, erregearen eskariak eskuratzeko orduan.

"*Asentista*"ri dagokionez, kargua desagertu zen, baina ez betetzen zuen eginkizunaren premia. Asentisten eginkizun nagusia, gogoratuko dugunez, erregeak arma-eskari bat egiten zuenean, armaginen gremioekin hitz egin eta preziorik hoberena eskaintzea izaten zen, betiere, SEAFeko errege-aztertzaileak ezarritako kalitate-frogak gainditzen bazituen. Asentistek, beraz, elkarren artean lehiatzen zuten erregearen eta armaginen arteko koordinazio-lan horretan. Sistema horren akatsak zirela-eta, 1734an Espainiako Erregeak Caracaseko Konpainiaren esku utzi zuen

362. Arrazolak Isasiko palaziotik irtetea eskatu zion Laskuraini: «… haviendo resuelto mi parte pasar a vivir, como tal administrador, a la villa de Eibar, y Palacio titulado Isasi propio de SE, por convenir asi al servicio de dicha administracion, le intimó el desocupo del citado Palacio repetidas vezes, y ahora tres meses poco mas o menos a D. Juan Andres de Lascurain, habitante en él, en calidad de administrador subalterno», eta giltzak emateko eskatu zion. Baina Laskurainek ez zuen zirkinik egin hiru hilabeteetan. GAO, Korrejimendua, Elorza, Zibilak, 4984, 1804-9-6. Are gehiago, bere abokatuak —Juan Jose Jauregik— administraria aldatzea ezinezkoa zela azaldu zuen, «… sin causas legitimas, probandolas con citacion y audiencia formal; pues el hacerlo de otro modo siempre se ha refrenado como un violento despojo injurioso». Gainera kexatu egin zen, zeren Arrazola «ha tenido el valor de requerir por su propria (sic) authoridad a diferentes colonos y arrendatarios de la administracion de Lascurain», GAO, Korrejimendua, Elorza, Zibilak, 4984, 1804-10-10.

bitartekaritzaren ardura. Caracaseko Konpainiak "*asentista*" izena mantendu bazuen ere, berez, asentisten sistemak zeukan ezaugarri nagusia —euren arteko lehiakidetza— desagertu egiten zen, monarkiaren eta gremioen arteko bitartekaritza librearen ordez monopolioaren sistema ezarri zelako. Konbentzio Gerraren ostean egin zen urratsa, beraz, prozesu horren azken urratsa zen, Caracaseko Konpainiak eskuratutako monopolioa erregeak aukeratutako partikularren esku jarriz. Onuradunak bat baino gehiago izan baziren ere, aldaketa horiei etekin handiena atera ziona Ignacio María Ibarzabal izan zen.

Konbentzioaren inbasioaren testuinguruan, herriaren defentsan gehien gailendu zirenetariko bat Ibarzabal izan zen. Laskurainen neskameari egindako segadaren antolatzaileetariko bat izateaz gain, Eibar erre ostean burutu zen lehen bileran parte hartu zuten 18 auzokideek Mendizabal alkatearekin batera Ibarzabal izendatu zuten espainiar erregeari leial mantendu ziren herriek Arrasaten burutu zituzten Batzar Orokorretarako. Sasoi berean, armaginen gremioek hautatu zuten, Soraluzeko Errege Arma Fabrikaren birmoldaketa espainiar erregearekin batzartzeko. Ziur asko, curriculum horrek erregearen begirunea irabazten lagundu zion, eta jada ez zuen galduko, 1803an zalditeriaren horniketen monopolioa eskuratu eta 1804an Artilleria Museoaren sorkutzan parte hartu izanak frogatzen digun bezalaxe.

Ibarzabalen gora egitea gainera, auzokideen batzarra ahultzen ari zen momentu berean gertatu zen. Ikusi denez, 1786ko zerrendaren arabera, udalerriko auzokide kopurua 318koa zen, baina praktikan batzarretan parte hartzen zutenak askoz gutxiago ziren: 1760an egindako bozketan 94 auzokide aurkitzen ditugu; jendetsuenak, 1766ko matxinadaren testuinguruan egin ziren, maiatzaren 4 eta 10eko bileratara hurbildu ziren 213 biztanleetatik 1786ko zerrendan soilik 96 aurkitzen ditugun arren; Eibar erre osteko bigarren bileran 88 auzokide elkartu ziren… Eta kopuruak behera egingo du hurrengo urteetan: hala, 1798an Laskurainen baztertzen jarraitu ala ez erabakitzeko bozketan 50 lagun bildu ziren. Beraz, Konbentzio Gerrak herriaren suntsipen fisikoaz gain, aldaketak ekarri zituen udalean, ordura arte boterea eskuratu zuten familia batzuen ahultzeak Ibarzabal eta beste batzuen gorakada ahalbidetu zuelako.

Konbentzio Gerraren galtzaile nagusiak laskuraindarrak izan ziren. Aita hiltzeaz gain, auzokideen batzarrak, egoskor, semea baztertu zuen, Valladolideko Chancilleriaren epaiak errugabe deklaratzen bazuen ere. Bere ibilbidea ezagututa harrigarria egiten da Laskurainek ez zuela inolako zigorrik jaso ikustea. Ziur asko Basileako Bakean adostutakoa zen konbentzionalen kolaboratzaileak ez zigortzea, baina argi gelditu denez, Eibarko auzokiderik gehienak, ordea, ez zeuden horretarako prest. Justiziaren aginduek estutzen zituztenean baiezkoa eman arren, barrubarruan setatsu mantentzen ziren eta trikimailu ezberdinak erabiliz erabakia atzeratzea lortu zuten. Frantziarrekin kolaboratzeagatik atxilotu zuten Andres Aretarekin —Laskurainen koinatuarekin— ordea, bihotz-zabalago agertu ziren, eta alkate

izendatu zuten 1797an! Aretak gainera Laskurainen bazterketa mantentzearen alde bozkatu zuen hurrengo urtean.

Laskurainen aurkakoen alderdian Ibarzabalek gora egin bazuen ere, ezin dugu berdina esan Juan Bautista Mendizabali buruz. Laskurain zaharraren hileta-elizkizunetako sokamuturraren arduradun nagusiak, 1795eko alkatetzaren ostean ez zuen gehiago udaleko kargurik bete, eta ez hilda zegoelako, 1808an auzokideen batzarrean aurkitzen dugu-eta. Beste Mendizabal batek ere —Juan Andrések— 1794an esan zion agur udalkide izateari, 1783-1794 bitartean sei urtetan zehar herri-diputatuaren kargua bete ostean. Xehetasun hauek panorama nahasi bat irudikatzen dute Konbentzio Gerraren ostean.

1. ERANSKINA

1796-1802 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1796	1796	1797	1798	1799	1800	1801	1802	1802=>
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente	Bai	SPG					A1		Bai
ARGUIANO AZPIRI Gregorio		HS							
BASCARAN Agustín	Bai	HD	HD			ER			Bai
GABIOLA Francisco	Bai	HD							Bai
BUSTINDUI Francisco Antonio	Bai	ER							
GUISASOLA BARRUTIA Martín		ER							Bai
ZUMARAN Sebastian	Bai	A1							
BASCARAN Emeterio			SPG						
ITURRIOZ Agustín	Bai		HS					HD	Bai
ALBERDI Francisco Ignacio			HD	HD					Bai
OLAVE Fernando	Bai		ER						Bai
LOYOLA Agustin			ER						Bai
ARETA MANDIOLA Andrés			A1						Bai
GUISASOLA Gabriel	Bai			SPG					
LARRAÑAGA Juan Antonio	Bai			HS					
MARTINEZ Manuel Joseph				HD	HD				Bai
ECHEVARRIA Francisco	Bai			ER				ER	
BERGARA Joseph "el de Zelaia"				ER					
ERBITI Sebastián	Bai			A1				ER	
BUSTINDUI Pedro Joseph					SPG				Bai
BASCARAN Isidro					HS		ER		Bai
ALBERDI Agustín					HD	HD			
LECETA Juan	Bai				ER				
ORVEA URQUIZU Joseph Maria	Bai				ER				Bai
IBARZAVAL Ignacio María	Bai				A1				Bai
BASCARAN Juan Bautista						SPG			Bai
ORVEA Pedro						HS			
ARTAECHEVERRIA Francisco	Bai					HD	HD		Bai
AGUIRRE ARGUIANO Gregorio						ER			
MANDIOLA Andrés						A1			Bai
SUSTAETA Juan Antonio							SPG		
ARGUIANO Pedro Joseph							HS		Bai
LECETA Pedro Francisco							ER		
OLAVE Pedro Joseph								SPG	
ALBERDI Pedro Antonio								HS	Bai
ABANZABALEGUI Francisco Ignacio								A2	
AZCUE Francisco Antonio									

2. ERANSKINA

1803-1807 agintaldietako udalkideen nortasunak

NORTASUNA	<=1803	1803	1804	1805	1806	1807	1807=>
ARETA MANDIOLA Andrés	Bai	SPG					
LIBORNA Manuel Joaquín		HS					
URQUIOLA Francisco		HD	HD				Bai
MANDIOLA Domingo	Bai	ER					
ORVEA URQUIZU Joseph Maria	Bai	ER					
GUISASOLA Joseph Joaquín	Bai	A1					
ARAMBURU Marcos			SPG				
BENGOA Joaquín			HS			HS	
ZELAA Mateo			HD	HD			
ARGUIANO Pedro Joseph	Bai		HD				
AGUIRRE AZALDEGUI Juan Andrés	Bai		ER				
ARTAECHEVERRIA Francisco	Bai		ER				
BUSTINDUI Pedro Joseph	Bai		A2				Bai
BASCARAN Agustín	Bai			SPG			
BASCARAN Isidro	Bai			HS			
ALBERDI Pedro Andrés				HD	HD		
GANCHEGUI Pedro Antonio				ER			
GUISASOLA Juan Antonio				ER			Bai
ARGUIANO Sebastian				A2	A1		
MENDIOLA Manuel Silvestre				A1			
AGUIRRE Pedro José					SPG		Bai
ZULUAGA Ramón					HS		
IRUSTA Gaspar	Bai				HD	HD	
OLAVE Fernando	Bai				ER		Bai
LOYOLA Agustin	Bai				ER		Bai
LARRAÑAGA José Joaquín						SPG	Bai
AGUIRRE GOROSTEGUI Felix						HD	Bai
GABIOLA Francisco	Bai					ER	
AGUIRRE Juan Bauptista						ER	Bai
OLAVE Pedro Francisco						A1	Bai

5. kapitulua
Bonapartetiarren inbasioa eta gerraostea (1808-1820)

SAN ILDEFONTSOKO TRATATUTIK (1796) MAIATZAREN 2KO ALTXAMENDURA (1808)

San Ildefontsoko tratatuaren bidez, espainiar monarkia frantziar errepublikaren aliatua bihurtu zen, XVIII. mendean zehar bi estatuek izan zuten harreman ona berreskuratuz. 1800. urtean Ingalaterrak gerra deklaratu zion Frantziari, frantziarrak berriro Louisianan sartu zirelako. Baina 1805ean ingelesek, frantziar eta espainiarren armada bateratua ondoratu zuten Trafalgarren, eta horren ondorioz Napoleonek Ingalaterra itsasoz erasotzeko asmoa alboratu egin behar izan zuen. Europako ekialdea menperatu ondoren (Austerlitzeko garaipena, Tilsiteko tratatua Errusiako tsarrarekin), Ingalaterraren aurkako blokeo kontinentala jarri zuen martxan, itsasontzi ingelesei Europa guztiko portuak zarratuz. Estatu bakar bat azaldu zen enperadore ahalguztidunaren aginduen aurka: Portugal. Bertatik bideratzen zituzten ingelesek uharterako behar zituzten gaiak, ardoa eta artilea, gehienbat. Blokeoa osatzeko, Portugal inbaditzea erabaki zuen korsikar ospetsuak, eta espainiarren laguntzaren truke, eskuratutako lurraldea bien artean banatzea proposatu zion Karlos IV.ari. Fontainebleauko Ituna sinatu zen hil berean (1807ko urria) frantziar gudarosteak penintsulan sartu eta leku estrategikoak okupatzen hasi ziren.

Napoleonek espainiar errege-familiaren barneko tirabirak erabili zituen bere helburuak lortzeko, eta maisutasunez gainera. Karlos IV.ak ez zuenez sentitzen gobernu-kontuetarako grinarik, erresumaren gidaritza Godoyren eskuetan utzia zuen 1792tik, eta 16 urtetan zehar, "*valido*"ak bere erara gobernatu zuen, betiere frantziarrenganako adiskidetasun-politikan oinarrituta. Baina Godoyk eskuratutako botereak handi-mandi askoren inbidia eta haserrea sorrarazi zituen[363], eta etsai horiek Fernando printzearen inguruan bildu ziren. 1807ko urrian, Karlos IV.aren aurkako altxamendu bat izan zen La Granja del Escorial-en, baina porrot egin zuen. Konspirazio horren zirikatzaileetariko bat bere semea zela bazekien ere (Juretschke, 1986: 17, 18), Karlos IV.ak ez zuen Fernandoren aurkako neurri berezirik hartu. Hilabete batzuk geroago, Murat jeneralaren gudarosteak Madrileko

363. «La guerra de la Independencia no se puede entender, por lo menos en cuanto a sus orígenes, si no se tienen en cuenta las envidias, los odios y las venganzas que suscita Godoy en torno suyo (…) Godoy es el catalizador del descontento: una coalición contra él tendría grandes probabilidades de fortalecerse. En 1806 aún no está formada, en la primavera de 1808 ya está concluida. El papel de los franceses es aún accesorio» (Aymes, 1986: 11).

ateetan zeudelarik Aranjuezeko matxinada lehertu zen. Altxamendu hori batbatekoa izan zen ala, alderantziz, antolatuta zegoen oraindik argitu gabeko kontua da, baina bere helburua Godoyren dimisioa eta Karlos IV.aren abdikazioa lortzea zela argi dago, eta Fernando printzea Espainiako errege izendatzea. Aranjuezeko matxinadak Napoleonek penintsularako zituen planak aldarazi egin zituen, aitasemeak Baionara deitu eta amarru baten bidez Espainiako koroa bereganatzea lortu zuen[364]. Ondoren, bere anaia José izendatu zuen Espainiako errege.

Momentu horretatik aurrera espainiarrak zilegitasun osoz izendatutako dinastiaren menpe gelditu ziren. Izan ere, Fernando VII.ak Baionarantz abiatu aurretik erregeordetzari emandako agindu bakarra Murat jeneralak zioena betetzeko izan zen[365]. Ilustratuenek gainera —horien artean gobernuko kide asko—, begi onez ikusi zuten dinastiaren aldaketa, frantziar haizeak onuragarriak izango zirelakoan jada zaharkituta zegoen monarkia absolutua eraldatzeko orduan[366]. Horrez gain, Europa osoa bere atzamarretan zuen enperadorearen gudarosteei aurre egitea erokeriatzat jotzen zen[367]. Baina ilustrazioak ilustrazio, herri xeheak ez zituen batere gogoko soldadu frantziarrak, eta horiek Francisco de Paula infantea Baionarantz eramateko agindua betetzera zihoazela 1808ko maiatzaren 2ko altxamendu ospetsuak eztanda egin zuen Madrilen: kale-borrokari buruz ezagutzen dugun lehen aipamen historikoa[368]. Madrileko kaleetan hildako gehienak herritar xumeak izan

364. «Esta situación trastocó los planes del Emperador, que es ya virtualmente el dueño del país, de la Corte y de las personas reales. Sumisamente, Carlos IV y su hijo Fernando acuden a Bayona convocados por él y, al parecer, en unas bochornosas escenas, Fernando devuelve la corona a su padre y éste renuncia en favor de Napoleón, que la entrega a su hermano; España es, a partir de este momento, una parte más del imperio» (Del Moral, 1990: 13). Sánchez Manterok Baionan gertatutakoari buruz zehaztasun gehiago eskaintzen dizkigu: «… con una habilidosa jugada diplomática, consiguió que Carlos renunciase a todos sus derechos sobre el trono español y que después fuese Fernando quien abdicase en su padre. De esta forma el Emperador se quitaba de en medio a padre e hijo y disponía de los derechos a la corona española para designar como rey a quien mejor conveniese a sus intereses» (Sánchez Mantero, 1996: 16).

365. «… Fernando VII, el legítimo monarca, al despedirse de la Junta de Gobierno el 12 de Abril, camino de Burgos, ni había entregado despacho alguno ni había dado otra consigna que la de observar la más estricta armonía con el mariscal Murat, que mandaba las tropas de ocupación» (Del Moral, 1990: 24-25).

366. «Cuando José I llega a Madrid, el 9 de julio de 1808, es reconocido por el Consejo de Castilla, acatado por la Junta de Gobierno y aceptado por gran parte de los obispos y por los capitanes generales españoles; dado que la abdicación de Carlos IV en Bayona era válida, según el principio de legitimidad monarquico-absolutista, el Rey Jose era en ese momento el único monarca legítimo de España» (Del Moral, 1990: 37).

367. «… guerra insensata si pensamos que los españoles, en su ciega determinación, desprecian su evidente inferioridad militar» (Aymes, 1986: 18).

368. «… esa masa heterogénea de combatientes, en vez de actuar a ciegas, se fracciona hábilmente en grupos móviles de unos cincuenta hombres que acosan al enemigo. Esta aparición de la guerrilla urbana, ¿es espontánea o, por el contrario, es el fruto de un pensamiento teórico y de unos esfuerzos concertados de organización?» (Aymes, 1986: 17). Del Moralek gehitzen duenez: «También en el 2 de mayo se prefigura lo que va a ser la estrategia de la resistencia española. Las paradas

ziren, asko ezezagunak, beharbada bezperako azokara heldutako baserritar ugari. Baina zergatik gelditu ziren hiriburuan maiatzaren 2ko astelehen hartan? Konspirazio zabal baten hipotesia suposatzen du Aymesek.

Maiatzaren 2ko altxamenduaren ondorioz espainiar erresumak itzulerarik gabeko ibilbidea hasi zuen. Agintari eta handikiek Jose I.a losintxatzen zuten bitartean, herritar xeheak beren bizitza arriskun jartzeko prest agertzen ziren, frantziar soldaduen aurkako gorrotoak eraginda[369]. Gutxik pentsatuko zuten orduan, Napoleonen gudarosteak garaituak izan zitezkeenik (Bailen, 1808-7-19), eta are gutxiago sei urte geroago bonapartetiarrak penintsulatik kanporatzea lortuko zutenik.

IGNACIO MARIA IBARZABAL HIL ZEN URTEAN…

Armaginen nagusitasuna Eibarko Udalean

Aranjuezeko matxinadaren (1808-3-17) eta maiatzaren 2ko altxamenduaren aipamen txikienik ere ez dago akta-liburuan, baina hilaren amaierarako Karlos IV.aren abdikazioaren jakitun ziren Eibarko Udalean, Aranjuezen errege izendaturiko Fernando VII.arentzat opari legez, eskopeta bat eta bi pistolaz osatutako joko bat egiteko mandatua eman baitzion Ignacio Maria Ibarzabali Gipuzkoako Diputazioak. Ibarzabal urte bereko martxoan hil zen, beraz, udal-aktak islatu ez arren, asko jota hamalau egunetara Aranjuezen gertaturikoaren jakitun ziren Eibarren (martxoren 17tik 31ra doan epea)[370]. Ibarzabal gainera, Eibarko alkatea zen

militares y los heroicos combates en campo abierto se verán acompañados en España por la guerrilla urbana. Las mujeres se enfrentan con utensilios de cocina a los húsares y los chisperos clavan sus puñales en el vientre de los caballos. El hijo del general Legrand muere, al estrellarse contra su cabeza una maceta arrojada por una Manola» (Del Moral, 1990: 20). Eta 23.ean: «… la barricada, el desmantelamiento de las escaleras de las casas y el taladro de paredes y pisos para lanzar balas y objetos contundentes al enemigo, la huida a través de los tejados, la utilización de minas y la quema de brazadas de resina que, al hacer arder las casas, ciegan al invasor, pero sobre todo, se enardecen las pasiones: patriotismo, odio al francés, defensa de la religión…».

369. «Los afrancesados, que atribuyen igualmente al Rey y a su ministro la responsabilidad de los mismos fallos, atacan a la dinastía; siguen fieles a la forma monárquica del poder, pero no aceptan incondicionalmente a la familia real. Estiman no violentar sus principios al trasferir su fidelidad de Carlos IV a José Bonaparte, no como persona, sino como encarnación del poder monarquico (…) De ahí su condena del patriotismo instintivo y ciego que lanza a los españoles a la lucha contra el francés con pocas probabilidades de vencer y sin la aprobación formal del Rey (…) Si se adhieren al régimen del rey José es, en parte, para no legalizar el "golpe" de Aranjuez. El "vulgo" ha entronizado a Fernando VII: el poder de éste resulta viciado de manera irreductible» (Aymes, 1986: 29).

370. Berruezok adierazten duenez, Donostian martxoaren 25ean izan zuten Carlos IV.aren abdikazioaren berri, eta bai ospatu ere: «El pregonero municipal la gritó desde todas las esquinas, las campanas de las parroquias y conventos fueron lanzadas al vuelo, dispararon salvas los cañones del castillo, y por la noche el Ayuntamiento ofreció en sus salones un baile a las personas de calidad, mientras en las plazas Nueva y Vieja el pueblo danzaba al son del tamboril (…) Al día siguiente continuó el entusiasmo por la caída de Godoy, y el Consulado ofreció otro baile, siendo nuevamente iluminada la ciudad, habiéndose corrido mañana y tarde toros en la Plaza Nueva. Los gritos de "Viva Fernando VII!" resonaron noche y día en las calles de San Sebastián» (Berruezo, 1977: 129).

1808an, eta Pedro José Bustinduik hartu behar izan zuen herria gidatzeko ardura momentu kritiko haietan.

Jose Maria Uriartek dio XIX. mendearen hasieran Eibarko Udalaren osaketan aldaketa garrantzitsuak izan zirela. Bere esanetan, 1800. urtetik aurrera armaginen presentzia indartu egin zen, ordura arte jauntxo lur-jabeak nagusi izandako udalean. Prozesu hori XVIII. mendean hasita zegoen, alkate- eta errejidore-karguetan aurkitzen ditugun Vicente Aldekoa, Juan Esteban Bustindui, Francisco Olabe, Felix Mugertza eta abarrek ez baitzeukaten lur-jabetza nabaririk: «Gizon hauek beste fiadore batzuk behar zituzten. Hipotesi moduan eskasia horrek egin zuen lehenengo alkatea kanpotarra bilatu beharra (..) Oro har, nekazalgoaren presentzia nabariagoa zen arren, udalgintza zaharrean ekoizpengintzarekin harremanaturik zeuden armagin batzuek goi mailako ohoreak eskuratu zituzten. Adibidez, baldintza horiekin Elgoibarko ofizio berdinak ezin bete zitzaketen» (Uriarte, 1998: 151). Gaineratzen duenez udalkideen arloan «… ezberdintasun nabariak agertzen zaizkigu Eibar eta Elgoibarren artean. Elgoibarren lehenengo alkatea herrian bizi den pertsona aukeratzen dute. Eibarren, ordea, 1808. urtera arte herrian bizi ez den aristokrata bat aukeratu ohi zuten. Ikusiko dugun legez, alkategaiak Eibar herriari ohorezko alkatetza eskatzen zion. Herriak onartuta, bigarren alkateak, herriko makila altxatzen zuen. Kasu honetan fidatzaileen kontua nola geratzen zen ez dakigu. Elgoibarko kasuan herriko bi pertsonek monopolizatu zuten alkatetza 1805-1817 urteen artean, Jose Maria Larrumbide, lau aldiz alkate, eta Ignacio Bartolome de Muguruza, zazpi aldiz alkate» (Uriarte, 1998: 256). Datu interesgarria, epe berean Eibarko aginte-makila 14 pertsonaren eskuetatik igaro zela kontuan hartzen badugu. Uriartek dioenez, Eibarren «Dirudunak herrian bizi ez zirenez gero udal karguak "*demokratizatu*" egin ziren» (Uriarte, 1998: 258), eta 1808. urterako armaginek nagusitasun osoa omen zeukaten udalean, errejimentuko kide guztiak armaginak baikenituen (Uriarte, 1998: 267). Guri, ordea, 1808ko udalkideetatik soilik bi agertzen zaizkigu 1762 edo 1835eko armaginen zerrendetan.

Frantziar armadari buruzko lehen aipamena maiatzekoa dugu. Diputazioak, estu eta larri, 4.504 erreal eskatu zizkion Eibarri, herrialde mailan bildu behar ziren 200.000 errealetatik zegokiona, hain zuzen[371]. Udalak, Eibarri eskatutako erreal kopurua gehiegizkoa zela-eta protestatu arren, ordaintzea erabaki zuen, maileguak lortuz eta premiazkoa ikusiz gero, udal-lurrak salduz. Inorenganatutako herri-lurren balioa eta erosleak zeintzuk izan ziren beste atal batean aztertuko dugu. Momentuz, aipagarria iruditzen zaidana hauxe da: 1808ko maiatzerako Eibarko Udalaren baliabide ekonomikoak guztiz agortuta zeudela, eta diru gehiago lortzeko aukerak zeharo murriztuta. Sisen errematatzaileek ziotenez, ezin zuten udalarekin adostutakoa ordaindu, zeren «… por las actuales circunstancias han suspendido las lavores

371. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-5-22.

los Fabricantes de que compone la maior parte del vecindario, y por consiguiente es mui escaso su consumo»[372].

Bonapartetiarren jarrera eibartarrekiko

Aurreko hiletan zehar ehun mila soldadu frantziar baino gehiago igaro ziren Gipuzkoatik zehar Gaztelarantz[373], eta tropel horren guztiaren horniketak eragindako gastuez gain, ibilbideko (Irunetik Gatzagaraino) herri estrategikoetan kokatutako konpainien ostatua eta tresneria Gipuzkoak ordaindu behar izan zituen. Eibarrera gainera, Lefèvre dibisioko 300 soldadu destinatu zituzten 1808ko otsailean, eta itxura denez, herritarrak iraintzen zituzten[374]; izan ere, Eibar eta Donostia ziren errege-bidetik kanpo egonda ere, soldadu frantziarrek okupatu zituzten hiribildu bakarrak (Berruezo, 1959: 257). Donostiaren kasuan penintsulako atea zelako, eta Eibarren kasuan, armagintza-gune garrantzitsua kontrolpean edukitzea komeni zelako.

Gerraren testuinguru horretan, Eibarko armaginen benetako emigrazioa gauzatu zen, bi norabidetan: alde batetik, Napoleonek eibartar mordoa eraman omen zuen Frantziara, hango arma-fabriketara (Areta, 2003: 373)[375]; bestetik, eibartar ugari espainiar abertzaleen erresistentziara bildu zen, Zaragozako setioaren defentsan parte hartuz.

Pedro Zelaiak dioenez, Konbentzio Gerrarekin alderatuta Espainiako Independentzia Gerran zehar frantsesek ez zuten «… gure herriarekin lehengo gogorkeriaz jardun. Napoleonen tropek ikusi zuten eibartarren armagintza eurentzat oso ondo zetorrela, eta gure herriko jendearekin lagun moduan agertu nahi izan zuten. Alperrik baina, zergatik eze, eibartarrak frantsesen kontrako armadan apuntatu baitziren, asko eta asko. Eibarko gudariak Zaragozako frontean egon zirela badakigu. Beste asko Sevilla, Cádiz, eta Valencian armagin moduan egon ziren. Zaragozako frontean 72 eibartarrek bizia galdu zuten orduko agiriek esaten dutenez. Frantsesek Eibar euren menpean euki zuten bitartean, geure herria berriz ere zorpean geratu

372. EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-5-22.

373. «Es el 19 de octubre de 1807 cuando por el puente de Behobia comienzan a entrar en España los primeros soldados del Primer Cuerpo de Observación de la Gironda. Eran 50.000 y pronto les sucedieron 45.000 del general Dupont y 35.000 del Tercer Cuerpo del Ejército al mando de Moncey…» (Berruezo, 1977: 57). Kasperrek, lehen bi hilabete eta erdian Gipuzkoatik igaro ziren soldadu frantziarren kopurua baxuagoa izan zela adierazten du: «78.102 soldados, 11.184 caballos y mas de cien cañones» (Kasper, 1992: 57). Edonola ere, 1808. urtean zehar askoz soldadu gehiago sartu ziren Gipuzkoako bidetik.

374. «Mas se les suministro a los soldados de dicha centinela del punto de Isasi, Olaerreaga, y compañeros Paisanos que se les puso para que no insultasen a la jente caminante y desconocida para ellos, veinte y ocho azumbres de vino, y quarenta libras de pan» EiUA, A,2,2, "Guerra. Varios documentos referentes a asuntos militares. 1808-1810", «Cuenta general y particular de lo que lleva gastado esta N y L villa de Eybar con motivo del servicio de las tropas Francesas, desde el principio del año proximo pasado de mil ochocientos ocho hasta oy dia de la fecha» (1809-1-20).

zen. Frantsesek nahita nahi ez behartu gintuzten eurentzako gerra-lanak egitera, eta baita ere (batez ere 1808ko irailetik aurrera) garia, artoa, ardoa, haragia, babak eta pattarra haientzat bilatzera. Zaurituak eta gerra-tresnak Durango, Bilbo, Gasteiz, Burgos eta Santander aldera eroatera ere behartu gintuzten» (Zelaia, 1994: 33).

Azken datu horiek bat datoz GAOn aurkitutako dokumentuetariko batek dioenarekin. Horren arabera, ordainduta bazen ere, eibartarrak Arrasatera ganadua eramatera behartuta zeuden. Beste batzuetan Arrasatetik etortzen ziren frantziar soldaduak, horniketak indarrez eskatzera. Egindako ordainketen artean hauxe irakurtzen da: «… a las Mugeres, chicos y hombres que aquellos dias y noches se les ocupo por el arrabato o apremio de fuerza armada que bajo de Mondragon en acabar de desgranar el maiz de las mazorcas paleadas y que no se les dio jornal, se les dio pan, vino y aguardiente equivalente de ciento sesenta y seis reales»[376]. Beste lau emakumeri launa erreal ordaindu zizkioten arto hori baheztatzen emandako egun bakoitzeko. Aleak gordetzeko zakuak josten ere emakumeak aritu ziren, oraingo honetan ere musu-truk. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da frantziarren mehatxuak zer-nolako larrialdiak eragiten zituen herritarren artean. Beste behin Jose Mari Pagaegik eta Andres Mandiolak utzitako maileguari esker saihestu zituzten «… las vejaciones y consecuencias fatales que hubiera sufrido la villa»[377].

Agustín Bustindui tabernariak soldaduei emandako ardo eta ogiaren ordainketa eskatu zuen, baina ez zeukan ordainketa-agiririk «… por su apresurada marcha muy de madrugada, y por antojo de otros que no quisieron dar bonos». Frantziar soldaduen gehiegikeriak egiaztatzeko, galdetegi berezi bat prestatu zuen Jose Antonio Erbiti alkateak. Galdetegi horri esker Maltzagan zeuden soldadu frantziarrek inguruko baserrietan eragin zituzten kalteen berri daukagu[378], eta udalak laguntzaileak jarri behar izan zituela, «… por no poser aquellos de la idioma bascongada ny castellana». Horrez gain, herriko dendetan sartu eta jende guztiaren aurrean urdaiazpikoa eta lukainkak hartzen zituzten, ordaindu gabe; tabernetako ateak apurtu eta nahi zuten ardo guztia eramaten zuten; Pedro Atxa aguazilak gaineratzen zuenez «… no solo se contentaban en beber vino y aguardientes sino que rompian las jarras y vasos». Eibartik alde egitera zihoazela, ea gastuak nork ordaindu behar zituen galdetu zietenean, hara Bernardo Doset itzultzaileak emandako erantzuna: «... que satisfaría Bonaparte quando venía a esta villa». Beraz, bonaparte-

375. Aretak gehitzen duenez: «Bueltan, honek eibartarrok idea liberalak eta enziklopedistak ekarri ei eben, idea antiklerikalak, besten artian».

376. GAO, JD IM, 1/17/68, 1810.

377. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburua (1842-1850)*, 1842-2-7.

378. Fernando Olabek zioenez, «… quemaban los setos de las piezas de heredades, paja de los caseros del varrio, quitavan pan, tocino y quanto havia en ellas, amenazaban a las jentes que transitaban, tuvo a bien esta villa para evitar todos estos inconvenientes y perjuicios asociar jente paisana, con anuencia de los comandantes de dichos destacamentos (…) suministrarles pan, vino y aguardiente ademas de las raciones para que aguantasen las fatigas y la leña y troncos con abundancia para la fogata», GAO, JD IM, 1/17/68, 1810.

tiarrak «… gure herriko jendearekin lagun moduan agertu nahi izan» arren, helburu hori lortzeko meritu handirik ez zutela egin esan dezakegu.

Baionako Asanbladatik Baileneko porrotera

Karlos IV.a eta Fernando VII.aren abdikazioen ostean, Napoleonek Baionara deitu zituen herrialdeetako ordezkariak, Espainiako borboitarren monarkia absolutuari bukaera emango zion lehen konstituzioa onartzeko. Hori zela-eta, Gipuzkoako diputatuak izendatzeko diputazioak Batzar Orokorrak aurreratzea erabaki zuen, eta maiatzaren 30ean, aspaldiko batzarrik jendetsuenean —65 auzokide—, Pedro Josef Bustindui alkatea aukeratu zuten ordezkari Batzar Orokorretarako. Batzar horietan, berriz, José María Lardizabal Oriar izendatu zuten Baionako asanbladan Gipuzkoako ordezkari legez —ekainaren 15etik 30era— aritzeko, eta horrek herrialdeko foruak errespetatzeaz gain, burdingintza eta bereziki SEAFeko armagintza babestea eskatu zion Napoleoni[379]. Agirreazkuenagak dioenez «Lehenbiziko, Euskal Herritik, lurraldeko biztanleen izenean eta bertako merkatal korporazioetatik, erresumako batzar orokor batean parte hartu zuten. Bertan, jakina, erakundetze politiko berria erabakitzera bildu ziren. Berehala kontraesan nabarmena sortu zen planteaturiko Konstituzio eta ohizko foru-erakundetzearen artean. Euskal ordezkari guztiek ideia berbera adierazi zuten: ohizko Konstituzio propio edo pribatiboz gobernatzen zirela eta erakundetze horiek errespetatzea nahi zutela» (Agirreazkuenaga, 1993a: 82). Eta bai lortu ere, 144. artikuluaren bidez foruen birmoldaketa hurrengo batzar baterako uztea erabaki baitzen. Ziur asko, Baionako asanbladako idazkaria Mariano Luis Urkijo izateak zerikusirik izango zuen foru-herrialdeen alde harturiko erabaki horretan[380].

Baionako asanblada burutu zenerako, giroa nahiko gaiztotuta zegoen herrialdean. Errege-familia bere borondatez Napoleonen menpe jarri eta honek Fernando VII. aren ordez, José izendatu zuela ikusteak, gipuzkoarren mesfidantza areagotu zuen. Baionatik hurbilen egoteagatik Gipuzkoa izan zen errege berriari leialtasuna sinatzeko agindua jaso zuen lehen herrialdea, baina. Jose I.a Donostian sartu zenean, auzoetara alde egin ez zuten hiritarrak beren etxeetan ezkutatu ziren, eta kalean zeudenen artean ere «… ninguna dobló su cabeza aún por mera costumbre, y no se oyó más ruido que el de los balcones y ventanas que cerraron los habitantes

379. Lardizabalek hau eskatzen zion: «… proteger el fomento de toda fábrica en su territorio, señaladamente de ferretería y con particularidad las de armas de fuego de Placencia y blancas de Tolosa» (Mutiloa, 1982: 210).

380. Baionako Konstituzioaren garrantzia gutxietsi egiten den arren —konstituzio izena bera ere ukatu egiten zaio sarri—, han onartutako legeak Cádizko Gorteetan sortzen ziren eztabaidak baino aurrerakoiagoak ziren. Juretschkek dioenez: «Si el procedimiento de las Cortes no necesitaba moralmente de una legitimación, sí la necesitaba políticamente, y los afrancesados les proporcionaron esta legitimación, empujando a las Cortes de Cádiz prácticamente en esta dirección» (Juretschke, 1986: 131). Eta 133.ean, «… es seguro que la política eclesiástica de los afrancesados animó y espoleó a los liberales en sus planes». Arlo horretan, Baionakoa izan zen Inkisizioa abolitu zuen lehen konstituzioa.

al pasar la comitiva» (Berruezo, 1977: 135). Eibarren, uztailaren 5eko aktan aurkitzen dugu berridatzita Jose I.ak agintea hartzean emandako hitzaldia[381]. Egun berean, Thouvenot jeneral frantziarrak herrian zegoen arma kopuruaren berri ematea agindu zion Eibarko Udalari, herrialdean zabalduta zebilen orrixka subertsibo bat aipatzen zuelarik. Ildo beretik, armada frantziarrak penintsulan barrena (Aragoi, Andaluzia…) egindako aurrerapenen berri ematen zuen. Eibartarrak herrian armagordailurik ez zegoela erantzutera mugatu ziren. Martxotik —Aranjuezeko matxinada— uztailera —Jose I.aren ailegatzea— herritarren jarrera zeharo aldatu zen, euforiatik haserrera daraman zubi laburra zeharkatuz; horregatik areagotu zituen Thouvenotek kontrol-neurriak[382].

Baileneko porrotaren ondorioz, Napoleonek, penintsularako prestatuta zeukan estrategia militarra berregokitu behar izan zuen. Garaitezina zirudien gudarostea, beroz eta egarriz menderatu zuten espainiar abertzaleek 1808ko uztailaren 17an[383]. Hondamenaren ondorioz, Madrilera heldu berria zen Jose I.a Gasteizera itzuli, eta tropa frantziarrek ia penintsula osoa utzi behar izan zuten, Ebro ibaiaren iparraldean kokatuz . Baileneko garaipenaren ondorioz, armada espainiarra asko hazi zen, boluntario ugari alistatu zen-eta. Gudaroste frantziarrak Ebrotik iparraldera kokatu izana foru-lurraldeen kalterako izan zen, ordutik aurrera haiek hornitzearen zama, bertoko biztanleriaren gain gelditu zelako. Irailean, diputazioak hil edo biziko mezua zabaldu zuen herrialdean, herriek horniketak ez bazituzten bermatzen, bonapartetiarrek beraien kabuz eskuratzeaz mehatxatu zutela ohartaraziz[384].

---

381. Sasoi bateko historiografiak Jose I.aren figura iraindu izan badu ere, gaur egun bere agintaldiari buruzko askozaz balorazio positiboagoak irakurri ahal dira: «Mientras la España patriota busca, intuitiva o conscientemente, soluciones a los problemas, otra España— y, en absoluto, la más despreciable, ya que entre ellos se cuentan ilustrados, artistas y hombres de leyes—, cierra filas en torno a José I, el monarca que Napoleón ha decidido poner en el trono español. Hoy, vistas las tristes circunstancias que rodearon el reinado del tan deseado rey Fernando VII, la figura del denostado José, clamando ante su poderoso hermano medidas de clemencia para el pueblo español y dirigiendo el país hacia un estado más conforme con las ideas modernas, cobra una nueva significación, mucho más positiva que la que de se forjaron sus contemporáneos» (Del Moral, 1990: 4).

382 «La posible reacción de los donostiarras y de los guipuzcoanos a favor de Fernando VII puso a Thouvenot en grave cuidado». Maiatzaren 10ean Neuchateleko printzeari bidalitako gutunean zioenez, «… desde hace días los españoles están como atormentados, inquietos, habiéndose alterado la armonía entre las tropas», espainiar eta frantziarren artekoa, noski (Berruezo, 1977: 131).

383. Hasiera batean Napoleonek, herritarren erresistentziarako ahalmena gutxietsiz, penintsula menderatzeko 12.000 soldadurekin nahiko izango zuela uste zuen (Aymes, 1986: 5). Kasperrek dioenez, azkenean 300.000 eta 500.000 soldadu bitarte hil zituzten Espainiaren Independentzia Gerran (Kasper, 1992: 64).

384. «Viendome en la dolorosa alternativa, o de tener que consentir que las tropas encuentren sus subsitencia saqueando a mis pueblos, o que se hagan los repuestos para dar en Tolosa y Mondragon a diez mil raciones diarias de viveres y tres mil de forraje durante ocho dias», bonapartetiarrentzat 57 anega eta 10 imilaun gari, 166 anega arto eta 846 aroa lasto biltzeko agindua heldu zen Eibarrera diputaziotik, EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-9-20.

Erresistentziaren hastapenak

Bailenen garaitutako soldadu frantziarrak hasi berriak ziren, guduan esperientziarik gabekoak. Baina beteranoz osatutako "*La Grande Armée*" penintsulan sartu zenean, espainiar gudarosteek atzera egin behar izan zuten, batez ere Zaragoza eta Girona —hiri setiatuak— frantziarren eskuetara pasatu zirenean. Bi hilabeteren buruan Napoleonek armada aliatua sakabanatu zuen eta ingelesen atzetik zihoan, Galizia alderantz; testuinguru hartan konstituzioaren edo tiraniaren artean aukeratzera eman zion espainiar herriari[385]. Urtarrilean bere anaia Madrileko tronoan berrezarri zuen, baina Frantziara itzuli behar izan zuen beste kontu batzuez arduratzeko. Napoleonen estrategia militarrak ordura arte jarraituriko eskemak apurtu zituen[386], baina horretarako milaka soldadu behar zituen, eta horietatik gehienak Gipuzkoatik igaro behar ziren. Zama astuna zen, eta segituan sortu ziren Gipuzkoan soldadu frantziarrekin lehen tirabirak.

1808ko abuzturako, Jose María Soroa diputatu nagusiak Gipuzkoako Diputazioaren izenean, bere oniritzia eman zion menderatzaileen aurkako altxamenduplanari, eta Juan Manuel Telleria izendatu zuen arduradun nagusi. Lehen une horietan Telleriaren eginkizun nagusia informazio-sare bat eratzea izan zen, Blake jeneral britaniarrari laguntzeko. Espioitza-zerbitzu horren agente nagusiak Gipuzkoako handikiak ziren —Olazabal, Enparan, Larreta…—, ezizenekin aritzen zirenak. Horrez gain, alfabeto berri bat asmatu zuten, eta merkataritza-gaien izenak erabiltzen zituzten gerra-kontuei buruz mintzatzeko: horrela, espainiar armada "ardoa" zen; gerrillari-taldeak "sagardoa", frantziar soldaduak "lastoa", zalditeria "belarra", etab. (Berruezo, 1959: 267). Esan bezala, Telleriaren helburu nagusia Gipuzkoan altxamendu orokor bat antolatzea bazen ere, Napoleonen sarrerak eta, batez ere, Ocañako porrotak —1809ko azaroa— egitasmoa bertan behera uztea eragin zuen. Ocañako hondamenak ezereztu zituen espainiarrek armada erregular batekin garaipena lortzeko zituzten itxaropenak, eta hortik aurrera gerrilla-jarduerak sekulako protagonismoa hartu zuen.

Napoleon eta bere jeneralen estrategia militarrak eskemak apurtu bazituen ere, haren okupazioari aurre egiteko penintsulako biztanleriak asmatu zuen taktikak ere haustura bat suposatu zuen, zeren gerrilla-taldeetan antolatuta bonapartetiarrei aurre

385. Hitzok 1808ko abenduaren 7koak dira: «Una Constitución liberal os asegura una Monarquía dulce y constitucional, en vez de una absoluta. Depende sólo de vosotros que esta Constitución sea aún vuestra ley» (Juretschke, 1986: 66).

386. «La superioridad numérica de las fuerzas francesas se veía acentuada por la mayor movilidad y autonomía de sus Divisiones. La estrategia francesa se basaba fundamentalmente en una serie de factores que llevaba a sus soldados a una continua acción ofensiva. Frente a la línea de combate, utilizada por los españoles y los ingleses, los franceses oponían la formación en columna» (Sánchez Mantero, 1996: 20).

egiteko modu berria asmatu baitzuten[387]. Gipuzkoan lehenengo gudu-taldea Juan Angel Lizarraga eta Joaquín Ieregi tolosarrek osatu zuten, eta "*maleteros*" izena hartu zuen, beraien eginkizun nagusia frantziarren posta edo "*mala*" eraso eta eskuratzea zelako. Horien ostean, Manuel Ignacio Orkaiztegi agertzen zaigu, hau ere tolosarra, 1810ean harrapatu eta Urretxun hil zutena. Urretxuarra izan zen, hain zuzen ere, Gipuzkoan aritu zen gerrillaririk ospetsuena: Gaspar Jauregi, "*Artzaia*" deitua, gerrillari izan aurretik artzaina zen-eta. Berarekin batera beste hamaikatxo gerrillari agertu zen inguruetan[388], eta euren artean emakume ugari[389].

Kasperrek dioenez «Gerrila-taktika aplikatzeko baldintzetariko bat, armada erregular indartsua duen etsaiak baino gizon gutxiago izatea da. Desabantaila hori konpentsatzeko beste baliabide batzuk erabili beharra dago, hala nola gerrilariak une orotan borrokarako prest egotea, inguruak ezin hobeto ezagutzea, eta herritar gehienen laguntza izatea (…) gerrilak uko egiten dio lurraldea menderatzeari, eta helburu mugatuen estrategiari jarraitzen dio. Garaipena lortzeko moduko gudu-ekintzak soilik gauzatzen dira, hala nola postei, abangoardia edo erretaguardiei, edo, zenbaitetan ere, destakamentu militar txikiei erasotzea» (Kasper, 1992: 59). Guk beste hau gehituko genuke: babesik gabe zeuden herrietan sartu, eta udalkideak mehatxatuz gerrarako baliabideak eskuratzea, besteak beste, jantziak, dirua, anoak eta noski, armak; Soraluzeko errege arma-fabrikak gerrillari bizkaitarren erasoa jasan zuen 1808ko abuztuaren 15ean, eta su eman aurretik bertan biltzen ziren arma guztiak eraman zituzten (Kasper, 1992: 70, 71). Eibarren ere ezagutu zen gerrillarien erasorik, bizpahiru aldiz behintzat, eta itxura denez, eibartar bat, gerrillari ospetsu bihurtu zen.

NORTZUEK BORROKATU ZUTEN NAPOLEONEN AURKA?

Joseph Ignacio Abadiaren erailketa

Bizkaiko Foru Artxibategian aurkitutako dokumentu baten arabera, hiru gerrillarik sekulako sarraskia burutu zuten Eibarren, herri guztiaren sopinkutasunarekin, gainera. Idatzia, Thouvenot jeneralak Eibarko biztanleei bereziki zuzendutako ofizio bat da, eta merezi du lehen zatia transkribatzea:

387. «La novedad no sólo reside en esa ruptura de los mecanismos habituales para oponerse al invasor, sino, sobre todo, en un tipo de respuesta articulada desde abajo. Las denominadas clases populares acabaron convirtiéndose en el instrumento más eficaz contra el francés. Y es que el abandono de las clases dirigentes –que sí colaboran con el invasor o con capacidad para retirarse el escenario de la guerra— fue reemplazado por unas clases campesinas que responderán con violencia a los abusos de la armada napoleónica» (Torre, 1996: 19).

388. Berruezok Markina, Bolibar eta Lekeitioko gerrilarien nortasunari buruzko datu zehatzak eskaintzen ditu bere artikuluan (Berruezo, 1959: 272).

389. Joseba de la Torrek eskaintzen dituen datuen arabera Iruñeko kartzelan espetxeratutakoen % 21,4 emakumeak izan ziren (Torre, 1996: 21). Berruezok Maria Angela Tellería elgetarra aipatzen du, «… heroína guipuzcoana a la que las Cortes de Cádiz concedieron una pensión de 4.000 reales por sus servicios a la resistencia en el País Vasco» (Berruezo, 1959: 271).

> El general Excmo. Señor General Thouvenot, Gobernador de Vizcaya, me ha pasado un Oficio que traducido, dice lo siguiente:
>
> Nº1 San Sebastian 23 de Febrero de 1810. Señor Comisario general de Policia. Habiendo examinado el informe de Vmd. sobre el atroz asesinato cometido de dia claro el 8 de este mes en Eybar por tres vandidos en la persona del desgraciado Josef Ignacio Abadia; no he podido ver sin indignación que un pueblo entero haya sido testigo de semejante homicidio, sin haber hecho ninguna demostracion para oponerse. No solo podia este pueblo salvar al desventurado Abadia, sino que tambien podia arrestar o matar a los tres vandidos y hacer al pais un gran servicio, destruyendo al único Gefe de vandidos que turba aun la tranquilidad de la Provincia.
>
> Hará Vm. pagar 8000 reales de multa al Pueblo de Eybar, la que sufrirán solo los propietarios a proporcion de su fortuna.
>
> Igualmente hara Vm. pagar al Clero de Eybar una multa de 4000 reales, la que sufrirán todos los Eclesiásticos del pueblo a proporcion de su renta, excepto el Cura que confesó al infeliz Abadia, el cual pagara una multa de 1000 reales. El total de estas multas, que hace la suma de 13000 reales, será pagado inmediatamente; y los habitantes del pueblo de Eybar que he hecho arrestar y conducir a San Sebastian, no serán puestos en libertad sino quando se efectúe el pagamento.
>
> Dios guarde a Vm. muchos años. San Sebastian, 23 de Febrero de 1810.
>
> El Comisario general de Policia de Guipuzcoa. Francisco Aldaz[390].

Nor ote zen Josef Ignacio Abadia? Abizen horrekin, Eibarkoa ez behintzat. Baina bai euskalduna. Thouvenot-en ofizioak dioena egia bada, herritarrek hilketa ez eragotzi izanak frantziarren kolaboratzaile bat zela pentsarazten digu: zerga-biltzaile, itzultzaile edo sukaldari, azken finean "traidore" bat, herritar gehienen begietara. Gertakizun horren ondorioz, herritar batzuk atxilotu eta preso eraman zituzten Donostiara. Herriko handikiak izango ziren ziur asko, isuna soilik lur-jabeei jarri izanak adierazten digun bezalaxe. Horrez gain bakoitzaren errentaren arabera ordaintzeko aginduak, nolabaiteko justizia-nahia islatzen duela esango nuke, edo besterik ez bazen ere, herritar xumeak arrazoirik gabe ez zigortzeko xedea. Apaizei ezarritako isun bereziak antzeko zerbait adierazten digu.

Gerrilla-jarduera: "El rojo" Sarasketaren bahiketak

Ondarroako Udalak Mutrikukoari bidalitako gutun batean azaltzen zionez, 1810eko uztailean Eibarrek Bizkaia aldetik zetozen gerrillarien erasoa jasan zuen, zeinek jantziak eta anoak eraman zituzten[391]. Kasperrek dioenez 1810eko «…

390. BFA, Bilbao Seccion Antigua, 0333/001/009/007.

391. «Ondarroa. 3 de julio de 1810. Al alcalde de Motrico. (…) Parece que a Fermín en Corostola se le han agregado algunas gentes de mozalbetes de Allustia (?) y otras partes. Sus armas por la mayor parte espadas viejas de ezpatadantzaris, muy rara escopeta llevan con … excepción de los 20 que estuvieron en esta bien armados. Como una docena de ellos anteayer havía en Verriz quienes y otros

irailaren 10ean, Manuel Sarasqueta "El Rojo" gerrilari bizkaitarraren partida Eibarren sartu zen eta anoak eraman; eta urriaren 5ean, Rojo bera, Gaspar de Jáureguirekin batera, Azkoitian sartu ziren» (Kasper, 1992: 83). Urriaren 11n Espoz y Minaren konpainiako 13 gerrillari hirigunean barneratu, eta 90 lagunentzako anoak eskatu zizkioten Jose Joaquin Suinaga alkateari. Uriartek beste hau adierazten du: «Suinaga familia Eibarren bizi zen lur jaberik handiena zen eta frantziarrentzako hornidura banaketan eta kobraketan parte hartu zuen. Talde gerrilariaren buru zen Manuel Sarasquetak, "*el rojo"* izengoitiz, Eibarko alkatea lotu, bahitu eta eurekin eraman zuen. Bi egun beranduago aske utzi zuten baina herrira iritsi bezain pronto oheratu egin behar zuen. Sarasqueta abizena oso arrunta da bailaran eta posible litzateke bertakoa edo ingurukoa izatea. Zenbatetaraino zeuden koordinatuta frantziarren kontrako taldeak edo tokian tokiko arazoen isla baino ez ziren?» (Uriarte, 1998: 270)[392]. Eibarko udal-artxiboan, 1810eko abenduaren 8an Sarasketak berak sinatutako ordainagiri batek[393] Uriarteren hipotesia indartzen du, "*El Rojo*" deitzen zuten gerrillaria eibartarra zela egiaztatzeko zentzuan, eta ez bizkaitarra. Era berean, otsaileko atentatuaren susmagarri nagusia bihurtzen da. Paragrafoaren bukaeran Sarasketak sinatutako ordainagiria ikusi ahal duzue, eta transkripzioa. Laburdurak oso-osorik idatzi ditugu, ulermena errazteko.

Sarasketari buruzko hurrengo aipamena 1811ko uztailekoa dugu: Markinako Udalaren idatzi batean, bere gudu-taldearen hondarrekin Jauregi "*Artzaia*"rekin bildu zela azaltzen da (Mugartegui, 1927: 197). Urte bereko urriaren 10ean berriro Eibarren sartu eta Juan Andres Laskurain alkatea bahitu eta diruaren truke askatu zuen. Laskurainen ezbeharrak ez ziren hemen bukatu, gudaroste frantziarrak itzuli zirenean preso hartuta Azpeitira eraman baitzuten (Uriarte, 1998: 272). Gogoratuko dugunez, Laskuraini buruz geneukan azken berria 1806koa da, korrejidoreak udalari alkate izendatzeko agindu zionekoa. Baina udalak ez zuen orduan agindua bete, eta bai ordea 1811n, nahiko era bitxian gainera: abenduaren 22ko aktak azaltzen zuenez, hasiera batean Gabriel Ibarzabal izendatu zuten alkate[394] —«… por una equivocación material»—, baina 28an — inuzente egunean, hain zuzen—

treinta y tantos entraron al mediodía de antes de aier en Ermua reunidos todos quienes al parecer se dirigieron al alto de Elgueta y anoche 11 de ellos habian bajado a Eibar sacaron raciones y vestuario» (Urtubixa, 1993: 13, 14).

392. Jatorrizko iturriak dioenez: «Desde Eibar comunicaba Julián Arguiraño a la Provincia el 11 de septiembre de 1810 cómo se habían presentado trece hombres que dicen ser de la "Compañía de Mina" exigiendo 90 raciones y teniendo el arrojo de atar al Alcalde y Presidente del Concejo D. Jose Joaquín de Suina, "dirigiendose por la parte de Ermua en Vizcaya sin que se hubiese expuesto el motivo por qué llevaban a dicho Alcalde sin haber oído muchas y repetidas súplicas que se la hicieron para que le dejasen suelto sin hacerle novedad". (A los dos días regresó el Alcalde a su casa y estaba encamado y asistido por los facultativos, según se dice en otra comunicación). En esta ocasión dirigía la cuadrilla el "Rojo" Manuel de Sarasqueta» (Lasa, 1973: 91).

393. EiUA, A,2,2, "Guerra. Varios documentos referentes a asuntos militares", 1808-1810.

394. 1808ko martxoan hildako Ignacio Maria Ibarzabalen semea.

akatsa zuzenduz, kargua Laskurainen eskuetan uztea erabaki zuten[395]. Izan ere, sasoi haietan udal-karguak betetzea ez zen batere onuragarria suertatzen. Egoera paradoxikoak gertatzen ziren sarri: frantziarren okupazioaren aurka egonda ere, udal-karguak betetzera behartutako udalkideak, adibidez, errukirik gabe erasotzen eta mehatxatzen zituzten gerrillariek. Gerra orokorra zen, eta ez zegoen erdibiderik. Kontraesan horiek gainditzeko izendatuko zuten alkate Laskurain: norbait bahitzekotan, bahitu zezatela frantziarren benetako kolaboratzaile bat izandakoa, pentsatuko zuen batek baino gehiagok. Laskurainek amua ezpainean izango zuen ordurako, familia mantentzeko perito-lanetan jarraitu behar zuela argudiatuz, ez baitzuen kargua onartu. Baina udalak ez zituen bere arrazoiak onartu, familia aurrera ateratzeko beste baliabide ekonomiko batzuk bazituela azalduz[396]. Laskurainek bere bostean jarraitu bazuen ere, ekainaren 28an, azkenean, alkate-karguan agertzen zaigu. Lau hilabete beranduago Sarasketaren atzaparretan zegoen.



Transkribapena: "La partida de Manuel de Sarasqueta. Bale por Syrenta (60?) reales para coste oy dia 8 de Dicienbre de 1810 Para Francisco de Agyrre para los dichos Biages por mando Por la partida de la dicha Conpañia rojo Sarasqueta", EiUA, A,2,2.

Ez ote gaude "Marruko" ospetsuaren aurrean?

Sarasketaren inguruan susmo bat piztu zait. Ez ote gaude "*Marruko*" ospetsuaren aurrean? "*Marruko*"ri buruzko lehen aipamena 1909koa da; Pedro Sarasketak idatzitako monografian azaltzen zuenez: «Una de las emboscadas en que Marruko, ayudado de otros dos compañeros, todos ellos armados de buenos trabucos, hizo más bajas al enemigo, fue en la carretera de Ermua, junto al palacio de Isasi. Ocultos los tres guerrilleros entre matorrales a pocos metros de la carretera aguardaron intrépidamente la llegada de la columna francesa a su regreso de la vecina villa vizcaina (…) y cuando pasaban junto a ellos los últimos soldados que formaban la retaguardia, sonó un estampido horrible, y seguidamente ayes de

395. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-1-1.
396. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-1-28.

dolor, imprecaciones, juramentos. Aquellos tres valientes al disparar sus armas, cargadas de metralla, habían hecho veinte y siete bajas al enemigo» (Sarasketa, 1909: 35)[397]. Gogoratuko dugunez, Thouvenoten ofizioak ere hiru gerrillariri buruz hitz egiten zuen, baina badirudi ez gaudela ekintza berdinaren aurrean, kasu hartan pertsona bakar baten aurkako atentua izan zelako herri guztiaren aurrean, eta oraingo honetan soldadu-talde baten aurkako segada. Ihesaldian bere kideetariko bat zauritua gertatu zen, eta laguntzeko eskatu bazien ere, Marrukoren erantzuna "*Estao demporarik*" izan omen zen. Soldadu frantziarrek zauritua harrapatu eta hil egin zuten.

Beste behin, soldadu frantziarrak Plaza Berrian zeudela jakin zuen, aurresku dantzaren plantak eginez, herritarrei adarra jotzen. Marrukok bere trabukoa metrailaz bete, eta bertarantz egin omen zuen. Pedro Sarasketaren bertsio epikoari jarraituz, Untzaga kalera ematen zuen bidexka batetik zehar, lagunen ihes egiteko aholkuei jaramonik egin gabe: «Cuando ya en la calle logró poner en ella sus pies a tiempo que los soldados franceses en la plaza, agarrados los unos a los otros, hacían la cuerda del aurresku con gran bullicio y algazara, apoyó Marruco la culata de su enorme trabuco sobre el muslo derecho, y lanzó al aire un irrintz de guerra que fue ahogado seguidamente por el estampido de un trabucazo formidable, cuya metralla, repartida en forma de abanico, fue a incrustarse en los cuerpos de los soldados» (Sarasketa, 1909: 36). Oraingo honetan zazpi baja eragin zien, eta ihes egitea lortu. Hurrengo batean, inauterietan, mozorrotuta jaitsi eta beste zazpi frantziar zauritu edota hil omen zituen. Bere bukaera ere nahiko tragikoa izan zen. "*Marruko*"k Olarreaga eta Eibar artean zegoen errota batean lo egiten zuen, eta behin, laguntzat zuen batek loak hartzeko pozoia bota zion ardoan, eta ondoren frantziarrei abisatu. Hauek ailegatu zirenean, lotan zegoela tirokatu zuten, eta hilda zegoela ere beste tiro bat eman zioten, bere trabukoarekin. Hilotza Saturioko zuhaitz batean eseki zuten, eta zintzilikatuta eduki zuten egun batzuetan, frantziarren debekua saihestuz lagun batzuek arbolatik jaitsi eta lurperatu zuten arte.

"*Marruko*"ren istorioa aurretik ezagutzen dutenak, beharbada, harrituta egongo dira, Pedro Sarasketak Konbentzio Gerran kokatzen dituen gertakizunok, guk Napoleonen aurkako gerratearen testuinguruan txertatu nahi ditugula konturatzean. Badugu horretarako arrazoirik. Lehenik eta behin, Sarasketak ahozko testigantzen bidez jaso zituelako Marrukori buruzko datu hauek guztiak[398], baieztapen hauek frogatzeko inolako idatzirik aurkitu gabe. Izan ere, ahozkotasunaren kutsua idatzi osoan zehar nabaritzen da, eta ñabardura txikien aipamenak ezinbesteko garrantzia hartzen du, istorioaren egiatasuna detaile txiki horien menpe balego bezala. Aipaturiko azken bi atentatuetan zazpi frantziar zauritu edota hil izanak (bat gehia-

397. Behin liburua eskuratuta, merezi du "Marruko"ri buruzko istorio guztia irakurtzea.

398. «... nos queda la satisfacción que los naturales de que los naturales de Eibar, y principalmente la mayor parte de las personas ancianas que aún viven, conocen por habérselas oído contar a sus padres las famosas aventuras de Marruko. Al pasarnos por lo tanto sin el documento escrito lo sustituiremos por el viviente» (Sarasketa, 1909: 35).

go ere ez, ezta bat gutxiago ere), kasualitate hutsa baino gehiago dirudi. Beharbada gertakizun bakarrari buruzko bi bertsio jaso zituen, bietan ere dantza eta jai-giroa direlarik testuingurua (frantziarren aurreskua / Marruko mozorrotuta dantzan). Neurri berean, azpimarratzekoa da Thouvenoten ofizioaren eta Marrukoren ekintzei buruz Sarasketak eskaintzen digun bertsioaren artean dagoen harremana: bi kasuetan hiru dira gerrillariak eta biztanleriaren kolaborazioa bistakoa da.

Badago besterik. Pedro Sarasketak bere buruari buruz hitz egitean aitortzen zuenez: «… el autor está profundamente contrariado, por haber tenido ocasión de observar al revisar el archivo municipal, falta en él, el libro de actas correspondiente a la epoca en que ocurrieron estos hechos» (Sarasketa, 1909: 34, 35). Eta izan ere, falta diren akta-liburuak 1808-1820 epeari buruzkoak dira, eta ez Konbentzio garaikoa —A,1,1,7 (1788-1797)—. Beraz, Pedro Sarasketak bazuen aztarnarik "*Marruko*" Konbentzio Gerran barik bonapartetiarren aurkako testuinguruan kokatzeko. Biak ere frantziarren aurkako gerrak izan zirenez, kasu honetan autorea ahozkotasunaren gabezien menpe gelditu zela iruditzen zaigu. Gainera, Konbentzio Gerran frantziarrek Eibartik alde egin zuten herria erre ondoren, eta 1795eko uztailera arte ez ziren bueltatu: inauterietako ekintzak, beraz, ez luke zentzurik edukiko, Konbentzio Gerran zehar frantziarrek ez zutelako inauteririk igaro Eibarren.

"*Marruko*" eta "*El Rojo*" famatua pertsona bera izan zirela pentsatzeko azken datua Sarasketak berak eskaintzen digu, "*Marruko*"ren izena Román Sarasketa zela azalduz, Kasperrek "*el Rojo*"ren izena Manuel Sarasketa zela argitzen digularik. Beraz, bata RoMAN, eta bestea MANuel; ahozkotasunaren beste tranpa txiki baten aurrean gaude beharbada. Edo gerrillari bihurtzean izena aldatu edota ezizen bat hartzeko fenomeno ezagunaren aurrean[399]. Edo zeinek daki senideak ez ote ziren izango, bata hil zutenean bestea gerrillari bihurtua, Espoz y Mina osaba-hilobei gertatu zitzaien bezala. Zalantza hauen erantzuna Eibarko elizbarrutiko heriotzen liburuan egon zitekeela pentsatuta Antiguo gaineko artxibategira hurbildu, eta atsekabez, 1799-1850 epeari buruzko heriotzen libururik ez dela gordetzen ikusi dugu. Edonola ere, 1794-1799 bitartekoa gordetzen da, eta 1794ko abuztutik 1796ko abendura ez dugu Sarasketa bakar baten heriotzarik aurkitu. Datu horrek ere, "*Marruko*" bonapartetiarren aurkako gerratean kokatzera bultzatzen gaitu. "*Marruko*"z gain, Kasperrek "*Malalma*" deituriko beste gerrillari eibartar baten aipamena egiten du, bere ekintzak, gehienbat, Bizkaia aldean kokatzen zirela azalduz[400]. Baina kasu honetan oker dabil, "*Malalma*" delakoa Eibarkoa barik Nafarroako Aibarkoa zela argitzen baitigu jatorrizko iturriak[401].

399. Gerrilarien artean ezizenen erabilerak, benetako nortasuna ezkutatzeaz gain gerrillako partaideak berdintzen zituen, buruzagiak eta soldaduak maila berean ezarriz. Horrek ez du esan nahi ez zenik buruzagien autoritatea onartzen, armada erregularreko hierarkienganako sentitzen zuten mespretxua adierazten baizik (Aymes, 1986: 57).

400. Rodríguez Solis, 1895: I. liburukia, 16-18, apud Kasper, 1992: 75.

401. Rodríguez Solis, 1895: I. liburukia, IX. koadernoa, 16-18.

Zaragozako setioan hil zirenak

Bonapartetiarren aurkako erresistentziaren atal honetan barne hartu behar ditugu Zaragozako setioan hil ziren 72 eibartarrak[402]. Datuok eskaintzen dituen liburua 1908an argitaratua da, hau da, 1937an eliz artxiboak jasan zuen suntsiketaren aurrekoa. Beraz, Mugicak San Andres parrokiako heriotzen liburutik jasotako informazioa dela suposatu beharko dugu, heriotza horien berri ematen digun beste iturri zuzenik ez dugulako aurkitu. Tamalez, Mugicak ez zituen hildakoen nortasunak bildu, eta zentzu horretan, Aymesen hipotesiak Eibarrerako balio duen ala ez egiaztatzeko aukera galtzen dugu: bonapartetiarren aurkako borrokan bizitzak arriskatu eta eman zituztenak herritar xumeak izan zirela, handikiak, kasurik gehienetan, etxean gelditu zirelako (Aymes, 1986: 17)[403]. Eskuratu ahal izan dugun datu zehatz bakarra honako hau da: 1824an Gipuzkoako Diputazioak hilean 90 erreal ordaintzen zizkien Napoleonen aurkako gerran hildako bi eibartarren alargunei, Nicolasa Apoita eta Concepción Monasteriobideri. Beraien senarrak Jose Zarandona eta Jose Antonio Atxa izan ziren, biak ere eibartar xumeak. Zaragozako setioan hildakoen artean 37 ezkonduak zirela jakinda, arraroa egiten da gainerako alargunentzat diru-laguntzen aipamenik ez aurkitzea.

Lehen momentuko exodoaz gain, eibartar askok herritik alde egin zuen hurrengo urteetan: 1811n udalak herritik kanpo zeuden herritarren zerrenda bidali zion Herrialdeko Kontseiluari; egun berean aitortzen zuenez, frantziarren aldeko "*Zaintza Zibikoa*"n —"*Guardia Cívica*"— ez zuen inortxok ere izenik eman[404]. Beraz, badirudi Napoleonen eskutik heldutako liberalismoak ez zuela jarraitzaile gehiegirik aurkitu Eibarren. 1813an zenbait biztanle preso eraman zituzten Bergarara eta udalak jarri behar izan zuen haiek askatzeko fidantza[405].

Ezkutuko administrazio paraleloa

Bonapartetiarren aurkako erresistentziaren osperik handiena gerrilla taldeetan antolatutako soldadu eta herritarrentzat izan bada ere, Eibarren behintzat beste

402. «En el primer sitio de Zaragoza, unido al heroísmo aragonés luchó el heroísmo de los eibarreses, y juntos ofrecieron guerra a cuchillo al general Verdier. Unidos lucharon también durante el segundo sitio contra los 40.000 capitaneados por Moncey (…) En ambos sitios murieron 36 padres de familia, y otros tantos soldados solteros eibarreses» (Mugica, 1990: 46).

403. Orrialde batzuk aurrerago Napoleonen laguntzaile baten hitzak jasotzen ditu: «Là, comme dans la Vendée de 1793, le peuple seul avait commencé. Les grands, les riches, les autorités civiles, l'armée espagnole même, tout ce qui calculait enfin, tout ce qui avait intérêt à l'ordre et ne concevait de force que la force organisée, tout cela hésita et temporiza». SEGUR, General Conde de: *Un Aide de Camp de Napoléon de 1800 à 1812*, I. liburukia, 385. or.

404. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-3-15.

405. «El señor Alcalde hizo presente, que los seis presos detenidos por el señor comisario de Vergara, piden fianza carcelera para solicitar su soltura, y vean si se podra hacer; y enterados dijeron que se les haga por los señores municipales en nombre de esta villa, y remita» EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-3-25.

mota bateko erresistentzia ere antolatu zela esateko moduan gaude, beharbada ez "*el Rojo*"rena bezain ezaguna, baina ez horregatik eragin gutxiagokoa. GAOn aurkitutako dokumentu bitxi batek azaltzen digunez[406] Eibarko herritarrek —eta horien artean zenbait udalkidek— administrazio paralelo bat sortu zuten, Gaspar Jauregiri eta beste zenbait gudu-talderi laguntzeko. Ezkutuko sare horren zeregin nagusia dirua biltzea zen, gerrilla-jarduerak premiazkoak zituen gastuak ordaintzeko. 1812. urteari zegozkion kontu guztiak txukun-txukun biltzen dira bi txostenetan, eta horietatik ondoriozta dezakegunez, ezkutuko sare hori gudu-taldeen logistikaz arduratzen zen: horniketen garraioak, soldaduen gidariak, espioiak, leku estrategikoen zaintzak, gaixo eta zaurituen ardura, iheslariak ezkutatzea, jantziak egitea, armen konponketa[407]… Horrez gain, "*donativo*"a kobratzeko eta aduanak ezartzeko gaitasuna zeukan, nolabaiteko justizia-zerbitzu sistemarekin batera: Jose Ruizek adibidez 44 errealeko isuna ordaindu behar izan zuen «… por bia de multa de orden del Comandante Tomasa por que no llegaron las raciones a tiempo». Herriko agintariak eurak, behin baino sarriago joan behar izan ziren Gaspar Jauregirekin batzartzera[408]. Eta Eibartik irtendako mezulariak Gernika, Artea, Donostia eta Otxandioraino ailegatzen ziren.

Bi txosten horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit, inoiz ez dudalako antzekorik aurkitu, are gutxiago bonapartetiarrek okupatzen zituzten herrietan. Ohartu gaitezen, administrazio ezkutu hau eratuta zegoela 1812. urterako, hau da, militarki frantziarrek nagusitasun osoa zeukatenean eta teorian behintzat, Eibarko udalerria bera kontrolpean zutenean. Beste alde batetik, azpimarragarria iruditzen zait sareko kideak izen eta abizenekin daudela jasota, bakoitzak emandako zerbitzuarekin batera; zer gertatuko ote zen liburu hori bonapartetiarren eskuetara ailegatu izan balitz? Edonola ere, sarea benetan sekretua izan behar zen, hain zabala izan eta frantziarrak ezertaz ez jabetzeko. Gutxienez 102 pertsonen nortasunak aipatzen dira, horien artean 25 udalkide izandakoak edo izango zirenak. Besteak beste, Gabriel Benito Ibarzabal, Sebastian Argiano, Manuel Antonio Murua eta Manuel Baskaran aurkitzen ditugu Jauregirentzat lanean; ez, ordea, Juan Andrés Laskurain, ezta José Joaquín Suinaga lur-jabeak…

406. «Suministros hechos esta noble villa de Eybar, en raciones de pan, vino, carne y demas que se expresaran por menor a la compañía de D. Gaspar Jáuregui, Comandante Coronel de los Voluntarios de la Provincia de Guipúzcoa; desde la fecha de 26 de Diciembre de 1811 hasta 31 de Diciembre de 1812», GAO, JD IT, 3798A, 35.

407. Adibide gisa, egindako zenbait ordainketa transkribatu ditut: ekainaren 25ean: «A la hija de Maricho laba y a Juana de Arrizabalaga veinte rr. por ocupación en la costura en Elgoibar para voluntarios»; uztailaren 1ean: «Por un resma de papel veinte y quatro rr.»; uztailaren 28an: «A Antonio Doistua diez y ocho rr. por composición de llabes de Fusil de la tropa de Jáuregui»; irailaren 21ean: «A un Espia de Longa, quatro rr»; irailaren 10ean: «A otro guion que fue a Anguiozar, diez rr.»; azaroaren 17an: «A Jose Manuel Sarasqueta quarenta y nueve rr. subministrados a propios que vinieron al Alcalde», GAO, JD IT, 3798A, 35.

408. Ekainaren 10ean: «A Manuel de Murua y a Juan Antonio de Guisasola doscientos cinquenta y ocho reales para gastos quando fueron llamados por Jáuregui a Oñate», GAO, JD IT, 3798A, 35.

Kontuok aztertuta dakigunez, 1812. urtean eibartarrek 141.512 erreal gastatu zituzten Jauregiren soldaduei egindako horniketetan, eta beste 14.951 erreal gainerako zerbitzuetan. Zoritxarrez, ez dugu hurrengo urteei dagokien konturik aurkitu, ziur asko kontu horiek beste txosten batean jaso zirelako. Izan ere, kontuen zerrendak urte ekonomiko osoa barne hartzen du, eta urtarriletik abendura ez da behin ere eteten. Beste arlo batean, bi txosten horiek iturri paregabea dugu 1812. urtean elikagaien prezioak ezagutzeko, eta horien bilakaera: litro-erdi ardok, erreal bat eta erdi balio zuen; ogi anoak berdin; haragiarenak, bi erreal; litro-erdi pattar, 4 erreal eta laurdenetan saltzen zen; alkandorak, 32 errealetan, abarketa parea, 6,3 errealetan… Beste gai batzuen prezioa aldakorragoa da: arto imilauna, adibidez, 3,8 errealetik 4,5era igo zen lehenengo, eta 6ra beranduago; txokolate libra ere 12 errealetik 14ra igo zen.

Bukatzeko, beste herri batzuetan ere antzeko sareak eratu zirela ziurtatzeko moduan gaude. Eibarri buruz azaltzen denez, ekainaren 10ean 436 erreal ordaindu zizkioten Manuel Antonio Muruari «… por gastos de Juntas a Oñate y Azcoitia»; beraz, eibartarrak ez ziren izango ezkutuko administrazio bezala eratuta Jauregirekin kolaboratzen zuten bakarrak. Ordurako, 1808 aldera Gipuzkoako agintariek —Soroak eta Telleriak— sortu nahi izan zuten sare klandestinoaz gain, estatu mailako erresistentzia ere geroz eta koordinatuagoa zegoen[409].

ZORRETAN ITOTA

1808ko Batzar Orokorretan, Thouvenot jeneralak eskatutako bi milioi erreal banatu ziren Gipuzkoako udalerrien artean, eta Eibarri 4.501 erreal ordaintzea egokitu zitzaion. Kopurua oso altua ez izan arren, udalaren diru-kutxan ez zegoen horrenbeste dirurik, eta auzokideen batzarrak nahiago izan zuen herri-lurrak hipotekatzea biztanleen artean zerga berria banatzea baino[410]. Aurrerago ikusiko dugu nortzuk izan ziren erosleak, eta zein neurritan. Momentuz, 1808ko ekainerako, beste aukera batzuk albo batera utzita, gerraren gastuak herri-lurren salmentaren bidez ordaintzea erabakita zegoela da aipagarriena. Gerra hasia baino besterik ez zen, eta beharbada batzuek aspalditik gutiziatzen zituzten lurrak eskuratzeko profitatu zuten abagune hori. Alkatea, sindikoa eta peritua izendatu zituzten lurren tasazioa aurrera eramateko.

409. «… a partir de 1812 fue organizado en las Provincias Vascongadas un cuidado dispositivo institucional y militar destinado a coordinar la lucha armada. Esto se enmarcaba en un plan general para toda la monarquía de creación de Juntas superiores provinciales encargadas, por decreto de Regencia de 25-I-1811, de organizar reclutamientos, avivar el espíritu público, ayudar a las tropas, circular órdenes de la Regencia y cuidar de lo económico y gubernativo en los territorios a su cargo» (Rubio Pobes, 1997: 118).

410. «… que se vendan en publica almoneda los montes conzegiles de esta Noble villa, y quando no ubiese compradores de ellas sus tierras labrantias equibalentes a las contribuciones que la correspondan y gastos anejos que originasen» EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-6-17.

Udal-ogasuna jada zeharo makalduta aurkitzen zen, eta bonapartetiarren inbasioak eragindako zorrak hankaz gora jarri zuen. Uriartek bi fase bereizten ditu: «… alde batetik 1793tik 1807ra, bere baitan krisi batzuk zeuzkan antzinako egiturak guda mugatu baten gastua eskuratu eta aurre egin behar izan zion. Ondorio gisa, herrietako egitura bai politikoa, bai ekonomikoa, bai instituzionala e.a. berrindartuta atera zirela esan dezakegu. Beste aldetik, 1808ko guda eta ondorioak agertzen zaizkigu, bestelako ondorioak sortaraziz. Kasu honetan (…) guda negozioetan aritutako zenbait pertsonak euren egoera sendotu zuten, erakunde berriek zein zaharrek lagunduta» (Uriarte, 1998: 18).

Gudarosteen horniketak

Buruhausterik handiena horniketak bermatzea izaten zen. Zeregin horretarako udalak José Joaquín Suinaga, Antonio Ibarra eta José Antonio Erbiti izendatu zituen «… ocupados en el apronto de los articulos de requisiciones»[411]. Hainbat lekukok baieztatzen dutenez mila gurditik gora bidali ziren, Arrasaterantz horniketekin, eta Bergararantz zauritu eta gaixoekin. Garraioa bermatzeko, inguruko herrietatik —Markinatik, Elgoibartik eta Soraluzetik— ekarritako 30 gurdi baino gehiago pilatzen ziren Eibarren sasoi batzuetan. Erbiti "*munizipalidad*"-eko buruak zioenez: «… este pueblo, a quien represento, ha hecho un servicio extraordinario con respecto a su circunstancias y fatal estado de sus individuos, supliendo quanto ha sido necesario de raciones completas, pan, carne, vino, forrage, alojamiento, intérprete, viéndose precisado a echar mano de quantos arbitrios, medios y empeños se habia de proporcionar»[412]. Horniketen arloan guztira zenbat diru gastatu zen jakitea ezinezkoa da, baina 1813ko lehen hiru hilabeteetan emandakoaren arabera kalkulu xume bat egin dezakegu. Epe horretan 48.427 errealen balioko horniketak banatu zituen frantziar eta espainiar gudarosteen artean (Uriarte, 1998: 88); beraz, urtean gutxi gorabehera 200.000 erreal, eta bost urtetan (1808-1813) milioi bat erreal inguru.

Beste era bateko gastuak noiznahi sortzen ziren: adibidez, soldaduei ostatua emateko udaletxe zahar eta ospitaleko eremuetan etxe bat eraiki behar izan zuen udalak, 13.056 errealeko gastuarekin. Arantza Otaeguik aipatzen duenez, baserritarrek euren idi eta gurdiak garraio militarretarako uzten zituztenean, normalean ez zituzten berreskuratzen, eta nahiago izaten zuten beren ganaduekin ospa egin eta urruneko mendietan errari ibili. Napoleonen aurkako gerratean buruturiko aurrerakin eta horniketa asko ez ziren inoiz itzuli edota ordaindu. Hori zela eta, horniketen arduradunek eta mailegariek erreklamazio pila bat bideratu zuten administraziora. Baserritarrek ere, kobrantza gaitzak jasaten zituztenean ez zuten normalean

411. GAO, JD IM 1/17/68, 1810. Suinaga eta Ibarra 90 egun egon ziren lanean, eta Erbiti 24. Egun bakoitzeko 10 erreal kobratzen zutenez, 2040 erreal ordaindu zizkieten guztira.

412. GAO, JD IM 1/17/68, 1810.

ordainketa-agiririk jasotzen, eta ondorioz, galdutako ondasunen zati txiki bat baino ez zuten berreskuratzen (Otaegui, 1991: 38, 39).

Fruitu zibilen gaineko % 3ko zerga

Horniketak bermatuta ere, Gipuzkoako herriek frantziar administrazioak ezarritako zergak ordaindu behar izan zituzten. Isabel Mugarteguik hiru motatako zergak bereizten ditu: gerra-egoerari lotutako zergak, zerga berriak eta "berehalako" zerga[413]. Zerga berriak zerga zuzenak ziren, hau da, bakoitzak zuen aberastasunaren araberakoak. Beraz, maizterrek ez zeukaten ezer ordaindu beharrik, eta lur-jabeak bakoitzaren lur-ondasunen arabera zamatzen zituzten. Lehen zergak —1808an ezarri zen— zeuzkaten jabetzen balioaren % 3 ordaintzera behartu zituen Gipuzkoako lur-jabeak. Eibarri buruzko datuak Jose Maria Uriartek bildu ditu, eta guk horiek erabiliko ditugu: 41 pertsonak ordaindu behar izan zuten, baina alde handia dago gehien ordaindu zuenetik —Santa Kruzeko markesak 9290 erreal— gutxien ordaindu zuenera —Manuel Antonio Muruak, 414 erreal—. Datu horiei esker jakin dezakegu zein baliotako ondasunak zituen lur-jabe bakoitzak guztira, 33,3gatik biderkatuta: Santa Kruzeko markesak 309.600 errealeko lursailak zituen, eta Manuel Antonio Muruak 13.800ekoak.

Edonola ere, kontuan hartzekoa da datu hauek gerraren hasierakoak direla, gerra bukatu zenerako batzuen ondasunak zeharo hazi zirelako, beste batzuenak mantendu edo murrizten ziren bitartean. Kapituluaren bukaeran 1808ko zerga ordaindu behar zituzten lur-jabeen nortasunak agertzen dira, bakoitzaren ekarpenarekin batera. Datu horien arabera, Eibarko udalerriak 115.183 erreal ordaindu zituen, eta kopuru hori Isabel Mugarteguik eskaintzen duenaren antzekoa da: 113.968 erreal (Mugartegui Eguia, 1990: 227). Beraz, nahiko datu fidagarrien aurrean gaudela uste dut, eta funtsezkoak izan daitezkeenak Eibarko lur-jabeen ondasunen bilakaera aztertzeko orduan.

---

413. Bonapartetiarren inbasioan zehar Gipuzkoako herriek jasan behar izan zuten presio fiskala Isabel Mugarteguik ikertu du (Mugartegui Eguia, 1990: 223-237). Mugarteguik hiru fiskalitate mota bereizten ditu: «El mantenimiento de las tropas francesas y de las aliadas, luego, de ambas a la vez, hizo necesario el establecimiento de unos mecanismos de financiación que dieron origen al surgimiento de una "*fiscalidad de guerra*", sustentada en imposiciones de carácter extraordinario… paralelamente una "*fiscalidad novedosa*", a raíz de la gran profusión de figuras contributivas de naturaleza directa, que se combinaron con imposiciones indirectas y con otros medios de obtención de ingresos: "más arbitrios sobre consumos; repartimientos y derramas de viejo estilo, contribuciones sobre la propiedad territorial y urbana, sobre las rentas municipales y de particulares laicos o eclesiásticos, contribuciones especiales de la Iglesia y del comercio". A la "fiscalidad de guerra y novedosa" vino a agregarse aquella denominada por Fontana de "*inmediata*", que se tradujo en suministros aportados por los municipios al ejército; suministros que no sólo derivaron en el servicio diario de raciones para los soldados, sino también en aquel prestado por los guipuzcoanos mediante el sistema de bagajes».

Oro har, informazio argigarria atera dezakegu Uriartek eskaintzen digun zerrendatik. Batetik, zerrenda osatzen duten 41 lagunetatik 20 guztiz ezezagunak ditugu; hau da, ez dira orain arte landutako zerrendetan agertu: ez udalkide gisa, ez soldadu modura, ezta desamortizatutako lurren erosle legez; beraz, 1808an Eibarko lur-jabeen erdiak herritik kanpo bizi zirela ondoriozta dezakegu. Bestetik, lur-jabetzarik ez eduki arren udal-karguak bete zituzten eibartarren kopurua benetan zabala izan zela egiazta dezakegu: hau da, auzokide hautagai izateko beharrezkoa zen bigarren baldintza ez zela zehatz mehatz betetzen. Azken hau, aurkikuntza garrantzitsua iruditzen zaigu eta azpiatal berezi batean landuko dugu.

Lur-jabetzaren baldintza: "vecinos millaristas"

1780-1809 bitartean kapitularrak izan ziren 64 auzokide hautagaietatik 14 baino ez ditugu aurkitzen 1808ko lur-jabeen zerrendan. Abizenei erreparatuz gero, lur-jabe legez agertzen dira agirretarrak, Areitio, Bergara… Baina Abanzabalegi, Aldekoa, Bustindui eta beste hainbat abizen ez ditugu aurkitzen zerrendan, horietariko batzuk alkate-karguan birritan eta hirutan aritu arren…[414]. Eibarren zeuden lur-jabeak soilik 1808ko zergan agertzen direnak zirela ondorioztatu behar badugu, benetan harrigarria litzateke lur-jabe izan gabe udal-karguak bete zituzten eibartarren kopurua. Uriartek 1814. urteari buruz dioenez, Eibarko 213 auzokide ez ziren euren baserriaren eta lurren jabeak, eta 84 baino ez ziren hizpide eta hautespideko auzokideak[415], hau da, etxe buruen laurdena ziren, gutxi gorabehera, antzinako "berdintasuna" gozatzen zutenak: «Herri hauetako oinarri ekonomikoa eta soziala giza talde honetan zeutzan. Hauxek baitziren udalaren bidez herrietako eredu eta antolatzaileak» (Uriarte, 1998: 72).

Gerraren eraginez nekazaritza-egiturak porrot egin zuen: gutxiago ekoitzi arren prezioek behera egin zuten, merkatu nazionalaren eraginez, beste nonbait uzta sobera eta merkeago biltzen baitzuten. Horrek ez zuen maizterren —eta, oro har, nekazaritza-errenten menpe zeudenen— alde jokatzen. Horietarik gehienek nekazaritza zaharrari lotuta jarraitzen zuten eta ez zeukaten ahalmen teknikorik, ezta ekonomikorik, nekazaritza-sistema birmoldatzeko, landatzen zituzten lurrak erosteko gaitasunik ere ez zuten eta. Baina garai bereko akta batek dioskunez, egon bazeuden, zenbait nekazari, maizterrak izan arren, ekonomikoki lur-jabe txikiak baino indartsuagoak zirenak[416]. Beharbada, nagusitasun ekonomiko horren isla da

414. 1780-1809 bitarteko kapitularren zerrenda osoa kapituluaren bukaeran aurkituko duzue, bakoitzak bete zituen udal-karguen aipamen zehatzarekin.

415. Uriartek kalkulatutako kopuruarekin bat dator 1808ko maiatzaren 30eko auzokideen batzarrean parte hartu zuten 65 auzokideren kopurua, batzuk ez zirela joango kontuan hartuta.

416. «En atencion a que varios colonos caseros de casas mayores tienen más disposición que algunos propietarios de casas menores para cumplir con este acuerdo los comisionados que abajo se nombrasen tendrán consideracion de exijir a cada una fanega de maiz a los inquilinos de casas mayores y media a los propietarios de casas menores» EiUA, A,1,1,8, *Akta Liburuak (1798-1808)*, 1808-10-10.

maizter indartsuenei —eta zenbait armagini— eskubide politikoak onartzeko joera, nahiz eta foru-erregimenean lur-jabetzaren —"*millares*"— baldintza ezinbestekotzat jo auzokide hautagaien taldean onartua izateko. Arlo honetan, badirudi ikuspegi-aldaketa bat zertzen ari zela, eta Eibarko udalkideak jabetza baino errenta gehiago balioesten hasiak zirela. Malgutasun horren alde jokatuko zuen udal-araudien gabeziak: 1800ean adierazi zenez, araudia berriz egitea erabaki zen, zeren «… únicamente se regían por costumbres establecidas»[417]. Eibarko Udalak hartu zuen bidea zeharo aldentzen zen foru-araudiak zioenetik, eta interesgarria litzateke Gipuzkoako udaletan antzeko joerarik egon zen aztertzea.

Beharbada, lur-jabeak ez ziren biztanleak udaleko ohorezko karguetarako izendatzeko joerak zerikusia dauka fenomeno batekin: goi-mailako aristokrazia lur-jabeak —Eibarren, Santa Kruzeko markesak, adibidez— ez zuen zuzenean parte hartzen herriko erabakietan, ezta bozketetan ere. Euren negozioak korrejidorearen inguruan eta Erregearen gortean konpontzen zituzten (Uriarte, 1998: 63). Beste muturrean, Lege Zaharrak uste duguna baino hobeto babesten zituen maizterren eskubideak: Elgoibarko udal-araudiak zehazten duenez «… ni por falta de escrituras de arrendamiento ni por otro motivo que no sea culpa grave y declarada por tal justicia pueda ser excluido inquilino alguno de las caserias» (Uriarte, 1998: 63). Baina egoera kontraktual horrek bizirauteko gutxieneko baldintzak baino ez zituen bermatzen, eta erregimen zentsitarioak, desamortizazio-prozesuan parte hartuz, ekoizpen-egitura birmoldatzeko gai izan ziren maizterrak baino ez zituen onartuko.

Gipuzkoako kapitalistei ezarritako zerga

1808ko azaroan Gipuzkoako Diputazioak zerga berezi bat ezarri zien Gipuzkoako kapitalistei, «… divididos en ocho clases desde 8.000 ducados de renta a mil ducados segun prudencial concepto» (Zufiria, 1915: 567-571). Guztira 276 lur-jaberen izenak agertzen dira, Gipuzkoako aberatsenak, alegia. Horien artean, Eibarko bost familia eta erakunde aurkitzen ditugu: Santa Kruzeko markesa, laugarren kategorian, 5000-6000 dukat bitarteko errentarekin (dukat bat, 11 erreal ziren); Zumaran familia, bosgarren kategorian, 4000-5000 bitartekoarekin; eta zortzigarren kategorian, 1000-2000 bitartekoarekin, Juan Andres Laskurain, Isasiko mojak eta "*las Franciscas*". Beraz, ez da ulertzen zergatik ez den agertzen Juan Andres Laskurain Uriartek jasotako zerrendan.

GAOn, kapitalista horiek egin zituzten helegiteak aurkitu ditugu, guztiak ere diputazioak ezarritakoa baino errenta txikiagoak gozatzen zituztela azaltzen. Era berean, informazio interesgarria eskaintzen digute zenbait pertsonaiari buruz. Santa Kruzeko markesaren administratzaileak zioenez «… no solamente no tiene fondo

417. 1754 eta 1758an onartutako araudiak aipatu ostean, Mugicak hauxe dio: «Debió perderse pronto el recuerdo de todas estas ordenanzas; así parece, por lo menos, deducirse de lo que se dijo en sesión de 26 de Enero de 1800; en ella se pidió que se hicieran ordenanzas, porque no las había, y únicamente se regían por costumbres establecidas» (Mugica, 1990: 208).

alguno de sus rentas sino que me hallo yo en descubierto de muchos milles (sic) de reales (…) pues ni las Misas que estos siete meses se han celebrado diarias al capellan no se la han podido pagar»[418]. Zumaranek bere errentak mila dukatekoak zirela argudiatu zuen, bostgarren kategorian barik, zortzigarren kategorian barne hartzea eskatuz[419]. Bere testigantzari esker dakigu Perutik itzuli ostean "*indianoak*" merkataritza-enpresa bat sortu zuela Cádizen, ustez behintzat, kontinente berriarekin merkataritza-harremanak mantentzeko; baina komertzio hori zarratuta zeukan 1805. urtetik, Trafalgargo hartatik, hain zuzen. Isasiko mojak ez zeuden ordaintzeko moduan, errazio erdiarekin mantentzen baitziren[420], «… y aun si ha de subsistir asi a tenido y tiene que pedir Dinero a Fiado a varios bienhechores suios, para atender a este corto e infeliz diario».

Juan Andres Laskurainek eta bere emazteak —Bibiana Ibarzabalek— ere helegitea aurkeztu zuten, baina bakoitzak bere kabuz. Laskurainek zioenez, ez zuen gozatzen 1.000 errealeko errentarik, eta zerrendan agertu izana bere arerioei egotzi zien[421]. Lau hilabete beranduago bere jabetzei buruzko datu gehiago eskaini zituen, gehienak bere ama, arreba eta emazte ohiarenak ere bazirela azalduz[422]. Helegitean ematen dituen azalpenak bat datoz guk darabilgun informazioarekin, eta beste zenbait datu eskaintzen dizkigu: adibidez, Laskurainek seme-alabak izan zituela bere lehen emaztearekin, Konbentzio Gerran Getarian hil zen mutrikuarrarekin, hain zuzen. Bibiana Ibarzabalen jabetzei zegokienez, horrek bere kontura administratzen zituela gaineratu zuen. Ordurako, Gipuzkoako Diputazioak bideratuta zeukan bere emaztearen aurkako eskakizuna, Laskurainek ordaindu behar zituen 1.500 errealen erdia eskatzeko. Bibiana Ibarzabalek erabaki horren aurka helegitea aurkeztu zuen, senar-emazteen jabetzak ezin zirela banatu argudiatuz[423]. Beraz, senar-emazteek

418. GAO, JD IM 2/1/11, 1808-12-20.

419. Zumaranen helegitea Gipuzkoako jauntxo lur-jabeek jasaten ari ziren presio fiskalaren adierazgarria da: «Que ha tenido que suplir los seis y quatro reales, que se exigen, por persona, correspondientes a los individuos de todos sus inclinos (sic) , y las dos terceras partes de la propiedad rural de ellos, los cien reales que como a vecino se le exigen, y otras pensiones con que está gravado», GAO, JD IM 2/1/11, 1809-3-8.

420. GAO, JD IM 2/1/11, 1808-12-29.

421. Diputazioari azaltzen zion modura, «… no ignorara que todos tenemos algunos descontentos, y es causa de serme alistado, por lo que suplico a VS me exima de la citada contribucion», GAO, JD IM 2/1/11, 1808-12-25.

422. «No tiene pues sino cinco mil rr. que le produze anualmente quando pintan vien las viñas la acienda que administra de los hijos de su primer Matrimonio, las que existen en las villas de Motrico y Azcoitia; la caseria de Irarragorri radica en jurisdiczion de esta villa perteneze al exponente despues de su Madre viuda, quien disfruta por su vida la mitad de su usufruto, y la otra mitad su hermana Teresa de Lascurain en calidad de reyntegro de su Dote; En cuia atencion y en la de que tampoco posee su mujer hacienda alguna alomenos (sic) que administre el exponente…», GAO, JD IM 2/1/11, 1809-4-25.

423. Bibiana Ibarzabalen esanetan «… se ve con la novedad de que se le quiere exigir con separacion la mitad de los enunciados mil y quinientos reales, quando es notorio, que durante consorcio por la sociedad legal existente entre los conyuges, son comunes todos los frutos, reditos y emolumentos,

kontrajarritako argudioak erabili zituzten, helburu berdina lortzeko: zerga ez ordaintzea, azken finean. Familia barruan adostutako estrategia izan zen ala ez, jakin gabe gelditzen gara. Edonola ere, ez da oharkabean igarotzekoa Bibiana Ibarzabalen eskakizuna bere seme Julian Kortesenak sinatu zuela.

Atal honi bukaera emateko, Ibarzabal-Pagaegi familiaren kasua aipatuko dugu. Hauek ez dira agertzen Gipuzkoako kapitalisten zerrendan, baina beraien helegitea gainerakoen txosten berdinean aurkitu dugunez, nola edo hala, zerga ordaindu behar zutenen artean sartu zituztela ondorioztatu dugu. Arestian aipatu denez, familiako burua —Ignacio Maria Ibarzabal— 1808ko martxoan hil zen, eta Maria Agustina Pagaegi —bere alarguna— zortzi seme-alabekin gelditu zen, «… todos de tierna edad». Pagaegiren testigantzak aditzera ematen zuenez, Ignacio Maria Ibarzabalek ez zeukan lur-jabetzarik, eta bere familia mantentzeko «… no tenía otra renta ni arvitrio, que su sudor, y trabajo en la construcion de armas, por cuia cesacion me hallo atenida para la manutencion mia, y de mis hijos a los 908 reales que ascienden las rentas de dichas fincas y a lo que puedo redondear de algunos creditos que dejo el difunto»[424]. Gainera, bere senarrak utzitako mailegu horiek berreskuratzeko aukerarik ez omen zeukan, «… por la falta de circulación de la moneda sonante». Beraz, ez zuen ulertzen zergatik sartu zuten zortzigarren kategorian, eta zergaren lehen zatiak ordaindu bazituen ere —«en inteligencia de que seria unica contribucion»—, zergatik aske gelditzea eskatu zion Gipuzkoako Diputazioari. Kasu honetan ere, herrialdeko erakunde gorenaren erantzuna zein izan zen jakin gabe geldituko gara. Edonola ere, bere helegiteak datu interesgarriak eskaintzen dizkigu Ibarzabal-Pagaegi familiaren bilakaera ekonomikoari buruz, are gehiago haien seme nagusia —Gabriel Benito Ibarzabal— Eibarko liberalen aitzindarietako bat izan zela kontuan hartuta.

Maileguen korrituak itzuli ezina

1811ko urtarrilean herrialdeko eta herrietako ekonomia gerra-gastuak ukituta zegoen. Aurreko urteetako horniketak bermatzeko dirua mailegatu zutenek kobratzen hastea eskatu zuten. Baina, dirurik ez zegoen. Eibarren, Jose Ramon Mendiak aurreko urtean mailegatutako 60.000 errealen korrituen ordainketa lortu ezinean, bahiturarekin mehatxatu zuen udala[425]. Baina bahitura horiek gauzatuz dirua bihurtzea ez zen lan erraza. Uriartek dioenez «Herrietako ekonomia kolapsora zihoan arren Thouvenotek 3.759.625 erreal banatu zuen Gipuzkoako Probintzian 1811.ean. Eibarko herriari 30.912 erreal zegokion lau epetan ordaindu ahal izanik: martxoa, apirila, maiatza eta ekaina. Udalak dirurik ez zeukanez eta inor aurreratzeko

y que el marido como carezca de dicha sociedad los recauda, goza y Administra aun los bienes propios de su Mujer, y por lo mismo debe pagar, y satisfacer toda contribucion, y carga, que en cualesquiera manera se exija por razon de dichos bienes», GAO, JD IM 2/1/11, 1809-1-5.

424. GAO, JD IM 2/1/11, 1809-4-14.

425. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-1-28.

prest ez zegoenez lur jabetzaren gaineko banaketa egitea erabaki zuen» (Uriarte, 1998: 271).

Hurrengo urtean presio fiskala areagotu baino ez zen egin: Arantza Otaeguik dioenez, 1812an Gipuzkoan bildu behar zen zerga kopurua (11.189.288 erreal) herrialde guztiko errentaren (9.180.000) % 122ra ailegatu zen (Otaegui, 1991: 33). Ikusiko dugunez, gerrak eragindako likidezia-gabezia horrek[426], deskapitalizazio bortitz horrek, eragin garrantzitsua izan zuen sinkronikoki gertatzen ari zen beste fenomeno batean: herri-lurren desamortizazio-prozesuari buruz ari gara.

HERRI-LURREN DESAMORTIZAZIOA

Desamortizazioaren eragina Eibarren

Espainiako Independentzia Gerrak behin betiko bultzada eman zion Konbentzio Gerraren ostean hasitako desamortizazio-prozesuari. Kasu honetan ere ez dago Eibarri buruzko daturik GAOn gordetzen den txostenean. Baina oraingoan, 1808-1810 bitartean burutu ziren herri-sailen salmentari buruzko datuak aurkitu ditugu Eibarko udal-artxiboan, erosleen nortasunarekin eta lursail bakoitzarengatik ordaindu zuten diru kopuruekin[427]. Datu horiei gehitu dizkiet Antxon Aguirre Sorondok Eibarko baselizen ondasunen desamortizaziori buruz eskaintzen dizkigunak (Aguirre, 1996: 98-144), eta bakarka agertu zaidan beste erosketaren bat edo besteri buruzkoak. Zerrenda osoa kapituluaren bukaerako eranskinean aurkitu dezakezue.

Guztira, 255.546 errealen balioko herri-lurrak saldu ziren. Horrek huskeria bat dirudi, inguruko herriei buruz darabilgun kopuruekin alderatzen badugu, baina kontuan hartu behar dugu 1811-1814 epeari buruzko daturik ez daukagula, eta beharbada urte horietan burutu zirela erosketarik gehienak. Arantza Otaeguik bi fasetan banatzen du bonapartetiarren garaian gauzaturiko desamortizazio-prozesua, horietako bakoitzean desamortizatu zen lur kopurua parekoa izango zela zehaztuz (Otaegui, 1991: 54). Beraz, darabilgun kopurua gutxienez bikoiztu egin beharko genuke 1808-1814 epean zehar, gutxi gorabehera, Eibarren desamortizatu ziren lurren balioa jakiteko, 500.000 bat errealetan ezarriz. 1808-1811 bitartean erosketarik gehienak efektiboan ordaindu ziren, eta 1811-1814 bitartean, herri-lurrak gerrazerga bereziak ordaindu zituztenen artean banatu ziren.

1808-1814 bitartean Deba bailarako herri batzuetan saldutako herri-sailen balioa, errealetan:

426. «… guda urteetan herri hauetako biztanleria deskapitalizatu egin zen (…) alde batetik ejertzitu/gobernuek ezarri zituzten kontribuzioen bidez eta beste aldetik ejertzituek beraiek beren kabuz eskatzen zituzten kobru gaitzen bidez» (Uriarte, 1998: 56).

427. EiUA, C,1,1: «Fincas vendidas desde 1º de Enero de 1808 pertenecientes a la misma, o cuios fondos haian entrado a su disposición haste el 31 del mes de Agosto de este año de 1810».

Deba	Elgoibar	**Eibar**	Soraluze	Bergara	Arrasate
2.475.390	1.766.750	**500.000**	83.068	1.825.530	602.872

Inguruko herriekin alderatuta, Eibarren saldutakoaren kopuru absolutua Deba, Bergara edota Elgoibarren azpitik dago, baina kontuan hartzekoa da udalerri horien azalera ere Eibarkoa baino handiagoa dela, eta ondorioz, salmenten eragin erlatiboak parekatuagoak geldituko liratekeela. Gainera, kopuru absolutuetan, aipatu hiru udalerriok Gipuzkoako lehen hiru postuetan daude, eta Eibar —500.000 errealeko kopuruarekin— 19. postuan aurkituko litzateke, Arrasateren ostean, hain zuzen. Otaeguiren kalkuluen arabera, Gipuzkoako herrialde osoaren % 10 saldu zen 1808-1814 bitartean, eta hala ere, lortutako dirua ez zen gerrak eragindako zorra ordaintzeko nahikoa izan (Otaegui, 1991: 40, 41).

Salmenten prozedura

Salmentak gauzatzeko prozedura zehatza Elgoibarreko Batza Orokorretan —1808— ezarri bazen ere, salmentak gauzatzeko eskuduntza herri mailako agintarien esku gelditu zen neurri handi batean, eta Otaeguiren ustez, hainbat bidegabekeria burutu ziren agintarien esku-hartzearen ondorioz. Araudiaren arabera, saldu beharreko lurrak herritarrak ez ziren peritu bik tasatu behar zituzten[428]. Tasazioaren prezioa ezin zen izan produzitzen zuten errenta 18gatik biderkatuta baino txikiagoa, eta erreматearena, tasazioaren bi herenak baino txikiagoa. Eta nahitaez enkante publikoan saldu behar ziren. Baina ustelkeria egon, bazegoen[429].

428. Baldintza hau ez zen beti bete. Juan Andres Laskurainek, adibidez, Gorostietako Madalena baselizako ondasunak tasatu zituen (Aguirre, 1996: 98-100). Beste behin, Berrizeko lur batzuk neurtzera deitu zuten, eta neurketa horren emaitzei buruzko dokumentu bat aurkitu dugu Eibarko artxiboan, Laskurainek sinatuta. Idatzi honetan aurkitzen ditugun zirriborroek adierazten digute tasazio hauek denbora-gabeziak baldintzatuta burutu zirela, eta ondorioz, ez zirela guztiz fidagarriak izan: «declaro (~~Digo que soy de sentir que las piedras grandes que se hallan con cruces en dicho termino de Erlaorgana, estan en lugar de mojones; como igualmente la Piedra inmediata divisera con tres piedras segun direccion, sus vestijios, o senales de tejar~~, que dicho mojon es verdadero porque se halla con tres piedras directibas segun artte y señales de tejar, por lo que ~~resulta que~~ los chanteles deben de seguir hasta la Cumbre del monte segun direcccion de la Loma y mojon…». EiUA, C,1,1, 1811-9-20.

429. «Los fraudes más comunes se cometían en la medición de los terrenos y en la tasación de los edificios concejiles, operaciones que con frecuencia eran realizadas por los mismos cargos locales. Este tipo de irregularidades eran muy difíciles de ocultar y fueron motivo de numerosas reclamaciones (…) Las corporaciones municipales justificaban estas irregularidades alegando que, en las críticas circunstancias de la guerra, las enajenaciones de bienes "… se hacían para buscar, en el momento mismo, dinero con que ocurrir a los pedidos que en horas y momentos antes hacían los que tenían la bayoneta en su mano» (Otaegui, 1991: 41-42). 1844ko udalkideek onartzen zutenez, «… hay datos fundados para creer que el valor que les dio en tasacion fue sumamente inferior al que tenian» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1844-7-24.

Eibarren, desamortizatutako lurrik gehienak tasatutako prezioan saldu ziren. Hiru kasutan, erosleen eskaintzek tasazioa gainditu zuten: beste seitan, udalerriaren ondasunak tasatutakoaren azpitik saldu ziren. Bederatzi kasu horiek hurrengo taulan agertzen dira islatuta, eta ikusten denez, lehen hiru salmentekin udalak tasatutako baino 1.221 erreal gehiago lortu bazituen ere, hurrengo seietan tasazioek ziotena baino 33.706 erreal gutxiago eskuratu zituen. Beraz, orokorrean, Eibarko udal-ondasunak tasatutako balioaren % 12,8 azpitik saldu zirela ondoriozta dezakegu. Ohartzen bagara, tasazioen azpitik egindako salmenta gehienak baserrienak dira, garestienak zirelako. Lurrak zatitu ahal ziren saltzeko, baina baserriak ez. Hori zela-eta, zaila izaten zen horrenbeste kapital zeukaten erosleak aurkitzea, eta udaletxeak diru-premiak estu hartuta zeudenez, proposamen hauek onartu beharrean aurkitu ziren.

1808-1810: Eibarko herri-lurren salmenta. Tasazio- eta salmenta-prezioak bat etorri ez ziren kasuak.

Eroslea	**Ondasuna**	**Tasazioa**	**Salmenta**
Andrés Mandiola	*Heriagaburu*ko mendia	1229	1589
José Mandiola	*Abuaga*ko luberrien zati bat	621	669
José Mugertza	*Gastañavieta*ko gaztainadia	2487	3.300
Francisco Etxeberria	Arranomendiko luberrien zati bat eta *Casterocu*an bi lursail	3852	2814
Nicolas Aranberri	San Martingo baserria	12414	10050
Francisco Martin Aranguren	Magdalenako baserria	13923	10574
Pedro Antonio Iraegi	Arrateko abeletxea	19.827	13.218
Jose Joaquin Suinaga	*Acondia* eta *Pachuenea*ko baserriak	36234	29360
Gabriel Ibarzabal Pagaegi	Larrañeta eta San Romaneko baserriak	51692	34871

Tamalez, guk erabilitako iturriak ez du zehazten salmenta-operazioen data, baina ziur asko tasazioen azpitik saldutako ondasunak 1808-1810 epearen bukaerarantz burutuko ziren, hain zuzen ere, diru-kutxak agortuta, udalek azken ordura arte gordetako jabetzarik preziatuenak nahitaez saltzera derrigortuta ikusi zirenean. Testuinguru horretan, Iraegi eta Ibarzabalen proposamenek legea betetzeko apropos eginak dirudite, Iraegirenak tasazioaren bi herenak eskaintzen zituelako (erreal bat ere ez gehiago, ezta gutxiago), eta Ibarzabalenak ozta-ozta gainditzen zituelako. Beraz, horrek biok behintzat, ondo baino hobeto ezagutzen zituzten herri-lurren salmentei zilegitasuna emateko jarraitu beharreko arauak.

Azaldu denez, desamortizazio-prozesu guztia deskapitalizazio-abagune batean burutu zen (Uriarte, 1998: 56). 1811. urtearen hasieran Francisco Etxebarria diruzainak aitortzen zuenez, «… no se hallan caudales en su poder, ni apareze comprador

de los pocos terrenos que existen …»[430]. Lur-jabe handienek ez zuten erosketetan parte hartu, itxura denez ez zekitelako, behin gerra bukatuta, Napoleonen garaian egindako erosketak onartuko ziren ala ez. Nahiago izan zuten dirutan kobratu, utzitako maileguak berreskuratzeko era bakarra lur horiek onartzea zela ikusi zuten arte[431]. Jabe horiek nahiago zuten zorra kontsolidatu, haren truke lurrak jaso baino.

Udalak, saldutako lurrak efektiboan kobratu nahi zituen[432], baina ez zenez eroslerik aurkezten, lurra debaluatzen, hau da, balioa galtzen hasi zen, «bi arrazoirengatik: lur asko zegoen salgai eta diru gutxi zegoen erosteko». Uriartek azaltzen duenez: «Tasazioek hiru une ezberdin izan zuten Elgoibarren Udalaren ekinbidetik: hasieran, 1810ean gutxi gorabehera, frantziar aginduaren menpe 18 aldiz urteko lur errentaren balio eman zioten; 1811rako laurdenarena eta osteko herenaren jaitsiera sofritu zuten. Hain zuzen ere, 1810ean 100 erreal balio zuen lur zati batek 1812an 50 erreal baino ez zuen balio» (Uriarte, 1998: 275)[433]. Hona hemen, herrilur guztiak salduta ere, udal batzuek gerra-zorrari aurre ezin egin izanaren arrazoia. Udalak inolako ordena eta planifikaziorik gabe eskaini zituen lurrak, eta espekulatzaileek abagune hori aprobetxatu zuten[434]. Guk aztertu dugun zerrendan, erosle nagusiak zerrendaren bukaeran agertzen dira, eta zerrenda horren egileak, operazioen data ez zehaztu arren, gutxienez ordena kronologiko bati jarraitu bazion, bi urte horietan zehar lurrak debaluatzen joan zirela ondoriozta dezakegu. Gainera erosketa horiek, tasazioen azpitik egin zirenen artean, multzo esanguratsuena dira. Fenomeno hau Uriarteren hipotesiarekin bat dator. Zentzu horretan, gehien zain egon zirenak izan ziren debaluazio-abaguneari etekin handiena atera ziotenak.

Salmentarik gehienak zein modutara gauzatu ziren jakiteko informaziorik ez daukagun arren, Aguirre Sorondok datu batzuk eskaintzen dizkigu irudikatzeko nola txertatu ziren baselizenak zirkuitu komertzialean. Joaquin Suinagari —zergabiltzailea izateaz gain obren kontratatzailea ere bazenari—, adibidez, hilerri berria egiteagatik dirutan ordaindu ezinean, 1809ko maiatzean udalak 135 posturako lurrak eman zizkion *Aurrekoaldekolandaretan* edo *Kortaondon* (Aguirre, 1996: 37).

430. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-1-9.

431. Otaeguiren esanetan «… algunos acreedores que, en principio, no estaban interesados en la compra de bienes, la aceptaron como única opción para recuperar el importe de los anticipos efectuados» (Otaegui, 1991: 59).

432. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-3-29.

433. Mutiloa Pozak datu berdinak eskaintzen ditu (Mutiloa, 1982: 274 eta 265-269).

434. «… uno de los efectos inmediatos —gerrarena— fue liberalizar el rígido mercado de tierra al obligar el coste del conflicto a poner en venta buena parte del patrimonio concejil y comunal de los pueblos. Y aquí el ejemplo vasco se constituye en paradigma de que no hacía falta el triunfo de la burguesía agraria para que se iniciase uno de los objetivos clave de todo proceso de tránsito al capitalismo. La lucha por la propiedad de la tierra será uno de los núcleos centrales de conflictividad y violencia» (Torre, 1996: 18).

1810eko martxoaren 11n Gorostietako Magdalena eta Zelaarteko San Erroman baselizetako ondasunak atera zituzten enkantera, baina ez zen eroslerik aurkeztu. Bi egun beranduago, Martin Arangurenek eta Antonio Gisasolak Magdalenako lursailak erosi zituzten, 10.574 erreal eskura ordainduta; urte bereko azaroan José Suinaga Aretari saldu zizkioten 15.861 errealetan, 2.000 erreal urtarrilean ordaintzekotan. Baina itxura denez Suinagak ez zituen 2.000 errealok ordaindu eta Martin Gisasola Barrutiari saldu zizkion, prezio berdinean, eta hiru epetan ordaintzekotan. Adibide honek, diru likidoa aurkitzeko zeuden zailtasunen berri ematen digu, baita herriko jauntxoentzat ere. Era berean, lurraren debaluazioaren hipotesiari ñabardurak eskaintzen dizkio, behin esku pribatuetan, zortzi hilabetetan Magdalenako lursailen balioa % 50ean igo baitzen.

Zelaarteko San Erromaneko baselizaren ondasunei dagokienez, martxoaren 16an laugarren aldiz atera zituzten enkantera, eta Gabriel Ibarzabalek erosi zituen, San Andres parrokiako apaizak. Gabriel, Ignacio Maria Ibarzabal defuntuaren anaia zen, eta ondorioz, Maria Agustina Pagaeriren koinatua eta bere zortzi semealaben osaba. Iloba nagusiari, gainera, bere izen berdina jarri zioten, Gabriel Benito Ibarzabal. Apaiz horrek 38.660 errealen balioko ondasunak erosi zituen bere koinata eta iloben izenean. Horrela ulertzen da zergatik agertzen den Gabriel Benito erosle bezala, oraindik adin txikikoa zenean. Aipagarria da 38.660 errealetan eskuratu zituen ondasunak 51.701 errealetan zeudela tasatuta hasiera batean.

Arrateko santutegiko ondasunak maiatzaren 2an, 4an eta 6an atera zituzten enkantera, baina ez zen inor aurkeztu. 13an, Manuel Antonio Muruak erosi zituen 19.320 errealetan, eta handik hilabete gutxitara Jose Joaquin Suinagari saldu zizkion prezio berdinean. Akondiako Done Petriren baselizako ondasunek norabide berdinari jarraitu zioten. Jose Joaquín Suinaga frantziarrek ezarritako *"municipalidad"*-eko burua zen 1810ean, eta beharbada, bitartekari baten bidez erostea egokiagoa iruditu zitzaion, berak zuzenean eskuratzea baino[435]. Ikusi dugunez, horrek ez zuen Sarasketaren bahiketatik libratu. Muruak, bere aldetik, Juan Ignacio Etxeandia donostiarrak 13.880 errealetan eskuratutako Sanjuagua baserria, 15.000 errealetan erosi zion hilabete batzuk geroago[436].

Erosleak

Eibarko herri-sailen erosketan 33 biztanlek parte hartu zuten, baina Gabriel Benito Ibarzabalek ordaindu zituen 66.150 errealen eta Pedro Azpirik gastatutako 226 errealen artean alde ederra dago. Erosleak, inbertitu zuten diru kopuruaren ara-

435. Uriartek dioenez: «Diru eta lur asko aldatu zen eskutik eskura, eta batzuek egoera hobetu zuten une latz horietan. Kasualitatez, urte hauetako udalgintzan aritutako batzuk. Oso gai irristakorra da zeren alde batetik eginikoa guztiz zilegia baitzen, eta bestetik, une hartan lurrak diruaren aurrean oso depreziatuta zeudenean, ez baitakigu oso seguru fabore ala zigorra ote zen lur mordoa jaso eta berriro pagatu behar izatea, oso merke, hori bai» (Uriarte, 1998: 19).

436. Baselizen ondasunen desamortizazioari buruzko erreferentziak (Areta, 2003: 383-382).

bera sailkatzen baditugu, bi talde garrantzitsu bereiz ditzakegu: 10.000 errealetik gorako erosketak egin zituztenak (9 lagun), eta 5.000 errealetik beherakoak (22 lagun). Talde bien artean gelldituko litzateke Pedro Atxa 6.041 errealeko erosketarekin.

1808-1814 bitartean Eibarren saldu ziren herri-sailen erosleak, inbertitutako diruaren arabera sailkatuta. Kopuruak, errealetan.

> 50.000	20.000-50.000	10.000-20.000	5.000-10.000	2.000-5.000	1.000-2.000	< 1.000
1	1	7	1	11	6	6

Badago gehiago zehazteko aukerarik: erosle bakar batek —Gabriel Benito Ibarzabalek— herri-sailen % 26,94 eskuratu zuen, erosketa erraldoia, bere esanetan 908 errealeko errenta baino gozatzen ez zuen alargunaren —María Agustina Pagaegi— seme nagusiarentzat. Bi eroslek —Ibarzabalek eta José Joaquín Suinagak— salmenten % 42,42 eskuratu zuten. Zortzi erosle nagusiek, herri-sailen % 80,2 bereganatu zuten, gainerakoak % 19,8rekin konformatu behar izan zirelarik.

Zenbait autorek azaldu izan dutenez, herri-lurren desamortizazio-prozesuari onura atera ziotenak udaleko eta herrialdeko erakundeetako ordezkariak izan ziren[437]. Eibarren, 1810. urtea baino lehen noizbait udalkide izandako erosleak 10 ziren, eta salmenten % 26,2 eskuratu zuten. Beste bost, 1811tik aurrera izan ziren udalkideak, eta guztien artean % 42,4 erosi zuten. Azpitalde horretan aurkitzen dugu erosle nagusia: Gabriel Benito Ibarzabal, 1810. urtea baino lehen udalkidea ez izan arren, 1808an alkate izandakoaren semea. Azpitalde horretako bigarren eroslea Manuel Antonio Murua da. Murua lur-jabe txikia zen, 414 errealeko errenta gozatzen zuen, eta badirudi gastatu zituen 16.288 errealak lortzeko, herri-lurren erosketa- eta salmenta-operazioetan inplikatuta ibili zela. Ikusiko denez, hainbat erosketa egin zituen beste batzuen izenean. Gainerako 18 erosleek ez zuten inoiz udal-kargurik bete, eta guztira saldutako ondasunen % 31,3 erosi zuten. Horien artean Francisco Martín Aranguren, Pedro Antonio Iraegi eta Miguel Azpiri nabarmentzen dira, hirurak ere 10.000 errealetik gorako erosketekin[438]. Azken hori zerga-biltzailea zen —"*sisero*"— 1808an (Uriarte, 1998: 84).

437. Otaeguiren esanetan, Batzar Orokorretan parte hartu zuten ordezkarien bi herenak desamortizatutako lurrak erosi zituzten (Otaegui, 1991: 60). Extramianak dioenez: «Algunos testimonios acusan a caciques locales, que detentan puestos municipales, de haber acaparado bienes gracias a la complicidad de los funcionarios encargados de la operación. Esas mismas personas se ven acusadas también de especular con los suministros de los pueblos a las tropas de ocupación; en resumidas cuentas, una minoría crece a la sombra del ocupante y aprovecha la ocasión para abalanzarse sobre las propiedades colectivas. Muchos nobles, por el contrario, no sacan provecho de esas enajenaciones» (Extramiana, 1979-1980: I. liburukia, 163).

438. Gainerakoek lursail txikiak erosi zituzten. Beharbada horiei buruz ari da Otaegui, hauxe dioenean: «Aunque la mayoría de los casos los rematantes de estas pequeñas parcelas fueron campesinos que compraron en efectivo los terrenos comunales que de hecho ya venían usufructuando, en

1808-1810 bitartean udalkide izan zirenen eta garai berean desamortizatutako lurren erosleen arteko harremana zehazteko beste bide bat ere erabili nahi izan dugu: 1808an udal-karguak bete zituzten 7 lagunetik bakar bat aurkitzen dugu erosleen artean, Juan Bautista Baskaran, 733 errealeko erosketarekin; 1809rako hiru udalkideren nortasunak baino ez ditugu ezagutzen, eta inork ez zuen udalaren ondasunik erosi; 1810ekoan aritu ziren sei udalkideetatik Juan Antonio Gisasolak 1.242 errealeko herri-lurrak erosi zituen, eta Jose Joaquin Suinagak 37.994 errealekoak. Azken hori, 1804an eta 1808an zerga-biltzailea —"*sisero*"— izan zen (Uriarte, 1998: 84) eta erosketarik garrantzitsuenak zuzenean egin beharrean, Manuel Antonio Muruaren bitartez gauzatu zituen. Muruak berak 1810eko udalkide zela erosi zuen Sanjuangua baserria, 15.000 errealetan. Beraz, 1808. eta 1809. urteetan ez da harreman garbirik ageri udalkideen eta erosleen artean, baina 1810ean bai, Gisasola, Murua eta Suinagaren artean guztira saldutako ondasunen % 21,5 erosi baitzuten. Horiei, 1808ko alkatea izandako Ignacio María defuntuaren anaiaren bidez, ibarzabaldarrek eginiko erosketak gehitzen badizkiegu, 1808-1810 bitartean udalkide izandakoek saldutako ondasunen % 48'4 eskuratu zutela dakusagu. Proportzioa handitu egingo litzateke, 1809rako falta zaizkigun udalkide guztien nortasunak jakinda (hiru dauzkagu) eta horiek ere herri-lurren erosleen zerrendan aurkituko bagenitu. Neurri berean, 1811-1814 bitartean gauzatu ziren salmentei buruzko daturik ezak interpretazioetan zuhurrak izatera behartzen gaitu udalkideen eta herri-lurren erosleen arteko harremana zehazterakoan.

Ondorioak

Desamortizazio-prozesuak klaserik xeheenak kaltetu zituen bereziki. Herriko basoak esku pribatuetara igarotzeak beraien biziraupen-baldintzak zuzen-zuzenean erasotzen zituen: basoan biltzen zen egurra, etxeko sua pizteko; baita gaztainak ere, uzta txarrak gertatzen zirenean funtsezko elikagai bihurtzen zirenak; lurrik ez zeukatenen abereak herri-lurretan bazkatzen ziren, eta mendi-hegaletan ortu txikiren bat edo beste egiteko aukera zeukaten; basoan, ongarria egiteko beharrezkoa zen otea, garoa eta hostoak aurkitu ahal ziren… Goizetik gauera, ordura arte askatasunez erabiltzen zituzten lurrak galtzeak kolokan jarri zuen beraien bizimodua, Elgetako ordezkariak salatu zuen modura 1816ko Batzar Orokorretan[439].

algunas ocasiones también los bienes figuran adjudicados a los artesanos, fundamentalmente a sastres y zapateros, por la confección de vestuario y calzado para las tropas; a carpinteros y canteros por su trabajo en las obras de fortificación; a los armeros de Eibar y Placencia que habían proporcionado fusiles y bayonetas a los distintos ejércitos, etc…» (Otaegui, 1991: 61).

439. Desamortizazioak izandako eraginari buruz hauxe zioen: «De aquí ha resultado, y resulta, la expulsión del común pobre y de pocos medios, a recoger helechos y hoja para estiercol y abono de sus labranzas. De aquí resulta la privación de la libertad del labrador y la escasez de la mayor parte de los vegetales necesarios al fomento de sus cultivos. Por último, prosperan los que así han adquirido terrenos comunes haciendo granjería de sus producciones naturales mientras que los demás vecinos, mayores en número y de menor fortuna, se miran privados de hacer el fomento de sus cultivos con la

Lurron pribatizazioak istiluak sorrarazi zituen jabe berrien eta betiko erabiltzaileen artean. Jabe berriek debekatuta zeukaten lurrak zarratzea, pertsona eta abereen bideak oztopatzen bazituzten. Baina praktikan jabe berriek ez zituzten baldintzok bete, eta horrek tokian tokiko istiluak eragin zituen. Eibarren bertan, Juan Bautista Albizuri lur zati bat zarratzen saiatu zen, baina udalak ez zion baimenik eman. Erosketen ziurtasun-gabeziaren beste ondorio bat izan zen basoen suntsiketa areagotzea, jabe berriek badaezpada zuhaitzak mozten zituztelako, epe motzera etekina ateratzeaz gain[440], lur horiek beraienak zirela frogatzeko. Udalerriko basoek jasandako txikizioa udalak berak onartu zuen, hori bai, dozena bat urte beranduago[441].

1811ko udaberrirako egoera jasanezina zen: desamortizazioak giza sektore ahulenei eragindako kalteari armen ekoizpenaren geldialdia gehitu zitzaion. Hiriguneko biztanle pobreenek —biztanleriaren 1/7a «pobre de solemnidad» zen orduraco—, goseak bultzatuta, herritik irten nahi zuten, inguruko herri edota baserrietan eskean ibiltzera. Baina frantziarrek debekatuta zeukaten herritik irtetea, desagertzen zirenen familiak gerrillaren laguntzailetzat hartuko zituztela mehatxatuz. Testuinguru horretan, pasaporteak emanda, gutxienez emakume eta umeei baimena ematea eskatu zien udalak agintari frantziarrei, baina itxura denez, ez zuten ezer lortu[442]. Ondorioz, ekainaren 1ean, udalerrian zeuden 400 txiroak gosez hil baino lehen, horientzat egunero erreal bana eskatu zion udalak diputazioari [443].

Bi urte geroago —1813ko apirilean— gerra bukatzear zegoen Debarroan, eta udalak lurrak utzi zizkien hartzekodunei berme bezala —"*en prenda*"— herriko gastua zenbatekoa zen eta herriko ondasunaren balioa ezagutu arte, etengabe debaluatzen ari baitzen udalak ezer egin gabe[444]. Gipuzkoako herri-lurren bi herenak salduta zeuden jada. Fernando VII.ak, bere berrezarpenaren ostean —1814ko

franqueza y extensión que lo ejecutaban anteriormente» (Otaegui, 1991: 62). Extramianak dioenez: «En el País Vasco, la desamortización del primer tercio del siglo (…) constituye una agresión violenta contra las masas y un formidable despojo de los pueblos» (Extramiana, 1979-1980: I. liburukia, 57).

440. «En la ultima guerra de la independencia los Pueblos se desprendieron cuasi de todos sus propios para ocurrir a los cuantiosos gastos y contribuciones con que debian acudir alas Tropas Nacionales y enemigas, pero como era incierta la suerte de estas enagenaciones en cuanto a su valor, los compradores en general se propusieron utilizarse del arbolado, de donde procede el decaimiento que se observa en los montes», GAO, JD AIM 281, «Copiador de los pliegos trimestres remitidos al Ministro de la Gobernación por el Sr. de Villafuertes, Jefe Politico de la Provincia de Guipúzcoa», Pliego del Trimestre primero del año de 1821, 1821-5-18, 12. zk.

441. Juan Jose Goicoleak, 1812an bere lurretan udalaren aginduz moztutako 30 haritzen truke, lursail bat eskatu zuen, baina berriz tasatu behar zela zioen, «… hallandose deteriorados por haber egecutado mal los Transmoches y por el arranque de mucha considerazion que se han hecho en los montes». Udalak bere eskakizuna onartu zuen, EiUA, A,1,10, *Akta Liburua (1824-1828)*, 1825-1-16.

442. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-4-30.

443. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-6-1.

444. EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-4-6.

maiatzean—, gerratean zehar burututako salmentak legeztatzen zituela ikusirik, Eibarko herri-sindikoak saldu gabe gelditzen ziren lurrak txirotutako biztanleen artean banatzea eskatu zion udalari[445]. Astebete geroago bere susmoak plazaratu zituen, «… temores fundados de que haciendose acaso la gente pudiente con las mas y mejores posiciones se verían privados absolutamente muchos indigentes…»[446]. Abagune korapilatsu horretan Eibarko Udalak herri-lurren erabilera librea baimendu zuen. Hurrengo hilean herri-lur guztia salduta ere, hartzekodunei ordaintzeko lain ez zuela ematen ohartarazi zuen[447]. Beraz, momentuz erabiltzen utzi arren, behin betiko banaketa egiten zenean lur horiek jabe pribatuen eskuetara pasatuko zirela ondoriozta dezakegu. Uriartek dioenez, operazio hori ez zen hain erraza, banatutako lurrak erabiltzen zituztenei kendu eta jabe berriei eman behar baitzizkieten (Uriarte, 1998: 14). Badaezpada, udalak propioak saltzeko baimena eskatu zuen apirilean[448]. Itxura denez, ordurako herri-lurrik gehienak eta baselizen eraikin guztiak salduta zeuden, eta udalari gelditzen zitzaion jabetza bakarra propioak ziren, hau da, errota, labe, burdinola eta abarrek osatzen zuten ondasun multzo heterogenoa.

Udalerri gehienetan antzeko arazoak sortzen ari ziren. Hori zela-eta, Getariako Batzar Orokorrek —1815— enkanterik gabe burututako salmenta guztiak baliorik gabe utzi zituzten, baita tasazioaren bi herenak baino gutxiagotan erositakoak ere. Horrez gain, baserritarrek ongarria eskuratzeko betidanik erabiltzen zituzten lurrak beraiei saltzea erabaki zuten, tasazioaren prezioan. Erabaki hori onuragarria izan zen baserritar askorentzat. Batzar Orokorren proposamenak Fernando VII.aren oniritzia lortu bazuen ere, 1820ko iraultza liberalak neurri horiek guztiak eten zituen, eta gainera, zenbait udalerrik —Donostiak, Hondarribiak, Azpeitiak…— salmentekin jarraitu zuten (Extramiana, 1979-1980: I. liburukia, 162). Eibarrek ere Matxaria mendia salduta ordaindu zituen Hirurteko Liberaleko milizien eta gotorlanen gastuak (Celaya, 1970: 20). Ikusiko denez, Napoleonen inbasioaren garaian burututako salmentek ez zuten behin betiko zilegitasunik lortu I. Karlistaldira arte, eta tentsio-faktore bihurtuko ziren ordutik aurrera ere. José Extramianaren esanetan, «… la enajenación y venta de esos bienes salpica la vida colectiva de casi todo el siglo XIX» (Extramiana, 1979-1980: I. liburukia, 157).

445. «El sindico hizo presente los clamores de la gente pobre para que se les reparta (…) de los montes concejiles y se accedió asi según costumbre» EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-2-6.

446. EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-2-14.

447. «En atencion a que el importe de las contribuciones exigidas en esta villa pueden superar en mucha cantidad al valor de las fincas y terrenos propios existentes…» EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-3-12. Uriarteren esanetan, errealitate horrek Elgoibar eta Eibarko kasuak bereizten ditu: Elgoibarren «… ez zegoen arazo handirik herrilurra gastua baino handiagoa zelako. Eibar, berriz, alderantzizko kasuan zegoen eta gastuak herrisailen balioa gainditzen zuen» (Uriarte, 1998: 57).

448. EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-4-16.

UDALA ETA UDALKIDEAK ALDAKETA INSTITUZIONALEN ZURRUNBILOAN

Frantziarren eredua: gizonen sufragio unibertsala foru-erregimenaren truke (1810-1813)

Hasiera batean frantziarrek bertoko antolaketa instituzionala errespetatu bazuten ere, 1810eko otsailaren 8an Napoleon enperadoreak, bere anaia Joséren iritziaren aurka, Ebrotik iparraldera kokatzen ziren lurraldeak, espainiar estatutik banatu eta Frantziar Inperiora gehitzea erabaki zuen. Eskuratutako lurralde berrien administrazioa lau gobernutan zatitu zuen: Katalunia, Aragoi, Nafarroa eta Bizkaiko gobernuak. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba herrialdeek, Bizkaiko gobernua osatu zuten[449], Thouvenot jeneralaren ardurapean. Thouvenotek foru-sistema guztiz deuseztatu zuen (Rubio Pobes, 1997: 115): foru-baimena kendu zuen, foru-diputazioen ordez kontseilu probintzialak ezarri zituen, eta udalean, errejimentuaren ordez udal-kontseiluak edo munizipalitateak —"*Consejos municipales*"— eratu.

Udal-gobernuari dagokionez, 1810eko uztailaren 28ko dekretuak desagerrarazi zituen sindiko prokuradorea, errejidoreak eta herri-ordezkarien figurak, udaleko partaide guztientzat nomenklatura —eta ondorioz, kategoria— berdina ezartzeko: munizipalitateko bokalak. Teorian behintzat, gizonen sufragio orokorrez hautatu ziren, eta bereizitako kargu bakarra alkatearena izan zen. Zoritxarrez, 1808-1820 bitarteko udal-aktak ez dira gordetzen, eta haien zirriborroek eskaintzen dizkiguten datu urriekin konformatu beharko gara munizipalitate horietan parte hartu zutenen nortasunak ezagutzeko. Zehaztasun-gabezia hau oztopo latza bihurtuko da agintaldi batzuetan eta besteetan parte hartu zuten karguen arteko konparaketak egiteko orduan. Kasu batzuetan, akten zirriborro hauez gain, beranduagoko aktaliburuek argitzen dizkigute munizipalitateetan aritu zirenen nortasunak: adibidez,

449. Konturatzen bagara, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekaria dugu, lurralde-azaleran behintzat. Estreinakoz, hiru euskal herrialde gobernu politiko bakarraren menpe gelditu ziren: «La excepcional coyuntura política que generó en el País Vasco la ocupación francesa de principios de siglo, determinó (…) una reestructuración profunda de la administración provincial y local del país, anulándose el régimen foral y creándose por vez primera instituciones comunes a las tres provincias —Comisario regio, Gobierno de Vizcaya, Gobierno del Ejército del Norte—» (Rubio Pobes, 1997: 118). Euskal lurralde guztiak gobernu bakarrean antolatzeko lehen proiektua ere ordukoa da: «Uztaritzeko (L) Garat familia oso ezaguna zen Lapurdi guztian, herrialdeko kargu handiak bere eskuetan bait ziren maiz. Denen artean Dominique Joseph da interesgarriena. Gertaera desberdinen ondorioz, Frantziako Justizia ministro izatera heldu zen iraultza garaian (1792), bai eta enbaxadore ere Napoleon Bonaparterekin. Azken honek ikerketa zenbait eginarazi zizkion, haien artean bat Euskal Herriari buruz 1808 urtean. Garatek, egindako txostenean, Iparraldea Hegoaldearekin biltzea proposatu zion Bonaparteri, eta biak bildurik herrialde bakar bat sortzea, Frantzia eta Espainiatik berex. Bere ustez Fenizia Berria beharko zuen izena herrialde horrek, gure arbasoak fenizioak zirelakoan» (Xamar, 1996: 19).

1826ko akta batek adierazten digu Andres Mandiola, Pedro Pagaegi eta Manuel Antonio Murua 1812ko munizipalitateko bokalak izan zirela[450].

1811. urteko urtarrilaren 1eko aktaren zirriborroak 1811ko munizipalitatea osatu behar zuten bokalekin batera, 1810. urteko agintaldian aritu ziren karguen nortasunak azaltzen dizkigu[451]. Udal-erregimenaren aldaketa, hain zuzen, 1810. urtean gertatu zenez, udalkideak bi taldetan bereizita agertzen dira: munizipalitateko bokalak eta auzokide hautagaiak —"vecinos concejantes"—. Hemendik ondoriozta dezakegunez, 1810. urteko azken bost hilabeteak bi sistemen arteko trantsizioune bat bezala planteatu ziren. Bi sistemen arteko jarraitutasuna adierazi nahian bezala, 1811. urteko munizipalitatea 1810ean aritutako bi auzokide hautagaik eta munizipalitateko bi bokalek osatu zuten. Bokal batzuk agintaldi bat baino gehiagotan aritu ziren. Horien artean Manuel Antonio Murua eta Miguel Antonio Ibarra nabarmentzen dira: Murua etenik gabe aritu zen udalean 1810etik 1813ra; Ibarra, 1810etik 1812ra. Munizipalitate horiek bost bokal eta alkate batek osatzen zituzten, nahiz eta 1812ko agintaldirako lau kideren nortasunak baino ez ezagutu.

Coro Rubiok azaldu duenez, kontseilu munizipalek ordura arte udal-gobernutik baztertuta zeuden biztanleen partaidetza gehitzea ahalbidetu zuten[452]. Eibarri dagokionez, 1810-1813 bitarteko udal-kontseiluetan aritu ziren 18 kideetatik 13 aurretik ere udalkideak izandakoak genituen, Lege Zaharreko erregimenaren kudeatzaileak azken finean, horietatik bederatzik 1808ko maiatzaren 30eko auzokideen batzar orokorrean parte hartu zutela ikusteak frogatzen duen bezalaxe; beste bati buruz abizena baino ez dugu ezagutzen —Etxeberria—, eta gainerako bostak, estreinakoz sartzen ziren Eibarko udal-gobernuan. Hurrengo taulan, 18 kide haien nortasunak eskaintzen dizkizuegu.

450. EiUA, A,1,10, *Akta Liburua (1824-1828)*, 1826-4-18.

451. EiUA, A,1,2,1,1, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1811-1-1.

452. «Además, como gran parte de los propietarios locales no quisieron hacerse cargo de estos empleos, hubo que modificar los requisitos de acceso admitiendo que sólo la mitad de los elegidos fueran propietarios y que éstos no tuvieran que serlo necesariamene del pueblo donde residieran. De esta forma, el carácter popular de los consejos, se acentuó aún más: llegaron a presentarse como candidatos gentes que además de no tener propiedad, no sabían leer ni escribir» (Rubio Pobes, 1997: 117). Otaeguik fenomeno berdinaren beste ikuspegi bat eskaintzen digu: «… en la borrasca de la invasión, los ayuntamientos se organizaron con vecinos de escasa fortuna, porque los más acomodados encontraron medios de abandonar el timón de los negocios y ponerse a cubierto de la tempestad, aislados en sí mismos o buscando su reposo en San Sebastián, Vitoria y otros puestos» (Otaegui, 1991: 60).

1810-1813 bitarteko munizipalitateetan parte hartu zuten biztanleak

NORTASUNA	<=1808	1808	1809	1810	1811	1812	1813-1	1813-1=>
IBARRA Miguel Antonio	Bai			MB	MB	A1		Bai
ERVITI José Antonio			SPG	MB	MB			Bai
LOYOLA Agustin	Bai			MB				Bai
MUGUERZA Felix	Bai			MB				
GUISASOLA Juan Antonio	Bai			MB				Bai
MURUA Manuel Antonio				AH	MB	MB	A1	Bai
ARGUIANO Sebastian	Bai			AH	MB			
ALBERDI Francisco Ignacio	Bai			AH	MB			Bai
OLAVE Fernando	Bai		A1	AH			MB	Bai
ARRAZAIN Francisco Antonio	Bai			AH				Bai
SUINAGA Jose Joaquín				A1				
LASCURAIN Juan Andrés "menor"	Bai				A1			Bai
PAGAEGUI Pedro						MB		Bai
MANDIOLA Andrés	Bai					MB		Bai
ARETA MANDIOLA Andrés	Bai						MB	Bai
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente	Bai						MB	Bai
ECHEVERRIA							MB	
LARIZ Isidro							MB	Bai

"<=1808" eremuak 1808 baino lehen udal-kargurik bete zuten adierazten digu "Bai" agertzen denean; "1813-1=>" eremuak 1813. urtearen ondoren udal-kargurik bete zuten adierazten digu "Bai" agertzen denean; gainerako eremuak, urte bakoitzeko agintaldiei dagozkie, eta "1813-1" eremuaren kasuan, "-1" horrek urtarrila esan nahi du, maiatzean udalaren aldaketa egon zen-eta. Horiek, "1813-5" eremuan bildu ditugu, baina ez dira agertzen taula honetan. MB = Munizipalitateko bokala; AH: Auzokide hautagaia; A1: Alkatea; SPG: Sindiko prokuradorea.

Taulan ikus dezakegunez, Pedro Pagaegik, José Joaquín Suinagak, Manuel Antonio Muruak eta Isidro Larizek lehen aldiz parte hartzen zuten udal-gobernuan. Lauretatik inor ez dugu aurkitu 1808ko maiatzaren 30ean burutu zen auzoen batzar orokorrean, beharbada ez zeukatelako eskubiderik. Era berean, ez dira agertzen % 3ko zerga ordaindu behar izan zuten lur-jabeen zerrendan. 1842ko agiri batek dioenez, Pedro Pagaegi —Andrés Mandiolarekin batera— «… fueron recaudadores y tesoreros de esta villa en los años 1812 y 1813 durante la guerra de la Independencia y el alcance que suponen tener procede del manejo de raciones y otros articulos que estubieron a su cargo en aquella época»[453]. Beraz, Pagaegik 1812ko udal-kontseiluan izan zuen parte-hartzea lotuta egon daiteke horniketen arloan betetzen zuen eginkizunarekin. Zeregin horren ordainketan, bildutako diruaren % 3 jasotzen zuten zerga-biltzaileek. 1814-1820 bitarteko epe absolutistan zehar udaletik desagertu ondoren, Hirurteko Liberalean agertuko zaigu berriro, 1820ko eta 1821eko agintaldietan errejidore-karguan, eta 1823-1825 bitartean, udaletxe absolutistako partaide gisa. Ibilbide politiko bitxia, beraz, Pagaegirena.

453. EiUA, A,1,13, *Akta Liburua (1842-1850)*, 1842-2-7.

José Joaquín Suinagak, desamortizatutako lurren eroslerik garrantzitsuenetariko bat izan arren, agintaldi bakar batean aritu zen udalean, eta bertan —1810ekoan— alkate. Ez agertzeagatik, darabiltzagun auzokideen zerrendetan ere ez da agertzen. Laskurainek 1811n bezala, Suinagak alkatetza gogoz kontra onartu behar izan zuela esango genuke, eta Sarasketaren gerrillarien bahiketa jasan izanak ordutik aurrera udal-gobernutik urrun mantentzera bultzatu zuen beharbada. Berrien artean, abaguneari etekin handiena atera ziona Manuel Antonio Murua izan zen: muruatarrak, jatorriz gipuzkoarrak, kanpotarrak ziren Eibarren. 1786ko biztanleen zerrendan aurkitzen dugun muruatar bakarra, Andrés Murua da, "3b" kategorian; hau da, milarrik ezean, auzokide izateko eskubiderik ez zutenen artean. Gerratean zehar Manuel Antoniok bere ondasun kopurua handitzea lortu zuen, eta ordutik aurrera udal-karguak betetzen aurkituko dugu, bai absolutismoaren garaian (1816an sindiko prokuradorea izan zen), baita Hirurteko Liberalean ere. Berau dugu Coro Rubiok planteatzen duen hipotesiari hobekien egokitzen zaion kasua, Isidro Larizekin batera. Azken horrek, ordea, ez zuen bere aukera Muruak bezain ederki profitatu, ordutik aurrera ez baitzuen gehiago udal-kargurik beteko.

Oro har, badirudi frantziarrek ezarritako sistemak aukera gehiago eskaini zizkiela ordura arte udaletik baztertuta egondako zenbait biztanleri, baina ez zela aldaketa erradikalik gertatu, herriko oligarkiak mantendu baitzuen nagusitasuna Eibarko munizipalitatean.

Konstituzioa bai, baina espainiarra (1813-1814)

1813ko uztailaren 31n, bonapartetiarrak garaituak izan ziren San Martzialeko gatazka entzutetsuan, eta mugaz haraindi itzuli behar izan zuten. Ordurako, egia esan, Debarroa eta Gipuzkoako eskualderik gehienak armada espainiarraren edo gerrillaren menpe zeuden, Gasteizko porrotaren ostean (1813-6-21) estatu frantziarrera bueltatzeko Jose I.ak ibilbide nafarra aukeratu izanak adierazten digun bezala. Eibarren behintzat, 1813ko udaberrirako gauzak aldatzen hasiak zirela dakusagu[454].

Apirilaren 4an bilera jendetsua egin zen udaletxean, gudarosteen horniketak nola bermatu erabakitzeko. Bilera hura Manuel Murua alkatearen gidaritzapean egin zen, eta itxura denez, frantziarrak atzera-egite orokorrean murgilduta zeudenez, biztanleak azken esfortzua egiteko prestatu ziren. Hilabete geroago, Isidro Larizek, Vicente Aldekoak eta Fernando Olabek bilera bat egin zuten, eta biha-

454. 1813. urteari dagokion txostenean —EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*— akten zirriborroak atzekoz aurrera daude josita, hau da, ordena zehatzik gabe, beranduagokoak diren akta batzuk aurreko orrialdeetan aurkitzen ditugu. Datatu gabeko agiriren bat edo beste ere badagoenez, orrialdeen nahasteak ez du laguntzen kronologikoki kokatzen, eta erreferentziekin moldatu behar izan gara. Zirriborro horiek, gainera, sintetikoegiak dira, eta ez idazteagatik, udalkideen izenak ere ez daude idatzita, abizen hutsak baizik.

ramunean, Manuel Antonio Murua alkate izendatu zuten, berriz! Berrizendatze horrek egoera berri batekin dauka zerikusia, boterearen iturriaren aldaketaren aurrean, aginte-karguak zeintzuen esku gelditzen ziren azpimarratu nahi izango balitz bezala. Maiatzaren 9an, aspaldiko partez, auzokideen batzarra egin zen, Lege Zaharreko sistema berreskuratzen ari zirelako seinale. Maiatzaren 29an idazkari berria izendatzeko piztu zen eztabaida egoera berrira egokitzeko prozesuak sorrarazten zituen tentsioen beste adibide bat dugu. Fernando Olaberen ustez, eskribaua izendatzea auzokideen batzarraren eskuduntza zen, baina gainerakoen ustez zilegia zen errejimentuak izendatzea. Segidan, Juan Cruz Aranburu aukeratu zuten kargurako.

Madrileko AHNean aurkitutako agiri batek argitzen digunez, Juan Cruz Aranburu Felix Aranburu eskribauaren semea zen, eta aita hil zenean aitaren lanpostua lortzeko bere anaiarekin —Jose Maríarekin— lehiatu zen[455]. Erabakia bozketaz hartu zuen Eibarko errejimentuak, eta emaitzarik jasotzen ez bada ere, Juan Cruzek irabazi zuen, «… por mayoria de votos». Lanpostua lortzeko aurkezturiko txostenean aitortzen zuenez, Juan Cruz nahiko elizkoia zen —"*Soy timorato de Dios*" zioen—, eta 1807-1812 bitartean Madrilen egon zen, eskribautza ezberdinetan lanean. Estatuko hiriburuan egon zen bitartean frantziarrekin ez zuela kolaboratu frogatzeko Gaspar Urrutia aurkeztu zuen lekuko, paper-fabrikatzailea Madrileko Espada kalean. Horrek zioenez, «… durante la dominacion de los enemigos no pretendio ni admitio del Gobierno intruso ni mision ni destino alguno, que siempre manifesto un odio qual se requeria para formar la opinion de los Patriotas contra los enemigos y conseguir la pronta libertad del yugo opresor»[456].

Agiri horri esker jakin dugu 1813ko maiatzeko udala lau hilabete lehenago eratu zen munizipalitateko kide berberek osatu zutela, aldaketa bakar batekin: izenik gabe idatzita agertzen den Etxeberriaren ordez José Mandiola agertzen zaigu. Eibarko Udaleko akten zirriborroetan udalkideen abizenak baino ez daude idatzita. Agiri horretan "*vocales*"en ordez "*capitulares*" hitza erabiltzen da, eta horiei partaide bakar bat gehitzen zaie, José Mandiola, sindiko-karguarekin. Lege Zaharreko udal-karguen terminologiaren berreskuratze horrek erakundetze mailan gauzatzen ari ziren aldaketen berri ematen digu. Napoleonen inperioa deusezta-

455. «Hallandose vacante una de las dos Escribanias numerarias de ella por fallecimiento que ocurrió el dia veinte y siete del corriente mes de d. Felix de Aramburu su ultimo poseedor, D. Josef Maria y D. Juan Cruz de Aramburu hermanos sus hijos, naturales y vecinos de esta villa, solicitan se haga nombramiento de la citada escribania numeraria en ellos, y conferenciado sobre el asunto por no estar conformes los Sres. concurrentes en nombrar un solo sugeto, el expresado Sr. Alcalde ordeno se proceda a votar para la citada nominacion», MAHN, Leg. 29484, exp. SN, 1813-5-29.

456. MAHN, Leg. 29484, exp. SN., 1813-5-29. Juan Cruzek aurkezturiko lekukoen artean zegoen «d. Gabriel Ibarzabal Presvitero Beneficiado de la Iglesia Parroquial de San Andres (…) juro in verbo sacerdotis (…) le consta que cosa de diez años ha estado ultimamente en Madrid ya de Escribiente e ya de oficial mayor en dos escribanías del número de ella…1813-7-29». 2. lekukoa Rafael Unzeta izan zen, eta 3.a Diego Barrutia. Josef Antonio Erbiti «segundo Alcalde y Juez ordinario».

tzeak, frantziarrek ezarritako erakundetze administratibo eta politikoaren bukaera ekarri zuen, baina beste arazo bat sortzen zen boterearen egituraketaren inguruan: ordutik aurrera, zein zen jarraitu beharreko bidea? Napoleonen inbasioaren aurretik zegoena —hau da, tradizioak markatzen zuena— ala Cádizko Gorteetan abian jarritako 1812ko konstituzioarena? Zalantza ugari zegoen, eta zentzu horretan maiatzaren 29ko aktak darabilen terminologia bera, erdibidean gelditzen da: kapitular eta sindikoa aipatu arren, ez zuelako herri-ordezkarien aipamenik egiten, eta alkate-karguari ez zitzaiolako ohiko «… y juez ordinario» delakoa gehitu.

Frantziarrak kanporatu ostean sortu zen lehia politiko bizian, alderdi bakoitzak bere jukutriak erabili zituen. Espainiar liberalei komeni zitzaien Napoleonek Fernando VII.a bere atzaparretan luzaroan mantentzea, bien bitartean 1812ko konstituzioa uztartzen joan zedin, aliatuak bilduz eta erakunde berriak sendotuz. Horrela, Fernando VII.a itzultzen zenean, lege berriaren arabera gobernatzen zen nazioa aurkitzean, absolutismoa berrezartzea zailagoa egingo zitzaiola uste zuten. Absolutismo eta errepublikaren erdibidean, monarkia parlamentarioa erregimen egokia bihur zitekeen iraultza odoltsurik gabe liberalismoa ezartzeko estatu espainiarrean. Tradizionalistek jakin bazekiten berandu baino lehen korsikar jenerala inguratzen zuten potentzien menpe gelditzuko zela, eta horren osteko Europa, militarki indartsuenak ziren potentzien interesen arabera berrantolatuko zela. Ingalaterra albo batera utzita —horrek itsasoaren kontrolarekin nahikoa zuen—, gainerako hiru potentzia irabazleak —Prusia, Austria eta Errusia— zein baino zein absolutistagoak ziren, eta argi zegoen, haien laguntzarekin behintzat, ez zela errotuko liberalismoa. Alderantziz. Madrileko Gorteek ere bazuten susmoren bat edo beste, Fernando VII.a bazetorrela jakin zutenean, zuzenean bertara hurbildu eta konstituzioa sinatzea agindu baitzioten 1814ko otsailean[457].

Fernando VII.ak bahituta jarraitu zuen bitartean, tradizionalistek isilpean konspiratu zuten, eta ahal izan zuten neurrian, sistema berriari oztopoak jarri zizkioten. Foru-herrialdeetan, gainera, bertoko legedi berezia oztopo latza bihurtzen zen liberalek ezarri nahi zuten sistema politiko berriarentzat. 1813ko abuztuaren bukaeran behin-behineko gobernu liberalak, legedi berriari oihartzuna emateko, estatuko herri guztietan konstituzioaren aldeko ospakizunak antolatzea agindu zuen, irakurketa eta zin egite publikoekin. Ospakizun horiek, normaltasunez ez dakigu, baina behintzat istilurik gabe ospatu ziren Gipuzkoako zenbait udalerritan. Orion, adibidez, igandeko mezan udalkide guztiak bildu eta eskaintzaren aurretik irakurri zen

457. Itzulera hau gauzatzeko moduari buruz, espainiar gorteek emandako dekretuaren 11. eta 12. artikuluek argi eta garbi zioten: «El presidente de la Regencia presentara a S.M. un exemplar de la Constitución política de la Monarquia, a fin de que instruido S.M. en ella pueda prestar con cabal deliberación y voluntad cumplida el juramento que la Constitución prescribe». 12º «En cuanto llegue el Rey a la capital vendra en derechura al Congreso a prestar dicho juramento, guardándose en este acto las ceremonias y solemnidades mandadas en el reglamento interior de las Cortes» (Iparragirre, 2001: 169).

konstituzioa; ondoren, apaizak bere agerraldia egin zuen eta biztanleek eta elizgizonek, guztiek aho batez, zin egin zuten[458]. Azkoitiko alkateak —Juan Ramón Aranbarrik— zioenez, konstituzioa jada iragarrita zegoen beraien udalerrian, «… con todas las formalidades establecidas en los Reales Decretos que V.S. me citta», eta bide batez Villafuerteseko kondea zoriondu zuen, Gipuzkoako Buruzagi Politikoa —"*Xefe Politico*"— izendatua suertatu izanagatik[459]. Tolosakoak bi eguneko egitaraua antolatu zuen, eta ospakizunari jai-kutsua ematen saiatu zen, sokamutur, dantzaldi, "*Tabernaculo*" eta guzti[460]. Aiakoak, zuhurrago, ezertan hasi baino lehen, bere zalantzak ailegarazi zizkion foru-diputazioari, Buruzagi Politikoak emandako aginduaren aurrean jarraitu beharreko jokabidea galdetuz[461].

Beste udalerri batzuetan ospakizun ekitaldiak tirabiratsuak gertatu ziren. Zumaian, esaterako, zin egiteko ekitaldia bertan behera gelditu zen, Jose Maria Etxezarretak egin zituen protesten ondorioz. Itxura denez, Etxezarretaren protestak ez ziren konstituzioaren kontrakoak, zin egiteko ekitaldia ez zelako behar zen duintasunaz ospatu baizik. Egia esan, ez zegoen idazkaririk akta jasotzen, eta alkate eta alkateorderik ezean errejidore batek irakurri zuen testua, auskalo zer-nolako gaztelanian, pixka bat lehenago plazaren erdian jarritako mahaiaren atzealdetik… Alkateak berak egiten duen deskribapena irakurrita, ekitaldi solemnea baino gehiago barregarria dirudi[462]. Elgoibarren bertan, idatzi enigmatiko batetik ondorioztatzen denez, zin egiteko ekitaldian inork ez zuen parte hartu, jenderik gehiena meza

458. «… se leyo la Constitucion de la Monarquia Española antes del Ofertorio; y en seguida hizo una exortacion el Cura Parroco correspondientte al objeto; y concluida la Misa, se presto Juramentto por todos lo vecinos y el clero auna voz», GAO, JD IM 1/1/65, 1813-9-6.

459. GAO, JD IM 1/1/65, 1813-8-28.

460. Manuel Bernardo Larrondoburu alkateak zioenez «… he eregido una especie de Tabernaculo en la Plaza nueva donde a las diez de la mañana se leera al Pueblo aquella grande obra que asegura su felicidad, y he dispuesto enttre ottros festejos Novillada por las tardes y Baile por las noches de mañana y el dia siguiente», GAO, JD IM 1/1/65, 1813-8-28.

461. «… teniendo entendido que el juramento que se presto por la Junta general fue con cierta reserba, suplico a V. L. me diga si mis abitantes han de seguir el mismo metodo, o han de admitir lisa y llanamente, pues deseo caminar en terminos que jamas se me culpe el menor descuido», GAO, JD IM 1/1/65, 1813-8-28.

462. «… y habiendose reunido mucha Jente de su Becindario de aquella villa en conpañia de su Cabildo Eclesiastico, D. Ignacio Maria de Zubizarreta como Alcalde Regidor en ausencia del propio Alcalde y su teniente puso una mesa en medio de la plaza y tomando hasiento a su lado con mucho respecto las personas de mas caracter que asistieron a esta (plaza?) mando al Sindico procurador de Ayzarnazabal leiese en alta boz la dicha Costitucion; y lebantandose de su asiento tomo en la mano el Exemplar de la referida Costitucion; pero no llebo efecto su lectura, por que D. Bicente de Echezarreta Becino de haquella villa protesto diciendo no habia normalidad bastante por falta de Escribano, y consultando el caso el referido Alcalde mando denuebo al zitado Sindico, que apesar de su protesta la Leiese, y al efecto puesto en pie el Sindico, bolbio a protestar D. Bizente Echezarreta protestando que primero se debia disponer en Ayuntamiento, y biendose el Alcalde en esta perplesidad haccedio a que precediese Ayuntamiento, y los asistentes a este Congreso haguardaron con ympaciencia la Lectura de dicha Costitucion, la que no se berifico por haquella tarde por las dos protestas de

nagusian zegoelako; konstituzionalista sutsu batek zioenez, ekitaldia ez zen behar zen begirunearekin ospatu, eta hiru arduradun seinalatzen zituen[463]. Tamalez, oraingoan ere ez da informaziorik gordetzen Eibarko ospakizunei buruz. Dakiguna hauxe da: 1813ko ekainetik aurrera Cádizko Konstituzioaren aldeko indar militarrek labore eta abereak bahitu zituztela Eibarren, bertoko udalkideen laguntza eta oniritziarekin. Hurrengo hilean udalak erreal banako zerga ezarri zien biztanleei, soldadu espainiarren logelak ordaintzeko. Beraz, militarrek udal-ogasunean eragiten zuten presioa ez zen desagertu bonapartetiarrak kanporatu ostean.

Lau hilabeteko epean hiru aldiz aldatu ziren udaleko partaideak: maiatzean, uztailaren 7an eta irailaren 5ean. Maiatzekoa, ikusi denez, 1813ko munizipalitateko kideek osatu zuten gehienbat. Uztailaren 7koan foru-erregimenak agintzen zuen prozedura erabili zen: hautesleen zozketa auzokide guztien artean, kargu bakoitzerako hautagaien proposamenak jasotzeko, eta ondoren bozketa, karguz kargu. Hala ere, udal horretan ere ez da herri-ordezkarien —"*diputado del comun*" eta "*sindico personero del comun*"— presentziarik atzematen errejimentuan, eta udala alkateak, sindikoak eta lau errejidorek osatu zuten. Oraingo honetan berriztatze nabarmen bat izan zen aurreko agintaldiarekin alderatuta, baina sei udalkidetik lau aurretik ere udal-gobernuan aritutakoak ziren. Esperientziarik gabeko udalkideak bi izan ziren soilik, baina azpimarragarria da horietatik bat —Agustin Atxa Gorosta— alkate izendatu zutela. Udal hau, foru-erregimenaren berrezartzearen alde zeuden sektoreen ekimenaren ondoriotzat jo dezakegu. Manuel Antonio Murua udal honetatik kanpo gelditu bazen ere, BBNNetarako ordezkari hautatua izatea lortu zuen uztailaren 28an, eta alferrikakoa izan zen Pedro Antonio Arrazainek bere aurka bideratu zuen protesta[464].

D. Bicente mas bien perturbadoras de la tranquilidad publica, que fundadas, nise cree se publicara sin que V.S. rebestido de su hautoridad mande de nuevo su publicación tomando en consi-deracion la vejacion que motibado de estas ynfrutusas (sic) protestas ha causado a los asistentes quie-nes hacaso por no verse en ygual caso no querran hasistir a contribuir de su parte ala solemnizacion de este acto tan soberano y trascendental a toda la patria Española», GAO, JD IM 1/1/65, 1813-8-29.

463. «… me es mui sensible tolerar el que se de testimonio de un acto tan vergonzoso como ocurrio aquel dia haciendo ver bien claramente su adhesion, y la que aun tienen concevida. Debo decir fue notoria por los Militares existentes transeuntes y por toda quanta gente reusaba concurrir a dicho accto celebrada en mui diferentes terminos de los que en el testimonio que V.S. me ordena haga separacion, es decir que se celebro desde las nuebe y media a las once mientras la Misa mayor quando la gente se hallaba en la Iglesia en trage mui fuera del caso *el secretario* (lerroaren gainean), a la solemnidad que merece un acto tan sagrado acompañado dicho secretario colateralmente por Bargundia como alcalde (lerro gainean), y por un sugeto incompetente en jurisdiccion por quanto ni aun merece ni merecia dar vista su rostro a una cosa tan sagrada opuesta en un todo alas fanaticas ideas con que ha procedido, es decir que todos estos tres prevalecieron en el concepto publico mas una irrision con que obraban que no cosa tan sagrada que nos govierna con leyes fundamentales, pues dicho secretario oso embiarme a firmar juntamente con expresion al nombramiento de Alcaldia (…) Lizazamond(?) Alcalde», GAO, JD IM 1/1/65, 1813-10-5.

464. EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-7-28.

Irailaren 5ean udal-hauteskundeak burutu ziren berriz, oraingoan «… segun la constitucion». Udal-hauteskundeak sufragio unibertsalez egitea aginduta[465], konstituzioak teorian auzokide eta biztanle arrunten arteko bereizketarekin amaitzen bazuen ere, praktikan biztanle dirudunen nagusigoa berretsi omen zuen[466]. Eibarren kasuan, aktaren zirriborroak ez du argitzen bederatzi hautesleen izendatzea bozketaz ala zozketaz egin zen, halaxe dio-eta: «Echa la eleccion segun la constitucion salieron con la maioria de votos, o en suerte los siguientes electores»[467]. Hautesleetariko bat —José Antonio Erbiti— errejidore izendatua gertatu izanak, haustura argia islatzen zuen foru-erregimenarekin, Lege Zaharrak ez zuelako ahalbidetzen hautesleen izendapenik. Hauteskundearen emaitzak aldaketatxo bat suposatzen zuen, Juan Andres Gabiolak eta Francisco Urkiolak —herri-ordezkariak izandakoak— udalean sartzea lortu zutelako, Gabiola alkate-karguan gainera. Horrez gain, Manuel Baskaran udalkide berriaren sarrera eta Muruaren itzultzea dakarte. Osaketari begiratuta, 1813an eratu zirenetatik udalik berriztatzaileena dugu. Zoritxarrez ez daukagu udaletxe honen ibilbidearen aztarnarik, ezta erregimen konstituzionalaren deuseztatze-prozesuari buruzkorik, 1814ko akten zirriborroak ez baitira gordetzen. Hurrengo taulan, hiru agintaldiotan parte hartu zuten udalkideen nortasunak eta ibilbide politikoaren laburpena ikus ditzakegu.

Argitu beharreko zalantza nagusia hau litzateke: liberalek —frantziar zein espainiarrek— ezarritako erregimenek zein puntutaraino ahalbidetu zuten ordura arte udal-gobernutik kanpo egondako biztanleen parte-hartzea? Galdera horri erantzuteko, alde batetik munizipalitateetako eta epe konstituzionaleko udaletako partaideak bildu ditut, eta talde horretatik kendu egin ditut 1810. urtea baino lehen kapitularrak izandakoak, horiek jada auzokide-kategoria lortuta zeukaten-eta. Ondoren, gelditzen direnen ibilbide politikoa aztertuta, emaitzak hurrengo tauletan islatzen dira.

465. «… el ayuntamiento debia ser representativo, elegido por los vecinos en sufragio universal indirecto (todos los vecinos eran electores y elegibles en primer grado). Estaría compuesto por uno o dos alcaldes, regidores y procuradores síndicos, que servirían el cargo de forma gratuita, obligatoria y durante breve tiempo; anualmente debían renovarse los alcaldes y la mitad de los concejales» (Rubio Pobes, 1997: 126).

466. «La Constitución gaditana igualaba la condición de ciudadanía y la de vecindad, restringiendo el derecho al voto (…) a los cabezas de familia residentes y con propiedades o trabajo estable en un determinado municipio; el poder municipal quedaría así restringido a las personas de cierto poder económico y prestigio de la localidad» (Rubio Pobes, 1997: 126).

467. EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-9-5.

Eibarko Udalaren berregituraketa, Napoleonen inbasioaren ostean

NORTASUNA	<=1810	MB10-13	1813-5	1813-7	1813-9	1813-9=>
MANDIOLA José			SPG	SPG		Bai
ARETA MANDIOLA Andrés	Bai	Bai	ER			
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente	Bai	Bai	ER			
LARIZ Isidro		Bai	ER			
OLAVE Fernando	Bai	Bai	ER			Bai
MURUA Manuel Antonio		Bai	A1		ER	Bai
ACHA GOROSTA Agustín				A1		Bai
LASCURAIN Juan Andrés "menor"	Bai	Bai		ER		
GUISASOLA BARRUTIA Martín	Bai			ER		
LOYOLA Agustin	Bai	Bai		ER		Bai
ORBEA José María				ER		Bai
BASCARAN Manuel					ER	Bai
URQUIOLA Francisco	HD/HS				ER	Bai
GABIOLA Juan Andrés	HD/HS				A1	
BUSTINDUI Pedro Joseph	Bai				SPG	Bai
ERVITI José Antonio	Bai	Bai			ER	Bai

Laburdurarik gehienak orain arte erabilitakoak dira. “<=1810” eremuan, “HD/HS” (herri-diputatua eta herri-sindikoa) bereizi ditut, auzokideak ez zirela adierazteko. “MB10-13” eremua gehitu dut, 1810-1813 bitartean munizipalitateetako partaideak zeintzuk izan ziren jakiteko.

Munizipalitate eta konstituzio-udaletako partaide berrien ibilbide politikoa

NORTASUNA	<=1810	MB10-13	KONS13	1813-9=>	Gaspar 1812	1808 lurjabe	DesKop
MURUA Manuel Antonio		Bai	Bai	Bai	Bai	414	16.288
ECHEVERRIA		Bai					
LARIZ Isidro		Bai	Bai	Bai			
ALBERDI Francisco Ignacio	HD/HS	Bai		Bai			
ACHA GOROSTA Agustín			Bai	Bai			
MANDIOLA José			Bai	Bai	Bai		1.740
ORBEA José María			Bai	Bai			
BASCARAN Manuel			Bai	Bai	Bai	820	3.900
GABIOLA Juan Andrés	HD/HS		Bai	Bai			
URQUIOLA Francisco	HD/HS		Bai	Bai	Bai		

Orain arte erabilitako laburdurez gain. “Kons13” eremuan, “Bai” 1813ko maiatzetik irailera bitarte eratu ziren udal konstituzionalistetan parte hartu zuen. “1813-9=>” eremuan, “Bai” 1814tik aurrera eratu ziren udaletan kapitular-kargua bete zuen. “Gaspar 1812” eremuan, “Bai” Gaspar Jauregiri laguntzeko sare sekretuan parte hartu zuen. “1808 lur-jabe” eremuan, zuen jabetzaren arabera ordaindu behar izan zuen zerga, errealetan. “DesKop” eremuan, desamortizazio-prozesuan eskuratutako lurren balioa, errealetan.

Ikusten denez, munizipalitateetan eta 1812ko konstituzioari jarraiki eratu ziren udaletan 10 berriak ziren, hau da, ordura arte kapitularrak izan gabekoak. Alberdi, Gabiola eta Urkiola udalkideak izandakoak ziren, baina ez kapitular gisa, herri-ordezkaritzaren lanetan baizik. Guztiek ere auzokide hautagai kategoria lortu zuten 1814tik aurrera —Etxeberriaren izena ez dakigunez, beharbada horrek ere—. Ibil-

bide horretan, erregimen liberalen udaletan parte hartu izanak zerbait lagunduko zien, baina ez dut uste erabakigarria izan zenik. Beharbada bai, lur desamortizatuen erosleak ziren Baskaran, Mandiola eta, batez ere, Muruarentzat. Edonola ere, berriztatzeko joera nabarmenagoa da espainiar konstituzionalisten garaian frantziarrenean baino. Azken horien udal-kontseiluetan lau udalkide baino ez ziren berriak, eta Cádizekoaren jarraitzaileen artean sei, udal-kontseiluetan parte hartu zuten beste bi berreskuratzeaz gain. Datu urriak dira ondorioak ateratzeko, baina oro har, badirudi udal-gobernuan parte hartzeko aukerak zertxobait zabaldu zirela agintaldi liberaletan.

Bukatzeko, 1813. urteari dagokion txostenean aurkitutako botazio bat aipatu behar dugu. Datatu gabe badago ere, 1813ko irailekoa dela uste dugu, diputazio probintzialeko[468] partaideak aukeratzeko burutu zela dirudielako. Hauteskunde horiek sufragio unibertsalez egin ziren «… entre quienes tuvieran los suficiente para mantenerse con decencia» (Rubio Pobes, 1997: 123). Hautesleek ez zituzten zuzenean hautatzen diputazio probintzialeko kideak, ezpada hiru mailatan eratutako zeharkako bozketaren bidez: udalerria, barrutia, herrialdea. Eibarkoan 21 hauteslek hartu zuten parte (ez dakigu nola aukeratu zituzten), eta euren artetik barruti mailako bi hautesleak izendatzeko, bakoitzak bi boto eman zituen, guztira 42 boto banatu zirela baitakusagu. Emaitzarik hoberena Julian Kortesenak —Bibiana Ibarzabalen semea eta Laskurainen semeordeak— lortu zuen (zazpi boto), eta ondoren Antonio Sustaetak eta Juan Bautista Gorostegik, bakoitzak launa botorekin. Baina barrutiko batzarrean Kortesenaren laguntzailea ez zen bi hauetatik inor izan, Manuel Antonio Murua baizik, nahiz eta bi boto baino ez zituen lortu. Erabaki horretan, hautagaiek lortutako boto kopuruaz gain, bakoitzaren konstituziozaletasunak ere izango zuen zerikusirik. Hurrengo taulan 1813ko iraileko bozketaren emaitzak aurkezten dizkizuegu, hautesleei buruzko beste zenbait daturekin batera.

468. Diputazio probintzialak Cádizko Konstituzioak sorturiko erakunde berriak ziren eta forulurraldeetako betidaniko diputazioen eskuduntzen murriztea ekarri zuten: «Cumplían un papel de intermediario entre el Gobierno y la provincia, constituyendo además el órgano de fomento de los intereses provinciales, de control de la gestión de los municipios y de garantía del mantenimiento del orden público» (Rubio Pobes, 1997: 121).

NORTASUNA	Hautesleak -1813	Udal-karguak	Kapare 1786	Auzo 1808	1808 lur-jabe	DesKop
CORTESENA Julián	7	ER 1820-4				
GOROSTEGUI Juan Bautista	4					
SUSTAETA Juan Antonio	4	SPG 1801		Bai		
GABIOLA Juan Andrés	3	HS 1783	4 X	Bai		
BEARAZA José Joaquín	2					
BUSTINDUI Pedro Joseph	2	SPG 1799	4	Bai		
ERVITI José Antonio	2	SPG 1809	4	Bai		
LASCURAIN Juan Andrés "menor"	2	ER 1784	2 X			
MANDIOLA José	2	SPG 1813-5	1			1.740,31
MURUA Manuel Antonio	2	AH 1810	3		414	16.288,12
ORBEA José María	2	ER 1813-7	1	Bai		
ACHA GOROSTA Agustín	1	A1 1813-7	1	Bai		
ARGUIANO Sebastian	1	A2 1805	1			
ARRAZAIN Francisco Antonio	1	HD 1775	2 X			
BERRAONDO Joseph Manuel	1	HS 1792	3a X	Bai		2.688
GUISASOLA BARRUTIA Martín	1	ER 1796	1	Bai	4.380	15.861 E
MANDIOLA Andrés	1	A1 1800	1	Bai	4.320	1.589,25
PAGAEGUI Pedro	1	MB 1812	1			
URQUIOLA Francisco	1	HD 1803	2			
VENTURA	1					
VERGARA Juan Esteban	1	TA33 1826	4	Bai		

"*Hautesleak-1813*" eremuan, bakoitzak jaso zuen boto kopurua agertzen da; "*Kapare 1786*" eremuan, abizenen sailkapena, jatorriaren arabera. "Auzo 1808" eremuan, 1808-5-29ko auzokideen batzar orokorrean parte hartu zuten adierazten da. Gainerako bi eremuek lur-jabetzen errentak eta desamortizatutako lurren erosketa islatzen dituzte, errealetan.

Taulan ikusten denez, udalean esperientzia gutxiko biztanleek lortu zituzten botorik gehienak: Kortesena eta Gorostegi, esaterako, ez ziren ordura arte inoiz udalkideak izan; Sustaetak agintaldi bakarra bete zuen —1801ekoa—, eta Juan Andres Gabiola herri-ordezkari aritu zen hiru agintalditan (1783, 1789 eta 1790ean), 1813ko udal konstituzionaleko alkatea izendatua izan aurretik (azken kargua bete eta 23 urtetara!). "*Kapare 1786*" eremuak ikuspegi hori indartzen du, beraien abizenak ez direlako 1786ko biztanleen zerrendan agertzen, eta ondorioz, geroago ailegatutako familiatzat jo ditzakegu —Kortesenaren kasuan gainera, Bizkaitik etorritakoa zela badakigu—; beste lau 4. taldekoak dira, hau da, beste herrialde batetik etorri arren, auzokide hautagaiak izateko baldintzak betetzen zituzten. Azken bi eremuak ere argigarriak dira: bost baino ez dira agertzen 1808ko lur-jabeen zerrendan, eta hiruk baino ez zituzten desamortizatutako lurrak erosi. Beraz, diputazio probintzialeko hauteskundeetan haize berrien presentzia nabarmentzen da, nagusitu zirenen ezaugarriei begiratzen badiegu behintzat: udalean esperientziarik gabekoak edo gutxikoak, gehienak jatorriz Eibartik kanpoko familietakoak, lur-jabetzarik gabekoak eta desamortizazio-prozesutik at mantendutakoak. Horrez gain, eta taulan islatu ez arren, boto gehien lortu zuten seietatik gutxienez hiru —Sustaeta, Gabiola eta Bustindui— armaginak ziren. Esan bezala, bozketan horiek gailendu ziren arren, Kortesenarekin batera Bergarako barrutiko hautesleen batza-

rrera Manuel Antonio Murua joan zen. Hori ere nahiko berria zen udalean, eta lurjabe txikia, baina desamortizatutako lurren erosle —eta batez ere bitartekari— garrantzitsua.

Errege berria erregimen zaharrarentzat (1814-1820)

Frantziarrak penintsulatik bota ostean, gorte espainiarrek bazeukaten zertaz arduratu. Fernando VII.a bonapartetiarren eskuetan zegoen bitartean, oztopoekin baina konstituziozaletasuna sendotzen zihoan, eratutako egitura zentralistari esker. Baina zer gertatuko zen erregea Espainiara itzultzen zenean? Posible izango ote zen erdibideko elkarbizitza monarkiaren eta konstituzioaren artean? Valençayko tratatuak (1813-12-11) espainiarren eta frantziarren arteko gerra bukatutzat jo zuen, eta bere bidez Fernando VII.ak espainiar tronoko eskubideak berreskuratu zituen. 1814ko martxoaren 22an Pirinioetako muga zeharkatu, eta Valentziarantz abiatu zen, liberalek ezarritako ibilbideari uko eginez. Bertan zegoela, Cádizko Gorteetan aritutako 69 diputatu tradizionalistek absolutismoa berrezartzeko eskatu zioten, "*Manifiesto de los Persas*" deituriko idatziaren bidez[469]. Liberalen susmoak gauzatuz, Fernando VII.ak estatu-kolpea eman zuen maiatzaren 11n, 1812ko konstituzioa indargabetu eta Antzinako Erregimen politikora itzultzeko aginduz[470]. Boterea berreskuratu zuen momentutik liberal-kutsua zeukaten pertsona edo ideiak jazartzea izan zen bere helburu nagusietariko bat. 12.000 liberal baino gehiago erbesteratu behar izan ziren estatu frantziarrean; penintsulan gelditu ziren asko eta asko espetxeratu egin zituzten (Sanchez Mantero, 1996: 62). Frantziarrekin kolaboratu zutenen ondasunen bahiketa —horiek ere liberalak, noski— 1818. urtean altxatu zen, baina haiek ez ziren itzuli, ezta «… ni aun habiendoles retirado el Gobierno frances las pensiones con que les socorria se han restituido a la patria, lo que ciertamente de a entender su poco amor a ella, o un desprecio conocido de la gracia» (Iparragirre, 2001: 169, 27. aipua). Gipuzkoan, liberalen jazarpen-giroak bizi-bizirik zirauen 1819an: Zarautzeko Batzar Orokorrek agindu zuten bonapartetiarren garaian auzokide izan gabe udal-karguak bete zituztenen nortasunak udalerri bakoitzeko matrikula, hauteskunde eta akta-liburuetan idaztea.

469. Absolutismo espainiarraren lehen manifestu honetan kritika zorrotza egiten zaio sistema politiko liberalari: «… los que declaman contra el poder monárquico confunden el poder absoluto con el arbitrario; sin reflexionar que no hay Estado (sin exceptuar las mismas repúblicas) donde en lo constitutivo de la soberanía no se halle un poder absoluto…».

470. 1812ko konstituzioa indargabetu zela jakiteaz batera, 1813ko Batzar Orokorrek izendatutako diputazioak ordezkaritza bat bidali zuen Fernando VII.arengana, berrezartzeaz zoriondu eta esperientzia konstituzionalari uko eginez, foruen araberako erregimen politiko-administratiboa berreskuratzea eskatzeko. Coro Rubiok dioenez: «La actitud de esta diputación foral, entrando en funciones antes de que Fernando VII restituyera los fueros e incluso de que fueran suprimidas las diputaciones provinciales (lo serían por decreto el 15 de junio) dejaba bien clara cuál era la disposición de la Provincia hacia sus instituciones tradicionales» (Rubio Pobes, 1997: 130).

Eibarko Udalean, ordea, ez da Napoleonekin edo liberalekin kolaboratu zutenen bazterketarik sumatzen. Ondorengo taulan ikusi ahal dugunez, 1814-1820 epe absolutistan zehar ez zen liberalen bazterketa sistematiko bat gauzatu. 1815eko alkatea —Francisco Urkiola— udal-konstituzionaleko alkate ohia izan zen; 1816ko agintaldian Ibarra, Murua eta Erbiti dakuskigu, azken bi horiek frantziar munizipalitateko kide izandakoak; 1817koan Olabe eta Loiola… Ez dira udalkide gehiegi, asko jota bi edo hiru agintaldi bakoitzean. Hausturarik egotekotan, bonapartetiarren inbasioaren aurreko udalkideekin da nabarmenena, 1815-1820 bitartean (1819koak kenduta, urte horri buruzko akta-zirriborrorik ez baita gordetzen) aritu ziren 30 udalkideetatik, zortzi baino ez baikenituen 1810. urtea baino lehen kapitularrak

1815-1820 agintaldietako udalkideak

NORTASUNA	<=1810	MB 10-13	KONS 1813	1815	1816	1817	1818	1820-1	1820-1=>
URQUIOLA Francisco	HD/HS		Bai	A1					Bai
ALBERDI Francisco Ignacio	HD/HS	Bai		ER			ER		
AGUIRRE Juan Bauptista	Bai			ER					
GUISASOLA OREGUI Domingo				SPG					Bai
MARTINEZ Manuel Joseph	HD/HS			HD	HD				Bai
AZCUE Francisco Antonio	HD/HS			HD					HD/HS
ALBERDI Jose Maria				HS				SPG	Bai
ERVITI José Antonio	Bai	Bai	Bai		A1				
IBARRA Miguel Antonio	Bai	Bai			ER				Bai
ACHA GOROSTA Agustín			Bai		ER				
MURUA Manuel Antonio		Bai	Bai		SPG				Bai
ITURRIOZ Agustín	HD/HS				HD	HD			
BASCARAN Domingo Ramón					HS				Bai
GUISASOLA Juan Antonio	Bai	Bai				A1			Bai
OLAVE Fernando	Bai	Bai	Bai			ER			Bai
LOYOLA Agustin	Bai	Bai	Bai			ER			Bai
MUGUERZA Manuel Joaquín						SPG			
ARAMBERRI Nicolás						HD	HD		HD/HS
IBARRA Joaquín						HS			
AGUIRRE Vicente							A1		Bai
PAGOAGA Francisco Antonio							ER		Bai
BURGOA José María							SPG		
BURGOA Juan Bautista							HD		HD/HS
ALBIZURI Juan Bautista							HS		KONS
LASCURAIN Juan Andrés "menor"	Bai		Bai					A2	
ARRAZAIN Francisco Antonio	Bai							ER	
IBARZABAL PAGAEGUI Gabriel								A1	Bai
PAGAEGUI Pedro								ER	Bai
ARTONDOAGA Ignacio								HD	HD/HS
EGUREN Gaspar								HS	HD/HS

"*Kons1813*" eremuan, 1813ko maiatzetik irailera bitartean eratu ziren udaletako kidea izan zela adierazten da. "*1820-1=>*" eremuan, 1820tik aurrera udalkidea izan ziren: "Bai", auzokide hautagai legez; "HD/HS": soilik herri-diputatu edota herri-sindiko legez; "KONS": soilik epe konstituzionaletan.

izandakoak. Horrekin batera, aipatzekoa iruditzen zait herri-ordezkari ohiek jokatu zuten papera udal hauen berregituraketan. 1815ekoan, adibidez, zazpi udalkidetik bi esperientziarik gabekoak genituen, lau herri-ordezkari ohiak izandakoak (Urkiola alkatea horien artean) eta bakar bat —Juan Bautista Agirre— 1810 baino lehen kapitularra izandakoa. Herri-ordezkarien aldagaia kontutan ez badugu hartzen, 1818koa eta 1820koa izan ziren agintaldirik berriztatzaileenak: 1818koan zazpitik bost izan ziren esperientziarik gabeko udalkideak, eta 1820koan zazpitik lau.

GERRAOSTEKO EGOERA EKONOMIKOA

Gerraostean Eibarrek bi arazo nagusiri egin behar izan zion aurre: alde batetik, gerratean zehar metatutako zorra kitatu behar zen; bestetik, armagintza berriz martxan jarri beharra zegoen.

Gerra-zorra, desamortizazioa eta udal-ogasuna

Gerraren ostean, gerra-zorrari aurre egiteko modua erabaki behar izan zen. Napoleonen inbasioan zehar alkate eta udalkide izandakoek izugarrizko dirutzak aurreratu zituzten alde bateko zein besteko gudarosteen horniketak egiteko[471]. Zorra udalak eskuratzen zuen, eta udalkide horiek zeukaten bermea udalerriaren ondasunak ziren, bien bitartean maileguen korrituak kobratuz. Egoera zeharo korapilatu zen, hartzekodun horiek konturatu zirenean saldu gabe gelditzen ziren herri-lurren bidez eta arielen bidez lortzen zen dirua ez zela korrituak ordaintzeko adina. Irtenbide bakarra desamortizazioa bide zen.

1815eko otsailaren 14an Francisco Urkiola alkateak herri-lurra saltzeko plan bat aurkeztu zuen. Estrategia berriaren lehen urrats gisa, udalerriko irategiak enkantera atera zituen, lurrok eskuratzeko baldintza batzuk ezarriz: lurrok eskuratzeko, udalari maileguak eginikoek zeukaten lehentasuna eskaintza egiterakoan, baina 1/6 dirutan ordaindu behar zuten; are gehiago, 1/6a ordaintzeko gai ez zirenek edo ez zutenek nahi, gerra-zor osoa gal zezaketen, zorrak lurretan kobratzea baino beste modurik ez zen eskaintzen eta (Uriarte, 1998: 15). Gerra-zorrik ez zeukatenek dirutan ordaindu behar zuten balio guztia, inolako aitzakiarik gabe[472]. Horrez gain, herri-lur guztia salduta ere zorrak ordaintzeko lain ez zuela ematen ikusirik, «… se acordo rebajar al importe de dichos recivos rata por cantidad hasta igualar el valor de los terrenos concejiles»[473]. Hau da, herri-lurraren eta gerra-zorraren

471. «Alkateak pertsona dirudunak ziren, dirua aurreratzeko gai. Guda garaietan eurek, udaletxearen izenean jasotako zorrak, herri osoak eskuratzen zituen (…) Udal hauek neutraltzat jo zuten euren burua eta arerio biei tratu berdina eman zieten. Pertsonalki jarrera bata ala bestea izan zezaketen, baina diruari dagokionez, inork ez zuen bestelako portaerarik izan (…) 1813ko Debako Batzar Orokorretan herriek neutraltasun hori bermatu zuten» (Uriarte, 1998: 18-19).

472. EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-2-14.

473. EiUA, A,1,2,1,3, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-3-12.

balioak parekatu zituzten, ordainketa-agirien depreziazioaren bidez. Baldintza zorrotz horiek hartzekodun nagusien eskuetan utzi zuten gelditzen zen herri-lurraren desamortizazio-prozesuaren kontrola, eta horien artean, dirua eskura zeukatenek izan zuten abantaila.

Operazio guztia kudeatzeko hiru batzorde eratu ziren. Lehena Juan Andrés Laskurainek eta Sebastián Argianok osatu zuten, eta bere helburua, udalerriko herri-lur guztien balioa kalkulatzea zen. Bigarren batzordearen funtsa, gerran zehar besterenganatutako lurren egoera aztertzea zen, gerran zehar udalak emaniko agiriak bilduz eta soroetako mugarriak egiaztatuz; batzorde honetan Urkiola alkatea, Gabriel Benito Ibarzabal eta Vicente Aldekoa[474] aritu ziren. Hirugarrena, batzordea baino gehiago, Miguel Antonio Ibarrak harturiko ardura izan zen: Gaspar Jauregiri emandako zerbitzuen diru-kontuak argitzea.

Enkantean eskuratutako lurren 1/6a ordaintzeko epeak ailegatu zirenean hasi ziren estuasunak. Manuel Antonio Muruak, esaterako, ez zuen epean ordaindu, eta udalak bigarren epe bat jarri zion, ordaintzen ez bazuen lurrak galduko zituela ohartaraziz. Murua, lur-jabe txiki-txikia izanik, desamortizatutako ondasunen saleroketetan nahasita ibili zela ikusi dugu, eta Aizurratuko hariztiak eta Sanjuango baserriak balio izandako 16.288 errealen 1/6a ordaindu ezinean ibiltzea ulergarria egin ahal zaigu. Beste kontu bat da Andres Mandiolarena, Eibarko zortzigarren lur-jaberik handiena 1808ko zergaren arabera (4.320 erreal ordaindu zituen), baina enkantean bereganatu zuen herri-lurraren balioaren 1/6a ordaintzeko dirurik gabe. Guk darabilzkigun datuen arabera Mandiolak egindako erosketa bakarra Heriagaburuko mendia izan zen, 1.589 errealetan. Horren seirena —265 erreal— bazen eskura ez zeukan dirua, ordaindu ezinean ibiltzea benetan lotsagarria izan behar zen 1800. urteko alkate ohiarentzat. Udalak ez zuen bere eskakizuna aintzat hartu, eta Muruari bezala, ordaintzen ez bazuen lurrak kenduko zizkiola erantzun zion, nahiz eta bere alde izan, berari eta Pedro Pagaegiri, udalak zor zizkien 114.857 errealak[475].

474. Uriartek eskaintzen dituen datuen arabera Vicente Urkiola «… lurrik gabeko armagina zen. Guda baino lehen alkate, gudan errejidore, guda ostean fiadore eta Iraulta liberalean kutxazain izan zen» (Uriarte, 1998: 104).

475. Andres Mandiolak eta Pedro Pagaeguik aurkeztu zituzten kontuen arabera 427.861 erreal aurreratu zituzten gerratean zehar, eta jaso 320.003 erreal. Ondorioz, 114.857 erreal zeuzkaten kobratzeko oraindik. Horrela onartu zuten 1824-9-23an gaia aztertzeko osaturiko batzordeko kideek: Mariano Jose Laskurainek, Gabriel Ibarzabalek, Jose Martín Ibarrak, Manuel José Martinezek eta Domingo Gisasola Oregik. GAO, JD AIM 302, "Cuenta que se le forma al Ayuntamiento de 1812", 1824. 1846an Andres Mandiolaren semea, Rufino, diru horiek kobratu ezinean zebilen oraindik, eta denbora pasatu ahala gauzak nahasten joan ziren. 1846ko batzordeak zioenez «para deducir que la reclamacion de aquellos es estemporanea, basta manifestar a V.S. que D. Andres de Mandiola el año de 1815 pedia a la villa 9.000 y pico de reales, cuando segun sus cuentas aprobadas el de 1813 debia exigir mas de 46.000 reales por su alcance: es cuanto tengo que manifestarle añadiendo que si cree por conveniente se recogeran los espresados espedientes de poder de dicho Lascurain y mandaran a VS para los efectos oportunos» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1841-1842)*, 1846-9-26. Liburuaren bukaeran agertzen da, 1846-1847 urteetako kontu batzuei buruzko eranskinean.

Uriartek dioenez «Udalaren joera honek lurrak gero eta gutxiago balio izatera bultzatzen zuen zeren lur jabeek eurenak saldu behar zituzten besteak mantendu ahal izateko» (Uriarte, 1998: 105). Edonola ere, salbuespenak egon ziren: hurrengo urtean, adibidez, Erbiti alkateak 1/6 ordaindu gabe eman zizkion lur batzuk Sebastian Zumaran indianoari[476]. Muruak, bere aldetik, korrejidorearengana jo zuen, udalak 12.324 errealen balioko horniketen truke lurrak baino ez zizkiola eskaintzen argudiatuz, eta horrek arrazoia eman zion, Eibarko Udalari 19 eguneko epea emanez Muruari zor zizkion errealak ordaintzeko. Kasuistika zabala izango zen benetan, eta arazoa konpontzeko irizpide nagusiak aurkitzea ez zen batere erraza.

Likidezia-gabeziaren abagune honetan, dirua eskura edukitzea ezinbesteko baldintza zen operazio espekulatiboetan sartu ahal izateko. Diru eta lur asko ibili zen eskutik eskura, eta «… batzuek egoera hobetu zuten une latz horietan. Kasualitatez, urte hauetako udalgintzan aritutako batzuk. Oso gai irristakorra da zeren alde batetik eginikoa guztiz zilegia zen, eta bestetik, une hartan lurrak diruaren aurrean oso depreziatuta zeudenean, ez dakigu oso seguru fabore ala zigorra ote zen lur mordoa jaso eta berriro pagatu behar izatea, oso merke, hori bai (…) Aldaketa hauen bidez, herri hauetako egitura instituzionala aldatzen zihoan. Lehen hizpide eta hautespideko udalgileak izateko adina lur zeukatenek, euren egoera galdu zuten; eta euren lurrik ez zeukatenek baina garai horretan dirua egin zutenek, batez ere merkatari eta armeroek, udalak behar zuen dirua zeukaten, baita ideia berriak ere» (Uriarte, 1998: 19). Oro har, dirua eskura zeukatenek irabazi zuten, lurraren debaluazioa aprobetxatuz inbertsio emankorrak egiteko aukera izan zutelako. Dirurik ez zeukatenak, ordea, gerratean zehar eskuratutako lurrak saldu beharrean aurkitu ziren, erositakoan baino prezio merkeagoan. Operazio horietan guztietan, salmenten erritmoa kontrolatzea benetan erabakigarria bihurtu zela esango genuke, batez ere diru likidoa eskuratzeko aukera zeukatenentzat.

1817an, Jose Antonio Gisasola alkatea zela, bi urteko etenaren ostean, udalak herri-lurrei buruzko txosten berria egitea erabaki zuen. Sebastian Argiano batzordetik baztertuz, Laskurain izendatu zuten batzordeko kide bakar, eskuduntza zabalekin: lurrak tasatu, ordainagiriak eskatu… Hurrengo hilabetean udalari 1/6 ordaindu gabe zeukatenei azken epea ematea erabaki zen, 15 egunekoa. Udalak behin betiko konponbidea aurkitu nahi zion banatutako lurren inguruan sortutako liskarrei, inork ez baitzeukan argi norenak ziren horrenbeste aldaketa jaso ostean. Izan ere, gerra bukatu zenean lurrak bahian —"*en prenda*"— banatu zirela ikusi dugu, eta lurraren erabilera eta jabetza kontzeptuak nahasten joan ziren.

Bilera horietan gerratean zehar zerga-biltzaile izandakoen aurkako kexuak ere entzun ziren. Jacinta Ibarzabalek eta Francisco Urkiolak auzitara eraman zituzten

476. Gogoratu dezagun Sebastián Zumaran 1766ko matxinadako alkatea dela. Sasoi hartan, alkate izateko beharrezkoak ziren 25 urteak bazituen, 50 urte beranduago 75 izango zituen. Hori, izen bereko semearen aurrean ez bagaude!

Andres Mandiola eta Antonio Ibarra, gerra-garaian 30 labore anega bahitu eta operazio hura ez zelako gerraosteko zenbaketan agertu. Mandiolak, bere burua zuritu nahian, berak ere 58 anega eta diru asko galdu zuela zioen (Uriarte, 1998: 106). Lurrak debaluatzen jarraitzen zuen bitartean, eskakizun berriak ailegatu ziren udaletxera: oraingo honetan Jose Ormaetxeak eta Domingo Laskurainek frantziarren atzera-egitean eraman zituzten idi eta gurdien 3.545 errealak eskatzen zituzten. Abagune horretan, udalkideek herritarren kexu ugari entzun behar izan zituzten, udal orokorretan herriko dirudunen eskakizunak eta balio handikoak baino ez zirelako erabiltzen.

Maiatzean Aldekoa eta Urkiolari ahalmen handiagoak eman zizkieten, «… para que recauden el 1/6 parte con facultad amplia para que con todo rigor y medios usen despojarles a las personas de las porciones que tienen señaladas siempre que desde que se les cita a los 6 días no satisfagan sus valores y que se les den a otra persona»[477]. Neurri berean, gerratean zehar buruturiko gehiegikeriak aztertu ziren, esaterako, zuhaitzen mozketak. Eta, bonapartetiarrek ezarritakoak izan arren, ordaindu gabe zeukatenen zergak aztertzeko batzorde bat izendatu zen, diru horiek eskuratzeko. Laukotea honako hauek osatu zuten: lur-jabe armagin batek —Gabriel Benito Ibarzabal—, armagin soil batek —Vicente Aldekoa—, lur-jabe handi batek —Andres Mandiola— eta gestiogintzan aritzen zen Manuel Antonio Muruak. Uriartek dioenez, «Eibarren behintzat, herriko nagusitasuna lur-jabeek galdua zuten halako botere misto bat sortaraziz» (Uriarte, 1998: 107).

Ohiko oligarkia lur-jabearentzat ez ziren garairik hoberenak. Gerrostean lurrak jasan zuen debaluazioaren ondorioz[478], errentak gero eta urriagoak ziren. Nekazaritza jasaten ari zen krisiaren aurrean, lur-jabeak, industria- eta merkatari-burgesiarekin bat egiten saiatu ziren, desamortizazioan eskuratutako lurrak mantentzeko aliantza berri baten bila. Uriartek dioenez «Errestaurazioaren bukaeran protopolitika dei dezakegun alde berria sortua zen Eibarren. Talde hori goi mailako lur jabeek eta armagileek osatzen zuten (…) Egoera honetan 1820ko iraultza gertatu zen (…) Iraultza horretan Lege Zaharreko interesatuak eta barruko zein kanpoko iraultzaileak nahasi ziren loturarik gabeko alde liberala osatuz» (Uriarte, 1998: 152). Guztiek ere, gerratean zehar egindako maileguak berreskuratu behar zituzten, eta berreskuratze hori desamortizazio-prozesuarekin lotuta zegoen erabat. Prozesu hori udalek kontrolatzen zutenez, oso garrantzitsua izan zen gerrosteko udaletan parte hartzea[479].

477. EiUA, A,1,2,1,6, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1817-5-19.

478. Eibarko udalerriaren lur-errenta osoa 146.676 errealekoa zen 1808an, 102.430ekoa 1810ean eta 82.261ekoa 1823an. Uriartek egindako kalkuluen arabera, 1814-1818 bitartean lurraren balioa % 20 debaluatu zen (Uriarte, 1998: 60, 182).

479. Udalkideen zeregina zen, esaterako, gerratean zehar burutu ziren operazio ekonomikoen azterketa-batzordeak aurkezturiko txostena onartzea, eta gai horren inguruko kontuak aurkezterakoan, ika-mika latza sortu zen batzordekideen eta 1814ko udalkideen artean: «… aunque nos congregamos en

Antzinako Erregimenaren egitura ekonomikoaren porrotaren azken pairatzaileak udal-ogasunak izan ziren[480]. Euskal herrialdeek lepotik ordaindu zuten foru-erregimenaren aldeko apustu egin izana, beren gainean hartu behar izan baitzuten gerrak eragindako zorra. Erabaki horren atzean zenbait motibazio zeuden ziur aski: batzuentzat, foruak mantentzeko hartu ahal zen erabakirik hoberena zen; beste batzuentzat gerra-garaian galdutako diruak berreskuratzeko bide bakarra; eta dirukontuen kontrola udalen esku mantentzeko erarik zuhurrena ere… Uriarteren esanetan, garai honetako udalak «… zerga biltzaileak bilakatu ziren, hau izanik euren lehendabiziko betebeharra» (Uriarte, 1998: 19). Desamortizazio-prozesuak giza esparrurik ezinduenak baliabiderik gabe uzteaz gain, propio horiek sortzen zituzten errentak desagerrarazi zituen, eta udal-aurrekontuan sortutako defizita orekatzeko, kontsumo-gaiei ezarritako zergak areagotu ziren.

Zentzu horretan, Konbentzio Gerraren ostean zabaldu zen prozesu berbera errepikatzen da: gerra, zorpetzea, desamortizazioa, arielak gehitzea, pobrezia, bidelapurreria[481]… Baina, areagotuta. Haragiaren prezioaren gorakada izugarria zela-eta, 72 marautan barik libra bakoitza 66 marautan saldu ahal izateko, txakolina eta sagardoa zamatzeko baimena eskatu zioten Erret Kontseiluari. Baina ez zuten lortu. Ondorioz «… ardoaren salmenta sasiliberalizatu egin zen 1817ko urrian. Udazken honetan udalak ardoa edozein lekutan saldu ahal izatea erabaki zuen baldintza bakar batez, alhondigan aforatua izan beharko zen. Honela, udalak kontsumoa gehitzea espero zuen eta horren ondorioz udalaren sarrera ekonomikoak ere bai» (Uriarte, 1998: 15). Helburu berdinarekin, kontrabandoaren aurkako isun eta zigorrak gogortu zituzten. Baina neurri horiek ez ziren estraperlo-jarduera desagerrarazteko gai izan.

Armagintzaren egoera

Bonapartetiarren inbasioan zehar, Konbentzio Gerran bezala, armagin askok ihes egin zuten, baina oraingo honetan Asturias alderantz joan beharrean,

---

la casa consistorial el Sr. Alcalde, D. Pedro Josef Bustindui, y su encargado D. Manuel Antonio Murua, y de parte de la comision D. José Ignacio Arriola y D. Gabriel Benito Ibarzabal, no se verificó la entrega de dichos documentos y cuentas a causa de que por equivocación se suponia faltar un documento». Hurrengo egunean bildu ziren, eta udalaren aldetik Bustindui eta Muruaz gain, Miguel Antonio Ibarra eta Argiano idazkaria ere agertu ziren. Ibarzabalek, Arriolak eta Sebastián Zumaranek sinatutako gutunak zioenez «… por la mala fe que desde sus principios han manifestado estos Señores como se lo tenemos a V.S. patentizado (…) nos vemos precisados a redoblar una vigilancia y celo en uso y decoro de la autoridad que V.S. tiene depositada en nosotros para este asunto», GAO, JD IM 2/9/26, *Cuentas de Eibar*, 1814.

480. Udal-ogasunak, udalerrian bertan sortutako zorrari aurre egiteaz gain, herrialde mailako defizita kitatu behar izan zuen, eta Erret Ogasunaren eskakizunei erantzun: 1818. urtean Fernando VII.ak milioi bat errealeko "donativoa" eskatu zien foru-herrialdeei. Gainera, 1804koarekin alderatuta, 1818ko "*donativo*"a % 273,82 handiagoa zela kalkulatu du Jose Maria Uriartek (Uriarte, 1998: 175).

481. Pedro Atxari 1.600 erreal lapurtu zizkioten Ordizian. Gerran zehar eginiko garraioak —"*bagajeria*"— ordaintzeko dirua zen, EiUA, A,1,2,1,4, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1815-10-12.

Andaluzian babestu ziren. Horietariko asko 1815. urtean bueltatu ziren, baina beraiei esker arma-fabrika berriak sortu ziren Sevillan —1809an— eta Granadan. Beste armagin batzuk penintsulako hegoaldean sakabanatu ziren, eta tailer txikiak sortu zituzten: Jerez de la Fronteran, Ceutan, Valentzian… Gerra bukatu zenean, zabaldu berriak ziren fabrika horietariko batzuek martxan jarraitu zuten, eta lehiakortasuna areagotu egin zen, erregearen arma-eskakizunak eskuratzeko orduan. SEAFi dagokionez, zuzendari berriaren etorrera ospatzeko zezenketa bat antolatu zen 1814ko irailaren hasieran[482].

1814ko ekainean, Gipuzkoako Diputazioak ahal zenik eperik laburrenean bi pistola, eskopeta bat eta pare bat ezpata edo sable egitea adostu zuen Manuel Silvestre Mendiolarekin[483]. Armok Fernando VII.ari oparitzeko zirenez —sableak bere anaiei—, Mendiolak lana maisurik hoberenen eskuetan uzteko agindua jaso zuen. Horrek, Juan Esteban Bustindui aukeratu zuen suzko armen kainoiak egiteko, eta Gabriel Benito Ibarzabal arma zuriak egiteko. Aukeraketa horretan zerikusirik izango zuen Areizaga jeneralak Artilleriako zuzendari nagusiari bidalitako gutunak, Ibarzabalen fabrikak 30 urte zeramatzala erregearen zerbitzura lan egiten. Areizagak zioenez, Europa osoan ederresten zuten «La habilidad de este artífice» (Mugica, 1990: 96, 97), gauza bitxia benetan, sasoi hartan Gabriel Benitok 23 urte besterik ez zituela kontuan hartuta. Marrazki apaingarrien arduraduna Jose María Orbea izan zen[484]. Eskopeta eta pistola hutsen balioa 17.000 errealekoa izan zen, diru-ekarpen galanta txanpon-gose zen herriarentzat, kasu honetan errealok hiruzpalau armaginen artean banatu baziren ere. Opari horrekin Gipuzkoako Diputazioaren helburu nagusia erregea losintxatzea zen, foru-erregimenaren berrezarpena lehenbailehen onets zezan. Baina era berean, diputazioko arduradunek Fernando VII.a txunditu nahi zuten armon edertasunarekin, armaginik hoberenak non zeuden erakutsi, eta gure ustez, buruan zeukaten helburu nagusiari bidea zabaldu: "*donativo*"a dirutan barik, armatan ordaintzea.

"*Donativo*"a dirutan ordaintzeak suposatzen zuen herrialdean zeuden txanpon apurrak kanporatzea; armatan ordaintzeak, ordea, herrialdean inbertitzen zituen, Debarroko ekonomia suspertuz. Fernando VII.ak proposamena onartu zuen, eta irailean, bere zaintza pertsonalaz arduratzen zen talde berezia —"*Guardia de Corps*"— armatzeko beharrezkoak ziren armak eskaini zizkion diputazioak «… por

482. «Con motivo de haver havido el Lunes una Nobilada con Baquitas y terneros de esta villa en obsequio de la venida del nuebo Director, y hubo picadores, chisperos que un Nobillo de año y medio les abrio las tripas a los dos caballos y no les dio gana de volver a salir…», GAO, JD IM 1/3/47, 1814-9-8.

483. Mendiola kanoigina zen. 1805ean Eibarko alkatea izan arren, jatorriz soraluzetarra zen (Larrañaga, 2001: 193).

484. Enkargu hau onartu izanaz damututa agertu zen Mendiola diputazioari bidalitako gutunean: «… crea usted estoy muy harto de haber tomado semejante encargo». Gai honi buruzko bitxikeria gehiago jakiteko, behatu Mugica, 1990: 97.

vía de donativo». Hasiera batean, 550 karabina, 1.100 pistola eta beste horrenbeste ezpata fabrikatu behar ziren, eta eskaintza horrek bai, armagintza-jarduera benetan suspertzeko ahalmena zuen. Arma bakoitzaren kostua, zatika zehaztuta agertzen zaigu hurrengo taulan[485]:

	Karabina	Pistola
Kainoia	38,5	15,5
Giltza	46	44
Latoizko aparejua	22	16
Kaxa	14	12
	120,5	90,5

Eskakizun hark 402.024 errealen ekarpena suposatu zuen herri armaginentzat, eta badirudi oraingo honetan ere Mendiolari egokitu zitzaiola mandatuaz arduratzea, gogoz kontra bazen ere. Udalerriak bizi zuen deskapitalizazio-abagunearen jakitun, hitz hauekin laburbildu zituen bere kezkak: «… no quiero lidiar con estos erreros que los conozco bien. Aqui no sigue la fabrica, no ay dinero ni modo de traerlo ni empezar la obra para el rey»[486]. Gremioetako diputatuek baikorragoak ziruditen, eta lanak lehenbailehen hasteko baimena eskatu zuten[487]. Hilabete beranduago, Mendiolaren konklusio berdinera ailegatuak ziren, eta piezen ordainketak astero egitea eskatu zuten. Baina diputazioak ez zuen lehen epean ordaindu, eta bigarrenean espero ziren 160.000 errealetatik 30.000 baino ez ziren ailegatu. Armak iaia eginda zeuden, «… pero puede hacerse muy dificil su complemento por la desconfianza que causa semejante atraso no solamente en los operarios pero tambien en las varias clases que influien en ella (…) fiandoseles o prestandoseles viveres y materiales. Haviendo pues llegado el descontento hasta los prestamistas de dichos articulos empiezan ya estos a rehusar hacerles mas adelantamientos»[488]. Izan ere, finantzaketa-arazo izugarria zegoen, eta armaginek ezin zuten beren patriketatik aurreratu hainbeste pieza egiteko behar ziren lehengaien kostua, diputazioaren ordainketak noiz gauzatuko zain. Hurrengo urtean arazoa zuzendu beharrean, okertu egin zen, eta langile xumeenek pairatu zituzten ondorio larrienak. Mendiola dugu berriz, klase honek bizi zuen miseriaren deskribatzailea: «… infelices que con sola castaña y sin pan ni borona han estado trabajando en la mayor miseria»[489].

485. GAO, JD IM 1/3/47, 1814-8-28.

486. GAO, JD IM 1/3/47, 1814-9-23.

487. «Hallándose suspensa esta Real fabrica sin embargo de haberse resuelto por SM su restablecimiento y consignado caudales (…) recurrimos a VS afin de que se sirva disponer el que se de principio en ella a la construcción de armamentos de Reales Guardias de Corps (…) puede abrebiarse dicha construcción que regularmente se hara con lentitud», GAO, JD IM 1/3/47, 1814-9-11.

488. GAO, JD IM 1/3/47, 1814-10-21.

489. GAO, JD IM 1/3/47, 1815-11-9.

Ezpaten fabrikazioaren inguruan ere sortu zen iskanbilarik. Ezpaten xaflak Toledon fabrikatu behar ziren, eta SEAFen kirtenak eta bainak baino ez. Soraluzen burututako erematean, Gabriel Benito Ibarzabalekin lehian, Jose Urisarrik eskuratu zuen enkargua, —«… habiendo intervenido al tiempo de su estension, no pocas oposiciones de otros Fabricantes»[490]— ezpata bakoitzaren kirten eta baina 177 errealetan egiteko proposamenarekin. Ibarzabalek pieza bikote bakoitza —kirtenak eta bainak— 200 errealetan egitea eskaini zuen, eta negoziorik gabe, Urisarriri azpiak jaten hasi zitzaizkion: erregearen ziurtasun pertsonala bermatu zuen taldea egoki armatzea ez zen soilik kantitatea, baita kalitatea ere, jakina. Ibarzabalek errege-familiarentzat fabrikatu zituen pistola-jokoek lortutako arrakasta argudiatu zuen enkargua bereganatzeko, eta Getariako Batzar Orokorrek bere lehentasuna onartu izana ezpatok egiteko orduan[491]. Sasoi berean —1816an— Ibarzabalen fabrikak 10 urterako kontratua lortu zuen Toledoko ezpaten hornidurak zuzenean berak egiteko, enkanterik gabe.

Urisarri ezpaten kirtenak eta bainak egiten hasita zegoen. Toledo alderantz bidalitako lehen bi igorpenak onartu zizkioten, baina hirugarrenean, 350 piezatik 81ek baino ez zuten SEAFeko arduradunen azterketa gainditu. Francisco Ceballos SEAFeko brigadier zuzendariak zioenez «… la chapa de que se ha valido para la construccion de las vainas se ha notado era de malisima calidad, picada y llena de hojas»[492]. Gainera xaflak ez ziren bainetan sartzen, baina hori ez zen Urisarren errua: José Joaquín Bustindui eta Baltasar Ivejamiz maisu aztertzaileek onartzen zutenez «… al tiempo de desarmar la de muestra para hacernos cargo de ella antes de darsela al rematante para la construccion se padecio el leve descuido de no haber notado si dichas costillas estaban o no abrazadas con la boquilla»[493].

Kirtenekin gertatu zenak ere zer pentsatu ematen du, pisua kalkulatzeko Toledotik bidalitako ezpataren xafla erabili beharrean, bigarren modelo bat erabili zutelako. Bigarren modelo hori, hain zuzen, Gabriel Ibarzabalek ekarri zuen Madriletik 1815eko urrian, baina, itxura denez, inor ez zen aldaketaz jabetu eta Urisarrik lehen modeloaren pisuari egokitutako kirtenak egin zituen. Bere interesak defendatzeko, Urisarri Ceballosen aurka kexatu zen. Zioenez, «… no viene bien que siendo de gusto la obra en Madrid, deje de serlo en la Fabrica de Placencia, pero ya el exponente lleba indicada la causa motiva de la novedad». Egia esan, Madrilen ere ez zeuden oso konforme Urisarriren lanarekin, bainak zikinak gelditu zirelako erabilitako burdinaren kalitate eskasa zela-eta. Baina atzerapenekin aspertuta Alagoneko dukeak, azken igorpena ere onartzea erabaki zuen. Ceballosek ere nazkatuta ziru-

490. GAO, JD IM 1/3/47.

491. «… a resultas de los méritos que contrajo en la fina elaboración del sable y espada que trabajó de orden de la misma Provincia para sus A.A. los Serenísimos Sres. Príncipe e Infante de España» (Larrañaga, 1981: 500).

492. GAO, JD IM 1/3/47, 1817-7-24.

493. GAO, JD IM 1/3/47, 1817-7-24.

dien. Urisarriri buruz zioenez «… debia mucho recelar y desconfiar de su caracter caviloso, díscolo y altanero… Si antes de ahora no he providenciado ya que a este se le ponga en un calabozo, y en especial en esta ocasion, es en fuerza de la consideracion de que no se prolongue mas la conclusion de un armamento que hace meses debió haber estado concluido»[494].

Nahaste-borraste horretan Gabriel Ibarzabalen jokabidea bitxia izan zen: zer dela-eta ekarri zion bigarren modeloa Madriletik, hain zuzen ere, konpetentziari? Ganoraz jakinarazi ote zion aldaketaz? Calvók dioenez, bonapartetiarren inbasioaren ostean SEAF berriz martxan jarri zen, «… pero perdiendo el monopolio que habia tenido sobre la producción militar de la zona al aparecer Gabriel Benito de Ibarzabal, que todo y actuar como Diputado General de los gremios en varias ocasiones, figuraba como propietario de una fábrica establecida en Eibar con la que atendía las contratas establecidas directamente con la Real Fábrica de Toledo» (Calvó, 1997: 55). Gabriel Benitok, 25 urterekin, bere aitak —Ignacio Maríak— zabaldutako bideari jarraitzen zion, Madrileko Gortearekin hasitako harremana mantenduz eta sendotzeko bidean. Ibarzabaldarrak espainiar koroarekin zuten harreman pribilegiatu horretaz baliatu ziren, lehenik eta behin, SEAFi "*asientoen*" monopolioa kenduz beraien posizioa indartzeko[495]; eta geroago, Eibarko armak espainiar merkatu pribatuan saltzeko aukera sortu zenean, bitartekaritza-lana beteaz, etekinak ateratzeko.

1814tik aurrera armagintzak gora egin zuen Eibarren. Bonapartetiarren inbasioaren garaian, armen ekoizpenari ezarritako kontrolek, eta batez ere, armaginen emigrazioak zeharo oztopatu zuten jarduera hau; baina Garcia Manriquek dioenez gelditu zirenak bonapartetiarren inbasioari onura ateratzeko gai izan ziren, beraiengandik ikasi baitzituzten «… los métodos más perfectos que en la fabricación armera introdujeron (…) Se inició con esto la marcha ascendente de la industria de Eibar» (Garcia Manrique, 1961: 26). Pinedoren ustez, ordea, armagintzaren gorakada berrikuntza teknologikoen ondorioa baino gehiago lehengaien eta lan-esku merke eta ugariaren ondorioa izan zen[496]. Edonola ere, datuek armagintzak gora egin

494. GAO, JD IM 1/3/47, 1817-7-24.

495. «La fábrica de Ibarzábal adquirió entidad propia hacia el año 1816, al contratar directamente sus suministros con la Fábrica de Toledo y también con la Guardia Real, a la que proveía de sus modelos singulares de pistolas y tercerolas. No obstante, para esta última Ibarzábal actuaba en función similar a la de los antiguos asentistas, contratando con los gremios la producción de los distintos elementos de estas armas» (Calvó, 1997: 27).

496. «Independentzia Gerra bukatu eta handik gutxira hasitako deflazioak eta lanaldia handitzea etekinak ekarri zizkien honako hauei: "(a la) cerrajería y otros articulos en la Villa de Mondragón y pueblos inmediatos y en la de Eybar tambien de la misma clase. A fuerza de trabajo prolongado de dia y de noche a que se sujetan los mas de sus operarios, consiguen vender al interior del Reyno sus manufacturas y de la disminución grande del numerario. Esta misma disminución les proporciona barata en las primeras materias del carbon y fierro, como en los comestibles y demas necesario a la vida"» (Fernandez de Pinedo, 1999: 340, 341).

zuela egiaztatzen dute: 1815-1833 bitartean SEAFeko langileek 200.000 fusil fabrikatu zituzten, eta I. Karlistaldian joera mantendu egin zen. Datu kuantitatiboez gain, ekoizpen moduan aldakuntza garrantzitsua gertatzen ari zen. Uriarteren ustez, mende-hasiera horretan «… ekoizpen gremialak protolangile eta langileriari paso eman zion. Armagileek euren kasa lan egiteko ohitura sendotu zuten, Erret kontratazioei lotuta egon beharrean. Erregearekin kontratua beteta, etekinik edo soberakinik egonez gero, haien kabuz sal zitzaketen» (Uriarte, 1998: 126). Ikusiko denez aldaketa hauek ondorio garrantzitsuak izango zituzten hurrengo urteetan.

KONKLUSIOAK

Kapitulu honen konklusioetan orain arte egindako baieztapen bati ñabardurak eskaini beharrean aurkitzen gara. 1780-1809 bitartean aritu ziren 64 kapitularretatik lur-jabeak 14 baino ez zirela jakiteak, esaterako, adierazten digu auzokide hautagaien sistema ez zela aplikatzen Eibarko Udalean, edo aplikatzen bazen ere, oso era malguan. Lur-jabeak ez izan arren, baserri ederren maizterrek anega bat arto eman behar izan zuten 1808ko urrian, eta jabe txikiek, berriz, anega-erdia. Fenomeno hau benetan interesgarria iruditzen zait, eibartarrak, foru-erregimenaren arauak egoera berrietara moldatzeko gai izan zirela adierazten digulako, betiere udalgobernuan parte hartzeko aukerak zabaltzeko xedearekin. Elgoibarren pare bat familiak ohorezko karguak monopolizatu bazituzten ere, Eibarren epe berean 14 lagun izan ziren herriko alkateak. Beharbada gobernu-kontuetarako malgutasun horrek iragazkorragoak egin zituen dotrina berriak— kasu honetan, liberalismoak— planteatzen zituen aldakuntzen aurrean.

Napoleonen aurkako gerran zehar, Debarroa puntu estrategiko bihurtu zen. Frantziarrek Eibarko armagintza beren alde erabili zuten lurraldea kontrolpean eduki zuten bitartean, eta inbaditzaile legez jokatu zuten herritarren aurrean. Hasiera batean klase pribilegiatuen aurka jo zuten gehienbat —lur-jabeak eta kleroa—, baina gerra zabaldu eta luzatu ahala, herritar guztiek pairatu behar izan zituzten frantziar soldaduen gehiegikeriak.

Gerrilla-jarduera nahiko goiztiar eta indartsu agertu zen, eta bortizki gainera: Abadiaren erahilketak eta Suinaga eta Laskurain alkateen bahiketek horrela adierazten dute. Neurri berean, aipagarria da 1812rako Eibarren sare sekretu bat eratuta zegoela Gaspar Jauregiren aginduetara. Sare klandestino horretan parte hartu zuten eibartarren nortasunak aztertuta, 103 lagunetik 25 udalkideak zirela ohartzen gara, gehienak herri-diputatu eta herri-sindikoak. Baina 1812ko alkatea —Miguel Antonio Ibarra— eta 1813koa ere —Miguel Antonio Murua— sarekideak ziren. Hipotesi legez, sare horretan parte hartu zutenek Eibarko liberalismoaren lehen nukleoa osatu zutela esango nuke. Jauregik berak Hirurtekoan eta I. Karlistaldian liberalen alde borrokatu zuen; azken horretan bere sareko kideak izandako 24 eibartar liberalen aldeko Hiritar Zaingoan aritu ziren. Ezkutuko sare horren aurkikuntzak

aditzera ematen digunez, frantziarrek okupatzen zuten lurraldearen gaineko kontrola ez zen hain estua izan, edo izan bazen ere, eibartarrek kontrol hori saihesteko gaitasuna eta adorea erakutsi zuten.

Bonapartetiarrak udal-erakundeak demokratizatzen saiatu baziren ere, orokorrean ez da aldakuntza handirik nabaritzen. 1810-1813 bitartean eratu ziren udal-kontseiluetan parte hartu zuten 18 lagunetik, 12 jada kapitularrak izandakoak ziren. Beste lau aurrerantzean izango ziren. Espainiar konstituzionalisten eskutik eratu ziren udaletan berriztatzea nabarmenagoa izan zen, 16 lagunetik zortzi zirelako jada kapitular izandakoak, beste bi herri-ordezkaritza lanetan ibilitakoak, eta gainerako seietatik hiru frantziarren udal-kontseiluan aritutatakoak. Epe honetan 1813ko iraileko udalean gertatu zen udalkideen berrikuntzarik handiena (sei kidetik hiru). Udal-gobernuaren ustezko demokratizazioaz aparte, aipatzekoa da bost hilabeteko epean udala hiru aldiz aldatu zela, boterearen inguruan nagusitzen ari zen lehiaren seinale.

1814tik aurrera hasitako epeari berrezarpena deitzen bazaio ere, Eibarren behintzat 1810. urtean baino lehen udalkideak izandakoetariko gutxi bueltatu ziren udal-gobernura. Haustura, eta era berean, berriztatze nabarmena ikusten da 1815-1820 urteen bitartean, 1810 baino lehen zegoen egoerarekin alderatzen badugu. 1815eko udala herri-ordezkari ohietan oinarritu bazen ere, 1816 eta 1817koek liberalen —frantses zein espainiar— agintaldietako udalkideak izan zituzten ardatz, eta benetako berrikuntza 1818. eta 1820. urteetan etorri zen. 1810era arte udalaren hariak mugitzen zituztenak betiko desagertu ziren Eibarko Udaletik, eta beraiekin batera iraganari lotutako ikusmolde batzuk, ez guztiak.

Udal-gobernuan buruturiko aldaketak baino garrantzitsuagoak izan ziren ekonomiaren arlokoak, behin betikoak izan zirelako. Gerrak udalaren baliabide ekonomiko guztiak agortu zituen, eta horniketak bermatzeko eskaturiko maileguei aurre egiteko era bakarra herri-lurren salmenta izan zen. Eibarri dagokionez, 1808-1810 epeari buruzko datuak baino ez dira gorde, eta itxura denez estuasun latzetara heldu beharrik ez zen egon, auzokideen batzarrak 4.501 errealeko zerga ordaintzeko hasi baitzuen desamortizazio-prozesua. Hasieran, herri-lurrak tasatutako prezioetan edo garestiago saldu ziren, baina behin lurren gosea asetu eta erosle potentzialek likidezia galdu ahala, udalak geroz eta prezio merkeagoetan eskaini behar izan zituen. Herri-lurren salmenta deskapitalizazio- eta debaluazio-abagunean gauzatu zenez, prozesu honen erritmoa kontrolatzeak izugarrizko garrantzia hartu zuen. Eskura dauzkagun datuak nahiko urriak diren arren, sasoiko udalkide batzuk erosketetan sartu-sartu eginda ibili zirela dakusagu, batez ere 1810. urteko agintaldikoak. Erosle indartsuenen artean, udalkide horiez gain, zerga-biltzaile lanetan ibilitako batzuk aurkitzen ditugu, Suinaga bera adibidez, eta Pedro Atxa, 1804. urteko sisa-biltzaile izandakoa. Gerraostean, herri-lur guztia salduta ere gerra ordainagirien kopurua ordaintzeko lain ez zuela ematen ikusirik, frogagirien balioa depreziatu eta

eskuratutako lurren balioaren 1/6a dirutan ordaintzera behartu zituzten. Hori dela-eta, erosle batzuek arazoak izan zituzten herri-lurren salmentak legeztatzeko orduan, horien artean herriko handiki batzuek ere.

1808-1820 bitartean armagintzak izan zuen eboluzioari buruz, bi epe bereizi behar dira, aldakuntza-puntua 1814-1815. urteetan kokatzen delarik. Lehenengoari buruz, bonapartetiarren inbasioaren testuinguruan, bildutako datuak kontraesankorrak dira, batzuek frantziarren presentziak armagintza suspertu eta teknika berriak ikastea ekarri zuela badiote ere, beste batzuek armaginen exodo masiboari buruz hitz egiten digute. Bigarren epean zehar —1815etik aurrera— armagintza berpizten joan zen, batez ere Fernando VII.aren Zaingo Pertsonala —"*Guardia de Corps*"— armatzeko egin zen eskariarekin, baita Gabriel Benito Ibarzabalek Toledoko arma-fabrikarekin sinatu zuen 10 urterako kontratuari esker ere.

Ibarzabaldarren inguruan, Ignacio Maríaren heriotzaren ostean bere alarguna —María Agustina Pagaegi— arduratu behar izan zen familia eta negozioez, osaba Gabriel apaizaren laguntzarekin. Aita hil zenean —1808an— Gabriel Benitok 17 urte zituen eta 24rekin, jada kontratua sinatuta zeukan Toledoko errege arma-fabrikarekin. Kontratu horrek izan zuen garrantziaz hurrengo kapituluan mintzatuko gara, baina oraingo honetan argitu gabe gelditzen zaigun zalantza honako hau da: zer egin zuen Eibarko liberalismoaren aitzindari izango zenak zazpi urte horietan zehar? Epe horretan Gabriel Benitori buruz daukagun datu bakarra da 21 urterekin Gaspar Jauregiren sareko kidea zela. Horrez gain, ez dakigu ikasketarik burutu zuen ala ez, ezta zer-nolako eragina eduki zuten berarengan frantziarrek ekarritako ideia berriek. Gabrielen nerabetasunari buruzko hutsune hau betetzeari ezinbesteko deritzot Eibarko liberalismoaren aztarnen bila dabilen edozeinentzat.

1. ERANSKINA

Gaspar Jauregi gerrillariari laguntzeko eratutako isilpeko sarean parte hartu zuten 103 eibartar.

NORTASUNA

ACHA Fernando
ACHA Pedro
AGUADO José
AGUIRRE Domingo
AGUIRRE Ignacio
AGUIRRE Pedro
ALBERDI Manuel
ALBERDI Mateo
ALBISU José Joaquín
ALDASORO Ignacio
ANDICOECHEA Ipólito
APELLANIZ Diego
ARAMBERRI Nicolás
ARAMBURU Luis
ARANA Domingo
ARANA Francisco
ARANA Joaquín
ARETA Juan Andrés
ARETA Julián
ARGUIANO Sebastian
ARISMENDI ARRIETA Ignacio (a)
ARIZAGA Francisco "el de
ARIZAGA Julián
ARIZMENDI ARRIETA Domingo
ARIZMENDI ARRIETA Francisco
ARRIAGA Francisco
ARRIETA Marcos
ARRIETA Martín
ARTEGUIETA Antonio
ARTONDOAGA Ignacio
AZCUE Francisco Antonio
BADIOLA Jose Miguel
BARRENECHEA Luis
BARRUTIA Francisco Agustín
BASCARAN Manuel
BELATEGUI José
BENGOA Joaquín
BERRAONDO Francisco
BURGOA Juan José
CRUCETA Joaquín
DOISTUA Antonio
ECENARRO Francisco
ECHEVARRIA Agustín

NORTASUNA

ECHEVARRIA MALZAGA Ramón
ECHEVARRIA Martín Antonio
ECHEVERRIA Andrés
EGOCHEAGA Andrés
EGUIGUREN Gregorio
GABIOLA Francisco
GALDIANO Francisco
GALLASTEGUI Ascensio
GALLASTEGUI José
GOICOECHEA Ipólito
GUISASOLA Antonio
GUISASOLA IPURUAGA Martín
GUISASOLA José
GUISASOLA Juan
GUISASOLA Juan Antonio
GUISASOLA Martín
GUISASOLA MIRAFLORES
GUISASOLA Salvador
IBARRA Joaquín
IBARRA Juan Antonio
IBARRA Miguel Antonio
IBARZABAL PAGAEGUI Gabriel
IDARRAGA Francisco
IRIONDO Antonio
ITURRAO José Antonio
LARRAÑAGA Domingo
LARRAÑAGA Mateo
LARREATEGUI Francisco
LARRINAGA Domingo
LASARTE José
LIBORNA Manuel Joaquín
LOIOLA Rafael
MAISTEGUI Pedro Martín
MAIZTEGUI Manuel
MANDIOLA José
MARQUEGUI Pedro
MUGUERZA Bartolomé
MUGUERZA Jose
MURUA Manuel Antonio
ORBE Juan Francisco
ORBEA SUINAGA Juan
ORMAECHEA José
ORMAECHEA Pedro Joaquín

NORTASUNA

PAGOAGA Francisco Antonio
RETOLAZA Alonso
RUIZ Joseph
SARASQUETA Isidro
SARASQUETA José Manuel
SUINAGA ITURRAO Martín
SUINAGA José Antonio
UBEROAGA Martín "el de
UNAMUNO Miguel
URQUIOLA Francisco
URRIOLA Ramón
ZARATE Melchor
ZULOAGA Simón
ZULUAGA Andrés
ZULUAGA Francisco
ZULUAGA Ramón

2. ERANSKINA

1808an frantziarrek ezarritako zergaren arabera, Eibarko 41 lur-jabeen ordainketa, errealetan, eta kopuruaren arabera ordenatuta. “Udal-karguak” eremuan, bete zituzten udal-kargu guztiak islatzen dira.

NORTASUNA	1808 lurjabe	Udal-karguak
SANTA CRUZeko markesa	9.290	A1 1795
SUINAGA ITURRAO Diego	6.218	ER 1794 ER 1795
EMPARAN	6.180	
SAN AGUSTINeko Komentua	5.911	
GOYCOLEA Juan Jose	5.236	
ERBITI Sebastián	4.836	ER 1790 A1 1798 ER 1802
GUISASOLA BARRUTIA Martín	4.380	ER 1796 ER 1813-7
MANDIOLA Andrés	4.320	A1 1800 MB 1812 A2 1823-6 TA1 1828
ZUMARAN Sebastian	4.266	A1 1766 A1 1775 A1 1786 A1 1787 A1 1796
URIZAR María Ignacia	4.002	
IBARZAVAL Ignacio María	3.901	ER 1777 SPG 1781 ER 1786 A1 1790 A1 1799 A1 1808
UNZETA BARRENECHEA Rafael	3.704	TER 1830 TER 1831
LANDAZURI	3.395	
ACEDO	3.125	
ISASIko Komentua	3.062	
GAMARRA	2.895	
LARRAÑAGA José Joaquín	2.820	SPG 1807 TSPG 1826 SPG 1826
OLABE Fermin	2.690	
PEÑAFLORIDA	2.622	
UNZETA BARRENECHEA José	2.566	
GUISASOLA ESCAREGUI Martín	2.471	SPG 1775
ERBIASeko Kontea	2.272	
BERGARA BIZTEGUI Andres	2.140	ER 1786
UNZETA Sebastián	1.931	
ORVEA URQUIZU Joseph Maria	1.809	SPG 1792 ER 1799 ER 1803
ARETA Ramón	1.780	
ARTEAGA	1.646	
AGUIRRE Juan Bauptista	1.640	ER 1807 ER 1815
AGUIRRE Juan Antonio	1.520	
ARETA MENDIGOITIA Andrés	1.520	SPG 1790
LECETA Joseph Francisco	1.440	
AZPIRI Juan Bautista	1.393	
ELORRIOko mojak	1.375	
LOYOLA Agustin	1.360	ER 1797 ER 1806 MB 1810 ER 1813-7 ER 1817 ER 1833
PAGOAGA Francisco Antonio	1.280	ER 1818 TER 1829 ER 1829 ER 1836
LARRARAIN Ignacio	1.132	
BASCARAN Manuel	820	ER 1813-9 TER 1826 A1 1854 A1 1855
OÑATIko Kontea	814	
IRIARTE	572	
MENDIZABAL Juan Bauptista	435	A1 1756 SPG 1777 HD 1780 HD 1781 A1 1788 A1 1794 A2 1795
MURUA Manuel Antonio	414	AH 1810 MB 1811 MB 1812 A1 1813-1 A1 1813-5 ER 1813-9 SPG 1816 A1 1822 HD 1832 HD 1833
GUZTIRA	115.183	

3. ERANSKINA

1808-1810 bitartean desamortizatu ziren herri-lurren erosleak, ordaindu zuten erreal kopuruaren arabera ordenatuta. Bi kopuru agertzen direnean barra batek banatuta lehen kopurua salmentaren prezioari dagokio, eta bigarrena tasazioari. Salmentak data eta guzti agertzen direnean, ermiten ondasunen desamortizazioei dagokie.

NORTASUNA	DES1808-10	DesKop	DesKop%
IBARZABAL PAGAEGUI Gabriel	Larrañeta eta San Romaneko baserriak 34.871 / 51.692 Heriagacoerrecaaldea, Malabe, Garagarrondo, Aldazabal, Iturgüen, Larrañetako Echeaspia, Elixaspi eta Eiteriagaaldeako lur zatiak, "heredad"eak eta mendiak 15.679 1810-4-7: Zelaarteko San Roman ermitaren ondasunak 15.600	66.150	26.94
SUINAGA Jose Joaquín	Achagako hariztia 2.959,26 1809-5-1: 135 postura 5.675 1810-5-13: Akondiako San Pedro ermitaren ondasunak 10.040 Pachueneako baserriak 29.320	47.994	15.48
IRAEGUI Pedro Antonio	Arrateko "heredad" 3.672,17 Arrateko abeletxea 13.218 / 19.827	16.890	6.88
MURUA Manuel Antonio	Aizurratuko ariztia 1.288,12 1810-11-12: "Sanjuangua"baserria, 15.000.	16.288	6.63
GUISASOLA BARRUTIA Martín	1811-1-6: Gorostietako Madalena ermitaren ondasunak 15.861 er.	15.861	6.46
ARETA Antonio	1814-1-24: San Martin ermitako ondasunak 12.000	12.000	4.89
AZPIRI Miguel	Abuagako "novalia"ren zati bat, Aizpuru, Ciarreta eta Garagarrondoko "usa"k 8.508 Gurruciagavizcarreko "monte de arboles y argomal" 2.610,27 San Romaneko Elixaspin "chantel de heredad" 503	11.621	4.73
ARANGUREN Francisco Martín	Magdalenako baserria 10.574 / 13923	10.574	4.31
ARAMBERRI Nicolás	San Martingo baserria 10.050 / 12414	10.050	4.09
ACHA Pedro	Ciarcunoko heredadea, Amilondoko novalia eta Errialzuko ariztia 6.041	6.041	2.46
BASCARAN Manuel	Arrazolako gaztainadi eta pagadia 3.409 Urquizuko errotaren gaineko lur "valdia" zati bat 491	3.900	1.59
MUGUERZA Jose	Gastañavietako gaztainadia 3.300 / 2487	3.300	1.34
ARIZMENDI Ignacio	Udanagako heredadea 3.294	3.294	1.34
BERGARA BIZCARTEGUI Ignacio	Vizcarteguiburuko mendia 3.149,32	3.149	1.28
SUINAGA José	Abuagozabaleko "novalia" 2.983,24	2.983	1.22
ECHEVARRIA Francisco	Arranomendiko "novalia"ren zati bat eta Casterocuan bi "heredad"e 2.814 / 3.852	2.814	1.15
BERRAONDO Joseph Manuel	1798-9-25: Pietateko ondasunak 2.688 er.	2.688	1.09

NORTASUNA	DES1808-10	DesKop	DesKop%
ACHA BECOECHE José	Berrechinagako heredadea 1.707 Mendiavichako "Alechal"a 225 Guruzeagazabaleko "argomal" 504	2.436	0.99
ACHA Antonio	Olaondo lur "erial y labrantia" 2.285,25	2.285	0.93
ARETA MANDIOLA Andrés	Lizarretako "Novalia"ren zati bat 1.137 Udanagako mendi zati bat 884	2.021	0.82
VERGARA Andrés	Acondiachen "monte conzejil" 1.531,20 Basateguin lur zatia 472	2.003	0.82
MANDIOLA José	Abuagako "novalia"ren zati bat 518 Errotachoburun lur saila 204 Mendiabichako lur saila 349,25 Abuagako "novalia"ren zatia 669,06 / 621,26	1.740	0.71
MANDIOLA Andrés	Heriagaburuko mendia 1.589,25 / 1.229,25	1.589	0.65
AGUIRRE AZALDEGUI Juan Andrés	Santa Cruzeko mendia 1.278	1.278	0.52
GUISASOLA Juan Antonio	Bayeraoko hariztia 1.242	1.242	0.51
SUINAGA Juan	Garogarrondoko "usa" 1.129	1.129	0.46
AGUIRRE Juan Bauptista	Santa Cruzeko ariztia 1.107	1.107	0.45
UNCETA Rafael	Umayoburuko "heredad"ea 920	920	0.37
BASCARAN Juan Bautista	Iturgüengo harizti eta pagadia 733	733	0.30
GUISASOLA Miguel	Zulasteguiko "novalia"ren zatia 454,17 (sin remate)	454	0.18
GUISASOLA Lucas	Errotachoburuko mendia 442,08	442	0.18
ZIGORRAGA Martín	Errotachoburuko "argomal" zatia302,19	302	0.12
AZPIRI Pedro	Urbitaburuko lur zati "valdia" bat 226	226	0.09
	DesKopT	245.504	

6. kapitulua
Oasi liberala tradizioaren erresuman (1820-1833)

IRAULTZA LIBERALAREN EZTANDA (1820-23)

SARRERA

Fernando VII.ak boterea berreskuratu zuenean, Cádizko Konstituzioaren sortzaile eta jarraitzaile nagusiak, ezkutatu, isildu edota erbesteratu egin behar izan ziren. Beste batzuk espetxeratu egin zituzten. Europatik zetozen notiziak ere ez ziren oso baikorrak: potentzia absolutistek gero eta estuago zeuzkaten Napoleonen gudarosteak, eta ez zen inolako mugimendu iraultzailerik sumatzen enperadore korsikarraren atzamarretatik aske gelditzen ziren lurraldeetan. Alderantziz. Napoleon garaitu ostean, Antzinako Erregimena berrezarri zen Europa osoan, hau da, 1789 baino lehenagoko sistema politikoa jarri zuten indarrean, iragan mende-laurdenean Europan gertaturikoa ezabatu nahian. Sasoi ilunak ziren Europako liberalentzat, eta penintsulan, beharbada, bat baino gehiago damutzen hasia izango zen, Napoleonen aurka borrokatzeagatik, absolutismoaren itzulera erraztu izanaz. Izan ere, epe motzera iraultza liberalak aurrera egiteko zeukan berme nagusia Napoleonen gudarosteak ziren.

Aitzitik, 1814an egoera ez zen 1789koa. Potentzia absolutistetako ordezkariek ere ondo baino hobeto zekiten hori. Frantziako Iraultzak eta haren ostean sortu ziren gerra eta aldaketek goitik behera astindu zuten Antzinako Erregimena. 25 urteko epean sistema politiko berriak jarri ziren martxan, administrazio-eredu eraginkorragoak frogatu, lurrak eskuz aldatu, elizaren eta estatuaren arteko eskuduntzak bereizi… Azken finean, biztanleriaren kontzientzia bera zegoen aldatzen, eta Vienako Kongresuan bildu zirenak horren jakitun —eta beldur— ziren. Horregatik itun bat sinatu zuten, Aliantza Santua, Europako edozein bazterretan iraultza liberala piztu orduko indarrak batu eta zapaltzeko.

Estatu espainiarreko liberalak zur eta lur gelditu ziren. Bonapartetiarrak penintsulatik kanporatu izanaren meritu nagusia herriarena zen, errege-familiarengandik hasita, handikiek jokabide pasibo edota kolaboratzailea aurkeztu zutelako menperatzaileen aurrean. Liberalen ikuspegitik, frantsesak garaitu zituzten herritar horien ordezkaritza Cádizko Gorteetan islatzen zen, eta gorte haietan gorpuztutako konstituzioan. Armada bera, samindura horren isla zen, Napoleonen aurkako gerrilletan aritutako hainbat buruzagi baztertuak izan baitziren, karrera militarra zuten ofi-

zialen mesedetan. Kargu militar gorenak absolutisten eskuetara bilduz, gerrillari ohiak baztertu zituen. Gradu eta soldaten jaitsiera jasan zuten militar horien haserreak liberalismorantz bultzatu zituen, eta 1814-1820 bitartean liberalismoaren aldeko jazarraldi militar garrantzitsuenak beraiek burutu zituzten, guztiek porrot egin bazuten ere.

Baina Antzinako Erregimenera bueltatzea ez zen hain erraza. Madrilen berrezarritako gobernu absolutistak izugarrizko arazoak zituen lehengo modura aurrera egiteko, batez ere ogasunaren arloan. Napoleonen inbasioan zehar, espainiar gobernuak amerikar kontinenteko kolonien kontrola galdu zuen: handik zetorren zilariturria moztu egin zen eta hemen ekoitzitako produktuek merkatu zabal bat galdu zuten, ingelesen mesedetan. Bonapartetiarrak kanporatu ostean, kolonien egoera oso zaila zen espainiar gobernuarentzat, eta Simon Bolibar eta San Martinek gidatutako askapen-mugimenduek garaipen entzutetsuak lortu zituzten. Kolonien kontrola berreskuratzeko gobernu absolutistak armada erraldoi bat prestatzea erabaki zuen. Eta armada horretan, hain zuzen, loratu zen 1812ko konstituzioari jarraipena emango zion iraultza.

RIEGOREN ALTXAMENDUA

1820ko urtarrilaren 1ean, Rafael de Riego teniente koronela, Cabezas de San Juanen altxatu zen, Amerikako matxinatuak zanpatzeko antolatzen ari zen gudarostearekin. Riegoren altxamendua, hasiera batean, ez zen aurretik burututakoetatik asko bereizi, baina asteak pasatu ahala Fernando VII.aren armadak ez zuenez Riego menderatzerik lortzen, liberalismoaren aldeko altxamenduak hasi ziren estatuko zenbait hiritan: A Coruñan, Bartzelonan, Zaragozan... biztanleak 1812ko konstituzioa aldarrikatzen hasi ziren. Armada absolutistaren apatia eta ezinaren aurrean, martxoan Fernando VII.ak amore eman, eta konstituzioa sinatu ondoren, hauteskundeak iragarri zituen.

Iraultza liberalaren eztandak, mugatuta bazen ere, adierazpen- eta prentsa-askatasuna ekarri zuen. Estatu espainiarreko hiriburu batzuetan elkarteak eta liberalismoaren inguruko tertuliak sortu ziren. Europa guztia estatu espainiarrari begira zegoen, iraultza liberalaren mamua berriz piztu baitzen, oraingo honetan Europako hegoaldean —Napolin ere iraultza liberala burutu zen 1820an—. Gertakizun historikoen protagonista bilakatu izanaren kontzientziak biztanleriaren partaidetza politikoa areagotzen lagundu zuen[497]. Aldakuntza-garaiak ziren, eta zer galdu edo zer irabazi zeukaten guztiek, arretaz jarraitzen zituzten gertakizunak. Liberalismoa

497. «Por eso no hay noticia del extranjero o suceso político nacional del que no se sienta partícipe directo o indirecto, intelectual o vitalmente. No en vano estos liberales viven su momento histórico, y con razón, como una confrontación sin tregua posible entre principios generales y universales: democracia, por un lado, despotismo, por otro. En la terminología de la época, una lucha sin cuartel entre la luz y las tinieblas» (Llanos, 1998: 193).

bera, bi adar nagusitan banatu zen: moderatuak edo "*doceañista*"k, eta muturrekoak edo "*exaltados*", azken horiek Riegoren jarraitzaile sutsuak. Riegoren jarraitzaileek, liberal aurrerakoiek, «… interpretazio berriak egiten zituzten. Berdintasuna, iustizia eta errepublikak ezinbesteko eskubideak ziren, marko nazional oso bat behar zutelarik. Ideia berri hauek hirietan bizi zen lurrik gabeko biztanlegoan errotzen ari ziren» (Uriarte, 1998: 304). Moderatuen helburu nagusia iraultza epeltzea zen, Europako potentzia absolutistei politikoki jasangarria zen eredu iraultzailea eskaini nahian; muturrekoek, ordea, kontsumo-gaien zergak desagertzea eskatu, eta moderatuen epeltasuna salatzen zuten. Hirurteko Liberalean zehar korronte bi horiek tirabira latzak izan zituzten, eta polemika hauek tertulietan eta prentsan islatu ziren. Baina tirabira horien gainetik, Gipuzkoako liberalak bilduta mantendu ziren, absolutisten indarraren beldur.

Iraultzaileek bazekiten lortutako arrakastaren oinarriak ahulak zirela. Aliantza Santuaren mehatxua ez zen olgetakoa, eta behar izanez gero, armekin eskuan askatasuna defendatzeko prest egongo ziren taldeak antolatzea ezinbestekoa zen. Armadaren jarrera zalantzagarriak liberalen mesfidantza eragiten zuen, eta goikarguen berriztatzearekin batera, talde armatu bereziak sortu zituzten, absolutisten edozein ekimen errotik mozteko asmoz. Arlo horretan, Madrileko liberalek egindako presioaren ondorioz, "*Milicia Nacional*"a[498] sortzeko dekretua onartu zuen gobernuak, 1820ko apirilaren 24an. Llanosek jasotako datuen arabera, Donostian eta Tolosan miliziok eratuta zeuden maiatzerako, eta Irunen boluntario batzuk aurkeztu ziren; Azpeitiko alkateak zioenez, ordea, bere herrian ez zegoen ez boluntariorik, ez dirurik, ez armarik. Eibar ez du aipatzen eta pixka bat harrigarria da, hurrengo urtean herrialdeko miliziarik indartsuena Eibarkoa izango zela kontuan hartzen badugu.

Euskal lurraldeetan, 1820ko iraultzak foru-erregimenaren ezabatzea ekarri zuen eta administrazio konstituzionalaren berrezartzea. Foru-diputazioak indargabetu eta 1814ko diputazio probintzialak berrezarri ziren, behin-behineko eskuduntzekin. Baina diputazio probintzialerako hauteskundeetan, betiko lur-jabeak gertatu ziren izendatuak, eta horiek konstituzioa sinatu bazuten ere, foruak defendatzen saiatu ziren; jarrera horrek foru-herrialdeen konstituzionalizazioa oztopatu zuen (Rubio Pobes, 1997: 133).

498. Llanos Aramburuk milizia honen izaera zehazten digu: «El decreto del 24 de Abril de 1820, basándose en el existente, pone en planta una milicia nacional, carácter voluntario, en las capitales de provincia y pueblos que los soliciten. Cada miliciano se deberá costear el uniforme y los oficiales, elegidos por los mismos voluntarios, dependerán de varias autoridades como el ayuntamiento, Jefe Político, comandante militar… Se trata, pues, de una milicia de carácter estrictamente burgués, sometida más o menos, a la tutela del gobierno. Su función es tanto asegurar la misma revolución burguesa como mantener el orden público y la propiedad, siempre inseguros en toda revolución» (Llanos, 1998: 159).

1820KO APIRILEKO UDALA

Udalkideak

Eibarren, apirilaren 10ean bildu zen udal konstituzionala, baina aktan azaltzen denez Monarkiaren Konstituzio Politikoa pare bat egun lehenago onartu zen «… con asistencia de ambos Cabildos Secular y Eclesiástico, y una muchedumbre de gente, y que el siguiente nueve Domingo, despues de misa mayor se presto el juramento de obserbar la expresada constitucion, la qual previamente antes del ofertorio leyo D. Antonio Ventura de Sustaeta desde el pulpito e hizo el exorto correspondiente del objeto»[499]. Ikusten denez, pilo bat jende zegoen konstituzioaren alde, eta udalaren eta elizaren arteko harreman ona nagusitu zela dirudi. Udal liberalaren lehen bilera honetan, Juan Cruz Aranburu izendatu zuten idazkari, aurreko epe konstituzionalean zehar (1813-1814) egondakoa, hain zuzen.

Udal-hauteskundeak gizonezkoen sufragio unibertsalez egiten hasi ziren, estreinakoz 1813tik. Auzokide hautagaien sistema albo batera uzteak ez zuen ondorio nabarmenik utzi. Uriartek dioenez, «… hauteskunde hauek iraultzaileak izan ziren sistemaren aldetik, eta jarraitzaileak emaitzen aldetik» (Uriarte, 1998: 317). Izan ere, 1820ko apirilean izendatutako udal konstituzionaleko sei partaideetatik hiru, 1820ko urtarrileko foru-udaleko partaide ohiak ziren: Gabriel Benito Ibarzabalek alkate-karguan jarraitu zuen, Pedro Pagoagak errejidore, eta Ignacio Artonduaga herri-diputatu izatetik errejidore izatera pasatu zen. Udalean lehenengoz sartu ziren partaideen artean Julian Kortesena aurkitzen dugu —Bibiana Ibarzabalen semea, Laskurainen semeordea—, eta Ramon Agirre. Juan Antonio Gisasola, ordea, nahiko ibilitakoa zen: 1805ean errejidore izan ostean, 1810eko munizipalitatean parte hartu zuen, eta 1817an alkate kargua bete zuen.

1820ko apirileko udaleko partaideak

NORTASUNA	<=1820-1	1820-1	1820-4	1821	1822	1823-4=>	Gaspar 1812	Urb. 1835
GUISASOLA Juan Antonio	Bai		SPG			Bai	Bai	A.U.
IBARZABAL PAGAEGUI Gabriel		A1	A1			Bai	Bai	KM 35
AGUIRRE Ramón			ER	ER		Bai		A.U.
PAGAEGUI Pedro	Bai	ER	ER	ER		Bai		
CORTESENA Julián			ER					A.U.
ARTONDOAGA Ignacio		HD	ER			HD/HS	Bai	

"Gaspar 1812" zutabean "Bai" aldagaiak bonapartetiarren aurkako sarean parte hartu zuela adierazten du. "Urb. 1835" zutabean, 1835eko milizia liberalean parte hartu zuela adierazten da: "A.U", armatutako urbanoa izan zen; "K.M", komandantea.

499. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1820-4-10.

Aurreko taulan ikusten denez, iraultzaren ondorioz sortutako udaleko kide gehienak esperientzia gutxikoak ziren. Hiru, Gaspar Jauregiren sarean ibilitakoak ziren eta gehienek ibilbide liberalari jarraitu zioten aurrerantzean ere, zeren 1835ean —I. Karlistaldian zehar— eratu zen milizia liberalean parte hartu baitzuten. Dakigunez, desamortizazio-prozesuan parte hartu zuten bakarrak Gisasola eta Ibarzabal izan ziren.

Juan Antonio Gisasolaren aurkako protesta

Juan Antonio Gisasola sisen eta arielen errematatzailea zen, eta arrazoi horrengatik José María Alberdik bere izendatzearen aurka helegitea aurkeztu zuen. Alberdi, bide batez esanda, 1820ko urtarrilean sindiko izendatua izan ostean, kargurik gabe gelditu zen iraultzaren ondorioz, Gisasolaren mesedetan. Alberdi udal berriko partaideak izendatzeko apirilaren 9an burutu zen bileran zegoen, eta zioenez «… trato por su parte hacer eleccion en sujetos que no tenian esta tacha ni otra, y asi lo executo aplicando su voto; pero no pudo prevalecer este por quanto el referido Guisasola tenia hecho el combalache (sic) y buscados votos para que la eleccion de sindico procurador general recaiese en el sin embargo de hallarse ligado y obstarle la excepcion legal de ser fiador de mas de una sisa y arbitrios de villa por escritura formal»[500]. Alberdik gaineratzen zuenez eskribaua jakinaren gainean zegoen, erremateren eskriturak eta Gisasolaren izendatzea, biak bere aurrean sinatutakoak baitziren.

Jose María Alberdi, udaleko kidea izateko inolako interesik ez zeukala aipatzen bazuen ere, apur bat erresuminduta sumatzen da, —«El exponente, contra quien se dirigio mas principalmente el tiro» zioen idatzian—, beharbada Ibarzabal, Pagaegi eta Artonduagak bezala berak ere udalean jarraituko zuela uste zuelako, bere kasuan sindiko-karguan. Baina, interes pertsonalen gainetik, hedatzen ari zen sistema berrian ustelkeria hain bortitz agertu izanak eragiten zion kezka azpimarratzen zuen[501], ez dakigu fede onez edo maltzurkeriaz. Gisasolak, sisen errematatzailea izatearen eragozpena saihesteko, kontzeptu horietan jasotako diru guztiak diruzainen eskuetan utzi zituen, «aunque en manera alguna aspira a la obttencion de empleos de Comunidad»[502]. Bi egun beranduago, Gabriel Benito Ibarzabal alkateak diputaziora bidalitako idatziak argitzen zuenez, bozketa egin aurretik idaz-

500. GAO, JD IM 4/12/18, 1820-4-23. Idatzian beste hau irakur daiteke, Alberdiren eskutik: «Guisasola abrigaba en su pecho la maliciosa intriga de llebar a efecto sus siniestras intenciones, lo que se hace mas reparable con la consideración de que entre los electores debian algunos tener noticia de a tacha legal y intriga…».

501. «… no puede prescindir de que en unos tiempos tan críticos en que debe observarse toda pureza se abuse impunemente de la sinceridad de los concurrentes, y de que para los sucesivo, se ponga remedio evitando los cohechos», GAO, JD IM 4/12/18, 1820-4-23.

502. GAO, JD IM 4/12/18, 1820-4-27.

kariak ea inolako eragozpenik zegoen galdetu zuen, eta inork ez zuen ezer esan[503]. Aurrekari horiek ikusita, diputazio probintzialak Gisasola sindiko-karguan mantendu zuen. Alberdik, bere aldetik, hurrengo urtean lortu zuen erregidore izendatzea.

Arana ardoaren salmenta librearen alde

Iraultzaren lehen une hauetan, Francisco Aranaren[504] eskakizuna nabarmendu zen, ardoaren salmenta librea onartzeko eskatuz. Aranak 1814an Eibarko Udalak ardoa libre saltzeko erabakian oinarritu zuen bere eskakizuna, eta bi garaien arteko lotura eginez, sartu berriak ziren udalkideak estutu zituen, Eibarko Udala ardoaren —eta oro har, kontsumo-gaien— erremateak ematen zituen diru-iturrien menpe bizi baitzen[505], are gehiago, propioen diru-sarrerak ia agortuta zeudenean. Beraz, estatu mailako liberalen eskakizunik zabalduenetariko bat —kontsumo-gaiei ezarritako zergaren desagerpena— bete ezinean aurkitzen ziren Eibarko udalkide liberalak. Edonola ere, Aranari baimena ukatzeko beste arrazoi bat izan zuten; izan ere, salmenta librea arautzen zuen 1813-9-8ko aginduak zioenez «… se mandaba subsistiesen solo los arriendos de abastos publicos que habia entonces en los pueblos, pero que desde que espirasen fuese libre la compra venta de toda clase de abastos»[506]. 1814an ez bezala, 1820an oraindik indarrean zeuden hornitzaileekin egindako kontratuak, eta horiekin hartutako konpromisoa bete arte, Lege Zaharreko sistemarekin jarraitzea erabaki zuten. Hurrengo urtean —1821eko martxoan—, zeharkako zergak kendu beharrean, areagotu egin zituzten, ardoari lau marautako zerga eta pattarrari zortzikoa ezarriz (Uriarte, 1998: 333).

Boluntarioen Milizia eta Milizia Arautua

1820ko abuztuan espainiar gorteek Milizia Nazionala berrantolatzeko dekretu bat onartu zuten. Borondatezko zerbitzuak arrakastarik ez zuela ikusirik[507],

503. «Es cierto que Guisasola se halla constituido fiador del rematante de tres sisas pero en la acta de elección de ayuntamiento constitucional no se ofrecio reparo por esta qualidad, ni hubo la menor oposición sin embargo de que el secretario hizo apresencia de Alberdi y demas electores la indicación y prevención de que se manifestase si habia alguna tacha en los elegidos, antes les respondieron todos uniformemente que no», GAO, JD IM 4/12/18, 1820-4-29.

504. Francisco Arana nortasunarekin bi pertsonaia ditugu datu-basean. Batak, 1766ko matxinoen batzarretan parte hartu zuen, eta armagina zen 1762an. Beraz, 1820ko eskakizunaren protagonista 1827an herri-diputatu izateko hirukoteetan agertzen zaigun Francisco Arana dela ondorioztatu dugu.

505. Udalaren erantzunak hauxe zioen: «La libertad pretendida alterara sustancialmente las reciprocas obligaciones con notable perjuicio de los productos indispensables a la Comunidad para dar salida a sus atenciones», GAO, JD IM, 4/12/30, 1820-4-27.

506. GAO, JD IM, 4/12/30, 1820-4-27.

507. «La creación de esta milicia implicaba el adiestramiento de los ciudadanos en el manejo de las armas y su éxito debía basarse en el entusiasmo que los liberales mostraban en la defensa de sus principios. Por eso inicialmente se pensó en una fuerza voluntaria, en el convencimiento de que llegaría a reunirse un contingente de alrededor de medio millón de personas. Sin embargo, la realidad fue que no llegaron a cubrirse las cifras previstas y hubo que recurrir a la recluta forzosa» (Sánchez Mantero, 1996: 88).

dekretu horren bidez gorteek horretarako gai ziren biztanle guztiak Araututako Milizian parte hartzera behartu zituzten, nolabaiteko prestakuntza militarra lortzeko helburuarekin. Araututako Milizia horretan parte hartu nahi ez zutenek dirua ordaindu behar zuten, milizianoen uniformeak eta armak erosteko. Derrigortasun horren ondorioz, Araututako Milizian gogoz kontra zegoen soldaduen kopurua ugaritu egin zen, eta haien haserrea absolutisten batek bideratzen bazuen, milizia bera erregimenaren kontrako konspiratzaileen habi bihur zitekeen. Horrez gain, Araututako Miliziako agintariak udalak izendatzen zituen, eta udala absolutistek kontrolatzen zuten lekuetan, matxinada-arriskua areagotu egiten zen. Boluntarioen Miliziak, ordea, dinamika autonomoagoa zuen, eta horren ondorioz liskar ugari eduki zituen udal-agintariekin[508]. Baina, zalantzarik gabe, milizia horretako partaideek askoz jarrera gogotsuagoa agertu zuten liberalismoaren defentsan, eta absolutisten jazarpenean. Herri batzuetan bi milizien arteko istiluak sortu baziren ere, Eibarren bien arteko elkarlana nagusitu zen.

1821EKO UDALA

Udalkideak

Udal-erregimen berriaren arabera, errejidoreak bi urtez aritzen ziren udalean, eta alkateak urtero aldatu behar ziren. Guk dakigula hautaketan ez zen inolako istilurik gertatu[509]. Ondorengo taulan 1821eko udalkideak agertzen dira.

1821eko udalaren osaketa

NORTASUNA	<=1820-1	1820-1	1820-4	1821	1822	1823-4=>	Gaspar 1812	Urb. 1835
BUSTINDUI Pedro Joseph	Bai			ER	ER	Bai		A.U.
ALBERDI Jose Maria	Bai	SPG		ER	ER	Bai		A.U.
AGUIRRE Ramón			ER	ER		Bai		A.U.
ARANZETA Juan Miguel				SPG		HD/HS		A.U.
BETOLAZA Francisco				A1		Bai		A.U.
PAGAEGUI Pedro	Bai	ER	ER	ER		Bai		

508. «Eran frecuentes los actos de indisciplina e insubordinación, por lo que la Milicia distaba mucho de ser una fuerza organizada y eficaz (…) los milicianos fueron convirtiéndose en una fuerza local dependiente de los respectivos ayuntamientos, los cuales a su vez se vieron mediatizados por ella» (Sánchez Mantero, 1996: 88-89).

509. Elgoibarkoan, ordea, Domingo Ramon Azpitarteren protesta entzun zen: «D. Domingo Simon de Azpitarte vecino de esta villa de Elgoybar a V. con toda veneracion expone: que segun la orden Constitucional se hizo la eleccion de Alcalde, pero segun manda la Constitucion; pues unos sugetos han puesto los botos a quienes no sabian escrivir, y sin tomar juramento si han sido buscados por la parte los mismos electores del año pasado a un hijo de uno de los Rexidores, y tesorero de esta villa han nombrado de Alcalde, y que me parece no puede ser, anuncio a V. esta eleccion mande es nula y se haga nueba sin nombrarme de la queja», GAO, JD IM 4/12/65, 1820-12-20.

Ikusten denez, bi errejidore esperientziadunak genituen —Bustindui eta Alberdi—, beste bi aurreko agintaldikoak —Agirre eta Pagaegi— eta beste biak berriak —Betolaza eta Aranzeta—, alkatea eta sindikoa, hain zuzen. Pagaegi izan ezik, liberal zintzoak dirudite, I. Karlistaldian "*urbano*"en taldean aritu izanak adierazten duen bezalaxe. Jatorri sozialari dagokionez, armagin eta lur-jabeen arteko botere mistoa zen: Agirre, Alberdi, Aranzeta eta Betolaza 1842ko lur-jabeen zerrendan agertzen dira, Betolaza eta Agirre armaginak ere izan arren; Bustindui armagin soil gisa agertzen da[510]. Oro har, ez dirudi 1821eko udalean ordura arte udal-gobernutik baztertutako biztanleak zirenik, Aranzeta sindikoa izan ezik gainerakoak kapitularrak izango baitziren 1823tik aurrera berrezarriko zen garai absolutistan. Aranzeta bera, herri-ordezkari aritu zen udal horietan. Udalkideak izaera moderatuko liberalismoaren ordezkariak zirela ondorioztatu dezakegu, eta zentzu horretan harturiko bi erabaki aipa ditzakegu: bata, Gipuzkoako hiriburua Tolosan ezartzea eskatu izana, Donostia baino erdirago kokatua egoteagatik[511]; bestea, gobernuari Elgoibarko San Frantzisko Komentua ez kentzeko eskatu izana, eibartar pilo bat joaten omen zelako meza entzutera[512]. Aurreko hilabetean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialde bakarrean biltzea proposatu zuten, Thouvenot-en garaian izandako egitura administratibo-politikoa berreskuratu nahian; hiriburua erdialdean zegoen hiriguneren bat izango zen[513].

Aguraingo altxamendua

Llanos Aramburuk, 1820.a liberalentzat *itxaropenaren urtea* izan zela dio, eta 1821. urtea e*rrealitatearen froga*. Hitz horiekin hauxe adierazi nahi du: 1821. urtean, iraultzaileak hitzetatik ekintzetara pasatu zirela, eta urte horretan frogatu behar izan zutela beren proiektuak benetan berriztatzaileak ziren ala ez, eta herri xehearentzat onuragarriak ala kaltegarriak. Euskal lurraldeen kasuan, frogatu behar zuten 1812ko konstituzioa foru-erregimena baino komenigarriagoa zela. Hortik, Llanosek 1821. urtea «la prueba de la realidad» espresioarekin definitu izana.

Ikusi denez, udal-erregimenaren arloan sufragio unibertsalak parte hartzeko aukera gehiago eskaintzen zien auzokideei. Hamarrena erdira jaistea ere, onuragarria zen nekazarientzat. Baina sistema konstituzionalaren ikuspegi bateratzailea kaltegarria suertatzen zen beste zenbait alorretan; aduanak, esaterako, Ebro ibaiaren lerrotik kostaldera eta mugara eraman zituzten 1821eko urtarrilean; gazteak, zerbitzu militarrera deitu zituzten; zerga berriak ezarri… Horrez gain, kontsumo-

510. Uriartek dioenez Hirurtekoan zehar «Gipuzkoan lur jabe eta liberalen arteko lotura sendotu egin zen. Eibar, Zarauz, Elgoibar, Irun, Ernanin, e.a. liberal eta handikien arteko batasun estrategikoak udaletxeetako agintea eman zien» (Uriarte, 1998: 304).

511. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1821-10-24.

512. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1821-10-31.

513. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1821-9-22.

gaiak zamatzen zituen zerga desagertzearen alde emandako hitza bete ezinean aurkitzen ziren, eta liberal moderatuenen artean, sufragio murriztuaren aldeko ahotsak entzuten hasi ziren. 1821erako, iraultza liberalaren egitasmoak haserre bikoitza eragiten zuen: batetik, sistema tradizionalari atxikitako sektoreena (eliza, nobleak, foru-lurraldeetako biztanlerik gehienak, nekazariak[514]…); bestetik, hiriguneetan, liberalismo aurrerakoia ordezkatzen zuten herritarrena[515], moderatuen helburua iraultzaren martxa moteltzea eta mugatzea zela ikusirik. Europa mailako gertakizunak ere ez ziren pozgarriak liberalentzat, 1821eko martxoan Austriak erregimen absolutista berrezarri baitzuen Napolin. Aliantza Santuaren mehatxua erreala zen, eta Napoliko iraultzaileak zanpatu ostean, espainiarra zen Europan zegoen estatu liberal bakarra.

Mehatxua ez zetorren soilik kanpotik. 1821eko otsailean liberalen aurkako paskin bat agertu zen Oñatin, eta unibertsitateko ikasleek, liberalak gehienbat, ez zuten bakerik izan alkateak gordetako idazkia eskuratu eta plazaren erdian erre arte. Hil berean, erregimen liberalaren aurkako bost konspiratzaile atxilotu zituzten Eskoriatza inguruko ostatu batean, taldearen buru Juan Ignacio Aizkibel urretxuarra zela. Baina, altxamendurik garrantzitsuena Agurainen burutu zen, apirilean. 600 bat errealista Aizkorritik zehar Oñatira jaitsi ziren. Itxura denez haien helburua Soraluzeko arma-fabrika hartzea zen, eta eskuratutako armak Gipuzkoako absolutisten artean banatzea, altxamendu gehiago egin ahal izateko.

Debarroko Miliziak

Gertakizun horien aurrean, Debarroko Miliziak mobilizatu egin ziren. Horien artean Eibarkoa bereizten zen, milizianoen kopuru izugarriagatik. Operazioaren arduradunak —Domingo María Urdangarin bergararrak— emandako datuen arabera Antzuolak 36 miliziano bidali zituen, Soraluzek 44, Elgoibarrek 60 eta Eibarrek 132, hau da, ia-ia beste hirurek beste[516]. Agiri horietan ez da zehazten Araututako edo Boluntarioen miliziak ziren, baina bai Gabriel Benito Ibarzabal zela haien

514. Iraultza liberalak nekazariengan eduki zuen eraginari buruz hauxe dio Ortiz de Orruñok: «La libertad de arrendamientos, la privatización de los comunales, el servicio militar obligatorio y el aumento de la presión fiscal enfriaron sus tibias simpatías liberales iniciales. Comprobaron amargamente que resultaba mas soportable la dominación de los notables rurales que legistación agraria liberal, y se volvieron en defensa de la tradición. En un mundo todavía prepolítico, la única forma de recusar la modernidad era apelando a la tradición. Desde esta perspectiva, el individualismo liberal era también y sobre todo un ataque directo al conjunto de símbolos, creencias y valores comunitarios de la sociedad tradicional» (Ortiz de Orruño, 1996: 30).

515. Llanos Aramburuk Aretxabaletako kasua azpimarratzen du, liberalismo herrikoi honen adibide gisa. Herri honetako alkateak zioenez Millan Barrutia hargina herritarrak matxinatu nahian zebilen, era honetako esaldiekin: «… es menester echar al suelo a los pelucas, que éstos no deben tener más mando que ellos». Hemendik ondorioztatzen du Llanosek «… en Arechavaleta se abría paso una concepción polular del liberalismo» (Llanos, 1998: 195).

516. GAO, JD IM 4/12/45, 1. kutxa, 1821-4-22.

komandantea. Eibarko milizia, Elgoibarkoa eta Soraluzekoa zutabe bakarrean bildu ziren, Ibarzabalen agindupean. Irteera horrek hiru egun iraun zuen, eta Ibarzabalen zutabea Aretxabaleta eta Leintz Gatzagan kokatu zen. Horniketen ordainketa-agiriek adierazten digutenez, Arrasateko milizianoek ogia eta pezeta bana (4 erreal) kobratzen zuten zerbitzuan aritutako egun bakoitzeko. Gainerako herrietakoek —Eibarkoek barne— ez zuten dirutan kobratzen, baina egun bakoitzeko ogia, haragia, babak eta ardoaren gastua, pertsonako hiru errealetik gorakoa zen[517]. Bazkari bakoitzeko anoa, libra bat ogi, libra erdi haragi eta litro erdi ardo zen[518]; beste horrenbeste, afaritan.

Agurain eta Oñatiko altxamenduak hedatu baino lehen zapaltzeko, milizianoen parte hartzeaz gain, funtsezkoa izan zen espioitza eta mezularien lana, zerbitzu horretan 1.368 erreal ordaindu izanak adierazten digun bezalaxe. Soraluzera ailegatzeko gai izan ez, eta absolutistak Bizkaia alderantz sakabanatu ziren. Errealisten altxamenduak abagune aproposa eskaini zien milizia liberalei, beraien prestakuntza hobetu, eta inguruko miliziekin koordinatzeko. Neurri berean, absolutisten porrotak milizien morala igo zuen. Eibarkoa gainera, eskualdeko miliziarik jendetsuena zen.

Herria	Mutriku	Deba	Elgoibar	**Eibar**	Soraluze	Bergara	Arrasate
Miliziano kopurua	82	115	64	**133**	43	32	70
“Foguera”k 1819	44	68	56	**37**	28	87	44

Taula horretatik ondoriozta dezakegunez, 1821eko udaberrirako Eibarren liberalismoak gainerako herrietan ez zeukan presentzia ageri zuen. Eibarko biztanleria Elgoibarkoarekin edo Bergarakoarekin alderatuz txikia zela kontuan hartuta, balore erlatiboak asko hazten dira. 1819an Gipuzkoako Batzar Orokorretan herri bakoitzak zuen su edo “*foguera*” kopuruarekin alderatzen badugu Eibarko milizianoek hirukoiztu egiten dituzte suak (proportzioa 3’59koa da), eta ez dago beste herririk, bat bera ere, bikoiztera ailegatzen denik: Mutrikuk 1’86, Debak 1’69, Arrasatek 1’59, Soraluzek 1’58, Elgoibarrek 1’14 eta Bergarak 0’36. Beste iturririk ezean, datu kuantitatibo hauek funtsezkoak iruditzen zaizkigu, arlo soziologikoan

517. Edonola ere, Gipuzkoako Buruzagi Politikoak eskakizun bat bideratu zuen espainiar gorteetara, miliziano bakoitzarentzat 5 errealeko saria eskatuz. Villafuerteseko kondeak zioenez: «Deviendo reiterar mi reclamacion a las cortes sobre el pagamento de los cinco reales diarios a cada individuo de las Milicias Nacionales de esta Provincia que salieron de la jurisdiccion de sus respectivos pueblos a la persecucion de los facciosos de Salbatierra, y atendiendo a que conviene se haga documentada esta reclamacion, he resuelto se encargue a V. que forme un resumen que manifieste el haber de la Provincia por los cinco reales diarios por Miliciano empleado en el citado Servicio, cuyas cuentas paran en la contaduria, y que me lo enbie V. a la mayor brevedad», GAO, JD IM 4/12/45, 2. kutxa, 1822-2-6.

518. GAO, JD IM 4/12/45, 2. kutxa, 1821.

liberalismoaren aldeko lehen inflexio-puntua adierazten digutelako: 1821erako, Eibarko biztanleria ingurukoa baino askoz liberalagoa zen.

Datu xume hau oso garrantzitsua da, orain arte, ez dugulako agiri bakar bat aurkitu, 1789tik aurrera hasi zen borroka politiko eta ideologikoan parte hartu zuten protagonistek aukeratu zuten alderdia zehazten digunik, ezta alderdi horien arteko indarren harremanena ere. Eta alderdia diogunean ez gabiltza alderdi politikoei buruz, gatazka baten aurrean nork bere burua alde batean edo bestean ikusteari buruz baizik. Konbentzio Gerran zehar Eibarrek tradizionalismoaren aldeko apustu argia egin zuen, Laskurain familiaren salbuespen azalgaitzarekin; bonapartetiarren garaian, udaletan parte hartu zutenen zerrendak ditugu, baina udalean parte hartze hutsak ez digu ezer argitzen beraien ideologiari buruz, are gutxiago erregimen ezberdinetako agintaldietan agertzen zaizkigunean. Frantziarrek antolatu zuten Zaintza Zibikoan ere ez zuen inork parte hartu. Beste muturrean, Gaspar Jauregiren sarean parte hartu izanak ere ez digu zehazten konspiratzaile horiek absolutistak ziren edo liberalak, baina Jauregiren beraren bilakaera nolabait argigarria izan dezakegu: Jauregi liberalei bildu zitzaien Hirurtekoan, eta beharbada zazpi urte lehenago eibartarrekin irundako hariak oraindik eten gabe zeuden. Zoritxarrez, kopurua bai, baina Hirurteko milizianoen nortasunik ez dugu ezagutzen, eta horrek ezinezko bihurtzen du oso interesgarria suertatuko litzatekeen erkaketa, Jauregiren sareko kideen eta 1821eko milizianoen artekoa, hain zuzen. Egia esan, iturri gutxitatik ondoriozta dezakegu biztanleen ideologia politikoa, eta beharbada hauteskundeak eta gatazka militarren aurrean borondatez izandako parte-hartzeak dira iturririk erabilgarrienak, guztiz fidagarriak ez izan arren.

Bitxiena hauxe da: korronte liberalaren agerpen goiztiar eta indartsu hau justifikatzeko, ez dugula arrazoi nagusi bat aurkitzen. Eibarko udal-erregimena malguagoa zela Elgoibarkoarekin alderatuz; maizterren presentzia udalkideen artean; ibarzabaldarren eragina; herri-sailen desamortizazio-prozesuaren ostean industrian zentratu izan beharra… Datuek, egonkortasuna islatzen dute gehienbat: arlo demografikoan Eibarrek 2.500 biztanle inguru zituen, eta 1747an 2.461. Beraz, liberalismoaren oldarra ez zen hazkunde demografikoaren ondorioa izan. Ezta frantsesek ekarritako ideiena ere. Ezta desamortizazioaren aurkako protestaren isla, erosle

519. 1820ko udazkenean espainiar kongresuak Napoleonen inbasioan zehar buruturiko desamortizazio-prozesua ontzat hartzen zuen ala ez erabaki behar zuen. Uriartek dioenez: «Hau zen Espainiako kongresuak eman behar zuen hitzik garrantzitsuena herri Armagileetako nekazarientzat» Kongresuak 1808-1820 bitartean egindako lur-banaketa onartu zuen, eta Uriarteren esanetan «… liberalek zein errealistek lur arazoa erabili zuten bata bestearen kontra jotzeko, konponbiderik izan gabe» (Uriarte, 1998: 17-22). Bere ustez herri armaginetan lur-jabe handiek 1820-1823 epean eratu ziren udaletan parte hartu zuten, 1814-1820 bitartean egindako lur-banaketa onartzeko helburuarekin, baina guk 1820-1823 epean aritu ziren 17 udalkideen artean desamortizazio-prozesuan parte hartu zuten hiru baino ez ditugu aurkitu: Gabriel Benito Ibarzabal, Manuel Antonio Murua eta Juan Antonio Gisasola. Muruak eta Ibarzabalek, lursailen egoera aztertzeko eratu zen batzordean parte hartu zuten —1821eko otsailean—, Aranzeta eta Kortesenarekin batera (Uriarte, 1998: 353).

nagusia liberalen burua zen-eta[519]. Beraz, Hirurtekoan zehar liberalismo eibartarrak izan zuen garapen autonomoaren funtsezko arrazoia ezagutu gabe jarraitzen dugu. Baina, behintzat liberalismoaren aldeko lehen inflexio-puntua kokatzea lortu dugu.

Bigarren alkatearen auzia

1821eko agintaldia eztabaida luze batek zipriztindu zuen. Polemikaren sortzaile nagusia beste ibarzabaldar bat dugu[520]. Miguelek zioenez, Eibarren 500 auzokidetik —"*vecinos*"— gora bizi ziren, eta kopuru horren arabera bigarren alkatea eta bi errejidore gehiago izendatu beharra zegoen[521]. Horrez gain, bi udalkideren arteko senidetasun-harremana aipatzen zuen, «… y tengo entendido que la Ley proybe (sic) todo Pariente, por lo que prebengo a V.S. para que en su vista tome las providencias que le parescan mas combeniente». Betolazaren erantzuna hurrengo hilabetean ailegatu zen, errejidoreen arteko senidetasun-harremanari zegokionez, bere garaian errekurritu behar zuela azalduz; eta bigarren alkatearen kontuaren inguruan, legearen arabera bost biztanle bakoitzeko auzokide bat kontatu behar zela argudiatuz, «… advirtiendo a V.S. que segun el estado formado en esta el año ultimo y partte que a V.S. se le dio de oficio, debe haber 2384 almas por lo que he suspendido el nombramiento de segundo Alcalde y de los dos regidores»[522]. Hortik aurrera, eztabaida luzea hasi zen Betolaza alkatearen eta Miguel Ibarzabalen artean, Eibarrek zehatz-mehatz zeukan biztanle kopuruaren inguruan.

Ekainaren 14an, Miguel Ibarzabalek Eibarko auzokideen zerrenda bidali zion Gipuzkoako Buruzagi Politikoari —Villafuerteseko kondeari—, «vecinos» dio idatziak, «como tambien de las viudas que con vecindad abierta existen en la misma». Ibarzabalen zerrendak guztira 536 «vecino»[523] eta 83 alargun barne hartzen zituen. Era berean, neurriak hartzeko eskatzen zion korrejidoreari, udalkideak ikerketa oztopatzen saiatuko zirela iragarriz.

---

520. Miguel Ibarzabal 1835eko armaginen zerrendan agertzen da, maisu aparejugin gisa. 1842an 200 erreal ordaindu zituen lur-jabetza arloan. 42 urte zituen 1821ean.

521. Miguel Ibarzabalek herrialdeko Buruzagi Politikoari: "Habiendole echo presente el 27 del presente al Sr. Alcalde de esta villa que para mi estaba seguro que llegaban a 500 vecinos y que determinase formar el nombramiento del 2º alcalde y regidores no se ha berificado aun ni he observado haya practicado dilijencia para el efecto", GAO, JD IM 4/12/65, 1821-5-31.

522. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-6-10.

523. "Vecino" hitzaren itzulpena egiteko "auzokide" hitza erabiliko dut, auzokide hautagaiengandik bereiziz —"vecinos concejantes"—. Bi kasuetan, eskubide politikoak dituzten gizonak dira, baina bigarren kasuan —foru-erregimenean— eskubide horiek kaparetasun eta milarrak zituztenei mugatzen zitzaizkien. Agirian agertzen den testuinguruan badirudi "vecinos" hitza 25 urtetik gora zituzten gizonentzat erabiltzen dela, baina gizonik ez dagoen etxeetan alargunen izenak agertzen dira. Ibarzabalen txostena Eibarko demografia aztertzeko —eta beharbada toponimia ere— agiri interesgarria da benetan, datu zehatzak eskaintzen baititu: baserrietan 267 auzokide eta 25 alargun familia-buru bizi ziren; hirigunean 269 auzokide eta 58 alargun familia-buru. Etxebizitza bakoitzean zenbat "*auzokide*" zeuden zehazten du.

Betolazaren erantzuna ekainaren 26koa da. Ikerketa oztopatzen saiatuko zela gezurra zela adieraziz —«… como le supune (sic) estte Ibarzabal falttando a la verdad»—, berak arimen kopurua hartu zuela neurritzat berretsi zuen, eta 1820ko irailean egindako zerrendaren arabera 2.384 arima zeudela. Bere esanetan Ibarzabalek egindako zerrendan «… se hallan puesttos a su anttojo, a saber, en algunas, más de los que avittan; en ottras conttando padre e hijos casados que se hallan en una mesa; en ottras hastta viudas de servicio en clase de criadas y por ulttimo hastta los pobres refugiados en el ospittal de estta villa, ttodo con el fin de aumenttar la vecindad y de incomodar a V.S. y a estte Ayuntamiento»[524]. Eta Miguel Ibarzabalen jokabidea azaltzeko, informazio interesgarria gehitu zuen: «V.S. se hara cargo que Ibarzabal no hace mas que incomodarle por la venganza del auto de oficio que a él y ottros quattro les lebantó mi Alcalde, como le hice presente a V.S. en mi antterior informe, combenia que le aconsejase que se modere en sus espresiones conttra las auttoridades y evitte nuebas representtaciones de quejas infundadas, con lo demas que V.S. ttenga a vien de decirle»[525]. Izan ere, Miguel Ibarzabalen salaketaren data maiatzaren 31koa da, Betolaza alkateak aipatzen duen istilua baino hiru egun geroagokoa.

Boluntarioen Milizia eta udalkideen arteko istilua

1821eko maiatzaren 28a zen, eta Aguraingo altxamendua zapaldu izanak sorturiko euforia oraindik itzali gabe zegoen Maltzagan zaintza burutu ostean Eibarrerantz itzulitako milizianoen artean. Betolaza alkatea udaletxean zegoen beste errejidore batzuekin, gaueko bederatzi eta erdiak aldera, udaletxe aurrealdetik zetozen oihuak eta zalaparta entzun zituztenean «… que parecian indicios de motin». Aguazila bidali zuen bildutakoak uxatzera, baina horiek «… continuaron con maiores voces desentonadas». Arazoa bideratu nahian, udalkideak eurak hurbildu ziren kantu- eta algara-sortzaileengana, eta orduan alkatea iraindu zuten, «… con mucha desvergüenza por Miguel de Ibarzabal y su sobrino, Felipe de Ibarzabal». José María Alberdi —31 urte— errejidoreak emandako testigantzak berresten zuenez, Felipe Ibarzabalek «… hizo varias demostraciones de tirar con ira su sombrero al suelo a presencia de su mrd. y a sus mismos pies, y como habia tanta confusión y ablaban varios de los muchos que estaban en tropel», Alberdi inguratu egin zuten «… en medio de varios de aquella bulla y le trajeron a empujones hasta cerca del arco de estta casa concejil (…) mas de catorce hombres y mozos y que estaban mui altivos y dispuestos para la camorra, se rettiraron a estte quartto (…) algunos de aquel tropel trataron a su mrd. y capittulares con expresiones de que no son constitucionales y demas ofensibas»[526].

524. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-6-26.
525. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-6-26.
526. GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-5-28.

Puntu honetan, Andrés Etxeberria —34 urte— aguazilaren eta Juan Miguel Aranzeta sindikoaren testigantzek datu argigarri bat eskaintzen digute, zalapartaren testuingurua eta, beharbada motibazioak ere, ulertzeko orduan. Udalkideek behin ilunduta era horretako bilerak ez zeudela baimenduta azaldu ostean, bilduta zeudenen erantzuna honako hau izan zen: «… que venian muchas ordenes a estta villa y no se cumplia oculttándolas como la que vino para nombrar otro Alcalde y no hizo caso»[527]. Aranzetak zioenez, errietalariek hauxe esan zioten alkateari «… que no cumplia con su obligación por que no nombro segundo Alcalde según la orden que tenia (…) espresando que la justicia no queria la consttittucion, y que no hera mala la canción que canttaban». Beraz, boluntarioen miliziako kideekin izandako istiluak bigarren alkatearen inguruan sortutako eztabaidarekin lotura zuzena zeukan. Eztabaida hori pil-pilean zegoela dirudi, eta hogei egun lehenago elgoibartarrek bigarren alkatea izendatu izanak eibartarren eskakizuna indartuko zuen[528].

Ekainaren 2an akusatuek deklaratu zuten, guztiek ere *"sin juramento"*. Miguel Ibarzabalek —29 urte— zioenez Maltzagan zaintza-lana burutu ondoren (berak, bere osaba Felipek, Isidro Usatorrek, Mateo Alberdik, Blas Olabek eta Ignacio Bolinagak, "*Mondragones*" ezizenekoa eta "*Errekakua*"n bizi zena[529]), herrira itzuli eta ardo-zahatoa bete ostean, elizpeko eserlekuetan eseri ziren. Gazte batzuk hurbildu zitzaizkien «… con guitarra (…) y empezaron a canttar la canción dela consttitución». Aguazila heldu zenean Felipek alkateari hauxe esateko esan omen zion: «… que estaban con buen amor y paz, y no tubiese cuidado», eta tabernara joatea proposatu zuela, azunbre bat ardo ordaintzeko zeukatelako. Bien bitartean, "*Mondragones*"ek konstituzioaren abestia kantatzen jarraitzen zuen, eta Alberdi errejidoreak isiltzeko esan zionean hauxe erantzun omen zion: «… que supuesto que no querian oir, no heran constitucionales; y por que les tratto de picaros y aun le agarro a dicho Mondragones diciéndole que fuese con el». Itxura denez, Alberdi "*Mondragonés*" atxilotzen saiatu zen, eta horrek gainerakoen erantzuna eragin zuen, zeren «… donde estaba el Alcalde, no debia agarrar de aquel modo el Regidor».

Ignacio Bolinaga —30 urte— "*Mondragones*"ek zioenez, tabernetan jendea zegoela ikusirik, azunbre bat —pare bat litro— ardo hartu eta elizako eserlekuetan eseri ziren. Han, «… empezaron a vever y a canttar la cancion de la consttittucion

527. GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-5-28.

528. José Ignacio Iriondo Elgoibarko alkatearen gutuna Gipuzkoako Buruzagi Politikoari: «En cumplimiento de la Real Orden circulada por V.S. con fecha 6 de Abril ultimo sobre el numero de individuos de que deben constar en los Ayuntamientos Constitucionales, hallandose este Pueblo en el caso de que haya dos Alcaldes por exceder de quinientos vecinos y no llegar a mil se ha tenido a bien de nombrar por Segundo Alcalde con las formalidades prevenidas en el Reglamento de su razon a D. Bernardino de Urruzuno por estar ya nombrados desde Diciembre ultimo los seis Regidores y un Sindico», GAO, JD IM 4/12/65 (2. kutxa), 1821-5-9.

529. Itxura denez arrasatear hau Miguel Ibarzabalen etxean ostatzen zen, 1842ko zergaren arabera Errekakua deitutako etxea Miguel Ibarzabalena baitzen, EiUA, C,1,1, *Año de 1842. Estado de la propiedad Rural y estraccion del 7 por 100.*

en vascuence, y al momento se les agregaron varios mozos con bigüela y el declarantte cantaba los versos y los demas (…) le conttesttaban con el estribillo». Aitortu zuenez, Alberdik «… le agarro de la chamarra con accion de llevarle», eta datu hauekin gertatu zenari buruzko ideia bat atera dezakegu. Maltzagako zaintza egin ostean, boluntarioen taldetxoa herrira itzuli zen, eta 1821eko udalkideen liberalismoa frogan jarri nahian, udaletxe aurrean bildu ziren, festa-giroan konstituzioa aldarrikatuz; udalkideak agertu zirenean, bigarren alkatearen gaia aurpegiratu zieten, eta "*Mondragones*"en kantuek ez zuten asko lagunduko han sortu zen eztabaida bideratzen. Alberdi errejidorea arrasatearra atxilotzen saiatu zen, baina gainerakoek inguratu egin zuten, eta udalkideak udaletxean babestu behar izan ziren. Zalapartarietariko bat —Isidro Usatorre—, beharbada zalaparta urrunegi joan zela ikusirik, beraiekin sartzen saiatu zen azalpenak eman nahian, baina ez zioten utzi.

Auzia udalean erabaki zen: Miguel Ibarzabal hamar dukateko isuna ordaintzera zigortu zuten, eta gainerako bostak auziaren gastuak ordaintzera. Hamar dukat, 110 erreal ziren, 25 bat eguneko lana, gutxi gorabehera. Salatuek ez zuten sententzia onartu eta helegitean ziotenez ordua ez bazen ona, «… tampoco era conforme al buen orden, y buena policia que Vmd. Señor Alcalde permitiese havierttas todas las tabernas y ttoda la gente en la calle». Algaraka bazebiltzan «¿no tenia Vmd. en su compañia , o a lo menos en la misma casa consistorial al comandante y oficiales de la milicia local con armas, y fuerza sobrada a su disposicion?»[530]. Momentuz auzia hortxe gelditu zen, urrian Bergarako epaitegiak esku hartu zuen arte.

Biztanleen zenbaketa

Astebete beranduago, uztailaren 15ean, Gipuzkoako Buruzagi Politikoaren aginduari erantzunez, biztanleriaren zenbaketa hasiko zuela adierazi zuen Betolaza alkateak, eginkizun hori lau errejidoreen eskuetan ipiniz. Abuztuaren 12an Ibarzabalek udalerriko arimen zerrenda bidali zion Villafuertesi, baserri eta etxe bakoitzean zenbat pertsona bizi ziren zehaztuta. Guztira 2.580 biztanle zituen Eibarrek, «… que ha no ser asi mas medios tiene para benir en conocimiento exacto de si le comprende o no la R.O. que se trata que yo, que soy un artesano redusido a sostener la familia con el sudor de mi frente». Hurrengo hilean, udalaren zenbaketaren geldotasunaz kexatzen zen Ibarzabal, abuztuaren 26an hasi baitzen zenbaketa, eta «… no hisieron mas que dar principio a ella ocupandose tan solamente dos horas la mañana del mismo dia 26, sin que al becindario pasase abiso asta la misma hora; de consiguiente no pudieron inscribir en ella sino una parte de las almas que consprende el casco de esta poblacion, con cuia operacion se contentaron sin que asta haora (sic) hayan adelantado cosa alguna»[531].

530. GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-7-9.
531. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-9-6.

Betolazak, bere aldetik, zerrenda eginda zegoela ziurtatu zuen irailaren 16an «… y resulta de ella que con inclusion de los sacerdotes seculares, vicarios de monjas y las mismas Religiosas con sus criadas no pasa el numero de almas de esta villa de 2484 habitantes, en cuio numero no corresponde segundo Alcalde». Ibarzabal erdi nazkatuta egon behar zen ordurako, eta irailaren 30ean kokotea jokatzeko prest agertu zen Eibarren 2.500 biztanle baino gehiago zeudelako ustearen, urriaren 7rako erabakia hartzen ez bazen, eskualdeko batzarrera Eibarrek hiru hautesle barik bi baino ezin izango zituela bidali ohartaraziz[532]. Urriaren 4an Betolazaren zerrendan agertzen ez ziren beste 64 pertsonen zerrenda bidali zion korrejidoreari. Betolazak, bere aldetik, bere bostean jarraitzen zuen, eta badirudi Ibarzabalen urduritasunaz trufatzen zela[533]. Azaroan, Buruzagi Politikoaren aginduz behin betiko zenbaketa egin zen, familiaburu guztiak plazan bilduta, eta Betolazak Eibarren 2500 biztanle baino gehiago bizi zirela onartu behar izan zuen, eta ondorioz bigarren alkatea izendatu behar zela[534]. Hori bai, urtea bukatzear zegoen, eta 1821eko agintaldia alkate bakarrarekin egin zuen Eibarko Udalak. Urtearen bukaeran José Martín Ibarra izendatu zuten bigarren alkate, baina ez da azaltzen zein modutan egin zen hautaketa. Edonola ere, betidanik alkate bakarrarekin jarduten ohituta, bigarren alkatearen eginkizunak ez zeuden batere argi Ibarrarentzat, eta horren inguruan azalpenak eskatu zizkion Buruzagi Politikoari[535].

532. «La lista que tengo remitida a V.S. es exactisima, y por ella save que el numero de almas de esta jurisdiccion pasan de 2500 de cuia certeza respondo con todo cuanto tengo, y aun con la vida si necesario fuere (…) debe V.S. estimarlo, y hacer que se execute antes del dia 7 del mes proximo octubre para que en las elecciones electorales de Parroquia que se han de celebrar aquel dia corresponda a esta villa tres electores en lugar de dos que se han correspondido asta haora», GAO, JD IM 4/12/65, 1821-9-30.

533. Betolazak Buruzagi Politikoari bidalitako gutunean hauxe zioen: «No se puede asegurar respondiendo con la vida sobre la infalibilidad de dicha lista como lo hace Ibarzabal de la suya; pero si este juzga que es exactisima la formada por el, el ayuntamiento piensa lo mismo de la suya. En estas circunstancias los datos son iguales y V.S. pesará con su prudencia a que lado se inclina la balanza, bien entendido que acredittar de una manera infalible que no llega a 2500 el numero de habitantes de esta villa, me es absolutamente imposible en el corto termino que media hasta el Domingo y en esta misma imposibilidad se hallará también Ibarzabal», GAO, JD IM 4/12/65, 1821-10-4.

534. «Por el conducto de D. Miguel de Ibarzabal he recivido el oficio de V.S. de 16 del corriente; y en contestacion digo a V.S. que habiendo visto las diferencias que aparecian en las listas del nº de almas de esta jurisdiccion recividas por Ibarzabal y por mi para proceder o no a la eleccion de segundo Alcalde, deseoso de salir de dudas dispuse que a presencia del mismo Ibarzabal se formase nueba lista llamando al efecto a las cabezas de familia; y realizada asi dias atras, he visto por resultado de que pasa de 2500 el nº de almas, y que este pueblo esta en el caso de tener dos Alcaldes. En consequencia estaba pronto a proceder a la eleccion pero no he ejecutado por estar ausentes algunos electores, y ahora que estan en el pueblo he dado orden para que al efecto se reunan despues de mañana», GAO, JD IM 4/12/65, 1821-11-22.

535. Ibarrak hauxe galdetu zion GBPari: «Hallandome en la incertidumbre de si yo como Alcalde de Segundo votto para estte presentte mes, y del primero para dicho año proximo, debo presidir los ayunttamienttos y demas funciones anejas, paso a suplicar a V.S. con ttodo desintteres a fin de que sirba informarme para mi intteligencia en conttexttazion quien de los dos Alcaldes para dicho año

Bergarako epaitegiaren esku-hartzea

Legedi konstituzionalak justizia-sistemaren antolakuntza aldatu zuen, eta barrutiko epaitegiak sortu ziren, alkateek lehen instantzian emandako epaien errekurtsoak aztertzeko. Horren arabera, Ibarzabalen eta beste bosten helegitea Bergaran aztertu behar zen. Epaia eman eta hiru hilabete geroago Betolazak auziaren autoak Bergarara bidali gabe zeuzkan, eta Ibarzalen abokatuak Bergarako epaileari eskatu zion «… se sirva mandar que dicho Alcalde dentro de un breve y perentorio termino y vajo una buena multa haga la remesa de autos que se le esta mandada»[536]. Baina Ibarzabalen abokatuak legedi konstituzionala hobea izango zela uste bazuen ere, oker zebilen, zeren azaroaren 7an Juan José Alzate Bergarako entzutegiko "*promotor Fiscal*"ak epaiketarekin jarraitu behar zela erabaki baitzuen. Fiskalarentzat argi eta garbi zegoen iraultzaren eta anarkiaren arteko muga non kokatzen zen, eta boluntarioen jokabidea salatuz, —«…faltando a la devida ovediencia a las autoridades constituidas falto el buen orden y fracaso necesariamente el edificio social entrando la dominacion de la anarquia, plaga la mas funesta de la sociedad»[537] zioen—, Hirurteko Liberal moderatuen beldurren berri ematen digu. Salatuei deklarazioa berriz hartu ostean, Betolazak ezarritako isuna bigunegia zela ondorioztatu, eta epaia gogortzeko eskatu zion epaileari abenduaren 4an[538].

Ikusi denez, ordurako bigarren alkatearen arazoa konponduta zegoen, Ibarzabalen alde. Beraz, erabaki horrek arazoa konpontzen lagundu beharrean, herrian bizi zen giroa gaiztotu egin zuen, eta familien arteko liskarrak ere hasiak ziren. 1822ko otsailaren 14an, Betolazak —jada ez zen alkate— gutun bat bidali zion Bergarako fiskalari, Ibarzabalek iskanbilan agertu zuen jokabidea leundu nahian. Betolazak zioenez, elkarren artean zuten konfiantzaren eraginez, Ibarzabal ez zen ohartu

nombrados debemos presidir los ayuntamientos y demas funciones de nuesttro oficio" GAO, JD IM 4/12/65, 1821-12-20. Eta lau egun geroago: «… ocurre la duda de si he de ser yo el primero o segundo Alcalde. No tengo empeño en ser lo uno ni lo otro, pero sí deseo saber con tiempo para no cometer algun ierro; por que si consiste la preferencia en el asiento y voto en la anterioridad de la eleccion, esta no se me puede negar», GAO, JD IM 4/12/65, 1821-12-24.

536. GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-10-2.

537. GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-11-7.

538. Bergarako promotore fiskalak zioenez, Eibarko alkateak «… dicto la providencia mas moderada con la mira de atajar la continuacion y consecuencias ulteriores imponiendo la multa de diez ducados vn. Al espresado Miguel de Ibarzabal y costas a los cinco mancomunadamente, quienes lejos de aquietarse con una providencia tan benigna piden con la mayor altaneria que se levante la pena impuesta y se declare no haber havido motibo para la formacion de la causa. Mas resultando de la informacion recivida y de las confesiones de los mismos acusados que se desvergonzaron y perdieron el respeto debido a la autoridad del Alcalde constitucional con espresiones indecentes y cargos que no eran propios por el sitio y motibo por que se le reconvenia, y que si tenian causa para quejarse contra el Alcalde por falta de cumplimiento de las ordenes podian deducir en forma y lugar correspondiente. No hay pues duda alguna de que hubo motivo para la formacion de la causa y castigo que se les impuso por lo que A.V. suplica se sirva aumentar las penas impuestas por dicho Alcalde». GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1821-12-4.

Betolaza momentu hartan alkate gisa hitz egiten ari zela[539]. Nahiko azalpen harrigarria dugu hau; izan ere, boluntarioek Betolazari leporatzen ziotena, hain zuzen, alkate gisa ez aritzea zela kontuan hartzen badugu. Ziur asko, Betolazaren jarrera-aldaketak badu azalpen hoberik. Bigarren alkatearen inguruan, hain ika-mika luzea izan ostean, azkenean Ibarzabalek zeukan arrazoia, eta ez zen iritzien kontua, datu objektiboen kontua baizik: Eibarren 2.500 biztanletik gora bizi ziren. Legearen aurrean bi auzi ezberdin izan arren, Eibarko iritzi publikoaren aurrean Betolazaren eta Miguel Ibarzabalen arteko eztabaidaren jatorria bigarren alkatearen kontua zen, eta hura Ibarzabalen alde erabaki zenez, kontraesana zen arrazoia zuena zigortzea eta oker zebilena zigortu gabe uztea. Egun berean, José Martín Ibarra alkate berriak, beste idatzi bat bidali zuen Bergarako epaitegira, Ibarzabal pertsona baketsua eta zintzoa zela azalduz[540]. Bi egun geroago behin betiko sententzia eman zuen epaileak, isunak kentzeko aginduz, baina prozesu judizialaren kostuak ordaintzera behartuz.

Argitu gabe gelditzen zaigu ea Ibarzabalen koadrilak udaletxe aurrean antolatu zuten festaren azken helburua tamaina honetako zalaparta sortzea zen, edo alderantziz, ea udaberriaren eta ardoaren arteko aliantzak —eta beharbada "*Mondragonés*"en bertsoek— eragindako ustekabeko gertakizun baten aurrean gauden. Ibarzabalen salaketa istilua gertatu eta hiru egunetara gauzatu izanak bigarren hipotesiaren alde jokatzen du. Aurreikusitako estrategia baten aurrean bageunde Betolazaren jokabidea zuzentzeko biderik eraginkorrena salaketa zen, baina ez maiatzean, urtarrilean baizik. Beharbada, Betolazak zer egingo zain zeuden. Denbora pasatu ahala Betolazaren utzikeria gero eta nabarmenagoa zen, eta biztanle haien haserrea eta ernegazioa, gutxien espero zen unean lehertu ziren. Ustekabeko nahaspila hartan ikusirik, Ibarzabalek bere burua babesteko plazaratu zuen arazoaren jatorria, eta hau izan daiteke Ibarzabalen salaketa maiatzean egin izanaren funtsezko arrazoia. Hemendik aurrera haren helburu nagusia Eibarren 2.500 biztanle bizi zirela egiaztatzea izan zen. Horrekin lotuta, bistatik galdu ezinezko kontua da biztaleriaren zenbaketa-prozesuak, lan astuna bihurtu arren, aukera aproposa ematen zuela etxez etxeko kanpaina egiteko. Arlo horretan Ibarzabalen taldeak udalak baino gaitasun handiagoa erakutsi zuen, biztanleen zerrendak arinago eta hobeto bete zituelako.

539. Betolazak ulergarri bihurtu nahi zuen Ibarzabalen jokabidea, «… por un efecto de la confianza, con que siempre se habian tratado reciprocamente, olbidandose, sin duda en aquel acto, de que el esponente obraba como persona publica y como Alcalde, que no con animo de injuriarle y faltar al respecto debido a su Autoridad (…) y como por un lado obserba, que la multa impuesta al Miguel de Ibarzabal le ha de causar alguna mala nota, y por otro lado, que llevada la causa adelante resultaran disturbios en las familias con sentimientos de muchos y con disgusto general, no puede menos el exponente de hacer presente a su justificacion de VS para que se sirba elebarlo a la del Juez de primera instancia que entiende en la causa (…) alzando la multa impuesta al Miguel de Ibarzabal y reencargando a todos el respecto en todo acontecimiento a las autoridades constituidas», GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1822-2-14.

540. José Martín de Ibarrak Bergarako epaileari hauxe adierazi zion: «Ibarzabal que en ttodos tiempos ha sido y es por su conducta pazifica arreglada y sumision a las autoridades un ciudadano muy honrrado (sic)», GAO, CO CRI, 1821. urtea, 1. kutxa, 1822-2-14.

1822KO UDALAREN HAUTAKETA

Ustelkeria-salaketak

1821. urtearen bukaeran beste istilu bat sortu zen, 1822rako udalkideen hautaketaren inguruan. Azaroaren bukaerarako udaleko giroa nahiko nahasita agertzen zaigu: Juan Cruz Aranburu eskribauak Gipuzkoako Buruzagi Politikoari aitortzen zionez, Eibarko handiki batzuk herritar xumeak konbentzitzen ari ziren 1822rako alkate bera izendatzeko. Haren ustez, ekimen horren bultzatzaileak maltzurkeriaz jokatzen ari ziren, eta herritarren artean sortutako alderdikeriei egotzi zien bera izendatzeko proposamena[541]. Ziur asko Aranburuk aipatzen duen alderdikeriak zerikusia dauka bigarren alkatearen inguruan sortutako eztabaida eta iskanbilarekin.

Udal-hauteskundeak sufragio orokorrez egiten ziren, baina zeharkakoa; hau da, udalkideak zuzenean hautatu beharrean, bederatzi hautesle aukeratzen ziren zeregin horretarako. Buruzagi Politikoak emandako aginduen arabera, hauteskundeak abenduko lehen igandean egin behar ziren, baina Eibarko apaiza tronpatu egin zen, eta hauteskundeak bigarren igandean egingo zirela iragarri zuen pulpitutik, «… cuya equibocacion fue causa de haver acudido pocos ciudadanos a la que se celebro el primer Domingo (…) y esta circunstancia que la habia previsto sin duda la faccion que se ha formado en esta villa con el obgeto de hacer la eleccion de indibiduos de ayuntamiento en sugetos designados por la misma»[542]. 1821eko udalkide guztiek sinatutako idatzi horretan salatzen zenez, taldetxo horretako kideek txartelak banatu zituzten, idazten eta irakurtzen ez zekiten hautesleen artean, «… no sabiendo los botantes a quienes nombraban por electores»[543].

Helegitea bideratu zutenen ustez, horrelako gertakizun bat inolako protestarik gabe onartzeak, «… produciria una verdadera fraccion de los ciudadanos de un pueblo dividiendolo en partidos, como ha sucedido»[544]. Horrez gain, botoa gidatzeko inolako sari edo mehatxurik erabili ez bazen ere, emaitzak eroskeria islatzen zuen, eta ondorioz bertan behera utzi eta errepikatzeko baimena eskatu zuten. Beraien aurkezpenaren froga gisa, botoa eman ostean gehienek alde egin zutela azaldu zuten «… descubriendose que no tenian mas interes que el de servir a los que les buscaron con empeño, pues hecho esto se marcharon sin experar el

541. «Personas que por sus relaciones tienen el mayor influxo y ascenciente sobre este vecindario sencillo, propalan boces de que el otro escribano e yo debemos ser nombrados por alcaldes para el año proximo venidero (…) Un medio semejante prescindiendo de ser muy indecoroso por que se coarta la verdadera libertad, lleva envuelto, no obgeto benévolo y deseo de acierto para el bien publico sino el de la intriga, para satisfacer sus intenciones, y todo procede seguramente de los partidos en que esta dividido el pueblo», GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-11-29.

542. GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-12-5.

543. GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-12-5.

544. GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-12-5.

resultado»[545]. Abenduaren 5eko helegitean txartelak banatu zituztenen nortasunak azaltzen ez baziren ere, udalak argi eta garbi utzi zuen gutxi zirela, herrian eragin handikoak[546]. Nortzuk?

Buruzagi Politikoak zehaztasun gehiago eskatu zituen, eta bi egun geroago Betolaza alkateak argitzen zuenez, Salbador Etxeberria osagileak banatu zituen txartelak. Izan ere, biztanle batzuek «… llevaron esquelas con nombres de los que querian nombrar electores, sin que dichos portadores sepan leer, ni escribir, ni por quienes votaban»[547]. Hori zela-eta, bozketa indargabetzeko ahalmenik bazuen galdetu zion Buruzagi Politikoari, eta lekukoei deklarazioa hartzen hasi zen. Santiago Aspiazuk zioenez, «…la mañana del Domingo dos del corriente le busco en su casa el Dr. D. Salvador de ECHEVERRIA, Medico titular de esta villa, y habiendole hallado le pregunto si hacia animos de ir a la eleccion parroquial, y respondiendole que por entonces no habia formado intencion, le bolbio a decir que fuera y elegiera los sugetos que designaba la Lista que al intento le entrego al declarante, y lo ejecuto así de memoria de mucha parte de los comprendidos en ella, reserbando el la esquela, por que no le parecio bien entregarla por el run run que salio de que estaba hecho el complo (sic); cuya esquela entrego en este acto, para incorporar como se incorpora a esta declaracion»[548]. Beste bi lekukoek —Juan Joseph Loiolak eta Juan Joseph Artamendik— antzeko aitorpenak egin zituzten, betiere Etxeberria osagilearen papera azpimarratuz, eta hauteskunde-iruzurrari buruz zabaldutako zurrumurruak aipatuz.

Etxeberriak banatu zituen txartelen helburua, funtsean, botoak sakabanatu beharrean biztanle jakin batzuen inguruan biltzea zen. Zentzu horretan, zerrendak kandidatura baten inguruan sortutako protoalderdi baten papera jokatzen zuen, iraultza liberalak bultzatzen zuen garapen politikoaren seinale. Zerrendan biztanle hauen nortasunak agertzen ziren: Vicente Aldekoa, Pedro Argiano, Emeterio Baskaran, José Anitua, Manuel Martinez, Domingo Manuel Baskaran, José Joaquín Agirre, Salvador Etxeberria bera eta Manuel Antonio Murua. Ez dugu jakiterik lortu Buruzagi Politikoak hautesleak izendatzeko bozketa ontzat eman zuen ala ez. Baina hauteskundearen emaitzak ikusita, Etxeberriak, neurri batean behintzat, bere helburua lortu zuela esango genuke. Izan ere, izendatutako zazpi udalkideetatik hiru bere zerrendakoak dira: Murua, Argiano eta Anitua; horrez gain, udalkideen artean bi baskarandar aurkitzen ditugu, hautesleen zerrendan zeuden beste. Etxeberriaren ekimenari interpretazio politiko bat bilatzekotan, bere zerrendan agertzen zirenak liberalismo aurrerakoiaren ordezkariak zirela esatera ausartuko ginateke. Badago, ordea, interpretazio hori zalantzan jartzen duen daturik: hauteskundeen data oke-

545. GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-12-5.

546. «… uno o mas sugetos de alguna representacion y caracter forman en un pueblo pequeño el designio de reducir a la gente incauta y sencilla ha hacer lo que tal vez por su propia eleccion no haria», GAO, JD IM, 4/12/65, 1821-12-5.

547. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-12-7.

548. GAO, JD IM 4/12/65, 1821-12-11.

rretara iragarri zuen apaiza ez bazen tronpatu, hau da, alderdiren bati mesede egin nahian maltzurkeriaz jokatu bazuen, zergatik lagundu zien aurrerakoiei? Apaizak ere aurrerakoiak ote ziren 1821eko Eibarren?

Udalkideak

NORTASUNA	<=1820-1	1820-1	1820-4	1821	1822	1823-4=>	Gaspar 1812	Urb. 1835
BUSTINDUI Pedro Joseph	Bai			ER	ER	Bai		A.U.
MURUA Manuel Antonio	Bai				A1	HD/HS	Bai	G 35
ALBERDI Jose Maria	Bai	SPG		ER	ER	Bai		A.U.
BASCARAN Domingo Ramón	HD/HS				SPG	Bai		A.U.
ALBIZURI Juan Bautista	HD/HS				ER	Bai		A.U.
ANITUA José					ER			A.U.
IBARRA José Martín					A1			A.U.
BASCARAN Luis					ER	Bai		A.U.
ARGUIARRO Pedro					ER			

1822ko udalaren osaketari begiratzen badiogu, aldaketa nabarmen bat gertatu zela ondorioztatzen dugu: bederatzi udalkidetik lau esperientziarik gabekoak ziren eta horietatik bakar batek jarraitu zuen 1823ko berrezarpen absolutistaren ostean; beste bi, herritarren ordezkari aritutakoak ziren, eta auzokide hautagai kategoria lortu zuten Hirurtekoaren ostean. Ikusten den legez, bederatzi udalkidetik zortzi "urbano"ak edo "zaintza hiritarrekoak" izan ziren I. Karlistaldian; datu honek udal hau osatu zuten kideen izaera aurrerakoiaren aldeko interpretazioa indartzen du.

Boluntarioen Milizia eta gerrilla absolutista

1822ko martxoan herritarren kexuak ailegatu ziren udalera, Eibarko iturri guztiak harresitik kanpo zeudelako. Eskakizun horri erantzuteko, herriaren erdian iturri bat eraikitzea erabaki zuten, ura Unbetik edo Urkiditik ekarrita. Gastuak, oraindik desamortizatu gabe zegoen herrisaila salduta ordaintzea erabaki zen, edo salduta egon arren oraindik kobratu gabe zegoenarekin (Mugica, 1990: 374, 375). Lan horiek aurrera eramateko batzorde bat izendatu zen baina, kontuak kontu, proiektua bertan behera gelditu zen 1829ra arte. Uriartek herri armaginei buruz dioenez: «Herri hauetako udalek azpiegitura obra publiko populistei ekin zieten. Hiru urte hauetan eraiki zuten herri guztietan egun ezagutzen dugun iturri nagusia. Neurri populista dela esaten dugu ez zuelako ezer konpontzen (…). Absolutismoan errepidegintzari ekiten zioten eta Konstituzionaldian iturgintzari» (Uriarte, 1998: 21).

Egia esan, bazuten buruhauste larriagorik. *El liberal guipuzcoano* egunkari liberalak, iraultzak ordura arte jarraituriko ibilbidea zorroztasunez aztertu[549],

549. Gipuzkoari buruz zioenez «… el espíritu público se halla retrasado aún en esta provincia, (…), ¿En que consiste pues este perenne manantial de facciones, esta apatía de los Ayuntamientos, este retardo en pagar las contribuciones, este odio a la milicia voluntaria, este abandono de los parrocos, esta esquivez con que el pueblo evita el decir, oir, pensar y desear cosa alguna que tenga la

autokritika egin eta liberalen batasunera deitzen zuen. Izan ere, 1822ko udaberrian, tradizionalistak beste altxamendu bat prestatzen ari zirelako zurrumurrua gero eta zabalduago zegoen, eta mehatxu horren aurrean liberalak zatituta zeuden: moderatuek garrantzia kentzen zioten bitartean, muturrekoek neurri gogorragoak hartzea exigitzen zuten, Frantziako Luis XVIII.aren oniritziarekin Bidasoaz haraindi absolutistak prestatzen ari ziren inbasioaren aurrean; Nafarroan, absolutisten gerrillari taldeak lasai asko zebiltzan; eta eskualdean bertan, Soraluzek Gorostidiren aginduetara zegoen José María Kruzeta eibartarraren erasoa jasan zuen 1822ko apirilean. Itxura denez, Kruzetak 4.000 soldaduk osatutako armadaren abangoardian zetorrela sinetsarazi zien SEAFeko arduradunei, eta horiek alde egin zutenean utzi zituzten 125 gurdikada fusil eskuratu zituen eibartarrak (Larrañaga, 1981: 108).

Eibarko liberalentzat benetako arriskua Bizkaia aldetik zetorren: Asura koronel liberalaren txostenean aipatzen denez, Zabalaren taldeak, Markina-Xemeinen eta Etxebarrian sartu ostean, Barinaga eta Iturreta aldera ihes egin zuen, Allanegi tenientearen zutabeak jazarrita. Asura koronelak, bere aldetik, Mendarotik Eibarrerantz egin zuen maiatzaren 16ko goizaldean, «… dondé hallé sobre las armas a su Milicia Nacional voluntaria en número de 200 hombres al mando de sus respectivos jefes D. Manuel Antonio Murua y D. Gabriel Ibarzabal» (Montoya, 1971: 126).

Eibarko miliziano kopurua eskualdeko altuena izanda ere, gorantz zihoan eta ikusten denez urtebeteko epean 133tik 200era igo zen. Noizbehinka prestakuntza-ariketak ere egiten zituzten, eta horrelakoetan hamaiketakoa dohain izaten zen[550]. Eta milizia erasokorra genuen, udalerria defendatzeaz gain, bere inguruko lurralde edo "hinterland"a kontrolatzeko gaitasunarekin. Zabalaren gudu-taldea jazartzeko Asura koronelak eratu zituen hiru zutabeetatik bat soilik eibartarrek osatu zuten, armada erregularraren laguntzarik gabe; beste bietan Bergara, Oñati, Deba eta Tolosako milizianoak zihoazen, baina bietan ere infanteriako soldaduekin bat eginik. Egunsentia aprobetxatuz, hiru zutabeen artean Zabala inguratzen saiatu ziren, baina ustez gaua igaro zuen lekura ailegatu zirenean, alde eginda zegoen, goizeko seiak inguruan. Eibartarrak herrira itzuli ziren. Asurak berak, egun osoa

más remota conexión con el régimen constitucional? ¿En que puede consistir? En que el miserable pueblo, que no sabe raciocinar, sino sentir en este jénero de cuestiones, no palpa ventajas, en que el gobierno no se las haze palpar ejecutando con teson muchas de las nuevas leyes», *El Liberal Guipuzcoano*, 191. zk., 1822-4-29.

550. Udalak hauxe agintzen zuen: ariketak egin ostean «… se le de a cada individuo a las once la propia mañana de pan, vino, carne, y Abechuela». EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1822-3-17.

551. Hirurtekoan zehar, errealistek bonapartetiarren aurkako gerran hain arrakastatsua gertatu zen gerrillaren taktika berreskuratu zuten, eta hau benetako buruhauste bihurtu zen armada erregularreko buruzagientzat. Nahi eta ezin horren berri Asura koronelaren testigantzak ematen digu: «Desengañado ya de que fatigaba en vano a la tropa, me retiré a las seis y media de la tarde, después de catorce horas de marcha (sin tiempo siquiera para comer el rancho) a la villa de Durango» (Montoya, 1971: 127). CSM, caj. 49.

Zabalaren atzetik ibili ostean amore eman behar izan zuen[551]. Bi egun geroago eibartarrek bi iheslari atxilotu zituzten, baina lapurrak ziren[552].

Asuraren idatzian kontuan hartzeko beste zehaztasun bat dugu, boluntarioen miliziaren aipamena. 1821eko apirilean miliziano guztiak talde armatu berean agertzen baziren ere, uztailerako liberalismo aurrerakoiak bere talde militar propioa antolatuta zeukan, Gabriel Ibarzabalek, Araututako Milizia utzi eta Boluntarioen Miliziako komandante-kargua eskuratu izanak adierazten digun bezalaxe[553]. Uriartek dioskunez, urte bereko abenduan Eibarko miliziako 10 soldadu Boluntarioen Milizian sartu ziren, Antonio Abajoren agindupean (Uriarte, 1998: 24). Abajo Soraluzeko Erret Arma Fabrikako zuzendaria izan zen 1820-1821 bitartean (Larrañaga, 2001: 31), eta Eibarren jada Boluntarioen Milizia eratuta zegoela, eibartarrak Abajoren konpainian sartzea harrigarria egiten da. 1822ko maiatzerako gerra-giroa sustraitzen hasi zen Gipuzkoan, eta herri txikiak hartzeaz gain, gerrillariek noizbehinka gobernuaren indarrei erasotzen zieten. Frantziako erbesteratuen laguntza itsasoz heltzearen beldur, herrialdeko Buruzagi Politikoak kostaldean zaintza bereziak ezartzeko agindua eman zuen. Bizkaiko muga zaintzeko, Gabriel Ibarzabalek Elgeta, Durango, Bergara eta Eibarko miliziak Eibarren biltzeko plana aurkeztu zion Buruzagi Politikoari, Eibar Jaurerritik sartu ahal ziren gerrillarien aurkako gune neuralgikoa bihurtu nahian (Llanos, 1998: 384).

Ekainaren 17an, ageriko sekretua zena, hau da, Gipuzkoako absolutisten altxamendua, hasi baino lehen deuseztatuta gelditu zen. Konspirazioaren nukleoa apaizek osatzen zuten gehienbat, eta salaketa batek jakinaren gainean jarri zituen agintari liberalak. Murumendin batzekoak ziren indarrek soldadu liberalez beteta aurkitu zituzten inguru guztiak, eta buruzagi nagusiek Lapurdira alde egin zuten. Bat gelditu zen, Francisco María Gorostidi, Anoetako benefiziatua, arlo militarreko arduraduna zena. Dozena-erdi soldadurekin hasi arren, gudu-talde eraginkorra eratzea lortu zuen, gerrillaren taktikan oinarrituta. Bere manifestua hiru puntutan oinarritzen zen: erlijioa, erregea eta foruak[554].

Gorostidi bonapartetiarren aurkako gerratean ibilitakoa zen, «Gorostidi harrapatu nahian, Espainiako Independentzia Gerran zehar aritutako gerrilari ospetsuenetariko bat zebilen —Gaspar Jauregi, "Artzaia"—, liberalismoari atxikitua,… Jauregik orpoz orpo jarraitzen zuen Gorostidi, honi arnasa hartzeko betarik emon

552. Nº1. Seccion del Gobierno Político. «En sus respestivos pueblos observan tambien con cuidado que no transiten personas sospechosas y sean detenidas las que lo fueren; asi en Eybar fueron aprendidos dos profugos de carceles procesados de ladrones y vigilan los demas el mismo objeto». GAO, JD AIM, 281, *Copiador de los pliegos trimestres remitidos al Ministro de la Gobernación por el Sr. de Villafuertes, Jefe Politico de la Provincia de Guipúzcoa*, Tolosa, 1821-5-18.

553. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-2.

554. «Defender la Religión católica, amenazada de una destrucción próxima (…) Conseguir la plena libertad del Rey (…) Conservar los Fueros y privilegios de esta Provincia» (Montoya, 1971: 126).

gabe, eta presio honen ondorioz Gorostidik gauza handirik egiten ez zuen arren, bai behintzat urduritasuna zabaldu Gipuzkoa osoan, herrietan sartuz, anoak eskatuz, armak eta gizonak bilduz» (Iparragirre, 2001: 212). Gazte horietariko batzuk behartuta ateratzen omen zituzten baserrietatik, edo behintzat hori zioten beraien gurasoek, semeen desagerpena zela-eta ezartzen zizkieten isunak arbuiatzeko. Horregatik, irailaren 7an zirkularraren bidez, errealistek bahitzeko arriskuan zeuden gazte guztiak bost hirigune segurutan babestea agindu zuen Jauregik, horien artean bat Eibarkoa[555].

Erregimen liberala ahultzen zihoan: moderatuen eta aurrerakoien arteko tirabirek Madrileko Gorteak desegitea eragin zuten ekainaren 30ean, eta egunean bertan erregearen zaintza estatu-kolpe bat ematen saiatu zen. Astebeteko borroken ostean, Madrileko Miliziak eta herritarrek, absolutisten saiakera zapaltzea lortu zuten. Eibarrek ere tinko eutsi zion uztailaren 17ko eraso gogorrari, baina bere erresistentziak errealisten mendekuen ikusmiran jarri zuen[556]. Horrez gain, herria defendatu behar zenean eibartar batzuek herritik alde egin zuten, eta udalak galdetu zion Buruzagi Politikoari ea zer motatako isuna ezarri behar zitzaien herritar horiei, beraien jokabideak gainerakoen haserrea areagotzea eta kemena ahultzea eragin baitzuen[557]. Eibartarrak gero eta isolatuago zeuden: azaroan, Gorostidi eta Ezeizaren gerrillariek Andres Etxebarria agure eibartarra harrapatu zuten, Jauregi koronelaren mezu bat zeramakiola Soraluzeko alkateari. Hantxe bertan hil zuten, baionetaz, «… sin respetar su ancianidad, ni suministrarle los auxilios espirituales» (Montoya, 1971: 153, 154). Hil berean, Villafuerteseko kondeak Murua alkatea zoriondu zuen «… por no arredrarse de las amenazas del cabecilla Leonis Barrutia» (Montoya, 1971: 158). Urtearen bukaeran, preso egindako zenbait fakziosori 24 orduko epean deklarazioa ez hartzeagatik Bergarako epaileak Muruari ezarritako isuna udalaren diru-kutxatik ordaindu zen[558].

Akta hemen mozten da, epe liberalari dagokionez behintzat. Hurrengo agiria, 1823ko ekainekoa da, udal absolutistaren berrezarpenari buruzkoa. Tarte horretan, Aliantza Santuaren mehatxua gauzatu zen. Absolutisten gerrillek liberalak izorratu bai, baina berez ez zuten garaipen militarra lortzeko gaitasunik erakusten. Ordurako Eibarko miliziek 250 soldadu biltzen zituzten, 130 boluntarioak eta 120 araututakoak. Herrialdeko milizia indartsuena zen, kopuru absolutuetan. Baina beraiek

555. «Los mozos en peligro de ser alistados por la facción podrán refugiarse en puntos de seguridad, en las ciudades de Eibar, Vergara, Villafranca, Tolosa o San Sebastián, "donde mientras dure la necesidad de permanecer en los citados pueblos se les socorrerá con tres reales diarios"» (Llanos, 1998: 384).

556. «… por la notoria venganza que contra los habitantes de esta villa tienen los facciosos por la resistencia que se les hizo en esta Poblacion el dia 17 de Julio del corriente año» EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1822-10-24.

557. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1822-9-21.

558. EiUA, A,1,1,9, *Akta Liburuak (1820-1823)*, 1822-12-31.

bakarrik ezin zioten Aliantza Santuari eutsi: San Luisen Ehun Mila Semeek muga zeharkatu eta inolako erresistentziarik aurkitu gabe Gipuzkoan barrena egin zutela ikustean, Eibarko milizianoak A Coruñarantz erretiratu ziren[559], Murua horien artean. Azken horrek, 1823ko Urteberri egunean dimititu zuen boluntarioen konpainiako komandante-kargutik, osasun-arrazoiengatik. Ibarzabalek, bere aldetik, hegoalderantz egin zuen, Erret Ogasunarekin zituen zenbait kontu konpontzera. Gero Frantziara joan zen, armagintzan gauzatzen ari ziren berrikuntzak aztertzera. Eta itxura denez, inolako arazorik gabe![560].

Beste batzuek berton gelditzea erabaki zuten, eta ahal zuten neurrian Donostian eusten zioten liberalei laguntzea. Donostiarrak, lehorrez setiatuta egon arren, horniketak itsasoz bermatzeko gai ziren, eta blokeoa eraginkorra izan zedin, absolutistek txalupen itsas zerbitzua antolatu zuten. Lehen fase batean Getaria eta Hondarribia bitarteko txalupa guztiak arratsaldeko zortzietarako beren portuetara bildu behar zirela agindu zuten; bigarrenean, Mutrikuraino zabaldu zuten agindua, eta kostaldeko herrietan Boluntarioen Milizietan parte hartu zutenen zerrendak eskatu, barrualdeko herrietan sakabanatzeko. Gipuzkoako aginduek ez zeukaten inolako eraginik Bizkaian, eta liberal batzuk —Julian Kortesena eibartarra tarteko— blokeoa bide horretatik apurtzen saiatu ziren, Ondarroan harrapatu zituzten arte «… con un arma de calibre»[561]. Pare bat hilabete geroago Donostiak amore eman zuen, eta liberalek Fernando VII.a libre utzi zuten, Cádizen. Horrek hartutako lehen erabakia konstituzionalisten agindu, lege eta erabaki guztiak indargabetzea izan zen.

ARMAGINTZAREN BILAKAERA HIRURTEKOAN ZEHAR

Iraultza liberalak lanik gabe utzi zituen herri armaginak, gobernuaren ordainketak

559. «Cuando en virtud del Congreso de Verona Francia intervino en las disensiones españolas enviando 100.000 soldados que se repartieron por la Península, los eibarreses abandonaron la villa retirándose hasta Galicia donde la mayor parte fueron hechos prisioneros» (San Martín, 1979: 256.

560. Julian Echeverriaren testigantza biltzen du J.L. Calvók: «El ocho de abril de 1823, cuando los franceses hubieron entrado en España, Ibárzabal abandonó la Milicia y pasó a Toledo a liquidar sus cuentas con la Real Hacienda, y así las hubo liquidado, marchó a Madrid. El 14 de junio salió con dirección a Francia, animado de propósitos de visitar diferentes fábricas de armas y apropiarse de los ultimos adelantos de la industria que cultivaba» (Calvó, 1997: 230).

561. «… habiendo llegado a la Baya de este Puerto un cachemarin con sei milicianos Voluntarios fueros estos detenidos y conducidos a la sala consistorial (…) y entre ellos a Don Julian de Cortesena vecino de la villa de Eibar sele tomo un arma de calibre que esta depositada en esta villa», BFAA, Sail Administratiboa, J 00223-110, 1823-7-14.

562. Buruzagi Politikoak onartzen zuenez, «… la fabrica nacional de armas de chispa sita en la villa villa de Placencia entro en sus trabajos por febrero ultimo despues de haber estado suspensa por espacio de once meses a causa de que no se la satisfacia la consignacion mensual de trescientos sesenta mil reales», GAO, JD AIM, 281, «Copiador de los pliegos trimestres remitidos al Ministro de la Gobernación por el Sr. de Villafuertes, Jefe Politico de la Provincia de Guipúzcoa», 1821. urteko lehen hiruhilekoaren txostena, 1821-5-18, 13. ofizioa.

eten egin baitziren[562]. 1821eko martxoan armaginek bizi zuten egoera latzaren berri eman zieten Madrileko Gorteei[563]; ekainean langabeziari aurre egiteko 1820ko abenduaren 11n emandako agindua ez zela betetzen salatu zuten. Agindu horren arabera, ezarri behar ziren aduanek ematen zutenaren erdia SEAFen inbertitu behar zen, eta ez zenez betetzen herritarrak haserre zeuden «… siendo ya muy frecuentes los clamores tanto de los mismos operarios, como tambien de los ayuntamientos constitucionales de Placencia y Eibar, que recordando la real orden de 11 de diciembre, piden con el mayor interes su cumplimiento, para alivio de los utiles fabricantes, no puedo desentenderme de unas reclamaciones tan justas y fundadas que simultaneamente se dirigen al bien general, y a la ocupacion de tanto brazo en particular». Iraingarriena hauxe zen: Debarroko armaginak langabezian zeuden bitartean, gobernu espainiarrak atzerrian erosten zituela armak[564]. Egoera ez zen konpondu epe motzera, eta zentzu horretan langabeziaren igoera miliziano kopuruaren hazkundearekin lotuta egon daiteke, ikusi denez milizian janaria behintzat ziurtatuta zeukaten-eta. Edonola ere, egoerak hobera egin zuenean eta lanean hasi zirenean, eibartar horiek milizian jarraitu zuten[565]. Are gehiago, miliziano kopuruak gora egin zuen, batez ere boluntarioenak. Beraz, epe laburrera milizia langabeziaren irtenbide bat izan bazitekeen ere, epe ertainera ezin zaio aldagai horri egotzi miliziano kopuruaren hazkundea.

Ibarzabaldarren denda Madrilen

Oro har, denbora txarrak izan arren, armagin batzuentzat garai onuragarriak ziren. Hau izan daiteke Ibarzabalen kasua. José Mari Uriartek aurkitu du ibarzabaldarrek Madrilen ireki zuten arma-dendaren iragarkia *El Liberal Guipuzcoano* egunkarian. Iragarkia 1822ko martxokoa da, eta bertan azaltzen denez arma-denda Alcala kaleko 7. zenbakian zegoen, aduanaren aurrean, hain zuzen. Bitxia iruditzen zait, Ibarzabalen fabrika arma zuriena izan arren, Madrilen suzko armak ere saltzen zituela ikustea[566], eta gobernuarentzat armak egiteak ematen zuen prestigioa zerabilela, beren salgaien propaganda egiteko orduan. Horrela, fusila zen «como en el dia con aprobación del Gobierno se usa en el ejercito permanente»; ka-

563. Idatzi horretan «… se manifiestan las considerables perjuicios que se sigen a la Nacion de dejar paralizadas las interesantes fabricas de armas de Placencia teniendo sin ocupacion a los utiles braxos de tantos excelentes operarios, que yacen sumidos en la miseria», GAO, JD CO 75, 1821-6-25.

564. «Un documento del año 1821 nos habla de un recurso de los cuatro diputados gremiales que se dirigieron al Congreso en nombre de las "ochocientas familias" de la comarca que encontraban en la miseria por falta de trabajo, y suplicando no se trajeran fusiles ingleses, "cuya arma es malísima"» (Larrañaga, 1981: 88).

565. 1823ko otsaileko idatzi batek zioenez: «Bien conoce la villa de Eibar (…) el bien que ha redundado a su vecindario de tener como tiene ahora abundancia de labores bien pagadas…», GAO, JD IM, 4/12/118, 1823-2-20.

566. Iragarkian irakurri ahal denez fusilak, karabinak, "*tercerola*"k eta pistolak ere saltzen zituen (Uriarte, 1998: 153).

rabinak, «arreglada en un todo a las del ejercito permanente», «tercerola para la caballeria según la aprobada que usa el ejercito» eta «sable de buena hoja, arreglado al modelo aprobado por el gobierno para el equipo de los rejimientos lijeros». Gabriel Benito Ibarzabalek ezin hobeto jarraitu zion bere aitak —Ignacio Maríak— hasitako bideari. Gogoratuko denez, asentistak desagertu izanaren ondorioz —1795— Ignacio Maríak bete zuen Madrileko gobernuaren eta Eibarko armaginen arteko koordinazioa-lana. Egoera pribilegiatu horri esker ibarzabaldarrek ospea eta influentzia irabazi zuten Madrileko Gortean[567], eta 1816an beste aurrerapauso bat eman zuten, zeren Gabriel Benitok 10 urtetarako horniketak egiteko kontratua sinatu baitzuen Toledoko arma-fabrikarekin. Bere anaiak —Francisco Estebanek— denda zabaldu zuen estatuko hiriburuan, ekoizten zituzten arma zuriak merkatu pribaturantz bideratzeko helburuarekin; bide batez bitartekari-lana bete zuen, beste armagin batzuek ekoizten zituzten suzko armei irteera bilatzeko[568].

Pistoiaren asmakuntza

Armen komertzializaziorako sortzen ziren aukera berriez gain, aurrerapen teknologikoek aldaketa garrantzitsuak eragin zituzten armagintzaren munduan. Izan ere, XIX. mende osoan zehar armagintzan ziharduten tailer eta fabrikek ahalegin handiak egin behar izan zituzten aurrerapen teknologikoetara moldatzeko eta merkatuetan lehiakorrak izateko. Pistoiaren asmakizunak —1818an— txinpartaz zebiltzan armak baztertzea eragin zuen, eta horietariko asko sistema berrira moldatu ziren[569]. Era berean, krisia eragingo zuen giltzagin edo txispaginen —"*llaveros, chisperos*"— gremioan, pistoiaren asmakuntzaren ondorioz beraien lana birmoldatu beharrean aurkitu zirelako. Debarroan, herririk kaltetuena Soraluze izan zen, 1790eko zerrendaren arabera bertako armaginen erdiak baino gehiago giltzaginak

567. Ibarzabaldarrek Madrilen zeukaten influentziaren adibide garbia ikusi dugu aurreko kapituluan, Erregearen Zaintza pertsonaleko soldaduentzat egin behar ziren armen inguruan, José Urisarrirekin eduki zuen eztabaidan.

568. SEAFek urtean 240.000 fusil ekoizteko ahalmena omen zuen, GAO, JD CO 75, 1821-6-25. Baina errealitatean, 1815-1833 bitartean 190.000 fusil baino ez zituen fabrikatu (Larrañaga, 1981: 88).

569. «Las ventajas que ofrecía el nuevo sistema no sólo supusieron el abandono de la producción de armamento de chispa, sino también la transformación de una gran parte de este al nuevo sistema. Las transformaciones se realizaron con los medios artesanales de que se disponía, cubriendo toda la gama que va desde las más toscas ejecuciones hasta las mas elaboradas, en las que tan sólo se aprovechaba el antiguo cañón» (Calvó, 1997: 27, 28).

570. 1816an kopuruak nahiko antzekoak ziren, SEAFeko brigadier zuzendariak —Francisco Ceballosek— ematen zituen datuen arabera: «… los Chisperos, pues como este es el mayor de los quatro que solo el compondrá unos doscientos individuos, sin contar con sus Mujeres y Niños, me meten mas bulla y gresca», GAO, JD IM, 1/3/47, 1816-3-10. Calvók dioenez pistoiaren asmakuntza penintsulan 1820ko hamarkadan hedatu bazen ere, ejertzitoak 1843ra arte txinpartaz zebiltzan fusilak enkargatzen jarraitu zuen (Calvó, 1997: 28). Bi hamarkada horietan zehar armak teknologia atzeratuarekin fabrikatzen jarraitzeko arrazoietariko bat, txispaginen gremioaren haserrea ez eragitea izan zitekeen.

zirelako (385 armaginetik 198 giltzagin)[570], eta Ermua (52 armaginetik 48 giltzagin); Eibarri, ordea, ez zion kalte handirik egin, 268 armaginetik 21 baino ez zirelako giltzaginak. Pistoiaren mekanismoa gainera txinpartarena baino sinpleagoa zen, ikasteko eta egiteko errazagoa. Eibarren gainerako hiru gremioak indartsuak ziren, eta kopuruak orekatuta zeuden (81 kainoigin, 88 aparejugin eta 78 kaxagin). Ziur asko pistoiaren asmakuntza primeran etorri zitzaion Eibarko armagintzari, armak bukatzeko orduan Soraluzeko txispaginenganako zuten mendekotasuna hausten lagundu zuelako.

Hauxe dugu, beharbada, XIX. mendean Eibarko armagintzak izan zuen hazkundearen abiapuntua, Soraluze atzean utzi eta Eibarri eskualdean hegemonia lortzea ahalbidetu ziona. Horren adibidea dugu estatu espainiarrean pistoizko fusilak egiteko lehen baimena Gabriel Benito Ibarzabalek lortu izana[571]. Baina ordurako beste eibartar batzuek asmatuak zituzten beren modelo propioak: Pedro Gisasolak, esaterako, perkusiozko karabina asmatu zuen 1825ean, eta sasoi berean, Ignacio Orbeak pistoizko pistola; 1829an Ignacio Baskaranek Zumalakarregi museoan gordetzen den pistoizko eskopeta fabrikatu zuen (Larrañaga, 1981: 205). Ikusten denez, 1820ko hamarkadan Eibarko armagintzak benetako "*boom*"a bizi zuen.

Aduanen leku-aldaketa

Noiz hasi zen Eibarko armagintza gailentzen inguruko udalerrietakoen artean? Iraultza politikoa baino lehen edo beranduago? Galderak badauka bere garrantzia, erantzunaren arabera hipotesi ezberdinak ondorioztatzen direlako. Uriartek dioenez, armagintzaren iraultza 1820 baino lehenago hasi bazen[572], orduan litekeena da armagintzaren suspertze eta birmoldatzeak gizarte- eta lan-harremanak aldatu —gremioak, besteak beste— eta ideia liberalei bidea zabaldu izana. Kasu horretan arrazoi endogenoei esker sortutako liberalismo baten aurrean geundeke. Ostera, Manriquek dioen moduan, armagintzaren iraultza ez bazen I. Karlistaldiaren gerra-ostera arte hasi[573], Hirurtekoan zehar liberalismo politikoak Eibarren eduki zuen arrakastaren arrazoiak ez lirateke endogenoak izango, exogenoak baizik: aduanen leku-aldaketak zenbait armagineri negozio berrietan sartzeko emandako aukeraren ondorio politikoa, hain zuzen. Ramiro Larrañagak, bere aldetik, hiru epe bereizten ditu Debarroko armagintzan, eta epe bakoitza herri batekin lotzen du: «La "pregre-

571. «… se inició la concesión de cédulas de privilegio, y la primera que hacía referencia a armamento portátil fue obtenida por el ya mencionado fabricante Gabriel Benito de Ibarzabal en 1829, describiendo una escopeta de pistón con llave a la caja» (Calvó, 1997: 28).

572. Bere esanetan, gainerako udalerrietan, armagintzaren iraultza beranduago jazo bazen ere, Eibarren «present azaltzen zaigu XIX. mendearen hasieratik, bere erroak Soraluzeko Erret Fabrikaren ihardueran eta krisian tinkatuz» (Uriarte, 1998: 24).

573. «El período de crisis terminó cuando, después de la primera guerra carlista, se trasladaron las aduanas del Ebro a la frontera de Irún (…) Esto, con la desaparición de aduanas entre vascongadas y el resto de España, abrió al mercado nacional íntegro a la iniciativa de los armeros del Deva» (Garcia Manrique, 1961: 26).

mial" en Elgoibar; la "gremial" en Placencia; y la "posgremial", con un amplio y variado desarrollo industrial, en Eibar» (Larrañaga, 2001: 25, 26). Elgoibarren nagusitasuna XV. eta XVI. mendeetan kokatzen du; Soraluzerena, 1573tik aurrera, herri horretako armaginek Filipe II.ari arma-horniketa ziurrak eta etengabeak eskaini zizkiotenean; eta Eibarrena industrializazio- eta merkataritza-askatasunarekin lotzen du, data zehatzik eskaini gabe[574]. Puntu honetan Garcia Manriquek dionarekin bat dator, armagintzaren suspertzea espainiar merkatu nazionalaren sorkuntzarekin lotuz.

Eibarko armaginek —eta SEAFek oro har— zeukaten arazo nagusia, ekoizten zuten armentzako merkatu berriak aurkitzea zen. Ikusten denez, arroko herrien arma-ekoizpena, armada espainiarrak onartu ahal zuena baino handiagoa zen, eta horrez gain, armadaren eskakizun horiek ez ziren batere ziurrak. Aukera bakarra armak merkatu pribaturantz bideratzea zen, eta zentzu horretan, espainiar estatuko merkatua oso erakargarria bihurtu zen, 1821ean aduanak kostaldera aldatuta euskal lurraldeetan ekoitzitako produktuek Ebro ibaiaren lerroan ordaintzen zituzten zergak desagertu zirenean. Abagune horretan zabaldu zuten ibarzabaldarrek Madrileko denda, estatuko merkatuan sartu nahian. Ebroko aduanetan zergarik ordaindu behar ez izateak, armak merkeago eskaintzeko aukera ematen zuen, eta, ondorioz, bezero berriak irabazteko.

Ikusi denez, absolutistek eta liberalek ikuspegi ezberdinak zituzten aduanen kokapenari buruz, eta eztabaida hori erabakigarria bihurtu zen Gabriel Benito liberal bihurtzea ulertzeko orduan. Horrekin lotuta, ofizialki gremioen egitura 1834an deuseztatu bazen ere, eta armak ekoizteko askatasuna 1856an onartu, praktikan zenbait armagin gremioen egituretatik at egindako armak merkatu pribaturantz bideratzen hasiak ziren, 1827an sortutako istilu batek argitzen digun bezalaxe. Baina kontu hori hurrengo atalerako utziko dugu.

TAMALEZKO HAMARKADA (1823-1833)

Fernando VII.ak boterea berreskuratu zuenean 1812ko konstituzioa indargabetu eta absolutismoa berrezarri zuen. Era horretara hasi zen historiografia liberalak "*Decada Ominosa*" deitu duen hamarkada (1823-1833), Fernando VII.aren heriotzarekin bukatu zena, hain zuzen. 1833an, 1812an hasitako ziklo politikoa bukatu zen, absolutistek eta konstituzionalistek estatu mailan hasitako lehia, bigarrenen alde erabaki baitzen. Fernando VII.a izan zen Espainiako azken errege absolutista, bere alabak —Isabel II.ak— konstituzioaren arabera gobernatu baitzuen. Aldaketa

574. «Eibar, siempre parte importante del conjunto industrial armero, ostentó la capitalidad de la comarca tras los dos anteriores periodos que se han citado y asumió las recientes normas de industrialización, la libertad de comercio y el establecimiento de nuevas empresas que, de manera asombrosa y sin perjuicio de la producción armera diversificó sus productos en beneficio del colectivo social» (Larrañaga, 2001: 27).

traumatikoa izan zen, tradizionalistek eta iraultzaileek Karlistaldiak deituriko gatazken bidez erabaki baitzuten etorkizun politikoa. Izan ere, 1823-1833 epea Hirurteko Liberalaren eta I. Karlistaldiaren arteko zubi antzekoa da, Hirurtekoan zirriborratutako dikotomia politikoa birmoldatzen eta indartzen joan zelarik, I. Karlistaldian eztanda egiteko. Hirurtekoan zehar mugimendu liberalak frogatu zuen espainiar estatua gobernatzeko gaitasuna zuela. Eta horren beldur, liberalen atxiloketa, erbesteratze, gaitasungabetze eta inorenganatzeak hasi ziren. Edonola ere, Fernando VII.aren bigarren berrezartzean absolutismo atzerakoitik aldentzeko lehen urratsak egin ziren: adibidez, 1814an Inkisizioa berrezarri bazuen ere, 1823an ez zuen horrelakorik egingo. Azken finean, erakunde anakronikoa zen.

Urte hauetan zehar Eibarko udalerriak hiru arazori aurre egin behar izan zion nagusiki: udal-ogasunaren berregituraketari, indar militarren sostenguari eta udalaren berrantolaketari. Udal-ogasunari dagokionez, aurretik zuen zorrari eta diputazioaren eskakizun berriei aurre egin behar izan zien udalak, eta helburu hori lortzeko zeharkako zergak gehitzea eta udal-lursailen salmentarekin jarraitzea beste irtenbiderik ez zuen aurkitu udalak; absolutistek sortutako indar militar berrien eskakizunak zama astuna izan ziren udalentzat, besteak beste, Gorostidiren batailoiak, Milizia Egonkorra eta Tertzio Gipuzkoarrak udalek finantzatzen baitzituzten; horrez gain, udalak berak sekulako aldaketak bizi izan zituen, ordura arte erabilitako sistema albo batera utzi eta "*terna*" edo hirukoteen proposamenekin udalaren autonomia zeharo murriztuta gelditu baitzen. Ikusiko denez, hiru gaiok elkarrekin lotuta agertuko zaizkigu sarri, eta zentzu horretan, gertakizunen ildoak sailkapen teoriko honi gainez egingo diola konturatuko gara. Beraz, ildo kronologikoa mantentzen saiatuko garen arren, gai batzuek denboran aurrera egiteko ematen diguten aukera aprobetxatuko dugu, ikuspegi orokorra galdu ez dadin.

1823-1825 BITARTEKO UDALA

Udala eta herria "purifikatzen"

San Luisen Ehun Mila Semeak 1823ko apirilean sartu ziren penintsulan, baina Eibarko Udal absolutistaren lehen agiria ekainaren 8koa dugu. Udala zazpi partaidez osatuta agertzen da, horietatik lau 1820ko urtarrilean izendatutakoak: José María Alberdi sindikoa, Pedro Pagaegi errejidorea, Ignacio Artondoaga herri-diputatua eta Gaspar Eguren herri-sindikoa. Gainerako hiruretatik bi berriak ziren udalean, José María Gisasola errejidorea eta José Joaquín Aretio alkatea; Nicolas Aranberriri dagokionez, herri-diputatua izan zen 1817-1818 urteetan. Hasiera batean, 1820ko urtarrilean izendatutako udalkideekin osatu nahi zen errejimentua, «… reponiendo los huecos de los fallecidos y los escluidos con toda escrupulosidad»[575]. "*Escluidos*" hitzari dagokionez, komeni da lehenengotik argitzea, 1823ko batzar berezietan

575. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-9-13.

Gipuzkoako herrietako ordezkariek erabaki zutela liberal ohiak kargu politikoetatik baztertzea, ondorengo lau kasuak ezarriz liberal izanaren frogatzat: Boluntarioen Miliziako partaide izatea; gudu-talde monarkikoen jazarpenean herritik irten izana; erregeari ez bezala konstituzioari atxikimendu garbia azaldu izana, eta, elkarte sekretu edo masoietako kideak izatea. Coro Rubiok garbiro dioenez: «De esta forma, a la vieja discriminación estamental para acceder al poder local se sumaba ahora una discriminación política que intentaba convertir a los ayuntamientos en pilares de la restauración del orden tradicional» (Rubio Pobes, 1997: 140).

1823ko ekainerako, Juan Andrés Laskurain —alkate izandakoa— eta Francisco Antonio Arrazain —errejidore ohia— hilda zeuden, eta 1820an haien ordez izendatutakoak jarri ziren karguetan. Alkatearen kasuan, Gabriel Benito Ibarzabal genuen Laskurainen ordezkoa, baina kanpoan zegoenez, José Joaquín Aretiok —2. ordezkoak— hartu zuen alkatetza. Udal honek berezitasun garrantzitsu bat izan zuen. Dakigunez, foru-erregimenean udal-karguek urtebeteko iraupena edukitzen zuten, eta Urteberri egunean udalkideak berriztatu egiten ziren. 1823ko udalaren kasuan, partaideak bi urte eta erdiz egon ziren agintean, berrezarkuntzaren lehen urte haietan liberalen sarrera ekiditeko neurririk eraginkorrena baitzen. Hurrengo taulan 1823-1825 bitartean aritu ziren udalkideen nortasunak ezagutzeko aukera dugu.

1823-1825 bitarteko udalkideak

NORTASUNA	<=1823-6	1823-6	1824	1825	1826	1827	1828	1829	1830	1831	1832	1833	1833=>
GUISASOLA OREGUI	Bai		SPG		TA2								
ALBERDI Jose Maria	Bai	SPG		SPG				ER					Bai
ARAMBERRI Nicolás	HD/HS	HD	HD	HD			HD	HD					Bai
GUISASOLA José María		ER	ER	ER			TER		TER	ER			
ARETIO José Joaquín		A1	A1	A1									
PAGAEGUI Pedro	KONS	ER	ER	ER						TSPG			Bai
ARTONDOAGA Ignacio	KONS	HD	HD	HD									
EGUREN Gaspar	HD/HS	HS	HS	HS									HD/HS

Laburduren esanahia orain arte azaldutakoa da. Berriak, "<=1823-6" zutabean: "HD/HS", 1823 baino lehen soilik herri-diputatu edo herri-sindiko bezala aritu zen: "KONS", 1823 baino lehen soilik konstituzioa indarrean zegoen agintaldietan aritutakoa.

Ikusten denez, 1824an Domingo Gisasola Oregik bete zuen sindikoaren kargua Alberdiren ordez. Taulak zehaztasunetarako aukera asko eskaintzen ez duen arren, berez José María Alberdi 1823tik zegoen udalkidea izateko ezgaitua, korrejidoreak liberalen laguntzailea izatea leporatzen baitzion. Alberdik udalbatzan protestatu zuen erabaki horren aurka[576], eta udalak korrejidoreari galdetu zion, ea zein zen Alberdi baztertzeko arrazoia. Korrejidoreak berehala erantzun zuen, eta

576. «El esponente se halla bien convicto y persuadido de que la justificacion del Cavallero Corregidor ha sido sorprendida con siniestros y falsos informes (…) durante el trienio en que estubo vigente la constitucion, no ha sido indibiduo, ni Gefe de la milicia voluntaria, solo obedecio al Govierno constituido, como lo hicieron todos los demas» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-9-24.

udalari auzi horretan ez sartzeko agindu zion, Alberdik berak zuritu behar zuelako bere burua[577]. Era berean, bere ordez 1819ko sindikoa izendatzea agindu zuen, «… si su conducta carece de tacha, y si tubiese alguna, al que exercia en el año de 1818, y asi progresibamente hasta dar con uno (…) libre de tachas». Udalak, agindua betez, 1815eko sindikoa izendatu zuen, Domingo Gisasola, «… respecto a las tachas que tienen otros de los años anteriores, y ausencia de D. José María de Burgoa»[578]. Harrigarria bada ere, Valladolideko Chancilleriak Alberdiri berriz sindikoa izateko gaitasuna onartu zionean, udalak ordaindu behar izan zituen auziaren gastuak. Zergatik udalak eta ez korrejidoreak? Azken finean agindua berak eman zuen!

Alberdirenaren ostean beste gaitasungabetze batzuk heldu ziren. Azaroaren 8ko aktan, Eibarko auzokide hautagaien zerrendak —"*Lista de los vecinos arraigados concejantes*"— 84 lagun biltzen zituen, eta, azaltzen zuenez, horietatik 10 baztertu behar izan ziren liberalen kolaboratzaileak izanagatik. Zehazki, Gabriel Ibarzabal, Andrés Gabiola, Manuel Antonio Murua, Luis Baskaran eta José Martín Ibarra, «… en consideracion a que fueron milicianos voluntarios llamados nacionales de esta villa»[579]; Ramon Agirre, Mateo Eskaregi eta Vicente Agirre, apirilaren 6an Asturiaserantz alde egin zutelako SEAFeko zuzendariarekin batera; José María Alberdi, korrejidorearen aginduz, beste zergatirik gabe; eta Juan Cruz Aranburu, Ordiziko Batzar Nagusiek ezgaitua, hau ere arrazoi zehatzik gabe. Bazterketa horietariko batzuek nahiko arbitrarioak diruditen arren, Hirurteko udaletako kideak ez ziren, besterik gabe, ezgaituak izan, betearazi zituzten aginduak edonolakoak izanda ere, udalaren funtsezko eginkizun administratiboak betetzera mugatu zirela ulertuz.

Udal-karguez gain, udaleko langile batzuek ere absolutisten bazterketa pairatu zuten. Salvador Etxeberria osagilea, adibidez, —1822ko udal-hauteskundeetarako txartelak banatzen ibilitako hura— lanik gabe gelditu zen, ez omen zegoelako ordaintzeko dirurik[580]. Handik sei hilabetera, bere lanpostua José Antonio Zabalak eskuratu zuenean, «… por remoción causada a Salvador Echeverria» izan zela argitzen digu aktak[581]. Francisco Berraondo oinezko postariaren kasuan, azaroaren 2an ezgaitu zuen udalak, herritik alde egin zuelako absolutistak sartu zirenean. Hurrengo urteko abuztuan bere lanpostua berreskuratzeko ahaleginak egin zituen, baina korrejidorearengana bidali zuen udalak, berak ezgaitu omen zuelako. Korre-

577. «… que ni el honor, ni los intereses dela referida villa de Eybar estan comprometidos en el asunto de que se trata, y por lo mismo no deve dar voz ni costa al mencionado D. Josef María de Alberdi; para sincerarse, y obtener la revocacion de la citada determinacion del Corregidor, y el mismo Alberdi solo y a su costa deve practicar las gestiones oportunas al efecto si se cree agrabiado, pues de su conducta sea qual haia sido, el solo es responsable, y deve haber las resultas» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-9-22.

578. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-9-22.

579. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-11-8.

580. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-11-2.

581. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-6-19.

jidorearen erantzunak argitzen zuenez, postari berria izendatzeko askatasuna eman zion udalari, eta udalak Berraondo barik, Juan Bernardo Arriaran izendatu zuen, «… con la condicion espresa de que quando venga de Mondragon, haya de pasar al consejo en derechura con su valija, y abrirla aqui, sin que con ningun prettesto pueda enttrar, ni enttre antes en su casa, ni la de otro alguno»[582]. Ikusten denez, bazterketen erantzukizuna ez zuen inork hartu nahi, baina absolutisten helburua argi zegoen: kontrol soziala.

Liberalen aurkako jazarpen-giro horretan, Pablo Bidaurrek —"*segundo Ayudante del Primer Batallón de esta Provincia*"— Juan Antonio Ansoleaga maisua salatu zuen, konstituzionalista sutsua izan eta inguruetako absolutisten aurkako erasoak burutu izanagatik[583]. Maisu berria aurkitzeko batzordeak Pedro Manuel Bidaurre proposatu zuen, salatzailearen abizen berekoa. Baina iritzi horren aurka, udalbatzak lanpostua oposiziora ateratzea erabaki zuen[584]. Azaroan jakin zenez, maisu berria oposizioz aurkitzea garestiegia zen, eta batzorde berria izendatu zen proposamenak aurkezteko.

Monarkikoen indar armatuak

Ordena publikoa bermatzeko Milizia Egonkorra —"*Milicia Sedentaria*"— sortzea agindu zuen diputazioak[585], 18-40 urte bitarteko gizonekin. Miliziako buruzagiak udalak izendatzen zituen, eta konpainia ezin zen bere kabuz bildu. Uniformerik ez eduki arren «… los oficiales, sargentos y cabos podran llebar las dibisas correspondientes». Fusil gutxi zeudenez, udalak pertsonarik sendo, gai eta zintzoenen artean banatu zituen. Liberalekin kolaboratu zutenak ezin ziren Milizia Egonkorreko kideak izan, eta gainera zerga berezi bat ordaindu behar zuten, milizia finantzatzeko, hain zuzen[586]. Milizia liberaletan guztira 250 lagun erroldatu zirela kon-

582. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-9-18.

583. «… afecto acerrimo a la constitucion (…) persiguió cruelmente por medio de los Gefes de las columnas volantes llamadas constitucionales al patriota cirujano de Marquina Echeverria, en terminos de obligar a ausentarse con su dilatada familia para salvar del furor de ellos; Tambien dicho Ansoleaga representó y dió queja al Gefe Político por la conducta del Ayuntamiento llamado constitucional de Deba porque se negaba resistia a dar alguna exorvitante cantidad que la pedia con el pretesto de rescatar a un voluntario cuñado suyo, vecino de dicha villa, que le hicieron preso los Realistas» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-11-16.

584. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-1-25.

585. «El objeto principal de esta fuerza armada, que sea parcial o totalmente sera el de mantener la tranquilidad pública y la persecucion de malhechores, socorriendose mutuamente al intento unos pueblos a otros» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-6-16.

586. «Quedan escluidos del mismo Alistamiento los que hubiesen sido voluntarios, o empleados con sueldo, bajo el llamado govierno de las cortes, y los que sin pertenecer a ninguna de estas dos clases, haian manifestado su adhesion conocida al mismo». «Todos los excluidos, aunque no estubiesen en la edad de diez y ocho a cuarenta años pagaran mensualmente de quatro a cien reales vellon con arreglo a las ¿?? que le señalen los capitulares» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-6-16.

tuan hartuta, monarkikoenak nahiko arrakasta izan zuela aitortu behar da, 150 eibartarrek eman baitzuten izena. Hamar egun geroago Esteban Galparsorok, bolojokoaren alokairuaren erematatzaileak, adostutakoa ordaindu ezinean, aitzakia aproposa aurkitu zuen behintzat, «… no ha habido concurso de jugadores por que muchos se ocupan en los exercicios de la milicia»[587] argudiatu baitzuen.

Milizia Egonkorra eratzeko egindako gastuez gain, Gipuzkoako udalerriek Gorostidik sortutako bi batailoiak finantzatu behar zituzten. Lehen batailoiko soldaduak borondatez apuntatu ziren, eta Donostiako setioan parte hartzen ari ziren abuztuan; bigarren batailoiko soldaduak, ordea, behartuta erroldatu zituzten, eta Gipuzkoatik kanpo, Fuenlabrada aldera eraman zituzten. Jokabide hori foruaren aurka zihoan, eta Ordiziako Batzar Nagusietan udalerrietako ordezkarien kexak entzun ziren. Batza Nagusiek bi batailoiak bakar batean biltzea erabaki zuten, bertan parte hartzen zutenei soldata bat ezarriz. Baina orduan, lehen batailoiko soldaduek desertatzeko mehatxua egin zuten berehala kobratzen hasten ez baziren[588]. Diputazioak Gorostidiren eskakizuna onartu zuen, baina horrek udalerri batzuen protesta eragin zuen, bigarren batailoiko soldaduak baztertzen zituelako, «…careciendo de todo auxilio por la distancia en que están, siendo todos Guipuzcoanos e hijos de una misma madre»[589].

Donostia irailaren 27an errenditu zen, eta urriaren 17an, hurrengo igandean Te-Deuma abesteko agindua jaso zen, «… por la alagüeña noticia de haber desembacado (sic) en el Puerto de Santa María a las doce menos quarto del dia primero de este mes el Rey nuestro señor»[590]. Egun berean, lehen batailoia Bergaran, Elgoibarren eta Eibarren kokatu zen. Eibarren hiru konpainiak hartu zuten ostatua, José María Kruzeta eibartarren agindupean. Udalak ez zeukan haiek mantentzeko baliabiderik, eta diputazioari mailegu bat eskatu zion, horniketak bermatu ahal izateko. Francisco Betolazak hartu zuen horren ardura. Baina, diputazioak ez zuenez ordaintzen udalak aurreratu behar zuen dirua, eta Betolaza estu eta larri zebilen horniketak bermatzeko orduan. Utzikeria horri aurre egiteko, diputazioari ordaintzeko bildutako dirutik Betolazari ordaintzea erabaki zuen udalak[591]. Gorostidiren soldaduen horniketa eskualde guztiaren artean ordaindu behar zen, bakoitzak zuen

587. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-6-26.

588. Gorostidik lehen batailoiko soldaduei buruz zioenez, «… se hallan disgustados, en términos que temo que dentro de pocos dias se haga general la desercion que aun hasta el dia ha sido demasiado grande y quede el Batallon reducido a solos los oficiales y sin ningun soldado, particularmente desde que lleguen a saber que el suplus que se consignó en las Ultimas Juntas Generales celebradas en la N. y L. Villa de Villafranca para los sargentos, cabos y soldados no fue dispuesto para ellos, sino para el nuebo Batallón de las 800 plazas que se resolbió crear con reduccion de los dos actuales» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-8-3.

589. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-8-31.

590. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-10-17

591. Horniketak zirela eta Betolazak 16.000 errealetik gora zituen kobratzeko. Udalak, diputaziora desbideratu zuen auzia: «… que la Provincia de Guipuzcoa de quien depende dicho primer

aberastasunaren arabera; hurrengo taulak udalerri bakoitzak zuen ahalmen ekonomikoaren berri ematen digu:

	Propiedad territorial	*Raciones diarias*
Deva	238.110	86
Motrico	132.819	48
Elgueta	158.303	58
Elgoibar	199.968	72
Eibar	100.519	36
Guztira	825.719	300

Botikariak ere igarri zuen 1. batailoiko soldaduen ailegatzea, haiei emandako sendagaiak zirela-eta, droga gehiago erosteko udalari dirua aurreratzeko eskatu baitzion[592]. Gabon bueltan Kruzetak berak eskatu zion udalari, herriko dendetan utzitako zorrak ordaintzeko[593].

Antolatutako indar armatuez gain, bazegoen liberalek eragindako kalteak bere kabuz kitatzen zuenik. 1826ko urrian, Francisco Gisasola Eskaregik, Ramon Baskaranek, Felix Gisasolak eta Manuel Agirrek ziotenez, 1822an Soroa kapitain liberalari erositako lau behi zirela-eta, frantziarrak sartu zirenean Beitzamako baserritar bat etorri zitzaien, eta heriotzaz mehatxatu, itzultzen ez bazizkioten. Itzuli ezinean, ordaindu egin behar izan zizkioten behiok, batak 60, beste birek 44 eta azkenak 42 dukat (11 erreal) «… por evitar una tropelia sucepttible a unas circunstancias tan critticas, trataron de aquietar a dicho hombre (…) pues las de esta villa debian impedirlas y no lo hicieron por evitar sinduda mayores males que en aquel tiempo podian provenir»[594]. Testigantza horrek adierazten digu absolutisten itzuleraren oste laburrean liberalen aurkako mendekuak ez zeukala zigorrik, gehiegikeria honen aurrean agintariek ez baitzuten zirkinik egiten.

Battallon debe ser responsable a la paga (…) y no lo verifica, se encarga al espresado Bettolaza que se haga cargo a cuentta y parte de pago de dicho su haber de los importtes de los Donattibos primittibo adiccional de dicha Provincia respecttibos al presente año para que vaya perciviendo segun produzcan» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-2-4. Gainera Betolazak lehentasuna eskatu zuen Bergarako Manuel Madinabeitia hartzekodunaren aurrean.

592. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-12-7.

593. «… que en consideracion a los fabores que hizo a estta N villa y sus havittantes en el tiempo e su estancia en ella de guarnision tenga avien de abonarle los setteccientos y cincuentta reales que debe en varias tiendas de la misma procedentes de varios generos que sacó para su vestuario, y entterado el aiuntamiento y teniendo presentes dichos fabores hechos como hijo de estta villa, acordo que se le abonen» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-12-26.

594. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-10-29.

Udal-ogasuna: zorrak, lurrak eta kapitalak

Udal absolutistaren lehen bileran, Gorostidiren batailoiak ordaintzeko diputazioak lur-jabetzari ezarritako zergari buruz eztabaidatu zen Eibarko udaletxean, lur-jabe batzuk ez zeudelako banaketarekin ados. Banaketa berria egiteko bizpahiru arduradun izendatu ziren auzo bakoitzean[595]. Hurrengo urtean, diputazioak idi- eta zaldi-gurdiak zamatu zituen, eta hori gutxi balitz Fernando VII.ak "*donativo*"aren zatia ordaintzeko agindua heldu zen[596]. Azaroan, lur-jabetzari ezarritako % 8ko zerga biltzeko ardura zuen Ignacio Artonduagak aditzera eman zuenez, 8.210 errealetik 1.184 ezin izan zituen kobratu, ez ziotelako ordaindu. Udalak zordunei kobratzeko erabakia hartu zuen «… que con toda energia y rigor se proceda al cobro de los atrasos», baita epe konstituzionalekoak ere[597]. 1825ean, presoen mantenua ordaintzeko, diputazioak zerga berezia ezarri zion herrialdeari[598]. Udalaren kobratzeko grinak korrejidorea bera ere behartu zuen biztanleen alde egitera, eta 1808-1820 urteen bitarteko zorren kobrantza bertan behera uztea agindu zion udalari[599]. Udalarentzat irtenbiderik errazena —beharbada, bakarra— zeharkako zerga gehitzea zen, eta hala haragi-saltzaileari, librako erreal-laurdena garestiago saltzeko baimena eman zion[600].

Absolutisten beste presazko zereginetako bat Hirurtekoan zehar udal-ogasuna kontrolatu zutenei kontuak eskatzea izan zen. Arlo horretan, ez zituzten onartu Julian Kortesenak —Hirurteko diruzain ohiak— aurkezturiko bi agiri, biak ere Gabriel Benito Ibarzabalek sinatutakoak[601]. Kortesenak, Diputazio Probintzialaren

595. «… para que en nombre de este Ayuntamiento dispongan de dicho nuebo estado, arreglandolo con la posible igualdad segun los productos de las rentas de las casas, caserias y tierra comprendidas en toda la jurisdiccion de esta villa para que ningun propietario de ella tenga queja, ni reclamo de perjuicio». Arduradunak honako hauek ziren: Arizmendi auzoan, Andrés Areta eta Fco. Antonio Pagoaga; Gorosta bailaran, Agustin Atxa eta Joseph Gisasola Eskaregi; Akondian, Pedro Pagaegi eta Andrés Mandiola; Otaola / Egigurenen, Isidro Lariz, Manuel Baskaran eta Pedro Fco. Suinaga; Aginagan, Joseph Mandiola eta Pedro Miguel Gisasola; hirigunean, Fernando Olabe, Vicente Aldekoa eta Miguel Antonio Ibarra, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-6-8.

596. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-4-14.

597. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-11-14.

598. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-9-25.

599. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-12-10.

600. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-5-2.

601. Cortesenak aurkeztutako kontuak aztertu behar zituen batzordeak zioenez, «… hallamos que los dos vales que suenan firmados en la ciudad de Vitoria a nuebe de Abril ultimo por D. Gabriel de Ibarzabal, y se presentan por Cortesena como documentos de entrega de dos mil setecientos y veinte reales de vellon no merecen en manera alguna abono, ya por que Ibarzabal carecia de caracter y autoridad para disponer desde Vitoria de fondos publicos de esta villa arbitrariamente y menos aun solo y sin la asociacion de los que componian la Junta de sus propios y arbitrios; e ya tambien por que siendo en aquella epoca profugos Ibarzabal y Cortesena del Govierno lexitimo que acababa de entrar en Territorio Español, se deduce que dichos papeles fueron trazados para hacerse caxa de dichas cantidades, o invertirlas en sus usos, confirmandose lo propio por quanto en los relacionados papeles se

aginduei jarraitu ziela erantzun zuen, eta haren partaideei galdetzeko, «… sino tubiese abien aguardar a que regrese Ibarzabal al Pueblo»[602]. Udalak, Juan Cruz Aranburu eskribauari galdetzea erabaki zuen. 1824ko apirilerako Gabriel Ibarzabal Eibarrera itzulita zegoen, Bide eta Gerra Kutxek haren ardurapean egon ziren sasoiko kontuak eskatu baitzizkioten. Kontuok azaroan aurkeztu zituen, eta 16.611 erreal ateratzen ziren bere alde. Kontuak argi zeuden, eta Ibarzabal bera izendatu zuten kutxa horien arduradun, bere zorra soberatzen zen dirutik kobratzen joateko. Bilera horretan José Gisasola Eskaregik azaldu zuenez, berak ere 19.114 erreal zituen kobratzeko, eta ez bazioten ordaintzen «… se veria en la precision de usar de medios judiciales». Arazoa konpontzeko Gerra eta Bideen Kutxako soberakinen erdiak berari ematea erabaki zen, Ibarzabalen adostasunarekin, «… no obstante de que en el antecedente acuerdo se destino esclusibamente el sobrante integro para pago de su haver»[603]. Ikusten denez, absolutismoaren garaian ere Ibarzabalek bere prestigioa eta boterea mantentzen zuen.

Manuel Antonio Muruaren kontuak ez zeuden hain argi. Hirurtekoan zehar udal-lursailaren salmentak aurrera jarraitu zuen, eta berau izan zen metalikoan ordaindu behar zen 1/6a jaso zuena. Baina era berean, Muruak berak 116 lur puska erabiltzen zituen bonapartetiarren aurkako gerratean ordaindutako zergen truke, eta kezkati agertzen zen zenbait biztanlek lur horiek kendu nahi zizkiotelako[604]. Udalak, Muruari 36.794 erreal ordaindu eta lur horiek berreskuratzea erabaki zuen[605]. Egia esan, Muruaz gain, horniketen truke lurrak eskuratu zituzten herritar askok «… no tenian recibos que monten hastta el valor de los terrenos tomados»[606]. Egoera horri konponbidea aurkitu nahian eskuratutako lurren balio osoa ordaintzeko 8 eguneko epea eman zien udalak, eta Muruak itzulitako 118 lur puskak enkantera atera zituen. Enkanteren egunean lurrok inork ez zituela erosten ikusirik, haien balioaren

supone que fueron dadas para pago de las guardias y es notorio en esta villa que con este objetto se exigian por contribucion a los labradores mas de mil y cien reales mensuales, que excedian de los necesario para pago de dichas guardias (…) y por lo mismo somos de sentir, se apremie mancomunadamente al recaudador D. Julian de Cortesena y a los que nombraron a este a la restitucion de lo exigido» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-10-4.

602. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-10-27.

603. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-11-14.

604. Miguel Antonio Muruari heldutako zurrumurruek ziotenez «… algunos partticulares inttenttan despojarle el aprovechamiento de los montes aplicados a el a cuentta de su haber, y suplica que hastta la concclusion y censura de las cuenttas que tiene presenttadas al ayuntamiento de mil ochocienttos y veintte, no trate de dar ninguna porcion aplicada a el por decretto de estta N villa, y entterados e uno y ottro acordaron que se dettenga por ahora el referido montte, sin hacer su aplicacion» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-2-8.

605. «Por diferentes concurrentes se hizo relacion de que D. Manuel Antonio Murua vecino de esta villa en virtud de lo acordado por ella en diferentes ayuntamientos está disfrutando hace siette u ocho años hasta ciento diez y ocho porciones de terrenos propias de esta villa, para partte de pago de los 36.974 r.v. que tiene a ella procedentes de antticipos hechos en nombre de la misma durantte la guerra de la independencia» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-8-13.

606. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-9-18.

herena jaitsi zuen sindikoak. Erosleak, Antonio Barrenetxea, Joaquín Gantxegui, Manuel Antonio Murua eta Andrés Telleria izan ziren, eta udalak sindikoaren jokabidea onartu zuen «… para dar frente a sus muchas obligaciones, y que dicha enagenacion era solamente en calidad de prenda (…) con la rebaja de la tercera parte su regulacion y a pagar las otras dos en dinero metalico»[607]. Ordurako kristoren anabasa zegoen, udalak ez baitzekien zeintzuk ziren bere lurrak eta zeintzuk partikularrei salduta zeuzkanak[608]. Gauzak okertzeko, garraioen —"*bagajeria*"— zergari erantzun ezean, diputazioak mikeleteak bidaltzeaz mehatxatu zuen Eibarko Udala[609], eta bere eskakizunari aurre egiteko Erribasoko lursaila errematera ateratzea erabaki zuen udalak, «… *en calidad de prenda*»[610].

Debaluazio eta nahaste-borraste abagune hartan, lurrak eskuratzeko gutiziaren seinalea dugu Murgiako luberriaren —"*novalia*"— inguruan sortu zen eztabaida. 1824ko abenduan, Arrateko biztanleen izenean, Fco. Antonio Pagoagak, Ignacio Areta Mendigoitiak, Fco. Egaña, Domingo Azpirik, Mateo Pagoagak, José Azpirik eta Martín Pagoagak, Murgiako luberria saltzeak aziendarako erabiltzen zuten bidea zarratzea ekarriko zuela azalduz, beraiei saltzea eskatu zuten, abuztuan ordaintzekotan. Besteren batek erosiko balu, bidea libre gelditzea bermatzeko eskatu zioten udalari, horren zatia ordainduko zutela-eta. Kontua da Murgiako luberria Muruak erosita zeukala 1812tik, 9.075 errealen truke. Edonola ere, udalak luberria errematera ateratzea erabaki zuen, erosleak 15 egunetara esku-dirutan ordaintzekotan[611]. Hurrengo astean, Murgiako luberria hiru zatitan banatu zen, eta MA Muruaren proposamena onartu zen, horrek esku-dirutan ezertxo ordaindu ez bazuen ere «… mediante a que el importte de dicha Novalia y el de ottros terrenos perttenecientes a esta N Villa estan esclusibamente desttinados para la sattisfaccion del creditto que tiene conttra ella el recordado Murua»[612]. Horrek adierazten digu zein puntaraino zegoen udala bere hartzekodun nagusien eskuetan.

607. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-11-14.

608. «Teniendo presente el ayuntamiento que varias porciones de Terrenos perttenecienttes a estta villa se hallan sin vender, y ottras poseen varios vecinos de esta villa sin documentos de su perttenenccia, sin que se sepa quales sean fixamente; y deseando corttar el buelo a semejanttes abusos, se acuerda que haciendo comparecer a la presencia de dicho Sr. Alcalde, a Isidro de Lariz, Rafael de Loyola, Ignacio de Unamuno, Agustin de Iriondo, Ignacio Vergara Acastteguieta, y Martín de Uncetta Barrenechea , vecinos de estta villa; y vajo de juramento que se les reciva, declare, en quantto supiesen, quales son los terrenos monttes comunes que estén sin enajenarlos, y quales los que habiendose señalado por partticulares, los poseen sin documento legitimo, para que vajo estos datos se resuelva los conveniente en el primer Ayuntamiento» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-8-13.

609. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-1-16.

610. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-2-6.

611. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-12-5. Egun berean, Domingo Gisasola Oregik Cattamengako mendi-pagadia —"*monte ayal*"— eskatu zuen, zorren truke.

612. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-12-12.

Pare bat hilabete geroago —1825eko otsailean— Andrés Mandiolak bide berri bat zabaltzeko baimena eskatu zuen Mandiola auzoaren izenean, eta eztabaida luze baten ostean, udalbatzak eskakizuna onartzea erabaki zuen[613]. Itxura denez, bide horrek Murgiako luberria zeharkatzen zuen, hurrengo batzar batean, Arrateko bailara osatzen zuten 14 baserriek salatu zuten Arrateko Gurutzeko —Murgian— luberriaren erosleak eremu hori zarratu eta eraiki berria zuten bidea moztu zuela. Aurretik, korrejidorearengana jo zuten, eta bere epaiak arrazoia ematen zien, Murgiako luberriaren erreматea baliogabetzat joz[614]. Udalak, bidea beste leku batetik egitea proposatu zion Mandiolari, baina ez zuen onartu. Egoera horren aurrean, udalak gizalegezko abokatu bati aholkua eskatzea erabaki zuen, ea auzian sartzea merezi zuen ala ez erabakitzeko, Pagoagaren kontrako iritziarekin.

Istilu horrek, desamortizatu nahi ziren lurren erabiltzaileek abian jarritako defentsa-mekanismoez ohartzeaz gain, prozesu honen aurrean udal-gobernuak zituen zalantza eta estuasunen berri ematen digu. Alde batetik, luberria saltzea —eta ondorioz, bidea zarratzeko baimena ematea— erabakitzen bazuen, erabiltzaileek auzitara eramango zuten, gainera, korrejidorearen babesarekin. Izan ere, gerra garaiko zerga-agiriekin eskuratutako lurrak ezin ziren zarratu, jabetzan barik erabilera —"*en prenda prendaria*"— erregimenean baitzeuzkaten. Zentzu horretan, lur bat luberria zen ala ez zehaztea, funtsezkoa zen lur horren ordainketa modua erabakitzeko orduan[615], eta hori ez zen beti lan erraza. Beste alde batetik, lurrik saltzen ez bazuen, bere hartzekodunak izango ziren salatzaileak, gertatu zen bezalaxe. 1825eko abuztuan Muruak, ez lurrik ez dirurik ez zuela eskuratzen ikusirik, udalaren fidatzaileen aurka jo zuen —Domingo Gisasola Oregi, José Gisasola Eskaregi eta Martín Agirre

613. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-2-6.

614. «Deviendo pues considerarse el remate causado en su razon como una verdadera venta y enajenacion con el dicttado y colorido de prenda y vajo de estte respectto por nulo y de ningun valor y efectto porque en lo demas en fraude nottorio de las Leyes que prohiben ttoda enagenacion de Propios sin la corrrespondiente licencia y facultad el Real y Supremo Consejo de Castilla, se despojara a las villas de quanttas propiedades disfruttan» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-4-12.

615. Pedro Francisco Suinagak zerga-agirien ordainketarako batzordearen aurka bideratu zuen protesta nahiko argigarria da: batzordeak Goroziagako "alechala" novalia kontsideratu zuen, «… para por este medio obligarle al pago de su enttero valor en mettalico», 1/6aren ordez. «Y persuadido el ayuntamiento de que dicho terreno ha esttado astta ahora en clase de alechal sin que jamas se hubiese conocido vestigio alguno de cerradura, se accedio a dicha solicitud; pero en calidad espresa de que en tiempo alguno podra cerrarlo, y si deberá tener libre y espeditto con el fin de no causar perjuicio al transitto y parto del ganado. Pues que en defectto tendrá que pagar el importe tottal de dicho terreno en dinero mettalico, como si fuese novalia. Deviendo servir este acuerdo de regla para todos los demas terrenos que se hallen en igual caso» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-2-6. Bi hilabete geroago eztabaida berdina piztu zen, Pedro Miguel Gisasolak erositako otadia luberria zen ala ez erabakitzeko, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-4-12.

Argiano—[616]. Muruak zioenez, eskuko dirua behar zuen zor bati aurre egiteko, baina itxura denez zorra kitatzea baino gehiago, lurretan inbertitzea zen bere helburua[617]. Izan ere, esku-dirurik gabe ezinezkoa zen lurren salerosketa-operazioei etekina ateratzea.

Muruaren mehatxuak udal-ondasunen birrintze-prozesua bizkortu zuen. Udalaren fidatzaileek euren ondasun pertsonalak arriskuan ikusi zituztenean, eskrupulu gutxiago erakutsi zuten herri-lurrak saltzeko baimena emateko orduan. Hurrengo hilean udalak, Eskaregik —hiru fidatzaileetariko batek— aurkezturiko proposamena onartu zuen[618], herri-sail guztia salmentan ipintzeko. Berak ere bazuen zer eskuratu, Betolazarekin batera Gorostidiren batailoiaren hornitzaile nagusia izan baitzen. Hurrengo hilean, Aretio alkateak udalaren diru-kutxaren egoera azaldu zuen, eta 4.000 erreal inguruko zorra zegoen. Betolazak, bere aldetik oraindik 2.960 erreal zituela kobratzeko adierazi zuen. Murua, Eibarko Udalak Debakoaren aurka zuen enbargo bat, bere gain hartzeko prest agertu zen.

Landaredia —zuhaitzak bereziki— udalerriko baso eta mendien inguruan sortu zen espekulazio basati horren pairatzaile bihurtu zen. Lurrak eskuz esku zebiltzan, eta udalak berak lurren inguruan zuen politikak herritarren kezkak pizten zituen[619]. Adostutakoaren arabera, momentuz erabiltzeko baimena zeukaten, behin betiko banaketa gauzak argitzen zirenerako utziz. Jabetzaren inguruan sortutako ezegonkortasun-egoera horren aurrean, behin-behineko erabiltzaileek zuhaitzak

616. Hauek Muruari lehenbailehen ordaintzea eskatu zuten, «… y caso que falte algo disponer que de luego a luego se proceda a la enajenaccion de los terrenos equivalentes para evitar los gastos que resulttaran de dichos embargos». Udalak fidatzaileen eskakizuna onartu eta José María Alberdi sindikoari eman zion agindua, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-8-28.

617. Bilera berean, M.A. Muruak beste bati esleitutako lursaila erostea eskatu zuen (besteak ez bazuen nahi), berriz tasatuta. Herena esku-dirutan ordainduko zuen, beste herena udalari eginiko maileguen baleetan, eta hirugarrena gerra-garaiko zerga-agiriekin. Beste baldintza bat jartzen zuen: «Que los arboles trasmochos existentes se hayan de arrancar a causa de que no producen ni producirán nunca ramaje alguno». Udalak eskakizuna onartu zuen, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-8-28.

618. Eskaregiren eskakizunak «… habla sobre enagenacion de terrenos propios de esta N villa. Y entonces el ayuntamiento acuerda que todos ellos se saquen a publico remate con toda brevedad a pagar la sestta partte en dinero mettalico y las cinco resttanttes en recivos de contribuziones sattisfechas durante la guerra de la Independencia en reinttegro; con la calidad y circunsttancia espresa de que las pujas que se hagan en dichos remattes se admittiran unicamente en dinero, sobre la dicha sextta partte, y no en recibos» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-9-21.

619. «Tambien se ha leido otro memorial de Agustin de Guisasola Amurutegui en que expone que por via de prenda ha tenido y goza el monte argomal llamado Gastañabieta perteneciente a esta N. villa, habiendo pagado la sexta parte de su importe. Que ha oido quiere enagenarlo a algun particular, y no puede sin pagar al exponentte su haber, y suplica se trate de hacer su contentamiento antes de enagenarlo; y enterado el Aiuntamiento, **aunque hubo algunas discordias**, no resolbió cosa alguna sobre su particular; y con tanto se disolbio el Aiuntamiento» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1823-7-13

mozteari ekin zioten[620], egindako inbertsioa lehenbailehen amortizatu nahian. José Azpirik, adibidez, 220 zuhaitz moztu zituen udalak Arkatxa —"*Arcacha*"— inguruan utzi zizkion lurretan, Eskaregiren protesta eraginez. Orduan argitu zen 1818an udalak Arkatxa inguru hori Eskaregi etxeari saldu ziola. Edonola ere, Azpiriri 880 errealeko isuna ezarri zion, «… cuya medida sea esttensiba para todas las demas personas que hubiesen tenido igual osadia de cortte de arboles pertenecientes a la villa»[621].

1824ko urriaren 17ko Errege Zedula

1824ko urrian, Fernando VII.ak udal-karguen hautaketa arautzen zuen zedula bat eman zuen, udal-karguak izendatzeko orduan auzokide hautagaiek zeukaten autonomia murriztu eta elementu liberalen infiltrazioa ekiditeko helburuarekin. Bere bidez, udalkideak zuzenean aukeratu beharrean, kargu bakoitzerako hiru hautagai proposatzera mugatu zen udal-auzokideen gaitasuna; eta horrez gain, udal-karguetarako aukeratua izateko bete behar ziren baldintza ekonomikoak zeharo igo zituen, hautatua izateko gozatu behar zen errenta kopurua urteroko 1.000 pesotan ezarriz. Diputazioak, bere aldetik, udal-karguak monarkikoen eskuetan gordetzeko argibide zehatzak zabaldu zituen, «… para que los nombramientos de empleos en Republica recaigan en personas de conocida lealtad y exentas de toda tacha de constitucionalidad»[622].

Errege-zedulak zioenez, hirukoteen proposamenak Fernando VII.ak propio eratu zituen Lurralde Entzutegira —"*Audiencia Territorial*"— bidali behar ziren, baina erakunde berri horren sorkuntzak diputazioaren gaitasunak murrizten zituenez, lehia piztu zen bi botereon artean. Horrez gain, udal-karguen hautaketaren —edo hobe esanda, proposamenaren— eguna aurreratu egin behar zen, proposamena

620. Juan José Goikoleak lursail bat eskatu zuen 1812an eskuratu zuen zor baten truke, baina berriz tasatu behar zela zioen, «… hallandose deteriorados por haber egecutado mal los Transmoches y por el arranque de mucha considerazion que se han hecho en los montes» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-1-16. Gipuzkoako Buruzagi Politikoak —Villafuerteseko kondeak— zioenez salmenten legeztatzeak basoen egoera hobetuko zuen: «En la ultima guerra de la independencia los Pueblos se desprendieron cuasi de todos sus propios para ocurrir a los cuantiosos gastos y contribuciones con que debian acudir alas Tropas Nacionales y enemigas, pero como era incierta la suerte de estas enagenaciones en cuanto a su valor, los compradores en general se propusieron utilizarse del arbolado, de donde procede el decaimiento que se observa en los montes; mas desde que la orden de las Cortes de ocho de Noviembre del año proximo pasado fijo la suerte de estas enajenaciones declarandolas validas se nota que sus dueños van haciendo los unos plantaciones y que se disponen otros a hacerlas». Villafuertesek komunalak ere saltzea agindu zuen, zeren «… los pocos propios que restan pasaran a manos de particulares cuyo interes que es el mejor agente inducira desde luego a la plantacion de arboles», GAO, JD AIM, 281, «Copiador de los pliegos trimestres remitidos al Ministro de la Gobernación por el Sr. de Villafuertes, Jefe Politico de la Provincia de Guipúzcoa», 1821. urteko lehen hiruhilekoaren txostena, 1821-5-18, 12. ofizioa.

621. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-9-21.

622. Irungo Udal Artxibategia (IUA), A,1,69, 1824-11-24.

onartu behar zuen botereak —edozein izanda ere— hirukoteetatik egokienak aukeratzeko denbora izan zezan. Eibarren, azaroaren 23an jaso ziren diputaziotik, hirukoteen hautaketak jarraitu beharreko prozedura zehatzak, «… con calidad de que las propuestas se hayan de dirijir a mi Diputacion, y ésta haya de hacer los nombramientos y expedir los titulos de dichos Alcaldes y demas empleados de ayuntamiento». Baina guztia zehaztu ezin eta eztabaida hasi zen, ea botazioa publikoa edo "*reserbada*" izan behar zen. Luzaroan tematu ondoren, boto sekretuaren aldeko jarrera nagusitu zen. Kapitularren proposamenak egin ostean, herri-diputatuak hurrengo igandeko arratsaldean izendatzea erabaki zuten, «… mediante a que ningun dia de labor podria concurrir a ella mayor gente por estar atareados en el trabajo»[623]. Horien proposamenak ere botazio sekretuz egin ziren. Baina Gaztelako Kontseiluak prozesu hau guztia indargabetu egin zuen[624], eta diputazioak bere aldetik, forubaimena ukatu zion errege-zedulari[625]. Ondorioz, hirukoteen proposamen-ekitaldia ez zen errepikatu eta 1824ko udalkideek jarraitu zuten udal-gobernuan, hirugarren urtean jarraian.

HIRUKOTEEN UDALAK ETA LIBERALEN ERREAKZIOA (1826-1831)

1826ko Urteberri egunean heldu zen diputazioaren zirkularrak azaltzen zuenez, udal-partaideen proposamenak Lurralde Entzutegietara barik, bertara bidaltzeko behin-behineko baimena lortu zuen. Badirudi diputazioa eta Gaztelako Kontseilua erdibideko konponketa adosteko gai izan zirela: diputazioak, foruen aurka joan arren, hirukoteen proposamena onartu zuen; eta Gaztelako Kontseiluak hirukoteen kontrolaren eskuduntza diputazioaren esku utzi zuen. Behin hori lortuta, gaia aztertzeko diputazioak izendatuta zeukan batzordearen iritziz, «… pudiera dar el pase a dicha Real Orden por esta sola vez sin que cause esttado por las elecciones succesibas». Horrez gain, batzordeak azken hiru urteetan etenik gabe ari ziren

623. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1824-11-23. Kapitularrak izateko hirukote hauek proposatu zituzten: alkatetzarako, P.F. Olabe, Fo. Betolaza eta Dº Gisasola; sindikotzarako: Dº Ramon Baskaran, Manuel Baskaran eta J. Gantxegui; eta errejidoretzarako Fº Iº Alberdi, Martín Gisasola Barrutia eta Josef Barrenetxea.

624. «Ignacio Martínez de Villela, Presidente del Real y Supremo Consejo de Castilla (…) que por ahora se observe en las Provincias Vascongadas lo dispuesto en la Real Cedula e diez y siette de octubre ultimo en quantto a las propuestas y nombramienttos de los empleados de Ayuntamientos» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-1-16.

625. Diputazioaren eta erregearen artean sortutako lehia honi buruz hauxe dio Portillok: «Iniciaba de esta forma la provincia la pugna de mayor trascendencia a nuestro juicio de esta década fernandina y la que mas contribuyó a su consolidación». Auzia diputazioaren alde erabaki zen, zeren 1825-12-2ko Errege Aginduaren bidez «… se determinaba (…) que se dirigieran las ternas para la elección de cargos (municipales) a la diputación, en vez de al Real Acuerdo». Benetako garaipena zen, zeren «… las diputaciones se vieron dotadas de una función de primera importancia que jamás habían ejercido» (Portillo, 1987: 56-62).

udalkideen nekea aipatzen zuen, eta herri askotan udalkide eta ordezko bakoitzeko hiru proposamen egiteko adina auzokide hautagai ezean, zerrenda osatzeko zeuden arazoak[626].

Bilera horretan Eibarko Udalak 16 hautesle izendatu zituen: hiru alkatearen proposamena egiteko, hiru sindikoarena egiteko, beste lau bi errejidorerentzat, hiru herri-sindikoarentzat eta azken hirurak herri-diputatuentzat. Berez, 21 aukeratu behar ziren (udal-karguak zazpi zirelako). Herri-diputatuaren proposamena faltatzea normalagoa da, bi urtetarako izendatzen baitziren, eta urte bakoitzean bakarra hautatuta nahikoa zelako. Baina errejidoreen kasuan bi zirenez, sei proposatu behar ziren, ez lau. Diputazioa gaiaren jakitun zen, eta ez zuen sinesten herrietan ez zegoenik kargu bakoitzerako hiru proposatzeko adina hautagairik. Eibarrera behintzat mikeleteek ekarrita ailegatu zen agindua, eta eurek eraman behar zuten[627].

Eibarren gainera, hautesleak izendatzea, bozketaz barik zozketaz egin zen, auzokide hautagaien txartelak pitxar batean sartu, nahastu eta lurrean bota ondoren, ume txiki batek jasotakoetan agertzen ziren nortasunekin. Hautesle horiek banan-banan joan ziren aparteko gela batera, alkatearen aurrean zin egin eta bakoitzaren hautagaia esatera. Beharbada kontu hori diputazioak jakin ere ez zekien, baina bere aginduan argi eta garbi lagatzen zuen proposamen berriak bozketaz egin behar zirela, aurreko izendapenak indargabetuta gelditu baitziren. Oraingo honetan Eibarko Udalak 48 auzokide hautagai proposatu zituen (alkatearentzat eta bere ordezko bientzat bederatzi, beste bederatzi sindikoa eta bere ordezkoentzat, 12 bi errejidore eta ordezko banarentzat eta 18 hiru herri-ordezkari (bi diputatuak eta sindikoa) eta euren ordezkoentzat. Edonola ere, proposamenak ez ziren bozketaz egin, baizik eta «… todo el ayuntamiento de una voz y conformidad»[628]. Urtarrilaren 29an bildu zen lehen aldiz diputazioak aukeratutako udala, eta kasu guztietan, udalak proposatutako hirukotetik, lehen postuan zegoena izendatu zuen. Kasu honetan, Francisco Betolazari egokitu zitzaion alkatearen makila jasotzea. Betolazak, gogora dezagun, Hirurteko Liberalean ibarzabaldarrekin istiluak protagonizatu zituen alkatea zen. 1826an diputazioak alkate izendatu izanak Beto-

626. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-1-1.

627. Diputazioaren erantzuna urtarrilaren 11koa da: «… que siempre que Vm hubiese hecho dichas propuestas in voce o a pluralidad de vottos (…) las estienda las ternas o viñas segun el cabimiento en cuantto a los desttinos de ayunttamiento, y en las de los Diputtados y Personero del Comun a ternas precisamente por no haber duda en su Cabimiento, y aunque no haya sucedido asi y si por electtores, en estte caso las haga de nuebo en la forma indicada remittiendomelas con el miquelette porttador con testimonio del Essno. de haberse ejecutado asi y de no haber havido mas personas para las Ternas, o urnas, que las que comprenden las que VM me embie en attencion a que quedo permanente hastta su recepcion para la resolucion conveniente» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-1-15.

628. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-1-15.

lazaren liberalismoa nahiko epela zela adierazten digu, edota liberalen bazterketa-kanpaina makalduta zegoela 1826rako[629].

1826ko udaleko partaideak

NORTASUNA	1826	Udal-karguak	Arm. 1835	1842 Jabetza	Urb. 1835
BUSTINDUI Pedro Joseph	ER	SPG 1799	M K 35		A.U. 35
LARRAÑAGA José Joaquín	SPG	SPG 1807			
ORBEA José María	ER	ER 1813-7			A.U. 35
ARANGUREN Pedro Luis	HD	HD 1826		325	KG 35
IRUSTA Juan Francisco	HD	THD 1826	M K 35	200	
BETOLAZA Francisco	A1	A1 1821	M A 35	200	A.U. 35
GUISASOLA SANTA INES Isidro	HS	THS 1826	M A 35		A.U. 35

"Udal-karguak" zutabean, noiz izan ziren udalkide lehen aldiz; "Arm. 1835" zutabean, 1835ean maisu (M) armaginak: kanoiginak (K) eta aparejuginak (A); "1842 jabetza" zutabean, lur-jabetzaren errenta 1842an; "Urb. 1835" zutabean, armatutako urbanoak (A.U.) 1835ean edo Gasteizera alde eginda (KG).

1826ko udalkideen artean, herri-ordezkariak udalean esperientziarik gabekoak ziren, baina sindikoa eta errejidoreak ez. Edonola ere, nabari da azken horiek udalean aritu gabe zeudela aspalditik, trantsizio-abagune honetan politikarako berreskuratu izan balituzte bezala: Juan José Larrañagak, adibidez, 19 urte zeramatzan udal-gobernuan parte hartu gabe (1807tik); Orbeari dagokionez, udalean izandako azken parte-hartzea 1813ko agintaldi konstituzionalistakoa zen; esperientzia politiko gehien zuena Pedro Joseph Bustindui genuen: sindikoa izan zen 1799an, alkateordea 1804an, berriz sindikoa 1813ko konstituzionalisteekin eta errejidorea 1821 eta 1822an. Hiru lur-jabeak ziren —1842an—, horietatik bi maisu armaginak; beste bi maisuk ez zeukaten lur-jabetzarik. Baina azpimarragarriena hauxe da: 1826ko zazpi udalkideetatik lauk liberalen aldeko talde armatuetan parte hartuko zutela I. Karlistaldian, eta beste batek Gasteizera alde egin zuela karlistek Eibar hartu zutenean. Datu hau funtsezkoa iruditzen zait udalaren osaketan gauzatzen ari zen aldaketa azaltzeko orduan, aurreko agintaldian zortzitik bakar batek parte hartu zuelako Zaintza Hiritarrean —"*Guardia Urbana*"—. Eibarko Udalean, garai berdinean beste herri batzuetan gertatzen ari zen bezala, liberalak indarra berreskuratzen zihoazen poliki-poliki, indarren arteko harremana oraindik absolutisten aldekoa izan arren.

629. Manterok dioenez, 1823an «Fernando VII recuperaba la plenitud de su soberanía se dispuso a continuar su reinado de una forma similar a como lo había hecho entre 1814 y 1820. Sin embargo, con el paso de los años, el gobierno experimentaría una cierta evolución hacia un reformismo moderado que marcaría una clara diferencia con el periodo absolutista anterior» (Sánchez Mantero, 1996: 102). María Teresa Gabarainek dioenez, Oiartzun haranean ere antzeko prozesu bat gertatu zen: «Anbiguitatea ezaugarri zutelarik, liberal moderatuak erakarri asmoz, 1825ean Fernando VII.ak eta bere ministroek politika berri bati ekin zioten. 1827rako egia esan, hurbilpen hau aski nabarmena gertatu zen (…) Aldaketa politikoek 1826az geroztik ere eragin handia izan zuten Oiartzun Haranean. Liberalak herri bizitzatik aspaldi egotziak izan baziren ere, indar hartzen ari ziren, eta Diputazioaren laguntzaz herriko politikan parte hartzeko gertu zeuden» (Gabarain, 1994: 110-112).

"Purifikazio" prozesuak

1826. urtean jotzen hasi ziren haize berrien seinale izan ziren liberal izateagatik udaletik baztertuak zeudenen "purifikazio" prozesuak. Urrian, Eibarko Udalaren batzar murriztuan —hau da, soilik udalkideak, gainerako auzokideen presentziarik gabe—, baztertuta zeudenen zerrendak egin, eta haien kexei erantzuteko batzordea eratu zen, kide hauek osatua: Manuel Baskaran, Miguel Antonio Ibarra, Vicente Aldekoa, Fernando Olabe, Juan Estteban Bergara, Pedro Bergara Asua eta Juan Andrés Gabiola, «… todos vecinos concejantes que esttan clasificados anttes nobles, adicttos a la justa causa de S.M. y sugettos de conocida providad e imparciales»[630]. Juan Cruz Aranburu idazkariak zioenez, ezgaitua zegoen «… por solo el motibo de haber sido escluido de la asistencia a ellas [Batzar Nagusietatik] (…) se hizo por una mera queja de falsas acusaciones sin justificacion alguna ni conocimiento de causa»[631], eta batzordeak auzokidetza onartu zion. Vicente Agirre eta Ramon Agirreren eskakizunak egun berean aztertu zituen batzordeak, eta horiek ere onartu zituen, absolutistak sartu zirenean Oviedo aldera egin bazuten ere, SEAFeko zuzendariak berak aginduta —Juan Mantillak— izan zelako. Mantilla bera Toledoko Arma Fabrikako zuzendaria zen 1826an, eta hura "purifikatuta" bazegoen, logikoena zen haren aginduei jarraitzea besterik egin ez zuten langileok zuritzea.

José Martín Ibarra eta Luis Baskarani Boluntarioen Miliziako kideak izatea egozten zieten, baina ziotenez beraiek ez zuten milizia hartan parte hartu, ezta haren prestakuntza-ekitaldietan aritu ere. Gaia argitzeko Areitio —1823ko alkatea— deitu zuten deklaratzera, eta horrek onartu zuenez, zerrenda zehatz bat egiteko daturik ezean, «… acudieron a una Amanuense que en los tiempos pasados solia andar en los cuarteles recorriendo lista de los milicianos que solian hacer servicio, pidiendole que formase dicha lista, como en efecto la formo sin duda por algunas noticias que debia tener»[632]. Beraz, sekretua izan arren, hemen argitzen da nola egin ziren zerrenda horiek. Batzordearentzat amanuensearen ikerketa ez zen nahikoa, eta «… habiendo informado con personas que tenian obligacion de saberlo», Agirre eta Ibarra ez zirela boluntarioak ondorioztatu zuen. Amanuensearen aipamena, erdi egia ez bada behintzat, argigarria iruditzen zait, monarkikoek Eibarren liberalen zerrendak egiteko izan zituzten oztopoen berri ematen digulako.

Azaroaren 2an batzordeak Manuel Antonio Murua eta Gabriel Benito Ibarzabalen eskakizunak aztertu zituen. Manuel Antonio Muruak aitortzen zuenez 1821eko uztailetik zen Araututako Miliziaren komandantea, eta 1823ko Urteberri egunean egin zion uko karguari, «… por no poder soportar con dicho empleo y por hallarse debilitado de salud y como no fue causa suficiente para la renuncia tubo que decir

630. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-10-15.
631. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-10-25.
632. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-10-27.

que se inscribia en la milicia voluntaria, por evadirse de dicho mando». Araututako Milizian nahitaez parte hartu behar izan omen zuen, eta gainera komandante izendatu zutenez, karguaren ardurari uko egin nahi izan zionean boluntarioen milizian izena ematea beste aukerarik ez zitzaion gelditu. Araututako Miliziaren komandantea izan zen bitartean, lasaitasuna eta ordena publikoa bermatzea beste helbururik ez omen zuen izan, eta behin gainera, osasun-kontuak zirela Donostian zegoela, Legazpiko Ignacio Zabala hiriburuko komandante militarraren atzaparretatik askatzea lortu zuen, eta bizitza salbatu zion. Beste batean, Elgetako apaizak eta alkateak sasoi hartan "asaldariak" —"*facciosos*"— deitzen zirenekin harremanak edukitzeagatik ezarritako isun bat ez zutenez ordaindu, alkatea atxilotu behar izan zuen; baina behin Eibarrera ekarri zuenean, Muruak bere etxean ostatu zuen «… donde le mantuvo a mesa y mantel», eta hark nahi izan zuenean Elgetara eraman zuen berriz. Armada frantziarra penintsulan sartu zenean, lehenengo Oviedora eta gero A Coruñara joan bazen, «… fue por salvar su existencia, que peligraba a haber permanecido en estta villa como no puede ignorar la junta»[633]. Izan ere, monarkikoak Eibarren sartu zirenean bere etxea arakatu eta aurkitutako paperak erre egin zituzten[634]. Batzordeak, ordea, ez zuen zuritu, boluntarioa izateaz gain monarkikoen aurkako irteeretan parte hartu zuelako. Muruak aipatu zituen gainerako merituak ez ziren nahikoak izan, auzokide hautagaien zerrendan berriz onartua izateko.

Ibarzabal ere Araututako Milizian zuen komandante-karguari uko egiteko erroldatu omen zen Boluntarioen Milizian, hau 1821eko uztailean. Kabo-kargua bete ostean komandante izendatu zuten, 13 lagunek! Udal-aktak «… por nombramiento de 13 individuos de la misma milicia» dioenez, ez da argi gelditzen 13 lagun horiez gain boluntario gehiago zeuden[635], edo horiek ziren zeuden guztiak. Azken hipotesia zuzena balitz, datu interesgarri baten aurrean geundeke, Eibarko

633. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-2. Eskakizunaren bukaeran laburbiltzen zuenez, Milizian arduradun nagusi legez «… no hizo sino afianzar el orden publico y salvar de vida , multtas y dineros a los comprometidos por relaciones secrettas y publicas con los llamados en aquella epoca facciosos».

634. Urte batzuk geroago Muruak azaldu zuenez, «… en dicho año de veinte y tres como es publico y notorio que registraron y saquearon mi casa y quemaron los papeles que estubieron a sus manos como tambien los que existian en el nuebo archibo de la Sala Capitular. Los que componian la representazion de VS el año 24 me oficiaron a la N villa de Elgueta donde a la sazon estaba confinado por el orden del Correxidor de esta Provincia diciendo que en termino de 15 dias presentase las cuentas como Alcalde y Comandante que fui dicho año de 22» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-3-22.

635. Boluntarioen Milizian kide guztiek zeukaten beraien buruzagien izendapenean parte hartzeko eskubidea, eta zentzu horretan, boluntarioen kopurua urria iruditu arren, horiek ez zirela 13 baino askoz gehiago izango suposatu behar da. Beste alde batetik, litekeena da —kargu politikoen hautaketan bezalaxe— Boluntarioen Milizian ere zeharkako sufragioa erabiltzea agintariak hautatzeko, eta 13 boluntario horiek gainerakoek izendatutako hautesleak baino ez izatea. Edonola ere, beste daturik ezean, hasierako une hauetan Boluntarioen Milizia 13-14 kidez osatu zela ondorioztatzea iruditzen zait aukerarik zuzenena.

Boluntarioen Miliziaren sorkuntza-prozesua argitzeko orduan. Aipatu denez, 1821eko apirilean Eibarko milizianoen kopurua 132koa zen, iturriak zehazten ez duen arren Araututako Milizian kokatu beharko genituzkeenak, Ibarzabal baitzen komandantea. Hurrengo datua 1823koa genuen, eta milizianoak bereizita agertzen dira: 130 boluntario eta 120 araututako. Araututako Milizia lehenago sortu arren, Boluntarioen Miliziak arrakasta handiagoa izan zuela ikusteak, une jakin batean Araututakotik banandu eta Boluntarioena sortzea erabaki zuen miliziano taldea nahiko handia izan behar zela pentsarazi digu. Ibarzabalen testigantzak argitzen digunez, ordea, Boluntarioen Milizia uste baino baldintza okerragoetan sortu zen, kideen urritasunak adierazten duenez. Ahultasun-testuinguru hartan, hain baldintza eskasetan, zerk bultzatuko ote zuen Benito Ibarzabal, Araututakoa utzi eta Boluntarioen Milizian sartzera edo sortzera? Eta presazko eraketa hori, zein puntutaraino zegoen lotuta bigarren alkatearen izendapena zela-eta hilabete lehenago milizianoen eta udalkideen artean piztu zen iskanbilarekin? Atzera begirako hausnarketa honen ostean, buelta gaitezen Ibarzabalen purifikazio-prozesura.

Gabriel Benitok zioenez, Fernando VII.a hobeto zerbitzeko baino ez zuen parte hartu Boluntarioen Milizian, erregearenganako zuen leialtasuna aski frogatuta baitzegoen, baita bere «… ciega adhesion a la voluntad Soberana, anttes del Sisttema constitucional, durante el mismo Sisttema y despues de su abolicion». Izan ere, Erret Ogasunak 608.000 errealeko zorra zuen Ibarzabalekin, 1808-1820 bitartean eta 1823tik aurrera, armada absolutista eta boluntario errealistei egindako arma-horniketen truke. Ibarzabalek zioenez, bere ondasun guztiak sakrifikatuta zeuzkan zeregin horretan, eta hor kokatzen zuen Fernando VII.arenganako leialtasunaren eta errugabetasunaren frogarik garbiena[636]. Horrez gain, Ibarzabalek erregearen askatasuna lortzeko borrokatzen zuten gudu-taldeei egindako arma-horniketak aipatzen zituen, baieztapen hori benetan sinesgaitza den arren, Eibarko boluntario liberalen komandante ohiarengandik zetorrela dakigunean.

Frantziar armada estatuan sartu zen egun berean —1823ko apirilaren 8an—, Ibarzabalek Boluntarioen Miliziako komandante karguari uko egin eta Toledorantz jo zuen «… a liquidar sus haberes con la Real Hacienda», Hirurtekoan zehar armada eta milizia liberalei egindako arma-horniketak frantziar gudarosteak estatuko hiriburura ailegatu aurretik kobratzeko asmoz, antza. Kontu horiek konpondu ostean Madrilerantz egin zuen eta bertan gelditu zen ekainaren 14an estatu-ministroak luzatutako pasaportearekin, Frantziara irten zen arte, bertako arma-fabrikak bisitatu eta hango aurrerapenak Eibarren eraikitzen ari zen fabrikara eramateko

636. «… habiendo sacrificado Ibarzabal toda su forttuna en Real Servicio se ve actualmente muy atrasado en sus caudales. Son hechos al parecer que justifican la ciega y firme adhesion de Ibarzabal a la Real persona de Fernando y a su trono y que al mismo tiempo prueban indirectamente que si Ibarzabal se inscribio en la Milicia Voluntaria fue con la firme creencia que al Rey le dispensaba un nuevo y particular servicio» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-2.

helburuarekin[637]. Zeregin horretan zebilela, urte bereko urrian, Toledoko arma-fabrikako batzorde ekonomikoak —"*Junta Económica*"— bertara hurbiltzea eskatu zion, «… para trattar y conferenciar sobre muchos armamentos para el Real Servicio». Astirik galdu gabe abiatu omen zen Toledorantz, baina pasaportea bisatzeko Madrileko ikuskaritza orokorrera hurbildu zenean atxilotu egin zuten, «… mediantte algunas delaciones que tenia». Edonola ere, 30 ordutara aske utzi zuten, bere aurkako zantzuak baliogabetzat joz. Ibarzabalen aurkako salaketarik gogorrena gudu-talde absolutisten aurkako irteeretan parte hartu izana zen, baina irteera horiek udalak aginduta egin zituela argitu ostean, horietako batean Barinagako José Manuel Mandiolari bizitza salbatu ziola gogoratzeko aukera ez zuen pasatzen utzi, Soroa komandante liberalak Zabala gerrillariaren espioitzat jo zuenean.

Bere alegatua indartzeko, Ibarzabalek bere ardurapean egondako diru-kontu guztien arrazoia emanda zeukala aipatzen zuen, eta absolutismoa berrezarri ostean ere, udaleko hainbat batzordetan zuen partaidetza aktiboa, zeinaren ondorioz sarri askotan beste herri batzuetara bidaiatu beharra izan baitzuen, lan horien truke inoiz txori-txikirik eskatu ez bazuen ere. Esandako guztiak kontuan hartuta, auzokide hautagaien zerrendan berriz onartua izateko eskatuz bukatzen zen bere idatzia. Horrez gain, pasaportearen kopia bat eta Madrileko ikuskaritza orokorrak emandako agiri bat erantsi zituen. Azken horretan argitzen denez, Ibarzabalek eta Toledoko Erret Arma Fabrikak hamar urtetarako kontratua sinatu zuten 1815ean, eta espetxean egoteak bere fabrika pribatuari ez ezik, Toledokoari eragingo zizkion kalteetan oinarritu zuen bere defentsa, behin-behineko askatasuna eskatzeko orduan. Izan ere, Toledoko arma-fabrikako arduradunak Ibarzabalek Frantzia aldean ikasitako aurrerakuntzak ezagutzeko irrikitan zeuden, eta hori ikusirik, Ibarzabal libre uztea erabaki zuen ikuskaritza orokorrak; hori bai, 8.000 errealeko isuna ordaindu ostean eta aurrerantzean ekimen susmagarrietan nahastuz gero, espetxeratua izateko mehatxuarekin. Zentzu horretan, Ibarzabalek bere errugabetasuna frogatu baino gehiago agintarien barkamena lortu —edo erosi— zuela dakusagu, eta horrela ondorioztatu zuen Eibarko purifikazio-batzordeak, bere aurkezpena aintzat hartu arren, ez zuelako auzokide hautagaien zerrendan onartu.

Handik hogei egunetara Ibarzabalen abokatuak erabaki horren aurka helegitea aurkeztu zuen, non Ibarzabalek Boluntarioen Milizian izena eman izanaren arrazoia estatuarekin zituen arma-kontratak ez galtzea izan zela esaten zen. Haren esanetan, Boluntarioen Milizian sartu zen, baina zer egin behar zuen bada «… un hombre que tenia antticipos de tantta consideracion en el Govierno, canttidades enormes empleadas en la fabrica y matteriales empleados en la elavoracion sabiendo que aquel Govierno miraba con odio a los que no afecttasen ser partidarios suyos?»[638]. Ez

637. Akta-liburuan Ibarzabalek erabilitako pasaportearen transkripzioa aurki dezakegu, eta bertan zehazten denez estatu-ministroak, Frantziara barik Baionara bidaiatzeko baimena ematen zion Ibarzabali, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-2.

638. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-24.

dakigu zein puntutarainoko eragina eduki zuen Ibarzabalen abokatuak landutako defentsa-ildo berriak, baina oraingo honetan purifikazio-batzordeak Ibarzabalen eskakizuna onartzea erabaki zuen «… convencida inttimamentte de la buena fé con que se inscribio en la milicia como lo acreditto mientras estubo inscritto con su portte ejemplar y moderado»[639]. Era horretara, Murua eta Kortesena izan ezik, baztertutako liberal ohiak udalera bueltatzeko moduan zeuden 1826ko udazkenean.

Makina bat arma

Ibarzabal familiak Fernando VII.arekin mantentzen zuen harreman bereziaren funtsa azaltzeko, argigarriak ditugu benetan José Joaquín Agirre eibartarrak eginiko bertso bitxiak. Kataluinako matxinada zela-eta, errege-familiak penintsulako iparraldean zehar eginiko biran euskal lurraldeak bisitatu zituen, eta bere ibilbidean Eibar aukeratutako herrietako bat izan genuen. Agirrek, euskara eta gaztelania tartekatuz, errege-familiak euskal lurraldeetan jaso zuen ongi etorria deskribatzen du zortziko txikian landutako 48 bertsotan, herri armaginetan izan zuen harrerari tratamendu berezia eskainiz. Hara zer zioten Eibarri buruzkoek:

25.
A catorce de Junio
Eibarco sarreran
con bailarines de espadas
recibitu ciran
Por la Villa y el Cabildo
zar eta gaztiac
fueron aclamados
beren Magestadeac.

26.
Los muy fieles Armeros
cioten viotzeti
viva nuestro REY FERNANDO
vici beti bedi
Viva DOÑA MARIA JOSEFA
AMALIA Erreguiña
¡O cuanto deseamos hacer
beroy aleguiña!.

27.
¡O nuestros buenos Padres!
Chit deseatu degu
vuestra feliz llegada;
ta ichodon dizugu.

639. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-24.

Aqui estan vuestros hijos
gucizco leyalac
muy prontos a observar
berorren ordenac

28.
Llegaron a la plaza,
ta emengo industriac
alli vieron patentes
beren Magestadiac.
Apearonse del coche
ondo ecusteko
toda clase de armas
ta beste gauza asco

29.
Bajaron a la máquina
Ibarzabalena
su nueva construcion
onqui ecustera.
A su casa subieron
beren Magestadiac,
y besaron su Real mano
familia guciac.

30.
¡O buen Ibarzabal!
Norc dudatucodu;
disfrutar beneficios
espera biardu.
Para aquellos servicios
berari prestatubac
no dejara sin recompensa
gure Soberanoac.

31.
Finalmente vieron
maquina berria
moler trigo sin agua
orduoro aneguia.
Mui prendados quedaron
emengo industriaz
y de los homenages
berari gordiaz

32.
En la M.N. Provincia
Guipuzcoacoan
muy amorosos y leales
aurquitu cituban.
Las fábricas y máquinas
iñun ez obiac
miraron atentamente
beren Magestadiac.[640]

Bertso hauek eskaintzen diguten deskribapenetik bi gauza azpimarratuko nituzke, batez ere. Alde batetik, 29. bertso multzoak Gabriel Ibarzabalek ekarritako makina eraiki berria zela adierazten digu —«Bajaron a la máquina / Ibarzabalena / su nueva construcion / onqui ecustera»—, eta 31.ak, makina lurrunezkoa izanik —«moler trigo sin agua / orduoro aneguia»— errege-erreginak liluratuta gelditu zirela —«muy prendados quedaron / beren Magestadiac». Bestetik, 30. bertso multzoak Ibarzabal eta Fernando VII.aren harreman estua zertan oinarritzen zen azaltzen du, nahiko era gordinean gainera: «¡O buen Ibarzabal! / Norc dudatucodu; / disfrutar beneficios / espera biardu. / Para aquellos servicios / berari prestatubac / no dejara sin recompensa / gure Soberanoac».

Arestian ikusi dugunez, Ibarzabalek Frantziara alde egin zuen, Eibarren eraikitzen ari zen fabrika berrirako tresneria aurreratuaren bila. Eta bertsoetatik ondoriozta dezakegunez, orduan adierazitakoa ez zen aitzakia hutsa. Armagin eibartarrak Europa mailan gauzatzen ari zen industria-iraultzan murgildu nahian zebiltzan, eta ibarzabaldarrak ziren egitasmo horien aitzindariak. Makinen funtzionamendua Ego ibaiaren ur-erregimenaren mendekotasunetik askatzea izugarrizko aurrerapausoa izan zen, lurrun-energiak ekoizpen-epea luzatzea zabaltzen zuen neurrian, arma kopuru handiagoak ekoiztea ahalbidetzeaz gain, ekoizpena dibertsifikatzeko aukerak zabaltzen zituelako[641]. Eta ekoizpena handitzearekin batera, ibarzabaldarrek Hirurtekoan hasitako bideari jarraitu zioten, bezero berrien bila merkatu pribatuan. Asko ekoiztea alferrik zen gero saltzerik ez bazegoen, eta merkaturatze-mekanismoen ezagutzari esker ibarzabaldarrak posizio ezin hobean zeuden, beren produktuez gain, gainerako armaginek ekoitzitako armen salmentan bitartekari papera betetzeko. Ondorengo lerroek 1820ko hamarkadan zehar

640. Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gela (KMKFGG), C-425 F-17, *A nombre de la N. y L. Villa de Eibar, José Joaquin de Aguirre, en memoria a la conquista de nuestros augustos soberanos don Fernando 7º y doña María Josefa Amalia su esposa. En zorcicos*.

641. «Contra lo que cabía esperar por sus antecedentes políticos, Ibarzábal haría sus mejores negocios tras el triunfo del absolutismo, añadiendo a los suministros que hacía a la fábrica de Toledo nuevas contratas de armamentos destinados a los Voluntarios Realistas de Madrid y a la recien creada Guardia Real, compaginando esta producción con árboles de transmisión para molinos harineros y objetos de fundición como planchas para uso doméstico y chapas frontales de chimenea» (Calvó, 1997: 230).

Deba bailarako armagintzan zertzen ari ziren aldakuntzen muinera eramango gaituzte.

1826ko otsailean SEAFeko zuzendariak —Luis Gaston brigadierrak— Eibarren egindako eskopeta batek erosleari muturretan lehertu eta hiltzeko arriskuan jarri zuela salatu zuen[642]. Ondorioz, Gaston brigadierrak aztertu gabeko arma guztien salmenta debekatu zuen, nahiz eta horiek merkatu pribatura bideratzeko eginak izan. Armaginen ustez, ordea, SEAFeko zuzendariaren eskuduntza erregearentzat eginiko armak aztertzera mugatu behar zen, ehizarako egiten ziren eskopetak, azken finean, beste edozein salgai bezala tratatu behar zirelako[643]. Gastonentzat, ordea, SEAFeko armagin batzuek kalitate eskaseko armak ekoitzi eta saltzeak, bailarako armagin guztiak kaltetzen zituen, bertoko armagintzari ospe txarra ematen ziolako. Era berean, Gabriel Ibarzabal eta beste armagin batzuen gutizia salatzen zuen «…a los cuales importa mas que entren en esta Provincia veinte mil duros cuya mayor parte sea para ellos, que no ochenta mil que se repartan entre todos»[644]. Beraz, nahiko argi gelditzen da 1826. urterako merkatu pribatura bideratzen zen arma kopurua ez zela batere mespretxugarria, eta Ibarzabal betebetean zegoela sartuta bitartekaritza-lanetan. Gainera, Gastonen aginduaren aurka protestatu zuten bakarrak Eibarko gremioetako ordezkariak izan zirela ikusirik, gainerako herrietan ez zela merkatu pribaturako armarik egiten ondoriozta dezakegu, eta hurrengo hamarkadetan sektore horren eskariak bizi izan zuen hazkundea ezagututa, berezitasun hori erabakigarria bihurtu zen.

---

642. «Es de la mayor urgencia desterrar por todos los medios posibles la ventta de esas esccopettas de tan perversa calidad (…) en la villa de Eybar se ha rebenttado en esttos dias una nueba sin mas carga que la precisa para poder mattar una libre (sic), dejando milagrosamente con vida al que trattaba de su apunte, como que parece imposible no haya quedado muertto al golpe, al ver los augeros (sic) de su sombrero attravesado en diversas direcciones: aun era de peor condicion ottro cañon que a la vistta de lo ocurrido con el primero, se provó con la devida precaucion resultando que rebenttó en mayor numero de cascos y parte por la misma recamara, circunstancia que infaliblemente habria quitado la vida a primer tiro al desgraciado que lo hubiese comprado de buena fé», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-15.

643. Gabriel Ibarzabal, José Martín Ibarra, José Ramon Bustindui eta Manuel Baskaranek sinatutako idatzian ziotenez: «La autoridad del Señor Director es limitada esclusivamente a la direccion de armas que por cuenta del Govierno se fabrican, y siendo las Escopetas y otras armas llamadas de marchanteria una mercancia propia del fabricante no estaba en las atribuciones del Sr. Director el adoptar ninguna de las medidas que toma a resultas de haverse rebentado la Escopeta que las motivó, sino en las de VS que reune en si el govierno politico, economico y administrativo (…) y en quanto la Escopeta es una mercancia como lo son todos los generos sugetos a comercio, es propio de la autoridad economica y administrativa fomentar su prosperidad removiendo quantas trabas y obstaculos se opongan a ella», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-24.

644. «… mas desgracias de la natturaleza de la que ha esttado tan a pique de suceder en Eybar que se han verificado en otras parttes y se repettiran cada vez mas no trattando de precaberlas quittan el credito alos maestros armeros, se difunde la noticia de las desgracias en muchas leguas al conttorno de donde suceden; el publico se recela con fortisima razon; se reusa (sic) a la compra de escopetas, y por consiguiente disminuye», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-15.

Gaston brigadierraren txostenak agerian jarri zuen inolako azterketarik gabe merkaturatzen ziren armen ekoizpen masiboak eragiten zuen praktika bat: armaginik ospetsuenek erabiltzen zituzten zigiluen faltsutzea, hain zuzen. Hori saihesteko SEAFeko kontramarka behar-beharrezkotzat jotzen zuen[645]. Ildo beretik, bere debekuaren aurka helegitea aurkeztu zutenei buruz honako hau zioen, guretzat benetan interesgarriak diren datuak eskainiz: «D. Gabriel de Ibarzabal, que no es armero, D. José Ramon de Bustindui hijo del tan honrado como abandonado en sus negocios Juan Esteban, cuya marca tan sagrada sobre todas las demas, anda por cuatro reales, sin su conocimiento, en manos de cualquiera, y dos oficiales mas son los que apoyados por el Alcalde de Eybar, que no se ha atrevido a malquistarse con Ibarzabal, han dirigido a VS su representacion»[646]. Beraz, oraindik udaletik baztertuta egon arren, Ibarzabalek udalean eragin handia zuen, SEAFeko zuzendariaren ustez behintzat. Bustinduitarrek zeukaten ospeari dagokionez, Gaston brigadierraren azalpena bat dator Pedro Sarasketak dioskunarekin, zigiluen faltsutzearen inguruan aitaren jokabidea bestelakoa izan zela adierazten badigu ere[647]. Beste kontu bat da bere semeak aitaren zintzotasuna jarauntsi zuen ala ez.

Itxura denez, eibartarrek atzerriko armaginen konpetentziari aurre egiteko[648] gastuak murriztea erabaki zuten[649]. Armen kalitatea eskasagoa izan arren, antzinako zigiluak erabiltzen jarraitu zuten, eta horrexetan oinarritu zen Gaston

645. «Con los contrastes armeros se consigue desterrar otro abuso muy criminal, cual es poner en los cañones autores supuestos o suplantar, que es aun mayor crimen, las marcas de los maestros mas afamados de esta Real Fabrica», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-3-14.

646. GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-3-14. Gastonek Ibarzabali buruz: «… que no es armero» dio. Egia esan, Ibarzabalek ez zuen suzko armarik egiten, arma zuriak baizik. Eta eurak ere, gutxi. Calvók dioenez: «… es ciertamente raro encontrar hojas con marcas que señalen su origen en la fábrica de Ibarzábal, y se hace obligado admitir que no destacaría en ésta actividad por una producción importante, sí reseñable en cuanto a calidad…» (Calvó, 1997: 230).

647. «Antaño ere suficiente que un cañón de escopeta llevara la marca "Bustinduy", para que se cotizara a precios elevados, con preferencia a todas las demás marcas. Tal amor propio tenía Bustinduy acerca de su reputación industrial, que cuando se halló en situación económica desahogada, cierta casa extranjera le ofreció una fuerte suma si le cedía su marca para la construcción de cañones a lo que se negó Bustinduy, por suponer que los fabricantes que tan tentadoras proposiciones le hacían, no tardarían en desacreditar lo que tantos sinsabores y trabajos le costó acreditar» (Sarasketa, 1909: 52).

648. Eibarko armaginen ordezkariek ziotenez: «… los maestros fabricantes de la mayor inteligencia y justificacion quienes no solo propondran a V.S. el remedio de males procedentes de la mala fabricacion de armas de marchanteria sino tambien la economia de gastos en la prueba de su solidez que tanto coopera a la salida ya que en su giro no pueda competirle el Extrangero», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-24.

649. Gaston brigadierrak hitz gogorrak zerabiltzan merkatu berriak aurkitzeko ekoizpen-gastuak murriztu eta armen kalitatearekin jolasten zutenen kontra: «Cuarentta o sesentta reales mas en el precio importtan menos que la vida de un padre de familia, o de un hombre cualquiera, y esta pequeña diferencia de valor es causa prescindiendo de la esencialisma y principal del peligro, de que media docena de especuladores codiciosos sin conciencia y honor y que trafican con la vida de los hombres con la misma indiferencia que lo podrian hacer con trapos biejos, reduzcan a la nulidad o enttorpezcan esttraordinariamente la salida alas armas buenas y seguras que trabaja la generalidad de los fabri-

brigadierra kontramarkaren premia defendatzeko orduan. Maiatzean, Gipuzkoako herri guztietako Errege Boluntarioak armatu behar zirelarik, diruz larri zebiltzanez, udal-agintariek eskaintzarik merkeena onartuko zuten beldur zen Gaston. Izan ere, zenbait armagin —"*especuladores codiciosos*" deitzen die— arma zaharrak berriztatzen hasiak ziren eskakizun horri erantzuteko. Horietako batzuk Gastonen eskuetara heldu ziren, eta horrek zioenez zeukaten abantailarik hoberena ez disparatzea zen, bestela lehertu egingo baitziren. Berritutako arma horiek ez aztertzearen beste ondorio bat, bakoitzak nahi zuen lekuan muntatzearena zen, eta «… los especuladores, entendiendose con traginantes del mismo jaez» euren negozioa zabalduko zutela. Bukatzeko, arma guztiak SEAFen egiteak salmentaren dirua herriotan gelditzea eragiten zuen «… sin necesidad de manos intermedias que alargando los conductos por donde corren, hacen mas fácil el extravio de alguna porcion»[650].

Gaston brigadierraren eta Eibarko armaginen artean sortutako liskarrak erdibideko konponketarekin bukatu ziren[651]. Edonola ere, gertakizun horrek suzko armen merkatu pribatuaren eskaria indartzeak ekoizpen- eta salmenta-prozesuetan eragin zituen aldakuntzen ildoan jartzen gaitu. Ekoizpen-prozesuari dagokionez, armak ez zirenez SEAFen aztertu behar, kalitatea jaitsi egin zen; horrez gain, gremioek ekoizpen-prozesuaren kontrola galdu zuten, pieza ezberdinak handik eta hemendik lortuta armak muntatzea edozeinen eskura gelditu baitzen; eta, gremioen egiturak indarra galtzeak zigiluen faltsutzea erraztu egiten zuen. Armak merkaturatzeko prozesuan bezero berri eta indartsuak aurkitzea erabakigarria izan zen, ekoizpen-ahalmena bazegoenez, bitartekari-lana betetzen zutenek etekin ederrak eskuratzen baitzituzten, eta epe motzera. Neurri berean, ez zeukaten armen fabrikazioa tailer guztien artean banatu beharrik —lehenago "*asentistek*" egiten zuten modura—, beraiei komeni zitzaien modura baizik. Hau da, lana ez zen tailer guztien artean banatzen, bitartekariei preziorik hoberenak eskaintzen zizkietenen artean baizik. Horrek guztiak adierazten digu ofizialki gremioek indarrean jarraitu arren, errealitatean beraien indarra eta eragina zeharo murriztuta zegoela. Beharbada teoriaren eta praktikaren arteko desfase honi buruz ari zen Gaston brigadierra Gipuzkoako

cantes armeros a precios bien moderados pero que nunca pueden bajar al infimo en que se venden las perversas que es preciso proscribir a toda costta, y de cuia ventta les resultta no obstantte mas productto a los vendedores por la infima calidad de la obra ocultta generalmente siempre bajo aparenttes primores que engañan facilmente a cualquiera», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-15.

650. GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-5-2.

651. Eibarko lau gremioetako ordezkariek ziotena kontuan hartuz agindua zertxobait leundu, eta armen azterketa Soraluzen barik Eibarren bertan egiteko baimena eman zuen, Juan Francisco Irusta, maisu kanoigina, izendatuz arduradun: «El maestro Juan Francisco de Irusta, cuidara bajo su responsavilidad de que no se usen marcas supuestas, y constandome que la de Juan estteban Bustinduy ha servido a varios para marcar sus cañones, hago responsable de estta grabisima y perjudicial condescendencia y aún crimen no solo al dueño de la marca, sino al mismo Irusta sino toma las mas eficaces disposiciones para que cese un mal tan considerable, dandome partte de cualquiera contrabencion a estta disposicion para poner el remedio oportuno y casttigos a los transgresores de ellos», GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-2-17.

Diputazioari igorritako gutunaren bukaeran: «Hay otros muchos abusos, que unos se han desterrado, y otros se procuran desterrar, y de que VS no tiene conocimiento de asunto de que no se ha ocupado, y que seria prolixo y molesto a VS especificarselos»[652].

Hipotesi honek badauka alderdi ilunik. Absolutismoaren berrezarpenarekin aduanak lehengo lekura itzuli ziren, eta Ebro ibaia zeharkatzeko muga-zerga ordaindu beharra, oztopo latza bihurtu zen Gipuzkoako industrialari eta merkatarientzat[653]. Egoera horri irtenbidea bilatzeko, aduanak kostaldera eramatea proposatu zuten Donostiako ordezkariek 1831ko Azpeitiko Batza Berezietan, baina ordezkari guztiak kontra jarri eta donostiarren eskakizuna bertan behera gelditu zen. José Mugicak dioenez, Eibarko Udalak aduanen lekualdatzearen aurka bozkatzera behartzen zuen agindua eraman zuen batza horietara (Mugica, 1950: 81). Jokabide hori nahiko harrigarria da Eibarko armaginek estatu espainiarreko merkatuan bezero garrantzitsuak zeuzkatela jakinda, are gehiago udaleko zortzi kidetik lau armaginak zirela dakigunean.

Tertzio Gipuzkoarrak

1825eko abuztuan, Zumaiako Batzar Nagusietan harturiko erabakiari jarraituz Eibarren ere Tertzio Gipuzkoarrak eratu ziren. Tertzioetako agintariak udalbatzak izendatu zituen, eta udal-aktan soilik horien nortasunak azaltzen badira ere (24 lagun), talde militar hau 78 kidez osatu zela ondoriozta dezakegu, hori baitzen eskatu zuten fusil kopurua[654]. Teorian behintzat, igandero udaleko kide batek tertzioen errebista egiten zuen, «… el cual tendra obligación de leer (…) un capítulo del Fuero (…) explicándoles en vascuence» (Portillo, 1987: 48). Konpainia bakoitzak 60-80 soldaduren artean izaten zituen, eta sei konpainiaren artean tertzio bat osatzen zen.

Tertzio Gipuzkoarrak absolutismoaren defentsarako eta liberalen jazarpenerako sortu ziren[655]. Talde horiek "*Voluntarios Realistas*" deitu ziren lekurik gehie-

652. GAO, JD IM, 2/21/119, 1826-3-14.

653. «Ya se comprende que, desde el punto de vista del consumidor, la franquicia —que alcanzó casi siempre al tabaco, al café y a los artículos coloniales— era una ganga. Pero, en cambio, desde el punto de vista productor era desastrosa. Nos se podían establecer nuevas industrias porque la competencia extranjera, con fronteras abiertas, las mataba en flor. Las industrias ya existentes, como las famosas ferrerías del país, morían. En primer lugar, porque ya no exportaban apenas. No exportaban porque en los otros países se estaba ya produciendo más barato, y porque la sublevación de las colonias americanas les había privado de su principal mercado. Tampoco podían vender en el resto de España porque casi siempre, al salir los productos de Guipúzcoa e introducirse en otras regiones, les cobraban los derechos de aduana en éstas, lo cual les hacía no poder competir con las ferrerías del interior» (Mugica, 1950: 74).

654. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1825-8-14.

655. «Entendida como el predominio de las autoridades militares sobre las civiles, las militarización afectó tanto a las estructuras políticas como a la organización social. El instrumento fundamental fueron los voluntarios realistas, martillo de liberales y guardianes de la ortodoxia absolutista. Además

netan, baina Gipuzkoan, ika-mika luze baten ostean "*Tercios Guipuzcoanos*" izenari eustea lortu zuten, Gipuzkoaren ohizko egitura militarra tertzioetan oinarritzen zenez, izen hori herrialdearen izaerarekin hobeto zetorrelakoan[656]. Diputazioaren benetako helburua indar armatu horiek zuzenean erregearen menpe jarri beharrean, bere esanetara ezartzea zen, eta izenaren inguruan eduki zituzten eztabaidak testuinguru horretan kokatu behar ditugu. Kontu honen inguruan sortutako ezadostasunek noraezean utzi zituzten tradizionalista batzuk, ez baitzekiten ondo zein botereri jaramon egin behar zioten, diputazioari ala erregeari. Eztabaida berotu ahala tertzioen arduradunen gainean zegoen presioa areagotzen joan zen, eta arrazoirik zehazten ez bada ere, polemika honen ondoriotzat joko genuke 1827ko urtarrilean Eibarko tertzioen konpainiako kapitainak —Pedro Francisco Suinagak— bere karguari uko egin izana. Harrigarria bada ere, udalak José Mari Alberdi izendatu zuen bere ordez, liberal izateagatik baztertu ohietariko bat[657]!

José María Alberdi kapitain izendatu izanaren hipotesien bila, litekeena da diputazioaren eta erregearen artean sortutako liskarraren aurrean, ordura arte erdi baztertuta egondako liberalek beren kolaborazioa eskaini izana diputazioari, absolutista sutsuenak izorratu eta era berean diputaziora hurbiltzeko helburuarekin. Izan ere, Alberdik uko egin zion kapitain karguari 1828ko otsailean, eta 1835ean liberalen Zaintza Hiritarrean parte hartu zuen. Irunen, sasoi berean eta gai beraren inguruan, absolutistarik sutsuenak "*Voluntarios Realistas*" taldean biltzeaz gain, uniforme bereziak egin zituzten, eta diputazioaren haserrea piztu zuten, San Fernando egunean uniforme horiekin desfilatu zutenean (Iparragirre, 2001: 256-258), beraien leialtasunen lehentasuna Fernando erregearentzat zela sinbolizatu nahian. Eibarren ere San Fernando egunean bildu ziren tertzioak, desfile eta uniformeen aipamenik egiten ez den arren[658].

1827ko otsailaren lehenean Erret Agindu batek diputazioaren jokabidea gaitzetsi zuen «… con respectto a no haber admitido en estta Provincia Voluntarios

---

de mantener el orden público, respaldar la autoridad de los alcaldes y estar disponibles también para la defensa del territorio, esta fuerza paramilitar asumió tareas propias de los cuerpos de seguridad (persecución de malhechores, traslado de presos, custodia de edificios públicos, servicio de orden en los actos multitudinarios, etc). La adscripción era voluntaria y estaba abierta a todos los varones entre 20 y 50 años que acreditaran buena conducta, fidelidad al soberano y, sobre todo, aversión al sistema constitucional. Recibían el uniforme y el armamento y, aunque el servicio no estaba remunerado, gozaban de algunos privilegios» (Ortiz de Orruño, 1996: 26).

656. Eibarren "*Voluntarios Realistas*" deitura 1826ko apirilean agertzen da lehen aldiz, 1823-1824 bitartean Eibarren eratu ziren konpainia absolutistak izendatzeko, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-4-10.

657. José María Alberdik aurreko urtean lortu zuen purifikazioa. Gogoratzen badugu, 1821ean errejidore zela "*Mondragonés*" atxilotzen saiatu zen, udaletxe aurrean piztu zen iskanbila hartan. Jokabide horrek bere liberalismoa ez zela oso sutsua adierazten digu, baina edonola ere liberal izateagatik Eibarren baztertu zituzten 10 biztanleen artean zegoen. Ez ote zegoen beste inor egokiagorik absolutisten konpainiaren kapitaintzat?

658. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-6-18.

Realistas, y si sostenido a los Tercios Guipuzcoanos». Hil berean, Gipuzkoako Kapitan Jeneralaren ofizioak "*Voluntarios Realistas*" taldean sartzera gonbidatu zituen gipuzkoar zintzo eta leialak, baina diputazioa oraindik Madrilen zebilenez gai hau negoziatzen «… y teniendo presentte que él no puede dar cumplimiento a ordenes que no vengan rebesttidas el pase o uso de la Diputacion»[659], zirkularra ez obeditzea erabaki zuen Fernando Olabe Eibarko alkateak. Maiatzean, Kapitain Jeneralaren zirkularrak tertzioei armak kendu eta "*Voluntarios Realistas*"en konpainiak eratzea agindu zuen, baina oraingo honetan ere diputazioak foru-baimena eman ez izana baliatu zuen Olabek aginduari uko egiteko. Eztabaida latz horren atzean, liberalismoa zanpatzeko bildu ziren sektoreen artean zeuden ikuspegi ezberdinak nabaritzen dira. Guztiak ere tradizionalistak izan arren, batzuek erregearen aginteari ematen zioten lehentasuna —monarkikoek— eta besteek diputazioari —foruzaleek—. Zentzu horretan, tradizionalismoaren barruan korronte monarkikoa —edo absolutista— eta korronte foruzalea elkarrekin bizi zirela esan dezakegu. Absolutistarik sutsuenek Fernando VII.ak zeraman politika erreformista gaitzesten zuten, eta "*Federación de los Realistas Puros*" elkarteak egindako manifestuaren inguruan bildu ziren 1826an. Foruak islatzen zuen tradizionalismoa absolutistek islatzen zutena baino malguagoa zen neurrian, hurrengo urteetan, foruzaletasuna zubi politiko bihurtu zen herrialdeko erakundeetara bueltatu nahian zebiltzan liberalentzat.

Uztailerako Fernando VII.ak amore eman eta diputazioaren esku utzi zuen indar armatuen antolakuntza. Diputazioak, tertzioen funtzionamendua zehazteko araudia onartu, eta abuztuan Gipuzkoako herriek tertzioen behin betiko eraketari egin zioten, Eibarkoak horien artean. Tertzioen konpainietako agintariak izendatzeko eskuduntza udalen esku gelditu zen. 1827ko tertzioen konpainia 66 soldaduz osatu zen, hau da, 1825ekoak baino dozena bat gutxiago; ofizialen kopurua ere, 24tik 10era murriztu zen. Irunen, absolutistarik sutsuenek 1827ko tertzioen konpainian parte hartzeari uko egin ziotela ikusirik, Eibarren, 1827ko murrizketa arrazoitzeko antzeko hipotesi bat erabil dezakegu. Konpainia osatu zuten soldaduen zerrenda osoa eranskinean aurki dezakezue, eta hurrengo taulan 1825eko eta 1827ko konpainietako agintarien nortasunak eskaintzen dira, burututako aldakuntzak absolutisten eta foruzaleen artean sortutako ezadostasunekin zerikusirik duen aztertu nahian.

1827an tertzioetatik desagertu ziren ofizialak absolutista sutsuenak zirela suposatzen badugu, logikoena izango litzateke haiek 1835ean liberalek eratu zuten Zaintza Hiritarrean ez parte hartzea (lehen zutabea beteta, hurrengo biak hutsik). Ikusten denez, 1825eko konpainiako 29 ofizialetatik 12k aurkezten dute jokabide hori; baina beste 9 ofizialek Zaintza Hiritarrean parte hartu zutela ikusteak hipotesia deuseztatzen du. Beraz, ezin dugu ziurtatu 1827ko ausentziak absolutista sutsuenen boikot edo bazterketaren ondorio izan zirenik. Liberal foruzaleen aztarnak

659. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-2-25.

jarraitzeak ez du emaitza hoberik eskaintzen: ibilbide honen prototipoa José María Alberdik islatzen duena da (lehen zutabea hutsik, hurrengo biak beteta), eta berarekin batera José Antonio Zarandona sarjentuak, Domingo Aretxabaleta kaboak. Baina kopuruak hain dira urriak, ezen ez baitigute interpretazio sakonagoetarako biderik ematen.

1825 eta 1827ko tertzioen konpainietako ofizialak

NORTASUNA	1825 Tertz.	1827 Tertz.	Urb. 1835		1825 Tertz.	1827 Tertz.	Urb. 1835
ORTUZAR Agustín	Txistu			SUSTAETA Ambrosio	Tte.	Subte	
BASCARAN José Domingo	Tte.			GUISASOLA ESCAREGUI José	Subte		
PAGAEGUI José María	Subte			GANCHEGUI Joaquín	Sarj-2	Tertz.	
GUISASOLA AGUINAGA José	Sarj-2	Tertz.	A.U. 35	LARRAÑAGA José Benito	Sarj-2	Tertz.	A.U. 35
ACHA GOROSTA Agustín	Sarj-2			GUISASOLA ESCAREGUI	Sarj-2		
ARRATE José Francisco	Sarj-1	Sarj-1	A.U. 35	SUINAGA ITURRAO Pedro	Kap.		
AGUADO Agustín	Kab-2	Tertz.	A.U. 35	ARAMBERRI Pedro Felix	Kab-2	Kab-2	A.U. 35
AGUIRRE José	Kab-2		A.U. 35	ARTAMENDI Juan José	Kab-2		A.U. 35
ORBEA José María	Kab-2		A.U. 35	ACHA BERRECHINAGA Agustín	Kab-1	Tertz.	
UBERUAGA Juan Andrés	Kab-1	Tertz.		ARETA Juan Andrés	Kab-1	Sarj-2	
GUISASOLA OREGUI José María	Kab-1	Kab-2		SALAZAR Ramón	Kab-1		
LOYOLA Domingo	Danb.	Tertz.	CV 35	GAVILONDO GUISASTUA Pedro	Danb.		
ZARANDONA Jose Antonio		Sarj-2	A.U. 35	ALBERDI Jose Maria		Kap.	A.U. 35
ARECHAVALETA Domingo		Kab-1	A.U. 35	IRAEGUI Pedro María		Kab-1	
RODRIGUEZ Clemente		Danb.					

1827ko udala eta eskribau berriaren hautaketa

1826ko udal-hauteskundeen prozeduraren inguruan Gipuzkoako Diputazioak eta Gaztelako Kontseiluak zuten auzia oraindik konpondu gabe zegoenez, diputazioak udalei galdetu zien ea 1827rako udalkideak era berdinean izendatu nahi zituzten, edo nahiago zuten 1826koek jarraitzea[660]. Eibarko udalbatza bigarren aukeraren alde azaldu bazen ere, hemen ere burutu egin ziren udal-hauteskundeak, eta Pedro Olabe izendatu zuten Eibarko alkate. Oraingo honetan ere hirukoteen proposamenak egin behar izan ziren, baina aldaketa batzuekin: alde batetik, proposamenak urtea hasita zegoela egin ziren —otsailaren 1ean—; bestetik, udal-karguen ordezkoak kontuan hartu gabe, soilik titularren hirukoteak proposatu zituzten (16 pertsona) eta oraingo honetan diputazioak ez zuen trabarik jarri; eta bukatzeko, proposamenak ez ziren zozketaz burutu, bozketaz baino[661]. Diputazioaren jokabideari

660. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-11-23.

661. Alkatea, sindikoa eta idazkaria beste gela batera pasatu eta «… habiendo llamado a todos los vecinos concurrentes uno en uno, dieron sus vottos, y se pusieron por escritto (…) Se hizo presente por mi el Essno. estte resulttado al ayuntamiento, añadiendo que para su mayor satisfaccion se leerian por menor los vottos que cada individuo habia dado, y se les demostraria el escrutinio que se habia hecho si alguno quisiere, pero habiendo conttestado unanimemente que esttaban sattisfechos de todo por la confianza que tenian en los escruttadores y por lo mismo daban por bien hechas las propuesttas, se dio fin con tantto a estta actta» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-2-1.

dagokionez ere aldaketa somatzen da, zeren aurreko urtean hirukoteen zerrendetan lehen postuan agertzen zirenak izendatu bazituen ere, 1827an bigarren eta hirugarren postuetako batzuk aukeratu baitzituen, zerrendaburu zirenen kalterako. Adibidez, Luis Baskarani, proposaturiko errejidoreen zerrendan bigarren egon arren, hirugarrenak kenduko zion lekua, agian, lehena ere baskarandar bat genuelako edota Luis bera 1823ko ezgaituen artean zegoelako. Sindikoaren kasuan, bigarren proposatuak —Lezetak— aurrea hartu zion lehenari —Gantxegiri—. Beraz, diputazioaren kontrola zorroztu egin zen, ziur asko egoerak behartuta.

Pedro Olabek gidatutako udalari uste baino lehenago sortu zitzaion lehen arazo larria, zeren eskribau berriaren izendatzea zela-eta, martxoan auzokide hautagai kategoria onartuta ez zeukaten biztanleek udalbatzan sartu eta parte hartzeko eskubidea aldarrikatu baitzuten «… causando con estte hecho, una novedad que no tiene ejemplo, y discuttido basttantte sobre el particular, se acordo que los tales sugettos permanezcan si gusttan en este salon, por solo esta vez y sin que cause ejemplar, previniendoles como se les previno que en lo succesibo se absttengan de presenttarse, sin que previamente hagan ver con la formalidad necesaria los requisittos de nobleza, hidalguia y millares que deben reunir los vecinos concejantes»[662]. Izan ere, 1824-1826 bitartean lurrak bahian —"*en prenda*"— hartu zituzten biztanleak euren egoera legeztatu nahian zebiltzan —mugarriak jarriz, jabetza-paperak eskuratuz…— eta ildo horretan, auzokide hautagaien zerrendan onartuak izatea eskatu zuten. Hurrengo bileretan eztabaida mamitsua sortu zen gai horren inguruan, zeren Lezeta sindikoak zioenez «… los acreedores a estta villa que ocupan los Terrenos no tienen en ellos ningun dominio o propiedad», bere ustez zeharo ezberdina zelako lurrak jabetzan edukitzea ala bahian[663]. Eztabaida zeharo berotu zen eta inolako konponbidera ailegatu baino lehen alkateak mugimendu arraroak sumatu zituenez, bertan behera utzi zuen bilera, lur-jabe berriei hamabost eguneko epea emanez eskuratutako lurren agiriak aurkezteko[664].

Ohiturari jarraituz, sindikoari zegokion auzokide hautagaien zerrendan onartuak izatea eskatzen zuten biztanleen eskakizunak aztertu eta udalbatzari onartzeko edo errefusatzeko proposamena egitea. Oraingo honetan, 34 biztanleren eskakizunak bildu zituen Lezeta sindikoak, eta arrazoi ezberdinetan oinarrituz, bere ustez horietatik inork ez zituen betetzen beharrezkoak ziren baldintzak. Lezetak,

662. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-3-28.

663. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-5-6.

664. «… el ayuntamiento tubo una acalorada discusion sobre si dichos sugettos que no esttan inscrittos en la mattricula de vecinos concejantes debian o no ser admitidos, y en estte esttado sin haberse acordado una decisiba detterminacion, se lebantto el señor Alcalde manifestando que la salida de alguno individuos de estte salon le habia inspirado recelos de algun cohecho y con tantto se lebantaron tambien todos los demas individuos y digeron que se pusiese un edictto llamando a todos los vecinos que quieran enttrar en la vecindad concejal para que dentro de quince dias presentasen al Sindico los documentos necesarios» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-5-6.

araudiaren alderdirik zorrotzenak azpimarratu zituen, eta bere aurkezpenak klase-ikuspegia islatzen zuen «… sin aventurar que la pleve se confunda con la nobleza en notorio detrimento del honor de esta segunda clase»[665]. Alde batetik, eskatzaileetatik bakar batek baino ez zuen aurkeztu bataio-agiria; bestetik, inork ez zuen kaparetasuna frogatzeko beharrezkoak ziren senidetasun-agiriak erakutsi; eta bi baldintza horiei, liberalen aurkako jazarpen-giroan sortutako hirugarren baldintza gehitzen zitzaien, zeren udalkidea izateko ezer baino beharrezkoagoa baitzen politikoki "purifikatuta" egotea. Eskatzaileek beraz, hiru baldintza horiek bete ezean, alferrik aurkezten zituzten milarrak, edo Lezetak zioenez "*prematuramente*", paper guztiak aldi berean aurkeztu behar baitzituzten. Ikusten denez, oraingo honetan, Lezeta ez zen sartu lurrak jabetzan ala bahian eskuratuak ziren eztabaidan, ordurako diputazioak hauen aldeko iritzia emanda baitzeukan, Bengoa lizentziatuaren ahotik, «… sin embargo de que las compras conttengan la circunsttancia de ser hechas en prendaria, porque mientras no se les debuelvan las canttidades sattisfechas en las compras son propias las fincas compradas con toda la plenitud del dominio»[666]. Edonola ere, Lezetak lortu zuen auzokide izan nahi zuten biztanleen eskakizunak bertan behera gelditzea, araudiaren alderik zurrunenean oinarrituz. Lezetari txanpon berdinarekin ordaindu nahian, Baskaran errejidoreak ea sindikoa izateko irakurtzen eta idazten jakitea derrigorrezkoa zen galdetu zion Mallagarai lizentziatuari, eta honek ezetz erantzun bazuen ere, galderak berak Lezetak ez zekiela pentsarazten digu.

Eskribau berriaren izendatzeak sorrarazten zituen haserreak ikusirik, udalak eztabaida bertan behera uztea erabaki zuen, harik eta adituen iritziak ailegatzen ziren arte. Zeregin horretan aritu ziren hurrengo urteko otsailera arte Iturbe, Arizti eta Undiano lizentziatuak: Iturbe eta Ariztiren ustez, biztanle batzuen kaparetasuna frogatzeko nahikoa zen «… que hagan su filiacion por entronque con ascendientes», beraien arbasoak udal-partaideak izan zirela frogatuz. Milarren gaian, ordea, oso zorrotz agertzen ziren, lurrak bahian zituztenen kalterako lur horien «tittulo traslatibo de dominio» eskatzen baitzuten, beste hamaika agirirekin batera. Beste muturrean, Undiano lizentziatuaren txostenak kaparetasunari ematen zion lehentasuna —«el que tenga pendiente aun el simple entronque por ser procedente de noble, no puede vottar; pues el votto es frutto o emolumentto de aquella calidad» zioen—, eta milarren inguruan, ez zen hain zorrotza agertzen «… siendo suficiente que estte en posesion y goce sin turbacion en ella cuando votte, porque enttre tantto que es posehedor (sic), la ley le contempla señor y esto le basta». Undianoren txostenaren bigarren zatiak auzokide hautagai legez onartua izateko jarraitu behar zen prozedura, biztanle bakoitzak banaka-banaka —eta ez taldeka— gainditu beharreko azterketa

665. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-5-20.
666. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-5-20.

zela zehaztuz[667]. Udalak txosten biak onartu zituen, baina bozketekin hasterakoan auzokide ez ziren biztanleek kanpora irteteko aginduari uko egin zioten, «… sin embargo de que se les instto basttante».

Hura ikusirik, udalak auzokide hautagaiak onartzeko ekitaldia bertan behera utzi eta zuzenean eskribauaren bozketara pasatzea erabaki zuen. Eskribautzarako hiru hautagai aurkeztu ziren: Andrés Argiano, Bartolomé Ibarzabal eta Julian Kortesena, eta bozketaren emaitza argia izan zen: Ibarzabalek 40 boto lortu zituen, Argianok 17 eta Kortesenak bat ere ez. Datu-basea erabiliz, hautagai bakoitzaren alde bozkatu zuen biztanle multzoaren ezaugarriak aztertzen baditugu, bi taldeon artean ezberdintasun nabarmenak aurki ditzakegu. Hurrengo taula lagungarria izango dugu zeregin horretarako.

	Kopurua	Hiritar Zaintza 1835	Armaginak 1835	Lur-jabetza BB 1842
Ibarzabal	40	14	14	301
Argiano	17	2	1	396,5
Baztertuak	34	4	2	427

Liberalismoaren aldeko partaidetza militarrari ("Hiritar Zaintza 1835") erreparatzen badiogu, Argianoren alde bozkatu zuten 17 lagunetatik bik baino ez zuten 1835eko Zaintza Hiritarrean parte hartu (8tik batek), eta Ibarzabalen aldeko 40 lagunetatik 14k parte hartu zuten (3tik batek). Lanbideari dagokionez, Argianoren aldeko taldean armagin bakarra aurkitzen dugu, eta Ibarzabalenean 14. Horrez gain, Argianoren taldean lur-jabeen kopurua lur-errenten batez bestekoa baino handiagoa da (396,5 erreal) Ibarzabalen aldekoekin alderatuz (301 erreal). Lehen itxuran, ondoriozta dezakegu Argianoren aldekoak ez zirela Ibarzabalen aldekoak bezain liberalak[668], eta euren jarduera ekonomikoa lurrean eta nekazaritzan oinarritzen zela batik bat, Ibarzabali bozkatu ziotenen artean armagintzak pisu handiagoa zuelarik.

Bozketatik kanpo gelditu ziren 34 biztanleei filtro hau aplikatzen badiegu, hauxe dakusagu: 34 lagunetik lauk parte hartuko zuten Zaintza Hiritarrean, bi baino ez ziren armaginak eta lur-jabetzen batez bestekoa 427 errealekoa zuten. Beraz, arketipoaren arabera, talde horrek bozketan parte hartu ahal izan balu, beharbada emaitzak Argianoren aldera egingo zuen. Horrez gain, baztertuta gelditu zire-

667. «… guardando ceremonia dispondra salgan fuera todos los notados o tachados por el Pdor. Sindico en su esposicion: luego propondra separadamente uno por uno a discusion en la que trattandose por el orden de las nottas dichas del Pror, leidas anttes con las obserbaciones presenttes vottara cada uno; por sí y por nó; esto es, le tengo o considero por vecino concejante, o no le considero; sin oir ya mas razones desde que el señor Alcalde diga: Doy por discutido, y pasese a vottar» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1828-2-3.

668. Uriartek dioenez oraindik alderdi politikorik ez egon arren, «… identifikazio batzuk sortzen hasiak ziren. Alde batetik, Foruak, garestia, eliza, Erregea, nekazaritza-lurra, emigrazioa; eta beste aldetik, industrializazioa, demokrazia, berrikuntza, ideologiak, e.a.» (Uriarte, 1998: 22).

netatik sei 1827ko tertzioko kideak ziren, eta horrek zer pentsatu ematen du, Elgoibarko udal-ordenantzek ziotenez, auzokideak «… son los vecinos nobles hijosdalgo admitidos a los honores que les pertenecen en paz y en guerra» (Uriarte, 1998: 227). Eibarren ere ez zen oso ezberdina izango sasoi batean, baina 1827 aldera auzokidetzak ematen zituen eskubideen bikoiztasuna nahiko ahaztuta zegoela dirudi, udalkideek ez zeukatelako inolako arazorik herria militarki babestearen arduradunak politikoki baztertzeko. Beste era batera esanda, auzokidetzaren inguruan oso zorrotzak agertzen ziren arlo politikoan, eta ez horrenbeste militarrean. Edonola ere, nekazaritza-sektorea baztertzeko erakutsitako gaitasunak adierazten digu esparru liberala indarra berreskuratzen ari zela.

Fermin Jusué[669]-ren kasuak hipotesi bererantz garamatza. Jusué Eibarko maisua zen, gutxienez 1826ko urritik. Udala nahiko pozik egon behar zen berarekin gainera, zeren aurkeztu zuen soldata igotzeko eskakizuna onartzeaz gain —12 errealetik 14ra—, espero gabeko beste 160 erreal eman baitzizkioten «… con el fin de demostrar el ayuntamiento su grattittud por el grande trabajo y desvelo que lleba en su magistterio»[670]. Hurrengo urtean jakin zenez, Jusué "purifikatu" gabe zegoen, eta Gipuzkoako Eskolen Batzorde Aztertzaileak Jusué berehala kentzeko agindu zuen. Baina udalak, zain egoteko erantzun zion Juntari, gutxienez Jusuék erregearen aurrean zuen helegitearen epaia jakin arte[671]. Jusuék helegitea galdu zuenez, udalak kargutik kendu zuen, baina bere ordez anaia jartzea lortu zuen, «… habilitado con Real Título». Eskola-batzordeak lanpostua oposizioan ateratzea agindu zuen, baina udalak ezetz erantzun zion «… pues la escuela de estta villa que es de tercera clase no esttá sugetta a semejante oposición»[672]. Eskola-batzordearen aginduak ez zuen inolako eraginik izan, Joaquín Jusuek bere lanpostua gorde zuelako. Jusué 12 errealeko soldatarekin hasi zen, eta hurrengo urtean 13ra igo bazioten ere, Tolosara alde egin zuen, han soldata hobea eskaini baitzioten. Bere hutsunea betetzeko hiru hautagai aurkeztu ziren. Beraz, Fermín Jusué maisu legez mantentzeko ahaleginek ez zeukaten lanpostu horretarako hautagaien gabeziarekin zerikusirik. Zentzu horretan, ideologien gainetik, 1826 eta 1827ko udalkideek tinko defendatu zituzten herriaren —kasu honetan, herriko umeen— interesak. Izan ere, noiztik zehazten ez den arren, Fermín Jusué-k bere lanpostua berreskuratu zuen, harik eta 1835ean bere borondatez utzi zuen arte[673].

Hirukoteen udaletatik foru-udaletara

1831. urtera arte Gipuzkoako Diputazioak udalen osaketa kontrolatzen jarraitu zuen, hirukoteen proposamenen bidez. Arlo honetan, Eibarren, nahiko aldaketa

669. Konturatzen bagara, 1767an Eibarren aritu zen lehen diputatu borrokalari haren –Nicolás Joseph Jusué y Hurtado de la Puente— abizen berdina zeukan.

670. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-10-29.

671. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-5-20.

672. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1826-9-6.

673. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-3-22.

garrantzitsuak somatzen ziren urte batetik bestera, proposatuen kopuruari dagokionez behintzat[674]. Proposamenak egiteko moduan, zozketaren sistema baztertu eta bozketarena nagusitu zen. 1828an adibidez, bildutako guztiak banan-banan sartu ziren gelatxo batean botoa ematera, baina ez proposamenak egin behar zituzten hautesleak izendatzeko, zuzenean hirukoteen proposamenak egiteko baizik, «… a pluralidad de votos»—[675]. Herri-diputatuen kasuan ere hirukoteak aurkeztu bazituzten ere, horietatik bat ez zen aintzat hartu, aurreko urtekoak jarraitu behar baitzuen. Oraingoan ere inork ez zuen nahi izan zenbaketa konprobatu.

Politikarako ezgaituta utzi zituztela ikusirik, liberal ohiak kudeaketa ekonomikoarekin zerikusia zeukaten eginkizunen inguruan bildu ziren hamarkada absolutistaren lehen urteetan. Arlo horretan, Julian Kortesena eta Gabriel Ibarzabal "*Hermandad de Caminos del Río Deva*" elkargoko zuzendariak izan ziren 1825-1831 bitartean. Elkargo hori Deba bailarako bideen konponketa kudeatzeaz arduratzeko sortu zen, azpiegitura garrantzitsu hori mantentzeko eta hobetzeko finantzaketa kopuruak adostu eta herrien artean sortzen ziren ika-mikei bukaera emateko asmoz. 1829an, Ibarzabal alkate zela, udal-ogasuna arintzeko asmo handiak zituen plana aurkeztu zuen, Deba ibaiko bideak berritzeko eskatutako maileguen korrituak ordaindu beharrak eragiten zituen kalteak azaldu ostean[676], Bideen Kutxako enparau guztiak bildu ahala inbertitzea proposatuz, eta era horretara «… no quede muerto ni un sólo momento el dinero sobrante sin el intteres correspondientte; que con los intereses mismos se formen capitales». Zentzurik zurrunenean, kapitalista dei dezakegun proposamen horren atzean, Ibarzabalek mundu mailan nagusitzen ari zen mentalitate burgesarekin zuen sintonia atzematen da[677]; eta kontua da, esne-saltzailearen ipuina ematen zuena errealitate bihurtzea lortu zuela, pare bat urte geroago Ibarzabalek, Bideen Kutxak iturria egiteko utzitako 30.000 errealak bueltatzea eskatu baitzion udalari, «… con mas el interes anual de tres por ciento en fabor de la referida caja de Caminos y contra los arvitrios destinados para la ejecucion de la fuen-

674. Urte batzuetan soilik titularren hirukoteak proposatu ziren, beste urte batzuetan ordezkoenak ere, besteren batean herri-diputatu bakarrarentzat… Horrela, 1826an 45 lagunen proposamenak egin ziren, 1827an 16renak, 1828, 1829 eta 1830ean berriro 45enak, eta hirukoteen azken urtean, 1831n, 33renak.

675. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-11-15.

676. Bere esanetan kalteak bi eratakoak ziren: «… el primero perpetuar el grabamen de los arbitrios que pesan sobre los articulos de consumo y por consiguientte sobre el vecindario contra la mente (¿) y voluntad del Soberano; y el segundo, una contingencia muy grande que tenían las fincas hipotecadas por la villa para seguridad de los capitales si por la mala administracion de los fondos, por no producir los arbitrios lo suficientte o por ottros motibos se dejase de atender con puntualidad al pago de los intereses» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1829-5-15.

677. Bizkaiko Foru Artxibategian aurkitutako agiri batek argitzen digunez, Gabriel Ibarzabal Florencio Arizmendi frantziar hiritarraren ordezkari legala izan zen, azken horrek Narroseko markesarekin zeukan auzi ekonomiko batean, BFA, JM, 0806/004, «Gabriel Ibarzabal "curador ad litem" de Florencio Arizmendi (de nacion "francés"), residente en Lequeitio, contra la Marquesa de Narros, sobre pago de 100.000 reales», 1826-04-12.

te»[678]. Ordurako badirudi Bideen Kutxak herri mailako banku txiki baten papera jokatzen zuela.

Hirurteko Liberala bukatu eta bost urtetara, baztertutako liberal ohiak berriz udalaren dinamikan parte hartzen zuten, normaltasun osoz: Vicente Agirre, adibidez, errejidore izendatu zuten 1828an, eta urte berean, Luis Baskaranek sindikokargua eskuratu zuen; Ramon Agirre 1830eko alkatea izan zen, eta Gabriel Ibarzabalek berak kargu bera bete zuen aurreko urtean… Udaletik baztertuta jarraitzen zuten bakarrak Manuel Antonio Murua eta Julian Kortesena ziren, baina azken horrek udalkide izateko gogo handirik ere ez zuen erakutsi; "purifikazioen" batzordera heldutako eskakizunen artean behintzat, berea falta da. Manuel Antonio Muruak, bere aldetik, gaitasuna berreskuratzeko beste saiakera bat egin zuen 1829an.

Ordurako, Murua beste eztabaida baten suspertzaile bihurtuta zegoen. 1828ko azaroan, hurrengo urterako ardoen horniketaren enkantea zela-eta, ohiko errematatzaileak baino hobea zen proposamena egin zuen, bezeroentzat ardoa merketzen zuen era berean, udalari diru gehiago eskaintzen ziolarik[679]. Alkateari proposamena onuragarria iruditu bazitzaion ere, «… bastó la fiscalizacion de Bettolaza en que no se admitiera la venttajosa propuesta hecha en todo por mi», Muruaren eskaintza atzera botatzeko. Horrek zioenez, berak eskainitakoak «… son venttajas de que el mas estupido y rudo (?) las conoce»[680]. Murua ospela ukitzen ari zen, eta bazekien. Herri lurren pribatizazioaren ostean, udal-ogasuna orekatzeko udalak eskainitako irtenbide bakarra zeharkako zergak areagotzea izan zen[681], eta horien artean, ardoarena zen altuena, gehien kontsumitzen zen produktua baitzen[682]. Horrez gain, ardoaren hornitzaileak gozatzen zuten sasimonopolioan oinarrituz aberasten ari ziren, eta testuinguru horretan ez da harritzekoa Muruaren proposamenak herritarren interesa

678. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1831-12-26.

679. «Las ventajas de mi propuesta asi en los fondos de V.S. con aumento de mil reales; el vender el vino blanco ocho cuarttos mas varatto en azumbre (…) dos libras de vino en cada pellejo de los que quieran tomar anttes de hacer la entrega a los taberneros, y de que no puedan tomar estos a los aventtureros y el vecindario pueda tomar mas varato el vino…» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-11-2.

680. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-11-2.

681. Udaleko defizitari aurre egiteko, udalbatzak zenbait produktu gehiago zamatu zituen —"adealas"—, besteak beste pattarra, olioa, eta balearen gantza. Pattarra Frantziakoa eta nafarra zegoen. Frantziakoa nafarra baino erreal-laurden bat merkeagoa zen pinta-erdi bakoitze-ko. Biztanle batzuek hornitzaileak herrian sartu baino lehen erosten zietela ikusirik, olioaren kasuan, alondegikoek «… cobraran en la alondiga un real en arroba el aceitte que compren los partticulares para el consumo de su casa a los Arrieros. Ningun habittantte de estta villa podrá hacer en ella Trafico del aceite, y el que lo haga será considerado por defraudador» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-10-4.

682. Sasoi hartako gizartearen alkoholismoa neurtzeko adibide argigarri gisa, aipa dezagun Fernando VII.aren bisita baino egun batzuk lehenago Sebastian Miguel Orbea sakristauak harrapatu zuen mozkor entzutetsua: «… la noche del dia de la Ascension que tambien le dió la locura escandalizó toda la vecindad con sus grittos y golpes que daba alas puerttas; el dia siguiente continuó en sus

piztu izana. Horregatik, Muruarena errefusatu ostean, udala Aranoren proposamena onartzera zihoanean —betiko baldintzetan— biztanle talde bat protestatzen hasi eta enkantea bertan behera gelditu zen. Errematea errepikatu zen egunean Juan José Artamendik eskuratu bazuen ere, hurrengo hilean Granadako *Chancilleria*k azalpenak eskatu zizkion Eibarko Udalari Muruaren eskaintza atzera bota izanaren inguruan[683].

Hamarkadaren bukaeran, egia esan, liberalen bazterketan tematuta jarraitzen zuen bakarra Betolaza bide zen. 1829ko urrian gertatutakoak nahiko ongi islatzen du bizi zen egoera: Gabriel Ibarzabal zegoen alkate eta udalak diputazioaren aginduari jarraituz Murua auzokide hautagaien zerrendan onartu zuen. Handik gutxira Betolaza ailegatu zen bilerara, eta udala diputazioaren agindua betetzen ari zela azaldu bazioten ere, Muruaren onarpenaren aurka protestatu zuen. Bilera berean udalak Antonio Tapia proposatu zuen herri-sindiko kargurako, eta horren aurka ere protestatu egin zuen Betolazak, "purifikatu" gabe zegoelako. Udalak ez zion jaramonik egin, eta gainera Tapia, proposatu ez ezik, herri-sindiko izendatu zuen[684]. Bukatzeko, olioaren horniketaren enkanterako Muruak proposamena egin zuela ikusirik, Betolazak berak hobetu zuen Muruarena, eta oraingoan bai, udalak onartu egin zuen. Bere ibilbidea ezagutuko ez bagenu, Betolaza ortodoxia absolutistaren sostengatzaile nagusitzat joko genuke; baina jakin badakigu 1821eko alkatea izateaz gain, 1835eko Zaintza Hiritarrean parte hartu zuela, eta idazkariaren hautaketan, ustez behintzat liberalen hautagaia zenaren alde —Bartolomé Ibarzabal— bozkatu zuela. Beraz, ez dugu ondo ulertzen zergatik oinarritu zen absolutistek egindako legedi errepresiboan Murua eta Tapiaren aurkako protesta egiteko orduan.

1832an udalkide izatea egokitu zitzaien Betolazari zein Muruari, lehena alkate eta bigarrena herri-diputatu, azken hori jada "purifikatuta" zegoen-eta. Bere itzulera ez zen oharkabean pasatu, Muruak udal-gobernuaren funtzionamendua eta eskuduntzak zehazteko plana aurkeztu baitzuen abuztuan. Beste puntu batzuen artean,

---

locuras, y llegaron a tales terminos que con una gran nabaja de resortte esttaba descerrajando la puertta principal de la Iglesia cuando noticisoso el tenientte Alcalde D. Manuel Martinez acudio al remedio y le aseguro en la casa concejil». Aurretik ere behin baino gehiagotan egin omen zituen horrelakoak, «… pero todo se ha disimulado», ziur asko apaizaren hiloba zelako, EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1828-5-25.

683. «Una de las obligaciones del Ayuntamiento es, procurar el aumentto de los producttos de sus propios y arvitrios y el que el vecindario se proporcione los artticulos de consumo a los precios mas bajos que sea posible, y es seguramente muy reprensible que consiguiendose esttos dos obgettos con admittir las reformas de condiciones indicadas por Murua, se haya obstinado el de Eibar en que subsistan los antteriores» EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1823-1828)*, 1827-12-24.

684. «Leido el precedente resulttado del escrutinio quedo aprovado por unanimidad de los concurrentes menos por Fco. de Betolaza que protestó la eleccion en quanto D. Antonio Tapia ha sido propuesto para Personero del Comun, sin hallarse purificado, lo que fue contraprotestado por D. Manuel Antonio Murua por los motibos que espondrá a su tiempo» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1829-10-28.

zeharkako zergen gehiegikeriak udal-ogasuna itota zeukala salatu zuen[685], eta bi aste geroago, 1750-1832 bitarteko akta-liburuak eskatu zituen, kontsumo-gaiei ezarritako zergak benetan erregearen baimena zeukaten ala ez ikusteko[686]. Abenduan, zerga batzuekin eskuratutako dirua ez zela aurreikusitako zereginetan inbertitzen ikusirik[687], ardoaren horniketa eta sisen alokairua enkantera ateratzea eskatu zuen. Horrez gain, zenbait udalkideren aurka jo zuen, zeren «… ha observado en las afueras que se estrae de los condutores cantidad de vinos indevidamente por los regidores»[688]. Ziur asko, salaketa horiek hurrengo erremateetan piztu ziren zalaparta izugarriekin lotuta daude. Enkanteetan bildutako jendetza agintariei irainka hasi zen, eta sosegatu ezinean, erremateak bertan behera gelditu ziren. Hurrengo enkantean, ordena publikoa bermatzeko indar armatuak erabiltzea pentsatu zuen Betolazak, baina azkenean gainerako udalkide eta auzokideei laguntza eskatzea egokiagoa iruditu zitzaion[689].

Hamarkada absolutistaren azken urteak

1830etik aurrera espainiar politikaren norabideak aldaketa garrantzitsua jasan zuen, jaioberria zuen alabaren jaraunspen-eskubideak bermatu nahian, Fernando VII.ak "*Ley Sálica*" abolitu zuenean. Karlosek, bere anaiak, Isabel txikiaren eskubideak onartzen zituela sinatzeari uko egin, eta Portugalen erbesteratu behar izan zuen. Ordurako, absolutistarik sutsuenak Don Karlosen inguruan biltzen hasiak

685. Muruak zioenez: «Llegara tiempo sino se pone remedio la imbersion de los caudales de V.S. que cada vez se van recargando mas los arvitrios indirectos mas y mas, estos alguna vez decaeran con tanto recargo que llegarán a no producir por su enorme peso» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-15.

686. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-31. Protestaren hasieran zioenez: «Ratificando la protesa que tengo hecha en el ayuntamiento general de treinta y uno de Diciembre ultimo…»; guk, ordea, egun horretako aktan ez dugu protesta horren aztarnarik aurkitu. Utzikeria hutsa?

687. «… por las causas de que en punto uno hay una sisa simulada de seis mrv en azumbre de vino, lo otro por que le parece que las facultades concedidas para la exaccion de los seis cuartos que se exigen con la denominacion de villa, Caminos, Guerra y panadeo estan espiradas, como tambien la de dos mrvs. que se exigen en el nombre de alcabala (…) que la adeala del aguardiente combeve mas derechos de los que le corresponden» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-10-21.

688. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-10-21.

689. Udal batzan erabili ziren, «… las escandalosas y publicas ocurrencias de los dos Domingos anteriores causadas por una muchedumbre del pueblo faltando al respeto debido a la autoridad y privando el que se pudiesen realizar los remates de las provisiones de esta villa, sin que su amonestaciones bastasen a que guardasen el devido respeto y moderación, y pidio que para continuar dichos remates sin semejantes alborotos haciendo que los perturbadores respetasen las disposiciones de la N. Villa, tomasen las determinaciones que les pareciere mas conforme, excusándole de usar una fuerza armada, medio, aunque indispensable indecoroso para un pueblo hasta ahora tan sumiso y respetable; y enterado se acordo que esta tarde se pongan en remate las provisiones que restan y concurran los vecinos que constituyen para dar el auxilio necesario al Sr. Alcalde» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-11-18.

ziren, eta esaten zenez, Fernandoren aurka burutu ziren altxamendu absolutista gehienen atzean, Don Karlos bera zegoen. Erbesteratzearekin, argi baino argiago gelditu ziren zeintzuk ziren Don Karlosen asmoak Fernando hiltzen zenean. Hori dela-eta, Fernando VII.a liberal moderatuak erakartzen saiatu zen bere erregealdiko azken urteetan, Isabel eta bere amarentzat —María Cristinarentzat— sostengu politikoen bila. Helburu horrekin, politika erreformista jarri zuen martxan, eta ildo horretan koka dezakegu 1824ko urriaren 17ko Errege Zedula indargabetu eta udalkarguak berriz foruen arabera izendatzeko baimena eman izana 1831n. 1830eko liberalen inbasio-saiakerak asmo horiek ahuldu beharrean, sendotu egin zituen, Gipuzkoako herrialdeak tinkotasunez erantzun zuelako Espoz y Minaren inbasio saiakeraren aurrean. Tertzioen mobilizazioak eragindako gastuei aurre egiteko diputazioak zerga berezi bat ezarri behar izan zuen[690]. Horrez gain udalak batzorde bat sortu zuen, tertzioak eratzen laguntzeko[691].

1831ko abenduan 40 auzokide inguru bildu ziren Eibarko udaletxean, aspaldiko partez, udalkideak betiko erara berritzeko prest. Umetxo batek, lurretik jasotako txartelen bidez, 10 hautesleen nortasunak argitu zituen: hiru, alkatetzarako hautagaien proposamenak egiteko, beste hiru sindikoenak egiteko eta gainerako lauek errejidoreenak egin zituzten. Oraingo honetan gainera, aktak hautesle bakoitzak zein aukeratu zuen islatzen du. Ondoren, kargu bakoitzerako proposatuen taldetxoak egin, eta berriro zotz eginez irten ziren hurrengo urterako udal-agintariak. Udal-karguak izendatzeko ekitaldian zalantza eta protestak izan ziren[692], eta lehenagoko sistema erdi ahaztuta ere bazeukatela dirudi. Gaia aztertzeko José Joaquín Areitio, Gabriel Ibarzabal, José María Alberdi, Francisco Zuluaga, Francisco Bergara, Vicente Agirre eta Miguel Antonio Muruak osaturiko batzorde bereziak abenduan eman zuen bere iritzia. Horren arabera herri-hornitzaileek, hauen senide eta fidatzaileek, eta udal-langileek, ez zeukaten hautesle izateko eskubiderik;

690. 1830eko urrian diputazioak zirkular bat zabaldu zuen, «… por el que hace ver la necesidad en que se ve de buscar medios para atender a los gastos estraordinarios que se le han ocasionado en la manutencion de las numerosas fuerzas de tercios que tiene en la frontera y en otros puntos con motibo de la aparicion de refugiados Españoles, y la determinacion que ha tomado de repartir a los pueblos de la Hermandad fogueralmente 606.000 reales» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1830-10-31.

691. Batzorde laguntzailea Francisco Antonio Pagoaga, Andres Mandiola, Pedro Miguel Gisasola, Martín Gisasola, José Joaquín Agirre, Pedro Francisco Suinaga, Manuel Antonio Murua, Gabriel Ibarzabal eta José María Alberdik osatu zuten, EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1830-11-14.

692. «En consecuencia se dispuso proceder a la eleccion de electores a cuyo fin se formaron lotes o cedulas de todos los vecinos concurrentes menos los que estan comprometidos en los abastos publicos para el año proximo, los actuales capitulares y los que lo han sido en los dos años precedentes, el tesorero D. José María de Alverdi, y el cirujano asalariado D. José Lucas Berraondo el qual aunque protesto su esclusion fue contraprotestado por D. Antonio de Murua y se paso adelante» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1831-12-31.

horrez gain, hautesle bik ezin zuten pertsona bera proposatu; eta hautatuak izateko gorde beharreko hutsunea ekarri zuten gogora[693].

Hilabete batzuk lehenago Muruak aurkeztutako proposamenak agerian jarri zuen udal-gobernuan bizi zen anabasa. Udal-araudiari buruz —"*Ordenanzas municipales*"— ziotenez «… ignoramos los presentes si las hubo o no»[694]; beraz, ondoriozta dezakegu udalak aspalditik —beharbada Konbentzio Gerratik— araudi zehatzik gabe funtzionatzen zuela, edo behintzat, araudi horiek ez zirela idatziz gordetzen[695]. Muruaren eskakizuna aztertzeko Gabriel Ibarzabal, Vicente Agirre, Ramon Agirre eta Andrés Mandiolak osatutako batzordeak Muruarekin bat zetorrela adierazi zuen, baina gai horren inguruan zuhurtasunez ibiltzea komeni zela, zeren «… para tener malas ordenanzas, mas vale no tener ninguna»[696]. Inguruko herrietako udal-araudiak aztertzen ibili ostean ziotenez, «… en general son tan antiguas y guardan tan poca armonia con las costumbres, indole, circunstancias locales y necesidades actuales, que no merecen someterlas a la deliveracion de VS», iraganeko formulek ez baitzuten balio arazo berriei aurre egiteko[697]. Ikusten denez, batzordea osatu zutenentzat ezinbestekoa zen iraganeko ikusmoldeak gainditzea, eta orduko egoerari errealismoz eta gaurkotasunez aurre egitea aldarrikatu zuten. Araudi berria egiteko egokiena Murua zela adieraziz, hari eman zioten ardura. Betolaza alkateak, urte hartako Gipuzkoako Batzar Orokorrek kanporagaien alkate[698] izendatu zutenez, Irunera joan behar izan zuen abuztuan, eta itxura denez, eztabaida hau guztia bera herritik kanpo zegoela burutu zen. Gaiaren garrantziaz oharturik, akordioaren kopia eskatu zuen Gabon zahar egunean —udala berriztatzeko ekitaldian—, «… para que examinandolos, pudiera hacer qualquier reclamacion siempre que le parezcan ser perjudiciales»[699].

693. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-12-2.

694. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-15.

695. Bosgarren puntuan argitzen zuenez, 1794ko sutean Lorenzo eta Sebastian Argianoren eskribautzako —"numeraria"— agiriak erre ziren, «interesantes a muchas familias», eta gordetzen ziren dokumentuen zerrenda egitea proposatu zuen; eta seigarrenean, herriko ospitalearen funtzionamendua goitik behera aldatu beharra, «… en consideracion de la desbergüenza en que los pobres y forasteros de ella andan con siniestros pretestos sacando limosnas en el vecindario» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-15.

696. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-31.

697. «No debemos buscar en otros pueblos ni en los tiempos antiguos nuestros males y vicios; en los tiempos presentes y aqui alrededor nuestro devemos estudiarlos, examinarlos con madurez y aplicarles el remedio» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-31.

698. Kanporagaien alkatearen —"Alcalde de Sacas", gaztelaniaz— eginkizun nagusia muga zaintzea zen. Sasoi hartan aduanak Ebro ibaiaren lerroan kokatzen baziren ere, muga politikoa gaur egun dagoen lekuan zegoen, eta muga zeharkatzen zuten gaiek inolako zergarik ordaindu beharrik ez zeukaten arren, espainiar erresumak estrategikotzat jotzen zituen produktuak kanporatzea debekatuta zegoen (armak, zaldiak, zilarra, urrea…). Horrez gain, pertsonak kontrolatu beharra zegoen, muga zeharkatzeko pasaportea behar baitzen. Gai honen inguruan, begiratu: Garmendia Estomba, 1992: 45-58.

699. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-12-31.

Muruaren proposamenari lotuta, 1832ko udalkideen beste mintzagaietariko bat izan zen auzokide hautagaiek jokatu behar zuten papera udalaren funtzionamenduan. Bilera horietan parte hartzen zuten auzokideen kopurua oso aldakorra zenez, agertzen ez zirenei isunak ezartzea proposatu zuen Muruak abuztuan[700]. Horrez gain, auzokide hautagaien proposamenak zirela-eta, eguneko aztergaien zerrendatik kanpo azaltzen ziren gai garrantzitsuak eztabaidatzeko joera moztea erabaki zuen udalak abenduan[701]. Erabaki horrek, arlo praktikoan, errejimentuaren —hau da, udalkideen— esku uzten zuen auzokide hautagaien batzarrean erabili behar ziren gaien aukeraketa. Egitasmo horrek errejimentuaren boterea indartzen zuen neurri berean murrizten zituen auzokideen eskuduntzak, eta protestatu zuenik falta ez bazen ere, udala aurrerantzean sistema hau erabiltzearen alde agertu zen[702].

1833. urteko udalkideen izendatzeari dagokionez, alkate eta herri-ordezkari izendatutakoen uko egiteak aipatu behar dira. Andrés Mandiola alkateak, osasun-arrazoiez gain, haragiaren hornitzailearen fidatzailea izatea argudiatu zuen karguari muzin egiteko, eta udalbatzarrak, luze eztabaidatu ostean, Manuel Martinez izendatu zuen alkate, eta José Ramón Bergara bigarren alkate, Martinezen bakantea betetzeko[703]. Bilera berean, herri-diputatu izendatu zuten Francisco Ibarzabalek bere izendatze-ekitaldiaren baliogabetasuna salatu zuen, baina udalak ez zuen eskurik hartu, herri-ordezkariei buruzko erabakiak «… incumbencia del comun» zirela adieraziz. Aurreko urtean herri-sindikoa izandako beste ibarzabaldar batek —José Ignaciok— hauxe eskatu zuen: sindiko berria izendatu eta udalak korrejidorearen epaitegian mantentzen zuen auziaren gastuak lehenbailehen ordaintzea[704]. Auziaren arrazoi zehatza aipatzen ez den arren, ez zen txantxetan hartzekoa, udalak —«… despues de una acalorada disputa»— Gabriel Ibarzabal, José Joaquín Areitio eta Juan Cruz Aramburu izendatu baitzituen gaia aztertu eta konponbidean jartzeko.

700. Muruak honako hau zioen bere proposamenaren laugarren puntuan: «La esperiencia manifiesta que algunas veces en la junta hay mucha reunion de vecinos millaristas y en otras apenas llegan a la tercera parte (…) a los no asistentes exigirles la correspondiente multa» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-8-15.

701. «Teniendo presente que combocandose ayuntamientos generales con obgetos de poca monta e interes y que luego se tratan asuntos de la mayor consideracion, que requieren madurez y reflexion se acordo que desde el principio del año proximo venidero los señores Alcaldes deberan dar aviso a los vecinos tres dias antes que se convoque el ayuntamiento indicando el punto o puntos que se deben tratar y que fuera de ellos no se podra ventilar ni menos resolver cosa alguna» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1832-12-2.

702. «… haviendose subcitado cuestion sobre si el ayuntamiento particular debe señalar o preparar previamente los puntos que haya de someterse ala deliveracion del ayuntamiento general, y que este no podra tratar mas puntos que los que aquel señale, se acordo que en lo sucesibo se haga asi, pero que por hoy continue el ayuntamiento sobre los puntos anunciados por medio del alguacil» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1833-6-23.

703. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1833-1-1.

704. 1841ean zorra kobratzeko zeukan oraindik, eta argitzen zenez auzia Gaztelako pattarraren hornitzaileekin izan zen, EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1841-3-6.

KONKLUSIOAK

Hirurtekoan zehar liberalismoa herri askotan loratu zen, baina Eibarren loratu ez ezik, etorkizunean bizirauteko nahitaezko zituen sustraiak ere bota zituen. Oraindik orain, zaila da ziurtasunez baieztatzea zein izan zen ibilbide arrakastatsu horren abiapuntu zehatza, baina kapitulu honetan, aldakuntzaren inflexio-puntu nagusia kokatzeaz gain, liberalismoaren errotzean lagundu zuten zenbait faktore antzeman ditugulakoan gaude.

Oasi liberalaren berri ematen digun lehen datua, 1821eko udaberriko altxamendu absolutistaren aurrean, Eibarko milizia liberalean parte hartu zuen jende kopuru izugarria da. Inguruko herri armaginetan, populazioaren ("sutan" zenbatuta) eta milizianoen arteko portzentajea kontuan hartuta, Eibarrek bikoiztu egiten zuen Soraluzerena, eta hirukoiztu Elgoibarrena. Zer dela-eta eibartarren izen-emate masiboa milizia liberalean? 1813-1814 bitarteko epe konstituzionalistan ez dugu liberalismoaren indar berezia adieraziko lukeen aztarna garbirik aurkitu. Zoritxarrez, miliziano kopuruak bai, baina ez ditugu horien nortasunak ezagutzen, eta zentzu horretan ezinezkoa dugu beharbada argigarria suertatuko litzatekeen konparaketa egitea, bonapartetiarren aurkako gerran Gaspar Jauregiren sarean parte hartu zutenekin. Liberalismoaren adar armatuak lortu zuen arrakasta azaltzeko orduan, beste hipotesirik ezean, hauek aipatuko nituzke: Hirurtekoaren hasieran armagintzak jasan zuen krisialdia (milizianoek jan-edana ordainduta zeukaten), eta Gabriel Ibarzabal eta beste gizon prestu batzuk miliziaren buruan ikusteak izango zuen eragina. Baina, esan bezala, batere ziurtasunik gabe.

Argi dago, ordea, 1821eko udaberritik aurrera liberalismoak hazkunde- eta sendotze-prozesu bat hasi zuela, adar politikoa eta militarra estuki lotuta aritu zirelarik. Zentzu horretan, bigarren alkatearen inguruan sortu zen auziak katalizatzaile-papera jokatu zuela esango genuke, udalkideen eta milizianoen artean piztu zen liskarrean errietalariek ozenki azaldu zuten bezalaxe: «… venian muchas ordenes a estta villa y no se cumplia oculttándolas como la que vino para nombrar otro Alcalde y no hizo caso». Gai horren inguruan Francisco Betolaza alkateak agertu zuen jarrera itxiak eragin zituen milizianoen algara probokatzaileak, eta ez alderantziz. Betolazaren eta Miguel Ibarzabalen arteko salaketa gurutzatuen artean hiru eguneko tartea baino ez egotea, bi gaiok lotuta zeudelako seinalea da. Horrez gain, ez dut uste kasualitate hutsa izan zenik hil eta erdi geroago, Gabriel Ibarzabalek Araututako Miliziako komandante-kargua utzi, eta 13 milizianoen sostengu urriarekin Boluntarioen Milizia sortu izana, udalaren menpe ez zegoen milizia autonomoa. Ziur asko, milizianoen eta udalkideen arteko iskanbilak Boluntarioen Miliziaren sorkuntza eta eraketa suspertu zuen.

Liberal aurrerakoiek bazeukaten bide administratibora jotzerik haien eskakizunak aldarrikatzeko, baina zalantzarik gabe Bolinagaren bertsoak askoz atseginagoak ziren, eta gainera agintarien jarrera kalean salatzeko aukera ematen zuten,

aurrerakoiek hain gustoko zuten propagandismo herrikoiaren bidez. Konstituzioaren abestia —"*Trágala*"— euskaraz abesten zutela jakiteak herri xeheari hurbiltzeko egin zituzten ahaleginen berri ematen digu. Beharbada hor dago lortu zuten arrakastaren arrazoietariko bat, ideia berriak betiko hizkuntzan adierazteak jarraitzaile gehiago irabazteko aukera ematen baitzien ahozkotasunean murgilduta bizi ziren herritarren artean. Baita istilurako biderik ere, gertatu zen bezalaxe. Gure ustez inork ez zuen espero bertso zirikatzaile haien ondorioz, Eibarko biztanleria bi alderditan banatuko zenik. Baina gauzak horrela dira: batzuetan txinparta bakarra nahikoa da igartutako basoa erretzeko.

Azkenean Miguel Ibarzabalek Eibarren 2.500 biztanle baino gehiago zeudela frogatzea lortu zuen, eta Bergarako epaileak algarengatik zigortu bazuen ere, politikoki indartuta atera zen herritarren aurrean. Horrez gain, 2.500 lagun banan-banan zenbatu beharrak udalerriko familia guztiak bisitatzera behartu zuen, eta bere ibilaldiek aukera aproposa eskainiko zioten gaur egungo hauteskundeetan "etxez etxeko" kanpaina deitzen dena egiteko, Betolazak ordezkatzen zuen liberalismo moderatuaren kontra zeuden nukleoak aurrerakoien inguruan bilduz. Betolazak berak aitortzen zuenez, Ibarzabal eta gainerakoak zigortuz gero «… resultaran disturbios en las familias con sentimientos de muchos y con disgusto general», are gehiago bigarren alkatearen auzia beraien alde erabakita zegoenean. 1822ko udalhauteskundeetan, gizonen sufragio unibertsalak ematen zituen aukerak erabiliz eta botoen sakabanatzea ekiditeko helburuarekin, Etxeberria osagileak banatutako txartelen hautagaien zerrendak liberal aurrerakoien protoalderdi baten papera jokatu zuen, «… una verdadera fraccion de los ciudadanos de un pueblo dividiendolo en partidos, como ha sucedido», Betolazak salatzen zuen bezalaxe.

Gizarte pre-politiko hartan, biztanleria, programa politikoen inguruan baino gehiago, gizartean eragin berezia zeukaten familia edota pertsona jakin batzuen inguruan biltzen zen. Zalantzarik gabe, Gabriel Benito Ibarzabal horietako bat genuen, Madrileko Gortearekin mantentzen zuen harreman pribilegiatuaz baliatuz, Eibarko armen merkaturatzea kontrolatzea lortu zuelako, arlo publikoan —armadarekin zituen kontratak—, zein pribatuan —ehizarako armak—. Armagintzak gainera, aldakuntza teknologiko garrantzitsuak bizi zituen garai hartan, eta aurrerapenak Ibarzabalen eskutik ailegatu ziren batik bat, Eibarren funtzionatu zuen lehen lurrun-makina barne. Mentalitate kapitalistaren aitzindari, Fernando VII.aren itzuleraren ostean politikoki ezgaitua gelditu arren, arlo ekonomikoan oinarritu zuen bere ekimena, eta herriko "*factotum*" bezala ageri zaigu: Deba ibaiko bideen zuzendaritzan, Fernando VII.aren anfitrioi-lanetan, 1832ko kolera-izurritea izan zenean herriak behar zituen 200 anega gari aurreratuz… 1826an, Gaston brigadierrak zioenez alkatea bera ez zen ausartzen «… a malquistarse con Ibarzabal». Beraz, liberalismoaren sorkuntza eta bilakaera Eibarren, ezin da azaldu Gabriel Ibarzabal kontuan hartu gabe.

Gainerako herri armaginekin alderatuta, Eibarren eta Soraluzen armaginen gremio guztien presentzia nabari da (kanoiginak, kaxaginak, txispaginak eta aparejuginak); horri esker, bi herriok zeukaten bertatik atera gabe arma bat hasieratik bukaerara fabrikatzeko ahalmena. Baina Soraluzekoarekin alderatuta, Eibarko armagintzak hiru berezitasun zituen: batetik, beti erregearen eskarien menpe egon beharrean sektore pribatuan merkatu berriak bilatzeko grina eta ahalmena aurkeztu zuen; bestetik, SEAFeko zuzendaria ez zenez Eibarren bizi, gremioen jokabidea askoz leunagoa zen, eta ekoizpen-prozesua kontrolatzea zailagoa (zigiluen faltsutzea); eta azkenik, armagintzaren etekinak gorde beharrean etengabeko berrikuntza teknologikoetan inbertitu izanak epe ertainera Eibarko armak lehiakorragoak bihurtu zituen estatu-merkatuan, eta epe luzera, nazioartekoan. Merkatu berrien aurkikuntza, gremioen funtzionamendu malguagoa eta berrikuntza teknologikoetan eginiko inbertsioak, mentalitate kapitalistaren ezaugarriak ditugu, eta Soraluzen ez bezala, Eibarren martxan zeuden 1820ko hamarkadarako. Zentzu horretan, liberalismo ekonomikoak liberalismo politikoaren eztanda ahalbidetu zuten oinarriak jarri zituen.

Liberalismo politikoaren arrakastari dagokionez, ezinbestekoa da gizonen sufragio unibertsalak Eibarren eduki zuen eragina neurtzea. Badugu zeregin horretan lagunduko digun daturik: Boluntarioen Milizian 130 kidek parte hartu zutela eta Tamalezko Hamarkadan horietatik 10 baino ez zituztela baztertu jakitean ondoriozta dezakegu gainerako 120ak foru-erregimenak jada baztertuta zeuzkan biztanleak zirela, hau da, ez zirela auzokide hautagaiak. Herritar horiei sistema konstituzionalak parte-hartze politikorako ateak zabaldu zizkien, praktikan eskubide hori erabili zuten ala ez jakiteko daturik aurkitu ez dugun arren (1820-1823 bitarteko hauteskundeen emaitza zehatzak, jakina).

Hamarkada absolutistan zehar, udalkideek ez zuten laguntza handirik jaso liberalen aurkako errepresioa bideratzeko orduan, haien zerrendak egiteko eibartarra ez zen *"Amanuensea"* erabili beharrak adierazten digun bezalaxe. Biztanleak baztertzeko erabilitako irizpideen subjektibotasuna bistan gelditu da, arrazoi berdinetan oinarrituz udalkide batzuek baztertutako biztanleak "purifikatu" egin baitzituzten hurrengo agintaldikoek —Vicente eta Ramon Agirreren kasuak—. Horrez gain, Ibarzabal liberal peto-petoa 1826an "purifikatu" bazuten ere, Manuel Antonio Muruaren aurkako bazterketa 1829ra arte mantendu zuten. Aipatzekoa da ezen bazterketa mantentzearen aldeko jarrerarik sutsuenak udaleko boterean ari zirenek zituztela, eta diputazioak, korrejidoreak eta erregeak berak, jarrera leunagoa agertu zutela. Horrek adierazten digu bazterketak gauzatzerakoan ez zirela soilik irizpide politikoak erabili. Horrez gain, baztertuen zerrendan boluntario guztiak sartu beharrean, auzokide hautagai hutsak sartu izanak, "purifikazioen" sistemak zituen zirrikituen berri ematen digu, horietariko edozein suertatu ahal baitzen herri-diputatu eta herri-sindiko izendatua, Antonio Tapiari egokitu zitzaion bezala 1830ean. Alferrikakoa izan zen Betolazaren protesta, arrazoi guztia eduki arren, "purifikazioen" garaia jada pasatuta zegoen-eta.

Eibarko Udalak zailtasunak izan zituen 1824ko urriaren 17ko errege-zedula betetzeko, udal-gobernuan parte hartzeko baldintza ekonomikoak zorrozteaz gain, kargu eta ordezko bakoitzerako hiru hautagai proposatu beharrean aurkitu zen-eta. 1826-1833 bitartean udalaren bileratan parte hartzen zuten auzokide hautagaien kopurua murrizten joan zen, eta eskribau berriaren izendatzea zela-eta, lurrak bahian zituzten biztanleek auzokideen zerrendan onartuak izatea eskatu bazuten ere, ez zuten beraien helburua lortu. Edonola ere, batzar-gelaren okupazioak eta kanpora irteteko aginduei uko egin izanak, erresistentziarako prest zegoen biztanle esparru baten berri ematen digu. Bozketaren emaitza aztertuta, biztanle haiek nekazarien arketipoan kokatzen dira. Oro har, 1823-1833 bitartean auzokideen parte-hartzea gutxitzen joan zen, errejimentuaren eskuduntzak indartzen ziren bitartean.

Hamarkadaren bukaeran, aipagarriak ditugu Muruak udal-gobernuaren funtzionamendua hobetzeko egindako proposamenak. Araudirik ezean udalaren prozedurarik gehienak oroimenaren menpe gelditu ziren, baina urteak pasatu ahala, eta liberalismoak eragindako aldaketek areagotuta, inor ez zen gogoratzen zehatz-mehatz zeintzuk ziren hasierako arauak eta prozedurak. Hutsune legal horrek agintaldi bakoitzeko udalkideen esku uzten zuen unean uneko zenbait erabaki, eta beste zenbait arazoren aurrean malgutasun gehiagoz jokatzeko aukera eskaintzen zien. Egoera horrek foru-erregimenaren interpretazio propioak garatzea ahalbidetzen zuen neurri berean, foruen aurkako jarrerak errazten zituen, zeren erabaki gehienek oinarri legalik ez zeukatela gero eta argiago baitzegoen.

ERANSKINA

1825eko eta 1827ko tertzioen konpainietan parte hartu zuten eibartarren zerrenda

NORTASUNA	1825 Tertz.	1827 Tertz.	Urb. 1835
ACHA BECOECHE José		Tertz.	
ACHA BERRECHINAGA Agustín	Kab-1	Tertz.	
ACHA GOROSTA Agustín	Sarj-2		
ACHA JAUREGUI Pedro		Tertz.	
AGUADO Agustín	Kab-2	Tertz.	A.U. 35
AGUIRRE José	Kab-2		A.U. 35
AGUIRRE José Antonio		Tertz.	A.U. 35
AGUIRRE Nicolás		Tertz.	
ALBERDI CATTALANGUA Martín		Tertz.	
ALBERDI José		Tertz.	
ALBERDI Jose Maria		Kap.	A.U. 35
ALDASORO Joaquín		Tertz.	
ANDICOCHEA Francisco		Tertz.	
APELLANIZ Santos		Tertz.	
ARAMBERRI Pedro Felix	Kab-2	Kab-2	A.U. 35
ARANCETA Domingo		Tertz.	
ARANZETA Felipe		Tertz.	
ARECHAVALETA Domingo		Kab-1	A.U. 35
ARETA Francisco		Tertz.	A.U. 35
ARETA Juan Andrés	Kab-1	Sarj-2	
ARETA Pedro		Tertz.	
ARGUIANO Martín		Tertz.	
ARIZMENDI Diego		Tertz.	
ARIZMENDI Domingo		Tertz.	A.U. 35
ARIZMENDI José		Tertz.	A.U. 35
ARIZMENDI Juan Bauptista		Tertz.	
ARIZMENDI Pedro		Tertz.	
ARRATE José Francisco	Sarj-1	Sarj-1	A.U. 35
ARRIAGA Antonio		Tertz.	
ARTAMENDI Juan José	Kab-2		A.U. 35
AZPIRI Pedro Antonio		Tertz.	
BARINAGA José Andrés		Tertz.	A.U. 35
BARRENECHEA Pedro		Tertz.	
BARRENECHEA Santiago		Tertz.	
BASCARAN José Domingo	Tte.		
CORTAZAR Francisco		Tertz.	A.U. 35
ECHEVERRIA Vicente		Tertz.	A.U. 35
EGUIVAR Melchor		Tertz.	
GALLASTEGUI Pablo		Tertz.	

	1825 Tertz.	1827 Tertz.	Urb. 1835
GANCHEGUI Joaquín	Sarj-2	Tertz.	
GAVILONDO GUISASTUA Pedro	Danb.		
GUISASOLA AGUINAGA José	Sarj-2	Tertz.	A.U. 35
GUISASOLA Agustín		Tertz.	A.U. 35
GUISASOLA ESCAREGUI	Sarj-2		
GUISASOLA ESCAREGUI José	Subte		
GUISASOLA José		Tertz.	
GUISASOLA Lucas		Tertz.	
GUISASOLA OREGUI José María	Kab-1	Kab-2	
GUISASOLA (URQUIDI) Sebastián		Tertz.	
IBARRA Francisco		Tertz.	
IBARZABAL MALZAGA José		Tertz.	G 35
IÑARRA IRAEGUI José Ignacio		Tertz.	
IRAEGUI Pedro María		Kab-1	
IRIONDO Joaquín		Tertz.	
LARRAÑAGA José Benito	Sarj-2	Tertz.	A.U. 35
LECETA Agustín		Tertz.	
LECETA Jacinto		Tertz.	
LECETA José		Tertz.	
LOYOLA Domingo	Danb.	Tertz.	CV 35
LOYOLA Francisco		Tertz.	
MAIZTEGUI José		Tertz.	A.U. 35
ORBEA José María	Kab-2		A.U. 35
ORMAECHEA Domingo		Tertz.	
ORTUZAR Agustín	Txistu		
OSORO Gabriel		Tertz.	A.U. 35
PAGAEGUI José María	Subte		
PAGOAGA Mateo		Tertz.	
RODRIGUEZ Clemente		Danb.	
SALAZAR Ramón	Kab-1		
SUINAGA ITURRAO Pedro	Kap.		
SUSTAETA Ambrosio	Tte.	Subte	
TELLERIA Andrés Agustín		Tertz.	
TELLERIA Francisco		Tertz.	
UBERUAGA Juan Andrés	Kab-1	Tertz.	
UGARTEBURU Domingo		Tertz.	
UNAMUNO Vicente		Tertz.	
ZARANDONA Jose Antonio		Sarj-2	A.U. 35
ZUBIAURRE Pedro		Tertz.	

Laburduren esanahiak: *1825Tertz.* eta *1827Tertz.*, zutabeetarako: “Kap.”, kapitaina; “Tte.”, tenientea; “Subte”, azpitenientea; “Sarj-1”, 1. sarjentua; “Sarj-2”, 2. sarjentua; “Kab-1”, 1. kaboa; “Kab-2”, 2. kaboa; “Danb.”, danbolinteroa; “Txistu”, txistularia; “Tertz.”, tertzioko soldadua. Urb1835 zutaberako: “A.U. 35”, liberalismoaren alde armatutako hiritarra 1835ean; “G 35”, karlistek Eibar hartu aurretik Getarian babestu zen; “CV”, Karlos V.aren aldeko gudu-taldeetan.

2. ERANSKINA

Fernando VII.ak Eibarrera egin zuen bisitaldia zela-eta eginiko bertsoak

1.
Noticia tan fausta
ta aditu ez dana
con la mayur franqueza
Erreguiac gugana.
Para obsequiarles
beren etorreran
el cantar estas coplas
zartutzat goguan.

2.
Fieles Españoles
atencio andian
debemos escucharlos
galdu ez gaitian
Estamos mal situados
aspaldi guztian
por que no hay caridad
alcarren artian.

3.
El brillante rebaño
chit desbandaturic
no faltan desazones
juntatu ecinic
Anda el amoroso Padre
artzai eguiñic
en busca de sus hijos
besuac zabalic.

4.
Todos bien sabemos
Cataluña gatic
que nuestro soberano
irten zan Cortetic:
Año mil ochocientos
ogueita zazpian
en el mes de Setiembre
jarrizan bidian.

8.
Todo era desorden
Catalan artian,
todo sublevaciones
ango Provincian.
Mas luego el Soberano
artu zuen indarra
y arregló aquella gente
gucisco gogorra.

9.
Que a pesar de trabajos
dempora lucian
no suceda otro tanto
gureen artian.
Pues su Real Magestad
cariño andian
cual un Padre viene
gucien onian.

21.
Llegadas a la fabrica
Placenciacora
recibieron amorosos
beren Nagusia
el Director y la Villa
eta Cabildoac
todos cantando vivas
andre ta umiac.

22.
Los Armeros de ella
gucisco listoac
cada gremio sus banderas
ceuzcan formatubac
Todos hicieron alli
aleguiñ guciac
en obsequiar los Soberanos
gucien Jabiac.

23.
Despues de agasajarlos
al zuen guciac
Pasaron a la Real Casa
beren Magestadeac
Se hicieron bien cargo
bertan trabajatcen
y por examinadores
armac revizatzen.

24.
Recibio en omenage
pistola eder bi
por sus Maestros y Eibar
eguiñac poliqui
Gustosos su coste hicieron
fabricante guciac
su Magestad tendrá presente
beren miseriac.

25.
A catorce de Junio
Eibarco sarreran
con bailarines de espadas
recibitu ciran
Por la Villa y el Cabildo
zar eta gaztiac
fueron aclamados
beren Magestadeac.

26.
Los muy fieles Armeros
cioten viotzeti
viva nuestro REY FERNANDO
vici beti bedi
Viva DOÑA MARIA JOSEFA
AMALIA Erreguiña
¡O cuanto deseamos hacer
beroy aleguiña!.

27.
¡O nuestros buenos Padres!
Chit deseatu degu
vuestra feliz llegada;
ta ichodon dizugu.
Aqui estan vuestros hijos
gucizco leyalac
muy prontos a observar
berorren ordenac

28.
Llegaron a la plaza,
ta emengo industriac
alli vieron patentes
beren Magestadiac.
Apearonse del coche
ondo ecusteko
toda clase de armas
ta beste gauza asco

29.
Bajaron a la máquina
Ibarzabalena
su nueva construcion
onqui ecustera.
A su casa subieron
beren Magestadiac,
y besaron su Real mano
familia guciac.

30.
¡O buen Ibarzabal!
Norc dudatucodu;
disfrutar beneficios
espera biardu.
Para aquellos servicios
berari prestatubac
no dejara sin recompensa
gure Soberanoac.

31.
Finalmente vieron
maquina berria
moler trigo sin agua
orduoro aneguia.
Mui prendados quedaron
emengo industriaz
y de los homenages
berari gordiaz

32.
En la M.N. Provincia
Guipuzcoacoan
muy amorosos y leales
aurquitu cituban.
Las fábricas y máquinas
iñun ez obiac
miraron atentamente
beren Magestadiac.

33.
Habiendo llegado
Bizcayco mugara
con la Diputacion
Guipuzcoacoa,
Aguardaba en ella
Señorio guciac
para bien recibir
beren Jaun andiac.

34.
Partidos de aquel punto
Hermuco Urira
con toda atencion
cegocen begira.
Para bien recibir
beren etorreran
sus Reales Magestades
onguizan moduban.

35.
Llegaron a Durango
Uri ederrera
a pasar noche en ella
ta descansu artcera.
Aquellos Durangueses
esmero andian
obsequiaron fuertemente
urrengo egunian

45.
¡O conquista larga y breve!
Gueure Gurasoac;
con el mayor cariño
artu trabajuac!
Esperar pues debemos
ez dala astuco
de sus ovejas amantes
alcar juntatceco

46.
Quien podia esperar
beren Magestadiac
con tanta dignacion
bertan ecustiac;
deja su Corte y Palacio
amore andian
memorable será su Reino
España gucian.

47.
Son coplas de un lego
bere Jaunic onari
de su amor el impulso
ecin escuraturic;
y rendido suplica
belaunico jarriric
que perdonen su ignorancia
badago faltaric.

48.
A Dios nuestros Padres
gucisco gozoac;
A Dios grandes Señores
compañiacoac.
Agradecidos quedamos
beroen visitaz
disfruten muchos años
osasun ta dichaz.

3. ERANSKINA

Eibarko udalkideen zerrenda 1827-1833 bitartean

NORTASUNA	<=1823-6	1823-6	1824	1825	1826	1827	1828	1829	1830	1831	1832	1833	1833=>
OLAVE Pedro Francisco	Bai					A1							
BASCARAN Domingo	HD/HS					ER			ER				Bai
AGUIRRE Jose Joaquín						ER							Bai
LECETA Juan José						SPG					ER		
BONETTA José María						HD	HD						
ARANGUREN Pedro Luis					HD	HD							Bai
GUISASOLA Felix						HS							
OLAVE Fernando	Bai						A1						
GUISASOLA Juan Antonio	Bai						ER						Bai
AGUIRRE Vicente	Bai						ER						
BASCARAN Luis	KONS						SPG					ER	
ARAMBERRI Nicolás	HD/HS	HD	HD	HD			HD	HD					Bai
BURGOA Juan Bautista	HD/HS						HS						
IBARZABAL PAGAEGUI	Bai							A1					
ALBERDI Jose Maria	Bai	SPG		SPG				ER					Bai
PAGOAGA Francisco	Bai							ER					Bai
VERGARA ASUA Pedro								SPG					
ARANA Pedro Ignacio								HD	HD				
IBARZABAL Juan								HS					HD/HS
AGUIRRE Ramón	KONS								A1				Bai
GUISASOLA ESCAREGUI									ER				
ACHA BERRECHINAGA									SPG				
ARANZETA Juan Miguel	KONS								HD	HD			HD/HS
TAPIA Antonio									HS			HD	HD/HS
SUINAGA Pedro Francisco										A1			Bai
UNZETA BARRENECHEA										ER			Bai
GUISASOLA José María		ER	ER	ER						ER			
GANCHEGUI Joaquín										SPG			Bai
GALLASTEGUI Ascensio										HD	HD		
ALBERDI Sebastián										HS			Bai
BETOLAZA Francisco	KONS				A1						A1		Bai
IBARRA Miguel Antonio	Bai										A2		
ZULUAGA Francisco											ER		Bai
VERGARA Juan Esteban											SPG		
MURUA Manuel Antonio	Bai										HD	HD	
IBARZABAL José Ignacio											HS		HD/HS
MARTINEZ Manuel Joseph	HD/HS	A3										A1	
VERGARA José Ramón												A2	
LOYOLA Agustin	Bai											ER	
MANDIOLA José	KONS											SPG	
ARANCETA Jose Ignacio												HS	

Erabilitako laburduren esanahia: Agintaldiei buruzko zutabeetan darabilzkigunak honezkero ezagunak dituzue. “<=1823-6” eta “1833=>” zutabeei dagokienez: “HD/HS”, udalean parte hartu zuela baina herri-ordezkari legez, beraz, ez zela auzokide hautagaia; “Kons”, udalean parte hartu zuela baina epe konstituzionalistetan, beraz ez zela auzokide hautagaia.

7. kapitulua
I. Karlistaldia Eibarren (1833-1839)

GERRA DINASTIKOA ALA LEHIA POLITIKOA?

Absolutismoak erreformak behar zituen, ekonomikoak, batez ere. Monarkikoen artean ezadostasunak sortzen hasiak ziren, absolutista moderatuen eta sutsuen —"*ultra*" deituak— artean, azken horiek ez baitzituzten onartzen Fernando VII.ak suspertutako egitasmo berriztatzaileak, eta are gutxiago, 1825ean, Gerra Ministroa eta Policiaren Superintendentea aldatu izana, liberalen errepresioan epelagoak ziruditen Miguel Ibarrola eta Juan José Recachoren alde. "*Ultren*" mesfidantza, absolutismo sutsuago baten aldeko altxamendu militarretan gauzatu zen[705], guztiak ere zapuztuak. 1826an "*Manifiesto de la Federación los Realistas Puros*" delakoan laburbildu zituzten haien aldarrikapen nagusiak, eta Fernando VII.aren anaia gaztea zen Don Karlosen aldera biltzen hasi ziren, horrek liberalismoari zion gorrotoa aski ezaguna zen-eta[706]. Gainera, gero eta argiago zirudien Espainiako hurrengo erregea bera izango zela, batez ere, Fernando VII.aren hirugarren emaztea hil zenean (1829), ondorengotzarik utzi gabe.

Korrika eta presaka erregina berri baten bila hasi ziren espainiar gortean, eta Napolesko María Cristina izan zen aukeratua. 1830eko ekainean erregina berria bere haurdunaldiaren bosgarren hilabetean zegoela iragarri zen, eta azaroan, Fernando VII.aren agindu bat jaso zen, zeinaren bidez «… se ha dignado resolver que a su muy amada hija la Infanta Dª. Maria Isabel Luisa se le hagan los honores como al Principe de Asturias por ser heredera y lexitima sucesora a la corona mientras Dios no le conceda un hijo varon»[707]. Erabaki horrek —"*Pragmatica Sanción*" delakoak—, espainiar koroaren ondorengotza-araudiak hankaz gora jarri zituen, "*Ley Sálica*" indargabetuz, emakumeei espainiar koroa jaraunsteko eskubidea onartzen zielako. Zaplada galanta hartu zuen Don Karlosek, luzaroan amestutako koroa galtzean.

---

705. «Esta renovación de algunos cargos importantes fue considerada como un apoyo del rey a la línea de los realistas moderados y aceleró los preparativos de los conspiradores ultras. Estos llegaron a constituirse en una oposición interna que causaría tantos o más problemas que la oposición que planteaban los liberales desde el exterior» (Sánchez Mantero, 1996: 109-110).

706. Melgarrek dioenez, Hirurteko Liberala hasi zenean «… montó un día Don Carlos a Caballo reclamando a su hermano el honor de capitanear la guardia real sublevada contra los milicianos que se habían pronunciado a favor de las Cortes» (Melgar, 1958: 14). Autorearen ustez, d. Carlosen keinu hau espainiar monarkiaren Lege Zaharrei zien atxekimendu hautsiezinaren froga nahikoa zen.

María Cristina erregina liberalen alde jarriko zela gauza jakina zen, eta horrexek kezkatzen zituen ultrak ezerk baino gehiago, erregearen alaba —Isabel II.a izango zena— umea zen bitartean, María Cristinaren esku geldituko zelako erregeordetza. Horrez gain, Europa mailan, egoera politikoak liberalen aldera jo zuen berriz, 1830eko iraultzen bidez hainbat estatutan boterea berreskuratu zutenеta. Hau ikusirik, sektore absolutistak Don Karlosen inguruan biltzen hasi ziren, Fernando VII.a hil orduko, matxinada absolutistari hasiera emateko helburu bakarrarekin. Egun hori 1833ko irailaren 29an ailegatu zen, I. Karlistaldiari hasiera emanez. Eta ordura arte, absolutista, tradizionalista, monarkiko edo foruzale deitu izandakoak "karlista" deiturapean bildu ziren; eta ordura arte konstituzionalista, liberal, iraultzaile edo foruen aurkako izandakoak "isabeldar" edo giristino —"*cristino*"— deituren pean, azken hori hain ezaguna ez bada ere.

Karlismoa iraganari lotutako mugimendu gisa sortu zen, iraultzaren bidez mundu zabalean hedatzen ari ziren programa berriztatzaileen aurrean. Liberalismoak laizismorantz jo bazuen, karlismoa erlijio katolikoaren alde agertu zen; liberalak Cádizko Konstituzioaren alde bazeuden, karlistek nahiago zituzten foruak; liberalek merkatu nazionalaren alde borrokatu bazuten, foru-lurraldeetako karlistek Ebron nahi zituzten aduanak; eta derrigorrezko soldadutzaren ordez, autodefentsan oinarrituriko sistema militarra… Oro har, tradizioaren alde zeudenak, hau da, arlo ekonomiko zein politiko-ideologikoan sortzen ari ziren berrikuntzen aurka azaldu zirenak, don Karlosen inguruan bildu ziren, karlismoa gorpuztuz; liberalak, berriz, mundua goitik behera aldatu behar zuen iraultzaren militante bihurtu ziren, eta ideia zahar eta berrien arteko borroka horretan, bizitza, askatasuna eta ondasunak galtzeko prest agertu ziren, bi aldeetako kideak ere. Aldaketa orotan gertatzen den bezala, eredu berrian bazegoen zer irabazi, eta zer galdu. Zentzu horretan, komeni da lehenengotik ohartaraztea, gaur egun kontserbadore edota tradizionalista hitzak konnotazio negatiboez kutsatuta badaude ere, testu honetan termino horiek erabiltzean ikuspegi neutro edo aseptiko bat eskaini nahiko nukeela, iraganeko balioek ez daukatelako zertan etorkizunekoek baino okerragoak izan [708].

Gerraren zurrunbiloak mota askotako kontraesanak irentsi zituen: arazo dinastikoa (Don Karlos / Isabel), arazo ekonomikoa (nekazaritza / industria-merkataritza; librekanbismoa / protekzionismoa), erlijiosoa (konfesionalitatea / laizismoa), arazo

707. Irungo Udal Artxiboa, A,1,77, 1831-11-10.

708. Koxka ez dago berriztatzailea edo kontserbadorea izatean, zer kontserbatu edo zer berriztatu nahi den artean baino. Izan ere, beharbada aurrerakoiagoa da baso bat gorde (edo kontserbatu) nahi duena, baso hori suntsitu eta azken teknologiaz hornitutako fabrikaren eraikitzailea baino. Horren kontzientzia bazuten garaiko tradizionalistek: «El ideal de la nueva España, una "España futura" sobre la base de un sistema provincial semejante al foral que lanzase a España por la vía de la modernización, hacía ver que progreso y tradición no se oponen: "En Europa el despotismo es nuevo y la libertad antigua y a ella vuelve Europa", escribe Orense, citando a Mme. Stäel» (Sánchez Prieto, 2002: 306-307).

politikoa (absolutismoa / konstituzionalismoa), foruen arazoa (aldaketen kontrakoak / erreformen aldekoak), arazo etniko-kulturala (Euskal Herria / España), arazo soziologiko-kulturala (herriak / hiriburua) eta beste hainbat arazo, pribatu mailakoak izan arren, ziur aski argigarriak izango genituzkeenak, gudu hauen zergatiak ulertzeko orduan. Adibidez, zer-nolako harremana zegoen Zumalakarregi anaien artean, Tomás gaztea karlistek izan duten buruzagirik ospetsuena bihurtzen zen bitartean, Miguel Antonio anaia nagusia Gipuzkoako liberal aurrerakoien diputatua izateko Madrileko Gorteetan?

Alderdikerien ondorioz, karlistaldien interpretazioa baldintza bakar batera mugatu nahi izan dutenak ugari izan dira, baina gaur egun nahiko zaila gertatzen zaigu ulertzea euskal lurraldeetako jendetza borrokara joan izana, erabat ezezagun zuten gizon baten espainiar trono-eskubideak defendatzeko soil-soilik. Arrazoi nagusia erlijioa bazen, nola ez zen horren aipamenik egin Bergarako Itunean, edota 1839ko urriaren 25eko legean?[709] Beste batzuen ustez, txiroen eta aberatsen arteko gerra izan zen, non txiroak liberalismoaren alde altxatu ziren, eta aberatsak karlismora atxiki. Hala eta guztiz, espainiar nobleziak ia oso-osorik, are euskal nobleziak berak ere, gobernuaren alde jardun zuten betiere, gaur ongi dakigun bezala. Nekazari-munduaren eta hiri-munduaren arteko gatazkari buruz, frogaturik dagoenez, nekazari lur-jaberik ahaltsuenak alderdi isabeldarrari lotu zitzaizkion, eta zenbait hiritan sektorerik behartsuenek, berriz, karlismorantz jo zuten. Horri lotuta, desamortizazioaren fenomenoa ere aipatu izan da, kaltetuak karlismoaren alde jarri zirela argudiatuz, eta pribatizatutako lurren erosleak, liberalismoari atxiki; baina, desamortizatutako lurren erosleen artean karlista ezagunak ere aurkitzen dira, eta zenbait herritan, gehiengoa gainera. Azkenik, karlistaldiak foruetan gordetzen zen euskal izaeraren defentsan altxaturiko matxinada armatu gisa hartzen dituen teoria bera ere ez dugu ahantzi behar. Izan ere, "*Bakea eta Foruak*" lema izan zen Bergarako Besarkadaren leloa. Hala ere, euskal liberalismoa foruen aurka bainoago foruak berriztatzearen alde zegoela esatea egokiago iruditzen zait; beste aldean, gobernu absolutistek lehenengo, eta karlistek geroago, hamaika "*contrafuero*" burutu zituztela gauza jakina da. Gainera, karlistek defendatzen zuten foruzaletasuna erregearen aginte absolutuan oinarritzen zen, eta aukera horrek foru-herrialdeen askatasuna bermatzen zuen neurrian, mendekotasunaren jarraipena suposatzen zuen espainiar herriarentzat[710].

709. Blasco Olaetxearen ustez: «… en 1833 (…) el móvil de la insurrección fue la cuestión dinástica, con las x connotaciones culturales, políticas y económicas y sobre todo religiosas que ésta implicaba y terminó siendo una guerra en la que el papel de los Fueros fue principal, como se ve en el Convenio de Vergara» (Blasco. 1982: 132).

710. «Este no cuestionamiento claro del absolutismo es una constante en la argumentación foralista, que habla de las libertades vascongadas, al margen del Régimen general del Reino» (Garcia Ronda, 1991: 41).

Barcenillak eta Gonzalez de Garaik maisutasunez laburbildu dute faktore horien guztien eragina: «Gaur egun, ezin uka daiteke mugimendu karlista oso konplexua izan denik, ez eta, arestira arte egin ohi izan diren azalpen erredukzionista horiek karlismoa esplikatzeko baliorik ez dutenik. Izan ere, aipaturiko guztiak, zatika bada ere, hartu zuen esku mugida karlista hartan. Don Carlos eta bere kamarilak, Madrilen tronoa konkistatzeko helburu estrategikoaz zuzendu zuten gerra. Alderdi karlistan, katolikotasunaren defentsa izan zen, zalantza izpirik gabe, propaganda-motiborik nagusienetariko bat. "Bergarako Besarkada" eta, horrekin batera, gerratearen bukaera bideratu zuen programaren funtsetatik bat, Foruen iraupena izan zen. Azkenik, matxinadari atxikitzeko, Penintsulako nazio desberdinetatik eskuratuko erantzun diferentea ere, adierazgarri zaigu: Euskal Herrian, beste herrialdeetan ez bezala, arazo politikoenganako halako sentsibilitate berezia zetzala dirudi. Izan ere, euskal probintzietan, altxamendu karlistaren zergatia gizarte mugimendu desberdinen arteko elkarketaren bidez adieraz daiteke (zeinak bere balio eta motibazio bereziekin). Funtsez, nekazariek osaturiko herri-matxinadari lotu zitzaizkion hiriko biztanleriaren behe mailako sektoreak; horrekin batera, beren boterearen tradiziozko oinarriak arriskutan jartzen zituen erregimen liberalaren aurka, nekazal buruzagi edo aitzindariak eta apezeria orobat, altxa egin ziren. Hauek bat eginik, Espainiako tronora D. Carlos eraman nahi izan zuten absolutista konspiratzaileekin. Azkeneko hauek dira gure ustez, merezimendurik handienaz karlista dei ditzakegunak» (Gonzalez de Garai eta Barcenilla, 1990: 75-76)[711].

Ikuspegi hau bat dator Jose Urrutikoetxearenarekin: «Ez da karlismo bakar edo bakun bat gertatzen. Era askotako "karlismoak" ditugu eta hasieratik hau kontuan eduki behar genuke». Eta segidan: «Testuinguru geografikoa dela eta, zera esan beharra dago: Karlismoa Estatu osoaren problema dela. XIX. mendeko Liberalismoa eta Karlismoa Estatu osoan gertatzen diren gorabeheren ezaugarri nagusiak ditugu. Baina, nahiz eta hau egia izan, aitor dezagun Karlismoak konkretuki Euskal Herrian inon baino garrantzi handiagoa duela» (Urrutikoetxea, 1984: 10). Izan ere, Karlos V.ak ez zituen aintzakotzat hartu foruak, harik eta Zumalakarregik aipatu zizkion arte (Ugarte, 1991: 279), gerra hasi eta bost hilabetera. Ordurako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariek Ormaiztegiko buruzagiaren nagusitasuna onartua zuten, gerraren lehen fasean jasandako porroten ondoren, armetan jarraitzen zuen bakarretarikoa zelako. Zumalakarregi bere jakituria militarraz baliatu zen, ezerezetik armada bat sortzeko: alde batetik, bere gerrillara bildutako baserritar, artisau, langabetu, etab. soldadu bihurtu zituen; bestetik, armak eta jantzi egokiak lortu; ondoren, horniketa eta informazio-sare bat eratu; eta azkenez, okupatzen zituen lurraldeak babesteko sistema militar bat egituratu. Guztia maisutasunez egin zuen, eta liberalak Ebro ibaiaren bestaldean zituela, Bilboko setioan izterrean jotako bala batek eragindako zauria zolitu, eta hil egin zen (1835-6-24).

711. Karlismoari buruzko euskarazko bibliografia oso urria da, eta liburu hau gutxi horietariko bat.

EIBAR, LIBERALEN UHARTEA

Gerraren hasiera

Fernando VII.a hil baino pare bat hil lehenagotik Eibarko udal-akta liburua etenda agertzen zaigu, eta 17 orriko hutsunearen ostean[712], Gabon zahar egunekoa dugu hurrengoa, 1834ko udalkideak izendatzeari buruzkoa, hain zuzen. Hautaketan soilik 27 auzokidek parte hartu zuten, udalkideak barne, eta karguak aurreko urteetako sistemaren arabera berriztatu ziren. Karlisten altxamendua hasita zegoen ordurako, eta liberalek «… Gaspar Jáuregui ecarri zuten Pranciatic, eguneco sei errial bacoitzari ematen dien columna bateco gendiarequin perseguitzeko menditarrak. Columna orrec 400 guzonecoac (sic) izan bear omendu, baña guchi alistatzen dira, eta Donostian ceuden presidiaroeire armac eman omen dizte servicio orretaraco» (Lecuona, 1962: 369). Bere zutaberako boluntario bila, Jauregik ostera bat egin zuen Gipuzkoako herrietatik, eta gehienetan emaitza kaskarrak lortu arren, Eibarren pila bat boluntario aurkeztu zuen bere zutaberako[713]: eskura ditugun datuen arabera, Jauregiren zutabeak zituen 271 soldaduetatik (Lasa, 1973: 269, 270) 180 eibartarrak ziren[714], hau da, hirutik bi. Ikusten denez, Hirurtekoan bezalaxe, inguruko herriekin alderatuta eibartarrek liberalismoaren aldeko jokabide aparta agertu zuten hasiera-hasieratik. Egunero kobratzen zituzten seina errealez gain, eibartar gaztedia tropelean Jauregiren aginduetara jarri izanak islatzen du aspaldiko loturak (1812ko sarea) bizirik zirauela.

Ordurako gerraren eragina sentitzen hasiak ziren Eibarren: abenduan herriko hornitzaileak —Francisco Betolazak— gerra-diputazioaren aginduz, zenbait ganadu hil eta 120 balde bete haragi prestatu behar izan zituen bertatik igaro behar zuten soldaduentzat, baina azkenean tropelak beste norabide bat hartu zuenez haragia herritarrei saldu behar izan zien udalak, erositakoan baino prezio merkeagoan, eta gainera saldu barik gelditu ziren 36 balde usteldu eta herriaren aurrean erre zituzten[715]. Gestio horrek 1.058 errealeko defizita eragin zion udalari, eta horregatik, bertatik igarotzen ziren tropen horniketa erematera ateratzea erabaki zuen

712. 17 orriko hutsune honek, argitzen digunez, eskribauak aktaren zirriborroak momentuan hartzen bazituen ere, akta liburura hil batzuk beranduago pasatzen zituen. Oraingo honetan, Gabon zahar egunean oraindik bere lana egiteko zeukanez, orriak zurian utzi zituen geroago betetzekotan. Baina, ez zuen horretarako astirik izan antza, eta horrela gelditu dira. Beste batzuetan, eskribauak gero eta letra txikiagoarekin idatzitako aktak aurkitzen ditugu, idatzi beharrekoa orri jakin batzuetan sartu beharra izango balu bezala, EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-1-4. Hurrengo aktak argitzen digunez, errejimentua ere biltzen zen, hau da, udalkide hutsak auzokideen presentziarik gabe, baina bilera horien aktarik ez da gordetzen.

713. «Jáuregui había hecho un recorrido por diversos pueblos Elgóibar, Eibar, etc., consiguiendo que muy pocos se alistasen, y que la mayoría eran de Eibar» (Lasa, 1973: 270).

714. Gaspar Urreta liberalak Zabala gerrillari karlistari emandako erantzunean zioenez, Eibarko gaztedia «… en número de ciento ochenta, está batiéndose por dos reinas en la columna del brigadier Jáuregui desde que en Octubre pasado…» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-7-28.

715. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-1-6.

urtarrilaren 4an. Ordurako, udalkideek ziotenez zeharo lanpetuta zebiltzan, gerra-egoerak sortutako premia ugariei erantzun ezinik[716].

Karlisten erasoak

Uste baino lehen izan zuten gerrillari karlisten lehen bisita. Urtarrilaren 8an, gaueko 11:30ak aldera, Bizkaia aldetik etorritako gerrillari karlistek Felipe Argiano alkatea bere etxetik atera eta udaletxera eraman zuten, udalaren diru-kutxatik 8.000 erreal ordaintzeko exigituz. Udaletxean dirurik ez zegoenez, Argianok herriko biztanle batzuei deitu zien aguazilaren bidez, «… a quien siempre seguia uno de los armados». Horiez gain, eliz kabildoko kideak ere abisatu zituzten, «… con el loable obgeto, de que con su respecto y autoridad los contubiesen o contribuyen a que no cometieran algun atentado y cooperasen hacer alguna rebaja de la cantidad que pedian»[717]. Guztien artean bildutako 7.000 errealak eskuratuta alde egin zuten gerrillari karlistek, eta dirua jarri zutenei hurrengo bi zergetatik lortutako diruarekin ordaintzea erabaki zuen udalak. Horrez gain alkateari zaintza berezia ezarri zioten, bere konfiantzako lau pertsonak osatua. Otsailaren 16ko aktak zehazten digunez, zaingoa lau pertsonak osatu zuten eta hiruna erreal kobratzen zuten gau bakoitzeko. Eibartarrek jasandako lehen eraso hau Bizkaia aldetik bazetorren ere, herritarren informazioa beharko zuten alkatea nor zen eta non bizi zen jakiteko, informazio hori borondatez edo behartuta eman zieten jakiterik ez daukagun arren.

Uztaileko erasoa gogorragoa izan zen, baina oraingo honetan eibartarrak ez zituzten susunkordan harrapatu. Hilaren hasieratik hirigunea gotortzen hasiak ziren[718], eta Zabalaren soldaduek —Hirurtekoan Eibar eraso zuen monarkikoa, karlista bihurtua— herriko kaleak zapaldu zituztenean, etxe guztietatik irtendako tiro zaparrada batek[719] 16 hildako eta 60tik gora zauritu eragin zizkien, alde egitera behartuz. Zabalak, orduan, gutun bat bidali zien Eibarko agintariei, errenditzen ez baziren herriko etxebizitzak suntsitzeaz gain, soldaduei laguntza ematen zieten herritarrak zigortzeaz mehatxatuz. Erantzuna Gaspar Urrietaren eskutik etorri zitzaion, eibartar guztien izenean, karlisten aurkako mezua barik bizkaitarren aurkakoa zirudiena, karlistek atzera egitean hiru-lau etxe erre zituztela salatuz, honela baitzioen: «… si otra vez es incendiado algún edificio de la jurisdicción de Eibar, el desquite ocupará páginas en la historia, porque arderá toda la Vizcaya, sin que

716. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-1-4.

717. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-1-12.

718. Francisco Gisasola Eskaregik zioenez, «… se ocupo en proporcionar carreteros para conducir la piedra necesaria para las fortificaciones desde primero de Julio hasta el cinco del corriente en que fue preso por los facciosos que le han tenido hasta el veinte y seis del presente mes en que le pusieron en libertad» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-31.

719. Zabalak berak onartzen zuenez: «… habiendo penetrado mis soldados hasta esas calles sin que impidiese el fuego horroroso que se les hacía por los rebeldes y el vecindario de todas las habitaciones, a las que se habían refugiado para ofendernos con mas facilidad» (Mugica, 1990: 50).

se capaz de impedirlo esa inmensa chusma de hotentotes»[720]. Urrietak behintzat, ondo ahaztuta zeuzkan 40 urte lehenago eibartarrek Bizkaiko Jaurerriari esandako hitzak —«… esta villa, borrará jamas en ella el agradecimiento y buena correspondencia para con dicho MN y ML Señorio»—, beharbada ez zelako eibartarra[721].

Urrietak zioenez, karlistek bidegabekeriaz jokatu zuten, «… saqueando primero por valor de medio millón de reales, y luego incendiando totalmente el almacen preciosa casa del señor don Manuel de Celaya, el caserío de Legarra, el palacio del señor conde de Oñate y los talleres cercanos» (Mugica, 1990: 51). Erretako ondasunen artean, Juan Ramon Aranarenak zeuden, «… vecino propietario de esta villa (Bilbo) y Comandante de la Milicia Nacional». 1837an, Aranak kalte-ordainak eskatu zituen, eta Manuel Arrieta eibartarrari deitu zioten lekuko legez. Arrietak zioenez karlistek «… incendiaron varios edificios siendo dos de ellos del citado Sr. D. Juan Ramon de Arana nombrados de Isasi (…) edificio renovado de nueva planta con catorce habitaciones, y otro caserio que se llama Legarza»[722]. Legarra eta Legarza baserri bera badira, Juan Ramon Arana, Oñatiko kondea izan behar zen.

Arrietaren testigantzak ñabardurak eskaintzen dizkio Urrietaren bertsioari, Zabalaz gain, Valdespinako markesak Eibarren aurkako erasoan parte hartu zuela gehituz. Horrez gain zehaztu zuen karlistek eraikinon erreketak herria erasotzen ari ziren bitartean burutu zituztela, eta ez atzera egitean[723]. Beraz, porrotaren ondorioz hartutako mendeku bat baino gehiago, eraikinon erreketak aurreikusitako estrategia bati erantzuten ziola esango nuke, liberal sutsuak eta aberatsak bereziki zigortzekoa. Juan Ramon Aranak bi ezaugarri horiek betetzen zituen, Oñatiko kondea izateaz gain, Bilboko Milizia Nazionalaren komandantea zelako. Aranari Eibarren Isasiko baserria, palazioa eta burdinola erre zizkioten karlistek, baina Arrietak behintzat ez du inolako lapurretarik aipatzen. Beste kaltetua —Manuel Zelaia—

720. Bizkaitarren aurkako pozoia dario idatzi guztiari: «… ya vimos y experimentamos ayer hasta qué punto llega el valor de las hordas vizcaínas y del cabecilla vizcaíno que las acaudilla. Ni contábamos con los rebeslde vizcaínos hiciesen más, ni estos debían soñar en que nosotros hiciésemos menos. Doce años há que fue atacada esta villa pro igual enjambre de vizcaínos con el mismo cabecilla» (Mugica, 1990: 51).

721. Eibarko akta-liburuan Gaspar Urretari buruz aurkitu dudan aipamen bakarra, hiru hilabete geroagokoa da. Hauxe dio: «… ha hecho algunas representaziones en nombre de esta villa sin la debida autorizacion y conocimiento titulandose su apoderado (…) semejante procedimiento amas que lastima el oro de la villa puede ocasionar consequencias desagradables si se dá lugar, a otra nuebas acordó se le pase oficio». Beraz, emandako boterea kendu egin zioten Urretari «… para evitar todo gasto infructuoso» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-10-7.

722. BFA, JM, 1397/019, «Juan Ramón de Arana (…) solicita información de testigos sobre el incendio de la casa de "Isasi" por los facciosos», 1837-07-06.

723. «… mientras unos facciosos y partidas de ellos estaban atacando al pueblo que se defendio heroicamente entre otros de los mismos facciosos incendiaron varios edificios siendo dos de ellos del citado Sr. D. Juan Ramon de Arana», BFA, JM, 1397/019, «Juan Ramón de Arana (…) solicita información de testigos sobre el incendio de la casa de "Isasi" por los facciosos», 1837-07-06.

Teresa Ibarzabalekin zegoela ezkonduta jakiteak indartzen du liberal esanguratsuen aurkako erasoaren susmoa[724], azken horrek Gabriel Benitorekin zuen senidetasun-harremana zehazterik lortu ez badugu ere. Juan Maria Gardoik —bigarren lekukoak— zioenez bere begiekin ikusi zituen erreketok, Isasi baserriko hamalau gela horietako batean bizi baitzen. Baserri handi horri su eman aurretik gainera, bere emaztea lotuta utzi zuten bertan, «… para que tambien pereciese en ella, pero que por casualidad habiendose acercado a sus clamores un oficial de ellos la soltó poco antes de que fuese víctima»[725]. Horrek ere ez zuen lapurreten aipamen txikienik egin.

Urrietaren gutunera bueltatu behar gara, hirigunearen defentsarako hartu ziren neurrien berri jasotzeko. Gazterik gehienak Jauregiren zutabean zeudenez, herriaren babesa 250 biztanle eta 200 soldaduren esku gelditu zen. Baina hirigunearen defentsan azpimarragarriena herritarren parte hartzea iruditzen zait. Urretak zioenez, «… estamos armados todos los hombres desde los 14 hasta 70 años. Que también lo están cien heroinas. Que las restantes saben cargar el fusil mejor que Zabala» (Mugica, 1990: 51). Datu horiek egiaztatu ditugu. Umeen kasuan, Bernardo Senosiain komandanteak 13 urtetik gorako mutikoen konpainia osatzea agindu zuen, «… a quienes tambien se les ocupara con consideracion a su tierna edad»[726]. Emakumeei dagokienez, batailoi propioa osatzeko baimena eskatu zioten erreginari, uztailaren 26ko erasoan fusila erabiltzen bazekitela frogatu zuten-eta[727]. María Cristinak eskatutako baimena eman zuen ala ez, baina bai herria zoriondu zuela Zabalaren aurrean erakutsitako ausardiarengatik[728]. Emakumeen parte-hartze

724. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta, vecinos de la villa de Eibar y Elgoibar por el transporte de una parte de quintales de hierro a los enemigos y fraude de ocultacion de los que se encontraron en sus propias cajas. Juez Comisario Vigilancia Pública de Eibar», 1836. 1834ko azaroan Manuel Zelaiak 20.829 erreal ordaintzea eskatu zion Eibarko Udalari, bere fabrikako burdina gotorlanetarako eman baitzuen. Burdina horrekin bi kainoi egin zituzten, "cureña", bala eta guzti, 2.108 errealen baliokoa. Zelaiak zioenez «V.S. no desconoce el estado abatido y ruinoso a que ha quedado reducido el esponente por efecto del saqueo e incendio que sufrieron su casa y almacenes de parte de la faccion carlista de Vizcaya». Udalak Zelaiari ordaintzeko 10.000 errealeko mailegua eskatu zuen, % 5eko korrituekin. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-11-10

725. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti…», 1836.

726. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-24.

727. Eibarko emakumeen eskakizuna Gaspar Urretak eraman zion Maria Cristinari «… solicitando organizarse en un Batallon para continuar como hasta aquí ayudando a la defensa de esa villa». Erreginak baimena eman zien, zeren «… la presente solicitud de las Eybarresas recae sobre la demostración practica que han hecho ya de que saben con las armas en la mano desmentir la debilidad de su sexo habiéndolas manejado ya bizarramente a la defensa de esa villa del 26 de Julio» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-10-7.

728. «… la Reyna Gobernadora ha visto con satisfaccion la conducta de la Guarnicion y Pueblo de Eybar en la accion sostenida contra la Faccion de Zabala que oso atacarlo, y quiere que se den gracias en su Real nombre al Gobernador y a quantos tubieron parte en la defensa» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-24.

zuzenak borroka armatuan, Eibarren pentsamolde liberalak zeukan garapen izugarria adierazten digu, emakumeak ideia berriez bustita eta horiek defendatzeko prest agertzen direlako, ez soilik karlisten aurka, baita, ziur aski, beraien senar eta gurasoen iritziaren aurka ere, nahiz eta horiek ere liberalak izan. Tamalgarria da 100 emakume haien nortasunak ez ezagutzea, ezta beraiengandik jasotako testigantzarik gertakizun honi buruz[729]. Emakumeek osaturiko talde armatuei buruz aurkitu dudan lehen aipamena da. Lekeition ere eratu zen bat "*antiguas cantabras*" deiturikoa, baina soilik zaurituak zaindu eta munizioak garraiatzeko[730].

Uztailaren 26ko porrotaren ostean karlistak Eibar inguruetan gelditu ziren, abuztuaren 5ean gotorlanetan zebilen Francisco Gisasola gurdizainaren atxiloketak adierazten digun bezalaxe. Abuztuaren 8tik 18ra hirigunea setiatuta eduki zuten, eta gainera biztanleriak Eibar zaintzen zegoen goarnizioa hornitu behar zuen[731]. Abuztuaren 10ean baliabideak agortzen zihoazela-eta, herriko komandante militarra jakinaren gainean jartzea erabaki zuen udalak, horniketen zama inguruko herrien artean banatzeko eskatuz. Itxura denez, Jauregiren etorrerak karlistak uxatu zituen, eta bere gidaritzapean Eibarko boluntario liberalen aldeko neurri onuragarriak hartu ziren, batik bat, horniketa-zerbitzuen zergatik libre uztea[732]. Eskribauak euskarara itzuli behar izan zuen ofizioa «… para que nadie pueda alegar ignorancia», eta bertan zehazten zenez, ordutik aurrera gudarosteei eman beharreko horniketa guztien ardura urbanoen milizian izena ematen ez zutenen artean banatuko

729. Gregorio Mugicaren ustez, baimena lortu arren emakumeen batailoia ez zen eratu azkenean, hari buruzko datu gehiago ez aurkitzeaz gain, «… los ancianos eibarres contemporáneos de los sucesos que narramos afirman unánimemente no tener noticia de la existencia de aquel batallón» (Mugica, 1990: 54). Mugicaren liburua 1908an argitaratu zela kontuan hartuta, lekuko horiek ia 90 urte izan behar zituzten. Juan San Martinek Mugicaren gauza bera errepikatzen du, hitzez hitz, (San Martin, 1979: 256).

730. Lekeition eratu zen *antiguas cantabras* konpainiaren eginkizuna «… será el proporcionar a los bravos defensores de nuestra angelical reina que yacen postrados en los lechos a resultas de heridas y enfermedades (…) los esmerados auxilios y delicado cuidado que reclama la unidad doliente» eta soilik beharrezkoa izanez gero, «… la conducción de municiones y otros servicios análogos a su sexo» (Pirala, 1984a: 494). Karlistek Lekeitio hartu zutenean: «Las urbanas, como casi todos los más comprometidos, marcharon a San Sebastián, excepto unas trece, a quienes Eguía exigió 320 reales para gastos de guerra» (Pirala, 1984b: 471).

731. Nicolas Uriarte, ardoaren errematatzaileak kalte-ordainak eskatu zizkion udalari, zeren «… desde el dia ocho al diez y ocho del mes de Agosto de este año en que falto el vino en la provision por el bloqueo que sufrio esta villa por toda la faccion de Vizcaya (…) en trece dias falto el vino en la provision» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-11-1.

732. «Gral. y Gefe del Exercito de operaciones del Norte de España»k emandako ofizioak zioenez: «… deseando alibiar a esta benemerita clase en cuanto pende de mis atribuciones he determinado que por ahora y mientras no cesen las actuales circunstancias de sus tareas militares se les exima de contribuir con raciones tanto a los que ahora existen como a los que en lo succesibo ingresaren» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-24.

733. «… todas las raciones con que esta villa deba contribuir a la fuerza armada, las pagaran y se cargaran unicamente a los individuos que no esten insertos en la milicia urbana» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-24.

zen[733]. Neurri hori, hirigunetik kanpo bizi zirenen aurkako zigortzat jo dezakegu, karlistek menderatzen zituzten inguruetako biztanleentzat oso arriskutsua baitzen milizian parte hartzea. Egindako kalkuluen arabera, boluntarioen % 10 baino ez zetorren landa-mundutik[734].

Hirigunekoek, ordea, masiboki eman zuten izena, «… constandome que muchos individuos de este heroico vecindario no se alistan, porque les consta que no hay fusiles a repartir». Horiek, adina edo osasunarengatik mugikortasun askorik ez zeukatenekin batera, "*urbanos pasivos*" deituriko taldea osatu zuten, «… que no daran servicio alguno ordinario y que solo usaran las armas en los momentos de absoluta necesidad». Hilabete eta erdi geroago, José Ignacio Ibarzabal eta Miguel José Etxeberriak, «… capitanes de las compañias de tiradores voluntarios de esta villa, a nombre de los individuos que las componen», eguneko erreal bina eskatu zituzten Eibarko boluntarioen familiak mantentzeko, lanik ez zegoen bitartean[735]. Udalak erreal bana ematea erabaki zuen. Neurri hauekin boluntarioen errolda ugaritu nahi zen; eta bai suspertu ere!

1835eko Armatutako Milizianoen zerrenda

GAOn aurkitutako txosten interesgarri batek Eibarko milizia armatua 479 lagunek osatu zutela argitzeaz gain, haien nortasunak eskaintzen dizkigu[736]. Hirurtekoan boluntarioen kopurua 230ekoa izan zela kontuan hartuta, 10 urteko epean kopurua bikoiztu egin zela dakusagu, gehi emakumeak, eta beharbada Jauregiren zutabean zebiltzanak. Zerrenda horretan, lan-arrazoiengatik herritik kanpo zeudenez gain, Karlos V.aren aldeko gudu-taldeetan zebiltzan 25 lagunen nortasunak agertzen dira. Eta kontuz: bakar baten helbidea ezagutzen dugu, eta bera —Isidro Odriozola— hirigunean bizi zen; horrez gain, II. Karlistaldian liberal sutsua izango zen Maria Angeles Agirregomezkortaren senarra ere —Francisco Zuloaga— zerrendan aurkitzen dugu.

Zerrenda oso baliagarria dela deritzot, Eibarko liberalismoaren prosopografia kolektiboa egiteko orduan, estreinakoz, boluntarioen nortasunak ezagutzen ditugunez, beste datu batzuekin alderatu ditzakegulako. Hurrengo taulak horretarako balioko digu.

734. Zorionez Eibarko urbanoen milizian parte hartu zutenen nortasunak aurkitu ditugu, eta horietatik 95i buruz auzoetan ala hirigunean bizi ziren dakigu. Informazio hauek kontrastatuz, 95 horietatik 85 hirigunean bizi zirela ikusi dugu, eta soilik 10 baserrietan.

735. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-10-7.

736. GAO, Ca 205,1. Zerrenda osoa kapituluaren bukaerako 2. eranskinean aurkitzen da.

1835eko boluntarioak	Guztira	Armaginak	Udalgileak	Zerga 1842
Armatutako urbanoak	476	172	66	80 (200,5)
Getarian babestu zirenak	9	1	2	9 (225)
Herritik kanpora	21	2	13	6 (227,7)
Karlos V.aren aldekoak	25	0	0	1 (200)
Guztira	531	175	81	96 (208,2)

Zerrendan agertzen zaizkigun kideen % 5 karlistak badira ere, ez dugu % 5 horren presentziarik nabaritzen armagin, udalkide edota 1842ko zerga ordaindu zutenen artean. Ordaindutako zergaren batez bestekoan parekatuta agertzen dira boluntario liberalak eta karlistak, azken horien lagina pertsona bakarrak osatzeak konparaketaren fidagarritasuna zeharo makaltzen duen arren. Baina 1842ko zerga ordaindu zutenen kopuruak aztertzen baditugu, armatutako urbanoen artean seitik bat lur-jabea zela konturatzen gara, eta boluntario karlisten artean 25etik bat. Beraz, lur-jabeek, oro har, liberalismoaren alde egin zutela esan dezakegu, desjabetuek karlismorantz jo zutelarik. Desjabetuak nekazariak ziren ala ez ezin jakin. Armaginak ez zirenez, nekazariak izango zirela ondorioztatzea tentagarria da. Baina irizpide horri jarraituz, hiru urbanotik bi nekazariak zirela onartu beharko genuke, hirutik bakarra zelako armagina. Zehaztasun gehiago izango genituzke, armaginen multzoan maisu eta ofizialen kopuruez gain, ikasle eta kualifikatu gabeko langileenak ezagututa. Eskuratu datuen arabera egiazta dezakegun gauza bakarra hauxe da: urbanoen artean hirutik bat armagin kualifikatua zela, eta karlisten artean 25etik, inor ez! Udalgintzan izandako parte-hartzeari dagokionez, zazpi milizianotik bat udalkide izan zela dakusagu, eta karlisten alderdian, 25etik bat ere ez. Beraz, oro har, ondorioztatu beharra dago Eibarko boluntario karlistak kualifikatu gabeko langileak, udaletik baztertuak eta desjabetuak zirela.

Arlo militarrari dagozkion datu hauek liberalismoaren arrakastaren berri ematen badigute ere, arlo politikoan badago eibartarren konstituziozaletasuna zalantzan jartzen duen puntu bat. Ikusi denez, 1831ko batzarretan aduanen kontura izandako eztabaidaren geroztik, Donostia eta Gipuzkoaren arteko harremana zeharo kaskartu zen. 1834ko Batzar Orokorretan, Donostiak eta Pasaiak María Cristina erreginaordeak onartu berria zuen "*Estatuto Real*" sinatzea eskatu zioten herrietako ordezkariei. Eztabaida piztu zen: Donostia eta Pasaia inolako murrizketa edo ñabardurarik gabe onartzearen alde azaldu ziren, beste guztiek —horien artean Eibarko ordezkariek— "*Estatuto Real*" delakoak foruaren galbahea igaro behar zuela uste baitzuten. Eztabaida horren ostean Donostia eta Irunek Batzar Orokorretan parte hartzeari uko egin eta euren kontura jarduten hasi ziren, harik eta 1847an itzuli ziren arte[737]. Konstituzionalisten eta foruzaleen arteko ika-mika horretan,

737. Portillok dioenez 1834ko Tolosako Batzar Orokorretan «… se plantearon dos concepciones irreconciliables (…) dos ideas tan enfrentadas de la foralidad que no tuvieron más remedio que, desde entonces y por un periodo de trece años, permanecer separadas» (Portillo, 1987: 82).

Eibarko liberalek bigarrenen alde egin izana arraroa da; kokapen geografikoak baldintzatutako erabakia ez bazen izan —Donostiak eta Irunek itsasoa zeukaten isolamenduari aurre egiteko—, Eibarko liberalak uste dena baino foruzaleagoak ziren. 1831ko Batzar Orokorretan ere, aduanen kokapena mantentzearen alde agertu izanak, hipotesi hau indartzen du.

Gudarosteen horniketak

Boluntario liberalen —"armatutako urbanoak"— horniketak talde horretako kide ez ziren herritarrek ordaindu behar bazituzten ere, armada erregularraren gastuei aurre egitea herritar guztien ardura zen. 1834ko martxoan Jose Ramón Bergarak, erreginaren —María Cristinaren— zein karlisten gudarosteei emandako horniketen kontuak aurkeztu zizkion udalari[738]. Bergarari ordaintzeko, udala 20.000 errealeko mailegua lortzen saiatu zen, sakristauaren etxea, harategia eta eskola eskainiz berme bezala; baina mailegu-emaileek «… querian que ademas de las hipotecas que ofrecia la villa se constituyesen los vecinos concejantes por sus fiadores mancomunados e insolidados y que en su defecto no lo harian»[739], eta udalak, baldintza hori ere onartu egin behar izan zuen. Uztailean, defizitari aurre egiteko 6.000 errealeko zerga ezarri zien lur-jabeei, eta 3.000koa "*foguera*"ri, hau da, jabeak izan ala ez, eibartar guztien artean banatzekoa[740]. Abuztuan, garraiozerbitzuan izandako gastuak ordaintzeko, 1.116 errealeko zerga banatu zen; eta ordaintzen ez zutenen zuloa betetzeko, % 4 jabetzari, % 4 "foguera"ri eta % 4 merkataritza- eta industria-jarduerei eta kleroari eskatzea erabaki zen, «… bajo el apremio militar a los morosos»[741]. Egun berean, ekainetik abuztuaren 24ra bitartean horniketen arduraduna izandako Fco. Zuluagak 68.672 errealeko kontua erakutsi zuen. Horrek ere karlistei eginiko horniketak barne hartzen zituen.

Azaroan, diputazioak mailegu bat eskatzeko baimena eskatu zien herriei, "foguera"z gain, zeharkako zergak bikoiztea proposatuz. Eibarrek ez zekienez diputazioak zenbateko mailegua eskatu behar zuen, ezta zertan erabiliko zuen lortutako dirua «… acordo que se diga a la Provincia que suspende esta villa su voto entretanto logre tan justas satisfacciones», Lege Zaharrean oinarrituz zeharkako zergak bikoiztearen aurkako jarrera[742]. Urbanoak ere, horniketen zama inguruko herrien artean banatzea erabaki bazuten ere, estu eta larri zebiltzan anoak lortzeko

738. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-3-8.
739. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-3-25.
740. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-7-25.
741. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-31.
742. «… de ningun modo consentira se recarguen los vinos, no con un doble de derechos que ni tampoco con un mrv (…) puesto que la amarga esperiencia demuestra que tal medio con impuestos es util unicamente a una porcion de arvitristas que amas de que con la ruina de esta parte de pueblos engrosan sus volsillos han hecho producir con sus planes ambiciosos el fatal sistema de recaudacion que rije tan perjudicial como arvitrario y tan degradante al pais como opuesto a sus libertades de que con razon se hace tanto alarde» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-11-13.

orduan[743]. Izan ere, ez zen batere erraza 800 lagunen jana eta edana bermatzea[744] karlistek inguruak mehatxatzen zituzten bitartean. Eztabaida luze baten ostean, anoak Eibarrek berak aurreratzea adostu zuten udalkideek, hilabeteko txanda ezarriz auzo bakoitzarentzat.

1835eko otsailean Gaspar Jauregik aginduta, Elgoibar, Deba, Mutriku, Markina, Xemein eta Ziortza barne hartzen zituen barrutiko batzorde militarra eratu zen[745], Julian Kortesena, Francisco Ibarzabal, Pedro Atristain eta Jose Maria Alberdik osatuta[746]. Barruti militarreko burua Eibar izan zenez, gerratean zehar berak aurreratu behar izaten zituen gainerako herrien hutsegiteak, eta horrekin batera, Eibarko milizia arduratzen zen herriz herri joanda anoa horiek biltzeaz. Eginkizun hori istilu ugariren iturri bihurtu zen Eibarko miliziarentzat, horien artean ezagunena Ziortzako abadeen bahiketa. 1835eko martxoaren 13an, goizaldeko laurak aldera, Eibarko urbanoek Ziortzara ailegatu, eta bertoko abade nagusi eta kanonikoak preso hartuta Eibarrera eraman zituzten, Ziortzak ez zuelako ordaindu elizaurreari zegokion anoa kopurua. Bi astetara kolegiatako biztanleen ordezkaritza ailegatu zen Eibarrera, eta barrutiko militarreko batzordeak jakinarazi zienez elizgizonen askatasuna lortzeko 22.808 erreal ordaindu behar zituzten, zorretan utzitako ogi eta ardo anoen truke. Horrez gain, 1.400 errealeko isuna jarri zieten. Ziortzako Udalak, bildu ostean, 26.381 errealeko mailegua eskatu behar izan zuen, lau urtetan ordaintzekotan. Barruti militarreko batzordeak bere aldetik, jasotako dirua Francisco Beiztegi hornitzaileari ordaindu beharrean, zuzenean miliziano eta soldaduen artean banatu behar izan zuen, haien eskakizunak premiatuta[747]. Beiztegik ez zuenez kobratu, horniketen ordainagiriak ukatu zizkien ziortzarrei, eta gerraostean auzi luze bat mantendu zen bi udalerrion artean, azkenean eibartarrek galdu zutena, «… por no haber podido los referentes dar con las ordenes (…) que declaraban comprendida a la Ante Iglesia de Cenarruza en el distrito de esta villa»[748].

743. «… los pueblos del districto no cumplian con sus contingentes de raciones, y por consiguiente los urbanos carecian de ellas hace dias, y habia justos clamores, y que no pudiendo él por la proximidad de la faccion durante este tiempo de carencia estender sus medidas ejecutibas contra los morosos…» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-11-10.

744. BFA, Bilbao Sección Segunda, 0098/012 (1842), «Expediente tramitado por el Ayto. de Cenarruza (…) por el rescate del abad y canónigos de la Colegiata de Cenarruza, detenidos por la Guardia Urbana y trasladados a Eibar».

745. Beste agiri batzuetan Ondarroa eta Berriatua ere barrutiko partaide legez agertzen dira. Ermua, ordea, Durangoko barrutian zegoen. BFA, Municipal Bilbao Sección Segunda, 0098/012 (1842), «Expediente tramitado por el Ayto. de Cenarruza (…) por el rescate del abad y canónigos de la Colegiata de Cenarruza, detenidos por la Guardia Urbana y trasladados a Eibar».

746. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-5-29.

747. Felipe Argiano alkateak argitu zuen gertatutakoa; hori bai, urte batzuk geroago: «La villa de Eibar que era una de las acreedoras a Beistegui por el importe de las raciones que subministro de pan y carne en veinte y seis dias por cuenta de los demas pueblos del distrito, como tambien el Batallon de Urbanos y la tropa del Provincial de Obiedo que guarnecia la plaza pidieron a la Junta oficialmente se les repartiese el dinero, sin entregarselo a Beistegui», BFA, Bilbao Sección Segunda, 0098/012 (1842), «Expediente tramitado por el Ayto. de Cenarruza…», 1842-9-26.

748. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-5-29.

Unean uneko ekintza hauez haraindi, milizia liberalek benetako arazoak izaten zituzten barruti militarreko herriei zegozkien anoak eskuratzeko, eta azkenean, zama nagusia herritarren gainean erori zen. Apirilaren 21ean hilero ordaindu beharreko % 4ko zerga ezarri zitzaion lur-jabetzari, eta handik hiru egunetara, lur-jabeei % 15era eta maizterrei % 10era igo zizkieten[749]. Baina oasi liberala mantentzeko ahalegin guztiak alferrikoak izan ziren: Eibarren kapitulazio-data iragarriz bezala, herriko komandanteak hilabeterako anoak pilatzea agindu zuen maiatzaren 9an, eta handik 30 egunetara, hain zuzen, Eibar karlisten esku gelditu zen.

Gerra-egoeraren beste ondorio bat izan zen funtsezko elikagaien prezioen garestitzea. 1834ko abuztuan, Andres Zumaranek —Eibarko haragi-hornitzaileak— librako erreal-laurdena altxatzeko baimena eskatu zuen, haragia asko garestitu baitzen «… por las medidas que los carlistas habian tomado en introducir en los pueblos de guarnicion todo genero de comestibles y potables»[750]. Karlisten eskariak garestitu ote zuen, bada, haragiaren prezioa? Ardoaren horniketari dagokionez, karlistek gerrarako tresna legez erabili zutela esango nuke. Aipatu denez, abuztuko setioan herria ardorik gabe egon zen 13 egunetan zehar, eta askatu zuten eguneko ospakizuna ikustekoa izango zen benetan. Abenduan ere, ardoaren eskasiak asaldatuta zeuzkan herritarrak, «… por ver que en los pueblos inmediatos se halla con abundancia y equidad»[751]. Protesta horren aurrean, udalak ardoari zerga kentzeko akordioa hartu zuen. Baina hilabete eskas beranduago, berriro zerga ezarri zion, beharbada horniketa-bideak berriro menderatzen zituztelako. Neurri berean, alondegiaren kontrola zorroztu zuten, otsailetik aurrera ardoa berriz zamatuko zela jakitean, jendeak aldez aurretik ahalik eta gehien erosten saiatuko zela somatuz.

ARMAGINTZA I. KARLISTALDIAN

Arma Fabrika Eibarren

1834ko ekainean, uholde batek SEAF suntsitu zuen, «… al llevarse de cuajo decenas de edificios y muchas fraguas instaladas cerca del cauce, desapareciendo talleres y herramientas» (Larrañaga, 1981: 100). Abagune horretan zenbait udalerrik —horien artean, Bilbokoak— errege arma-fabrika, euren herrietara eramatea eskatu zuten[752]. Aldaketa horrek Debarroko armagintzaren ondoratzea suposatuko zuela ohartuta, eibartarrek hasiera batean indarrak bildu zituzten egoitza Soraluzen mantentzeko proposamenaren inguruan; geroago, lekualdatzea ekidinezina zela konturatu zirenean, egoitza berria Eibarren bertan ezartzea proposatu zuten[753], ber-

749. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-4-21 eta 1835-4-24.

750. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-8-10.

751. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-12-31.

752. Eibarko alkateak azaldu zuenez: «… con motivo de las actuales circunstancias podia variarse el establecimiento de la Fabrica de Placencia» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-7-11.

753. BFA, Municipal, Bilbao Sección Segunda, 0301/001/001, 1835, «Relativo a la conveniencia de restablecer la fábrica de armas en Eibar».

toko goarnizio eta urbanoei esker karlisten erasoetatik Soraluze baino babestuago zegoelako. Urrian, Esparteroren ahotik, arma-fabrika Eibarren ezarriko zela jakin zen[754], eta hil berean eibartarren eskakizuna onartu zuen erreginak. Urtebetean —karlistek herria hartu zuten arte— Eibar izan zen SEAFeko egoitza nagusia. Erabaki horretan arrazoi politikoek estrategikoek baino pisu handiagoa eduki zuten[755], eta hori ez da arraroa, auzi honetan Eibarko ordezkaria Gaspar Urrieta izan zela kontuan hartuta. Azpiegituren arloan Eibarko Udalak inolako gasturik egin beharrik ez zegoela bazioen ere[756], harrezkero Estebanenekua erosi eta konpontzeko zerga bat ezarri behar izan zen. Horrez gain, otsailean Gaspar Urrietak 4.890 erreal eskatu zituen, txinpartazko arma-fabrika Eibarren ezartzeko baimena lortzeko 163 egunetan zehar egindako lanaren truke[757].

Eibar karlisten esku erori ostean, Bilbok arma-fabrika bertan ezartzea eskatu zuen. Artilleriako zuzendari nagusiak Bilboko Udalari erantzun zionez, setiatutako Bilbo hartan zailtasun ugari sortuko ziren arma-fabrika berri bat eraikitzeko «… con toda la extensión de tal». Horrez gain, herritik kanpora joandako armagin eibartarren egoeraz kezkaturik, eta horiek nolabait saritu nahian, erdibideko konponketa bat proposatu zion Bilboko Udalari: euren burdinolak Bilbon eraiki nahi zituzten eibartarrei dirua aurreratzeko konpromisoa hartzeaz gain[758], arma-fabrika barik frogatoki bat egokituko zen Bilbon, eta eibartarrek bertan saldu ahal izango zituzten auskalo non fabrikatzen zituzten armak. Beraz, helburua armak bukatuta jasotzea zen, horretarako gremioen ibilbidea saihestu behar bazen ere. Artilleriako zuzendariak gehitzen zuenez: «Esta idea es la misma bajo de la cual se trato de res-

754. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1834-10-7.

755. A,1,1,13 akta-liburuan aurkitutako eranskin anakronikoak armagintza-jarduera Eibarrera lekualdatzearen onurak azaltzen zituen: «… dando ocupacion y los medios a los habitantes de Eybar que tan dignos son de toda consideracion por su bien acreditada lealtad y heroismo en la defensa de la justa causa de su amada hija la Reyna N.S…» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1834-10-23.

756. «… habiendo en el citado pueblo de Eybar edificios necesarios y aun superanbundantes para el establecimiento de la fabrica sin necesidad de hacer gasto alguno» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1834-10-23.

757. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1835-2-18.

758. «… se haga saber a todos los armeros de Eibar tanto esistentes en esa como fuera de élla, y a los demas que haya en esa Población o que quieran de algun modo tomar parte o dedicarse a esta industria, que cuantos fusiles o piezas de ellos presenten arreglados al modelo de 1828 les serán puntualmente pagadas en el acto de la entrega a los precios estipulados en Eibar o anteriormente en Plasencia, previo su correspondiente esamen y aprobación con arreglo a ordenanza. Si los armeros de Eibar necesitasen algun adelanto para establecer sus talleres o fuese necesario construir las fraguas en el convento, y no hubiese en esa poblacion quien quisiere ocupar sus caudales en esta empresa mediante una proporcionada retribucion, por parte de los interesados se les harán estos adelantos y aun se les auxiliará por el ramo de artilleria cuanto sea posible atendida la cantidad que se les señale para el pago de armas (…) pero las barrenas y la adquisición de las materias primeras para la fabricación devera ser de cargo absolutamente de los armeros o de los particulares que quieren interesarse en esta especulación», BFAA, Municipal, Bilbao Seccion Segunda, 0301/001/001, 1835, «Relativo a la conveniencia de restablecer la fábrica de armas en Eibar», 1835-7-26.

tablecer la fabrica de Eibar, suprimiéndose los gremios que ninguna ventaja proporcionan ni al Real Servicio ni a los mismos interesados…»; beraz, 1835erako gremioen sistemak, teorian bai, baina praktikan ez zuen askotarako balio Eibarko armaginentzat, eta izan ere, gremioen ekoizpen-egitura gainditzea izan zen armafabrika Eibarren ezartzeko arrazoietariko bat. Gero eta gehiago ziren armak zuzenean saldu nahian, haien kabuz edo beste batzuekin elkarlanean amaitzen zituztenak. Eurek jakin ez arren, arma-frogatokia Bilbon ezartzea epe ertainera benetan kaltegarria suerta zitekeen Debarroko armagintzarentzat, bilbotarrak zuritu nahian artilleriako zuzendariak berak ohartzen zuenez, frogatokia Bilbon ezarrita «… resultaria que quedase cimentada y arraigada en esa villa la fabricación de armas de un modo que concluidas las tristes circunstancias de esas Provincias no habia motivo de pensar el trasladarlo a otra parte». Urriaren 8an, Donostian babestu ziren armagin eibartarrak Bilbora joateko agindu zuen artilleriako zuzendariak.

1835eko armaginen txostena

Eibarko armagintzaren bilakaera ezagutzeko, ezinbesteko datuak eskaintzen dizkigun txosten bat aurkitu dugu GAOn, zeren 1835. urtean gremio bakoitza osatzen zuten maisu eta ofizialen nortasunak eskaintzen baitizkigu[759]. Zerrenda hori karlistek egin zuten, eta nahiko zehatza dela esango nuke, gerra-sasoian gozatzen zuten eskubideari jarraiki, soldaten laurdena emanda arma-zerbitzutik salbuetsita gelditzeko aukera zuten maisu eta ofizialek osatu baitzuten. Ikasleek ez zeukaten horretarako eskubiderik, eta ondorioz ez dira agertzen. Zerrenda 1762koarekin konparatzen badugu, emaitza interesgarriak atera ditzakegu, batez ere 73 urteko tarte horretan gremioen arteko indarren harremanak jasan zuen aldaketa neurtzeko orduan[760]. Zeregin horretarako taula hau eratu dugu:

	Kanoiginak		**Kaxaginak**		**Giltzaginak**		**Aparejuginak**		**Guztira**
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	**Kop.**
1762	47	36,4	35	27,1	13	10,0	34	26,3	**129**
1835	38	15,9	49	20,5	74	31,0	73	30,6	**238**
1762-1835 %	0’80		1,40		5,69		2,14		**1,84**

1762-1835 bitartean gremio bakoitzeko ofizial eta maisu kopuruak jasandako bilakaera. “Kop.” azpizutabeetan kopuru absolutuak, eta “%” azpizutabeetan, urte bakoitzean gremio bakoitzak zuen pisu erlatiboa, urte bereko armagin kopuruarekin alderatuta. “1762-1835” lerroan, urte-bitarte horretan gremio bakoitzaren barruan izandako hazkundea edo murrizketa.

759. GAO, Diputación Carlista, CA 205,1, (1835), «Imposición y ejecución de multas a los enemigos del Rey, comprendidos en las listas nominales confeccionadas por los Ayuntamientos: Albistur… Eibar…».

760. Hasiera batean, konparaketa honetan Ramiro Larrañagak eskaintzen dizkigun datuak ere —1790ekoak— kontuan hartzekotan ibili ginen, baina azkenean aukera hau baztertu egin genuen, kopuru horiek ikasleak barne hartzen dituztelako, maisu eta ofizialen datuetatik bereizi gabe. 1762 eta 1835ekoek, ordea, soilik azken horiei buruzko datuak eskaintzen dizkigute.

Lehenik eta behin komeni da ohartzea, 1762an guztira 129 maisu eta ofizial zeudela islatzen badugu ere, berez 168 zirela; baina ezkongabe zeuden 39ak zein gremiotakoak ziren ez denez zehazten, ez ditugu taulan sartu, 1762-1835 bitarteko hazkunde orokorra gremio bakoitzaren hazkundearekin alderatzeko orduan, emaitzak desitxuratuko lituzkeelako. Ondorioz, gure taulan 1762-1835 bitartean hazkunde orokorra % 84koa izan zela islatzen bada ere, hazkundea berez, askoz txikiagoa izan zen, % 41,6koa. Horrez gain, 1762ko zerrendan "rementeros" deiturapean agertzen diren hiru armagin ez ditugu kontuan hartu, ezta 1835ean "bayoneteros" bezala bildutako beste hiru, ez daukagulako zerekin alderatu.

Taulari begiratzen badiogu, gremio bakoitzak izandako bilakaera autonomoa iruditzen zait azpimarragarriena. Banan-banan, kanoiginena izan zen hazi ez zen gremio bakarra, 1762an langile kopuru altuena zuen gremioa izatetik 1835ean azken lekuan agertzen baita. Kaxaginei dagokienez, kopuru absolutuetan hazi egin ziren, baina batez bestekoaren azpitik, eta erlatiboki hauek ere indarra galdu zuten: 1762an lau armaginetik bat bazen kaxagina eta 1835ean bostetik bat. Giltzaginen gremioak bizi zuen eztanda benetan izugarria iruditzen zait, 1835ean 1762an baino bost aldiz giltzagin gehiago baitzeuden! Giltzaginak, gainera, erlatiboki gremiorik ahulena izatetik gremio indartsuena izatera pasatu ziren. Hazkunde hori, gainera, 1790ean Soraluzek arlo honetan zeukan nagusitasun ukaezina leuntzera zetorren, armak bukatzeko orduan hango giltzaginek jokatzen zuten paper estrategikoa deuseztatuz. Bukatzeko, aipagarria da aparejuginen gremioak jasandako hazkundea, batez bestekoaren gainetik egonda giltzaginen bestekoa ez izan arren, aparejuginen abiapuntua hobea zenez, kopuru absolutuetan giltzaginen parean kokatu baitziren.

Aparejuginen kopuruari buruzko datu hauek aurreko kapituluan zirriborratutako hipotesia indartzen dute, alegia, 1820ko hamarkadan hasitako merkaturatze pribatuaren ildoan Eibarrek eman zuen aurrerapausorik garrantzitsuena izan zela bertotik irten gabe arma bat hasieratik bukaerara fabrikatzeko trebetasuna lortzea. Giltzaginen hazkundea arlo horretan gauzatzen ari ziren aldaketa teknikoekin lotuko nuke, pistoiaren asmakizunarekin hain zuzen[761]: Aretak bildu duenez, Eibarko lehen pistoidun eskopeta 1835ean fabrikatu bazen ere (Areta, 2003: 400) —Manuel Garate ospetsuak egina—, Calvók pistoizko armen pribilegio-zedulei buruz dioenez, «… la primera que hacía referencia a armamento portatil fue obtenida por el ya mencionado fabricante Gabriel Benito Ibarzábal en 1829, describiendo una escopeta de pistón con llave a la caja» (Calvó, 1997: 28). Teknika berrien ezagupena eta modernizaziorako grina funtsezkoak izan ziren armagintzaren etorkizu-

761. «Las ventajas que ofrecía el nuevo sistema no sólo supusieron el abandono de la producción de armamento de chispa, sino también la transformación de una gran parte de este al nuevo sistema. Las transformaciones se realizaron con los medios artesanales de que se disponía, cubriendo toda la gama que va desde las más toscas ejecuciones hasta las más elaboradas… con la sustitución de la llave de chispa por la de pistón se daba un gran paso en la evolución del armamento portátil, que hasta el momento cabía calificar de lenta y se iniciaba la carrera marcada por las nuevas invenciones que se sucederían» (Calvó, 1997: 28).

nerako, eta txinpartazko giltzatik pistoikora eginiko aldaketari Eibarko armaginek Soraluzekoek baino etekin handiagoa atera zioten, merkatu pribatura bideratzeko armen ekoizpen autonomoa indartzen ari zen momentu berean. Hasierako txanpa honetan eibartarrek hartu zuten abantaila erabakigarria izan zen hurrengo erronketarako.

EIBAR, KARLISTEN ESKU

Karlistak udalean

Zumalakarregi jeneralak ezerezetik sortutako gudarosteak sekulako jipoia eman zien liberalei Deskarga gainean (1835-6-2). Hurrengo egunetan, bata bestearen atzetik erori ziren karlisten esku Eibar, Bergara, Tolosa eta Durango (San Martin, 1979: 256). Eibar babesten zuen goarnizioa ekainaren 8an errenditu zen[762] eta urbanoetariko 25 lagun Getarian babestu ziren, bi Bilbon[763] eta bakar bat Gasteizen. Getarian babestu ziren, urbanoak ez izan arren, karlisten zigorraren beldur ziren liberalak, Manuel Antonio Murua, besteak beste. Horiei, ordurako Bilbo, Donostia, Gasteiz, Santander, Madril eta Sevillara joandako18 biztanleak gehitu behar dizkiegu —«… se han ausentado a propios negocios sin pasaporte de autoridad local»[764] dio agiriak—; baina edonola ere, urbano eta biztanlerik gehienak Eibarren gelditu zirela ikusten da.

Eibarko auzokideak ekainaren 13an —bost egun beranduago— bildu ziren, gerra-diputazioaren eta korrejidorearen aginduz, udal-agintarien aldaketa egiteko[765]. Aktak zehazten duenez, eskribauak euskarara itzuli zituen aginduok. Oro har, aurreko urteetan erabilitako sistema bera erabili zuten udal-agintariak izendatzeko, baina zenbait berezitasunekin: kargu bakoitzerako proposamenak zozketaz irtendako hautesleek egin beharrean, «… despues una corta discusion sobre el modo de hacer la mas acertada eleccion acordo esta ayuntamiento y se verifico de unani-

762. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-5-29.

763. BFAn aurkitutako agiri batek argitzen digunez Bilbon sei urbano babestu ziren: GAOn aurkitutako Felix Aranburu sarjentua eta Antonio Zigorragaz gain, Manuel Zelaia komandantea, Juan Miguel Atxa tenientea eta Clemente Rodriguez eta Blas Treviño milizianoak, bertoko Milizia Nazionalean parte hartuz, BFA, Municipal, Bilbao Sección Segunda, Sign: 0469/008, «Lista de los Guardas Nacionales de la villa de Eibar que se han hallado en el sitio y bombardeo de esta Plaza (de Bilbao)», 1835-12-15.

764. GAO, Diputación Carlista, CA 205,1, (1835), «Imposición y ejecución de multas a los enemigos del Rey, comprendidos en las listas nominales confeccionadas por los Ayuntamientos: Albistur… Eibar».

765. Juan San Martinek dioenez, udalkide berriak izendatzeko agindua Eraso jeneralak eman zuen (San Martin, 1979: 256), baina akta-liburuan irakur dezakegunez: «… di a entender yo el secretario en idioma bascongado los oficios de la Ilustre Diputacion a guerra de esta provincia y del Sr. correxidor de la misma relativos al nombramiento de alcalde y demas empleados de justicia…» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-6-13.

me conformidad a voz y voto genera»[766]. Horrez gain, ez zen proposatuen artean zozketarik burutu, karguak lehen proposatuek eskuratu zituztelarik; eta herri-ordezkariak izendatu zituzten, herri batzarraren eskuduntza zena, bere gain hartuz. Konturatzen bagara, aldaketa hauek guztiak helburu bera zeukaten: udalkideen izendatze-prozesua kontrolatzea, alegia.

Izan ere, apirilaren 21eko eta ekainaren 13ko auzokideen batzarretan parte hartu zutenen zerrendak alderatzen baditugu, esango nuke liberalen garaian aritu ziren auzokideen nukleo baten presentziak leundu zuela botere-aldaketak ekarritako haustura: 50 auzokidetik 18 errepikatu egiten dira, eta azken horiei beste 10 baino ez zitzaizkienez gehitu, liberalen garaian aritutakoak gehiengoa ziren. Edonola ere, auzokideen batzarrean parte hartzen jarraitu zuten 18 lagun horiek ez ziren liberalismoarekin gehiegi identifikatzen, bakar batek baino ez baitzuen parte hartu urbanoen milizian —Felipe Argianok—; auzokideen batzarretik desagertutako 32 auzokideetatik, ordea, 11 ziren urbanoak, eta Muruak ere Getariara ihes egin zuen, urbanoa ez izan arren.

Hiru egun geroago, Pedro Francisco Suinaga alkateak mailegu bat eskatu zien auzokideei, gerra-diputazioari zor zizkioten 74.000 erreal ordaintzeko[767]. Auzokide bakoitzak ahal zuena ematekotan gelditu ziren, baina liberal askok ordaindu zutela ikusirik, borondatez baino gehiago behartuta ikusi zirela pentsa dezakegu. Gainera liberalek ordaindu zituzten kopururik altuenak, nahiz eta euren jabetzak txikiak izan (ikus 1. eranskina). Hala ere, egin dugun kalkuluaren arabera soilik 15.320 erreal eta zazpi anega gari batu zirela dakusagu. Aste berean, uztailean ordaintzeko % 14ko zerga ezarri zioten lur-jabetzari, eta % 7koa maiztertzari[768]. Egia esan, udal karlistaren zeregin nagusia horniketak bermatzea eta zergak biltzea izan zen. Abuztuan, zerga-biltzaileari garia ordainketa gisa onartzeko baimena eman zioten, anega 36 errealetan[769]; eta auzo bakoitzak eman beharreko horniketen arduradunak izendatu zituzten. Irailean, 18.000 errealeko zerga ezartzeko, «… despues de mas de una hora y media discusion y discursos», 9.000 erreal "*foguera*"ren arabera eta beste 9.000 bakoitzaren lur-jabetzen arabera banatzea erabaki zen. Ikusten denez, maizterrak ez zituzten bereziki zamatu, eta beharbada horrek eragin zituen lur-jabeen protestak; edo beharbada "*foguera*"ri ezarritako 9.000 errealak izan ziren protestaren iturria, biztanle bakoitzari gutxi gora behera 4 erreal ordaintzea egokitu baitzitzaion. Edonola ere, azaroan istiluak sortu ziren garien bilketaren inguruan, zeren «… algunos colonos de dueños forasteros se oponian a la entrega»[770]. Udalak maizterrei gariok indarrez eskatzeko erabakia hartu zuen. Eta hilaren bukaeran, Juan Uberoaga Zumaranek proposatu zuen liberalen garaian zer-

766. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-6-13.
767. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-6-16.
768. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-6-20.
769. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-8-10.
770. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-11-1.

gak ordaintzetik salbuetsita egondako urbanoei kontuak eskatzea[771], eta udalak inguruko herrietan galdetu ostean, proposamena onartzea erabaki zuen[772]. Udal karlistaren azken aktak adierazten digunez, gastuak murriztu nahian udal-langileen soldatak jaitsi (idazkaria, aguazilak…) edota zuzenean kaleratu egin zituzten (osagilea, organista)[773]. Apirilean Evaristo Agirre maisua lanpostutik kendu zuten, ideia liberalak edukitzeagatik[774].

Udal-karguen berriztatzea, 1835eko Gabon zahar egunean barik, 1836ko urtarrilaren 17an egin zuten. Oraingo honetan zozketa egin zen kargu bakoitzerako proposatuen artean, baina herri-ordezkariak auzokideen batzarrak izendatzen jarraitu zuen. Karlisten agintaldian zehar udalkideen artean zer-nolako aldaketak izan ziren ikusteko, egoki deritzot 1834-1839 bitartean aritu ziren udalkideen taula honi begirada bat botatzeari.

Zoritxarrez, 1837-1839 bitarteko udalkideen nortasunak ezin izan ditugu eskuratu, akta-liburua etenda agertzen zaigulako 1836ko urtarriletik 1839ko urrira bitartean. Ikusten denez, 1838ko agintaldian bi alkate agertzen dira: Ambrosio Sustaeta, Mugicak eskaintzen digu Eibarri buruzko monografiaren eranskin batean, eta José Ramón Vergara BFAn aurkitutako txosten batean ageri zaigu 1838ko alkate legez lekuko bati deklarazioa hartzen[775]. Bistara ditugun datuen arabera esan dezakegu karlistak esperientziadun udalkideak berreskuratzen saiatu zirela lehen agintaldian batez ere: zazpitik bost udalean ibilitakoak ziren (lau kapitularrak); bigarrenean zazpitik hiru, baina hirurak kapitularrak. 1834-1835eko agintaldi liberaletan, ordea, iraganarekiko haustura nabarmenagoa da, bat izan ezik kapitular guztiak berritu egin zirelako. Logikoa denez, armatutako urbanoen presentzia nabarmenagoa da hauen agintaldian (erdiak baino gehiago), eta karlistenetan herridiputatu legez aritu zen Jose Antonio Agirre aurkitzea pixka bat harrigarria da. Beharbada harrigarriena "Arm. 1835" zutabeak eskaintzen digun informazioa da, udalkide karlisten artean hiru armaginen presentziarekin (liberalen artean bi). Udalkide karlisten prototipoa, arlo laboralean behintzat, ez dator bat boluntario karlistentzat ezarri dugunarekin, 25 haien artean armagin bakar bat ez zegoen eta.

771. Juan Uberoaga Zumaranek zioenez: «… los Urbanos de esta villa durante existio la guarnicion no habian pagado las contribuciones como el resto de los que no lo eran, y que pedia se les obligase a su satisfaccion y en su vista se acordo que el Sr. Alcalde se sirba averiguar si en la villa de Vergara o Villafranca se ha tomado alguna resolucion igual (…) para que se informe si los urbanos de los pueblos donde permanecieron guarniciones cristinas pagaron contribuciones» EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-11-30.

772. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1835-12-21.

773. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1836-1-22.

774. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1840-4-5.

775. BFA, JM, 1561/023, 1838-06-22, «Pedro de Mendicute, alias "Arando", armero de Eibar, acusado con otros por el Corregidor».

NORTASUNA	<=1834	1834	1835-1	1835-6	1836	1837	1838	1839 -10	1840=>
ARETA "MENDIGOITIA" Ignacio	Bai	SPG							Bai
CIGORRAGA Juan Bautista		HS							HD/HS
ARECHAVALETA Domingo		HD	HD						
TAPIA Antonio	HD/HS	HD							
ARAMBERRI Nicolás	HD/HS	ER						ER	Bai
IRAEGUI José María		ER							
ARGUIANO Felipe		A1							HD/HS
ECHEVARRIA José Francisco			SPG						
ALBIZU Gabriel			HS						
BASCARAN Lorenzo			HD						
IÑARRA IRAEGUI José Ignacio	Bai		ER		ER				
ACHA GOROSTIETA Juan Andrés	HD/HS		ER						Bai
AGUIRRE Ramón			A1					A1	Bai
GANCHEGUI Joaquín	Bai			SPG					
ACHA GOROSTA "menor" Pedro				HS					
BASCARAN José Domingo				HD		A1		SPG	Bai
GUISASOLA Domingo	HD/HS			HD				HD	HD/HS
AGUIRRE Jose Joaquín	Bai			ER					Bai
ZULUAGA Francisco	Bai			ER					
SUINAGA ITURRAO Pedro	Bai			A1					
OREGUI José María					SPG				
AGUIRRE José Antonio					HD				
ESCAREGUI Sebastián					HD				
PAGOAGA Francisco Antonio	Bai				ER				
PAGAEGUI Pedro	Bai				A1				
VERGARA José Ramón							A1		
SUSTAETA Ambrosio							A1		Bai
APELLANIZ Santos								HS	
ARANZETA Juan Miguel	HD/HS							HD	HD/HS
GUISASOLA Juan Antonio	Bai							ER	Bai

Agertzen diren eremuak eta laburdura guztiak ezagunak dira.

Aurkikuntza honek hipotesi berri batera garamatza: karlisten artean disoziazio argia zegoela arlo politikoaren eta militarraren artean, eta liberalen alderdian fusila zeramatenak eta udalean hitz egiten zutenak pertsona berak zirela[776]. 1842ko zergaren azterketak ere alderdi karlistaren heterogeneotasun horri buruz hitz egiten digu, 14 udalkideren artean sei lur-jabeak zirelako eta bi maizterrak, batez beste 353,1 errealeko errentarekin. Udalkide karlisten erdiak baino gehiagok 1842ko

776. Karlisten artean zalantza bat sortzen zaigu, Francisco Zuloaga Don Karlosen aldeko gudutaldean agertzen baitzaigu, eta Francisco Zuluaga 1835eko ekaineko udal karlistan. Litekeena da pertsona bera izatea.

zerga ordaindu zutela jakiteak asko kontrastatzen du alderdi bereko boluntarioekin, 25en artean bakar bat topatu dugu-eta. Udalkide liberalei dagokienez, 19tik zazpi ziren lur-jabeak eta hiru maizterrak, batez besteko 225,8 errealen errentarekin, udalkide karlistena baino heren bat gutxiago. Ikusten denez, ondorioak zeharo aldatzen dira karlisten arketipoak eratzeko orduan aukeratutako laginak udalkideak ala boluntarioak izan.

Bukatzeko 1836ko udal karlistan alkate-lanetan aritu zen Pedro Pagaegiren ibilbide politiko bitxia aipatuko nuke. 1812an munizipalitateko batzordekidea izan ostean, errejidorea izan zen Hirurteko Liberaleko lehen bi urteetan, eta 1823-1825 bitartean, berriz, oraingo honetan absolutisten eskutik. Hurrengo hamar urteetan ez zuen udal-kargurik eskuratu, 1836an karlistek alkate izendatu zuten arte. Bere liberalismoa Napoleonen garaitik zetorkion ala ez jakin ez arren, argi dago behintzat bere jokabideak norabide-aldaketa izugarria jasan zuela Hirurtekoan, berehala etorri zen erreakzio absolutistaren zutabeetariko bat izan baitzen. Zerk bultzatu zuen Pagaegi monarkikoen esparrura? 1821ean Eibarko liberalen artean sortutako liskarrek? Gobernu liberalak elizaren inguruan zeraman politikak? Foruak arriskuan ikusteak? Edozein izanda ere, beharbada 1812tik liberala zen Pagaegik karlisten alkate legez amaitu zuen bere ibilbide politikoa.

Burdina kontrabandoa

1836ko urtarriletik aurrera udal karlistaren aktarik ez eduki arren, beste iturri batzuetatik ondoriozta dezakegunez, Eibar karlisten menpe egon zen 1839ko abuztura arte[777], hau da, gerra bukatu arte. Herrian gelditu ziren liberalek karlistek ezarritako zerga eta isunak ordaindu behar izan zituzten, eta herritik alde eginda zeudenei kobratu ezinean, diputazio karlistak beraien ondasunen bahiketa agindu zuen. Testuinguru horretan, liberal batzuek sare bat prestatu zuten, herritik kanpo zeudenen ondasun higigarriak ezkutatu —karlistek ez eskuratzeko— eta kanporantz bideratzeko, batez ere lehengaien kasuan.

1836ko urrian Antonio Alonso, karlisten Zaintza Publikoaren Komisario Epaileak —"*Juez Comisario de Vigilancia Pública*"— zioenez, iluntze batean Ramona Ibazetaren etxean gurdi bat burdinaz zamatzen ari zirela ikusirik, susmoa piztuta gurdizaina atxilotu eta Ibazetaren etxea arakatzea erabaki zuen[778]. Candido

777. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1839-10-27.

778. Gurdia zamatzen ari ziren, «… de varias fiezas de fierro labrado y de por labrar; lo intempestivo de la hora y otros indicios que advirtió hace en las contestaciones de la Ibaceta como en el conductor le decidieron a mandar a este a su casa en calidad de detenido y pedirle a la Ibaceta la llave de la havitacion para la oportuna seguridad», GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta, vecinos de la villa de Eibar y Elgoibar por el transporte de una parte de quintales de hierro a los enemigos y fraude de ocultacion de los que se encontraron en sus propias cajas. Juez Comisario Vigilancia Pública de Eibar», 1836-10-4.

Aretiok[779] sinatutako aktan jasotzen denez, Ramona Ibazeta 44 urteko alarguna zen, eta bere testigantzaren arabera, etxeko gelan gordeta zeukan burdina Manuel Zelaiarena zen —1834ko erasoan karlistek etxea eta burdinola erre zizkioten hura— eta Zelaiak Ibazetari dirua zionez zorretan, emakumea burdina Frantzian saltzera zihoan, Don Karlosen aurkakoen ondasunak bahituta zeudenik ez zekien eta.

Alonsok atxiloturiko gurdizaina Diego Arizmendi Arrieta zen, ezkondua eta 30 urtekoa, «… poco mas o menos». Horrek zekien gauza bakarra zen Lorenzo Arruti elgoibartarrak Ibazetaren etxera joatea agindu ziola; Alonsok ea beste inoiz antzeko enkargurik bete zuen galdetu zionean, hamabost egun lehenago Arrutiren aginduz Ibazetaren gelatik burdinaz betetako beste hiru gurdi atera zituela erantzun zuen, baina ez zeukala inolako agiririk Arrutiren aginduak betetzen ari zela egiaztatzeko. Itxura denez, Arrutik, burdina erosten zion kontaktu bat zeukan Iparraldean —Pedro Lasusi beobitarra—, eta garraioa ere bere ardurapean zegoen, berak kontratatzen baitzituen garraioan txandakatzen ziren gurdizainak: Eibartik Elgoibarrera, Elgoibartik Azkoitiara[780]… Eta halaxe Beobiraino. Testigantza horren ondorioz Arruti atxilotu zuten, honako hau, Elgoibarren.

Zelaiaren burdinaren kanporatzea egun argitan egiten zela jakin zuenean, Alonsok Maltzagako katearen arduraduna deitu zuen lekuko legez: horrek zioenez, irailaren 19an 124 kintal burdina atera ziren Ibazetaren izenean, 21ean 55 kintal, urriaren 1ean 78 eta 3an 9. Guztira 366 kintal burdina atera ziren Eibartik, Ibazetarenak zirelakoan, inolako eragozpenik gabe gainera. Asaldatuta, biharamunean Alonso Isasiko burdinolara joan eta Mendizabal arduradunari giltza eskatuta, bertan sartu zen. Mendizabal Manuel Zelaiaren burdinolaren arduraduna zen, 28 urteko ezkongabea. Horrek zioenez, Ibazeta ezagutzen zuen, batzuetan Isasira joaten zelako, burdina urtzera «… por orden de su amo». Mendizabalek zioenez, Zelaiaren etxea erre zutelako gordetzen zen burdina Ibazetaren etxean, ez ezkutatzeko; eta ateratako burdina kopuruaren zerrenda Jose Zaratainek zeramala, «… en razon a que posee el castellano y le escrive mejor que el declarante»[781]. Zaratainen testigantzak, bere aldetik, Ana Maria Olañeta hobendu zuen, horrek ere burdina gordetzen baitzion Zelaiari[782].

779. Cándido Aretio Aranburu 1814an jaio zen, eta Francisca Erbiti Izagirrerekin zegoen ezkonduta, bera baino zazpi urte zaharragoa. Ez litzaidake batere arraroa egingo Juan Bautista Aretioren semea izatea, 1823-1825 bitartean aritu zen alkate monarkikoa, baina datu hau ezin izan dut egiaztatu.

780. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), "Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta...", 1836-10-4.

781. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), "Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta...", 1836-10-5.

782. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), "Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta...", 1836-10-8.

Biharamunean, Ibazetaren aurka nahiko froga bazeudela-eta, Alonsok kartzelaratzea erabaki zuen «… como principal agente del fraude que se persigue», baina «… por su secso (sic), calidad y avanzada edad le sirba su propia casa de carcel con la circunstancia de que sino lo cumpliese se le constituira en la carcel publica». Ibazetaren ondasunak bahitzea agindu zuen, baina bere etxean ohe bat eta sei aulki baino ez zituzten aurkitu «… y otras minudencias (sic) inutiles que no se le dieron valuacion alguna»[783]. Handik pare bat astera Ibazetak berriz deklaratu zuen, Zelaiari etxea erre ziotenean, burdinak gordetzea haren emazteak —Teresa Ibarzabalek— eskatu ziola zehaztuz[784]. Aldaketa horretan beharbada izango zuen zerikusirik Elgoibar aldean aurkitu zioten pare bat lur puska bahitzeko mehatxuak. Bost egun geroago, Arruti eta Ibazeta behin-behineko askatasunean utzi zituzten, «… consiguiente de no resultar de esta sumaria criminalidad que pueda inducir a la imposicion de pena corporal y si solo a la condenacion de las costas originadas en ellas»[785]. Azken finean, Zelaiari 11.362 errealeko burdina bahitzea lortu zuten, eta beharbada horrekin nahikoa zuten. Edonola ere, txosten horrek karlisten kontrola saihesteko liberalek erabiltzen zituzten trikimailuen berri ematen digu.

Zelaiaz gain, karlistek herritik kanpo zeuden beste liberal batzuen ondasunak bahitzea lortu zuten. Hona hemen GAOn aurkitutako zerrenda[786]:

	1838-10-31	1838-12-31	Guztira
Santa Kruzeko Markesa	5.022	310	5.332
Jose Manuel Emparan	2.130	1.398	3.528
Ramon Maria Arteaga	1.641	487[787]	2.128
Erviaseko Kontea	1.545	300	1.845
Javier Acedo		1.792	1.792
Manuel Maria Urquizu	1.458		1.458
Gabriel Ibarzabal	703	560	1.263

783. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta…», 1836-10-9.

784. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta…», 1836-10-26.

785. GAO, Diputación Carlista, CA 202, 13, (1836), «Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta…», 1836-11-20. Gorputz-zigorrak ohikoak ziren sasoi hartan. Urte batzuk geroago Juan San Martinek kalte-ordainak eskatu zituen, «… por haber quedado imposibilitado para todo trabajo que requiere fuerza a resultas de los palos, poco menos que de muerte que le dieron los carlistas en la villa de Segura a principios de la última guerra, por haberle cogido con unos pliegos que conducia por encargo del Sr. Alcalde de esta recordada villa de Eibar» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-11-27. Francisco Areta arrazoi berdinarengatik ia hiru urtez egon zen preso, karlisten esku, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1847-11-21.

786. GAO, Diputación Carlista, CA 56, 11 (1837-1838), «Cuenta de la administracion de los bienes embargados».

787. Kopuru hau Santa Kruzeko markesa eta Arostegiren ondorengoekin batera.

Ambrosio Aldasoro	1.190		1.190
Juan Ramon Arana		1.035	1.035
Andres Arguiano	872		872
Jose Manuel Barrenetxea	346	522	868
Mariano Jose Laskurain	766		766
Peñafloridako Kontea	400	360	760
Oñatiko Kontea		553	553
Juan Bautista Mendizabal		242	242
Manuel Murua		200	200
Jose Maria Alberdi		180	180
Juan Cruz Aranburu	143		143
Jose Manuel Enparan, Loiolakoa	91		91
	16.307	7.939	24.246

Eibar karlisten esku egon zen bitartean, liberalen ondasunak bahitzeaz gain, karlistak bertako armagintza aprobetxatzen saiatu ziren. Juan Bautista Areitio, hamarkada absolutistako lehen alkatea Bilbon bizi zen ordurako, eta Bizkaiko armamentu-batzorde —"*Junta de Armamento*"— karlistak Eibarrera joatea agindu zion, «… y dijese a los armeros de ella para que trajesen a dicha Diputacion y Junta de Armamento cuantos fusiles tuviesen hechos, y que se les pagaria el precio justo»[788]. Areitiok agindua bete zuen, eta gerra bukatu zenean liberalek kontu-arrazoiak eskatu zizkiotenez, azalpenak eman behar izan zituen. Karlisten agindua jaso zuenean, hasiera batean, ukatu arren, «… recurrió la Junta rebelde a la fuerza, mandandome un miquelete y caballeria», eta azkenean agindua bete egin behar izan zuen. Testigantza hau indartzeko aurkeztu zuen lekukoak Aretiok berak aipatzen ez digun ñabardura bat eskaintzen digu: Aretiok erreuma zeukala argudiatu zuela armamentu-batzordearen agindua ez betetzeko[789]. Gerraostean, liberalekin boterean, beharbada egokiago iruditu zitzaion bere ukoa zertan oinarritu zen bigarren mailan uztea.

788. BFA, JM, 0786/037, 1841-12-01, «Juan Bautista de Areitio, vecino de Bilbao, a fin de acreditar que la Junta de Armamento y Defensa del Señorío le obligó a ir a Eibar a decir a los armeros que podían presentar sus fusiles en la Diputación rebelde para su venta».

789. Antonio Gumuzio lekukoa diputazio karlistaren egoitzako atezaina izan zen. Bere esanetan, «… aunque reuso Aretio su marcha a Eibar por hallarse con dolores reumaticos segun espreso el mismo en aquel dia, le obligaron dichos individuos de la Junta de Armamento, proporcionandole al efecto una caballeria y miquelete para su compañia y encargandole saliese pronto al cumplimiento», BFA, JM, 0786/037, 1841-12-01, «Juan Bautista de Areitio, vecino de Bilbao, a fin de acreditar que la Junta de Armamento y Defensa del Señorío le obligó…».

Pedro Mendekute "Arando", bidelapurren armagina

Bazegoen Eibarko armaginen trebetasunaz baliatzen zen besterik. Enriqueta Sesmerok agerian jarri duenez, I. Karlistaldia abagune aproposa bihurtu zen zenbait gaizkilerentzat, ordura arte besterik gabe burutzen zituzten lapurretak gerra-ekintza legez mozorrotzeko[790]. Jose Laka berriatuarrak, ezizenez "*Eskribania*", eta Antonio Olabarriak —"*Tropela*"— talde horietako bat gidatzen zuten. Egunez bizimodu sasinormala egiten bazuten ere, gauez Iruzubietako ostatu batean biltzen ziren[791], Trabakua mendatea zeharkatzen zuten bidaiari eta garraiolarien aurkako lapurretak antolatzeko. Zenbait ekintzetarako jende gehiago behar izaten zuten, eta horretariko batean Larrañaga bergararrarekin bildu ziren. Baina hara non, Larrañaga delakoa bere kontura lapurtzen hasi zela Trabakua aldean. Hau da, "*Tropela*" eta "*Eskribania*"ren hinterlandean sartu zen. Tipo beldurgarria izan behar zen gainera, gupidagabea; eta gainera "*Arando*" ezizeneko armagin eibartar batek laguntzen zion, «… que recortaba trabucos a medida de latres y los usaba con pareja soltura» (Sesmero, 1991: 366).

Laka eta Olabarria geroz eta mehatxatuago sentitzen ziren Larrañagaren joanetorriez, eta kontua da, zuzenean berari esan beharrean, 1836ko gabon bezperan Markinako komandante karlistarengana —Leon Basterra— joan eta beraiek burututako lapurreta, bortxakeria eta abarren berri eman ostean, proposamen harrigarri bat egin ziotela: Sarasa jeneralak eskainitako indultuaren barne hartzen bazituzten, inguruetan aritzen ziren gainerako bidelapur guztiak salatuko zituztela, eta horien buru nagusia, Larrañaga bergararra, noski. Bikotearen salaketak Larrañagaren sareko kide guztien atxiloketa eragin zuen, horien artean, "*Arando*" eibartarrarena,

790. «Las "partidas volantes" carecían de arraigo como grupo; sin embargo, las componían lugareños expertos en el terreno, en el que disponían de refugios y contactos informativos. Ligadas a su comarca, eran capaces de recorrer enormes distancias, caer por sorpresa sobre un pueblo, despojar a sus liberales (por lo común, de bolsas repletas) y esfumarse sin dejar rastro. Una vez avitualladas, destinaban el producto de sus exacciones a la Causa, creyéndola representada también por ellos mismos, y remunerándose en consecuencia. Guiaba cada una un líder carismático, sin recurrir a la disciplina castrense, y el número de sus componentes era inestable. No gustaban de uniformes, y ni siquiera eran obligatorias las consabidas boinas rojas. Demasiadas coincidencias con una banda de ladrones; de ahí que los liberales las tildaran de "latrofacciosas"» (Sesmero, 1991: 368).

791. Bideetako ostatuak kontrabandista eta bidelapurren biltoki eta gordeleku izaten ziren sarri. Agintariak tabernen beldur ziren, bertan bukatzen zelako beraien boterea: "Los parroquianos tabernarios contaban con su propio concepto de la política, solapado y nunca eliminado por la propaganda oficial" (Sesmero, 1991: 358). Eibarren bertan, Bergara eta Elgeta aldeko mugan ezarritako ostatuek kalte handia egiten zuten, ardoa merkeagoa zenez jendea bertara joaten zelako edatera, eta kontrabandoa areagotzen zelako. Horrez gain, «… son altamente perjudiciales para la tranquilidad publica, porque ¿quienes son las autoridades que vigilen ni respondan de los actos que pudieran ocurrir en Caserios o Ventas distantes del casco de la poblacion mas de una hora de Camino particularmente si se atiende a la efervescencia con que se encuentran los animos despues de vever alguna cantidad de aquel liquido?» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1847-1-27 (eranskin anakronikoa).

izen-abizenez Pedro Mendikute[792]. Itxura denez, bere etxea arakatu zutenean kainoiak moztutako armak aurkitu zituzten, eta horiek izan ziren bere aurkako froga nagusiak, nahiz eta berak arma horiek debekatuta zeudela ez jakin, «… puesto que se las mandaban fabricar en los principios de la lucha actual, que se usaba de todas Armas»[793].

Larrañagaren taldearen aurkako auzian, Mendikutek maisu armagina zela bazioen ere[794], 1835eko armaginen zerrendan ofizial bezala agertzen zaigu, kainoiginen gremioan, hain zuzen. Salvador Larruskain lekukoak zioenez, Mendikute gizon zintzoa zen «… cuando se hallaba con trabajo», eta ez zuela inoiz jende susmagarriarekin nahastuta ikusi; Candido Areitiok berak deklaratu zuen lekuko gisa, Mendikute ezagutzen zuela, eta bere ustetan, pertsona ona zela azaldu. Baina inork ez zion zehaztasunez erantzun Arandoren abokatuak egindako bosgarren galderari: «Si saben que Pedro de Mendicute (…) fabrica en su taller toda clase de Armas que se le manda». Larrañagarentzat arma bereziak prestatzeaz gain, "*Tropela*" eta "*Eskribania*"k Mendikutek zenbait lapurretatan parte hartu zuela salatu zuten, eta bere abokatua dena gezur hutsa zela frogatzen saiatu bazen ere[795], azkenean hamar dukateko isuna ordaintzera zigortu zuten.

Karlismoaren gainbehera

Zumalakarregiren heriotzaren ostean, liberalen eta karlisten garaipenak tartekatu egin ziren eta bazirudien inork ez zeukala etsaia menderatzeko gaitasunik. Liberalen alderdian, baliabide gehiago eduki arren, kohesio politikoa apurtzen zihoan, liberal aurrerakoien eta moderatuen arteko tirabirak zirela-eta. María Cristina erreginaordeak liberal moderatuen laguntzarekin gobernatzen zuen "*Estatuto Real*"

792. Pedro Mendikute "Kontadorekua" etxean bizi zen 1842an, maizter legez, eta urtean 300 errealeko errenta zeukan. Ez dago armatutako urbanoen zerrendan.

793. BFA, JM, 1561/023, 1838-06-22, «Pedro de Mendicute, alias "Arando", armero de Eibar, acusado con otros por el Corregidor».

794. BFA, JM, 1561/023, 1838-06-22, «Pedro de Mendicute, alias "Arando", armero de Eibar, acusado con otros por el Corregidor», 1838-9-10.

795. «Las Deposiciones de los testigos que ablan contra este infeliz y que motibaron su prision son las de Tropela y Escribania, y otros, empero todos y cada uno de ellos se refieren y ablan de oidas a Agustin de Larrañaga, quien quando le preguntó el Comandante Basterra por el tal Mendicute, contestó no le conocia, mas apretado contesto que habia estado en un robo sin hacer memoria en que parage, quando, ni como. Este modo de declarar sin fijar Epoca, lugar ni otra circunstancia es muy peregrino y se presenta con todos los antecedentes de falso y supuesto, maxime quando al principio de la combersacion dijo el Agustin que no conocia al tal Arando. Despues perjurandose abiertamente dice le conoce por trato de Ganados, havido con el mismo y que mas estrechado, asi dicen los testigos, contestó Larrañaga haver llamado en la Casa de Arando en busca de Aguardiente, y mas estrechado dicen tambien los mismos testigos, contestó Agustin que en su compania havia concurrido Arando al robo de Aspe, robo que no tubo efecto por los motibos que el mismo espresa, y finalmente que havia estado en los demas robos que refiere», BFA, JM, 1561/023, 1838-06-22, «Pedro de Mendicute, alias "Arando", armero de Eibar, acusado con otros por el Corregidor».

zeritzonaren bidez, baina 1812ko konstituzioa indarrean jarri gabe. 1836an Segoviako La Granja-ko palazioan zegoela, bera babestu behar zuen zaingo pertsonala matxinatu, eta 1812ko konstituzioa indarrean jartzera behartu zuten[796]. Ikusten denez, erregeordetzaren egoera ez zen batere egonkorra, bere alabaren eskubideak bermatzeko, zatituta eta elkarren aurka zebiltzan liberalengan sostengatu behar baitzen. Zentzu horretan, ez dut uste gehiegikeria bat denik esatea ezen 1833-1843 bitartean korronte liberalek erreginaordea txotxongilo bat bezala erabili zutela.

María Cristina Erreginaordea, La Granjako sarjentuen manifestua sinatzen. Iturria: http://www.iescasasviejas.net, 2008-01-22.

La Granja-ko sarjentuen matxinada aurrerakoiaren ostean, bere ahultasunaren jakitun, María Cristina Don Karlosekin akordio batera ailegatzen saiatu zen, zeinaren bidez bere alaba Don Karlosen seme nagusiarekin ezkonduko zen gerrari bukaera emateko[797]. Ordurako, Karlos V.a "*Expedición Real*" deiturikoa prestatzen ari zen, Ebro ibaia zeharkatu eta estatu espainiarreko gainerako lurraldeak matxinatzeko

796. «En realidad, Doña María Cristina se daba cuenta de que su autoridad no se ejercía mucho más allá de los límites de su capital, y eso gracias al dominio personal que ejercía sobre la guarnición de Madrid el enérgico general Quesada. El turbio pronunciamiento de La Granja donde las Reinas se hallaban de veraneo en agosto de 1836 había venido a dar al traste con sus últimas ilusiones si es que aún las conservaba. Un grupo de sargentos amotinados se presentan ante Palacio, destacando a tres de ellos para que se entrevisten con la Regente, que tiene que oir toda suerte de amenazas, y al fin inclinarse ante las exigencias de aquellos irresponsables, dando la orden de publicar la absurda Constitución de 1812» (Melgar, 1958: 68-69).

797. «En efecto, Doña María Cristina confiaba a su hermano que, visto el curso de los acontecimientos en España, sentía verdadera angustia ante los peligros que amenazaban el trono de su hija, y que no veía más manera de afianzar éste que el llegar a una conciliación con su cuñado Carlos V. "Estoy dispuesta a echarme a sus brazos –decía la Regente— sólo con la condición de que su primogénito se case con mi hija, y que sean perdonadas todas las personas que para defender a ésta se habían comprometido, para lo cual daría una lista"» (Melgar, 1958: 67).

asmoarekin, baina María Cristinaren proposamenaren berri izan zuenean, espedizioaren norabidea aldatu eta Espainiako hiribururantz bideratu zuen, bertan bere koinatarekin bilduz, gerrari bukaera ematekotan. Baina, Errege Espedizioa Madrileko ateetara heldu zenerako egoera politikoa berriz aldatuta zegoen, egun batzuk lehenago Van Halen brigadaren altxamenduak Calatrava ministro moderatua jarri baitzuen Bardaxi aurrerakoiaren ordez. María Cristina lasaitu zen orduan, eta Don Karlosi emandako hitza jan zuen[798]. Beraz, borroka dinastikoa ala borroka politikoa? Ikusten denez, errazagoa zirudien lehengusu-lehengusinak ezkontzea, haien magalera hurbildutakoen interes politiko-ekonomikoak baino.

Gerraren luzatzea karlisten kalterako izan zen, eskuratzen zuten lur-eremua oso txikia zelako liberalek kontrolatzen zutenarekin alderatuta, eta ondorioz, askoz baliabide gutxiago zituztelako, bai soldadutan, bai horniketetan, armetan… Karlistek, foru-lurraldeen eremua kontrolatzen zuten (hiriburuak izan ezik), Don Karlosek bere gortea Lizarran ezarri izanak frogatzen duen bezalaxe. Baina, gainerako lurraldeetan —Aragoi, Katalunia, Maestrazgoko mendilerroa…—, matxinatu karlistek ez zuten lur-eremu esanguratsu bat konkistatu eta mantentzeko gaitasunik erakutsi. Euskal lurraldeetan, oligarkia lur-jabeak gero eta ilunago ikusten zuen gerraren etorkizuna, eta Madrileko gobernu moderatuarekin konponbide bat bilatu nahian, foruak jarri zituen eztabaida politikoaren ardatzean[799]. Portillok dioenez, euskal liberalak karlismoa eta foruak banatzen saiatu ziren, benetan garrantzitsuak azken horiek zirela azpimarratuz (Portillo, 1987: 86, 87). Esparterok berak, karlisten sektore foruzaleak erakarri nahian, liberalek ez zeukatela foruak kentzeko asmorik aitortu zuen Hernanin (1837), Don Karlosen inguruan biltzen ziren sektore ezberdinen (apostolikoak, "ultrak", foruzaleak…) urduritasuna eta elkarrekiko mesfidantza areagotuz.

Eibarko elizgizonei buruzko txostena

Karlismoaren diskurtso ofizialetik aldentzen ziren joerak kontrolatzeko ekimen horretan kokatu beharko genuke 1838ko urrian Juan Bautista Sarasuak Eibarko elizgizonen izaera, prestakuntza eta jokabidea deskribatzeko egin zuen txostena.

798. «Esta mudanza, alcanzada "in extremis", causó gran satisfacción a Doña María Cristina, que así se estimó vengada de los ultrajes inferidos a su dignidad real por los sargentos de La Granja (…). Pero de rechazo, fue fatal esta nueva actitud de la Regente a la transacción negociada con Carlos V por el Rey de Nápoles. Ignorante Don Carlos de este nuevo aspecto del debatido pleito que había colocado frente a él a la viuda de su hermano, permaneció inmovil en Arganda al frente de sus dieciséis aguerridos batallones, en espera que se abrieran de par en par las puertas de la capital de España» (Melgar, 1958: 70-71).

799. «Temerosos de perder su régimen de privilegios e ideológicamente afines al moderantismo, los fueristas (leales a la reina) intentaron vincular la paz a una solución sobre los fueros. Por su parte, los notables locales del carlismo, desechada la solución absolutista, encontraron en el transaccionismo la única vía transitable para sus pretensiones sobre el régimen foral (…) Los fueros se situaban por primera vez en el centro del debate político» (Ugarte, 1991: 282).

Urte hartan eliz kabildoa zazpi abadek eta kapilau batek osatzen zuten, Sarasua bera barne. Horietatik zaharrena Jose Maria Areta zen, politikoki beharbada giristinoen alde egon arren, Sarasuaren ustez ez zen arriskutsua, zaharregia zelako[800]. Zerrendan bigarrenak aurrekoaren izen eta abizen berdinak zituen, baina bigarren abizenak bereizten zituen, Jose María Areta Cenzano. Hau ere, giristinoa izan arren, Sarasuak ez zeukan kaltegarritzat.

Ezin berdina esan Mateo Argianori buruz, San Luisen Ehun Mila Semeak sartu zirenean, milizianoekin alde egin baitzuen, eta I. Karlistaldian bertan, armatutako urbanoen kapilaua izan zen, «… racionandose como tal». Sarasuak zehazten zuenez, «… tiene mucho prestigio con los cristinos, y de aqui juzgara el superior por sus altos conocimientos si es perjudicial en el distrito». Gabriel Astiazaran liberalen aldekoa ere Eibarrera itzuli berria zen, hil batzuetan Markinako karmeldarren komentuan egon ostean, «… donde ha estado reclusado (…) por su mala conducta politica y moral». Itxura denez, Eibar liberalen esku egon zen bitartean, apaizik gehienak herritik alde egin zuten, baina Astiazaran gelditu zirenetariko bat izan zen. Baina, Argianorekin alderatuta nahiko argi gutxikoa zenez eta karmeldarren komentuko esperientziak bere jokabidea zertxobait zuzendu zuenez, Sarasuak ez zekien zein puntutaraino zen kaltegarria.

Pedro Saturnino Ezenarro karlisten alde zegoen. Adimenez, nahiko argia —"*de bastante despejo*", dino idatziak—, herritik kanpo ibili zen karlistek herria hartu zuten arte, eta ordutik aurrera leialtasunez bete zituen karlisten aginduak, «… evacuando informes cuando ha sido preguntado por las autoridades»[801]. Hori, noski, ez zen kaltegarria Sarasuaren ustez. Lorenzo Gisasola Oregiri buruz ez zekien gauza argirik, Aginagako elizaz arduratzen zenez, hirigunera gutxitan etortzen zelako. Hala ere, «… se dice que es mas afecto a la legitimidad». Jose Ventura Iraegiren jokabide moral eta politikoa ere ona zela zioen Sarasuak, baina «… es bastante corto de luces, por haber empezado a estudiar muy adulto». Eta bukatzeko, Sarasua bera zen karlisten kontakturik fidagarriena Eibarko apaizgoaren artean.

Beraz, eliz kabildoa zatituta agertzen zaigu, bere kideen iritzi politikoari dagokionez. Batetik, Argiano eta Astiazaran liberalen alderdian kokatu behar ditugu, beharbada Markinako karmeldarrek azken horren jokabidea "zuzentzea" lortu bazuten ere[802]; beste muturrean, Ezenarro eta Sarasua karlisten aldekoak ziren; erdibidean, Areta biak —ustez giristinoak—, Gisasola Oregi —ustez karlista— eta Iraegi, inolako zehaztapenik gabe. Gerraostean, liberalak izan ziren elizgizonei

800. Sarasuak zioenez: «… su permanencia en el destino ni util, ni perjudicial ya por su abanzada edad», GAO, Diputación Carlista, Ca 48, 28, 1838-10-22.

801. Ezenarro karlistekin zebilela Eibar liberalen esku mantentzen zenez, horiek 151 anega gari eta 84 anega zekale bahitu zizkioten. Gaineratzen duenez: «… el fruto de estas temporalidades se entregó (…) en el caso de Eibar, para ayudar a alguna viuda y huérfanos como María Martina Eual, viuda de Vicente Echavarría, muerto en la acción de 23 de diciembre» (Mutiloa, 1982: 390-391).

802. Hirurteko Aurrerakoian zehar Astiazaran "*Escuela de Cristo*"ko "*Esclavo Mayor*" izan zen, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-10-12.

buruzko informazioa eskatu zutenak. Udalaren erantzunak zehazten zuenez, Sarasuak eta Ezenarrok armada liberala herrian sartu baino egun batzuk lehenago alde egin zuten herritik, eta Bergarako Konbenioa sinatu eta egun batzuetara itzuli ziren. Edonola ere, Sarasuak ez zuen asko iraun, 1839ko urrian ez baitzaigu herrian zeuden apaizen zerrendan agertzen[803].

"BAKEA ETA FORUAK": EUSKAL AKORDIOA

Euskal lurraldeetan gerraren bukaera "Bakea eta Foruak" formularen bidez etorri zen[804], eta 1839ko abuztuaren 31n gauzatu zen, Maroto karlistaren eta Espartero liberalaren arteko "Bergarako Besarkada" ezagunean. Militarren arteko akordio bat izan arren, bakearen oinarriak ezarri zituen, bere lehen artikuluak zioenez: «El Capitan General don Baldomero Espartero recomendará con interés al gobierno el cumplimiento de su oferta de comprometerse formalmente a proponer a las Cortes la concesión o modificación de los fueros». Bere aurrean, formatuta eta oraindik desarmatu gabe zeuden Gipuzkoako eta Bizkaiako batailoietan zurrumurruak areagotzen zirela ikusirik, beste hau gehitu zuen: «Yo os prometo que se os conservarán vuestros fueros, y si alguno intentase despojaros de ellos, mi espada será la primera que se desenvaine para defenderlos» (Dorronsoro, 1870: 31, 32)[805]. Cabrera jeneral karlistak 1840ko maiatzera arte jarraitu zuen borrokatzen —Maestrazgo mendikatean—, baina Don Karlosek ez zeukan jada Madrileko tronora ailegatzeko aukerarik, indarrez behintzat.

Foruen inguruko akordioa ez zen goizetik gauera sortua. Gerrak aurrera egin ahala, foruen aldarrikapena indartzen zihoan, eta gerra bukatzeko ezinbesteko baldintza bihurtu ziren. 1835etik zebilen Muñagorri konspiratzailea "Bakea eta Foruak" lema bultzatu nahian, baina bere ekimena gorpuzteko, 1838ko apirilera arte itxaron beharko zuen, Baionako bulegoaren zabalkundearekin. Bulego horrek espioitza-lanaz gain, notizia faltsuak zabaltzeko eginkizuna zuen, betiere karlisten arteko iskanbila eta etsitzea lortzeko helburuarekin. Horrez gain, "Bakea eta Foruak" lemari bildutako zenbait erbesteraturekin muga-lerroa zeharkatu zuten; baina karlisten erretagoardian zenbait erreketa burutu ostean, laster babestu ziren berriz estatu frantziarrean.

Beste modu batekoa izan zen Abiranetaren eginkizuna, jeneral karlista ezberdinen artean zizoa ipini eta mesfidantza sortzearena, karlismoaren desintegrazio-

803. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1839-10-27.

804. Historialari batzuek I. Karlistaldian foruen gaiak eduki zuen garrantzia gutxietsi badute ere, beste batzuen ustez, foruen defentsa gatazkaren muin-muinean dago. «En 1833 la cuestión dinástica fue el móvil principal de la insurrección de esta provincias; pero luego se complicó con la causa de los Fueros y la importancia de esta causa fue siempre en incremento por las sugestiones de los mismos que tenían interés en fomentar el entusiasmo del partido carlista» (Egaña Julian: *La Legislación Foral de las Provincias Vascongadas*, 124. or.). Edota, «… si bien no fueron en sí mismos *casus belli*, una vez estallada la guerra adquirieron cada vez mayor relevancia (…) y acabaron condicionando el final de la contienda bélica (…) a cambio de olvidar la reclamación dinástica» (Rubio Pobes, 2000: 150).

805. Koldo Mitxelena Kulturunea (KMK), Fondo Gordeen Gela (FGG), 091.APA, 109. dok.

prozesua bizkortzeko. Abiranetak, Frantziak eta Ingalaterrak (Lord John Hayren bidez) lau herrialdeen independentzia bermatuko zutela sinetsarazi zien soldaduei eta behe-ofizialei, Marotoren gidaritzapean[806]. Guztia gezurra izan arren, kontura gaitezen amuan ipinitako karnata, lau herrialdeen independentzia zela. Itxura denez, soldadu eta ofizialik gehienak tratu hau onartzeko prest zeuden. Kontura gaitezen 1830eko iraultzaren ondorioetako bat Belgikaren independentzia izan zela, eta testuinguru horretan Hegoaldeko lau herrialdeena ez zela amets hutsa[807], horretarako Don Karlos bera erail behar bazen ere[808]. «Eta "bakearen" helburua lortuta, hanka egin zuen Marotok tarrapataka Ameriketara. Eta hantxe hil zen, Txileko Valparaíson, 1853ko abuztuaren 25an, eta Bergaraz eta Euskal Herriaz oinazerik gabe osoki ahaztuta»[809]. Bergarako besarkadaren ondoren, espainiar Gorteei zegokien Esparterok agindutakoa legeztatzea. Gorte horietan liberal aurrerakoiak zirenez nagusi, moderatuek osatutako gobernuak arazo latzak izan zituen legearen testu zehatza adosteko orduan, foru-herrialdeetako ordezkariek egindako foruen defentsa sutsuari esker. Madrileko Gorteetan buruturiko eztabaida horietan gehien bereizi ziren diputatuetariko bat Valentin Olano izan zen, liberalek aldarrikatzen zuten askatasuna foruetan txertatzea posible zen, «… sin que se nos diga que somos de la edad media, que nuestras libertades son cartas-pueblas y otras vulgaridades semejantes». Bergarako Besarkada ez zela errendizio bat izan gogorarazi ostean, batailoi karlisten aurrean Esparterok hartutako konpromisoari oinarri legala eman behar zitzaiola defendatu zuen, «Pues lo que yo no digo al hombre que está con las armas en la mano no se lo digo después que las ha dejado» (Blasco. 1982: 56).

806. «… que acogida bien la demanda de los subordinados y preguntandoles a que se dirigian sus miras habian respondido que a la independencia de las cuatro Provincias bajo un sistema republicano foral, y que él (Maroto), fuese el Presidente de la República expulsando a d. Carlos y a su familia del territorio peninsular, haciendose todo de acuerdo con la garantia de Francia e Inglaterra», *Reseña de la "Memoria dirigida al gobierno español sobre planes y operaciones puestos en ejecución para aniquilar la rebelión en las Provincias del Norte de España",* Apalategi bilduma, 091 APA, 143. dok.

807. «El fantasma de la independencia es un fantasma real. No es producto exclusivo de cerebros trastornados por la guerra, que en su delirio transfiguran el mito de la independencia primitiva. Ni de mandaderos que esconden con frialdad los exclusivos intereses económicos en juego de potencias extranjeras. El fantasma cobra cuerpo, sobre todo, en hombres (…) que se pronuncian a favor y en contra de la creación de un Estado independiente con Vascongadas y Navarra, razonando, evaluando el pasado vasco, el presente de la guerra, el futuro de Europa. El debate de 1836 en la *Revue des Deux Mondes* entre Viardot y Carne es singularmente revelador» (Sánchez Prieto, 2000: 104-105).

808. «Siendo las tropas de línea las mas adictas a Maroto y que mas odiaban al Pretendiente los Gefes supieron o sospecharon que d. Carlos trataba de seducirlas contra aquel General, y determinaron impedirle la entrada en las líneas fortificadas. Mientras tanto los capitanes del tercer Batallón de Guipuzcoa, que estaban alojado en la villa de Andoain, reunieron toda presentaba la fuerza en la Plaza Real y mandaron cargar las armas con la firme resolución de que si se presentaba el Pretendiente hacerle una descarga y fusilarlo con toda su comitiva», *Reseña de la "Memoria dirigida al …",* KMK FGG, 091 APA, 143. dok.

809. Datu hau Txillardegik eskaintzen digu *Putzu* eleberrian. Eleberria izan arren, datu zehatzak eskaintzen ditu Jose Luis Alvarez Enparantzak obra honetan, eta hau ere, datu zuzena delakoan gaineratzen dut (Txillardegi, 1999: 200).

Azkenean akordioa, 1839ko urriaren 25eko lege anbiguoaren bidez etorri zen. Bere bi artikuluek honela zioten:

> "Art. 1º. Se confirman los fueros de las provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía"
>
> Art. 2º. El Gobierno, tan pronto como la oportunidad lo permita, y oyendo antes a las provincias Vascongadas y a Navarra, propondrá a las Cortes la modificación indispensable que en los mencionados fueros reclame el interés de las mismas, conciliado con el general de la nación y de la Constitución de la monarquía, resolviendo entre tanto provisionalmente, y en la forma y sentido expresados, las dudas y dificultades que puedan ofrecerse, dando de ello cuenta a las Cortes" (Rico, 1994: 113).

Lege horren garrantzia bistakoa da, espainiar konstituzioak euskal foruak legeztatzen baitzituen estreinakoz. Baina era berean, «… sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía» emendailuak lehen baieztapenaren indarra erlatibizatzen zuen, eta laster ikusiko ziren horren ondorioak. Bigarren artikuluari dagokionez, Nafarroan gauzatu egin zen foruen aldaketa, bi urte geroago espainiar gobernuak eta Nafarroako Diputazioak —liberalez osatua— «Ley sancionada de 16 de agosto de 1841 sobre los fueros de la provincia de Navarra» adostu eta onetsi baitzuten. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak, ordea, bigarren artikuluaren aplikazioa atzeratzen saiatu ziren behin eta berriz[810].

KONKLUSIOAK

I. Karlistaldian zehar, Eibarko liberalek Hirurtekoan zehar hasitako bidea sendotu zuten eta milizianoen kopurua dugu liberalismoaren indar eta oldarraren adierazle nagusia. Gerraren hasieran, hirigunearen defentsa ez zegoen antolatuta, 1834ko urtarrilean karlistak herrian sartu eta alkatea bahitzeko gaitasuna erakutsi zuten-eta. Handik aurrera, Jauregirekin joandako boluntarioen hutsunea ahal zen moduan bete, eta uztailean eibartarrek Zabalaren gudu-taldearen erasoari aurre egin zioten.

Gertakizun hori ikuspegi ezberdinetatik azter dezakegu. Alde batetik, azpimarragarria da ume, adin nagusiko eta emakumeen parte-hartzea hirigunearen defentsan; azken horiek euren batailoi propioa sortzeko baimena eskatu izana liberalismoaren beste seinale bat dela ondoriozta dezakegu. Gai honen inguruan, etxe batean baino gehiagotan eztabaida gogorrak sortuko ziren senar-emazteen eta aita-alaben artean, baina kontua da 100 emakumek hirigunearen defentsan parte hartu zutela, armekin eskuetan. Beste alde batetik, aipagarria iruditzen zait ordura arte inondik agertu gabeko Gaspar Urretak bere gutunari eman zion kutsu anti-

810. «La historia fue mostrando cómo las instituciones del País lucharon por mantener lo poco que les iban dejando y cómo cada vez que se intentaba o se llevaba a cabo un desafuero éstas se oponían con todas las fuerzas a su alcance, lo cual no solía ser mucho. La única posibilidad que les quedaba ere la de dilatar las negociaciones en aquellos casos en que los perjuicios eran inminentes, con el fin de esperar a tiempos mejores para continuar las conversaciones» (Blasco. 1982: 99, 100).

bizkaitarra. Nor ote zen pertsonaia hura, geroago errege-fabrika Eibarren ezartzeko ordezkari-lanetan agertuko zaiguna?

Zabalaren erasoaldiaren ostean, karlistek 20 egunetan zehar eduki zuten Eibar setiatuta, eta zenbait biztanle atxilotu bazituzten ere, ez zuten hirigunean sartzerik lortu. Armada liberalaren helduerak karlistak uxatu zituen, eta orduan, Eibarko miliziak herria defendatzeaz gain, inguruko hinterlanda kontrolatzeko eginkizuna hartu zuen, Ziortzara egindako espedizioak adierazten digun bezalaxe. GAOn aurkitutako dokumentuak, miliziano haien kopurua eta nortasunak argitu dizkigu: miliziano kopurua ia bikoiztu egin zen Hirurteko Liberaletik, eta armaginen presentzia nabarmena haien artean (gutxienez hirutik bat), edo hobe esanda maisu eta ofizialen presentzia, 1835eko zerrendan ez baitziren ikasleen —"*aprendices*"— nortasunak agertzen. Beraz, armaginen kopurua oraindik altuagoa izan zitekeen milizianoen artean.

Beharbada, armaginen eta milizianoen arteko batasun horrek azal dezake liberalen esku egon zen bitartean Eibarren izan zen "boom"a, armagintzan. Karlisten setiopean, legedi eta baimenak albo batera utzita, eibartarrek euren buruak defendatzeko armak fabrikatu behar izan zituzten, era guztietakoak gainera. Arando armaginak gerra-premiak ekoizpen-arloan zabaldu zituen aukeren berri ematen digu, bidelapurrentzat egindako arma berezien jatorria azaltzeko orduan, «… puesto que se las mandaban fabricar en los principios de la lucha actual, que se usaba de todas Armas». Gogora dezagun, era berean, Pedro Sarasketak dioenez, Manuel Garatek errebolberra 1835ean asmatu zuela, hau da, I. Karlistaldiaren garaian. Eta Zabalaren gudu-taldeari ongi etorria eman zion tiro zaparradak armagintzan aplikatzen ari ziren berrikuntza hauekin zerikusia daukala uste dugu. Zentzu horretan, gerra-abaguneak armen inguruko esperimentazio-aukerak zabaldu zituen.

1834an Soraluzeko Errege Fabrika eraman zuen uholdeak aukera aproposa eskaini zion Eibarri Debarroko arma-fabrikaren egoitza bertan ezartzeko. Eta bai lortu ere, hilabete batzuetan zehar behintzat, karlistek herria hartu zuten arte. Lekualdatze hutsa zirudien operazio horren benetako helburua gremioen ekoizpen-egitura deuseztatzea zen, Artilleria zuzendariak onartzen zuen bezalaxe, «… suprimiéndose los gremios que ninguna ventaja proporcionan ni al Real Servicio ni a los mismos interesados…». Beraz, I. Karlistaldirako armagin eibartarrek gremioen egitura gaindituta zeukatela ondorioztatzen da, eta bakoitza bere bidetik, baina guztien helburua euren tailerretik armarik hoberenak ateratzea zela. Zentzu horretan, armaginen arteko lehiakortasuna areagotu zen, eta gerra bukatu zenean, ez dirudi egoera aldatu zenik.

Karlisten alderdiari dagokionez, daukagun datu urriak zuhurrak izatera behartzen bagaituzte ere, disoziazio bat nabari da arlo politikoaren eta militarraren artean. 1835eko milizianoen zerrendan karlistekin zebiltzan 25 lagunetatik inor ez zen armagina, eta bakar bat genuen lur-jabea. Horien ondasunak miliziano liberalenekin alderatzen baditugu, benetako ezjabetuak karlisten alderdian zeudela dakusagu. Baina, karlisten agintaldietan aritu ziren udalkideen nortasunak aztertzen baditugu,

lur-jabe ezagunekin topo egiten dugu. Zer esan nahi du horrek? Funtsean, karlismoak gorputz bat bezala funtzionatzen zuela, organismo bat bezala, pieza bakoitza bere tokian, batzuk elizan, besteak udalean eta gainerakoak lubakietan, denok Lege Zaharraren magalean, eta horregatik berorregatik, elkarrekin nahastu gabe. Ikuspegi liberalarentzat, ordea, gizabanakoa da garrantzitsua, nor bere kabuz erabaki eta gauzatu ahal izatea, pentsamolde zaharkituak gainditzeko lehen urratsa pertsona bakoitzaren kontzientzian eman behar baitzen. Iraultza liberalak historiaren protagonista bihurtu zuen norbanakoa, eta gidoiaren arabera, politikoaren zein soldaduaren paperak interpretatzeko prest egon behar zen.

Arlo politikoan zaila da liberalen eta karlisten arteko bereizketa egitea. Liberalen agintaldietako udalkide guztiak liberalak ote ziren? Eta karlisten agintaldietakoak, karlistak? Hasiera batean, agintaldi horietan parte hartu zuten udalkideak gehien bereizten dituena armatutako urbanoen milizian izandako parte-hartzea izan zen: 1834 eta 1835eko 13 udalkideetatik 7 miliziano liberalak izan ziren, eta karlisten garaian ordea, 14tik bakarra, eta bera herri-diputatua. Horrez gain, liberalen agintaldian hiriguneko biztanleak ziren nagusi, eta karlistenetan baserrietakoak. Jabetza higiezinen errentak liberalenak baino altuagoak ziren udalkide karlisten artean, baina boluntario karlistenak askoz baxuagoak ziren. Karlistek esperientziadun auzokideak bilatu zituzten euren udalak osatzeko, eta liberalek ostera, udalkideen berrikuntza bultzatu zuten. Armagin kopuruan, ordea, ez da bi taldeon arteko bereizketarik sumatzen.

Agintaldi liberaleko udalkideei dagokienez, pixka bat harrigarria egiten da 1834ko Gipuzkoako Batzar Orokorretarako izendatu zuten ordezkariak talde foruzalearen alde agertu izana, "*Estatuto Real*" delakoaren onarpena egiteko moduari buruz sortu zen eztabaidan. Gogora dezagun Donostiak eta Pasaiak "*Estatuto Real*" deritzona inolako baldintzarik gabe onartzea defendatu zutela, gainerako herriek foruaren aurka ez zihoan neurrian sinatzearen alde bozkatu zutelarik. Eibarko ordezkarien jokabideak zalantza bat baino gehiago pizten du herri honetako liberalen konstituziozaletasunaren inguruan. Itxura denez, 13 urte lehenago Bolinaga eta beste milizianoek euren kopletan adierazitako konstituziozaletasun sutsua pixka bat epelduta zegoen 1834rako. Zoritxarrez, 1835etik aurrera Eibar karlisten menpe gelditu zenez, ez daukagu udalkide liberalen eboluzioaren aztarnarik, batez ere 1837ko konstituzio aurrekoiaren inguruan sortu ahal izan ziren mugimenduen inguruan.

Bukatzeko, Eibarko elizgizonei buruzko txostenak udalerriko elizgizonik gehienak liberalismoaren aldekoak zirela argitu digu. Horien artean Mateo Argiano pertsonaia klabea iruditzen zait; milizianoen batailoiko kapelaua izateaz gain, Sarasuak berak zioenez, «… tiene mucho prestigio con los cristinos». Liberalismoaren aurrako mugimenduen gorpuztean —eta karlismoa, horietako bat zen— eliza katolikoak jokatu zuen papera ezagututa, ez da batere txantxetan hartzekoa Argianoren sermoien eragina liberal elizkoiengan, batez ere elizgizon karlisten demagogiaren menpe erortzeko arriskuan zeuden horiengan. Ziur asko elizgizon liberalen ekimena, karlismoaren hazkundea oztopatu zuen faktore erabakigarrietako bat izan zen Eibarren.

1. ERANSKINA

1835eko ekainean karlistek eskatutako maileguan parte hartu zutenak

NORTASUNA	Zerga 1835-6	Urb. 1835	Arm. 1835	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Habitata 1842	Auzo 1847	Zerga 1847
ALBERDI Jose Maria	2000	A.U.		200	Jabea	Hirigunea	HH	1000
ARAMBERRI Nicolás	1000			150	Maizterra	Hirigunea	HH	460
GANCHEGUI Joaquín	1000			550	Jabea	Nekazal	HH	520
ZULUAGA Francisco	1000			100	Maizterra	Hirigunea		
SUINAGA ITURRAO Pedro Francisco	1000		O C					
PAGAEGUI Pedro	1000							
SUSTAETA Ambrosio	1000			300	Jabea	Nekazal	HH	1129
MANDIOLA Andrés	1000			550	Jabea	Nekazal		
GUISASOLA Martín	1000							
VERGARA Ramón	1000							
UNZETA BARRENECHEA ("mayor")	900			475	Jabea	Nekazal	HH	950
AGUIRRE Ramón	640	A.U.	M A	100	Jabea	Hirigunea		
ARGUIANO SENAVILLA Mateo	500			300	Jabea			
ALBIZURI Juan Bautista	320	A.U.	M K				H/	390
ARANA Pedro Ignacio	320	A.U.						
ARTAMENDI Juan José	320	A.U.						
ACHA GOROSTIETA Juan Andrés	300	A.U.		100	Jabea	Hirigunea	H/	350
AGUIRRE Jose Joaquín	300			500	Jabea	Nekazal	HH	804
VERGARA ASUA Pedro	300			178	Maizterra	Nekazal	HH	474
GALLASTEGUI Pablo	160			320	Jabea	Nekazal		
ACHA BERRECHINAGA Agustín	160			175	Jabea	Nekazal		
AZPIRI José Mateo	160			470	Jabea	Nekazal	HH	1000
ARETA "MENDIGOITIA" Ignacio	100		O G	500	Jabea	Nekazal	HH	1099
ACHA GOROSTA "menor" Pedro	100							
LECETA Juan José	100			500	Jabea	Nekazal	HH	1116
IÑARRA IRAEGUI José Ignacio	80			300	Jabea	Nekazal		
BASCARAN José Domingo	80			250	Jabea	Nekazal	HH	500
ACHA ARLABAN Pedro	80			273	Jabea	Nekazal		
ALDAZABAL Joaquín	80			394	Maizterra	Nekazal		
IRIONDO Agustín	80			488	Maizterra	Nekazal		
ORBEA Juan Antonio	80							
ACHA GOROSTA Agustín	40			460	Jabea	Nekazal	HH	470
ESCAREGUI Francisco	40			400	Maizterra	Nekazal		
IRIONDO Andrés	40			320	Maizterra	Nekazal		
ACHA "MENDIVIL" Manuel	40			286	Jabea	Nekazal		
VERGARA Ignacio	40							
LECETA Domingo	4 gari anega			498	Jabea	Nekazal	HH	717
GUISASOLA Miguel	3 gari anega							

Laburduren esanahia. “1835-6” eremua: 1835eko ekainean maileguan emandako erreal kopurua; “Urb.1835” eremuan: “A.U.”, Armatutako Urbanoa 1835ean; “Arm.1835” eremuan: “M” maisua, “O” Ofiziala, “K” kanoigina, “C” kaxagina, “G” Giltzagina, “A” Aparejugina, “B” Baionetagina; “Jabetza 1842” eremuan, 1842ko zerga territorialean ordaindutako kopurua errealetan; “Jabea/Maizterra”, 1842an; “Auzo 1847” eremuan, “HH” hautesle hautagaia, “H/” hauteslea; “Zerga 1847”, errealetan.

2. ERANSKINA

1835ean, Armatutako Urbanoen zerrenda

NORTASUNA

ABANZABALEGUI Manuel
ABARRATEGUI Valerio
ACHA ALBIZURI Antonio
ACHA GOROSTIETA Juan Andrés
ACHA Gregorio
ACHA José Antonio
ACHA José Ramón
ACHA Juan
ACHA Manuel
ACHOATEGUI Felipe
ACHOTEGUI Juan Bautista
ACHUATEGUI Agustín
AGUADO Agustín
AGUIRRE ARGUIANO Gregorio
AGUIRRE Esteban
AGUIRRE Evaristo
AGUIRRE José
AGUIRRE José Antonio
AGUIRRE José Martín
AGUIRRE José Mateo
AGUIRRE Juan Agustín
AGUIRRE Juan Bauptista
AGUIRRE Juan Bautista
AGUIRRE Pedro José
AGUIRRE Ramón
AGUIRREZABAL Agustín
AGURIA Santiago
AJANGUREN Bonifacio
ALBERDI Agustín
ALBERDI Antonio
ALBERDI Antonio
ALBERDI Domingo
ALBERDI Domingo
ALBERDI ELCANO José
ALBERDI Francisco Ramón
ALBERDI José (a) Esquerra
ALBERDI José Agustín
ALBERDI Jose Maria
ALBERDI José María
ALBERDI Mateo
ALBERDI Nicolas
ALBERDI Pedro
ALBERDI Sebastián
ALBIZU Gabriel
ALBIZURI Juan Bautista
ALDECOA ELORRIAGAZAR Vicente
AMESTI Domingo
AMESTI Francisco
AMESTI Manuel

NORTASUNA

AMUATEGUI Miguel
ANDOAIN Clemente
ANGUIZ Felipe
ANITUA ECHEVERRIA Domingo
ANITUA José
ANSOLA Tomás
ARAMBERRI Bartolomé
ARAMBERRI Pedro Felix
ARAMBURU Felix
ARAMBURU Felix
ARAMBURU Juan Cruz
ARANA Domingo
ARANA Esteban
ARANA Francisco
ARANA Francisco
ARANA Joaquín
ARANA José Mateo
ARANA Julián
ARANA Manuel
ARANA Pedro Ignacio
ARANA Pedro María
ARANCETA Pedro Francisco
ARANDO José
ARANZETA Juan Miguel
ARECHAVALETA Domingo
ARETA Francisco
ARETA LASCURAIN Ignacio
ARETIO Maximiano
ARGUIANO Andrés
ARGUIANO Domingo
ARGUIANO Felipe
ARGUIANO Manuel
ARGUIARRO Andrés Antonio
ARGUIARRO José María
ARISMENDI ARRIETA Ignacio (a)
ARISMENDI Bartolomé
ARISMENDI Manuel
ARISNABARRETA Francisco Antonio
ARIZAGA Domingo
ARIZAGA Domingo
ARIZMENDI Agustín
ARIZMENDI ARRIETA Felipe
ARIZMENDI Domingo
ARIZMENDI José
ARRATE José
ARRATE José Francisco
ARRATE José María
ARRESE Manuel
ARRIAGA Nicolás

NORTASUNA

ARRIETA José
ARRIETA Manuel
ARROYABE Martín
ARTAECHEVERRIA Feliz
ARTAMENDI Antonio
ARTAMENDI Juan Antonio
ARTAMENDI Juan José
ARTECHE Simón
ARTONDOAGA Francisco
ARTONDOAGA Sebastián
ARTONDUAGA José
ASCARGORTA Miguel
ASPE José Agustín
ASTIAZARAN Ignacio Melchor
ASTIGARRAGA José
ATRISTAIN José Agustín
ATRISTAIN Manuel
AULESTIA Juan
AZURMENDI Ignacio
AZURMENDI Manuel
BADIOLA Leandro
BARINAGA José Andrés
BARRENECHEA
BARRENECHEA Esteban
BARRENECHEA Francisco
BARRENECHEA Juan
BARRUTIA Julián
BARRUTIA Sebastián
BASCARAN Antonio
BASCARAN Domingo Ramón
BASCARAN Emeterio
BASCARAN Ignacio
BASCARAN Isidro
BASCARAN, Jose María
BASCARAN Juan Bautista
BASCARAN Lázaro
BASCARAN Luis
BASCARAN Manuel
BASCARAN Manuel
BASCARAN Nicolás
BEISTEGUI Ignacio
BEIZTEGUI Francisco
BEIZTEGUI Francisco
BELATEGUI José
BELATEGUI Martín
BELAUNSIARAN José
BENGOA Joaquín
BENGOA Melitón
BENGOECHEA Francisco

NORTASUNA

BERLAN Agustín
BERLAN Andrés
BERMUDEZ Martín
BERRAONDO Francisco
BETOLAZA Francisco
BETOLAZA Juan
BETOLAZA Nicasio
BETOLAZA Silbestre
BOLIMBURU Bartolomé
BOLIMBURU Patricio
BOLINAGA Ignacio
BOLINAGA José Vicente
BURGOA Feliz
BURGOA Juan Bautista
BUSTINDUI Francisco
BUSTINDUI Juan Esteban
BUSTINDUI Pedro Joseph
BUSTINDUI RUIZ Domingo
BUSTINDUY Alejo
BUSTINDUY Gregorio
BUSTINDUY Ignacio
BUSTINDUY Jorge
BUSTINDUY José
BUSTINDUY José Ramón
BUSTINDUY Pedro
CALLEJA Domingo
CAREAGA José
CAREAGA Lorenzo
CENDOYA José
CIGARRAN Elias
CIGARRAN Francisco Ramón
CIGORRAGA Antonio
CIGORRAGA Juan Bautista
CORTAZAR Francisco
CORTESENA Julián
CRUZETA Blas
CRUZETA Ignacio
CHAROLA Cándido
CHURRUCA Luis
DOISTUA Antonio
DOISTUA José Agustín
ECENARRO Francisco
ECENARRO Prudencio
ECENARRO Sotero
ECHALUCE José
ECHEVERRIA Andrés
ECHEVERRIA Andrés
ECHEVERRIA Andrés
ECHEVERRIA Bartolomé

NORTASUNA

ECHEVERRIA Bernardo
ECHEVERRIA Carlos
ECHEVERRIA Crispín
ECHEVERRIA Diego
ECHEVERRIA Francisco
ECHEVERRIA Francisco Antonio
ECHEVERRIA Francisco Lorenzo
ECHEVERRIA José
ECHEVERRIA José
ECHEVERRIA José
ECHEVERRIA José Antonio
ECHEVERRIA José Fermín
ECHEVERRIA Jose Mateo
ECHEVERRIA Juan
ECHEVERRIA Juan José
ECHEVERRIA Manuel
ECHEVERRIA Miguel
ECHEVERRIA Miguel José
ECHEVERRIA Pedro
ECHEVERRIA Pedro
ECHEVERRIA Pedro Antonio
ECHEVERRIA Vicente
ECHEVERRIA Vicente
EGUREN Agustín
EGUREN José Antonio
EGUREN José Joaquín
EGUREN Juan Agustín
EGUREN Rosario
EGUREN Vicente
EISMENDI Ignacio
EIZAGUIRRE Manuel
ELEJALDE José Luis
ELIZPURU Ambrosio
ELIZPURU Manuel
ELORZA Canuto
ELORZA Ramón
ELZU José
ESTEIBAR Ciriaco
EULACIA José
GABILONDO Antonio
GABILONDO José Mateo
GABIOLA José Ramón
GALDIANO Francisco
GALDOS Francisco
GALPARSORO Esteban
GALPARSORO Esteban
GALPARSORO Miguel
GALLASTEGUI Andrés
GALLASTEGUI Ascensio

NORTASUNA

GALLASTEGUI Benito
GARATE Ambrosio
GARATE Francisco María
GARATE Inocencio
GARATE José Antonio
GARATE José María
GARATE Manuel
GARATE Pedro
GARCIA Francisco
GARCIA Roque
GARDOY Joaquín
GARDOY Juan María
GARRO Andrés
GARRO Francisco
GARRO Pedro
GAVILONDO Francisco
GONZALEZ Angel
GONZALEZ Ilario
GONZALEZ Joaquín
GONZALO Manuel
GONZALO Milian
GOÑI Mateo
GOROSTEGUI Felix
GOROSTEGUI Nicolás
GOROSTIZA Juan
GOROSTIZA Raimundo
GORROCHATEGUI Celestino
GORROCHATEGUI Francisco
GORROCHATEGUI Julián
GORROCHATEGUI Justo
GUISASOLA
GUISASOLA AGUINAGA José María
GUISASOLA AGUIRREBEÑA Feliz
GUISASOLA Agustín
GUISASOLA Antonio
GUISASOLA Domingo
GUISASOLA Domingo
GUISASOLA Francisco
GUISASOLA Jose Cruz
GUISASOLA Juan Antonio
GUISASOLA Mateo
GUISASOLA Miguel Ignacio
GUISASOLA Pedro
GUISASOLA SANTA INES Isidro
GURRUCHAGA Bautista
IBARGOITIA José María
IBARRA José Martín
IBARRA Miguel Antonio
IBARRA Pedro

NORTASUNA

IBARRONDO Ignacio
IBARZABAL Ambrosio
IBARZABAL Felipe
IBARZABAL José Ignacio
IBARZABAL Juan
IBARZABAL Juan
IBARZABAL Martín
IBARZAVAL Pedro
IBIETA Agustín
IDIGORAS Fausto
IÑARRA IRAEGUI Pedro María
IRAOLA Juan Miguel
IRAZABAL Francisco
IRIZAR Francisco
IRUSTA Juan Antonio
IRUSTA Ramón
ISASI Antonio
ITURBE Domingo
ITURBE Fernando
ITURRINO Santiago
ITURRIOZ Agustín
ITURRIOZ Agustín
ITURRIOZ José
ITURRIOZ Martín
ITURRIOZ Rafael
ITURRIOZ Sebastián
LABACA José
LARRAÑAGA Agustín
LARRAÑAGA Domingo
LARRAÑAGA José Benito
LARRAÑAGA Juan Bautista
LARRAÑAGA Manuel
LARRAÑAGA Ramón
LARRAÑAGA Sebastián
LARREATEGUI Gabriel
LARREGUI José Ignacio
LAUSAGARRETA Rafael
LETURIONDO Andrés
LEZETA Crispín
LIZARRITURRI Anselmo
LOYOLA José
LOYOLA Juan Bautista
MACUREGUI Ipolito
MADARIAGA Manuel
MAGUREGUI Antonio
MAGUREGUI Bentura
MAGUREGUI Domingo
MAGUREGUI Salvador
MAIZTEGUI José

NORTASUNA

MAIZTEGUI Manuel
MANDIOLA GUISASOLA Rufino
MARCAIDE Pedro
MENDIBELZUA Manuel
MENDIOLA Domingo
MENDIOLA José María
MENDIVIL Pedro María
MENDIZABAL Fausto
MENDIZABAL Felipe
MENDIZABAL Manuel
MORENO Gaspar
MUGICA Juan Bautista
MUGUERZA Agustín
MUGUERZA Bartolomé
MUGUERZA Bartolomé
MUGUERZA Gregorio
MUGUERZA José Joaquín
MUGUERZA Lorenzo
MUGUERZA Manuel
MUGUERZA Manuel
MUGUERZA Manuel Andrés
MUGUERZA Manuel Andrés
MUGUERZA Pedro
MUGURUZA Pedro
MURUA Juan Domingo
OJANGUREN Agustín
OJANGUREN Gabriel
OLAÑETA Antonio
OLAVE Jose María
OLEAGA Ciriaco
ONDARZA José María
ONDARZA Pedro Martín
ORBEA AGUIRRE Manuel
ORBEA AZPIAZU Manuel
ORBEA Ignacio
ORBEA José María
ORBEA Manuel
ORBEA Ramón
ORBEA Sebastián
ORBEA URQUIZU Manuel (a) Urguzu
ORBEA Valentín
ORMAECHE Isidro
ORMAECHEA Agustín
ORMAECHEA Francisco
ORMAECHEA Gabriel
ORMAECHEA Sebastián
ORUE Manuel
ORVEA Pedro
OSORO Gabriel

NORTASUNA

OSORO Javier
PAGAEGUI Juan
PAGAEGUI Pedro José
RETENAGA Andrés
RIBAS José Antonio
RUIS Eugenio
SALABERRIA Mateo
SALAVERRIA Antonio
SARASQUETA Dionisio
SARASQUETA Francisco
SARASQUETA José Agustín
SARASQUETA José Antonio
SARASQUETA Julián
SARASQUETA Manuel Joaquín
SARASQUETA Martín
SARASQUETA Miguel
SARASQUETA Miguel Antonio
SARASQUETA Pedro María
SARASQUETA Ramón
SAROBE Pedro
SEGURA Ignacio
SINUE Fermín
SUINAGA Francisco
TAPIA Antonio
TAPIA Antonio
TAPIA José
TREVIÑO Agustín
TREVIÑO Andrés
TREVIÑO Andrés
TREVIÑO Manuel Joaquín
TROYOLA Francisco
UBERA Pedro
UBERUAGA Antonio
UGALDE ARAMBURU
UGALDE Joaquín
UGALDE José Agustín
UGALDE Pedro José
UNAMUNO Santos
UNZUETA José Antonio
URCELAY Esteban
UREOSTE Juan José
URGOITA Anselmo
URIARTE José María
URIARTE Nicolás
URIARTE Pío
URIBITARTE Pedro
URIETA Gaspar
URIGOEN Manuel
URREBARRI Venancio

NORTASUNA

URREBASO Francisco
URREBASO Juan
URRESTIL Francisco
URRIOLA Ramón
USATORRE Andrés
USATORRE Isidro
USATORRE Pedro
VERGARA José María
VERGARA Juan Esteban
VERGARA Pedro
VIDARTE Inocencio
VIDARTE José María
VIDARTE Miguel
VIDARTE Patricio
VILLAR Fernando
VILLAR José
VILLAR Juan Julián
YARZA Domingo
YARZA Ramón
ZABALA Miguel
ZABALETA Ildefonso
ZABALETA Joaquín
ZARAGOZANO Blas
ZARANDONA Jose Antonio
ZARANDONA José Manuel
ZARATAIN José
ZARATE Melitón
ZAVALETA Agustín Martín
ZUBIZARRETA José
ZUBIZARRETA Juan
ZULOAGA Andrés
ZULOAGA José Andrés
ZULOAGA Simón
ZUMARAN Andrés
ZUMARAN Julián
ZUMARAN Sebastián
ZUMARAN Sebastián
ZUMARAN Sebastián

8. kapitulua
Konstituzioa eta Foruak, aurrez aurre (1839-1868)

MODERATUEN ETA AURRERAKOIEN ARTEKO TIRABIREN PEAN

Foru-udalaren berrezarkuntza, moderatuen eskutik

1839ko urriaren 20rako, eratuta zegoen Gipuzkoako Buruzagi Politikoak izendatutako udal liberala, gerra aurretik bezala zazpi partaidek osatua. Herri-ordezkarien presentziak eta alkatearen "*juez ordinario*" emendailua mantentzeak adierazten digu errejimentuak foru-udalaren egitura mantendu zuela. Berez, 1835eko udalkideek berreskuratu behar zituzten beren karguak, baina horietatik ageri zen bakarra Ramón Agirre alkatea izan zen. Horrez gain, bitxia da sindiko-karguan 1837ko udal karlistako alkatea aurkitzea. Urtea bukatzeko hiru hilabete eskas gelditzen zirenez, hurrengo urtean ere udalkide berek jarraitzea erabaki zuen auzokideen batzarrak, eta haiek onartu egin zuten, «… con bastante repugnancia»[811].

Gerraoste hurbilean, Donostiaren eta Gipuzkoaren arteko tirabirak indartu egin ziren, 1839ko azaroaren 16ko legeak foru-erregimena I. Karlistaldiaren aurretik zegoen bezala berrezarri zuenean. Donostiako liberalek sutsuki protestatu zuten argudiatuz ezen udal-hauteskundeak egiteko berriz auzokide hautagaien sistema erabiltzea konstituzioak ezarritako sufragio murriztuaren aurka zihoala. Gobernuaren erantzuna ez zen luzatu, eta abenduaren 20ko legearen bidez, askatasuna eman zion Donostiari —eta ondorioz, horrela eskatzen zuten udalerri guztiei— udal-hauteskundeak konstituzioaren arabera egiteko, eta ez foru-erregimenaren arabera. Horrela egin zuten Pasaiak eta Irunek (Rubio Pobes, 2000: 160), eta arraroa da Eibarko Udalak abagune hori ez aprobetxatu izana udal-hauteskundeak konstituzioaren arabera egiteko. Akta-liburuan inolako protestarik ez aurkitzeak pentsatzera garamatza liberal aurrerakoiek zeukaten eragina uste genuena baino txikiagoa zela.

Izan ere, estatu espainiarrean moderatu eta aurrerakoiak liskar gogorretan sartuta zebiltzan udalak hautatzeko erabili beharreko sistemaren inguruan. 1837an proklamatutako konstituzio aurrerakoiak estatuko biztanleen % 2,2ri onartzen zion udal-hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea —ordura arte, % 0,6ari— eta horrek aurrerakoiei eman zien nagusitasuna hiri handienetan. Alderdi aurrerakoia

811. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1839-12-31.

hartzen ari zen indarra oztopatu nahian, 1840ko uztailaren 15ean "*Ley de Ayuntamientos*" berri bat onartzea lortu zuten. Lege horrek sufragioa murrizteaz gain, gobernu eta gobernadore zibilen eskuetan uzten zuen hiri handietako alkateak izendatzeko eskuduntza. Irailaren hasieran moderatuen aurkako altxamenduak hasi ziren estatuko hiribururik gehienetan, eta anabasa bideratzeko Esparterori botere absolutuak eman zizkioten, azken finean berau zelako aurrerakoien ordezkari nagusia. Hurrengo hilean María Cristinak erregeordetzari uko egin eta erbesteratu egin behar izan zen. Aurrerakoiekin boterean, Esparterok foru-erregimenaren aurkako eraso orokorra hasi zuen.

1840ko ekainaren 19an Bizkaiko Diputazioak Bilboko epaile batek emandako sententzia bat errekurritu zuen, Burgoseko audientziaren agindu bat betearazi izanagatik «… sin que constase el pase o uso concedido por dicha diputación». Helegitearen erantzunean, epaileari arrazoia emateaz gain, Esparterok foru-baimena kentzea erabaki zuen, hain zen garrantzi gutxikoa bere ustetan[812]. Ez hori bakarrik: Epaitegi Gorenarekin adostasunean, ministeritza guztiei agindua igortzea erabaki zuen «… para que con ningun motivo ni pretexto se sujeten al pase y uso de la diputación foral las leyes, las órdenes y decretos del Gobierno supremo y las providencias y ejecutorias de los tribunales, extendiéndose esta disposición a las provincias de Alava y Guipúzcoa». Erabaki horren bidez, Esparterok foru-lurraldeen autonomia legegilea bermatzen zuen figura juridiko nagusia ezabatu zuen, hamar hilabete geroago bere aurka hasi zen matxinadari aitzakia paregabea eskainiz. Inozokeria hutsa ala kalkulatutako probokazioa izan zen?

Foru-diputazioaren eta gobernu aurrerakoiaren arteko aurkakotasunak udalgobernuak zipriztindu zituen, Eibarkoa barne. Alkateari eskuduntza judizialak kendu nahian, aurrerakoiek barruti judizialetako epaitegien sorkuntza bultzatu zuten, horien artean Bergarakoa. 1841eko apirilean, Ramón Agirre Eibarko alkateak bi agindu jaso zituen aldi berean: batetik, foru-diputazioak Bergarako epaitegia aintzat ez hartzea agintzen zion, eta bestetik, Bergarako epaitegiak bere eskuetan zeuden auzi guztiak bertara igortzeko agintzen zion. Gai honen inguruan Eskoriatzako alkateak aurkezturiko jarrera foruzaleak bere atxiloketa eragin zuela (Portillo, 1987: 135) jakinda, Agirre «… se veya (sic) en un compromiso y perplejo», eta udalbatzari aholkua eskatu bazion ere, horrek erabakia berak hartzeko erantzun zion, «… considerando lo espinoso del asunto, y confiando en el buen celo que al Sr. Alcalde le asiste»[813].

812. «Al mismo tiempo he tomado en consideración otros puntos contenidos en dicha consulta, y no ha podido dejar de observar la poca importancia que para el bien y la prosperidad de esos naturales del llamado pase o uso foral; que al cabo es del todo insignificante, supuesta la obligación de cumplir a la segunda yusión (…) y sobre todo que es incompatible con la unidad constitucional que es siempre debe quedar salva por lo dispuesto en la ley de 25 de octubre de 1839» (Garcia Ronda, 1991: 65-66).

813. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1841-4-11.

1840 eta 1841eko udalkideen eginkizun nagusia gerra-gastuak nola ordaindu erabakitzea izan zen. Gerra bukatu bezain agudo, Baskaran sindikoak eta José Joaquín Agirrek "*Ejercito Nacional*" delakoari egindako horniketen kontuak aurkeztu zituzten, eta eztabaida latz eta luzea piztu zen «… sobre si devian ser anteladas en el pago otras obligaciones procedentes de igual naturalez»[814]. Hil batzuetara Ambrosio Sustaetak eta María Angela Agirregomezkortak (Francisco Zuluagaren alargunak) urbanoei eginiko horniketetan gastatutako 24.054 errealen kontua aurkeztu zuten[815], baina udalak kontu guztiak aztertu arte ezin zuenez ezer erabaki, korrejidorearengana jo zuten, eta horrek Bartolomé Zubelzu merinoa bidali zuen, «… *a proceder al embargo de los propios y arvitrios de esta villa*»[816].

Ordurako, gerrako diru-kontuak aztertzeko eratu zen batzordeak, kontu horien inguruan zegoen anabasaren berri emanda zeukan, eta bere aburuz ere, kontuak argitzen ez ziren bitartean komenigarriena ordainketa guztiak bertan behera uztea zen. Horrez gain, zerga-biltzaileek aurkezturiko kontuen arabera, 82.655 erreal ezin izan zituzten kobratu, eta udalak txori txikirik ez zuenez, zordunei berehala kobratzea agindu zuen[817]. Baina bien bitartean propio eta arielek bahituta jarraitzen zuten, eta diputazioak gainera zerga berriak ezartzeko baimenik ez zion ematen Eibarko Udalari. Udal-langileei ordaindu ezinean, udalak larritasunezko erabakia hartu zuen: Independentzia Gerran seiren bat ordainduta lurrak bahian zeuzkatenei, bigarren seirena kobratzea[818], Sustaeta eta Agirregomezkortari ordaindu eta bahiketatik lehenbailehen askatzeko asmotan. Dirurik eskura ez eduki arren, desamortizatutako lurren balioaren bigarren seirena eskaini zien bermetzat, eta egun batzuetara Korrejimentuak Eibarko propio eta arielen bahiketa altxatu egin zuen[819].

814. EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1839-11-10.

815. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1840-8-9.

816. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1841-1-30.

817. «El Sr. Alcalde se halla en el mayor compromiso sin un maravedi de que disponer para hacer frente a las precisas y frecuentes atenciones que ocurren (…) acordo se cobren de los morosos las contribuciones que se esten debiendo de las exigidas desde el principio de la ultima guerra» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1841-3-6.

818. «… acordo que a los compradores de los terrenos que esta villa tiene enagenados por la sesta parte de su valor en prenda prendaria con calidad de que disfrutasen de sus utilidades hasta tanto fuesen reintegrados de las cantidades desembolsadas, se les exija otra sesta parte en dinero metalico (…) y que los compradores que no gustasen avenir con esta medida, entregandoles las cantidades desembolsadas se apropie la villa de los terrenos que disfrutan y darles la conveniente salida al obgeto que se propone el ayuntamiento» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1841-4-17.

819. «… que por la primera providencia del Sr. Juez de dicha causa dictada el año de 1841 se embargaron todos los propios y arbitiros de VS para la seguridad y pago del redito reclamado por los esponentes. A pocos dias de haberse verificado el embargo se hizo un convenio entre VS y los referentes, en virtud de acuerdo del Ayuntamiento General de vecinos concejantes por el que VS se obligaba a satisfacer la deuda cobrando otra sesta parte de los terrenos y montes que tiene prendados, siempre que se lebantasen los embargos indicados; consiguientemente a este convenio se libraron los embargos» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-4-23.

1841eko udazkenean, liberalismo moderatua ordezkatzen zuten militarrek —O'Donnell eta Sanchez de Oca—, María Cristinaren itzulera eskatuz, Esparteroren aurkako matxinada hasi zuten, foru-diputazioen laguntzarekin. Mutiloa Pozak dioenez, Gipuzkoan eibartarrak izan ziren, donostiar eta irundarrekin batera, matxinadara gehitu ez ziren gipuzkoar bakarrak (Mutiloa, 1982: 424), baina akta-liburuan ez dugu horren aztarnarik aurkitu. Azkenean, O' Donnell eta gainerakoak garaituak izan ziren, eta diputazioen jokabideak Bergarako Akordioa hautsi zuela argudiatuz Esparterok 1841eko urriaren 29an dekretuak eman zituen: foru-diputazioen ordez probintzialak ezartzeko, udal-hauteskundeak konstituzioak agintzen zuen erara egiteko, alkateei eskuduntza judizialak kentzeko[820] eta aduanak mugetara eta kostaldera iragateko. «Azken urte haietan donostiar erakundeek adierazitako funtsezko guztia jasotzen zuen Dekretu hura Gasteizen izenpetu ondoren, Espartero Donostiara abiatu zen berriro, hirian ohore guztidun ongi etorria eman zitzaiolarik» (Gonzalez de Garai eta Barcenilla, 1990: 95). Momentu horretatik aurrera donostiar burgesiak foruekiko zuen jokabidea zeharo leundu zen, haiekiko askoz jarrera irekiagoa agertuz[821].

1842ko eta 1843ko udal aurrerakoiak

1842ko eta 1843ko udal-hauteskundeak 1837ko konstituzioaren arabera burutu ziren, eta Eibarko Udalean berrikuntza nabarmena gertatu zen. Bi agintaldiotan aritu ziren 15 lagunetatik, bi baino ez ziren auzokide hautagaiak, hiru herri-ordezkariak izandakoak eta bakarra Hirurteko Liberalean aritutakoa. Gainerakoak esperientziarik gabeko udalkideak ziren, hurrengo taulak adierazten digun bezalaxe. Udalkideak izendatzeko erabili zuten prozedura zehatza ez da islatzen, baina badakigu udala bederatzi lagunez osatu zela: alkatea, alkateordea, sei errejidore eta sindikoa. Errejidoreak bi urtetarako hautatzen ziren, eta urtero erdiak aldatzen ziren. Horrek egonkortasun handiagoa ematen zion udal-dinamikari. Herri-diputatua eta

820. Portillok dioenez, 1839tik aurrera «… el esfuerzo progresista se centró en un continuo vaciamiento de la capacidad de acción de que las diputaciones habían venido llenándose, junto a una pretensión evidente por desnaturalizar las bases locales de los poderes locales tradicionales, es decir, "el ayuntamiento foral"» (Portillo, 1987: 113).

821. «Pero los años cuarenta modificaron esta actitud: durante el trienio esparterista (1841-1843), los liberales donostiarras tuvieron ocasión de comprobar que el progresismo hacía peligrar ciertas atribuciones forales que interesaba conservar (exención del papel sellado, arrendamientos de impuestos provinciales, derecho de avería, libre introducción de tabaco y sal para el consumo…), así que una vez modificado el Fuero en el sentido deseado –aduanas en la costa y frontera con Francia— a raíz del Decreto de Vitoria de 29 de octubre de 1841, abandonaron su radicalismo y en 1847 la ciudad de San Sebastián acepto la invitación de la Provincia para reintegrarse en la Hermandad» (Rubio Pobes, 2000: 152-153). Fernandez Albadalejok ere puntu hau azpimarratzen du: «En la medida en que habían resuelto a su favor la vieja pugna de las aduanas, y dado que el régimen constitucional les independizaba de la posición marginal que ocupaban dentro del régimen foral, podían exhibir una postura mucho más moderada a propósito de los cambios que debería sufrir este último» (Fernandez Albadalejo, 1980: 53).

herri-sindikoaren karguak desagertu egin ziren. Idazkari Pedro Agustín Garamendi izendatu zuten, eta diruzain 50 urte bete berriak zituen Gabriel Ibarzabal.

NORTASUNA	<=1840	1840	1841	1842	1843	1844-3	1845	1846	1847	1847=>
BASCARAN José Domingo	Bai	SPG								Bai
IBARZABAL José Ignacio	HD/HS	HD	HD							
ARANZETA Juan Miguel	KONS.	HD								
GUISASOLA Domingo	HD/HS	HD								
GUISASOLA Juan Antonio	Bai	ER				ER	ER			
ARAMBERRI Nicolás	Bai	ER								
AGUIRRE Ramón	Bai	A1								
ESCAREGUI Francisco	Bai		SPG							
ECHEVERRIA Miguel José			HS							KONS.
URCELAY Emeterio			HD							
ACHA GOROSTIETA Juan Andrés	Bai		ER					SPG		
AGUIRRE Jose Joaquín	Bai		ER					ER		
ALBERDI Jose Maria	Bai		A1							
VERGARA Pedro Francisco				SPG						
PAGAEGUI José María				ER	ER					Bai
ZARANDONA Jose Antonio	HD/HS			ER	ER					
ARGUIANO Andrés Silbestre				ER	ER					
SARASQUETA Andrés				ER						HD/HS
BASCARAN Domingo Ramón	Bai			ER						
ECHEVERRIA "menor" Francisco				ER						
ALBIZURI Juan Bautista	KONS.			A2						
AROSTEGUI Eugenio				A1						
GUISASOLA Antonio Benito					SPG					Bai
AGUIRRE Pedro José	Bai				ER					
VIDARTE José María					ER					
AGUIRRE Juan Domingo					ER					
ARANGUREN Pedro Luis	HD/HS				A2					Bai
GUISASOLA AGUIRREBEÑA Feliz	HD/HS				A1					Bai
ARETA "MENDIGOITIA" Ignacio	Bai					SPG	SPG			
IBARZABAL Juan	HD/HS					HS	HS			
ARGUIANO Felipe	Bai					HD	HD	HD		
BETOLAZA Francisco	Bai					HD	HD			
MANDIOLA José Domingo						ER	ER			
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio						A2	A2			Bai
AGUIRRE Juan Bautista						A1	A1			
GUISASOLA (URQUIDI) Sebastián								HS		
CIGORRAGA Juan Bautista	HD/HS							HD	HD	
ARANA Esteban								ER		KONS.
GABIOLA José Ramón								A2		Bai
SUSTAETA Ambrosio	Bai							A1		
ORBEA URQUIZU Manuel (a)									SPG	
BUSTINDUY Alejo									HS	Bai
EGUREN Gaspar	HD/HS								HD	

Eugenio Arostegiren[822] gidaritzapean, udal-dinamika aldatu egin zen: auzokide hautagaien batzar orokorra desagertu egin zen, eskuduntza guztiak udalak bildu zituelarik; udala bera finkotasunez biltzen hasi zen, bilera-eguna igandetik astelehenera aldatuz; Lehen Hezkuntza Batzordea eta Erregistro Zibila sortu ziren… Baina bahian emandako lurren inguruan sortutako arazoak udala harrapatuta zeukan zenbait interesek osaturiko matxarda batean: alde batetik, batzuk udalari egindako maileguak edo udalaren izenean gastatutako diruak berreskuratzen saiatu ziren, bigarren seirena ordaindu ahal izateko[823]; bestetik, Jose Gisasola Eskaregi eta beste batzuek diputaziora jo zuten, Eibarko Udalak hasitako bigarren seirenaren kobratzea gelditzeko eskatzen[824], eta bai lortu ere[825]. Bermerik ezean, Sustaetak eta Agirregomezkortak berriz epaitegira jo zuten, udalaren arielen bahiketa eskatzera[826]. Bigarren bahiketa horren ondorioz, Bideen Kutxak 2.000 erreal mailegatu behar izan zizkion udalari[827]. Urrian, Bergarako epaitegitik Eibarko Udalari deitu zioten eraiki behar zen kartzelaren gastuekin ados zegoen galdetzeko. Udalak erantzun zuen ordezkaririk bidaltzeko pezeta bakar bat ez zeukala, eta beraiekin kontatu gabe harturiko erabakia protestatu egingo zuela. Ez zeuden txantxetarako!

1842ko agintaldi honek lehia bitxi baten aztarna utzi zigun. Mateo Argiano apaiz liberalak aurreko urtean Gabriel Ibarzabalek izandako jokabidea salatu zuen, udalak eliz kabildoari zor zion diru bat kobratzeko bildu zirenean, Ibarzabalek zentzunik gabeko beherapenak aurkeztu zituela-eta. Haren testigantzak, 1842ko udalkideak losintxatzeaz gain, 1841eko urriko matxinada moderatuak Ibarzabalengan

822. Eugenio Arostegi 1835eko urbanoen zerrendan agertzen da lehen aldiz, Getarian babestu zirenen artean. Beharbada 1830ean Deba aldetik ailegatuta, Eibarko auzokide hautagaien zerrendan onartu zuten Manuel Arostegiren semea zen, EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839)*, 1830-6-27.

823. Jose Maria Pagaegik eta Andres Mandiolak, 1812an egindako mailegu bat eskatu zuten, zeinaren bidez «evitaron las vejaciones y consecuencias fatales que hubiera sufrido la villa». José Domingo Baskaranek, sindikoa izan zenean –1839an— udalari mailegatutako 30 dukatak (330 erreal) eskatu zituen «… en la (atención) de que se ve el esponente en estado de tener que atender a la satisfaccion de la sesta parte de valor de los terrenos que esta villa le enageno en calidad de prenda…". Baskarani baietz erantzun zioten, ziurtatzen zutenean ordainduko ziotela. Jose Miguel Guisasolak ere, Aginagako jaietan 1829-1833 eta 1841. urteetan, danbolinteroari eta tanborrari emandako janariaren dirua (241 erreal), seigarren zatitzat onartzeko eskatu zuen. Horri emandako erantzuna, ordea, «… que Guisasola acreditase no habersele satisfecho lo suplido por alimentos del tamborilero y tambor, y se le abonará». Zelan? EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-2-7 eta 1842-2-28.

824. «… en solicitud de que esta Corporacion municipal sobresea en el pedido de la nueva sesta parte del valor de los terrenos adjudicados en prenda» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-4-29.

825. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-7-3.

826. «… no habiendo realizado VS el total pago de la deuda, por haber tenido que suspender por orden de la Diputacion el cobro de la indicada sesta parte del valor de los terrenos y montes prendados, se vieron en la precision de recurrir nuevamente al mencionado Juzgado, con el fin de cobrar el haber en su totalidad» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-4-23.

827. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-7-1.

eduki zuen eragina deskribatzen digu[828]. Hirurteko Liberalean monarkikoen aurrako irteeretan ibilitako aurrerakoiak ziren biak, baina hogei urte geroago nahiko urrunduta zeudela dirudi.

Hurrengo hilean Ibarzabalek herriko zorra kitatzeko plan bat aurkeztu zuen, udalaren esku zeuden edo egon zitezkeen diru-iturri guztiak bilduz, zor guztiak ordaindu, eta zeharkako zergak jaisteko helburu nagusiarekin[829]. Berak aurkezturiko kontuen arabera, Eibarko Udalaren zorrak eta ustezko sarrerak era honetara banatzen ziren:

Zorretan zegoena:		Ustezko sarrerak	
Bideen Kutxan	352.400	Lurren bigarren seirena	280.000
Gerra Kutxan	79.250	Iturriaren zerga luzatuta	80.000
Udal Kutxan	65.000	Bideen Kutxaren arbitrioak	60.000
		Eskola, Aginagako apaizaren etxea…	50.000
Guztira	496.650		470.000

Ikasturtearen hasieran, udalak Agirre maisuari lanpostua ziurtatzea erabaki zuen, sei botorekin alde eta hiru kontra[830]. Gogora dezagun, karlistek Evaristo Agirre bere lanpostutik kendu egin zutela, eta gerraostean berreskuratu zuela, baina behin-behinean. Agirreren alde bozkatu zuten taldean seitik lau miliziano ohiak ziren, eta hiru armaginak. Lur-jabeen eta maizterren arloan nahiko parekatuta daude, baietz bozkatu zutenen artean jabetza ertainak nagusitzen diren bitartean, ezetz bozkatu zutenen artean errenten arteko desoreka handiagoa delarik. Oro har, bozketaren emaitza arketipo politiko-ekonomikoekin bat datorrela ikusten da, liberalek Agirreren alde jarri ziren-eta. Ikusten denez, auzokideen batzarrak ez zeukan jada inolako eskuduntzarik, eta errejimentuko kideek askatasun osoz hartu zezaketen era honetako erabakiak.

828. «… en la ultima contra-revolucion de Octubre ppdo., temeroso de que tal vez tomaria incremento aquella y enbargarian a fuerza armada lo que existiese en las cajas de caminos y guerra fue llamado el exponente, y habiéndole puesto de manifiesto el riesgo que corrian los intereses ya referidos le dijo que le facilitara un recibo para tener salida a cualquier evento que pudiera acontecer para lo cual y seguridad del que subscribe le entregaria un contra-recibo…» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-3-21.

829. «Desde el año de 1848 en adelante no se debe exigir en los derechos de vino y aguardiente sino lo que se dira: Dos cuartos en azumbre de vino para pago de asalariados; Un cuarto para pago de las demas obligaciones que ocurran, y obras publicas que se ofrezcan; otro para pago de las deudas sin interes con mas el agregado de cuatro o cinco mil reales de la adeala del aguardiente (…) Cada año se pondrán en remate los 14.000 rs. divididos en siete lotes, y como cada acreedor deberá tener ya un credito en papel, se aplicará cada lote al que mas dinero de en dichos creditos» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-4-25.

830. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-10-4.

Evaristo Agirre maisuaren lanpostua

NORTASUNA	EA 1842	Urb. 1835	Arm. 1835	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Zerga 1847
BASCARAN Domingo Ramón	Bai	A.U.	M A	200	Maizterra	340
ALBIZURI Juan Bautista	Bai	A.U.	M K			390
VERGARA Pedro Francisco	Bai			200	Jabea	400
ZARANDONA Jose Antonio	Bai	A.U.	M G			340
AROSTEGUI Eugenio	Bai	G 35		450	Jabea	
ECHEVERRIA "menor" Francisco	Bai					
SARASQUETA Andrés	Ez			120	Maizterra	
PAGAEGUI José María	Ez			200	Jabea	
ARGUIANO Andrés Silbestre	Ez					754

"EA1842" zutabean; "Bai", Agirreri lanpostua ziurtatzearen alde; "Ez", Agirreri lanpostua ziurtatzearen kontra. Gainerako eremuak ezagunak ditugu.

1843ko alkatea Feliz Gisasola izan zen, hau ere armagina eta miliziano ohia. Gisasola herri-sindikoa izan zen 1827an. Udalaren bilerak gehiago tartekatu ziren, berriro ere igandeetara pasatuz, meza nagusiaren ostean. Itxura denez, Sustaeta eta Agirregomezkortaren jokabideak kitzikatuta, beste hartzekodun batzuek ere Bergarako epaitegira jo zuten beraien zorra lehenbailehen kobratzeko xedearekin. Bergarako epaitegia gainezka zegoen, eta epailea bera Eibarrera hurbilduta, udalaren eta hartzekodun nagusien artean akordio bat aurkitzen saiatu zen, «… con separacion de todos los pleitos que tenian alarmado su juzgado»[831]. Jose María Alberdik, adibidez, udalari mailegatutako 17.684 errealak —«en dinero metalico sonante de oro»— berreskuratzeko, Bergarara jotzekotan zebilen, baina epailearen bisitaren ostean akordioa onartu zuen. Baina, bigarren bahiketaren ondorioz, «… ve el esponente que unos continuan sus pleitos y que no puede preveer por lo mismo cuando llegará el dia en que queden realizadas sus esperanzas». Horren truke, udal-propio batzuen errenta eskuratzea eskatu zuen, baina udalak batzordera bideratu zuen bere eskakizuna. Ikusten denez, alkateak zituen eskuduntza judizialak Bergarako epaitegira igarota, bere funtzionamendua babesteko funtsezkoa zuen tresna galdu zuen udalak.

Sistema konstituzionalak ordura arte udaletik baztertuta egondako zenbait biztanleren eskubide politikoak onartu bazituen ere, erlijio-eskubideei zegokienez, eliz kabildoak auzokideen eta biztanleen —"*moradores*"— arteko bereizketa egiten jarraitzen zuen, azken horiei zerga berezia exigituz zenbait zerbitzuren truke —bataioak, hiletak…—. Miguel José Etxeberria konstituzioan oinarritu zen bizi zuten diskriminazio-egoera salatzeko, kapareen eta plebeioen arteko bereizketa ezabatuta zegoela azalduz[832], eta ondorioz, erlijio-eskubideak onartzen ez ziren

831. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-4-23.

832. Bere diskurtsoan Etxeberriak konstituzioarekin zuen sintonia somatzen da: «En el dia está suprimida la distincion de hidalgos y plebeyos, y por consiguiente el juicio de hidalgia (sic). Con arreglo a la Constitucion todos los Españoles sin distincion de clases pueden obtener empleos

bitartean Kultu eta Kleroaren Zerga ez zutela ordainduko agerraraziz. Udalak gainerako biztanleek baino diru gehiago zertan ordaindu ez zeukatela onartu zuen. Ordurako gauzak aldatzen hasita zeuden estatu mailan, lau hilabete lehenago moderatu eta aurrerakoien aliantzak, Espartero erregeordetzatik kendu egin zuelako —1843ko uztailean— bere jarrera autoritarioa zela-eta. Esparterorik gabe, aurrerakoien eta moderatuen arteko lehian, moderatuak nagusitu ziren, eta 1843ko abenduan "*Ley de Ayuntamientos*" moderatua onartu zuten. Zentzu horretan, beharbada Etxeberriaren protesta udalkideen konstituziozaletasuna frogan jartzeko era bat izan zen.

Bi aste geroago, Domingo Aretxabaletak eta Juan Bautista Zigorragak 43 biztanlek zergen gehiegikeriaren aurka sinatutako eskakizuna irakurri zuten udaletxean. Bertan erabiltzen diren esamoldeak —"*vejar al pueblo*", "*hipotecas bastantes*", "*espresion popular*"…— kutsu herrikoia ematen diote idatziari, noizbehinka aberatsen aurkako ñabardurak hartzen dituelarik. Sinatzaileek ziotenez, zerga bereziak ezartzeko baimena eskatzen zenean lortutako dirua eginkizun zehatz bat betetzeko izaten zen, eta behin hori beteta, legearen aurkakoa zen kobratzen jarraitzea. Hori zen Bide, Gerra eta Iturriaren kutxen kasua, baimena bukatuta eduki arren, kontsumo-gaiek zamatuta jarraitzen zuten eta[833]. Era berean, lortutako dirua, hain zuzen ere, herri-lurrez jabetu zirenei ordaintzen erabiltzen zela ikusteak ernegatu egiten zituen. Horiei buruz ziotenez, «… no se crea que los acreedores quedan perjudicados, cuando se hallan asegurados con hipotecas bastantes y tenian (…) el injusto monopolio que se exerce con los bienes que alguna vez fueron propios de la villa, pero que hoy, aunque conservan esta calidad, estan adjudicados a particulares que esprimen su jugo»[834]. Bukatzeko, beren eskakizuna kontuan hartzeko esaten zioten udalari, «… y en obsequio de la justicia esperan que desde este momento evitará la necesidad de recurrir al superior». Udalak ezetz erantzun zuen, haserre gainera, bere ustez eskakizun hori erremateen egunean aurkeztu izana lekuz kanpo zegoelako. Izan ere, eskakizuna kontuan hartzeko erremateak atzeratu beharrean aurkituko ziren, lehengaien horniketa- eta salmenta-baldintzak zeharo aldatzen zituelako.

Taula honetan, zeharkako zergen gehiegikeriaren aurkako protestan parte hartu zuten biztanleak agertzen dira:

---

municipales y la vecindad en cualquier pueblo llenando las formalidades legales» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-11-2. Etxeberriatarrak, oro har, liberalismoaren alde nabarmendu zen familia izan zen. Datu-basean dauden 66tik 27 armatutako urbanoak izan ziren; horiez gain, II. Karlistaldian Jose Cruz, Felipe eta Feliciano Askatasunaren Boluntarioen teniente, sarjentu eta kabu izan ziren, hurrenez hurren.

833. Esaterako, Deba adarreko bidea finantzatzeko, Eibarrek zerga bat ezartzeko baimena lortu zuen 1775ean: ardo azunbreari 8 maraukoa, eta pattarrarenari 17koa. Batak, 16.000 erreal eman zituen bost urtero, eta besteak 2.800. Bide hori egiteko udalak harturiko kreditua 352.420 errealekoa izan zen, eta zerga kobratzeko baimenik ez zen gordetzen, "*guerra de la Republica*"n erre zelako, hau da, 1794an, EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841)*, 1847-12-9 (eranskin anakronikoa).

834. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1843-11-19.

NORTASUNA	Udal karguak	Urb. 1835	Arm. 1835	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Habitata 1842	Auzo 1844	Auzo 1847
ACHATEGUI Pedro								
ALBERDI José			M C	492	Maizterra	Nekazal		
AMESTI Manuel		A.U.		200	Maizterra	Hirigunea		
ANZU Antonio								
ARANA Esteban	ER 1846	A.U.		150	Maizterra	Hirigunea		H/
ARANA Joaquín		A.U.	O G					
ARECHAVALETA Domingo	HD 1834	A.U.		200	Maizterra	Hirigunea		
ARGUIANO Felipe	A1 1834	A.U.					Bai	H/
ARRATE José Francisco		A.U.		300	Jabea	Hirigunea		HH
ARTAMENDI Juan Antonio		A.U.	O G	150	Maizterra	Hirigunea		
ASTIGARRAGA José		A.U. G						
BEISTEGUI Ignacio		A.U.	M C	50	Maizterra	Hirigunea		
BEIZTEGUI Jose Mateo								
BELAUNSIARAN José		A.U.						
BERISTAIN URCELAY Tomás								
BETOLAZA Francisco	A1 1821	A.U.	M A	200	Jabea	Hirigunea	Bai	HH
BUSTINDUY Alejo	HS 1847	A.U.	O A 35					
BUSTINDUY José		A.U.	O A 35	200	Maizterra	Hirigunea		
CIGORRAGA Juan Bautista	HS 1834	A.U. B						H/
ECHEVERRIA Carlos		A.U.						
ELEJALDE José Luis		A.U.	M K	150	Maizterra	Hirigunea		
GABILONDO Antonio		A.U.	O A 35					
GABIOLA José Ramón	A2 1846	A.U.		250	Jabea	Hirigunea		HH
GARATE Francisco María		A.U.	M G					
GARATE Manuel	ER 1859	A.U.	M G					
GUISASOLA Miguel								
IÑOLA Juan								
ITURRIOZ Sebastián		A.U.	M K	200	Maizterra	Hirigunea		
LIZARRITURRI Antonio		CV 35						
MANDIOLA GUISASOLA Rufino	A2 1867	A.U.	O G					HH
MENDIOLA Domingo		A.U.	O G					
MENDIOLA José María		A.U.						
MUGUERZA Bartolomé		A.U.		150	Maizterra	Hirigunea		
ODRIOSOLA Isidro		CV 35		200	Maizterra	Hirigunea		
ORBEA José María	ER 1813-7	A.U.						
OREGUI José Ramón								
OSORO Fabián								
RIBAS José Antonio		A.U.						
SALABERRIA Mateo		A.U.	M K					
URIA Ambrosio	ER 1874-6							
URIZAR Francisco			M A					
VERGARA Pedro	TER 1828	A.U.	M C	388	Jabea	Nekazal	Bai	
VIDARTE Miguel		A.U. G		200	Maizterra	Hirigunea		

"Auzo1844" eremuan, "Bai", 1844-2-25eko auzokideen bileran parte hartu zuen. "Auzo1847" eremuan, 1847ko udal-hauteskundeetan, "HH" auzokide hautagaia, eta "H" auzokidea.

Ikusten denez, sinatzailerik gehienak herritar xumeak dira, 1843 baino lehen udalkideak izandakoak lau baino ez ziren eta: Zigorraga eta Aretxabaletaz gain, Felipe Argiano eta Francisco Betolaza. Betolaza herritar xumeen protestan nahasita ikustea pixka bat harrigarria da, eta neurri berean indarra kentzen dio aurrerakoiek gidatutako ekimenaren hipotesiari. Zentzu horretan, sinatzaile gehienak urbano ohiak izan arren, Lizarriturri eta Odriozola karlisten presentziak adierazten digu

alderdikerietatik aparte sortutako protesta bat izan zitekeela. Protestatzaileen heren bat armaginak ziren, eta batez ere, hiriguneko biztanleek. "Auzo1844" eremuan, foru-udalaren berrezartzean parte hartu zuten auzokideak agertzen dira, kexu horren atzean sektore foruzaleak egon zitezkeelakoan, baina ikusten denez ez dago loturarik, 51tik hiru baino ez baitira agertzen nahasita. Bukatzeko "Auzo 1847" eremuak herritar xeheekin batera Eibarko lau handikiren presentziaren berri ematen digu. Oro har, ez da alderdi politiko edo ideologien parte-hartzerik atzematen.

Sasiforu-erregimenean: 1845eko konbenioa

Moderatuen itzulerak foru-erregimena berriz indarrean jarri zuen, baina murriztuta, Esparterok harturiko hainbat erabakik bere-berean jarraitu baitzuten: aduanak, esaterako, mugan eta kostaldean mantendu zituzten, alkateek ez zituzten eskuduntza judizialak berreskuratu, eta foru-baimena behin betiko ezabatu zuten[835]. Hurrengo urtean (1844an), hamahiru urte baino ez zituela, Isabel adin nagusiko deklaratu zuten, eta ondorioz, Espainiako erregina: Isabel II.a.

1843ko udalkideek 1844ko otsaileko udal-hauteskundeetara arte jarraitu zuten karguan[836]. Otsailaren 25ean, 51 auzokide bildu ziren, foruen araberako udal berria izendatzeko[837]. Bildutakorik gehienak landan bizi ziren, eta horrek adierazten digunez "milarren" baldintza berriz indarrean jarri zen. Alkatetzan Juan Bautista Agirre ipini zuten, baina esan bezala, eskuduntza judizialik berreskuratu gabe. Udalkide berriak apirilaren 1ean bildu ziren lehenengoz, herri-diputatuen eta herri-sindikoaren presentziarekin, baina auzokiderik gabe. Agirre alkateak harturiko lehen erabakia Garamendi idazkariaren ordez Gregorio Atxa izendatzea izan zen, «… por solo el motivo de que tiene confianza con dicho Acha». Udal-partaide guztiak alkatearekin bat etorri ziren, Juan Domingo Mandiola errejidorea izan ezik «… mediante a que la secretaria no se halla vacante y no ha dado motivo alguno quiere que siga como debe seguir y es justo»[838]. Herri-diputatuek eta sindikoak ere

835. «Parece cierto que de esto a la abolición completa de los fueros vascos no hay mas que un paso. Y aunque otras disposiciones promulgadas después de la salida de Espartero del poder, restaurasen instituciones y uso que este decreto había derogado, podemos decir que su influencia fue definitiva en los asuntos referentes a las aduanas, la administración de justicia, la seguridad pública, e incluso la elección constitucional de los ayuntamientos» (Garcia Ronda, 1991: 72).

836. Espartero jausi ondoren: «Una Real Orden del 27 de noviembre de 1843 había suspendido las elecciones para renovación de los ayuntamientos, y otras del febrero de 1844, manda que las próximas elecciones se celebren como era costumbre anteriormente. San Sebastián expone al Gobierno su pretensión de que las elecciones se lleven a cabo constucionalmente» (Garcia Ronda, 1991:83).

837. 51 auzokide bildu ziren, «… con el fin de hacer la eleccion de los individuos del Ayuntamiento particular, segun el régimen foral (…) se formaron lotes o cédulas de todos los vecinos concurrentes (…) y puestos en un jarro, despues de revueltos bien, se echaron al suelo, de donde un niño fue levantándolos y entregando al Señor Presidente para su lectura» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1844-2-25.

838. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1844-4-1.

aldaketaren alde bozkatu zuten. Diruzaina, ordea, ez zuten aldatu, Gabriel Ibarzabalek jarraitu baitzuen.

Auzokideen batzar orokorra desagertu izanak utzitako hutsunea bete nahian, gai garrantzitsuak erabaki behar ziren bileretan udalkidek beste ahaldun nagusik —"*mayores pudientes*"— parte hartu behar zutela agindu zuen Buruzagi Politikoak —"*Jefe Politico*"—, lehengo korrejidorearen ordezkoak. Apirilaren 28an, udalkideen, udalkideen ordezkoen eta ahaldun nagusien arteko lehen bilera burutu zen, itxura denez, bigarren seirena ordaindu ez zutenei kendutako lurrak sal zitezkeen ala ez erabakitzeko. Udalkiderik gehienek baietz bozkatu zuten, baina gainerakoek gaia aztertzeko denbora gehiago behar zela-eta, hartutako erabakiaren aurka protestatu zuten, ahaldun nagusi guztiek bilerarako deia jaso zutenari buruzko ziurtasunik ez zeukatela gehituz. Felipe Argiano herri-diputatuak —1834ko alkatea—, «… contraprotestó fundandose en que el Señor Presidente llamó y convocó a los mayores contribuyentes o pudientes del Pueblo para esta discusion sin que por el Secretario se leyo por dos o tres veces el oficio dicho tanto en idioma castellano como vascongado».

NORTASUNA	Seirena 1844-4	1844-3	Urb. 1835	Arm. 1835	Habitata 1842	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Auzo 1847
GUISASOLA Juan Antonio	Bai	ER	A.U.		Hirigunea	100	Jabea	
IBARZABAL Juan	Bai	HS	A.U.		Hirigunea	200	Maizterra	H/
ARGUIANO Felipe	Bai	HD	A.U.					H/
BETOLAZA Francisco	Bai	HD	A.U.	M A	Hirigunea	200	Jabea	HH
AGUIRRE Juan Bautista	Bai	A1	A.U.	O A				H/
BASCARAN José Domingo	Ez				Nekazal	250	Jabea	HH
PAGAEGUI José María	Ez				Nekazal	200	Jabea	
ARETA "MENDIGOITIA" Ignacio	Ez	SPG		O G	Nekazal	500	Jabea	HH
MANDIOLA José Domingo	Ez	ER						HH
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	Ez	A2				316	Jabea	HH
MANDIOLA GUISASOLA Rufino	Ez		A.U.	O G				HH
GUISASOLA GARITACELAYA Jose	Ez				Nekazal	400	Jabea	HH
ACHA GOROSTA Agustín	Ez				Nekazal	460	Jabea	HH

Bozketa honetan ez da argi gelditzen zein paper jokatu zuten ordezko udalkideek. Ahaldun nagusi bezala zeudela pentsa dezakegu, baina orduan bakarrik zazpi udalkide eta sei ahaldun nagusi izango ziren bileran, bakar baten hutsarekin. Gainera ez da esaten bozkatu zutenik, protestatu egin zutela baizik, beharbada kexatu zirenak gehiengoa zirelako. Beraien argudioan formula berrien aurkako erresistentzia nabari da, lehen momentu horietan lurren salmenta blokeatzea lortu zuena, gainera. Kontura gaitezen lurrak ez saltzearen alde egotea, ez inorenganatzearen alde egotea zela, hau da, bigarren seirena ez kobratzearen alde. Baiezkoak, ordea, ordaintzen ez zutenei lurrak kendu eta saltzearen aldekoak ziren.

Eztabaidan parte hartu zutenen iritziak arketipoen arabera aztertzen baditugu, lurrak saltzearen aldekoek liberalagoak dirudite, guztiak ere urbano ohiak ziren-eta.

Baina agian esanguratsuena "Habitat" zutabeak eskaintzen digun informazioa da, landan bizi ziren guztiak zerga berriaren aurka jarri baitziren, eta hiriguneko guztiak alde. Gainera, kontra jarri ziren guztiak lur-jabeak ziren, eta ez edonolakoak; hirigunekoen errentak bikoitzen zituzten (353,3 erreal / 166,6 erreal). 1847ko auzoen zerrendan ere, guztiak ziren hautagaiak, eta besteen alderdian, bakarra. Oro har, lurretan interesak zituztenak bigarren seirena kobratzearen aurka zeuden. Baina horietariko batzuk udalaren hartzekodunak zirenez, beste alde batetik komeni zitzaien udalak dirua biltzea zor ziena lehenbailehen kobratzeko[839]. Tapiaren zorra zelan ordaindu erabaki behar zuen batzordearen ustez, mila eta bi mila errealeko lurren loteak egin eta saltzea zen egokiena, eta udalak aho batez onartu zuen proposamena, «… en atencion a que de transigir tanto con los tenedores de terrenos denominados de sesta parte, como igualmente con los acreedores a esta Villa, se evita el procedimiento de cuatro o cinco litigios y asi bien los estraordinarios gastos que estos acarrearían»[840].

Egoeraren larritasuna gordintasunez planteatu zen 1845eko ekainean, hartzekodunek Bergarako epaitegira jotzen zuten bitartean, lurrak bahian hartu zituzten biztanleekin akordiorik ezin lortuta baitzebilen udala[841]. Arazoa korapilatsuegia zen, «… teniendo tambien presente los diversos intereses de cada uno de los concejantes tanto por ser acreedores como poseedores de terrenos y que esta circunstancia los hacia discrepar acaso entre si demasiado», eta alkateak bilera bertan behera utzi eta lau egunetara jarraitzea agindu zuen, gai horretan inolako interesik ez zuen aholkulari baten laguntzarekin.

---

839. Gero eta hartzekodun gehiago agertzen ziren gainera: irailaren 23an, Juan Andres Achak 1.523 erreal eskatu zituen, 1835ean gudarosteei eman behar izan zien ardoaren ordainketan, eta lehentasuna eskatu zuen kobratzeko orduan, zeren «… si el esponente no los hubiera facilitado aquellas especies a las tropas, la Villa se viera obligada a suministrarlos amenazando tal vez en efecto a los capitulares que representaban segun por desgracia se ha experimentado algunas veces». Urriaren 23an, Betolazak 1793 erreal, 1835eko horniketengatik. Azaroaren 22an, Meliton Ortiz de Zaratek 860 erreal, gudaroste giristinoak ostatzeko alokatu zituen bi gelen truke, «… y despues sirvio para alojamiento a las tropas carlistas y tambien como carcel correccional que duro hasta el Convenio de Vergara»; hasteko 160 ordaindu zizkioten. Hurrengo urteko otsailaren 25ean, Antonio Tapiak 35.000 errealeko kontua aurkeztu zuen…, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*.

840. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-3-9.

841. «… manifesto el Presidente el estado angustioso en que la villa se encontraba a consecuencia de los pleitos con que se la perseguia por diversos acreedores en los Tribunales de Justicia esponiendose tambien otros a desplegar sus acciones por la via contenciosa a la vez que el Ayuntamiento se veia obligado a sostener un empeñado debate con los vecinos compradores de los terrenos llamados propios o tenedores en prenda de los mismos (…) por otra parte teniendo tambien presente los diversos intereses de cada uno de los concejantes tanto por ser acreedores como poseedores de terrenos y que esta circunstancia los hacia discrepar acaso entre si demasiado, acordoran suspender por hoy la sesion y diferirla hasta el proximo lunes que se cuentan nuebe dias del corriente mes en que se aria concurrir a un Letrado de conocida providad y enteramente extraño al negocio e intereses» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-6-5.

Ekainaren 9an auzokideen batzar jendetsua egin zen Fco. María Astarloa abokatuaren aurrean. Udala egoera latzean zegoen: alde batetik bere propio eta arielak bahituta zituen, Jose María Alberdiren erreklamazioaren ondorioz; bestetik, Antonio Tapiaren aldeko epaia eman zuen Bergarako auzitegiak, eta udalak 35.360 erreal ordaindu behar zizkion. Baina hori ez zen okerrena, erakunde judizial berriek hartzekodunen alde jotzen zutela ikusirik, beste biztanle batzuk ere Bergarako bidea hartzekotan zebiltzalako beraien zorrak kobratu nahian. Gainera, auzien bideak udalaren baliabide urriak agortzen zituen (Ziortzako apaizekin zeukaten auzia galdu berriak ziren, 3.000 errealetik gorako zorra sortuz), eta «… su prosecucion lenta y costosa por la resultante de intereses que embolbian, no dejaria de producir altercados en el vecindario a los que era consiguiente mayor irritabilidad de él, dividido entre si»[842]. Hartzekodun nagusiak eta lurrak bahian zeuzkaten jaberik gehienak bileran zeuden, eta handik edo hemendik, Bergarako epaitegitik igarotzen ez zen konponbide bat eman behar zitzaion aspaldiko arazorik larrienari.

Adostu zuten konponbidea benetan bitxia izan zen. Alde batetik, bigarren seirena kobratzearena albo batera utzi, eta lurrak bahian zituztenei urtero 60.000 erreal eskatzea erabaki zen, hurrengo sei urteetan, eta horren truke udalak lurren jabetza-agiriak luzatuko zizkien[843]. Bide horretatik lortutako diruaz gain, saldu gabe gelditzen ziren lurrak lotetan banatuz hartzekodun nagusien artean erematean ipiniko ziren, azken horiek beraien alde zeuzkaten ordainagiriekin ordaintzen zutelarik. Esku-dirutan kobratu nahi zutenekin arazo bat sortzen zen, guztiek nahi zutelako kobratzen lehenak izan, eta hori konpontzeko bakoitzari bere zorraren araberako ehunekoa ordaintzea erabaki zen, baina zeregin horretan urtero inbertituko zen diru kopurua zehaztu gabe[844].

Hartzekodun nagusiei deitu eta bilera arratsaldeko zazpietan jarraitzekotan gelditu ziren. Arratsaldean, Domingo Aretxabaleta, Blas Zaragozano, Juan Ibarza-

842. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-6-9.

843. «… que los esplicados poseedores de terrenos con desestimiento de todas sus reclamaciones y derechos hoy en Cuestion, hicieran efectivos sesenta mil reales vellon en seis años consecutivos empezados a contar desde el dia primero de Enero procsimo benidero, con cuyo pago y el de los causados anteriormente el Ayuntamiento general (…) se obligaba a otorgar en favor de cada uno de ellos la conducente Escritura de venta en dominio y propiedad entendiendose el pago en el plazo estipulado mancomunadamente por todos y cada uno de los prendarios» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-6-9.

844. «Que siendo como son los acreedores, con reclamaciones de la calidad de personales se formaran entre ellos lotes del valor de mil a dos mil reales, con la calidad de que entre los mismos han de ser negociables si bien su adquisicion sera emanada de la voluntad libre de cada uno de ellos, y nunca de obligacion, pues para el caso de preferir la cobranza en rr.vv. se le hara el pago en justa proporcion a su haber anualmente comparado con los rv. destinados a la solucion respecto a que ninguna graduacion de preferencia o antelacion exite entre ellos, y es pacto aparte de todos que se imponen a si mismos de renunciar a la prelacion en su caso» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-6-9.

bal, Pedro Gisasola, Maria Andrés Etxeberria eta Juliana Agirrezabal, akordioarekin ados agertu ziren, baina Antonio Tapiak «… por si y a nombre de Juan Bautista Albizuri, D. Jose Anitua y D. Domingo Zumaran protestó el acuerdo reserbando egecutar sus derechos y acciones y la Junta de acreedores y el Ayuntamiento contraprotestó»[845]. Hurrengo hilean jakin zenez, Buruzagi Politikoak akordioa ontzat eman zuen[846], baina zauria ez zen zarratu, Tapiaz gain, Gabriel Ibarzabalek, Jose Maria Alberdik[847], Rufino Mandiolak eta José María Pagaegik Bergarako epaitegira jo zutelako[848]. 1845eko akordioak hankaz gora jarri zuen Ibarzabalek 1842an aurkeztu zuen plan ikusgarria, eta iturria eraikitzeko bere patrikatik aurreratutako diru guztia kobratzeko epea luzatzen zuen.

Ibarzabalen eta gainerakoen helegiteek akordioa gauzatzea oztopatu zuten, urtebetean zehar behintzat. 1846ko udalak, gainera, beste kexu bati egin behar izan zion aurre, herri-lurren inorenganatzea udalak barik auzokideen batzar orokorrak baimendu behar zuelako. Udalak Buruzagi Politikoari eman zion erantzuna nahiko argigarria da, beste aitzakia batzuen artean, auzokideen batzarrak jokatzen zuen papera zeharo ahulduta zegoela adierazten digulako[849].

845. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-6-9.

846. «Autorizo al Ayuntamiento de Eybar para que proceda a la enagenacion perpetua de los trozos de terrenos que tiene solicitada, habiendo de adjudicarse a los que los poseen en prenda pretoria y pagaron su valor parte en metalico y parte en documentos o recivos de suministros (…) bien entendido que los terrenos que se enagenen en domino directo o venta real, han de conserbar la responsabilidad hipotecaria que actualmente pesa sobre ellos» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-7-28.

847. «… el embargo de las fincas se causo por el Juzgado de Vergara a instancia de D. José María de Alberdi, habiendo causado los gastos que no estan comprendidos en el presupuesto por motivo del viaje de SSMM por esta Villa» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-9-11 (eranskin anakronikoa).

848. Mandiolak eta Pagaegik beren gurasoek bonapartetiarren aurkako gerran aurreratu zuten dirua eskatzen zuten, bata zerga-biltzailea eta bestea diruzaina. 1846ko udala ez zegoen ados horiek eskatzen zuten diru kopuruarekin, hauxe esanez: «Para deducir que la reclamacion de aquellos es estemporanea, basta manifestar a V.S. que D. Andres de Mandiola el año de 1815 pedia a la villa 9.000 y pico de reales, cuando segun sus cuentas aprobadas el de 1813 debia exigir mas de 46.000 reales por su alcance: es cuanto tengo que manifestarle añadiendo que si cree por conveniente se recogeran los espresados espedientes de poder de dicho Lascurain y mandaran a VS para los efectos oportunos» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-9-26 (eranskin anakronikoa).

849. «En contestacion a su atento oficio del dia de ayer referente a que es indispensable se acuerde por el Ayuntamiento general la enagenacion de los terrenos por el medio propuesto en sesion de 24 de Agosto ultimo debo manifestar a V.S. que no he creido fuese preciso recurrir a la reunion de todo el Ayuntamiento general que se compone de mas de cien individuos tanto porque casi no esta en uso cuanto ni el asunto en cuestion es de los muy importantes, puesto que los terrenos caso que se descubran seran de pequeño coste segun se hace merito en el espresado acuerdo; por lo que vuelvo a molestar su atencion a fin de que dispensando la reunion del Ayuntamiento general, se sirva prestar en el su aprobacion» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-9-3 (eranskin anakronikoa).

Lurren erabileraren inguruan zegoen anabasa[850] argitzeko harturiko neurrien artean, inolako jabetza-agiririk gabe herri-lurrak erabiltzen zituztenei kendu eta salmentan jartzea izan zen, «… abonando a los delatores un 3 %»[851]. Baina itxura denez ez zen nahikoa, salatzaileak gehiago saritu nahian, salatzen zituzten lurrak erosteko orduan lehentasuna eskaini baitzieten[852]. Era horretara lortuko zituen udalak, 1846ko irailaren 26an eta abenduaren 29an lote ezberdinetan banatuta erematera atera zituen lurrak. Bi erremate horietan soilik 1845eko akordioa sinatu zutenek parte hartu zuten, eta hurrengo taulan bakoitzak eskuratutako lur kopurua adierazten da.

NORTASUNA	Udal-karguak	Hartz. 1845	Emat. 1845	Urb. 1835	Arm. 1835	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Habitata 1842	Auzo 1847
ARECHAVALETA Domingo	HD 1834	7500	17050	A.U.		200	Maizterra	Hirigunea	
IBARZABAL Martín		2300	4940	A.U.		300	Maizterra	Hirigunea	H/
ZARANDONA Jose Antonio	THS 1831	1900	4670	A.U.	M G				H/
ZUMARAN Juan Andrés		2000	4610		O A	450	Jabea	Nekazal	HH
ALBERDI CATTALANGUA Martín		1600	3920			342	Maizterra	Nekazal	
BONETA Genaro		1800	4180						H/
GUISASOLA AGUIRREBEÑA Feliz	THS 1827	1300	2750	A.U.	O G	200	Jabea	Hirigunea	HH
IRAEGUI GUISASOLA Pedro	ER 1848	900	2200		O A	400	Jabea	Nekazal	HH
OLAVE Pedro Francisco	A1 1807	1000	2200			300	Jabea	Hirigunea	HH
ZARAGOZANO Blas		1000	2180	A.U.	M C				
IRAOLAGOITIA Pedro María	A2 1857-3	400	1060						
AGUIRRE Juan Bautista	A1 1844-2	400	840	A.U.	O A				H/
ACHA Esteban		400	800		O G				
ASTIGARRAGA José		300	800	A.U.					
ORMAECHEA Ramón		300	660			336	Maizterra	Nekazal	
LOPEZ Gervasio		200	520						
GARAMENDI Pedro Agustín		200	510						HH
AGUIRRE Evaristo		200	500	A.U.					H/

"Hartz.1845" eremuan, zenbat errealen balioko lurrak eskuratu zituzten azaltzen da; "Emat.1845" eremuan, lur horiek eskuratzeko zenbat errealen balioko gerra ordainagiriak aurkeztu zituzten. Bi eremu hauetan agertzen diren kopuruak hartzekodun bakoitzak egindako erosketa guztien batuketak dira. Gainerako eremuak ezagunak ditugu.

Akordioak 1.000 edo 2.000 errealeko loteak egingo zirela bazioen ere, errealitatean 300, 400 eta 500 errealekoak ere saldu ziren. 23.700 errealen balioko lurrak salduta, udalak 54.390 errealeko zorra kitatzea lortu zuen (2,29ko proportzioa); hau da, ordainagiriak depreziatuta erabili ziren. Edonola ere, Domingo Aretxabaletak 1.000 errealeko lote bat 2.000 errealeko ordainagirien truke eskuratu zuela dakusagu,

850. 1846ko abenduan udalak zioenez: «… ha observado igualmente que muchos terrenos que aparecen aplicados en dichos estados a ciertas caserias o personas, poseen otras diferentes caserias o personas, por motivo de venta, trasmision etc y que deconsiguiente solo para confusion sirven los espresados estados», eta udalak berriak egitea erabaki zuen, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-12-13.

851. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-2-10.

852. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-8-24.

Martin Ibarzabalek[853] balio bereko beste lote bat lortzeko 2.300 errealeko agiriak aurkeztu behar izan zituelarik. Beraz, lur guztiak ez ziren berdin balioetsi, alde batetik tasazioak ez zirelako zehatzak izango, bestetik erosleen interes ezberdinengatik —etxetik hurbil edukitzea, adibidez—, eta baita lurraren azalerarengatik. Oro har, lursail txikiagoak gehiago balioetsi ziren: Martin Alberdik 620 errealeko agiriekin erosi zuen 200 errealeko lur zatia (3,1eko proportzioa).

Akordiotik kanpo gelditu zirenei ordaintzeko, 11.000 errealetik gorako balioko beste erremate bat antolatu zen, herrialde mailako agintarien aginduz «… con suspension de todo sorteo de lotes de los fondos asignados en el Convenio de 9 de Junio de 1845»[854]. Lau egunetara, hirugarren aldiz lur zati bera atera zen errematera, baina hartzekodunetatik inork ez zuen tasazioa hobetu. Beraz, akordioaren sinatzaileek lurrak balio zuena 2,29 bider ordaindu zuten, baina ez zutenak sinatu ez zeuden euren ordainagirien kopurua baino lur gutxiago hartzeko prest. 1846ko udalkideek salatzen zutenez, Tapiak eta Ibarzabalek «… hallandose solos fuera de aquellos que pactaron, pudieron sostener su preferencia»[855]. Egun berean, udalak beste lur batzuk saltzeko baimena eskatu zuen, Ibarzabalekin zeukan zorra ordaintzeko[856], baita lortu ere. Hurrengo asteko aktak dioenez, Ibarzabali ordaindu ostean, «… no puede el Ayto. acallar los clamores de estos (acreedores) exigiendo que se saquen a lotes algunos miles de reales»[857]. Eta oraingo honetan 14.000 erreal atera ziren errematera, akordioaren sinatzaileak baretzeko.

Ibarzabal eta Tapiarekin zeukan zorraren jatorria ez zen gerra garaikoa, geroago egindako maileguen ondorioak baizik. Ziur asko Tapiak eta Ibarzabalek akordioa ez onartzearen arrazoi nagusia da ez zutela nahi beraien zorra gerra garaiko zorrarekin multzo berean nahastea, gerra-egoeran nahitaez emandako horniketak eta bake-garaian borondatez egindako maileguen izaera ezberdindu nahian bezala. Eta azkenean beraien helburua lortu zuten.

---

853. Martin Ibarzabal ostalaria zen. 1846ko urriaren 10ean, alkatea «… por medio de cierto aviso» bere tabernara joan eta *Bancan* edo *Barran* jokatzen aurkitu zituen. Debekatuta zegoenez, 10 jokalariei bakoitzeko 10 errealeko isuna ezarri zien, eta Ibarzabali 40koa, baina ez zuenez ordaindu atxilotuta eraman zuen alkateak. Lortutako dirutik, 40 erreal salatariei eman zieten eta gainerakoa ospitaleari.

854. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-12-7 (eranskin anakronikoa).

855. Udalkideek beste hau gehitzen zuten: «Este contraste de la nobleza de unos en acceder a los deseos del Ayuntamiento en perjuicio de sus intereses y de la miserable resistencia de otros, huviera sido sensible, que huviese roto la balanza de manera que se inclinase en favor de estos, mas no sucedió asi, pues inspirando a todos cierto temor la conduta de estos únicos dos que no querian prestar su consentimeinto, tubieron presente atajar los perjuicios consiguientes» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-10-2 (eranskin anakronikoa).

856. Kontuan hartzekoa da Ibarzabalek iturriaren eraikuntzan inbertitu zuen dirutza berreskuratzeko diputaziora jo zuela irailaren 16an, hau da, udalak lurrak lotetan banatu eta saltzeko baimena lortu eta egun gutxitara. Udala estu eta larri ibili zen azalpenak emateko orduan, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-9-16.

857. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-12-18 (eranskin anakronikoa).

Akordioaren beste alderdia lurrak bahian zeuzkatenei zegokion. Ikusi denez, ez zuten bigarren seirena ordaindu beharrik eduki, baina urtero komunean 60.000 erreal ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Horietariko batzuek ez zuten itun horretan parte hartu nahi izan, eta ordura arte kategoria berdinekoak izandakoak bitan banatu ziren: batzuk jabetzak ziurtatzeko 60.000 errealen itunean sartu ziren, eta gainerakoek, nahiago izan zuten ezer ordaindu gabe lurrak bahian izaten jarraitu. Zoritxarrez, ez daukagu ez batzuen ez besteen zerrendarik, eta hutsune hau bi aldiz tamalgarria bihurtzen da zeren zerrenda hori, zeharka, 1808-1814ko desamortizazio-prozesuaren onuradunen nortasunak argitzeko tresna bihurtuko bailitzateke.

Bereizketa horren ondorioz, izugarrizko iskanbila sortu zen, Agustin Atxa Berretxinagak, itunean sartu zirenak euren lurrak zarratzen hasi zirela ikusirik, berak ere zarratu egin zuelako bahian zeukan lurra[858]. Urriaren 5ean udalak lau eguneko epea eman zion atea zabaltzeko, baina itxura denez Atxak beste nonbait aurkitu zuen laguntza —Bergarako epaitegian, ziur aski— 22an jakin zenez, Pedro Gallastegik 448 errealeko isuna ordaindu behar izan baitzuen, sindikoaren aginduz Berretxinagako belartzako atea zabaltzeagatik. Udalak bere gain hartu zuen isuna ordaintzea. Arazoak konpondu gabe jarraitu zuen, hurrengo urteko apirilean, akordioan parte hartu zutenek lurrak ez zarratzea komenigarriagoa zela erabaki baitzuten, eta zarratuta zeudenak zabaltzeko. Berretxinagak helegitea aurkeztuko zuela adierazi zuen[859], eta udalak Bergarako auzitegiaren aurrean azaldu behar izan zuen, hamaikagarrenez, lurrak bahian zeuzkatenek zarratzeko eskubiderik ez zeukatela azaltzeko, eta Berretxinaga ez bazegoen ados, eskuratutako lurra itzultzea besterik ez zuela gaineratuz, eta ordainduko zitzaiola, «… pero estoy muy persuadido de que Acha se guardara bien de adoptar este medio»[860].

Laburbilduta, hauxe esan dezakegu: 1845eko konbenioan, I. Karlistaldiaren zorra 1808-1813ko hartzekodunek ordaindu behar zutela erabaki zela, horiek baitziren azken finean, lurrak bahian zeuzkatenak. Gerra-zorrik ez zeukatenek akordiotik kanpo gelditzea nahiago izan zuten, eta epe ertainera etekin handiagoa atera zieten euren maileguei. Neurri berean, 1845eko akordioak bitan banatu zuen lurrak bahian zeuzkaten biztanleen multzoa: batzuek lurren jabetza eskuratu zuten eta besteek, berriz, egoera ezegonkorrean jarraitu zuten. Hurrengo urteetan, lurren loteen salmentak jarraitu egin zuen, gehienetan udalaren diru-premiaren arabera[861].

858. 1841ean antzeko kasua gertatua zen, eta Domingo Alberdik Zumaran "*Indianocua*"k bide bat zarratu zuela salatu zuen, «… para pasar con sus carros desde Ardanza al de Aldaza e igualmente a la inbersa (…) sin que para ello tubiese motivo fundado mediante el terreno que ocupa el citado camino de Lizarreta se ha conocido ser de villa» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1841-10-10.

859. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-4-28.

860. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-9-18 (eranskin anakronikoa).

861. 1850eko azaroaren 25ean udalak beste 10.000 erreal saldu zituen lotetan banatuta, baina operazio horiei buruzko daturik ez daukagu. Hilabete lehenago Ambrosio Sustaetak eta Maria Angela Agirregomezkortak —Francisco Zuloagaren alarguna— 18.054 errealeko zorra eskatu zioten udalari,

Idazkarien bila

Lurren inguruko liskarrez gain, 1846ko udalarentzat Juan Cruz Aranbururen hutsunea betetzea eztabaida gehiagoren iturri bihurtu zen. Ambrosio Sustaeta alkatea martxotik gaixorik zegoenez, Jose Ramón Gabiola bigarren alkateak hasi behar zuen haren ordez. Gabiolak ehunen salerosketan jarduten zuen, baina martxoaren lehenean, hain zuzen, Bizkaiko karabineroek kontrabandoan harrapatu eta atxilotuta eraman zuten, Bilbora[862]. Merkantzia bahitzeaz gain, Gabiola espetxeratzekotan egon zen Bilboko epailea, baina azkenean fidantza ordainduta aske gelditzea lortu zuen hilabete beranduago[863]. Eibarrera itzulita, alkate-kargua hartu behar izan zuen, Sustaetaren ordez. Eta orduantxe hil zen Juan Cruz Aranburu idazkaria.

Maiatzaren 6an udaleko partaideak bildu eta Andres Atxa izendatu zuten idazkari, Felipe Argiano eta Juan Bautista Ziorraga herri-diputatuen kontrako botoarekin eta abstentzioarekin, hurrenez hurren. Hurrengo, datarik gabe, baina Pedro María Iraolagoitia behin-behineko eskribauak sinatutako aktak, maiatzaren 6ko bilerak ez zeukala baliorik zioen, alkatearen baimenik gabe egiteaz gain, «… asistieron Esteban de Acha, Patricio Vidarte y Andres Apellaniz los cuales no son concejales». Handiki —"*notables*"— horien presentziaren helburua, udalbatzaren erabakia baldintzatzea izaten zen (Soria, 1984: 20), eta kasu honetan azpimarratzekoa da horietariko batek izendatu zuten idazkariaren abizen berdina zeukala. Horrez gain, Juan Andres Atxa errejidorea Andresen aita zela salatu zuen Iraolagoitiak, eta beraz, ezin zuela bozketan parte hartu[864]; eta Gabiola alkateordeak, kontrabandoagatik auziperatuta zegoenez, beharbada ez zeukala bileran parte hartzeko

eta udalak dirurik ez zuenez, beharbada haiei ordaintzeko atera ziren loteok salmentara, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1850-10-15 eta 1850-11-19.

862. Harrigarria bada ere, ez zuten bi herrialdeen arteko mugan harrapatu: Juan Martín Empecinado tenientearen agindupean Bizkaiko mikeleteak Eibarren zeukan denda sartu eta arakatu ostean aurkitu zituzten, "*maon azul*", "*tulie blanco*", "*piezas de lombardía*" eta beste hainbat ehun. Guztira, 28.175 errealen balioko ehunak bahitu zizkioten, horietatik 18.284 estraperlokoak, eta gainerakoa legezkoa. BFAA, JM, 1316/030, «Juan Martín "El Empecinado", tte. de carabineros de Bilbao, pide tasación de 22 fardos de género que aprehendió en Eibar», 1846-03-07.

863. Epaileak zioenez: «… preste fianza (…) o elige casa privada donde estar asegurado con guardia de vista a su costa, y no cumpliendo con ninguno de los dos extremos redúzcasele a la carcel», BFAA, JM, 0365/064 (1846), «Testimonios de la causa de aprehension de veinte y un bultos aprehendidos por el Resguardo de Carabineros de esta provincia a D. José Ramón Gaviola vecino de Eibar, en dicho pueblo y su misma casa de generos de licito e ilicito comercio el día primero de marzo del corriente año», 1846-4-6.

864. Ohituraz, udalkideren baten interesekin zerikusia zeukaten gaiak eztabaidatzen zirenean, udalkide horrek gelatik irten behar zuen. 1844an adibidez, Pedro Agustin Garamendik Felipe Argianok San Esteban Protomartir baselizako sakristau legez doan okupatzen zuen etxea eskatu zuen, 100 dukaten truke, eta «… habiendo evacuado la Sala dicho D. Felipe de Arguiano por no tener voto ni voz en asunto propio», udalak erabakia hartu zuen, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1844-9-14.

eskubiderik[865]. Ikusten denez, Andres Atxa idazkariaren izendapena lortzeko irregulartasun bat baino gehiago egin ziren, eta bere sinadura ikustea besterik ez dago idazten trebetasun handirik ez zuela konturatzeko. Udalak, ezjakintasunez jokatu zuela onartu zuen, baina neurri berean Iraolagoitiaren jokabidea kritikatu zuen, «… quejandose del proceder del Secretario que no dispensaba la debida confianza, solicitaba por lo mismo su separacion»[866].

Iraolagoitiaren kexuak bozketan parte hartu zuten pertsonak salatzeaz gain, hautaketaren prozedura bera jarri zuen agerian, auzokideen batzar orokorrean burutu beharrean udal itxian —"*particular*"— erabaki zelako. Bere ekimenak agerian jarri zuen erabakiak hartzeko modua aldatzen ari zela, zeren udala diputazioak bidalitako galdetegiari erantzun beharrean aurkitu baitzen. Itxura denez, «… siendo pocos los negocios de que ordinariamente tiene que ocuparse la autoridad municipal de esta villa»[867], ez zegoen batzarrak egiteko egun eta ordu zehatzik, eta udalkideak premia ikusten zutenean baino ez ziren biltzen. Egia esan, bost hilabetetan zehar dozena bat aldiz batu zen udala, eta kasurik gehienetan gai garrantzitsuak erabakitzeko: 1845eko konbenioaren gauzatzea, Ibarzabalekin zeukaten auzia iturriaren kontura, arma-frogatoki berriaren eraikuntza, idazkari berria… Beraz, argi dago udalkideek aitzakia merkea jarri zutela, benetan gertatzen ari zena ezkutatzeko: isilka-misilka udal itxia auzokideen batzarraren gaitasunak eskuratzen ari zela, eta gainera auzokideei ezer esan gabe. Urte gutxitan gauzak asko aldatu omen ziren[868], eta garai berrien nahaste-borrastea beren gustuko idazkaria izendatzeko erabili zuten udalkideek.

Iraolagoitiak ez zuen idazkari-lanpostua eskuratzerik lortu, baina bere kexuak udal-funtzionamenduaren inguruan gauzatzen ari ziren aldaketak azaleratu zituen neurrian, aurrerantzean jarraitu beharreko prozedurak zehazten lagundu zuen. 1846ko Gabon Zahar egunean, 1847ko udal-karguak izendatzeko bilduta zeudela, auzokideak urtean gutxienez sei aldiz biltzea erabaki zuten, bi hilabetero hain zuzen.

865. Udalak, bere jokabidea zuritu nahian hauxe zioen: «Tampoco penetraron la posicion en que al Teniente Alcalde le colocaba la Causa formada por contrabando. Sabia esta corporacion que en su casa hace algun tiempo, o de su suegra se hizo un decomiso, y que por consecuencia pasó a Bilbao de donde procedia la gente armada que condujo los generos decomisados mas ignoraba que estubiese impedido, ni entendia que el Padre del Srio. en quien se hizo la presentacion, debia abstenerse por esta razon de dar su voto, ni de continuar en la sesion o Ayuntamiento» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-5-27.

866. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-5-27.

867. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-6-4.

868. «Aunque es cierto que el nombramiento de las Escribanias numerarias ha solido verificarlo en otras ocasiones el Ayuntamiento general, como lo vera VS por el acta del que recayo en favor de D. Bartolome Ibarzabal, sin embargo considerando que los Ayuntamientos en el dia se rigen por un sistema muy diferente del que entonces se observaba, y creyendo el particular de esta villa que con arreglo a la legislacion vigente estaba autorizado para tomar acuerdo en la materia y comunicarlo a VS para su aprobacion, procedio de buena fe» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-6-4.

Horrez gain, udalkideek harturiko erabaki guztien berri eman beharko zuten auzokideen batzarrean, eta zenbait arlotan ez zuten ahalmen erabakigarririk edukiko. Zalantzarik gabe, neurri hauen xedea auzokideen batzarrak ohituraz jokatzen zuen papera indartzea zen, garai berrien abagunean udal itxia hartzen ari zen autonomia murrizteko. Urtean zehar izandako liskarren errepasoa eginez, udal itxiaren mugak zehazten zituzten, «… sin que pueda tratar ni resolver sobre las provisiones de empleos vacantes o que bacaren, construccion nuebas obras, enagenacion de bienes y demas asuntos de consideracion, pues que desde luego serán nulos y de ningun valor, si no mereciese la aprovacion del general»[869].

Segituan, Sustaeta alkateak hurrengo urterako alkateak eduki behar zituen gaitasun eta nortasuna kontuan hartuta, zozketan irtendako hautesleek barik, aho biziz egitea —"*por aclamación*"— proposatu zuen, eta Pedro María Agirre aurkeztu zuen kargurako. Agirrek ez zeukan inolako esperientziarik udalean, eta berari buruz geneukan datu bakarraren arabera I. Karlistaldian Donostiara ihes egin zuen, baina ez zuen milizianoen taldean parte hartu. Edonola ere, herri mailan ospea eduki behar zuen, auzokideen batzarrak aho batez onartu baitzuen alkate, Manuel Orbea eta Jose Lorenzo Mugertzaren protestekin, izendatzea ez zelako udalaraudiaren arabera burutu. Gainerako udalkideak izendatzeko hautesleen zozketa egin zen, eta Mugertzari suertatu zitzaion; horrek Orbea proposatu zuen, eta Mugertzak berak Antonio Larrañagaren botoa jaso zuen, azken horrek ez protestatu arren, haiekin bat zetorrelako seinale. Protestaren oihartzunak Buruzagi Politikoarenganaino heldu ziren, zeren otsailean ea udal-karguak nola izendatzen zituzten galdetu baitzion udalari. Udalaren erantzuna, ezin argiagoa izan: «… que desde tiempo inmemorial se nombran con arreglo a las ordenanzas municipales sin que pueda asegurar estubiesen aprobadas por los Monarcas o por el Concejo de Castilla, puesto que fueron quemados durante la Guerra de la Republica los papeles que existian en el Archivo»[870].

Agirreren gidaritzapean, jarrera foruzalea indartu egin zen Eibarko Udalean, Bartolomé Ibarzabal eskribauaren heriotzaren aurrean mantendu zuen jokabideak frogatzen duen bezalaxe. Urtebetean hiltzen zen bigarren eskribaua zen, eta oraindik bizi-bizirik zegoen Juan Cruz Aranbururen ordezkoa bilatzeko sortu ziren liskarren oroimena. Hasteko eta behin, Jose Maria Arriola elgoibartarrari deitu zioten behinbehineko legez aritzeko, «… por cuanto al mismo y al vecindario inspira la mas completa confianza segun se ha observado por lo mucho que ha actuado en esta villa desde hace años a esta parte»[871]. Bi egun geroago, Bergarako epaileak bidalitako ofizioak barrutiko zenbait eskribauk Ibarzabalen lanpostua eskatu zutela jakinarazi zion udalari, baina Agirrek argi zeukan eskribauak aurkezteko eskuduntza udalarena zela, eta horrela adierazi zion Bergarako epaileari. Udalkideek alkatearen

869. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-12-31.
870. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1847-2-27 (eranskin anakronikoa).
871. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-2-26.

gestioa txalotu zuten, «… en un asunto tan trascendente para esta villa»[872], baina badaezpada Astarloa abokatuari aholkua eskatzea erabaki zuten.

Martxoaren 10ean, udalak sei eskribau proposatu zituen auzokideen batzarrean: Ambrosio Ibarzabal, Antonio Benito Gisasola, Andres Argiano, Gregorio Atxa, Pedro Ildefonso Pagaegi eta Juan Pedro Lezeta. Ambrosio Ibarzabalek zioenez curriculum hoberena berea zen, 1844-4-13ko legearen arabera inor ezin ziteelako idazkaria izan, «… sin haver cursado y aprovado dos años academicos del derecho Civil Español»[873]. Baina bozketa Gisasolak irabazi zuen, nahiko erraz gainera, 40 botorekin. Ibarzabalek 13 lortu zituen, Argianok 6 eta Atxak 4. Gisasolaren garaipen argiari ez diogu esanahi politikorik aurkitu, baina bai aipatzekoa dela ohituraz eskribautza eskuratzen zuten familietako kideei (Atxa, Ibarzabal, Argiano…) gailendu zitzaiela. Esanguratsuagoa iruditzen zait herri-ordezkariek egindako protesta, Ibarzabalek azaldutakoan oinarrituz, espainiar zuzenbide zibileko bi urteko ikasketak beharrezkoak zirela-eta. Auzokideen batzarra foruetan oinarritu zen herri-ordezkarien eskakizuna kontraprotestatzeko[874]. Herri-ordezkariek, euren aldetik, hartutako erabakiak ekar zitzakeen isunetatik lokabetzen zirela azaldu zuten, eta auzokideek erantzun zieten ez zeukatela gai horietan erabakitzeko eskubiderik[875]. Izan ere, Karlos III.ak sortutako udal-kargu haien eskuduntzak, teorian behintzat, horniketa-kontuetara mugatzen ziren. Nicolas Aranberriri ere, ziur asko gogora etorriko zitzaion, 1828an herri-diputatua zela, Bartolomé Ibarzabal idazkari izendatu zutenekoa, bera ere bozkatu gabe gelditu zen-eta. 1847an, ordea, auzokideen taldean zegoen.

1846 eta 1847 urteetan zehar Eibarko Udala zipriztindu zuten ika-mika hauek lotuta zeuden 1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" delakoak ezarri nahi zuen ereduaren inguruan piztu zen eztabaidarekin[876]. Gipuzkoako Diputazioaren erresistentziak

872. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-2-28.

873. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-3-10.

874. «Que la provisión de las Numerias de los Pueblos de esta Provincia se gobierna y rige todavía sin alteración ni variación alguna con arreglo a los fueros de la misma confirmados por las Cortes sin perjuicio de la Constitución en cuanto no se opongan a ella, y es indudable que ningun roce tienen con la Constitución dichos fueros en la parte relativa a la provision de sus Numerias, tanto menos, cuanto que siendo este un punto muy subalterno, la Constitución ni siquiera hace la menor mencion de él» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-3-10.

875. «Y dichos Diputados y Sindico personero del comun espusieron tambien que en el caso de cualquiera controversia y resultado que pudiese sobrevenir por razon de no haverse procedido a dicha presentacion con arreglo a o que previenen las leyes, no tendría que sufrir el comun gasto multa ni otra cosa alguna protestando por lo mismo para que en ningun tiempo pudiesen perjudicar a él, cuya protesta fue impugnada por la mayoría del Ayuntamiento, esponiendo que los Diputados y Sindico del Comun no tenian voto en la cuestion de que se trata por corresponder esclusivamente a los vecinos concejantes millaristas de quienes se componía el Congreso, en cuya vista fue contestado por ellos que tenían voz para proponer» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-3-10.

876. Coro Rubiok dioenez: «… redactada al servicio de un rígido centralismo administrativo, prácticamente anulaba el poder municipal. La administración local quedaba por esta ley directamente

legea indarrean jartzea luzatu zuen, pare bat urtetan zehar. Baina 1847an sistema berria ezarri zen Gipuzkoan ere. Beraz, 1845-1847 urteetako lehian Eibarko Udalak ikuspegi foruzalea defendatu zuela dakusagu, berriz ere. Hirurteko Aurrerakoian zehar foruek jasandako erasoak euren jarrera konstituzionalista leundu izan balu bezala, Eibarko liberalek zuhurtasunez jokatzea erabaki zuten trantsizio-abagune honetan.

ARMAGINTZAREN EGOERA GERRAOSTE LABURREAN

Arma-frogatokia Eibarren

I. Karlistaldiaren gerraoste laburrean, badirudi armagintza krisialdian sartu zela, 1840an Eibarko armaginek udala zirikatu baitzuten lana aurkitzeko, «… siendo bien publico y notorio la escasez de trabajo de Armeria que de dia en dia se va experimentando»[877]. Ibarzabalen negozioak ere ez zeuden unerik hoberenean[878], eta gainerako armaginak Esparteroren ateak jotzen saiatu ziren, kontratu berrien bila[879]. Horrekin batera, armagintzaren garapenerako azpiegitura egokien aldeko eskakizunak aurkitzen ditugu, eta horrek adierazten digu ekoizpena, hola edo hala, mantentzen zela. Horrez gain, fabrika-tailer berrien sorkuntzaren garaia dugu, horien artean orbeatarrena 1840an. Beraz, ematen du armagintzaren krisialdiak ez zuela asko iraun edo hobe esanda, boladakoa zela. Ramiro Larrañagak dioenez, ekoizpen masiboa 1843 aldera lortu zen[880].

Ikusi denez, 1834an Eibarko Udalak arma-fabrika bertan ezartzeko baimena lortu zuen María Cristinarengandik, eta gerra bukatuta armaginen lau gremioetako ordezkariek —Francisco Etxebarria, José Antonio Zarandona, José Agustin Axpe

---

supeditada al Gobierno, que intervenía, a través del jefe político, en el nombramiento de los alcaldes, los cuales pasaban a ser considerados "administradores municipales delegados del gobierno (…) Los cabildos, que debían celebrar su reuniones a puerta cerrada, estaban sometidos al veto suspensivo del jefe político y del alcalde…» (Rubio Pobes, 2000: 162-163).

877. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1842-1-24.

878. Ibarzabaldarren aspaldiko nagusitasuna ahultzen zihoala adierazten digu Calvók: «La fábrica de Gabriel Benito Ibarzábal, en Eibar, sufriría un importante contratiempo al perder las contratas destinadas a la Fábrica de Toledo, efectos que esta comenzó a producir en la década de 1830, así como las contratas con la Guardia Real disuelta en 1841. No obstante la fábrica de Ibarzábal ha de considerarse como la única que en Eibar era merecedora de tal calificación en el año 1852, fecha en que Gabriel Benito falleció y se hizo cargo de ella su hijo, Ignacio Ibarzábal» (Calvó, 1997: 29).

879. Juan Francisco Irustak, Juan Migel Aranzetak, Pedro María Agirrek eta José Ibarzabalek —"Diputados de los cuatro Gremios de armas de fuego"—, Jose Antonio Zarandonari ordaintzea eskatu zioten udalari, Manuel Zelaiarengana joan zeneko bidaia, honek Espartero zirikatu zezan, «… a fin de conseguir trabajo para ocupar los brazos de este infeliz vecindario» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1844-1-23.

880. «Se alcanzó la masiva fabricación de armas portátiles hacia el año 1843. En este tiempo comenzaron a marcarse los fusiles con las estampas referidas a la reina Isabel II, añadiéndose la mencion de "Artillería-Placencia" a los que se construían en el pueblo, así como la mención "Eibar" e igual anagrama a los de la vecina población» (Larrañaga, 1970: 89).

eta José Antonio Alberdik— udalari dirua jartzea eskatu zioten fabrika berrezartzeko. Udalak, printzipioz, 2.000 errealeko zerga banatzea erabaki zuen «… fogueralmente con el estado cocinal del año de 1834»[881], baina armaginen nahia bertan behera gelditu zen, fabrika berriro Soraluzen ezarri zenean. Orduan, Eibarko armaginen helburua frogak Soraluzen barik, Eibarren bertan egiteko frogatoki bat lortzea izan zen, gerra aurretik egiten zen bezalaxe. Zeregin horretarako udalak bi gela alokatu zituen, baina gremioetako ordezkarien ustez ez ziren nahikoak, eta eraikin propio bat egitea eskatu zioten udalari 1844an[882]. Udalak, baliabiderik ez zuenez, ardo azunbreko bi erreal-laurdeneko zerga ezartzeko baimena eskatu zion Buruzagi Politikoari, eta horrekin lotuta, Olarreagako ostatura joatea debekatu zien herriko biztanleei, han ardoa merkeago saltzen zenez gero, eibartar gehiago erakartzen baitzituen[883]. Abenduaren 15ean "Estebanekua" etxe-jauregia erostea erabaki zen, arma-frogatoki legez erabiltzeko. Itxura denez, Esteban Bustinduik egindako eraikin hau bahituta zegoen, hilabete geroago Antonio Gisasolak —«uno de los acreedores principales de la casa titulada de Bustinduy«— etxea erosteko ezarritako sisaren arduraduna izendatzea eskatu baitzuen «… persuadiendose el esponente hallarse mas interesado que otro alguno en que se lleve cuenta escrita de dichos fondos sin que en tiempo alguno se mezclen con otras atenciones por perentorias que fueren»[884]. Ikusten denez, udal-ogasunaren egoera ahularen jakitun, bakoitzak bere diruak ziurtatzeko ahaleginak eta bi egiten zituen.

1845eko martxoan "Estebanekua" jauregia berregokitzeko baldintzak jakinarazi ziren, eta Feliz eta Jose Miguel Gisasolak eskuratu zuten lan horien ardura. Hasiera batean hurrengo urteko ekainaren 30rako bukatuta egon behar bazen ere, ez zuten epea bete eta azaroan udalak abenduaren 15erako bukatzen ez bazuten bakoitzari 100 dukateko isuna ezartzearekin mehatxatu zituen udalak[885]. Bien

881. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1841-3-6.

882. Juan Miguel Aranzeta, Pedro María Agirre, Domingo Aretxabaleta, Pedro Bergara, José Ibarzabal, José Antonio Zarandona, José Arrate, Sebastián Iturrioz eta Miguel José Etxeberriak sinatutako eskakizunak zioenez frogatoki berriaren eraikuntzarekin «… quedaria asegurado el privilegio de sus Fabricantes de Eibar que sus obras sean examinadas y entregadas en su Pueblo, sin que tengan que hir a Placencia; pues en defecto no sera estraño, sino muy probable el que los dueños de las dos habitaciones alquiladas, cuando menos se piense, por casos muy previstos que ocurren en las familias, traten de desalquilarlas y se vea la villa sin habitacion ni oficinas para los empleados de la Fabrica, y sin sala de examenes ni almacen para poder examinar las obras y depositarlas al tiempo de las entregas y entonces indefectiblemente los fabricanres de Eibar tendria que hir a Placencia al examen y entrega de las obras segun se hacia antes, y quiza sin la esperanza de volber al que de un privilegio que tan justamente lo tiene adquirido» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1844-10-13.

883. Olarreagako ostatuaren lehen aipamena 1839ko abendukoa da. Ordurako taberna martxan zegoen, eta hura zarratu ezinean, ardoaren estraperloa ekiditzeko plan bat egiteko agindu zien udalak sindikoei, EiUA, A,1,1,11, *Akta Liburuak (1829-1839),* 1839-12-31.

884. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1845-1-16.

885. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-11-9.

bitartean, eibartarrek ardoa edatera herritik kanpora ez joateko konpromisoari muzin egiten ziotela ikusirik, udalak, lehenengoz, gremioetako arduradunei, eta, ondoren, biztanle guztiei deitu ostean, arma-frogatokia egiteko dirurik ez zela lortuko adierazi zien. Gremioetako ordezkariek, estututa, «… se conformaron y convinieron todos ellos en no dirijirse a las ventas de Olaerrieaga, Eyzaga ni Azurza bajo pretesto ninguno»[886], eta harrapatzen zituztenei 10 errealeko isunarekin zigortzea onartu zuten; udalak eta gremioek egindako hitzarmenaren sendotasuna honakoak frogatzen du: harrapatzen zutena armagina bazen eta ezin bazuen ordaindu, gremioak ordainduko zuela; gremioak gero soldatatik errazago kenduko ziola suposatzen da. Urtearen bukaerarako, 6.410 erreal zeuzkaten isunetan bilduta[887], beraz badirudi herritik kanpo edateko ohitura nahiko zabalduta zegoela[888].

Estreinatu eta urtebetera kanoien frogatokia guztiz ondatuta zegoela jakinarazi eta konpontzea eskatu zuen kainoiginen gremioak. Gainera, badirudi arma-frogatokia egin orduko, armaginak berriz Olaerreaga, Eizaga eta Azurtzara joaten hasiak zirela, eta 10 errealeko isuna indarrean jarri zen ostera ere[889]. Oro har, garai horretan udalaren eta armaginen arteko elkarlana nagusitu zela atzematen da, eta udala, ahal zuen mailan, armagintza suspertzen saiatu zen. Gremioek ere, arma-frogatoki berriaren egokitzapenak ordaintzeko zeharkako zerga gehitzea onartu zuten, eta udalari lagundu zioten inguruko ostatuetako ardozaleen jazarpenean.

Armagintzaz gain, 1840ko hamarkadan industria-ekoizpenak Eibarren gora egin zuen orokorrean, eta dibertsifikatu egin zen. Gorakada horren arrazoi nagusia, ziur asko, aduanen leku-aldaketa izan zen, Ebrotik iparraldera ekoitzitako gaiek ez baitzuten jada muga-zergarik ordaindu beharrik Gaztelan sartzeko, eta ondorioz lehiakorragoak ziren espainiar merkatuan. Suspertze horren seinalea dugu, esaterako 1846ko maiatzean Manuel Baskaran, Candido Aretio, Pedro María Agirre, Feliz Gisasola, José Lorenzo Mugertza, Juan Bautista Agirre, Jose María Alberdi eta Sebastian Alberdik sarrailagintzako tailer bat egiteko Untzagako errekatik ur kopuru bat desbideratzeko baimena eskatu izana[890]. Udala ados agertu bazen ere, industria-gizonen interesek Azpiri, Azaldegi, Sagarbieta eta Agirre Goikoa baserrietako jabe eta maizterren eskubideekin topo egin zuten, eta uztailean, errekaren emaria normala baino gehiago jaitsi zela igarrita udalera jo zuten, 178 urtetan zehar gozatzen zuten erreka zegoen bezala uzteko eskatzera. Adineko eibartarrei

886. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-2-10.

887. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1846-12-30.

888. Hurrengo urtean herriko frontoia alferrik galduta zegoela-eta, ardoaren erematatzaileak herriko gazteak pilotan jolastera inguruko herrietara joateak eragiten zizkion kalteak salatu zuen, hara joaten baitziren «… con objeto de divertirse por falta de un juego público consumiendo en ellas los articulos de comer, vever y arder en perjuicio de los productos de esta» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-5-2.

889. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1848-8-22.

890. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-5-31.

galdetu ostean, udalak baserritarrei eman zien arrazoia, eta aurrekari legez ezarri zuen[891]. Bi aste geroago, baserritarrek errekaren ustiapena baserriei zegokiela zioen XVI. mendeko eskritura bat aurkeztu zuten, errekaren sorburua Santa Kruz Solobarrenan zegoela zehaztuz[892].

Eibarko armak Mirandan bahituta

1846ko azaroan, Antonio Gisasola armagin eibartarrak Ecijarantz bidalitako eskopetak Miranda parean gelditu eta bahitu egin zituen Burgoseko intendenteak, «… con pretesto de que calzan vala»[893]. Gisasolari izugarrizko isuna ezarri ziotenez eskopetak berreskuratzeko, ordaindu ezean armok enkatera atera eta saltzea erabaki zuen Burgoseko intendenteak. Arazoaren larritasunaz ohartuta, gaia aztertu eta konponbide bat aurkitzeko Eibarko Udala armagin guztiekin bildu zen, Gisasolari bahitutako armez gain, eskopeta mordoa bideratzen zirelako merkatu pribaturantz, «… no solamente de escopetas de mayor calibre, sino tambien de rifles, trabucos y toda clase de armas». Iskiluen helmuga Amerika izaten zen gehienetan; eta baita Andaluzia ere, ehiza nagusirako eskopeta normalak baino atseginagoak omen zituztelako.

Eibarko armaginek eta udalak ziotenez, gobernuak ez zuen jada behar bezainbeste arma-eskari egiten, eta merkatu pribatuan zeuzkaten bezeroak mantentzea hil edo biziko erronka zen beraientzat. Eskarian zehazten zenez, Eibarren fabrikatzen ziren 1.000 eskopetatik 800 era horretakoak ziren[894], beraz, ondoriozta dezakegunez ekoizpenaren % 80 merkatu pribatura bideratzen zen! Datu hau egiaztatzerik balego, 1820ko hamarkadan Gabriel Benito Ibarzabalek zabaldutako bidezidorra 1840ko hamarkadarako sendotuta zegoela esango genuke, eta debekuak debeku, ezinbestekoa zela Eibarko ekonomiarentzat bezeroei eustea. Azken finean, gobernuaren eskarien gabezia zen horren arrazoi nagusia. Trafiko hau, gainera, ez zein inoiz eten, ezta «… cuando se hallaban mas de una Provincia en estado ecepcional». Agintariak hunkitu nahian udalak zioenez, debekuak indarrean jarraituz gero eragingo zuen miseriak, armaginak beste leku batzuetara erbesteratzera derrigortuko zituen, «… porque si se prohibe la construcción de ellas, quedara reducida esta villa con las demas de su arte a la mayor indigencia»[895]. Hori zela-eta, debe-

891. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-7-25 eta 1847-8-4.

892. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-8-18.

893. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-11-19 (eranskin anakronikoa).

894. «Un hecho de semejante naturaleza es el mas trascendental para esta Población como no dejara V.I. de ignorar, puesto que en ella no hay otra clase de industria y puesto que de mil escopetas que se construyan, 800 calzan vala generalmente» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-11-19 (eranskin anakronikoa).

895. «… si llegase a tener efecto dicha Resolución, no les queda otro arbitrio sino abandonar sus hogares y familias a fin de que puedan ganar sus subsistencia en otros puntos o Reynos mas felices» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-11-19 (eranskin anakronikoa). GAOn gordetzen den beste dokumentu batek dioenez, «… seria una herida mortal a cuantos la componen (…) la triste

kua altxatzea eskatu zioten Madrileko gobernuari, eta 14-15 adarineko kalibretik gorako armen fabrikazioa baimentzea.

Eibar, Ermua, Elgoibar eta Soraluzeko udaletako ordezkariak Soraluzen bildu ziren abenduaren 29an, Burgosen bahituta zeuden armen trafikoa onartzeko eskatzeko, eta urtarrilaren 3an Gipuzkoako Diputazioari elkartasun eske bidalitako idatzian ziotenez, ez zeukaten 14 edo 15 adarinetik gorako kalibreko eskopeten fabrikazioa eta erabilera debekatzen zituen legearen berririk, ez zelako Gazetan edo Boletinean argitaratu, ezta herrialdeko edo Arma Fabrikako agintarien bidez. Gainera, kalibre handiko eskopeten garraioa eta salmenta mundutik gauzarik normalena legez egiten zutela zioten, eta aurreko urteetan askoz eskopeta gehiago pasatu zituztela Burgosetik bertatik[896]. Eibarko Udala ez zegoen gauzak egonean uzteko prest —«Impaciente esta corporacion hasta obtener un resultado favorable sobre la solicitud» zioen aktak—, eta lau udaletako ordezkariak beste batzar batera deitu zituen. Armaginek, beraien aldetik, Diputazioari Gortean zuen agentea —Asencio Ignacio Altuna— mugiaraztea eskatu zioten, eta horri esker, "*Hacienda*" ministroak Burgosen bahitutako eskopetak itzultzea agindu zuen, armok geldiarazteko beste arrazoirik ez bazegoen behintzat[897].

Gisasolak bere armak berreskuratu bazituen ere, 1848ko apirilaren 29an beste arma batzuk gelditu zituzten Madrileko aduanan. Oraingo honetan ez zen argitu auzia nola bukatu zen. Edonola ere, bahiketa horrek eragin zuen zurrunbiloa ikusita, ondoriozta dezakegu 1840ko hamarkadan Eibarko armagintzarentzat merkatu pribatua funtsezkoa zela. Jasotako datuak zuzenak badira, ekoizpenaren % 80 bertarantz bideratzen zen, eta itxura denez merkatu hori mantentzea hil edo biziko kontua zen armagin askorentzat. Zentzu horretan, O'Donnellek armak merkaturatze librea baimentzen zuen legea eman aurretik, Eibarren praktika hau errotuta zegoen.

---

mendicidad de un sin numero de honrrados (sic) fabricantes, la inmediata ruina de cuatro Pueblos, y la muerte segura de muchas familias», GAO, JD IT, 992, a, 24, «Recurso dirigido al Gobierno de SM por los Alcaldes de Placencia, Elgoibar, Eibar, Ermua sobre la retencion de unas escopetas fabricadas en Eibar por el artista D. Antonio Guisazola, eran dirigidas al interior previo conocimiento y certificado de la autoridad local segun se acostumbra desde algun tiempo a esta parte, a fin de evitar todo inconveniente», 1846-1-3 (1846an datatuta badago ere, ziur asko idazkaria erratu egin zen, eta 1847koa da).

896. «… por desgracia Señor, no han pasado por la Ciudad de Burgos tantas escopetas como en otra época, pero lo cierto es que durante este año habran ingresado en ella para otros puntos mas de mil de igual calidad que las que se han detenido» EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1846-11-19 (eranskin anakronikoa). GAOko txostenean diotenez: «Asi es que han sido continuas las remesas todo esta año y aun en este mismo mes de escopetas de igual naturaleza sin que autoridad alguna ni la de Vitoria ni la misma de Burgos ni otras por donde se han dirigido huviesen motivado queja alguna», GAO, JD IT, 992, a, 24, 1846-1-3.

897. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1847-1-27 (eranskin anakronikoa).

Manuel Garate eta errebolberraren asmakuntza

Pedro Sarasketak jasotako testigantzaren arabera, sei tiroko lehen errebolberra Manuel Garate eibartarrak asmatu zuen, 1835 aldera[898]. Maisu giltzaginaren asmakuntzak armagintzaren mundua irauli zuen, eta eibartarrek zuzen-zuzenean parte hartu zuten XIX. mendearen bigarren erdialdean burutu zen iraultza horretan. Baina hasiera batean, Garatek baino ez zekien errebolberrak egiten, eta hilean pare bat baino gehiago egiteko astirik ez zuen izaten. Itxura denez, Eibarrera heldu zen merkatari bati Garateren asmakizuna gustatu, eta fabrikatzen zituen guztiak erosteko konpromisoa hartu zuen, bakoitza 600 errealetan. Baina merkatariaren eskariak bukatu egin ziren, eta errebolberrak saldu ezinean, Garatek hiru errebolber hartu, Madrileko diligentzian sartu eta estatuko hiribururantz egin zuen, hantxe saltzeko asmotan. Madrilen, sarraigile baten dendan armak erakusten zegoela, agente bat sartu eta atxilotu egin zuen. Zorionez, Madrilen zegoen beste eibartar batek fidantza ordaindu, eta zortzi egunetara aske gelditzea eta armak berreskuratzea lortu zuen. Inork ez omen zekien zenbatean saldu zituen errebolberrok azkenean, baina kontua da hori eginda, etxerako lehen diligentzia hartuta itzuli egin zela. Honaino heltzen da bere ikaslearen testigantza, eta hauxe zen, azken finean, errebolberraren asmatzaileak Madrilen izandako gorabeherei buruz genekiena.

Madrileko "Archivo Histórico Nacional" delakoan Garateren atxiloketari buruz aurkitu dugun txostenak Sarasketak jasotako testigantza osatzen eta neurri batean zuzentzen duten datuak eskaintzen dizkigu[899]. Garate 1847ko maiatzaren 3an heldu zen Madrilera, sei errebolber eta bi eskopetarekin, hauek ere sei tirokoak. Hiriburuan sartzeko, armei zegozkien zergak ordaindu ostean, hurrengo egunetan, ez dendetara, baizik eta handikien etxeetara hurbildu zen, baita zenbait arma saltzea lortu ere, horien artean eskopeta bat eta bi pistola José Salamanca Hacienda ministroari[900]. Gauzak ez zihoazen txarto, eta San Isidro egunean, arma batzuk saltzen saiatu ostean, «… como nuevo en esta corte donde por primera vez ha venido se dirigio hacia el Real Palacio con objeto de verlo, estando en la plaza de Oriente se

898. Garateren ikasle batek Sarasketari azaldutakoaren arabera, «… me ordeno D. Manuel cortase cierto pequeño trozo de una barra de acero, para hacer el cilindro de una nueva arma de seis tiros que proyectaba construir (…) cuando el trozo de acero destinado a cilindro o tambor estuvo preparado, con un compás señaló seis pequeños puntos en los cuales había de ser taladrado (…) Cogió después D. Manuel una pequeña lima, y perfeccionó con gran esmero las deficiencias y desigualdades del taladro. Vino luego la operación para tomar en dientes, etc. Y a los quince días, pudimos ensayar el resultado de la nueva arma siendo este magnífico y superior a toda ponderación» (Sarasketa, 1909: 41-42).

899. MAHN, Leg. 52204, (1847), «Causa contra Manuel Garate casado y vecino residente en Eybar en Guipuzcoa sobre haberle ocupado tres pistolas nuebas de seis cañones cada una fabricadas por el mismo en su casa de Eibar y que intruducia (sic) para vender en esta capital».

900. Garateri egindako galdeketan, eskopetei buruz zioenez: «… una la conserva en su poder y la otra la tiene en casa del Sr. Ministro de Hacienda el Exmo. Sr. José Salamanca con dos de las pistolas; y las restantes de estas las ha vendido a D Pablo Collado, carrera de S. Gerónimo, nº 42», MAHN, Leg. 52204, (1847).

encontró con sus paisanos y fabricantes del mismo punto D. Gabriel Ibarzabal, D. Benito Gallastegui, D. Candido Areitio, D. Salvador Larruscain y D. Jose Vicente Irazabal, quienes determinaron ir a la ermita de San Isidro lo que no efectuaron a causa del mucho polvo y se dirigieron a San Antonio de la Florida»[901]. Hara norekin zegoen Garate, San Vicenteko atetik berriro Madrileko kaleetan sartzera zihoala, karabineroak patrikeretan zeramatzan hiru pistolak atzeman eta atxilotu zutenean, hain zuzen ere, armok ezkutuan sartuz bere helburua zergak ez ordaintzea zelakoan. Alferrikakoak izan ziren bere azalpenak, aurretik ordainduta zeukala eta abar guztiak[902].

Bere aurkako auzian, Gabriel Ibarzabalek eta Benito Gallastegik —«residentes en esta corte»— lekuko legez deklaratu zuten, eta horietarikoren batek ordainduko zuen Garate aske uzteko fidantza. Gauzak argituta, ekainaren 10ean bere aurkako salaketa bertan behera gelditu zen, eta armak uztailaren 27an itzuli zizkioten. Errebolber bakoitza berrehun errealetan tasatu zuten. Ez dakigu Garatek horrenbeste denbora iraun zuen Madrilen, edo bere herkideen esku utzi zuen errebolberrak berreskuratzeko ardura. Bere izaera ezagututa eta Eibarren errebolber bakoitza seirehun errealetan saltzen zuela kontuan hartuta, Madrileko puntaraino joan eta 200 errealetan saltzea ez zitzaion asko gustatuko[903]. Erdibideko aukeren artean, litekeena da premiak bultzatuta errebolberrok saltzearen ardura Ibarzabal eta Gallastegiren esku utzi izana, komisio baten truke.

Anekdotez gain, gertakizun honek datu interesgarriak eskaintzen dizkigu 1847 aldera Eibarko armagintzak bizi zuen egoerari buruz. Alde batetik, Ibarzabalekin batera beste armagin batzuk aurkitzen ditugu Madrilen, ziur asko beren armei irteera aurkitzeko asmoz. Beraz, ondoriozta dezakegu ibarzabaldarrek Eibarko armen merkaturatzearen inguruan zeukaten monopolioa zertxobait ahulduta zegoela, eta Garatek berak, bitartekaritza erabili beharrean zuzenean Gortera jo izanak, hori adierazten du. Horrez gain, Cándido Aretio —1823-1825 bitartean Eibarko alkate monarkikoa izandako Juan Bautistaren semea bada— Madrileko Orienteko plazan Gabriel Ibarzabalekin paseatzen ikusteak adierazten digu Hirurteko Liberalean absolutisten eta liberalen artean irekitako zauria nahiko sendatuta zegoela. Eleberri baterako aberasgarriak izan daitezkeen zalantza batzuekin gelditzen gara:

901. MAHN, Leg. 52204, (1847).

902. «Dijo que esta enterado en que todo genero que se introduce en Madrid debe pagar sus derechos; y que como ya lo hizo en la Aduana de las dos escopetas y seis pistolas, creyo que aunque saliera fuera de puertas con dichas armas, sin documento alguno, no necesitria pagar nuevos derechos al entrar con ellas y por tal razon cree haber sido detenido», MAHN, Leg. 52204, (1847).

903. Garateren pentsaera adierazten digun anekdota bat biltzen du Sarasketak. Hilean pare bat errebolber baino ez zituela egiten ikusirik, bere ikasleak behin, ea zergatik ez zituzten errebolber gehiago fabrikatzen galdetu zion. Eta hara Garateren erantzuna: «Pues no es difícil adivinarlo. A cualquiera se le alcanza, que si yo fabricara mayor número de revólvers de los que fabrico actualmente, el comprador pretenderá se los ceda a un precio más reducido, y para trabajar más, y ganar lo mismo, siempre hay tiempo» (Sarasketa, 1909: 42).

soilik deklaratutako sei errebolber eta bi eskopetak eraman zituen Madrilera, ala horien zergak ordainduta arma gehiago sartzea zen bere helburua? Kasualitate hutsa izan zen Garatek bere erkideekin topo egitea Orienteko plazan, ala Garaterekin bat eginda zebiltzan kontu honetan? Erkideren batek salatu ote zuen Garate, bere asmakuntza garrantzitsuaren merkaturatze autonomoa moztu nahian? Susmo horiek indartzen ditu Garatek berak Madrilen gertatutakoa argitzen ahalegindu ez izanak, bere ikasleak Sarasketari emandako bertsioaren hutsune eta akats nabarmenak maisuarengandik jasotakoak baziren behintzat. Hasteko, ez zituen hiru errebolber eraman, sei eta eskopeta bi baizik. Bestetik, nola ez zuen gogoratzen Madrilen lagundu ziona Gabriel Benito Ibarzabal ospetsua izan zela? Azkenez, zergatik kokatu zuen bere atxiloketa sarrailagilearen dendan, eta ez hiriburuko aduanan?

UDALAREN ETA ELIZAREN ARTEKO HARREMANAK

Esparteroren Erregeordetzak iraun zuen bitartean Vatikanoarekin zegoen harremana asko kaskartu zen; Aita Santuak "*Aflictas in Hispania*" enziklikaren bidez, lurralde honen alde otoitz egitea eskatu zien fededunei. Espartero erori ostean, Narvaez moderatuaren gobernua Erromarekin harremanak hobetzen saiatu zen, eta 1848an, Aita Santuak Isabel II.aren erregimena onartzea lortu zuen. Hiru urte geroago, liberal moderatuek euren nahirik gutizienetariko bat lortu zuten, Vatikanoarekin 1851ko Konkordatua sinatu zuten-eta. Konkordatu horren bidez, Vatikanoak kleroaren ondasunen desamortizazioa onartu zuen, horren truke beste zenbait eskuduntza bermatu zituelarik[904].

Liberalen eta karlisten arteko eztabaidagairik garrantzitsuenetariko bat erlijioa izan zela kontuan hartuta, interesgarria da gai honen inguruan Eibarko Udalak aurkeztu zuen jokabidea ezagutzea. Ikusi denez, Hirurteko Liberalean eta I. Karlistaldian zehar Eibarko apaiz batzuek liberalismoaren aldeko jarrera argia hartu zuten, eta haien ereduaren eraginak karlisten argumentorik nagusietako bat hausten lagunduko zuen: liberalak erlijio katolikoaren kontra zeudela, alegia. Behin gerra bukatuta, Eibarko elizgizonek hiru arazo nagusiri aurre egin behar izan zioten: sortzen ziren bakanteak betetzeko irizpideak zehaztea; gobernu liberalak ezarritako Kultu eta Kleroaren Zerga —"*Contribución de Culto y Clero*"— kobratu ala betiko moduan, hamarrena jasotzen jarraitzea; eta auzokideak ez ziren biztanleak —"*moradores*"—, erlijio-eskubideen arloan jasatzen zuten bazterketa konpontzea.

904. «Si el Vaticano reconoce la venta de bienes de la Iglesia, el Gobierno español admite por su parte el control de la enseñanza por la Iglesia, reconoce el derecho de la Iglesia a poseer sus bienes y se compromete a compensar al clero indemnizándolo por la pérdidas sufridas como consecuencia de la desamortiazación» (Garmendia, 1985: 25).

Elizgizonen faltan

Mendizabalen desamortizazioak hainbat komentu desagerrarazi zituen, eta horren ondorioz moja eta fraide ugari bizibiderik eta aterperik gabe gelditu ziren. Egoera horretan zegoen Ramón Larruskain —"*presbitero exclaustrado*"—, senide txiro batzuen etxean bizitzen… Eta haientzako zama bat zenez, San Andres elizako sakristautza eskatu zuen 1842ko martxoan. Hurrengo hilean Jose María Areta apaiza hil egin zen, eta Larruskain jarri zuten bere ordez, Manuel Gabiolak ere —beste "*presbitero exclaustrado*" bat— izendapena eskatu arren[905]. Itxura denez, 1706an akordio bat sinatu zuten Eibarko Udalak eta eliz kabildoak, zeinaren bidez sortzen ziren bakanteetarako apaizak proposatzeko eskubidea udalaren esku gelditzen zen. Horrez gain, baldintza berdinetan bertoko parrokian bataiatutakoek lehentasuna zuten apaiz-karguak eskuratzerako orduan.

1844an, Gabiolak bere eskakizuna berretsi zuen, oraingo honetan liberal aurrerakoiek osatzen zuten udalaren aurrean. Udalkideak 1843-5-1eko Erret Aginduan oinarritu ziren Gabiolari eibartarra izateak ez ziola inolako lehentasunik ematen erantzuteko. Egun berean, Juan Victor Izagirrek ere —presbitero kapilaua— Aretaren bakantea eskatu zuen, elizgizonen gutxitzeak herritarrak kezkatzen zituela gaineratuz[906]. Horrek ere aurrekoaren erantzun berbera jaso zuen.

Moderatuak Madrileko gobernura itzultzeak foru-erregimena berriz indarrean jarri zuenez, Eibarren jaiotako elizgizonek lehentasuna berreskuratu zuten bakanteak eskuratzeko orduan. 1847ko udalak elizkizunak mantentzeko apaiz gabezia zela-eta, hauxe eskatu zuen: apaiztuta ez egon arren, elizgizonen hutsuneak ikasketak egiten ari zirenek bete ahal izatea[907]. Bi hilabete beranduago auzokideen batzarrak herritarren lehentasuna berretsi zuen, oraingo honetan sakristau-kargurako hautagaien artean[908]. Larruskain hurrengo urtean hil zen eta hasiera batean bere ordez Juan Baskaran jarri bazuten ere[909], kendu egin behar izan zuten, izendapena

905. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1842-4-11.

906. Izagirreren esanetan «… clamor publico por la ansiedad de sacerdotes para prestar a su vecindario la comodidad e indispensable pasto espiritual» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1844-23.

907. «… que a los vecinos naturales de esta villa tonsurados de prima se les haga las presentaciones de los beneficios vacantes o que en adelante vacaren, pues que esta circunstancia redundaria por todos conceptos en utilidad conocida de los hijos pobres del Pueblo» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-9-19.

908. «Que cuando se declarase vacante dicha sacristia debera proveerse precisamente en la persona que hubiese nacido en esta villa y bautizado en la Parroquial de ella o su aneja de San Miguel de Aguinaga y que sea hijo de padres que tengan hecha su filiacion e hidalguia» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-11-21.

909. Horrez gain, herritik kanpo ibiltzen ziren apaizei ordezkoak bermatu beharraz ohartarazi zieten: «Tambien se acordo que siempre que algun Beneficiado tenga que ausentarse de esta villa por tiempo de un mes o mas, o que se halle suspendido de casos haya de poner un servidor idoneo que desempeña las cargas anejas al Beneficio» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1848-12-23.

ez baitzen bidezkoa izan[910]. Hurrengo hilean, Baskaranek bere eskakizuna berretsi zuenez, udalak batzorde berezi bat osatu zuen, kabildoarekin bilduta honako hau aztertzeko: «… si se puede o no variar la concordia que rige en la Parroquial de esta villa»[911]. Hilabete batzuk geroago udalak benefiziatu izateko eskubidea onartu zion Miguel Antonio Martitegiri, «… con obcion (sic) a los Beneficios»[912].

Eliz karguen izendapenen inguruko gorabeherek, eta batez ere udalaren eta elizaren arteko konkordia aldatzeko saiakerak, Lorenzo Valero Elorza eta Domingo José Atristain apaiz elgoibartarren protesta bizia eragin zuten. Horiek salatzen zutenez, udalak ez zeukan baldintzak betetzen ez zituzten hautagaiak proposatzeko eskubiderik, herritarrak edo "*pilongo*"ak[913] izan arren[914]. Udalkideak, Elorza eta Atristainen eskakizunari arrazoi garbiekin erantzun beharrean, apaizen idatzian islatzen zen garraztasunean oinarritu ziren, erantzutea ere ez zuela merezi erabakitzeko[915]. Handik pare bat hilabetera Atristrainek berriro ekin zion, udalari, 1706ko konkordia aldebakarreko erabaki baten bidez hautsi izana leporatuz. Zioenez, aldaketa horren helburua kanpoko apaizak baztertzea zen, hain zuzen, Eibarren apaiz premia izugarria egonda ere, bertokoak elizkizunak bermatzeko nahikoak ez ziren unean. Atristainek argi eta garbi utzi nahi zuen, konkordiak herriko apaizen lehentasuna ezartzen bazuen ere, lehentasun hori prestakuntza berdineko elizgizonen artean hartu behar zela kontutan, eta ez, kasu honetan bezalaxe, herrikoek gutxieneko baldintzak ere betetzen ez zituztenean[916]. Horrez gain, udalaren joko

910. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1848-11-13.

911. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1848-12-11.

912. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1849-3-11.

913. Akta-liburuak argitzen digunez «… estos beneficios son de los que bulgarmente se llaman pilongos, en cuya obtencion son preferidos los bautizados en cierta Iglesia o Pila» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-11-2.

914. «Ha llegado a su noticia el que esa corporación trata contra todo torrente de alterar la condicion vigésima cuarta de la concordia en la parte mas esencial de ella, en la que dispone se verifique la presentación de beneficios vacantes en uno de los hijos naturales y patrimoniales de la misma que haya cantado misa primero y cumplido los 24 años y entrado en los 25; con condicion de que el tal sea habil y suficiente para obtener el Beneficio sin perjuicio de Pilongo que hubiese y obtuviese las clausulas exigidas en dicha concordia. En cuya inteligencia los abajo firmantes no pueden ametir les pare perjuicio por una antojada de V.S. quien no podrá menos de conocer proviene de intrigas y va a caer en perjuicio de tercero, por cuyo motivo protestan…» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-4-28.

915. Udalaren erantzuna: «Con el mayor asombro ha visto este Ayuntamiento la exposición que con fecha 18 del mes ppdo. le han dirigido VV; exposición que a la verdad ni merecia contestación tanto por el lenguaje acre y altamente injuriosa que en ella se emplea y suposiciones gratuitas (que se emplean) (por no decir falsedades) de que se halla atestado como por no ser facil el descubrir el verdadero obgeto que se proponen los exponentes tal es la invalidez y poca o ninguna coordinación de ideas…» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-4-28.

916. «… si bien en igual caso sean los pilongos los preferidos a los patrimoniales, a lo menos cuando no haya de los primeros suficientemente habilitados y si de los segundos, se heche (sic) mano de estos para llenar las vacantes y en ninguna manera se tolere el que se amengüe el pasto espiritual, y el decoro y mayor realce en la celebracion de los divinos oficios» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-6-17.

bikoitza jarri zuen agerian, komenientzien arabera batzuetan 1706ko konkordian oinarritzen zela salatuz, eta beste batzuetan liberalek indarrean jarri berriak zituzten legeetan. Arlo honetan, atzerrian apaiztutako abadeen eskakizunak atzera botatzeko erabilitako trikimailuak mahai gainean jarri zituen. Oraingo honetan ere, udalak ez zion eskakizunaren mamiari kolperik egin, hauxe erantzunez: «… que acuda este interesado con la devida moderacion, y se resolvera lo que hubiere lugar»[917].

Kultu eta Kleroaren Zerga

I. Karlistaldian zehar liberal aurrerakoiek hamarrena abolitu zuten, 1837ko uztailaren 29ko legearen bidez. Hamarrena, elizgizonak eta elizkizunak ordaintzeko nekazaritza eta abeltzaintzaren gainean ezarritako zerga zen, hasikinekin —"*primicias*"— batera. Zerga horren bidez, nekazaritza edota abeltzaintzan zihardutenek urteko ekoizpenaren % 10 elizari ematen zioten, baina ez dirutan, gari, arto, garagar, oilo eta abarretan baizik, uzta onak gertatzen zirenean gehiago, eta urriak zirenean gutxiago. Gainera, hamarrena kobratzea elizari bazegokion ere, foru-lurraldeetan —Nafarroan izan ezik— jabe laikoen eskuetan utzia zuen hori kobratzeko lana, batutako erdiaren truke[918]. Liberalek, hamarrenaren ordez zerga bateratu bat ezarri nahi zuten, Kultu eta Kleroaren zerga —"*Contribucion de Culto y Clero*"—. Zerga hau dirutan ordaintzen zen, eta ez bildutakoaren arabera, kopuru finko bat baizik[919]. Estatuan zerga hau inposatzea lortu bazuten ere, foru-herrialdeetan elizak hamarrena mantentzea lortu zuen. Gipuzkoan adibidez, 1844ko Azpeitiko Batzar Nagusiek askatasun osoa eman zieten herriei apaizen ordainketa nahi zuten erara egiteko (hamarrenaren bidez edo zerga berriaren bidez), eta herririk gehienak hamarrenarekin jarraitzea aukeratu zuten. Eibarren ez, ordea.

Azpeitiko Batzar Nagusietako erabakiei jarraiki, Eibarko eliz kabildoak batzorde bat sortu zuen, baserrietara bidali eta nola nahi zuten ordaindu jakiteko. Gehienak antzina bezala, hamarrenaren bidez jarraitzearen alde agertu ziren, baina batzordeak ez zuen hiriguneko biztanleriaren iritzirik jaso. Itxura denez, beste herritar batzuk elizaren kanpaina oztopatzen hasi ziren, eta eliz kabildoak azkenean,

917. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-6-17.

918. «… en las tres provincias occidentales, la mitad del diezmo lo cobran laicos que solo entregan una pequeña parte a los curas. Muchos de éstos han de contentarse con ingresos modestos y a veces se ven obligados a solicitar limosnas de los feligreses. Su situación material los acerca a las masas populares» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 43).

919. Testigantza hau beranduagokoa bada ere, hamarrenak sortzen zuen harremana deskribatzeko nahiko adierazgarria izan daitekeela uste dut ondorengoa: «… sistema que une la suerte del clero a la del pueblo y que les convierte en una misma familia, con inmensas ventajas sociales. Cuando Dios envía grandes cosechas y prosperidades, de ellas participan solidariamente el clero y el pueblo así como de las miserías, escaseces, nublados y piedras destructoras. Suprimid el diezmo, dad al clero una renta fija, y le divorciáis del pueblo, y le hacéis odioso, pues cobra igual en los años aciagos que en los venturosos», *Seminario Católico Vasco Navarro*, 1869-9-24.

hamarrena kobratzeari utzi eta udalaren eskuetan utzi zuen kobraketa-lana[920]. Jokabide horrek amore ematea suposatzen zuen, eskuduntza hori udalaren ardurapean uzteak hamarrena kendu eta zerga berria indarrean jartzea suposatzen baitzuen.

Ekimen honen muina liberal kutsuko Argiano eta Astiazaran izan zirela dirudi, sinaduren artean beroienak agertzen baitira lehen postuetan; baina horiekin batera Juan Bautista Sarasuarena eta Pedro Saturnino Ezenarrorena aurkitzeak (karlista ohiak), alderdikerietatik at, Eibarko apaizek zerga berria aho batez onartu zutela adierazten digu. Batasun hori ulertzeko orduan kontuan hartzekoa da hamarrenen sistemak nekazari-eremuetako apaizek hirietakoek baino gehiago irabaztea suposatzen zuela; horrek eragiten zuen nekazari-eremuetako kleroa erreformaren aurka egotea, eta hirietakoa ez alde, baina aurka ere ez[921]. Eibarko kleroaren kasua hirietakoen pare jar dezakegu, zeren azken hamarkadan bizi izandako populazioaren gorakada hirigunearen hazkundearen ondorioz izan baitzen[922]. Zentzu horretan, lana ugaritu bai, baina apaiz kopurua ezin zen handitu zerbitzua hobetzeko, zeudenak ere ozta-oztan bizi ziren-eta, hamarrenarekin. Beraz, kabildoaren protesta sinbolikotzat jo dezakegu, ziur asko euren benetako nahia hamarrenaren ordez ezarritako zerga berria onartzea baitzen. Horren seinaletzat jo dezakegu, hurrengo urteetan zehar gai honen inguruan inolako protesta edota eskakizunik ez aurkitzea.

Itxura denez, baserririk gehienek hamarrena ordaintzen jarraitu zuten, bederatzi urte geroago —1853an— jasotako aginduak zioenez hamarrena ordaintzeari uko egiten ziotenek ere ordaindu egin behar baitzuten. Eibarren hamar ziren egoera horretan aurkitzen ziren baserriak, guztiak ere Enparan jaunaren maizterren esku

920. «Esta medida la mas oportuna y que prometía respirar con mas libertad a la Iglesia ha sido mal recivida por unos cuantos, hasta entrar en el arreglo de lo que deben pagar los diezmantes, propalar en toda la jurisdicion las deducciones que pueden hacer como si en ellos no hubiese bastante mala fé en el pago, y lo que mas estrano es la pregunta que ha sido hecha al Sr. Alcalde (segun se la ha asegurado al que suscribe) sorprendido de si ha abrogado todas sus facultades al cabildo para la recoleccion de diezmos, como si fuera cosa nueva e impropia de la Iglesia (…) En su vista el Ilustre Cabildo desde ahora cesa en la recoleccion de diezmos (…) y espera que tomando el asunto con interes, se servira activar el cobro» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1844-9-14.

921. «En la medida en que el diezmo y las primicias eran contribuciones que pesaban casi exclusivamente sobre la agricultura, ciertos curas de aldea podían ganar mas que los de las ciudades más pobladas. Por dar algunos ejemplos, digamos que los curas de Urnieta y Albístur percibían respectivamente 11.599 y 13.460 reales, meintras que los de Santa María de San Sebastián y de Tolosa ganaban solamente 5.000 y 7.280 reales. El detalle no deja de tener importancia y puede explicar, por lo menos en parte, las simpatías del clero rural por la causa carlista, a la vez que la tibieza del clero urbano» (Garmendia, 1985: 55).

922. 1862. urtean, populazioaren gorakada zela-eta, udalak apaiz gehiago eskatu zizkion Gasteizko gotzaingoari. Eskaintzen dituen datuen arabera, Eibarren orduan 200 baserri zeuden «… ademas de otros quinientos vecinos que encierra el casco de la poblacion» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-12-13. Hiru urte lehenago ere udala kexu agertu zen apaiz eskasiarengatik: «… la grande necesidad que habia en esta villa de Sacerdotes que administren el pasto espiritual» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-7-25.

zeudenak[923]. Agindu horretatik ondorioztatzen denez, industriak eta merkataritza-jarduerek ez zuten zergarik ordaintzen, eta nekazariek ordaindu behar zuten horien zatia, eta horrek, zalantzarik gabe, lehen sektorea zigortzen zuen bereziki, are gehiago Eibar bezalako herri batean. 1861eko beste aipamen batek adierazten digu Kultu eta Kleroaren Zerga jada martxan zegoela eta zenbait biztanlek dirutan baino nahiago zutela aletan ordaintzea, beharbada nekazaritza-produktuen garestitzeari etekina atera nahian[924].

Auzokideak ez ziren biztanleen bazterketa

Auzoak ez ziren biztanleek zenbait elizkizunetan parte hartzeko ordaindu behar zituzten zerga berezien gaiari konponbidea aurkitu behar zitzaion. 1850ean San Andres parrokiako maiordomoak, kofradian izena ematea aholkatu ostean zioenez «… ningun cofrade que no se halle inscrito con un año de antelacion tendra obcion (sic) a los beneficios de la capa y será obligado a pagar los derechos de ella»[925]. Aholkuak ez zuen espero zen emaitzarik eman, hiru urte geroago maiordomoek eskakizuna berretsi behar izan baitzuten[926]. 1862an, zenbait biztanlek "*vecinos*" eta "*moradores*" direlakoen arteko bereizketa bukatzea eskatu zuten, beraiek beste edozein herritarrak bezala zergak ordaintzen zituztelako, baina elizak eskubide bereziak kobratzen zizkien hileta-elizkizunetan[927].

Udalak batzorde bat izendatu zuen arazoa aztertzeko, eta hurrengo astean biztanle hutsak zirenek kofradian izena eman eta urtero bi erreal ordainduta, batzordeak arazoa konpondutzat jo zuen. Zerrendan sartu nahi ez zutenek 36 erreal ordainduko zituzten hileta-elizkizun bakoitzeko hirigunean bizi baziren, eta 46 auzoetako biztanleak izanda, «… en razon a que tienen que ir dos sacerdotes para

923. «… acuerdos de la Juntas generales siendo su último acuerdo que a las personas que se negasen a contribuir con el diezmo y la primicia para las atenciones del culto y clero, se las obligase a pagar lo que en concepto de los Ayuntamientos de sus respectivos Pueblos les correspondería si se repartiese entre los vecinos el importe del presupuesto del culto y clero con arreglo a lo que importaba en el quinquenio de 1829 a 1833 (…) para las atenciones del clero el doce % de las rentas de su propiedad con arreglo al estado territorial del año 1815, 18 reales por cada yunta, 9 por cada res bacuna mayor, 9 reales por cada caballeria y cuatro y medio rr. por cada docena de obejas que tuviesen en sus fincas; y que ademas satisfacieran tambien la 4ª parte de lo que importase la contribucion territorial y pecuaria a cuentas de lo que debian pagar el comercio y la industria o en su falta fogueralmente, y para la dotacion del culto la cuarta parte del total montamiento de la contribucion destinada para la del clero» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-2-8.

924. «… con el sistema del diezmo, el cura podía sacar partido del aumento del precio del grano, cuya progresión era bastante más superior a la de los salarios que el Estado podía garantizar a los eclesiásticos» (Garmendia, 1985: 55).

925. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-10-15.

926. «Los mayordomos de la cofradia de San Andres Apostol de esta villa en solicitud de que se suscriban en dicha cofradia todos los vecinos de ella en un periodo marcado durante el año, a fin de que las cuotas sean menores» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-12-17.

927. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-3-30.

la conduccion del cadaver»[928]. Horrez gain, batzordeak parrokiaren funtzionamendurako beste arau bat egin edo gogora ekarri nahi izan zuen: biztanle guztiak udalerriko parrokietako maiordomoak izatera behartuta zeudela, izendatuak gertatzen zirenean.

1845EKO "LEY DE AYUNTAMIENTOS" INDARREAN

Sufragio murriztuaren garaia

Diputazioen ahaleginak alferrikakoak izan ziren, liberal moderatuen "*Ley de Ayuntamientos*" indarrean jarri baitzen 1848an. Foru eta usadioek ziotena betiko zokoratuz, handik aurrera udal-hauteskundeak konstituzioaren arabera egingo ziren. Bukatu zen, beraz, zozketak egiteko pitxarren eta txartelak jasotzeko umetxoen premia. Amaitu zen kaparetasunaren eta lur-jabetzaren bidez auzokide hautagaiek zeukaten monopolioa. Baina jauntxoen nagusigoa ez zen hautsi[929], sufragio unibertsala barik, murriztua jarri baitzen indarrean.

Sistema berriak populazioaren arabera neurtzen zuen boto-emaileen kopurua: 60 biztanle baino gutxiago zituzten herrietan, biztanle —"*vecino*"— guztiek zeukaten boto-eskubidea; 60tik gorakoetan, berriz, honela kalkulatzen zen kopurua: zergarik altuenak ordaintzen zituzten lehenengo 60ak gehi biztanleen kopuru osoari 60 kenduta eta hamarrengatik zatituta ematen zuen emaitza. Hau da, Eibarrek 359 zituenez, 60 gehi 29, 89 biztanlek zeukaten boto-eskubidea[930]. Foru-sisteman bezalaxe, guztiak ez ziren hautagaiak: Eibarren soilik lehenengo 59ak[931]. 89 biztanle horiek zergaduru nagusiak ziren, euren errentak lur-jabetzan, industrian edo zertan oinarritzen ziren kontuan hartu gabe, eta maizter eta jabeen arteko bereizketarik egin gabe. 89 hautesle horiez gain, zerrendaren bukaeran beste 13 lagun agertzen dira, "*Capacidades. Electores no eligibles*" atalean: Eibarko sei apaizak, osagilea, bi botikariak, idazkaria, maisua eta organista. Zerrenda osoa, beraz, 102 hauteslek osatu zuten. Aldaketa hauek haustura nabarmena suposatzen zuten forutradizioarekin, eta batez ere, alkatea izendatzeko gaitasuna galtzeak, herrialde

928. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-4-6.

929. «La ley electoral de 1845, si bien acusadamente censitaria, amplió el número de vecinos concejantes en las Provincias Vascongadas respecto al régimen foral, aunque no alteró el predominio de los notables locales» (Rubio Pobes, 2000: 163). Eta aurrerago: «… era tan eficaz como los filtros forales para garantizar el control del poder local a una élite privilegiada, y esto más claramente cuanto más importante fuera el municipio» (Rubio Pobes, 2000: 170).

930. 29 kopuruaren jatorria honako hau da: 359 – 60 = 299; 299/10 = 29. Elgoibarrek, adibidez, 407 biztanle zituenez, 407 – 60 = 347; 347/10 = 34; 34 + 60 = 94 hautesle.

931. Hautesleen kopurua formula matematiko baten emaitza bada ere, hautagaien kasuan ez dakigu zeintzuk, baina argi dago matematikaz gain beste baldintza batzuk ere kontuan hartzen zirela. Horren adibidea izan daiteke Gaztelun 51 hautesleak hautagaiak izatea, eta Pasaian 71 hautesletik 47 baino ez izatea hautagaiak.

mailako ordezkaritza-lana normalean alkateak egiten zuela kontuan hartuta, foru-sistema sustraitik kutsatzea suposatzen baitzuen[932].

Eredu liberalaren arabera, herri-diputatuaren eta herri-sindikoaren karguak desagertu egin zirenez, 359 herritarretatik 257 ordezkaritzarik gabe gelditu ziren udalean. Legedi liberalak hautesle izateko kaparetasunaren baldintza kendu bazuen ere, milarren jabetzaren ordez —hau da, lur-jabetzaren ordez— errenta ezarri zuenez, zortzi gizonetik bost guztiz baztertuta gelditu ziren udaletik. Eta guztiz esaten dugu, Antzinako Erregimenean etxeko buru guztiek zeukatelako euren ordezkariak hautatzeko eskubidea, nahiz eta ordezkari horiek kapitularren aldean kategoria gutxiagokoak izan. Horrekin batera, auzokideek eurek ere, udal-gobernuaren erabakietan zuzenean parte hartzeko zeukaten eskubidea galdu zuten, udal itxia finkatu zelako. Azken finean, 1845eko legeak foru-erregimenak bermatzen zuen demokrazia parte-hartzailea debekatu zuen, eta horren ordez demokrazia ordezkatzailea ezarri zuen, zeinean behin ordezkariak hautatuta biztanleak erabakitze-prozesutik at gelditzen diren, hurrengo hauteskundeetara arte.

Administrazio liberalak, dena arautzeko, zenbatzeko, zerrendatzeko eta azken finean, kontrolatzeko gar horretan, hautesleen erroldak eta jabetzen egoerak egiteko agindu zuen. Arlo horretan, 1847ko hautesle eta hautagaien zerrenda iturri paregabea bihurtzen zaigu, datu-basean pilaturiko informazio multzoari esanahi berriak aurkitzeko edota aurrekoak zehazteko orduan. Ordura arte, Eibarren behintzat, foru-udala ez zen inoiz arduratu une zehatz batean zeuden auzokide guztien zerrenda egiteaz, are gutxiago bakoitzak gozatzen zuen errenta kopuruarekin. Kasurik txarrenean auzokideen zerrenda egiteko, batzar guztietan parte hartu zutenak datu-basera sartu eta epe zehatz batean egon ziren auzokideen kopurua zehaztu ahal izango genuke. Baina kasu horretan ere ez genuke zehatz-mehatz jakingo zeintzuk ziren auzokide hautagaiak eta zeintzuk auzokide hutsak, eta datu-basean elkarri loturiko bilaketa korapilatsuak egin beharko genituzke zirriborro bat lortzeko. Zirriborro hori teoria hutsean geldituko litzateke, beste iturri batekin alderatuz egiaztatzeko aukerarik izango ez bagenu. Baina oraingo honetan 1847ko hautesle eta hautagaien zerrenda abiapuntu hobezin bihurtzen da, ez soilik aurrera begira burutuko diren aldaketak ulertzeko orduan, baita ordura arte gertatukoen inguruan irudikatutako hipotesien baliagarritasuna frogatzeko unean ere.

Aurreko orrialdeetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu 1842ko zerga, batez ere pertsonaien tauletan errentak alderatzeko erabili dugunean. 342 eibartarrek ordaintzen edo gozatzen zuten errentaz gain, iturri honek jabeak ala maizterrak

932. 1857ko Gipuzkoako Batzar Orokorretan foruen gaia suspertzeko eratu zen batzordeak aholkatzen zuenez, diputazioa zirikatzea komeni zen «… para que insista en la conveniencia de que los Alcaldes de los pueblos de esta provincia sean directamente nombrados por lo pueblos, porque de lo contrario se barrena hasta la institución de las Juntas, base y fundamento foral» (Rubio Pobes, 2000: 173).

ziren argitzen digu, eta hirigunean ala baserrian bizi ziren. 1800-1847 bitartean aritu ziren 175 udalkideei filtro hau aplikatzen badiegu, 62 laguneko lagina geldituko zaigu, mendearen hasieran ibilitako gehienak hilda zeudelako. 62 udalkide horietatik 41 jabeak ziren eta 21 maizterrak. Jabeen kasuan guztiek ere ohorezko karguak bete zituzten Eibarko Udalean; baina udalkideak izatera heldu ziren maizterren azpitaldea aztertzen badugu, gehienak herri-ordezkaritza lanetan aritu zirela dakusagu (21etik 14), eta kapitular-karguak betetzeko aukera izan zuten bakarrak Francisco Zuluaga, Francisco Eskaregi, Andres Sarasketa, Domingo Ramón Baskaran, Esteban Arana, Nicolas Aranberri eta Pedro Bergara Asua izan zirela. Eta horiek ere, ez sarri. Zentzu horretan, badirudi Antzinako Erregimenak ez zuela zirrikitu handirik eskaintzen lur-jabeak ez zirenentzat, ohiko herri-diputatu eta herri-sindiko karguak izan ezik. Beraz, itxura bestelakoa izan arren, auzokide hautagaien sistemak ondo baino hobeto zaintzen zituen udal-karguak betetzeko beharrezkoak ziren baldintzat.

1845eko legeak maizterren eta jabeen arteko bereizketarekin bukatu zuen neurrian, interesgarria da jakitea zeintzuk izan ziren onuradun nagusiak. Lege berriaren arabera zeuden 89 hautesleetatik, 60 inguru 1842ko zerrendan agertzen zaizkigu, eta horietatik 46 jabeak ziren eta 14 maizterrak. Maizterren taldean gainera sei hautagaiak ziren, eta zortzi foru-udaletan parte hartutakoak: lau kapitular bezala eta beste laurak herri-ordezkari legez edo agintaldi konstituzionalistetan. Teorian, azken horiek izan ziren 1845eko legeari etekin handiena atera ahal ziotenak, ordura arte jasandako bazterketa gainditzea ahalbidetzen baitzien, baina praktikan horietatik soilik Pedro Luis Aranguren izan zen udalkidea 1848tik aurrera. Sufragioaren zabaltze bat gertatu bazen ere, igarri ere ez da egiten, 1800-1847 bitartean kapitular-karguak 49 lagunek monopolizatu baitzituzten, 1845eko legeak hautagaien kopurua 59ra zabalduta ere, horietatik soilik 40 izan zirelako udalkideak. Hautesle hutsei dagokienez, murrizketa nabarmena da, 1846ko irailaren 3ko aktak zioenez «… todo el Ayuntamiento general que se compone de mas de cien individuos", eta 1845eko legeak 89ra gutxitu zuelako hautesleen kopurua.

1847ko hautesleen zerrendak atzera begirako azterketak egiteko aukera ematen digu. 1842-1843 bitartean aritu ziren 15 udalkidetik zazpi ez dira 1847ko hautesleen zerrendan argitzen, eta horretxek frogatzen du 1840-1843 bitartean indarrean egon zen lege aurrerakoiak udalean parte hartzeko aukerak zabaldu zituela, bai foru-erregimenak, bai 1845eko lege moderatuak baztertzen zituzten biztanleentzat.

1845eko "Ley de Ayuntamientos" delakoaren arabera hautesle eta hautagai izateko eskubidea zeukaten maizterrak

NORTASUNA	Udal-karguak	Urb. 1835	Arm. 1835	Jabetza 1842	Jabea/ Maizterra	Habitata 1842	Auzo 1847	Zerga 1847
ARANGUREN Pedro Luis	HD 1826	KG		325	Maizterra	Hirigunea	HH	1000
SUINAGA José Antonio			M C	500	Maizterra	Nekazal	HH	820
SUINAGA Pedro María				250	Maizterra	Hirigunea	HH	700
IBARRA José Martín	A1 1821-12	A.U.	M B	300	Maizterra	Hirigunea	HH	500
VERGARA ASUA Pedro	TSPG 1829			178	Maizterra	Nekazal	HH	474
ARAMBERRI Nicolás	HD 1817			150	Maizterra	Hirigunea	HH	450
IBARZABAL Martín		A.U.		300	Maizterra	Hirigunea	H/	440
ARANA Esteban	ER 1846	A.U.		150	Maizterra	Hirigunea	H/	360
UBERUAGA Juan Domingo				566	Maizterra	Nekazal	H/	350
ABARRATEGUI Valerio		A.U.		620	Maizterra	Hirigunea	H/	350
CAREAGA Eusebio				150	Maizterra	Hirigunea	H/	350
BASCARAN Domingo Ramón	HS 1816	A.U.	M A	200	Maizterra	Hirigunea	H/	340
IBARZABAL Juan	THS 1829	A.U.		200	Maizterra	Hirigunea	H/	340

Laburdurarik gehienak ezagutzen ditugu. Berria den "Auzo 1847" eremuan: "HH", hautesle hautagai; "H/", hautesle hutsa.

Hauteskundeak eta udalkideak, konstituzioaren aroan

Hautesle eta hautagaien zerrenda egiteko ardura 1847ko irailaren 15ean hartu zuen udalak[933], eta azaroaren lehenean hauteskunde-mahaia aukeratu zen; izan ere, Candido Aretio (10 botorekin), Jose María Gisasola Oregi (7), Evaristo Agirre (6), eta Jose Ramón Gabiola botoen aztertzaile —"*secretarios escrutadores*"— izendatu zituzten. Hauteskundeak egun berean hasi ziren, eta hurrengo bi egunetan jarraitu zuten. Hau da, egun bakarrean barik hiru egunetan egiten hasi ziren. Guztira zortzi udal-kargu aukeratu behar ziren —alkatea, alkateordea, sindikoa eta bost errejidore—, eta hautesle bakoitzak zortzi hautagairen izenak idatzi behar zituen horretarako propio prestaturiko txartelean, «… dentro del local y a la vista de la mesa unos por si y otros valiendose de otros electores». Arratsaldeko zortzietan mahaia itxi eta botoen zenbaketa hasi zen, «… leyendo el Sr. Presidente en alta voz todos los nombres inteligibles, anulandose los que no lo eran y los que estaban repetidos…»[934]. Lehen hauteskunde hauetan hautesle bakoitzak zortzi hautagairen izenak idatzi bazituen ere, sistema berriaren arabera bi urterik behin soilik zinegotzien erdiak berritzen zirenez, aurrerantzean hautesleek lau hautagairen izenak idatziko zituzten, hau da, aukeratu behar ziren udal-karguak beste.

933. «… para la formacion de listas de electores y elegibles que han de nombrar el Ayuntamiento que ha de regir desde 1º. de Enero de 1848 seria muy conveniente valerse por una parte de la estadistica territorial que ha regido en esta villa para fijar la renta de cada uno de ellos y por otra, se oyese previamente a diferentes vecinos de ella con respecto a las profesiones e industrias que tubiesen a fin de que con mayor acierto se fijase aquella y enterados dichos asociados, aprobaron la idea emitida por el Sr. Presidente» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-9-15.

934. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850),* 1847-11-1.

1848ko udal-hauteskundeen lehen egunean 64 bozka jaso ziren guztira, hau da, zortzi hautesle joan ziren bozkatzera. Biharamunean, goizeko bederatzietarako ezarri ziren udaletxearen kanpo aldean aurreko egunean bozkatu zutenen zerrenda, eta hautagai bakoitzak jasotako boto kopurua. Bigarren hauteskunde egunean 56 boto jaso ziren, beraz, zazpi hauteslek bozkatu zuten. Hirugarren egunean, 313 boto eman zituzten gutxienez 39 biztanleren artean. Ikusten denez, hauteslerik gehienak hirugarren egunera arte egon ziren zain botoa emateko. Aurreko egunetako emaitzak argitaratu egiten zirela kontuan hartuta, azken egunean botoa hautagai jakin batzuen inguruan biltzeko aukera sortzen zen. 102 pertsonako erroldatik 54k parte hartu zuten udal-hauteskundeetan, eta abstentzioaren presentzia goiztiar eta indartsu honek adierazten digu sistema berriaren inguruan zegoen mesfidantza. Ondorengo taulan boto gehien lortu zituzten 14ak agertzen dira.

NORTASUNA	U.H. 1848	Zerga 1847	Habitata 1842	Jabea/ Maizterra	Auzo 1847	Urb. 1835	Arm. 1835	Udal-karguak
GUISASOLA Antonio Benito	41	1200			HH			SPG 1843
LARRAÑAGA Antonio	38	1375	Hirigunea	Jabea	HH	KF	O G	A1 1848
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	34	2920		Jabea	HH			A2 1844-2
IRAEGUI GUISASOLA Pedro María	32	500	Nekazal	Jabea	HH		O A	ER 1848
BASCARAN José Domingo	27	500	Nekazal	Jabea	HH			HD 1835-6
AGUIRRE ARGUINAO Martín	26	500	Nekazal	Jabea	HH			ER 1848
GABIOLA José Ramón	24	500	Hirigunea	Jabea	HH	A.U.		A2 1846
ALBERDI Sebastián	23	560			HH	A.U.	M A	THD 1829
ARANGUREN Pedro Luis	22	1000	Hirigunea	Maizterra	HH	KG		HD 1826
BASCARAN Manuel	15	500		Jabea	HH	A.U.	O G	ER 1813-9
UNZETA BARRENECHEA ("mayor") José	15	950	Nekazal	Jabea	HH			TER 1828
ARETIO ARAMBURU Cándido	14	900			HH	KF	M A	ER 1847
AGUIRRE Pedro María	13	1740			HH	KD		A1 1847
IBARZABAL PAGAEGUI Gabriel Benito	10	2263	Hirigunea	Jabea	HH	KM		A1 1820-1
SUSTAETA Ambrosio	10	1129	Nekazal	Jabea	HH			A1 1838
GUISASOLA AGUIRREBEÑA Feliz	9	580	Hirigunea	Jabea	HH	A.U.	O G	THS 1827

Botorik gehien Antonio Benito Gisasolak lortu zuen arren, 1848ko alkatea Antonio Larrañaga izan zen. Gogoratuko dugunez, 1845eko legearen arabera alkatea izendatzeko eskubidea gobernadore zibilaren eskuduntza zen, eta kasu honetan bidea zarratu zion Antonio Benito Gisasolari. Gisasola Eibarko sindikoa izan zen 1843ko agintaldi aurrerakoian, eta beharbada hortik etorriko ziren gobernadorearen susmoak berekiko. Emaitzekin jarraituz, zortzigarren izendapena ozta-ozta lortu zuen Sebastián Alberdik, Pedro Luis Arangurenek baino boto bakarra gehiagorekin. Hortik behera boto-tartea zabaldu egiten da. Esanguratsua iruditzen zait sasoi bateko Gabriel Benito ospetsuak hamar boto baino bildu ez izana. Errentaren eremutik ondorioztatzen denez, jabe ertainek aurrea hartu zieten jabe handiei, zortzi zinegotzitik bosten errentak ez ziren 600 errealetara ailegatzen eta. Gainera horietatik hiru nekazaritza-esparruari lotuta agertzen zaizkigu. Armagin legez, ordea, bi baino ez ditugu bilduta.

Hauteskunde hauen emaitzek adierazten digutenez, 1845eko lege moderatuak ezartzen zituen oztopoak gaindituta, aurrerakoien hautagaiak hauteskundeak irabaztea lortu zuen, nahiz eta gero gobernadore zibilak alkate-kargua ukatu zion. Sistema berriaren arabera alkate, alkateorde eta sindikoaren karguek bi urte irauten zuten, eta errejidoreenak lau, hauen erdiak bi urterik behin berritzen zirelarik. Sindikoa errejidoreen artean izendatzen zuten, eta errejidoreen ordena ere hala erabakitzen hasi ziren. Hurrengo 10 urteetan burutu ziren udal-hauteskundeak aztertzeko orduan, bost aldagai eduki ditugu kontuan: boto-emaile kopurua, boto gehien lortu zuen zinegotziaren boto kopurua, boto gutxien lortu zuen zinegotziaren kopurua, zinegotzi izendatu gabe gelditu zen hautagaiaren boto kopurua eta boto-hartzaile kopurua, azken hau, botoaren sakabanaketa neurtu ahal izateko. Ondorengo diagraman ikusten denez, boto-emaile kopuruak gorabehera garrantzitsuak izan zituen bost hauteskundeetan; parte-hartze garrantzitsuena 1852an izan zen (zentsoaren % 64,7) eta urriena 1854an (zentsoaren % 25,4). Nolabait azaltzeko, 1848an eskubidea zeukatenen erdiek bozkatu zuten, 1850ean bostetik bik, 1852an hirutik bik, 1854an lautik batek eta 1857an hirutik bik.

1848-1857 bitarteko udal-hauteskundeen emaitzen diagrama

	1848	1850	1852	1854	1857
Boto-emaileak	54	43	66	26	35
Zinegotzia (+)	41	36	51	24	33
Zinegotzia (-)	23	18	41	10	15
Hurrengoa	22	8	19	9	9
B. H. kopurua	31	18	18	11	31

Zinegotzi bakoitzak lortutako boto kopurua urte bakoitzeko boto-emaileen kopuruarekin alderatzean, hautagai jakin horrek hautesleak erakartzeko eduki zuen ahalmena islatzen da. Hala, 1857ko hauteskundeetan parte hartu zuten 35 lagunen artetik 33 boto eskuratu zituen Manuel Arizaga Eirikik (% 94,2) ehuneko altuena aurkezten du. Hurrengo, 1854an 26 bototik 24 jaso zituen Esteban Urzelai (% 92,3) aurkitzen dugu, eta agindaldi berean ehuneko baxuenarekin izendatua suertatu zen zinegotzia, Juan Manuel Orbea, botoen % 38,4rekin. Edonola ere, hautagai bakoitzaren indarra neurtzeko orduan boto-emaileen kopuruarekin barik, erroldarekin alderatzen badugu, 1852ko Feliz Gisasola Agirrebeña dugu zilegiena, eskubidea zeukatenen erdiek berari bozkatu baitzioten.

Zinegotzi-karguak eskuratzeko sortutako norgehiagoka neurtzeko, baliagarria dugu jakitea lortu ez zutenen artean boto gehien jaso zuenak zenbat eskuratu zituen. Ikusten denez, 1848an eta 1854an atzematen da lehia estuena, Pedro Luis Aranguren eta Pedro Francisco Bergara boto bakarrarengatik gelditu baitziren udaletik kanpo. Boto-hartzaile kopuruak aztertuta, botoa hautagai jakin batzuen ingu-

ruan pilatzeko joera nagusitzen joan zela dakusagu, baina prozesu honek 1857an eztanda egin zuen eta botoa inoiz baino sakabanatuago agertuko zaigu. Hauteskunde bakoitzeko boto-hartzaile eta boto-emaile kopuruen arteko “ratio”a aztertzen badugu, 1852koak aurkezten du pilaketa handiena 66 lagunen botoak 18 hautagairen artean banatu baitziren (3,66ko ratioa) eta 1857koak sakabanaketa ikusgarriena, 35 lagunen botoak 33 hautagairen artean zatitu ziren-eta (1,06ko ratioa). Zentzu horretan, 1857an Manuel Arizagak 35etik 33 boto lortzeak bereganako leialtasunen sendotasuna frogatzen du, beste 30 hautagairekin lehiatu zuen-eta.

Puntu honetan, hautagai ezberdinen ustezko aliantzak aztertzeko bidexka ere zirriborratu dezakegu. Agintaldi bakoitzean zinegotziak izendatuta suertatu zirenen artean, boto gehien eta gutxien jaso zutenen arteko aldea zenbat eta txikiagoa izan, hautagai horien arteko akordioaren hipotesia indartzen da, eta beraien artean lehiatu beharrean leialtasunak banatzen saiatu zirela ondorioztatu dezakegulako. 1852ko hauteskundeetan, adibidez, izendatuak gertatu ziren lau zinegotziek hautesleen bi herenak partekatu zituzten; hau da, boto-emaileen hirutik biren txarteletan lauen izenak zeuden idatzita. Beraz, kandidatura antzeko bat osatu zutela pentsa dezakegu. Ustez behintzat, akordioak bi hautagairen artean sortzen ziren, bakoitzak bere alde zituen botoak besteari eskainiz, bestearen sostenguen truke, noski. Operazio horietan, botoa nori eman bezain garrantzitsua izan zitekeen botoa nori ez eman erabakitzea, hautesle bakoitzak lau boto zituenez adostutako biak aukeratu ostean, kalte handia egin baitziezaieketen ustekabean, beste biak euren arerio politikoei emanda. Beharbada bide horretatik bi bikotek osatutako hautagaitza itxiak sortu ziren.

Ondorengo diagraman 1848-1857 bitarteko udalkideen nortasunak aurkezten dira, hauteskundeetan bakoitzak lortu zuen boto kopuruarekin batera.

NORTASUNA	U.H. 1848	1848	U.H. 1850	1850	U.H. 1852	1852	U.H. 1854	1854	1856	U.H. 1857	1857	Auzo 1847
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	34	SPG			44	ER		SPG	SPG			HH
IRAEGUI GUISASOLA Pedro	32	ER		SPG			20	ER	ER	1		HH
AGUIRRE ARGUINAO Martín	26	ER		ER						2		HH
GABIOLA José Ramón	24	ER	1	ER						7		HH
ALBERDI Sebastián	23	ER			1		1			7		HH
GUISASOLA Antonio Benito	41	ER										HH
BASCARAN José Domingo	27	A2			1							HH
LARRAÑAGA Antonio	38	A1		A1						7		HH
GUISASOLA GARITACELAYA	7		29	ER		SPG						HH
AGUIRRE Pedro María	13		34	ER		ER				3		HH
PAGAEGUI José María			18	ER		ER						
ARETIO ARAMBURU Cándido	14		36	A2		A1				3		HH
ARANGUREN Pedro Luis	22		5		47	ER		ER		1		HH
UNZETA BARRENECHEA	15		5		42	ER		ER				HH
GUISASOLA AGUIRREBEÑA Feliz	9		7		51	A2		A2	A1			HH
URCELAY Esteban					21		24	ER	ER			H/
ORBEA MURUA Juan Manuel							10	ER	ER			

BASCARAN Manuel	15		2		9		23	A1				HH
VERGARA Juan Francisco									ER			
ECHEVERRIA Miguel José									ER			
ARIZAGA EIRIQUI Manuel									A2	33	A1	
ACHA José Agustín											SPG	
BUSTINDUY Alejo										22	ER	
PAGOAGA José Antonio	4		4				6			17	ER	HH
ARETIO AURTENA José Maria										15	ER	
BETOLAZA Santiago										23	ER	
PAGUAGA Antonio										18	ER	
IRAOLAGOITIA Pedro María										27	A2	

Bozkatu zutenen nortasunak ez ditugunez ezagutzen, boto-emaileen finkotasuna ezin dugu neurtu, eta ez dakigu zein puntutaraino berak izan ziren hauteskunde guztietan, edo boladako parte-hartzea izan zen, hau da, aurten batzuk eta hurrengoan beste batzuk, aurkezten ziren hautagaiek loturiko sostengatzaileen arabera. Horrez gain, bakoitzak nori bozkatu zion jakingo bagenu, agintaldi ezberdinetako hautagaien arteko boto ontzi-aldaketaren eragina neurtzeko moduan izango ginateke. Zera da, hauteskunde batzuetan nork bere sostenguak eskaintzea, hurrengoetan inorenak eskuratzeko akordioarekin. Beharbada hau izan zen Pedro Luis Arangurenek egin zuena, 1848an 22 boto lortuta bakarrarengatik udaletik kanpo gelditu ostean, 1850ean 5 boto baino ez zituelako eskuratu, 1852an 47 botorekin zinegotzi kargua lortzeko. Antzeko bideari jarraitu zion Manuel Baskaranek, pare bat hauteskunde igaro behar izan bazuen ere. Beste batzuen estrategia, ordea, hauteskunde guztietan euren botoa ziurtatzea izan zen eta udaletik kanpo gelditu ziren. Hau da Jose María Alberdiren kasua, hauteskunde guztietan botoren bat edo beste lortu zuen bakarra izanda (1852an erroldako botoen % 18 eskuratu zuen), zinegotzi-kargurik gabe gelditu zena. Jose Manuel Orbeari dagokionez, behin aurkeztu, eta bertan izendapena lortu zuen, erroldaren % 10aren sostenguarekin. Jakingarria litzateke orduko kanpainak nola egiten ziren, hau da, hautagaiek zernolako aukerak eta baliabideak erabiltzen zituzten euren buruak promozionatzeko. Eibarrerako aipamenik aurkitu ez dudan arren, ziur asko tertuliak eta antzeko elkarteek paper garrantzitsua jokatu zuten hautagaien arteko adostasunak —eta desadostasunak— sortzeko unean.

Teorian alkatea eta sindikoa ere bi urterik behin berriztu behar baziren ere, aurreko diagraman ikusten denez, Antonio Larrañagak lau urtetan zehar bete zuen alkate-kargua. Udala berrizten zenean, bigarren alkateak alkate-kargua hartzen zuen, eta hauteskundeetan boto gehien lortzen zuen zinegotzia bigarren alkate izendatzen zuten, hau da, handik bi urtetara alkatea izango zena. Sistema horretan, bigarren alkateak udaleko batzar guztietan parte hartzen zuen (ez foru-erregimeneko alkate-ordeak bezala, soilik alkatea ez zegoenean), eta bi urteko esperientzia balio handikoa izaten zuen alkate-kargua betetzeko ordua ailegatzen zitzaionean. Zalantzarik gabe, ez soilik bigarren alkatea, baita errejidore edo zinegotzien iraupena udalean urte batetik laura pasatu izanak egonkortasun handia eman zion konstituzio-udalari

foru-udalarekin alderatuta. Beste kontu bat da udalkideen berriztatze-prozesua ere zeharo murriztu zela, lehena urtero zazpi kide berri sartzen baziren udalean, 1845etik aurrera aldaketa bi kidetara mugatuko delako, hau da, lau (bigarren alkatea eta hiru errejidore) bi urterik behin.

Sistema hau nahiko zorrotz ezarri zen Eibarko Udalean, 1854. urteko udal-hauteskundeak arte. Orduan, Esteban Urzelaik lortu zuen boto gehien baina gobernadoreak alkate-kargurako betatu zuen, eta Urzelaik baino boto bat gutxiago lortu zuen Manuel Baskaran izendatu, ez bigarren alkate, baizik eta alkate zuzenean! Bigarren alkatearen karguan Feliz Gisasolak jarraitu zuen, 1856an alkate izateko, eta Urzelai zinegotzi xume legez aritu zen hurrengo bi urteetan. 1856ko udalean ere zenbait irregularitate nabaritzen dira. Batetik, udal-hauteskundeen aztarnarik ez da nabaritzen akta-liburuan, beharbada egon ere ez zirelako egon eta aldaketak gobernadore zibilak egin zituelako zuzenean. Bestetik, Jose Antonio Erbitik sindikokarguan jarraitu zuelako, udaletik irten beharrean, eta horren ondorioz, lau zinegotzi barik, hiru izendatu zirelako. Bukatzeko, izendaturiko hiru zinegotziak ez zeuden 1847ko zerrendan, ez hautesle, ez hautagai. Fenomeno hau 1857ko udalean areagotu egingo da.

1857ko udal-hauteskundeen prozedurak, emaitzek eta udalkideen tipologiak zer pentsa ugari ematen dute. Prozedura aldetik, inolako azalpen berezirik gabe, udalkide erdiak aldatu beharrean, guztiak berritu ziren; gainera 1856ko azaroaren hasieran egin beharrean, 1857ko otsailean egin ziren. Biurteko Aurrerakoiaren bukaeran gaudenez, logikoena aldaketa hauek estatu mailan gauzatzen ari zirenekin lotzea da. Zentzu horretan, 1856-7-5eko legeak sufragioa zabaltzeaz gain[935], hautesleen eta hautagaien arteko bereizketarekin bukatu zuen. Baina otsailaren 8ko aktak argi eta garbi adierazten du hautesleen errolda 101 lagunek osatzen zutela[936], hau da, hautesle bat gutxiago zeukan, populazioa galdu zuelako seinale. Beraz, Gipuzkoako gainerako herrietan legez, Eibarren ere ez zen sufragioaren zabaltzerik izan. Hori baino harrigarriagoa iruditzen zaigu, Eibar udalerri liberala izanik, horren aldeko eskakizun edota protesta bakar bat ere aurkitu ez izana.

Emaitzen aldetik, 1857ko hauteskundeek aldaketa-puntu bat suposatzen dute, are garrantzitsuagoa udalkide horiek 1861. urtera arte udal-gobernuan iraun zutela kontuan hartuta. Berriz zortzi hautagai izendatu beharrak ordura arteko aliantzen jokoa desorekatu zuen, zeren 1854ko hauteskundeekin alderatuta boto-emaileen kopurua 26tik 35era hazi bazen, boto-hartzaile kopurua 11tik 31ra igo zen, botoa

935. «En los pueblos de hasta 100 vecinos eran electores todas la personas que pagaran contribuciones directas provinciales o municipales (lo que hacía la práctica totalidad del vecindario, exceptuados los pobres de solemnidad). En los municipios mayores de 100 vecinos se establece una escala que hace electores desde el 83 al 66% de los vecinos contribuyentes —inversamente a la población—, a los que se suman las capacidades» (Rubio Pobes, 2000: 172).

936. «Siendo el numero de electores del distrito municipal de ciento uno, han tomado parte en la eleccion treinta y cinco» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1857-2-8.

asko sakabanatu zelako seinale. Testuinguru horretan, ordura arte udalean sartu nahian ibilitakoak, ahalegindu bai, baina ez zuten beraien artean gutxieneko batasuna sortzeko ahalmenik erakutsi, eta kale egin zuten agertutako talde berriaren aurrean.

1857ko udalkideen tipologiari begiratzen badiogu, ordura arteko udal-hauteskundeetan parte hartu gabekoak ziren —Pagoaga izan ezik—, eta gainera, Bustindui kenduta, inork ez zeukan esperientziarik udalean. Baina adierazgarriena da zortzitik zazpi ez direla 1847ko hautesle eta hautagaien zerrendan agertzen! 1848-1855 bitartean aritu ziren 18 udalkideen artean bi kasu aurkitu ditugu horrelakoak, José María Pagaegi eta Juan Manuel Orbea Murua; beharbada, urte horietan zehar zuten errenta igo eta hautesle izateko eskubidea lortu zuten. Edonola ere, bi kasu dira hemezortziren artean. Baina 1856-1857 epean izendatu ziren hamar zinegotzitik bederatzi 1847ko zerrendan ez agertzea gehiegizkoa da, guztiak orduantxe sartutakoak direla pentsatzeko. Edo, horrenbeste aldatu ote ziren batzuen eta besteen errentak hamar urtetan?

Horrela izango ez balitz, gelditukо litzaigukeen azalpen bakarra litzateke pentsatzea zerrenda eta legedien gainetik Eibarko Udaleko ateak hautagaien zerrendatik kanpo zeudenentzat zabaldu egin zirela, liberalismo demokratak zioenaren ildotik. Alderdi hori 1848an sortu zen, eta litekeena da 1856rako euren aldarrikapen eta egitasmoak ezagunak izatea Eibarren. Beste kontu bat litzateke euren programa hori gauzatzeko gaitasuna erakustea. 1856-1857 bitartean aukeratu ziren zinegotzien tipologiak ere ez du antz handirik liberal demokratenarekin, nekazaritza-mundutik zetozenen pisua esanguratsua baitzen. Bestetik, Arizaga Eiriki izan ezik, demokratatzat jotzekotan ibili garen horietatik inork ez zuen 1868ko Iraultza Loriatsuak zabaldutako prozesuan parte hartu. Beraz, 1857-1860 bitartean aritu zen taldeak zer ideologia ordezkatzen zuen jakin jabe jarraitu beharko dugu.

EGOERA EKONOMIKOA 1850ETIK AURRERA

Errematea eta salmenta librea

Antzinako Erregimenaren eta berriaren arteko ikuspegiak ezberdinak ziren arlo ekonomikoan. Ikusi denez, Lege Zaharrean herriaren horniketa erremate edo enkantearen bidez bermatzen zen, diru gehien eskaintzen zuenak gai jakin baten horniketa edo bere salmentaren monopolioa lortzen zuelarik, baldintza jakin batzuetan. Pentsamolde liberalak, ordea, salmenta librea aldarrikatzen zuen, hau da, zegozkion zergak ordainduta edozein gai askatasun osoz garraiatzeko edota saltzeko baimena, nahi zen prezioan eta lekuan, hori bai, gutxieneko kalitatea bermatuta. Udalak bere ondasunak galdu zituenetik, kontsumo-gaiei ezarritako zergak —arielak— bihurtu ziren bere diru-iturri nagusia. Zeharkako zerga guztiak bezala, ariel horiek gaiak saltzen ziren unean kobratzen ziren, produktuaren prezioaren ba-

rruan, eta zati hori udalari ordaintzen zioten erematatzaileek. Ikusten denez, sistema honen funtzionamendu egokia gorabehera askoren menpe zegoen, eta liskar ugari sortu ziren erematatzaileen eta udalkideen artean, zeren udalkideek zergak igotzen edo berriak ezartzen zituztenean, erremateen baldintzak berrikusi eta aldatu beharra sortzen baitzen. Beraz, salmenta librearen aldeko aldarrikapenak indarra hartzen joan ziren, eta bi ikuspegion arteko eztabaida etengabea izan zen bi karlistaldien artean. Iraultza Loriatsuaren eztandak (1868) ere ez zuen eztabaida estaliko.

Salmenta librearen aldeko lehen eskakizuna 1842koa dugu, Hirurteko Aurrerakoiaren abagunean Jose Joaquín Arano haragi-hornitzaileak haragia eta beste gai batzuk libreki saltzeko baimena eskatu zuenekoa[937]. Ez dakigu eskakizuna zertan gelditu zen. Askoz entzutetsuagoa izan zen 1847an Garamendik eta beste batzuek Buruzagi Politikoaren aurrean erremateen kontra egindako protesta, udala eta erematatzaileak bat eginda zeudela salatuz, eta salmenta librea eskatzeko[938]. Udalak, aurreko urteetan zehar Eibarren ardoa inguruko herrietan baino merkeago saldu zela azaldu ostean, «… no concibe como estos individuos cacarean tanto el nombre del comun cuando de este modo desconocen sus intereses»[939] erantzun zuen. Egia esan, ez da ondo ulertzen nola saltzen zuten ardoa inguruko herrietan baino merkeago, inon baino zamatuago zegoenean[940].

Gehitzen zuenez, erematatzaileek galera garrantzitsuak izan zituzten aurreko hiru urteetan, eta salmenta librea ezartzea zentzugabekeria bat zela, «… tanto por que la poblacion es pequeña y los vecinos tendrian que sugetarse al capricho de tres o cuatro abastecedores que benderian al precio y de la calidad que les acomodase, cuanto por que anteriormente por desgracia hubo libre venta un año y se sabe practicamente (…) que los intereses de la villa fueron menoscabados»[941]. Gainera, erremateárekin jarraitzeko erabakia urriaren 10ean buruturiko auzokideen batzarrak hartu zuen, ez udalak; eta Garamendi batzar horretan izanda ezertxo esan ez eta gero Buruzagi Politikoarengana jo izana aurpegiratu zion udalak. Bukatzeko, udalak pare bat urte lehenago hartzekodun nagusiekin sinatutako akordioa ekarri zuen gogora, hura betetzeko erremateáren sistemarekin jarraitzea ezinbestekoa zela azpimarratuz. Ikusten denez, salmenta librearen sistemak oztopo ugari zituen aurrera egiteko orduan.

937. EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1842-1-14 (eranskin anakronikoa).

938. 1847an, herriaren ardo-horniketa José Antonio Agirre, Joaquín Arana eta Jose Ramón Atxaren esku zegoen, pattarrarena Benito Gallastegiren ardura zen eta haragia José Joaquín Aranorena. Ardoari ezarritako zergak udalaren diru-sarreren % 75 baino gehiago suposatzen zuen 1847an, eta produktu horren salmenta Agirre, Atxa eta Aranaren esku zegoen, EiUA, A,1,1,12, *Akta Liburuak (1840-1841),* 1847-1-8 (eranskin anakronikoa).

939. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1847-10-23.

940. Bi urte geroago, diputazioak ardoa zamatzea proposatu zuenean Eibarko ordezkariak protestatu egin zuen «… pues que hallandose tan recargado el vino, casi seria intolerable que aun lo fuese nada menos que un real en cada arroba» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-11-2.

941. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1847-10-23.

Hurrengo urtean Francisco Barrenetxea tabernariak oroitidazki bat bidali zion Buruzagi Politikoari, udalak txakolin azunbrea bost laurdenetakoa —"*cuartillo*"— saltzera behartzen zuelako, inguruko herrietan azunbreak lau laurdenetakoak baziren ere. Udalak zehaztu zuenez, herrialdean sagardo eta txakolin azunbrea bost kuartilotakoa zen, eta herri batzuetan ardoa bera ere; horrez gain, Barrenetxeak ardoa berak nahi zuen prezioan saltzeko eskubidea zeukanez, neurria behintzat mantentzeko agindu zion udalak. Ikusten denez, erreматearen sistema ez zen zehatz-mehatz betetzen, udalak ardoaren prezioa kontrolatzeko eskumena galduta zeukan-eta[942].

1850eko udalkideek produktu berriak zamatuz konpondu nahi izan zuten udalaren defizit kronikoa. Martxoan, Jose Anitua Gipuzkoako gobernadore zibila kexatu zen udalak sagardo azunbreari ezarri berri zion lau marauko zerga zela-eta. Udalak erantzun zionez, dirua lortzeko zeukan irtenbide bakarra zen, ardoa eta pattarra ezin baitziren gehiago zamatu[943]. Edonola ere, ez zen harturiko erabakiarekin oso seguru egon behar hurrengo hilean Gabriel Ibarzabalekin bildu baitzen «… para que (…) influya en el animo de los Sres. del consejo Provincial y Gobernador de la Provincia para que se siga en esta villa cobrando los ocho mrv. en azumbre de chacoli y cuatro en la de sidra»[944]. Irailean, udal-defizita orekatu nahian, «viendo que todos los articulos de consumo se hallan recargadisimos de impuestos, ecepto el chacoli y sidra»[945] bi edariok ere zamatzeko eskakizuna berretsi zuen. Azkenean, nola edo hala, bere nahia lortu zuen, diru-sarrerak handitzeko beste biderik ez zegoela ikusita, txakolinari 600 eta sagardoari urtero 1.200 errealeko zerga ezartzea erabaki baitzuen.

1854ko agintaldia ere kontsumo-gaien zergari buruzko eztabaidekin hasi zen, oraingo honetan pattarraren eta haragiaren inguruan. Herriko ahaldun nagusi pila bildu omen zen udalean[946], produktu horien erreматatzaileen kexuei erantzuteko. Erreматatzaileek ziotenez prezioak ez baziren igotzen zorrek jan egingo zituzten, eta udalak azkenean eskakizuna onartu zuen. Bost urteko epean, haragi liberaren prezioa 8 marautik 10era igo zen. Hurrengo urtean, udalkideek, «… asociados de una muchedumbre de vecinos», haragi libera 9 maraura jaisteko eskatu zioten Aranori, baino horrek ezetz erantzun zuen[947]. Urtearen bukaerako enkantean, inork ez zuen

942. «… pero como a Barrenechea no se le obliga a fijar el precio puesto que puede moderarlo u aumentarlo, se la ha intimado que la medida tenga conforme ha sido costumbre hasta ahora y segun se usa en la Provincia. Los arbitrios de esta villa casi consisten esclusivamente en el consumo de vino clarete que esta recargadisimo» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1848-7-15.

943. «La villa de Eibar es sin disputa ninguna la que mas recargada se encuentra entre todas las de Guipuzcoa (…) y sin embargo de buena administracion y justicia, casi ha salido ya de las infinitas deudas que contrajera» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-3-4.

944. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-4-28.

945. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-9-2.

946. Aktak dioenez, udalkideak bildu ziren «… como asi bien una muchedumbre de vecinos mas pudientes de ella (…) con el fin de resolver las reclamaciones de los rematantes de carnes y aguardientes» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1854-2-12.

947. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1855-9-5.

hurrengo urterako haragi-horniketaren ardurarik hartu, eta udalak Jose Domingo Aranoren proposamena onartu behar izan zuen, sei hilabetetan libra 8 ½ errealetan saltzeko, eta beste sei, 9 errealetan.

Bost urte geroago arazoa bere gordintasun osoan azaldu zen, herrialde guztian behien prezioak jasan zuen gorakadaren ondorioz, Francisco Elola haragiaren erematatzaileak hartutako konpromisoari uko egin zionean. Haragi libera 10 marautan saltzen zen, eta hasiera batean Elolak 11n saltzeko udalaren baimena lortu zuen. Baina biztanle batzuek gobernadore zibilaren aurrean helegitea aurkeztu zutenez, 10 marautan saltzen jarraitu behar izan zuen. Handik hilabete batzuetara Elolak ez zeukan behi gehiago erosteko dirurik, eta bere eginkizunari utzi beharrean aurkitu zen. Udalak orduan bere fidatzailearen —Evaristo Zuloaga— ondasunak bahitu zituen, eta era horretara beste pare bat hilabetetan zehar Elolak hartutako ardurarekin jarraitzea lortu zuen. Baina azkenean, Zuloagaren beraren baliabideak agortu eta Eibarko herria haragi-horniketarik gabe gelditu zen[948]. Udalak judizialki egin zuen bion aurka eta Francisco Elolak 4.000 erreal ordaindu behar izan zituen[949]. Baina bien bitartean sortutako arazoari irtenbide bat eman behar izan zion udalak, behikia gero eta garestiago zegoela egia zen-eta.

Udalaren erabakia haragia administrazioan hartzea izan zen, hau da, berak zuzenean hornitzea eta saltzea —ordaindutako langileen bidez—, oraingoan honetan gainera, 11 marautan. Baina hala ere, maiatzaren 4tik uztailaren 31ra bitartean haragiaren salmentak 3.940 errealeko defizita sorrarazi zion udalari, eta 12 maraura igo zuten libera[950]. José Anituak haragiaren salmenta bere esku uztea eskatu bazuen ere[951], behikien salmentak administrazioan jarraitu zuen. Abenduan, udalak José Domingo Atxaren proposamena onartu zuen, haragia 12 errealetan saltzeko, zeren «… no hubo postor alguno en la almoneda para la provision de carnes»[952]. 1861eko urrian, abelgorrien prezioak behera egin zuela-eta, libera 10 marautan ezarri zen berriz. Urtarrilean, ordea, 10etik 14ra altxatu zen! Zeinen buruan ote zeuden orduan behien espekulazioa ekiditeko 1755eko Batzar Orokorrek harturiko neurriak! Denborak zeharo aldatuta zeuden, eta udalak etorkizunari begira, salmenta librea iragartzen zuen erabakia hartu zuen, hauxe onartuz: «Que cualquiera persona que se acomode podrá vender dicho artículo al precio que quiera, debiendo sin embargo presentar las reses antes de la matanza al encargado del Ayuntamiento»[953].

948. Hilabeteetan zehar luzatu zen prozesu hau 1859ko apirilaren 30eko aktan aurki dezakegu laburbilduta, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-4-30.

949. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-1-22.

950. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-8-6.

951. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-8-15.

952. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-12-18.

953. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-1-13.

Sistema berriak, ordea, ez zuen ganoraz funtzionatzen, haragia libreki saltzen hasita ere, udalak administrazioan saltzen jarraitzen zuelako. Horren ondorioz, 4.000 errealeko defizita zeukan udalak ekainerako, eta haragiaren horniketa eta salmenta berriro erematera ateratzea erabaki zuen, 14 marautan libera. Horrez gain, erremate-egunetik aurrera salmenta librea berriz galarazita gelditu zen[954]. Baina, itxura denez, inor ez zen ausartu eginkizun hori bere gain hartzen, zeren sei hilabete geroago udalak administrazioan bere gain hartu zuen berriz, «… y que las cabezas de las reses se repartan por turno a todas las casas del casco de la poblacion, a dos reales y medio con sus sesos y morros»[955]. Bezperan udalkideek eztabaida luzea eduki zuten José Villarrekin —ardoaren eta pattarraren erematatzailea—, hurrengo urteko erremateak egiteko moduari buruz. Villar Erret Agindu batean oinarritu zen, eta udalak azkenean, arrazoia eman behar izan zion [956].

1861eko urrian jakin zenez, haragiaren salmentak administrazioan 9.200 errealeko superabita eman zuen bederatzi hilabetetan[957]. Lortutako diruarekin zer egin jakiteko ahaldun nagusien batzarrera deitu zuen udalak, eta bi egun beranduago liberaren prezioa 12 errealetik 10era jaitsi zuten. 1863ko ekainean, berriz, 2.736 errealeko superabita sortu zen, eta horietatik, Manuel Arizagak 1.100 erreal kobratu zituen «… por los servicios prestados durante el tiempo en que estuvo a su cargo la cuenta del ramo»[958], ziur asko 1857-1861 bitartean alkate zela aurreratutako dirua. Abaguneari etekina atera beharrean, udalak behikiaren salmenta berriz enkantera ateratzea erabaki zuen. Domingo Anituak eskuratu zuen, baina egun gutxitara Jose Joaquín Aranok Anituak enkante egunean eskainitakoak baino baldintza hobeak eskaini zizkion zuzenean udalari[959]. Trikimailu hau ohikoa zen zenbait gairen horniketa kontrolatzen zuten siseroen artean: erremate-egunean proposamenik ez egitea, inork ez bazuen hartzen, udala erremateren baldintzak hobetu beharrean jartzeko; eta norbaitek hartzen bazuen, hark baino pixka bat gehiago eskainita monopolioa eskuratu zuzenean udalari egindako proposamenaren bidez. Oraingo honetan udalak ez zuen Aranoren amua irentsi, baina bai hurrengoan José Villarrena[960].

Erremate eta salmenta librearen arteko lehiak ez zuen konponbiderik aurkituko. 1865eko martxoan Jose María Baskaranen —pattarraren erematatzailea— kexua heldu zen udalera, herriko zenbait kafe eta tabernatan pattarra saltzen zutelako. Egun berean, 4.134 errealeko defizita betetzeko sagardoa zamatzea erabaki

954. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-6-16.
955. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-12-27.
956. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1862-12-26.
957. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1861-10-6.
958. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-6-29.
959. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-10-11.
960. 1864ko ardoaren horniketa Francisco Pagoagak hartu zuen erematean; baina egun batzuk beranduago, José Villarrek Fco. Pagoagak baino laurden bat gehiago eskaini zuen ardo azunbreko. Udalak ardoraren horniketa berriz erematera atera eta azkenean Villarren esku gelditu zen, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-12-31 eta 1864-1-3.

zen. Erdibidean, udala ez zen ausartzen ez aurrera egiten —salmenta librea onartuz— ez atzera egiten —erreматearen baldintzak bermatuz—. Egia esan, atzera egiteko aukera handirik ere ez zuen. Erreматearen sistema baliagarria izan zen Lege Zaharrean, funtsezko kontsumo-gaien salerosketa, herrialde mailako egitura juridikoaren kontrolpean eta babespean zegoenean. Zentzu horretan, garia, abelgorriak edo gaztainak kanporatzeko debekuak, ezinbesteko papera jokatzen zuen prezioen gorabeherak baretzeko orduan. Baina legedi liberalak ez zuen inolako tresnarik aurreikusi kontsumo-gaien espekulazioari mugak ezartzeko. "*Laissez faire, laissez paser*" lemapean, garraio- eta salmenta-askatasunak eta eskaintza eta eskariaren lege "naturalak" benetako prezioak ezarriko zituztela uste zuten, edo pentsarazi nahi zuten behintzat. Sistema horren akatsak begi bistan zeuden XIX. mendearen erdialdera; baita onuradunak ere, 1847ko udalak zioen moduan: «… tres o cuatro abastecedores que benderian al precio y de la calidad que les acomodase». Iraultza Loriatsuaren bezperan, erremate eta salmenta librearen inguruan udalak zituen kontraesanak ageri-agerian zeuden: haragiaren salmenta librearen alde azaltzen zen bitartean[961], ardoa udalak saltzen zuen administrazioan, eta hurrengo hilean ez zuen onartu José Antonio Erbitik egindako 148.000 errealen eskaintza, ardoaren horniketa-zerbitzuaren eta arielak kobratzeko eskubidearen truke[962].

Armagintzaren egoera

Gerra artean udalaren eta armaginen arteko kolaborazioa areagotu egin zen. Eibarko armagintza gorabehera handien menpe zegoen, gobernuaren eskariak ez zuenez egonkortasunik, batzuetan lanik ez eta beste batzuetan lanez gainezka, eskakizunei aurre egin ezinik ibiltzen ziren-eta. 1851ko ekainean, adibidez, kanoiginen gremioak zulagailu —"*barrena*"— bat erostea eskatu zion udalari, «… para el taladro de cañones pues que se carece de ellas para la construccion de gran numero de fusiles que el Gobierno desea»[963]. Kanoiginek ziotenez zulagailu faltarengatik 300 fusil gutxiago egiten ziren hilero, «… redundando un perjuicio notable al gremio como a todo el vecindario en atencion a que componiendose el Pueblo de armeros quedan suspensas sus tareas por el motivo arriba indicado»[964]. Ekoizpena suspertzeko, udalak bere kontura hiruzpalau zulagailu erostea erabaki zuen, nahiz eta ondo jakin Eibarren ez zirela soilik armaginak bizi. Hurrengo urtean, udalak erositako zulagailuak geldirik zeuden, lan-tantarik ez zegoen-eta[965]. Azken finean,

961. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1867-5-11.
962. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1867-6-30.
963. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1851-6-8.
964. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1852-5-10.
965. 1853ko apirilean armaginen gremioetako diputatuek ziotenez: «… estan desocupados sus brazos por falta de trabajo, puesto que el Gobierno de S. M. no facilita el suficiente a dicha fabrica, ni que aun cuando asi fuese serian bastantes los tres mil duros mensuales que estan asignados a la misma y de Placencia, para que pudiesen ganar un simple jornal de 5 rr.» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-4-29.

gobernuaren eskakizunen inguruko ziurtasun-gabeziak armagintzaren garapena oztopatzen zuen, azpiegitura eta teknologia berriak finkatzeko beharrezkoak ziren inbertsioak atzeratzen zituelako. Abagune horretan, udalak bere gain hartu zuen armaginak babesteko eginkizuna, jokabide horrek gainerako sektoreak baztertzea bazekarren ere. Sasoi hartan, Eibarko armen ospea estatuko mugaz haraindi zabaltzen zen, eta Londreseko nazioarteko erakusketan parte hartu ostean, Eibartik bidalitako eskopetak Londreseko Museoan uzteko baimena eskatu zuen gobernadore zibilak[966]. Udalak baiezkoa eman arren, armok bueltan etorri ziren bi urte geroago, eta 340 errealetan saldu ziren[967]. Beharbada armagintzaren alorrean zertzen ari ziren berrikuntza teknologikoen aurrean atzean gelditzen ari zirela konturatuta, 1855ean, udalak atzerrira ikastera joateko bekaren oinarriak ezarri zituen. Hautagaiei eskaturiko baldintzen artean, aurreko ikasketak Bergarako Mintegian egin izana zegoen.

Madril aldean giroa gaiztotuta zegoen Debarroko armaginei zegokienez[968]. 1856. urtearen hasieran, armagintza jasaten ari zen krisialdiari irtenbidea aurkitu nahian, Soraluze eta Elgoibarko udalek José Ibarra bidali zuten Madrilera, euren ordezkari legez. Eibarrek, bere ordezkari propio edukitzea nahiago zuelako edo biren artean bakarrak baino gehiago egin zezaketelakoan, Juan Manuel Orbea aukeratu zuen Madrilera joateko «… a fin de que procurando hallar una casa de comercio o persona de mucho credito cerca del Gobierno de S.M. hagan que con él se contrate un número considerable de armas»[969]. Ikusten denez, eskari publikoa ala pribatua berdin zen, armagintza suspertzeko balio bazuen.

Ordurako, Debarroko armagintzak Trubiakoarekin lehiatu behar zuen espainiar estatuko merkatua irabazteko xedean. Hori ikusirik, Feliz Gisasola giltzaginak zuzenduriko udalak 16 kanoi egitea agindu zien kanoiginei, «… para prueva modelo en competencia con las de Trubia», eta kanoiginek 720 erreal eskatu zizkioten egindako lanaren truke[970]. Beharbada Gisasolaren eskakizunak aurreko urtean

966. Gobernadore zibilaren galderari erantzunez: «… sobre si cederian a favor del Museo de Londres las Escopetas que remitieron a la ultima esposicion en dicha Ciudad, y enterado el Ayuntamiento acordó por unanimidad, que en atencion a que dichas armas fueron dirigidas por Aretio o Ibarzabal como comisionados por el mismo, y teniendo en consideracion los beneficios que de dicha cesion pueden resultar a esta villa como una de las que cuasi esclusivamente se ocupa en la fabricacion de armamento se cediesen las indicadas Escopetas en favor del precitado Museo» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1851-9-21.

967. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-12-23.

968. 1853ko abenduan, Eibarko armaginen alde egiteko espainiar gorteetara bidalitako ordezkariak zioenez: «… empecé a gestionar por mi ya en la Direccion General de Artilleria, ya en el Ministerio de la Guerra y pude averiguar que el asunto estaba paralizado por ciertas prevenciones que las oficinas tenían contra esa fabrica. Traté inmediatamente de deshacer dichas prevenciones y de recomendar con empeño el curso y el favorable despacho a la referida instancia y en este estado cuando por la suspension de las Cortes he tenido que salir» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-12-18.

969. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1856-1-21.

970. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1856-4-20.

jasotako Erret Aginduarekin zerikusia zuen[971], kanoiak fabrikatzeko inposatu nahi ziren teknika berrien aldean, betiko sistemak kalitate hobea eskaintzen zuela frogatzeko. Badaezpada, Eibarko armaginek eskatuta, udalak batzorde bat izendatu zuen Trubia eta Oviedora joateko, «… a estudiar los adelantos modernos introducidos en las mismas en el sistema de fabricacion de armas de guerra»[972]. Asturias aldera egin beharreko txangoak bat baino gehiago erakartzen zuen, Antonio Larrañagak batzordekoa izatea eskatu baitzuen. Udalak hala onartu zuen, Manuel Garate, Ignacio Ibarzabal eta Mateo Orbea Urkizurekin batera, «… y de no avenirse los cuatro para pasar a Trubia y Obiedo, se proceda a nuebo nombramiento oido a los interesados» [973]. Trubiatik bueltan Manuel Garatek eta Ignacio Ibarzabalek aurkeztu zuten txostena, baita zenbait pieza ekarri ere. Udalak iragarri zuen pieza horiei buruzko informazioa jaso nahi zutenek udaleko idazkaritzan edukiko zutela, eta Fausto Mendizabal marrazketa-maisuari agindu zion zirriborroak tintara pasatzeko[974]. Urte batzuk geroago Ibarzabalek Trubia eta Oviedotik langile batzuk ekarri zituen,

971. Elgoibar eta Soraluzekoekin batera, Eibarko Udalak Juan Francisco Bergara izendatu zuen eginkizun honetarako: «… se procure conseguir la revocacion de la Real Orden que dispone la construccion de cañones a cilindro y que en estas fábricas se elavoren a martillo segun costumbre inmemorial» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1855-4-13.

972. Batzordearen eginkizunak hauek ziren, puntuz puntu: «1ª Dara cuenta por escrito de las medidas exactas del fierro en bruto, que usan para cada una de las piezas que se forjan en ellos, de llaves, aparejos, cañones y demas piezas del arma. 2ª Del estado de dichas piezas al tiempo de dar a la estampa, caso que procedan a esta operacion 3ª Del estado a medio forjar de dichas piezas 4ª Del estado a medio desbaste o limado 5ª del que tienen desvastados 6ª del de dulcidos (¿) y esmerilados 7ª Procuraran adquirir todas las piezas de carabinas, fusiles, etc en todas las faces marcadas 8ª id. diseños de las estampas de que se valen para la forja y de las plantillas para concluirlas 9ª Se enteraran de los diseños de las herramientas, útiles y maquinarias de que se valen para avreviar o egecutar las diferentes lavores de la construccion de piezas, es decir, de las que por si puedan construir los operarios de esta, o adquirirlas a poco coste; y que la comision considere seran de utilidad 10ª La villa abonara a los comisionados para gastos de su cometido dos mil doscientos reales» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-8-15.

973. Manuel Garate giltzaginari buruz —errebolberraren asmatzailea— hitz egin dugu lehenago; Mateo Orbea Urkizu, Juan Manuel Orbearen anaia eta bazkidea zen, "Orbea Hermanos" fabrikaren sortzailea; Ignacio Ibarzabal Iriondo, Gabriel Benitoren semea zen. 1835ean jaio zen, eta bere aitaren heriotzaren ostean —1853an— etxeko negozioaren arduraduna. Eibarko alkatea izan zen 1865 eta 1866an. II. Karlistaldiaren eztandak, Orbeak eta Ibarzabalek, esaterako, ideologia kontrajarriak zituztela agerraraziko bazuen ere, laukote horrek Eibarko armagintzaren elitea osatzen zuen 1860 aldera. Orbeatarrek karlistekin kolaboratu bazuten ere, ibarzabaldarrak errepublikaren alde azaldu ziren. Antonio Larrañaga Belgikan egona zen 1847an, udalaren enkarguz hango berrikuntzez jabetzen, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1847-1-7.

974. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-10-30. Fausto Mendizabal, marrazketa-maisua, 1855ean kontratatu zuen udalak «… convencido el congreso de las utilidades que a la juventud de esta villa redundarian por los conocimientos del dibujo que tanta falta hace a la industria armera», 3 errealeko soldatarekin. Udalak ezarri zizkion baldintzen artean honako hau irakur dezakegu: «Que no ha de permitir que en dicho local se hable en bascuense, sino en lengua castellana» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1855-11-17. Mendizabali buruz, «… el gran maestro de un gran número de excelentes dibujantes» izan zela dio Pedro Sarasketak (Sarasketa, 1909: 44).

baioneten forja-lana erakusteko. Ibarzabalekin zeukaten kontratua bukatu zenean, horietatik bi —Leoncio eta Teodoro Orozko anaiak— Eibarren gelditu ziren bizitzen, eta euren tailerra sortu zuten Txirio kalean (Sarasketa, 1909: 53).

Eibarren egindako armak bertan aztertzeko baimena aspaldi lortuta bazuten ere, eskubide hori galdu zuten noizbait, beharbada arma-frogatokiak ez zituelako gutxieneko baldintzak betetzen[975]. 1858an, udalak Pedro María Iraolagoitia bigarren alkatea izendatu zuen, Madrilera joan eta Artilleriako Zuzendari Nagusiarekin hitz eginda, eskuduntza hori berreskuratzeko[976]. Bi hilabetera baimena lortu zela jakin zen, eta arma-frogatokia egokitzen hasi ziren[977], hamaikagarrenez. Itxura denez, frogatokia sustatzeko ezinbestekoa zen zuzendaria —militar bat, normalean— bertan bizitzea lortzea, eta ondorioz, hura ostatzeko egoitza erosoa aurkitzea[978].

Hurrengo urteko martxoan, Eibarko Udalak Eusebio Zuloaga bidali zuen Madrilera, «… como enterado del ramo de armeria y el influjo que tiene cerca del Gobierno de S.M. se resuelva los pasos que hayan de darse»[979]. Uztailean, arraiadun karabinak eta gerra-kalibreko armak fabrikatzeko askatasuna eskatu zion Madrileko gobernuari[980]. Gobernuaren eskariak gero eta urriagoak zirenez, Soraluzeko udalak deituta arroko herriak bildu eta edozein motatako armak egiteko baimena lortzea jarri zuten helburu (Larrañaga, 1970: 62), eta gobernuak hala onartu zien hurrengo urtean. Egoera sortu berria aztertzeko, Debarroko herri armaginak Maltzagan bildu ziren, eta Madrilera bidalitako ordezkariak saritzea erabaki zuten[981]. Itxura denez, lege berriaren onarpenak nolabaiteko ika-mika piztu zuen, Eibarko Udalak Ibarzabal eta Iraolagoitiari "*Periodico de Andalucia*" egunkarian argitaratutako bi artikuluri erantzuteko agindu baitzien, «… con cargo a los fondos municipales»[982]. Gaia ez zen berehala argitu, hurrengo hilean gobernadore zibilak eskatu baitzuen armen fabrikazioari buruzko informazioa[983].

975. 1853an Isidro Odriozola kanoiginen diputatuak agerian jarri zuen «… el estado fatal en que se hallaba el probadero o fabrica de armas», eta udalari sendotzeko eta konpontzeko eskatu zion, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1853-9-13.

976. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-1-11.

977. «… se dispone que se construian sin perdida de tiempo los talleres necesarios al efecto en la misma casa fabrica y local que ocupa el peon de confianza» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-3-14.

978. 1858ko azaroan artilleriako zuzendariak bere gela atontzeko eskatu zuen, eta udalak baietz «… convencido cuan importante seria para los fabricantes de armas de esta villa la estabilidad de dicho señor en ella» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-11-21.

979. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-3-20.

980. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-7-24.

981. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-6-10.

982. Ibarzabal eta Iraolagoitiari emandako ardura hau zen: «… contesten a los articulos insertos en los numeros 765 y 766 del Periodico de Andalucia sobre fabricacion de armas portatiles de guerra en sentido contrario a dichos articulos» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-7-22.

983. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-8-12.

1863. urtean, udalaren egoitza berria arma-frogatokian ezartzekotan ibili ziren, «… tanto por no haber en aquella ningun empleado en ella, cuanto porque estinguido el sistema gremial se hacen las contratas por particulares»[984]. Baina txikiegia izan arren, arma-frogatokiak bere eginkizuna betetzen zuela ikusirik, azkenean udalak behar zuenean gelaren bat edo beste erabiltzeaz konformatu ziren[985]. Hurrengo urtean argitu zenez, artilleriako zuzendaria eta bere laguntzaileak ez ziren arma-frogatokian bertan bizi, Soraluzen baizik. Beraz, sasoi batean militar horiek ostaturatzeko erabiltzen ziren gelak hutsik zeuden, eta udalak horietatik batzuk eskatu zituen. Gai honen inguruan sortu zen eztabaidaren harira, udalak beste hau gaineratu zuen: kontrata-sistema berriaren arabera, ekoizpena txikiagoa izan arren etengabea zen, eta horrek inoiz baino premiazkoagoa egiten zuen aztertzaile horien presentzia Eibarren[986]. Artilleriako Zuzendari Nagusiak arma-frogatokiaren erdia ez bazen bere esku uzten eta egokitzen, ordutik aurrera armak Soraluzen aztertu beharko zituztela erantzun zuen, eta horren aurrean udalari baiezkoa ematea baino beste irtenbiderik ez zitzaion gelditu[987].

Ikusten denez, armak fabrikatzeko askatasunak ez zituen Eibarko armaginen arazoak ezabatu. Alde batetik, armak frogatzeko eta aztertzeko eskuduntzak militarren esku jarraitu zuelako; eta bestetik, 1847an bezala, oztopo bat baino gehiago aurkitzen zituztelako Mirandako aduana zeharkatzerakoan[988]. Pedro Zelaiak dioenez «1860. urtean, Eibarren bost tailer bakarrik zeuden itxurazkoak. Orbeanekoa zen handiena, 50 beharginekin. Besteak, 10etatik 30erakoak ziren. Gainera beste eragozpen gogor bat zegoen: bakar-bakarrik lana egin zitekeen errekako urak gurpil hidraulikoak mugitu ahal zituenean. Horregatik, udan oso behar gutxi egiten zen. Esaten denez, orduko armen produkzioa egunean 200 bat ziren» (Zelaia, 1994: 23). Garcia Manriquek gaineratzen duenez, ekoizpen-egitura familian oinarritzen zen oraindik eta fabrika handien ordez, tailerren arteko elkarlana nagusitzen zen[989].

984. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-3-1.

985. «…despues de una detenida y mesurada discusion, se acordó que no es conveniente que dicha Casa Fabrica se destine para Consistorial, puesto que aunque en pequeña escala llena las condiciones de su destino, pero que cuando estén desocupadas las habitaciones de la misma o alguna de ellas, el Ayuntamiento de acuerdo con el Director de la fábrica, disponga de ellas segun sea conveniente a los intereses de la villa» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-3-1.

986. «… el sistema de contratas que en la actualidad se sigue para adquisicion de armas opuesto en un todo al gremial que produciendo aunque en menor escala un trabajo continuo, exigia casi continuamente una comision del cuerpo encargado del examen de las piezas presentadas por los diferentes gremios de la villa» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1864-3-6.

987. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1864-5-22.

988. Akta liburuan hauxe dator: «D. Mateo de Orbea y D. Placido Zuloaga de gastos que tubieron en el viaje hecho a Burgos en comision del Ayuntamiento, a conferenciar con el Exmo. Sr. Capitan General de aquel distrito, sobre retencion de escopetas por su paso en Miranda importante 587 reales» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1865-10-29.

989. «Esta organización en pequeños talleres sirviendo a una industria más potente, que elaboraba todo el producto completo, ha sido siempre la característica de Eibar y lo que ha facilitado

UDAL ITXIAREN EBOLUZIOA

1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" delakoak ordura arte auzokideen batzarraren eskuduntzak izandakoak utzi zituen udal itxiaren esku. 1852an, adibidez, Antonio Benito Gisasola eskribauaren heriotza zela-eta, udalkideek ez zuten auzokideen batzar orokorrera deitu beharrik izan haren ordezkoa izendatzeko[990]. Agustin Garamendi, Pedro Maria Iraolagoitia eta Antonio Maria Aguirre aurkeztu ziren lanposturako, eta azken hori izendatu zuten, herritarra izateaz gain latinezko gramatikako bi urteak emanda zituelako, eta oraindik notariotza-ikasketak bukatu gabe eduki arren, astean birritan, Soraluzekoa bidaliko zuelako bere ordez[991]. Hurrengo bileran, 20an, Iraolagoitiak aktaren kopia eskatu zuen.

Hirigintza eta errepidegintza

1852ko alkateak —Candido Aretio— herritar xeheen aldeko egitasmoak bultzatzeagatik bereizi nahi izan zuela dirudi, bere agindupean buruturiko lehen bileran harturiko erabakiei begiratuta behintzat: Untzagako zezentokien —"*toriles*"— konponketa hasita zegoen, istripuak ekiditzeko «…. por la muchas quejas que tuvo, que los clamores del vecindario»; frontoia konpontzeko ardura Ibarzabali eman zion berriz —aurreko alkateak kendutakoa—; eta Ardanza kaleko farola ezarri zuen, hau ere bertako biztanleen kexuen eraginez[992].

Zezentokiaren zortzi gelei dagokienez, gaur egungo Untzaga plazaren inguruan zeuden, eta I. Karlistaldiaren ostean zenbait biztanle txirok etxebizitza legez erabiltzen zituzten. 1842an, adibidez, zortzi herritarrek eskakizun bat bideratu zuten, udalak "*Batistxoa*" eta bere alaba zezentokian okupatzen zuten gelatik bota, eta haien ordez Josefa Ignacia Maiztegi —ezizenez "*Choroquilera*"— sartu nahi zutelako[993]. Urte berean Juan San Martinek ere gela bat eskatu zuen, karlistek eman zioten jipoiak lanerako ezinduta utzi zuelako[994]. 1851n Placido Zuloagak alokatu zituen[995], ziur asko tailer legez, baina ez luzarorako, hurrengo urtean ondatuta baitzeuden. Candido Aretio alkateak agindutako konponketak ere, ez ziren oso sendoak izango, bost urte geroago beste biztanle talde batek zezentokia bota eta inguru guztia berregokitzea eskatu baitzuen, zumardi, plaza eta guzti[996]. Baina

---

independizarse a muchos de sus obreros que más tarde, de suministradores de una pieza, se convirtieron ellos también en industriales fabricadores de un producto completo con la mejora y compra lenta de maquinaria» (Garcia Manrique, 1961: 28).

990. Aholkua eskatu ostean, jasotako erantzuna: «… se reduce a que el Ayuntamiento sin necesidad de reunir los vecinos concejantes ni a ningun contribuyente que no sea vocal del mismo puede y debe hacer por el nombramiento» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1852-10-3.

991. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1852-10-7.

992. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1852-1-6.

993. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-10-4.

994. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1842-11-27.

995. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1851-3-21.

996. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1857-3-1.

itxura denez ez zen horrelakorik egin, 1860an gela batzuk Domingo Gurrutxagari utzi baitzizkioten, bere familiarekin batera bertan bizitzeko[997].

Frontoi zaharra suntsitu ostean —1847an— berreraikuntza-lanak geldituta egon ziren, Pedro Atristain sisen errematatzailearen kexuak adierazten digun bezalaxe, frontoirik ezean jendea kanpora joaten zelako jolastera, eta noski, herrian barik han edaten zuen, Atristainen kalterako[998]. 1849an, Juan Bautista Alzolak aurkezturiko proiektua onartu zen, eta eraikuntza-lana Jose Antonio Agirreren ardurapean gelditu zen (Mugica, 1990: 360). Ez dakigu nola nahasi zen Ibarzabal frontoiaren eraikuntzan, baina kontua da 1851n, Candido Aretio alkateordearen bidez, bere aldeko ordainketak ea zergatik utzi zituen bertan behera galdetu zion udalari. Udalak, erantzun garbirik eskaini gabe, frontoiaren batzordetik kendu egin zuen[999]. Aretiok, bere aldetik, frontoiaren eraikuntza-lanak suspertzeari ekin zion, alkatetza hartzearekin batera.

Biurteko Aurrerakoiaren (1854-1856) abagunean, udalak beste 30en bat biztanlerekin batera hilerria herritik kanpora ateratzea erabaki zuen. Hilerri berriaren premia 1846an planteatu zuten lehen aldiz Zigorraga herri-diputatuak eta Antonio Larrañagak[1000], baina alferrik. 1850ean, Antonio Larrañaga alkate zela, Del Detall kapitainak eskakizun berdina egin zuen, eta oraingo honetan ere Osasun Batzordeak eta udalkideek atzera bota zuten. Eskariarekin ados agertu zen bakarra Larrañaga izan zen, ez soilik osasun-arrazoiengatik, baita aurrerantzean etxebizitzak egiteko lekurik egokiena zelako[1001]. 1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" delakoak alkatearen esku-

997. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-6-24. Zezentokia San Juanetan erabiltzen zen gehien bat, eta arraroa iruditu arren, aktak inguruetako toreroak ere bazeudela argitzen digu: «En seguida se leyo un memorial de Manuel Egaña torero de la villa de Deva en solicitud de que se le permita la Plaza de corrida para hacer unas nobilladas por San Juanes» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876),* 1858-6-3.

998. EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1849-4-10.

999. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1851-1-7.

1000. 1846an Zigorraga herri-diputatuak eta Antonio Larrañagak idatzi bat bidali zioten Gipuzkoako Buruzagi Politikoari, populazioaren hazkundearen eraginez hilerria herri barruan gelditu zelako, eta aurretik ere «… particularmente en la epoca en que estubo guarnecida esta villa, y si entonces era una necesidad, hoy se deja palpar que esta es mucho mayor y mas inminente el peligro, pues los residuos de la especie humana espiden frecuentemente un hedor repugnante e infeccionan con sus alitos el pueblo y los parages destinados a la havitacion de los vivos». Udalak Osasun Batzordeari igorri zion txostena, eta horrek egun berean bildu ostean, ez zegoela kiratsik eta ez zegoela beste bat egiteko lekurik erantzun zuen, EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1846-6-29.

1001. Osasun Batzordeak hilerriari buruz zioenez: «… cuya tierra arcillosa y humeda es la mas propia para la mas pronta descomposicion de los cadaveres; por cuyo motivo jamas se ha observado en esta villa ninguna epidemia ni enfermedad contagiosa, ni tampoco fetidez alguna». Udalbatza ados zegoen, Larrañaga alkatea izan ezik «… que espuso su voto manifestando que no es su parecer sea ni capaz bastante el cementerio por el numeroso vecindario, ni adecuado el sitio por hallarse las casas muy proximas a el (…) y si en lo sucesivo se quisiera construir otras casas, no se encuentra otro sitio mas adecuado, sino las inmediaciones del citado cementerio» EiUA, A,1,1,13, *Akta Liburuak (1842-1850)*, 1850-6-25.

duntzak udalkideen gainetik jartzen bazituen ere[1002], proiektua bertan behera gelditu izanak Larrañagak aurkitu zituen oztopoen berri ematen digu. Legez azken hitza berea izan arren, ez zuen bere borondatea inposatzeko gogorik edo adorerik izan.

1855eko udalkiderik gehienak hilerria hirigunetik kanpo kokatzearen alde agertu baziren ere[1003], auzia luzatzen joan zen. 1863an, beste 14 biztanlek helarazi zuten beren kexua, horien artean Plácido Zuloaga, hilerriari buruz honakoa azalduz: «… ademas de ser malsano y diminuto, debe desaparecer, mediante hallarse situado casi en el centro de la poblacion y pegante a las calles mas principales»[1004]. Oraingo honetan Osasun Batzordea hilerria lekuz aldatzearen alde agertu zen[1005], zeregin horretarako eremua urtebetean hildakoak hilobiratzeko beharko litzatekeena baino bost aldiz handiagoa izan behar zela gaineratuz. Udala ere ados azaldu zen, eta Jose Lucas Berraondo —1855ean lekualdaketaren kontra azaldu zirenetariko bat— gaia aztertzeko eratu zen batzordeko kide izendatu zuten. Hasiera batean, hilerri berria Santa Kruzeko markesaren "*Santa Inescua*" etxearen atzean eraikitzea pentsatu bazuten ere[1006], azkenean "*Garrosoroa*"ko lurrak erosi eta hantxe egin zuten[1007].

Hiriguneko azpiegiturez gain, herrialde mailakoetan ere aldakuntza garrantzitsuak ari ziren gertatzen. 1850ean, Debarroko Bideen Partzuergoak Gipuzkoako Diputazioari saldu zizkion eraikitako bide guztiak eta kobratzen ziren eskubideak[1008], 500 pezetako 800 akziotan banatuta. Akzio horiek bost urte geroago banatu ziren, eta Eibarri egokitu zitzaizkion 95etik 75 José Ramón Mugertzak eta José Agustín Etxeberriak erosi zituzten[1009]. Bidasoatik Ordiziarainoko trenbidearen

1002. «Los cabildos perdían con esta ley la amplia intervención en la administración del municipio —bajo la supervisión de las diputaciones— que les entregara la primera legislación liberal; el alcalde pasó a ser el único administrador del término, ganando para sí todas la atribuciones que perdía el cabildo. Este quedaba reducido a la función de órgano consultivo del alcalde, y en la práctica a la nulidad» (Rubio Pobes, 2000: 162).

1003. Jose Lucas Berraondo zirujauak eta beste zortzi ahaldunek kontrako iritzia agertu zuten, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1855-7-13.

1004. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-1-18.

1005. Osasun Batzordeak eginiko txostenak hilerriaren gabeziak gordintasunez azaldu zituen oraingoan: «… sus dimensiones son tan reducidas que en el termino de año y medio se entierran dos cadaveres en un mismo espacio, sin que en tan corto tiempo haya podido verificarle la completa putrefaccion del primeramente sepultado» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-5-27.

1006. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1864-10-2.

1007. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1866-3-25.

1008. Partzuergoa 1819an sortu zen, Bergara, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko herrien artean. Bide-sare honek 40 kilometrotik gora zituen; eraikuntzarako eskatutako maileguak ordaintzeko Maltzagan ezarritako bidesariaz gain, herrietako zenbait kontsumo-gai zamatu ziren, baina diru-sarrera horiek ez ziren nahikoak egindako inbertsioa amortizatzeko. Hori zela-eta, diputazioari saltzea erabaki zuten 1850ean (Mugica, 1990: 344-347).

1009. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1856-2-9. Lortutako dirua Jose María Mendia eta Mateo Argiano hartzekodunei ordaintzeko erabili zen gehienbat, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1856-3-26 eta 1856-8-4.

eraikuntza zela-eta, diputazioaren eskakizuna ailegatu zen 1858an, «… para que se suscriban con las sumas que estimen oportunas». Eskakizuna erakunde publiko zein pertsonei bideratu bazitzaien ere, Eibarren diru-ekarpen bakarra udalarena izan zen, 20.000 errealekoa, hain zuzen[1010]. Baina dirurik ez zuenez, lehen epeko 4.000 errealak ordaintzeko mailegu bat eskatu behar izan zion Antonio Paguagari, % 5eko korrituarekin[1011]. Beraz, negozio makala egin zuen, sei urte geroago diputazioak Eibarko Udalak hartutako bi akzioak berreskuratu baitzituen, saldutako prezioan[1012]. Korrituak, ordea, udalak ordaindu zituen. Trenbidea ez zen Eibartik igarotzen, eta beharbada hortik zetorren herri honetako inbertsoreen hoztasuna akzioak eskuratzeko orduan. Beste kontu bat zen telegrafoarena. 1863an, posta maiztasunez jasotzeko Bergarakoarekin hobeto koordinatzeko proposamenaren harira, Eibar herri "*industriala*" izanik, telegrafoa ezartzeak ekarriko lizkiokeen onurei buruz hitz egin zen[1013]; berehala jarri ziren lanean, zeren, hurrengo urtean Elgoibartik jasotako mezuak zioenez, Eibarrek 127 paldo jarri behar baitzituen telegrafo-sarerako, horietatik 13 oso handiak[1014].

León Basterraren auzia

1857ko apirilean Burgoseko Auzitegiak Leon Basterra Eibarko "*escribano numeral*" izendatu zuen[1015]. Udalak hasiera batean entzungorrarenak egin arren, hurrengo urtean Burgoseko Auzitegiak bere agindua berretsi zuen, oraingo honetan Bergarako epaitegiaren bidez. Udala, ordea, ez zegoen amore emateko prest[1016]. Dakigunez, Basterrak karlisten alde egingo zuen II. Karlistaldian, eta I. Karlistaldian ere zerbaitetan ibili zela badirudi, Burgoseko Auzitegiak zioenez, «… mediante la habilitacion que se le dispensó goza mientras subsista en dicha villa los mismos derechos que corresponderían al sucesor de cualesquiera de los oficios vacantes y porque no es justo que residiendo en ella un Esno competentemente autorizado se conserven los protocolos y documentos de ellos en poder de otra persona que no reuna semejante cualidad»[1017]. Eibarko Udalak diputazioari eskatu zion laguntza, Basterra Uribe merindadeko numerariako arduraduna zelako, eta Eibartik kanpo ibiltzen zenez, behin baino gehiagotan bere premian aurkitu eta falta izana leporatu

1010. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-1-24.
1011. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-7-15.
1012. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-4-26.
1013. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1863-9-20.
1014. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1864-2-24.
1015. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1857-4-¿?.
1016. «… el Ayuntamiento deseando conserbar las prerrogativas que le corresponden en razon a que dicha numeria es propia suia acordó comisionar al Sr. Tte. Alcalde para que consultase con un abogado» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-3-12.
1017. GAO, JD IT, 992 a, 11. «El ayuntamiento de Eibar pone en conocimiento de la Diputación que la Audiencia Territorial de Burgos le ordena que entregue las numerarías al actual escribano de la misma, León Bazterra, persona no de confianza del Ayuntamiento, y solicita que la Provincia, como propietaria de las mismas le ampare», 1858-3-5.

zion. Horrez gain, denbora gutxi zeraman Eibarren bizitzen eta garrantzitsuena, traidore deitu omen zion erretiratutako kapitain bati[1018]. Diputazioak, bere aldetik, 1513tik eskribauak izendatzeko eskuduntza udaletxeena zela gehitu zuen, baina Bergarako epaitegiak 15 eguneko epea eman zion Eibarko Udalari, notariotzako paper guztiak Basterraren esku uzteko[1019]. Hurrengo astean diputazioaren aholkulariek "*Sala de Gobierno*" delakoak erabaki bat hartzen ez zuen bitartean erabakia bertan behera uzteko eskatu zioten Bergarako epaitegiari. Ez dakigu auzia zertan bukatu zen, baina argi dago behintzat udalkideak liberalak izan arren, forulegedian oinarritzen zirela euren helburuetarako horrela komeni zitzaienean.

1859-1866 bitarteko udalkideak

1859ra arte udal liberala zortzi kidek osatu zuten, eta handik aurrera udalkideen kopurua 13ra igo zen. 1859ko udal-hauteskundeen beste berrikuntza bat izan zen Eibarko udalerria bi hauteskunde-barrutitan banatzea[1020], eta hautatu behar ziren zazpi zinegotziak ezin zirenez bi barrutitan banatu, udaletxeko barrutiari egokitu zitzaion lau zinegotzi izendatzea, zozketaz[1021]. Aurrerantzean ez dugu udal-hauteskundeen emaitzen aztarnarik aurkituko akta-liburuan, baina 1859ko urtarrilaren bateko aktak argitzen digunez, udalkideak gobernadore zibilak izendatu zituen[1022]. Bake-epaileak ere agintaldi honetan izendatu ziren, estreinakoz, Ramón Lasarte eta Jose Ramón Gabiola jarri zituztelarik, azken hori, 1846an kontrabandoan harrapatu zutena. Datu bitxi legez, udal-hauteskunde hauek udalerrian nafarreriaren izurritea zabalduta zegoela egin ziren[1023].

1018. Itxura denez, Basterrak «… insultó en una reunion a un Sr. capitan efectivo, retirado en esta con las espresiones de traidor, a cuia consecuencia presentó el ofendido su conpetente querella en este Juzgado previo el Juicio de conciliacion», GAO, JD IT, 992 a, 11, 1858-3-12.

1019. GAO, JD IT, 992 a, 11, 1858-3-17.

1020. «En seguida el Sr. Presidente oido al Ayuntamiento dibide esta poblacion en dos distritos electorales en la forma siguiente. El distrito de la sala consistorial compone de las calles de Unzaga, Ardanza, Ospitalciar, Chirio calle, Nafar calle, Plaza nueba, Elgueta Calle y Barriadas de Aguinaga, Gorosta y Otaola, y el del salon de escuela, de Barrencalle, Rabal, Mucetadi y Arragüeta y Barriadas de Arrate y Mandiola» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-10-17.

1021. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-10-24.

1022. «El Sr. Presidente (udalekoa) despues de haber dado lectura por el infraescrito Secretario a la comunicacion del Sr. Gobernador de la Provincia con que hace el nombramiento de esta corporacion recibio el juramento a D. Pedro Maria Aguirre Alcalde que le reemplaza y se retira a ocupar su sitio dejando a este la Presidencia» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-1-1.

1023. 1858ko urrian Jacinto Urrutia hil zen, nafarreriaz. Izurritea ekiditzeko, bere jantzi guztiak erretzeaz gain, bere emazte eta amaginarrebari 30 egunetan zehar isolatuta egotea agindu zien udalak. Erretakoaren balioa, behintzat, ordaindu zieten (427 erreal). Neurri hauek ez ziren nahikoak izan, urtarrilean udalak zerraldoak erosi behar izan baitzituen, nafarreriaz hildakoak lurperatzeko. Hurrengo astean, 3.000tik 4.400 errealera igo zioten soldata Berraondo zirujauari. Askoz gutxiago kobratu zuten —159 erreal— Magdalena Arisnabarretak eta Felipa Iraolak «… que se ocuparon en la asistencia de enfermos virulentos» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1858-10-31, 1859-1-17, 1859-1-24 eta 1859-6-12.

Hurrengo diagraman 1858-1866 bitartean Eibarko udalkide izandakoak biltzen dira, urte horietan zehar betetako karguen aipamenarekin:

NORTASUNA	<=1858	1858	1859	1860	1861	1862	1863	1864	1865	1866	1866=>	Auzo 1847
PAGOAGA José Antonio	Bai	ER	SPG	SPG								HH
BUSTINDUY Alejo	Bai	ER	ER	ER								
BETOLAZA Santiago	Bai	ER	ER	ER								
PAGUAGA Antonio	Bai	ER	ER	ER								
ACHA José Agustín	Bai	ER	ER	ER								
ARETIO AURTENA José Maria	Bai	ER										
IRAOLAGOITIA Pedro María	Bai	A2	A2	A2								
ARIZAGA Manuel		A1	A3	A3								
IÑARRA IRAEGUI Pedro María			ER	ER	ER	ER						
GARATE Manuel			ER	ER	ER	ER					Bai	
ALBERDI Sebastián	Bai		ER	ER	ER	ER						HH
VERGARA ASUA José Ramón			ER	ER	ER	ER						
ECHEVERRIA IRUSTA Francisco			ER	ER	A3	A3						H/
AGUIRRE Pedro María	Bai		A1	A1								HH
ORBEA MURUA Juan Manuel	Bai				SPG	SPG	A1	A1			Bai	
GUISASOLA Domingo					ER	ER	SPG	SPG				
VIDARTE Inocencio					ER	ER	ER	ER				
PAGAEGUI José María					ER	ER	ER	ER				
BUSTINDUY Pedro					ER	ER	ER	ER				HH
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	Bai				A2	A2	A2	A2			Bai	HH
ARETIO ARAMBURU Cándido	Bai				A1	A1						HH
ACHA Gregorio							ER	ER	SPG	SPG		H/
GABIOLA José Ramón	Bai						ER	ER	ER	ER		HH
GUISASOLA ESCAREGUI							ER	ER	ER	ER	Bai	
VIDARTE Patricio							ER	ER	ER	ER		
LIZUNDIA Antonio							ER	ER	ER	ER		
AGUIRRE AZALDEGUI Manuel							ER	ER	ER	ER		HH
ARANGUREN José							A3	A3	A3	A3	Bai	
IRAEGUI Justo									ER	ER	Bai	
ELEJALDE Damaso									ER	ER	Bai	
BASCARAN Ignacio									ER	ER	Bai	
GUISASOLA GARITACELAYA	Bai								ER	ER	Bai	HH
ORBEA MURUA Mateo									A2			
IBARZABAL IRIONDO Ignacio									A1	A1	Bai	

Diagraman ikusten denez, 1857an izendatutako udaletik bakarra irten —Jose María Aretioren irteera zozketaz erabaki zen— eta beste zazpi kide sartu ziren. Handik aurrera udala 13 kidek osatu zuten, 1861-62 agintaldian bat falta izan arren. Alkate-kargua eskuratzeko, ez zegoen jada bigarren alkate-lanetan aritu beharrik. 1859-60 agintaldian Pedro Maria Agirrek jaso zuen alkatearen makila, eta 1860-61ean Candido Aretiok, biak ere aurretik alkate izandakoak. Beharbada horregatik ez zuten bigarren alkatetzan aritu beharrik izan. 1863-64ko alkatea Juan Manuel Orbea izan zen, eta hau bai, sindiko-lanetan aritu zen aurreko bi urteetan. 1865-66 agintaldiko alkatea Ignacio Ibarzabal Iriondo izan zen, Gabrielen semea. Ibarzabalek udalean inolako esperientziarik eduki ez arren, alkate-kargua eskuratu zuen, zuzenean.

"Auzo 1847" eremuak argitzen duenez, 10 urte horietan aritu ziren 34 udalkidetik 11 zeuden 1847ko hautesleen zerrendan. Ikusten denez, euren kopurua asko jaitsi da 1848-1857 epearekin alderatzen badugu. Baina konturatzen bagara, 1857an nabaritzen da hausturarik handiena, zortzitik bakarra baitzegoen zerrendan; 1859tik aurrera, ordea, udalean sartzen diren kideen erdiak behintzat 1847ko zerrendan zeuden, 1865ekoan ezik. Horrek badauka bere logika. Ignacio Ibarzabalek, adibidez, 12 urte zituen 1847ko zerrenda egin zenean. Adin nagusikoa izan balitz ere, ez zen zerrendan agertuko bere aita 1853an hil zelako, 61 urterekin. Antzeko egoeretan egongo ziren gainerako udalkideak ere, eta zentzu horretan logikoa da zenbat eta urte gehiago igaro, 1847ko hautesleen presentzia murrizten joatea, eta zerrendan agertzen ez ziren beste batzuk azaltzea. Zerrenda hau eguneratu egiten zen udalhauteskundeak egiten ziren bakoitzean, baina horren aztarnarik ez da gorde, eta iturri aberatsa galtzen dugu heriotzak zein errenta-aldaketek hauteslerian eduki zuten eragina aztertzeko.

Marokoren aurkako gerrarako soldaduak

Biurteko Aurrerakoiaren bukaeran, Narvaez eta O'Donnell militarrek hartu zuten estatuaren gidaritza. Orduan hasi ziren trenbideen inguruko negozioak, baita inperialismoaren grinak piztutako kanpaina militarrak ere. Industria-iraultzaren epizentroa izateak ematen zuen nagusitasunaz baliatuta, Ingalaterra eta Frantzia munduko bazter guztiak menderatzeko lasterketan sartuta zeuden, eta beste estatu batzuentzat ere —espainiarra tarteko— kanpo-politika aitzakia aproposa bihurtu zen barne-arazoak estaltzeko. Testuinguru horretan hasi zen Marokoren aurkako gerra, 1859an[1024]. Kanpaina horretarako pila bat gizon mobilizatu zen, eta teorian foru-herrialdeetako biztanleak soldadutza-zerbitzutik libre bazeuden ere, oraingo honetan soldaduak eman beharrean aurkitu ziren, hain izan zen sutsua espainiar sentimenduaren goraipamena[1025]. Edonola ere, herririk gehienek nahiago izan zuten tokatzen zitzaien soldadu kopurua kontratatzea, herritarren ordez bidaltzeko. Eibarko Udalak zerga berezi bat ezarri zien 18-40 urte bitarteko gizonez-

1024. «El clan militar, sustentador del poder necesita acciones bélicas en las que engrandecerse y robustecer su hegemonía. Surge así la desastrosa campaña de Marrucos, en torno a la cual se excita previamente el patrioterismo de la nación. Cuarenta mil hombres son movilizados (…) La campaña, costosísima en hombres, armamentos y dinero, tuvo diversas alternativas y se sellaría, tras la batalla de Was-Ras, el 26 de Abril de 1860 con la Convención de Tetuán, mediante la que se concedieron a España determinadas concesiones territoriales y una indemnización de 20 millones de duros» (Eyara, 1980: 184).

1025. Fermín Lasalak dioenez: «Peligro verdadero corrieron los Fueros sin que nadie los atacara en 1859. Al surgir la guerra de Africa, sin vacilación y desde el primer momento proclamé que si en circunstancia tan grande y decisiva, ante la explosión del sentimiento español, en el mismo día de declararse la guerra, no daba hombres y dinero el país vascongado, se perderían los Fueros» (Lasala, 1924: 350-351).

koei[1026], ordezkoak ordaintzeko. Bi aste geroago estu eta larri zebilen, 60.000 erreal bilduta bazituen ere, beste 10.000 falta zitzaizkiolako[1027]. Epeak gainean zeuden eta ahal zen bezala, baina dirua lortzeko agindua eman zion udalak Ignacio Iriondok eta José Villarrek osaturiko batzordeari. Afrikako gerrarako aurkezturiko batek —Manuel Fernandezek—, 400 errealeko zorra utzi zion Remigio Etxeberriari, eta horrek udalari zorraz kargutzeko eskatu bazion ere, ez zuen bere nahia lortu. Bakea sinatu ostean, soldadu horiek Eibartik igaro ziren berriz[1028], eta beharbada orduan izango zuen Remigiok zegokiona kobratzeko aukera.

Hilabete lehenago armada liberalak karlisten erregegaia atxilotu zuen —Karlos VI.a, Karlos V.aren semea— San Carlos de la Rápitan lehorreratu bezain pronto. Hala ere, karlismoaren aldeko altxamenduak egon ziren zenbait lekutan, eta Eibarren ere zaintza bereziak ezarri zituzten badaezpada[1029]. Montemolingo kondeak —Karlos VI.a— espainiar tronuari uko egiten ziola sinatu behar izan zuen askatasuna berreskuratzeko. Hurrengo urtean hil egin zen, baita bere anaia Fernando ere. Orduan, hirugarren semeak, Juanek aldarrikatu zituen ondorengotza-eskubideak. Baina karlisten zoritxarrerako handik gutxira Juanek liberaltzat aitortu zuen bere burua, eta bere lehengusina —Isabel II.a— erreginatzat onartu zuen. Gertakizun horien aurrean iparra galdu ez zuten karlistak, etsituta gelditu ziren, eta Karlos V.aren alarguna izan zen —Beirako Printsesa— gauzak bere lekuan ezarri zituena, "*legitimidad de ejercicio*"[1030] deitu zuenaren bidez, bere hiloba Karlos —Juanen semea— karlisten erregegai izendatuz.

1861eko agintaldiaren hasieran, udal osoa dimititzekotan egon zen, zenbait gaztek Candido Aretio alkatea iraindu baitzuten; Aretiok atxilotu eta Bergarako epaitegiaren esku utzi zituen arren, egun gutxitara aske zeuden berriz[1031]. Erabaki

1026. Eibarko udalkideek «… decretaron que a cada mozo de edad 20 a 30 años sorteable para los tercios contribuya con cada cuatrocientos reales y los de edad de 18 a 20 y de 30 a 40 aun cada doscientos; y que con su producto se procure buscar voluntarios que hagan prestacion de cubrir el cupo de mozos que corresponde a esta citada villa» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-11-21.

1027. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1859-12-7.

1028. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-5-13.

1029. 1860ko apirilean Pedro María Agirre alkateak zioenez: «… estra-oficialmente ha llegado a su noticia que en algunos puntos del Reyno se han lebantado algunas partidas carlistas (…) y para evitar cualquier golpe de mano que pudiesen dar los enemigos de la tranquilidad publica, apoderandose de las armas que esán en construccion o por cualquier otro medio era de absoluta necesidad establecer una ronda nocturna que vigile la poblacion y sus inmediaciones» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1860-4-5.

1030. «…. para la Princesa no basta el origen: el comportamiento del Rey es trascendental; el nuevo concepto se llamará "legitimidad de ejercicio" y de acuerdo con el mismo el Rey no puede ni debe aceptar, como lo hace D. Juan, la libertad de cultos o la "soberanía nacional". Y puesto que D. Juan se ha excluido a si mismo, —proclama la Princesa en su famosa carta dirigida a los españoles en 1864— el Rey legítimo será Carlos, su hijo mayor» (Eyara, 1980: 208).

1031. Candido Aretio alkateak «… manifesto que aconsecuencia de haber sido ultrajada y amenazada su autoridad la noche del diez del corriente en momentos en que estaba ejerciendo sus

horrek alkatearen agintearen gutxiestea suposatzen zuenez, epaitegiak ez bazuen bere jokabidea argitzen, gobernadore zibilarengana jotzeko akordioa hartu zuen udalak, eta horrek ez bazien jaramonik egiten "*dimision colectiva*" aurkezteaz mehatxatu. Bitxia bada ere, akta-liburuan behin ere ez da azaltzen zeintzuk izan ziren gazte taldeak Aretiori eginiko irainak. Kasualitate hutsa izan badaiteke ere, Aretioren aurreko agintaldian (1852-1853) Esteban Atxa —"*Alcayde Alguacil*"— itota agertu zen Ibargaineko putzuan[1032].

Gremioez aparte, langileen elkarte bati buruzko lehen aipamena 1861ekoa dugu. Urte horretan, ogiaren garestitzea zela-eta, herriko artisau eta elkarren arteko laguntzarako elkarteak —"*Sociedad de socorros mutuos y artesanos*"— irina beraien kabuz ekartzeko baimena eskatu zuen, «… para de este modo evitar el agiotage»[1033]. Eskakizun horrek artisauen elkarte baten existentziaz ohartzen gaituen neurrian, gremioez aparte edo eurekin lehian, burutzen ari zen beste erakundetze-prozesuaren berri ematen digu. Ez dakigu noiztik zegoen martxan, baina irina bere kabuz ekartzeko erakutsitako gaitasunak adierazten digu nolabaiteko antolakuntza bazutela. Udalak elkartearen eskakizuna aho batez onartu izanak ere, agintarien aurrean zeukaten zilegitasunaren berri ematen du. Beti bezala, aurkinkuntza batek galdera berriak pizten ditu: zeintzuek osatu zuten elkartea? Zeintzuk ziren haren eginkizun nagusiak? Zein paper bete zuen langile-kontzientzia sustatzean? Marx eta Engelsen "*Manifestu komunista*" soilik 13 urte lehenago argitaratu zela kontuan hartuta, arraroa litzateke doktrina internazionalistaren apostolurik aurkitzea, baina edonola ere, elkarren arteko laguntzarako erakunde horren sorkuntzak urrats garrantzitsua suposatu zuen langileen bizi-baldintzak hobetzeko prozesuan. Beste jite batekoak izango ziren 1865eko San Joanetan "*bailes campestres*" antolatu nahi zituzten "*Sociedad Recreativa*" izenekoko kideak[1034].

Madozen desamortizazioa Eibarren

Biurteko Aurrerakoian prozesu desamortizatzaileak indar berriak hartu zituen[1035]. Gipuzkoako herrialdeak lege horren aplikazioa atzeratzea lortu zuen,

funciones, se vio precisada a formar la competente sumaria la remitió al Juzgado de partido con los presuntos reos, los cuales sin noticia de ulterior determinacion del Tribunal, parece regresaron el dia de ayer a sus casas libremente, y como siendo cierto este proceder del Juzgado rebaja sobre manera la seguridad de la autoridad local, ha manifestado esta que a fin de que quede aquella ilesa, se adopte alguna disposicion» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1861-2-15.

1032. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1852-3-25.

1033. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1861-10-6.

1034. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1865-5-21.

1035. «De nuevo Espartero en el poder, ahora si cabe con más saña y empuje, forma un plan de desamortización general eclesiástica y civil. Respecto de la primera, ordena a todos los ayuntamientos confeccionen un sumarísimo informe, según el catastro, de todos los bienes de la Iglesia que radiquen en su jurisdicción, mientras que en las Cortes se aprueba la nueva ley de desamortización de 1º de mayo de 1855. Esta ley y la Instrucción del 11 del mismo mes viene a ser el último intento y el más radical para acabar con todos lo bienes amortizados por los ayuntamientos y la Iglesia» (Mutiloa, 1982: 477).

eta moderatuen itzulerarekin Madozen legearen ondorioak behin betirako sahiestea lortu zutela bazirudien ere, Bravo Murillo eta Garely Ogasun ministroen joera desamortizaziozaleak prozesu hau suspertu zuen 1858an, eta 1862tik aurrera hasi ziren lehen salmentak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek erasoa geldiarazteko fronte komuna eraikitzeko ahaleginak egin bazituzten ere, azkenean ez zuten jokabide bateratu bat zehazteko gaitasunik erakutsi eta ogasun-ministeritza euren arteko batasun ezaz baliatu zen desamortizazio-prozesua hedatzeko. Motel samar hasi zen, baina apurka-apurka salmenta kopuruak gora egin zuen, eta 1866-1867 urteetan gorenera heldu ostean, 1871ra arte luzatu zen.

Madozen desamortizazioa "*desamortización civil*" deitzen badute ere, Gipuzkoan behintzat erakunde zibilak baino gehiago erlijiosoak ukitu zituen, ziur asko udal-lur eta udal-ondasunik gehienak —guztiak ez esateagatik— aspalditik salduta zeudelako. Beraz, Mendizabalen garaitik zerbait gordetzea lortu zuten eliz eta komentuak izan ziren desamortizazioaren pairatzaile nagusiak. Eibarren ere horrela gertatu zen, eta gehienbat erakunde erlijiosoen ondasunak saldu ziren: elizaz gain, frantziskotar eta agustindarren komentuenak.

Erakundeak	Ordaindutakoa (er.)	%
Komentuak	198.000	67,8
Estatua	42.580	14,4
Benefizentzia Etxea	27.000	9,1
Eliza	25.940	8,8
GUZTIRA	294.320	100

Eibartar batzuek herritik kanpo saldutako lurrak erosi zituzten: Martín Gisasolak, esaterako, Elgetako elizaren lurrak erosi zituen; Ciriaco Villarrek, Azpeitiko Sta. Klara komentuaren ondasunak. Baina dudarik gabe, José Villar izan zen bai herrian bai herritik kanpo desamortizatutako lurren erosle nagusia; Villarrek —pattarraren erematatzaile zuhurra, gogora dezagun— 108.300 erreal gastatu zituen Elgeta, Deba eta Arruazabalgo elizaren, eta Hernani, Mendaro eta Oñatiko komentuen lurretan. Villar gainera, Donostiako enkantera joaten zen, gainerakoek euren proposamenak Bergaran egiten zituztelarik. Horrela, 1868ko ekainaren 8an kopuru txiki-txikiengatik hobetu zituen Jose Joaquín Lekunberrik Bergaran egindako proposamenak. Eibarrera telegrafoa 1883ra arte ez zen ailegatu, baina ordurako Bergarakoa martxan ote zegoen? Benetan bitxia.

Erosleen atxikimendu politikoa aztertzen badugu, ziurtasunez 10 erosletik 5ena baino ez dugu ezagutzen, horietatik lauk II. Karlistaldian liberalen alde joko zuten eta bakarrak karlisten alde. Kopuruetan liberalek desamortizatutako ondasunen % 34,5 erosi zuten, eta karlistak % 10,4. Azken horrek agustindarren

komentuaren ondasun guztiak erosi zituen, eta ez genuke baztertu behar komentua bera izatea dirua jarri zuena, eta Larrañaga bitartekari hutsa izatea. Izan ere, ez litzateke kleroak bere ondasunak babesteko trikimailu hau erabiliko zukeen lehen kasua izango. Hauexek ditugu erosle eibartarrak banan-banan, erosketei buruzko beste zenbait zehaztapenekin[1036].

Eibartarren inbertsioa 1865eko desamortizazioan

NORTASUNA	Erakundeak	Des-1865	Des%-1865	K-L
LECUMBERRI José	Benefizentzi Etxea (Eibar)	1.500	0.3	
ORBEA MURUA Mateo	Frantziskotarren komentua (Eibar)	3.900	0.8	
ORBEA MURUA Juan Manuel	Frantziskotarren komentua (Eibar)	11.000	2.2	L
GUISASOLA LAGARRE Martín	Eliza (Elgeta)	16.500	3.3	
IBARZABAL IRIONDO Ignacio	Estatua (Eibar)	42.580	8.7	L*
AGUIRRE GUISASOLA Vicente	Eliza (Eibar) / Agustinoen komentua (Eibar)	49.440	10.3	L
LARRAÑAGA Marcos	Agustinoen komentua (Eibar)	50.900	10.4	K
VIDARTE Inocencio	Frantziskotarren komentua (Eibar)	51.500	10.5	
VILLAR Ciriaco	Santa Klara komentua (Azpeitia)	70.000	14.3	L
VILLAR José	Eliza / Komentuak/ Benefizentzi Etxea	191.800	39.2	
GUZTIRA		489.120	100	

KONKLUSIOAK

Bergarako Besarkadaren bidez, gudaroste karlistek ordurako alde eginda zegoen Don Karlosi uko egin eta Isabel II.a onartu zuten erreginatzat. Horren truke, euskal karlistek foruak mantentzea lortu zuten, «… sin perjucio de la unidad constitucional de la Monarquía». 1839-X-25eko legearen anbiguotasunak konstituzioaren eta foruen arteko lehia etengabea ekarri zuen, hurrengo 30 urteetan zehar; hau guztia, liberal moderatuek eta aurrerakoiek bakoitzak bere konstituzioa indarrean jartzeko borrokatzen zuten bitartean. Eibarko Udalean, ordea, ez da nabaritzen liskar hauen aztarnarik, edo ez behintzat hasiera batean uste izango genuen neurrian.

Foru-udalaren berrezarkuntza inolako protestarik gabe gauzatu zen, eta Donostiaren protestaren ondorioz, udal-karguak konstituzioaren arabera izendatzeko aukera izan zutenean ere, nahiago izan zuten Lege Zaharreko sistemarekin jarraitu. Harrigarriena da ez zela egin protestarik edo eskakizun txikienik udal-hauteskundeak konstituzioak agintzen zuen erara egiteko. Eibarko liberal guztiak foruzaleak izango ote ziren bada? Milizia liberalean parte hartu zuten 479 lagunen artean, ez ote zegoen inor udaletik baztertuta sentitzen zenik foru-erregimenan? Zertarako borrokatu zuten orduan, zer lortzeko? Benetan bitxia iruditzen zait kontzientzia politikoaren adierazgarririk ez aurkitzea hain oldarkorrak izandako miliziano ohiengan.

Esparteroren Hirurteko Aurrerakoiak aldaketa garrantzitsuak eragin zituen Eibarko Udalean. Prozedura aldetik, udalkideak izendatzeko modua aldatu egin zen,

1036. Erosketei buruzko datuak: Iparragirre, 1999: 52.

baina ez dakigu zehatz-mehatz hauteskundeak nola egin ziren, zenbat biztanlek parte hartu ahal izan zuten eta zenbatek parte hartu zuten. Sistema liberalarekin udalkide kopurua eta karguaren iraupena ere aldatu egin ziren. Udaleko partaideei dagokienez, berriztatze argia burutu zen, esperientziarik gabeko udalkideen presentzia nabarmenak adierazten duen moduan. Ziur asko, auzokideak ez izateagatik udalgobernutik baztertuta zeuden biztanleak genituen. Baina agintaldi hau bukatuta, bolada aurrerakoiaren protagonista gehienen aztarnak galdu egiten dira. Biurteko Aurrerakoiarekin zubi-papera egin zuten bakarrak Pedro Luis Aranguren eta Feliz Gisasola izan ziren, baina biak ere 1852tik zeuden izendatuta. Ikusi denez, gainera, 1854-1856 biurtekoan ez zen inolako aldaketarik burutu udal-hauteskundeak egiteko eran. Beraz, liberalismo aurrerakoia loratu bezain pronto igartu zela dakusagu, instituzioen arloan behintzat. Eugenio Arostegi alkatearen aztarnak ere 1842. urtean bukatzen dira. Beste kontu bat da herri mailan eduki zezaketen eragina, agiri ofizialen bidez atzeman ezin duguna, zeren agirion eginkizuna, sarri, agintearen aurkako ekimenak isiltzea edota diskurtso ofizialaren arabera moldatzea izaten baita.

1843. urtearen bukaeran bi herri-protesta burutu ziren: bata, auzokideak ez ziren biztanleen erlijio-eskubideen defentsan, eta bestea, zeharkako zergen gehiegikeriaren aurka. Herritar xumeen protestak dirudite, eta ez da ideologia zehatz baten eraginik sumatzen. Kontsumo-gaien aurkako protesta liberal aurrerakoien aldarrikapen nagusietariko bat ohi zen, baina Eibarren kasuan, protestaren sinatzaileen artean karlistekin ibilitako pare bat eta zenbait handiki agertzean, zaila egiten da bere jatorri ideologikoa zehaztea. Auzokideak ez ziren biztanleen erlijio-eskubideak babesteko egindako protestan ere herritar xumeek parte hartu zuten, baina sinatzaile bakarra Miguel José Etxeberria dugu. Etxeberriatarrak liberal sutsuak izan zirela jakinda, ekimen hau udalkideen konstituziozaletasuna neurtzeko era bat izan zitekeen, hain zuzen ere, Espartero bota ostean aurrerakoiak eta moderatuak Madrileko gobernua eskuratzeko lehian zebiltzala. Udalaren aldetik, berba politak bai, baina arazoek konpondu gabe jarraitu zuten 1860ko hamarkadara arte.

Moderatuen itzulerak foru-erregimenaren berrezarkuntza ekarri zuen, baina murriztuta: aduanen lekualdaketa, Foru Baimenaren ezabatzea, alkatearen eskuduntza judizialen galtzea, karabinero eta goardia zibilen etorrera… Udalean, 1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" indarrean jartzea pare bat urtetan atzeratzea lortu bazen ere, 1848tik aurrera udal-hauteskundeak konstituzioaren arabera egin ziren. Sistema berria sustatzen zuen sufragio murriztuak 102 biztanleri onartu zion bozkatzeko eskubidea, eta horietatik 59ri udalkide izatekoa. Kopuruetan, gutxi gorabehera foru-erregimenaren besteko biztanle kopuruak zeukan boto-eskubidea, baina kaparetasuna eta jabetzaren baldintza desagertu egiten ziren, errenta bihurtuz eskubide politikoen iturri nagusia. Horrez gain, auzokideen batzar orokorra —hau da, udal irekia— desagertu egin zen, eta herri-ordezkaririk ezean herritar xumeek udalerako ordezkariak izendatzeko gaitasuna galdu zuten. Karguen iraupena urte batetik

laura luzatu zenez, udalkide kopurua ugaritu arren, haien berriztatzea murriztu egin zen. Alkatea izendatzeko gaitasuna galtzea ere, legedi liberalaren ondorioa izan zen, herrialdeko Batzar Nagusien osaketa sustraitik kutsatzen zuena.

Ezegonkortasun politikoko garai honetan, jarrera foruzalearen defendatzaile nagusia 1846ko alkatea izan zen, Pedro María Agirre. Baina bere jokabidean kontraesana nabarmentzen da, idazkaria izendatzeko ez zuelako auzokideen batzarrera deitu, ohiturak horrela eskatzen bazuen ere. Aitzitik, bilera berean herri-ordezkariei botoa ukatu zien, Lege Zaharraren alderik zurrunenean oinarrituz. Pare bat urte lehenago herri-ordezkariek Garamendi idazkaria izendatua gertatu zen bozketan parte hartu zuten, inolako arazorik gabe. Foruzaletasun moderno hau liberalismo moderatuarekin bat zetorren arlo ideologikoan, bata zein bestea agintekarguak talde selekto baten esku mantentzearen alde baitzeuden.

Politikaz aparte, gerraosteko lehen hamarkada gehien baldintzatu zuen faktorea, gerra-zorrari nola aurre egin erabakitzea izan zen. Bergarako epaitegiaren sorkuntzak babesik gabe utzi zuen udala, hartzekodunen salaketen aurrean. Bere ondasunak eta errentak bahitzen zituztela ikusirik, udalak lurrak bahian zituztenei bigarren seirena kobratzea erabaki zuen, baina horiek diputaziora jo zuten, eta udalak bigarren bahiketa pairatu behar izan zuen. 1845eko akordioak konponketarako oinarriak jarri bazituen ere, hartzekodun batzuek ez zutenez onartu, arazoa urteetan zehar luzatu zen. Kontua da hartzekodun horiek gerra-zorra eta gainerako zorrak bereiztea eskatzen zutela, ordainketa moduak ere bereizteko. Baina udalak zor guztiei tratamendu berdina eman nahi zien, eta azkenean Tapiak eta Ibarzabalek bezala, akordioa onartu ez zutenek onartu zutenek baino lur gehiago lortu zituzten. Hartzekodun nagusien nortasunak argitu baditugu ere, lurrak bahian zituzten biztanleen zerrendarik ez dugu aurkitu —sei urtetan zehar urtero 60.000 erreal ordaintzeko hitza eman zutenak—. Horietarik gehienak nekazaritza-eremuan bizi ziren, eta ez zuten onartu bigarren seirena ordaintzerik. Hirigunekoek, ordea, bahian zeuden herri-lurren egoera argitu nahi zuten, lurroi ahal zenik eta etekin ekonomiko handiena atera nahian.

Hirigunekoentzat ez ziren garairik hoberenak. Gerraosteko krisialdi ziklikoek ez zuten inbertsio eta berrikuntzetarako aukerarik ematen. Gobernuaren eskariak gero eta urriagoak zirenez, armagin eibartarrek merkatu pribatuan jarri zituzten begiak, eta itxura denez, nahiko emaitza onarekin gainera. Garateren asmakuntzak armagintzaren mundua irauli eta suspertu zuen. Gremioen sistema gainbehera larrian zegoen ordurako, eta tailerrik gehienak euren produktua ateratzen saiatzen ziren. Aduanak Ebrotik kostaldera eta mugara igaro izanak armen sarrera erraztu zuen, jada ez zituztelako zamatzen Ebro zeharkatzerakoan. Baina beste era bateko arazoak sortu ziren, batez ere, Mirandako karabineroekin. Gainera apurka-apurka Debarroko armagintza atzeratuta gelditzen hasi zen. Amore eman beharrean, Eibarko armaginek —udalaren laguntzarekin— Belgikara lehenengo eta Trubiara

gero bidali zituzten zenbait ordezkari berrikuntza teknologiko nagusiez jabetzeko. Isabel II.aren erregealdiaren bukaeran arma-frogatoki berria eraiki zen, behin eta berriz konpondu beharrean aurkitzen ziren "Estebanekua" utzita.

1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" 1848an jarri zen indarrean Gipuzkoan. Haren ondorioz egin zen hautesle eta hautagaien zerrenda iturri bikaina bihurtu zaigu sasoi hartan Eibarko elite politikoa identifikatzeko orduan. Zoritxarrez, zerrenda horren eguneratzeak ez daude bilduta akta-liburuan, eta aldaketak ezagutzeko aukera galtzen dugun neurrian, bere baliagarritasuna jaitsi egiten da urteek aurrera egin ahala. Biurteko Aurrerakoian ez da inolako mugimendu berezirik nabaritzen, eta bai ostera, 1857an. Urte horretan izendatutako udalkiderik gehienak ez zeuden hautagaien zerrendan, eta ez ziren jabeak. Beraz, ez zeukaten hautagaiak izateko eskubiderik ez Lege Zaharrararen ezta lege berriaren arabera. Fenomeno bitxi hau benetan ulergaitza iruditzen zaigu.

Urte garrantzitsu hauetan zehar liberalismoaren adar ezberdinetako kideen nortasunak argitzerik ez dugu lortu. Kutsu aurrerakoiko protesta bakarrak 1843. urtekoak dira, eta ez dute jarraipen argirik; 1854-1856 biurtekoan ez zen aldaketarik eman udal-hauteskundeetan… Badirudi I. Karlistaldira arte bereizten joandako taldeen arteko mugak ezabatu egin zirela gerra tartean; edo beharbada iraultzaren oldarra zen makalduta zegoena.

9. kapitulua.
Iraultza Loriatsua eta II. Karlistaldia (1868-1876)

ISABEL II.AREN ERREGIMENAREN GAINBEHERA

Gaztelaniaz, "*La Gloriosa*" edota "*La Septembrina*" izenekin ezagutzen den iraultza demokrata astinaldi zakar bat izan zen liberalismo epelaren babespean murgilduta bizi zen klase zuzendarientzat. Administrazioaren ustelkeriak eta boterea monopolizatzen zuen klase sortu berriaren nagusigoak klase burges edota burges txikien bilakaera naturala galarazi zuten. Estatuko erroldan inskribatuta zeuden 15 milioi pertsonetatik, soilik 150.000k zuten bozkatzeko eskubidea; 1864an hautesleen kopurua zabaldu bazen ere (hautesle izateko eskatzen zen gutxieneko errenta jaitsi egin zen) 400.000 hiritarri baino ez zitzaien boto-eskubidea onartu. 1843ko aldarrikapen liberal eta konstituzionalistak ahaztuz, burgesia sortu berriak betiko oligarkiarekin bat egin zuen. 1851n aita santuarekin sinatutako konkordatua liberalismo epelaren tesiak indartzera zetorren, baina 1854-56 saio aurrerakoiaren ostean Isabel II.ak ordezkatzen zuen erregimen politikoaren sostengu bakarrak Donnell eta Narvaez militarrak izan ziren.

Foru-lurraldeetan karlismoa zeharo ahulduta agertu zen gerra tartean, I. Karlistaldiaren ostean bertoko burgesiaren eta nekazari-oligarkiaren artean bideratu zen hurbilketa foruzalearen ondorioz[1037]. 1844tik aurrera, parentesi antzeko bat zabaldu zen: aurreko mende erdian zehar bizi izandako lau gatazken ondoren, garai baketsu eta emankor bati hasiera eman zitzaion. Epe horretan, ordura arte elkarren aurka aritutako blokeek foru-erregimenaren defentsaren inguruan sendotu zuten beren arteko aliantza. Eta foru-herrialdeek abagune berri hori baliatu zuten, alde batetik, ekonomia berrantolatzeko, bideak berriztatzeko, trenbide-sareari hasiera emateko, eta ahal zuten neurrian, aduanen kokapenaren aldaketa profitatuz

1037. «Con anterioridad al triunfo de "La Gloriosa", Guipúzcoa se caracteriza por la ausencia de una conflictividad intensa. Las diversas fracciones que componen el grupo dirigente provincial establecen una estrecha colaboración una vez superadas las divergencias que habían opuesto a la burguesía rural y a la comercial y que habían cristalizado en el enfrentamiento mantenido entre la Provincia y San Sebastián. Aunque por los años centrales del siglo XIX todavía permanecen residuos de la antigua hostilidad, por encima de ésta lo que se palpa es un funcionamiento cohesionado ante el poder central, subordinándose las posibles diferencias que pudieran existir en función de la defensa del sistema vigente en Guipúzcoa (…) A lo largo de estos años se difunde, pues, una política interclasista que logra atenuar las tensiones internas y sirve para presentar un frente unido ante las posibles pretensiones de eliminar lo que quedaba del régimen foral» (Castells, 1985: 1271).

industrializazio-prozesua indartu eta bizkortzeko. Politikoki, administrazio liberalak erakunde berriak sortzen zituen neurrian, foru-diputazioak haien konpetentziak eskuratzen saiatu ziren, foru-erregimena indartzeko. Lehia horretan, batasunak ematen zien indarraren jakitun, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak *Irurak bat* deituriko batzarrak indartu zituzten[1038], Madrilen aurrean estrategiak koordinatzeko. 1839-X-25eko legearen bigarren artikulua oraindik gauzatu gabe zegoen, eta espainiar gobernuek behin eta berriz deitu zituzten hiru herrialdeok, behin betiko akordio bat zehazteko helburuarekin. Nafarroari dagokionez, *Irurak bat* deituriko biltzar hauetatik kanpo gelditu zen, 1841-8-16ko legearen bidez, beste norabide bat hartu zuelako.

Gerraostean sukar foruzale bat zabaldu zen euskal lurraldeetan, Jose Mari Iparragirre kantari urretxuarrak ondo baino hobeto islatzen eta bultzatzen jakin zuena. Euskaltzaletasunaren aitzindari horrek, herrialde bakoitzeko mugaz haraindi, foru-lurraldeek herri bakar bat osatzen zutela ohartu eta komunikatzen jakin zuen. Kontuan hartzekoa da Iztuetaren garaikideentzat (1766-1845) "Gora Probintzia" oihukatzea gaur egungo "Gora Euskadi" deiadarraren parekoa zela, eta Iztuetak berak, euskara goratu bai, baina Euskal Herriaren kontzeptu orokorra falta zitzaiola. Iztuetak anaiatzat zituen Gipuzkoaz gainerako euskaldunak, baina erakunde politiko desberdinekotzat (San Martin, 1987: 144). *Gernikako Arbola* abestia asmatu zuena gipuzkoarra genuen, eta herrialde hartan Batzar Nagusien izaera ibiltariaren ordez, bizkaitarrek Gernikako arbola nola gurtzen zuten ikusita konturatu zen Gernikako arbolaren esanahiaz. Gipuzkoarra izanik ere, Gernikako arbolari abestu zion, bere herrialdean foruzaletasuna hain garden islatzen zuen sinbolorik ez zuelako aurkitu, eta ordura arte Bizkaiko askatasunen ikur izandakoa, euskal lurralde guztiena bihurtu zen. Are gehiago munduko herri guztiena, garaiko ikuspegi erromantikoarekin bat datorren zatiak gogoratzen digun bezalaxe: «*eman da zabaltzazu munduban frutuba…*»[1039].

Gerra-bitarteari buruzko balorazioak egiterakoan, garaia ikertu duten autoreak ez datoz bat. Fernandez Albadalejoren ustez, arlo administratiboan lorturiko eskuduntza berriei esker, diputazioek zilegitasuna irabazi zuten esparru

1038. *Irurak bat* konferentzien inguruan, ikusi Agirreazkuenaga, 2002: 229-258.

1039. Fermín Lasalak dioenez, alderdi jeltzaleak, hasiera batean Gernikako Arbola bere ereserkiatzat hartu bazuen ere, beranduago uko egin zion, eta "Agur jaunak" onartu zuen bere ordez. Lasalaren esanetan: «Resulta ahora que a los ojos de esa misma fracción o facción que poco ha obligaba a aclamarlo, ha llegado a ser insufici (…) por no ser meramente euskaros estos versos del saludo al Arbol Santo: *Eman ta zabalzazu / Munduban frutuba*. Son un atentado contra el euskerismo. Desear que, siendo exquisito, se esparza por el mundo el fruto del árbol, no monopolizarlo la Euskeria impidiendo su difusión, podrá ser deseo de corazón cristiano, más no de corazón euskaro (…) Por consiguiente (…) el delegado del bando bizkaitarra, D. Angel Zabala y Ozamis, sucesor de Sabino Arana, que creó el grupo, ha decretado que el Himno Nacional Euskaro será uno que compuso Arana en la cárcel y que D. Cleto Zabala ha puesto en música calcada sobre compases del *Ezpata-Dantza*» (Lasala, 1924: 341-342).

herrikoien aurrean (Fernandez Albadalejo, 1980: 54-56). Portillo ikuspegi horrekin bat dator, eta gaineratzen duenez, 1848tik aurrera foru-erregimena espainiar gorteetan egindako ahaleginen ondorioz baino gehiago erreginaren gortean egindakoei esker sendotu zen[1040]. Ezkorragoa dugu Solozabal; izan ere 1839-10-25eko legeak ezarritako orekaren hauskortasuna azpimarratuz, 1844-1872 bitartean foru-erregimenak jasandako zenbait eraso aipatzen baititu[1041]. Artiñano ere iritzi berekoa zen, eta, 1839ko Konbenioaren ondorioz, botere zentralaren eta foru-herrialdeen artean sorturiko lehiaren orekarik eza nabarmentzen zuen, azken horiek, urratsez urrats, sistematikoki, beren erregimena nola deuseztatzen zuten ikusi behar izan zutelarik. Nire ustez, bi ikuspegiok ez dira hain kontrajarriak: gobernu liberalek foru-erakundeen botere politikoa mugatu zuten neurrian (foru-baimenaren deuseztatzea da horren adibiderik garbiena), eskuduntza administratibo berriak onartu zizkioten sortu berria zen oligarkiari, bere partaideek herrialde mailako boterea mantentzeko tresnak zorroztu zitzaten. Edo beste era batera esanda, komunitatearen eskubideak saldu zituzten, beraien klase-boterea sendotzeko.

Gerra-tarte honetan, espainiar liberalismoak jasan zituen tirabira politikoak ez ziren hain bortizki azaldu foru-lurraldeetan. I. Karlistaldian zehar elkarren aurka egin zuten jauntxoek eta merkatari-burgesiak elkarrekin kolaboratzera bideratu zituzten euren indarrak, Batzar Orokorrak eta Foru Aldundia izan zirelarik hitzarmen horren lekuko eta bultzatzaileak. Batzarrak liberalismo epela ordezkatzen zutenen esku egon ziren epe horretan (baterakoi —"*unionista*"— eta aurrerakoien tarte txikiekin), eta estatu espainiarrean liberal moderatuen eta aurrerakoien arteko borroka politikoak eragindako tentsio sozialak ez zuen Euskal Herrian lekurik aurkitu, salbuespen txiki batzuk izan ezik. Luis Castellsek mantendu duenaren arabera, «Loriatsuaren garaipenaren aurretik, gatazkortasun ezagatik bereiztuko da Gipuzkoa. Herrialdeko buruzagitza osatzen zuten talde ezberdinek, kolaborazio estu bati ekingo diote nekazal eta merkatal burgesien arteko urrunketa gainditzen den momentutik (…). Botere zentralaren aurrean funtzionamendu bateratu bat nabaritzen da, elkarren artean egon litezkeen desberdintasunak, Gipuzkoan oraindik bizirik zegoen sistemaren defentsara manupetuz» (Castells, 1985: 1271).

1040. «… en vez de la supresion de la jurisdicción contencioso-administrativa, lo que se verifica es un control de ésta por parte de los poderes forales. Ahora (…) podían recuperar el control de unos municipios (…) y establecer el "ayuntamiento foral", lo cual se consiguió plenamente en 1853, con Egaña como ministro de la Gobernación» (Portillo, 1987: 176).

1041. «Desde 1844 hasta la Segunda Guerra Carlista (…) diversos incidentes mostrarían la precariedad del equilibrio establecido entre la concepción centralista de los gobiernos (…) y el particularismo de la organización foral: la generalización de la organización municipal (1845 y 1847); la aplicación de las leyes desamortizadoras; la desestimación de las pretensiones sobre atribuciones judiciales para los alcaldes vascongados; las consecuencias desvasquizadoras de la Ley Moyano de Educación (cercenando las atribuciones de las corporaciones en el nombramiento de maestros…» (Solozabal, 1979: 289).

Izan ere, foru-lurraldeak oasi antzeko bat bihurtu ziren 1856tik aurrera Isabel II.aren erregimenaren aurkako protestak areagotu zirenean. Iraultza Loriatsuaren eztandak erregina Lekeition harrapatu izana ez da anekdota hutsa.

ALTXAMENDUAREN AURREKARI HURBILAK

Vatikanotik Ostendera

Boteretik baztertuta zeuden alderdiek Ostendeko hitzarmena sinatu zuten 1866an. Inspiratzaile nagusia Prim jenerala izan zen. Prim erbesteratuta zegoen, urte batzuk lehenago espainiar gobernuak Mexikora bidalitako espedizioaren buru zela, soldaduak itsasontzi ingelesetan sartu eta Kubarantz bidali ostean. Maximiliano enperadorea usurpatzaile bat zen mexikarrentzat, eta indar espainiarrekin hura sostengatzeari uko egin zion. Aurrerantzean, Prim jenerala liberal aurrerakoien buruzagirik ospetsuena bihurtu zen, eta erregimen isabeldarraren kontra eginiko saio guztietan parte hartu zuen. Horietatik entzutetsuena San Gileko kuarteleko sarjentuen matxinada izan zen, 1866an.

Kuartelaren aurkako erasoa O' Donnellek gidatu zuen, eta 200 artillari hil ziren defentsan; errenditu zirenen aurkako errepresioaren ardura Narvaezek hartu zuen, bere aginduz fusilatu baitzituzten antolatzailetzat hartu zituzten 66 kabo eta sarjentuak. Prim Hendaian zegoen, penintsulan sartzeko zain; baina altxamenduaren porrota ikusirik bertan gelditu zen. Hori bai, ordutik aurrera Isabel II.aren erregimena deusezteko iraultzaren bidea besterik ez zela gelditzen ondorioztatu zuen, eta horretan jarri zituen indar guztiak. Bere kemenaren emaitza izan zen Ostendeko hitzarmena, liberal aurrerakoi, baterakoi, demokrata eta errepublikanoen artean egindakoa, helburu bakarraren inguruan: Isabel botatzeko iraultza bat egin behar zen, eta haren ostean sufragio orokorrez —gizonena— hautatutako legebiltzarrak egindako konstituzioa onartuko zen. O' Donnellen eta Narvaezen heriotzek, 1867an eta 1868an hurrenez hurren, Ostendeko konspiratzaileen planak aurreratu zituzten.

Prim, demokrata izan arren, monarkiaren alde zegoen eta Isabelen ordezko bila, karlistekin ere bildu zen, eta itxura denez espainiar koroa eskaini zion Karlos VII.ari, erregimen liberala onartzen bazuen. Baina itxura denez karlistek beste plan batzuk zituzten. 1851ko konkordatutik aurrera espainiar estatuaren eta Vatikanoaren arteko harremana hobetu bazen ere, italiar estatuaren batasun-prozesuak eta Isabel II.aren gobernuak Victor Manuelen Erresuma errekonozitu izanak —1865— Nocedalek eta beste batzuek alderdi moderatutik alde egitea eragin zuten. Jesuitek, euren aldetik, aita santuaren aldeko kanpaina bat hasi zuten[1042]. Claret aita ere,

1042. «Ya en julio de 1865 el gobernador de Guipúzcoa había dirigido al rector de Loyola una comunicación acusando a los jesuítas de instigar a los pueblos a que elevaran representaciones al gobierno contra el reconocimiento del reino de Italia» (Rodríguez de Coro, 1988: 44).

ordura arte bere konfesorea izandakoa, erreginarengandik urrundu zen. Narvaez, irakaskuntzaren arloan beste abantaila batzuk eskainiz, eliz hierarkia lasaitzen saiatu bazen ere, ordutik aurrera estatuaren eta elizaren arteko harremanak asko hoztu ziren. Karlistak horren jakitun ziren, eta nolabait, iraultza liberala euren mesederako izango zela somatzen zuten, Isabel II.aren faltan, bere magalean hazitako sektore kontserbatzaileak erakartzea errazagoa izango baitzen. Aurreko urtean, Madrileko Senatuan aurrekontuen eztabaidan, hiru herrialdeetako senadoreek Foruen aipamena egitea eskatu zuten, beste senadore batzuen haserrea eta eztabaida piztuz. Estatuan foruen aurkako jarrerak indartzen ziren bitartean, foru-herrialdeetan inoiz baino biziago zegoen lurrarekiko sentimendua. Alde horretatik ere, karlismoak bazuen bezeroak non irabazi.

Eibartarrak, iraultzaren zain?

Eibarren, biztanleriaren iritzia pare bat gairen inguruan polarizatu zen iraultzaren aurreko urteetan: bata, 1867ko Batzar Orokorretarako ordezkariaren hautaketa; bestea, Melitón Martinez de la Perak zarratu nahi zuen garbitokia. Hasiera batean elkarren artean zerikusirik ez daukaten kontuak izan arren, batak zein besteak azken hamarkadan nagusitutako dinamika aspergarria hausten dute, itxurazko lasaitasunaren azpian zerbait mugitzen ari zela islatu nahi izango balute bezala.

1867ko otsailean eibartar talde batek garbitokia zarratzearen aurkako protesta bat hasi zuen. Melitón Martinez de la Pera, farmazialaria eta Osasun Batzordeko partaidea zen garbitoki hori zarratu nahi zuena[1043], baina itxura denez, ez osasunarrazoiengatik. Udalak ez zuen erabakirik hartu, eta kexua bortitzago azaldu zen urrian, 64 biztanlek izenpeturiko protesta berriak Martinez de la Peraren aurkako kutsua hartu zuelarik[1044]. Loriatsuaren atarian, arazo hau larritu egin zen, udalak garbitokia zarratzeko agindua jaso baitzuen erreginarengandik; baina ordurako 279 auzokide ziren garbitokia ixtearen aurka sinatu zutenak, eta Trifón Baskaranek gidatzen zuen udalari Errege Agindu horren aurka judizialki egitea beste irtenbiderik ez zitzaion gelditu. Garbitokian, aspaldiko partez, herritar xumeek garaipen bat lortu zuten: 1867an ez entzunarena egin zuten udaleko partaide berberak izan ziren hurrengo urtean Errege Agindu bat errekurritu beharrean aurkitu zirenak, herri-protesta honen ondorioz.

Bigarren tentsiogunea 1867ko Batzar Orokorretarako ordezkarien izendatzearen inguruan sortu zen. Itxura denez, ez zen adostasunik lortu batzarretara joan

1043. «… memorial de varios vecinos de esta villa en súplica de que se conserve el lavadero que existe en la calle Unzaga sobre el cauce de las aguas de la fábrica y del molino de d. Ignacio Ibarzabal» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1867-2-5.

1044. «… que se niega a contribuir con el mezquino impuesto repartido para el socorro de los pobres…», diote Martinez de la Perarengatik, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1867-10-27.

beharreko bikotearen inguruan eta ordezkariak izendatzeko bozketara jo zen. Zinegotzi bakoitzak pertsona biren alde bozkatzeko ahalmena zuen eta hautagai bakoitzak lortzen zituen botoak bilduta erabakiko zen nortzuk izango ziren Eibarko ordezkariak herrialdeko Batzar Orokorretan. Gertakizunak badauka bere garrantzia, ehun urteko epean ez dugulako bozketa bakar bat aurkitu Batzar Orokorretarako ordezkaria izendatzeko. Zentzu horretan, bozketa hau Ostendeko hitzarmenaren ostean herrialdean suspertzen ari zen tentsio politikoaren islatzat har dezakegu. Hautagaien bikoteak hauexek ziren: Ignacio Ibarzabal / Trifón Baskaran; Ignacio Ibarzabal / Sta. Kruzeko Markesa; Trifón Baskaran / Sta. Kruzeko Markesa. Ekainaren 16ko botazioan 10 zinegotzik parte hartu zuten (beraz, hogei boto zeuden jokoan) eta Ibarzabal eta Sta. Kruzeko Markesa gertatu ziren izendatuak, 9 eta 7 botorekin, hurrenez hurren. Trifon Baskaran alkateak 4 boto baino ez zituen lortu, eta ondorioz herrialdeko batzarretik kanpo gelditu zen.

Arazoa ez zen, ordea, hemen bukatu, Trifón Baskaran alkateak indargabe utzi baitzuen botazioa, ordezkarien izendapena diputazioaren agindua heldu baino lehen egin zela aitzakiatzat hartuta. Izan ere, berak ere ekainaren 16ko botazioan parte hartu zuen eta alkatea izanda, ez zuen inolako eragozpenik azaldu. Bozketaren emaitzak kaltetu zuenean, orduan erabaki zuen berriz egitea. Ekainaren 19an egin zen bigarren botazioan hamaika zinegotzik parte hartu zuten, baina ez dira ekainaren 16ko berberak: 3 falta ziren eta 4 gehiago zeuden. Falta zirenak Ibarzabal eta Sta. Kruzeko Markesaren alde bozkatu zutenetarikoak ziren. Botazioan bertan dauden 11tatik, beste hiruk botoak zurian eman zituzten (hauek ere Ibarzabal eta Markesaren aldekoak). Bascaranek 8 boto lortu zituen eta Ibarzabalekin batera (5 boto), Batzar Orokorretara joateko izendatua gertatu zen. Ondorengo diagramak, zinegotzien jokabidea argitzen lagunduko digu.

NORTASUNA	BBOO 67-6-16	BBOO 67-6-19
BASCARAN Trifón	TB / SKM	TB / SKM
IBARZABAL IRIONDO Ignacio	II / SKM	
IRAEGUI Justo	II / SKM	
ELEJALDE Damaso	II / SKM	ZURIZ
BASCARAN Ignacio	II / SKM	ZURIZ
ORBEA MURUA Mateo	II / SKM	
ORBEA Casimiro	II / SKM	ZURIZ
EGUIDAZU ALBERDI Juan	II / TB	II / TB
GUISASOLA JUARISTI Feliz	II / TB	II / TB
GUISASOLA GARITACELAYA Jose Antonio	II / TB	II / TB
MANDIOLA GUISASOLA Rufino		II / TB
ZULOAGA Plácido		TB / SKM
ACHA ABAUNZAGA Fernando		II / TB
UNCETA BARRENECHEA Rafael		TB / SKM

Ikusten denez, ekainaren 16an botorik gehienak Ibarzabal eta Santa Kruzeko markesaren inguruan bildu ziren. Talde horren eragina guztiz desagertzen da ekainaren 19an, hiruk zurian bozkatu zutelako eta beste hiru bozketara ez zirelako agertu. Zinegotzi talde horrek, bere jokabidearen azken arrazoia esplizituki azaldu ez zuen arren, bozketan parterik ez hartzea alkatearen erabakiaren aurkako protestatzat edo boikotzat jo dezakegu. Izan ere, ekainaren 19an inork ez zuen bozkatu 16ko bikote garailearen alde; batak bost eta besteak 3 boto lortu arren, beti-ere Baskaran agertuko zaie ondoan. Ibarzabalek eta Baskaranek euren buruaren alde bozkatu zutela ikusirik, nork bere buruaren alde bozkatzea onartuta zegoela argitzeaz gain, bi pertsonaien arteko aurkakotasuna islatzen du, biek ere nahiago izan zutelako bigarren botoa Santa Kruzeko markesaren alde ematea, aurkariari baino. Edonola ere, 19ko bozketak Batzar Orokorretatik kanpo utzi zuen Santa Kutzeko markesa, pare bat urte lehenago Eibarko ordezkaria zela Eibarri Batzar Orokorretan txanda-eskubidea onartzea lortu bazuen ere; harako hartan Ibarzabal izan bazuen ondoan, oraingo honetan Ibarzabali Baskaran egokitu zitzaion batzarretarako kide.

Baskaranen eta Ibarzabalen arteko desadostasuna Batzar Orokorretan azaldu zen berriz, 2. Diputatu Nagusia hautatzeko orduan iritzi kontrajarriak zituzten-eta. Bitxia bada ere, horrelako kasuetan bi ordezkarien botoak ezin ziren banatu, hau da, erdiak hautagai baten alde eta beste erdiak bestearen alde. Udalerria unitate politikotzat hartzen zen, eta baten edo bestearen alde bozkatu behar zuen. Horrelakoetan zozketa bat burutzen zen bi ordezkarien artean, eta kasu honetan zorteak Baskaranen esku utzi zituen Eibarko 57 suen botoak: Baskaranek Ignacio de Iberoren alde bozkatu zuen 2. Diputatutza Orokorrerako. Hala ere, hurrengo urtean berriro izendatuak suertatu ziren, eta ados agertu ziren Dorronsoro karlistaren aurka bozkatzeko orduan. Beraz tentsio hau, Eibarko liberalismoaren barnean zeuden ikuspegi desberdinen adierazletzat hartu dezakegu, liberalismoak Eibarren gozatzen zuen aurrerapen bereziaren ondorioz bere barnean bizi ziren ikuspegien isla. Beharbada, iraultzaren susmoa edota itxaropena izan zen joera liberal guztien arteko tentsio eta tirabirak areagotu zituena.

Pertsonaia bakoitzak zein alderdi ordezka zezakeen zehaztu gabe jarraitzen dugu, ordea. Hasiera batean, Santa Kutzeko markesa, lur-jabea izanik oligarkia foruzaleko partaidea izango zela pentsa dezakegu. Trifón Baskaran eta Ignacio Ibarzabali dagokienez, biek ere 30 urte pasatxo zituzten, eta ez ziren zinegotziak izan Loriatsuaren garaian. Karlistek egindako liberalen zerrendan daude, baina Ibarzabal Askatasunen Boluntarioen batailoiko kapitaina izango zen, eta Baskaran ez zen milizian alistatu ere egin. Karlistek herria hartu zutenean, Baskaran herrian gelditu zen, baina karlistek ezarritako eguneroko zerga ordaintzera zigortu zuten. Ibarzabal, errepublika-garaian espainiar gorteetako diputatua izatera ailegatu bazen ere, ez dugunez aurkitzen Eibarko errepublikanoen bilera edo protestetan eta gorteetan ere bere agerraldi guztiak armaginen aldeko neurriak hartzeko eskatzeko

izan zirenez[1045], bere ideologia politikoari buruzko zalantzarekin jarraituko genuke Fermin Lasalak idatzitako gutun pribatu bati esker izango ez balitz. Itxura denez, Lasalak Gipuzkoako liberalen hautagaien zerrenda bateratuan parte hartzeko proposamena jaso zuen Justo Zabala, José Antonio Murua eta Ignacio Ibarzabalekin batera, baina Lasalak ez zuen onartu, «… porque el programa resultaba radical y porque dos de los miembros de la misma, Zavala e Ibarzabal eran republicanos» (Urquijo, 1994: 204). Ikusiko denez, errepublikanoen artean ere familia bat baino gehiago zegoen, eta beharbada horrek azaltzen du Ibarzabal ez aurkitzea Eibarko errepublikanoen bilera eta protestetan.

IRAULTZA LORIATSUAREN EZTANDA

Iraultza Loriatsua burgesia demokratak bere proiektu politiko eta ekonomikoa garatzeko eginiko azken saiakera izan zen. Beranduegi eta noraezean ibili zen iraultza, boterea ez baitzegoen Antzinako Erregimenaren ordezkarien esku, 1839-1868 bitartean burututako jabetza-aldaketen ondorioz sortutako oligarkia berriaren esku baizik. Nekazaritza zein industriako langileen aldarrikapenak aztertu eta klase horiekin aliantza bat sortzen saiatu beharrean, iraultzaileek euren errepresioaren ardura hartu zuten. Horrez gain, ez zuen estatuan sortzen ari ziren dinamika zentrifugoei —karlista zein kantonalistak— irtenbide politiko bat emateko gaitasunik erakutsi. Oinarri sozialarengandik guztiz isolaturik, borboitarren itzulera denborakontua besterik ez zen. Baina, ez ditzagun gertakizunak aurreratu.

1868ko irailaren 17an, Topete brigadierra Cádizeko eskuadrarekin altxatu zen. Aurreikusita zegoen plan bati zegokion bezala, hainbat militarrek —Serranok eta Primek, besteak beste— Topeterekin bat egin eta hegoaldetik estatuko hiribururantz abiatu ziren. Alkoleako batailan iraultzaileak esfortzu handirik gabe nagusitu ziren eta urriaren 3an Serrano jenerala Madrilen sartu zen, herriak txalotuta. Egun batzuk lehenago, Isabel II.ak Lekeitiotik Donostiaranzko itsasontzia hartua zuen, handik Miarritzera abiatzeko[1046]. Urriaren 8rako behin-behineko

1045. «Sus intervenciones en las Cortes se ciñeron a la defensa de los intereses de las fábricas de armas particulares del país. En las sesiones parlamentarias de finales de 1872, reclamó del Presidente del Consejo de Ministros la clarificación sobre la compra de 20.000 fusiles extranjeros por el Gobierno para armar a la Milicia de Madrid, cuando las fábricas del país se encontraban paralizadas; exigió al Ministerio de Guerra una respuesta sobre la posible autorización a la fábrica nacional de armas de Oviedo para que, en competencia con las privadas, vendiese a los Ayuntamientos su producción a menor precio que su verdadero coste, y, finalmente mostró sus objeciones respecto a los proyectos de concesión de créditos para la fabricación y mejora del armamento del Ejército» (Agirreazkuenaga, 1993b: 486-487). Eibarko Udalak ere «… en vista de las repetidas defensas hechas en favor de la industria particular armera por d. Ignacio Ibarzabal Diputado a Cortes por este distrito de Vergara, significarle un voto de gracias», A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1872-11-21.

1046. «En Biarritz le espera Napoleón III y la emperatriz Eugenia y se instaló, de momento, en Pau, en compañía de Marfori. Tenía exactamente 38 años, pero llevaba veinticinco de reinado efectivo, en medio de una guerra civil, revoluciones, atentados, pronunciamientos… y unos cuarenta distintos ministerios» (Eyara, 1980: V. kapitulua, 190).

gobernua eratua zegoen, nola ez, Serranoren lehendakaritzapean.

Iraultza Loriatsuan militarrek izan zuten parte-hartzea erabakigarria izan bazen ere, haien lana, ezkutuan ziharduten elkarte klandestinoek ahalbidetu zutela esan behar da. Ezkutuan ari ziren talde horietako kideak 1867tik ari ziren konspiratzen, eta iraultzarekin batera nonahi eratu ziren Batzorde Iraultzaileetan —"*Junta Revolucionaria*"— parte hartzen ikusten ditugu (Madrilen, Bartzelonan eta Zaragozan adibidez); baina hiri eta herririk gehienetan Batzorde Iraultzaileen eraketa guztiz berezkoa izan zen, batez ere foru-lurraldeetan. Dena den, batzorde horien bizitza nahiko laburra izan zen, urrian bertan behin-behineko gobernuak euren desagerpena agindu baitzuen.

Iraultza Loriatsua askatasun demokratikoak aldarrikatzera zetorren neurri berean (gizonezkoen sufragio unibertsala, bilera-askatasuna, adierazpen-askatasuna, prentsa-askatasuna…), eliza katolikoak estatu espainiarrean gozatzen zuen tratu bereziari muga zorrotzak ezartzera etorri zen, neurrigabekeria batzuk ere bai, horien artean. Serrano jeneralak gidatzen zuen behin-behineko gobernuak jesulagunen kanporaketa agindu zuen urriaren 12an; kleroari jabetzak izateko eskubidea kendu, urriaren 15ean; 18an, 1837az geroztik zabaldutako komentuak itxi zituen; katolikoak ez ziren kultuak baimendu, azaroaren 9an; eliz artxiboen bahiketa agindu 1869ko urtarrilaren 1ean (Rodríguez de Coro, 1988: 23-27). Espainiar biztanleriaren gehiengoak antsikabetasunez hartu zituen elizaren aurkako neurri hauek —txalotzen edo bultzatzen ez bazituen ere—, baina foru-herrialdeetan gehiengoa neurri hauen aurka agertu zen. Tradizionalistek, euren aldetik, gobernu liberalaren gehigikeria hauek erabili zituzten iraultzari zilegitasuna kentzeko, biltzeko askatasuna aldarrikatzen zuen bitartean, katolikoei eskubide hori ukatzen ziela salatuz. Auzi erlijiosoaren gorpuzte horrek eta erregerik ezak tradizionalismoaren indarrak euren inguruan biltzeko aukera paregabea eskaini zien karlistei.

Iraultza Loriatsua foru-lurraldeetan

Foru-lurraldeetan prozesu iraultzaileak ezaugarri bereziak izan zituen, eta ezberdinak, herrialde bakoitzean. Jakina denez, espainiar estatuko lurraldeekin alderatuta, foru-herrialdeek egoera juridiko-politiko berezia zeukaten, herrialde bakoitzeko Batzar Orokorretan islatzen zena. Kanpora begira, batzar horien eskuduntzak zeharo makalduta zeuden, Foru Baimenaren desagerpenak babesik gabe utzi baitzituen espainiar konstituziozaletasunaren joera baterakoiaren aurrean; barrura begira, batzar horiek betiko oligarkia lur-jabearen esku zeuden: lehenago kaparetasunak eta milarrek ematen zuten nagusigoa, sufragio murriztuak bermatu baitzuen 1848tik aurrera. Zentzu horretan ez zaigu harrigarria irudituko, foru-diputazioetako karguak monopolizatzen zituen oligarkiak, foru-erregimenak bermatzen zuena eta iraultzak aldarrikatzen zuena, askatasun berbera zirela aldarrikatu izana.

Sortutako botere-hutsunea bete nahian, herrialde bakoitzean jokabide ezberdinak agertu ziren: Bizkaian diputazioa, bere burua desegin ostean, herrialdeko Gobernurako Batzorde legez eratu zen bitartean, Gipuzkoan diputazioak ez zuen horretarako astirik izan, Isabel II.ak muga zeharkatu bezain laster, eratu baitzen Gobernurako Batzordea Donostiako udaletxean[1047]. Egun batzuetara, Donostiako Batzordea herrialdeko batzorde bihurtu zen (Castells, 1985: 1277), eta foru-diputazioak indarrean jarraitu zuenez, herrialdean sortutako botere-bikoiztasunak gertakizun politikoen ildoa baldintzatuko zuen ordutik aurrera.

Foru-diputazioaren buruan, Miguel Dorronsoro bereizi zen eta zurruntasunez defendatu zuen foru-erregimenaren legedia iraultzaileen aurrean. Iraultzaile eta tradizionalisten arteko aurkakotasuna 1869ko Hondarribiako Batzar Orokorretan islatu zen. Iraultzaren ondorioz birsortu zen, diputazio probintzialak zenbait herritako udal-hauteskundeak indargabetu zituelako, herri horiek ordezkari karlistak barik ordezkari liberalak bidaltzeko Batzar Orokorretara[1048]. Protesta gisa ordezkari tradizionalistek alde egin zuten batzarretatik, eta ez ziren gehiago itzuli. Karlistaldia hasi aurretik ere, egoera politikoa zeharo polarizatuta zegoen Gipuzkoan.

Loriatsuaren lehen urratsak Eibarren

Loriatsuaren garaia 1868ko urriaren 3an hasi zen Eibarren, indar osoz, gainera. Deba bailarako gainerako herrietan ez bezala, Eibarko batzordekideak ez ziren Gipuzkoako Gobernu Batzak eman zituen agindu eta aholkuen zain gelditu. Hasiera hasieratik Gobernurako Batzorde Iraultzailea —"*Junta Revolucionaria de Gobier-*

1047. «Tras la salida de la Reina de España, los liberales ocuparon el telégrafo comunicándose con las Juntas de diferentes ciudades. A partir de este momento comenzaron a llegar a San Sebastián emigrados de Francia como Francisco de Paula Montemar, que había sido llamado por los liberales donostiarras para constituir la Junta revolucionaria. El mismo día 30, se reunieron los liberales en el Ayuntamiento, con la presencia de Montemar, y se debatió la forma en que se debía constituir la Junta. Algunos exigían que no se alterara la "integridad foral", ni se alteraran las "atribuciones administrativas que las instituciones vascongadas conceden a sus corporaciones populares" (…) Esta Junta, a pesar de la retórica de su manifiesto, no fue elegida, sino que fue nombrada por los notables locales, sin la participación popular, al igual que todas las del País Vasco (…) A diferencia de la de Bizkaia, únicamente estaba formada por liberales, y no tomaban parte en ella los miembros de la Diputación. En consecuencia, se produjo un duplicidad de autoridades: la Diputación que continuaba existiendo, y la Junta revolucionaria» (Urquijo, 1994: 20, 21).

1048. «Las Juntas de Fuenterrabía tienen un desarrollo agitado y están marcadas por el plante que protagonizan los carlistas. El detonante del que se sirven éstos para denunciar a las Juntas es la anulación por parte de la Diputación provincial de las elecciones municipales verificadas en cuatro pueblos –Oyarzun, Azpeitia, Zumaya y Legazpia— que habían elegido alcaldías carlistas alegando que se habían cometido coacciones en los días de la elección. En tanto se decide sobre la legalidad o no de tales elecciones, se mantiene en esas cuatro localidades a los ayuntamientos anteriores que eran de signo liberal, adoptando las autoridades competentes una táctica dilatoria a la hora de tomar una resolución. De esta manera en las Juntas Generales de 1869 estos pueblos envían representantes liberales, lo cual garantizaba a este sector una confortable mayoría a la hora de las votaciones» (Castells, 1985: 1273).

no"— eratu zen, baina ez Deban eratu zenaren izaera sekretu eta prebentiboarekin (Iparragirre, 1993). Eibarko iraultzari izaera ofiziala eman nahi izan zioten hasiera-hasieratik, eta udaletxean bertan biltzen hasi ziren. Edonola ere, udal-aktari jarraitzen badiogu behintzat, Eibarren ez zen Tolosan bildutako jendetzarik bildu batzordeko kideak aukeratzeko, eta herritarrak barik euren buruak izendatu zituztela esango genuke. Hurrengo egunean Gipuzkoako liberalak Donostian bildu ziren, eta eibartarrek ere euren ordezkaria bidali zuten (Urquijo, 1994: 153). Azaroaren 8an Gipuzkoako liberalak udal-hauteskundeetarako aurkeztu beharreko programa politikoa zehazteko bildu ziren, eta Eibarko ordezkariak Vicente Agirre, Juan Manuel Orbea, Teodoro Ibarzabal, José Aranguren eta Claudio Gezala izan ziren[1049].

Horrez gain, "*de Gobierno*" gehigarriak ñabardura garrantzitsua jartzen dio batzorde iraultzailearen izaerari. Haren eginkizun nagusia ez zen egoera aldatzeko aldarrikapenak gauzatzen hastea, egoera argitzen ez zen bitartean herria gobernatzeaz arduratzea baizik. Inguruko herriekin alderatuta Eibarren urrats esanguratsuak egin ziren arren, zuhurrak izan behar gara batzorde horren izaera "iraultzailea" ondorioztatzerakoan, batez ere bere partaideen artean Trifón Baskaran alkatea edota Casimiro Orbea armagina aurkitzen ditugunean. Eibarko iraultzaileen nahiak islatzen zituen manifestu baten gabeziak mugimendu horren anbiguotasuna islatzen du. Zentzu horretan, oso urruti aurkitzen da Tolosakotik zeren horrek langileen eskubideak barne hartu baitzituen bere aldarrikapenen artean[1050].

Eibarko Gobernurako Batzordearen zeregin nagusia Loriatsuak zabaldutako botere-hutsunea betetzea izan zen. Indarrean egon zen aste bietan, harturiko erabakirik garrantzitsuenak bi izan ziren: Melitón Martinez de la Perari 48 orduko epea ematea garbitokia berriro zabaltzeko; eta estatuko gobernuak agindutako armalantegien behin-behineko gelditzearen aurkako eskari bat bideratzea, Eibarko 50 armaginen izenean.

Urriaren 17an Udal Herrikoia —"*Ayuntamiento Popular*"— eratu zen, Deba bailaran azterturiko sei herrietan sortu zen Udal Herrikoi bakarra. Gipuzkoako Gobernu Batzaren aginduei jarraituz, Deba, Elgoibar, Arrasate eta Oñatin 1866ko udalak berrezarri ziren; eta Bergaran, 1866koak barik, 1854-1856 biurteko aurrerakoian aritutako udalkideak jarri ziren. Akta liburuak ez digu azaltzen udala

1049. Gipuzkoako komite liberalek adostu zuten programak, banakoen askatasunez gain, honako hauek aipatzen zituen, hurrenez hurren: «La inviolabilidad del domicilio, la libertad del Municipio, la libertad de la Provincia, La Soberanía Nacional y el Sufragio Universal». Ikusten denez, gipuzkoar liberalen ikuspegitik ere askatasuna etxean hasten zen, udalerrian jarraitzen zuen, herrialdean hurrengo eta estatuan bukatzen zen, Goitia, Mikel: *Op. cit.*, 345. or.

1050. «En Tolosa, únicamente sabemos que la Junta aprobó ciertas medidas a favor de la edificación de viviendas para los trabajadores. Esta Junta fue la que tuvo un carácter más radical de todas las del País Vasco, mostrando un preocupación social mayor», Goitia, Mikel: *Op. cit.*, 35. or.

nola eratu zen baina beste agiri batek argitzen digunez[1051], sufragio murriztuaren formula erabili zen, 147 hauteslerekin bi hauteskunde-barrutitan banatuta. Beraz ez zen sufragio orokorra erabili, eta hautesleetatik ere, 58 ez ziren hautagaiak. Udal Herrikoiak hartu zituen erabaki urrien artean Gurutzada Buldaren dirua udalaren dirukutxan gordetzea, eta Lehen Hezkuntzako Batzordea sortzea dira aipagarrienak.

1869-1873 bitarteko udalkideak gizonen sufragio orokorrez hautatu ziren, hiru egunetan: abenduaren 18an hautes-mahaietako karguak izendatu zituzten, eta 19, 20 eta 21ean udal-hauteskundeak burutu ziren. 1.133 hautesleko erroldarekin, udalerria bi hautes-mahaitan banatu zen: udaletxean 578k bozkatuko zuten, eta gainerako 555ek nesken eskolan. Boto-eskubidea zabaltzeaz gain, hauteskundeetan parte-hartzea ere nabarmen igo zen. Sufragio murriztuaren garaian, abstentzioa erditik gorakoa bazen, oraingo hauetan 862 gizonek bozkatu zuten, erroldaren % 76,1. Hautes-mahaietarako karguak eskuratzeko orduan ere, lehia bizia egon zen. Nesken eskolakoan Juan Manuel Orbeak ezker eta aire lortu zuen lehendakaritza, 161 botorekin; bigarren, Leon Basterra notario karlista gelditu zen, 99 botorekin. Udaletxekoan, Ciriaco Villar izendatu zuten lehendakari —110 boto— eta Manuel José Arizaga idazkari, 45 botorekin.

Udaletxeko hautes-mahaian honako hauek izan ziren emaitzak:

	1868-12-19	1868-12-20	1868-12-21	Guztira
Ciriaco Villar	117	101	84	302
Ciriaco Iturrioz	117	97	84	298
Esteban Arana	111	86	37	234
Manuel Arizaga Ibarzabal	109	78	40	227
Martín Gisasola Eskaregi	104	83	73	260
José Aranguren	103	91	85	279

Nesken eskolako barrutian, beste hauek:

	1868-12-19	1868-12-20	1868-12-21	Guztira
Juan Francisco Bergara	183	142	66	391
Juan José Larrañaga	157	76	40	273
Feliz Gisasola Juaristi	156	75	47	278
Juan Teodoro Ibarzabal	156	73	32	261
Rafael Untzeta Arakistain	148	70	31	249

1051. EiUA, A,2,5, *Elecciones Municipales*, 3. txostena, 1868-10-24.

Botorik gehien Juan Francisco Bergarak lortu bazuen ere, 1869-1873 bitarteko alkatea Feliz Gisasola Juaristi izan zen. Ciriaco Iturriotzek, Ciriaco Villarrek eta José Arangurenek ere Gisasolak baino boto gehiago lortu zituzten, baina zinegotzi legez gelditu ziren. Aktak argitzen ez duen arren, ziur asko alkate-kargua zinegotzien arteko bozketaz erabakiko zuten, sindikoa aukeratzeko egiten zuten moduan.

Sufragio unibertsalak udalkideen berritze garrantzitsua eragin zuela dakusagu. Nolabait azaltzeagatik, iraultza hiru boladatan gauzatu zen: lehen olatuak nahiko gogor jo zuen, eta ordura arte udalean parte hartu gabeko zenbait pertsonaiaren sarrera ahalbidetu zuen —Ciriaco Iturrioz, Ciriaco Villar eta José Gisasola, batik bat—; bigarren olatuak, iraultzaren eragina nolabait leundu nahian, erregimen isabeldarrean aritutako batzuk ekarri zituen udalkide berrien ondora, horien artean hiru beranduago karlistak izango zirenak —Antonio Larrañaga, José Antonio Erbiti eta Martín Gisasola—[1052]; hirugarrenak, elementu tradizionalistak ezabatu —Martín Gisasola izan ezik— eta esperientziarik gabeko udalkideen presentzia sendotu zuen. Edonola ere, kontuan hartzekoa da sufragio orokorraren bidez hautaturiko 10 zinegotzitik bost jada udalkideak izandakoak zirela. Prozesu iraultzailearen hiru faseetan soilik lau lagunek parte hartu zuten: Jose Aranguren, Feliz Gisasola, Ciriaco Iturrioz eta Ciriaco Villarrek, lehenengo biak esperientziadunak eta beste biak guztiz berriak udaletxean. Aranguren, gogora dezagun, Gipuzkoako liberalek Donostian egin zuten batzarrean parte hartzen ikusi dugu, 1869an udaletxean estreinakoz sartu zen Juan Teodoro Ibarzabalekin batera.


SUFRAGIO UNIVERSAL.

NÚM. 49

D. Marcelino Arteta

de 28 años, se halla empadronado como vecino en la calle

de núm. 12 cuartel del 1º

y goza derecho electoral.

Eibar 14 de Enero de 1869.

El Alcalde, El Secretario,

1869ko hauteskundeetarako txartela. Iturria, EiUA, A,3,1.

1052. Antzeko zerbait gertatu zen Donostian: «La Junta es, en efecto, fundada aún con el desagrado de sectores de la burguesía local que temen que este organismo pueda ser el centro desde el que se radicalice el movimiento. Para evitar esta posibilidad tales sectores se incorporan a la Junta con el fin de impedir que la revolución saliera de sus tranquios cauces» (Castells, 1985: 1277).

NORTASUNA	<=1867	1867	1868-1	GBI	UH	1869	K-L
GUISASOLA GARITACELAYA Jose Antonio	Bai	SPG	SPG		SPG		
ORBEA Casimiro		ER	ER	BOK	A3		
GUISASOLA JUARISTI Feliz		ER	ER	BOK	A2	A1	L*
ACHA ABAUNZAGA Fernando		ER	ER				K
IBARZABAL IRIONDO Ignacio	Bai	ER	ER				L*
IRAEGUI Justo	Bai	ER	ER				
ELEJALDE Damaso	Bai	ER	ER				L
BASCARAN Ignacio	Bai	ER	ER				L
ORBEA MURUA Mateo	Bai	ER	ER				
UNCETA BARRENECHEA Rafael		ER	ER				K
EGUIDAZU ALBERDI Juan		ER	ER				K
ZULOAGA Plácido		A3	A3				L*
MANDIOLA GUISASOLA Rufino		A2	A2				L
BASCARAN Trifón		A1	A1	BOK			L
ITURRIOZ Ciriaco				LEH	A1	A2	
LECUMBERRI José Joaquín				IDAZ			
ARANGUREN José	Bai			BOK	ER	ER	L
VILLAR Ciriaco				BOK	ER	ER	L
GUISASOLA José				BOK	ER		
VERGARA Juan Francisco	Bai				ER	SPG	
GUISASOLA ESCAREGUI Martín	Bai				ER	ER	K
ARANA Esteban	Bai				ER	ER	
ARIZAGA EIRIQUI Manuel					ER	ER	
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	Bai				ER		K2
LARRAÑAGA Antonio	Bai				ER		K
IBARZABAL Juan Teodoro						ER	L*
LARRAÑAGA Juan José						ER	L

Udal-hauteskunde hauetan izendatuta suertatu ziren Feliz Gisasola eta Juan José Larrañagaren aurkako protesta ere heldu zen udaletxera. Horren arrazoia ez da argitzen, baina udalak ez zuen protesta onartu, epez kanpo egin zela argudiatuz. Protestaren bultzatzaileek, euren aldetik, egoera politikoaren ezegonkortasunean oinarritu zuten protesta epez kanpo egin izana[1053]. Feliz Gisasola, gainera, Eibarko alkate izendatu zuten hurrengo lau urteetarako[1054].

Demokratek euren helburuak lortu zituzten udal-hauteskundeetan, zeren Eibarko komitearen izenean Donostiako batzarrean aritutako José Aranguren eta Juan Teodoro Ibarzabal zinegotzi izendatu baitzituzten. Ezin berdina esan errepublikanoei buruz, lehen momentu hauetan ez baitziren udaletxera sartzeko gai izan.

1053. EiUA, A,3,1, *Documentación sobre elecciones (1849-1870)*, 1868-12-28: «No desconocen los que suscriben (la protesta) que los términos señalados en la ley son limitados para el presente caso en tiempos normales; péro en circunstancias como la presente en que la ley ha sufrido tantas alteraciones y modificaciones, nadie con razón podrá disputar que ha espirado el término para admitir la reclamación de los que suscriben…».

1054. Féliz Gisasola Juaristi, Feliz Gisasola Agirrebeñaren eta Ana María Juaristi Etxaberen semea zen. 1836an jaioa, armagin legez agertzen da 1861ean. Bere aita Eibarko alkatea izan zen Esparteroren Hiruteko Aurrerakoian, baita 1856an ere.

José Gisasola, adibidez, sufragio orokorrak udaletik kanpo utzi zuen, Udal Herrikoian parte hartu ostean. 1873an, udal errepublikanoko kidea izango zen.

Udalkide hauek, arma-garraioari buruz zegoen debekua lehenbailehen altxatzea eskatu zioten Madrileko gobernuari, 1869ko martxoan[1055]. Bi hilabete geroago, 23 armaginek 9 milimetrotik beherako armen fabrikazio eta garraio libreari buruzko baimena eskatu zioten, eta hiru partaideko batzordea Madrilera joan zen gerra-ministroarekin akordio bat lortu nahian. Udalak armagintzak —eta industriak orokorrean— babesten jarraitu zuen, eta horren seinale da herrialdeko zerga banatu zenean udalak industria eta merkataritzaren arloari zegokion kopurua bere dirukutxatik ordaindu izana, Rufino Mandiola zinegotzia erabaki horren aurka azaldu bazen ere.

ERLIJIOAREN AUZIA

Behin-behinekotasun egoera gainditzeko Madrileko gobernuak Gorte Legegileetarako diputatuen hauteskundeetara deitu zuen, urtarrilaren 15, 16, 17 eta 18rako. Hautatutako diputatuen zeregina konstituzio berria egitea izango zen, eta ordutik aurrera hori izan zen eztabaida guztien ardatz nagusia. 1869tik aurrera erlijioaren auzia bi fasetan garatu zen: lehenengo, Madrileko Gorteek estatu espainiarraren konfesionaltasunari buruz eztabaidatu eta kultu-askatasuna onartu zuten; bigarren fasean, uztailetik aurrera hasi zen, Hondarribiko Batzar Orokorrek Kultu eta Kleroaren Zerga berria ezartzea erabaki zuten.

Batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketa

Foru-lurraldeetan, hautagai tradizionalistek garaipen garbia lortu zuten 1869ko urtarrileko hauteskundeetan, eta foru-lurraldeetako mapa politikoa argi eta garbi bereizi zen estatu espainiarrean sortutakotik[1056]. Estatu mailan karlistek lortu zituzten 24 diputatuetatik 16 foru-herrialdeetakoak ziren, eta eurak izan ziren batasun katolikoaren defendatzailerik sutsuenak Madrileko Gorteetan, Vicente

1055. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-3-9.

1056. «Las elecciones de 1869 pondrían de manifiesto —y bien claramente— esta situación respecto de Euskal Herria, donde el triunfo carlista sería aplastante. Guipúzcoa y Vizcaya elegirían la totalidad de sus diputados carlistas; Navarra todos menos uno; y Alava, la mitad. En total treinta diputados carlistas tomarian asiento en las nuevas Cortes. No gran cosa frente a los sesenta republicanos, los casi ochenta de la Unión Liberal y los ciento sesenta obtenidos por progresistas y demócrata-monárquicos, pero sí importante y significativa cifra teniendo en cuenta que 16 representaban a Euskal Herria, de un total de 19 electos» (Eyara, 1980: V. kapitulua, 192). Eta Tuñón de Lara historialariak, euskal karlistak eskuin muturrean kokatzen dituenez, aipuak hausnarketa interesgarria eskaintzen digu: «Los 16 diputados carlistas vascos estaban allí para defender, ante todo, la soberanía popular vasca en el conjunto de la soberanía del Estado, su alianza coyuntural con otras fuerzas (fuerzas estas conservadoras, de derechas, neo-católicas, etc.) aparte de una determinada lógica estructural (campesinos frente a citadinos), no tiene por qué ser menos coherente que la alianza configurante del Pacto de Ostende entre monárquicos y republicanos».

Manterola apaiza, batik bat. Estatu espainiarrean "*Asociación de Católicos*" elkartea eratu eta batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketa hasi zuten. Nolabait esateagatik, auzi erlijiosoa izan zen tradizionalismoaren adarrak —legitimistak, neokatolikoak, foruzaleak— karlismoaren inguruan bateratu zituena, eta foru-lurraldeetan arrakasta bereziarekin gainera, zeren gobernu liberalek erlijioaren aurka hartzen zituzten neurriak foruaren aurkako eraso gisa aurkezteko gaitasuna erakutsi baitzuten karlistek [1057].

1864. urtean Pio XIII.ak emandako "*Syllabus*" oinarritzat hartuz, liberalismoa bekatutzat jo zuten tradizionalistek. Eta liberalak eurak ere zatituta agertzen ziren, bekatua onartzen zutenen eta ez zutenen artean. Azken horiek, liberala eta aldi berean katolikoa izatea posible zela frogatzeko egin zituzten ahaleginak alferrikakoak izan ziren apaiz karlistazaleek zerabilzkiten, ez soilik demagogia, baita arrazoi sakonen aurrean. Zentzu horretan, benetan eztabaidan zegoena hau zen: ea foru-lurraldeek euren politika erlijiosoa erabakitzeko askatasunik zuten ala ez[1058].

Orotara, katolikoen elkarteek hiru milioi sinaduratik gora lortu zituzten (Garmendia, 1985: 26), eta sinatzaileen kopururik altuenak foru-herrialdeetan lortu ziren[1059]. Gipuzkoan biztanleen % 43k sinatu zuen batasun katolikoaren alde, eta herri bakoitzean sinatu zutenen kopuruak eta nortasunak ezagutzeko aukera izan dugu, Apalategi bilduman gordetako txosten bati esker. Iturri horrek, beste informazio batzuekin alderatuta, emaitza interesgarriak eman ditzake, ideologia erlijiosoak herri mailan zuen eraginari buruz. Zerrenda horiek, beraz, herri bakoitzeko sinatzaileen eta ez sinatzaileen arteko bereizketa egitea ahalbidetzen digute, eta horrek ezinbesteko garrantzia du erlijio katolikoaren inguruan alderdi liberalak eta karlistak aurkezturiko sentsibilitate ezberdinak alderatzeko orduan, baita alderdi bakoitzaren barnean ere. Zoritxarrez, txosten horretan ez da Eibarri buruzko daturik jasotzen, eta hau benetan esanguratsua iruditzen zaigu, zeren Eibarren batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketarik ez zela egin ondorioztatzera baikaramatza. Zer dela eta?

1057. «En el País Vasco estos conflictos religiosos fueron un punto fundamental de la dinámica político-social del periodo, debido a la importancia del hecho religioso en la sociedad vasca (…) Los carlistas vascos presentaron la legislación religiosa de la revolución, libertad de cultos, matrimonio civil (…) como atentatorias contra los Fueros y por tanto inaplicable en estas provincias», Goitia, Mikel: *Op. cit.*, 127. or.

1058. Kontuan hartzekoa da estatu espainiarreko II. Errepublikan zehar ere abertzale eta karlistek eskatzen zituzten eskuduntza erlijiosoak izan zirela Madrileko Gorteek Lizarrako Estatutoa atzera botatzeko erabili zuten arrazoi nagusia. Lizarrako estatutua aurrera ez zihoala ikusirik, jeltzaleek aberria lehenetsi zuten erlijoaren aurrean. Hauxe izan zen karlistek erabili zuten aitzakia abertzaleengandik aldendu eta erregimen errepublikanoari uko eginez altxamendu frankistarekin biltzeko.

1059. «Confrontando las firmas de la población vasca con los resultados del resto de España globalmente, sobresalen con mucho las cuatro provincias vascas, por encima de todas las demás. Y considerándolas en particular se situaba a la cabeza de la defensa de la unidad católica Navarra con un 59 %, después Guipúzcoa con un 43%, aventajada tan sólo en el catálogo general por Baleares con un 46%…» (Rodríguez de Coro, 1986: 143).







Karlistek lortutako diputatu kopurua, 1869-1872 bitarteko hauteskundeetan. Ikusten denez, Hego Euskal Herriko mapa elektorala argi eta garbi bereizten zen. Iturria: *Los carlistas: 1800-1876,* RODRIGUEZ DE CORO, F.: "El carlismo, una propuesta...", 135. or.

Herrialde mailan, herri guztiek bidali zituzten batasun katolikoaren aldekoen zerrendak, Eibarrek, Hernanik eta Oreretak izan ezik. Udalerri horietan liberalismoak zuen indar bereziak sinadura-bilketa oztopatzea lortu zuela pentsa dezakegu, baina ordura arte iraultza demokratikoan protagonismo berezia izan zuten beste udalerri batzuek sinadura gutxi batzuk biltzea lortu zutela ikusita —Donostiak 303, Tolosak 207…—, hipotesi hau ez da nahikoa. Ziur asko, herri bakoitzeko eliz kabildoak harturiko jarrera erabakigarria izan zen sinaduren ekimena aurrera botatzeko orduan, hau da, tokian tokiko iraultzaileen eta apaizen arteko sintonia. Bitxikeria gisa, hona hemen Deba bailarako udalerrietan bildutako sinadura kopurua.

Herria	Sinadurak
Deba	40
Mendaro	46
Elgoibar	596
Soraluze	340
Bergara	791
Arrasate	119
Oñati	702

Zergatik ez zen sinadura-bilketarik egin Eibarren? II. Karlistaldiaren ostean egindako zerrenda batek argitzen digunez, Eibarko apaiz batzuek behintzat, karlisten alde lan egiten zuten: José Ventura Iraegiri buruz, "*propagandista*" zela zioen agiriak, eta "*escuela de Cristo*" ere, karlisten nukleotzat jotzen da, bertako kide izate hutsak susmagarri bihurtu baitzuen José Cruz Lazuen. Lorenzo Gisasola Oregi eta Juan Bautista Alberdi apaizak, baita frai Manuel Gabiola apaiza ere, kolaboratzaileen zerrendan agertzen dira. Beraz, sinadurarik bildu ez izana, ezin diogu azpiegitura edota kolaboratzaile faltari egotzi. Iraultzaren hasiera honetan, karlismoak burutu zuen kanpainarik garrantzitsuena batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketa hau izan zela kontuan hartuta, benetan harritzekoa da Eibarren horren aztarnarik ez aurkitzea. Iraultzaileen mehatxua ere, egon bazegoen arren, ez zaigu nahikoa iruditzen Eibarko katolikoen zirkinik eza arrazoitzeko orduan.

Izan ere, hurrengo urteetan, elizaren eta iraultzaileen arteko harremanak zeharo kaskartuko ziren arren, iraultzaren lehen une hauetan Eibarko Udalaren eta kabildoaren arteko harremana egokia izan zela dirudi: udalak, adibidez, 1868ko urrian Gurutzadaren Buldaren dirua udalaren diru-kutxan sartzea agindu bazuen ere, 1869ko martxoan bildutakoa San Andres elizako dorre eta eskailerak konpontzeko erabiltzea erabaki zen[1060]. Baina udalaren eta elizaren arteko harremana hobezina izanda ere, arraroa egiten da Eibarren sinadura-bilketaren aztarnarik txikiena ere ez

1060. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-3-7.

aurkitzea. Madrileko Gorteetan alferrikoak izan ziren Manterola diputatuak batasun katolikoaren aldeko berbaldiak, 1869ko ekainaren 1ean onartu zen konstituzio berriak kultu-askatasuna bermatu zuelako. 214 diputatuk bere alde bozkatu zuten, eta 55ek aurka. Karlistentzat, etsipenerako motibo izan beharrean, liberalismoaren aurkako kanpaina indarberritzeko aitzakia aproposa bihurtu zen, konstituzio berriak monarkia parlamentarioa ezarri zuelako espainiar estatuko erregimentzat. Estatu mailan izugarri areagotu ziren karlismoaren aldizkariak eta hurrengo hauteskundeetan emaitzak hobetzea espero zen, gertatu zen bezala.

Konstituzio berriaren onarpena ika-mika berrien iturri bihurtu zen foru-lurraldeetan. Gobernadore zibilak zabaldutako aginduaren arabera udaletako kargu eta langile guztiek konstituzioa sinatu behar zuten ekainaren 27an. Diputaziotik, oraindik Dorronsoro karlistaren zuzendaritzapean, sinatzea hurrengo astean Batzar Orokorrak bildu arte atzeratzea agindu zien Gipuzkoako udal-agintariei. Bergaran, Done Petri elizako organistak idatzi bat bidali zuen konstituzioa sinatzea bere kontzientziaren aurka zihoala azaltzeko. Arrasaten, «… 11 zinegotzietatik 3k baino ez zuten sinatuko. Auzo alkateek ez dute inork sinatu eta udal-langileei dagokionez, batzuk sinatu egin zuten, beste batzuk ez, eta gehienak Forua errespetatzeko baldintzarekin» (Iparragirre, 1993: 200)[1061]. Eibarren, sinadura-ekitaldia ez dago akta-liburuan jasota, baina egin zela badakigu, uztailaren 22an jakinarazi zenez 269 erreal gastatu baitziren «… en la promulgacion de la Constitución española»[1062]. Kasu honetan ere, pixka bat arraroa egiten da konstituzioa inolako jaialdi edota ospakizunik gabe onartu zela jakitea, beharbada monarkikoa zelako.

Kultu eta Kleroaren Zerga

Behin ordezkari karlistek alde egin zutenean, Hondarribiko Batzar Orokorrek ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu zuten. Eibarko ordezkariak —Trifon Baskaran eta Ignacio Ibarzabal— bertan gelditu ziren. Hala, ordura arte udalerri bakoitzak zeukan aukera ezabatuz, hamarrenaren ordez Kultu eta Kleroaren Zerga inposatzea erabaki zuen guztietan. Zerga berria ezartzeari uko egin eta 52 udalerritako alkateak espetxeratu zituzten. Errepresio horrek aukera eman zion elizari iraultzaileen gehiegikeriak herritarren begi bistan jartzeko[1063]. Aurreko kapituluan ikusi denez, Eibarren hamarrenaren sistema alboratuta zegoen 1862tik, eta orduko akordia berrikusteaz arduratuko zen batzordea izendatzea nahikoa izan zen[1064].

1061. Rodríguez de Corok ere kontu honen berri ematen du (Rodríguez de Coro, 1980: 209).

1062. A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-7-22.

1063. «Siempre inconsecuentes los librecultistas, al propio tiempo que sustentan que entre el ministro de la religión y los fieles no debe mezclarse ni interponerse nadie, que los feligreses deben retribuir al clero sus servicios en la forma y medida que les acomode, prohíben a los caseros de Guipúzcoa que sigan pagando el diezmo y la primicia" en *Seminario Católico Vasco Navarro*, 1869-9-24, "Conflicto eclesiástico en Guipúzcoa».

1064. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1870-3-18. 1870eko irailaren 20an egindako bileran "*derecho de capa*" deitutakoaren bidez udalak herritar izendatu zituen horretarako eskubidea

Arazoak beste alde batetik sortu ziren, errepublikanoen ikuspegitik ere, ez zelako bidezkoa autoritate laikoak zerga erlijiosoa kobratzera behartzea, ezta katolikoa ez zen biztanleriak erabiltzen ez zuen zerbitzua ordaintzera. 1870eko maiatzean Kultu eta Kleroaren Zerga kentzeko eskakizuna heldu zen udalera sinatzailerik gabe[1065]; hurrengo hilean, udala ez zihoala zerga hori kobratzera jakinaraztea agindu zion Batzar Orokorretan parte hartzeko izendatutako ordezkariari[1066]. Alferrik izan zen, azaroaren 2ko aktak dioenez, Kultu eta Kleroaren Zerga banatzeko batzordea eratu baitzen, 10 kidek osatua. Horien arteko batek —Rufino Mandiolak— protestatu egin zuen. Mandiolak 1873ko udal errepublikanoan parte hartu zuen, eta zentzu horretan bere jokabidea nahiko logikoa da, errepublikanoak ere zerga horren aurka baitzeuden.

ERREGE BATEN BILA…

Gertakizunak bizkor zihoazen espainiar estatuan. Behin monarkia parlamentarioa ezarrita, Primen hurrengo erronka errege bat aurkitzea izan zen. Hautagai bat baino gehiago zeuden, eta aukeraketa ez zen batere erraza, Frantziak eta Alemaniak bakoitzak bere hautagaiak aurkeztu baitzituen. Espainiar koroaren hutsunea betetzeko sortu zen nazioarteko lehiak gerra franko-prusiarra piztu zuen, eta bidenabar, III. Errepublika estatu frantziarrean, oraingo honetan langileen errepublika, Pariseko Komunaren eskutik. Bismarcken gudarosteek bakuninisten ametsak zapuztu bazituzten ere, Komunaren esperientziak europar burgesia beldurtu zuen, eta sozialismoa liberalismoaren eboluzio logiko legez aurkeztu ostean Manterola diputatuak aukeratzera eman zuen, "*Don Carlos ala petrolioa*", azken erregai hori izan baitzen Pariseko langileen armarik eraginkorrena. Paradoxikoki, II. Karlistaldian petrolioa gehien erabili zuena beste karlista bat izan zen: Santa Kruz apaizak, hain zuzen, petrolioa erabili zuen Debako liberalen errendizioa lortzeko mehatxu gisa.

Azkenean, Primek Saboiako Amadeoren aldeko hautua egin zuen. Amadeo, Italiako erregearen semea zen, «aita santuaren espetxeratzailearen semea», neokatolikoen esanetan. Saboiarrek monarkia aurrerakoia izatearen ospea zuten eta Primen proposamenak Madrileko Gorteen onespena lortu zuen, 1870eko azaroaren 16an. Amadeoren alde 191 diputatuk bozkatu zuten, 60k errepublika federalaren alde, 27k Montpensierreko dukearen alde eta 19k zuriz, horien artean, ziur asko, euskal diputatu karlistek. Bitxia bada ere, Karlos VII.a ez zegoen hautagaien artean.

---

lortu zuten guztiak. Beharbada, herritar bihurtze honek eliz eskubideekin dauka zerikusia. Gogora dezagun, 1862ko akordioa gauzatzeko orduan ere biztanle xumeen —"*moradores*"— eta auzokideen —"*vecinos*"— artean zehaztu beharra egon zela; 1870eko udazkenean, gerra-giroa gorpuzten zihoan heinean, kanpotik heldutako soldadu eta abarren eskubide erlijiosoak bermatu beharra sortuko zen.

1065. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1870-5-19.

1066. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1870-6-19.

Abenduaren 27an Prim Kongresutik irten eta Gerra Ministeriorantz zihoan, zerbait konpondu ostean Cartagenara abiatzeko asmoarekin, bertara ailegatu behar baitzen Amadeo I.a. Turco kalean, bere dilijentziaren ibilbidean beste bat gurutzatu eta bat-batean eskopeta eta trabuko trumoia entzun zen kale osoan. Atentatu horretan progresisten buruak zortzi tiro jaso zituen, eta hiru egun beranduago hil zen. Hilketa horrek armada, gobernua eta alderdi aurrerakoia bururik gabe utzi zituen, eta beste alde batetik, erabakigarria izan zen II. Karlistaldiaren eztandan. Amadeo I.a Cartagenara ailegatu zenean politikoki umezurtz aurkitu zen, bere etorrera diseinatu zuena, herri ezezagun hartan bere aholkulari nagusia izan behar zuena, ez zuelako ondoan izango erabakiak hartzeko orduan. Erregetza hasiaz batera Amadeok Donostia bisitatu zuen, eta Eibarko Udalak hiru lagunek osatutako batzordea bidali zuen bertara erregea agurtzera[1067]. Maiatzean udalak Prim jeneralaren omenez estatua bat egitea erabaki zuen[1068]. Bi datu horiek adierazten digute 1869an izendatutako udalkideak korronte liberal demokratan kokatzen zirela.

Amadeoren erregetzak pare bat urte iraun zuen eta bere ezaugarri nagusia ezegonkortasuna izan zen[1069]. Haren dimisioaren egun batzuetara —1873ko otsailaren 11n— aldarrikatuko zen I. Errepublikak ezegonkortasun-giro hura areagotu baino ez zuen egingo.

1871ko Gorteetarako hauteskundeak

Amadeo I.a errege izendatu ostean, Gorte Konstituziogileak desegin eta Kongresu eta Senaturako ordezkarien hauteskundeak iragarri ziren. Hauteskunde horiek 1871ko martxoaren 8, 9, 10 eta 11n egin ziren, eta horietan Eibarko biztanleriak jokaera politiko desberdina aurkeztu zuen Deba bailarako gainerako udalerriekin alderatzen badugu. Bergarako barrutian bi hautagai aurkeztu ziren: Francisco Elortza —liberalen hautagaia— eta Manuel Unzeta Murua, karlisten ordezkaria. Beheko taulan ikusten denez, Francisco Elortzak gehiengoa lortu zuen Eibarren — botoen % 81,4—, baina barruti mailan % 13,6 baino ez zuen eskuratu. Beraz, Bergarako barrutian Unzeta nagusitu zen.

	Eibar	Elgoibar	Bergara	Arrasate	Oñati
F. Elortza	266	61	46	12	145
M. Unzeta	61	414	880	472	798

1067. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1871-1-29.

1068. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1871-5-27.

1069. «Durante su reinado los hechos más característicos serían, junto a la inestabilidad ministerial, derivada en gran parte del conflicto personal que enfrentaría a los dos delfines de Prim, Sagasta y Ruiz Zorrilla, y del de ambos con Serrano y su fracción política, las segunda guerra carlista y el conflicto interno dentro del Ejército, que provocaría la disolución del Cuerpo de Artillería y con este Decreto, el de la abdicación del Rey» (Eyara, 1980: V. kapitulua, 197-198).

Elortzaren nagusigoa Eibarren alferrikakoa izan zen, botoen batuketa barruti mailan eginez gero, eibartarrek bultzaturiko aukera bigarren postuan gelditzen zelako. Datuok argi eta garbi islatzen dute Iraultza Loriatsuan ere Eibarrek uharte liberal bat izaten jarraitu zuela, tradizionalismoaren itsasoan. Baina oraingo honetan tradizionalismoa, itsasoa barik, laku multzo bat zen Europako lurralde konstituzionalisten baitan.

Mutrikuko Batzar Orokorrak (1871)

Martxoko hauteskundeek utzitako emaitzek adierazten zutenez, gizonezkoen sufragio orokorra oso arriskutsua bihur zitekeen Gipuzkoako erakundeak kontrolatzen zituzten liberalentzat. 1871ko abenduan egin behar ziren udal-hauteskundeetan emaitza horiek errepikatzen baziren, udalik gehienak karlisten esku gelditukо ziren eta bide horretatik, liberalen hegemonia hautsiko zen Batzar Orokorretan. Beraz, ideologia aldetik kontraesan galanta suposatu arren politikoki komenigarria zenez, Mutrikuko Batzar Orokorretan sufragio murriztua berrezartzen zuen araudia onartu zuten[1070]. Batzarrean zeuden herrietatik, laurek baino ez zuten kontra bozkatu: Lizartzakoak, Billabonako batek, Ordiziakoak eta Eibarkoek (Castells, 1985: 1282), Felix Gisasolak eta Ignacio Ibarzabalek. Eibarko udalerria, beraz, sufragio orokorraren aurkako konplotean sartu ez zen bakarretako bat izan zen, eta lauren artetik garrantzitsuena. Eibarko ordezkariek aurkezturiko jokabidea ideologia aldetik koherentea izateaz gain, politikoki komeni zitzaien, Eibarren sufragio orokorrak iraultzaileen boterea bermatzen zuelako, eta ez karlistena.

Araudi horrek boto-eskubidea kendu zien irakurtzen eta idazten ez zekitenei; 40 biztanletik gorako herrietan, errentarik altuenak zituzten lehen 40ek baino ez zuten boto-eskubidea, gehi errenta zuten gainerakoen hamarrenak. Sistema hau 1845ean moderatuek udal-hauteskundeetarako egindako legean oinarritzen zen, eta iraultzaren oinarriekin kontraesan nabarmenean zegoela esan beharrik ez dago. Egia esan, karlistentzat ere kontraesankorra zen udal-hauteskundeak sufragio orokorraren bidez irabaztea, pentsaeraz auzokide hautagaien sistema defendatu behar zutenean. Ondorioz, karlistek sufragio orokorra erabili egin zuten, baina inoiz ez aldarrikatu. errepublikano federalak izan ziren eskubide hau sutsuen aldarrikatu zutenak, eta Donostiako komiteak bere iritzia Madrileko Kongresura eramatea lortu zuen, Hilario Sánchez diputatuaren bidez[1071].

1070. «Los liberales guipuzcoanos mostraban su oposición a uno de los principios básicos del programa revolucionario: la libertad de sufragio. El motivo alegado era el temor ante una victoria de los carlistas, de modo que su defensa de los principios liberales estaba condicionada a la posibilidad de victoria. En caso contrario estaban dispuestos a adoptar los antiguos sistemas censitarios» (Urquijo, 1994: 65).

1071. Hilario Sánchezek azaldu zuenez Mutrikuko Araudiaren aplikazioak «… supondría la pérdida del derecho a voto del 75 % de los electores. Añadía que el verdadero motivo de esta ordenanza era sostener en el poder a “una oligarquía que domina de antiguo en Guipúzcoa (…) aplicando, ya el

Eskakizunaren mamia argitzen ez zen bitartean, azaroaren 4an gobernuak udal-hauteskundeak bertan behera utzi zituen Gipuzkoan. Hurrengo asteetan errepublikano federalek sufragio orokorraren aldeko aldarrikapenak berretsi zituzten Madrileko kongresuan, baina karlisten bigarren altxamenduak abenduan bigarren mailan utzi zuen eztabaida hori. Gipuzkoako liberalek ez zuten Madrileko kongresuak Mutrikuko araudia onartzerik lortu, baina bai benetan nahi zutena: 1871ko udal-hauteskundeak ez egitea. Eibarren ere ez ziren egin, eta 1869ko zinegotziek 1873ko ekainera arte aritu behar izan zuten.

1872ko Gorteetarako hauteskundeak

1871ko abenduan Sagasta jarri zen Madrileko gobernuan buru, eta Kongresua desegiteko baimena lortu zuen Amadeorengandik. Hauteskundeak 1872ko apirilaren 2, 3, 4 eta 5ean egin ziren. Ordurako Gipuzkoako errepublikano federalak ustezko liberal demokraten trikimailuez aspertzen hasita zeuden[1072], eta horietariko batzuk matxinada prestatzen zebiltzan. Miguel Dorronsororen bidez altxamenduan parte hartzea eskatu zieten karlistei, «… con los que prometen estar en paz, y no oponerse en nada a sus proyectos y determinaciones» (Castells, 1985: 1281). Beraz, Gorteetarako hauteskundeetan Gipuzkoako errepublikano federalek Dorronsoro karlistarentzat eskatu zuten botoa, baina federalista guztiak ere ez ziren iritzi berekoak. Castellesek Fernando Torralbaren kasua aipatzen du, zeinak karlista eta federalisten koalizioan parte hartzeari uko egin zion. Eibarri dagokionez, hauteskundeek iraun zuten hiru egunetan eibartar bakar bat ere ez zela botoa ematera hurbildu ikusirik[1073], hasiera batean pentsatu genuen abstentzioa zela Eibarko errepublikano federalek karlistekin bat egiteko politika gaitzesteko zeukaten modua; baina errealitatean gertatu zena hau da: Gipuzkoako liberalek Lasala aurkeztu zutela Donostialdean, eta gainerako barrutietan hautagaiak bilatzeko ardurarik ere ez zutela hartu. Edonola ere, arraroa egiten da inor ere ez joatea botoa ematera, karlistak izanda ere. Itxura denez, 1872koa kasu berezia izan zen, 1873an eibartarrek berriro Gorteetarako hauteskundeetan parte hartu baitzuten.

---

fuero, ya la Constitución, según conviene a sus determinados fines" (…) Advertía del peligro que entrañaba negar a un partido su derecho a ganar las elecciones, porque le empujaban hacia la insurrección» (Urquijo, 1994: 70).

1072. Castellesek errepublikano federalei buruz dioenez: «Su línea política se caracteriza por la confrontación abierta con los liberales a los que consideran como "los mayores enemigos de la patria", incluyendo también en estas críticas a los republicanos moderados. El director del periódico que poseían en San Sebastián, Bernardino Tejedor, expone cómo esta publicación "ni se ha separado ni se separará jamás del blanco de sus tiros; el de los falsos liberales, el de los revolucionarios mentidos"» (Castells, 1985: 1280).

1073. Apirilaren 3ko aktak hala dio: «Dadas las cuatro de la tarde sin que se hubiese presentado ningún elector que quisiese votar, se dio por terminado, ordenándose participarlo a quien corresponda», eta esaldia hurrengo bi egunetako aktetan errepikatzen da, EiUA, "Expedientes de elecciones para diputados a Cortes", 1872ko apirila.

Armak dantzan

Miliziano liberalek, "*Voluntarios de la Libertad*" izena hartu zuten Iraultza Loriatsuaren garaian, guretzat "Askatasunaren Boluntarioak". Ez dakigu zehatz-mehatz noiz eratu ziren ofizialki, baina 1869ko uztailerako bai behintzat, Ignacio Ibarzabal komandanteak boluntarioentzat armak eskatu baitzizkion udalari[1074]. Abuztuan udalak kartutxoen uhalak erosi zizkion Gasteizeko Faustino Perezi[1075]. Eibarrek 900 boluntario eduki zituela kontuan hartuta, udalarentzat ez zen lan erraza izango haien premia guztiak bermatzea, batez ere udalari uniformeak eta soldata eskatu zizkiotenean[1076].

1869ko abenduan armada Eibar eta Elgoibarren sartu zen. Altxamendu karlista oraindik hasi gabe zegoen, baina giroa nahiko berotuta zegoen foru-herrialdeetan. Agintari karlistak oraindik bide parlamentarioa lehenesten bazuten ere[1077], alkateen atxiloketek herritarren haserrea areagotu zuten, eta txinparta edozein lekutan piztu ahal zen. Debarroak armagintza-gune indartsua izaten jarraitzen zuen, eta bere kontrola ziurtatzea oso garrantzitsua zen. Udala, bere aldetik, estu eta larri ibili zen soldadu liberalentzat ostatua aurkitzeko orduan[1078]. Hurrengo urteko maiatzean gudaroste liberala berriro Eibarren zen. Ez dakigu armadaren etorrera hori, gertatu ziren istiluen arrazoi edo ondorio izan zen, baina hurrengo eguneko batzar berezia gobernadore zibilaren lehendakaritzapean burutu zen, eta bake eta konkordiarako deia egin zuen. Agian istilu horrek Kultu eta Kleroaren Zerga ezartzearekin zerikusia izan zuen, baina ez da ezertxo ere zehazten.

Altxamendu karlistari buruzko lehen aipamena 1871ko otsailekoa da, eta zehazten denez Juan Cruz Etxeberria tenienteak Donostiara arte jazarri zuen karlisten gudu-talde bat. I. Karlistaldian bezala boluntario horiek ez ziren euren herria babesteaz konformatu, eta inguru zabal bat kontrolatzeko ardura hartu zuten, «… haciendo frecuentes salidas para proteger pequeñas guarniciones de Elgueta, Elgoibar, Marquina y Ondárroa»[1079]. Aretxabaleta aldean ere, zer esana izan zuen

1074. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-7-22 eta 29.

1075. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-8-30.

1076. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1870-4-28 eta 1870-9-2.

1077. «En noviembre se volvieron a escuchar rumores de una insurrección comandada por Cabrera. A la vez se encontraron depósitos de armas con 600.00 cápsulas para fusil y 450 fusiles en las inmediaciones de Irún (…) a los largo del año 1869 se vivía en un ambiente de incertidumbre en las Provincias Vascas, debido a las labores de agitación que desarrollaban los carlistas. Ello no era obstáculo para que éstos siguiesen manteniendo su actividad institucional» (Urquijo, 1994: 53).

1078. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1869-12-11.

1079. San Martín, Juan: *Enciclopedia Ilustrada*…, 257. or. Piralak Eibarko boluntarioek Ondarroa aldera egindako irteera baten berri ematen digu. Itxura denez, 1873ko urtarrilaren 10-13 bitartean: «En la parte opuesta, el alcalde de Motrico marcho a Ondárroa con sus voluntarios a esperar a Goiriena que habia desafiado al alcalde del último pueblo, aguardando en vano la presentacion del retador, que fue batido en Vizcaya, Tambien acudieron algunos voluntarios de Eibar» (Pirala, 1876: 179). Eta 194. orrialdean, 1873ko otsailaren 2koa, honako hau hurbilago izan bazen ere: "Otros

Eibarko Askatasunaren Boluntarioen musika-bandak[1080]. Eibarren, boluntario liberalek izan zuten sostengu ekonomiko eta ideologikoa ukaezina izan zen. Prudencia Atxak, Manuela Baskaranek, beste emakume batzuekin batera, Eibarko boluntarioen konpaniaren ikurrina josi zuten. 1872ko abuztuan, Eibarko ordezkaritza politiko-militarrak Amadeo I.a bisitatu zuenean, erregeak boluntarioen lana eskertu zuen bereziki[1081]. Bertsotarako gairik ere eman zuten, alde zein aurka. Aldekoen artean, Eibarko bertsolari ezezagun batek, batasunera eta zuzen jokatzera deitzen zituen:

Eibarko boluntariyoak
eta nere lagunak
alkar maitatutzeko
egin alegiñak
gauza on guztiak dira
unioak egiñak
iduki tesoia ta
izan danok fiñak (Zabala, 1997: 335).

Kontrakoek, ordea:

Eibarko txapelgorri
Madarikatuak
bi pesetarengatik
odola salduak.
Eta tira eta tunba
eta tira berari (bis)

1872ko apirilean 21ean karlisten altxamendu ofiziala gertatu zen, eta Gipuzkoako mendiak inolako prestakuntza, horniketa edota helburu argirik ez zeukaten gudu-taldetxoz bete ziren, behin baino sarriago apaiz bat buru zutelarik. Maiatzaren 2an Karlos VII.a Orokietatik sartu zen, baina Moriones jeneral liberala jakinaren gainean zegoen, eta erregegai gazteak ozta-ozta lortu zuen ihes egitea. Egun batzuk geroago, maiatzaren 5ean, Recondoren gudu-taldeak anoak ateratzea lortu zuen Eibartik (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 163, 1. aipua). Baina Orokietako

carlistas se dirigian el mismo día por Malzaga a Elgueta; salió en su persecucion el batallón de los decididos voluntarios de Eibar, y se tiroteó con la retaguardia enemiga, causándola algunos heridos, y cogiendo un prisionero y varios efectos».

1080. «… hallándose de de paso en Arechavaleta la banda de música de los voluntarios de la libertad de Eibar, se produjo un tumulto la noche del 25 de mayo de 1869 por unos muchachos de Mondragón "dando vivas a Carlos VII y mueras a la libertad". Hizo falta para restablecer el orden la acción de unos miqueletes forales de Salinas de Léniz, llamados por el propio alcalde de la villa vecina de Escoriaza» (Rodríguez de Coro, 1980: 202-203).

1081. «… habiendo tenido una acogida benévola por parte del Rey, particularmente por los servicios prestados por este vecindario en las circunstancias actuales…» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1872-8-8.

porrota kolpe gogorra izan zen karlistentzat[1082], batez ere bizkaitarrek Zornotzako Ituna sinatu zutenean. Foruak bermatzearen inguruan buruturiko itun hau oso kritikatua izan zen, bi alderdietatik: karlistek traizio bat bezala hartu zuten Bizkaiko gerra-diputazioak izan zuen jokabidea; liberalen ustez, oso arriskutsua zen foruak aipatzea altxamenduaren arrazoi moduan, arriskuan jartzen zituelako. Horrela aipatzen zuen lehengo bertsolari ezezagunak:

Fueroak defenditzeko
ez da bear armarik
gobiernuaren kontra
egon baño geldirik.

Euskal Erri onetan
ez dago kintarik,
ezta kontibuziyoa
pagatu bearrik
ezpadute entregatzen
karlistak armarik
oker oiek guziyak
espero ditut nik.

Eta eibartarrak gobernuari zintzo mantentzea eskatu ostean, karlisten kontraesanak jartzen zituen agerian:

Gobiernuan fabore
eibartar guzia
dakigulako nola
dan gure legia
ez luke jaso bear
Bizkaian armia
Kastillan jarritzeko
oien erregia (Zabala, 1997: 334).

Santa Kruz apaizaren salbuespena izan ezik[1083], udazkenean liberalek egoera kontrolpean zuten. Gipuzkoako liberalek atsedenalditxo bat hartzeko aukera zuten, abenduko altxamendutik aurrera gerra-egoera etengabea izango baitzen. Are gehia-

1082. «En Guipúzcoa, Alava y Navarra cundirá el desaliento como consecuencia, tanto de la escaramuza de Orokieta, como del convenio firmado en Amorebieta por los vizcaínos. De esta manera a los largo del mes de Junio las partidas armadas, cuya actividad se ha reducido ostensiblemente, licencian a sus hombres y los jefes huyen a Francia» (Eyara, 1980: VI. kapitulua, 223-224).

1083. «Del 16 al 24 de Mayo de 1872, la entrega y rendición del carlismo fue total; excepción hecha de Santa Cruz que quedó sólo en el monte con su reducida partida (…) se ocultaban de día y hacían sus correrias de noche, reuniendo fusiles diseminados, procurándose otros nuevos, proporcionándose municiones, y comenzando una vez más, la ardua e ingrata tarea de crear nuevos depósitos», KMK, FGG, 091.APA, 108. dok.

go, Amadeo erregeak abdikatu eta Madrileko Gorteek I. Errepublika proklamatu zutenean. Ordutik aurrera karlismoaren helburu nagusia espainiar monarkikoak bere aldera irabaztea izan zen, eta oraingo honetan dinamika militarrak ez zuen helburu politikoaren zilegitasuna baldintzatzen, errepublikaren aurka armaz altxatzea bidezkoa zelako monarkiko gehienentzat.

… ERREPUBLIKAREKIN TOPO

Eibarko ituna

Errepublikaren garaia inolako aipamenik gabe hasi zen Eibarko Udalean. Egia esan, errepublikazaletasunaren hastapenak Gipuzkoan —eta euskal lurraldeetan oro har— ez dira oso ezagunak. Gipuzkoari dagokionez, gaia sakontasunez ikertu duen bakarretarikoa Mikel Urquijo izan da. Erabili dituen iturriak —hemeroteka gehienbat— Donostialdeko eta Tolosako komiteen jardueran oinarritzen bada ere, zenbait eibartar aipatzen ditu bere ikerlanean, eta datu horiek benetan aberasgarriak ditugu, datu-basean gordeta daukagun informazioarekin alderatuta. Garmendiaren ustez gainera, Eibarko armaginen kasuak bereziki ikertzea merezi du[1084], elizaren magaletik aldentzeko gaitasuna agertuz, errepublika federala bihotzez onartu zutelako. Tortosako Ituna eredutzat hartuz (1869-5-18), estatu espainiarreko federalistak antolatzen hasi ziren. Ildo horretatik Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errepublikano federalistek Eibar aukeratu zuten lau herrialdeen arteko ituna sinatzeko. Aukeraketa horren arrazoiak bilatzerakoan, ezin da gutxietsi mugimendu errepublikanoak Eibarren izango zuen indar berezia, ezta kokapen geografikoarena ere, lau herrialdeetatik gertuen zegoen gune errepublikanoa Eibar zelako[1085].

Eibarko Ituna ekainaren 23an sinatu zen, San Joan bezperan, eibartarrak jaigiroan murgilduta zeudenean. Foru-lurraldeetako 28 komitetako ordezkariak hurbildu ziren Eibarrera, horien artean Bilbokoa, Irunekoa, Tolosakoa, Gasteizekoa, Iruñekoa, Tuterakoa… Pi i Margall bera Eibarren zegoen ituna sinatu zen egunean, baina hori ez da hain arraroa, politikari eta intelektual katalana bergarar batekin ezkonduta zegoela baitakigu. Akordio hauek hartu ziren: alderdiaren antolaketaeredua herrialde mailako komitearen esku uztea; Kontseilu Federal bat osatzea, Eibarren edo egoki ikusten zuten lekuan bilduko zena; egunkari bat argitaratzea,

1084. «Se sabe también que este clero fue seguido por la inmensa mayoría de los habitantes de las provincias vascas que no pensaron un solo instante en optar por la república federal (64) juzgada como demasiado hostil al catolicismo» (Garmendia, 1985: 35). Eta 64. aipuan zehazten duenez: «Hay excepciones como la de los obreros armeros de Eibar que merecerían un estudio».

1085. 1869ko maiatzaren 30ean *Irurac-Bat* egunkariak euskal errepublikanoen asmoen berri ematen zuen, *La Correspondencia* egunkari errepublikanoari jarraituz: «El partido republicano de las provincias Vascongadas y de Navarra está trabajando por organizar una fuerte confederación de los comités existentes bajo la dirección de un comité central, que se establecerá en cualquiera de las poblaciones que por su posición geográfica, o por tener en ella más vitalidad, mereciese la preferencia» (Urquijo, 1994: 169).

"*Laurac-Bat*" izenekoa. Izen horrek adierazten digu euskal errepublikanoen egitasmoak Nafarroa barne hartzen zuela eta Nafarroako errepublikanoentzat ere, naturalena, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoekin biltzea zela. Era berean, liberal foruzaleen ikuspegiaren mugak seinalatzen zituzten, haien egunkaria "*Irurac-Bat*" deitzen baitzen.

Eibarko errepublikanoak

Itxura guztien arabera Eibarko errepublikano federalen "*alma mater*"a Vicente Agirre osagilea izan zen[1086]. Ez zuen behin ere parte hartu udal-gobernuan, baina Iraultza Loriatsuaren bultzatzaile legez agertuko zaigu, ez soilik herri mailan, baita herrialde mailan ere. Ibilbidean utzi zituen aztarnak argigarriak dira errepublikano honen jokabidea balioesteko orduan. Iraultzaren lehen momentuan, Agirrek alderdi liberalaren programa adosteko Gipuzkoako komiteen batzarrean parte hartu zuen, errepublikanoak ez ziren Eibarko beste lau ordezkarirekin batera. Gainera Agirre agertzen da zerrendaren buruan. Sei hilabete beranduago, Eibarko Itunaren sinatzaileen artean aurkitzen dugu, oraingo honetan Gipuzkoako errepublikano federalisten izenean. Aipagarria da gipuzkoarren izenean sinatu zuten zortzi lagunetatik gutxienez hiru eibartarrak izan zirela: Justo María Zabala eta Felipe Aristegi errepublikano ospetsuen ondoan zeuden Vicente Agirre, Jose Cruz Etxeberria (Askatasunaren Boluntarioen tenientea) eta Inocencio Ortiz de Zarate, errepublika garaian Eibarko alkatea izango zena.

Asmoak asmo, badirudi euskal federalistek ez zutela euren arteko koordinazioa mantentzeko gaitasunik erakutsi, eta tokian tokiko dinamikak nagusitu zirela. Ez daukagu behintzat beste bileren aipamenik. Vicente Agirre, *Laurac-Bat* egunkariko laguntzaile izendatu zuten, baina estatu mailan federalistek egin zituzten batzarretan Pi i Margall eta Justo María Zabala aritu ziren Gipuzkoaren izenean. Herri mailan ere, Agirrek ez zuen parte hartu 1873ko ekainean errepublikano federalek burutu zuten protestan. Justu sasoi horretan nafarreriaren izurritea zabaltzen ari zela jakinda, ziur asko Agirrek lehentasuna eman zien osagile legez zituen ardurei[1087], eta politika-girotik aldendu egin zen zertxobait. Berari buruz

1086. Vicente Agirre Gisasola 1422. zenbakiarekin agertzen da 1861ean egindako erroldan. Orduan 28 urte zituen, eta jada Eibarko osagile legez lan egiten zuen. Ezkongabe zegoen, eta ama alargunarekin eta anai-arrebekin bizi zen. Pedro Zelaiak dioenez Bizente Agirre (1829-1907) sendagilea eta filologo autodidakta aurreratua izan zen. Bere izkribuak Euskal-Erria aldizkarian agertu ziren 1882. eta 1887. urteen artean. Juan Antonio Mogel eta Luis Luciano Bonaparte printzearekin harremanak izan zituen (Zelaia, 1994: 80). Agirre, lanbidez osagilea eta ideologiaz errepublikanoa, aitzindaria izan zen euskararen inguruko ikerketetan. Bere lanik ospetsuenak —*Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra*— euskal hizkuntzaren inguruko hausnarketa sakonak eskaintzen dizkigu, oraindik orain. Sarasketak argitzen duenez, Buenos Airesen hil zen, Argentinako Errepublikan (Sarasketa, 1909: 46).

1087. 1872ko abenduaren 12an udalak nafarreriaren aurkako txertoen dirua ordaindu zion Vicente Agirreri, EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1872-12-12.

gelditzen zaigun zalantza bat Ignacio Ibarzabalekin izan zuen harremanari buruzkoa da. Biak errepublikanoak izanda ere, Agirreren pentsaera federalista zela badakigu —Pi i Margallen eredukoa—, Ibarzabal ziur asko errepublikano baterakoien orbitan ibiliko zelarik.

Errepublikanoak baino ezkerrerago zeuden internazionalistak, hau da, Bakunin edo Marxen jarraitzaileak. Agirreazkuenagak Eibarko internazionalisten aipamenik egiten ez badu ere (Agirreazkuenaga, 1982: 324-376), Extramianak dioskunez: «De las 130 asociaciones obreras de España en 1870, la mayor parte se hallaban en Cataluña y, en segunda posición, mucho más atras, venía Andalucía. EN el País Vasco sólo había tres, en esa fecha: en Bilbao, Eibar y Vitoria» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 105)[1088]. Eibarko internazionalisten nortasunak ezagutzea oso interesgarria izango litzateke, baina zoritxarrez ez dugu 1870eko kongresuaren aktak aztertzeko aukerarik izan.

Errepublikaren Boluntarioak

I. Errepublika 1873ko otsailaren 11n proklamatu bazen ere, Eibarren ekainera arte ez zen zinegotzien aldaketarik burutu, gerra-egoerak beste dinamika guztiak baldintzatu zituelako. Eibarko errepublikanoek euren batailoi propioa sortu zuten, "*Voluntarios de la República*" deiturikoa, eta gutxi gorabehera 250 boluntarioek osatu zuten. Udalak armak erosi zituen haientzat, eta 250 uniforme egiteko enkargua enkantera atera zuen[1089]. Itxura denez, talde militar berri horren sorkuntza ez zen herritar guztien gustukoa izan, martxoaren bukaeran zenbait herritarrek boluntario errepublikanoen jokabideari buruzko kexu bat bidali baitzioten Gobernazio-ministroari[1090]. Egun berean jakin zenez, errepublikanoen uniformeak egiteko enkantean inork ez zuen ardura bere gain hartu.

GAOn gordetzen den txosten batek, Errepublikaren Boluntario batzuen nortasunak argitzeaz gain, Eibarko biztanleek Gobernazio-ministroari bidalitako kexua zerk eragin zuen argitzen lagunduko digu. I. Karlistaldian bezala, Eibarko armagin batzuek, armak eta munizioak Ermutik kanporatuz, karlistei saltzen zizkieten. Kanporaketak gauez egiten ziren, eta itxura denez, elkarren berririk ez zeukaten sare txikien bitartez. 1873ko martxoaren 1ean, Eibarko Errepublikaren Boluntarioak Jose Miguel Retenaga ermuarraren etxean sartu ziren, armen bila. Etxe guztia miatu ostean ez zuten ezer aurkitu, baina kanpoan, etxe eta dendaren artean zegoen iralekuan topatu zituzten hogei "*carabinas revolvers*", kargatutako bi mila kartutxoz

1088. Erabiltzen duen iturria hau da: Termes Ardevol, J.: *El movimiento obrero en España. La primera internacional*, Barcelona, 1965, 178 or.

1089. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-3-16.

1090. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-3-29.

gain[1091]. Retenaga ez zegoenez etxean, Errepublikaren Boluntarioek «… a su madre viuda le habian dado maltratado y luego que la llebaban presa a Eibar»[1092].

Ekintza horretan Facundo Atxotegi, Remigio Etxeberriak, Francisco Luis Gisasola, Juan Bautista Anitua, Marcelino Arriaran, Aureliano Unzueta, Anselmo Osoro, Benigno Bergara, Jose Manuel Gisasola eta Juan Andres Mendizabal boluntario errepublikanoek parte hartu zuten, Ilario Asperen gidaritzapean; errepublikanoen jokabidea —«… maltratando a su madre Dominica de Birichinaga de obra y de palabra»— benetan gaitzesgarria izan zen, eta beharbada gertakizun hauxe dugu Gobernazio-ministroari bidalitako eibartarren kexua eragin zuen ekintza, eta errepublikanoen uniformea egiteko enkantera inor aurkeztu ez izanaren arrazoia. Lege Zaharreko ama bati zegokion moduan, Dominica Biritxinagak ondo baino hobeto ezagutuko zituen bere semearen nondik norakoak, baina ez zeukan errepublikanoen gehiegikeriak zertan pairatu. Horrekin lotuta, Retenagari armak eraman zizkiona Juana María izateak, «… muger del barrendero de esta villa Ramon de Maguregui», matxinada karlistan emakumeek jokatu zuten funtsezko paperaren hipotesia indartzen du. Hilaren bukaeran, Feliz Gisasola alkatea kexu agertzen zen karlisten gudu-taldeekin kolaboratzen zutenen aurka aritzeko orduan, «… lamentando que la legislación democrática no se adapte a las circunstancias» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 213).

Ekainean, miliziano liberalek erresistentzia karlistaren aurkako beste ekintza bat egin zuten, oraingo honetan protagonistak Askatasunaren Boluntarioak izan baziren ere. Santiago Azkoitia eibartarraren testigantzaren arabera, bere anaiak eskatuta "Txaltxakua" baserrian arma batzuk ezkutatu, eta ekainaren 14an Ermuko Ibur errekaren ondoan utzi zituzten, San Lorentzoko ermita parean. Etxerantz itzultzen ari zela bere herriko milizianoek atxilotu, eta sei hilabete eduki zuten preso[1093]. Domingo Unamuno ermuarra, ordea, ez zuten harrapatu. Horrek zioenez, armak garraiatzen ari zirela Eibarko boluntarioak agertu eta gurdia eta idiak utzita alde egin behar izan zuten. Ihesean, ibaira dzanga egin behar izan zuen Unamunok, eta ordu eta erdi egon behar izan zuen uretan ezkutatuta, Santa Kruz apaizak egin zuen bezalaxe Aramaionako ihesaldiaren ostean. Ermura itzuli ostean, bere bi bazkideetariko batek —Juan María Ormaetxeak— herritik alde egin behar izan zuen «… por cuanto fue sumariado por el Gefe de la guarnicion de Eibar»[1094].

1091. Retenagak zioenez, 1873ko martxoaren 1ean «en esta mi casa se presentaron los milicianos de Eibar y detuvieron llevandoselas veinte carabinas rebolber con dos mil cartuchos cargados de la dicha clase, mas veinte y cinco monturas de carabinas giratorias y cuatro mil cartuchos sin cargar», GAO, JD AIM, 417, "Reclamaciones con motivo de los daños causados a los carlistas por los Republicanos", 1873-9-29.

1092. GAO, JD AIM, 417, "Reclamaciones con motivo de los daños causados a los carlistas por los Republicanos", 1873-8-20.

1093. GAO, JD AIM, 417, "Reclamaciones con motivo de los daños…", 1873-9-29.

1094. GAO, JD AIM, 417, "Reclamaciones con motivo de los daños…", 1873-9-29.

Eibar aldeko inplikatuei dagokienez, badago ezustekorik. Itxura denez garraioaren arduraduna Celestino Etxeberria izan zen[1095], baina armen ekoizlea Ciriaco Iturrioz genuen. Ciriaco Iturrioz, Batzar Iraultzaileko lehendakaria, Udal Herrikoiko alkatea eta 1869ko udal-hauteskundeen geroztik Eibarko bigarren alkatea! 1874ko abenduan Iturriozek berak egindako testigantzan zioenez, 1872ko apirila eta ekaina bitartean —hau da, karlisten lehen altxamenduaren garaian— liberalek 31.712 errealen balioko armak bahitu zizkieten Feliz Gisasola alkatearen aginduz «… debidos a los servicios que estaban prestando a la Causa que no podian llevar en paciencia los liberales de Eibar»[1096]. Hasiera batean, Ciriaco Iturriozen parte-hartzea zeharkakoa izango zela uste banuen ere —azken finean, negozioari lehentasuna eman behar zion, ideologien gainetik—, beste lekuko batzuen testigantzak karlisten kolaboratzaileen testuinguruan kokatzen du. Hala, Felipe Alberdik eta Jose Miguel Sagarzazuk ziotenez, Iturrioz eta Etxeberriaren kargamentua «… fue incautada por fundadas sospechas que se tenían de que era destinado para el ejército carlista por cuanto en aquella epoca fue público y notorio de ser así este acontecimiento sin que les quepa duda ninguna»[1097]. Gerraostean liberalek ere karlisten alderdian kokatu zuten Iturrioz «… fabricante de armas y de polvora fugado al entrar los liberales».

Ekintza horretan parte hartu zuten miliziano liberalen aldetik Jose Cruz Etxeberriak, Facundo Atxotegik eta Basilio Agirrek deklaratu zuten, eta ziotenez San Lorentzoko ermitaren inguruetako segadan Askatasunaren Boluntario gisa aritu ziren. Baina, ikusi denez, martxoan Atxotegi Retenagaren ama atxilotu zuten errepublikanoen artean zegoen, beste hamar boluntariorekin batera. Hamaika horietatik, gutxienez bost Askatasunaren Boluntarioak izandakoak genituen, agintekarguetan gainera: hala, Juan Bautista Anitua kapitaina izan zen, Jose Manuel Gisasola alfereza eta Atxotegi bera, kaboa. Beraz, Atxotegiren ibilbide militarra joan-etorrikoa izan zen: lehenik Askatasunaren Boluntarioekin, gero errepublikanoekin eta, azkenean, berriz Askatasunaren Boluntarioen konpainian. Militantzia bikoitzaren hipotesia ez genuke besterik gabe baztertu behar, baina kasu honetan boluntario errepublikanoen jarrera oldarkorrak Atxotegiren sinpatia errepublikanoak epeldu egin zituela esango genuke.

1873ko ekainaren 7ko udal errepublikanoa

Inolako hauteskunderik gabe, gobernadore zibilaren aginduz, Eibarko Udaleko partaide guztiak berriztu ziren ekainaren 7an. Izendatutako 12 zinegotzietatik 10ek

1095. Celestino Etxeberria Eibarko bigarren alkatea izan zen 1875 eta 1876an. Gerra bukatu ostean liberalek egindako karlisten zerrendetariko batean agertzen zaigu, «carlista fabricante de armas y polvora ausente» informazioarekin. Bitxia da errepublikanoen Eibarko Itunaren sinatzaileen artean, Celestino Etxeberria bat agertzen dela; pertsona beraren aurrean bageunde, benetan harrigarria izango litzateke pertsonaia honen bilakaera politikoa.

1096. GAO, JD AIM, 417, “Reclamaciones con motivo de los daños…”, 1874-12-2.

1097. GAO, JD AIM, 417, “Reclamaciones con motivo de los daños…”, 1875-4-21.

ez zuten ordura arte inolako udal-kargurik bete, eta horietatik hiruk ez zuten kargua onartu (Rufino Mandiolak, José Azpirik eta José Pagoagak). Karlisten mehatxuak guztiz baldintzatu zuen udalaren dinamika, bere ahalegin guztiak herriaren defentsa bermatzera bideratuz: ekainaren 12an auzoetako polizia-arduradunak izendatu ziren zinegotzien artean, eta 14an zinegotziek eta Errepublikaren Boluntarioen buruzagiek gotor-lanen batzordea eratu zuten. Lan horietan 21.033 erreal gastatu ziren, eta horren garrantziaz ohartzeko udaleko akta-liburuaren lau orrialde betetzen dituztela esatea besterik ez dago. Horrez gain, informazio- eta espioitza-ataletan izandako gastuak ikusita[1098], zerbitzuoi emandako garrantziaz ohartzen gara.

Defentsa-lan horien antolaketak Eibarko 17 errepublikano federalen protesta eragin zuen. Itxura denez, udalak udalerriaren ziurtasunaren ardura zozketaz irtendako biztanleen esku utzi zuen[1099], eta erabaki hori traiziotzat jo zuten errepublikano federalek, zaindaritza-lan estrategikoa karlistak izan zitezkeen biztanleen esku lagatzeko arriskua zekarrelako[1100]. Blas Treviñok ere errepublikanoen arteko ezadostasun hauen berri ematen digu, karlistei bideratu zien eskakizun batean[1101]. Beharbada, federalisten presioak eragindakoa izan zen ekainaren 29an Eibarko Udalak Errepublika federala aldarrikatu izana[1102], eta udaletxearen fatxadan Errepublikaren koadroa eta oroitarria jarri izana[1103]. Urte horretan Batzar Orokorretara joan ziren ordezkariek Mutrikuko Udal Ordenantza salatu zuten, eta Gipuzkoan, estatuko gainerako herrialdeetan bezala, sufragio orokorra berrezartzea eskatu zuten. Proposamenak ez zuen aurrera egin, baina Eibarko errepublikanoen kemenaren berri ematen digu.

Akta-liburuan inolako aipamenik aurkitzen ez dugun arren, uztailaren 13, 14 eta 15ean udal-hauteskundeak burutu ziren. Hona hemen emaitzak[1104].

1098. 1873ko apiril eta maiatzean zehar 3.906 erreal gastatu ziren «… ocasionados por las partidas que operaban sobre Eibar». Ordainketarik gehienak "Confidentes" arloan izan ziren. Sarrerak, aduanetatik eta beste arbitrio batzuetatik zetozen, baina bildutako 2.331 errealek ez zuten gastuak ordaintzeko lain ematen, GAO, JD IT 26 c, 8.

1099. «… se procedió al sorteo de vecinos no pertenecientes a la fuerza ciudadana, para prestar el servicio de correos y de vigías» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-6-8.

1100. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-6-22.

1101. Bere seme Joséri ezarritako isuna kentzeko eskakizunean hauxe zioen Treviñok: «… si bien es cierto que formó parte de las fuerzas republicanas, igualmente lo es que antes del 22 de Julio del año último dejó de pertenecer a ellas, por disidencias con sus Gefes», GAO, JD IT, 328 b 6, 1874.

1102. «… acordaron que el 29 del actual se celebre con toda solemnidad la proclamación de la República Federal» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-6-26.

1103. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-7-28.

1104. EiUA, A,3,14, 1873-7-13,14 eta 15.

	Udaletxean	Nesken eskolan	Mutilen eskolan	Guztira
Jose María Unzueta	126	3		129
Facundo Atxoategi	124	3		127
José Domingo Gisasola	124	3		127
Blas Salaberria	122	1		123
Inocencio Ortiz de Zarate	13	161		174
Diego Iñarra Iraegi	13	161		174
Pedro Martín Gisasola	13	161		174
Genaro Arbeloa	13	161		174
Jose Cruz Etxeberria			134	134
Cristobal Etxaniz			134	134
Fernando Arrate			134	134
Manuel Baskaran			134	134

Ikusten denez, 1873ko udal-hauteskundeetan errepublikanoek, biren ordez, hiru hautes-barrutitan banatu zuten udalerria. Hautagai gehienak barruti bakarrean aurkeztu ziren, eta horrek adierazten digu botoen kopuruak baino gehiago botoen pilaketak gehiago balio zuela. Hautatuetariko bost gobernadoreak izendatutako behinbehineko udaleko zinegotziak ziren ekainetik (Ortiz de Zarate, Arbeloa, Arrate, Iñarra Iraegi eta Atxotegi). Pixka bat harrigarria da Ortiz de Zaratek eta Atxotegik, biak errepublikano federalak izanda, hautes-barruti berdinetan lortu zuten boto kopuruen ezberdintasuna. Horrek adierazten digunez, ez zen bien arteko aliantzarik burutu botoak pilatzeko orduan, hau da, ez zuten kandidatura bateratu bat aurkeztu. Errepublikano federalak ere zatituta ote zeuden herri mailan?

Hauteskunde hauetan protestarik ere egon zen: José Francisco Barrenecheak, Felipe Alberdik, Domingo Zenarruzabeitiak, Florencio Saudek eta Pedro Aretiok indargabetzea eskatu zuten Jose Cruz Etxeberriaren eta Cristobal Etxanizen izendapenak «… el primero por ser contratista por cuenta del Estado y el segundo porque es socio con el mismo, segun publica voz, o cuando menos interesado directamente en la contrata, porque se ocupa en hacer entregas del armamento»[1105]. Udalak, esaten zutena frogatzeko eskatu zien helegileei, baina lortu ala ez alferrik izango zen, uztailean hautatutako udal errepublikano berriak ez zuelako eratzeko astirik izan. Karlisten ofentsiba militarrak beste lehentasun batzuk ezartzen zituen.

1105. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-7-28.

NORTASUNA	Mil-73	1873-6	Er. F.	K-L
ACHOTEGUI Facundo	Errep.	ER		L
VERGARA Benigno	Errep.			
ANITUA ECHEVERRIA Juan Bautista	Errep.			
ECHEVERRIA Remigio	Errep.			
UNZUETA Laureano / Aureliano	Errep.			
OSORO Anselmo	Errep.			
GUISASOLA José Manuel	Errep.			L
ASPE Hilario	Errep.			L
ARRIARAN Marcelino	Errep.			L
GUISASOLA Francisco Luis	Errep.			
MENDIZABAL Juan Andrés	Errep.			
IÑARRA IRAEGUI Diego	Bol. 83	ER		
GUISASOLA Florencio	Bol. 83	ER		K-L
ECHEVERRIA Salustiano	Bol.	ER		
ORTIZ DE ZARATE Inocencio	Bol.	A1		L
BONETA Matias	Bol.		ER.F.	
OREGUI Manuel	Bol.		ER.F.	
ANITUA Miguel	Bol.		ER.F.	L*
BARRENECHEA José Francisco		ER		
ARRATE Fernando		ER		L
ARBELOA Genaro		ER		
PAGOAGA José		ER		
AZPIRI José		ER		
ACHA Gregorio			ER.F.	
GUISASOLA GARITACELAYA Jose Antonio		ER		
MANDIOLA GUISASOLA Rufino		ER		L
RAMIREZ Francisco			ER.F.	
BARRENECHEA Frutos			ER.F.	L
ECHALUCE José María			ER.F.	L
IRAZABAL José Vicente			ER.F.	L
ALBERDI Felipe			ER.F.	L
CENARRUZABEITIA Domingo			ER.F.	
ALBERDI Esteban			ER.F.	
GARATE Gerónimo			ER.F.	
ORMAECHEA Francisco			ER.F.	L
RINCON Zoilo			ER.F.	
BETOLAZA Esteban			ER.F.	
LLUCH Francisco			ER.F.	L
ARANA Julián			ER.F.	L*
OLAISOLA Esteban			ER.F.	

"Mil-73" zutabea: "Bol." aukerak karlistek Eibar hartu zutenean, herritik alde egin zuten boluntarioak; "Errep" aukerak, 1873ko ekainaren 1eko ekintzan parte hartu zuten Errepublikaren Boluntarioak. "1873-6" zutabean, 1873ko ekainaren 7an gobernadore zibilak izendatu zituen udaleko partaideak. "Er. F" zutabean, "Er. F." aukerak, 1873ko ekainaren 22ko protestan parte hartu zuten errepublikano federalak.

Datu urri hauetatik ezin da gauza handirik ondorioztatu, baina hasiera batean errepublikanoen nukleo politiko ezberdinen dispertsioa nabaritzen da, batez ere udalkide errepublikanoen eta errepublikano federalen artekoa. Hipotesi legez, gobernadore zibilak izendatutako udalkideak errepublikano baterakoiak zirela pentsa dezakegu, eta zentzu horretan, logikoa da federalistarik ez aurkitzea udal-gobernuan. Beharbada, errepublikanoen familia ezberdinen batasuna arlo militarrean gauzatu zen, baina hau ere ez dago argi, ezagutzen ditugun 11 Errepublikaren Boluntarioetatik bakar batek parte hartu zuelako 1873ko ekaineko udalean, eta inork ere ez errepublikano federalen protestan. Errepublikaren Boluntarioen zerrenda osoa ez edukitzeak asko mugatzen gaitu euren jarduera balioesteko orduan.

Errepublikaren gainbehera militarra

Karlisten bigarren altxamenduak —abendukoak— arrakasta izan zuen, armatu eta prestatu gabeko gizonak tropelean mendira bidali beharrean, talde txiki eta eraginkorrak eratu zirelako, gudariak baino lehen armak lortu eta defentsa-azpiegiturak lantzeko helburu zehatzarekin[1106]. Hasiera batean, gobernuaren militarrei aurka egiteari uko egiten bazioten ere[1107], indartu ahala, konpainia liberalei eusteko gaitasuna erakutsi zuten, eta baita ezustekoren bat baino gehiago emateko ere. Gerrilla-estrategia horren parean, agintari karlistek armada erregularraren sorkuntza garatu nahi zuten, eta Gipuzkoan Lizarraga jeneralaren esku utzi zuten ardura hori. Eibarko boluntarioak, egia esan, Lizarragaren amesgaiztoa bihurtu ziren, berarekin topo egiten zuten bakoitzean eibartarrak irteten baitziren garaile[1108]. Behin gainera, Lizarraga euren atzaparretan eduki zuten baina ez ziren konturatu, jeneral zaharra ondoezak jota baserri batean sendatzen zegoela, Eibarko liberalak susmagarrien bila sartu baina ez zutelako ezagutu (Azurmendi, 1986: 144).

1106. Karlisten bigarren altxamenduaren testuinguruan Eibarko karlisten aurkako errepresioa areagotu egin zen. Extramianak dioenez: «El 13 de enero (1873) el gobernador firma la orden de detención del cura de Eibar J. Domingo Gabiola y del fondista de la misma ciudad J.M. Garate» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 246).

1107. «En esta clase de luchas y en Guipúzcoa, es cuestión de piernas la guerra: la persecución tiene que ser incesante, y siendo entendida, si no se destruye al enemigo, no se le permite medrar y se le cansa, se le hostiga, se le priva de recursos y se le va así aniquilando» (Azurmendi, 1986: 41).

1108. Gregorio Mugicak 1873ko udaberrian Eibarko boluntarioek egin zituzten irteeren garrantzia azpimarratzen du, «… pues entre las treinta y una salidas que verificaron fuera de su jurisdicción, de acuerdo con las autoridades militares, causaron al enemigo varios muertos y heridos, treinta y cuatro prisioneros armados, apoderándose también de 243 fusiles, varios caballos y efectos de guerra». Irteera hauen artean apirilaren 13ko irteera aipatzen du bereziki, zeinean «… tres compañías de voluntarios, situadas en el alto de Elosua, a seis horas de Eibar, rechazan a la facción de Lizárraga, fuerte de 500 hombres, que venía perseguida por las columnas de Cuenca y Loma, haciéndoles retroceder hacia las referidas columnas, causándoles varios heridos, de los que en el campo recogieron dos oficiales, la Caja del Batallón con 10.000 pesetas, corespondencia, víveres, municiones…» (Mugica, 1990: 55, 56).

Erregimen liberalarentzat askoz kaltegarriagoak suertatzen ziren gerrillari karlisten erasoak. Telegrafoen sabotaje sistematikoak, militar liberalen arteko komunikazioak eteten bazituen, trenbideen aurkako erasoekin soldadu eta horniketen garraioa oztopatzen zuen. Talde txikiak zirenez ez zuten igarotzen zituzten herriak asko zamatzen, eta uniformerik ez zutenez erabiltzen, herritarrekin identifikazio maila altua zuten. Gainera, gehienetan gudu-talde hauek gerrillarien sorlekuen inguruan aritzen ziren, eta uzta-biltzea gertatzen zenean, adibidez, euren baserrietara laguntzera joateko aukera bazuten. Bazegoen, gauez gerrillari ibili arren egunez nekazari esnatzen zenik ere. Talde hauen eraginez, 1873ko uztailerako erregimen errepublikanoak karlisten gudu-taldeak jazartzeari utzi, eta Gipuzkoan estrategia defentsiboa garatzea erabakia zuen, zenbait hirigune bereziki babestuz (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 163).

Gipuzkoan aritu ziren gudu-talde karlisten artean entzutetsuena Santa Kruz apaizarena izan zen. 1872ko abuztuan, San Prudentzion arma-konboi bat erasotu ondoren, harrapatu egin zuten Hernialdeko apaiza, baina hanka egitea lortu zuen, Aramaionako ihesaldi ospetsuan, eta Iparraldean babestea lortu. Erresistentzia umezurtz gelditu zen hilabete batzuetan, baina armada liberalaren gehiegikeriek biztanleriaren haserrea pizten zuten[1109], eta 1872ko abenduan Santa Kruz apaiza itzuli zenean, han eta hemen sakabanatuta zebiltzan gudu-taldeak bildu zitzaizkion[1110]. Diziplina militarrik ez eduki arren, oso zurruna zen bere gudu-taldeko mutilen jokabidearekin, bere ustez eredugarria izan behar zena[1111]. Baina ere berean maitagarria zen beraiekin[1112], eta armada erregularreko tratu aseptiko eta anonima-

1109. «Cuando se produce la insurrección armada (1872) el número de rebeldes no representa todavía, en porcentajes, sino una minoría ínfima de la población, pero ante la intervención del Ejército, el reflejo de las masas consiste en proteger a los guerrilleros, de forma que las unidades militares (…) acaban por cometer abusos con la población civil. Así, la dinámica de la guerra impulsa a los indiferentes a pasar al campo rebelde» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 398).

1110. «No hay que creer que el Cura era jefe de una formación fija y consistente; de una especie de batallón o regimiento con el que marchara siempre. No (…). En realidad su papel era el de jefe supremo de una confederación de partidas mandadas por cabecillas que habitualmente operaban con autonomía, cada uno por donde le parecía bien, y que cuando el Cura los convocaba para alguna aventura de más importancia, se reunían y peleaban juntos. A estas fuerzas divididas así, en partidillas minúsculas, y esparcidas por los montes, corriendo sin cesar de un lado para otro, era difícil asestar un golpe mortal», KMK, FGG, 091.APA, 108. dok.

1111. «Quería que sus soldados fuesen a manera de monjes guerreros (…) Eran para él una especie de congregaccón a la que se la habían dispensado sus votos para lanzarlos a la montaña. Matar, aterrorizar, poner la vida del enemigo en constante peligro, era necesario por que así lo reclamaba la causa; pero a condición de que cada uno de los partidarios fuese rígido consigo mismo y no se le pudiese reprochar nada. No podía tolerarse que la guerra fuese ocasión de comilonas, de borracheras y de bacanales» (Bernoville, 2000: 63).

1112. «Ningún jefe fue tan querido como él, y es que el cabecilla era como ellos, uno de su raza, de su sangre, ya a través de su cultura conservaba las mismas reacciones primitivas, sus mismos gustos, la misma obstinación de campesino vasco. Sabía mejor que nadie las palabras apropiadas para reanimarlos, las bromas que más gracia les hacían, y, sobre todo, ¡los amaba tanto!, que los que

toaren ordez, bere mutilak banan-banan ezagutzen zituen, eta ez zituen inoiz alperrik arriskuan jartzen. Detaile txiki hauetan bilatu behar ditugu Santa Kruzen mutilek euren nagusiarekin zuten identifikazio maila altuaren arrazoiak[1113]. Eurak izan ziren, Gipuzkoan behintzat, liberalak hiriguneetan babestera behartu zituztenak, komunikabideak suntsituz, tren-geltokiak errez, militar liberalen indarkeriari indarkeriaz erantzunez, azken finean.

Santa Kruz apaizak "*ojo por ojo, diente por diente*" legea aplikatzen zuen: miliziano liberalek gerrillarien senideak atxilotzen bazituzten, berak milizianoen senideak bahitzen zituen; frantziarrek Arroxko atxilotu zutenean, berak bi frantziar bahitu zituen, Arroxkorengatik trukatzeko; Tolosako milizianoek Anoetako apaiza hil zutenean —80 urtetik gora zituen—, Santa Kruzek bi miliziano hil zituen, hauek ere adinean sartuak. Beste behin, Tolosako milizianoek Miguel Ignacio Mugertza hil zuten, Albisturreko palankaria, gudu-taldearen laguntzailea izateaz gain, Santa Kruzen lagun mina; jakin zuenean Tolosara abiatu eta hiru mutilez lagunduta ate nagusiraino hurbildu eta sarrera zaintzen zeuden bi milizianoak hil zituzten bere aginduz. Inguruko etxe batean zegoen mikeleteak guztia ikusi eta Santa Kruzi tiro egitera zihoala, bere emazteak gelditu zuen, hauxe esanez: «¡No tires, por Dios, no tires, porque esas gentes se vengarán en ti, en mi y en nuestros hijos! ¡No tires, por María Santísima, porque vas a firmar nuestra sentencia de muerte!» (Bernoville, 2000: 104, 105). Santa Kruzen informazio-zerbitzuak benetan eraginkorrak ziren, eta liberalek ere bazekiten gehiegikeriarik burutuz gero, lepotik ordainduko zutela. Umorerik ere ez zitzaion falta, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak bere buruaren truke 10.000 errealeko saria eskaini zuenean, eman zion erantzuna ikusirik[1114]. Honek guztiak, erresistentzia karlistaren ikur bihurtu zuen, bai behintzat herritar xeheen

militaron a sus órdenes afirman unánimemente que, después de sus madres, nadie les ha querido de aquel modo. Jugaba a menudo con ellos, y los desafiaba a correr y a jugar a pelota. Les imponía fatigas indecibles y les hacía vivir en constante peligro; pero cada uno de ellos era para él un tesoro que no se debía arriesgar sino en último recurso, y con un resultado cierto» (Bernoville, 2000: 64). Apalategi Bildumako agiri batek dioskunez: «A todas estas sobresalientes cualidades, unía un atractivo casi encantador e himnótico para con sus soldados, quienes le adoraban y prestaban obediencia voluntariamente, teniendo en él confianza ciega. Los soldados no le consideraban su jefe, sino su padre y señor, como lo llamaban, pues unía a la severidad del señor, la caridad y el cariño del padre», KMK, FGG, 091.APA, 108. dok.

1113. Valle-Inclanek hala definitzen du bere mutilekin zuen lotura: «Su alma se comunicaba en el silencio con el alma de todos, sabía cuáles eran los mas fuertes, cuáles se consumían en una llama fervorosa, y los que peleaban ciegos, y los que tenían aquel don antiguo de la astucia. Para gobernarlos y valerse de ellos, los tenía en categorías: Lobos, gatos, raposas, gamos. A uno solo le llamaba el ruiseñor, porque era un versolari. Jamás hubo capitán que más reuniese el alma colectiva de sus soldados en el alma suya. Era toda la sangre de la raza, llenando el cáliz de aquel cabecilla tonsurado» (Valle-Inclan, 1994: 73-74).

1114. «Mucho me alegro que valga tanto mi cabeza. Mi hermana en Tolosa paga catorce o dieciséis reales y cuando es muy grande, dieciocho por la cabeza de un cerdo; más no puedo yo ofrecer por la cabeza del diputado Aguirre», KMK, FGG, 091.APA, 108. dok.

artean. Gaitzesle eta difamatzaile ugari izan dituen arren —Pío Baroja haien artean— Kruz apaiza, euskal erresistentziaren sinbolotzat hartu dutenak ere badira, Buenaventura Durruti militante anarkista besteak beste[1115].

Herritar askorentzat heroia bazen ere, Don Karlosen gortean Santa Kruz ez zuten batere maite. Inoren aginduen zain egon gabe bere kabuz borrokatzeko zuen joera horrek[1116], berak buruturiko zenbait ekintzaren inguruan egunkari liberal zein karlistek egindako manipulazioek, eta batez ere, karlistek armada erregular bat sortzeko zuten premiak, Manuel Santa Kruzen gainbehera eragin zuten, eta 1873ko uztailean Iparraldera alde egin zuen, karlisten artean borrokarik egon ez zedin. Hortik aurrera, II. Karlistaldia armada erregularren arteko borroka bihurtu zen, eta hasieran garaipen entzutetsuak lortu arren, gerra luzatu ahala estrategia horren ahultasunak gero eta gehiago nabarmendu ziren. Beraz, liberalen atzera-egitearen meriturik handiena gerrillariena izan bazen ere, etekinik garbiena karlisten armada erregularraren aldekoek atera zioten, zeren lurralde zabal bat menderatuta edukitzeak gerrarako gizonen errekrutatze masiboa ahalbidetu baitzien.

Deba bailara, karlisten menpe

Uztailaren 30ean, Lizarragak Elgoibar eraso zuen, «… a pesar de estar Loma —jeneral liberala— en Azcoitia y cerca los belicosos voluntarios de Eibar» (Hernando, 1877: 88). Goarnizioa elizan babestu zen, eta Lizarragak, elizkoia izan arren, su eman behar izan zion elizari, liberalen errendizioa lortzeko. Liberalen estrategia defentsiboa garatzeko Oñati, Bergara, Arrasate eta Azpeitia euren esku mantentzea funtsezkoa zela ikusirik, Arrasate erasotzea erabaki zuen, eta 20 orduko defentsaren ostean, liberalek amore eman behar izan zuten. Loma jeneral liberala Bergaran gelditu zen, eta hasiera batean Lizarragaren erasoari eutsi bazion ere, Deba bailarako herriak defendatzea ezinezkoa zela ikusirik, alde egin zuen Bergaratik abuztuaren 13an, «… y dio la orden de abandonar a Oñate, Azcoitia, Azpeitia, Deva, Motrico y otros pueblos, excepto Tolosa, Eibar y los comprendidos en la línea de San Sebastián» (Hernando, 1877: 90). Liberalek herri horiek laga ahala karlistek okupatu zituzten, eta Eibar militarki isolatuta gelditu zen, Lizarragaren begiradapean.

1115. «Pabellón de los piratas del mar cantábrico, bandera de los mutillak del cura Santa Cruz, y emblema de la revolución anarquista, la Rebelión anda siempre en el país vasco, a la usanza de su tradicional etxeko anderea, vestida de negro», Durrutik Likinianori egindako gutuna, Legassek aipatzen du (Legasse, 1995: 15).

1116. Bere diziplina-gabeziari ez dio inolako aitzakiarik jartzen Bernovillek, baina ñabardura bat eginez: bere taldearentzat eskatzen zuen autonomia errespetatzen ziela gainerako gudu-taldeei: «La guerrilla veut des petits groupes móviles, maniables et, dans bien des cas, Lasarte, Bikuna ou Soroeta opéraient avec la même autonomie vis-à-vis de Santa-Cruz, que ne faisait Santa Cruz de Lissarraga. La différence, c'est que Santa-Cruz approuvait cette autonomie relative, quelle était même le fait de sa volonté expresse» (Bernoville,1928: 10).

Deba bailara kontrolatzeko karlistek egin beharreko hurrengo urratsa Eibar hartzea zen, erretagoardia halako nukleo oldarkorraren menpe uztea axolagabekeria zelako[1117]. Baina Eibar indarrez hartzea zaila zen, eta Lizarragak ondo baino hobeto zekien. Beraz, herriko zenbait handikiri gutunak bidali zizkien, errendizioaren truke barkamena eta arma-industrien jabetza mantentzea eskainiz. Lizarragak liberalen urduritasuna erabiltzen jakin zuen momentu hartan[1118], eta Piralak gehitzen duenez, «Surtieron efecto estas cartas en algunos menos decididos; surgieron antagonismos; hubo escenas poco patrióticas; se evacuó el 15 a Eibar, y el mismo dia entraron los carlistas…» (Pirala, 1876: 483). Gregorio Mugicak ez ditu ezadostasun horiek aipatzen. Pedro Sarasketak beste bertsio bat eskaintzen digu, zeinaren arabera Eibarrek ere Sanchez Bregua jeneralak emandako ebakuazio-agindua jaso zuen eta istiluen protagonistak Eibar karlisten eskuetan uzteko prest ez zeuden boluntario, soldadu eta ofizial batzuk izan ziren. Sanchez Breguak azkenean Castañón koronela atxilotzea agindu behar izan zuen, sortutako zalaparta baretzeko[1119].

Sarasketak eskaintzen digun gertakizunen ildoan, herrian gelditzea erabaki zuten boluntarioak gutxi izan ziren[1120], horietarik gehienak zaharminak edota ma-

1117. «Eibar, célebre por su industria de armas y por el génio belicoso de sus habitantes, partidarios acérrimos de la república, nos era sumamente perjudicial y nos habia hecho mucho daño durante la guerra, porque contaba con cerca de 1.000 voluntarios perfectamente armados, los cuales no solo le defendían, sino que con frecuencia salían solos o en combinación con Loma y eran un peligro continuo para los carlistas» (Hernando, 1877: 91).

1118. «… Lizárraga se propuso conquistarle por el interés. Aprovechó las circunstancias del momento, las divisiones que habia entre sus mismos habitantes, la desconfianza que los tumultuosos eibarres inspiraban a Sánchez Bregua, y sobre todo, el miedo que le causaba perder sus fábricas con la guerra, y envió cartas a las personas más influyentes del pueblo, en las que les decía que, contando ya con fuerzas suficientes, estaba resuelto a bloquear e incendiar el pueblo si se le resistia; pero que en cambio, si se le abrian las puertas ofrecia el más completo olvido de lo pasado, la libertad de la industria armera y la proteccion del ejercito Real. Lizarraga, para que los voluntarios no se llevaran los fusiles, prometió además indultar de toda pena y dejar en completa libertad de residir en el pueblo a los que entregaran todo su armamento. Las cartas hicieron tal efecto, que Eibar preferió la paz y el trabajo a la guerra y aceptó las proposiciones en seguida sin atender a las razones de Sánchez Bregua, quien, comprendiendo la importancia de la entrega de aquel pueblo, hizo cuanto pudo por evitarla o desarmarle al menos. El general enemigo salió de Eibar el 14, no consiguiendo más que llevarse con él 200 voluntarios a San Sebastián, y los otros 600 abrieron las puertas a los carlistas y les entregaron las armas en la mañana del 15» (Hernando, 1877: 91).

1119. «Considerando los eibarreses la inutilidad de los sacrificios que habían hecho hasta entonces para defender la población, no recibieron de buen talante la noticia, de la evacuación y de tener que emigrar. Cundió pronto la voz de alarma, y la protesta de los voluntarios fue unánime. Muchos soldados hacían causa común con ellos. Este conato de indisciplina tomó aspecto más grave, ante la protesta hecha por el coronel de infantería Sr. Castañón contra tal medida de emigración, protesta que le valió al bizarro coronel el ser arrestado por orden del general Sánchez Bregua, que se alojó en la casa del comandante de voluntarios D. Ignacio Ibarzabal, desde la que el general oia los gritos lanzados en la calle por la multitud de ¡mueran los traidores! ¡Viva la libertad! ¡Viva Castañón! y otros por este estilo. El coronel Sr. Castañón, desde uno de los balcones de la casa dentro de la cual estaba arrestado, arengó a los soldados del ejército y a los voluntarios, recomendándoles obediencia y calma» (Sarasketa, 1909: 47-48).

kaltasunak jotakoak. Haren esanetan, boluntariorik gehienek, dolorez eta saminez, baina Eibartik alde egitea erabaki zuten, familia eta lagunak bertan utzita. Pedro Zelaiak dioenez, ordea, Ibarzabalen gidaritzapean Eibartik alde egin zuten boluntarioen kopurua 230ekoa izan zen[1121]. GAOn, erbesteratu ziren 215 eibartarren zerrenda aurkitu dugu, horietatik 178 boluntarioak[1122]. Boluntario liberalak gutxienez 1.000 zirela kontuan izanda —1.200 iturri batzuen arabera—, erbesteratuen kopurua % 23an gelditzen da, kasurik hoberean. Beraz emigrazioa ez zen Sarasketak aipatzen duen bezain masiboa, eta herritarren arteko tirabiren hipotesiak indarra hartzen du. Zeren inguruan?

Itxura guztien arabera, eztabaidarik larrienak sortu ziren arma-fabrikak karlisten esku uztea ala suntsitzea komeni zen erabakitzeko. Horren inguruan bertsio kontrajarriak ditugu, Extramianak eibartarrek herritik alde egin aurretik baliabide militarrak deuseztu zituztela badio ere (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 186, 60. aipua), Piralak eta Hernandok diote Eibarren eskuratutako fusilekin Lizarragak batailoi bat armatu zuela[1123]. Ez zen horrenbeste makina suntsituko, karlistak herrian sartu ostean Ibarzabal komandanteari bahitutako tresna piloaren berri dugunean[1124]. Armak entregatzearen inguruan, Sarasketak dioenez, abuztuaren 15eko egunsentian, «… se dió principio a la entrega de los fusiles por parte de los voluntarios a quienes por su edad o achaques les era imposible formar parte de la emigración» (Sarasketa, 1909: 48). Beraz, alde egin zuten boluntarioek, euren fusilak utzi zizkieten gelditu zirenei? Baietz esango genuke, Eibar jada karlisten eskuetan zegoela Francisca Erbitik bere semeari —Saturnino Areitiori— ezarritako isuna kentzeko eskakizunean, Errepublikaren Boluntarioa izan zela onartu arren, Lizarraga sartu zenean bere esanetara makurtu, eta bi fusil eta uniformea entregatu izana erabili baitzuen arrazoi legez. Argitzen duenez, Lizarragak baldintza horiek ezarri

1120. «Muy corto fue el número de estos, y la casi totalidad salieron del pueblo carretera adelante, custodiando un largo convoy» (Sarasketa, 1909: 48).

1121. «El 15 de agosto 1873, ante el acoso de los carlistas, se retiró la guarnición de Eibar juntamente con el General en Jefe del Ejército del Norte. 230 voluntarios liberales eibarreses, al mando de Ignacio Ibarzábal, abandonaron el pueblo para en San Sebastián y otros puntos seguir resistiendo en defensa de las ideas liberales» (Celaya, 1970: 22, 23).

1122. Agiri horretan, erbesteratuen nortasunaz gain, euren adina 1873an, egoera zibila, noiz alde egin zuten eta nora zehazten da. Horietatik gehienak armaginak ziren (191) eta Donostian babestu ziren (173); ezkongabekoen kopurua (120) ezkonduena baino pixka bat altuagoa da (85); gazteenak 15 urte zituen, eta zaharrenak 66, baina gazteen presentzia nabarmenagoa da eta batez besteko adina 28 urte eta sei hilabetekoa da. Zerrenda osoa kapituluaren bukaerako 1. eranskinean aurkituko duzue, GAO, JD IT, 328 b 6.

1123. «Aquella misma tarde paso Lizarraga a Eibar y Placencia a tomar posesión de las fábricas de armas y fusiles, y con los que recogió en Eibar armó un batallón» (Pirala,1876: 484). Baita Hernando, 1877: 91.

1124. Karlistek Ibarzabali bahitutako tresneriaren artean, «… una maquina de rayar cañones y otras maquinas de taladrar y tornear armas, un completo taller para la construccion de armas movidas todas la maquinas con agua, y porcion en taleros de nogal para cajas de fusil», GAO, JD IT, 328 b 6, 1874.

zizkien Eibarko miliziano ohiei, ez zigortzearen truke. Herrian gelditzea erabaki zuten boluntarioek, gainera, baten ordez bi fusil aurkeztu behar zituzten[1125], eta ziur asko hauxe izango dugu herritik alde egin zutenek gelditu zirenei fusilak utzi izanaren arrazoia. Beste dokumentu batek argitzen digunez, euren armak entregatu zituzten milizianoen kopurua 400 ingurukoa izan zen[1126].

Juan Bautista Alberdi presbiteroak ere, bere anaia Candidoren aurkako isuna kentzea eskatu zuen: errepublikanoen boluntarioen konpainiako kidea izan zela onartzen zuen, «… pero sin que se hubiera prestado en ningun tiempo a jurar la constitucion, ni la bandera, negandose resueltamente a ello; que al entrar el Sr. Comandante General de la Provincia D. Antonio Lizarraga en la villa se sometió a su autoridad, entregó el arma y sumiso a las autoridades reales y legitimas ha residido en ella»[1127]. Txosten berean aipatzen denez José Treviño errepublikanoak ere Lizarragari entregatu zion bere Remingtona. Eta Trifón Baskaranek ere, abuztuaren 15etik azaroaren 1era Eibarko arma-komandantea izan zen Pedro Elustizari utzi zizkion bi Remington eta 200 kartutxo. Beraz, uste dugu Lizarragaren ultimatumak Eibarko miliziano liberalen artean eragin zuen eztabaida latza lotuta egon zela armak entregatzearen kontu horrekin, eta itxura denez, gehienak amore ematearen alde agertu ziren. Zentzu horretan, alde egin zutenek Eibarko milizianoen nukleo gogorrena osatzen zutela ondorioztatu dezakegu, karlisten menpe bizitzea jasan ezin zutenek osatua.

BEHIN-BEHINEKO UDAL KARLISTAK

Lizarragak izendatutako udala (1873-8-15)

Lizarragaren gudarosteak noiz helduko zain gelditu zirenek batzar bat egin zuten abuztuaren 15ean[1128], eta hutsune politiko eta militarrari irtenbide bat aurkitzeko, zenbait biztanleri udal-batzorde bat eratzea eskatu zieten arrenka. Onartu egin zuten, «… aunque con ebasibas de parte de la mayoria». Biharamunean,

1125. «Y ofrecio tambien la misma garantia a aquellos que hubiesen entregado su arma al Gobierno de la Republica, siempre que le entregasen en equivalencia dos armas con sus correspondientes municiones, o mil reales para comprarlos», GAO, JD IT, 328 b 6, 1874-5-21. Francisca Erbitiren eskakizunari esker badakigu Vicente Agirre osagile errepublikanoa ere Eibarren gelditu zela, Franciscak berak sinatutako agiria aurkeztu baitzuen gaixorik zegoela frogatzeko.

1126. EiUA, E,6,3, «Listas de voluntarios que han entregado sus armas a las fuerzas carlistas», 1873.

1127. GAO, JD IT, 328 b 6, 1874.

1128. «Reunidos en la sala consistorial muchisimos vecinos de esta villa por las tristes circunstancias que atrabiesa esta villa por abandono de la fuerza militar y del Ayuntamiento de la villa para ebitar las malas consecuencias que puede acarrear al vecindario la falta de representantes de Autoridad local quede frente a las contingencias del momento, y hasta tanto que el Ayuntamiento sea nombrado, acordaron crear una Junta o comision que represente a esta villa…» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-8-15.

Lizarraga komandante karlistak behin-behineko udal berria izendatu zuen, karlistaz eta liberalez osatua erdiz erdi, gerra bukatu eta gero liberalek egin zuten orri batek adierazten duenaren arabera. Alkatea bera liberala zen, Juan Manuel Orbea eta horrek arazo bat baino gehiago ekarri zizkion, ikusiko dugun bezalaxe.

Alderdi karlistak jasaten zuen larritasun ekonomikoa lasaitu nahian, gerra-kontribuzioa kobratzeaz arduratuko ziren auzoetako arduradunak izendatzea izan zen lehen erabakietariko bat. Zerga berezi horrez gain, aspaldiko partez deitutako auzokideen batzarrak 100.000 errealeko mailegu bat eskatzea erabaki zuen, bertan parte hartu zuten 54 biztanleen ardurapean. Urriaren 14an, Kultu eta Kleroaren Zerga Hondarribiko Batzarra egin baino lehen zegoenago erara bueltatzeko agindua jaso zen aldundi karlistatik. Bost egun beranduago Lizarragak Eibarko udal-idazkaria kargutik kendu, eta herrialdetik kanpo bidaltzea agindu zuen[1129]. Abagunea aprobetxatuz, udala karlistak ez ziren gainerako udal-langileak, kanporatzen saiatu zen baina horren inguruan ezin izan zuen erabaki finkorik hartu, diputazioak eztabaida atzeratzea agindu baitzuen[1130]. Eibar karlisten esku egon arren, zenbait armaginek liberalei armak saltzen jarraitzen zutenez, urriaren 6an Lizarraga komandanteak mugimendu horiek kontrolatzea agindu zion udalari[1131]. Gudaroste karlisten horniketen banaketa erabakitzeko Bergaran bildu ziren eskualdeko herriak[1132], eta Eibarko ordezkariak Juan Manuel Orbea alkatea eta León Basterra notarioa izan ziren[1133]. Hala ere, Orbeak ez zuen asko iraungo udalaren buruan, azaroaren 3an bere dimisioa aurkeztu baitzuen, osasun-arrazoiak argudiatuta[1134].

Diputazioak izendatutako udal-batzordea (1873-11-11)

Azaroaren 11n, Lizarragak izendatutako behin-behineko udala kendu eta zortzi partaidez osatutako udal-batzordea eratzea agindu zuen aldundi karlistak, Melitón Martinez de la Peraren gidaritzapean. Batzorde hartan zeuden liberal biek —Rufino Mandiolak eta Fausto Idigorasek— ez zuten kargua onartu, ezta Martinez

1129. «… pasaporte en blanco para que lo estienda con el nombre del Sº. del Ayuntamiento de la villa de Eibar, y destituyéndole de su cargo, le haga Ud. salir inmediatamente de la provincia» EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1873-10-19.

1130. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-11-9.

1131. «Sabiendo que el enemigo se aprovecha del armamento que se saca de esa villa, quiero se permita, sí, a los comisionados de provincias que sean afectos a nuestra causa, pero no sin antes haber puesto en mi conocimiento la persona que los lleva. Por lo tanto no se sacará arma alguna de esa villa sino por persona competentemente autorizada mandando para el efecto que se depositen en un edificio que más convenga y que estará a cargo del Comandante de armas» EiUA, E,8,17, *Correspondencia periodo carlista*, 1873-10-6.

1132. Gudarosteen mugimenduak masiboak izaten hasi ziren. Eibarren, adibidez, Gernikako batailoi osoa ostatu zen 1873ko irailaren bukaeran (Palacio, 1917: 179).

1133. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1873-10-14.

1134. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-11-3.

de la Perak ere, beronen filiazio karlistari buruz zalantza gutxi daukagun arren. Bi egun geroago, 80 auzokidetik gora bildu ziren zergen banaketa, postaren funtzionamendua, udal-taberna zabaltzeko proposamena eta aurreko alkateak udalaren diru-kutxatik hartu zituen 36.000 errealen kontuak aztertzeko. Ikusten denez, agintari karlistak Lege Zaharrak berrezartzearen aldeko zeinuak egiten saiatu ziren hasiera-hasieratik.

Auzokideen batzarraren berpizteak dauzkan ñabardura politikoez gain, batzar horietan parte hartu zutenen azterketa soziologikoak emaitza interesgarriak eskaintzen dizkigu. Batzar horietan aritu ziren 81 auzokideetatik 40ren filiazio politikoa ezagutzen dugu: horietatik 24 liberalak ziren eta soilik 16 karlistak. 81etik bakarrik 15ek zuten boto-eskubidea Mutrikuko Batzar Orokorretan onartutako udal-ordenantza polemikoaren arabera. Baina ez dezagun pentsatu ordenantza hark bereziki karlistak zigortu zituenik, karlistek deitutako batzarretara hurbildu ziren 24 auzokide liberaletatik 3 baino ez zirelako hautesleak Mutrikun onartutakoaren arabera. Bukatzeko, ordura arte udal-karguetan aritutakoak 18 ziren, eta beste bi 1875erako aukeratuko zituzten. Beraz, karlistek susperturiko auzokideen batzarrek liberalen parte hartzea murriztu beharrean areagotu egin zutela esan dezakegu. Baina hori ziur asko ez zen borondate kontua, ezintasunaren isla baizik. Aurreraxeago ikusiko denez, Eibarko karlistak gutxi ziren eta benetako buru-hausteak izan zituzten udalak osatzeko orduan.

Buruzagi karlisten buruko minak ez zetozen soilik liberalen alderditik. Santa Kruz apaizaren itzultzeko asmoa bolo-bolo zebilen[1135], eta izan ere, 1873ko abenduan muga zeharkatu eta Berrobin aurkeztu zen. Bertan ostatzen zen lehen batailoia bere alde jarri zen, apaiza ikusiaz batera. Bata bestearen atzetik 18 konpainia jarri ziren bere esanetara [1136], eta Asteasurantz jo zuten, Lizarraga jeneralak Tolosaren aurkako setioa gidatzeko aukeratutako herrira. Lizarragak, kikildu beharrean, Santa Kruzek bidalitako mezulariak atxilotu eta bere zain gelditu zen. Santa Kruzek Asteasu inguratuta zeukan eta Lizarraga garaitzeko aukera handiak zituen, baina karlisten arteko enfrentamendua ekidin nahian, bere indarrak desegin, eta mugarantz abiatu zen, hiru mutilek lagunduta. Aian zegoela iritziz aldatu eta Elosutik Antzuolarantz jo zuen. Agintari karlistek mugimendu horien berri eman

1135. Urrian bertan Lizarragak hauxe erantzuten zion Eibarko Udalari: «… no cree sea cierta la presencia en esos alrededores de D. Manuel Santa Cruz, pero si así fuese (…) sea pasado por las armas» EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1873-10-9.

1136. «Al primer batallón, muchos de cuyos elementos habían combatido a sus órdenes, se le agregó una gran parte del 5º, y con ellos se fue rápidamente sobre Billabona, donde volvieron a agregársele cuatro compañías del 2º batallón. Durante este tiempo, el capitán Luxia, en los alrededores de Andoain, y el capitán Gereka, en las puertas de Tolosa, sublevaron sus compañías en favor de Santa Cruz y fueron a reunirse con él. En veinticuatro horas, el cura partidario se encontraba al frente de de 18 compañías» (Bernoville, 2000: 140).

zioten Eibarko Udalari, eta erne egotera deitu zuen[1137]. Santa Kruzek, ordea, ez zuen Eibar ez beste herririk erasotu; Dorronsoro diputatuak berarekin biltzeari uko egin zionean muga zeharkatu zuen, oraingo honetan, azken aldiz[1138].

Azaroaren 11n izendatutako batzordeak bukaera bitxia izan zuen. 1874ko urtarrilaren 5ean, idazkaria auzokideen batzarrera hurbildutakoen izenak idazten ari zela, akta eten eta lau orrialdeko hutsunea dago udalaren akta-liburuan. Hurrengo akta ekainaren 11koa da. Litekeena da haustura hori udal-hauteskundeekin lotuta egotea, aspaldian erabili gabeko hautaketa-prozedurak indarrean jartzeak zekartzan nahaste eta protestekin, alegia. Baina Pavia jeneralaren estatu-kolpearekin zerikusia daukan istiluren bat ere izan daiteke. Izan ere, hiru egun lehenago Madrileko kongresuan sartu eta gorteak desegin zituen. Erregimen errepublikanoak indarrean jarraitu bazuen ere, borboitarren itzulera denbora-kontua besterik ez zen. Horrez gain, 1874ko lehen bost hilabeteetan buruturiko bileren aktarik jaso ez izanaren arrazoia ekainaren 11koak argitzen digu, Leon Basterra —behin-behineko idazkaria— sarritan udaleko bileretara ez zela agertzen azalduz.

1874KO MAIATZAREN 1EKO UDALA: ANTONIO GARAGARTZA ALKATE

Etenaldiaren ostean Eibarko udalkideak ez ziren berdinak. Beranduagoko akta batek argitzen digunez, udal berri hau ere aldundi karlistak izendatu zuen maiatzaren 1ean[1139]. Basterraren ezintasuna zela-eta, Domingo Azkoitia aritu zen behin-behineko eskribau-lanetan, eta berak azaltzen digu bezperan karlistek Pedro María Suinaga fusilatu zutela, beste inolako azalpenik eskaini gabe[1140]. Hurrengo hiru

1137. «Una insurrección de Sta. Cruz por sorpresa ha arrastrado varias compañías; he desarmado a tres y las otras se van presentando sucesivamente; he podido gracias a Dios y a la Santísima Virgen, dominarla, pero esté Ud. con mucha vigilancia, por si las fuerzas de ese infame sacerdote se acercan a ese pueblo, y reuniendo a todos los elementos posibles resistan e impidan el que puedan sacar armamento y destruir las fábricas» EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1873-12-7. Egun batzuk geroago jasotako gutunean beste hau gehitzen zen: «La infame e insensata revelión que ha promovido Sta. Cruz en las circunstancias más críticas en que puede encontrarse la provincia, no tienen escusa de ningun género; sin embargo en los primeros días pudieron algunos seguir engañados al revelde sin saber la grave falta que cometían; pero hoy convencidos ya de ella debe caer sobre quienes le acompañan todo el rigor de la Ley» EiUA, E,5,1, "Correspondencia periodo carlista", 1873-12-12.

1138. «… escribió una carta a Dorronsoro expresando sus deseos de servir sin condiciones a la santa causa. En ella le pedía con urgencia una entrevista a Dorronsoro. Éste se limitó a enviarle con su ayudante un lacónico mensaje. Dorronsoro se negaba a la entrevista y le aconsejaba que se marchase a Francia para esperar desde allí el perdón del rey. Al enterarse del mensaje, Santa Cruz, sin decir una palabra, hizo una señal a sus compañeros y partió. Esta vez para siempre» (Bernoville, 2000: 144). Iparraldetik Ingalaterrara abiatu zen, eta handik Jamaikara. 1890ean Boliviara joan eta han hil zen 1926an, hainbat misio sortu eta Jesusen Lagundian onartu izan ostean.

1139. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1874-9-2.

1140. Suinaga 1842ko lur-jabeen zerrendan agertzen da, beraz 1874an 60 urte izango zituen gutxienez. Bere fusilamendua pixka bat arraroa iruditzen zaigu, ez zelako ezertan nahasita ageri.

hilabeteetan ez zen beste bilerarik egin, baina GAOn aurkitutako agiri batzuetatik ondoriozta dezakegunez, Antonio Garagartza alkate berriak udal karlistaren funtzionamendua berpizteko ahaleginak egin zituen. Berari egokituko zitzaion Karlos VII.ari eta Doña Margaritari harrera egitea, 1874ko ekainaren 25ean Eibartik igaro zirenean (Zavala, 1989: 521).

Gobernu liberalak kontrolatzen zituen lurraldeetan boluntario karlisten familiei ezarritako isunei erantzuteko, diputazio karlistak erabaki berdina hartu zuen berak menderatzen zituen guneetarako, 1874ko martxoaren 25eko zirkularraren bidez. Liberalak zigortzeaz gain, neurri horiek arma-zerbitzura deituak izan eta aurkezten ez zirenak barne hartu zituzten, atzeraeraginezko efektuarekin. Beraz, karlisten deialdiari uko egiteaz gain, boluntario liberalak zirenek bi isun ordaintzen zituzten. Tramitazioa udalen eskuetan uzten zenez, Eibarren Garagartza alkateak lan eskerga izan zuen herrian ezarritako 600 isunak kobratzeko, eta aurkeztu ziren helegiteei erantzuteko orduan. Prozesu hauek informazio aberatsa eskaintzen digute karlisten agintaldiari buruz dauzkagun hutsuneak betetzeko orduan[1141].

Juan Manuel Orbea, "un nuevo Creso"

Has gaitezen Juan Manuel Orbearen erreklamazioarekin, bere seme Jazinto eta Miguelengatik 24.000 eta 6.000 errealeko isunak eskatu baitzizkioten. Gazteena, Jazinto, boluntario liberala zen, Orbeak berak onartzen zuen modura[1142], baina isunak alde egindakoen gurasoen errentaren arabera jarri behar zirenez, berea txarto kalkulatu zutela argudiatu zuen. Orbeak zioenez, zerga-estadoetan 2.912 erreal ordaintzen zituen lurraren arloan, 300 industrian eta beste 300 merkataritzan: guztira 3.512 erreal. Beraz, Altxorreko Bonuen erosketa egin zenean 4.036 erreal ordaindu bazituen ere «… se padecio una equivocacion sobre la que el esponente no llamó la atención precisamente por la circunstancia de ser Alcalde del pueblo en aquellos momentos»[1143]. Bigarren semeari zegokionez «… como que se encuentra en Inglaterra desde hace mas de tres años, no le alcanza la primera multa» ez zuelako errepublikaren alde armarik hartu, baina bai bigarrenaren erdiak, 1872ko apirilaren 21a baino beranduago erbesteratu zelako. Beraz, 3.000 erreal ordaindu behar zituen.

Garagartzak zioenez, ordea, Orbea maltzurkeriaz jokatzen ari zen 4.000 erreal baino gutxiagoko errenta gozatzen zuela zioenean, estadoetan 3.512 errealen zergarekin agertu arren, bere anaia biak —fabrikako bazkideak— ez zeudenez matri-

1141. Txosten honetan agertzen diren datu batzuk erabili ditugu jada aurreko orrialdeetan. GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos de la villa de Eibar obligados al servicio de armas. Expedientes de condonacion de multas aplicadas a desertores y emigrados", 1873-1874.

1142. «Jacinto era individuo del cuerpo de voluntarios de esta villa en la fecha mencionada y en este concepto se halla sugeto a la multa, y como ademas está comprendido en el llamamiento para el servicio activo de las armas, como mayor de diez y ocho años, debe pagar tambien otro tanto como fuera por no prestar dicho servocio», GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-5-13.

1143. GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-5-13.

kula industrialean haien zerga ere berak ordaindu behar zuelako. Garagartzak gainera, Orbearen mugimendu ekonomikoei buruzko datu zehatzak eman zituen[1144], eta bere aurkako diskurtsoa gogortuz hauxe aurpegiratu zion: «Solo el descaro liberal puede atreverse a pretensiones semejantes, lo mismo que si estuviera en tiempos de su caciquismo, acostumbrado a dominar a todos, y contemplandose un nuevo Creso, cuando imponia al miserable pueblo que explotaba». Klase-diskurtsoa ez al da hau? «Pero es preciso que se desengañe el D. Juan Manuel, de que su época ha pasado, y que no es ahora la fuerza motriz que impulsaba a los instrumentos serviles de sus ambiciosas inspiraciones para formar los estados territoriales a guisa suya…»[1145]. Zer pentsatuko genuke, egilea nor den jakin barik, orri solte batean idatzita aurkituko bagenu?

Gerra bukatu ostean liberalek egin zuten zerrenda beltzean agertzen diren karlistetariko batzuk, «… de ideas avanzadas» gehiagarria daukate, eta beharbada aberatsen aurkako joerak agertzen zituzten karlistak definitzeko erabili zen. Edonola ere, komeni da Garmendiaren ñabardura kontuan izatea, aberats guztien kontrakoa bainoago, karlisten amorrua aberats berrien aurka bideratzen zela gehienbat[1146]. Juan Manuel Orbea Murua eta bere anaiak prototipo horren barruan sartzen ziren[1147]. 1840an sortu zuten arma-fabrikak etekin ederrak ematen zizkieten, aitaren

1144. «Si D. Juan Manuel de Orbea y sus dos hermanos no hubieran mas riqueza por industria y comercio que la figurada en el catastro, no podian haber hecho las contratas de armamento, que han verificado, ni con su producto las adquisiones, que han realizado, de inmuebles y de papel del Estado, ni las imposiciones de sumas considerables, que de ninguna manera se pueden efecturar con la exigua renta, que representan en el estado territorial», GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-5-20.

1145. «No es tan virtuoso, como supone, D. Juan Manuel de Orbea, por que su voluntad para el partido carlista tampoco es tan buena como la de ésta para con él, pues tan ciego está con el liberalismo que no acabará de salir de su error, a pesar de los actos de honradez que ve ejercitar a los carlistas, a cuya nobleza corresponde con obras de decepcion, y le detesta por considerarla como la calamidad mas grande de la Nacion», GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-5-20. Idatziaren sinatzaileak Antonio Garagarza alkatea eta Leon Basterra idazkaria izan ziren.

1146. «Lo que llama la atención indiscutiblemente es que su reflejo anti-ricos se ejerce exclusivamente hacia aquellos cuya fortuna es más o menos reciente. Se tiene la impresión de que el odio de los carlistas no es dirigido contra los ricos propietarios honrados conocidos desde hace varias generaciones, sino contra los nuevos ricos, grandes comerciantes, financieros o industriales, cuya promoción ha sido impulsada y facilitada por el sistema liberal (…) Pensamos en el antiguo refrán vasco: ¿Yaunen artean zein da latz gogorrena? Tipi izatetik yauntzera eldu dena» (Garmendia, 1985: 256).

1147. Juan Manuel Orbea Murua 1827 aldera jaio zen, bere aita —Manuel Orbea Agirre— 1801 aldera eta bere ama —Dolores Murua Berraondo— 1809 aldera. Bere aita armatutako urbanoa izan zen I. Karlistaldian, eta maisu kaxagin legez agertzen da 1835 zerrendan; baina ez dago 1842ko lurjabeen zerrendan. 1857an sartu zen estreinakoz udalean, eta errejidore aritu zen 1861. urtera arte. Armagin legez izandako bilakaerari buruz, hara zer dioen Sarasketak: «La fábrica de los Sres. Orbea y Compañía, fue una de las que mayor incremento tomaron en la industria armera de Eibar, desde el año 1840 en que se fundó (…) La fábrica alcanzó algunas contratas para abastecer de armas al gobierno del Estado español, siendo de las primeras la construcción de revolvers para la Marina de Guerra, y la transformación del fusil de pistón al de fuego central por sistema Berdam» (Sarasketa, 1909: 54).

jakituriari eta, batez ere, amaren kapitalari esker[1148]. Diputazioak azkenean isuna ondo ezarrita zegoela jakinarazi zuen bi egun beranduago. Orbeak helegitea aurkeztu zuen uztailean, baina ez zuen aurrera egin. Gero herritik alde egin zuen, eta ordutik aurrera Nicolas Egaña —bere fabrikako enkargatua— arduratu zen isuna ordaintzeaz. Egaña, bere aldetik, herri-diputatu izendatu zuten 1875rako eta errejidore 1876rako.

Miliziano eta desertoreen aurkako isunak

Ikusi dugu aurrerago Juan Bautista Alberdi presbiteroak bere anaia errepublikanoen alde eginiko eskakizuna. Candidoren aurkako isuna kentzerik ez zuen lortu baina bai atzeratzea, otsailean Gasteiz aldera joanda izan arren —«con objeto de dar salida a sus artefactos»— laster itzuliko zela azalduz. Udalak bere eskakizuna onartu zuen, bigunago errepublikano batekin Orbearekin baino. Beste kasu bat: Silverio Zuloagak, Facundo Atxotegiren aitaginarrebak 6.000 erreal ordaindu behar zituen, harengatik. Zeukan kafe-etxea bahitu nahi ziotenez, ezin izango zuela ordaindu esan zuen, ezta udal-zerga ere. 3.000 erreal ordaintzea eskatzen zuen, 1.500 momentuan, eta beste 1.500 abuztuaren bukaeran. Interesgarria da Garagartzaren erantzuna, oraingoan ere eskuzabalago agertuko delako errepublikanoaren aitaginarrebarekin, legea bera sahiestu eta isunaren kopurua jaitsi zion[1149]. Jose Agustin Iriondo, bere aldetik, udalak errepublikanoekin zuen jokabide leunean oinarritu zen 1868an Ameriketara joan zitzaion semearen izenean ezarri zioten isuna kentzea lortzeko[1150].

Itxura denez, gerra usainduta edo, eztandaren aurreko urteetan benetako exodoa gertatu zen Ameriketarantz. Pedro Aguirrek zioenez bi seme joan zitzaizkion Ameriketara, baina ez arma-zerbitzuari ihes egiteagatik ezpada karlistekin kolaboratzeagatik edota errepublikanoen aurka aritzeagatik atxilotuak izateko arriskuan

1148. Ziurtasun osoa ez badaukagu ere, Dolores Murua Berraondo Antonio María Muruaren alaba zela esango genuke. Gogora dezagun Manuel Antonio bonapartetiarren sasoian hasi zela udalean parte hartzen, Gaspar Jauregiren sareko kidea izan zela, Hirurtekoan alkatea eta Boluntarioen Miliziako komandantea… Baina I. Karlistaldiaren ostean muruatarrak datu-basetik desagertzen dira, orbea-muruatarren agerpen indartsuarekin batera. Beharbada Antonio Maríak ez zuen semerik eduki eta bere alaba Dolores gelditu zen oinordeko legez, eta Manuel Orbearekin ezkondu ostean, euren semeak.

1149. Garagartzak zioenez: «… la cantidad impuesta al exponente por via de multa, le parece algo subida, atendido a la posicion del mismo; que si se espera hacer efectiva por medio de rentas que produzca la casa embargada se tardará cuando menos dos años en realizarlo, motivandose de aquí las dificultades y entorpecimientos en el cobro de las contribuciones mensuales. Y tanto por esta razon como por consideraciones a las desgracias de familia que ha sufrido el exponente es de parecer el Alcalde que suscribe que VE deberia servirse limitar su peticion en unos tres mil y quinientos reales», GAO, JD IT, 328 b 6, “Estados relativos a los mozos…”, 1874-6-16.

1150. «… se dignara relevar de la multa impuesta, asi como ha exonerado a los que depusieron las armas con que defendian la república, pues parece que más acreedores de cualquiera gracia que éstos, son aquellos que, sin malicia alguna abandonaron su patria y familia, por adquirir su subsistencia», GAO, JD IT, 328 b 6, “Estados relativos a los mozos…”.

zeudelako[1151]. Udalak bertsio hori egiaztatu zuen eta isuna kentzea erabaki. Berdina argudiatu zuen José Agustín Atxa nekazariak, José Andres bere semea Ameriketara joan zela 1872ko bukaeran «… perseguido a muerte por sus opiniones carlistas, por los voluntarios de la libertad», baina udalak ezin izan zuen hori egiaztatu.

Domingo Acha Albizurik arrazoi ekonomikoetan oinarritu zen bere semea —Simón— Ameriketara joan izana zuritzeko. Itxura denez, 1872ko bukaeran deitu zion hara aurretik joandako anaia Juan Agustinek. Bizimodua aurrera atera nahian alde egin omen zuten Atxa anaiek, ez soldadutza ez egiteagatik, eta udalak datu horiek egiaztatu ostean isuna kentzea eskatu zion diputazioari. Jokabide berdina izan zuen Prudencio Aldazabalekin. Honi bi seme —Agustin eta Pedro— joan zitzaizkion 1868an eta hirugarrena —Juan— 1872an. Jose Lezetaren semea ere —Jose María— joan zen Ameriketara 1870ean. Eta horrela, udalera heldutako eskakizunik gehienak onartu zituzten[1152]. Ezezko erantzun bakarra Simón Aizpiriri eman zitzaion. Honek bere lehen semea Pedro María 1867an joan zela azaldu zuen «… viendo que sus padres no podian proporcionar el debido sustento para la familia»; eta 1873ko maiatzean bere anaia José Maríak ere bide berdina hartu zuen. Garagartzari, ordea, aizpiritarren egoera ekonomikoa ez zitzaion hain larria iruditu. Zioenez, «… no le parece fuesen por la causa que motiva este informe, por que el solicitante nunca ha sido considerado en situacion tan apurada como la que espone»[1153].

Salvador Azpiriren semea ere —José Manuel—, Buenos Airesera joana zen 1873ko martxoan. Salvador isuna ordaintzeko prest zegoen, baina bere baserriak 39.214 erreal balio arren, hipotekatuta zeukala adierazi zuen, 22.000 errealeko zorraren ondorioz. Isuna erdira jaistea eskatu zuen, eta udalak zioena egiaztatu ostean sostengatzea erabaki zuen. Martin Larreategiren kasua ere zertxobait berezia zen, bere seme Francisco Antonio tartamotela zelako «… por cuya razon huya de todo trato social, emigró a Ultramar». Apaizen bidez asmo horiek burutik kentzen saiatu baziren ere, ospa egin zuen «… cuando mas se le estrecho con disuasiones». Juan María Atxa Albizuriren anaia —Agustin Manuel— ez zen Ameriketara joan, Markinara baizik. Bere anaiaren isuna ordaintzea eskatu ziotenean bere harridura

1151. «… cuyo temor lo tenia el primero por haber tomado parte el año de 1872 en la conduccion de armas para las fuerzas Reales, desde Eibar hasta el punto de Olarreaga en cuyo punto se constituyeron los voluntarios de Eibar y aprehendieron las armas que su hijo Pedro José llevaba para las fuerza del Rey Nuestro Señor D.Carlos 7º (GDG). Y el segundo por haver maltratado a un voluntario de dicho Eibar, que le insultaba varias veces, sin duda por su opinion carlista», GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…".

1152. Ameriketara joandako nekazarien artean nekazarien familietakoak ziren gehienak: Domingo Mandiolaren semea, Pedro José (1860); José Gisasolaren semea, José (1865); Martín Azpiriren semea, José Mateo (1868); Domingo Atxa Albizuriren semea, Juan Agustín (1868); Jose María Ordorikaren semea, Jose María (1869); Pedro Iraolagoitiaren semea, Rufino (1869); Francisco Aranzabalen anaia Ramon (1869); Jose Antonio Aguirrebeñaren anaia, Jose Ventura (1873), hau senipartea jasota. Nekazarien semeez gain, Domingo Loyola arotzaren semea aurkitzen dugu, Matias (1869).

1153. GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-6-6.

adierazi zuen «… cual si el esponente fuese responsable de los actos de un hermano que, haviendo percibido sus legitimas se ausentó de su compañia y vivia en diferente pueblo con casa abierta, ejerciendo de confitero». Azken bi kasu hauek ere udalaren sostengua izan zuten.

Isunak ordaindu ez zituztenen ondasunak bahitu egin zituzten, Ibarzabalen makinekin gertatu zen bezala. Baina tresneria hori diru bihurtzea lan zaila zen, Lacarrak Dorronsoro diputatu nagusiari onartzen zionez: «los objetos embargados no se han podido vender como se suponía, pues la gente (…) por no perjudicar a sus correligionarios es capaz de hacer cualquier sacrificio». Maiatzaren bukaeran Lacarrak aurkitzen zituen oztopoen berri eman zion Dorronsorori, bahitutakoa ezin salduta ibiltzeaz gain, miatzen zituzten etxeak hutsik aurkitzen zituztelako. Horrez gain, eroslerik ezean eibartarrak bahiketen aurrean beldurra galtzen ari zirela azaltzen zuen, eta orbeatarrak eurak, boikotean sartzeko prest zeudela[1154]. Diputazioak hiru egun geroago eman zuen erantzuna, momentuz orbeatarren fabrikari ekoizten zuenaren arabera kobratzeko aginduz.

Gerratik aske, soldata-laurdenaren truke

Jakina denez, armagintzan lan egiten zutenek gerrarako deialdia saihesteko aukera zeukaten, baina agintari karlistek soldataren zati bat eskatu zuten salbuespenaren truke. Sistema horrek trikimailuetarako bidea ematen zuen, maiatzean bertan udaleko arduradunek ohartarazten zuten bezalaxe: «Son muchos los jóvenes que van eludiendo el servicio militar, alegando ser armeros»[1155]. Beste batzuk, ordea, jada gerra-frontean zeuden, baina armaginak zirenez herrira itzultzeko aukera izan zuten[1156]. Anabasa argitzeko diputazioak armaginen zerrenda eskatu zuen, eta eguneko 10 erreal baino gutxiago kobratzen zutenei soldataren laurdenaren beherapena egiteko agindu zion udalari, eta herena 10 erreal baino gehiago kobratzen bazuten. Garagartzak galdetuta, langabezian zeuden armaginak batailoietara bidaltzeko erantzun zuen diputazioak, baina bertako gazteak aginduak bete beharrean kuku-batzarrak egin eta herriko karlistak mehatxatzen hasi ziren, alkatearen esanetan[1157]. Udalaren esanetan, maiatzeko protesta honetan gehien bereizi

1154. «Muy Sr. mio y amigo: como yo esperaba en este Pueblo maldecido por Dios no se espera sacar gran fruto de las multas, pues parece que como por encanto han desaparecido los obgetos por cuanto nada se les encuentra en sus casas (…) por cuanto como gente artesana han hido gastando segun hiban ganando en sus bicios sin que se hayan esforzado en hacer ropa blanca y mueblage. Lo que mas es de estrañar es, que aun los que algo tienen se dejan embargar hasta los caseros, y segun tengo entendido hasta el mismo Orbea dice que se dejara embargar antes que pagar la multa», GAO, JD IT, 328 b 6, "Estados relativos a los mozos…", 1874-5-27.

1155. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-5-12.

1156. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas a los armeros obligados al servicio de las armas", 60.-61. or., 1874-6-22.

1157. Garagartzak zioenez, gazteak «… se ocupan en formar corrillos pública y frecuentemente y en adquirir y propalar noticias falsas, especialmente los días de ayer y anteayer en que con motivo de

zirenak José Antonio Astigarraga, Alejandro Hirusta eta Laureano Bidarte izan ziren, eta diputazioak hau agindu zuen: «… sean reducidos a prisión y conducidos, convenientemente escoltados a la frontera francesa»[1158]. Bi egun beranduago Gregorio Ziaranek eta Facundo Galarragak neurri bera jasan zuten. Evaristo Zuloagaren atxiloketa apiriletik zeukan aginduta diputazioak[1159], baina ez dakigu gauzatu zen ala ez. Sasoi berean diputazioak jakinarazten zuenez «… ha recaido sentencia de muerte contra Pedro María Orbea»[1160]. Hurrengo hilean, Eibartik kanpo zebilen Juan Jose Bergararen atxiloketaren berri eman zuen, «… por sospechoso e indocumentado»[1161].

Celestino Etxeberriak bidalitako zerrendaren arabera, ekainean hasi ziren ordaintzen lehen armaginak, hogeiren bat. Bitxia da Etxeberriak soldaten kopuru osoa batu zuela eta hortik atera laurdena, batez bestekoak 10 erreal baino gutxiago ematen zuelako. Baina egon bazeuden 10 erreal baino gehiago ordaintzen zutenak. Egun gutxitara Ciriaco Iturrioz eta Etxeberriak sinatutako beste zerrenda bat heldu zen udalera, ziur asko euren arma-fabriketan lan egiten zuten langileena. Izan ere, zerga hau fabriketako jabeen bidez kobratzen zen, langileei soldatatik deskontatutako kopurua zuzenean udalari emateko agindua jaso baitzuten. Hilaren bukaeran diputazioak ordezkari bat bidali zuen Eibarrera, jasotako diruaz jabetzera[1162], inolako salbuespenik egin gabe. Francisco Arrizabalagari, adibidez, ez zion ezertarako balio izan I. Karlistaldian jasotako zauriak, ezta bigarrenean errepublikanoengandik ihesi baserriz baserri ibili izanak ere[1163], diputazioak erantzun zionez, «… no puede menos de descontar a su hijo Pedro la cuarta parte de su jornal, por cuanto no puede hacer que sea de mejor condicion que los demas»[1164].

Abuztuaren 31n, 1467,75 erreal bildu ziren. Udaleko kontu-hartzaileak gaineratu zuenez «… ya son dos los que se niegan a pagar»[1165], horien artean Ignacio

---

la supuesta llegada de las tropas republicanas a Villarreal de Alava alarmaron a este vecindario los muchos liberales que en él hay, y desean que esperan ansiosos la venida de las mismas tropas a esta población, para vengarse según ellos con cinismo dicen de los carlistas existentes en la misma», GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas a los armeros obligados al servicio de las armas", 29. or., 1874-5-25.

1158. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-6-4.

1159. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-4-28. Evaristo Zuloagak bi aldeetako errepresioa jasan zuen, gerra ostean liberalek egindako zerrendan karlisten kolaboratzaile legez agertzen baita.

1160. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-6.

1161. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-7-19.

1162. «Muy Sr.mio: El dador pasa a esa con el objeto de cobrar la parte ya acordada de los jornales correspondientes a los armeros obligados al servicio y a las utilidades de las fábricas de los señores Orbea e Ibarzabal, hasta el importe de las multas que se les ha impuesto», GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas… ", 52. or., 1874-6-28.

1163. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas… ", 1874-9-4.

1164. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas… ", 1874-9-6.

1165. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas… ", 71. or.

Ibarzabalen fabrikaren ordezkaria, Martin Lausagarreta, 698,50 errealeko zorrarekin. Mugimendua zabaltzen hasi zen eta ez-ordaintzaileen aurkako neurriak ere gogortu egin ziren. Irailaren 18an idazten zenez, «han desertado» Lino Olabek, Jose Aspiazuk eta Ramón Maguregik, «negandose a pagar Liborna y Echeverria». Kontuan hartzekoa da ordaintzen ez zutenen zigorra ez zela ondasunen bahiketa, tertzio karlistetan zerbitzea baino. Beharbada hori ez zen zigor gogorregia izango karlista sentitzen zirenentzat, baina bihotzezko liberalentzat zigor horren aurrean irtenbide logikoena herritik alde egitea zen.

Ez-ordaintzaileen mugimendua errepresioak baretu zuela dirudi. Irailaren 15eko zerrendak adierazten digunez laurdena ordaintzera behartuta zeuden armaginak 60ren bat ziren, eta 1.436 erreal bildu ziren. Irailaren 26an, bildutakoa 1231,25 errealetara jaitsi zen, eta kobratu gabe gelditu ziren Ibarzabalenak (614 erreal) eta Orbea anaienak, (3181,75 erreal eta 3.987,75 erreal hamabost egun bakoitzeko). Ondoriozta dezakegunez, armagin gehienek ugazabaren batentzat lan egiten zuten, eta horien artean orbeatarrak ziren indartsuenak. Azaroaren 18ko ordainketak adierazten digu ekoizpenak nabarmen gora egin zuela Ibarzabalen fabrikan 1780,5 erreal ordaintzea egokitu baitzitzaion. Hala ere, bazeuden iraileko kuota oraindik ordaindu gabe zutenak, eta horiek, indar armatua erabiltzearekin mehatxatu zituen Garagartza alkateak[1166].

Abenduan 19an diputazioak Francisco Sarasketa eta Ramón Lizundia bertara bidaltzea agindu zion Eibarko Udalari, itxura denez ez zutelako euren laurdena ordaintzen. Gabon egunean Ramon Lizundiaren aitak —Antoniok— ordainketa-agiriak aurkeztu zituen diputazioan, baina Barrutia karlistak argitzen zuenez «por el aprieto», hau da, mehatxatu egin zutelako. Ramonek Eibartik ihes egin zuen azkenean, baina diputazioak bere aitari kobratuko zion soldataren laurdena. Antoniok diputazioari mailegu bat eginda zeukanez, diputazioak «… ira descontándola del citado crédito»[1167]. Sasoi berean egin zuen ospa Juan José Maguregik *«… al parecer a Somorrostro»*[1168]. Urtarrilean eta otsailean kobratutako kopurua egonkortu egin zen, 1.000 errealen inguruan[1169], baina martxoan, 567 errealetara jaitsi zen, gutxi gorabehera erdiek ez zutelako ordaindu. Ez dira boikot horren arrazoiak azaltzen, ezta ordaindu ez zutenen aurkako neurririk hartu zen ala ez[1170]. Txostenaren azken idatzia maiatzaren 12koa da[1171]. 1875eko azaroko akta batek adierazten

1166. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista*, 1874-11-5.

1167. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas…", 1874-12-26.

1168. Maguregik urtarrilaren 11n alde egin zuen, GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas…", 1875-1-11.

1169. 1874ko abenduaren 18an 925,25 erreal; 1875eko urtarrilaren 3an 953 erreal; 13an 935,25 erreal; 27an, 1.032 erreal, GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas…".

1170. GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas…", 1875-3-23.

1171. Antonio Aretio gazteak 18 urte bete berriak zituen eta "*acicalador*" zenez tertzioetatik libre gelditzea eskatu zuen. Diputazioak Azpeitira bidali zuen frogak egitera, ea Artilleriako arduradunek armagin bezala onartzen zuten ikusteko, GAO, JD AIM 578, "Condiciones impuestas… ", 1875-5-12.

digunez, Eibarko udalerria Gipuzkoako Batzar Orokorretan ordezkatzen zuten suak 57tik 38ra jaitsi ziren, «… cuyo numero debera servir para contribuciones, votaciones y tercios forales»[1172]. Suen jaitsiera horrek Eibarko biztanleriak behera egin zuela islatzen du; beraz, gerrak aurrera egin eta karlisten itxaropenak makaldu ahala, herritik alde egin zuten armaginen kopurua asko hazi zela ondoriozta dezakegu. Itxura denez, 1875eko maiatzetik aurrera, laurdena kobratzeari ere uko egin zioten agintari karlistek.

Karlisten arteko liskarrak

Karlisten arteko liskarrak ere izan ziren. León Basterra, udaleko idazkaria izateaz gain, Eibarko armen komisarioa zen, eta militar izana argudiatuz, Lizarraga komandanteak inposatu zuen zerga ordaintzeari uko egiten ziotenen artean zegoen. Garagartzak, gainerako berankorrei bezalaxe, ultimatum bat bidali zion, Basterrarentzat «papelito amenazador» bat zena. Garagartzaren ustez, ordea, Basterrak ez zuen inolako tratamendu berezirik merezi eta ardura militarrak izanda bere jokabidea gainera eredugarria izan behar zen, biztanle batzuek zerga berriak ordaintzeari uko egingo ziotela mehatxatzen hasiak baitziren, Basterra eta gainerakoei aurreko urtekoa kobratzen ez bazitzaien[1173].

Hiru hilabetetan zehar bildu gabe egon ostean, udalkideek astero batzar bat egitea erabaki zuten irailaren 2an. Udalak sostengu gutxi eta arazo asko ikusten zituen inguruan, eta irailean armadak erabili zituen ohe batzuen kontura diputazio karlistarekin piztutako eztabaidaren ondorioz dimititzeko zorian egon zen. Urrian, beste karlista bat izan zen udala aztoratu zuena, garbitokiaren kontua zela-eta Melitón Martinez de la Perak diputaziora jo zuelako. Gogoratuko dugunez, Martinez de la Peraren lurretan zegoen garbitokia zabalik mantentzeko ekimena iraultzaren aurretik hasitakoa zen, baina iraultzak bermatu zuen herritarren eskubidea. Melitonek, abagunea profitatuz, diputazio karlistara jo zuen, iraultzaileen erabakia atzera bota nahian. Diputazioak, bere aldetik, ea zergatik ez zuen Martinez de la Peraren etxea zarratu galdetu zion udalari, eta honek bertan garbitokia zegoela erantzun zion. Ambrosio Uria zinegotziak, ordea, ez zegoela ados azaldu ostean ez zuen akta sinatu[1174]. Diputazioa ere ez zen pozik gelditu udalaren erantzunarekin, eta bi aste geroago informazio gehiago eskatu zion garbitokiari buruz[1175]. Ikusten denez, karlistek, euren artean ere izan zuten tirabirarik.

1172. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-11-11.

1173. Garagartzak jakinarazi zuen «… la pasmosa indiferencia con que han sido acogidos mis bandos de 22 y 29 de Julio último publicados con el doble objeto de contener los rumores que se habían propagado de que nadie pagaría un céntimo de la contribución mensual, si primero no se recaudaba lo que estaba pendiente de cobro» EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista (1873-1875)*, 1874-8-6.

1174. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1874-10-10.

1175. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1874-10-24.

FORU-UDALAK KARLISTEN GARAIAN (1875-1876)

1875eko urtarrilaren 1eko foru-udala

1874ko abenduaren 2an emandako zirkularrean diputazio karlistak adierazten zuenez, «… cree llegado el momento de constituir foralmente los ayuntamientos del país»[1176]. Beraz, 1875eko urteberri egunean, behin-behineko izendapenei bukaera eman, eta udalkideak foruaren arabera hautatu ziren karlisten menpe zeuden herri guztietan. Beraz, udal-hauteskundeak 1848 baino lehen egiten ziren bezalaxe egiten hasi ziren. Udal-karguen iraupena urtebetera mugatu zen eta udala bederatzi partaidez osatuta gelditu zen: alkatea, sindiko prokuradorea, lau errejidore, bi herri-diputatu eta herri-sindikoa.

Hautaketa egunean Eibarko 42 hautesle nesken eskolan bildu ziren udalkide berrien hautaketa egiteko. Hautesleak diogu eta ez auzokideak, aktak berak erabiltzen duen hitza "*electores*" delako, Lege Zaharrean ohikoa zen "*vecinos concejantes*" terminoaren ordez. Hautaketa istilutsua gertatu zen, gonbidatu gabeko zenbait biztanle batzarrean zeudelako, horien artean Leon Basterra, «… que desde un principio habia calificado de anti-foral la reunión»[1177]. Karguen hautaketa oraindik hasi gabe zegoen, baina Basterrak izango zuen emaitzaren susmoren bat, aurreko urtean udalkide izandakoak ezin zirela berriz izendatuak izan baitzioen. Udalak horretarako baimena ematen zuen diputazioaren agindua irakurrita, lasaitu zen zertxobait Basterra[1178], baina bileratik alde egin zuen Antonio Larrañagak eta Jose Antonio Gisasolak lagunduta.

Egoera horren aurrean, udal karlistari eskua luzatu ziona Ciriaco Iturrioz izan zen. Iturriozek 1846ko abenduaren 31ko akta irakurtzea proposatu zuen, eta udalkideen hautaketa orduantxe bezalaxe egitea proposatu zuen, hau da «… a voz y voto». Itxura guztien arabera, aurrekari horren aipamenarekin Iturriozek Lege Zaharraren zilegitasuna eman nahi zion Garagartzaren berrizendapenari, metodo hori ohikoa baino gehiago salbuespen-kasuetan erabiltzen zela dakigun arren. Iturriozek berak egin zuen udalkide berrien proposamena, eta udala «… fue nombrado por aclamacion y por unanimidad». Ikusten denez luzaroan erabili gabe egon arren, batzuek ez zeuzkaten ahaztuta Lege Zaharrak eskaintzen zituen trikimailuak. Urtarrilaren 10ean 27 lagun bildu ziren «… previo aviso hecho por medio de papeletas (…) mayoría de que consta el número de los electores convocados…», herri-diputatuak eta herri-sindikoa aukeratzeko. Oraingo honetan aktak ez du zehazten "*electores*"

1176. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista*, 1874-12-2.

1177. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-1-1.

1178. Foru-diputazioak bidalitako aginduak zioenez: «Pueden ser reelegidos los individuos de ese Ayuntamiento aunque las ordenanzas exijan un año de hueco, por cuanto los actuales no son forales, y aunque no estén aprobadas sus cuentas, que han sido ya presentadas y obran en mi poder para su exámen y resolucion (…) En vista de lo relacionado aquietose el Sr. Basterra…» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-1-1.

edo "*vecinos concejantes*" diren —"*señores*" dio—. Taldetxo horretako 27 lagunetatik hiru iraultzaren aurretik udal-karguak betetakoak ziren; beste hiru karlistek deituriko auzokideen batzarretan parte hartuta zeuden. Gehienak, beraz, biztanle xumeak zirela ondoriozta dezakegu.

Udalaren erronka nagusiak

Udalak harturiko lehen neurrietariko baten helburua janarien inguruan sortzen ari zen espekulazioa geldiaraztea izan zen[1179]. Funtsezko elikagaiak jasaten ari ziren prezioaren gorakada gelditu nahian, goizeko 9:30ak baino lehen barazkiak erostea debekatu zuen. Martxotik aurrera, zerga-beherapen, diru-laguntza eta tertzioen zerbitzutik libre gelditzeko eskariak etengabe heldu ziren udaletxera, eta horrela urte osoan mantendu zenez, udalari zaila egin zitzaion dinamika normalizatu bat mantentzea. Diputazioak, bere aldetik, Eibarri zegokion horniketen kuota ez bazuen garaiz ordaintzen, 1.000 errealeko isuna ezartzearekin mehatxatu zuen udala[1180]. Apirilean, udalak bi lursail errejistratu zituen partikularren izenean, premia zegoenean tradizionalistek ere desamortizazioari etekina ateratzen bazekitelako seinale[1181].

Alfontso XII.aren errege izendatzeak bazterrak astindu zituen. Karlistentzat berri txarra zen, borboitarren itzulerak erdibide bat eskaintzen zielako iraultzaren beldurrez haren inguruan bildutakoei. Badaezpada, diputazio karlistak Alfontso XII.aren aldeko susmoak zabaltzen zituztenak bere menpeko lurraldetik botatzea agindu zuen[1182]. Martxoan, soldadu eta agintari karlistak erosteko asmoarekin Donostiatik agente susmagarriak bidaltzen ari zirela-eta, honako hau agindu zuen: «… no se permita transitar a nadie sin que sean conocidos o justificados en debida forma»[1183]. Cabrerak berak, —I. Karlistaldiko buruzagi ospetsuak— Alfontso XII.aren erregimena onartu zuen, eta bere gizon batek —Antonio Garcések— muga zeharkatu zuenez, adi egoteko agindua jaso zuen Eibarko komandante militarrak[1184]. Ikusten denez, borboitarren berrezarpenak agintari karlisten urduritasuna eragin zuen, eta biztanleriari ezarritako kontrol neurriak areagotu egin ziren.

1179. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-1-28.

1180. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-4-8.

1181. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-4-15 eta 1875-4-22.

1182. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista*, 1875-1-8.

1183. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista*, 1875-3-20. Eyarak datu hau egiaztatzen du: «… una quinta-columna de agentes gubernamentales se infiltran en Euskal Herria; su misión es minar la moral carlista y sus armas, la dialéctica, las promesas y (…) substanciosos sobornos en metálico. A finales de 1874 el Minisro de la Gobernación escribía a los gobernadores de las plazas de Euskal Herria: "A los jefes que se comprometan a presentarse con sus fuerzas, ofrézcales dinero, sin reparar en mil duros más o menos. La cantidad estipulada será depositada en el punto del extranjero que ellos mismos fijen…» (Eyara, 1980: 239)

1184. EiUA, E,8,17, *Correspondencia del periodo carlista*, 1875-4-14.

Udalak arazo larriak zituen diputazioak tertzioetarako eskatzen zion soldadu kopurua betetzeko, alde batetik boluntario gutxi aurkezten zirelako, bestetik soldadu izateko sasoian zeuden gazte asko herritik kanpo zeudelako, eta azkenik, ikusi denez, biztanle askok nahiago izaten zutelako beraien soldataren laurdena diputazio karlistari ematea, soldadu bihurtzea baino. Egoera horrek nekazariak kaltetzen zituen bereziki, soilik beraiek gelditzen zirelako tertzioen betekizunez arduratzeko[1185]. Zama astun hori arindu nahian, nekazariek zerbitzua txandaka bete ahal izatea eskatu zioten diputazio karlistari.

Eladio Imaz maisua kentzeak beste polemika bat piztu zuen. Imazekin izandako istilua aurreko urtetik zetorren, alkateak eskoletako giltza eskatu zionean ez ziolako utzi. Maiatzean kargutik kendu eta ekainean Herrialdeko Lehen Hezkuntza Batzordeak Imaz berriz bere lanpostuan jartzea agindu zuen, baina udalak ez zuen horrelakorik bete, «… por el detrimento que en ello se sigue al prestigio de su autoridad»[1186]. Uztailean, Arragueta eta Bidebarrietako auzokoek Imaz maisua bere lanpostura bidaltzea eskatu zioten Eibarko Lehen Hezkuntza Batzordeari[1187], baina liberalak bueltatu arte maisuak ez zuen bere lanpostua berreskuratu. Edonola ere, udal karlistak zituen oztopoak gero eta handiagoak zirela dirudi.

Uztailaren 22ko zirkularraren bidez diputazioak familia liberalak erreal bana eta bina ordaintzera behartu zituen[1188]. Eibarren 204 familiak ordaindu behar izan zuten zerga berezia, eta beste 45 "*ausente*" zeudenez, ez zegoen kobratzeko aukerarik. Zerrenda horretan agertzen diren gehienek biztanle xumeak dirudite: soilik 33k bete zituzten udal-karguak (% 13,2) eta 17k zeukaten boto-eskubidea (% 6,8) Mutrikuko araudiaren arabera. Bitxia bada ere, isuna ordaintzera behartutako bost biztanle gerraostean liberalek eginiko karlisten kolaboratzaileen zerrendan agertzen dira. Francisco Iturberi dagokionez, I. Karlistaldian karlisten alde ibilitakoa, liberalen zerrenda horretan agertzen da Bigarrenean.

1185. «Sabido es, Exmo Sr., y no se ocultará a la penetración de S.E., que el pueblo de Eibar por el espíritu liberal que predomina en la inmensa y casi totalidad de sus habitantes, es uno de los que en la provincia pueden ofrecer el más reducido contingente de hombres para el servicio de tercios, y tanto es así, que se hace muy difícil cuando no imposible, dar cumplimiento a las disposiciones que V. E. dicta en materia de armamento foral, y demás que conduzca al servicio de tercios. (…) Esta anomalía se explica fácilmente diciendo a su V.E. que existen en esta villa 117 individuos comprendidos en el nº 6 del artículo 1º de la circular nº 71, y además otros 47 individuos que, estando obligados al servicio contribuyen con la cuarta parte de sus jornales en calidad de armeros para el Ejército Real; y deduciendo de las fuerzas vivas de una localidad, tan considerable número de individuos, claro está que todo el peso del servicio público ha de recaer, como en efecto sucede, sobre los recurrentes que son labradores y en su mayor parte padres de familia, quienes por su calidad de tales están sobrellevando también las cargas del ramo de bagajería», GAO, JD IT 7b, 1875-3-1.

1186. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-6-3.

1187. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-7-29.

1188. EiUA, E,8,17, «Lista de las familias de esta villa clasificadas como liberales y cuota de contribucion diaria que a las mismas se señala con arreglo a la circular nº. 8 de la Exma. Diputacion fecha 22 de julio del presente año», 1975-8-23

Irailaren 11ko erasoa

Irailaren 2an, aldundiak herriko liberalen zerrenda eskatu zuen, gerraren porrotak eragiten zuen paranoia antiliberalaren adibidea. Arriskua, egia esan, benetakoa zen. Gudaroste karlisten desintegrazio-prozesuak armada eta gudu-talde liberalen erasoak errazten zituen karlisten erretagoardian. 1875eko irailaren 11n, liberalen erasoaren susmoa zegoela-eta, udalak herritarrak deitu zituen, armak hartu eta herria defendatzera. 36 pertsona hurbildu ziren udalak banatutako fusila eta 40 kartutxoak jasotzera, horietatik 11 kalekoak eta 25 baserrietakoak.

Gehienak pertsonaia ezezagunak ditugu, orain arte datu-basean ez genituenak. Beraz oso gazteak izan behar ziren. Beste batzuek zaharregiak dirudite, 1842ko zergan agertzen direlako, eta berri legez sartu ditut. Beharbada, zaharrenak eta gazteenak baino ez zeuden herria defendatzeko. Zaharren artean, José Joaquín Agirre aipa dezakegu: Agirre 1842ko zerga-ordaintzaileen zerrendan agertzen da 500 errealeko errentarekin, Agirre Goikoa baserriaren jabe legez. 30 urte geroago, Azitaingo errotan bizi zen, maizter. Errejidorea izan zen 1827an, I. Karlistaldian, 1841ean eta 1846ko udal foruzalean. Pertsona berdinaren aurrean bagaude, 1875ean gutxienez 73 urte izan behar zituen; litekeena da bera barik, bere semea edo biloba izatea, eta karlismoarekiko atxikimendua tradizio bidezkoa izatea. Lizarriturriren kasuan ere, abizen bereko beste bat aurkitu dugu I. Karlistaldiko 25 boluntarioen artean. Dionisio Sarasketari buruz ere badugu erreferentzia bat: 1835eko milizia liberalean parte hartu zuela; pertsona bera izateko 56 urtetik gora izatearekin nahikoa zuen.

Liberalismotik karlismorantz jotzea uste baino maizago agertuko zaigu, beste kasu batzuek adierazten diguten bezalaxe. Datarik gabe, baina behin gerra bukatuta egindako zerrenda batek adierazten digunez[1189], José Antonio Sarasketa 1873ko abuztuan hasi zen zerbitzuan; 1835ean miliziano liberal batek izen berdina zeukan. Francisco Gisasolaren kasua argiagoa da, Asola baserrikoa dela zehazten baitu bi kasuetan: hau ere I. Karlistaldian miliziano liberala izandakoa genuen, eta II.ean, ordea, karlisten alde borrokatu zuen. Egoera berean zegoen Juan Gorostiza, Lehenean Getarian babestu zen milizianoa zelako eta Bigarrenean, «… recaudador de diezmos forzosamente y fiel», karlisten alde. Beharbada kasurik esanguratsuena Jose Ramón Gabiolarena da, hau ere 1835eko miliziano ohia, eta karlista 1873an, «… avanzado y que ha tenido 3 hijos en la rebelion. Propietario comerciante».

Iraileko izualdi laburraren ostean udala betiko dinamika berreskuratzen saiatu zen: zenbait udal-langileren soldatak jaitsi[1190], diputazioaren zirkularrak zabaldu[1191],

1189. EiUA, “Los que han servido en las filas carlistas en servicio activo”???

1190. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-9-21.

1191. Soldadu-premiak eraginda, diputazioak arma-zerbitzua betetzea agindu zien «… a todos los españoles de otras provincias que residan en Guipúzcoa» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1875-9-28.

eta batez ere, Jose Domingo Gisasolari zor zitzaizkion 67.786 errealei nola aurre egin erabaki zuen. Gerraren bukaera usaindu egiten zen. Desertzioak ugaritzen ari zirenez, zaurituak eritetxetik irten bezain laster, zuzenean beraien batailoietara bueltatzea agindu zuen Gipuzkoako komandante jeneralak, eta ibilbidetik kanpo zeuden udalei aldentzen zirenei inolako laguntzarik ez ematea agindu zien[1192].

GERRAREN BUKAERA ETA GERRAOSTEA

1876ko foru-udala

1876ko Urte berri egunean, deitutako auzokideen erdiak baino ez ziren azaldu udalkideak hautatzeko batzarrera. Diputazioak bidalitako zirkularra irakurri ostean, «… deliberaron detenidamente acerca de los inconvenientes que acaso pudieran resultar de elegir el nuevo Ayuntamiento por insaculacion puesto que escasea el personal para alcaldes en las actuales criticas circunstancias»[1193], eta aurreko urtean bezala Ciriaco Iturriotzek proposatu zituen urteko udalkideak. Bildutakoek aho batez onartu zuten Iturriotzen proposamena, eta berriz Garagartzari egokitu zitzaion alkatearen makila hartzea. Oraingo honetan ere biztanle batzuen protesta entzun zen, udalkideen hautaketa ez zelako foruaren arabera burutu [1194]. Ondorengo diagraman karlisten garaian eratu ziren udalen osaketa ikus dezakegu.

Konturatzen bagara, 1874ko maiatzean eta foru-udalen garaian udalkideen berriztatze nabarmen bat gertatu zen. Aurreko bi udaletan, Lizarraga sartu aurretik udalean aritutakoen presentzia garrantzitsua bada ere (18tik 8), ondoren izendatu ziren foru-udaletako kideetatik bakar batek zeukan esperientzia halako kontuetan —Fernando Simon Atxa Abaunzagak—. Horrez gain, foru-udalaren ezintasuna nabaritzen da, batez ere gobernu-ardurak hartzeko prest zeuden biztanleak erakartzeko orduan. Ikusten denez, 1876an aurreko agintaldian aritutako askok karguak errepikatu zituzten (Garagartza alkatea eta Etxeberria alkateordea) eta beste batzuek karguak aldatuta baina udalean jarraitu zuten: Jose Manuel Garate sindiko izandakoa hirugarren alkate izendatzen dute; Geronimo Atxotegi errejidore izandakoa, herri-diputatu; Egaña eta Arostegi herri-diputatu izandakoak, errejidore… Datu hauek adierazten digute zein urria zen udalkide karlistek Eibarren zuten sostengua. Edonola ere, gerra bukatzear zegoen eta ez zuten ezertarako astirik izan.

1192. Gipuzkoako komandante jeneralak zabaldutako zirkularrak zioenez: «Siendo muchos los abusos que cometen los que van y vuelben de los hospitales, apartandose del camino que debian seguir para detenerse donde les parezca y presentandose en sus destinos cuando mejor les combiene, prevengo a V.S. que, desde el momento que cualquier individuo de los arriba indicados se separen de la ruta mas directa y natural, cese todo auxilio de racion, alojamiento…» EiUA, E,8,17, 1875-12-4.

1193. EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1876-1-1.

1194. «… protesta en tres conceptos, a saber; 1ª en que era antiforal la practica de convocar la reunion por medio de papeletas; en que en la lista de convocatoria no figuraban varios vecinos propietarios de esta villa y en que la elección del nuevo Ayuntamiento no se habia hecho por insaculacion como lo mandaba el Fuero» EiUA, A,1,1,14, *Akta Liburuak (1850-1876)*, 1876-1-1.

NORTASUNA	<= 1873-8	1873-8	1873-11	1874-5	1875	1876-1	K-L
VERGARA José Francisco María	Ez	SPG					K
GUISASOLA ESCAREGUI Martín	Bai	HD					K
SARASQUETA Andrés	Bai	HD					L
ARETA MUGICA José Agustín	Ez	ER				SPG3	K2
GUISASOLA José Domingo	Ez	ER					L
BASCARAN Romualdo	Ez	ER					L
ERBITI EIZAGUIRRE José Antonio	Bai	ER					K2
ARETA IRAZABALBEITIA Miguel	Ez	A3					K
ZULAICA Narciso	Ez	A2					L
ORBEA MURUA Juan Manuel	Bai	A1					L
PAGUAGA Antonio	Bai		SPG				K
MARTINEZ DE LA PERA Melitón	Ez		LEH				K
GARATE José Manuel	Ez		BOK	ER	SPG	A3	K
IDIGORAS Fausto	Ez		BOK			HD	L
MANDIOLA GUISASOLA Rufino	Bai		BOK				L
LARRAÑAGA Antonio	Bai		BOK				K
ZULOAGA Evaristo	Ez		BOK				K
AREITIO AURTENA José María	Bai		BOK				
ORBEA ARZUAGA Manuel	Ez			SPG	SPG2		K2
ACHOTEGUI Gerónimo	Ez			ER	ER	SPG2	K2
URIA Ambrosio	Ez			ER	ER	HD	K2
AZCOITIA Domingo	Ez			ER	ER		K2
SUSTAETA Lucas	Ez			A3			K
AZPIRI Antonio	Ez			A2	A3		K2
GARAGARZA Antonio	Ez			A1	A1	A1	K2
IRAEGUI PAGOAGA José Ignacio	Ez				SPG3		K2
LOYOLA Domingo	Ez				HS		
AROSTEGUI Francisco Antonio	Ez				HD	ER	K2
EGAÑA Nicolás	Ez				HD	ER	
URIARTE Nicolás	Ez				ER		K2
ECHEVERRIA Celestino	Ez				A2	A2	K2
AZPIRI Felix	Ez					SPG	K2
ACHA ABAUNZAGA Fernando Simón	Bai					ER	K
PAGUAGA José Antonio	Ez					ER	

Karlismoaren gainbehera militarra

Bilboko setioa altxatu beharrak ukituta utzi bazituen ere, Lacarreko garaipenak gudaroste karlisten morala igo zuen, are gehiago Alfontso XII.a bera preso hartzeko zorian egon zirela ikusi zutenean[1195]. Gudaroste liberalak Ebroren hegoaldean kokatu ziren berriz, eta Maestrazgo eta Kataluniako lurretan zebiltzan karlistak garaitzera bideratu zituen bere indarrak. Liberalak askoz gehiago zirenez, bata bes-

1195. Mendiri jeneralak «… hizo avanzar hacia el pueblecito de Lacar a un grupo de hombres en aparente actitud de rendirse. Escena de la que el ejército liberal no tendría la menor sospecha, pues varias unidades lo habían hecho realmente en el curso de los días anteriores. Entretenida la atención liberal en esta maniobra, Torcuato de Mendiri ordenó el 3 de Febrero de 1875 un feroz ataque que

tearen atzetik karlisten gotorleku nagusiak alfontsotarren eskuetan gelditu ziren, eta Seo de Urgellekoa utzi beharra —1875eko abuztuaren 26an— kolpe gogorra izan zen, fronte katalanak bizirik iraun zuen bitartean bertan borrokatu zuten gudaroste liberalak euskal lurraldeetara abiatu zirelako ordutik aurrera. Irailean eta urrian, Kataluinako 3.000 karlista baino gehiagok liberalek eskainitako indultua onartu eta armak entregatu zituzten.

Zumeltzun beste garaipen entzutetsu bat lortzekotan egon ziren karlistak, baina liberalen zalditeriaren oldarra ikusirik Perula jeneralak atzera egitea erabaki zuen. Edonola ere, Zumeltzukoaren ostean armada liberalak euskal fronteko gerra-operazioak gelditu egin zituen, eta zazpi hilabeteko tregua bat egon zen, "*de facto*". Don Karlos Kubako matxinada aitzakiatzat hartua tregua hau luzatzen saiatu bazen ere, behin katalanak garaituta armada liberalaren indar guztiak bertorantz bideratu ziren.

160.000 soldaduz osaturiko gudarostea zen[1196], soldadu bat hiru biztanle bakoitzeko! Mendebaldetik, Quesada jeneralaren zutabeetariko batek Balmaseda hartzea lortu zuen, 1876ko urtarrilaren bukaeran; Enkarterriaz jabetuta, Arabako iparraldeko erresistentzia karlista oztopatu zuen. Era horretara Debagoieneko bidea zabaltzen lagundu zion bigarren zutabe bati, eta hiru urte lehenago Lizarragak erabilitako taktika berarekin, bigarren hau Arrasatez eta Bergaraz jabetu zen, «… y lo que es más importante, los centros de producción carlista de armas, localizados en la zona de Placencia y Eibar»[1197]. Elgetan baino ez omen zen erresistentziarik egon, eta hala ere, otsailaren 13rako liberalen mende zegoen. Hegoaldetik, Primo de Riverak Lizarrarako lerroa hautsi zuen otsailaren 17an; egun berean Don Karlos eta bere jeneralak Beasainen bildu ziren nolabaiteko erresistentzia antolatu nahian, baina alfontsotarren uholdeari eustea ezinezkoa zen. Otsailaren 27an Don Karlosek muga zeharkatu zuen, «Volveré» famatua ohikatu ostean.

Oraingoan ez zen akordiorik egon, II. Karlistaldia ez zelako bukatu besarkada batekin, armada liberalaren garaipen osoarekin baizik. 1876ko martxoan amaitu zen gerra, eta lau hilabete geroago, Canovasek foruetatik gordetzen ziren azken eskubideak ezabatu zituen[1198], 1876-7-21eko legearen bidez: Batzar Nagusiak eta

desarboló totalmente al ejército liberal, obligado a dejar sobre el campo muertos, heridos, prisioneros, provisiones de guerra y boca, caballos y piezas de artillería. El propio Alfonso XII estuvo a punto de caer prisionero, teniendo que retirarse a Logroño a uña de caballo, lo mismo que su flamante ejército» (Eyara,1980: 240).

1196. «Los efectivos estacionados en el País Vasco varían según los diversos momentos de la contienda; a partir de 1874 oscilan entre 50.000 y 100.000 hombres, para alcanzar 160.000 durante la campaña final» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 340).

1197. Eyara,1980: 243.

1198. «El aislamiento de los liberales, la impotencia del Ejército, han hecho de la insurrección carlista una especie de guerra de secesión, de tal forma que la victoria de los gubernamentales va a tomar el aspecto de una derrota del pueblo vasco, incluso en sus capas liberales» (Extramiana, 1979-1980: II. liburukia, 366).

foru-diputazioak legez kanpo ezartzeaz gain, soldadutza derrigorrezkoa bihurtu zuen foru-herrialdeetan, eta sistema fiskala estatukoarekin parekatu zuen. Azken puntu hori zertxobait leuntzeko, bi urte geroago lehen Kontzertu Ekonomikoak adostu ziren mendebaldeko foru-lurraldeen eta estatu espainiarraren artean. Horrez gain, foru-erregimena deuseztuta gelditu zen behin betiko[1199].

1876ko martxoaren 6ko udala

Eibarri dagokionez, gudaroste liberalak otsailaren erdialdera sartu baziren ere, martxoaren 6ra arte ez zen udalik eratu. Udalkide izendatu berriak honako hauek ziren:

NORTASUNA	Udal karguak	GBI	UH	1869	1873-6	1876-3	O.M.	Mil-73	Ad-73	K-L
GARATE Manuel	ER 1859					ZIN				L
GUISASOLA JUARISTI Feliz	ER 1867	BOK	A2	A1		ZIN	94	Bol.	39	L*
IBARZABAL Juan Teodoro	ER 1869			ER		ZIN	54,80	Bol.	44	L*
IÑARRA IRAEGUI Diego	ER 1873-6				ER	ZIN		Bol.	25	
ACHOTEGUI Facundo	ER 1873-6				ER	ZIN	74,45	Errep.	28	L
ORTIZ DE ZARATE Inocencio	A1 1873-6				A1	A1	64	Bol.	36	L
UNZUETA Jose María	ZIN 1873-7					ZIN		Bol.	52	
SARASQUETA Jose María	ZIN 1876-3					ZIN		Bol.	50	K
OREGUI José Ramón	ZIN 1876-3					ZIN		Bol.	58	L*
ANITUA ECHEVERRIA Domingo	ZIN 1876-3					ZIN		Bol.	60	L*

Ezagutzen ez ditugun laburduren esanahia: “GBI”, Gobernuko Batzar Iraultzailea (1868-10-3); “UH”, Udal Herrikoia (1868-10-17); “OM” eremua beteta dutenek boto-eskubidea zuten Mutrikuko Udal Ordenantzaren arabera, eta kopuruak errenta islatzen du, errealetan; “Mil-73” eremua beteta dutenek 1873ko abuztuko liberalen exodoan parte hartu zuten; “Ad-73” eremuak adina adierazten du, 1873an.

Ikusten denez, Manuel Garate izan ezik, udala herritik alde egitea erabaki zuten boluntarioek osatu zuten[1200]. Horien artean errepublikanoen presentzia nahiko nabarmena zen, Ortiz de Zarate, Atxotegi eta Iñarra Iraegi 1873ko ekaineko udaleko partaideak izan zirelako, eta Jose María Unzueta eratzeko aukerarik izan ez zuen 1873ko uztailekoa; Ortiz de Zarate gainera, Eibarko Itunaren sinatzaileetariko bat izan zela ikusi dugu, eta Atxotegi, Errepublikaren Boluntarioetako kidea. Beste hiru kide —Sarasketa, Oregi eta Anitua— estrainekoz sartzen ziren udalean, eta Sarasketa, “K-L” eremuan karlista legez agertzen bada ere, litekeena da azken datu hau izen eta abizen bereko beste pertsona bati buruzkoa izatea. Udal honetako kideak Cantabriako koronelak izendatu zituen, baina 1876ko azaroaren 4an jakin zenez, gobernadore zibilak Zarate kargutik kendu eta Feliz Gisasola alkateordea ezarri zuen bere ordez (Mugica, 1990: 476).

1199. Zuzenbide zibileko zenbait atal ere foru-zuzenbidean oinarritzen dira.

1200. Inocencio Ortiz de Zarateri buruz zalantzak ditugu. Alde batetik 1873ko abuztuan herritik alde egin zuten boluntarioen zerrendan agertzen da, baina 1875eko uztailean karlistek ezarri zuten zergan ez da “ausente” legez agertzen. Litekeena da hasiera batean herritik alde egin arren, Inocencio Eibarrera itzuli izana, oraindik karlistak agintean zeudela.

Boluntarioak ere gerra bukatu bezain laster itzuli ziren herrira, eta euren etorrera ospatzeko antolatutako jaia gau eta egun luzatu zen (Sarasketa, 1909: 48).

ZERRENDA BELTZAK

Liberalak eta karlisten nortasunak

Gerratean zehar eta gerraostean, karlistek zein liberalek pilo bat zerrenda egin zuten, etsaiarekin kolaboratzen zutenak identifikatu eta zerga eta isunez itotzeko. Beraz, estrainekoz, alderdi bakoitzeko kideen nortasunak ezagutzen ditugu, etsaiaren erreferentziei esker izan arren. Esaterako, I. Karlistaldiko liberalen zerrendak baditugu, baina ez karlistenik, udalkideen eta zerga-ordaintzaileen zerrenda urri eta fidagaitzak albo batera utzita. Oraingoan bai, kapituluz kapitulu jorratu dugun datu-baseari benetako etekina ateratzeko aukera daukagu, datuak alderatzeko darabilzkigun laginak nahiko zabalak direlako: 389 liberalak eta 187 karlistak. Liberalen lagina zabalagoa izan arren, aipatzekoa da karlistena fidagarriagoa dela, karlistak orotara ez zirelako 250 baino gehiago izango, liberalen alderdian, miliziano hutsak 1.200etik gora zeudenean.

Pertsonaia bakoitzaren atxekimendu ideologikoaz gain, zerrenda hauetatik datu-basea aberasten duten datuak atera ditzakegu: adina, helbidea, maizterrak ala jabeak ziren, errentak, herrian gelditu ziren ala ez… Liberalen lagina osatzeko lau zerrenda erabili ditugu. Lehenengoa, GAOn aurkitutakoa, 1873ko abuztuan Ibarzabalen gidaritzapean Donostiarantz abiatu ziren boluntarioekin (185 miliziano). Zerrenda honetan pertsonaia bakoitzaren adina, ogibidea, egoera zibila, Eibartik irteeradata, eta ea boluntarioa zen zehazten dira. Bigarrena, 1875eko uztailaren 22ko aginduari jarraiki egin zuten karlistek, Eibarko liberalei eguneroko erreal bana edo binako isuna ezartzeko; zerrenda horrek gainera, zigortua herrian ala "*ausente*" zegoen zehazten digu (guztira, 243 familiaburu). Datu honi esker dakigu herria utzi zuten boluntarioetatik gutxienez 14 gerra bukatu baino lehen itzuli zirela Eibarrera, ez baitira "*ausente*" legez agertzen zerrenda horretan.

1875eko urtarrilean eta uztailean datatutako beste pare bat zerrendak adierazten digunez, jabeak bereziki zigortu zituzten, alokairuan zituzten ondasunen errentak bahitu baitzizkieten. Bahiketa jasan zuten 61 jabeen nortasunak argitzeaz gain, jabetza zein kaletan zeukan adierazten da, zein zen maizterra eta zenbat ordaintzen zuen. Hala dakigu, Vicente Agirre osagileak plazan zuen dendatxoa Facundo Atxotegik alokatu ziola; biak ere errepublikanoak zirenez ondo konponduko ziren jabe-maizterrak, Atxotegi federalista zen ala ez, ez dakigun arren. Atxotegik, beste denda bat ere alokatu zion Manuela Aiarberi, eta pare bat etxe Gerónimo Vildosoa eta Victor Zubiaurreri. Ignacio Ibarzabalen 17 eraikinetatik 9 Hospitalekua kalean zeuden; Juan Manuel Orbea bost etxebizitzaren jabe zen Arragueta kalean. Ondasun higiezinen pilatzaile nagusien artean Inocencio Betolaza agertzen

zaigu, orain arte datu-basean sartu gabe genuen pertsonaia: Inocenciok hiruna etxe zituen Rabal eta Musetadi kaleetan, eta 10 Ardantza kalean.

Karlisten aldekoak hiru zerrendaren bidez identifikatu ditugu. "*Los que han servido en las filas carlistas en servicio activo*" izenburua duen zerrendan 112 eibartarren nortasunak biltzen dira, gudaroste karlistan izan zuten parte-hartzea zehazten duten beste zenbait daturekin: noiz irten ziren borrokara, noiz eta non entregatu ziren eta karlisten gudarosteetan egindako zerbitzuaren iraupena. Zerrendako kide batzuk ezabatuta agertzen dira, eta hasiera batean, gatazkan zehar hildakoak zirela uste bagenuen ere, berez, kide berdina bi zerrendatan edo gehiagotan idaztearen ondorioa da. Agustín Gisasola, adibidez, hiru zerrendatan agertzen da: tertzioen zerrendan, zerbitzu aktiboan egondakoen zerrendan eta karlistekin kolaboratu zutenen zerrendan. Zerbitzu aktiboan ibilitako gehienak gerraren bukaeran aurkeztu ziren, 1876ko otsailean.

Beste batzuk bi alderdietako kide legez agertzen dira, ibilbide bitxiarekin: Nemesio Mugika, adibidez, Eibarko Askatasunaren Boluntarioa izan zen, eta eurekin batera irten zen Donostiarantz 1873ko abuztuaren 15ean, karlistak herria hartzera zihoazen-eta. Bada, abuztuaren 27an karlistei bildu zitzaien Nemesio, eta 1876an preso hartu zuten Cantaviejan. Karlisten infiltratua zen? Liberalena? Ala gerraren olatuak hara eta hona ibili zuen askotariko bat? Ignacio Larrañagarekin antzeko zerbait gertatzen da, baina oraingo honetan ziur asko izen eta abizen bereko bi pertsonaiaren aurrean gaude, iturri batek 1873ko urtarrilean karlistekin joan zela azaltzen digun bitartean, besteak 1873ko abuztuan liberalen exodoan parte hartu zuela dioskulako; 1876an atzerrian zegoen, aurkeztu gabe. Askoz argiagoa da Domingo Azkarateren kasua, boluntario liberalalen zerrendan bertan, karlistekin joan zela adierazten baita, beste agiriarekin alderatuta, irteera hilabete geroago datatzen badu ere. Liberalek eurek onartzen zuten hasiera batean eurekin zegoen jendeak karlismorantz jo zuela, Andrés Uriarteri buruz, «… renegado de la causa liberal" ziotenean. Miguel Baskaranen inguruan ere, «… fabricante de armas y voluntario desertado de la emigración» zioten.

Karlista goiztiarren artean, Gorostegi anaiak aipatu behar. Hiru anaiak —Manuel María, Juan Cruz eta José Ramón— 1873ko urtarrilean irten ziren Don Karlosen alde, eta 1876ra arte ez ziren aurkeztu. Jose Atxa Atxekuaren jokabidea ere aipagarria da, gerra jada galduta zegoela ikusi arren zerbitzuan hasi baitzen, gutxienez 59 urte zituela. Ordura arte zerbitzu aktiboan ez zuen parterik hartu, baina gerra bukatzeko hilabete falta zela, ez dakigu borondatez ala egoerak behartuta, kontua da arma hartu behar izan zuela. 1842an Atxakua baserriaren jabe legez agertzen da, 612 errealeko errentarekin eta 1854ko urtarrilaren 7an Aginaga auzoko alkate izendatu zuten. Jose Atxa Bekoetxe ere nahiko zaharra izan behar zen, 1827ko tertzioan aritutako berbera bazen behintzat; baina hau 1873ko irailetik 1876ko urtarrilera egon zen zerbitzuan, eta hori ez da ohikoa gutxienez 60 urte eduki behar zituen pertsonarengan. Kasu berezia ala aita-semeak?

Karlisten nortasunak ezagutzeko erabili dugun beste zerrenda bat datarik gabe baina gerraostean liberalek eginikoa da. Zerrenda horretan 103 lagun agertzen dira, eta gehienen ondoan, zertan kolaboratu zuen azaltzen da. Horietatik 24 armaekoizleak ziren —«fabricante de armas» esaten da—, eta lauri buruz espiak zirela. Beste batzuek propaganda-arloan lan egin zuten: José Gabiolari buruz, adibidez, «correo de carlistas, insultador y propagandista» dio, eta Manuela Orbeari buruz «viuda, noticiera, carlista propagandista P»; edota liberalei bahitutako ondasunak erosten zituzten, Joseba Antonio Zengotitak legez «… sus hijos condució a las filas carlistas y compradora de obgetos liberales P». Ez ziren karlistekin kolaboratzen zuten emakume bakarrak: Braulia Uriarteri «viuda interesada a la causa carlista» gehigarriarekin agertzen da; Antonia Lasartek «auxiliadora comercio» dauka, Suinaga Martinak «Viuda P. comercio» eta Inés Iturbek «… su hermana Eugenia de ideas muy avanzadas, insultadoras». Beste sei kolaboratzaileri buruz ere aipamen hau egiten da: «avanzado». Ez dakigu zehatz-mehatz zer esan nahi duen, muturreko karlistak zirela ala karlistak izan arren, aurrerakoiak zirela. Beste lau «dudoso» legez agertzen dira, eta sei «ausente» zeuden, horien artean Ciriaco Iturrioz «… fabricante de armas y de polvora fugado al entrar los liberales».

Kolaboratzaile horien artean jabeen kopurua 25ekoa zen, 24 armaginak ziren eta 12k merkataritzan jarduten zuten. Udal-karguak betetakoak 17 ziren, eta horien artean bi errepublikano: Florencio Gisasola «… fabricante de armas para la rebelion desde el año 1872 hasta fin de la guerra» eta Julián Arana armagina. Kasu batzuetan nortasun zehatzak azaldu beharrean, zeinen ondorengoak diren idaztearekin nahikoa zuten, «herederos de Pagaegui» modukoa.

Ondorio estatistikoak

Esan bezala, karlisten eta liberalen nortasunak ezagutzeak batzuen eta besteen ezaugarri nagusiak alderatzeko aukera ematen digu: partaidetza politikoa, ogibidea, errentak, adina, etab. Ez bakarrik karlisten eta liberalen artekoa; baita alderdi bakoitzaren barnean zeuden azpitalde ezberdinen artekoa ere. Hurrengo taulan, azpitalde horiek zeintzuk diren azaltzeaz gain, identifikatuta ditugun 389 liberal eta 187 karlistak datu-basean gordetzen ditugun zenbait informaziorekin iraziz, gelditzen zaizkigun laginen berri ematen da.

“Udal-karguak” lerroan ez ditut kontuan hartu 1873ko uztailean izendatutakoak, ez zutelako kargurik betetzeko aukerarik izan. Hurrengo hiru lerroek batez bestekoak eskaintzen dituzte, “MUA 1871 BB” (Mutrikuko Udal Araudia) eta “Zerga 1873 BB” zutabeetan errealetan, eta “Adina 1861-1873” zutabean, urtetan, noski. “Habitat” lerroa berez ulertzen da, eta kasu honetan, lagina, hirigune eta auzokoen batuketa da. “Idazten 1861” lerroak ere ez dauka azalpen beharrik, eta “Egoera zibila 1861” lerroan, “E-G” ezkongabe, “EZK.” Ezkondu eta “AL” alargun. Kasu honetan ere, lagina, hiru aukeren batuketa da. Edonola ere, azken datu honen inguruan zuhurrak izatea komeni zaigu, 1861ean ezkongabe egon arren 1873an ezkonduta egoteko aukera asko zeudelako.

	Liberalak			**Karlistak**		
Udal-karguak	39			35		
M.U.A. 1871 BB	100,14 (21)[1201]			119,87 (20)		
Zerga 1873 BB	2174,6 (37)			1450,4 (32)		
Adina 1873 BB[1202]	42,4 (75)			34,8 (41)		
Ogibidea 1861-73	167			59		
Habitat 1861	*Hirigune*		*Auzoak*	*Hirigune*		*Auzoak*
	65		10	8		33
Idazten 1861	*Bai*		*Ez*	*Bai*		*Ez*
	59		15	15		26
Egoera zibila 1861	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*
	29	45	1	29	12	0
Guztira	**389**			**188**		

Taula honetatik ondorioztatu ahal denez, udal-karguetatik baztertuta zegoen jendeak liberalismoaren alde egin zuen nagusiki, zeren identifikatuta ditugun 389 liberaletatik 39 baino ez ziren udalkideak (hamarretik bat), eta karlisten artean 188tik 35 (bostetik bat). Beraz, erregimen isabeldarrean zehar ezarritako sufragio murriztuari esker tradizionalistek —beranduagoko karlistek— udalean eduki zuten ordezkaritza maila puztuta zegoen, eta iraultza demokratikoaren abagunean liberalek karlistek baino gaitasun handiagoa erakutsi zuten biztanle xumeen atxikimendua erakartzeko. Hurrengo datuak ere gauza bera adierazten digu: 1871ko Mutrikuko Udal Araudiaren arabera hamar karlistatik batek zeukalako boto-eskubidea, eta liberalen kasuan, 18tik batek. Eremu horrek argitzen duenez, karlistek ordaintzen zituzten zergen batez bestekoak ia 20 errealetan gainditzen zuen liberalena. Informazio hauek, ordea, ez datoz bat 1873ko lur-jabetzaren arloak azaltzen duenarekin, liberalen errentak karlistenak baino zatia altuagoak zirela ikusten baitugu. Ikusiko dugun legez, kontraesan hauek talde bakoitzaren osaketa heterogenoaren ondorio dira, alderdi berean elkarrekin bizi ziren azpitaldeen arteko desorekaren seinale.

Adinari dagokionez, 1861eko erroldaren datuek adierazten digutenez, batez beste liberalak karlistak baino zaharragoak ziren, zazpi urte eta erdi, gutxi gorabehera, eta ondorioz ezkonduen kopurua altuagoa da liberalen artean. Beharbada

1201. Batez bestekoen ondoan, parentesian agertzen den zenbakiak batez bestekoa ateratzeko erabilitako laginaren kopurua adierazten du; lagin hori fidagarriagoa da behean agertzen den kopurutik zenbat eta hurbilago egon. Zentzu horretan, laginik fidagarriena liberalen ogibideari buruzkoa da, 389 lagunetik 167ren ogibideak ezagutzen ditugulako; laginik fidagaitzena Mutrikuko Udal Araudiarena da, liberalen atalean, 389 lagunetik 21en kopuruak baino ez ditugulako ezagutzen (% 5,3); karlisten alderdian lagina 20koa izan arren adierazkorragoa da, karlistak guztira 187 baitziren (% 10,6).

1202. Adina kalkulatzeko 1861eko erroldaren datuak erabili ditugu batez bestekoa ateratzeko, eta gero 12 urte gehitu dizkiogu.

kontrasterik esanguratsuenak habitat eta alfabetizazio mailak adierazten dituzten zutabeetan aurkitzen ditugu. Habitatari dagokionez, liberalen % 86,6 hirian bizi zen bitartean (% 13,3 auzoetan), karlisten % 35 baino ez zen hiritarra (% 65 baserritarra). Alfabetizazio mailaren arloan, datuak are adierazgarriagoak dira liberalen % 79,7k irakurtzen bazekien, ehunekoa 36,5era jaisten delako karlisten alderdian. Beraz, biztanleen atxikimendu politiko-ideologikoa baldintzatzerakoan, errenta edota partaidetza politikoa baino erabakigarriagoak gertatu ziren, auzo edo hirian bizitzea alde batetik, eta alfabetizazio maila bestetik. Egia esan, bi faktore horiek lotuta daudela dirudi, auzoetako biztanleriaren bi herenek ez zekielako idazten, hiritarren artean alfabetatu gabekoen kopurua bosten bateko zelarik. Auzoetako umeek arazo gehiago zituzten eskolara joateko. Errealitate honek hipotesi berriak sorrarazten dizkigu; hala, derrigorrezko hezkuntzak liberalismoaren hedapenean izan zuen eragina, batez ere, eskola-maisuek elizaren tutoretza astindu eta pentsamendu kritikoa lantzeko gaitasuna erakutsi zuten lekuetan.

Ogibideari buruzko datuak taula berezi batean islatzea merezi duela pentsatu dugu. Jarduera laboralari buruzko datuak 1861eko erroldatik ateratakoak badira ere, alderdi bakoitzaren osaketa soziologikoa zirriborratzeko egokiak izan daitezkeela uste dugu.

	LIBERALAK			KARLISTAK		
	Nekazariak	Armaginak	Besterik	Nekazariak	Armaginak	Besterik
Jabeak	1	24		9	1	
Maizterrak	2			7		
Langileak	2	3		7	1	
Zehaztu gabe		57	9	5	10	5
Guztira	5	84	9	29	12	5

Ikusten denez, liberalen alderdian armaginen nagusigoa erabatekoa zen (% 85,7) eta karlisten artean % 28 ziren. Nekazariak, liberalen % 5 ziren eta karlisten % 63. Beraz, adina eta alfabetizazio mailarekin batera, jarduera laborala ezinbestez kontuan hartu beharreko aldagaia dela dakusagu, eibartarren jokabide politikoa baldintzatzeko orduan. Errealitate hau aski ezaguna da, baina guk joera horiek kopuruetan islatzea lortu dugun neurrian, armagin-liberal binomioaren hipotesia frogatzen lagundu dugula uste dugu, Eibarrerako behintzat. Horrez gain, II. Karlistaldiak Eibarren jabeen arteko borrokaren itxura hartzen du, lur-jaberik gehienak karlisten alde jarri zirelarik, eta arma-fabriken jabeak liberalen alde. Jabe horiek, gainera, euren langileak erakartzeko gaitasuna erakutsi zuten, eta era horretara, klase-borroka baino gehiago gerrak nekazaritza- eta industria-oligarkien arteko enfrentamenduaren ñabardurak hartzen ditu.

Behin liberalen eta karlisten arteko ezberdintasun nagusiak ikusita, orain alderdi liberalaren baitan aurkitzen ditugun azpitaldeen arteko konparaketak egitea

komeni da. Zeregin horretarako, karlisten eta liberalen arteko alderatzea egiteko erabili dugun prozedura berari jarraituko diogu, herrian gelditu zirenen eta alde egin zutenen arteko antzekotasun eta ezberdintasun nagusiez jabetzeko. Beste alde batetik, errepublikanoen taldea aztertuko dugu bereziki, bere isla ezberdinetan.

Ikusi denez, erbesteratuen kopurua ez zen berdina izan sasoi guztietan. 1873ko abuztuan 230 lagun irten ziren, baina horietatik batzuk Eibarrera itzuli ziren hurrengo hiletan. Hasiera batean gelditu eta ospa egin zuenik ere egon zen, eta prozesu hori indartu baino besterik ez zen egingo karlismoa deuseztu ahala. Edonola ere ez dirudi herritik kanpo zeudenak gelditu zirenak baino gehiago izatera heldu zirenik. Zeintzuk ote ziren batzuek eta besteek azaltzen zituzten arrazoiak erabaki bat ala bestea hartzeko? Sarasketak adina eta makaltasuna aipatu ditu arrazoi nagusien artean, baina kasurik okerrenean ere 12 urte eta erdiko aldea baino ez zegoen batzuen eta besteen artean. Eta kasurik okerrenean diogu, 1861eko errolda eta 1873ko boluntarioen zerrenda ez datozelako bat pertsonaia gehienen adina jasotzeko orduan: 1873koa 1861ekoan baino 12 urte zaharragoak izan beharrean, gehienetan tartea zabalagoa delako (Jose Maria Unzuetak 35 urte 1861ean eta 52 1873an) eta batzuetan laburragoa (Ciriaco Sarasketak 30 urte 1861ean eta 36 1873an). Desfase hori azaltzeko, errolda 1861ekoa izan arren, datu-bilketak urte batzuk iraun zuela bururatzen zaigu, eta 1861ean, erroldan sartu zirenean baino urte batzuk zaharragoak izango zirela.

	Erbesteratuak[1203]			**Gelditu zirenak**		
Udal-karguak	10			22		
M.U.A. 1871 BB	122,25 (5)			77,89 (12)		
Zerga 1873 BB	2797,5 (6)			1774,7 (23)		
Adina 1861-1873 BB	29,6 (176)			43,1 (46) / 37,8 (12)		
Ogibidea 1861-73	167			59		
Errentak bahituta	9			42		
Habitat 1861	*Hirigune*		*Auzoak*	*Hirigune*		*Auzoak*
	21		1	37		9
Idazten 1861	*Bai*		*Ez*	*Bai*		*Ez*
	16		5	37		9
Egoera zibila 1861	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*
	94	71	6	19	27	0
Guztira	**171**			**199**		

1203. Boluntarioei buruzko hainbat datu (adinaren batez bestekoa eta ogibidea, adibidez) 1861eko erroldatik barik, GAOko zerrendatik atera ditugu. Herritik alde egin zuten boluntarioak ikertzeko zerrenda hau askoz fidagarriagoa da, boluntario guztien adinak agertzen direlako. Eguneroko isunera zigortu zituztenen zerrendak, ordea, ez digu euren adinari buruzko informaziorik eskaintzen, eta kasu horretan 1861eko erroldan aurkitu ditugunen lagina erabili behar izan dugu batez besteko adina kalkulatzeko, eta euren ogibidea ezagutzeko.

Ondorioztatu dezakegunez erbestean egon zirenak herrian gelditzea edo itzultzea erabaki zutenak baino aberatsagoak ziren; hala ere, jabeen kopurua askoz altuagoa da azken horien artean. Beraz, jabe ertainak gelditu edo itzuli egin ziren, jabe handiek eta ezjabetuek herritik alde egitea erabaki zutelarik. Jokabide horrek badu bere zentzua, batez ere bakoitzaren familia-egoerarekin lotzen badugu: erbesteratuen artean ezkonduen kopurua nahiko altua bada ere (10etik 4), gelditu zirenen artean altuagoa da (10etik 6); kopuru hori asko igotzen da erbesteratu ostean Eibarrera itzultzea erabaki zuten 14 lagunen lagina hartuta: 11ren egoera zibila ezagutzen dugu, eta horietatik 8 ezkonduak ziren. Adinari dagokionez joan zirenak 8-13 urte inguru gazteagoak ziren, baina horien artean 50 urtetik gorako 15 biztanle zeudela ikusita, adina ez zela faktore erabakigarria izan uste dugu. Habitata aztertzen badugu, erbesteratuetatik bat izan ezik, beste guztiak hirigunean bizi ziren. Alfabetizazio maila antzekoa da bi azpitaldeetan. Beraz, herritik alde egiterakoan, kontzientzia politikoaz eta adinaz gain beste faktore batzuk ere hartu behar genituzke kontuan. Oro har, gelditu zirenak zaharragoak zirela eta familiari lotuago zeudela esango genuke; jabeak izan arren, ekonomikoki ahulagoak zirenez, euren tailer edota negozio txikiak zuzenean kudeatu behar zituzten, ez baitzeukaten —Ibarzabalek egin zuen legez— euren jabetzen administrazioa eramateko langile bat kontratatzeko aukerarik. Zentzu horretan, baserriak ere tenk egiten zuela dirudi, auzoetan bizi zirenen presentzia ere nabarmenagoa baita gelditu zirenen artean (5etik bat).

Ogibideari dagokionez, herritik kanpo gelditu ziren 171 lagunetik, 156 armaginak zirela argitzen digu 1873ko zerrendak; beste bina zapataginak eta ebakitzaileak —"*cortador*"— ziren, okin, zurgin, injineru, maisu, merkatari, grabatzaile eta ikasle banarekin. Beste lauren ogibideak ez dira jasoten. Ikusten denez, armaginen nagusigoa erabatekoa zen herritik alde egin zutenen artean. Iturri honek, ordea, ez digu armagin hauek jabeak ala langileak ziren zehazten, eta zeregin horretarako 1861eko erroldara jo beharko dugu berriz, esan bezala, emaitzak fidagarritasuna galtzen badu ere.

	Erbesteratuak			*Gelditu zirenak*		
	Nekazariak	Armaginak	Besterik	Nekazariak	Armaginak	Besterik
Jabeak		2	1	2	18	
Maizterrak	1			1		
Langileak		2		1		
Zehaztu gabe		21	2		34	3
Guztira	1	25	3	4	52	3

Jabeak ala langile hutsak ziren zehaztu gabeko langile kopurua nahiko altua bada ere, jabe legez identifikatuta ditugun armaginik gehienek herrian gelditzea erabaki zuten. Datu horrek aurrerago aipatu duguna indartzen du: nork bere negozioa aurrera ateratzea faktore erabakigarria bihurtu zela herrian gelditu ala alde

egitea erabakitzeko orduan. Nekazarien kopurua ere altuagoa da herrian gelditu zirenen artean, euren artean bi jabe.

Errepublikanoen taldeak ere merezi du bereziki aztertzea, batez ere, errepublikano federalek. Errepublikano bezala identifikatu ditugun 49 lagunen zerrenda osatzeko eskura izan ditugun hiru iturriak hartu ditugu kontutan: I. Errepublikaren garaian izendaturiko udalkideak, uztailekoek kargua betetzerik izan ez bazuten ere; herrizaingoari buruzko protesta sinatu zutenen errepublikano federalak; Ermuko ekintzetan parte hartu zuten errepublikanoen boluntarioak. Horiei Ignacio Ibarzabal eta Vicente Agirre osagilea gehitu dizkiegu, beste iturri batzuk egiaztatzen dutenez haien errepublikano zaletasunari buruz ez baitago zalantzarik.

	Errepublikarrak			**Errep. Federalak**		
Udal-karguak	21			2		
M.U.A. 1871 BB	151,15 (9)			69,66 (2)		
Zerga 1873 BB	3081 (14)			1200,7 (4)		
Adina 1861-1873 BB	38 (22)			36,4 (11)		
Ogibidea 1861-73	27			12		
Errentak bahituta	12			5		
Erbesteratu	*Bai*		*Ez*	*Bai*		*Ez*
	6		19	3		12
Habitat 1861	*Hirigune*		*Auzoak*	*Hirigune*		*Auzoak*
	17		5	9		2
Idazten 1861	*Bai*		*Ez*	*Bai*		*Ez*
	19		3	10		1
Egoera zibila 1861	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*	*E-G.*	*EZK.*	*AL.*
	13	9	0	7	4	0
Guztira	**49**			**21**		

Errepublikanoen lagina oso murriztua denez, udal-karguen presentzia oso nabarmena da, batez ere I. Errepublika garaiko udalkideak, besterik gabe, errepublikanotzat jo ditugulako. Talde horrek Eibarko Udalean zeukan pisua hobeto neurtuko dugu 1873ko ekaina baino lehen udal-karguak bete zituzten errepublikanoak asko jota lau izan zirela jakinda: Gregorio Atxa federalista, betiko Ignacio Ibarzabal eta, beharbada, José Antonio Gisasola Garitazelaia eta Rufino Mandiola zalantzagarriak, hauei buruz dakigun gauza bakarra 1873ko ekaineko udalerako izendatu zituztela da-eta. Harrigarria bada ere, talde horrek aurkezten ditu liberalen artean errenta kopururik altuenak, eta karlistena ere gainditu egiten du; datu hau egiaztatzen du 49 lagunetik 9k udal-hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea zutela ikusteak, Mutrikuko Udal Araudiaren arabera.

Datuak oso bestelakoak dira, errepublikanoak orokorki hartu beharrean errepublikano federalen azpitaldea aztertzen badugu. Horietatik bi baino ez ziren udalkide ohiak —Gregorio Atxa eta Inocencio Ortiz de Zarate—; zituzten errentak orain arte ikusi ditugun baxuenak dira, euretariko bost jabeak ziren arren. Beste aldetik, alfabetizazio maila altuena daukate (% 91). Badago errepublikanoak oro har eta batez ere federalistak bereizten dituen beste datu bat, herrian gelditu edo erbestetik itzuli zirenen kopurua batez bestekotik aldentzen baita. Darabilgun lagina gutxi gorabehera erdiz erdi zatitzen da erbesteratuen (171) eta gelditu zirenen artean (199), baina errepublikanoen kasuan % 75 herrian gelditu zen, % 80 federalisten azpitaldean. 1873ko abuztuan erbesteratu eta herrira itzultzea erabaki zuten 14 boluntarioetatik sei errepublikanoak ziren: Ortiz de Zarate federalista, Florencio Gisasola, Pedro Martín Gisasola eta Pedro Salaberria udalkide ohiak eta José Manuel Gisasola eta Anselmo Osoro Errepublikaren Boluntarioak. Horrez gain, 1875eko uztaileko zerrendan "*ausente*" legez agertzen den beste errepublikano bat —Julián Arana— karlisten kolaboratzaileen zerrendan agertu zen gerraren bukaeran, gauza zaila benetan herritik kanpo zegoenarentzat. Datu hauek, baztertu nahian gabiltzan beste hipotesi bat jartzen digute mahaiaren gainean: Eibarko udalerria euren menpe eduki zuten bitartean karlistak errepublikanoak erakartzen saiatu zirela, eta helburu hau lortu egin zutela, neurri batean behintzat.

KONKLUSIOAK

Ostendeko hitzarmena sinatu zuten taldeen heterogenotasunak eta ahultasunak eraman zuen iraultza porrotera. Sei urteko epean espainiar estatua Isabel II.aren erregetzatik Serranoren erregeordetzara pasatu zen (1868), gero Amadeoren erregetzara (1871), eta azkenez I. Errepublika espainiarrera (1873). Azken horrek urtebeterik ere ez zuen iraun, eta Pavia jeneralak gorte errepublikanoak desegin ondoren (1874ko urtarrilean), Serrano jarri zen berriz erregeordetzan, abenduan koroa Alfontso XII.aren eskuetara itzuli zen arte, Isabel II.aren semea. Alfontso XII.aren itzulerak baretu zituen iraultzaren beldurrez karlismora hurbildu ziren neokatolikoen kezkak, eta eta borboitarrek ezarritako erregimen berrira hurbiltzen hasi ziren. Gerrak beste pare bat urte iraun zuen, 1876ko martxora arte.

Eibarko Udalean tentsioak nabaritzen ziren, Iraultza Loriatsuaren aurretik ere. Garbitokiaren inguruan burutu zen protesta herrikoiak, eta batez ere, 1867ko Batzar Orokorretan diputatuak izendatzeko sortu ziren tirabirak adierazten digute Loriatsuaren atarian giro politikoa pil-pilean zegoela. Ostendeko Hitzarmena aurreko urtean sinatu zela kontuan hartuta, beharbada Eibarko liberalek elkarren arteko lehia hasia zuten, jada usaintzen zen aldaketaren aurrean kokapen egokiena bilatu nahian. Zentzu horretan, benetan bitxia da lehen bozketan Ibarzabal eta Santa Kruzeko markesaren alde bozkatu zutenen jokabidea bigarrenean, hiruk zuriz bozkatu zutelako eta beste hiru aurkeztu ere ez zirelako egin. Sei zinegotzi horien taldeak gainerako zortzienak baino trinkoagoa dirudi guztiak zirelako liberalak;

gainerako zortzietatik hiru karlisten kolaboratzaile legez agertuko zaizkigu gerraren bukaeran.

Iraultzaren lehen urratsei dagokienez, zuhurrak izan behar gara. Inguruko herrietan ez bezala, sortutako botere-hutsunea betetzeko Eibarren Gobernurako Batzar Iraultzailea eratu zen, eta bi astetara Udaletxe Herrikoia. Ekimen horrekin diputazioaren aginduak saihestea lortu bazuten ere (1866ko udalkideak berrezartzea), kontuan hartzekoa da erakunde "iraultzaile" hauek ez zirela sufragio orokorrez izendatu, gutxi batzuen erabakiz baizik. Zentzu horretan aipatzekoa da, elementu tradizionalisten infiltrazioa Udaletxe Herrikoian, Batzar Iraultzailearen osaketak jokoz kanpo harrapatu izan balitu bezala. 1869ko udalkideak sufragio orokorrez izendatu ziren, eta horrek aurrerakoien nagusigoa islatu zuen, absolutista bakarra gelditu baitzen udalean —Martín Gisasola—. Edonola ere, zinegotzien erdiak esperientziadunak ziren, hau da, erregimen isabeldarrean zehar udalkide izandakoak.

Udal-hauteskunde haietan botorik gehien lortu zuena Juan Francisco Bergara izan bazen ere, zinegotziek Feliz Gisasola Juaristi izendatu zuten alkate, izen eta abizen bereko liberal beteranoaren semea. Aita alkatea izan zen Esparteroren Hirurtekoan eta bigarren alkate Biurteko Aurrekoian. Semeak, Iraultza Loriatsuaren hiru faseetan parte hartu zuten gutxitarikoa izan zen, José Aranguren (beste beterano bat), Ciriaco Villar eta Ciriaco Iturriotzekin batera. Azken horrekin ezusteko galanta hartu dugu jakin dugunean espiritu iraultzailearen ikurtzat genuenak 1872tik karlistentzat armak fabrikatzen zituela, karlistak sartu zirenean bere fusila Lizarragari entregatu ziola, eta armaginen soldaten laurdenak kobratzen lagundu zuela. Iturriotz, gainera, ez da agertzen karlistek ezarritako eguneroko isunaren ordaintzaileen artean, eta ez zioten errentarik bahitu. Ikusi dugunez, Garagartza alkatearen izendapena Iturriotzen proposamenez egin zen, eta badaezpada Eibartik alde egin zuen liberalak sartu baino egun batzuk lehenago. Bere abizena ikusita sortu ahal diren susmoak uxatzeko honako hau esan behar: Ciriaco ez zela XX. mendearen hasieran Eibarko alkatea eta errepublikano ospetsua bihurtuko zen José Antonio Iturriotzen aita.

II. Karlistaldiaren eztandan erlijioaren auziak izan zuen garrantzia ezagututa, azpimarratzekoa iruditzen zait Eibarren inolako eztabaidarik ez somatzea gai horren inguruan. Kultu eta Kleroaren Zerga kobratzeko sistema Eibarren adostuta zegoen 1862tik, eta egokitzapen txiki bat nahikoa izan zen indarrean jartzeko. Askoz esanguratsuagoa da batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketan Eibarkoen aztarnarik aurkitu ez izana. Beraz, ekimen horren ardura Katolikoen Elkarteek hartu zutela esan den arren, itxura guztien arabera elizaren koordinazio-lanik gabe egitasmo hau aurrera ateratzea ezinezkoa izango zela dirudi. Elizaren geldotasunari Eibarko tradizionalisten ahulezia gehitzen badiogu, ulergarria egiten da eibartar katolikoen sinadura-gabezia. Edonola ere, José María Gabiolaren atxiloketa 1871n ez zait iruditzen oharkabean pasatzekoa.

Eibarko liberalek jarrera tinkoa izan zuten iraultzaren oinarriak defendatzerakoan, jokabide horrek sarri gutxiengoan gelditzea ekarri bazien ere. Horrelaxe gertatu zitzaien 1871ko martxoko Gorteetarako hauteskundeetan, Eibarren Elortza liberala nagusitu arren, Bergarako hautes-barrutiak Untzeka karlistaren alde egin zuenean. Urte berean, Mutrikuko Batzar Orokorretan sufragio murriztua berrezarri zuen udal-araudiaren kontra bozkatu zuten bakarrak izan ziren, beste lau udalerrirekin batera. Sufragio unibertsalaren defentsa sutsu horrek Eibarko liberalak demokrata zintzoak zirela adierazten digu, eta ez boladaren araberakoak. Horien artean errepublikanoak ez ziren gutxi izango, batez ere, Ignacio Ibarzabal Iriondoren jarraitzaileak.

II. Karlistaldian boluntario liberalen kopuruak gora egin zuen berriz. Hirurteko milizianoak 232 baziren eta I. Karlistaldiko urbanoak 478, II. Karlistaldiko Askatasunaren Boluntarioak 900 izan ziren. Oraingo honetan ere, liberalismoaren oldarra milizianoen kopuruan islatzen da, ibarzabaldar bat aurkituko dugu miliziaren buruan eta Eibarko milizianoei inguruko hinterlanda zaintzea egokitu zitzaien. Motibazio ideologikoez gain, ekonomikoak ere izango ziren, bertsolari karlistak «bi pesetarengatik odola salduak» egotea egozten baitzien. Litekeena da, Ibarzabalen gidaritzapean milizianoetariko batzuek demokraten alderdia utzi eta errepublikanoen ideiak besarkatu izana.

Hegoaldeko euskal errepublikano federalen ituna Eibarren sinatu zen. Kokapen geografikoaz gain, bertan bizi zen giroak ere izango zuen zerikusirik. Kargu politikorik bete ez arren, Vicente Agirre osagileak jokatu zuen papera funtsezkoa izan zela iruditzen zaigu. Agirrek liberal demokraten eta errepublikanoen arteko zubilana egin zuen, Gipuzkoako liberalen manifestua eta errepublikano federalen ituna sinatu izanak adierazten digun bezalaxe. Itunaren sinatzaileen artean beste bi eibartar aurkitzen ditugu: José Cruz Etxeberria eta Inocencio Ortiz de Zarate. Azken hori Eibarko alkatea izan zen I. Errepublikaren garaian, eta berari egokitu zitzaion, hain zuzen, 20 errepublikano federalek sinatutako protesta bortitzari aurre egitea. Ortiz de Zarate bera ere federalista zela kontuan hartuta, zatiketa bat eman ote zen Eibarko federalisten artean? Vicente Agirre eta Jose Cruz Etxeberria federalistak ere ez dira protestaren sinatzaileen artean agertzen. Itxura guztien arabera, alderdi errepublikanoa —eta federalistak bereziki— dinamika zentrifugo batean erori zen, eta ez zen dinamika finko bati eusteko gai izan. Eibarko Itunak ez zuen jarraipenik izan, eta euskal errepublikanoen egunkaria bihurtu behar zen "*Laurac bat*" ere, zenbaki gutxiren ostean zarratu behar izan zuten.

Gudu-talde karlisten oldarrak hiriguneko harresietan babestera behartu zituen liberalak. Eibarko milizianoak isolatuta gelditu ziren, eta Lizarragaren errendizio-proposamenaren aurrean eztabaida latzak sortu ziren. Zeren inguruan? Amore emateak arma-fabrikak karlisten esku ipintzea zekarren, baina tailerren jabetzari eutsiz eta eskaria ziurtatuta zegoen abagunean; karlistei aurre egiteak, ordea, euren bizitzak arriskatzeaz gain, ondasunen jabetza galtzea ekar zezakeen. Hautabide

horren aurrean, gehienek herrian gelditzea erabaki zuten, eta hasiera batean alde egin zuten batzuk ere itzuli ziren hilabete batzuetara.

Karlistek Lege Zaharreko udal-erregimena berrezarri zuten, eta auzokideen batzarren bidez udalaren dinamika berpizten saiatu ziren. Neurri berean liberalak erakartzen saiatu ziren, Lizarragak Juan Manuel Orbea udalaren buruan jarri izanak adierazten duen bezalaxe; lau hilabete geroago diputazioak Rufino Mandiola eta Fausto Idigoras liberalak izendatu zituen udal-batzorderako zortzi kideen artean. 1874ko urtarrilaren 5ean udal-aktak jasan zuen eten susmagarriaren ostean, Antonio Garagartza agertzen da udalaren buruan. Haren gidaritzapean bideratu ziren liberalen aurkako errepresio-neurririk gogorrenak: eguneroko isuna, armaginen soldataren laurdena, jabeen errenten bahiketa. Biztanle batzuk neurri errepresibo horiek salatzen saiatu ziren arren, erbesteratuak izan ziren. Fusilamendu baten aipamena ere egiten da, eta ziur asko ez zen bakarra izango. Beste batzuek herritik alde egin zuten. Edonola ere, karlistek ez zuten euren helburua lortu, isunak ordaintzeari uko egiten ziotenen ondasunak bahitu arren, ez zelako erosle nahikorik aurkezten enkanteetara.

Liberalen aurkako errepresioa bideratzeko, bitxia da Garagartzak Facundo Atxotegi errepublikanoaren aitaginarrebari isuna jaisteko proposamena bultzatu zuela. Errepublikanoei eginiko keinu bat ote zen? Zenbait planteamendutan antagonikoak izan arren, beste arlo batzuetan errepublikanoen eta karlisten ikuspegiak ez ziren hain kontrakoak. Erlijioaren auziari dagokionez, esaterako, beranduagoko buruzagi errepublikano ospetsua —Juan Antonio Iturrioz— katoliko zintzoa izan zen. Estatuaren egiturari buruz ere dezentralizazioaren aldeko ikuspegiak zituzten biek, aldarrikatutako autonomia maila horri batzuek "*cantonalismo*" deitu arren, eta besteek "*politica vascongada*". Bitxia da benetan herrian gelditzea erabaki zuen errepublikano kopurua hain altua izatea, eta batzuek gainera, alde egin ostean itzultzea erabaki izana, euren artean Inocencio Ortiz de Zarate alkate ohia. Motibazio ekonomikoek ere izango zuten euren eragina, zalantzarik gabe. Federalisten mugimendua jabe txikiek eta soldatapeko langileek osatzen zuten, eta litekeena da euretariko batzuk doktrina internazionalistaren jarraitzaileak izatea. Garagartzak berak "*communard*"en diskurtsoaz kutsatuta dirudi, Juan Manuel Orbea Muruari «un nuevo Creso» deitu zionean. Gerraostean liberalek eginiko zerrendetan karlista batzuen ondoan idatzitako «de ideas avanzadas» gehigarriak ere zer pentsatu ugari ematen du.

Karlisten alderdiari dagokionez, nabarmendu beharreko lehen gauza da uste baino gehiago zirela. 188 karlista ditugu datu-basean, eta Zelaiak dioenez 200dik gora ziren. 1871ko Gorteetarako hauteskundeetan ere, Untzeta hautagai karlistak 61 boto lortu zituen. Baina, non zeuden hautesle horiek, non zeuden karlista horiek batasun katolikoaren aldeko sinadurak biltzeko kanpaina abian jarri behar zenean? 1872ko Gorteetarako hauteskundeetan gertaturikoak ere zer pentsa ematen du, pertsona bakar bat ez zelako hurbildu botoa ematera. Parte-hartze eza logikoa da

liberalen alderdian, Bergarako barrutian ez baitzuten hautagairik aurkeztu; baina, zergatik ez zuten bozkatu karlistek?

Errepublikanoek bezalaxe, Eibarko karlistek ere ez zuten dinamika bateratu bati eusteko gaitasunik erakutsi: Leon Basterra udal-zergak ordaintzeari uko eginez, Martinez de la Pera diputazioan helegitea aurkeztuz garbitokiaren kontura, herrialdeko hezkuntza-batzordea Imaz maisua bere lanpostura itzultzeko aginduz… Karlistek denbora gehiegi zeramaten joko politikotik kanpo, eta ezinezkoa egin zitzaien herria gobernatzeko irizpide komunak ezartzea. Foru-udalen berrezarpena ere planta hutsa izan zen, zozketaz irtendako hautagaiek egin beharrean, aho biziz izendatu baitzuten Garagartza. Leon Basterrak, jarrera foruzale sutsuaren ordezkaria dirudienak, gogor salatu zuen prozedura hori, baina bere protestak alferrikakoak izan ziren.

1876ko otsailean liberalek Eibar berreskuratu zuten, eta martxoaren 6an udal berria eratu zen. Udalaren buruan Inocencio Ortiz de Zarate jarri zen hasiera batean, baina hil batzuetara gobernadore zibilak Feliz Gisasola jarri zuen haren ordez. Borboitarren berrezarkuntzak sufragio murriztua berrezarri zuen, baina Eibarren errepublikazaletasunak bizirik jarraitu zuen.

Epilogoa

Azken hausnarketa egiteko unea heldu da, 120 urteko epean zehar Eibarko biztanleriak jasandako eboluzio politikoari buruzko konklusio orokorrak egiteko unea.

XVIII. mendearen bigarren erdian Eibarko udalerria Lege Zaharreko eskemetan txertatuta zegoela ikusi dugu. Jarduera ekonomikoei dagokienez, biztanleen erdiak nekazariak ziren, aldi berean mearen garraioan eta ikazkintzan aritzen baziren ere. Eibarko armagintza hazkunde-fasean zegoen, Caracaseko Konpainia Gipuzkoarraren esku-hartzearen ondorioz, baina oraindik bigarren mailan zegoen Soraluzekoarekin alderatuz. Deba bailarako armagintza errege-eskarien menpe zegoen erabat, eta partikularrei bideratutako arma kopurua oso urria zen. Azpimarragarria da armagintzan ari ziren langilerik gehienak ez zirela jatorriz Eibarko familiak, euretariko gehienek auzokide-kategoria onartuta zeukaten arren (1. eranskina).

Politikoki, biztanleria auzokideen eta herritarren artean banatzen zen. Auzokideak, euren aldetik, auzokide hautagaien eta auzokide xumeen artean bereizten ziren, azken horiek udal-karguak hautatzeko bai, baina hautatuak izateko eskubiderik gabe. Antolaketa benetan zurruna zen, eta familia bakoitza azpitalde batean kokatzen zen, bere jatorriaren arabera. Biztanle xumeak udal-gobernuko arduretatik guztiz baztertuta zeuden, foru-erregimenaren oinarri zen milarren sistemaren ondorioz, eta baztertutakoen artean armaginak ziren gehiengoa: XVIII. mendean zehar kapitular-karguak bete zituzten 110 lagunetatik soilik 22 ziren armaginak, 1762ko zerrendaren arabera. Udala lur-jabeen esku zegoen, baina lur-jabeen artean handiak eta txikiak zeuden. Kapitularrak lur-jabe handien artetik aukeratzen baziren ere, ezin zuten erabaki garrantzitsurik hartu auzokide guztien batzarraren onespenik gabe. Beto-sistema hori eraginkorra suertatzen zen, olabetarrek elizako hormaren kontra egindako sutegia zela-eta 1760an burutu zen bozketak erakutsi digun bezalaxe.

1766ko matxinadak bazterrak astindu zituen. Eibartarrek, nekazariek zein armaginek, matxinadaren aldarrikapenekin bat egin zuten, gutxi batzuk salbuetsita, gainerakoak isuna ordaintzera zigortu baitzituzten. Aleen kanporaketak eragiten zuen garestitzeak eibartar guztiak kaltetzen zituen, aletan defizitarioa baitzen udalerria. Maiatzaren 4 eta 10eko batzarretan parte hartu zuten 213 lagunetatik 56 armaginak ziren, aleen kontsumitzaile ziren neurrian prezioen gorakadak euren

bizi-baldintzak biziraupen-egoeran kokatzen zituelako. Matxinadaren urte hartan herriko makila Perutik heldu berria zen Sebastián Zumaranen eskuetan egoteak, gertakizunen oldarra areagotu baino ez zuen egin, batez ere Zumaranek Eibarko matxinoen izenak Arriola del Corralen eskuetan zeudela aitortu zuenean. Batzuek ihes egin zuten, beste batzuk atxilotu egin zituzten-eta.

Matxinadak eduki zituen ondorioen artean, 1766ko maiatzaren 5eko Erret Agindua aipatu behar da. Herri-diputatuen eta herri-sindikoaren agerpenak udaleko politika suspertu zuen. Berauek izan ziren herri mailako handikien gobernu despotikoa salatu zutenak, eta ildo horretan, biztanle xumeez gain auzokide txirotuenen elkartasuna ere irabaztea lortu zuten. Hurrengo hamarkadetan herri-ordezkariek izugarrizko protagonismoa hartu zuten, biztanleria xumeak herri mailako erabakietan parte hartzeko zuen aukera bakarra bihurtu baitziren. Aldaketa horri onura gehien atera zion taldea armaginena izan zen, XVIII. mendeko bigarren erdian herri-diputatu edota herri-sindiko karguetan aritu ziren 57 lagunetatik gutxienez erdiak (27) armaginak izan zirelako. Ikusten denez, armaginen presentzia udalean areagotzen joan zen pixkanaka-pixkanaka.

Eibarko liberalismoaren jatorri eta hastapenen bila hasita, 30 urteko epe laburrean, Eibarko Udalak defendatzen zuen tradizionalismo sutsutik aldendu eta liberalismo aurrerakoia besarkatu zuela azpimarratu beharko genuke. Izan ere, 1794an Konbentzioaren gudarosteak Gipuzkoaz jabetzen ari zirenean, Eibarko errejimentua prest agertu zen «… para defender la causa de Dios, del Rey y de la Patria asta derramar su ultima gota de sangre». Trilogia hori —"*Dios, Patria, Rey*"— 40 urte geroago karlisten lema nagusia bihurtu zela kontuan hartuta, ondorioztatu behar dugu 1794. urte aldera Eibarren ikuspegi tradizionalistak nagusitasun osoa zuela. Gipuzkoako beste herri batzuek, ordea, euren ateak zabaldu zizkieten konbentzionalen gudarosteei, eta are gehiago, Gipuzkoaren independentzia aldarrikatu zuten, errepublika frantziarraren babespean. Frantziarrak, gogora dezagun, iraultza liberalaren ordezkariak ziren, eta zentzu horretan, eurekin kolaboratu zutenak liberalismoaren aitzindaritzat hartu behar genituzke.

Benetan bitxia da konbentzionalek Eibarren eduki zuten ustezko laguntzaile bakarretarikoa 1766ko matxinadaren zapaltzailetariko bat izatea, Juan Andrés Laskurain (aita). Laskurainek lepotik ordaindu zuen Eibarko matxinoak salatu izana, herritarrek ez zutelako sekula ahaztu bere jokabidea. Ordutik aurrera mehatxatuta bizi izan zen bizitza osoan, eta mendekuaren beldur. 15 urte geroago abeletxea erre zioten, eta haren heriotza sokamuturrarekin ospatu zuten herritarrek. Geroago, bere alargunaren helegitea onartuz, Gaztelako Kontseiluak errugabe deklaratu bazuen ere, epai judizialak baino indartsuagoa zen herritarren epaia. Laskurain nagusia frantziarren laguntzaile izan ala ez, argi dago bere aurkako erresumina Konbentzio Gerraren aurretik zetorrela, eta zentzu horretan, gerra abagunea aproposa bihurtu zen haren etsaientzat, aspalditik gutiziatzen zuten mendekua

gauzatzeko. Gure ustez, Laskurainek 1766ko matxinadatik irabazi zuen ospe txarra, eta herritarrek ez zuten ahaztu, ezta barkatu ere.

Badago laskuraindarren istorioa aberasten duen beste ñabardurarik. Aita errugabea ala ez, argi daukagu behintzat, semea frantziarrekin bat eginda zebilela, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugetan zeuden mendi eta igarobide egokienak erakusten. Ederto profitatu zituzten konbentzionalek peritu gaztearen aholkuak, Artibai ibaia Berriatutik zeharkatu eta Ondarroan pilatutako tertzio bizkaitarrei gibeletik erasotzeko. Aitak ordaindu al zituen semearen erruak? Ala aita-semeak bat eginda zebiltzan, biak ere iraultza frantziarrak aldarrikatzen zituen balioekin bat zetozelako? Gure ustez kasualitate handia litzateke 1766ko matxinoen zapaltzailearen semea izatea, hain zuzen, 1794ko konbentzionalen laguntzailea. Batzuentzat traidore, beste batzuentzat aurrerakoi, kontua da laskuraindarrak garai hartako "*status quo*"a aldatzen saiatu zirela.

Baserrian bizi arren, ideia ilustratuak jasotzeko kultura nahikoa zutela badakigu, perituak ziren-eta; beste batzuen ondasunen kudeaketan ere bazuten esperientzia, eta bide horretatik ezagutu zuen aitak Barroeta Aldamar familia, konbentzionalek Gipuzkoan izan zuten laguntzaile bikaina. Pieza bakun eta sakabanatu hauekin, irudikatzen dugun puzzlea honako hau da: laskuraindarrak familia boteretsua ziren Lege Zaharreko Eibarren, eta Irarragorri baserriko lurrak ustiatzeaz gain hamarrenen biltzaileak ziren —"*señores diezmeros*" Otazuren terminologia erabilita—, eta ondorioz, aleen pilatzaileak. Laskuraindarrei ez zitzaien komeni foru-erregimenaren interpretazio herrikoia, aleen kanporaketa debekatzen zuen neurrian, euren negozioak oztopatzen zituelako. Askoz interesgarriago zitzaien librekanbisten lema: "*Laissez faire, laissez passer*". Testuinguru horretan logikoa da matxinadaren errepresioan aitak izan zuen parte hartzea. Harrezkero, Gipuzkoako ilustratuekin zituen harremanak estutu egin ziren, eta ziur asko haien bidez "kutsatu" zen ideia iraultzaileez.

Semeak aitaren urratsei jarraitu zien, baina era bortitzagoan. Ondarroaren erreketan parte hartu zuen, eta lekuko batzuen arabera bertan zegoen, frantziarrek Ermua eta Eibar kiskali zituztenean. Basileako bakearen ostean zigorrik gabe gelditu bazen ere —konbentzionalak ez baitziren alferrik izan gerraren irabazleak— auzokideen batzarrak tinko eutsi zion Laskurainen bazterketari. Tamalgarria da benetan, Laskurainek egindako helegiteari buruzko 347 orrialdeko txostena aurkitu ez izana, ziur asko bertan Laskurain gazteak Konbentzio Gerran zehar izandako jokabideari buruzko informazio aberatsa gordetzen delako. Valladolideko Chancilleriaren aginduei entzungor eginez, Laskurain gazteak 50 auzokidetik 11ren sostengua baino ez zuen jaso 1798ko bozketa hartan. Atzera begirako ikuspegiak argitzen digunez, Laskurainen alde bozkatu zutenen artean, 1808-1814 bitartean eratu ziren erregimen konstituzionalen suspertzaile batzuk aurkitzen ditugu. Besteak beste, Miguel Antonio Ibarra, Felix Mugertza —Sarasketa gerrillariak bahitu

zuena—, Martín Gisasola Barrutia —desamortizatutako lurren eroslea—, Felix Aranburu eskribau konstituzionalista… Beraz, Eibarko lehen liberalak laskuraindarrak izan zirela uste dugu. Hau frogatzerik bagenu, benetan bitxia izango litzateke Laskurain zaharraren neskameari gutuna aurkitu zioten segada, XIX. mendean zehar Eibarren nagusitu zen saga liberalaren buruak prestatu izana, Ignacio María Ibarzabalek, hain zuzen, Vicente Aldekoarekin batera.

Konbentzio Gerrak herriko ekonomia hankaz gora jarri zuen. Batetik, herrilurren desamortizazio-prozesua ireki zuen, eta bestetik, "*asentista*"ren kargua desagerraraztea eragin zuen. Ez daukagu herri-lurren salmentari buruzko daturik desamortizazioaren lehen fase honetan, eta bonapartetiarren garaian burutu zena aztertzeko ere zeharkako iturriekin konformatu behar izan gara. Oraingoan ere, Gipuzkoako herri gehienetakoa badago, baina Eibarri buruzko dokumentazioa falta da txostenetan. "*Asentista*"ren desagerpenak ekarri zuen aldaketari buruz zertxobait gehiago dakigu; bai behintzat hurrengo urteetan Ignacio María Ibarzabalek bete zuela haren papera, eta horri esker harreman pribilegiatua lortu zuela gortearekin. Zergatik aukeratu zuten Ibarzabal eta ez beste bat? Erreketaren ostean armagin askok —horien artean maisu ospetsuak— Asturiaseko bidea hartu zuten, eta herria berreraikitzearen ardura, bertan gelditu zirenen esku gelditu zen. Abagune horretan, Ibarzabalek herriaren ordezkaritza politikoa eta ekonomikoa bereganatu zituen, borboitarrei leialak izan zitzaizkien Arrasateko Batzar Orokorretan parte hartuz lehenengo, eta ondoren, Soraluzeko Arma Fabrikaren birmoldaketari buruz espainiar erregearekin elkarrizketatzeko Eibarko armaginen gremioen izenean. Elkarrizketa horren ostean, Ibarzabalek berak eskuratu zuen erregearen eta armaginen arteko bitartekaritzaren monopolioa. Ziur asko, Konbentzio Gerran Ibarzabalek erregeari azalduriko leialtasuna saritzeko modu bat zen. Ikusten denez, Ibarzabal familiaren gorakada ekonomiko-politikoaren oinarri ideologikoa Lege Zaharreko egituretan kokatzen da.

Konbentzio Gerraren osteko abagunean auzokideen gutxitze eta berriztatzea nabaritzen da. Adibidez, 1798an Laskurainen bozketan parte hartu zuten 50 auzokideetatik, 24 baino ez zeuden 1808an burutu zen 65 auzokideren bileran. Beharbada, berriztatze horrek Konbentzio Gerraren osteko desamortizazio-prozesuak jabetza-harremanetan buruturiko aldaketekin dauka zerikusia, baina ezin dugu egiaztatu, erosleen zerrenda falta zaigu-eta. Armaginen presentzia berezirik ere ez da atzematen aldaketa horietan, auzokide berrien artean armagin batzuk aurkitzen baditugu ere, beste batzuk desagertu direlako, antzeko kopuruan. Egia esan, eskura ditugun datuen arabera, epe luzera ere ez da lotura berezi bat nabaritzen udalkide berrien eta armaginen artean. 1762ko armaginen zerrendan oinarrituz, 1755-1799 bitartean 33 armaginek bete zituzten udal-karguak; 1800-1839 bitartean, 29 izan ziren armagin kapitularrak. Bi epeetan, hiru kapitularretik gutxienez bat armagina zen. Armaginen presentzia nabarmenagoa da herri-diputatu eta herri-sindiko karguetan, horietatik erdiak baitziren armaginak. Zentzu horretan, kargu hauen

sorkuntzari etekin handiena atera ziotenak izan ziren. Aipatzekoa iruditzen zaigu udalean herri-ordezkari legez hasi zirenetariko askok kapitular-karguak bete zituztela hurrengo agintaldietan, udalean sartzeak aurrera egiteko aukerak areagotuko balitu bezala.

Udalerri mailan familia bakoitzak zuen boterea neurtu nahian, abizen bereko udal-karguen kopuruak aztertu ditugu. 3. eranskineko taulan ikusten denez, XVIII. mendean udalean nagusitu ziren abizen batzuk jaitsi edo desagertu egin ziren, beste batzuk areagotu ziren bitartean. Hala, 1755-1795 eta 1795-1839 epeak alderatzen baditugu, Areta abizeneko udalkideak bostetik bira jaitsi zirela dakusagu, Untzeta lautik bira, Olabe seitik hirura, Sarasketa lautik zerora… Mendizabal, Arizmendi eta beste abizeneko udal-karguak ere desagertu egin ziren. Alderantziz, Argiano, Etxeberria eta Ibarzabal abizenak bitik laura igo ziren, Bergara bitik bostera, Agirre hirutik 10era, Baskaran bitik bederatzira, Gisasola zazpitik 14ra… Eta ordura arte udal-karguak bete gabeko abizenak agertzen dira, batzuk indar handiz gainera: larrañagatarrak birekin, mandiolatarrak hirurekin eta alberditarrak sei udalkiderekin! Gutxi gorabehera mantendu zirenen abizenen artean, Atxa (bostetik seira igo zen), eta binarekin Ibarra, Mugertza, Suinaga…

Edonola ere, era honetara zenbatzen ari garena pertsonak dira, ez agintaldiak. Zentzu horretan komeni da kontuan hartzea, XVIII. mendearen bigarren aldean Atxa abizeneko bost pertsona izan zirela udalkideak, baina zortzi agintalditan zehar aritu zirela udalean, bata birritan izan zelako eta bestea hirutan. Epe berean, Juan Andrés Laskurain sei agintalditan izan zen udalkidea, eta Ignacio Maria Ibarzabal bost bider eta Pedro Abanzabalegi lau aldiz alkate. Beraz, abizen bereko udalkideak baino, hauek betetako agintaldien batuketak familia bakoitzak udalean zuen eraginaren maila hobeto azalduko liguke.

Udalkide berrien sarreraren zergatiak aurkitu nahian hipotesi ezberdinak erabili ditugu, baina datuen alderaketak ez digu ezer garbirik erakusten. Aurrerago esan bezala, udal-karguak bete zituzten armaginen kopurua ez zen hazi XIX. mendearen lehen herenean, eta darabilzkigun datuen arabera zertxobait behera ere egin zuen. Abizenen jatorria aztertzen badugu, ez da atzematen eibartar jatorriko familien presentzia gutxitu zenik: 1755-1795 epean 133 udalkidetik 53 multzo horretakoak baziren, 1796-1839 epeko 158 udalkideetatik 58 ziren, eta 1840-1876 bitarteko 139etatik 54. Beraz, datuek ez dute egiaztatzen XIX. mendearen hasieran armaginek udalean pisua irabazi zutenik (1. eranskina). Beste ikuspegi bat erabilita, jatorriz Eibarkoak diren abizen batzuen presentzia gutxitu egin zela dakusagu (Areta, Sarasketa…), baina eurekin batera Gipuzkoatik kanpokoak ziren batzuek ere behera egin zutela (olabetarrek, batez ere). Pisua irabazi zutenen artean jatorriz Eibartik kanpokoak aurkitzen baditugu ere (Alberdi, Baskaran, Bergara, Ibarzabal…), ordura arte agertu gabeko Eibarko abizen batzuen gorakada ez zen txikiagoa izan (Agirre, Argiano eta batez ere Gisasola). Beste datu batzuek argitzen

digutenez, XIX. mendearen hasieran lur-jabetza oraindik ezinbesteko baldintza zen Eibarko Udalean parte hartzeko, eta zentzu horretan soilik lur-jabe bihurtzea lortu zuten armaginek irabazi zuten horretarako eskubidea.

Zirriborratu dezakegun hipotesia honako hau da. Eibarko armagintzak kanpoko jendea erakarri zuen, boladaka; etorkin horietariko batzuek, denborarekin, lur-jabe izatea lortzen zuten eta era horretara auzokide-kategoria irabazten zuten, betiere kaparetasuna frogatzen bazuten. Era horretara, Lege Zaharrak bermatzen zuen "status quo"aren defendatzaileak bihurtzen ziren, beharbada, sutsuenak. Armaginboladen arabera prozesu hau errepikatu egiten zen, baina udaletik baztertuen eta ezbaztertuen arteko oreka ez zen hausten, are gutxiago kanpotik heldutakoek lan egiten zuten tailerren jabeak armagin udalkideak zirenean. Hau da, lur-jabe izatea lortu zuten armaginek bitartekari-lana, baina era berean koltxoi-lana betetzen zuten udalaren eta armagin etorkinen artean. Armagin lur-jabeak Lege Zaharrari leial mantendu bitartean, sistema horrek funtzionatu egin zuen. Konbentzio Gerrak, ekonomia hankaz gora jarri arren, ez zituen parametro ideologiko horiek suntsitu, eta desamortizazioak, nolabait, prozesu hau dinamizatu egin zuen. Jarrera-aldaketa 1808tik aurrera hasi zen, Napoleonen inbasioarekin, Ignacio María Ibarzabal hil zen urtean hain zuzen. Familia horren istorioa hemen bukatuko balitz, ibarzabaldarrak absolutismoaren defendatzaile amorratuenak izan zirela ondorioztatu beharko genuke. Baina zortzi seme-alaba utzi zituen, horien artean nagusia Gabriel Benito, 1808an «… de tierna edad» izan arren, 1811n ia-ia alkate izendatu zutena «… por una equivocación material».

1808-1820 bitarteko akta-liburuak ez dira gordetzen. Benetan bitxia da sasoi istilutsuetako agiriek daukaten desagertzeko joera hori. Dauzkagun aztarna urrien arabera, liberalismoa Eibarren bonapartetiarren garaian sustatu zen, neurri batean euren eskutik, eta beste neurri batean euren kontra. Udal-gobernuaren funtzionamenduari dagokionez auzokide hautagaien sistema deuseztu zuten, eta sufragio murriztuak udaletxeko ateak zabaldu zituen ordura arte baztertuta egondako biztanle batzuentzat, ez guztientzat. Foru-erregimenean funtsezkoa zen kaparetasunaren baldintza ezabatuta gelditu zen, estreinakoz. Egia esan Munizipalitateko Batzordeetan ez da udalkide berrien presentzia berezirik nabarmentzen, baina prozedura aldetik sistema konstituzionalistaren arabera burututako hauteskundeen lehen saiakerak izan ziren. Arlo sinbolikoan, udal-boterea beste era batera antolatu ahal zela frogatu zen, onuradun nagusiak burgesak izan baziren ere. Tamalez, ez dugu ezagutzen nola hartu zituzten herritarrek aldaketa horiek, hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik izan zuten ala ez, eta izanda ere, parte hartu zuten ala ez.

Eibarko liberalismoaren haurtzaroan gaudela esan dezakegu, eta informazio gutxi dugu lehen urratsei buruz. Gutxi eta nahasia. Ez dakigu frantziar eta espainiar konstituzionalistek inposaturiko sistema honetan parte hartu zutenak benetako konstituzionalistak ziren, ala boladakoak. Behin bonapartetiarrak joanda, Eibarko Udala hiru aldiz berriztatu zen lau hilabeteko epean, botere-hutsunea bete-

tzeko zeuden irizpide ezberdinen isla. Azkenean, espainiar konstituzionalisten estrategia nagusitu zen. Udalkideen taulek islatzen dutenez, azken horien agintaldian udalkideen berriztatzea nabarmenagoa da, eta herri-diputatu ohien presentzia esanguratsuak kutsu herrikoiagoa ematen zion. Itxura denez, liberalismo espainiarrak lortu zuen ordura arte herritar xeheen alde ibilitakoak erakartzea, liberalismo frantziarrak ez zuena lortu.

Sasoi hari buruzko aurkikuntza garrantzitsu bat egin dugulakoan gaude: Jauregi gerrillariarekin kolaboratzen zuen ezkutuko administrazio paraleloa, bertan parte hartu zuten eibartarren zerrendarekin. Ikusi denez, sare sekretu horrek funtsezko eginkizuna bete zuen bonapartetiarrak garaitzeko orduan, gerrillarien azpiegitura guztiez arduratzen zelako eta 1812. urtean zehar etengabe aritu zelako. Ez dakigu ziurtasunaren edo zuhurtzia-gabeziaren seinale den, baina harrigarria egiten da, ezizenekin barik, sareko kide guztiak izen eta abizenekin agertzen direla idatzita. Xehetasun hauek oso aberasgarriak dira Eibarko liberalen prosopografia eratzeko orduan. Batetik, Jauregiren sarean parte hartu zuten udalkideen artean, herri-ordezkarien nagusitasuna ia erabatekoa izan zela erakusten digu; bestetik, frantziarren munizipalitateko udalkideak sarean sartuta ikusteak, sare horrek zuen zilegitasun eta indarraren berri ematen digu; azkenik, 1813ko iraileko udal konstituzionalistaren muina sare horretan ernai zela pentsarazten digu, sei udalkidetik hiru Jauregiren laguntzaileak izandakoak baitziren. Hau da, ezkutuko administrazio horrek bonapartetiarren aurkako erresistentziari babesa emateaz gain, Cádizko Gorteetatik zetozen agindu eta jokamoldeak helarazi eta sendotzeaz arduratzen zela. Jauregi bera Hirurtekoan zehar liberalei bildu zitzaiela eta I. Karlistaldian osatu zuen zutabe mugikorreko kiderik gehienak eibartarrak izan zirela jakiteak hipotesi hau indartzen du.

Bonapartetiarren inbasioaren ondorioz burutu zen desamortizazioa askoz bortitzagoa izan zen, Antzinako Erregimenaren oinarri ekonomikoak suntsitu zituelako. Herri-lur eta propioen salmentak udalaren diru-sarrerak gutxitu zituenez, udal-ogasuna orekatzeko kontsumo-gaien gaineko zergak areagotu ziren. Gainera desamortizazioa deskapitalizazio-abagune batean burutu zen, eta horrek lurraren balio jaistea eragin zuen. Neurri berean, gerrak utzitako zorra herri-lurraren balioarekin parekatu beharrak ordainagirien balio-galtzea ekarri zuen, eta erosketak bermatzeko aukera bakarra 1/6 esku-dirutan ordaintzea izan zen. Testuinguru horretan, eskuko dirua zeukatenen espekulazio-aukerak areagotu egin ziren, eta haien esku egon zen salmenta-prozesuaren kontrola. Zoritxarrez, oraingo honetan ere ez daukagu buruturiko salmentei buruzko datu zehatzik.

Gerratearen ondorioz armagin askok herritik alde egin zuten. Horietariko askotxo frantziarren aurkako erresistentziara bildu ziren, Zaragozako defentsan parte hartu zutenen artean, hildako hutsak 76 izan zirela jakinda. Beste batzuk, ordea, frantziar lurraldeetara eraman eta hango teknika berriez jabetuta itzuli omen ziren. Gerraostean armagintzak nolabaiteko susperraldia bizi zuen, batez ere diputazioak donatiboa Fernando VII.aren "*Guardia de Corps*"aren armekin ordaintzea

adostea lortu zuenean. Arma horien fabrikazioan, aipagarria da Gabriel Benito Ibarzabalek izan zuen parte-hartzea, eta nola eutsi zion bere lehentasunari erregearen zein Gipuzkoako Batzar Orokorren laguntzarekin. Ibarzabalek Jauregiren sarean parte hartu zuela kontuan hartuta, eta sare hori espainiar konstituzioaren aldekoen bilgunea izan bazen behintzat, harrigarria egiten da Fernando VII.ak Gabriel Benitori emandako lehentasuna arma-eskariak ekoizteko eta kudeatzeko orduan. Gabrielek 25 urte baino ez zituen sasoi hartan, eta liberala izanda ere, armagin zen lehenago: bere aitak hasitako bidetik errege-familiarekin harreman estuak mantentzen jarraitu zuen. Egia esan, ibarzabaldarrek tonika honi eutsi zioten XIX. mende osoan zehar: ideologiaz liberalak —edota errepublikanoak— izan arren, armagin legez erregea losintxatuz, haren begirunea edota barkamena lortu zuten. Fernando VII.ak eta Isabel II.ak, biek ere, ibarzabaldarren eskutik ezagutu zituzten Eibarko kaleak eta tailerrak.

Hirurteko Liberalak Eibarko liberalismoaren nerabetasun-garaian kokatzen gaitu. Oraingo honetan, Eibarko miliziano liberalen kopuru izugarria da aldaketaren adierazle nagusia. Beraz, lehen aztarna ez dugu politikoa, militarra baizik. Hipotesi legez, Jauregiren sarean ibilitakoen eragina bururatzen zaigu, desegin zenetik —inoiz desegin bazen— asko jota zortzi urte igaro ziren-eta. Zoritxarrez, kopuruak bai baina ez ditugu miliziano haien nortasunak ezagutzen, eta zentzu horretan Jauregiren sarearekin alderatzea ezinezkoa da, ezta I. Karlistaldiko armatutako urbanoekin ere. Edonola ere, zergatik eduki zuen honelako arrakasta milizia liberalak Eibarren? Eibarkoa bezain armagina zen Soraluzeko biztanleria, baina han ez da azaltzen horrelako bilakaerarik.

Boluntarioen Miliziako 130 kideetatik 127 udaletik baztertuta zeuden foru-erregimenean. Tamalgarria da benetan Hirurtekoan zehar burutu ziren udal-hauteskundeetan sufragioa noraino zabaldu zen ez jakitea. Miliziano horiek, udal-gobernutik baztertuta zeudelako bildu ote ziren liberalismora? Udal-hauteskundeak sufragio orokorrez ala murriztuz burutu ziren ez dakigun bitartean, ez dugu galdera horri erantzuteko oinarri sendorik edukiko. Beste hipotesiaren ildoak ibarzabaldarrengana garamatza berriro ere. Izan ere, Aguraingo altxamendua zela-eta mobilizatu ziren 132 miliziano horien buruan Gabriel Benito Ibarzabal agertzen zaigu. Hirurteko lehen agintaldian udaleko alkatea izan ostean, Araututako Miliziaren komandante-kargua eskuratu zuen 1821eko udaberrian. Zein puntutaraino ez ote zituen Ibarzabalek berak erakarri miliziano horiek? Kontuan hartu dezagun, hil batzuk geroago Araututako Milizia utzi eta Boluntarioen Miliziako komandante izendatu zutela, 13 botorekin! Urtebete geroago boluntarioak 130 ziren, eta araututakoak 120. Gure ustez horietarik asko Ibarzabalen ospeak eta mezuak erakarritakoak ziren.

Ibarzabaldarrek liberalismoaren aldeko apustu garbia egina zuten ordurako. Arlo politikoan, bigarren alkatearen auziaren suspertzaile nagusi legez agertzen dira, Betolazaren jarrera salatuz. Udalkideen eta milizianoen artean sortu zen

iskanbila horretatik indartuta atera zen liberalismo aurrerakoia, eta herri mailan lehen proto-alderdiak sortu ziren. Salvador Etxeberria osagileak osatu zuen kandidaturan ibarzabaldarrik ez aurkitu arren, ez litzateke arraroa izango ekimen horretan nahasita egon izana. Arlo ekonomikoan, benetan esanguratsua da 1822. urterako Esteban Ibarzabalek —Gabrielen anaiak— arma-denda zabaldu izana Madrilen. Aduanak lekuz aldatzearen abagunea ez zuten alperrik igarotzen utzi, eta erregearentzat armak egitea ematen zien prestigioa erabili zuten merkatu pribatuan bezero berriak irabazteko. Eurak berez arma zurien fabrikatzaileak izan arren, suzko armak egiten zituztenen produktuak ere saltzen zituzten, eta kasu horretan, bitartekari-lana betetzen zuten. Zentzu horretan euren aitak hasitako bideari jarraitzen zioten, ekimen hau merkatu pribatura zabaltzen saiatuz.

Aita absolutismoaren defendatzaile sutsua izan bazen ere, semea Eibarko liberalen aitzindaria izan zen. Ibarzabaldarrak ez zeuden udal-gobernutik baztertuta, beraz arrazoi politikoak ez zaizkigu erabakigarriak iruditzen. Arlo ekonomikoan, ordea, foru-erregimenak euren negozioen hazkundea oztopatzen zuen, aduanak Ebro ibaian kokatzean estatu espainiarreko merkatuan sartzeko aukerak gutxitzen zirelako. 1778ko dekretuek foru-lurraldeetako industria-ekoizpena babesik gabe utzi zuten, eta euskal produktuak atzerritarrak legez zamatzen zituzten espainiar lurraldeetan. Euskal industria, beraz, ez atzera ez aurrerako bidean zegoen. "*Laissez faire, laissez passer*" doktrina jada gaindituta zegoen, industria-iraultza abian jartzen ari ziren estatuek politika ekonomiko protekzionistak bultzatu zituztelako, euren industriak babestu nahian. Foru-herrialdeek, ordea, politikoki espainiar erresumaren barne egon arren, ekonomikoki ez zituzten horren onurak gozatuko aduanak kostaldera iragaten ez ziren bitartean. Arlo horretan liberalen konstituzioak eredu baterakoi bat eskaintzen zuen, tradizionalistek defendatzen zuten foru-erregimenaren aurrean. Ibarzabaldarrek eredu ekonomiko horren aldeko apustua egin zuten. Zentzu horretan ibarzabaldarren liberalismoa premia ekonomiko baten ondoriotzat jo dezakegu, doktrina politiko batekiko miresmenaren ondorio baino gehiago.

Ibarzabaldarrekin batera, liberalen artean gailentzen den beste pertsonaia bat Manuel Antonio Murua da. Bonapartetiarren garaian munizipalitateko kide izan ostean, sindiko-kargua bete zuen 1813ko udal konstituzionalistan, eta 1816ko foru-udalean. Desamortizatutako lurren erosketetan zeharo nahasita ibilitako pertsonaia hau, Araututako Miliziako komandante legez agertzen zaigu 1821ean eta alkate izendatu zuten 1822an, ziur asko Salvador Etxebarria osagileak bultzaturiko kandidaturaren barne egoteari esker. San Luisen Ehun Mila Semeak sartu zirenean A Coruñara ihes egin zuen, bere aurkako mendekuen beldur baitzen. Izan ere, absolutistek herria hartu zutenean bere etxea arakatu eta aurkitutako hainbat paper erre zizkioten. Muruarekin batera Julian Kortesena aipatuko genuke, Laskurainen semeordea, Ondarroako itsasadarrean harrapatu zutena, txalupa batean Donostiako setiatuei kalibre handiko arma bat eraman nahian zebilela. Iraultzaren ostean Deba Bailarako Bideen Partzuergoan aritu zen, zuzendaritza-lanetan.

Hirurtekoan zehar liberalismoa sustraitzeko lana egin zutenen artean ezin aipatu gabe utzi Mateo Argiano apaiza. Elizgizon horrek Eibartik alde egin zuen absolutisten gudarosteak sartu zirenean, eta I. Karlistaldian ere armatutako hiritarren kapilaua izan zen. Liberalismoaren aurkako mugimenduen gorpuztean —eta karlismoa, horietako bat zen— eliza katolikoak jokatu zuen papera ezagututa, ez da batere txantxetan hartzekoa Argianoren sermoien eragina liberal elizkoiengan, batez ere elizgizon karlisten demagogiaren menpe erortzeko arriskuan zeuden horiengan. Ziur asko elizgizon liberalen ekimena karlismoaren hazkundea oztopatu zuen faktore erabakigarrietako bat izan zen Eibarren.

Iraultza zanpatu ostean, absolutistek liberal-kutsua zeukaten udal-langileak eta dozena bat auzokide udaletik baztertu zituzten. Absolutismoaren berrezarkuntzak liberalismo politikoaren hazkunde-prozesua eten bazuen ere, tradizionalistak eurak liberalismo ekonomikoaren zenbait planteamendu onartu beharrean aurkitu ziren. Ibarzabalen planteamendua egokia suertatu zen Bideen Kutxa kudeatzeko orduan; 1826an martxan zuen lurrun-makinak Fernando VII.a bera liluratu zuen eta haren ahaleginak ez zituen saririk gabe utziko espainiar erregeak, Juan Jose Agirreren bertsoek ziotenez. Itxura denez, Hirurtekoan zehar irabazitako bezeroak ez ziren galdu 1824an aduanak berriz Ebron kokatu ziren arren. Horrela adierazten digu 1826an Gaston brigadierrak egin zuen salaketak. Eibarko armaginak jo eta ke aritu ziren, bezeroak irabazi nahian, prezioak merketzeko elkarren arteko lehian. Horrek armen kalitatearen jaistea eragin zuen, baina armak eskasagoak izan arren armaginek betiko zigiluak erabiltzen jarraitu zuten.

Gure ustez, Eibarko armagintzaren “boom”aren hasiera, 1820. urteko hamarkada honetan kokatu behar dugu. Esango genuke pistoiaren asmakuntzak gremioen ekoizpen-sistema klasikoa hausten lagundu zuela, armak nork bere kabuz muntatzea erraztu zuen neurrian, tailer-jabeen autonomia eta ekimenerako grina areagotu zituelako. Prozesu hau indartu egin zen hurrengo urteetan, eta I. Karlistaldirako gremioen sistema guztiz deuseztuta zegoen. 1835eko armaginen zerrendak egiaztatzen duen legez, armak nork bere kabuz muntatzeko joera orokortuta zegoen: giltzagin eta aparejuginen gorakada izugarriak horrela adierazten digu. Urte hauetan zehar armagintzak izan zuen bilakaera ikusita, harrigarria egiten da 1831ko Batzar Orokorretara udalak bidalitako ordezkariari aduanak zeuden lekuan —hau da, Ebro ibaian— mantentzearen alde bozkatzea agindu izana.

1826-1827 urteetan zehar Eibarko auzokideek burutu zuten protesta ere ez da oharkabean pasatzekoa. Berrogeiren bat biztanlek auzokideen zerrendan onartzeko eskakizuna egin zutenean, ikuspegi ezberdinak sortu ziren horretarako bete behar zituzten baldintzak zehazterakoan. Aditu batzuek ziotenez kaparetasuna frogatzearekin nahikoa zen, lur-jabetzaren baldintza bigarren mailan ezarriz; beste batzuek, ordea, lur-jabetza ezinbestekotzat jotzen zuten, kaparetasunaren inguruan malguagoak agertzen zirelarik. Edonola ere, auzokideak izan nahi zutenen eskakizunak banan-banan aztertzea erabaki zuen udalak, baina Fernando Olabe alkateak kan-

pora irtetea agindu zietenean, uko egin zioten. Protesta hau, gainera, idazkari berriaren izendapenarekin zegoen lotuta, auzokide legez onartuak izanez gero bozketan parte hartzeko eskubidea izango baitzuten, eta beharbada, bozketaren emaitza aldatzeko ere. Auzokidetza eskatzen zuten nekazarien kopurua nahiko altua zen, eta euren eskakizunak onartu ez bazituzten ere, udalean burutzen ari ziren aldaketen aurkako mugimendu legez ulertu behar dugu. Berrezarkuntzaren garaian udalean sartzeko baldintzak zorroztu egin ziren, eta itxura denez, liberalen bazterketa bukatzen ari zen sasoi berean, Lege Zaharraren defendatzaileek ere euren eskubideak aldarrikatu zituzten.

Fernando VII.aren erregetzako azken urteetan, Eibarko liberalak udal-karguak betetzen dakuskigu berriz. "Purifikazioa" lortzen azkena Murua izan zen, eta harrigarria bada ere, oztopo gehien jarri ziona Francisco Betolaza izan zen, miliziano liberala I. Karlistaldian! Murua, auzokideen zerrendan onartua izateaz gain, herridiputatu izendatu zuten, eta kargu horretatik udal-gobernua eta ogasuna birmoldatzeko proposamen ugari egin zituen. Egia esan, ordurako izugarrizko anabasa zegoen, eta urte batzuetan udalkideen hautesleak zozketaz izendatzen ziren, hurrengoan bozketaz, hurrengoan aho biziz… Udal-araudiak 1794ko sutean erre ziren, eta udalkideen belaunaldiak igaro ahala jatorrizko prozedurak erdi ahaztuta gelditu ziren. Arlo honetan egin beharreko esfortzuaz gain, Muruak zeharkako zergen gehiegikeriaren aurkako neurriak proposatu zituen. Bere ibilbideari buruzko azken datua 1835ekoa dugu, armatutako milizianoen zerrendan baitzegoen. Hortik aurrera muruatarrak desagertu egiten dira Eibarko Udaletik, baina Manuel Antoniok pilatu zuen dirutzari esker bere bilobek Eibarko lehenengo arma-fabrika sortu ahal izan zuten 1860an, Juan Manuel, Mateo eta Casimiro anaiak Orbea Murua baitziren, muruatarrak, beraz, amaren aldetik.

Liberalen bazterketaren amaierak egoera normalizatzen bazuen ere, zantzu gehienen arabera udal-boterea oligarkia lur-jabearen esku mantendu zen. Armaginen presentzia garrantzitsua zen udalean, baina ez zeukaten nagusitasunik. 1831n aduanak Ebron mantentzearen aldeko botoak hala adierazten du, baita 1834ko Batzar Orokorretan "*Estatuto Real*"aren alde bozkatu izanak ere. Mendearen hasieran, maizter batzuk udal-karguak betetzen ikusteak Eibarren lur-jabetzaren baldintza aplikatzen malgutasun gehiago zegoela pentsarazi badigu ere, salbuespenak izan ziren. 1800 eta 1842 bitarteko kapitularrak 1842ko lur-jabeen zerrendarekin artekatzen baditugu, hiru baino ez ditugu aurkitzen maizterrak izanda alkate-, errejidore- edo sindiko-karguak bete zituztenak.

I. Karlistaldian berriz ere milizianoen kopurua dugu liberalismoaren indar eta oldarraren adierazle nagusia, bikoiztu egin baitzen Hirurtekoarekin alderatuz. Oraingo honetan euren nortasunak ezagutzen ditugunez, arketipo bat eratu ahal izan dugu: heren bat maisu edo ofizial armaginak ziren, seirena lur-jabea zen eta zortzirena udalkide izandakoa. Baina daturik esanguratsuena hau da: bederatzitik

zortzi hirigunean bizi zirela, eta bakar bat auzoetan. Dikotomia hori mantendu egingo da II. Karlistaldian. Auzoetan bizi ziren eibartarrak nekazari-munduari lotuta egoteaz gain, babesik gabe zeuden gudu-talde karlisten erasoen aurrean. Zentzu horretan logikoa da baserritarrek milizia liberalean parte hartu ez izana. Izenak berak adierazten digunez —"*urbanos armados*"— hirigunea babesteko sorturiko taldea zen. Kasu honetan karlisten lagin esanguratsu baten falta sumatzen dugu, miliziano liberalentzat eratutako arketipoarekin alderatzeko.

Zabalak Eibar setiatu zuenean, azpimarragarria da ume, adin nagusiko eta emakumeen parte-hartzea hirigunearen defentsan; emakumeek euren batailoi propioa sortzeko baimena eskatu eta lortu izana, pentsamolde aurrerakoiek Eibarren zuten arrakastaren beste seinale bat da. Eibarko miliziak, gainera, herria defendatzeaz gain, inguruko hinterlanda kontrolatzeko eginkizuna hartu zuen, Ziortzara egindako espedizioak adierazten digun bezalaxe. Gerratean zehar, legedi eta baimenak albo batera utzita, eibartarrek euren buruak defendatzeko armak fabrikatu behar izan zituzten, era guztietakoak gainera. Arandok bidelapurrentzat egiten zituen trabukoez gain, Manuel Garatek ere I. Karlistaldian asmatu omen zuen errebolberra. Zentzu horretan, gerra-abaguneak armen inguruko esperimentazio-aukerak zabaldu zituen.

Ikuspegi politikoki batetik, ordea, umezurtz jarraitzen dugu I. Karlistaldian zehar liberalismoak jasan zuen bilakaera jakiteko orduan. 1835etik aurrera Eibar karlisten esku gelditu zenez, 1837ko konstituzioak Eibarko Udalean edukiko zuen eragina aztertuz, moderatuen eta aurrerakoien artean bereizten saiatzeko aukera galtzen dugu. Zentzu horretan askoz baliagarriagoak izan ditugu gerraostean udalean burutu ziren aldaketak aztertzea.

Bergarako Besarkadaren bidez euskal tradizionalistek foruak mantentzea lortu zuten, «… sin perjucio de la unidad constitucional de la Monarquía». Borroka bikoitza sortu zen orduan: batetik, foruzaleen eta konstituzionalisten artean, eta, bestetik, konstituzionalisten artekoa, moderatuek eta aurrerakoiek konstituzioeredu ezberdinen alde egiten baitzuten. Aurrikusten genuenaren aurka, foru-udalaren berrezarkuntza inolako protestarik gabe burutu zen Eibarko Udalean. Foru-erregimenarekin lur-jabeek udalaren kontrola mantentzen zuten, eta harrigarria da protesta edo eskakizun txikienik aurkitu ez izana udal-hauteskundeak konstituzioak agintzen zuen erara burutzeko. Zer lortzeko borrokatu zuten orduan Eibarko 479 milizianoek? Isiltasun hau are arraroagoa egiten da, gerra irabazita, estatu espainiarraren gidaritza liberalen esku gelditu zenean. Eibarko Udalean boterea lur-jabeen esku mantendu bazen ere, Hirurteko Liberalean udalkide izandako hiru lagun aurkitzen ditugu, eta arraroa da horiek "status quo" aldatzeko zirkin txikienik egin ez izana. Herri-ordezkariak ere mutu gelditu ziren gerraoste laburreko udalgintzan.

Esparteroren erregeordetzak garai berri bati hasiera eman zion. Foru-erregimena goitik behera deuseztatzeaz gain, aldaketa sakonak eragin zituen udal-erakundean, hauteskundeen prozedura eta udal-karguen ezaugarri nagusiak aldatu baitzituen. Oraingo honetan gainera, esperientziarik gabeko udalkideen sarrera indartsuak erregimenaren izaerarekin batera erregimen horren kudeatzaileen aldaketa adierazten digu. Udalkideen artean maizterrak, herri-ordezkariak izandakoak eta esperientziarik gabekoak nagusitu ziren, Eugenio Arostegiren gidaritzapean. Ziur asko, auzokideak ez izateagatik udal-gobernutik baztertuta zeuden biztanleak genituen. Baina agintaldi hau bukatuta, bolada aurrerakoiaren protagonista gehienen aztarnak galdu egiten dira. 1854-1856 biurtekoan ez zen inolako aldaketarik burutu udal-hauteskundeak egiteko eran. Beraz, karlistaldien artean Eibarko Udalean liberal aurrerakoiak tarteka-marteka agertzen bazaizkigu ere, oro har, ez zuten gutxieneko jarraitutasunik izan.

Arostegik, gainera, bi herri-protestari erantzun behar izan zien: auzokideak ez ziren biztanleen erlijio-eskubideen alde egindakoari, eta bestea, zeharkako zergen gehiegikeriaren aurkakoari. Kontsumo-gaien abolizioa liberal aurrerakoien aldarrikapen nagusietariko bat zela kontuan hartuta, protestaren sinatzaileen nortasunak aztertu ditugu, baina euren artean karlistekin ibilitako pare bat eta zenbait handikiren presentziaren aurrean, zuhurrak izatea komeni zaigu bere jatorri ideologikoa zehazteko orduan. Auzokideak ez ziren biztanleen erlijio-eskubideak babesteko egindako protestaren sinatzaile bakarra Miguel José Etxeberria izan zen. Ordurako, Espartero botatzeko moderatu eta aurrerakoi batzuek eginiko aliantza ustelduta zegoen, eta etxeberriatarrak liberal sutsuak zirela jakinda, ekimen hau, beharbada, udalkideen konstituziozaletasuna neurtzeko era bat izan zen.

Foru-erregimenaren berrezartzean aipagarria da agirretarrek jokatu zuten papera: 1840ko alkatea Ramón Agirre izan zen; 1844ko otsailean, foru-erregimena berrezarri zenean Juan Bautista Agirre izendatu zuten alkate; eta Pedro María Agirre Eibarko azken foru-alkatea izan zen. Hirurteko udalak konpondu gabe utzi zuen gerra-zorrari aurre egiteko arazoa, eta erabakia hartzeko gaitasuna Juan Bautista Agirrek gidatzen zuen foru-udalaren esku gelditu zen. Gerra-zorrari aurre egiteko, Agirrek, bonapartetiarren garaitik lurrak bahian zituztenei bigarren seirena kobratu eta lurrak jabetzan ematea proposatu zuen. Bitxia da proposamen hori eztabaidatzeko auzokideen batzarrera deitu beharrean udalkide eta ahaldun nagusien artean erabaki nahi izan zuela. Edonola ere, batzar mugatu horretan nekazari lurjabeek ez zuten horrelakorik onartu, eta erabakia oztopatzea lortu zuten. Ahaldun nagusiak —"*mayores pudientes*"— gainera, Hirurteko Aurrerakoian sortutako figurak genituen, auzokideen batzarrak zituen antzeko eskuduntzekin, hain zuzen. Zentzu horretan, alkatearen jokabidea foru-ohituraren aurka zihoan, eta zuzendu egin behar izan zuen, gaiari konponbidea aurkitzeko auzokideen batzarrera deituz.

Auzokideen batzarra behin eta birritan baino gehiagotan bildu behar izan zen auzi korapilatsu honi konponbidea aurkitzeko. Hartzekodun batek baino gehiagok lurrak bahian zituen, eta diru asko kobratu behar zutenei hobeto zetorkien bigarren seirena ordainduta euren zorra berreskuratzea. Hartzekodun txikiei sistema hori ez zitzaien komeni, bahian zituzten lurrak asko baziren. Beste alde batetik, era ezberdinetako zorrak zeuden metatuta: gerra zaharrekoak, gerra berrikoak eta gerraostekoak. Guztiek eskatzen zuten lehentasuna kobratzeko orduan. Hartzekodunen salaketen ondorioz Bergarako epaitegiak udalaren diru-sarrerak bahitu zituen, eta dirua lortzeko era bakarra lurrak bahian zituztenei jabetza eskaintzea zen. Azkenean bigarren seirena barik, sei urtetan zehar 60.000 erreal ordainduta lortu zuten jabetza. Erosi gabe gelditu zen lurra lotetan banatu eta saldu egin zen. Beraz, I. Karlistaldiko zorra 1808-1814an eta 1820-1823 zehar eskuratutako ordainagiriekin herriko lurrak bahian zituztenek ordaindu zuten. Gerraosteko zorrak zituzten hartzekodunek auziarekin jarraitu zuten eta azkenean gainerakoek baino lur gehiago eskuratzea lortu zuten, euren artean Gabriel Benito Ibarzabalek.

Benetan sintomatikoa iruditzen zait Ibarzabalen desagerpena gerraosteko udalgintzatik. 1845eko udalak berba gogorrak erabili zituen bere aurka, eta Mateo Argiano apaiz liberalarekin izan zuen ika-mikak ere Gabriel Ibarzabalen garaia igarota zegoela adierazten digu.

Gerraoste laburrean, hamarrena desagertzeari buruzko eztabaidak liberalen eta tradizionalisten arteko muga kokatzen laguntzen digu. 1844ko Batzar Orokorrek askatasuna eman zieten Gipuzkoako udalerriei, elizgizon eta erlijio-azpiegituren gastuak betiko legez hamarrenaren bidez ala "*Contribución de Culto y Clero*" deituriko zerga bateratuaren arabera ordaintzeko. Gipuzkoako herri gehienek hamarrenaren sistemarekin jarraitzea erabaki zuten, gutxi batzuek —Eibarkoak tarteko— zerga berriaren aldeko apustua egin zutelarik. 25 urte beranduago —1869an— Hondarribiko Batzar Orokorrek hamarrena ezabatu eta Kultu eta Kleroaren Zerga inposatzea erabaki zutenean tradizionalistek zer-nolako protestak eta istiluak eragin zituzten ikusirik, benetan esanguratsua bihurtzen da eibartarren apustu goiztiarra.

Hamarrenaren aurkako jarrera, mentalitate aurrerakoiaren adierazgarri baino gehiago, elizgizonek eurek bultzatutako estrategia izan zela dirudi. Kontua da, hamarrenak bakarrik nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak zamatzen zituela, eta liberalek ezarri nahi zuten zerga berriak industria eta merkataritza-ekoizpenak barne hartzen zituela. Eibarko elizgizonentzat hamarrenaren sistema baino onuragarriagoa zen liberalek proposatzen zutena, industrigintzaren garrantziak euren diru-sarrerak areagotzeko aukera gehiago eskaintzen zielako. Batzuk liberalen eta besteak karlisten alde ibilitakoak baziren ere, Eibarko eliz kabildoko kide guztiak bat etorri ziren hamarrena kobratzeari uko egiteko orduan. Ordutik aurrera sistema mistoa nagusitu zela dirudi, nekazariek hamarrena ordaintzen jarraitu bazuten ere, armagin eta merkatariak zerga berriarekin zamatu zituztelarik. Gainera, industria

eta merkataritzari zegokion zerga sarri udalak berak ordaintzen zuen, eta formula oso ortodoxoa ez izan arren, bake soziala bermatu zuen erlijioaren arloan. Eibartarrek 1869an batasun katolikoaren aldeko sinadura-bilketan ez zutela parte hartu ikusirik hau ondoriozta dezakegu: tradizionalistek ez zutela erlijioaren gaia liberalen aurka erabiltzerik lortu.

Gerraostean, foruen arabera antolaturiko udalak desagertu egin ziren. Esparteroren dekretuek alkatearen eskuduntza judizialak ezabatu zituzten, eta alferrikakoak izan ziren Ramón Agirre 1841eko alkatearen protestak Bergaran epaitegi sortu berriaren aurrean. Moderatuek indarrean jarri zuten 1845eko "*Ley de Ayuntamientos*" delakoaren aplikazioa pare bat urte atzeratzea lortu bazen ere, 1847koa izan zen foruen arabera hautaturiko azken udala. Puntu honetan merezi du etenalditxo bat egitea, 1846. eta 1847. urteetako foru-udalen jokamoldea aztertzeko. Urte horietan izugarrizko eztabaidak piztu ziren idazkarien izendapenen inguruan. Ambrosio Sustaeta alkatea gaixo zegoela, Gabiola alkateordeak deitutako udal itxiak izendatu zuen idazkari berria, auzokideen batzarrera deitu gabe. Jokabide horrek eragindako protestak ikusirik eta Bergarako epaitegitik zetozen aginduei uko eginez, hurrengo urteko alkateak —Pedro María Agirrek— batzarrera deitu zituen auzokideak, beste idazkari bat izendatzeko. Oraingo honetan herri-ordezkarien protesta entzun zen, aukeratuak ez zituelako gutxiengo baldintzak betetzen. Agirrek, bere aldetik, Lege Zaharraren alderik zurrunenean oinarritu zen herri-ordezkariei boto-eskubidea ukatzeko, pare bat urte lehenago Gregorio Atxa idazkariaren bozketan inolako arazorik parte hartu zuten arren. Auzokideen batzarren esku-hartzea bultzatuz, Agirre foru-udala berpizten saiatu bazen ere, bere ahaleginak alferrikakoak izan ziren, 1848an indarrean jarri zen "*Ley de Ayuntamientos*" delakoak betiko ezabatu baitzuen.

Lehen itxuran, legedi berriak ez zituen gauzak gehiegi aldatu, hautesleen eta hautagaien arteko bereizketarekin jarraitu baitzuen, eta hautagaien artean nekazari lur-jabeak nagusitzen zirelako. Hautesle kopurua 102koa zen, gutxi gorabehera auzokideen antzekoa. Baina beste zenbait alderditan aldaketa garrantzitsuak zekartzan foru-udalekin alderatuz. Alde batetik, udalkide izateko kaparetasunaren baldintza desagertu zen. Bestetik, hautesleek alkatea izendatzeko gaitasuna galdu zuten, eskuduntza hori gobernadoreak hartu zuelarik; era horretara, Batzar Orokorretarako ordezkaritza-prozesua kutsatuta gelditzen zen. Azkenik, auzokideen batzarra desagertzeak nekazari-sektorearen makaltzea eragin zuen, auzokiderik gehienak nekazari lur-jabeak zirelako, eta udalean armaginak nagusitzen zirenean ere, auzokideen batzarretan beti auzoetako lur-jabeak nagusitzen zirelako. "Ahaldun nagusien" egituraren bidez, ordea, udalari betoa ezarri ahal zion boterea mugatu eta kontrolatzea lortu zen, eta zentzu horretan udalkide armaginek autonomia irabazi zuten euren aldeko erabakiak hartzeko orduan. 1848-1857ko udal-hauteskundeetako abstentzio-portzentajeek adierazten digutenez, sistema berriak ez zuen berotasun handirik sorrarazi.

Garateren asmakizunarekin Eibarko armagintzak aro berri bat hasi zuen. Sasoi berean, Esparterok aduanak kostara eta mugara lekuz aldatu zituen, eta oraingo honetan, gaur arte. Abagune berri honetan, Eibarko armagin nagusiek merkatu berriak bilatu zituzten, Hirurteko Liberalean zehar ibarzabaldarrek egindako urratsei jarraituz. Manuel Garatek, beraz, ez zeukan Madrileraino bidaiatzeko premiarik bere errebolberrak saltzeko, mandatua Ibarzabal, Aretio edo besteren bati utzita nahikoa baitzuen. Baina era horretara salmenta-prozesuaren kontrola galduko zuen, eta bitartekariari ere zerbait ordaindu beharko zion. Madrileko bidaiaren benetako motibazioak ezagutu gabe jarraitzen dugu, are gutxiago bere morroiaren bertsioan aurkitu ditugun kontraesanak kontuan hartuta. Madrilen bere eskuekin egindako errebolberra ezin salduta ibili arren, ziur asko bazekien bere asmakizunak armagintzaren mundua irauliko zuela. Eibarko armaginak abiapuntu hobezinean zeuden arma berriari etekina ateratzeko. Hurrengo urteetan ere Europa mailan burutzen ari ziren berrikuntza teknologikoez jabetzeko hainbat bidaia burutu zituzten.

Eibarko armagintzak zuen oztoporik handienetako bat inbertsio handietarako ahalmen-gabezia zen. Tailer eta tresnerien berrikuntza familiak zituen aurrezki urrien menpe zegoen beti, eta inbertsio arriskutsuak ziren, batez ere armagintzaren mundua aldaketa teknologiko etengabeak bizitzen ari zela kontuan hartuta. Orbeatarren fabrikaren bat-bateko agerpen indartsuak harrituta utzi gintuen: nondik atera zuten orbeatarrek halako fabrika egiteko kapitala? Egia esan, XIX. mendearen lehen erdian orbeatarrek makalduta dirudite: inork ez zuen udal-kargurik bete, eta euren errentak oso urruti daude familia aberatsenenetatik. Orain badakigu kapitala amak ekarritakoa zela, nebarik ezean, ziur asko. Sasoi hartan, ezkontza-gorabeherak nola erabakitzen ziren kontutan izanda, ez ote zegoen ezkongai aberatsagorik Manuel Antonio Muruaren alabarentzat? Beharbada horretarako aukerarik ere ez zuen izan, alabak 18 urte baino besterik zituela erditu baitzuen bere lehen biloba, Juan Manuel Orbea Murua.

Ezerezetik sortuta bezala —1796-1839 epean ez dugu Orbea abizeneko udalkiderik aurkitzen—, Isabel II.aren erreginaldiaren azken hamarkadan orbeatarren sarrera indartsua sumatu zen Eibarko Udalean. Orbea muruatarrei dagokienez, hiru anaiek bete zituzten udal-karguak 1840tik 1876 bitartean. Azken hamarkada horretako udal-hauteskundeei buruzko emaitza zehatzik ez denez gordetzen, ez daukagu sortu ahal izan ziren kandidaturen berririk. 1864an sufragioa zertxobait zabaldu bazen ere, eibartarrik gehienek boto-eskubiderik gabe jarraitzen zuten, eta euren artean bereziki hiriguneko armaginek. Zentzu horretan, Eibarko Udalak, kanpotik heldutakoak integratzeko gaitasuna erakutsi bazuen ere, hiriguneko biztanleriaren hazkunde izugarriaren ondorioz ordezkaritza-sistema guztiz desorekatuta zegoen. 1787-1858 bitartean Soraluzeko biztanleria % 6,6 eta Elgoibarkoa % 9,6 hazi baziren, Eibarkoa % 54 hazi zen epe berean. Soilik 1822-1858 tartean, Eibarko populazioa 2.580 biztanletik 3.792ra igo zen (% 46,9), Elgoibarkoa gainditu z (3.180

biztanle) eta Soraluze oso atzean utziz (2.178 biztanle). Etorkinik gehienak armagin bihurtu ziren, hiriguneko biztanle. Udal-boterean, ordea, nekazari-sektorearen pisua oraindik oso nabarmena zen: 10 udalkidetik hiru auzoetan bizi ziren.

Loriatsuak egoera irauli zuen. Autoizendatutako Gobernurako Batzar Iraultzailearen eta sufragio murriztuz hautatutako Udaletxe Herrikoiaren ostean, benetako aldaketa sufragio orokorrak ekarri zuen, 1869ko udal-hauteskundeen emaitzek egiaztatzen dutenez. Parte-hartzea garrantzitsua izan zen, bozkatu zuten 862 gizonek erroldaren % 76,1 osatzen baitzuten. Emaitzei dagokienez, liberalak nagusitu ziren, baina 10 zinegotzitatik sei aurretik ere udalkideak izandakoak ziren 1860ko hamarkadan. Horietatik batzuk tradizio liberaleko familietatik etorri arren, ez ziren sufragio orokorraren onuradun nagusiak izan. Gainerako laurei dagokienez, bitxia da Iraultza Loriatsuaren liderretariko bat genuena karlisten laguntzaile bihurtuko zela: Ciriaco Iturriozek Loriatsuaren hasierako hiru udaletan parte hartu zuen, eta azkenean Garagartza karlistaren aliaturik zintzoena bihurtu zen. Martín Gisasola karlistak ere zinegotzi-kargua lortu zuen sufragio orokorrari esker. Gorteetarako hauteskundeen emaitzek ere hauxe adierazten digute: Eibarren liberalismoa nagusi izan arren, karlisten aldekoek erroldaren % 17,5 zirela. Hau da, gutxi gorabehera, seitik bat. Edonola ere, liberal zintzoz osaturiko gehiengoa zen, 1871ko Batzar Orokorretan sufragio orokorraren alde bozkatu izanak frogatzen digun bezalaxe.

Berriz ere, milizietan izena eman zutenen kopuru izugarria da liberalismoaren indarraren adierazle garbiena: 900 Askatasunaren Boluntario eta 300 Errepublikaren Boluntario! Esate baterako, borrokatzeko adinean zeuden hiriguneko gizon guztiak! Antzinako errito bat balitz legez, berriro ibarzabaldar bat agertzen zaigu miliziano haien komandante, Ignacio Ibarzabal Iriondo, Gabriel Benitoren semea. Ibarzabal errepublikanoa izan arren, Isabel II.ari harrera egin zion 1866an Eibar bisitatu zuenean, Gipuzkoako liberalen komitean aurkitzen dugu eta diputatu kargua ere bete zuen, espainiar gorteetan. Han egindako agerraldi guztiak Debarroko armagintza babestea eskatzeko izan ziren, baina inoiz ere ez zen mintzatu harako edo honako politikaren alde. Beharbada hauxe dugu XIX. mendean zehar ibarzabaldarrek defendatu helburu estrategikoa argien adierazten duena: arroko armagintza espainiar estatuko merkatu nazionalean txertatuz, bitartekaritza-lanetan aritzea. Edonola ere, arlo ideologikoan atzean gelditzen ari ziren, estreinakoz, errepublikano baterakoien ezkerretara errepublikano federalisten korrontea sortu baitzen.

Errepublikazaletasunak Eibarren nolabaiteko sustraiak izan behar zituen Loriatsua baino lehen, sei hilabete geroago euskal errepublikano federalistak berton biltzea erabaki izanak adierazten digun bezalaxe. Edonola ere, iraultzaren hasieran federalisten eragina oso murriztua zen, 1869ko zinegotzien artean inor ez dugu aurkitzen eta. Ziur asko iraultzaren zurrunbiloa areagotu ahala, errepublikazaletasunak jarraitzaileak irabazi zituen. Daturik zehatzena Errepublikaren Boluntarioen kopuruak eskaintzen digu (300), baina beste horrenbeste izan zitezkeen, beste errepublikano batzuk —Ignacio Ibarzabal komandantea, esaterako— Askata-

sunaren Boluntarioetan mantendu zirela jakinda. Errepublikano federalisten habia ote zen boluntarioen milizia, eta baterakoiak Ibarzabalen gidaritzapean gelditu ziren? Ezin jakin, Errepublikaren Boluntarioen miliziako kideen nortasunak ezagutzen ez ditugun bitartean. Errepublikanoak, edonola ere, nahiko zatituta agertzen dira euren artean. Alde batetik udalkideak, gobernadoreak izendatuta; bestetik, milizianoak; eta azkenik, herria gotortzeko biztanle susmagarriak derrigortzearen aurka protestatu zutenak. Errepublikanoen artean ez dugu inor aurkitzen hiru arloetan, eta oso gutxi bitan. Errepublikanoek indarrak sakabanatu eta batzuetan elkarren aurka egin zuten, baina hori berori, ahuleziaren isla baino gehiago errepublikazaletasunaren indar eta bilakaera bereziarena izan daiteke.

Errepublikanoek, egia esan, ez zuten aukera handirik izan euren programa politikoa garatzeko. Udal-boterea eskuratu zutenerako karlisten mehatxua gainean zeukaten, eta ahaleginik gehienak hirigunea defendatzera bideratu behar izan zituzten. Lizarragaren errendizio-proposamenaren aurrean sortu ziren tirabirak, herritik alde egin zuten milizianoen kopuru urria (seitik batek) eta federalista ospetsu batzuek —Inocencio Ortiz de Zaratek, besteak beste— karlisten agintaldian eskaini zuten kolaborazioa, errepublikanoen eta karlisten arteko harreman —onak ez baziren— ez hain txarren hipotesiaren alde jokatzen duten datuak dira. Are gehiago, Garagartza alkateak Juan Manuel Orbearen aurka zerabilen diskurtsoak errepublikanoena baino gehiago internazionalistena zirudien. Azken horiei dagokionez, zeharkako aipamen urri batzuk baino ez ditugu lortu, baina ikerketa berrietarako bidea eman dezaketenak.

II. Karlistaldian lortu dugu estreinakoz gutxieneko fidagarritasun bat eskaintzen duen lagin bat osatzea, alderdi batean zein bestean borrokatu zutenen nortasunak zerrenda beltzek adierazten baitizkigute. Alderaketa antsiatsuak, oro har, karlisten eta liberalen arteko gatazka azaltzeko erabili izan diren hipotesirik gehienak egiaztatzen ditu, baina gehien nabaritzen dena auzoen eta hirigunearen arteko lehia da. Karlisten eta liberalen arteko aurkakotasuna sustraitzen zuen nagusia habitata balitz bezala, gainerako aldagaiak (batez ere aukera laborala eta maila kulturala) difuminatzen doaz, betiere arketipoaren barruan. Errenta mailan nahiko parekatuta agertzen dira, talde bakoitzaren barnean azpitaldeen arteko ezberdintasun garrantzitsuak badaude ere. Ikuspegi honetatik II. Karlistaldiak I. Karlistaldiaren ostean hasitako prozesuaren bukaera dirudi, liberalek inposaturiko legediek udalean eragin zuten botere-galtze etengabearen aurrean jada dekadentzian zegoen nekazari-jauntxokeriaren erreakzioa. Edonola ere, komeni da zehaztea lau karlistatik bat armagina zela, eta arlo laboralean karlismoan liberalismoan baino aniztasun handiagoa aurkitzen dugula, liberalen artean nekazariak hamarretik bat baino gutxiago ziren-eta.

Foru-lurraldeetan karlistak nagusi izan arren, epe ertainera ez zuten aukerarik espainiar lurretako biztanleria ez bazuten euren alde jartzerik lortzen. Iraultzaren erradikalizazioaren, eta batez ere errepublikaren onarpenaren ondorioz, hautesle

berriak erakartzea lortu bazuen ere, borboitarren itzulerarekin karlismoak porrot egin zuen. Gerra galtzearekin batera Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak indarrean zituzten foruen aztarnak galdu zituzten, eta besteak beste, herrialde horietako gazteak soldadutza egitera behartu zituzten. Salbuespen bat egin zen II. Karlistaldian liberalismoaren alde armak hartu zituztenekin, baita euren semeekin ere. Zentzu horretan, Eibarko gazterik gehienak zerbitzu nazkagarritik libre gelditu ziren, baita herrian gelditu zirenenak ere.

Gerraostean sufragio murriztua berrezarri zen, harik eta 1888an sufragio orokorra onartu zen arte. Ziur asko 1876-1900 bitarteko udalkideen nortasunak datu-basean sartzeak 1876tik aurrera Eibarko liberalismoaren familiek jasan zuten bilakaerari buruzko datu argigarriak eskainiko lizkiguke, eta aldi berean, zalantza eta hipotesi gehiago iradoki. Baina ez dugu horretarako betarik izan. Alkateen nortasuna ezagutzen dugu, eta horien artean, Gisasola, Alberdi, Orbea, Zuloaga, Etxeberria, Larrañaga dira nagusi. Beraz aldaketa handirik ez da sumatzen.

Oro har, Eibarko liberalismoaren hastapen eta bilakaeraren zenbait puntu argitzea lortu badugu ere, iluntasunak ez dira gutxiago. Funtsezko agiriak desagertzea oztopo gaindiezina bihurtzeaz gain, egon badaude erabili gabe utzi behar izan ditugun iturriak, edo soilik zeharka erabili ditugunak zenbait pertsonari buruzko datuak eskuratzeko. Datu-basea eratzeko erabili gabe utzi ditugun iturrien artean hauexek dira garrantzitsuenak: protokoloak, parrokiaren liburuak (bataioak, ezkontzak, heriotzak), 1861eko errolda eta 1872ko Kultu eta Kleroaren Zerga. Protokoloek familia bakoitzaren aberastasun eta interesen muinean kokatzen gaituzte; hurrengo biek familia-egitura eta senidetza-harremanen berri emango ligukete; eta azkenak, familia bakoitzaren errenten jatorria eta kopurua ezagutzeko erabiliko genituzke. Horiez gain, Bergarako Udal Artxibategiak digitalizatu berri dituenak aipatuko nituzke, horietarik gehienak auzi judizialekin lotutakoak. Urteetako lanaren ostean eraiki dugun datu-basea abiapuntu hobezina izango duzue zeregin horretarako.

1. ERANSKINA

Eibarko armaginen kopuruak 1762an eta 1835ean, abizenaren jatorriaren arabera.

	1	2	3	4	5	6	7	Guztira
1762	30	54	9	31	11	0	33	168
1762 %	17,8	32,1	5,3	18,4	6,5	0	19,6	
1835	44	62	17	39	13	0	63	238
1835 %	18,4	26	7,1	16,3	5,4	0	26,4	

1786ko auzokideen zerrendan abizenak jatorriaren arabera antolatu ziren: 1- Jatorriz, Eibarko abizenak, auzokideak. 2- Auzokideak, baina jatorriz Eibartik kanpoko gipuzkoarrak. 3- Gipuzkoarrak, ez auzokideak. 4- Gipuzkoatik kanpokoak, baina auzokideak. 5- Gipuzkoatik kanpokoak, baina ez auzokideak. 6- Estatu espainiarretik kanpokoak. 7- 1786ko zerrendan agertzen ez direnak.

2. ERANSKINA

Eibarko udalkideen kopuruak, abizenaren jatorriaren arabera

	1755-1795	1796-1839	1839-1876
1	53	58	54
2	30	32	20
3	6	9	6
4	34	32	19
5	3	8	2
6	0	0	0
7	7	19	38
Guztira	133	158	139

1786ko auzokideen zerrendan abizenak jatorriaren arabera antolatu ziren: 1- Jatorriz, Eibarko abizenak, auzokideak. 2- Auzokideak, baina jatorriz Eibartik kanpoko gipuzkoarrak. 3- Gipuzkoarrak, ez auzokideak. 4- Gipuzkoatik kanpokoak, baina auzokideak. 5- Gipuzkoatik kanpokoak, baina ez auzokideak. 6- Estatu espainiarretik kanpokoak. 7- 1786ko zerrendan agertzen ez direnak.

3. ERANSKINA

Abizen bereko udalkide kopurua Eibarko Udalean, sasoi ezberdinetan:

	1755-1795	1796-1839	1839-1876	Abizenaren jatorria
ABANZABALEGI	1	1		1
ATXA	5	6	4	1
ATXOTEGI			2	7
AGIRRE	3	10	8	1
ALBERDI		6	2	2
APELLANIZ		2		4
ARANA		2	1	2
ARANGUREN			2	7
ARETA	5	2	3	1
ARGIANO	3	5	2	1
ARITIO[1204]	2		1	4
ARIZMENDI	2			1
AROSTEGI			2	7
ARTAETXEBERRIA	2	1		4
AZPIRI	2		3	1
BARRENETXEA		2	1	3
BASKARAN	2	9	7	4
BERGARA	2	5	4	4
BERRAONDO	2			3
BETOLAZA		1	2	4
BIDARTE			3	7
BURGOA	1	3		4
BUSTINDUI	3	2	2	4
ETXEBERRIA[1205]	2	4	6	2
EGOTXEAGA	2			2
ERBITI	2	2	1	4

1204. Aretioren barruan sartu ditut, Aritio eta Aretio

1205. Etxeberria abizen legez hartu ditut Etxabarria eta Etxebarria.

GABIOLA	2	2	1	4
GARATE			2	7
GISASOLA	7	14	14	1
IBARRA	3	3		1
IBARZABAL	2	4	4	2
IÑARRA IRAEGI			2	1
IRAEGI			3	1
IRUSTA		2		5
ITURRIOZ		1		5
LARRAÑAGA		2	2	2
LASKURAIN	2	1		2
LEZETA	2	3		1
LOIOLA	2	1		1
MANDIOLA		3	2	1
MENDIZABAL	2			2
MUGERTZA	2	2		2
MURUA	1	1		3
OLABE	6	3		4
ORBEA	1		5	1
PAGAEGI	2	1		1
PAGOAGA[1206]			4	1
SARASKETA	4		2	2
SUINAGA	2	2		1
SUSTAETA		2	2	7
UNTZETA	4	2	2	1
URZELAI			2	7
ZULOAGA[1207]	1	2	2	2
ZULOETA[1208]	3			2
ZUMARAN	2	1		1

1206. Abizen honen barruan Paguaga ere sartu dut.
1207. Abizen honen barruan Zuluaga ere sartu dut.
1208. Abizen honen barruan sartu dut Zulueta ere.

Bibliografia

Agirreazkuenaga, J. (1982): "Euskal Herriko langileriaren historiaz. Lehen Internazionala eta lanaren elkarte internazionala (A.I.T.) Hego Euskal Herrian, 1870-1872", *Historia eta gizarte zientzien urtekaria*, Iruñea, 324-376.

–––––––––, (1993a): *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza Lege Zaharraren krisialdian*, Gaiak, Donostia, 251 or.

————, (1993b): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia: 1806-1876,* Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1080 or.

————, (2002): "El estado vascongado, triple y uno. Irurak bat", *Los liberales*, 229-258.

Aguirre Sorondo, A. (1996): *Las ermitas de Eibar*, Itxaropena, Zarautz, 166 or.

Alberdi Sagardia, M. (2000): "Guiñi, caudillo de salteadores", *Azterketa Historikoak V*, 41-72.

Areta, N. (2003): *Eibarko Efemerideak. Kronika Historikua 1936rarte*, Ego Ibarra Batzordea, Eibar, 686 or.

Arocena, F. (1960): "Joaquín de Iturbe, Santua, salteador de caminos", *BRSVAP*, **XVI**, 303-307.

Artola, M. (1989): *Los afrancesados*, Alianza Universidad, Madril, 284 or.

Aymes, J. R. (1986): *La guerra de la Independencia en España (1808-1814)*, Siglo XXI, Madril, 170 or.

Azurmendi, X. (1986): *El cura Santa Cruz*, Idatz-Ekintza, Bilbo, 591 or.

Bernoville, G. (1928): *Bataille autour du curé Santa Cruz*, Edition Gure Herria, 377-389.

————, (2000): *La cruz sangrienta. Historia del cura Santa Cruz*, Txalaparta, Tafalla, 161 or.

Berruezo, J. (1959): "Espías y guerrilleros guipuzcoanos", *BRSVAP*, **XV**, 255-277.

————, (1977): *Historias de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Tolosa, 203 or.

Biona, G. de (1911): "Incendio de Eibar por los franceses en 1794", *Euskalerriaren Alde*, 510-513.

————, (1911): "La machinada en Eibar", *Euskalerriaren Alde*, 118-121.

Blasco Olaetxea, C. (1982): *Los liberales fueristas guipuzcoanos*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 147 or.

Calvó Pascual, J. L. (1997): *La Industria Armera Nacional (1830-1940). Fábricas, Privilegios, Patentes y Marcas*, Ego Ibarra, Eibar, 517 or.

Castells, L. (1985): "El Sexenio Democrático y su repercusión en Guipúzcoa", en *Symbolae Ludovico Michelena septuagenario oblatae*, quas edidit J.L. MELENA, Victoriaco Vasconum, Vitoria-Gasteiz, 1271-1289.

Celaya Olabarri, P. (1970): *Eibar. Síntesis de monografía histórica*, CAMSS, SS, 117 or.

Clavero, B. (2000): "Alava ante Cádiz. Euskadi ante España", *Cuadernos de Alzate*, **23**, 25-42.

Cruz Mundet, J. R. (1993): *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795): I.V. de Sarastiren eskuizkribua*, GFA, Donostia, 130 or.

Del Moral, C. (1990): *La Guerra de la Independencia*, Anaya, Madril, 96 or.

Dorronsoro, M. (1870): *Lo que fueron los Reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los Fueros de Guipúzcoa*, Martínez, Azpeitia, 41 or.

Etxeberria, M. *et al.* (1984): *Foruen aurkako saioaldiak eta herri-erreboltak (XVIII. mendean)*, Gordailu, Donostia, 94 or.

Extramiana, J. (1979-1980): *Historia de las guerras carlistas* (2. liburukia), Haranburu, Donostia, 537 or.

Eyara J. (ed.) (1980): *Historia de Euskal Herria*, IV. liburukia.

Fernandez Albadalejo, P. (1976): "Algunos textos sobre la polémica entre libre comercio y Fueros hacia 1780", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais (BRSBAP*), 32. urtea, 229-235.

————, (1980): "Guipúzcoa: 1839-1868. La recomposición de una sociedad", *Moneda y Crédito*, **155**, 39-72.

Fernandez de Pinedo, E. (1999): *Euskal Herriko ekonomi hazkundea eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*, EHU, Bilbo, 491 or.

Fontana, J. (1973): *Cambio económico y actitudes políticas en la España del s. XIX*, Bartzelona, Ariel, 196 or.

Foucaut, M. (1978): *Microfísica del poder*, Madril, La piqueta, 189 or.

Gabarain Aranguren, Mª. T. (1994): *Lehen liberalismoa Oiartzun Haranean (1800-1840)*, Oiartzungo Udaleko Kultura Batzordea, Donostia, 247. or.

Garate Ojanguren, M. (1985): "Comercio directo con América y Fueros. 1778-1780", BRSBAP, 41. urtea, 3-36.

Garcia Manrique, E. (1961): *Eibar. Inmigracion y desarrollo urbano e industrial*, CSIC, Zaragoza, 208 or.

Garcia Ronda, A. (1991): *La transformación de la foralidad guipuzcoana (1837-1844)*, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia, 186 or.

Garmendia, V. (1985): *La ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*, GFA, Zarautz, 709 or.

Garmendia Estomba, R. Mª. (1992): "Conflictos entre el alcalde de Irún y el alcalde de Sacas (1766-1805)", *Luis Uranzu Kultur Taldearen aldizkaria*, **9**, 45-58.

Gastaminza, S. (1913): "De la parte que la villa de Hernani tomó en la sofocación de la machinada de Azcoitia", *Euskalerriaren Alde*, 173-176.

Ginzburg, C. eta Poni, C. (1991): "El nombre y el cómo: intercambio desigual y mercado historiográfico", *Passato e presente. Rivista di historia contemporánea*, **25**, 63-71.

Gonzalez de Garai, I. eta Barcenilla, M. A. (1990): *Jauntxoak, burgesak eta foruak*, Gaiak, Donostia, 197 or.

Hernando, F. (1877): *La campaña carlista*, Roger et Chernoviz, Paris, 424 or.

Herr, R. (1988): *España y la revolución del siglo XVIII*, Madril, Aguilar, 417 or.

Iñurrategui Rodríguez, J.M. (1997): *Guipúzcoa: monstruo indómito, fiereza y rusticidad de costumbres*, Bilbo, EHU, 184 or.

Iparragirre Burgoa, G. (1993): *Deba Bailarako herrien prosopografía II. Karlistaldian: Deba, Elgoibar, Eibar, Bergara, Arrasate eta Oñatiko herrien biografia kolektiboa (1868-1876)*, 1993ko Justo Garate beka deialdiaren ikerlana, argitaratu gabea, Bergarako Udala.

————, (1999): "Eibar", in E. Barrena, *Eibar 1346-1996. Ekarpen historikoak*, Eusko Ikaskuntza eta Eibarko Udala, Donostia, 49-74.

————, (2001): *Txano frigiarretik karlisten txapelera. Irun, 1789-1839*, Luis Uranzu Kultur Taldea, Irun, 379 or.

Juretschke, H. (1986): *Los afrancesados en la Guerra de la Independencia*, Sarpe, Madril, 143 or.

Kasper, M. (1992): "Gerrila Gipuzkoan (1808-1835)", *Azterketa Historikoak II*, Zumalakarregi Museoa, Donostia, 25-141.

Larrañaga, R. (1970): *Soraluce*, CAMSS, Donostia, 83 or.

————, (1981): *Síntesis Histórica de la Armería Vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 565 or.

————, (2001): *Armeros vascos. Repaso histórico. Raíces y desarrollo*, Eibarko Udala, Donostia, 271 or.

Lasa Esnaola, J. I. (1973): *Jauregui el guerrillero (un pastor guipuzcoano que llegó a mariscal)*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 347 or.

Lasala Collado, F. (1895): *La separación de Guipúzcoa y la paz de Basilea*, Establecimiento Tipográfico Fortanet, Madril, 92 or.

————, (1924): *Ultima etapa de la unidad nacional. Los Fueros Vascos en 1876*, Ed. Real Academia de Ciencias Morales y Políticas, Madril.

Lecuona, M. (1962): "Cartas andoaindarras", *BRSBAP*, XVIII, 369-413.

Legasse, M. (1995): *Las carabinas de Gastibeltza*, Orain, Donostia, 119. or.

Levi, G. (1993): "Sobre microhistoria", *Taller d'historia* aldizkaria, 1993ko 1. seihilekoa, 3-11.

Llanos Aramburu, F. (1998): *El Trienio Liberal en Guipúzcoa (1820-1823)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 523 or.

Melgar, Conde de (1958): *Pequeña historia de las guerras carlistas*, Gomez D. L., Iruñea, 365 or.

Montoya, P. (1971): *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles. 1820-1823*, Donostia, 479 or.

Mora Afan, J. C. eta Zapirain Karrika, D. (1995): "Gerra eta krisia: 1795, Gipuzkoa Basileako Bakearen ondoan", *Azterketa Historikoak IV*, Zumakalarregi Museoa, Ormaiztegi, 47-95.

————, (1997): "Gerra eta krisia: 1795, Guipúzcoa Basileako Bakearen ondoan", *Azterketa Historikoak II*, Zumalakarregi Museoa, Donostia, 47-95.

Mugartegui, J. J. (1927): *La villa de Marquina: monografía histórica*, Echeguren eta Zulaica inprenta, Bilbo, 303 or.

Mugartegui Eguia, I. (1990): *Hacienda y fiscalidad en Guipúzcoa durante el Antiguo Régimen (1700-1814),* Gipuzkoako Kutxa Kultur Fundazioa, Donostia, 295 or.

Mugica, G. (1990): *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Eibarko Udala, Eibar, 510 or.

Mugica, J. (1950): *Carlistas, moderados y progresistas*, Biblioteca Vascongada Amigos del País, Donostia, 297 or.

Mutiloa Poza, J. M. (1978): *La crisis de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 197 or.

————, (1982): *Guipúzcoa en el siglo XIX. Guerra, desamortización, fueros*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 736 or.

Ortiz de Orruño, J. M. (1996): "La militarización de la sociedad vasca en tiempos de paz: los naturales armados (1823-1833*)", Guerras civiles y violencia en Vasconia (siglos XIX y XX*), 23-39.

Otaegui, A. (1991): *Gerra eta hazienda lokalaren krisia: udal ondasunen eta propioen salmenta Gipuzkoan, 1764-1814*, GFA, Donostia, 115 or.

Otazu y Llana, A. (1973): *El "igualitarismo" vasco: Mito y realidad*, Txertoa, Donostia, 454 or.

————, (1982): *La burguesía revolucionaria vasca a finales del siglo XVIII: dos estudios complementarios*, Txertoa, Donostia, 143. or.

Palacio, S. M. (1917): *El batallón de Guernica*, Biblioteca Tradicionalista, Bartzelona, 401 or.

Piqueras, J. A. (1994): "De la biografía tradicional a la historia individual, grupal y masiva", in P. Carasa, *Élites. Prosopografía contemporánea*, 53-62.

Pirala, A. (1984a): *Desde la Regencia de Urgel hasta la dimisión de Zumalacarregui* (estudio preliminar por Julio Arostegui), Turner / Historia 16, Madril, 37 orr.

————, (1984b): *Primer sitio de Bilbao. Panorama de los ejércitos liberales y carlistas en el Norte,* Turner / Historia 16, Madril, 688 or.

————, (1876): *Anales desde 1843 hasta la conclusión de la última guerra civil,* IV. liburukia, Imprenta y Fundición de Manuel Tello, Madril, 636 or.

Portillo, J. M. (1987): *Los poderes locales en la formación del régimen foral (1812-1850)*, EHU, Bilbo, 188 or.

Ribechini, C. (1996): *De la Guerra de la Convención a la Zamacolada. Insumisión, matxinada, dispersión*, Txertoa, Donostia, 229 or.

Rico Linage, R. (1994): *Constituciones históricas. Ediciones oficiales*, Universidad de Sevilla, Sevilla, 302. or.

Rodríguez de Coro, F. (1980): *Guipúzcoa en la democracia revolucionaria (1868-1876): génesis del nacionalismo vasco*, Gipuzkoako Aurreski Kutxa, Donostia, 405 or.

————, (1986): *San Sebastián, revolución liberal y II Guerra Carlista*, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, Donostia, 472 or.

————, (1988): *Política eclesiástica de los gobiernos liberales en Euskadi*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 292. or.

Rodríguez Solis, E.: *Los guerrilleros de 1808: historia popular de la guerra de la Independencia*, 2 liburuki, Imp. de Fernando Cao y Domingo del Val, Madril, 850 or.

Rubio Perez, L. (1986): *Ondarroa : apuntes históricos de una villa marinera durante la edad moderna : (fondo histórico-documental de su Archivo Municipal)*, Ondarroako Udala, 121 or.

Rubio Pobes, C. (1997): *Fueros y Constitución: la lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868*, UPV-EHU, Bilbo, 221. or.

————, (2000): "Del antiguo al nuevo régimen foral", *Cuadernos de Alzate*, **23**, Pablo Iglesias, Madril, 143-164.

Ruiz Hospital, G. (1997): *El gobierno de Gipuzkoa al servicio de su rey y bien de sus naturales. La Diputación provincial de los fueros al liberalismo*, Donostia, GFA, 419 or.

San Martin, J. (1979): "Eibar", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, X. Bol. *Cuerpo A. Diccionario Enciclopédico Vasco*, Donostia, Ed. Auñamendi, 180-272.

————, (1987): "Iparragirre literaturan", in A. Arana *et. al., Iparragirre*, Euskaltzaindia, Bilbo, 446 or.

————, (1993): *Antzinako Eibar, Etnografia gaiak*, Ego Ibarra, Eibar, 158. or.

Sánchez Mantero, R (1996): *Fernando VII. Un reinado polémico*, Historia 16, Madril, 146 or.

Sanchez Prieto, J. M. (2002): "Fuerismo e historiografía. La memoria política vasca anterior al nacionalismo", *Los liberales (1808-1876)*, 306-307.

————, (2000): "Persistencia y quiebra del Antiguo Régimen. El debate vasco durante la primera mitad del siglo XIX", *Cuadernos de Alzate*, **23**, Pablo Iglesias, Madril, 97-118.

Sarasketa, P. (1909): *Eibar. Monografia descriptiva de esta noble y leal villa guipuzcoana. Eibarko Kuadernuak*, Eibar, Imp. de Orue, 60 or.

Sesmero Cutanda, E. (1991): "Partidas paralelas", *Los carlistas (1800-1876)*, Sancho el Sabio, Gasteiz, 355-368.

Solozabal, J. J. (1979): *El primer nacionalismo vasco: industrialismo y conciencia nacional*, Haranburu, Donostia, 374 or.

Soria Sesé, L. (1984): *Derecho municipal guipuzcoano. Categorías normativas y comportamientos sociales*, Ed. IVAP, Gasteiz, 470 or.

Torre, J. De La (1996): "Guerra, economía y violencia, 1808-1823", *Guerras civiles y violencia en Vasconia (siglos XIX y XX)*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo, 15-21.

Txillardegi (1999): *Putzu*, Elkarlanean, Donostia, 385 or.

Ugarte, J. (1991): "La Primera Guerra Carlista y el régimen foral", *Los carlistas (1800-1876)*, Sancho el Sabio, Gasteiz, 263-288.

Uriarte, J. M. (1998): *Hitz apurtua. Deba beheko herri armagileetan Frantziako iraultzak gizartean, ekonomian, politikan, instituzioetan eta kulturan izandako eragina (1793-1823)*, 1998ko uztailaren 4an aurkeztutako doktoretesia, argitaratu gabea.

Urquijo, Goitia M. (1994): *Liberales y carlistas. Revolución y Fueros Vascos en el preludio de la última Guerra Carlista*, EHU, Leioa, 381 or.

Urrutikoetxea, J. (1984): *Karlismoa*, Elkar, Donostia, 119 or.

————, (1992): *"En una mesa y compañía". Caserío y familia campesina en la crisis de la "sociedad tradicional". Irún, 1766-1845*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 499 or.

Urtubixa (1993): "Ondárroa hipotecada", *Ondárroa 1993*, 12-15.

Valle-Inclan, R. del (1994): *Gerifaltes de antaño*, Espasa-Calpe, Madril, 184 or.

Vazques de Prada, V. (1987): "La historia local: su interés actual", *Tokiko Historiaz Ikerketak*, 9-15.

Xamar (1996): *Orhipean*, Pamiela, Iruñea, 118 or.

Zabala, A. (1997): *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Sendoa, Oiartzun, 818 or.

Zavala, J. A. (1989): "Guipúzcoa ante la invasión de los convencionales: actitudes divergentes", *RIEV*, 37. urtea, 34. liburukia, 1. zenbakia.

Zelaia P. (1994): *Eibarko historiaren laburpena*, "... eta kitto" Euskara Elkarteak argitaratua, Eibar, 129. or.

Zenon Davis, N. (1991): "Las formas de historia social", *Historia Social*, **10**, 177-182.

Zufiria, J. de (1915): "Antiguos capitalistas guipuzcoanos", *Euskalerriaren Alde*, V. liburukia, 567-571.

Iturriak

Eibarko Udal Artxibategia (EiUA)

A,1,1,5, Udalbatzaren Akta Liburua (1756-1768).
A,1,1,6, Udalbatzaren Akta Liburua (1777-1784).
A,1,1,7, Udalbatzaren Akta Liburua (1788-1797).
A,1,1,8, Udalbatzaren Akta Liburua (1798-1808).
A,1,1,9, Udalbatzaren Akta Liburua (1820-1823).
A,1,1,10, Udalbatzaren Akta Liburua (1823-1828).
A,1,1,11, Udalbatzaren Akta Liburua (1829-1839).
A,1,1,12, Udalbatzaren Akta Liburua (1840-1841).
A,1,1,13, Udalbatzaren Akta Liburua (1842-1850).
A,1,1,14, Udalbatzaren Akta Liburua (1850-1876).
A,1,2,1,1, Udalbatzaren Akten zirriborroak (1811-1839).
A,1,2,1,2, Udalbatzaren Akten zirriborroak (1811-1839).
A,1,2,1,3, Udalbatzaren Akten zirriborroak (1811-1839).
A,1,2,1,4, Udalbatzaren Akten zirriborroak (1811-1839).
A,2,2, Gerra. Gai militarrei buruzko zenbait agiri (1808-1810).
A,2,5, Udal karguen hauteskunde liburua (1660-1805).
A,3,1, Hauteskundeei buruzko dokumentazioa (1849-1870).
B,2,1, Sustapenerako eta biztanlegoaren erroldarako sailaren galdeketa, 1803.
C,1,1, 1842. urtea. Nekazal jabegoaren egoera, % 7aren zergarekin.
E,6,3, Euren armak karlisten eskuetan utzi dituzten bolondresen zerrendak, 1873.
E,8,17, Garai karlistako gutuneria, (1873-1875).

Gipuzkoako Artxibategi Orokorra (GAO)

SS 12, 1786: "Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honorificos de ella, los que entre ellos poseen millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa sin que tengan formalizadas sus Ydalguias".

SS 13, 1773: "Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honorificos de ella, los que entre ellos poseen millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa sin que tengan formalizadas sus Ydalguias"

JD IM 1/1/65, (1813-1815) “Expediente relativo a las publicacion de la Constitucion de la Monarquia Española, y nombramiento de Diputados a Cortes”.
JD IM 1/3/47, (1814-1817): “Expediente relativo al donativo de tercerolas, pistolas y sables para los guardias de Corps, que se construyeron por cuenta de la Provincia en la fabrica de armas de Eibar”
JD IM 1/6/24, 1766: “Correspondencia de los pueblos con motivo de las carestia de los granos y el tumulto”.
JD IM 1/17/68, 1810. Bonapartiarren okupazioren ondorioei buruzko dokumentazioa.
JD IM 1/22/8, 1796: “Espediente relativo al incendio de la villa de Eibar en la invasion francesa del año 1794 y ayuda dada por los pueblos a su reedificación en virtud del acuerdo de la Junta de Segura de 1796”
JD IM, 2/1/11, 1808 “Expediente relativo al repartimiento de un millón cien mil reales, hecho por la Provincia entre particulares, para la subsistencia de las tripas francesas, en calidad de préstamo reintegrable”.
JD IM, 2/9/26, 1814: “Cuentas de Eibar”.
JD IM, 2/21/97, 1803: “Correspondencia relativa a la pretensión de la villa de Eibar de que se trasladase a ella, la fábrica de armas de Placencia”.
JD IM 2/21/119, 1826: “Otro relativo a las cuestiones ocurridas entre el Director de la fabrica de armas de Placencia y los fabricantes de escopetas de Eibar, sobre una orden dada por el primero para que no se pudiesen vender estas sin preceder la prueba de las mismas en dicha fabrica, y permiso del mismo Director para su expendicion (sic)”.
JD IM 4/12/18, 2 kutxa, (1820-1823): Hirurteko Liberalean, Eibarko hauteskundeei buruzko informazioa.
JD IM 4/12/30, 1820: Eibarren, ardoaren erremate eta salmenta librearen arteko eztabaidari buruzko dokumentazioa.
JD IM 4/12/45, 2. kutxa, 1821: “Correspondencia de los Alcaldes sobre el armamento de la milicia nacional contra la facción levantada en Salvatierra”.
JD IM 4/12/45, 2. kutxa, (1821-1822): “Gastos de la milicia que salió para el puerto de Arlaban”.
JD IM 4/12/65, 1821: 1821eko udal hauteskundeei buruzko dokumentazioa. Bigarren alkatea izendatzearen inguruko auzia.
JD IM 4/12/118, 1823: “Expediente relativo a las fortificaciones de varios pueblos de la Provincia”.
JD AIM, 281, “Copiador de los pliegos trimestres remitidos al Ministro de la Gobernación por el Sr. de Villafuertes, Jefe Politico de la Provincia de Guipúzcoa”
JD AIM 302, 1824: “Cuenta que se le forma al Ayuntamiento del año 1812”.
JD AIM, 417, (1873-1875) “Reclamaciones con motivo de los daños causados a los carlistas por los Republicanos”.
JD AIM 578, (1874-1875): “Condiciones impuestas a los armeros obligados al servicio de las armas”.

JD IT 7 b, 1875: Armaginen salbuespenari buruzko gutuneria.
JD IT 26 c, 8, 1873: "Cuenta presentada por el Administrador General, de los gastos ocasionados por las partidas que operaban sobre Eibar".
JD IT, 328, b, 6, 1873-1874: "Estados relativos a los mozos de la villa de Eibar obligados al servicio de armas. Expedientes de condonacion de multas aplicadas a desertores y emigrados".
JD IT, 992 a, 11, 1858 "El ayuntamiento de Eibar pone en conocimiento de la Diputación que la Audiencia Territorial de Burgos le ordena que entregue las numerarías al actual escribano de la misma, León Bazterra, persona no de confianza del Ayuntamiento, y solicita que la Provincia, como propietaria de las mismas le ampare".
JD IT, 992, a, 24, (1846-1848): "Recurso dirigido al Gobierno de SM por los Alcaldes de Placencia, Elgoibar, Eibar, Ermua sobre la retencion de unas escopetas fabricadas en Eibar por el artista D. Antonio Guisazola, eran dirigidas al interior previo conocimiento y certificado de la autoridad local segun se acostumbra desde algun tiempo a esta parte, a fin de evitar todo inconveniente".
JD IT 3798 a, 35, 1812: "Suministros hechos esta noble villa de Eybar, en raciones de pan, vino, carne y demas que se expresaran por menor a la compañía de D. Gaspar Jáuregui, Comandante Coronel de los Voluntarios de la Provincia de Guipúzcoa; desde la fecha de 26 de Diciembre de 1811 hasta 31 de Diciembre de 1812".
JD CO 55, (1797-1798): "Copiador de Oficios".
JD CO 75: "Copiador de la Diputacion Provincial de Guipuzcoa con los Exmos. Sres. Ministros desde Abril de 1820 hasta marzo de 1822".
CO CRI, 1. kutxa, 1821. urtea: Betolaza alkatea Felipe Ibarzabalen aurka, autoritatea iraintzeagatik.
Corregimiento, Elorza, Civiles, 4984, 1804: Esteban Arrazola Oñate Juan Andres Lascurainen aurka, Isasiko Jauregia husteko.
Diputación Carlista, CA 48, 38, 1838: "Vigilancia Pública del Distrito de Eibar. Informes sobre eclesiásticos de Eibar y de Elgoibar".
Diputación Carlista, CA 56, 11, 1837-1838: "Cuenta de la administracion de los bienes embargados".
Diputación Carlista, CA 121, 19, 1835: "Nomina de los maestros asentistas y oficiales del gremio de cañonistas de la Fabrica de armas residentes en la villa de Eybar".
Diputación Carlista, CA 202, 13, 1836 "Causa criminal de infidencia contra Lorenzo de Arruti y Ramona de Ibazeta, vecinos de la villa de Eibar y Elgoibar por el transporte de una parte de quintales de hierro a los enemigos y fraude de ocultacion de los que se encontraron en sus propias cajas. Juez Comisario Vigilancia Pública de Eibar".

Diputación Carlista, CA 205,1, 1835: "Imposición y ejecución de multas a los enemigos del Rey, comprendidos en las listas nominales confeccionadas por los Ayuntamientos: Albistur... Eibar".

Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxibategia (BFAA)

Administración, AJO 1263/011, 1794-8-17: "Representación de la villa de Eybar y Elgueta de la Provincia de Guipúzcoa hechas a este Señorio, solicitando la unión a él, y sus leyes forales".

Administración, J 00223/110, 1823: Julian Kortesenaren atxiloketa Ondarroako portuan.

Judicial Corregimiento, 0126/010, 1773-10-5/1775-2-4: "Escritura de poder otorgada por Josefa Ignacia Alzolaras en favor de Juan Andrés de Lascurain, en Guetaria".

Judicial Corregimiento, 1061/138, 1788-02-00/1789-1-1: Laskurain Ibarrako maiorazgoaren administrari bezala, Lemoako eta Bediako herritarren aurka, Zornotzako Arizueta zelaian egurra moztu eta ezkutuan ateratzeagatik.

Judicial Corregimiento, 1719/005, 1778-2-11: Laskurain, Juan Matías Barroetaren administrari modura, Ibarruriko elizatearen aurka "por la pertenencia de varios seles".

Judicial Corregimiento, 2203/005, 1779-5-11/1780-5-9: Alzolaras getariarra, alarguna, Zornotzako bi herritarren aurka "sobre arrancamiento de cajigos de unos terrenos pertenecientes a la caseria de "Zubipunta", Zornotzan.

Judicial Corregimiento, 4016/020, 1770-1-29: "Traslado de la escritura de poder otorgada por Juan Andrés Lascurain, vecino de la villa de Eibar, como apoderado de los bienes de Juan Matías de Barrueta Aldamar, vecino de la de Guetaria, dueño y poseedor de varios bienes del mayorazgo de Ibarra", Zornotzan, "sobre tala de distintos árboles en el citado mayorazgo".

Judicial Madariaga, 0365/064, 1846: "Testimonios de la causa de aprehension de veinte y un bultos aprehendidos por el Resguardo de Carabineros de esta provincia a D. José Ramón Gaviola vecino de Eibar, en dicho pueblo y su misma casa de generos de licito e ilicito comercio el día primero de marzo del corriente año".

Judicial Madariaga, 0472/010, 1814-10-03: "Julian de Cortesena, información sobre nobleza y oriundez".

Judicial Madariaga, 0786/037, 1841-12-01: "Juan Bautista de Areitio, vecino de Bilbao, a fin de acreditar que la Junta de Armamento y Defensa del Señorío le obligó a ir a Eibar a decir a los armeros que podían presentar sus fusiles en la Diputación rebelde para su venta".

Judicial Madariaga, 0806/004, 1826-04-12: Gabriel Ibarzabal "curador ad litem" de Florencio Arizmendi (de nacion "francés"), residente en Lequeitio, contra la Marquesa de Narros, sobre pago de 100.000 reales.

Judicial Madariaga, 0936/003, 1787-05-05: "María de Ereño contra Maria Francisca Eizaguirre, cuya hija es Bibiana Ibarzabal".
Judicial Madariaga, 1316/030, 1846-03-07: "Juan Martín "El Empecinado", tte. de carabineros de Bilbao, pide tasación de 22 fardos de género que aprehendió en Eibar.
Judicial Madariaga, 1397/019, 1837-07-06: "Juan Ramón de Arana solicita información de testigos sobre el incendio de la casa de "Isasi" por los facciosos".
Judicial Madariaga, 1561/023, 1838-06-22: "Pedro de Mendicute, alias "Arando", armero de Eibar, acusado con otros por el Corregidor".
Municipal Bilbao Sección Antigua, 0333/001/009/007, 1810-02-23: Thouvenot jeneralaren agindua, Josef Ignacio Abadiaren erailketa dela eta, eibartarrak zigortzeko.
Municipal Bilbao Sección Antigua, 0098/012, 1842: "Expediente tramitado por el Ayto. de Cenarruza (...) por el rescate del abad y canónigos de la Colegiata de Cenarruza, detenidos por la Guardia Urbana y trasladados a Eibar".
Municipal Bilbao Sección Antigua, 0301/001/001, 1835: "Relativo a la conveniencia de restablecer la fábrica de armas en Eibar".
Municipal Bilbao Sección Segunda, 0469/008, 1835: "Lista de los Guardas Nacionales de la villa de Eibar que se han hallado en el sitio y bombardeo de esta Plaza (de Bilbao)".

Koldo Mitxelena Kulturuneko Fondo Gordeen Gela (KMKFGG)

C-425 F-17: "A nombre de la N. y L. Villa de Eibar, José Joaquin de Aguirre, en memoria a la conquista de nuestros augustos soberanos don Fernando 7º y doña María Josefa Amalia su esposa. En zorcicos".
091.APA, 108. dok.: El Cura Santa Cruz. Recortes de prensa en 1926 y 1927.
091.APA, 109. dok.: DORRONSORO, Miguel: *Lo que fueron los Reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los Fueros de Guipúzcoa*.
091.APA, 143. dok.: Reseña de la "Memoria dirigida al gobierno español sobre planes y operaciones puestos en ejecución para aniquilar la rebelión en las Provincias del Norte de España"

Bergarako Udal Artxibategia (BUA)

C/104: "Eibar: Historia de la invasión del enemigo"
C/127-94: "Declaración de Felix de Olabe, cura y beneficiado de la iglesia parroquial de San Andrés de la villa de Eibar, en la causa criminal que le ha puesto Juan Andrés de Lascurain, vecino de la misma, por injurias"

Irungo Udal Artxibategia (IUA)

A,1,41: Udalbatzaren Akta Liburua, 1796.
A,1,69: Udalbatzaren Akta Liburua, 1824.
A,1,77: Udalbatzaren Akta Liburua, 1831.

Madrileko "Archivo Histórico Nacional" (MAHN)

Leg. 6327 / Exp. S.N. (1794-1798): "Autos formados y remitidos al consejo extraordinario sobre sospechas de infidencia contra su patria y adhesión y comunicación con los franceses. El comandante general de las tropas del señorio de Vizcaya contra Juan Andrés de Lascurain, natural de Eibar, Labrador y perito agrimensor"

Leg. 12559.

Leg. 29484 / Exp. S.N. (1813-1814): "Juan Cruz de Aramburu, natural y vecino de Eibar, sobre que se le nombre escribano del número de dicha villa".

Leg. 52.204 / Exp. S.N. (1847): "Causa contra Manuel Garate casado y vecino residente en Eybar en Guipuzcoa sobre haberle ocupado tres pistolas nuebas de seis cañones cada una fabricadas por el mismo en su casa de Eibar y que intruducia (sic) para vender en esta capital"

"Real Academia de la Historia"ren Artxibategia (RAHA)

Fondo Vargas Ponce, 4-4199.